# Egungo Euskararen Hiztegia

## —J—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**ja**[1] *(651 agerraldi, 70 liburu eta 268 artikulutan, orobat* ***ya*** *g.er.)* **1** *adlag* dagoeneko. ik **jada; jadanik**; ik **honezkero**.

- **-Ja** ez nauzu maite? Eskarne Mujika
- **Ja** bost hilabete izango ditu... Pablo Sastre
- Usain horietara ohitu naiz; **ja** ez ditut aditzen. Eskarne Mujika
- Tabernara, **ja** ez naiz hain sarri joaten. Eskarne Mujika
- Ez naiz **ja** espia bat. Matías Múgica
- Eunea herria **ja** gibelean daukat eta pista hertsituz doa. Piarres Aintziart
- Erromesak **ja** arribatuak dira helmugara. Piarres Aintziart
- Segi barrura, hor ez daukak **ja** zer eginik eta. Pablo Sastre
- Donazaharre, Izpura segidan eta **ja,** Donibane Garazi. Piarres Aintziart
- Eta **ja** amaitutzat daukat bidea. Piarres Aintziart
- Eta bigarren aldia da **ja** . Fernando Morillo
- Gu danbarrada guztiaren ondoko umeak gara **ja** . Joxe Azurmendi

**2** (iraganaldiko testuinguruetan) orduko.

- Mutila ez zen **ja** mutil, gizon heldua baizik. Eskarne Mujika
- Ez nion **ja** ere sinesten. Aingeru Epaltza
- Ametsak **ja** harrapatua ninduen. Piarres Aintziart
- Eta nik..., nik **ja** ezin nuen gehiago. Antton Olano
- Berandu heldu ziren promesak eta damuak: **ja** ez zegoen atzera bueltarik. Karlos Linazasoro
- Orduko haiek jabetuta baitzeuden niri itzuri zitzaidan gauza batez: **ja** ez ginela gizaki libreak, Autoritatearen mende geundela han. Karlos Linazasoro
- Eta ni berari begira eta karpa baino ixilago nengoan, eta **ja** zeharo etsi eta **ja** harengandik ezer espero ez nuenean, bat-batean etxera lagunduko al nion galdetu zidaan... Pablo Sastre
- Joanden asteko HERRIA-n, **ja** hori azpimarratzen ginuen. Herria

**3** bai.

- **-Ja** -esan zuen Irenek, barreari eutsiz-. Fernando Morillo
- **Ja,** badakit, lagunak eta zabor hori guztia. Anjel Lertxundi
- **-Ja** . Fernando Morillo
- Adar jotze bat da, bueno, **ja,** nire bizitza adar jotze handi bat da, hasieratik bukaeraraino. Koro Navarro
- **"Ja!",** egin diot, baina ez etsipenez, zer esan nahi didan ulertu-edo diodalakoan baizik. Anjel Lertxundi
- **"Ja!",** egin dut ostera, esan nahi zidana ulertu dudala adierazteaz gainera, aurrera jarrai dezala animatuz. Anjel Lertxundi

---

**ja**[2] **1** *interj (errepikatua)* kar. ik **jaja**.

- **-Ja, ja, ja,** entzun duk, egarriak zagok gure bezeroa! Koldo Izagirre
- **Ja, ja, ja** ! -eta oratu egin zion eskutik, higuin eragin zion herrenari-. Koldo Izagirre
- Erosketak egin, **ja, ja, ja** . -Hemen ez daukazu arriskurik, ez zara leihotik behera eroriko, **ja, ja** ! Koldo Izagirre
- -Nola? a, **ja, ja** ! jo, mutil, hori umoria daukazuna! Joxean Sagaztizabal
- Ondo, ondo nagok, ondo izorratuta noski, **ja, ja** . Iban Zaldua
- Zuek merezi duzue santu euskaldunen izena, eta ez orain aldarean dauden horiek, eta gutxien-gutxiena, jakina, nere izeneko [Iñaki] (eta neure herritar) santu anti-euskaldunak **(ja, ja!;** barkatu: kar, kar!)! Iñaki Segurola
- **Ja, ja, ja, ja** ! Iñaki Arranz

**2** ***ja jai*** *interj*

- - **Ja, ja** jai...! Unai Iturriaga

**3** ***jaa/jaaa*** *interj*

- **Jaa** ! san Martin aurretik erein ez nindutelako!, erantzun omen zuen hark. Pello Zabala
- Denek aho batez egin zuten **"Jaaa!"** Daniel Landart

---

**ja**[3] *iz*

- Gaskoiei lanik gabe konprenitzen genien; haiek guri, **ja** ere ez. Aingeru Epaltza

---

jaa/jaaa ik **ja**[2].

---

**jabal** **1** *izond* itsasoaz mintzatuz, barea.

- Itsaso **jabala** eta haize onak gozatuko ditugu. Berria - Ekonomia
- Itsaso **jabalaren** lausengu traidoreak. Xabier Amuriza
- Oroitu nuen neure Italiarako itsasaldia, ezin bareagoa eta ezin **jabalagoa** . Joan Mari Irigoien

**2** barea.

- Morroi **jabala** zela, nirekin jolastea gustukoa zuena. Bego Montorio

Itsasoa utzi, lehorrean gelditu eta bizimolde bareago eta **jabalago** batean sartu. Joan Mari Irigoien

**Jabalago** barnea, hatsa hobeki hartzen dut. Berria - Kultura

**3** (adizlagun gisa)

Hurrengo urteak trankil eta **jabal** joan zitzaizkidan. Joan Mari Irigoien

Izaki bitxiaren aitzinean nengoen, hein bat **jabal**. Itxaro Borda

Serbiako armadari dei egina dako bazterren **jabal** zaintzeko Serbiaren eta Mazedoniaren mugan. Herria

• **4** *iz* higidurarik eza.

Baldin eta Bidearen osotasuna ulertzen ez badugu, mugimenduak edo **jabalak** hutsegitera garamatzate. Itxaro Borda

Mugimenduan edo **jabalean** geldo, nola dasta Batasuna? Itxaro Borda

**5** baretasuna.

Platonen kobazulo historikotik irten dugu "arrazoiaren" egun--argira, baina egun-argitan, ez **jabala,** ekaitza ari du gogor. Joxe Azurmendi

**6** (hitz elkartuetan)

-Gaixo honi **jabal**-belarra edanaraz iezaiozue, otoi. Itxaro Borda

---

# jabalaldi *iz* barealdia.

Itsasontziko marinelak, **jabalaldiaren** zergatia ulertu ezinik, ezkutuko indarren bat aurka zutela pentsatzera iritsi zirela. Felipe Juaristi

**Jabalaldian** ere, musikarik gabe, isiltasun hilgarrian, hondora jo daiteke, hori ere pentsatu zuen da Ruak. Felipe Juaristi

Zeren gizona baretasuna eta **jabalaldia** izan baitaiteke, baina ekaitza ere izan daitekek. Joan Mari Irigoien

---

# jabalarazi, jabalaraz, jabalarazten du *ad* jabaltzera behartu, barearazi.

Eta, Markosen nigarrak enea **jabalarazten** zuela, erran nion Mattini. Joan Mari Irigoien

---

# jabaldu, jabal, jabaltzen **1** da/du *ad* itsasoaz edo haizeaz mintzatuz, baretu.

Gero, bat-batean, haizea **jabaldu** zen eta itsasontzia gelditu, ez aurrera ez atzera. Felipe Juaristi

**2** baretu. (norbait)

Izuturik, kontatu zion senarrari, eta honek ihardetsi zion ezen **jabal** zedila eta sosega zedila. Joan Mari Irigoien

Neure harridura herabeaz jabetzean **jabaldu** zen neska. Itxaro Borda

Txoko "ama, lasai"ka ari zitzaion baina emaztea ez zen ondorik ere **jabaltzen**. Itxaro Borda

Hemen ez du harriak harritzen eta goratasunak burtxoratzen, baizik eta murruen eta sabaiaren eztitasun margotuak so egilea **jabaltzen**. Piarres Aintziart

**3** (zerbait)

Hil-zeinuak bihotzen taupadak **jabaltzen** zituen, alabaina. Itxaro Borda

Biharamunean haserrea pixka bat **jabaldu** zitzaion, zentzatu zen eta eskopetarik gabe joan zen medikuaren etxera. Gotzon Garate

Egia erran, harentzat neukan aiherkundea pixka bat **jabaltzen** hasia zitzaidan. Daniel Landart

Iluntasunak ez zuen Joanesen beldurra nehondik ere **jabaltzen**. Eneko Bidegain

Musuzapi zuri bat atera eta ahora eraman zuen eztulaldia **jabaltzeko**. Anjel Lertxundi

Hala, gosea doi bat **jabaltzen** zitzaion. Eneko Bidegain

Farmazietan, akidura erraldoiaren eta demagun amodiozko penen **jabaltzeko** patxak salduko balira. Itxaro Borda

Erruki, andrea, **jabal** ezazu, otoi, nire arimaren asaldura. Jon Muñoz

Apezak jokoa **jabaldu** nahi zuen. Itxaro Borda

**Jabal** litazkeela herri ainitzetan diren auziak. Herria

Iskanbilek pixka bat **jabaldu** direla. Gotzon Garate

Nahi zuen lehenik bazterrak osoki **jabal** ziten bederen bi egunez. Herria

Boli Kostan ez dira bazterrak **jabaldu** azken denbora hautan, nahiz suaren baratzea onartua zuten etsai diren bi alderdiek. Herria

Zainak **jabaldu** zitzaizkidan. Itxaro Borda

Laster **jabaldu** zaie segur lehen ongi-etorrien uzkurraldi hura. Herria

Zainen tentsioa **jabaltzeko**. Itxaro Borda

[Bihozberatasuna] ez da pasio bat, Izpirituaren ahalmen bat baizik, gizakiaren Hira eta Mendekua **jabaltzen** dituena. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bazterrak jabaldu** (3); **haizea jabaldu** (3); **zainen jabaltzeko** (4)

---

# jabalduezin *(corpusean **jabaldu ezin** soilik) izond* ezin jabalduzkoa.

Enrique musugorri mozkortiari betirako agur esateko irrika **jabaldu** ezina. Txillardegi

---

# jabaldura *iz* jabaltasuna.

Erritmo neurtuak eta urrats bixi-bixiak gorputz osoari **jabaldura** eman diote. Piarres Aintziart

Horizontaltasunaren nolabaiteko **jabaldurari** gogo eta gorputz amore emanez [...]. Aingeru Epaltza

Karga-karga eginda neukan burua, ezer hausnartzeko **jabaldura** bildu ezinik bainengoen, eta ez edariaren kausaz bakarrik. Anjel Lertxundi

Hura atsedena, hura **jabaldura**! Jose Angel Irigaray

---

# jabalgarri **1** *izond* jabaltzen duena, baregarria.

Aitaren hitz **jabalgarriekin** baterat, bularreko txoria ere zerbait sosegatu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

• **2** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Ama zentzean ihes joan zitzaidan zinezko haurtasuna lehiatzen nuen, zainen **jabalgarri**. Itxaro Borda

jabalina ik **xabalina**.

---

**jabaltasun** *iz* baretasuna.

Haizea oihaletan sartzen da, logaletua izarapetan bezala, eta oihala haizearen gorputzera egokitu ondoren, haizearen **jabaltasuna** etortzen da, loaldiarekin batera. Felipe Juaristi

---

**jabaltsu** *izond* jabatasunez betea.

Eta hala zihoazkigun lehen egun haiek, baketsu eta **jabaltsu** . Joan Mari Irigoien

---

**jabaltze** *iz* baretzea.

Halako batean, Maien gelan itsas txori erraldoien heiagorak hauteman ziren, galernaren ondotik, uren eta lurren **jabaltze** ikaragarria iragarriz eta biderkatuz. Itxaro Borda

Gizonarekin harremanetan hasi eta bizpahiru asteren buruan **jabaltze** buhako epelak aditzera ematen zituen. Itxaro Borda

---

**jabari** *iz* aipatzen denaren mendeko lurraldea

Ezezagunak urrezko lepokoa zeraman dilindan, Albretarren **jabari** ziren lurralde guztien armarrien irudiez osatua: Nafarroa, Biarno, Bigorra, Foix... Aingeru Epaltza

Migelek horretaz ohartu gaberik ere jakinen zuen nor zen. Garrüze errege-**jabaria** baitzen, errege-erreginei bertan zegokien ostatu hartzea Amikuzen izan bitartean. Aingeru Epaltza

Fraide-**jabari,** [...] edukitze mota bat, erlijioso-anaidiek lurrak eskuratzeko erabiltzen dutena, dohaintza eman dien arimaren alde otoitz egiteko baldintzapean. Xabier Olarra

Ingalaterrako Henrike VIII.ak behin anaidi batek fraide-**jabariz** beretuak zituen lurralde zabal batzuk konfiskatzera bere funtzionario bat bidali zuenean. Xabier Olarra

---

**jabe** *(orobat **jaube** g.er.)* **1** *iz* aipatzen dena berea duen pertsona edo erakundea.

Eta **jabeak** etortzen badira? egin zuen berak. Fernando Rey

**Jabeek** hanka egin dute, hilabeteetako zorra utzita. Oskar Arana

Ea etekin handiak ematen zituen, ea **jabea** oso zitala zen. Ahaleginak egiten nituen **jabea** nolakoa zen irudikatzeko. Jose Morales

Lehengo **jabe** baten *ex libris*a kentzen den bezala. Anton Garikano

Sania Afifi zen, kalezuloko bigarren eraikineko **jabea** . Patxi Zubizarreta

Saltokiko **jabea** ohartu zenerako, bekoz beko zituen biak. Joan Mari Irigoien

Harryk bazkaldu ohi zuen jatetxeko **jabea** . Oskar Arana

Etxeko **jabea** zen gizon zaharrari. Elizen arteko biblia

Etxearen **jabea,** kanpoko lanetan larrua beltzu adinetako baserritarra, aulkitik zutitu zen. Elena Touyarou

Gainera bentaren **jabeak** asto ttipi bat utzi zien. Elena Touyarou

Lur-sailen **jabeak** atzerritarren kolonoak besterik ez dira izango han. Iñaki Iñurrieta

Bien arteko burruka gaizto batek erabakiko lurraldearen **jabe** eta nagusi zein gelditu. Patziku Perurena

*ik beherago* 10. Askoren artean

Ardiaren **jabeak** bizkarrak harrotu zituen. Jon Alonso

Baina batelaren **jabea** bertan da. Anjel Lertxundi

Isolda gertatu zen ilearen **jabea** . Juan Kruz Igerabide

Kexatzerakoan, gehiago estutu du uzkia, baina ipurdia jipoitzen dion zakilaren **jabea** ez dago prest irabazitako lurrik galtzeko. Juan Martin Elexpuru

Gertatzen da zure makilan dagoen isats-lumaren **jabea** zen fenixak beste luma bat ere izan zuela... beste bat bakarrik. Iñaki Mendiguren

Bozaren **jabea** urrundu eta, istant bat geroago, zorrota baten murmur bizigarria aditu nuen ez oso aparte. Aingeru Epaltza

Zapataren **jabeak** ostikoak eman zizkidan ni handik kanpora bidaltzeko. Fernando Rey

**Jabeak** aberea berreskuratu nahi badu, ezarritako prezioa eta bosteko bat gehiago ordaindu beharko du. Elizen arteko biblia

San Pedro, zeruetako giltzaren **jaubea;** zeurea txalupea, neurea sarea. Pello Zabala

Bestela, animalia konfiskatuko zaie **jabeei** . Jon Muñoz

**Jaberik** gabe zakurrak izugarri sufritzen du. Gotzon Garate

*ik* jabegabe.

Errukiz etxean jasotzen diren **jaberik** gabeko aberetxo horietako bat bezala. Josu Zabaleta

Hiria **jabez** egiazki aldatua zela segurtatu zuen lehenik. Aingeru Epaltza

**2** (izenondo eta izengalunekin)

**Jabe** nagusia Madrilen bizi duk. Bernardo Atxaga

Marcus etxalde **jabe** aberats baten semea zen. Koro Navarro

Jakin dut herriko **jabe** aberatsena haizela, lur eta abere gehienik duena. Elena Touyarou

Itxuren arabera **jabe** ahaltsua baina azken finean laboraria. Elena Touyarou

Ez **jabe** ezagunik ez lokarririk ez duen batel zaharra. Joseba Sarrionandia

**Jabe** berria dik [hire ezpatak], hire pistolak bezala. Aingeru Epaltza

**Jabe** pribatuek eskutan zituzten arma eta munizioak deklara zitzaten agintzen zuen. Elena Touyarou

**Jabe** ohiei lurra kendu dietela gero berek lau sosetan erosteko. Elena Touyarou

Gu gara gure baitan daramagunaren **jabe** bakarrak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gugandik sorturiko ororen **jabe** oso eta bakarrak garelako. **Jabe** berantetsiei ordaindu ondoan, kantari atera ginen "Playa Girón-dik". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hura bezalako etxalde baten **jabe** baketsua izango zela bera ere. Jose Morales

Horiek horrela, urte batean edo askotan, ondasun saldua **jabe** zehatzik gabe zegoen. Andres Urrutia

Lur-saila jatorrizko **jabearen** eskuetara itzuliko da, hau da, erosia izan zitzaionagana. Elizen arteko biblia

**3** (-en atzizkiaren eskuinean eta aditz baten ezkerrean)

Sen berezi baten **jabe** sentitzen nintzen. Aingeru Epaltza

Pontoko erregeak Ponto Euxinoko kolonia greziarren **jabe** bihurtu zirenean. Iñaki Iñurrieta

Milaka errubloren **jabe** jaio eta milaka errublorekin hazten denak ezin du gehiagorik irabazi. Jose Morales

Gizona da ia beti ixiltzen azkena eta, beraz, arrazoiaren **jabe** gelditzen dena. Iñaki Segurola

Ez ote zioten egingo gauza lotsagarri edo barregarriren bat, libre eta beren mugimenduen **jabe** uzten bazituen. Josu Zabaleta

· *(-ko atzizkiaren eskuinean)* Lurralde hartako **jabe** ziren Ban erregearen leinukoak: Börs, Lancelot... Juan Kruz Igerabide

Ezpatak eta Fionnek bakar-bakarrik galarazi ahal izango zuten bera munduko **jabe** eta agintari bihurtzea. Joanes Urkixo

Lur osoko **Jabe** den Jaunaren itun-kutxa. Jose Antonio Mujika

Eta egun batean, iritsi ziren gizon batzuk Euskal Herrira, eta bertako **jabe** bihurtzea erabaki zuten. Bernardo Atxaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Batzarrak badu pribilegioen eta **jabe**-eskubideen deuseztatzeko xedea. **Jabe**-ondasunek ez daukate atzera egiterik. Elena Touyarou

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Banku-**jabe** batengana joan zen -diru eske, noski- . J.M. Olaizola "Txiliku"

Benta **jabe** piratak haren aitzinean ilarrez eta odolkiz bete ontzi bat pausatu zuen. Elena Touyarou

Deabruarekin egindako tratuak zoritxarreko egiten duela liburu-**jabea**. Xabier Etxabe

Don Alejandro Glencoe, lehendakaria, sortaldeko etxalde-**jabe** bat zen, Brasilgo muga ondoan lurrak zituena. Juan Garzia

*ik beherago* 9. Askoren artean

Saboiako ardo gorria ekarri zien, kolorez ostatu **jabearen** matrailena baino ahulagoa. Felipe Juaristi

Deabruarekin egindako tratuak zoritxarreko egiten duela liburu-**jabea**. Xabier Etxabe

Eliz **jabe** laikoek. Patziku Perurena

1930eko hamarraldiko Latino Amerikako zor-tituluen baliogabetze masiboaren ondoren (europar titulu-**jabe** txiki asko eta asko kiebra jota utzi zituena), finantzaketa modu berri bat etorri zen 1970eko hamarraldian. Koro Navarro

Bereizketa bat dago, hori bai, txalupa **jabe** direnen eta ez direnen artean. Markos Zapiain

Edizio honen Copyright-**jabeen** baimenik gabe. Bernardo Atxaga

Baserri giroetako lur eta baserri **jabeen** jauntxokeria. Anjel Lertxundi

Taxi-**jabeen** elkarte sindikala. Monika Etxebarria

**6** ***bere buruaren jabe***

Arrotzei harriduraz behatu zien, harik eta, bere buruaren **jabe** eginik, eskua luzatu zien arte. Patxi Zubizarreta

Hobe eroapena adorea baino, nor bere buruaren **jabe** izatea hiriak menperatzea baino. Elizen arteko biblia

· Doña Lidia emazteki alargun bihozbera bat baitzen, buruz ongi jantzia eta bere buruaren **jabea**. Joan Mari Irigoien

· Logikak berpiztu zuen Jainkoa, sortutako fabrika berean, eta bere buruaren **jaberik** gabe dabila geroztik jende lojikoa munduan. Patziku Perurena

**7** *en* ***jabe egin*** ik **jabetu**.

Nire erreinuko herrixka askoren **jabe** egin zarete. Elizen arteko biblia

Beren makilak astindu eta munduaren **jabe** egin nahi dute [juduak] orain eta beti. Anjel Lertxundi

Lur osoaren **jabe** egingo zaitut. Elizen arteko biblia

Gudalburu haiek agintearen **jabe** egin ziren nor bere lurraldean. Elizen arteko biblia

Izen baten **jabe** eta diru baten **jabe** egitea da arrakasta. Iñaki Segurola

Ez zuen emakumeen bihotzaren **jabe** egiten direnek omen dituzten dotorezia horietatik bat ere. Josu Zabaleta

Norbait egiten da -egin behar da- betiko esana gelditzen denaren **jabe**. Iñaki Segurola

· Oraindik haiena zen mundu baten guztizko **jabe** egin ninduen legeak. Joxan Elosegi

**8** *en* ***jabe izan*** da *ad*

Lur-sailen **jabe** naiz gaztetandik. Elizen arteko biblia

Hogeita hiru herriren **jabe** izan zen Galaad lurraldean. Elizen arteko biblia

Saldu aurretik zeurea zenuen, eta saldu ondoren ez ote zinen hartutakoaren **jabe**? Elizen arteko biblia

Zer egingo zenuke munduaren **jabe** bazina? Iñaki Segurola

Anaiak ez daitezela ezeren **jabe** izan. Askoren artean

Badakigu *logos*-aren **jabe** izateak bereizten duela gizakia gainerako animaliengandik. Piarres Xarriton

Zutitu nahi dut, jaiki besterik ez, neure **jabe** naizela uste izateko behintzat. Josu Zabaleta

Tabako turkiarraren usain gozo-mikatza egin zen gelaren **jabe**. Anjel Lertxundi

Emaztea ez da bere buruaren **jabe,** senarra baizik. Elizen arteko biblia

*ik gorago* 6.

· Ezeren **jabe** gu, ororen **jabe** Herio. Anjel Lertxundi

· *mug* Gabriela atsoa baitzen bazter horietako **jabea**. Gizon mehe segaila zen Leizarraga, sudur-kako handi baten **jabea**. Aingeru Epaltza

Enperadorea ez da mundu osoaren **jabea**. Piarres Xarriton

**9** *etxe-jabe* ik **etxejabe**

**10** ***jaun eta jabe*** *pred/adlag*

Itsasoan **jaun eta jabe** zinen. Elizen arteko biblia

De Gaulle izeneko militar bat **jaun eta jabe** zela Frantzian. Bernardo Atxaga

Auto kontuetan, italiarrak dira **jaun eta jabe:** Ferrari, Maserati, Lamborghini... Jon Muñoz

Jesu Kristo, gure **Jaun eta Jabe** bakarra. Elizen arteko biblia

Max, haren seme gazteena, **jaun eta jabe** zen bere gela-zokoan. Jon Muñoz

Gizonaren noblezia, saio eta hutsegitez josiriko ehun mendetan zehar irabazia, materiaren **jaun eta jabe** egitean zetzala. Juan Garzia

Dirua **jaun eta jabe** dela. Bernardo Atxaga

· Ghiberti, Della Robbia, Brunelleschi eta Donatello bizi zituen inguruan, zein bere artearen **jaun eta jabe** harro. Juan Garzia

· *mug* Ene **jaun eta jabea,** ez gutxietsi haren hitzak. Elizen arteko biblia

Nor zen herri hartako biztanlea, haren **jauna eta jabea**? Jose Morales

Jainkoak, zeru-lurren **jaun eta jabeak,** lurra eta zerua itxi zituenean [...]. Joan Mari Lekuona

Ni **jaun eta jabeen** aldekoa banintz, [...] dudarik gabe egongo nintzateke gutxiengoen eta zapalduen alde, eta batik bat haien eskubide guztien alde. Iñaki Segurola

**11** *lur-jabe* ik **lurjabe.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arimaren jabe** (5); **arrazoiaren jabe** (5); **baloiaren jabe** (6); **bere buruaren jabe** (85); **beren buruaren jabe** (6); **beren buruen jabe** (9); **bihotzaren jabe** (15); **biziaren jabe** (7); **bizitzaren jabe** (5); **buruaren jabe** (154); **buruaren jabe egin** (8); **buruaren jabe izan** (9); **buruaren jabe izatea** (7); **buruaren jabe izateko** (12); **buruaren jabe izaten** (7); **dagozkien eskubideen jabe** (8); **denaren jabe** (6); **egiaren jabe** (12); **egoeraren jabe** (7); **eskubide guztien jabe** (6); **eskubideen jabe** (18); **etorkizunaren jabe** (12); **etxe baten jabe** (6); **etxearen jabe** (12); **euren buruaren jabe** (5); **geroaren jabe** (8); **geure buruaren jabe** (6); **gorputzaren jabe** (7); **guztiaren jabe** (14); **handiaren jabe** (7); **hitzaren jabe** (5); **izen baten jabe** (6); **izenaren jabe** (13); **jabe bakarra** (14); **jabe berria** (16); **jabe berriak** (19); **jabe berriek** (6); **jabe bihurtu** (9); **jabe bihurtzen** (8); **jabe egin** (134); **jabe egin nahi** (15); **jabe egina** (7); **jabe egingo** (26); **jabe eginik** (7); **jabe egitea** (15); **jabe egiteko** (30); **jabe egiten** (33); **jabe gelditzen** (5); **jabe izaitea** (6);

**jabe izan** (184); **jabe izan arren** (6); **jabe izan behar** (13); **jabe izan beharko** (5); **jabe izan gabe** (6); **jabe izan nahi** (8); **jabe izanen** (10); **jabe izango** (40); **jabe izanik** (10); **jabe izatea** (35); **jabe izateak** (14); **jabe izatearen** (8); **jabe izateko** (47); **jabe izateko eskubidea** (5); **jabe izaten** (12); **jabe izatera** (9); **jabe sentitzen** (5); **neure buruaren jabe** (37); **ondasunen jabe** (6); **ororen jabe** (7); **partidaren jabe** (5); **sekretu baten jabe** (6); **sekretuaren jabe** (6); **zerbaiten jabe** (8); **zeure buruaren jabe** (7)

**bere buruaren jabea** (6); **buruaren jabea** (6); **dendaren jabea** (5); **etxearen jabea** (12); **etxeko jabea** (5); **jabea bera** (6); **jabea izan** (10); **jaun eta jabea** (13)

**autoaren jabeak** (6); **dendako jabeak** (5); **dendaren jabeak** (5); **etxearen jabeak** (12); **etxeko jabeak** (6); **jabeak berak** (10); **lur jabeak** (5); **tabernako jabeak** (6)

**jabearen izena** (6)

**etxeko jabeari** (5)

**etxeen jabeek** (6); **lur jabeek** (5)

**lur jabeen** (5)

**jaberik gabe** (9); **jaberik gabeko** (5)

---

# jabearazi, jabearaz, jabearazten *(orobat **jabetuarazi** g.er.)* du *ad* jabetzera behartu.

San Bartolome eta elbiak esaldi honetan azaltzean, aspaldi **jabetuarazi** ninduten nire lagunek: Bartolome baitugu zaindari Amezketan [...] eta *elbi* baitugu gaitzizen hango herriko seme-alabok. Pello Zabala

Entzuleak bereizketa horretaz **jabearaztea** da gure lehendabiziko helburua. Txema Ramirez de la Piscina

Maitasun minez zauritutako nerabetxoak izan ohi dira ia beti, eta borreroak orduan, hitz goxoekin, egin nahi duten erokeriaz **jabearazten** ditu. Haietako bat berariaz igaro zen harengandik hurbil, horretaz **jabearazteko,** eta, bestela bezala, azaletik ukitu zuen ilehoria bere soinekoaren azpiko merinake zabalaz. Karlos Linazasoro

---

# jabedun 1 *izond* jabea duena.

Ba al dago software librea **jabedun** bihurtzeko arriskurik? Berria - Gaiak

## 2 *iz* jabe dena.

**Jabedun** gehienak beren denda, bulego eta atelierretan topatu nituen. Koldo Izagirre

Oinordetza sistema osoa aldatu beharra dago, herritarren aukera berria arin atondu behar delako **jabedun** berrien bitartez. Andres Urrutia

**Jabedun** dirudun handiek lur politikan xahutu diruaren hamarretarik bederatzi kobratzen dituzte. Herria

· Lehen hautu hori egiten dute lur **jabedun** jaun handiek, merkatua dutelarik beren jainko. Herria

---

# jabegabe *izond* jaberik ez duena.

Ez gara zakur **jabegabeak**! Karlos Linazasoro

Jabetza eskubidea, alabaina, jabearen bizitzarekin arautzen da; beraz, jabearen ostean zer gertatuko da ondasunekin, haren heriotza dela-eta ondasunok **jabegabe** badira? Andres Urrutia

Jabearen heriotza dela eta, ondasun **jabegabe** horietan ez da ikusten, lehen so batean bederen, bestelako jaberik Estatua baino. Andres Urrutia

Mundutik at dirudite lekuak direlako beharbada, lur **jabegabea,** hamaika hizkuntza entzuten dira, toki apatridak, lur frankoa bi zentzuetan. Mikel Hernandez Abaitua

---

# jabegai *(corpusean **jabe-gai** soilik)* *iz* oinordekoa.

Mikomikon-erresuma handiaren **jabe**-gaia da, belaun-oinorde xuxen-xuxenean. Patxi Ezkiaga

---

# jabego *(253 agerraldi, 62 liburu eta 54 artikulutan)* 1 *iz* jabetza, jabe izatea. ik **jabetasun**.

Zer urratsa geure buruaren **jabegorat**! Herria

Sevillako taberna hartan dantzan ari zen emakumeari begiratu, eta, nire begien **jabegoa** galdurik, urduri jarri nintzen. Felipe Juaristi

Nola bete, berez isiltasunaren eta negarraren **jabegoa** den eremua? Bernardo Atxaga

· **Jabegoari** doakiola boterea, eta indarrari, berriz, ahalmena. Piarres Xarriton

Bai handia dela mundua, Jainkoaren etxea! bai zabala eta mugagabea haren **jabegoa**! Elizen arteko biblia

Kargudunen kasuan nagusitasuna; haurren kasuan burasoen larderia; jaunaren kasuan esklaboaren gaineko **jabegoa**. Piarres Xarriton

## 2 (ekonomian)

Aitari seme-alaben ondasunen **jabegoa** kenduz. Iñaki Iñurrieta

Gas naturalaren **jabegoa**.. Berria - Mundua

Koloniaren **jabegoa** adierazten zuen frantses bandera bat zegoen bertako balkoi luzearen erdian. Anjel Lertxundi

Aduana-hesi berriez babesturik egongo ziren merkatuen **jabegoa** gordetzeko. Koro Navarro

Jakoben ondorengoek berriro eskuratuko dute beren lurraren **jabegoa**. Elizen arteko biblia

Bi etxe hoien **jabegoa** da jokoan. Xipri Arbelbide

Izuak hartuta, milioika errefuxiatuk ihes egin zuen, etxeak eta **jabegoak** utzita. Iñaki Mendiguren

Jabeak militarki ahulegiak zirelako beren **jabegoa** babesteko. Iñaki Mendiguren

Bizia inori ez zaio **jabegoan** ematen, denei erabilgoan baizik. Xabier Amuriza

Bere **jabegoko** lurraldean. Felipe Juaristi

## 3 norbait jabe den gauza, bereziki lur zatia.

Stanleyk azaltzen digu ehun akre dituela bere **jabegoak**. Oskar Arana

Lapurdiko bere **jabegoetara** lekutu zen. Aingeru Epaltza

Zuberoan ere **jabego** zabalak zituen, Ozazen eta Atharratzen. Aingeru Epaltza

Aitatxirendako, erregeren **jabegoko** lur puska bat, betiko atsedena har zezan. Aingeru Epaltza

Hor ibiltzen da bere **jabegoetan** zehar traktore gainean. Oskar Arana

Haize-ponpa eta urtegia ikustera doaz **jabegoaren** mugaraino. Oskar Arana

Bere eskarmentu gutxiagatik ez zuen bere **jabegoa** ondo administratzen asmatu. Josu Zabaleta

Bazen lapurra zigortu beharrean lapurtua zigortzen zuen herri bat, horrela bere **jabegoa** hobeto zaintzen ikas zezan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emakumeak norberaren **jabegotzat** hartzen duten gizonezkoen jokabidea dago bestetan gertatzen diren bortxaketen atzean. Berria - Harian

## 4 (izenondoekin)

Ekoizpen baliabideen **jabego** pribatua, merkatu askatasuna eta enpresa askatasuna. Iñaki Heras

**Jabego** pribatua ezabatuz gero askatasuna eta berdintasuna ziurtaturik zeudela betiko. Joxe Azurmendi

Sistema sozialista edo plangintzapekoa, ekonomiaren ekoizpen eta banaketa bideen **jabego** kolektiboan oinarritzen dena. Iñaki Heras

Iritzi sediziozkoa da herritar partikularrek **jabego** edo nagusitasun absolutua dutela beren gauzen gainean. Esteban Antxustegi

Nazio Produktu Gordina, berriz, **jabego** nazionaleko produkzio faktoreek denboraldi jakin batean ekoitziriko ondasun eta zerbitzuen merkatu balioa [da]. Iñaki Heras

Patenteak, **jabego** intelektualaren eskubideak. Berria - Mundua

Zuek izango zaituztet herri guztien artean neure **jabego** berezia. Elizen arteko biblia

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Israelen, antzina, jabegoa erosi edota **jabego**-eskubidea eskuz aldatzen zenean, honela egin ohi zen: [...]. Elizen arteko biblia

Eta hala aipatuko ditu biztanlerik ia gabeko islon **jabego** problema ugariak. Joseba Sarrionandia

Erabateko ukapena **jabego**-izpirituari gauza guztietan. Joan Mari Lekuona

Gure atxikitasunean badelako halako gurekoikeria eta **jabego**-irrika bat. Joan Mari Lekuona

Familia **jabego**-modu bat da. Iñaki Iñurrieta

**Jabego** mota horrek baztertu egiten duela gauza horien gainean beste gizon guztiek izan zezaketen eskubidea, herritarrak nahiz Estatua izan. Esteban Antxustegi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Beren lur **jabegoak** defendatzeko. Berria - Mundua

Lur **jabegoaren** aldaketa egitekoan. Patziku Perurena

Italiaren hegoaldeko muturrean zeukan landa-**jabegoa** monasterio bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**jabego berezi** (4); **jabego berezia** (3); **jabego intelektuala** (5); **jabego intelektualaren** (6); **jabego pribatua** (8); **jabego pribatuaren** (3)
**gasaren jabegoa** (8)
**gasaren jabegoaren** (3); **hiri jabegoaren** (3)
**jabegotzat hartzen** (3)

---

## jabegodun *iz* jabegoa duena.

Fanatikeria erlijiosoaren basakeria gorpuzten zuen, krudelkeria militarrena, klase **jabegodunen** gutizia. Koldo Izagirre

---

## jabegotza *iz* jabetza.

Hauek dira onartzen zaizkien eskubide nagusiak: euren lurraldeekiko **jabegotza**; [...]. Pako Aristi

Jaio ere biak ala biak Raduan Husainiren **jabegotzako** etxe berean jaio ziren, baina Abas adiskidea baino hiru urte zaharragoa zen. Patxi Zubizarreta

---

## jabekidetasun *iz* zenbaiten arteko jabetasuna.

Batzuen ustean, bereizgaitzen elkarte horrek (hala erraten zioten orduan) ondasunen **jabekidetasuna** omen zuen funtsezko legea, eta amodioa bera ere haren peko jarria omen zuten. Jon Muñoz

---

## jabekizun *iz*

Orobat, ezkonduz geroztik Leturiak badu Miren, berea da, ez du dagoeneko **jabekizun**. Berria - Kultura

---

## jabekoi *izond* jabetzeko joera duena.

Ama **jabekoia** dauka, alabarengan jarriak zituen esperantzak hautsi zaizkiolako, Erikak ofiziozko nazioarteko pianista bilakatzeko azterketa huts egin duelako, are **jabekoiagoa**. Berria - Kultura

---

## jabekuntza 1 *iz* hizkuntzez mintzatuz, haren adierazpen baliabideen jabe egitea.

**Jabekuntza** / ikaskuntza (ing. *acquisition / learning*) modu ezberdinetan erabiltzen den termino bikotea da. Lourdes Oñederra

Autore batzuek ikaste naturala **(jabekuntza)** eta formala (ikaskuntza) bereizteko erabiltzen dute; beste batzuengan, **jabekuntza** lehenengo hizkuntza (H1) ikasteari dagokio eta ikaskuntza, bigarren hizkuntza (H2) ikasteari. Lourdes Oñederra

Horretarako, ingelesaren **jabekuntzan** areago bortxatu behar dira aukera fonetiko oinarrizkoenak. Lourdes Oñederra

Funtsean, unitate eta kontraste gehiago behar dituen hizkuntzak bilakabide gehiago gaindiaraziko ditu, ahoskeraren **jabekuntza** burutzeko. Lourdes Oñederra

**2** (hitz elkartuetan)

Hurbileko saila dugu hizkuntz **jabekuntzaren** esparrua ere. Lourdes Oñederra

Oharmena vs. ekoizpena hizkuntz **jabekuntzan**. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**hizkuntz jabekuntza** (3); **hizkuntz jabekuntzan** (5)

---

## jabeldu, jabel, jabeltzen zaio *ad* zuzendu.

Beharrik, beharrik, Joanesen lan taldeko arduraduna, belgikar bat, segidan **jabeldu** zitzaion, baizik eta taldeko langilerik hoberena zuela, haren behar gorria zuela eta, beraz, bakean uzteko. Eneko Bidegain

---

## jabetasun *(51 agerraldi, 20 liburu eta 14 artikulutan)* 1 *iz* jabetza, jabe izatea. ik **jabego**.

Zirraraturik geratu zen neskato hark zeukan bere buruaren **jabetasunarekin**. Joxemari Iturralde

Batzuek etxetik dakarte euskara, beste batzuek EGAk eman die hizkuntzaren **jabetasuna**. Pello Salaburu

Gozatzeko eskubideaz ari naiz eta ez **jabetasunaz**. **Jabetasunak** gozamena ukatzen du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Jabetasuna** eraikin baten edo abere baten gainean gauza daiteke bakarrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **jabetasunean** eta bere nagusitasunean balu bezala bere betetasuna eta bere biribiltasuna. Joan Mari Irigoien

Zaindu nahi dugu **jabetasuna** eta zentzuz eraman jabe/etxetiarren arteko harremanak. Herria

· Inchausperen jaun eta **jabetasunarekin** eskuin egon den kantonamendu huni, ezkerreko eta abertzale aterabide berri batzuen proposatzeko xedearekin agertzen gira hauteskunde hauetarat. Herria

**2** (gauza fisiko batena)

Ez baitzuten sinesten balizko olaren balizko irabaziak lurraren **jabetasunetik** jaso izan zituztenak baino handiagoak izan zitezkeenik. Joan Mari Irigoien

Jean Etxauzko bizkondeak zuen orduan eliza honen **jabetasuna**. Michel Oronoz

Bazirudien, beraz, bizitzak Leireri lur txiki baten **jabetasuna** eman ziola. Joan Mari Irigoien

Palestinarrek ez dute etsitzen, beren lurraren **jabetasuna** hainbertze trabatua balinbadute ere. Herria

Badakigu Europaren kontra direla aspaldian ; lehenbiziko biek beti kontra bozkatu dute ez baitute nahi Frantziak gal dezan bere **jabetasunaren** miko bat ere. Herria

**3** (izenondoekin)

**Jabetasun** intelektualaren legea lege bat da. Iñaki Segurola

Gasnaren **jabetasun** psikologikoak bazuen oinarri sozio-kultural indartsua. Itxaro Borda

Yvesen **jabetasun** pribatua errespetatzen zen. Itxaro Borda

Sony-ri kasik urririk emana izan zitzaion eremuaren erdia [...] Alemaniako Ruwel enpresak eskutan dauka orain **jabetasun** osoz. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bidean iturri bat aurkitzen dudanean, ez dut inolako **jabetasun** eskubiderik iturri horren gainean, baina bai hartaz gozatzeko eskubide ukaezina. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sekula ezin da **jabetasun** ekintza bat izaki libre baten gainean gauzatu; esklaboak edukitzea bezain injustua da emakume bat norberarentzat bakarrik edukitzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

*Possessive sentiments* deitu diote, **jabetasun** sentimenduak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hark bere izate guztia uzten du, baina honek, ostera, bere burua eta **jabetasunen** zati bat darama. Juan Martin Elexpuru

Erabateko **jabetasun**-ezak eta pobretasunak poza eta bakea eskuak betean ematen dutela. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantziako Iraultza handiaren aintzineko egoeraz, orduko jendeen eskubideez, lur **jabetasunaz,** familien segidatzeaz eta denbora heietako erakundeez. Herria

**6** *buru-jabetasun* ik **burujabetasun.**

---

**jabetu,** jabe(tu), jabetzen **1** da *ad* zerbaiten jabe egin edo bihurtu, norbaitek zerbait beretzak hartu. ik**beretu**; **jaundu**; **nagusitu.**

1512ko uztailaren 24an, Albako dukea Iruñeaz **jabetu** zen Fernando Aragoikoaren izenean. Aingeru Epaltza

Eta Trifon, elefanteez baliatuz, Antiokiaz **jabetu** zen. Elizen arteko biblia

Ondotik Antso Gartzia gazteluaz **jabetu** zen. Piarres Aintziart

Josueren gidaritzapean lurralde hartaz **jabetu** zirenean. Elizen arteko biblia

Nik igoarazi zintuztedan Egiptotik, eta basamortuan zehar berrogei urtez gidatu, amortarren lurraldeaz **jabe** zintezten. Elizen arteko biblia

Mezkita edo santutegietan berdin, jaunaren lurra denez, ortutsik sartu beharra dauka, haren esanera datorrela adierazteko, eta ez haren lur sakratuaz **jabetzera**. Patziku Perurena

Eta harekin ezkondu zelarik, gauean hartaz **jabetu,** mintza urratu, eta egunsentian hilarazi egin zuen. Patxi Zubizarreta

Mikel Strogoffek zaldi horietako batez **jabetzeko** burutazioa izan zuen lehenik. Karlos Zabala

Diruaz ikastola **jabetu** zen. Iban Zaldua

Orduan diskoaz **jabetzeko** irrika sentitu nuen. Juan Garzia

**2** (gauza abstraktuez edo irud)

Ehun urte geroago, sobietek, botereaz **jabetu** ondoren, [...]. Monika Etxebarria

Ez ziren nire bihotzaz **jabetu,** ez nien nik eskuaz musurik bidali. Elizen arteko biblia

Gorputz-atal guztiez **jabetu** berri zitzaion hotza kentzeko. Anjel Lertxundi

Bagoiaz **jabetu** den argiaren arabera, zeruak arnasa hartu duela ematen du. Anjel Lertxundi

Ez dakit nire hitzen zentzuaz **jabetu** ote zen. Ramon Saizarbitoria

Orduan, eutsi ezineko gogo bizi bat **jabetu** zen nitaz. Eduardo Matauko

Baina beldurra diot sortzera doan horri, nitaz **jabetu** eta auskalo-nora eramanen nauen horri. Monika Etxebarria

Hala bada, isiltasunik erabatekoena **jabetu** zen kalezuloaz. Patxi Zubizarreta

Sinetsita zeuden deabrua **jabetu** zela hiltzen zegoenaren gorputzaz. Askoren artean

Zirt edo zart egin behar eta, gorputzaz baino areago gogoaz **jabetu** zitzaidan bizitasuna alferrik ez galtzera deliberatu nintzen, zetorrena zetorrela. Aingeru Epaltza

Bat-batean, [...] musikaren egilea asmatu behar setatia **jabetu** zen nire arretaz. Anjel Lertxundi

• **3** (gauza abstraktuez edo irud; zait ad)

Non edo han espiritua **jabetzen** zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor gelditzen da. Elizen arteko biblia

Beldurra eta ikara **jabetu** zaizkit, dardara batean nago. Elizen arteko biblia

Ur garden haietan murgildu behar larri bat **jabetu** zitzaion ehiztariari. Josu Zabaleta

Gero, gauak berriro mendia estali zuenetik, bestelako izumen berriak **jabetu** zitzaizkion. Josu Zabaleta

• **4** da *ad* norbaitek, gertatzen edo esaten zaiona, edo irakurtzen duena atzeman, norbait zerbaitez konturatu.

Ea **jabetzen** haizen, oraindik **jabetu** ez bahaiz. Xabier Olarra

**Jabetu** ginen gu ere noizbait. Andoni Egaña

Jauna! ez zara **jabetzen**? Berria - Kirola

Gu ikusi orduko **jabetu** zen. Juan Kruz Igerabide

Zergatik ez ote zen garaiz **jabetu**? Oskar Arana

Aurreiritzi horrek, edo aurreikuspen horrek itsututa, Florentzia edo Pariseko astronomo haiek ez ziren ezertaz **jabetu..**. Bernardo Atxaga

Biek batera hitz egiten diote, baina ziur nago bera ez dela ezertaz **jabetzen**. Juan Martin Elexpuru

Egin duen bekatuaz **jabetzean,** elkarte osoak zekorra eskainiko du barkamen-oparitzat. Elizen arteko biblia

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; ilun gertatzen zitzaien, eta ezin ziren esanahiaz **jabetu**. Elizen arteko biblia

Esaldia guztiz argia zen arren, Ruche jauna ez zen **jabetu** haren esanahiaz. Jon Muñoz

Hemen gertatzen denaz ongi **jabe** zaitezten. Elizen arteko biblia

Bere egoeraren larriaz eta izugarritasunaz **jabetzen** saiatu zen. Jose Morales

Uste genuen bere ahizparen gaixotasunaz **jabetu** gabe zegoela. Bernardo Atxaga

Tentetnikov laster **jabetu** zen egoeraz, eta utzi egin zuen lagunarte hura. Jose Morales

Husaini ongi **jabetu** zen bestearen ezusteaz eta nahasmenduaz. Patxi Zubizarreta

Sentitzen nuela esan nion, nahiz eta, egiaz, ez nintzen egindako kalteaz **jabetu**. Ramon Saizarbitoria

Baina gerora **jabetu** nintzen, oso gerora, zerrendatze-mota honen balio egiazkoaz. Andoni Egaña

Noizbait ere, **jabetu** nintzen: gu denok, gaztetxoa eta andrea, agerpen bat ginen, nire oroimenak leku desertu hartara ekarritako fantasma taldea. Bernardo Atxaga

**5** (esaldi txertatu batekin)

Baina ez ziren **jabetu** Aitaz mintzo zitzaiela. Elizen arteko biblia

Tom azkenean **jabetu** zen ez zeukala bere baitan hura amaitzeko behar zen gaitasuna. Oskar Arana

Belarria zorroztu nuen eta logelatik irteten zirela **jabetu** nintzen. Juan Martin Elexpuru

**Jabetu** nintzen orduan ezinezkoa dela hain pasibo izatea zorigaitza edota heriotza hain hurbil dagoenean. Karlos Linazasoro

Orduan **jabetu** nintzen ergelkeria galanta egin nuela. Jon Muñoz

Orduan **jabetu** ziren ez ziela esan ogi-legamiarekin kontuz ibiltzeko, fariseu eta saduzearren irakaspenekin baizik. Elizen arteko biblia

Ni han nengoela **jabetu** gabe hitz egiten zuen. Juan Kruz Igerabide

Hilabete batzuk pasatu arte, ez dira **jabetzen** bete-betean aita direnik. Arantxa Iturbe

Ez nintzen iragarki haiek zer iragartzen zuten **jabetu**. Juan Luis Zabala

Orduantxe **jabetu** ni zeren inguruan ibilia nintzen lehenago gogoetan. Joxe Austin Arrieta

Harry **jabetu** zen zein atakatan zegoen Bette. Oskar Arana

Maximo -erdi-paganoa, erdi kristaua bera- berehala **jabetu** zen zein krimen ikaragarriak ziren honakoak. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aginteaz jabetu** (5); **arazoaz jabetu** (4); **azkar jabetu** (5); **berehala jabetu** (33); **berriro jabetu** (4); **egoeraz jabetu** (18); **erabat jabetu** (10); **esanahiaz jabetu** (4); **garaiz jabetu** (4); **garrantziaz jabetu** (9); **guztiaz jabetu** (6); **hiriaz jabetu** (12); **indarra jabetu zen** (8); **jabetu beharra** (5); **jabetu bezain laster** (4); **jabetu zen egoeraz** (4); **jaunaren indarra jabetu** (6); **karguaz jabetu** (4); **larriaz jabetu** (4); **laster jabetu** (8); **lurraldeaz jabetu** (9); **okerraz jabetu** (5); **ondasunez jabetu** (7); **ondo jabetu** (7); **ongi jabetu** (13); **orduan jabetu** (24); **orduantxe jabetu** (10); **segituan jabetu** (7)

**berehala jabetuko** (6); **lurraldeaz jabetuko** (6)

**garrantziaz jabeturik** (4); **ongi jabeturik** (4)

**garrantziaz jabetuta** (7)

**garrantziaz jabetzea** (4)

**egoeraz jabetzeko** (7); **endesaz jabetzeko** (5); **esanahiaz jabetzeko** (6); **garrantziaz jabetzeko** (6); **guztiaz jabetzeko** (5); **jabetzeko asmoa** (6); **jabetzeko bidea** (5); **jabetzeko lehia** (5); **lurraldeaz jabetzeko** (4); **nuklearraz jabetzeko** (4); **ondasunez jabetzeko** (4); **postuaz jabetzeko** (5); **txapelaz jabetzeko** (4)

**egoeraz jabetzen** (7); **erabat jabetzen** (7); **garrantziaz jabetzen** (4); **guztiaz jabetzen** (5); **guztiz jabetzen** (4); **munduaz jabetzen** (4); **ondo jabetzen** (9); **ongi jabetzen** (5); **orain jabetzen naiz** (4)

**lurraldeaz jabetzera** (6)

---

# jabetza *(800 agerraldi, 86 liburu eta 223 artikulutan)* **1** *iz* zerbaiten jabe izatea. ik **jabetasun; jabego.**

Ezin zinez eta bihotzez elkartasuna erakutsi zeure buruaren **jabetza** ukatzen dizunari. Markos Zapiain

Neskak ez du, ez, bere buruaren gaineko **jabetza**. Oskar Arana

Harrezkero Agustin Jakinduriaren **jabetzaren** atzetik dabil. Imanol Unzurrunzaga

Hori lortzeko ezinbestekoa dela egiaren **jabetza**. Imanol Unzurrunzaga

Frantziskok ezetz esan zien diruari eta **jabetzari**. Askoren artean

Honela, soroaren eta harpearen **jabetza** hitiarren eskuetatik Abrahanenera pasatu zen, hilobi-leku izateko. Jose Antonio Mujika

Lehen lege horiek libertatea ematen diete; bigarrenek, berriz, **jabetza**. Iñaki Iñurrieta

Errege Henrike bi egun geroago agertu zen, hiriaren eta gazteluaren **jabetza** hartzera. Aingeru Epaltza

Denboraren **jabetza** berreskuratzen ez dugun bitartean, dependentzia ttikiak eskuratzen emango dugu bizitza osoa. Pako Aristi

· Aski nuen, leherketa baino lehen, telefonoz beste erakunde edo norbaiten izenean, atentatuaren **jabetza** erreklamatzearekin. Hasier Etxeberria

**2** (ekonomian)

Enpresaren **jabetza** bazkideena dela. Iñaki Heras

Kapitalaren **jabetza** ez da atzerritarren esku geratzen. Koro Navarro

Nork bere lurren **jabetza** berreskuratu ahal izango du. Elizen arteko biblia

Orduan **jabetzan** hartu genuen lurraldea honela banatu genuen: [...]. Elizen arteko biblia

Ondasunak gehiegi ez barreiatzeko, seme bien eskuetan utzi zuen osorik meategien **jabetza,** alabentzat diru jakin bat jarrita, ezkontzako dote moduan edo. Xabier Mendiguren Elizegi

Kasu honetan, estu-estu jarraitu behar zaio lege zibilari, horixe baita **jabetzaren** bermea. Iñaki Iñurrieta

Ondasun motak aipatzerakoan, gozamenaren erabilera soila eta **jabetzaren** gozamena bereiztu ditugu. Andres Urrutia

Elizaren **jabetzako** zelaitxo batera. Koldo Biguri

Arriskutsua da zernahi **jabetzan** edukitzea: auto bat, oinetako pare bat, zigarreta pakete bat. Oskar Arana

Bizitza eta **jabetzarako** eskubide besterenezinak. Lopez de Arana

Produkzio bitartekoen **jabetza** langileriaren eskuetara pasatu behar da. Jon Alonso

**3** norbait jabe den gauza, bereziki lur zatia.

Lucyk esandako lekuan egiten du zuloa, **jabetzaren** mugatik gertu. Oskar Arana

Goizean goiz abiatu ziren Grosrouvreren **jabetzarantz**. Jon Muñoz

**Jabetza** handiegiak zama astunegiak izanik, nekazariekin partituko lituzkete. Iñaki Iñurrieta

Zuberoa Frantziako erregeren **jabetza** izan arren. Aingeru Epaltza

Lebitar-hirietako herri-lurrak ez daitezke sal, lebitarren behin betiko **jabetza** baitira. Elizen arteko biblia

Etxalde Handia inoiz bukatzen ez zen **jabetza** zen, ukuiluan ehun behi, lurrun-indarrez funtzionatzen zuen gaztalekua, frutarbola saila eta abar, eta abar zituena. Koldo Biguri

Estatu baten funtsak eta **jabetzak** besterengarriak dira ala ez? Iñaki Iñurrieta

Izenez baizik ez zela errege, eta jaunek zeuzkatela ia bere **jabetza** guztiak. Iñaki Iñurrieta

Emakumea gizonaren **"jabetza"** izatera igaro zen. Luis Elberdin

Leku-aldaketan bere liburu eta **jabetza** guztiak kentzen dizkiote, eta "har bat baino biluziago" uzten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **jabetza** guztiak atzera poltsaratu arte ez zen berriz mintzatu. Aingeru Epaltza

Dagoeneko, emakumea eta haurrak familiako aitarenak dira, haren **jabetzakoak**. Luis Elberdin

Beste norbaiten **jabetzak** hartuta. Xabier Olarra

Beste zenbait enpresaburu jeltzaleri **jabetzak** kendu zizkieten garaian. Xabier Mendiguren Elizegi

Ordainez, denei berretsi zizkien anarterainoko eskubide eta salbuespenak, eta denei errespetatu anarterainoko ondasun eta **jabetzak**. Aingeru Epaltza

Den-dena eros nezakeen, eta den-dena erosi nian: **jabetzarik** ederrenak, zaldirik politenak, autorik ederrenak, Ferrariak! Jon Muñoz

**4** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jabetza** pribatua agertzen den unetik botere harremanak sortzen dira taldeko kideen artean. Luis Elberdin

Nekazaritzak eta **jabetza** pribatuak patriarkatua ekarri zuten. Luis Elberdin

Uko egin diote ondasunen **jabetza** komunari ere lege zibilen mende bizi izateko. Iñaki Iñurrieta

Maria da Graça nire alabak nire ondasunen **jabetza** eraginkorra hartzen ez duen artean. Bego Montorio

Marokon gerran baitzebilen urte haietan Espainiako armada, bere **jabetza** kolonialen apurrei eutsi nahian. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jabetza** materialik eduki ez izanak gauzak zailtzen ditu. Eider Rodriguez

Ondasunak salerosian erabiltzen dituzte, **jabetza** erabatekoaren izatedunak dira. Andres Urrutia

Gizarte-klausula, ekologia-arauak eta **jabetza** intelektuala. Koro Navarro

Aldi bateko **jabetza** baino ez da. Xabier Paya

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenik eta behin, masa-hedabideen **jabetza**-aldaketari eman zitzaion lehentasuna: nagusi aberats nazkagarriei kendu eta Alderdiari eman zitzaion tresna berri horren ardura. Txema Ramirez de la Piscina

Ez zuen ulertzen Maitasuna **jabetza**-sentimendurik gabe. Xabier Aranburu

Nekez aurki zitekeen, pentsatu zuen, hura baino Konpainia lehiatsuagorik, eta horrek atsegina sentiarazten zion, hango partaide izatearen **jabetza**-zentzu halako bat. Mirentxu Larrañaga

Bi alderdietako bat **jabetza**-titulu batez baliatu nahi eta besteak hura izuntzat joz gero. Iñaki Iñurrieta

Eta, egiaz hala bazen, zergatik ez zen agurea Harryren gainera amildu eta ez zituen Zazpigarren Etorbideko eraikinaren **jabetza**-agiriak galdegin? Oskar Arana

Beste merkatari batzuei pasatzen zizkien arroz, azukre nahiz artatxiki sorta osoen **jabetza** agiriak. Bego Montorio

Hainbat pertsonari gauza batez edo pertsona batzuez **jabetza**-mota desberdinak eman zizkieten. Iñaki Iñurrieta

Lebigre jaunak onartu egiten zuen **jabetza** hartze hura. **Jabetza** Erregistroaren datuen arabera. Karlos Zabala

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Landa- **jabetzak,** landetxea, kolonia, kolonoen multzoa. Askoren artean

Etxe- **jabetzarik** ez banuen ere, Rosarekin egoiten nintzenean, etxedun sentitzen nintzen. Joan Mari Irigoien

Mundu osoko truke-sarea, finantza- ahalmena, kolonia- **jabetzak,** Nekazaritza- **jabetzaren** lehentasun ekonomikoa eta politikoa. Xabier Arregi

## 7 -en *jabetzako*

Besteren ispilu aurrean jantzi beharra eta besteren zilarreria ukitu beharra zegozkion beti, bere **jabetzakoa** zen leiho batetik begira egoteko paradarik ere gabe. Mirentxu Larrañaga

Bazuen, beraz, bere **jabetzako** bizilekuren bat non edo non, inoiz edo behingo? Mirentxu Larrañaga

Julian Schnabel pintore eta zinemagilearen **jabetzakoa** den Chelsea Hoteleko gelara. Harkaitz Cano

Bere **jabetzako** gaztelu batean bezala paseatzen ziren han barrena. Karlos Zabala

Joputza indarrean zegoelarik, horrela deitzen zieten lurjabeek **beren** jabetzako nekazariei eta bestelako beharginei. Jose Morales

Gero, beren **jabetzako** monasterio asko, ehizarako eta defentsarako leku aproposetan eraiki zituzten. Patziku Perurena

## 8 *jabetzapeko*

Lurraren azalaren parte bat, **jabetzapekoa** kontsideratua. Xabier Olarra

Horrela [haurrak] ezingo dira aurrerantzean familia bakar baten **jabetzapekoak** izan, aberriaren seme-alabak baizik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ehortz nazazue neure gurasoen ondoan Efron hitiarraren soroko harpean [...] Abrahanek Efron hitiarrari bere **jabetzapeko** hilobi izateko erosi zion hartan. Jose Antonio Mujika

## 9 *jabetza eskubide*

Aitaren onerizkoa bere boterean oinarrituta dago, hots, **jabetza**-eskubidean. Iñaki Iñurrieta

Gozamenaren gaineko **jabetza** eskubidea eman didazuen momentutik, eskubide horrek ez du zerikusirik gozamenaren ondorioekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Jabetza** eskubideak berez du jatorria izadian. Berria - Euskal Herria

## 10 *jabetzan eman*

Begira nola ordaintzen diguten orain: zeuk **jabetzan eman** zenigun lurraldetik gu botatzera datoz. Elizen arteko biblia

Erromako senatuari eta herriari baimena eskatu zion hiribildua hara eramaten uzteko, eta inguruko harresiak eraiki zituen, eta zatika banatu ondoren, biztanleei **jabetzan eman** zizkien bakoitzari sestertzio bat eskatuz. Santiago Iruretagoiena

Begiko bagaituzu, emaguzu lurralde hau **jabetzan;** ez gaitzazu Jordan igarotzera behartu. Elizen arteko biblia

Leku batzuetan zenbaitek **jabetzan ematen** zituztelako beren feudoak, eta segidan jabetzan berrerosten zituztelako. Iñaki Iñurrieta

## 11 *lur jabetza*

Frantses sistemako lur **jabetzaren** gainean. Anton Garikano

Finantza-ondasunak, osatu orduko, lur- **jabetzetan** edo luxuzko kontsumoetan gastatzen ziren. Koro Navarro

Pepinek Estebani eskainitako lur horietatik hasiko zen Elizaren lur- **jabetza**. J.M. Olaizola "Txiliku"

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

baloiaren jabetza (32); bere jabetza guztiak (3); erritmoaren jabetza (3); harpearen jabetza (3); jabetza eskubidea (13); jabetza eskubideak (8); jabetza eskubidearen (4); jabetza galdu (3); jabetza intelektuala (17); jabetza intelektualak (6); jabetza intelektualaren (24); jabetza intelektualaren aurkako (5); jabetza izan (7); jabetza izatea (3); jabetza osoa (3); jabetza pribatu (3); jabetza pribatua (20); jabetza pribatuak (4); jabetza pribatuarekin (3); jabetza pribatuaren (8); lur jabetza (4); lurralde honen jabetza (4); lurraldearen jabetza (3); lurraren jabetza (3); lurren jabetza (12); lursailen jabetza (3); ondasunen jabetza (6)

baloiaren jabetzan (6); jabetzan eman (6); jabetzan emango (5); jabetzan ematen (4); jabetzan hartuko (5); jabetzan hartzeko (14); jainkoak jabetzan emango (3)

hiri jabetzaren (17); hiri jabetzaren ganberak (10); hiri jabetzaren ganberek (4); lur jabetzaren (3); lurraren jabetzaren (5)

baloiaren jabetzari (5)

---

# jabetze *iz* zerbaiten jabe egin edo bihurtzea; norbait zerbaitez konturatzea.

Planetako baliabideez **jabetze** horretan gertatzen diren desberdintasunak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Besteren nortasunaz **jabetze** hori ohikoa da artista gazte askorengan. Joxean Agirre

"Komunikazioan heztea" irakasgaiaren helburua ez da kazetariak sortzea, baizik eta, gaztetxoenek masa-hedabideen bitartez jasotzen duten mezuaren **jabetze** selektiboa ahalbidetzea. Txema Ramirez de la Piscina

**Jabetze** moral hori historian zehar garatu da, Mendebaldean, prozesu luze eta zail batez. Esteban Antxustegi

Egiazko **jabetze** kasu bat, pentsatu nuen. Monika Etxebarria

---

# jabetzeke *adlag* jabetu gabe.

Neskatila txikiak, gertatzen zaionaz osotoro **jabetzeke,** Valmonten haur bat izanen zukeen, istripu batek haurdunaldia eten ez balio. Markos Zapiain

Egindakoaz **jabetzeke,** neskaren begiradarekin topo egin zuen. Unai Iturriaga

**jabildu**, jabil, jabiltzen da *ad* jabetu.

Merke **jabildu** nintzen, kasik debalde. Hasier Etxeberria

---

jaboi ik **xaboi**.

---

**jacuzzi** *(orobat **jakuzzi**)* *iz* uraren bidezko masaje sistema bat duen igerileku eto bainuontzia.

Denetik daukate: hidromasajea, **jacuzzia..** . probatu egin beharko zenuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru bat metro koadroko **jacuzzian,** bizkarrez, emakumea gizonaren gainean hankalatraba bistatu zuen Brunok. Patxi Zubizarreta

Beheko eta goiko bainugelak (bata **jacuzzi** batekin, eta bestea sauna txiki batekin). Josetxo Azkona

Ilunbistan, **jacuzzian** bikote bat sumaturik, Bruno berehalakoan erantzi, eta sartu egin zen. Patxi Zubizarreta

Donostiako La Perla bainuetxeko **jakuzzia**-n azaldu zela. Berria - Kirola

---

**jacuzzidun** *(corpusean **jakuzzidun** soilik)* *izlag* jacuzzia duena.

Niri beti gustatu izan zait luxua, eta **jakuzzidun** bainuontzi biribila neuk bakarrik gozatu ahal izateak saltoka jarri zidan bihotza. Juan Martin Elexpuru

---

**jada** *(4123 agerraldi, 180 liburu eta 1960 artikulutan)* **1** *adlag* dagoeneko. ik **jadanik**.

**Jada** ez da gaztea, baina gizon ederra da oraindik. Oskar Arana

**Jada** errana dizut nehor ez dela mendian gora abiatzen bidea ezagutu gabe. Elena Touyarou

Ikusia dugu **jada** *Gidaria*ren lehenengo plana eta konturatu gara gai teologiko-filosofikorik inportanteenak nola dauden adierazirik. Xabier Kintana

-Zergatik ez dugu erosten beste bat? hau **jada** zaharraren zaharrez ezertarako ez zen. Juan Garzia

Ez naiz **jada** aske, ezin dezaket **jada** nahi dudana egin. Monika Etxebarria

Horietarik batzu nor izan diren ikus dezakegu hemen, **jada** aipatu lagunen gainerat. Herria

Hona Guendulain, **jada** pasatua behar nuena. Piarres Aintziart

Ingurura begiratu dut eta konturatu naiz Charlie ez dudala **jada** alboan. Mirentxu Larrañaga

Esaten dit arazoa konpondurik dagoela **jada**. Oskar Arana

**2** (iraganaldiko testuinguruetan) ordurako.

**Jada** bazuen sei oren bidean ginela, artean ixtan bat gelditurik jateko, San Jasito-ra heldu ginen aratsaldean. Herria

**Jada** egonak ginenez elkarrekin denbora apur batean, eta hasia zenez nire konpainian zertxobait baretzen, pentsatu nuen iritsia zela hizketa-gaia aldatzeko unea. Oskar Arana

Ez nuen **jada** amorrurik sentitzen, negar egiteko gogoa baizik. Bernardo Atxaga

Baina hura **jada** ez zen bere etxea. Edurne Elizondo

Ez zebilen haizerik, **jada** ez zen orbel-dantzarik. Anjel Lertxundi

Bronxville-eko etxea saltzeko kontratua sinaturik zegoen **jada,** eta behin hilaren bukaeran salmenta egindakoan, dirua ez zen engoitik arazo izango. Oskar Arana

Eguerdiko mutxikina, ordea, ez zen **jada** ezer. Anjel Lertxundi

Poliziek Parisera eroan zuten Xarles, **jada** hilotz. Itxaro Borda

Hodeiertzerainoko erdi bidean, hiriaren soslai urdinxka ageri zen **jada**. Aingeru Epaltza

---

**jadaneko** *(47 agerraldi, 13 liburu eta 4 artikulutan)* *izlag* **1** *adlag* dagoeneko, jada.

**Jadaneko** kezka hori hor duzu. Menane Oxandabaratz

Horra zergatik **jadaneko** iragan gaitz batez oroitzen diren aldi bakoitzean gizakiak pozten diren. Piarres Xarriton

-Nobleek boterea galdua dute **jadaneko**! Elena Touyarou

**2** (iraganaldiko testuinguruetan) ordurako, jada.

**Jadaneko** urte franko genituen noizetik noizerat baizik elkar ikusten ez genuela. Aingeru Epaltza

Bi lanak **jadaneko** irakurriak eta erkatuak zituen noski. Aingeru Epaltza

Ordukoz neskatxa haietarik anitz ezkonduak ziren eta **jadaneko** familiatuak. Itxaro Borda

Estefania hor zen **jadaneko**. Aingeru Epaltza

---

**jadanekotasun** *iz*

---

**jadanik** *(3376 agerraldi, 170 liburu eta 1221 artikulutan –gehien-gehienak Herria aldizkarian-)* **1** *adlag* dagoeneko. ik **jada; ja**[1].

**Jadanik** dexente luzatuak garela iruditzen zait. Txillardegi

-Baina, ama, **jadanik** esplikatua dizut... Daniel Landart

Eta horra, **jadanik,** Poyo de Roldán mendixka famatua. Piarres Aintziart

Lehenik, **jadanik** erran bezala, heineko izari bat behar dela izan induljentziaren eta haren emateko arrazoiaren artean. Piarres Xarriton

Ez ditut **jadanik** sentitzen denboraren irristatzea eta ukitu arinak. Monika Etxebarria

-Holako zerbait ez ote didazu **jadanik** ere errana? Janbattitt Dirassar

Erakutsi dugu ezen **jadanik,** ez duela nagusitasun osorik. Piarres Xarriton

1271. urtean kausitzen dira **jadanik** dokumentuetan Gorosgaray, Irauzketa eta Ibañetako Salbatore kapera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ile bakan blaituek erdizka kukutua eta heriotzak **jadanik** zorroztua, ezin antzik eman begitarte iharrari. Aingeru Epaltza

-Amadisek Oriane ezagutu du **jadanik**? -hurbilagotik errepikatu zuen galdera. Aingeru Epaltza

Nire Melaniak josteari ekin dio **jadanik**. Jose Morales

Haren arrastorik ez dago **jadanik**. Monika Etxebarria

**2** (iraganaldiko testuinguruetan) ordurako.

**Jadanik** hilotz zetzanaren gelan sartu zen, herioaren misterioaren jakile bakarra bailitzan. Itxaro Borda

**Jadanik** ez zen biharamuneko hiltzaileen beldur -aienatuak ziren, ahaztuak, bere giza bizitzan etsai zituen pertsona eta gertakari ugariekin nahasiak-. Jose Morales

-Hori, **jadanik** banekien... Janbattitt Dirassar

Frantxua **jadanik** lanera joana zen. Itxaro Borda

Ikusia nuen **jadanik** bidean, aitzinatu baitzitzaidan, keinu bat ere egin gabe. Piarres Aintziart

Nagusia **jadanik** han zegoen. Daniel Landart

Amatxi, enetzat, **jadanik** lore bilakatua zen. Daniel Landart

Musika **jadanik** itzalia zen. Aingeru Epaltza

Lizarraga jenerala ere **jadanik** Lizarran zegoela jakin dut. Txillardegi

Bazirudien **jadanik** bertan zuela heriotza. Jose Morales

Dakidana da frangotan gogoan nuela **jadanik** guti-aski aipatua dizudan Maider hura. Janbattitt Dirassar

Iñaki-k bazituen bost horietarik biga ikasiak **jadanik** Baionan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nerau ere saiatu nintzen gorpuarengana, lurra jotzen ari baitzen **jadanik**. Aingeru Epaltza

---

**jadetsi**, jadets, jadesten *(orobat* ***jaritsi****)* du *ad* lortu.

Orain, berriz, morfina kargamendu itzela **jadetsi** dugu. Josu Landa

Ez zuen bertatik argitaratzea **jadetsi**. Berria - Kultura

Zakuto barruko tresneria ateratzean sortutako zaratak **jadetsi** zuen aspaldi luzean Joseluren begiak Mentxu zegoen tokira zuzentzea. Josu Landa

Hauetatik sorturiko ezerk ezingo bailuke, epe jakinean, bizitzaren goren mugarik **jaritsi**. Xabier Amuriza

Hazkuntzaren goren gailurra **jaritsi** arte. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **a** (3); jadetsi eziñ

---

**jaendar** *izlag/iz* Jaengoa, Jaeni dagokiona; Jaengo herritarra.

Gaztelaniazko atalean Francisco Ernesto Puertas Moya **jaendarra** saritu dute *La autoficción Ganivetana: el ciclo del Pío Cid* saiakeragatik. Berria - Kultura

---

**jagi**, jagiten **1** da *ad* jaiki.

**Jagi** hadi, eta ekiok. Edorta Jimenez

Biharamunean goizean goiz **jagi** nintzen. Edorta Jimenez

Bera goiz joaten zan ohera eta gero **jagi** bere goiz. Xabier Amuriza

Kamainatik **jagi** nintzen. Edorta Jimenez

Astiro **jagi** nintzen eta are astiroago egin nuen telefonoaren zokondorainoko bidea. Edorta Jimenez

Hemengo zaratak horma baten kontra jo ostean berriro gora **jagiten** dira, malgu, frontoian pilotak egiten duen legez. Edorta Jimenez

• **2** du *ad* altxatu.

Ba, orea **jagiteko** erabilten dana. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **goiz jagi** (3); **ohetik jagi** (3)

---

**jagitasun** *iz* jaikitasuna, harrotasuna.

Herriko bat ikustean halako alaitasuna egin zaio bihotzean, halako **jagitasuna** ariman. Edorta Jimenez

Jokalariak egundoko atletak dira eta erakusten duten airostasuna eta **jagitasuna** ikusgarriak dira, pilotariak kolpea jotzeko benetan horman gora egiten baitu. Edorta Jimenez

Batetik, aire basatia eta primitiboa dauka eta, bestetik, kantetan ohituta dagoanaren jasa eta **jagitasuna**. Xabier Amuriza

---

**jagoitik** *(orobat* ***jagoiti*** *g.er.) adlag ipar* jadanik.

Ibañeta gaina ez dikeat hain urrun **jagoitik**. Piarres Aintziart

Orduko ingurumenean jartzen naiz, aspaldiko giroan nago **jagoitik**. Piarres Aintziart

Aitak edo senarrak itsasoan zirela , beltzez apaindu emazteek etxe inguruko funtsak, **jagoitik** abandonatuak, lantzen zituzten auzolanean, goemona biltzen edo garia bihikatzen zen garaietan. Itxaro Borda

-Beranduegi da Iparraldeko gudukaren abandonatzeko, bide onean gaude **jagoitik**. Itxaro Borda

Bezperako ikaragarriko uharren ondotik, egun hartan **jagoitik,** lantzurda arina ari zen. Itxaro Borda

---

**jagole** **1** *iz* zaintzen duen pertsona.

Gerra guztietan bezala, hildako gehiago dago gaixoen populazio zibilean, mediku, erizain eta **jagoleen** artean baino. Iban Zaldua

Ez zara nire **jagolea,** jakizu gai naizela neure kabuz joateko, ez dudala laguntzarik behar. Sonia Gonzalez

Gurasoek uste dute bazterrak arretaz eta adoretsu miratzen dituela, **jagole** fidelen gisara etxea zaintzen. Itziar Otegi

Hesperideen urrezko sagar distiratsuen **jagoleak**. Xabier Amuriza

Juan Idiakez Estatu-Kontseilaria izan da Garibairen **jagolea** erregearen aurrean. Anjel Lertxundi

Neure lurraldearen **jagole** izango naiz inguruan dabiltzan gudari-taldeen aurka. Elizen arteko biblia

**Jagolearen** lekuan jarri, eta hantxe geratu zen, fusila aldean. Jose Morales

Alemanak ghettoan sartu dira, su eta herio; **jagoleek** haurren aurka tiratzen dute. Felipe Juaristi

Konboia, bideko presondegia, **jagoleak** zurezko dorreetan. Felipe Juaristi

Aurrera jo zuten eta **jagole** musulmanekin egin zuten topo. Askoren artean

Bortxakeria zuzena erabili zuten bakarrak **jagole** armatuak eta guardia zibilak izan ziren. Txema Ramirez de la Piscina

Batzuetan zintzoaren arimak hobeto iragartzen baitu egia, toki garaietan zaindari dauden **jagole** guztiak baino. Askoren artean

Hiritar ospetsua eta agurgarria da, esan diot, eta Pobreen Legearen **Jagole**. Irene Aldasoro

• **2** *izond* zaintzen duena.

Arriskutsua iruditzen zaiolako hesi altxagarria korrika pasatzea goardia **jagoleak** berehalaxe ikusiko duelako bere zaingo postutik. Joxemari Iturralde

-Nortzuk zarete? -galdegin du idazmahaian dagoen erizain **jagoleak**. Mirentxu Larrañaga

Gure mutila ez zen sekula Zorion Anderearen beso **jagoleen** artera eroriko. Oskar Arana

**3** (adizlagun gisa)

Agurea bakar-bakarrik gelditu zen, bere aberastasun guztien **jagole,** zaindari eta jabe. Jose Morales

Fedeari tinko eta zuhurki eutsi diezaiozula eta bizimodu eta ohitura horien **jagole** iraun dezazula. Imanol Unzurrunzaga

Horretarako, berton **jagole** zegoen pertsona armatu bat menderatu behar izan zuten solidarioek. Txema Ramirez de la Piscina

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Deustuko Erriberan Guardia Zibilak zuen **jagole** etxola baten aurka molotov koktelak bota zituzten 20 bat lagunek. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alkateak bere lanpostuan mantendu zuen Floren, udal **jagolea**. Udaltzain eta gau-**jagole** andana bat etortzea, tabernariak deituta barbaro haien arteko borroka gerarazteko. Eider Rodriguez

Burdinazko kakoen eta torloju herdoiltsuen kirrinkak ate-**jagolea** esnatu zuen hiriaren beste muturrean. Jose Morales

Rubeus Hagrid naz, Hogwartseko Giltza eta Baso **Jagolea**. Iñaki Mendiguren

Eta esan deutsudan lez, giltza-**jagole** naiz Hogwartsen... Iñaki Mendiguren

Hileta-**jagoleak,** axolagabeki, hilkutxari tiratzen dio, eta orgatxo gaineraino eramaten du herrestan. Anjel Lertxundi

Ez nekian bera izan zala Lilyren eta Jamesen sekretu-**jagolea**. Iñaki Mendiguren

Euskaltzaindiko hizkuntza **jagole** guztiek. Iñigo Aranbarri

**6** ***aingeru jagole*** aingeru zaindaria.

Neuk ere hartu dut esker onez nire aingeru **jagoleak** hor kokatutako kamioilariaren laguntza. Jon Arretxe

Aingeru **jagolerik** gabe geratu haiz, Sebastian -haserrez esan zidan ontziburu berriak. Edorta Jimenez

Aingeru **Jagoleen** egunean. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> herriaren jagole (3); hileta jagoleak (3)

---

# jagoletza *iz* zaindaritza.

Bestela, Pilar ontzikoek ez dute urpekarien gaineko **jagoletzan** lar aurreratuko. Edorta Jimenez

Ez da egongo prozesurik indarkeria baliatzen dutenen **jagoletzarekin;** indarkeria etetea aurretiazko eta beharrezko baldintza da aurrera egiteko. Berria - Euskal Herria

Ez da egongo prozesurik indarkeria baliatzen dutenen **jagoletzarekin;** indarkeria etetea aurretiazko eta beharrezko baldintza da aurrera egiteko. Berria - Euskal Herria

---

# jagon, jagoten 1 du *ad* zaindu.

Ebe **jagon** behar dut, hain da samurra eta babesgabea... Sonia Gonzalez

Etxea garbitzeko bakarrik ez, emakumeok familiako haurrak, edadetuak eta gaixoak **jagoteko** ere hartzen dituzte. Berria - Euskal Herria

Aurrerantzean nire burua osasuntsu **jagongo** dudala zin egiten dut. Edorta Jimenez

Neuk **jagongo** dut botika. Josu Landa

Rufinoren umezaroa ardi **jagoten** joan zan. Xabier Amuriza

Zaindari bi ipini ditu Udalak frontoi barruan, eta udaltzainen auto batek **jagoten** du kalea, etxerik gabekoak hor diren bitartean. Berria - Euskal Herria

Poliziak ez ezik, segurtasun enpresa pribatuetako guardiak ere politikoak, epaileak edo enpresaburuak **jagoten** ibili dira azken urteotan. Berria - Harian

Trafikoa areago mugatu nahi dute, mehatxaturiko espeziak **jagoteko**. Berria - Gaiak

Hor, meategiak zorrotz **jagon** behar direla-eta, balizko itsaspekoei adi bizi dira. Edorta Jimenez

Erregistro publikoak **jagoten** dituztenen prebarikazioa. Andres Urrutia

Euskaltzaindiak hartu zuen bere gain [...] euskararen azterketa eta hizkuntzaren **jagotea**. Pello Salaburu

Euskaltzaindiaren helburuak, besteak beste, euskararen eskubideen **jagotea,** erabilera bultzatzea eta hizkuntza gizarte maila guztietan gai bihurtzeko lan egitea dira. Herria

Honetan, egiatik aldendu ez zaitzan, batzuek asmatu duten zerbaitetik **jagon** gura zintuzket. Xabier Amuriza

Beraz, bere bakantasuna eta arrarotasuna **jagon** nahi dituenak, hobe du abestea edo dantzatzea. Markos Zapiain

**2** ***Jagon Sail***

Euskaltzaindiaren **Jagon** Saileko lagunek. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> jagon jardunaldiak (4); jagon sailak (4); jagon saileko (4)

---

# jaguar *iz* Hego Ameriketako ugaztun haragijalea, lehoinabarraren antzekoa *(Panthera onca).*

Animalia espezie asko bizi dira bertan, haietako asko Hego Amerikan bakarrik aurki daitezkeenak; **jaguarra,** esate baterako. Berria - Gaiak

Europan, bakarra ez, baina pizti-piztiaren eredu nagusietakoa otsoa izan da mendez mende, beste kontinenteetan pantera, tigrea edo **jaguarra** izan diren bezala. Martin Anso

---

# jai 1 *iz* tokiren batean, zerbait ospatzeko egiten diren elizkizun eta josteten multzoa. ik**besta**.

**Jai** bat ari zirela ospatzen. Anton Garikano

**Jaiak** zazpi egun iraun zuen. Elizen arteko biblia

Udaberrian ospatzen genuen guk **jai** hura Obaban. Bernardo Atxaga

**Jai** bat antolatuko dugu, lagunak gonbidatuko ditugu. Eskarne Mujika

Honako bidean hamabiren bat festa eta **jai** ikusiko nituen. Iñaki Mendiguren

Astelehena, **jai** ondoko alferra. Joxean Sagaztizabal

Eta, une batez, **jai** batera zihoazela iruditu zitzaion. Jose Morales
Euskal eskola berriaren **jaia**. Berria - Euskal Herria
Berak mespretxatu zuen **jaia** errespetatu beharrekoa zela aitortuz, promes egin zuen apaizaren eskuetan, santuaren **jaia** beti begirunez gordeko zuela. Askoren artean
Purim alaitasun eta pozezko **jaia** da, juduek elkarri opariak eginez eta mozorrotuz ospatzen dutena. Koro Navarro
Sexua sekulako **jaia** zen, jolasa, komunikazioa, plazer sinfonia. Luis Elberdin
Bere egunak **jaiak** ziren, suzirien moduan txinpartetan amatatzen zitzaizkionak. Felipe Juaristi

**2** (pluralean)

Inguruko herri batean **jaiak** direla-eta hango festetara joateko plana. Xabier Mendiguren Elizegi
Auzo haretan **jaiak** ziran eta, Rufino plazara heldu zanean, soinulari bat joten egoan. Xabier Amuriza
**Jaiak** izanagatik, ez nago festetarako. Xabier Etxabe
**Jaiak** dituzten herrietan. Pello Zabala
Herri eta auzo batzuetan aurretik, besteetan San Bartolomez, eta besteetan geroxeago, badatoz **jaiak** eta, artean ere soineko berria falta. Pello Zabala
Herriko **jaiak**-edo, izango zen auzoren bateko festa usaina data horietarako gertuan. Pello Zabala
Amaitu dira **jaiak,** amaitu ospakizunak eta ikuskizun miragarriak. Edorta Jimenez
Damu zen gizona **jaiak** familiarekin igaro ez izanaz. Jon Muñoz
**Jaiak** dolu bihurtu ziren. Elizen arteko biblia
Abuztuko Aste Nagusiko **jaiak**. Askoren artean
Antoine Abadiek lehenengo Euskal **Jaiak** antolatu zituenean. Koldo Zuazo
Irak osoan **jaiak** antolatu zituen alderdiak; Akre-n ere bai. Juan Kruz Igerabide
Hogeita hamar egunez berealdiko **jaiak** ospatu ziren. Patxi Zubizarreta

**3** lan egiten ez den eguna edo egun zatia. ik**jaiegun**.

-Lan? ez da **jai** Araba osoan? Jon Arretxe
Musikariek zapatuan **jai**. Juan Garzia
Egun hartan **jai** genuen. Joan Mari Irigoien
Gaur festa eta bihar **jai,** Jexuxek. Xabier Etxabe
Ostiral arratsaldea **jai** duenez, ibilaldi luzeak egitera irtetea gustatzen zaio Bennetti. ik beherago 14. Xabier Olarra
Larunbatetan **jai** izaten nuen. Juan Kruz Igerabide
Goizetik entrenamendua izan nuen, arratsaldean **jai**. Joan Mari Irigoien

**4** (izenondoekin)

Herriak, bozkarioz beterik, **jai** handia egin zuen egun hartan. Elizen arteko biblia
Inguruetako nekazariak, **jai** handietan bezala jantzita. Felipe Juaristi
Hurbil zen Pazkoa, juduen **jai** nagusia. Elizen arteko biblia
Gure herriko **jai** nagusian. Askoren artean
**-Jai** polita antolatuko dizu. Juan Garzia
Errege dekretuz **jai** nazionala deklaratu da. Joxe Azurmendi
**Jai** zoroak ospatzen dituzte edo iragarpen faltsuak egiten. Elizen arteko biblia
Brigadak **jai** alaitsua eskaini gura dio. Edorta Jimenez

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jai**-soinekoz jantzen zaitut. Elizen arteko biblia
Gogoko dituzte sinagogetan lehenengo aulkiak eta **jai**-otorduetan mahaiburuak. Elizen arteko biblia
Lehenagoko musika eta **jai** ospakizunak aztertzea. Askoren artean
Eta, gure harriduraren harridura, gau baterako **jai**-baimena eman baitziguten guztioi, berriro gudu-lerrorantz abiarazi baino lehen. Mirentxu Larrañaga
Data ezagunetako **jai**-bezpera batzuetan. Pello Zabala
Hango mutilekin joan nintzen **jai** arratsalde batez Ogaitolo baserrira. Patziku Perurena
Besteok ez gentozen **jai**-gauetarako hain prestaturik. Edorta Jimenez
Maiatzaren leheneko **jai**-zubian. Patxi Iturritegi

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urtebetetze-**jai** bat antolatu nuen mutil haren andregaiarentzat. Karlos Zabala
Gizarte **jai** horietako bat. Janbriren leinukoak eztei-**jai** handia egitekotan dira. Elizen arteko biblia
Eztei-**jaia** hileta bihurtu zen, eta kantu-soinuak negar-zotin. Elizen arteko biblia
Sylviaren ezkon **jaia** hasi zenerako. Edorta Jimenez
Bi giza sexuen arteko larru-lanean (lana, eginkizuna: larru-**jaia** edo ustekabeko festa oso gauza bakana izaten baita zorigaitzez). Iñaki Segurola
Larunbat, ilberri-**jai** eta **jai** nagusietan ere. Elizen arteko biblia
Josiasen erregealdiko hemezortzigarren urtean ospatu zuen Pazko **Jai** hura Jerusalemen Jaunaren ohoretan. Elizen arteko biblia
Tenpluaren Garbikuntza **Jaia** ospatzeko deia. Elizen arteko biblia
Piztuera igandetik Igokunde **jaia** arte. Askoren artean

**7** ***jai alai*** pilota joko mota bat.

Iluntze askotan frontoira joaten ginen **jai**-alai partidetara. Edorta Jimenez
Bere lagun **jai**-alai jokalariekin. Edorta Jimenez
**Jai**-alai player diren aldetik ez ei zaie gaitz egingo granadak indarrez baina tentuz jaurtiz urpekontziko kontrol-dorrean hantxe bertan kokatzea. Edorta Jimenez
Donibane Lohizunen **jai**-alai ezker-paretan, kantaldia. Herria

**8** ***jai eduki*** jai izan.

Tankera honetako morroiekin **jai** dauka gure artzain gajoak. Pello Zabala
**Jai** daukazu, ez dituzu jada ulertzen zeruaren seinaleak. Fernando Rey
Bazekiat nolakoa haizen hi, eta **jai** daukak harenean jokoan aritzeko edo edari onik dastatzeko aukerarik izango duala uste baduk. Jose Morales
Hura guztia musu truk emango ziotela uste bazuen, **jai** zeukan. Javi Cillero

**9** ***jai egin***

Ilargiak erakusten du **jai** egiteko garaia. Elizen arteko biblia
Bihar **jai** eginen dugu Jaunaren ohorez. Elizen arteko biblia
Frantzisko dohatsua izango zuela beti zaindari eta **jai** egingo zuela urtero haren egunez. Askoren artean
Adar hilaren hamalauan eta hamabostean **jai** egiteko agintzen zien, egun horietan iritsi baitzuten juduek bakea. Jose Antonio Mujika
Zazpi egunez egingo duzue **jai,** Jaunak zuen Jainkoak beretzat aukeratuko duen lekuan. Elizen arteko biblia

Astelehenetan egiten baitzuten Sergiok eta Sarak **jai**. Joan Mari Irigoien

· Zazpi eguneko **jaia** egin zuen. Elizen arteko biblia

Han **jaia** eta barbakoa modukoa egingo da. Edorta Jimenez

**10** ***jai egon*** jai izan.

Ohartu zenean nirekin **jai dagoela** pinturaz, antzerkiaz eta horrelakoez jardunez gero, negozio-gizon gisa mintzatu zen, ez lotsagabe, baina bai pragmatiko, suitzar erara, alegia. Joxe Austin Arrieta

Guk badakigu hemen pilotalekuan lan egin ezean **jai dagoela**. Berria - Kirola

Hori bezain garbi dago aldaketaren berri emango duten informazio bide aske eta gardenik gabe **jai dagoela**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**11** *jai egun* ik **jaiegun**.

**12** ***jai eman***

1975eko azaroaren 20an hirurei eman zieten **jai** eskolan. Iban Zaldua

Asteburuen erdiak nirekin eginen zituen Unaik, hain juxtu ere prentsaren barne antolakuntza gupidagabeak bere zerbitzari leial nahiz desleialei **jai** -ez besta- ematen dien horietan. Aingeru Epaltza

**13** ***jai eta aste*** egunero.

Dirua gobernatu egin behar da, ganadua bezalaxe: **jai** eta aste eman egin behar zaio biziko bada eta emango badu. Iñaki Segurola

Eta hau guztia, lehenago esan bezala, buru hutsez egiten nuen, eskua zeharo geldirik utzia, **jai** eta aste. Josetxo Azkona

· Etenik gabe gabiltza Lauaxeta eta biok bidez bide, aste eta **jai,** udazken, negu, udaberri eta uda. Juan Luis Zabala

Honako bidean hamabiren bat festa eta **jai** ikusiko nituen. Iñaki Mendiguren

**14** ***jai giro*** (*orobat* ***jaigiro***)

**Jai giroa** zen nagusi. Josu Landa

Gisa horretako lokaletan izan ohi den atergabeko **jai-giroa** alkoholikoa, gaupasa-giroa, beti higuingarria izan zait. Eduardo Matauko

**Jaigiroa** ere nabarmentzen da sasoi honetan: herri eta auzo batzuetan aurretik, besteetan San Bartolomez, eta besteetan geroxeago, badatoz jaiak. Pello Zabala

**Jai giroak** ere izanen du tarterik EHEk Lesakan antolatutako egitarauan: 14:30ean herri bazkaria eginen dute pilotalekuan; [...]. Berria - Euskal Herria

**Jai giroan** xahutzen genituen indarrak eta azken batean hortxe joan zitzaizkigun urte haiek. Javi Cillero

Manifestazioa ere **jai giroan** egin zen, Espainiako Poliziaren presentzia itogarria gorabehera. Berria - Euskal Herria

**Jai giroan** murgildu ziren bi herriak, Orio eta Zarautz. Berria - Euskal Herria

Jainkoak, zeure Jainkoak, gantzutu zaitu, **jai-giro** pozgarrian, lagunen artean aukeraturik. Elizen arteko biblia

**Jai giroko** doinuak. Berria - Kultura

Kanpai-hots sekulakoa, **jai giroko** zalaparta alaian. Anjel Lertxundi

Bizitza atseginago, **jai-girokoago** izan zedin. Xabier Olarra

**15** *jai gune* ik **jaigune**.

**16** ***jai izan*** du *ad* zer eginik ez izan. ik gorago **8** eta **10.**

Gainerakoan **jai** zuen nirekin. Xabier Montoia

-Hor da, baina horrekin hitz egin nahian baldin bazaude, **jai** duzu. Martin Anso

Etxe hartako labore-lanak **jai** zuela urte hartan, kaxkar eta ahul gelditukо zela soroko uzta. Pello Zabala

Datu kopuru ondrosoekin elikatu gabe, **jai** luke klimatologiak. Pello Zabala

Hire mihi luzea amarrukeriaz dantzatu ostean, **jai** duk uste baldin baduk ene kafetegian jotzen utziko diadala. Patxi Zubizarreta

· Goseak agintzen duenean, giza legeak **jai**! Edorta Jimenez

Hizkuntza jakin ezean, **jai**. Edorta Jimenez

**17** ***jai hartu***

Gaur **jai hartzea** erabaki dut. Unai Iturriaga

Haien neskameak **jai hartzen** du igandeetan.Santosek lantokian **jai hartu** zuen arratsaldean. Monika Etxebarria

Zer esango ote zion nagusiak eguna **jai hartuz** gero? Anton Garikano

Jatetxeko lanetik **jai hartzen** zuen egunetan. **Jai hartzen** zuenean, goizean goiz etortzen zen Albert Ruche jaunaren bila, eta landara joaten ziren, egun-pasa. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bestela jai dugu** (7); **bestela jai duzu** (4); **igande eta jai** (5); **jai batzordea** (6); **jai batzordeak** (13); **jai batzordearen** (4); **jai bezpera** (8); **jai bezperan** (5); **jai botatzeko** (5); **jai dago** (14); **jai dauka** (13); **jai daukagu** (11); **jai daukak** (5); **jai daukate** (4); **jai daukazu** (5); **jai du** (10); **jai dugu** (18); **jai dute** (17); **jai dutela** (6); **jai duzu** (10); **jai ederra** (5); **jai egin** (4); **jai egiteko** (7); **jai egiten** (5); **jai egun** (34); **jai eguna** (25); **jai egunak** (8); **jai egunean** (5); **jai egunetako** (5); **jai egunetan** (21); **jai eman** (7); **jai eredu** (9); **jai eredua** (4); **jai eta aste** (5); **jai giro** (10); **jai giroa** (24); **jai giroak** (4); **jai giroan** (40); **jai giroan egin** (5); **jai giroko** (6); **jai handi** (6); **jai handi bat** (4); **jai handia** (16); **jai handiak** (4); **jai handietan** (9); **jai hartu** (13); **jai hartzeko** (5); **jai hartzen** (7); **jai herrikoien** (6); **jai izan** (7); **jai izango** (8); **jai izaten** (4); **jai nagusia** (6); **jai otordua** (4); **jai zeukan** (4); **jai zuela** (4); **jai zuen** (7); **urteko jai** (4)
>
> **eguneko jaia** (5); **eta jaia** (8); **etxola jaia** (13); **euskal jaia** (8); **jaia antolatu** (6); **jaia egin** (12); **jaia izan** (5); **jaia izango** (5); **jaia ospatu** (7); **jaia ospatuko** (7); **jaia ospatzen** (7); **jaia ospatzera** (4); **larunbat jaia** (5); **legamigabeko ogien jaia** (11); **pazko jaia** (18); **sagarapen jaia** (4); **santuaren jaia** (4)
>
> **auzoetako jaiak** (5); **euskal jaiak** (6); **gasteizko jaiak** (5); **herriko jaiak** (14); **jaiak amaitu** (4); **jaiak antolatu** (4); **jaiak antolatzeko** (5); **jaiak antolatzen** (10); **jaiak dolu** (4); **jaiak izango** (4); **jaiak ospatu** (5); **jaiak ospatzeko** (4); **jaiak ospatzen** (4)
>
> **jaiaren leloa** (4)
>
> **gasteizko jaietako** (10); **herriko jaietako** (5)
>
> **auzoko jaietan** (4); **euskal jaietan** (6); **gasteizko jaietan** (5); **herriko jaietan** (19); **ilberri jaietan** (5); **mari zuriaren jaietan** (5); **pazko jaietan** (4); **zuriaren jaietan** (5)
>
> **jaietara joan** (4)

---

# jaialdi **1** *iz* ikus-entzuleen atseginerako prestauriko emanaldi jendaurrekoa.

Ikastolako gabonetako **jaialdian** ekitaldi batzuk ditugu. Joan Mari Irigoien

Ikastolen arteko harremana sendotzeko eta, bereziki, Ipar Euskal Herriko ikastolei laguntzeko behar-beharrezkoak dira **jaialdi** hauek guztiak. Berria - Euskal Herria

Bezperan, Donibane Garazin zegoen **jaialdira** bildu ginen. Patxi Zubizarreta

Astean behin armadako goi-buruek antolatutako **jaialdietan** orkestrak dantzarako musika jotzen zuen -baltseoko doinuak- zenbait martxa militarrekin batera. Felipe Juaristi

**2** zinema, musika edo kidekoen emanaldi saila. ik beherago **7.**

Laster egitekoa zen **jaialdi** edo lehiaketa batean aurkeztu behar zuela-eta. **Jaialdiari** hasiera emateko, emanaldi berezia prestatu dute urtero legez. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi eguneko **jaialdiaz** gain, aurkezpen festa bat, *americana* musikako saioak eta Johnny Cashen omenaldia antolatu dituzue. Berria - Kultura

**Jaialdiko** emanaldietan, besteak beste, *Fun Lovin' Criminals* eta *Jesse Sykes & The Sweet Hereafter* ariko direla iragarri berri dute antolatzaileek. Berria - Kultura

**Jaialdira** 15.000 lagun joatea espero dute antolatzaileek, eta dagoeneko jarri dituzte hiru egunetarako abonuak salgai. Berria - Kultura

**Jaialdirako** sarrerak eskuratzeko aukera dago oraindik. Berria - Kultura

**Jaialdiaren** zuzendariak, Rafael Perez-Sierrak. Berria - Kultura

Erriberriko **jaialdiko** arduradunek idazle ukrainarrari omenalditxo bat egin nahi izan diote. Berria - Kultura

Gaur bertan emango dira Miarritzeko Nazioarteko **Jaialdiko** Urrezko Eguzkiak. Hasier Etxeberria

Bat-bateko Film Laburren **Jaialdia**. Berria - Kultura

Hiriak gainezka egin ohi du Nazioarteko Komiki **Jaialdia** egiten den egunetan. Berria - Kultura

Antzerki **Jaialdi** Translatinoa. Berria - Kultura

## **3** (kirol arloan)

Aurtengo udan hiru **jaialdi** antolatu dituzte, Donostiako *Masters*eko bi finalerdiak eta finala. Berria - Kirola

Eguraldi txarra dela eta, Aspek etzira arte atzeratu du bart gauean Azkoitian jokatzekoa zen **jaialdia**. Berria - Kirola

Torneo horiek udako beste **jaialdiek** ez duten lehiakortasuna izaten dute. Berria - Kirola

Logroñoko torneoak bederatzi **jaialdi** eta eskuz banakako zein binakako txapelketak izango ditu. Berria - Kirola

**Jaialdia** 17:30etan hasiko da, Agirrek eta Medinak Bengoetxea VI.a eta Armendarizen kontra jokatuko dute. Berria - Kirola

**Jaialdiko** aurreneko partidan Aspeko multzoko Bigarren Mailako Binakako Txapelketako finala jokatuko da.

**Jaialdi** berean, Inaxio Perurena harri-jasotzailea 275 kiloko harriarekin marka ezartzen saiatuko da. Berria - Euskal Herria

## **4** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jaialdi** handi jendetsuak. Andoni Egaña

Fuji Rock **jaialdi** erraldoian parte hartuko du Fermin Muguruza Kontrabandak. Berria - Kultura

Gai nintzela esan zidan **jaialdirik** ederrena purtzilkatzeko. Hasier Etxeberria

Europako zinema **jaialdi** ospetsuenetan. Berria - Kultura

Kalearte horietan egosten ziren gure **jaialdi** poetikoak, jazzaldi bat-batekoak, eta adiskideen arteko giroa. Javi Cillero

**Jaialdi** elektroakustikoak ere badaude. Berria - Kultura

**Jaialdi** militar bat antolatu zuten hiri garrantzizko hartan tatariarren kuartel nagusia inauguratuko zela ospatzeko. Karlos Zabala

Inork ez bezala dakiela berak antolatzen **jaialdi** piroteknikoa. Hasier Etxeberria

Lau-sei bertsolariko **jaialdiak**. Andoni Egaña

Nik neuk ere, gaiak jarri izan ditut, herriko **jaialdietan**-eta. Andoni Egaña

Berrehundik gora lan lehian Ikus-entzunezkoen **Jaialdian**. Berria - Kultura

Eskultura Galkorren Habanako **Jaialdi** Nazionala. Berria - Kultura

## **5** jaia.

Koarta-tenporetaz jardutean ikusi dugu nola udaberriko lehen ilbetearekin ospatzen zuten hebrearrek beren **jaialdi** nagusia, Pazkoarena justu. Pello Zabala

Horrekin batera, jauregian hamar eguneko **jaialdiari** hasiera eman zioten. Patxi Zubizarreta

**Jaialdi** judu laikoa, zortzi eguneko iraupena duena. Koro Navarro

Festa, **jaialdi** handia izango da bizitza beti orainean jardunez gero, bizitzen ari garen unea baino ez baita izango orduan bizitza. Xabier Aranburu

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jaialdi** eguna heldu zenean. Patxi Zubizarreta

## **7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dantza eta musika **jaialdiek**. Xabier Amuriza

Getxokoa munduko musika **jaialdien** Europako Zerrendan dagoela. Berria - Kultura

Shakespeareren hiru obra eskainiko ditu Erriberriko antzerki **jaialdiak**. Berria - Kultura

Europako zinema **jaialdi** ospetsuenetan. Berria - Kultura

Uztailaren 15, 16, 17 eta 18an Baionan iraganen den jazz **jaialdiak**. Berria - Kultura

Portugaleteko Folklore **Jaialdia,** Europari so. Berria - Kultura

Irailaren 1ean hasiko da Getxoko Nazioarteko Folk **Jaialdia**. Berria - Kultura

Bankuak babesturiko jota-**jaialdietara** joaten da. Xabier Mendiguren Elizegi

Jauregi Berriko gau **jaialdi** hartan. Karlos Zabala

Izan ere, etsipen kutsu penagarria zerien folklore **jaialdien** eta meza ikusgarrien gaineko albiste haiei. Alberto Ladron Arana

Gauza franko hasi ziren hirurogeietan: acid-rocka, **"jaialdiak",** amodio-**jaialdiak,** zigarro goxoak... Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**esku huskako jaialdi** (3); **gaurko jaialdi** (6); **jaialdi antolatu** (4); **jaialdi erakargarria antolatu** (4); **jaialdi handi** (7); **jaialdi handia** (5); **jaialdi handien** (3); **jaialdi ikusgarria** (3); **jaialdi misto** (3); **jaialdi mistoa** (5); **jaialdi nagusia** (6); **jazz jaialdi** (4); **musika jaialdi** (5); **nazioarteko jaialdi** (5); **pilota jaialdi** (6); **profesional mailako jaialdi** (3); **rock jaialdi** (5); **zinema jaialdi** (9)

**antolatutako jaialdia** (3); **antzerki jaialdia** (10); **antzerki klasikoaren jaialdia** (3); **asegarceren jaialdia** (3); **aurkezpen jaialdia** (4); **aurreneko jaialdia** (3); **aurtengo jaialdia** (5); **biharko jaialdia** (3); **bilboko jaialdia** (3); **blues jaialdia** (5); **cannesko jaialdia** (5); **dantza jaialdia** (6); **egun osoko jaialdia** (3); **erremonte jaialdia** (3); **folk jaialdia** (6); **folklore jaialdia** (8); **gitarra jaialdia** (4); **jaialdia abian** (4); **jaialdia amaitzeko** (4); **jaialdia antolatu** (29); **jaialdia antolatuko** (3); **jaialdia antolatzeko** (4); **jaialdia antolatzen** (7); **jaialdia bertan behera** (9); **jaialdia egin** (6); **jaialdia egingo** (20); **jaialdia hasi** (9); **jaialdia hasiko** (4); **jaialdia hasteko** (4); **jaialdia iraganen** (3); **jaialdia ixteko** (5); **jaialdia izan** (4); **jaialdia izango** (10); **jaialdia ospatuko** (3); **jaialdia zabaltzeko** (3); **jazz jaialdia** (7); **jokatzekoa zen jaialdia** (3); **kale antzerki jaialdia** (4); **musika jaialdia** (17); **musiken jaialdia** (3); **nazioarteko antzerki jaialdia** (3); **nazioarteko jaialdia** (12); **nazioarteko musika jaialdia** (4); **nazioarteko zinema jaialdia** (4); **omenezko jaialdia** (3); **pilota jaialdia** (5); **rock jaialdia** (8); **trikiti jaialdia** (4); **zinegoak jaialdia** (4); **zinema jaialdia** (18); **zuzendutako jaialdia** (3)

**antzerki jaialdiak** (5); **aurtengo jaialdiak** (5); **bilboko jaialdiak** (3); **bilboko nazioarteko jaialdiak** (3); **egingo den jaialdiak** (3); **folk jaialdiak** (5); **folklore jaialdiak** (3); **irudien lurra jaialdiak** (3); **jaialdiak antolatzen** (11); **jaialdiak iraun** (4); **jaialdiak izango** (4); **jazz jaialdiak** (5); **kale antzerki jaialdiak** (3); **lekeitioko jaialdiak** (3); **musika jaialdiak** (5); **nafarroako jaialdiak** (8); **nazioarteko folklore jaialdiak** (3); **nazioarteko jaialdiak** (8); **rock jaialdiak** (4); **txotxongilo jaialdiak** (3); **zinema jaialdiak** (7)

**antolatutako jaialdian** (4); **antzerki jaialdian** (12); **aurtengo jaialdian** (4); **berlingo zinema jaialdian** (3); **bilboko jaialdian** (4); **blues jaialdian** (4); **cannesko jaialdian** (10); **cannesko jaialdian aurkeztu** (3); **egingo den jaialdian** (7); **film laburren jaialdian** (4); **folk jaialdian** (3); **gasteizko jazz jaialdian** (3); **gaurko jaialdian** (4); **getxoko jazz jaialdian** (3); **ikus entzunezkoen jaialdian** (3); **izango dira jaialdian** (9); **jaialdian abestuko** (3); **jaialdian ariko** (11); **jaialdian aurkeztu** (4); **jaialdian egin** (3); **jaialdian eman** (3); **jaialdian emango** (3); **jaialdian estreinatu** (4); **jaialdian estreinatuko** (3); **jaialdian izango** (14); **jaialdian joko** (6); **jaialdian lehiatuko** (5); **jaialdian parte hartu** (8); **jaialdian parte hartuko** (15); **jaialdian parte hartzeko** (5); **jazz jaialdian** (11); **jokatuko den jaialdian** (3); **musika jaialdian** (7); **nazioarteko antzerki jaialdian** (3); **nazioarteko jaialdian** (13); **nazioarteko zinema jaialdian** (3); **rock jaialdian** (15); **salzburgoko jaialdian** (3); **trikiti jaialdian** (4); **txotxongilo jaialdian** (7); **zinema jaialdian** (24)

**antzerki jaialdiaren** (4); **aurtengo jaialdiaren** (3); **dantza jaialdiaren** (4); **folk jaialdiaren** (3); **jaialdiaren antolatzaileak** (5); **jaialdiaren antolatzaileek** (9); **jaialdiaren ardatza** (3); **jaialdiaren aurkezpen** (6); **jaialdiaren aurkezpena** (3); **jaialdiaren bigarren ekitaldia** (5); **jaialdiaren egitaraua** (3); **jaialdiaren espiritua** (3); **jaialdiaren karietara** (8); **jaialdiaren lehen egunean** (3); **jaialdiaren zuzendari** (4); **jaialdiaren zuzendariak** (5); **jazz jaialdiaren** (4); **musika jaialdiaren** (4); **nazioarteko jaialdiaren** (3); **nazioarteko trikiti jaialdiaren** (4); **rock jaialdiaren** (11); **rock jaialdiaren hirugarren** (3); **zinema jaialdiaren** (8)

**nazioarteko jaialdiari** (5)

**nafarroako jaialdien** (6); **nafarroako jaialdien barruan** (4)

**nafarroako jaialdietako** (5)

**jaialdietan parte hartu** (3); **jazz jaialdietan** (5); **nafarroako jaialdietan** (7); **nazioarteko jaialdietan** (3); **zinema jaialdietan** (3)

**itzuliko da jaialdietara** (7)

**antzerki jaialdiko** (5); **aurtengo jaialdiko** (5); **berlingo zinema jaialdiko** (4); **cannesko jaialdiko** (4); **galarretako jaialdiko** (3); **gaurko jaialdiko** (3); **getxoko jazz jaialdiko** (4); **jaialdiko antolatzaileek** (5); **jaialdiko aurreneko partida** (3); **jaialdiko aurreneko partidan** (9); **jaialdiko bigarren partida** (3); **jaialdiko bigarren partidan** (8); **jaialdiko epaimahaiak** (3); **jaialdiko epaimahaiburua** (3); **jaialdiko estelarrean** (5); **jaialdiko film** (4); **jaialdiko hirugarren partidan** (3); **jaialdiko lehen partida** (3); **jaialdiko lehen partidan** (12); **jaialdiko lehendakaria** (4); **jaialdiko lehendakaria eta** (3); **jaialdiko lehenengo partidan** (3); **jaialdiko lehiaketa** (4); **jaialdiko ordezkari** (5); **jaialdiko ordezkari nagusiak** (3); **jaialdiko partida** (23); **jaialdiko partida nagusia** (4); **jaialdiko partida nagusian** (17); **jaialdiko partidarik onena** (5); **jaialdiko sail** (6); **jaialdiko sari** (4); **jaialdiko zuzendari** (8); **jaialdiko zuzendari artistikoa** (3); **jaialdiko zuzendaria** (4); **jaialdiko zuzendariak** (11); **jaialdiko zuzendariaren** (3); **jazz jaialdiko** (7);

komiki jaialdiko (4); nazioarteko jaialdiko (4); rock jaialdiko (3); zinema jaialdiko (10)
jaialdirako sarrerak (3)

---

# jaialditxo *iz* jaialdi txikia.

Elkarrekin bizitzen jarri ginenetik, beti atsegin izan dugu etxean **jaialditxoren** bat edo beste egitea. Patxi Zubizarreta

**Jaialditxo** bat egingo dugu, Fredek eta Georgek pastelak-eta harrapatu dituzte sukaldetik. Iñaki Mendiguren

---

# jaiburu *iz*

Urteko zenbait **jaiburutan** arrebak nebari kolorezko eskumuturreko bat ezartzen dio, bere burua nebaren menean ezartzen duela adierazteko Gotzon Garate

---

# jaidura 1 *iz* joera, bereziki arimarena edo gogoarena.

**Jaiduraz** praktikoa baitzen, azkar bihurtu zuen bere ametsa egia. Xabier Olarra

Ez zait laket jokabide makurrei trufa makurrak gehitzea; ez dira horiek ez nire manerak, ez nire **jaidurak**. Jon Muñoz

Mutikoa ez dago gaizki, ez du inolako gaitzik, esaten zuten, baina gaixotasunerako **jaidura** du. Xabier Olarra

Erromatarren **jaidura** merkataritzan ez aritzea zela. Iñaki Iñurrieta

Autismorako **jaidura** berez biologikoa dela ez da zalantzan jartzen gaur egun. Xabier Olarra

Gautarra zen ohituraz, eta dantzarako zaletasuna eta haurrak lapurtzeko **jaidura** zuen. Xabier Olarra

Loreekiko zuen zaletasuna zen berak maizenik aitortutako **jaidura**. Mirentxu Larrañaga

Modarako **jaidura** hura gorde zuen amak bizi izan zeino. Joxan Elosegi

Aitarenak zituen bere burua koroatzeko **jaidura,** errege-harrotasuna eta sortzeko poza. Juan Garzia

Horditasunak gure benetako grina eta **jaidurak** azaleratzen dituen teoriari kontu eginez gero. Aingeru Epaltza

Ez dezaket uler nola **jaidura** batek, une batez jaioa eta bertze batez hila gertatu denak, ahalkearen, prestutasunaren eta lañotasunaren hatsapen mudaezinak baino indar gehiago izan dezakeen. Jon Muñoz

Nik, gogo bihotzean, ez dut **jaidura** bat beizik: euskara, eta beti euskara! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (izenondoekin)

Gaixoei eta behartsuei laguntzeko **jaidura** berezia zuen. Juan Kruz Igerabide

Du Bellayren olerkien deklamatzeko ene **jaidura** txarra. Itxaro Borda

Gizabideak beartzen gaitu, baiki, gure **jaidura** basa orri uko egitera. Harkaitz Cano

Liburuetarako **jaidura** naturalak. Bego Montorio

**Jaidura** handiz nabil horretan, oinazerik krudelenaren mende geratzeko arriskuan bainaiz. halako **jaidura** arretagabe bat babestuz. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
jaidura berezia (3); jaidura berri (4); jaidura naturalak (3); jaidura txarra (3)

---

# jaiegun *(orobat **jai(-)egun**)* 1 *iz* arrazoiren batengatik lan egin gabe eta gehienetan elizkizun edo olgeta eta josteta jakinez ospatzen den egun berezia. ik **jai**.

Udako **jaiegun** gehienetan. Aingeru Epaltza

**Jai** -eguna du gaur. Jon Muñoz

**Jaiegun** eta igandeetan, gin-tonika hartu ohi zuen. Bego Montorio

Denda horiek **jaiegun** eta igandeetan zabaltzeko aukera zuten. Berria - Ekonomia

Karrikara atera ziren elizaren **jai** egunetan bezalaxe. Felipe Juaristi

Itsasondon abuztuko Ama Birjina dute **jaiegun** nagusia. Xabier Mendiguren Elizegi

Gerra ospakizun eta herriko beste **jaiegun** berezietan. Joseba Sarrionandia

Sei-zazpi italiar bildu ginen, eta **jai** egunean Libistorferantz abiatu ginen. Josu Zabaleta

Ama eta Annette ikusi nituen, **jai** -egunetako arropak jantzita. Anjel Lertxundi

Agintari irakiarrek **jaiegun** izendatu zuten atzo ekainaren 30a, hain zuzen ere, boterearen transferentzia egingo den eguna. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Kamioiek debekatuta dute **jaiegun** bezperako 22:00etatik hurrengo eguneko 22:00ak arte zirkulatzea. Berria - Euskal Herria

# jaie *(134 agerraldi 29 liburu eta artikulu 1ean)* 1 *iz* erlijioaren eta elizkizunen atxikimendu gartsua. ik **debozio**; **eraspen**.

Ez dago eraspenik, **jaiera** edo katigamendurik izen jakinik gabe, nonbait. Iñaki Segurola

Belaunikaturik, begirune eta **jaiera** handiz eskatu zion Frantzisko dohatsuari bere elkartean har zezala. Askoren artean

Mendi soil batean bakarrik, edatekorik gabe, lurrean etzan zen akiturik eta **jaiera** amodiotsuz bere zaintzaile San Frantziskori dei egiten zion bihotzetik. Askoren artean

Hurbildu ziren inguruko emakumeak eta amaren **jaiera** -falta madarikatzen zuten. Askoren artean

Erlijiozalea zen, oso; itun berezi bat egina zuen Jaunarekin bere ustetan, zuzen jokatzeko agindua betetzeko obligaziotik libre uzten zuena, otoitz eta **jaiera** truke. Juan Garzia

**2** santutzat hartzen den pertsona edo gauza batekiko atxikimendu gartsua.

Berebiziko **jaiera** izan zion Jesus Sagrariokoari. **Jaiera** handia izan bide du santu honek ere inguru hauetan. Pello Zabala

Marinelen artean, Karmengo Ama da **jaiera** handien duena. Pello Zabala

Juduen artean **jaiera** handia izan zuen hebrearren zaindari kontsideratua zen Mikael arkanjelu eta goiaingerua. Pello Zabala

Bizi-bizia da Gure Andere Mariari diodan **jaiera,** eta, era berean, Jaungoiko gure Jaunaren neurrigabeko errukiaren uste osoa. Patxi Ezkiaga

Eliza pobretxoa izan arren eta ia hondatua, Asis eta bailara guztiko jendeak **jaiera** handia zion aspalditik. Askoren artean

Aitaren aldeko familian **jaiera** gehixeago zuten eliz kontuetarako. Xabier Mendiguren Elizegi

Ofizio-otoitzari eta elizaren arauei begirunea eta **jaiera** izan ziezaietela. Askoren artean

Frantziskorenganako **jaiera** bereziz beterik. Askoren artean

Jainko- **jaiera** eta Jainko-gosea gehiagotu egiten direla, tentaldiak erasotzen dioten bakoitzean. Joan Mari Lekuona

**3** *hed*

Orduan Sartrerekiko **jaiera** nuen, interesa, eta Unamuno existentzialista ere interesantea zen niretzat. Berria - Kultura

Estoikoekiko **jaiera** zuen, itxura zenez: Krisipo, Zenon, Epikteto, Marko Aurelio enperadore filosofoaren *Pentsamenduak*... Txillardegi

Familia-kontuetarako ez dut inoiz joerarik ez **jaierarik** izan. Xabier Mendiguren Elizegi

OIC eta POUM oso antzekoak ziren ideia aldetik, eta, aita POUM en ibili zelarik, **jaiera** handia zien OICkoei, baina ez zebilen alderdi hartan. **Jaiera** urduriz zabaldu nuen liburua. Juan Kruz Igerabide

Zutik jarri eta besoa altxaturik, himnoa kantatu genuen **jaiera** osoz. Anjel Lertxundi

Itxura denez, orduantxe sortu zen berarengan Miarritzekiko **jaiera**. Txillardegi

Handitasunari, edertasunari zioten **jaiera** hura. Alberto Ladron Arana

Hartara ikusi nuen -ezin susmatuko zenuke zer-nolako begirunezko **jaieraz-** zure etxea barrutik, zure mundua, lanean aritzen zinen idazmahaia [...]. Eduardo Matauko

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **debozio eta jaiera** (3); **jaiera eta begirunerik** (3); **jaiera handia** (9); **jaiera handia izan** (3); **jaiera handia zion** (3); **jaiera handiz** (5); **jaiera izan** (3)

---

## jaieratsu 1 *izond* jaieraz betea.

Gizon zintzo eta **jaieratsua** zenez, heriotza gainean zuela ikusirik, elizakoak eskatu zizkion fraide bati. Askoren artean

Jainkoaren zerbitzari **jaieratsua**. Askoren artean

Sekula ez dut ikusi senar **jaieratsuagorik** nire bizi osoan. Mirentxu Larrañaga

Eskerrak ematen zizkion Jainkoari, sorkari guztiek honela aitorpen **jaieratsuz** beneratzen dutenari. Hura jaiera sinplea, hura sinpletasun **jaieratsua**! Askoren artean

San Frantziskori debozio kartsuz lotua eta anaienganako ardura **jaieratsua** zuena. Askoren artean

Jokabide eta errito-kode tradizionala berpizteko Konfuzioren grina **jaieratsua**. Iñaki Mendiguren

**2** (adizlagun gisa)

Ordenan sartu zen eta bertan iraun zuen apal eta **jaieratsu** Jainkoaren zerbitzuan. Askoren artean

Horrela, bada, Kristorekin bat etortzeko -haren Ordezkaria zenez- **jaieratsu** erabaki zuen Frantzisko lurrean ere santuen aintzaren eta fededun guztien benerazioaren duin aitortzea. Askoren artean

Baina batasun itxura hartzen duen bitasunak berez eta nahitaez sutsu, **jaieratsu** eta abegitsu bihurtzen du maitasuna. Joan Mari Lekuona

---

## jaiero *adlag* jai guztietan.

**Jaiero** izaten zen trikitia plazan. Arantxa Iturbe

**Jaiero** han jotzen hasi nintzen eta askotan hamahiru pezetatik gora biltzen nuen. Berria - Kultura

Sekulako erromeria egiten zuten **jaiero**. Pako Aristi

· Pazko **Jaiero** preso bat askatu ohi zuen Pilatok, herriak eskatzen zuena. Elizen arteko biblia

---

jaigiro ik **jai 14**.

---

## jaigune (*orobat* ***jai-gune***) *iz*

Iazko Aste Nagusian, berriz, abuztuaren 21ean Ertzaintza **jaigunera** sartu zen. Goraipatu beharrekoa da Ertzaintzaren jarrera: uneoro kontrolpean izan baitu **jaigunea,** eta hala ere oharkabean pasa da beraien presentzia. **Jai-gunea** hemengo sukalki edo bakailao edo tortila txapelketetan atondu izaten diren horien antzekoa da. Unai Iturriaga

Binakako lehiako garailea ikusteko aukera izango da Bakioko [...] **jaiguneko** karpan. Berria - Kirola

---

## jaiki, jaikitzen 1 da *ad* etzanda dagoena, eta bereziki ohean dagoena, zutik jarri. ik**altxatu**.

Egun batean, arratsalde aldera, ohetik **jaiki** eta jauregiko etxegainean paseatzen hasi zen. Jose Antonio Mujika

Ohetik jauzi batez **jaiki**. Josu Zabaleta

Petrikiloa eskaileretan behera agertu zen, lotatik **jaiki** berria denaren aurpegiarekin. Juan Kruz Igerabide

Siestatik **jaiki** berria balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Jardun hau egunean bi bider egingo da, alegia, goizean **jaikitzean,** eta bazkaldu edo afaldu baino ordubete lehenago. Patxi Altuna

Jexux aspaldi **jaikia** zen. Xabier Etxabe

-Goizeko lauretan **jaiki** beharra zaukaat. Pedro Alberdi

Neskak **jaiki** al dira? Fernando Morillo

Josue goizean goiz **jaiki** zen. Elizen arteko biblia

Zazpigarren egunean, egunsentian **jaiki** eta itzulia egin zuten hiriaren inguruan. Elizen arteko biblia

Eta esan zion elbarriari: -zuri diotsut: **jaiki,** hartu ohatila eta zoaz etxera. Elizen arteko biblia

**Jaiki** zen hildakoa eta hizketan hasi, eta Jesusek amari bihurtu zion. Elizen arteko biblia

Ez dut arrazoi bakar bat ere aurkitzen **jaiki** eta zer edo zer egiteko. Eskarne Mujika

Gero, gorputza erdi **jaiki,** ohearen albo baterantz okertu, eta karpeta astun bat atera zuen ohepetik. Anjel Lertxundi

Lehen doinuak entzun ahala Etxeberryk **jaikitzeko** saioa egin du. Felipe Juaristi

"Zaude;" **jaikitzekoa** egin zuen Mikaelak. Pablo Sastre

**2** *irud*

Hiria ohetik **jaiki** eta lur hotzaren gainean oinutsik ibiltzen hasten den ordua. Joseba Sarrionandia

Astelehena mantso **jaiki** zen igandearen lozorrotik. Unai Iturriaga

Eguna hotz **jaiki** zen baina argi. Joan Mari Irigoien

Gustatzen baitzait Jaurenean ikustea eguna **jaikitzen**. Elena Touyarou

**3** (eserita dagoena)

Arianek besaulkitik **jaiki** eta diskoa itzali zuen. Joseba Sarrionandia

Fritz Gegenbauer erdi lotan **jaiki** zen sofatik. Anton Garikano

Ninibeko erregeak ere mezuaren berri izan zuenean, tronutik **jaiki** eta errege arropak kendu zituen. Jose Antonio Mujika

Mahaitik **jaiki** eta logelara abiatu da. Xabier Paya

Erregea, haserre bizian, oturuntzatik **jaiki** eta jauregiko lorategira irten zen. Jose Antonio Mujika

Idazmahaitik **jaiki,** eta, lehen bezala, erakusmahaiaren altxagarria altxatu eta bulegotik irten zen. Irene Aldasoro

Bere lekutik **jaiki** eta nire ondoan eseri da emakumea. Iban Zaldua

**4** (erori dena)

Ordea, ahantzi egin ote zaik zer den bizitza: eror eta **jaiki, jaiki** eta eror, berriro jaikitzeko...? Joan Mari Irigoien

Horrelaxe bizi izan baitzen Ibiñagabeitia **jaiki** eta erori, erori eta **jaiki** unean unean zeuzkan indarren eta ahalen arabera bere esku zegoen guztia «erpe ta aginekin» egiten euskararen, euskal literaturaren eta aberriaren alde Berria - Harian

**5** (lurrean edo belauniko dagoena)

Otoitza amaitu zuenean, **jaiki** zen Judit, eta, mirabeari deituta [...]. Jose Antonio Mujika

Ivan Ogareff lurretik **jaiki,** eta, itsua aise menderatu ustean, eraso egin dio. Karlos Zabala

Belaun koskorrak minberaturik **jaiki** behar izan dudan arte. Txillardegi

Lurretik **jaiki** nintzenerako, amona poliziei kontatzen ari zitzaien nondik gentozen. Anjel Lertxundi

Edan, mozkortu, oka egizue eta erori lurrera, gehiago ez **jaikitzeko,** gerraren erasopean. Elizen arteko biblia

**6** (animaliak)

Katua emeki **jaiki,** bizkarraz Larraitzen izterra ferekatu, isil-isila pasillora egin zuen. Pablo Sastre

Animalia **jaiki** zen, eta balantzaka, [...] zapia zegoen lekuraino joan zen. Josu Zabaleta

Oila-loka ura edatera **jaiki** ohi zenean. Pello Zabala

**7** (nola adizlagunekin)

Blanche astiro **jaiki** eta ohe ondoan zutik gelditu da ahizpari begira. Xabier Paya

Stella lasai-lasai **jaiki** da. Xabier Paya

Bat-batean **jaiki** eta mutilaren izterren gainean eseri zen, zangalatraba. Fernando Morillo

Nekez **jaiki** naiz. Monika Etxebarria

Kostata **jaiki** zen-: a!, ez. Monika Etxebarria

Lehenengo tiroarekin batera erne eta bizkor **jaiki** nintzen ohetik. Josu Zabaleta

Biharamunean, urduri **jaiki** nintzen. Joan Mari Irigoien

Asaldaturik **jaiki** ziren. Karlos Zabala

Erdi biluzik **jaiki** zen Catherine eta ate aldera joan. Iñaki Zabaleta

**-Jaiki** ziztuan, berandu diagu! Aingeru Epaltza

Iban Mayo ere herrenka **jaiki** zen, iztarraldea handituta. Berria - Kirola

**8** altxatu; goratu.

Milikatuz, jakinduriaz putz eginez, erantzun dute nire titiburuek eta harro **jaiki** dira. Juan Martin Elexpuru

Ez dago despota izan nahi ez duen gizonik zakila **jaikitzen** zaionean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ikusi nola **jaikitzen** zaion gure gizonari... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atlantikotik **jaiki** eta tentetu den antizikloi batean. Pello Zabala

· Orain, ordea, Adonias **jaiki** da errege, zure ezjakinean. Jose Antonio Mujika

**9** (eguzkia)

Eguzkia **jaikitzen** denean. Josu Zabaleta

Eguzkia **jaiki** gabea zenez, orkatzak Wildstrubel inguruan harrapatuko zituela espero zuen ehiztariak. Josu Zabaleta

Hirurak aldean eguna argitzen hasiko dun, eta, eguzkia **jaiki** ondoren, erraza ez, baina bai egiteko modukoa bihurtuko dun jaistea. Karlos Zabala

Goizeko 7ak 11 gutxiagotan **jaiki** da eguzkia gure mendiarteotan. Pello Zabala

Helios eguzki jainkoa itsasotik **jaiki** eta zerura igotzen hasirik. Juan Kruz Igerabide

Eguzkia **jaikia** zen mutilak itzuli zirenerako. Josu Zabaleta

**10** (norbaiten edo zerbaiten aurka edo) altxatu.

Zu eta zure herritarrak erregearen aurka **jaikitzeko** asmotan zabiltzatela. Elizen arteko biblia

Ni ez nauk sistemaren aurka **jaiki,** nik ez diat neure nortasuna finkatu nahi izan antolamendu suntsitzaileari aurre eginez. Koldo Izagirre

Uste al duzu hitz hutsek gerrako planak eta ausardiak bezainbat balio dutela? norengan duzu zeure ustea, nire kontra **jaikitzeko** ? Berria - Ekonomia

Alde atera zaizu gaur Jauna eta libratu zaitu aurka **jaikitako** guztien eskuetatik. Elizen arteko biblia

Berekoikeriaz egiaren kontra **jaikitzen** direnei Elizen arteko biblia

**11** (era burutua izenondo gisa)

Bi kondoietariko batek nire zuztar **jaikia** begiratzen zuen, lekatik kanpora leka. Aingeru Epaltza

Nik beren zakil **jaikiak** ikusten nituen, eta desiatzen nengoen norbaitek sar ziezadan. Juan Martin Elexpuru

Bi poloetara iristea eta kontinente bakoitzeko mendi **jaikienera** igotzea da proiektua. Berria - Kirola

**12** (era burutua izen gisa)

Azkenaldian Euskal Herriko gazteleran **jaiki** handia duen hitza da "ciudadanos/as vascos/as", Ibarretxek patentea bere manerara ezarri nahi badie ere. Iñigo Aranbarri

**13** ***jaiki berri***

**Jaiki** berria zen, eta bere ilea [...] adats leun txikietan jaisten zitzaion lokietatik behera. Karlos Zabala

-**Jaiki** berritan batik bat. Josu Landa

**Jaiki** berri-berritan, begiak ttikiak zituen, loak ikusezin bihurtuak kasik. Fernando Rey

· Eguzki **jaiki** berria distiratsu baino distiratsuago zegoen. Joan Mari Irigoien

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ama jaiki** (4); **astiro jaiki** (6); **aulkitik jaiki** (19); **aurka jaiki** (18); **aurka jaiki ziren** (5); **azkar jaiki** (5); **bat batean jaiki** (14); **bat jaiki** (5); **batera jaiki** (5); **berandu jaiki** (6); **berehala jaiki** (15); **berriro jaiki** (9); **berriz jaiki** (4); **besaulkitik jaiki** (5); **biharamun goizean jaiki** (5); **biharamunean jaiki** (4); **bizkor jaiki** (6); **egitera jaiki** (5); **egunsentian jaiki** (4); **emakumea jaiki** (6); **erregearen kontra jaiki** (4); **gauerdian jaiki** (4); **gauez jaiki** (4); **goiz jaiki** (96); **goiz jaiki behar** (10); **goiz jaiki beharra** (7); **goizago jaiki** (4); **goizean goiz jaiki** (62); **goizean jaiki** (25); **goizik jaiki** (6); **isilean jaiki** (4); **ixtera jaiki** (4); **jaiki behar** (37); **jaiki behar izan** (7); **jaiki behar izaten** (7); **jaiki beharko** (8); **jaiki beharra** (19); **jaiki berria** (11); **jaiki berriak** (4); **jaiki bezain laster** (4); **jaiki eta atera** (5); **jaiki eta berehala** (5); **jaiki eta esan** (5); **jaiki eta jan** (4); **jaiki eta jaten** (4); **jaiki eta joan** (4); **jaiki eta zoaz** (9); **jaiki ezinik** (4); **jaiki gabe** (9); **jaiki nahi** (9); **jaiki ondoren** (5); **jaiki orduko** (11); **jaiki zen gotzaina** (4); **jaiki zen ohetik** (7); **jauzi batez jaiki** (7); **kontra jaiki** (18); **lehenago jaiki** (4); **lurretik jaiki** (9); **mahaitik jaiki** (16); **ohetik jaiki** (88); **oso goiz jaiki** (5); **seietan jaiki** (4); **sendaturik jaiki** (5)

**oraintxe jaikiko naiz** (4)

**goiz jaikirik** (12); **goizean goiz jaikirik** (9)

**goiz jaikita** (9); **goizean goiz jaikita** (9); **jaikita zegoen** (6)

**goiz jaikitzea** (5)

**goizean jaikitzean** (7); **ohetik jaikitzean** (6)

**jaikitzeko keinua egin** (4); **ohetik jaikitzeko** (6)

**goiz jaikitzen** (20); **goizago jaikitzen** (4); **goizean goiz jaikitzen** (8); **goizean jaikitzen** (6); **goizeko seietan jaikitzen** (5); **jaikitzen ari** (4); **lauretan jaikitzen** (4); **ohetik jaikitzen** (7); **seietan jaikitzen** (5)

**jaikialdi** *iz* jaikitzea.

Atera ditzagun kontuak: goizeko **jaikialdia,** 33 minutuz mantsotzen du [eguzkiak], nagi ahalenak! ilunabarreko aimaritakoa, berriz, 45 minutu aurreratu du. Pello Zabala

Beraz, goizetik **jaikialdia** minutu berean dauka, eta arratsetik, berriz, artean ere 5 minutu luzatu behar dizkigu. Pello Zabala

---

**jaikiarazi**, jaikiaraz, jaikiarazten **1** du *ad* jaikitzera behartu.

Baina geldirik ezin egonak berriro **jaikiarazi** ninduen. Josu Zabaleta

Kanpoko zalapartak **jaikiarazi** ninduen. Aingeru Epaltza

Amak ohetik **jaikiarazi** ninduenean. Alberto Ladron Arana

Patxadosoena bere aulkitik **jaikiarazteko** moduko datua. Pello Zabala

Nire semea **jaikiaraztera** joan nintzen. Joseba Urteaga

Joan zitzaizkion jauregiko arduradunak lurretik **jaikiarazteko** asmotan. Elizen arteko biblia

Alargun-soinekoa erantzi zuen, israeldar atsekabetuak **jaikiarazteko**. Elizen arteko biblia

**Jaikiaraz** dezagun lur joa dagoen geure herria. Elizen arteko biblia

Jotzen duen musika sugeak **jaikiaraztekoa** dela ematen du Edorta Jimenez

**2** altxarazi, gorarazi.

Ez du ikusten haizea, izadian den indarrik handiena, gizonak lurrera botatzen dituena, etxeak eraisten dituena, zuhaitzak erauzten, itsasoa [...] mendi bihurturik **jaikiarazten**. Josu Zabaleta

**3** (norbaiten aurka edo) altxarazi.

Sion gudari-ezpata bihurtuko dut, eta haren semeak greziarren aurka **jaikiaraziko** ditut. Elizen arteko biblia

---

**jaikitze** **1** *iz* etzanda edo eserita dagoena zutik jartzea.

Neure buruari **jaikitze** beretik ezarritako gidoiari atxiki nintzaion. Aingeru Epaltza

Josebaren **jaikitze** prozesura itzuliz, gazteari, altxatzen hastean, gela osoa zurrunbilo bihurtu zitzaion. Fernando Morillo

**2** *irud*

Ilargiaren esnatze-**jaikitze** eta bere aimaritakoak, denak dira kontuan hartu beharrekoak. Pello Zabala

---

**jaimista** *iz* Jaime de Borbón Parma-ren aldeko karlista.

Horregatik gaituk gaur **jaimistak**. Txillardegi

---

**jainismo** *iz* Indiako erlijioa, budismoaren aitzindaria, ezaugarritzat aszetismo hertsia, indarkeriarik eza, eta animalien erabateko begirunea duena.

Gujaraten bi erlijio nagusi dira: hinduismoa eta **jainismoa**. Gotzon Garate

---

**jainista** *iz* jainismoaren jarraitzailea.

**Jainistek,** berriz, ez dute uste arratoia jainkoen mezulari denik edo beste titulu handirik duenik. "Ahimsa" leloari oso zintzo eusten diote, ordea: ezin liteke animaliarik kalitu. Gotzon Garate

Etxean arratoiak maite ez baditu, **jainista** batek arte edo lakioan harrapatuko ditu. Gotzon Garate

---

**jainko** (j xehez nahiz J larriz; orobat **jinko** g.er.) **1** *iz* sineste eta erlijio bakoitzak nolakotasun bereziz irudikatzen duen izaki gorena, pertsona izaera ematen zaiona eta munduaren sortzailetzat hartzen dena.

Alá **Jainko** bakarra dela. Jon Alonso

Jauna, beren Jainkoa, utzi eta **jainko** arrotzengana jo dutelako. Elizen arteko biblia

**Jainko** faltsuei eskainitako kultuari esker. Imanol Unzurrunzaga

Emazte horiek **jainko** arrotzetara makurrarazi zuten Salomonen bihotza. Jose Antonio Mujika

Neska xarmant honek **jainko** batek bezala izorratu nau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizakiak Jainkoaz dituen nozioak **Jainko** Aitaren ikuspegitik **Jainko** Tiranoaren ikuspegira artekoak dira. Iñaki Mendiguren

Ideal eta **Jainko** guzien iturri zaharra da Natura. Patziku Perurena

**2** irud/hed

Lana helburu naturaltzat hartuko da eta **jainko** berri bihurtuko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atsegina izan dadila zure bizitzako **jainko** bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Dirua dik honek **jainko**! Edorta Jimenez

Hango **jainkoa** zen Gelatxo. Pako Aristi

**Jainko** bat zara!" esaten dioten emakume horietakoa. Koldo Biguri

**3** (J larriz) Bibliako eta kristautasuneko jainko bakarra.

Hasieran **Jainkoak** zeru-lurrak egin zituen. Jose Antonio Mujika

**Jainkoak** esan zuen: "Izan bedi argia".Hutsegiteen barkamena eskatzea **Jainko** gure Jaunari. Patxi Altuna

**Jainkoa** Rakelez oroitu eta, honen eskaria adituz, erraiak ernearazi zizkion. Elizen arteko biblia

Beste behin ere agertu zitzaion **Jainkoa** Jakobi, Mesopotamiatik etorri zenean, eta bedeinkatu egin zuen. elkarturik, kontenplazioan eta on guztia den **Jainkoa** goresten. Elizen arteko biblia

Laudatu nuen **Jainkoa**. Koldo Izagirre

Mutikoa eta biok haraino joango gara, **Jainkoa** gurtzera. Jose Antonio Mujika

Baina gau hartan **Jainkoa** agertu zitzaion Labani ametsetan eta esan zion: [...]. Jose Antonio Mujika

**Jainkoa** madarikatzen zuen, gero damutu egiten zen. Pablo Sastre

Espetxean **Jainkoa** aurkitu zuela eta kontzientziak egia aitortzera bultzatzen zuela aitortu zuen. Gotzon Garate

Oso baliagarria zaio **Jainkoa** badela sinestea. Iñaki Iñurrieta

Saiatzen naiz **Jainkoa** baitan ezartzen ene fidantzia osoa. Piarres Xarriton

**Jainkoa** iraindu du, bistan da; eta oso era larrian. Juan Martin Elexpuru

**Jainkoagan** ez dago estuasunik, ez oinazerik, ez zorigaitzik. Joan Mari Lekuona

**Jainkoak** betiko bizia eman digula, eta bere Semearen bidez eman ere. Elizen arteko biblia

Tipo gaiztoak irabazi egiten zuen, eta **Jainkoak** ez zuen zigortzen. Oskar Arana

**-Jainkoak** ezinezkorik ez. Patxi Zubizarreta

-Amañi, gu ere **Jinkoak** eginak gara... Itxaro Borda

Ni biziko niz oraino ere, **Jinkoak** nahi baldin badu. Itxaro Borda

**4** (izenondoekin)

**Jainko** handiaren aintzarik eta gorespenik handienerako. Patxi Altuna

Lurrean ahuspez jarri ziren, **Jainko** gorenaren egintza ospetsuak eta beraren zerbitzari apalaren bertute eta merituak goraipatuz. Askoren artean

Saminez bete bainau **Jainko** Ahaltsuak. **Jainko** ahalguztidunaren zerbitzaria otoitzera eman zen kartsuki. Jose Antonio Mujika

Indar handiagoa hartu zuten **Jainko** eskuzabalaren dohainaz gorputzeko janariaz baino. Askoren artean

Kasu jakinetan salbu, hau da, **Jainko** bihozberak baimena ematen dienean apalak masailekoka erabiltzeko. Askoren artean

Esaten zuen **Jainko** guztiz errukiorrari higuingarri zaiola. Askoren artean

Bihotz kartsuz hots egin zion Sultanari **Jainko** hirukoitz eta bakarra eta Jesu Kristo guztion Salbatzailea. Askoren artean

Oztopo guztiak kentzen zaizkio arimari, **Jainko** betikoarekin askatasun osoz elkartu ahal izateko. Askoren artean

Ni Jauna, zure Jainkoa, **Jainko** jeloskorra baina. Jose Antonio Mujika

Erdi Aroan *ius gentium,* Europako zuzenbide zibilaren zutabea ez ezik, **Jainko** kristauaren borondatearen azalpena ere bazen teologoen ikuspegitik. Askoren artean

Charlyk, ordea, estatua bat zirudien, **Jainko** gupidagabe batek bekatu ezezagun batengatik gatzitua. Aingeru Epaltza

Goretsia zu, gure arbasoen **Jainkoa**! Jose Antonio Mujika

**5** (esapideetan)

**Jainko** maitea, Milly, begira hau. Lopez de Arana

**-Jainko** maitea! -esan zuen emakumeak-, hori al da Katherine Burke? Mirentxu Larrañaga

**"Jainko** potoloa!" entzun zitzaion marmarka doktoreari. Julen Gabiria

Ene **Jainkoa,** ez nikek lurrera erori nahi zorabiatuta! Lopez de Arana

-Ene **Jainkoa,** hau atxurra! -esan zuen. Fernando Rey

Oh, my God! Ene **Jainkoa**! Robin Kelly hemen da. Patxi Iturritegi

**-Jainkoaren** izenean! -esan zuen gizonak-. **-Jainkoak** libra gaitzala. Mirentxu Larrañaga

**-Jainkoak** erruki zaitzala. Koro Navarro

**Jainkoak badaki** ahal dugun guztia egin dugula. Irene Aldasoro

**-Jainkoak** egunon, etxekoandre! Pello Lizarralde

Ken ezazu, **Jainkoagatik**! *ik beherago*10. Anjel Lertxundi

**Jainkoa** dela zuekin. Juan Garzia

**-Jainkoa** berorrekin… Koldo Izagirre

**6** hainbat erlijiotan, gizonaz gaineko izakia, ahalmen eta botere bereziz hornitua.

Helios eguzkiaren **jainkoa**, beste **jainko** asko bezala, kaskarina eta emakumezalea omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jainko** homerikoak salatzen hasten da -liskarzaleak, grinatsuak eta zuhurrak baitira. Askoren artean

Amon jainkoa Egiptoko **jainko** nagusi izatera iritsi zen, Eguzkiaren jainkoarekin bat egin eta Amon-Ra bezala gurtu zutenean batik bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeus Olinpoko **jainko** nagusiaren aurrean. Juan Kruz Igerabide

Morfeo **jainko** bat zen Grezian, ametsen jainkoa. Antton Olano

Eraikin sakratuak egiteko, hiri-komunitatearen zaindaritza duten **jainko** nagusienak, eta Jupiter, Juno eta Minerba jainkoenak egiteko, berriz, lekurik garaienak aukeratuko dira. Santiago Iruretagoiena

Jupiter eta gainerako **jainko** zerutiar guztiei eskainitako aldareak ahalik eta goren jarriko dira; Vestaren, Lurraren eta Itsasoaren aldareak maila apalean jarriko dira. Santiago Iruretagoiena

Erromako **jainko**-jainkosen artean, Venus Iñarrekoa (Venus Ericina), maitasunaren jainkosa genuen. Pello Zabala

Nor zuten Lug **jainko** hau? ariar kastako haien **jainko** aldra, galiar eta erromatarren artean, Merkurio **jainkoaren** kidekoa izan daiteke. Pello Zabala

Baldur, bakearen **jainkoa,** Odin **jainko** nagusiaren eta Frigga […] jainkosaren seme zintzoa zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eros -hau da, Maitasuna- **jainko** eta emakume baten haurra da. Askoren artean

Lukrezioren **jainko** ahalguztidun eta arbitrarioak. Xabier Amuriza

Estatu unibertsal egipziakoko nubiar marketako **jainko** ilun bat. Iñaki Mendiguren

**Jainko** greziar bat bezain ederra zen. Juan Martin Elexpuru

**7** (hitz elkartuen lehen osagai gisa) ik **jainkozko**.

Erregeen **jainko**-eskubideak. Iñaki Mendiguren

Barauari, otoitzari eta **jainko**-gorespenei etengabe emana bizi ohi zen. Askoren artean

**Jainko** Hitzaren ministroak beneratzeko. Askoren artean

Gauza guztiak **Jainko** izaeraren beharrezkotasunetik datozela. Piarres Xarriton

Nola aingeruek, **jainko**-justiziaren labana izanik, jasan eta zaindu nauten eta nigatik otoiztu duten. Patxi Altuna

Den-dena **jainko**-maitasunaren sugarretan isiotua zirudien. Askoren artean

**Jainko**-jakinduriaren misterio ezkutuak ematen zitzaizkion aditzera. Iñaki Iñurrieta

Zerutik baieztatua izan zen **jainko**-ahalmenaren mirarien bidez. Askoren artean

Haren **jainko**-ontasunaren zerbitzu eta gorespena. Patxi Altuna

Plazeraren atsegin guztiak gozatu ditudala zure **jainko**-besoetan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Jainko** sistemaren burugabekeria izan da nahasmen baldar horien guztien iturria. **Jainko**-argiak ideia hau ekarri zion burura Kristoren Ordezkariari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Honetan asko okertzen dira, aukera zeharra eta txarra **jainko**-deitzat harturik. Patxi Altuna

Rakelek etxeko **jainko**-kuttunak ostu zizkion aitari. Jose Antonio Mujika

**Jainko**-tenploa eta jauretxea ezin da izan giza-eskuek egina, antolatua eta itxuratua. Pello Zabala

Arima iristen da erabat Jainkoaren irudia izatera, **jainko**-kolorez, **jainko**-formez, jainkozko izatez. Joan Mari Lekuona

*De Cive*-ren azpi-izenburu luzeak behin baino gehiagotan aipatzen ditu **jainko**-ordena eta erlijioa. Esteban Antxustegi

· Ezagutu ditudan guztiak hain **jainko**-uzkiak izan beharra ere! Anjel Lertxundi

**8** (hitz elkartuean bigarren osagai gisa)

Erromatarren gerra-**jainkoaren** arabera izendaturiko hilabetea. Iñaki Mendiguren

Zalduneria-legeak hautsi ditudalako, uste dut nik, gudu-**jainkoak,** ontzat eman duela, niri honelako zigorra ematea. Patxi Ezkiaga

Eta etxe- **jainkoen** irudiak, idoloak eta irudi nazkagarriak hautsi egin zituen. Elizen arteko biblia

Efod apaiz-jantzia eta etxe- **jainkoen** irudiak eginarazi ondoren, [...]. Elizen arteko biblia

Hauxe da Zeusen, Jupiterren, Herkules, Thor eta trumoi- **jainko** guztien zuhaitza. Pello Zabala

Bi aldiz pentsatzen zuten sua, su- **jainkoa,** itzaltzen utzi aurretik. Oskar Arana

Beste batzuetan hura goizarekin batera iristea nahi du, hura zeruertzean agertzea eguzki- **jainko** baten moduan. Oskar Arana

Lehenago hiri jazarriek hartzen zuten lurra pluton- **jainkoei** eskaini zitzaien sekulako. Juan Garzia

Tenplua zegoen tokian, hain zuzen ere, hindu- **jainko** bat sortu omen zen. Gotzon Garate

Halakoetan ez baitago errukiz babestuko gaituen guraso- **jainkorik**. Juan Kruz Igerabide

Eta horra non Jesus- **Jainkoa** agertzen zaion, diolarik: [...]. Xipri Arbelbide

Ez jakin ordea, Jainkoaz ari ziren, edo jainko batez, edo zeruaz [...], edo zeru- **jainkoaz,** edo jainko-zeruaz. Iñaki Segurola

## 9 *jainko-antzeko* ik **jainkoantzeko**.

## 10 ***Jainkoarren***

**-Jainkoarren,** Honey. Oskar Arana

**-Jainkoarren,** Martin, utz iezaiok! -garrasi egin zuen Katalinak-. Koro Navarro

Maitea, **Jainkoarren**! -erregutu zuen senarrak, emaztea estalkiaz ondo tapatzen saiatzen ari zen bitartean. Lopez de Arana

- **Jainkoarren,** ostikoa eman didazu begian! Lopez de Arana

Eta, **Jainkoarren,** gorde pistola! Alberto Ladron Arana

Burtoni esan ohi diodanez, "tira, **Jainkoarren,** gizakiak gara denok ere", ez al gara, ba? Mirentxu Larrañaga

Alegia, zera... **Jainkoarren!,** ez nago urduri. Mirentxu Larrañaga

Barkaidazu, beraz, **Jainkoarren,** desatsegin aritu banatzaizu. Juan Kruz Igerabide

Hamida, baina... **Jainkoarren**! Patxi Zubizarreta

Leihoa itxi eta ukondotik heldu nion, eta isiltzeko esan, **Jainkoarren** isiltzeko! Inazio Mujika Iraola

Haietarik parte handi batek entzun ninduela deplauki aitortuko baitute **Jainkoarren** eta enetzat duten maitasunagatik. Piarres Xarriton

## 11 ***jainkotiko*** *(orobat* ***jainkotikako****) izlag*

Ikusi baitzuten **jainkotiko** jakinduria zuela epai zuzenak emateko. Jose Antonio Mujika

Ez zait iduri **Jainkotikakoa** zela uste zuenik berak, bainan garbia zela eta bestek kutsatu gabea, bai. Xipri Arbelbide

## 12 *jainkozko* ik **jainkozko**.

## 13 ***Jainko Aita***

**-Jainko Aitak**, haren errukia zure bekatua baino neurrigabe handiagoa baita, erruki handia izango dizu eta, horrez gainera, grazia ugari emango dizu. Askoren artean

**Jainko Aitak** eta Kristo Jesus gure Jaunak eman biezazkizute grazia, errukia eta bakea. Elizen arteko biblia

Paulo, Silbano eta Timoteok, **Jainko Aitarekin** eta Jesu Kristo Jaunarekin bat eginik dagoen Tesalonikako eliz elkarteari idazten diogu. Elizen arteko biblia

San Frantzisko, [...] gauza batzuetan munduari herrien salbamenerako emandako Kristo berri izan zena, **Jainko Aitak** Jesu Kristo bere Semearen irudiko eta antzeko bihurtu nahi izan zuen egintza askotan. Askoren artean

Gizakiaren ezereztasun sakonak eta **Jainko Aitaren** duintasun handiak eskatzen dute begirunezko beldurrikaraz otoitz egitea. Joan Mari Lekuona

## 14 ***Jainko jaun***

**Jainko Jaunak** zeru-lurrak egin zituenean. Jose Antonio Mujika

Ondoren, **Jainko Jaunak** baratzea landatu zuen Eden-en. Jose Antonio Mujika

Orduan, **Jainko Jaunak** lur-hautsez gizona moldatu zuen. Jose Antonio Mujika

Aintza eta ohore eman diezaiola **Jainko Jaun** bizi eta egiazkoari. Askoren artean

Errespeta eta ohora, gorets eta bedeinka, eskerrak eman eta adora ezazue **Jainko Jaun** ahalguztiduna bere Hirutasun eta Batasunean, Aita eta Semea eta Espiritu Santua, gauza guztien egilea. Askoren artean

Gure **Jainko Jaunak** nahiko ahal du, bizi honetan elkar ikus dezagun, ene laguna eta ni neu Indietara joan aitzin. Piarres Xarriton

Gure **Jainko Jaunak** begira dezala Errege Jaunaren Ospea. Piarres Xarriton

Gainera, goi-mailako gizontzat hartu nauzu, **Jainko Jaun** horrek. Elizen arteko biblia

Yahveh **Jainko Jaun** errukigabeak ez zion zigorra barkatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Yahveh **Jainko Jaunarengana** joan zen Lilith, eta sedukzio hutsez Haren izena jakin zuen, inoiz aipatu ezin den Jahvehren izen ezkutua. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Zu bazara nor, **Jainko** gure **Jaun** hori, gorespena, aintza eta ohorea eta bedeinkapena hartzeko. Askoren artean

· **Jainko Jauna!,** ez nuen horrelakorik esan nahi. Koldo Izagirre

**Jainko Jauna,** zenbat maite dudan Merteuil andrea! Jon Muñoz

Makina bat bider amore eman izan dut, sarriegitan, **Jainko Jaunak** badaki. **-Jainko Jaun** Bedeinkatu eta Ahalguztidunaren izenean! -esan zuen medikuak. Mirentxu Larrañaga

## 15 ***jainko jende*** *(corpusean* ***jainkojende*** *soilik)*

Tenplu Magikoaren Hazikin Lumatuak; Oingeldiko Ahaldunen Kabala Handia; Gurinaren Salerosketako **Jainkojendearen** Elkartea. Xabier Olarra

## 16 ***Jainko lege*** *(orobat* ***Jainkolege*** *g.er.)*

**Jainko** lege naturalaren aurka doana. Piarres Xarriton

Jainkoak berak naturazko legeari eratxiki dion **Jainko** lege positiboa. Piarres Xarriton

Kataulfok Karlosi honen erreinaldiaren hasieran zuzendu zion gutunean, [...] **Jainko Legearen** Liburua gobernurako bere eskuliburu gisa erabiltzeko aholkatzen dio Karlosi, Deuteronomioa 17,18-20ko aginduaren arabera. Iñaki Mendiguren

Ez Gizalegeak, ez **Jainkolegeak,** deusek ez zaituelarik hertsatzen. Piarres Xarriton

Lege bat baldin bada kasu batean gizona hiltzea zilegi egiten duena, lege horrek behar du izan **Jainko legea** edo naturakoa edo beste memento batengatik egina. Piarres Xarriton

## 17 ***Jainko min*** *(corpusean* ***Jainkomin*** *soilik)*

Oraindik orain, ez adiorik esateko modua egin digute Paulo Agirrebaltzategik, Euskalminez; Patxi Ezkiagak, **Jainkominez;** Iñaki Sarriugartek, Izadiminez, eta Sebastian Garcia Trujillok, Biziminez, sarrera banatan. Berria - Kultura

Are ezezagunago zaigu **jainkominezko** Gandiaga. Berria - Kultura

## 18 ***Jainkoa lagun***

**Jainkoa** lagun, garaile itzuliko zara eta auzuneko bizarginik onena izango zara. Patxi Zubizarreta

Haren mailak laster hobera egingo du eta, **Jainkoa** lagun, ezteiak denon oniritziarekin egin ahal izango dira. Patxi Zubizarreta

Gero etxera, afaldu, eta **-Jainkoa** lagun- eguzkia berriro abaitaltzean jasoko zuen berak loaldi on baten bedeinkazioa. Anton Garikano

-Asko, **Jainkoa** lagun. Patxi Zubizarreta

## 19 ***Jainkoak daki****sup_1*

Eta **Jainkoak daki** ez dugula eslogan eskasik izan gutartean. **-Jainkoak** daki ederki saiatu zela. Piarres Xarriton

**Jainkoak daki** nola sentitzen dudan! Iñaki Zabaleta

**Jainkoak daki** gin-kas hark zenbat on egin zidan... Itxaro Borda

· Eta badakit gizon hori paradisura eraman zutela -gorputzarekin ala gorputzik gabe ez dakit, **Jainkoak daki-,** eta han, gizakiak ezin esan ditzakeen hitzak entzun zituela. Elizen arteko biblia

## 20 *Jainkoak dakisup_2* auskalo.

Filologoak belarriak erne ditu, eta askotan aditu du kristauaren ahotik **Jainkoak daki** ! esaten, eta ohartu da **Jainkoak daki** ! horrek esan nahi duela... inork ez dakiela! Iñaki Segurola

**-Jainkoak daki** zenbat festa eman ditudan. Fernando Rey

Alkandora lisatu gabe daramazu, **Jainkoak daki** nork moztu dizun ilea horrela. Oskar Arana

Goiz horretantxe zen New Yorkera iritsia, **Jainkoak daki** zenbat ehunka kilometro egin ondoren. Oskar Arana

Konturatu egin zen, **Jainkoak daki** zein senekin, alde egitekoa nintzela. Koro Navarro

Edo norbait falta delarik, haren bila ibilirik **Jainkoak daki** non zakurrekin. Marzel Etxehandi

Aski nuen beraz hitz bat erraitea eta biak joanen ginen **Jainkoak daki** norat. Janbattitt Dirassar

**Jainkoak daki** bihar zer. Oskar Arana

Eta **Jainkoak daki** zer gertatuko zen gero. Jose Morales

Eta **Jainkoak daki** zer ez zitzaion gertatuko. Eta aitak deus ere ezin egin, urrun baitzegoen, **Jainkoak daki** non... Jose Morales

Bazirudien hitz haiek putzu batera erori zirela, ur gardenak zituena, baina aldi berean hain deformatzaileak non jaitsi ahala ikus zitezkeen kiribiltzen, umearen buru zolan **jainkoak daki** zer itxura hartu arte. Anton Garikano

**Jainkoak daki** gure harremanak nolakoak izanen ziren berriz elkar kausitu bagenu. Janbattitt Dirassar

**Jainkoak daki** zer duen gogoan. Janbattitt Dirassar

Eta **Jainkoak daki** kalmatzearen beharra banuenetz... Daniel Landart

**Jainkoak daki** zenbat neska tuntun engainatu ote zituen... Aitor Arana

Eta Héraclius haserretuak esku hartu izan ez balu, **Jainkoak daki** zer litxarreriaz aseko ez ote zen lau eskudun Tantalo hura. Josu Zabaleta

## 21 *Jainkoaren beldur*

Delako hiritar hori Historia Garaikidearen altzoan etzana dago luze-luze, lehengo herritar otxana **Jainkoaren beldurrean** bezala, eta xano-xano sinesten du mundurik hoberenean bizi dela. Iñaki Segurola

**Jainkoaren beldurretik** iragan da Jainkoaren amodiorat ; konfientzia osoa emaiten dio Aitaren behako gozoak. Herria

Lagun hurkoak lapurtu, jo eta zauritu ez ezik, hil ere egiten baitizkiagu; eta hainbeste gaiztakeria eta halako gauza txarrak egin arren, ez diagu ez kontzientziako kezkarik, ez **Jainkoaren beldurrik** ! Askoren artean

· Jende zintzoa, **Jainkoaren beldurrekoa** . Mirentxu Larrañaga

· *izond* -Bueno, Kernan andrea, erromatar katoliko on bat eginda ekarriko dizugu gizona: elizkoi eta **Jainkoaren beldur** . Irene Aldasoro

Niri entzun eta haiek makurrarazi zituen Jainkoak, betidanik errege denak, sekula aldatzen ez denak; baina haiek ez ziren **Jainkoaren beldur** ! Elizen arteko biblia

## 22 *Jainkoari esker*

**Jainkoari esker,** izurriterik edo goseterik nozitu beharrik ez dute izan orain arte. **Jainkoari esker,** ez nabil diru faltan. Karlos Zabala

Eta historian zehar ez dut aurkitu, **Jainkoari esker,** nafar bihirik, Jondoni Petiriren jarraile Jondoni Satordirenganik ukan Kristau fedea arbuiatu duenik gaurdaino. Piarres Xarriton

Gizatxar horren hizketa zuriak eta gezur beltzek tronpatu gaituzte, baina, **Jainkoari esker,** haren amarrukeriak ez du zure heriotza ekarri! Patxi Zubizarreta

Banituen, halere, baditut oraindik, **Jainkoari esker,** anaiak eta haurrideak Eliza hortan. Menane Oxandabaratz

Hemen gauzak baretu egin dira, **Jainkoari esker** . Koldo Izagirre

-Ez... **jainkoari esker** ! Ramuntxo Etxeberri

Gehiagokorik gabe gaua joan zen, **Jainkoari esker** . Michel Oronoz

## 23 *Jainkoari eskerrak*

**Jainkoari eskerrak,** gure probintziako jendea ez da batere ergela. Jose Morales

-Ez, **Jainkoari eskerrak,** baina zenbait hortz jausiak ditut eta beste batzuk kolokan. Patxi Zubizarreta

Beraz, **Jainkoari eskerrak,** Mollyk gurera etortzen jarraitu zuen egunero, tea hartzera, eskola ostean. Mirentxu Larrañaga

Batzuen orduko pribilegio horiek, **Jainkoari eskerrak,** denen eskura jarri dira urteen indarrez. Pello Salaburu

Orain askoz gutxiago edaten du, **jainkoari eskerrak** . Harkaitz Cano

Heriotza on-ona izan du, **Jainkoari eskerrak** . Irene Aldasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**egiazko jainko** (27); **gizona jainko** (7); **israelen jainko** (29); **israelgo jainko** (7); **jainko ahalguztidun** (14); **jainko ahalguztiduna** (29); **jainko ahalguztidunaren** (30); **jainko ahalguztidunaren izenean** (7); **jainko ahalguztidunari** (10); **jainko ahaltsua** (8); **jainko ahaltsuak** (8); **jainko aitak** (13); **jainko aitaren** (11); **jainko aitari** (10); **jainko arrotzak** (27); **jainko arrotzei** (12); **jainko arrotzen** (16); **jainko arrotzengana** (7); **jainko bakar** (9); **jainko bakarra** (34); **jainko bakarrak** (7); **jainko bakarraren** (7); **jainko bihozbera** (7); **jainko bizi** (10); **jainko bizia** (17); **jainko biziaren** (31); **jainko gizon** (7); **jainko gorenaren** (20); **jainko gorenaren gorespenak** (11); **jainko gure aitak** (11); **jainko gure jauna** (10); **jainko gure jaunak** (11); **jainko gure jaunaren** (22); **jainko gure jaunari** (16); **jainko guztiak** (10); **jainko guztien** (16); **jainko handi** (9); **jainko handia** (8); **jainko handiak** (9); **jainko handiaren** (22); **jainko herriaren** (8); **jainko hilen** (12); **jainko hilen uhartean** (10); **jainko hilezkorren** (8); **jainko irudiak** (10); **jainko izaeraren** (11); **jainko izango** (14); **jainko jainkosen** (8); **jainko jaun** (93); **jainko jaun ahalguztidunak** (13); **jainko jauna** (121); **jainko jaunak** (270); **jainko jaunaren** (71); **jainko jaunaren maitasunagatik** (25); **jainko jaunarengana** (8); **jainko jaunari** (39); **jainko jaunari sakrifizioak** (8); **jainko jeloskorra** (8); **jainko laztana** (12); **jainko madarikatua** (12); **jainko maitasunaren** (12); **jainko maitasunez** (7); **jainko maitea** (161); **jainko nirea** (7); **jainko ona** (8); **jainko onak** (31); **jainko salbatzaile** (7); **jainko santua** (18); **jainko santuak** (11); **jainko txiki** (7)

**abrahamen jainkoa** (10); **abrahanen jainkoa** (9); **aitaren jainkoa** (13); **ala jainkoa** (18); **arbasoen jainkoa** (15); **bedeinkatua jainkoa** (11); **egiazko jainkoa** (13); **ene jainkoa** (130); **israelen jainkoa** (79); **israelen jainkoa gurtzen** (8); **jainkoa agertu** (7); **jainkoa errege** (14); **jainkoa ezagutzen** (14); **jainkoa goresteko** (8); **jainkoa goresten** (22); **jainkoa gorestera** (10); **jainkoa gorets** (40); **jainkoa goretsi** (19); **jainkoa goretsiz** (12); **jainkoa gurtu** (14); **jainkoa gurtzen** (14); **jainkoa hil** (8); **jainkoa ikusi** (14); **jainkoa izan** (21); **jainkoa izango** (9); **jainkoa lagun** (52); **jainkoa maitasuna** (7); **jainkoa maitatzera** (7); **jainkoa maite** (11); **jainkoa mintzatu** (8); **jainkoa zerbitzatu** (7); **jakoben jainkoa** (17); **zeruko jainkoa** (13)

**arbasoen jainkoak** (22); **egin zuen jainkoak** (9); **eman zion jainkoak** (9); **esan zuen jainkoak** (10); **gure arbasoen jainkoak** (8); **hebertarren jainkoak** (8); **ikusi zuen jainkoak** (11); **israelen jainkoak** (63); **israelgo jainkoak** (14); **jainkoak agertu** (9); **jainkoak agindu** (20); **jainkoak agindu bezala** (10); **jainkoak argiturik** (7); **jainkoak argituta** (7); **jainkoak badaki** (14); **jainkoak barka** (23); **jainkoak bedeinka** (19); **jainkoak begira nazala** (8); **jainkoak bereganatu** (10); **jainkoak bidali** (13); **jainkoak bidalitako** (7); **jainkoak daki** (95); **jainkoak deitu** (9); **jainkoak egin** (29); **jainkoak eman** (106); **jainkoak emandako** (18); **jainkoak emango** (17); **jainkoak emaniko** (7); **jainkoak ematen** (29); **jainkoak entzun** (12); **jainkoak esan** (50); **jainkoak eta gizakiek** (7); **jainkoak gizakia** (10); **jainkoak gizon** (7); **jainkoak gizona** (9); **jainkoak gorde** (17); **jainkoak gorets** (22); **jainkoak hala nahi** (15); **jainkoak hala nahirik** (9); **jainkoak hala nahita** (24); **jainkoak har dezala** (13); **jainkoak jabetzan** (7); **jainkoak lagun** (33); **jainkoak lagun zaitzala** (7); **jainkoak lagunduko** (7); **jainkoak libra** (9); **jainkoak maite** (15); **jainkoak nahi** (101); **jainkoak nahi badu** (19); **jainkoak nahi bezala** (15); **jainkoak ona** (10); **jainkoak ona zela** (10); **jainkoak ondaretzat** (7); **jainkoak seme** (9); **jainkoak sortu** (7); **jainkoak zer** (16); **jainkoak zeru** (10); **jainkoak zeru lurrak** (7); **jainkoak zigortu** (8); **zeruko jainkoak** (11)

**goi goiko jainkoaren** (7); **israelen jainkoaren** (27); **israelgo jainkoaren** (16); **jainkoaren adimen** (10); **jainkoaren adimena** (8); **jainkoaren adiskide** (11); **jainkoaren agindua** (18); **jainkoaren aginduak** (23); **jainkoaren aginduen** (10); **jainkoaren agindua** (12); **jainkoaren ahalmena** (23); **jainkoaren ahotsa** (11); **jainkoaren aingeru** (9); **jainkoaren aingerua** (21); **jainkoaren aingeruak** (14); **jainkoaren aintza** (22); **jainkoaren aintzarako** (8); **jainkoaren aintzaren** (7); **jainkoaren aitzinean** (15); **jainkoaren aldeko** (12); **jainkoaren ama** (18); **jainkoaren amaren** (7); **jainkoaren amodioa** (7); **jainkoaren antzeko** (8); **jainkoaren arabera** (7); **jainkoaren atributu** (19); **jainkoaren atributuak** (11); **jainkoaren atributuen** (10); **jainkoaren aurka** (14); **jainkoaren aurrean** (150); **jainkoaren aurrean agertu** (8); **jainkoaren baitan** (59); **jainkoaren begia** (9); **jainkoaren berriona** (7); **jainkoaren bidea** (8); **jainkoaren bideak** (7); **jainkoaren bila** (7); **jainkoaren borondatea** (36); **jainkoaren borondatearen** (10); **jainkoaren borondatez** (8); **jainkoaren dohain** (11); **jainkoaren dohaina** (11); **jainkoaren egintza** (9); **jainkoaren egintzak** (11); **jainkoaren eliza** (11); **jainkoaren epai** (8); **jainkoaren epaia** (7); **jainkoaren eraginez** (8); **jainkoaren erregetza** (37); **jainkoaren erregetzarekin** (9); **jainkoaren erregetzaren** (18); **jainkoaren erregetzaren berriona** (8); **jainkoaren erreinua** (22); **jainkoaren erreinuan** (27); **jainkoaren erreinuko** (14); **jainkoaren erresistentzia** (8); **jainkoaren errukiari** (7); **jainkoaren esana** (7); **jainkoaren esentzia** (27); **jainkoaren esentzia mugagabe** (7); **jainkoaren esku** (23); **jainkoaren eskua** (11); **jainkoaren eskuetan** (15); **jainkoaren eskutik** (10); **jainkoaren espiritua** (16); **jainkoaren espirituak** (18); **jainkoaren eta elizaren** (13); **jainkoaren eta gizonen** (9); **jainkoaren etsai** (7); **jainkoaren etxe** (13); **jainkoaren etxea** (29); **jainkoaren etxean** (24); **jainkoaren etxeko** (30); **jainkoaren etxera** (12); **jainkoaren etxerako** (8); **jainkoaren existentzia** (46); **jainkoaren existentziaren** (7); **jainkoaren ezagutza** (17); **jainkoaren gizon** (35); **jainkoaren gizona** (64); **jainkoaren gizonak** (95); **jainkoaren gizonaren** (37); **jainkoaren gizonarengana** (7); **jainkoaren gizonari** (25); **jainkoaren gogoko** (9); **jainkoaren gorespenak** (14); **jainkoaren gorpuztasuna** (8); **jainkoaren grazia** (34); **jainkoaren graziak** (12); **jainkoaren grazian** (7); **jainkoaren graziaren** (9); **jainkoaren graziaz** (21); **jainkoaren handitasuna** (8); **jainkoaren haserrea** (14); **jainkoaren haur** (11); **jainkoaren haur egin** (7); **jainkoaren herri** (8);

jainkoaren herria (7); jainkoaren hitz (9); jainkoaren hitza (91); jainkoaren hitzak (15); jainkoaren hitzaren (14); jainkoaren hitzaz (11); jainkoaren ideia (23); jainkoaren ideiak (10); jainkoaren indar (8); jainkoaren indarra (9); jainkoaren indarrak (9); jainkoaren inspirazioz (8); jainkoaren irudi (9); jainkoaren irudia (7); jainkoaren irudira (12); jainkoaren izaera (22); jainkoaren izaerari (10); jainkoaren izatea (7); jainkoaren izatearen (10); jainkoaren izen (8); jainkoaren izena (29); jainkoaren izenean (154); jainkoaren justizia (7); jainkoaren kontra (26); jainkoaren kutxa (39); jainkoaren laguntza (10); jainkoaren laguntzarekin (13); jainkoaren laguntzaz (20); jainkoaren legea (26); jainkoaren legeak (13); jainkoaren legearen (8); jainkoaren maitasuna (31); jainkoaren maitasunagatik (82); jainkoaren maitasunagatik eskatzen (7); jainkoaren mezua (22); jainkoaren nahia (58); jainkoaren nahiaren (7); jainkoaren ohorez (8); jainkoaren onginahia (7); jainkoaren partetik (7); jainkoaren presentzia (12); jainkoaren probidentzia (8); jainkoaren probidentziak (19); jainkoaren salbamen (7); jainkoaren santua (17); jainkoaren santuak (11); jainkoaren santuari (7); jainkoaren seme (77); jainkoaren seme alaba (28); jainkoaren seme alaben (7); jainkoaren semea (53); jainkoaren semeak (22); jainkoaren semearen (16); jainkoaren tenplua (9); jainkoaren zerbitzari (40); jainkoaren zerbitzaria (35); jainkoaren zerbitzariak (33); jainkoaren zerbitzariaren (13); jainkoaren zerbitzariari (8); jainkoaren zerbitzarien (12); jainkoaren zerbitzuan (10); jainkoaren zerbitzura (8); jainkoaren zigorra (17); jerusalemgo jainkoaren (7)

jainkoarengan sinesten (9)

jainkoarengana hurbiltzen (7)

eskerrak jainkoari (21); eta jainkoari eskerrak (10); israelen jainkoari (15); jainkoarena jainkoari (8); jainkoari atsegin (19); jainkoari begirune (29); jainkoari egiten (7); jainkoari eskatu (9); jainkoari eskatzen (9); jainkoari esker (74); jainkoari eskerrak (113); jainkoari eskerrak eman (17); jainkoari eskerrak emanez (8); jainkoari eskerrak ematen (7); jainkoari otoitz (18); jainkoari sagaraturiko (7); jaunari zeuen jainkoari (23); jaunari zuen jainkoari (7)

jainkoaz hitz egiten (7); jainkoaz kanpo (9)

jainkoen artean (9); jainkoen aurrean (7); jainkoen irudiak (18); jainkoen ohorez (7)

ez da jainkorik (9)

---

## jainkoaganatu, jainkoagana(tu), jainkoaganatzen da *ad* Jainkoagana joan.

Beste zenbait alditan bezala, gau batez, hain gora jasoa eta **Jainkoaganatua** izan zen, non Jainko sortzailearengan sorkari guztiak ikusi baitzituen, zerukoak eta lurrekoak. Askoren artean

Orduan anai Joan **jainkoaganatua,** kontsolatua eta argiz betea geratu zen, eta usain gozo hark hilabete askoan iraun zion ariman. Askoren artean

Denak kontenplazioan **jainkoaganatuak,** Hunek, nahi badu berriz **Jainkoaganatu,** beharko du bere ofizio txarrari uko egin, eta ebatsiak itzuli, egin gaizkiak ordaindurik. Herria

---

## jainkoaizun *(orobat* ***jainkoizun****)* *iz* gezurreko jainkoa.

Jainko Guztiz Boteretsu Egiazkoaren aulkia hartzen duen **jainkoaizun** hori deitzen da Leviathan. Piarres Xarriton

Antzinako herri semitikoak zituen oparotasunaren jainkoetako bat zen [Baal], hebrearrek **jainkoaizuntzat** zeukatena. Xabier Olarra

Gaurko egunean **Jainkoizunek** edo jende enganatzailek duten arrakasta eta ospea. Herria

· *irud* Gero berriz, Historiaren azken arnasetan, suge-larru onaz zeharo atzendu eta Latex izeneko **jainkoaizunaren** lagun egin du merkatuak emakumea. Iñaki Segurola

---

## jainkoantzeko *(orobat* ***jainko-antzeko****)* *iz* jainkoaren antzekoa.

Zer geratzen zaio **jainkoantzeko** den gizakiari? Joan Mari Lekuona

Hirugarrenak **jainko-antzeko** izate batera jasotzen gaitu, bat eginik sortutako izpiritua, bere baitan irauten duen Jainkoaren izpirituarekin. Etengabeko isuria du Jainkoagana itzultzeko, isuri **jainkoantzeko,** jainkozko, esan ezinezko, betiko. Joan Mari Lekuona

---

## jainkoarazi, jainkoaraz, jainkarazten du *ad* jainko bihurrarazi.

Zure jainkotasuna **jainkoarazten** duten izarretako zeru-goiek eta zure duintasunak merezi duen mereziaren mereziak. Patxi Ezkiaga

---

## jainkogabe 1 *izond* inongo jainkotan sinesten ez duena, jainkotasun oro ukatzen duena. ik **ateo**.

Nago Ama Birjina hau bizitzaren, gizon-emakume **jainkogabeen** irudirik **jainkogabeena** dela. Felipe Juaristi

**2** (izen gisa)

Nazioartekotasunak euskal izatearen hondamena zekarrela, guretasuna erdaldundu nahi zutela **jainkogabeek**. Koldo Izagirre

Agustinek idatzia zuen **jainkogabeak** dabiltzaneko labirinto biribiletik salbatzen gaituen bide zuzena dela Jesus. Juan Garzia

Gertakari baliagarriak eta kaltegarriak berdin erortzen direla, bereizkuntzarik gabe, jainkotiarren eta **jainkogabeen** gainera. Piarres Xarriton

• **3** ***jainkogabeko*** *(orobato* ***jainkobako****)* *izlag* jainkogabea.

-Azaldu beharko didazu zer egiten duzun zuk **jainkogabeko** txerrenkume hauekin, don Roman... Inazio Mujika Iraola

Poloniarren erlijio-sua agertzen baitzuen alboko errusiar **jainkobakoen** ondoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** ***jainkogabezko*** *izlag* jainkogabea.

Baina doluari horrela tema gogorrean eustea, berriz, birao bat duzu setakeria **jainkogabezkoa,** gizaz besteko samina. Juan Garzia

---

## jainkogabekeria *iz* inongo jainkotan sinesten ez duenaren egite makurra.

Dirua puskatzea **jainkogabekeria** da, ogia botatzea bezala. Juan Garzia

Denborak deuseztu ditu jadanik Ebanjelio Histrioniko asmoausart haiek; ez, ordea, haien **Jainkogabekeriaren** akuilagarri izan ziren Laidoak-. Juan Garzia

---

## jainkogorotz *(orobat* ***jainkorotz****)* *interj*

-Orain eraman behar al duzue?, **jainkogorotz**! Inazio Mujika Iraola

Halako batean, ordea, botila-ardoaren sosak mahai gainera bota, eta birao gordin bat atera zaio marinelari: **-Jainkorotz!,** batela berri bat erosteko dirurik bildu ezin tristea! Anjel Lertxundi

---

jainkoizun ik **jainkoaizun**.

---

## jainkojale *izond pei* jainkozalea. ik **kandelajale**.

Masturbazioa, horixe izan da apaiz, fraide eta mediku **jainkojaleen** obsesioa. Luis Elberdin

Eguzkia beira leihoetan hiltzen ari zen, eliza beltz bihurtzen zen, azken andre **jainkojaleen** pausoek igurtzi ezti bat egiten zuten lurreko lauzetan. Karlos Zabala

Emakume **jainkojale** baten antzera agertzen zen! Patxi Zubizarreta

jainkojende ik **jainko 14**.

**jainkoki** *iz* jainkoa.

Orriaren gudu-nahasmenean hantxe zebiltzan Hiru den eta Bat den Jainkoa, Irlandako **jainkoki** paganoak eta handik ehunka urteetara, Aro Nagusiaren hasieran, borrokatuko zirenak. Juan Garzia

**jainkokide** *izond* jainko bera duena,

Espirituzko naretasun handiz bizi izan baikinen, gorputzaren kutsadura orotik arima zainduz, grina txarren sugarretatik urruti, arrazoimenaren hausnartze ahaleginetan, hau da, bizitza zoriontsua bezala definitutako arima **jainkokidearen** jardunetan eman genuen eguna, gizakiak ahal duen neurrian. Imanol Unzurrunzaga

**jainkolario** *izond*

Horiek oso **jainkolarioak** izan dira: "Mais –paradoxalement [...]". Joxe Azurmendi

jainkolege ik **jainko 15**.

jainkomin ik **jainko 16**.

**jainkosa** **1** *iz* emakumezko jainkoa.

Hori esanik, ur azpira itzuli zen **jainkosa,** eta uhin beltz batek ezkutatu zuen. Juan Kruz Igerabide

-Otoi, erregina: **jainkosa** ala hilkorra zaitut? Juan Kruz Igerabide

Maitasunaren **jainkosak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erromatarren **jainkosa** baten izena da Venus. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erleak, bestalde, Seleneri -Ilargiaren **jainkosari-** sagaratutako intsektuak ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jainko eta **jainkosa** guztiak batzarrean bildurik omen zeuden. Jose Angel Irigaray

*ik beherago* 6. Askoren artean

Semiramis gizon baten eta **jainkosa** baten alaba izan zen, Ninos erregearen emaztea. Koldo Izagirre

Meza nagusi beltzak bere etxolan emaiten zituela pagano **jainkosa** batzuen ohoretan. Michel Oronoz

Sade Adou, gure ametsetako emakumea, egur gurian tailaturiko **jainkosa**. Eider Rodriguez

Antzinako atletak edo **jainkosak** bezain akatsik gabeak. Bernardo Atxaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jainkosa** mitologikoen pareko presentzia zeukala iruditu zitzaien biei. Fernando Morillo

Zeren eta ama jainkosa bat izan baitzitekeen, baina **jainkosa** hauskor bat. Joan Mari Irigoien

Ez halako **jainkosa** santutzar ezin hurbilduzko bat, baizik eta hezur-haragizko emakume bat, beste edonork bezala jaten, kaka egiten eta larrutan egiten zuena.Haren irudimenean, Greziar **jainkosa** bat bezain ederra zen. Oskar Arana

**3** (izen propio baten eskuinean)

Orduan, Helena agertu zen, Menelaoren emaztea, Afrodita **jainkosa** bezain ederra. Juan Kruz Igerabide

Azkenean, Atenea **jainkosa,** Ulises gizajoaz errukiturik, haren alde mintzatu zen Zeus Olinpoko jainko nagusiaren aurrean. Juan Kruz Igerabide

Eea uhartera heldu ginen; han bizi da Zirze **jainkosa,** txirikorda ederduna. Juan Kruz Igerabide

Axera **jainkosaren** ohorezko zutoin sakratua ere ezarri zuen. Elizen arteko biblia

Venus **jainkosa** ilebeltza zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baldur, bakearen jainkoa, Odin jainko nagusiaren eta Frigga (edo Freia) **jainkosaren** seme zintzoa zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Euskal tradizioan, Mari **jainkosa** sagardogile aparta da. Martin Anso

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hobe duzue, zuen onerako, ikusmena oihal batez estali, maitea bere arketipo-eitean, **jainkosa**-eitean, bizirik atxikitzeko. Oskar Arana

Ene! zelako **jainkosa**-bularrak, zelako izter leun eta guriak. Ikus dezadan hain grinatsu desiratzen dudan **jainkosa**-ipurdi zoragarri hau! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Plazer handia sentitzen badut ere, alde egin beharrean naiz, nahitaez, **jainkosa**-aho honetatik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hau **jainkosa**-plazera!... ez dago munduan honi hurrik ematekorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orduan, gonaren eta gonazpikoaren kulunkari halako gandu bat zerion; [...] haren **jainkosa** gorputz handiarekin, haren araztasun eta zurbiltasun miresgarriekin, behinolako marmol eder bat bezalakoa zen, itsasoak eraman eta sardina arrantzale baten sarean kostaldera ekarritakoa. Karlos Zabala

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hala zebilela, Ino itsas **jainkosak** ikusi zuen. Juan Kruz Igerabide

**6** ***jainko-jainkosa*** *pl* jainkoak eta jainkosak.

Ia Olympo guztietatik lekutuak, jainko-**jainkosa** eta deabruak, buru-belarri dabiltza jendartea berriz ere bereganatu beharrez. Jose Angel Irigaray

Jainko-**jainkosok,** osoko biltzarrean kendu horri boterea. Juan Garzia

Greziarrak dira, eta tenpluak greziar jainko-**jainkosei** eskainita daude. Iñaki Iñurrieta

Erromako jainko-**jainkosen** artean. Pello Zabala

Baina jainko-**jainkosen** arteko maitasunak -egiaztatu nuen- ez zion zirrararik sortzen; bai, ordea, harridura. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atenea jainkosa** (5); **jainko eta jainkosa** (4); **jainko jainkosa** (3); **sidondarren jainkosa** (4)
**atenea jainkosak** (3); **maitasunaren jainkosak** (3)
**axera jainkosaren** (8); **jainkosaren omenez** (4)
**jainko jainkosen** (8)

jainkotar ik **jainkotiar**.

---

## **jainkotasun** **1** *iz* jainkoa izateko nolakotasuna.

Faraonen **jainkotasun** beldurgarria. Piarres Aintziart

Fede politeistako **jainkotasun** menpekoek, hala nola deabru eta aingeruek. Xabier Olarra

Zeruko **jainkotasun** guziek lurreko gizakian dutela oin. Patziku Perurena

[Hirutasuna] Eliza kristau batzuen teologia konplexuan hiru **jainkotasun** banakatuz osatutako **jainkotasun** bakarra. Xabier Olarra

**Jainkotasun** bat, h[au] d[a], zerizan amaigabe bat. Ibon Uribarri

Indian jainkotzat hartzen dute Konkona, hainbat aktorerekin gertatzen den moduan, eta **jainkotasun** horrek elkarrizketa barik utzi gaitu. Berria - Kultura

Emakumeak **jainkotasuna** adierazten du, kriseiluak gure Jaunaren gizatasun jainkotua. Joan Mari Lekuona

**Jainkotasuna** mundutik urrun da, transzendentzian jarria. Askoren artean

**Jainkotasunean,** berdintasuna Semeari bereganatzen zaio, berotasuna eta maitasuna, berriz, Izpiritu Santuari. Joan Mari Lekuona

Maitasunaren azkenik gabeko leizezuloraino murgildurik geratu zen **jainkotasunaren** itsas zabalean. Joan Mari Lekuona

Zure **jainkotasuna** jainkoarazten duten izarretako zeru-goiek eta zure duintasunak merezi duen mereziaren mereziak. Patxi Ezkiaga

Bildotsaren sinbologia hori, nola edo hala **jainkotasunari** lotua zegoelako. Patziku Perurena

**Jainkotasunean** urtzen da. Joan Mari Lekuona

Erdi Aroaren aurreko ahozko transmisioko hainbat higikundetan dago Kabalaren jatorria, fedea eta mistizismoa sineskeria eta okultismoarekin lotzen baitziren haietan, **jainkotasunera** iristeko bidetzat harturik. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

**Jainkotasun** baketsu eta bakartiaz ari da. Joan Mari Lekuona

**Jainkotasun** estalia, nahiz ez gordea, horrela, bere distira gutxiturik, Beragan ezar ditzagun geure begiak. Joan Mari Lekuona

Laster utzi omen zuen "bertan behera sinesmen ofiziala" **-jainkotasun** pertsonal edo asmoduna- Jainkoaren ideia "zientifikoago" baten alde. Xabier Olarra

Kultu horrek bere herentziazko **jainkotasun** kolektiboa eskaintzen zuen. Iñaki Mendiguren

· Zein izan ziren haren **jainkotasun** artean agerigabearen sintomak. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

Erromako katakunbetako kristau-artistek eta Alexandriako **jainkotasun**-eskolako kristau-filosofoek sekula ez zuketen aukerarik izango kristautasunaren muina greziar ikuskera eta pentsaeraren arabera aurkezteko. Iñaki Mendiguren

Hain murgildua haren **jainkotasun** leizean, non giza ikasketaz eskolatua izan ez arren, harrigarriro argitzen eta azaltzen baitzituen hala ere Jainko Hirutasunaren arazo zorrotz eta gorenak, eta Idazki Santuko misterio sakonak. Askoren artean

---

## **jainkotiar** *(83 agerraldi, 26 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***jainkotar*** *g.er.)* **1** *izond* jainkozalea. ik **elizkoi**.

Abade **jainkotiar** batekin izandako topaketa. Askoren artean

Ama hura osoki **Jainkotiarra** zen. Xipri Arbelbide

Fededunak, orokorki, arras **jainkotiarrak** ziren. Elena Touyarou

**2** (izen gisa)

Gertakari baliagarriak eta kaltegarriak berdin erortzen direla, bereizkuntzarik gabe, **jainkotiarren** eta jainkogabeen gainera. Piarres Xarriton

Izan ere **jainkotar** bat ez baitu inork ikusten berak nahi ez badu. Juan Kruz Igerabide

• **3** *izond* jainkozkoa.

Hantxe goian, igandeko erlijio-eskoletako zeru **jainkotiar** hartan. Mirentxu Larrañaga

Aitzina, lira **jainkotiarra,** hitz egizan nire ordez! Anjel Lertxundi

Bisitaldi **jainkotiar** horietan Jainkoak beregana hartzen zuen sarritan, eta guztiz sorgor bihurtzen zen gorputzeko gauzetarako. Askoren artean

Zuen eskari **jainkotiarrei** amore emanez. Askoren artean

Mila adibide **jainkotiar** eta deabruzko.. Berria - Kultura

Adiskidetasuna zer den jakin dezagun, hemen ere intuizio **jainkotiar** batek lagunduko digu, Platonen ustez. Askoren artean

Hots, zuhurtzia da politikariaren bertutea, eta *sophia,* bestalde, bakoitzaren alde **jainkotiarren** bila dabil. Askoren artean

Orduan anai Maseok, jakinduria **jainkotiarrez** guztiz beteta, deabruaren engainua sumatu zuelarik, esan zion: [...]. Askoren artean

Goi-argi **jainkotiar** bat dago atzean. Askoren artean

Ohitura du Aulki apostoliko honek eske datozkionen nahi **jainkotiar** eta desira egokiei harrera on egitea. Askoren artean

Zure inteligentzia eta borondate **jainkotiarra,** Zesar, inperioaren konkistan arduratzen zen bitartean eta, zure adore makurgaitzaren indarrez etsai guztiak mendean hartu ondoren, [...]. Santiago Iruretagoiena

**4** (izenlagun gisa)

**Jainkotiar** nahimenaren araberakoa. Ibon Uribarri

Guretzat ideal bat dena Platonentzat **jainkotiar** adimenaren ideia zen. Ibon Uribarri

Gugan dagoen **jainkotiar** gizaki horren jokaera. Ibon Uribarri

**5** (lege izenarekin)

Legeen zatiketa lege **jainkotiarretan** eta giza legeetan; **jainkotiarrak** natural eta positiboetan; naturalak partikularren eta jendeen legeetan. Lege naturalak eta **jainkotiarrak** mugatzen dute lehenbizi askatasuna. Esteban Antxustegi

Gauza nabarmena baita lege **jainkotiarrak** ez direla gizonen adostasunetik sortu; ezta naturalak ere. Esteban Antxustegi

Lege positibo **jainkotiarren** bitartez. Esteban Antxustegi

Lege **jainkotiar** zibilak dei daitezke, Israel herriari, bere herri hautatuari, baitzegozkion. Esteban Antxustegi

Ez dago legerik arrazoi naturaletik, hots, lege **jainkotiarretik,** kanpo. Esteban Antxustegi

**6** ***Jainkotar Komedia***

Danteren ***Jainkotiar*** *Komedia*. Jon Alonso

Dante Alighieri, ***Jainkotiar*** *Komedia, Infernua,* XV. kapitulua, 65. eta 66. txatalak. Fernando Rey

Hiru tomo idazteko asmoa zuen: lehen tomoan, Errusiako errealitatearen infernua erakutsi nahi zuen; bigarrenean, berriz, purgatorioa; eta hirugarrenean, azkenik, paradisua (Danteren ***Jainkotiar*** *Komedia* errusiar erara, nolabait esatearren). Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jainkotiar komedia** (3)

**lege jainkotiarrak** (3)

## **jainkotiartasun** *iz* jainkotiarra denaren nolakotasuna; jainkozaletasuna.

Menturaz ez aski ikusi ere jende langile xehearen beharrak eta asurantza sozial batena, eta moralaren zaintzale bakar utzi dutela Bush bera **jainkotiartasuna** soberasko baliatu duena, zenbait aldiz halako sintsa aire batekin. Herria

---

## **jainkotu**, jainko(tu), jainkotzen **1** da/du *ad* jainko bihurtu.

Arima garbia, biluziaren biluziaz **jainkotua**. Joan Mari Lekuona

"Itzalpean bizi zirenei argiak egin die distira" (Is 9,1), esan nahi baita **jainkoturiko** giza izaeraren distira. Joan Mari Lekuona

Maila honetan, hain **jainkotua** geratzen da gizakia, non bere izate eta egitate guztia Jainkoa bera baita gizakian ari dena. Joan Mari Lekuona

Gizartearentzat lokarri berri bat bilatu zutenean **jainkoturiko** Zesar baten gurtzan. Iñaki Mendiguren

Grekoek, jende praktikoa izaki, grina guztiak **jainkotu** zituzten. Josu Zabaleta

Bere aszetismoak **jainkoturik** bezala sentitzen zen orain, libre. Josu Zabaleta

**2** jainkotzat hartu edo erabili.

Freud **«jainkotzen»** duten jarrerak berak ere ez ditu gogoko. Berria - Harian

Ez dago **jainkotu** ez den izugarrikeriarik, ez eta laidotu ez den bertuterik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Noraren aitak ere jainkozko ukitu batek **jainkotutzat** zeukan bere burua. Anjel Lertxundi

Poetak, iraultza hari esker, harrotu, **jainkotu** egin zirela, behin ere ez bezalako garrantzia hartu zutela gizarteko botere-sarean. Bernardo Atxaga

Hemen berriz, santutua ageri zaigula Joxemielen izena, eta kasik **jainkotuak** haren batelak ekarritako txitxarro eta berdelak oro. Iñaki Segurola

**Jainkoturik** zeukan Frantzia, baina frantsesak gutxiesten zituen. Juan Garzia

Ni ez nago idazlea **jainkotzearen** alde, baina bai idazleak bere lekua izatearen alde. Berria - Kultura

Norbaiten hitza antzutzeko ez dago norbait hori **jainkotzea** eta harri bihurtzea bezalako xixtimarik. Iñaki Segurola

Baina batek bere burua **jainkotzeak** benetan esan nahi duena da bere burua zaiola etsairik handiena bilakatu eta jainko hiltzaile baten pare bihurtu. Iñaki Segurola

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bildots maitagarria izango zara, Jaunak bizkarrean hartzen duena gizatasun **jainkotuaren** mendira igotzeko. Joan Mari Lekuona

Emakumeak jainkotasuna adierazten du, kriseiluak gure Jaunaren gizatasun **jainkotua**. Joan Mari Lekuona

Gizaki **jainkotuei** men egitea. Esteban Antxustegi

Islam garailearen panteoian, Jainko haragitu kanporatua Ali **jainkotuaren** forman mozorrotuta itzuli zen isilka. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idazle jainkotuen konstanteak** (3)

---

## **jainkotxar** *iz*

Nola ez zitzaion gustatzen inor ezkontzerik, greziarrek Maia **jainkotxar** hau aplakatzeko, elorrizko bost zuzi zeramazkioten tenplura, elorri-lorez apainduta, baina beti maiatza baino lehen. Pello Zabala

---

## **jainkotxo** *iz* jainko txikia.

Homerok, antzina bezalaxe, herri askotan, eta erlijio gehienek lagunduta, eguraldi txarra jainko eta **jainkotxoen** haserretzat hartzen zuen. Pello Zabala

Irlanda aldeko mitologian ere badu txokorik iñarrak, batez ere kontuan izanik, **jainkotxo** mitologiako askoren pasadizo eta gertakizunak iñarra loratan dagoen sasoian jazotzen direla kontuan izanik. Pello Zabala

Kartzelero bakoitza **jainkotxo** bihurtzen da desmundu hauetan. Jokin Urain

· Sukaldaritza kontuetan hiru **jainkotxo** horien tenpluko fededun garenok amore eman genuen. Edorta Jimenez

Zazpi Urteetako gerratean euskaldun askoren idolo (are **jainkotxo** ere) bihurtua izan zen Carlos M. Isidro "xantu" biltzaile gurenaren biloba ausarta zetorren oraingoan zaldi gainean. Txillardegi

---

## **jainkotze** *iz* jainko bihurtzea; jainkotzat hartu edo erabiltzea.

Gorputza menderatu lezakeela zigorrez eta martirioz, edozein **jainkotze** amesturen alde, lurra gaitzetsiz zeruratze bidean. Patziku Perurena

Desesperazio santua sortzeko hainako ezintasuna erakustea, gizon santuak bere **jainkotze** bide temosoan segi dezan. Patziku Perurena

---

## **jainkouste** *iz* jainko ustekoa.

**Jainkouste** ustelak! Jon Alonso

---

## **jainkozale** *(169 agerraldi, 22 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *izond* erlijioari zinez atxikia dena, Jainkoaren aintza bilatzen duena. ik **jainkotiar**; **elizkoi**.

Gualfreduccio izeneko gizon **jainkozale** bat. Askoren artean

Beste behin, andre noble eta **jainkozale** bat uste onez joan zen santuarengana eta behin eta berriz eskatu zion erregutu ziezaiola Jaunari beraren senarraren alde. Askoren artean

Egun haietan judu **jainkozale** asko ziren Jerusalemen. Elizen arteko biblia

Jainkoaren nahiaren bila Jaun Egile bera jartzea harremanetan arima **jainkozalearekin**. Patxi Altuna

San Frantziskok, Egidioren itxura **jainkozalea** ikusiz, erantzun zion: [...]. Askoren artean

Baina juduek andere handiki **jainkozaleak** eta hiriko jauntxoak berotu zituzten. Elizen arteko biblia

-Oso gizon onak dira fraideak, oso gizon **jainkozaleak**. Irene Aldasoro

Baita Klara birjina guztiz **jainkozaleak** ere. Askoren artean

-Azken unean **jainkozale** bihurtu al zara? -esan zion Heriok, burlati-. Martin Anso

**2** (izan aditzarekin)

**Jainkozalea** nauzu ni, gau eta egun Jainkoa zerbitzatzen dudana. Jose Antonio Mujika

Kristaua da bera, **jainkozalea,** fededun izugarria. Pako Aristi

Kardinal hau gizon ona eta **jainkozalea** zen, Jaunaren zerbitzariak oso maite zituena. Askoren artean

Froga hau ez dezake egiaz **jainkozale** den inork arbuiatu. Askoren artean

Aholkua eskatuko balute, ordea, ministroei zilegi zaie haiek **jainkozale** diren norbaitzuengana bidaltzea. Askoren artean

Gizon **jainkozale** eta debotoa baitzen. Askoren artean

**Jainkozale** sutsua nintzen, gaur zuek guztiok zareten bezala. Elizen arteko biblia

Munduan nazio gutxi izango da India bezain **jainkozale**. Gotzon Garate

**3** (izen gisa)

**Jainkozale** zintzoak eta adimen bikainez hornituak. Imanol Unzurrunzaga

**Jainkozale** atsekabetu eta erasotuaren otoitz larria. Elizen arteko biblia

Erdi Aroko **jainkozaleak** egiten zuen penitentzia mota bat. Xabier Olarra

**Jainkozaleak** ohoratzen dituena. Elizen arteko biblia

**Jainkozalearen** otoitz lehiatsu eta uste onekoa. **jainkozaleen** fedearentzat. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **anaia jainkozale** (4); **gizon jainkozale** (8); **gizon jainkozale bat** (3)

---

# jainkozaletasun *iz* jainkozalea denaren nolakotasuna.

Onias apaiz nagusiaren **jainkozaletasun** eta zuzentasunari esker. Elizen arteko biblia

**Jainkozaletasun** handiko alaba zuen. Askoren artean

Sasijainkoen gurtzaileek **jainkozaletasuna** bertan behera uzten dute. Elizen arteko biblia

Hau luzaroan bizi izan zen, santutasun, zintzotasun eta **jainkozaletasunean**. Askoren artean

Bizitza bare eta baketsuan bizi gaitezen, **jainkozaletasunez** eta gizabidez. Elizen arteko biblia

Penagarria dela, egiazko **jainkozaletasunik** gabe bere predikazioan arimen salbamena ez, baina bere ospea bilatzen duen predikatzailea. Askoren artean

Gobernu errepublikarrari **jainkozaletasuna** ez zaiola batere komeni. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# jainkozko *(401 agerraldi, 48 liburu eta 7 artikulutan) izlag* **1** Jainkoari edo jainkoei dagokiena; Jainkoagandik datorrena. ik **jainko 7.**

**Jainkozko** argi hondargabean murgilduta. Askoren artean

**Jainkozko** garretan suturik. Askoren artean

**Jainkozko** sutan erretzen zuen barrena eta ezin zuen bere arimako sugarra kanporatu gabe gorde. Askoren artean

Haren hitz eta egite guztiek **jainkozko** usain gozoa zabaltzen dutela. Askoren artean

Harekin **jainkozko** gauzei buruz hitz egiteko asmotan. Askoren artean

Arren eta arren eskatzen zion Jainkoari eman ziezaiola **jainkozko** bertute hori. Askoren artean

**Jainkozko** Hiru Pertsonen irudikapena. Iñaki Mendiguren

Orduan bakarrik da existentzia, eta ez esentzia soilik, **jainkozko** izatasunarekiko loturan eta dependentzian. Piarres Xarriton

Lokuluxkan zegoen, **jainkozko** kolerarena zirudien ahots batek izutu zuenean: [...]. Koldo Biguri

Hori gertatzen zen erregek **jainkozko** ohoreak eskatzen zituztelako beraientzat. Esteban Antxustegi

**Jainkozko** legeen bidez ez da arautu behar giza legeen bidez arautu behar dena, ez eta giza legeen bidez ere **jainkozko** legeen bidez arautu behar dena. Iñaki Iñurrieta

Senidea, ene burua dagoeneko Mekako bideetan barrena dakusat, Koranaren bertsetak ahoan [...] **Jainkozko** Ahotsak berberari entzunak banizkio bezalaxe. Patxi Zubizarreta

-Egiozu otoitz Profetari, ene jauna, eta egizu **Jainkozko** Batasunaren aldarria. Patxi Zubizarreta

Haritz gaineko mihurak **jainkozko** indar sakratua zuen Europa zaharreko errito paganoetan. Patziku Perurena

Bere **jainkozko** indar paregabea azaldu du Jaunak nazio guztien aurrean. Elizen arteko biblia

Erregeen **jainkozko** eskubide zuzena. Piarres Xarriton

**2** (izenondo gisa)

Gabriel hitzak ahal-izate **jainkozkoa** esan nahi du. Joan Mari Lekuona

Jainkoak erabaki du egintza **jainkozkoak** bakarrik saritzea, eta ez zureak, baizik eta Berak zugan egiten dituenak, ez besterik. Joan Mari Lekuona

Ariman distira dezan eguzki **jainkozkoak**. Lege **jainkozko** haren arabera. Joan Mari Lekuona

Pentsa musika, arte **jainkozko** hori. Josu Zabaleta

Kontsolamendu **jainkozkoaren** liburua. Joan Mari Lekuona

Erlijioak beldurturik, ez dezazun pentsa lurrak, eguzkiak eta zeruak, itsasoak, izarrek eta ilargiak gorputz **jainkozkoa** daukatela eta beti irautekoak direla. Xabier Amuriza

Batez ere jainko hilezkorrez eurez hain hitz eder eta **jainkozkoak** jaulki eta bere esanetan gauzen izaera osoa agertu zuelarik. Xabier Amuriza

Egiptoko faraoi erdi-**jainkozko** haiek kanabera zizuten zetro eta errege-makilatzat. Pello Zabala

Ortzi-ganga **jainkozkoa,** kristalez egina; eguzki esaten diogun su-masa hori, eta maitasuna, zeinak guztia baitauka bere baitan, esfera zabal-zabal bat irudi. Juan Garzia

Natura **jainkozkoa** eta Jainkoaren izatea oso goian geratzen dira, gaindegi guztien gainetik, baita Jaunarekiko batasun gorenean, sakonenean, gogokoenean ere. Joan Mari Lekuona

Nola eta zer erlazioaren arabera gure arima, esentzia eta existentziari dagokionez, jarraitzen zaion izatasun **jainkozkoari** eta etengabe Jainkoaren baitan dagoen. Piarres Xarriton

**3** (izen gisa)

Ukapenak **jainkozkoan** egiazkoak dira, aldiz baieztapenak trinkotasunik gabeak *(incompactae)* edo desegokiak. Joan Mari Lekuona

Zeren garbi utzi behar da Mistikak [...] ez du esan nahi transzendentzia, baizik **jainkozkoaren** inmanentzia. Joan Mari Lekuona

Bizitzan gailurra, Jainkoaren eta **Jainkozkoaren** jakitatearen egarria duenarendako. Aingeru Epaltza

Igoera hori, **jainkozkoaren** gailur-ikuspeneraino, honela deskribatu eta laburbiltzen du: [...]. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jainkozko argi** (3); **jainkozko eskubidearen** (3); **jainkozko jaiotza** (3); **jainkozko probidentziak** (3); **jainkozko probidentziaren** (3)
> **jaiotza jainkozkoa** (5)
> **leizezulo jainkozkoan** (3)

---

# jainkozkotasun *iz* jainkozkoa denaren nolakotasuna.

Nolabaiteko xede erlijiosoa duena; **jainkozkotasuna** duena. Xabier Olarra

## **jainkozurtz** *izond*

Jainkoa hil izanak **jainkozurtz** egin gaitu. Joxerra Garzia

Gaztetako ateismo porrokatua utzi, eta agnostizismoaren dotrina fedegabea hartu zuen arte, ez zen **jainkozurtz** sentitu. Joxerra Garzia

---

## **jaio**, jaiotzen **1** da *ad* gizaki bat mundura etorri, amaren sabeletik irten. ik **sortu**[1].

Beatrice Cenci Erroman **jaio** zen 1577. urtean, familia ospetsu eta aberats batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nik hiru urte nituela **jaio** zen. Oskar Arana

1998an Espainian 361.930 haur **jaio** ziren, 1970ean sortutakoen erdiak bakarrik. Pello Salaburu

Kale-kalekoa naiz ni, kalean **jaio** eta kalean hazia. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni ere euskal herrian **jaioa** naiz, euskal herri batean. Iñaki Segurola

Ama, Jane, hemezortzi urteko andre gaztea zen John **jaio** zenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jaiotzen** denetik hil arte. Luis Elberdin

**Jaio** zinen egunean, ez zizuten zilborrestea ebaki, ez zintuzten uretan garbitu. Elizen arteko biblia

Madarikatua **jaio** nintzen eguna! Elizen arteko biblia

Garai hartan **jaio** zen Moises. Elizen arteko biblia

Ez harritu berriro **jaio** behar duzuela esan dizudalako. Elizen arteko biblia

*ik* jaioberritu.

Gu bikiak **jaio** gintunan, ni mutila, bestea neska. Pako Aristi

Gogoratuz lehenik zertarako **jaio** den gizona, alegia, Jainko gure Jauna goresteko eta arima salbatzeko. Patxi Altuna

Hitlerren alde hiltzeko **jaio** gara. Fernando Rey

Hobbit zintzo eta osoa izateko **jaio** hintzen eta horrelakoa izango haiz. Agustin Otsoa

Larrua jotzea maite duela, larrutarako **jaioa** dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Alegia, emakumea ama izateko **jaioa** zela. Josetxo Azkona

**2** (zaio saileko adizkiekin)

Haur bat **jaio** zaigu, Jainkoak seme bat eman digu. Elizen arteko biblia

Madarikatua nire aitari albistea eman ziona, "Mutikoa **jaio** zaizu" esanez. Elizen arteko biblia

Auzo-lagunek honela zioten: "Semea **jaio** zaio Noemiri". Elizen arteko biblia

Isaak **jaio** zitzaionean, zortzigarren egunean erdaindu egin zuen Abrahamek. Elizen arteko biblia

Hona hemen Jerusalemen **jaio** zitzaizkion semeak: Ximea, Xobab, Natan eta Salomon, laurak Amielen alaba Betsaberen semeak. Elizen arteko biblia

Zazpi haur **jaio** zitzaizkien Joxemari eta Pakitari: bi, jaioberritan hil zitzaizkienak. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (nondik, norgandik adieraziz)

Nondik **jaio** zen Adam hori? Xabier Kintana

Begira, hemendik **jaio** zinen zu. Joseba Sarrionandia

Batzuek diote Eros maitasunaren jainkoaren irribarretik **jaio** zela, baina beste batzuen ustetan egunsentiaren jainkosaren, Auroraren, ile-adatsetatik **jaioa** da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Giza jatorriz Daviden hazitik **jaio** zen; baina, hilen artetik piztu zenez gero, santu egiten duen Espirituaz Jainkoaren Seme ahaltsu egina izan da. Elizen arteko biblia

Aitagandik Semea **jaio** da, jainkozko bigarren pertsona. Joan Mari Lekuona

-Muggleengandik **jaioa** zara? Iñaki Mendiguren

Jainkoarengandik **jaio** den orok garaitu egiten baitu mundua. Elizen arteko biblia

Jainkoaren nahia egiten duen oro harengandik **jaioa** dela. Elizen arteko biblia

Ni zu bezalaxe **jaio** naiz, amaren sabeletik. Jose Morales

Santa Maria Birjina dohatsuarengandik **jaio** zen. Askoren artean

Ostirale sainduz, Gurutzefikatuaren saihetsetik **jaio** zela Jesusen gorputz misteriozkoa. Piarres Xarriton

Jainko ezezagun baten eta prostituta baten elkartzetik **jaio** zen Ciril Tourner. Juan Garzia

Bere baitatik **jaio** ginelako gaude beti itsasminez. Joxean Agirre

Zuhaitz batetik **jaio** zen -mirraren zuhaitzetik, Adonisen ama mirra zuhaitz bihurtuta geratu baitzen-. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baita bi alorrak hurbilekoak edo jakituriaren enbor beretik **jaioak** badira ere. Anjel Lertxundi

**4** (nola adieraziz)

-Hau al da zuen semea, itsu **jaio** zela diozuena? Elizen arteko biblia

Hara, errudun **jaio** nintzen, bekatari sortu ninduen amak. Elizen arteko biblia

Behar gorrian **jaio,** eta aberats okitu hil zen. Jon Muñoz

Hilda **jaio** banintz hobe. Iñaki Segurola

Nire ustez, Mendebaldea-Ekialdea sindromeak jota **jaio** da. Edorta Jimenez

Begi bakarrarekin **jaio** zena. Pablo Sastre

Duela bi urte, aldiz, 112 izan ziren birusarekin **jaio** zirenak. Berria - Gaiak

Gizon guztiak libre **jaio** dira, denek dituzte eskubide berdinak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hik kapitalista **jaio** beharko huen, ni bezala. Lopez de Arana

Arreba hilaur **jaioaren** akordu mingarria eragiten zidan niri izenak. Edorta Jimenez

Ahalmen batzuekin **jaiotzen** gara, baina gero ikasi egin behar dugu ahalmen horiek erabiltzen eta zertzen. Luis Elberdin

**5** (aditz laguntzailerik gabe)

Benjamin **jaio** eta Rakel hil. Elizen arteko biblia

Hil zen Isabel Vidal eta jaio zen Sara Vidal, Isabelen nortasunaz jantzita **jaio** ere, jaiotza eta heriotza oso gertuko ekintzak baitira, hil behar **jaiotzeko** eta **jaio** behar hiltzeko. Felipe Juaristi

Giancarlo Pajetta, Turinen **jaioa** 1915eko urriaren 1ean, Livornon hila 1988ko abuztuaren 15ean. Fernando Rey

Seme-alabak Australian **jaio** eta haziak, gainera. Xabier Montoia

**Jaio** aurreko bizitza bat. Juan Kruz Igerabide

Hil-ondoko bizia edo betierekoa, **jaio**-aurreko bizialdiak, bizi-bitarteko heriotzatxo behin-behinekoak. Iñaki Segurola

Berdin-berdin gu ere: **jaio** orduko desagertu eta ez dugu atzean bertute-arrastorik ere utzi. Elizen arteko biblia

Amaren aldeko gure aiton-amonak ni **jaio** baino lehen hil ziren biak. Fernando Rey

'Itsasoan ito zen, zu **jaio** baino hiru hilabete lehenago. Joseba Sarrionandia

Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aitzinean gelditu zen, **jaio** bezain laster semea irensteko. Elizen arteko biblia

**Jaio** eta zortzi egunera erdaindu ninduten. Elizen arteko biblia

Eritasunaren **jaio** aurretiko diagnostikoa. Juan Garzia

Gero eta maizago jotzen dute gurasoek fetuei **jaio** aurreko diagnostikoak egitera. Berria - Gaiak

Bera **jaiotzean,** hil zitzaiola ama. Inazio Mujika Iraola

Gauza asko eman zaizkit **jaiotzean:** izaera zoriontsua, poza eta indarra. Josu Zabaleta

*ik* jaiotze.

-Badakin, **jaiotzeak** hiltzea zor. Antton Olano

Hobe da gorra edo elbarria **jaiotzea** horrelako ahalmenak edukitzea baino. Koro Navarro

## **6** (animaliak)

Hartz **jaio** hintzen ala bazter-herri honetako bizimoduak, galsoroek eta nekazariekiko harremanek bihurtu haute hartz? Jose Morales

Halaber, anatomia genitala aldatu zuten, kumeak sabel barruan zaindu ahal izateko **jaio** artean. Luis Elberdin

Belgradon hiru tigrekume **jaio** ziren. Gotzon Garate

San Jose inguruan **jaio** diren arkume jostarinak. Pako Aristi

Baldar eta trakets **jaio** zen ahatetxoa, bere senide guztiak baino itsusiago eta moldagaitzago. Xabier Mendiguren Elizegi

Tximeleta nakaratuak krisalidetatik **jaio** eta hil arte aritzen ziren leihoko kristala jotzen. Anton Garikano

Izokin bati amuarrain baten enbrioia txertatu, eta amuarrain bat **jaio** da. Berria - Gaiak

Izoztutako hazitik munduko lehenengo arrano beltza **jaio** da, Erresuma Batuan. Berria - Gaiak

## **7** (landareak)

Barbara Allenen hilobian, herriko hilerrian, txilar bat **jaio** zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bioletak **jaio** ziren eta baita nartzisoak ere. Anton Garikano

Lau burdin hesiren artean landareak **jaio** daitezen utzi dute. Monika Etxebarria

· **Jaio** dira berriro loreak eta fruituak. Joxan Elosegi

## **8** (gauza fisikoak)

Gauzak sortu egiten dira: **jaio,** etorri, agertu, jaulki, irten. Iñaki Segurola

Aizgorri barrenean **jaio** eta Zumaiako partean bere burua itsasora botatzen duen ur-lasterrari. Iñaki Segurola

Mendiak **jaio** baino lehen, lurra eta mundua sortu baino lehen, Jainko zara zu betidanik eta betiko. Elizen arteko biblia

Mendi horiek Ozeano Artikoaren itsasbazterrean **jaio** eta itsaso kaspiarreko ertzetaraino doaz. Karlos Zabala

Ikusi, ikusi: aurreneko hortza **jaio** zaio! Patziku Perurena

Elenaren etxea altzariz populatu da eta paretetan afixa eta argazkiak **jaio** dira. Eider Rodriguez

Grisa **jaio** zen eguna, errautsez egin izan balute bezala. Felipe Juaristi

Beste poema bat **jaio** baino lehen hila; beste poema aborto bat. Pedro Alberdi

Karta jokoan hasi ziren, eta jokoarekin batera istiluak **jaio** ziren. Felipe Juaristi

Poeta iaio bat **jaio** da! Iñaki Arranz

Hollywoodi buruz irakurtzen den guztian beti kontatzen da neska zerbitzari bat proba batetik airoso atera eta aktoresa ospetsu bihurtzen dela,*Izar bat* ***jaio*** *da* filmean bezala. Fernando Rey

## **9** (gauza abstraktuak)

-Aljebra ez zen Grezian **jaio**! Ikurrak solasgai harturik, + eta - ikurrak merkataritza-aritmetikako tratatu batean **jaio** zirela kontatu zion Jonathanek Léari. Jon Muñoz

Maroniten kristautasun monotelita eta drusoen xiismoa, Hakim gurtzen duena, Erdialdeko Sirian **jaio** ziren biak. Iñaki Mendiguren

Azken mende eta erdi honetan esan daiteke **jaio** dela meteorologia. Pello Zabala

Eliza **jaio** baino dozena bat mende lehenagotikoa da Pazkoa. Pello Zabala

Bilbon **jaio** zen ETA orain mende erdi. Joseba Zulaika

1870ean Unión Artesana **jaio** zen, eta hura izan zen, urte askoan, Danborradaren historiaren protagonista. Askoren artean

Latinez, *colere* aditzetik **jaio** den forma supinoa *cultum* da. Askoren artean

Hori esan bezain laster, berebiziko ideia bat **jaio** zitzaion burura Txitxikovi. Jose Morales

Madarikatua bien arteko maitasuna **jaio** zen eguna! Juan Kruz Igerabide

Eguna geldi geratzea, **jaio gabe,** argirik gabe, eguna itsasoan hondoratzen diren gorpuak bezala geratzea, azalera ezin. Felipe Juaristi

*ik* jaiogabe.

Kazetaritzako lan horietan ari zela **jaio** zitzaiola bere bizitzako obsesio nagusia: edozein garai, leku eta egoeratan idatziko zuen luma nahi zuen, behar zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kristautasunaren barruko Mistika ez zela alemaniar Mistikarekin **jaio,** zerutik eroritako meteorito bat bailitzan. Joan Mari Lekuona

Etsipenetik **jaio** zen ausarkeria hura. Anton Garikano

## • **10** du *ad* gizaki bat mundura etorri.

Zergatik **jaio** hinduen amak hain utzia? Juan Kruz Igerabide

Larogeita hamabosteko udan, beroa zela eta hiru ume hilik **jaio** zituen gure txerramak! Pablo Sastre

Guk **jaiotzen** ditugu, eta jaioaraztea ez da "jaio da" huts batekin argitzen, ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Arantxa Iturbe

## **11** *(**jaio** hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik beherago* **13**)

Esker bihotz-bihotzetikoak, bada, gure irundar unibertsal horri, eta bihoa nire hau beraren **jaio** -lurraren aitorpen xume modura. Juan Garzia

## **12** (era burutua izenondo edo izen gisa)

Higidura zirkularra -erran nahi baitut zeruko esferaren mugimendua-, ez da jaioa eta ezin da akzidente **jaioen** artean sailkatu. **Jaioak** hiltzea zor duela eta hilak bakea. Xabier Kintana

Sortua baldin bada, zalantzarik gabe sortzailea du, oinarrizko nozioa baita **jaioak** ez duela bere burua jaioarazi, baina bera ez bezalako batek jaioarazi duela. Xabier Kintana

## **13** ***jaiot*** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik gorago* **11**)

Horrexegatik inguratzen dute armadunek ama handia, edo beharbada esan nahi dutelako jainkosak agintzen duela **jaiot** -lurra armaz eta kemenez defendatu behar dela eta gurasoei babes eta ohore egin behar zaiela. Xabier Amuriza

*ik* jaioterri.

## **14** ***jaiotzear***

Bere emazteari erdiminak etorri eta maiorazkoa **jaiotzear** zela ikustean. Fernando Morillo

Txitatxoa **jaiotzear** denean, hildako arrautza zapuztuak maiz ikusi ditugu txorien habietan. Pello Zabala

Eta goibeltasunarekin batera artegatasuna dator, **jaiotzear** dagoen guztiak nolabaiteko ezinegona eragiten duelako. Berria - Kultura

KLMrekin batera, Europako aire garraioaren erraldoia **jaiotzear** da. Berria - Ekonomia

## **16** ***jaiotzeko*** *iz*

**Jaiotzekoen** arimak eta izpirituak, eta Guztiz Santuak (gorets bedi!) hilak bizteko erabiliko duen ihintza Xabier Kintana

**17** *jaio-leku ik* **jaioleku**.

**18** ***hanaika ikusteko jaio***

-Hamaika ikusteko **jaio** ginen! Joan Mari Irigoien

Bai, izan ere, hamaika ikusteko **jaioak** gara. Mirentxu Larrañaga

-Hamaika ikusteko **jaioak** gara, horratik -iragarri zuen Matson andreak. Mirentxu Larrañaga

Hamaika ikusteko **jaioak** dira venezuelarrak ere. Pako Aristi

Hamaika ikusteko **jaioak,** harginari ikasi dion legez. Urtzi Urrutikoetxea

**19** ***lehen-jaio*** *iz*

Egiptoko lehen-seme guztiak hilarazi nituenean, niretzat sagaratu nituen Israelgo lehen- **jaio** guztiak, gizaki nahiz abereak. Elizen arteko biblia

**20** ***mundura jaio***

1887ko apirilaren 6an **jaio** zen mundura, sortzez eta bizitzez aranoarrak ziren guraso Joxebenardo eta Joanengraxi Iparragirregandik. Patziku Perurena

Etxe horretantxe **jaio** zen mundura -esan digu- orain dela lau bat mende, Maria Azpilkueta eta Aznar anderea. Txillardegi

Gaurko egunez, oso aspaldiko abuztu batek hogei egun zituela, mundura **jaio** zenari. Iñaki Segurola

Olatx mundura **jaio** zen egun berean arnasarik hartu ezinez ito zen umeari. Iñaki Segurola

Handik astebetera ezkondu ziren Maria eta Patxi, hilaren 14an, eta uztailaren 2an **jaio** zen mundura nire ama. Xabier Mendiguren Elizegi

**21** ***ondo/ongi jaioa egon***

Ondo **jaioa** nago! Txillardegi

Ongi **jaioak** gaude. Txillardegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**alaba jaio** (15); **auzoan jaio** (6); **baino lehenago jaio** (5); **baserrian jaio** (7); **batera jaio** (8); **berriro jaio** (6); **bertan jaio** (16); **bezala jaio** (6); **bilbon jaio** (5); **donostian jaio** (9); **ean jaio** (5); **haur bat jaio** (5); **haur jaio berri** (6); **haur jaio berriaren** (6); **haurra jaio** (15); **herrian jaio** (12); **hilda jaio** (6); **hilik jaio** (8); **hirian jaio** (11); **ikusteko jaio** (5); **iruñ jaio aurreko** (9); **jaio aurretik** (40); **jaio aurretiko** (7); **jaio baino lehen** (10); **jaio berri** (21); **jaio berri baten** (6); **jaio berria** (30); **jaio berriak** (19); **jaio berriaren** (24); **jaio berriari** (5); **jaio berrien** (11); **jaio berritan** (9); **jaio bezain laster** (6); **jaio eta bizi** (12); **jaio eta hazi** (5); **jaio eta hil** (13); **jaio eta hiltzen** (6); **jaio ondoren** (15); **jaio orduko** (17); **jaio zen egunean** (5); **jaio zen urtean** (5); **jesus jaio** (7); **lisboan jaio** (5); **lotuta jaio** (5); **madrilen jaio** (5); **mundura jaio** (5); **neska jaio** (5); **new yorken jaio** (6); **orduan jaio** (7); **pobre jaio** (7); **seme alaba jaio** (5); **semea jaio** (10); **umea jaio** (13)

**herrian jaioa** (9); **izateko jaioa** (10); **muggleengandik jaioa** (6); **turinen jaioa** (5)

**hamaika ikusteko jaioak** (10)

**aebetan jaiotako** (5); **bidez jaiotako** (6); **euskal herrian jaiotako** (5); **jaiotako haurrak** (7); **jaiotako haurrek** (7); **jaiotako umeen** (5)

**umea jaiotzen** (5)

---

# jaioarazi, jaioaraz, jaioarazten du *ad* jaiotzera behartu. ik **sorrarazi**.

Sortua baldin bada, zalantzarik gabe sortzailea du, oinarrizko nozioa baita jaioak ez duela bere burua **jaioarazi,** baina bera ez bezalako batek **jaioarazi** duela; beraz, mundua **jaioarazi** duena Jainkoa da. Xabier Kintana

Maria zuen izena sortu ninduen amak, baina zinezkoago ama izan zitzaidan, Maria Erreginari eskaini ninduenean [...] ezen ez eta **jaioarazi** ninduenean. Piarres Xarriton

Guk jaiotzen ditugu, eta **jaioaraztea** ez da "jaio da" huts batekin argitzen, ez zaio merezi duen garrantzia ematen. Arantxa Iturbe

Norbait **jaioarazteko** modu bat baino gehiago dago. Juan Kruz Igerabide

Oso zaila da seme bat desagerrarazi eta beste hau **jaioaraztea**. Juan Kruz Igerabide

Egunero eguzki berria **jaioarazten** dutenak. Xabier Amuriza

Lehenengo zibilizazio haiek huts egin zuten erlijio nagusi erabat garatuak **jaioarazten**. Iñaki Mendiguren

Alpendeak argi zenitalari bidea ixten dio, baita egun argietan ere, eta une honetan gela barruan gaua **jaioarazten** du. Jon Alonso

Gaur egun, asko nahastu dira arkume jaiotzak ia urte osoan **jaioarazten** dituztenak ere badira-eta. Pello Zabala

---

# jaioarazle *izond* jaioarazten duena.

Berak sortzen eta berritzen ditu etengabe kosmoko gauza gutzi-guztiak, eta bere burua osotasun gisan berritzen du: ama da, sortzailea, **jaioarazlea**. Xabier Amuriza

---

# jaioberri *(243 agerraldi, 89 liburu eta 46 artikulutan; orobat* ***jaio(-)berri*** *131 agerraldi, 64 liburu eta 29 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***jaioberri*** *agertzen da)* 1 *izond* duela gutxi jaio dena. (haurra)

Liburuetako haur **jaioberriek** hiru orduz behin jaten dute, eta lotan egiten dituzte jaten pasatzen ez dituzten orduak. Arantxa Iturbe

Haur **jaio** berrien bizitza-indarra. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haur **jaioberrietan,** kartilago asko dauka eskeletoak. Irene Aldasoro

Umetxo **jaioberri** batek lehen aldiz egiten duenean barre. Julen Gabiria

Emakume gazte bat, bere alaba **jaioberria** kanguru batek bezala paparrean daramala. Harkaitz Cano

-Non da juduen errege **jaioberria**? Elizen arteko biblia

Faraoiak israeldar **jaioberrien** hilketa agindu. Elizen arteko biblia

**Jaioberria** zela, Santa Adalsindaren egunean utzi zuten abandonatuta komentu batean. Iñaki Arranz

Izenberriturik ez ezik, meheturik ere egin du jauzi orduko "Akabaila" jaiogabe hartatik oraingo "Atertzean" **jaioberri** honetara. Aingeru Epaltza

**2** (bestelakoak)

Katemea bere katakume **jaio** berriekin. Jose Morales

Txahal **jaioberria** gorputza inguratzen dion mintzetik jareitean. Xabier Amuriza

Ni, antxume **jaio** berri bat bezalakoxe goxo eta ona naizen hau. Juan Garzia

Eta erle **jaioberri** horiek alde egiten dute erlauntzetik. Unai Elorriaga

Bularretakoa pixka bat jaitsi, eta bular bat irten zitzaion, paradisuko sagar **jaioberriaren** pare. Juan Kruz Igerabide

Nerabe baten itxuraz, bizar **jaioberria** eta gaztetasunaren distira zituela. Juan Kruz Igerabide

Nigan eguzki **jaioberria** ikusiko balu moduan. Xabier Mendiguren Elizegi

Italiar literatura **jaioberriaren** testigu dugu idazki hau. Askoren artean

Mendebaldeko Kristandade **jaio** berrian. Iñaki Mendiguren

Karlista eta falangisten arteko liskar nabariak zirela-eta erregimen **jaioberria** kinka larrian bizi baitzen. Edorta Jimenez

Isiltasuna gaua da eta era berean eguna: argi **jaio** berriaren oihuaz lo egiten duen gaua eta amatatzen ez den eguna. Bizi **jaioberriei** dagokienez. Felipe Juaristi

**3** (izen gisa)

**Jaioberrien** ardura eman zidan. **Jaioberri** gehienek egiten dute negar. Arantxa Iturbe

Eta hona seinalea: **jaioberri** bat aurkituko duzue oihaletan bildua eta askan etzana. **Jaioberria** bularrean lotuta zuela. Elizen arteko biblia

**Jaio** -berria gailendu zitzaien; Alexandria izan zen Atenasen oinordekoa. Jon Muñoz

Panpina bat da, **jaioberri** itxura duten horietakoa. Iban Zaldua

**Jaioberrien** heriotza tasa Berria - Gaiak

**4** ***jaioberritan***

Umea abandonatu zuelako **jaio berritan** . Zazpi haur jaio zitzaizkien Joxemari eta Pakitari: bi, **jaioberritan** hil zitzaizkienak. Koldo Izagirre

Ageda, tuberkulosiak jota hil zena; Maria Inazia, **jaio berritan** hil zena; eta Genobeba, zure amona. Patxi Zubizarreta

Hainbat **jaio berritan** saldu eta besteak baserrian hazi egiten ditu. Berria - Harian

Umezurtz geratu zinen **jaio berritan,** eta guk [...] semetzat hartu zintugun. Anjel Lertxundi

Amak Carpi hiriko eliza baten atarian utzi zuen **jaioberritan** . Berria - Mundua

1987ko apirilaren 19an jaio zen Maria Sharapova Nyaga izeneko Siberiako herrixkan, baina **jaioberritan** joan ziren handik Sochira. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haur jaioberri** (12); **haur jaioberri bat** (5); **jaioberri bat aurkitu** (3); **ume jaioberri** (7)
> **haur jaioberria** (13); **jaioberria bezain** (3); **ume jaioberria** (4)
> **haur jaioberriak** (5); **katutxo jaioberriak** (3)
> **haur jaioberriaren** (3)
> **haur jaioberrien** (4); **ume jaioberrien** (3)
> **haur jaioberrietan** (3)

---

## **jaioberritu**, jaioberri(tu), jaioerritzen da/du *ad* berriz jaio. ik **birjaio**.

Eta salbatu egin gaitu, ez gure jokabide zuzenagatik, bere errukiari esker baizik, **jaioberritzen** gaituen garbikuntzaz eta Espiritu Santuak guregan eragiten duen berrikuntzaz. Elizen arteko biblia

---

## **jaioberritze** *iz*

Izan ere, gurasoen iritzi aho batekoaren arabera, **jaioberritze** modu bat da bataioa. Antton Olano

---

## **jaioera** *(orobat **jaiokera**)* *iz* jaiotzea.

Aita piztien **jaioeraz** arduratzen zen. Jose Morales

"Guru" baten **jaioera** . Josetxo Azkona

---

## **jaiogabe** *(orobat **jaio gabe**)* **1** *izond* jaio ez dena.

Eta gurpilen artean, gure haur **jaio** gabeek negar eta oihu egiten dute. Eskarne Mujika

Arima **jaiogabearen** antzera, gorputza falta zaion arimaren antzera. Anton Garikano

Euren seme-alaba **jaio** gabeen izenak asmatzen dabilen bikotea. Harkaitz Cano

Izenberrituri ez ezik, meheturik ere egin du jauzi orduko "Akabaila" **jaiogabe** hartatik oraingo "Atertzean" jaioberri honetara. Aingeru Epaltza

**2** (izan aditzarekin)

Ni artean **jaio gabe** nintzela. Xabier Etxabe

Ni **jaio** gabea nintzen garaian. Juan Kruz Igerabide

Makiabelo, artean, **jaiogabea** zelako. Jon Alonso

**3** ***jaiogabeko*** *izlag* jaiogabekoa.

Larrukiak egiteko antxumearen larruak erabili ohi ziren maiz, eta zenbaitetan **jaio gabeko** antxumearenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jaio gabeko** plan honi buruz. Berria - Euskal Herria

Nik diot, antzirudiko izateak eta batasunetik sortua izateak Jainkoagana jasotzen dutela arima, **jaiogabeko** Batasunean bat den Jainkoagana. Joan Mari Lekuona

---

## **jaiokor** *izond* jaiotzeko joera duena.

Begira, azkenik, [...] zeru horri: dena bere baitatik ugaltzen eta desegindakoan berriz hartzen badu, batzuek diotenez, bera ere gorputz **jaiokor** eta hilkorrez eginda dago dena. Xabier Amuriza

---

## **jaioleku** *(orobat **jaio-leku** g.er.)* *iz* jaiotze lekua.

Obaba nire **jaiolekua** eta bertako nire lagunak, eta batez ere Lubis, Stonehametik gogoratu behar nituela. Bernardo Atxaga

Ur-lasterraren **jaioleku** diren leize edo kobazuloren batzuetako ur ederretik. Iñaki Segurola

**Jaiolekuari** buruz, ordea, ezin da ziurtasun osoz esan Xenpelar Errenterian sortu zela. Berria - Kultura

Apriorizko adigaien ahalgarritasuna ikertzeko, hauek adimenean soilik bilatuz, beren **jaio** -lekua den heinean. Ibon Uribarri

**Jaiolekua:** Sao Luis (Brasil, 1978-11-18). Berria - Kirola

**Jaiolekua jaioleku,** garbi dago Alfontso Italiara joan zela bere aitarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## jaiot ik **jaio 13**.

---

## **jaiotegun** *(orobat **jaitegun** g.er.)* *iz* jaiotze eguna. ik **sortegun; urtebetetze**.

Hantxe zeuden zehaztuta haien izena, deitura, sorlekua eta **jaioteguna** . Joxan Elosegi

**Jaiteguna:** 1934ko urtarrilaren 8a (1987ko azaroaren 18an hil zen). Berria - Kultura

**Jaioteguna:** 1978-02-05. Berria - Kirola

Puska batean bere **jaioteguna** eta jaiotze ordua madarikatzen aritu zen. Pello Lizarralde

Senarraren **jaioteguna** jai nazionala izateko kanpaina hasi zuen orduan. Berria - Mundua

Zuhur jokatzera, nork bere **jaioteguna** eman behar luke hiltzen hasi zeneko datatzat. Joxerra Garzia

Hobe heriotza-eguna, **jaioteguna** baino. Elizen arteko biblia

Orduan, jaio ez izatea nahiko zenuke eta **jaioteguna** madarikatuko. Elizen arteko biblia

Azaroaren 11n, ostegunean, Martin Ugalderen **jaiotegunaren** 86. urteurrena beteko dela eta, omenaldi «xumea» egingo diote Kongresuaren antolatzaileek. Berria - Euskal Herria

Umeek **jaiotegunetan** izaten duten poz horietako batek hartuta, [...]. Matías Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izena jaioteguna jaioterria** (3); **jaioteguna jaioterria garaiera** (3)

---

# jaioterri *(557 agerraldi, 93 liburu eta 272 artikulutan; orobat **jaiot-erri** g.er.)* **1** *iz* norbait jaio den herria (7. adieran). ik **sorterri**.

Cremonan, bere **jaioterrian,** hil zen. Askoren artean

Orio bere **jaioterritik** oso hurbil. Pako Aristi

Arjel deritzan bere **jaioterritik** atera zen ezkero, ez du oraindik bataioa hartu beharreko hiltzeko estuasunik izan. Hurrengo geltokia nire **jaioterrikoa** dela. Patxi Ezkiaga

462 urte lehenago, **jaiot** -errira itzuli zenean, Inazio Loiolakoa pasatu omen zen inguru haiexetatik barrena, Iturriozko bentarako bidean. Juan Luis Zabala

Eratsungo baserri batekoa zela esan zigun artzainak; Julian Retegi pilotari handiaren **jaioterrikoa** beraz. Juan Luis Zabala

[Margolan] guztietan ere, Pontito ageri zen, haren **jaioterria,** Toskanako mendialdeko herrixka bat. Xabier Olarra

**Jaioterria:** Malmoe (Suedia). Berria - Kirola

Villanuño, Burgos: ez dakit zergatik gogoratzen naizen horren zehazki Cristinaren gurasoen **jaioterriaren** izenaz. Iban Zaldua

**Jaioterriko** kaleetan barna doa eta semea aurkitu nahian dabil. Eskarne Mujika

Iruñera itzuli zen Teo, bere **jaioterrira** . Josetxo Azkona

Meza Berria eman eta berehala etorri zen **jaioterrira,** erretorearen laguntzaile. Inazio Mujika Iraola

**2** norbait jaio den herria (1. edo 5. adieran).

Itzul zaitez zeure lurraldera, zeure **jaioterrira,** eta ondasunez beteko zaitut. Jose Antonio Mujika

Bere **jaioterrian,** Enkarterriko lurraldean, Kantabriako mugan bertan. Txillardegi

Bere **jaioterrian,** han New Jerseyn, hamaika juduk zutela horrelako txilibitu okertxo alaia mohel haren zirkuntzisio lan eskasa zela-eta. Karlos Zabala

Diru horren zati handi bat etorkinek beren **jaioterrian** utzitako zorrak kitatzeko balio dute. Berria - Ekonomia

Aitaren **jaioterrira,** Alemaniara. Alberto Ladron Arana

Zuen **jaioterri** ez den lurralde arrotz batera jaurtikiko zaituztet. Elizen arteko biblia

-Ismaelek goi ordeka du **jaioterri** . Josetxo Azkona

Lehen, tirano zaharkitu baten aurka, bere **jaioterria** askatu beharrez ziharduen gudari miresgarria, ametsetako estatu totalitario baten izenean bere basakeriak legeztatu nahi lituzkeen borrokari itsua bihurtu da, gaur egun. Piarres Xarriton

Animalia plantigrado ugaztuna, edentatuen taldekoa, **jaioterriz** afrikarra. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izena jaioteguna jaioterria** (3); **jaioteguna jaioterria garaiera** (3); **jaioterria garaiera pisua** (3); **jaioterria utzi** (3)
> **presoaren jaioterrian** (3)

---

# jaiotetxe *iz* norbait jaio den etxea.

Jaioterrian ez ezik, nire **jaiotetxearen** aurrean nengoela konprenitu nuen. Bernardo Atxaga

Bizi-bizi du gogoan Sakabiri 1962ko abenduan Lastur Arbizkoa bailarakoek bere **jaiotetxean,** Aittola Berrin, egin zioten omenaldia. Iñigo Aranbarri

Iruainen egiten zuen lan, nire amaren eta osaba Juanen **jaiotetxean,** bertako zaldiak zaintzen. Bernardo Atxaga

Aizarnako **jaiotetxean,** hamasei lagun biltzen ziren mahaira. Iñigo Aranbarri

Loinatz omen zuen familiako deitura, eta Amunabarro, berriz, **jaiotetxea:** Errekarte Haunditik goraxeagoko baserri bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere **jaiotetxean** zegoen, baina ez zuen bertakoa ematen. Bernardo Atxaga

Iparralde barnealdean, Hegoaldeko herri askotan bezalaxe, jende asko da **jaiotetxe** izenez ezagunago dena nortasun agirian daraman izenagatik baino. Iñigo Aranbarri

---

# jaioturte *iz* jaiotze urtea.

Datu garrantzitsua dugu hauxe, **jaioturtera** hurbiltzen gaituelako, sorlekua zehazten digulako. Koldo Izagirre

Bergarako erroldako **jaioturtea** oker dago, beraz. Koldo Izagirre

---

# jaiotza **1** *iz* mundura etortzea, amaren sabeletik irtetea. ik **jaiotze**.

Samuelen **jaiotza** eta haurtzaroa. Elizen arteko biblia

Gure haurraren **jaiotzari** buruz ere galdetu diot, ea nolakoa izan zen. Joxe Austin Arrieta

Zelanok ez du zehazten **jaiotzako** data. Askoren artean

**Jaiotzaren** data, heriotzarena, eta hilobitik altxatzekoa. Koro Navarro

Euskaltzale, kulturgile eta artistaren **jaiotzaren** mendeurrena. Iñigo Aranbarri

Mozarten **jaiotzaren** 250. urteurrena. Berria - Gaiak

Haren **jaiotzaren** egunean hasiko dira ospakizun nabarmenenak. Berria - Kultura

Ilargiak gidatzen baitu **jaiotza,** Saturnok, aldiz, heriotza. Pello Zabala

Ugalketa eta sexualitatea bereiztea, **jaiotzak** kontrolatzea, esperma izoztuz emakumeak "artifizialki" ernaltzea. Juan Garzia

Munduko leku askotan oraindik heriotzak eta **jaiotzak** erregistratzeko sistemak ez dira behar bezain taxuzkoak. Berria - Gaiak

Bere haurtxoaren **jaiotza** ospatu zuen. Berria - Kirola

**Jaiotzatik** heriotzara. Askoren artean

*ik beherago* 6. Askoren artean

Gehiago aldatu da nire **jaiotzatik** gaur arte Jesusen **jaiotzatik** nire jaiotza arte baino. Bernardo Atxaga

Idazkeraren aurkikuntzatik oro da aldatu: ezkontzak, **jaiotzak,** heriotzak, horiek guztiak erregistrora doaz. Andres Urrutia

Sorkuntza artistikoaren misterioa **jaiotza** naturalaren misterio berbera da. Josu Zabaleta

**Jaiotza** biologikoaren ondoren. Pako Aristi

Platonek muga ipini nahi zien behartsuen **jaiotzei**. Juan Garzia

Orain arte lehen eta hirugarren **jaiotzei** buruz hitz egin dugu. Joan Mari Lekuona

**2** irud/hed

Ikusi besterik ez, esate bateko, hortzen **jaiotza** nolako liluraz bizi dugun oraindik. Patziku Perurena

Delikan, oraintxe Bizkaia oraintxe Araba den lurretan -idatzi du azkenik bere kuadernoan-, Nerbioi ibaiaren **jaiotza** ikus daiteke. Iñigo Aranbarri

Gure unibertsoaren **jaiotza,** [...] hasierako hutsaren baitako energia-fluktuazio batzuen ondoriotzat hartzen da. Juan Garzia

Munduaren sor-denboraren eta itsas-lehorren lehen egunaren eta eguzkiaren **jaiotzaren** ondoren. Xabier Amuriza

**Jaiotza** horretan Jainkoa da Aita, jainkozko sortzez izan ere, eta ez beste inolakoz. Joan Mari Lekuona

*Respublica Christiana* baten altzotik sorturiko zibilizazio sekular baten **jaiotza** beldurgarria. Iñaki Mendiguren

Biologia molekularraren **jaiotzak** berak ongi ilustratzen du ezinezkoa dela eremu berri bateko ikerkuntza antolatzea, hura "planifikatzea", esaten den moduan. Juan Garzia

Giza irudimenaren sorkari baten **jaiotza,** ezerezaren eta betierekotasunaren arteko atalasea igarotzea den **jaiotza,** ustekabean ere gerta daiteke, Hiru hots txiki haiek izadiko lehen lege matematikoaren **jaiotza** iragartzen zuten. Josu Zabaleta

1946: Kurdistaneko Alderdi Demokratikoaren sorrera, Errepublika Kurduaren **jaiotza**. Juan Kruz Igerabide

**3** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa; ik* **jaio 11; jaio 13**)

Jesu Kristo gure Jaunaren **Jaiotza** egunean. Askoren artean

Izena eta **jaiotza** eguna. Xabier Etxabe

Faltsifikatzen zituen, esate baterako, presoen **jaiotza**-datak edo gurasoen izen-abizenak. Unai Elorriaga

Nire **jaiotza**-agiria zen. Anjel Lertxundi

-Izan ere Sinbad, **jaiotza** izenez Juan Duñabeitia, Bilbokoa zen eta. Edorta Jimenez

Patu hori zen hirietako langile-klase industrial berriaren **jaiotza**-marka. Iñaki Mendiguren

Izan ere, **jaiotza**-eskubideek ez dute ezertara behartzen, ez dute ezer sortzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Amazonian, esaterako, haur indigenen erdia ez da **jaiotza** erroldetan agertzen. Berria - Gaiak

Euskadin jaioak eta **jaiotza** tasak. Pello Salaburu

Beren **jaiotza**-kopurua ere erregulatu egin beharko zuten. Iñaki Mendiguren

Hona haien **jaiotza** ordena: [...]. Josu Zabaleta

Hasieratik, **jaiotza**-unetik hain zuzen. Askoren artean

Izen-abizenen azpian, haren **jaiotza**-heriotzaren datak. Anjel Lertxundi

Emaitzari bost axola zaio hori guztia; ez zaizkio agerian sumatzen bere **jaiotza**-baldintzak. Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ea zein eguraldi jenerotan gertatzen ziren haur-**jaiotza** gehiago. Pello Zabala

Gaur egun, asko nahastu dira arkume **jaiotzak,** ia urte osoan jaioarazten dituztenak ere badira-eta. Pello Zabala

Lagunok, gizakiak hemen barne-**jaiotza** goragoko bat jasotzen du. Joan Mari Lekuona

**5** Jesusen jaiotzaren irudikatzea, Belemgo estalpea eta Jesus Haurraren, San Jose eta Ama Birjinaren, asto eta idiaren etab.-en irudiak dituena, Eguberrietan, etxeetan eta, ipintzen dena. ik **naximentu.**

Eguberriak gertu zeuden eta azkar-azkar **jaiotzako** iruditxoak kaxetatik atera, garbitu, kolore-ukituak eman eta koskak konpondu behar zitzaizkien. Koldo Biguri

Eta neguaren erdian eguberriak izaiten ziren, eta festaburu hartarako, amak hala manaturik, etxean **jaiotza** ipintzeko usantza hartu genuen. Joan Mari Irigoien

Harenak izaiten baitziren **jaiotzan** jartzen genituen iduri haiek guztiak: san Jose, Ama Birjina eta Jesus Haurra; artzainak eta ardiak, zaldiak eta astoak... baita hiru erregeak ere, errege egunez jartzen genituenak... Joan Mari Irigoien

Kolegioko artista ofiziala bihurtu zen Eguberriak iritsi eta bere eskuz egindako zurezko tailak ekarri zituenean: **Jaiotzarako** estalpe oso bat bere Haur, Guraso eta abereekin. Bernardo Atxaga

**6** ***jaiotzatik***

Bidez zihoala, **jaiotzatik** itsua zen gizon bat ikusi zuen Jesusek. Elizen arteko biblia

Zaldunak seme bakarra zuen, **jaiotzatik** elbarri zena. Askoren artean

Sarreran, **jaiotzatik** herrena zen gizon bat zegoen. Elizen arteko biblia

Gelatxorena arraza kontua da, **jaiotzatik** datorrena, sena, haiek baserritar baserritarrak ziren, eta giro berezia zen haiena, trikitiaren giroa. Pako Aristi

**7** ***jaiotzatiko*** *izlag* jaiotzetikoa.

Gure baitan dauden **jaiotzatiko** ideiak. Askoren artean

Ongiari eta gaizkiari dagokienez, **jaiotzatiko** ideiak izateaz gain, lege naturalek naturan ohartzen diren asmo eta jokabideekiko lotura hertsia zuten. Askoren artean

**Jaiotzatiko** katolikoak ziren Mallonaren emaztea eta alabak ere. Edorta Jimenez

· **Jaiotzatiko** berrogeita bosgarren urtean zegoen. Askoren artean

**8** ***jaiotzaz*** ik **jaiotze 4; sortze 7.**

**Jaiotzaz** itsua zen noble baten semea. Askoren artean

**Jaiotzaz** apalak ziren pertsonak. Iñaki Iñurrieta

Lebitarra zen eta **jaiotzaz** ziprearra. Elizen arteko biblia

**Jaiotzaz** aitoren seme ziren pertsiar mutil guztiak [...] enperadorearen gortean hezten ziren. Iñaki Mendiguren

Gu judu gara **jaiotzaz**. Elizen arteko biblia

**Jaiotzaz** noblea eta graziaz nobleagoa; gorputzez birjina eta gogoz guztiz garbia. Askoren artean

**9** ***jaiotzazko*** *izlag* ik **jaiotze 5.**

Eguzkiaren argirik inoiz ikusi ez duten **jaiotzazko** itsuek gorputzak ukimenez ezagutzen badituzte, [...]. Xabier Amuriza

Konfuziar filosofoak **jaiotzazko** aristokrazia militar zahar eta estuarekin zuten itunetik aldenarazi zituen. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gure jaunaren jaiotza** (3); **haurraren jaiotza** (5); **isaaken jaiotza** (3); **jainkozko jaiotza** (3); **jaiotza agiria** (7); **jaiotza agiriak** (3); **jaiotza data** (7); **jaiotza eguna** (4); **jaiotza egunean** (10); **jaiotza eman** (3); **jaiotza eta heriotza** (5); **jaiotza jainkozkoa** (5); **jaiotza kopurua** (3); **jaiotza ospatu** (3); **jaiotza ospatzen** (3); **jaiotza tasa** (11); **jaiotza tasak** (3); **jaunaren jaiotza** (11); **jaunaren jaiotza egunean** (6); **jesusen jaiotza** (5); **joan bataiatzailearen jaiotza** (3); **venusen jaiotza** (5)

**arriagaren jaiotzaren** (3); **artistaren jaiotzaren** (5); **daliren jaiotzaren** (3); **frantzisko xabierkoaren jaiotzaren** (5); **idazlearen jaiotzaren** (3); **jaiotzaren berri** (3); **jaiotzaren bigarren mendeurrena** (3); **jaiotzaren lehen mendeurrena** (5); **jaiotzaren mendeurrena** (18); **jaiotzaren mendeurrenaren** (5); **jaiotzaren mendeurrenean** (6); **lehendakariaren jaiotzaren** (4); **lehendakariaren jaiotzaren mendeurrena** (3); **mozarten jaiotzaren** (4); **santuaren jaiotzaren** (3)

**jaiotzatik heriotzara** (3)

**jaiotzaz libre** (3); **jaiotzaz noblea** (4)

## **jaiotzadun** *izond* jaiotza duena.

Izan ere, bere parteak eta atalak gorputz **jaiotzadun** eta figura hilkordunak direla dakusgun mundua bera ere hilkorra eta **jaiotzaduna** dela argi dago. Xabier Amuriza

Munduaren sor-denboraren eta itsas-lehorren lehen egunaren eta eguzkiaren **jaiotzaren** ondoren. Xabier Amuriza

---

## **jaiotze** **1** jaiotza.

Bizia **jaiotze** bat, garatze bat eta amaitze bat izaten da askotan: egunsentia jaiotzearekin lotu dut, egunseti horretan gizakia jaio egiten da. Berria - Kultura

Oscar Wilderen **jaiotzearen** 150. urtemugaren harira. Berria - Kultura

Bere **jaiotzeko** mendemugan 1886-1986. Koldo Izagirre

Gauzak zuengan **jaiotze** honek ahalmen guztiak, barrukoak eta kanpokoak, kutsatzen ditu. Joan Mari Lekuona

Jainkoaren handitasuna eta **jaiotze** amultsua. Joan Mari Lekuona

Ostiralean jaiotakoak ere lanak omen ditu: Ostiraleko **jaiotzea,** suerte txarrekoa! Pello Zabala

Eta iraungitzearen mundu osoan, **jaiotzearen** kausak eta suntsitzearenak berberak dira. Xabier Kintana

Hainbertze inarrosi, non doi-doietarik ez bainuen **jaiotzea** hileta bilakatu. Aingeru Epaltza

**Jaiotzeak** eman zizkidan eskubide guztiak ostu zizkidaten. Matías Múgica

Haurrak [Indian] **jaiotzetik** ohitzen dira sugeekin bizitzen. Gotzon Garate

**Jaiotzetik** heriotzaraino. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hormonek festan jarraitzen zuten, baina **jaiotze**-festaren ordez hileta-festa behar zuen izan. Arantxa Iturbe

Bere **jaiotze** izenari aberriarena erantsi zion. Inork ez zekien Benicio zenbat urterekin hil zen, hark ere ez zuelako **jaiotze** agiririk. Patxi Ezkiaga

Euren **jaiotze**-unea. Xabier Arregi

**Jaiotze** data eta tokia: 1891ko urtarrilaren 7an, Rosenheim-en (Bavaria). Alberto Ladron Arana

Hemen dago **jaiotze**-lekua. Joan Mari Lekuona

*ik* jaioleku.

Argazkia, izena, **jaiotze**-lekua; hitz batek estaltzen zuen orri guztia gorriz. Juan Kruz Igerabide

Hara iritsiko da Peter Pan, bere **jaiotze egunean** etxetik ihes egin zuen mutikoa gurasoek heldua izango zenerako planak egiten zituztela entzun ondoren. *ik* jaiotegun. Berria - Kultura

Joan Frantzisko Petriarenaren, Xenpelarren, **jaiotze urtea**. *ik* jaioturte. Berria - Kultura

Bere jaioteguna eta **jaiotze** ordua. Pello Lizarralde

Hori da Kanten irudizko **'jaiotze** lurra', gizakia bera. Jenaro Garate

Erregina Katalinaren senarrak gure aitatxiri egin **jaiotze**-opari berak egin zizkidan niri erregina Joanarenak. Aingeru Epaltza

**Jaiotze** tasa txikiagoa eta independentzia ekonomikoa handiagoa den herrialdeetan. Luis Elberdin

Gerra garaietan-eta, **jaiotze** kopurua ikaragarri ugaritzen da. Fernando Morillo

**3** ***jaiotzetiko*** ik **jaiotza 7.**

**Jaiotzetiko** gorren kasuan. Xabier Olarra

**Jaiotzetiko** hiztun batentzat. Itziar Laka

Ez diote adimenari **jaiotzetiko** egokitasunik ere onartu. Xabier Kintana

Haren emaitza, izan, ongia bere izaeraren eskuzabaltasunagatik eta **jaiotzetiko** ontasunagatik egiten duen gizon ongile eta errukiorraren antzekoa da. Xabier Kintana

Berezko edo **jaiotzetiko** beharrak -naturari edo organismoari dagozkionak- eta hartutako beharrak. Iñaki Heras

Kasino-ekonomiaren sortzetiko eritasuna ez ezik, *homo economicus*aren **jaiotzetiko** eritasuna da espekulazioarena. Iñaki Heras

Blasek ezin baitzuen sinetsi serbiar guztien **jaiotzetiko** gaiztakerian. Berria - Kultura

Kutsadurarekin lotzen diren tumoreak (sarkoma, linfoma, **jaiotzetiko** anomaliak) %30 gehiago ziren Tarragonan Gipuzkoan baino. Berria - Euskal Herria

**4** ***jaiotzez*** jaiotzaz.

Xabier, izan ere, mutu zen **jaiotzez**. Josetxo Azkona

Kontu erdi-inkontzientea da, nik uste, **jaiotzez** programatua dago haien burmuinetan. Karlos Zabala

Kirol guztietan trebea zela, **jaiotzez** herrena izanda ere. Matías Múgica

Prusiar jasanezin bat, nazia **jaiotzez,** alemaniar guztiak bezala. Karlos Zabala

**5** ***jaiotzezko*** *izlag* jaiotzazkoa.

Kimikari lanbideak [...] inolaz ere ezinbesteko eta **jaiotzezko** ez diren zenbait higuin gainditzen irakasten digu. Juan Garzia

Ahalmenak, trebetasunak, garapen edo inboluzio mailak, inguruneari erantzuteko erak, izaera-motak, eskuratutakoak, **jaiotzezkoak** edo herentziazkoak. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jaiotze agiria** (5); **jaiotze agirian** (3); **jaiotze data** (12); **jaiotze lekua** (3); **jaiotze tasa** (8); **jaiotze tasak** (4)

---

## **jaisgailu** *iz* jaisteko gailua.

Hurrengo hitzordura arte indarrak pilatzeko balioko dien musu labur baina indartsua etenik sartuko da gizonezkoa igogailuan **(jaisgailu** izango da ordu horietan) eta geratuko zaio emakumea begira. Joxean Agirre

---

## jaistarazi ik **jaitsarazi.**

---

## **jaiste** **1** *iz* toki batekik, beherago dagoen beste batera joatea.

Kalbariotik **jaiste** horren ondoren. Josu Zabaleta

Uhin horiek presio igotze eta **jaiste** erregularrak direla. Lourdes Oñederra

**2** (hitz elkartuetan)

Musika-**jaiste** ilegalaren aurka zigor mailakatua hautatu dute Frantzian. Berria - Kultura

Behakoaren altxatze-**jaiste** hotz bat izan zen haren errepuesta. Joan Mari Irigoien

---

## jaitegun ik **jaiotegun.**

**jaitsaldi** *(orobat* ***jaitsialdi****; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***jaitsaldi*** *agertzen da)* *iz* jaistea; jaisten den aldietako bakoitza.

Hodeipera egiten zuten **jaitsaldi** bakoitzean ikuspegi desberdina izaten zuten. Iñaki Mendiguren

Orain, **jaitsaldiaren** akabailan, bezperako liluraren oroitzapenak ahantzarazi dio, une batez, belaunetako mina. Aingeru Epaltza

Azkeneko **jaitsaldiari** ekin aitzin. Aingeru Epaltza

Gehienek *Grand Canyon*eko **jaitsialdia** egin dutela adierazten duen elastikoa erostera: *I hiked the Canyon*. Bere lagunaren gogo-**jaitsaldiaz** jabetzean, azalpen bat zor ziola pentsatu bide zuen. Patxi Zubizarreta

Gutxiago dagokio mundu mailako *optimum* baten bilaketari, industriako mozkin-tasak jaistea eragozteari baino; izan ere, Ricardoren banaketa-legeen analisiaren arabera, **jaitsialdi** hori ezin saiheztuzkoa litzateke. Koro Navarro

**Jaitsialdi** eta depresio garaietan. Joxemari Iturralde

---

**jaitsarazi**, jaitsaraz, jaitsiarazten *(orobat* ***jeutsarazi*** *g.er.)* du *ad*

07:45 aldera **jaitsiarazi** zituen gaztetxeko teilatuan lotuta zeuden azken lagunak. Berria - Euskal Herria

Orduan, emakumeak soka bat hartuta leihotik **jaitsiarazi** zituen. Jose Antonio Mujika

**Jaitsiarazi** zituzten bagoietatik; zain zeuden zaindariak. Felipe Juaristi

Besteak beste, herrialdeek zergak **jaitsiaraztea** sustatzen dute ETNek. Iñaki Heras

Beragana doazenean, prakak **jaitsiarazi** eta atzetik ematen die aldi labur batez. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrek aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena asko **jaitsiarazi** zuen. Berria - Ekonomia

Euroa **jaitsiarazteko** tresna litzateke interesen beherakada. Berria - Ekonomia

Marc Berasategui, Thierry Itoiz, Christophe Dardy, Sebastien Mendiboure eta Filipe Mugica **jeutsarazi** ditu Federazioneak amaturretarat gehiagokorik gabe. Herria

---

**jaitsi**, jaits, jaisten *(orobat* ***jaitxi*** *g.er.,* ***jatsi*** *g.er.,* ***jeutsi*** *g.er. eta* ***jatxi*** *g.er.)* **1** da *ad* toki edo maila batekik, beherago dagoen beste batera joan. (norbait)

Zertxobait txukundu eta **jaitsi** egin nintzen. Josu Zabaleta

Gelan giltzatu eta ez nintzen bazkaltzera **jaitsi**. Anjel Lertxundi

Aita, Van Daan eta Peter amen batean **jaitsi** ziren. Josu Zabaleta

Norbait **jaitsi** eta atea kolpe batez ixten du. Koro Navarro

Gero mirabeari **jaisteko** agindu zion. Patxi Zubizarreta

· Graduz **jaitsitako** soldadu minduen kontura egiten omen dira trufa garratzenak. Anjel Lertxundi

Hurbil zegoen Andresek **jaitsi** behar zuen geltokia. Josu Zabaleta

**2** (norbait nonbaitik)

**Jaitsi** zen Moises menditik herriagana. Jose Antonio Mujika

Dorretik **jaitsi** zen haren bila. Juan Kruz Igerabide

Hegazkinetik **jaitsi** eta aduanan banatu ginenean, orduantxe jabetu ni zeren inguruan ibilia nintzen lehenago gogoetan. Joxe Austin Arrieta

Gidariak trolebusetik **jaisten** lagun ziezaion bere kale-kantoira iritsitakoan. Ez zituzten berlinatik **jaistera** behartu, ez zizkieten ekipajeak miatu. Mirentxu Larrañaga

Taxitik **jaitsirik,** tximistaren pare abiatu ziren apartamentura. Patxi Zubizarreta

Eta, eskua luzaturik, zalditik **jaisten** lagundu dio Leonoreri. Anjel Lertxundi

*ik beherago* 12. Askoren artean

Porteñoa trebea da zalditik **jaisten**. Juan Garzia

Behera heldu nintzelarik, bizikletatik **jaitsi,** eta hormigoizko horma batzuen artetik sartu nintzen. Juan Kruz Igerabide

Mototik **jaitsi** berritan hankek txinaurritegiak dirudite. Pako Aristi

**3** (norbait norabait)

Gero bulegora **jaitsi** nintzen. Josu Zabaleta

Hondartzara **jaitsi** nahi genuen, Dan, Sidney, George eta neu. Koro Navarro

Ur-putzura **jaitsi,** pegarra bete eta igo egin zen. Elizen arteko biblia

Baina ikusirik metrorat **jaisteko** eskalerak bazirela han berean [...]. Janbattitt Dirassar

Behera **jaisten** lagundu dit, eta eskolako patioa zeharkatzen. Mirentxu Larrañaga

Lurrera **jaisteko** desioa. Joxe Austin Arrieta

Gauero **jaisten** zen Betuliako sakanera eta bainua hartzen zuen kanpamentu ondoko iturrian. Jose Antonio Mujika

-Seme: nola **jaitsi** haiz ilunpe lainotsura, bizirik egonik? Juan Kruz Igerabide

Bizirik **jaitsi** zarete Hadesera; bi bider hilko zarete, bada. Juan Kruz Igerabide

Badakigu bidetik ezin garela autoz **jaitsi** Aizpurura, baina oinez agian bai. Aitor Arana

Joanesek, egiazko mundura **jaitsirik,** bi gizonei begiratu zien. Felipe Juaristi

Handik Azpeitira **jetsiko** dira txirrindulariak, Mandubia igo eta Salbatoretik barrena Ordiziara itzultzeko. Berria - Kirola

· Haren titiburuetara **jaitsi** nintzen eta bat hartu nuen nire hortz artean. Juan Martin Elexpuru

**4** (zerbait)

Hegazkina **jaisten** hasi da. Anjel Lertxundi

Igogailua **jaisten** zen bitartean. Joxean Agirre

Izen bereko ibaiak zeharkatzen du Saian mendietatik **jaitsi** eta Jeniseira isuri baino lehen. Karlos Zabala

Iruain aurreko errekatxoa muzinago **jaisten** zela ematen zuen. Bernardo Atxaga

Ur-lasterrak borborka **jaisten** ziren ibarretara. Koro Navarro

Haizea bidali zuen lur gainera eta urak **jaisten** hasi ziren. Jose Antonio Mujika

Horrela jakin zuen Noek urak **jaitsiak** zirela lur gainean. Jose Antonio Mujika

Urek **jaitsi** eta **jaitsi** jarraitu zuten hamargarren hila arte. Jose Antonio Mujika

Zitadelatik bide bat **jaisten** da maldan behera. Koro Navarro

Nire auzotik **jaisten** zen aldaparen oinean. Juan Kruz Igerabide

Leun-leun **jaisten** da bizidunen gainera. Pako Aristi

· Tenperatura behar den mailatik gradu bat edo bi **jaisten** denean. Irene Aldasoro

Gasteizkoa, berriz, makurragoa da oraindik ere: 1965ean, -10.2 gradura **jaitsi** baitzen. Pello Zabala

Biztanleriaren gehitzea zela-eta, **jaisten** ari ziren kapitalaren mozkinak. Koro Navarro

Prezioak **jaisten** badira. Koro Navarro

Langabezia tasa %4ra **jaitsi** zen. Luis Elberdin

Haien konkurrentzia-ahalmena ikaragarri **jaitsiko** zelako. Koro Navarro

Hemezortzi hilabeteko epean, industria-ekoizpenaren indizea bi heren **jaitsi** zen. Koro Navarro

Mendebaldeko Europako gai manufakturatuen eskualdez kanpoko esportazioak %19tik %15era **jaitsi** ziren 1979 eta 1998 artean. *Vie privée, vie publique*: Mireille Dumas **jeutsi** da edo igan da -bakoitzak hauta beza- "prime time" famatura. Koro Navarro

**5** (norbaiti zerbait)

Malko bat **jaitsi** zitzaion masailean behera. Juan Kruz Igerabide

Zakila deblauki **jaitsi** zaio. Pako Aristi

· **6** du *ad* toki edo maila batetik, beherago dagoen beste batera eraman.

Hamabiak eta erdietan, kaleko ateari sarraila eman, eta kaxak **jaitsi** genituen. Josu Zabaleta

**Jaitsi** armak, lagun artean gaude-eta. Felipe Juaristi

**Jaitsi** kuleroak! -esan zuen Antoniok presati. Juan Martin Elexpuru

Kakoak jaso eta **jaitsi** zituen. Koro Navarro

Gerra aipatzen nion bakoitzean, burua **jaisten** zuen. Anjel Lertxundi

Begiak **jaitsi,** eta belaunetan iltzatu nituen berriro. Juan Kruz Igerabide

Batzuetan, esaldi baten erdian, betazalak **jaisten** zituen geldiro, eta bizitzak alde egiten zuen haren aurpegitik. Monika Etxebarria

Amak etxeko persianak **jetxi** ta ixilik egoteko esaten zigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste gurditzar batzuetatik, txahal osoak **jaisten** zituzten oihalez bildurik. Karlos Zabala

Eta orduan, zuhaitz baten azpian, prakak **jaisten** genituen, denok batera. Patxi Zubizarreta

Urkatu dezakezue, nahi baduzue, ez naiz ni joango sokatik **jaistera**. Karlos Zabala

Maleta bagoiko saretotik **jaitsi,** eta trenetik irten nintzen. Anjel Lertxundi

Joxe Marik leihatila **jaitsi** zuen. Juan Kruz Igerabide

Pertsiana **jaitsi** eta errezela itxi zuen Egutxik. Ibon Uribarri

Estorea **jaistera** joan ordez, zigarro bat atera zuen poltsatik. Anjel Lertxundi

Agudo-agudo **jaitsi** zituzten zakuak lurrera. Jose Antonio Mujika

**Jaitsi** du abiada zertxobait. Pako Aristi

Izozte zorrotz batek -18 gradura **jaitsi** zituen tenperaturak. Pello Zabala

· Goian, pertsianak itxiak daude, eta eguzki oihalak **jaitsiak**. Karlos Zabala

Karrikek borroka egunen itxura hartu dute: denda guztiek, Tournebride karrikakoek salbu, **jaitsirik** dituzte burdinazko pertsianak. Monika Etxebarria

**7** ik beherago **10.**

Garajetik autoa atera, eta **aldapa** jaitsi nuen. Juan Kruz Igerabide

Eskailera jauzika **jaitsi** zuelarik, kafe etxearen aurrez aurre egokitu zen. Patxi Zubizarreta

Bizkor-bizkor **jaitsi** nituen eskailerak. Juan Kruz Igerabide

Kalera irteteko eskailerak **jaitsi** bitartean. Patxi Zubizarreta

Zubitik ibai ertzera doazen harmailak **jaitsi** nituen. Anjel Lertxundi

**Muinoa** jaisten hasi berria da, eta orain ez dago ikusmira eragozten dion zuhaitzik. Pello Lizarralde

**8** (era burutua hitz elkartuetan)

Hauser familiak Loëche-ra itzuli behar zuen eguna zen, negua hurbil baitzen, eta **jaitsi**-bidea arriskutsu ari baitzen bihurtzen. Josu Zabaleta

Loëcherako **jaitsi**-bidea hasten den Gemmiko lepora iritsi ahala [...]. Josu Zabaleta

· Beirazko hutsarte handi bat, alegia, non lau igogailu, beirazkoak haiek ere, igo-**jaitsi** baitzebiltzan, koreografia asaldagarrian. Jon Muñoz

**9** (era burutua izenondo gisa)

Idazmahaiko taula **jaitsiaren** aurrean eserita. Karlos Zabala

**10** *–n* ***behera jaitsi*** ik gorago **7.**

Auzoko aldapan behera **jaitsi** nintzen, ia galgari sakatu gabe. Juan Kruz Igerabide

Poltsa atearen ondoan utzi, eta eskaileretan behera **jaitsi** nintzen. Juan Kruz Igerabide

Eskaileretan behera **jaitsi** ziren lasai-lasai. Karlos Zabala

Eskaileran behera **jaitsi** nintzen, pauso bakoitza neurtuz. Juan Kruz Igerabide

Soldaduz beteriko zenbait txalupa bizi-bizi **jaisten** ari ziren Irtish ibaian behera. Karlos Zabala

Begiratuko zien ibaiei eta lehen bezain bizkor ikusiko zituen haranean behera **jaisten**. Bernardo Atxaga

Elkarri eskutik oraturik, ezponda malkartsuan behera **jaitsi** ziren. Karlos Zabala

Haren eskuak sabelean behera **jaitsi** ziren. Juan Martin Elexpuru

Ilea, bi txirikodatan banatua, sorbaldetan behera **jaisten** zitzaion. Koro Navarro

Oso erraz haserretzen dira eta izerdi hotza **jaisten** zaie bizkarrean behera. Karlos Zabala

**11** *–tik* ***behera jaitsi.***

Gaueko zortzietan zurezko eskaileratik **behera jaisteko,** tranpalari heldu beharra zuen. Josu Zabaleta

Dutxatzera zoazenean, atzamarraren luzerako zomorro-samalda **jaisten** zaizu kortina lizunetik behera. Joxe Austin Arrieta

Théoden Rohango Erregea mendietatik **behera jaisten** ari zen. Agustin Otsoa

Dursleytarrek lortu ote zuten izeba Marge sabaitik **behera jaistea**. Iñaki Mendiguren

· Medikua sartzean gaixo hark, disimuluz, katua ohetik **behera jaitsi** eta lurrean utzi ohi zuen. Josu Zabaleta

**12** ***gainetik jaitsi***

Asto gainetik **jaisten** lagundu nion obispoari. Inazio Mujika Iraola

Zaldizkoak lurrera **jaitsi** ziren zaldi gainetik. Karlos Zabala

Ektor jauzi batez jaitsi zen **zaldi gainetik,** anaia besarkatzera. Juan Kruz Igerabide

Abere **gainetik jaitsi** ziren Don Kijote eta Santxo. Patxi Ezkiaga

**13** ***jaitsi ahala*** *(orobat* ***jaits ahala****)* jaitsi bezain laster.

Oholtzatik **jaitsi ahala** nekez entzungo diogu bertsolari bati berak saio ona egin duela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Burdinazko eskailera haiek **jaitsi ahala,** zernahi gerta zitekeela pentsatzen hasi nintzen. Hasier Etxeberria

Eta ekoizpena **jaitsi ahala,** SEPIk erruz txikituko ditu ontziola zibiletako lan taldeak. · Euria **jaits ahala** hasi zen. Ramuntxo Etxeberri

Alta, euria **jeuts**-ahala ari, lehen denboraldian, bainan baloina beti lerrakor izanez hutsak egin dituzte denek. Herria

**14** ***jaitsixe***

Betazalak **jaitsixeak,** begiei halako dirdaia ameslaria zerien. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**arin jaitsi** (8); **arrapaladan jaitsi** (7); **asko jaitsi** (16); **aulkitik jaitsi** (6); **autobusetik jaitsi** (15); **autotik jaitsi** (35); **azkar jaitsi** (7); **batera jaitsi** (23); **batetik jaitsi** (9); **batez jaitsi** (12); **batez jaitsi zen** (7); **batzuk jaitsi** (12); **begiak jaitsi** (25); **begirada jaitsi** (31); **beheko solairura jaitsi** (6); **behera jaitsi** (104); **berehala jaitsi** (12); **berriro jaitsi** (18); **besoak jaitsi** (7); **bigarren mailara jaitsi** (25); **bizikletatik jaitsi** (15); **bolumena jaitsi** (7); **burua jaitsi** (13); **dendara jaitsi** (7); **dolarretara jaitsi** (6); **egiptora jaitsi** (8); **erdira jaitsi** (39); **eskailerak jaitsi** (37); **eskailerak jaitsi zituen** (8); **eskaileretan behera jaitsi** (13); **espiritu santua jaitsi** (6); **gainera jaitsi** (6); **gainetik jaitsi** (28); **gehiago jaitsi** (12); **gelara jaitsi** (11); **geltokian jaitsi** (11); **gosaltzera jaitsi** (10); **gutxi jaitsi** (7); **hegazkinetik jaitsi** (8); **herrira jaitsi** (12); **hondartzara jaitsi** (6); **igo eta jaitsi** (13); **jaitsi aurretik** (10); **jaitsi baino lehen** (6); **jaitsi beharra** (17); **jaitsi bezain laster** (7); **jaitsi dute eskaria** (11); **jaitsi eta gero** (7); **jaitsi ezinik** (8); **jaitsi nituen eskailerak** (7); **jaitsi ondoren** (26); **jaitsi orduko** (9); **jaitsi ostean** (11); **jaitsi zituen eskailerak** (7); **jauzi batez jaitsi** (8); **kalera jaitsi** (19); **kamioitik jaitsi** (6); **kontsumoa jaitsi** (6); **kopurua jaitsi** (18); **kuleroak jaitsi** (6); **lasterka jaitsi** (12); **lehorrera jaitsi** (7); **lurrera jaitsi** (21); **maila jaitsi** (20); **mailara jaitsi** (33); **menditik jaitsi** (23); **nabarmen jaitsi** (22); **oinez jaitsi** (11); **patiora jaitsi** (14); **pertsiana jaitsi** (6); **pixka bat jaitsi** (8); **postura jaitsi** (8); **presaka jaitsi** (8); **prezioa jaitsi** (13); **prezioak jaitsi** (7); **putzura jaitsi** (6); **solairura jaitsi** (7); **sotora jaitsi** (7); **sukaldera jaitsi** (8); **tabernara jaitsi** (6); **tasa jaitsi** (6); **tasak jaitsi** (6); **tentsioa jaitsi** (7); **trenetik jaitsi** (20); **urtera jaitsi** (14); **zaldi gainetik jaitsi** (10); **zalditik jaitsi** (37); **zerutik jaitsi** (12)

**behera jaitsiko** (7); **erdira jaitsiko** (10); **mailara jaitsiko** (6); **noiz jaitsiko** (6)

**behera jaistea** (9); **bigarren mailara jaistea** (6); **erdira jaistea** (9); **ez jaistea** (7); **jaistea da** (7); **jaistea erabaki** (20); **jaistea erabaki zuen** (10); **jaistea espero** (7); **jaistea eta** (8); **jaistea lortu** (19); **jaistea nahi** (6); **jaistea proposatu** (8)

**behera jaisteko** (11); **bermea jaisteko** (7); **bigarren mailara jaisteko** (6); **interes tasak jaisteko** (9); **jaisteko agindu** (14); **jaisteko arriskua** (7); **jaisteko asmoa** (6); **jaisteko aukera** (10); **jaisteko eskatu** (12); **jaisteko eskatzen** (7); **jaisteko prest** (10); **mailara jaisteko** (9); **tasak jaisteko** (13)

**aldera jaisten** (8); **batera jaisten** (6); **behera jaisten** (47); **eskailerak jaisten** (20); **gainetik jaisten** (6); **jaisten ari** (93); **jaisten hasi** (55); **jaisten hasten** (7); **jaisten ikusi** (11); **jaisten lagundu** (14); **jaisten laguntzeko** (11); **jaisten utzi** (6); **nabarmen jaisten** (8); **trenetik jaisten** (8); **zerutik jaisten** (11)

---

# jaitsiera 1 *iz* jaistea.

Batzuk besteen kontra estutzen ziren, tenperaturaren **jaitsiera** hobeki eramateko. Karlos Zabala

Jaitsi nintzela esan nahi dut, jaio nintzela beraz, jaiotza **jaitsiera** baita. Felipe Juaristi

1990eko hamarraldiaren hasierako eskualde barneko trukeen **jaitsierak**. Koro Navarro

Interes-tasen **jaitsieraren** arabera. Koro Navarro

Dolarraren **jaitsiera** nola kudeatu. Koro Navarro

**Jaitsieran** haiekin gurutzatu zirenek aukera izan zuten bota urdin bikainak miresteko elbarritu zaharraren oinetan. Jon Muñoz

· Infernuetara **jaitsiera**. Juan Kruz Igerabide

## 2 (hitz elkartuetan)

Hemen erradiazio kontua da: alegia, airearen **jaitsiera**-igoera bertikala, nahiz eta hedadura txikikoa izan. Pello Zabala

Behin-behineko sailkapenean **jaitsi[e]ra** postuetatik atera da Athletic. Berria - Kirola

· Untxietako batek baino ez zuen izan gluzemia-**jaitsierarik** zaran-belar erauzkinezko tratamenduarekin. Juan Garzia

Tentsio **jaitsiera** ebitatzeko astiro altxatu zen ohetik. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat bateko jaitsiera** (3); **bigarren jaitsiera** (6); **dolarraren jaitsiera** (4); **eragin dute jaitsiera** (3); **eragin zuen jaitsiera** (3); **inauterietako jaitsiera** (7); **interes tasen jaitsiera** (6); **jaitsiera egin** (5); **jaitsiera izan** (10); **jaitsiera nabaria** (3); **jaitsiera nabarmena** (4); **jaitsiera nabarmenak** (3); **jaitsiera postuak** (49); **jaitsiera postuak atzean** (7); **jaitsiera postuak gertu** (5); **jaitsiera postuak saihesteko** (5); **jaitsiera postuekiko** (4); **jaitsiera postuetan** (71); **jaitsiera postuetara** (3); **jaitsiera postuetatik** (77); **jaitsiera postuetatik at** (3); **jaitsiera postuetatik atera** (4); **jaitsiera postuetatik gertu** (5); **jaitsiera postuetatik kanpo** (13); **jaitsiera postuetatik urrundu** (4); **jaitsiera postuetatik urruntzeko** (3); **jaitsiera proban** (4); **jaitsiera saihestea** (5); **jaitsiera saihesteko** (17); **jaitsiera saihesteko borrokan** (5); **jaitsiera saihesteko lehian** (5); **kopako jaitsiera** (4); **lehen jaitsiera** (5); **munduko kopako jaitsiera** (4); **prezio jaitsiera** (5); **prezioen jaitsiera** (3); **reala jaitsiera postuetan** (4); **sellako jaitsiera** (3); **tasaren jaitsiera** (3); **tasen jaitsiera** (6)

**jaitsierako mamua** (3); **jaitsierako munduko** (3); **jaitsierako postuak** (6); **jaitsierako postuetan** (14); **jaitsierako postuetan dago** (5); **jaitsierako postuetatik** (7)

**bigarren jaitsieran** (6); **inauterietako jaitsieran** (3); **jaitsieran parte hartu** (4); **lehen jaitsieran** (7)

**jaitsieraren mamua** (5)

**jaitsierari izkin egitea** (3); **jaitsierari izkin egiteko** (4)

**kontrolatutako jaitsierarik luzeena** (3)

---

# jaizale *izond* jaiaren zalea dena.

Funk taldekideak **jaizale** eta dibertigarriak dira guztiak, beti dantzan, keinuka edo saltoka, ska talde beroa izango balitz bezala. Berria - Kultura

---

# jaja (*orobat* ***jajaja***) *interj* ja.

- **Jaja,** zer? Unai Iturriaga

- **Jajaja..**. lasai gizona... broma bat izan da... broma txar bat... Unai Iturriaga

---

# jaka 1 *iz* gaineko jantzia, mahukaduna eta aurrealdean irekia, aldaketaraino heltzen dena, askotan galtza edo gonarekin bat datorrena. ik **jakablu**.

Bere **jaka** botoi bakarrekoa zen; laukiekiko txalekoa zuen. Lopez de Arana

Roberto, **jaka** erantzi eta alkandorako mahukak goratzen hasi zen. Harkaitz Cano

**Jaka** eta txalekoa eranzten hasten zenean. Koro Navarro

Emakumeak **jaka** eta blusa irekirik bazituen ere. Jon Alonso

**Jaka** zeraman, atorra eta galtza udatiarrekin bat heldu zena. Aingeru Epaltza

Gizon garai, bizkar-zabal, **jaka** grisez jantzitako bat ikusi zuen. Felipe Juaristi

Soin gainetik Massimo Duti **jaka** kendu, eta ate ondoko armairuan eseki nuen. Iban Zaldua

Etxeko jauna **jaka** jantzirik agertu ohi zuen mahaira; higatu samarra zen **jaka** hura, baina garbia, eta behar bezala zeuzkan ukondoak: batere adabakirik ez. Jose Morales

Esku batez **jaka** zabaldu eta besteaz pistolaren kulata ukitu nuen. Edorta Jimenez

Mavrokordatos **-jaka** eta galtza gorriak soinean, betaurrekoak sudur gainean-, Miaulis, Kanaris. Jose Morales

Metroan **jaka** kendu eta *clochard* bati eman diot. Harkaitz Cano

Zazpi gizon, militarrak itxuraz, **jaka** eta galtzak urdin, luma urdindun kapela, eta bibotea ere urdin. Felipe Juaristi

**Jakaren** botoiak lotu. Ramon Saizarbitoria

**Jakaren** mahukaz ezpainetako hautsa kendu zuen. Lopez de Arana

**Jakaren** papar-hegalak goratu eta besoak antxumatu ditu. Pello Lizarralde

**Jakaren** barrengo ezker sakelatik. Matías Mujika

**Jakaren** ezker poltsiko gainean. Joxemari Urteaga

**Jakaren** ukondoa urraturik zeukan. Oskar Arana

Larruzko **jakaren** kremailera goraino igo eta eskuak poltsikoetan gorde ditu. Sonia Gonzalez

**Jakaren** besotik heldu zion korrika zihoan mutilari. Koro Navarro

**Jakak** bizkarrean zituztela. Josu Zabaleta

Urratuak genituen **jakak,** bustiak galtzerdiak eta likatsuak zapatak. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

**Jaka** gurutzatu gris zilarkara bat. Jon Muñoz

Gurasoek ezkontzeko erabilitako trajeak nire armairuan zeuden gordeta, amarenak gona eta **jaka** grisak, aitarenak galtza eta **jaka** gris-ilunak. Juan Kruz Igerabide

Haren **jaka** luze kaki koloreak letoizko botoi distiratsuak zituen. Anjel Lertxundi

Traje zimurtuko **jaka** zimurtutik libreta bat atera eta zerbait idatzi zuen lehen orrialdean. Aingeru Epaltza

Gizonek **jaka** atze-luzeak eta emakumeek soineko isastunak janzteko duten ohituran. Xabier Olarra

Soinean **jaka** lasai bat zeraman, maiztua, behinola nagusi jaunak erabilia noski. Jose Morales

Arraia perfektoko galtza zuriak eta **jaka** harroak zeramatzaten mutilen ondotik pasatu ginen. Koro Navarro

**Jaka** higatuaren lepo jasoaren azpian. Lopez de Arana

**Jaka** harekin eta aitaren atorra, praka eta bota batzuekin SSetako sarjentu baten itxura peto-petoa hartu nuen. Alberto Ladron Arana

**Jaka** koipetsuz jantzitako zamaketariak. Karlos Zabala

**Jaka** eskoziar txiki bat soinean eta belusezko txapela buruan. Karlos Zabala

Italiarren erara moztutako **jaka** koadrodunarengatik. Fernando Rey

Eguerdian **jaka** txanoduna ez hartu izanaz damutzen naiz. Anjel Lertxundi

Sukalde morroien txano, **jaka** eta mantal zuriak janzten zituen berriz ere. Karlos Zabala

Neguko **jaka** lodi bat zeraman gizon edadetu batengana. Ramon Saizarbitoria

Udako **jaka** fin baten azpian. Aingeru Epaltza

Augustako **Jaka** berdea irabazteko. Berria - Kirola

**3** (izenlagunekin)

Galtza bakeroak eta antezko **jaka** bat. Unai Iturriaga

Igandetako harizko **jaka** eta gona tolesduna zeramatzan. Anjel Lertxundi

Panazko **jaka** beixa atera eta ohe gainean utzi zuen. Harkaitz Cano

Nankin-go oihalezko **jaka** belar-berdea eta galtza horiak jantzirik. Jose Morales

Feltrozko kapela, laneko alkandora kaki-kolorea, oihal bakerozko **jaka** eta galtzamantala erabiltzen zituen beti. Koro Navarro

*ik* jakablu.

Luzea zen oso, eta lihozko **jaka** luze bat zeukan jantzirik. Jose Morales

Soineko loreduna eta artilezko **jaka** arrosa zeuzkan soinean. Aitor Arana

Oroitzen naiz belusezko **jaka** purpura bat zeukala jantzita. Oskar Arana

Hiru laurdeneko **jaka** urdin batez jantzia. Unai Iturriaga

Larruzko **jaka** beltzez jantziko gizon batek *Matrix* filmeko Morfeo irudikatzen duen mozorro bat darama. Antton Olano

*ik* jakanarru.

Emakumeentzako **jaka** motzak. Berria - Kultura

Horietako batek soinean zuen, oraindik, balen aurkako **jaka**. Berria - Mundua

**Jaka** beltzeko mutilak beste zigarro bat atera du. Javi Cillero

Astrakan-larruzko **jaka** luzea soinean. Jose Morales

Eite militarreko **jaka** batez jantziriko gizon bibotedun bat. Jose Morales

Mendiko botak, mendiko prakak, mendiko **jaka..**. Sonia Gonzalez

Lepo garai urdineko **jaka** gris batez jantziriko lekaio bat. Jose Morales

Gona motz batek, sasoi arteko **jakak** eta soinari itsatsitako jertse meheak areagotzen zioten gorputzaren lerdentasuna. Migel Angel Mintegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

15-18ko gerran irabazitako zilarrezko domina zeramala **jaka**-paparrean. Koldo Biguri

Eskolatik irtetean, iseka egiten ziotela (amultsuki) **jaka**-iduna ukabilaz astabelarri antza jasorik. Juan Garzia

**Jaka** poltsikotik gutun bat atera eta nire esku gainean utzi zidan. Felipe Juaristi

Agiriak **jaka**-barreneko patrikan zeudela sentitzeak pixka baterako lasaitzen ninduen. Anjel Lertxundi

Atera zuen bere **jaka**-laurden listatu hartako ezker sakelatik botilatxo zapal bat. Matías Múgica

**Jaka**-gona multzo beixa eta damaskoz eginiko gona luzea. Joxan Elosegi

Hermionek eskukada **jaka**-botoi erakutsi baitzion. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frak-**jaka** eta izpiliku-koloreko galtzaz dotore jantzirik. Irene Aldasoro

Aitaren lan-**jaka** zikina. Mirentxu Larrañaga

Bere belus beltzezko jantzi edo marinel-**jaka** zuriaren barruan. Eduardo Matauko

Ehiztari-**jaka** beltzaz eta galtza bakeroz jantzita. Joxemari Iturralde

Baita [...] gatibu-**jaka** ere, xingola eta ikur gorriarekin. Urtzi Urrutikoetxea

Haizete-**jakaren** poltsikoan. Aingeru Epaltza

Nire bidelaguna ere horretantxe ari zen, bere igeri-**jaka** lotzen. Ilehoriak kolore urdin iluneko husar-**jaka** dotore bat zeraman soinean. Joxe Austin Arrieta

Husarrek eta beste soldadu talde batzuek erabili ohi zuten uniforme **jaka**. Josu Zabaleta

Jostuntxoen mahaietan pilatzen ziren guda **jaka** urratuak. Jon Maia

Bere alkondara-**jaka** bustiei begira. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren jaka** (4); **harizko jaka** (3); **igeri jaka** (4); **jaka alemaniarra** (3); **jaka beltz** (5); **jaka beltza** (7); **jaka beltzeko** (13); **jaka beltzeko mutila** (3); **jaka beltzeko mutilak** (8); **jaka beltzez** (3); **jaka berde** (4); **jaka berdea** (6); **jaka dotorea** (3); **jaka erantzi** (20); **jaka eta galtza** (6); **jaka eta galtzak** (3); **jaka eta gona** (3); **jaka gorria** (4); **jaka gris** (4); **jaka grisa** (4); **jaka hartu** (11); **jaka jantzi** (12); **jaka jantzirik** (3); **jaka jantzita** (4); **jaka janzten** (4); **jaka kendu** (5); **jaka labur** (3); **jaka luze** (3); **jaka soinean** (5); **jaka urdin** (6); **jaka urdina** (5); **jaka utzi** (3); **jaka zahar** (5); **jaka zeraman** (5); **jaka zuri** (3); **jaka zuria** (3); **larruzko jaka** (17); **panazko jaka** (9); **soinean jaka** (3); **zapatak eta jaka** (3)

**jakako patrikan** (4); **jakako poltsikoan** (8); **jakako poltsikotik** (3); **jakako sakelan** (6); **jakako sakelan sartu** (3)

**jakaren botoiak** (5); **jakaren botoiak lotu** (4); **jakaren lepoa** (6); **jakaren papar** (3); **jakaren patrikan** (6); **jakaren patrikatik** (3); **jakaren poltsikoan** (7); **jakaren sakelatik** (3); **larruzko jakaren** (3)

**jakaz jantzitako** (3)

**jakablu** *iz* blue-jeanen oihalezko jaka.

**Jakabluaren** lepokoak jasota. Unai Iturriaga

**Jakabluko** poltsikoak arakatu zituen. Unai Iturriaga

Logelan, Nerearen galtzak, **jakablua,** sujetadoreak lurrean zeuden. Unai Iturriaga

Jon ordea, betiko Jon, betiko galtza multikoloreekin, gestoretako kamiseta eta **jakabluaz**. Unai Iturriaga

---

**jakadun** **1** *iz* jaka daraman pertsona.

Aterantz egin nuen, baina han zebilen **jakadun** mutur-zikin batek ezetz egin zidan atzamarrarekin. Koldo Izagirre

Lan egin dudan fabrika guztietan ezagutu izan ditudan **jakadun** guztietan ez nuen eskujabe zenik inor topatu. Koldo Izagirre

**2** *izond* jaka daramana.

Ez zituen irakurtzen unikornioak agertzen ziren liburuak, ez kilker **jakadunak,** arrautza hiztunak, ipotx miresgarriak, edota elefante hegaldariak agertzen zirenak ere. Javi Cillero

---

**jakanarru** *iz* narruzko jaka, jeneralean kremaileraduna, zerrenda elastiko batek gerrikatzen duena.

Dotore etorri zen Ane, beltzez goitik behera, larruzko praka beltzak eta **jakanarru** beltza. Unai Iturriaga

Bezperako arropak jantzi zituen: bakeroak, artilezko jertse beltza, **jakanarrua** eta Marteensak. Unai Iturriaga

Paratxutista ilaje eta **jakanarru** beltz horiekin museoren bateko beira-arasa baten gibelean egon litekek bera ere. Aingeru Epaltza

Gure portuan egundo ikusi gabeko hari sendoz eta koipe lodiz egindako **jakanarrua**. Edorta Jimenez

**Jakanarrua** erantzi nuen, arkabuza hartaz jantzteko. Edorta Jimenez

**Jakanarrua** jantzita mastan gora igotzen ikusi ninduenean. Edorta Jimenez

**Jakanarruko** patrikan, grabagailua. Unai Iturriaga

**Jakanarruaren** kolkoak jaso eta belarriak estaltzen saiatu zen. Unai Iturriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jakanarru beltza** (3); **jakanarrua erantzi** (3); **jakanarruko patrikan** (4)

---

**jakanarrutxo** *iz adkor* jakanarrua.

Menturaz nire **jakanarrutxoa** ere ikuzi beharko ote nuelakoan nengoen ni, eta halaxe egin nion Martini galde, aztoraturik. Edorta Jimenez

---

**jakatxo** *iz* jaka txikia.

**Jakatxoaren** jostura urratu, eta zaborren artean hondoratu zituen mahukak. Juan Garzia

Aita lotsati eta baldar ibiltzen zen asteburuko gonbidatuen artean, **jakatxo** higatua soinean. Ander Irizar

---

**jaki** **1** *iz* bazkari-afarietan plater bakoitzean ateratzen den janaria, eta batez ere horietako nagusia, gehienetan okela edo arraina.

Bazkari edo afari egitura klasikoaren ordez -sarrera + **jakia** (+ gazta) + postrea-, jaki bakar bat hartzen dugu. Edorta Agirre

Berriro su handia piztu eta mahaia **jaki** ugariz prestatu ziola; eta bera jaten ari zen bitartean, aurpegi alaiz zerbitzatu zuela etengabe. Askoren artean

**Jaki** bakar bateko edo gutxi-gutxiko "espezialistak" erruz ugalduko dira (harro askoak: "Munduko tortilla frantsesik ahogozagarriena prestatzen dut nik"). Edorta Agirre

Bakailaoa pil-pil erara **jaki,** eta aurretik indabak. Josu Landa

Katuen zeruan izango da dagoeneko; animaliak maite dituenen batek **jakiren** bat prestatzeko erabiliko zuen. Josu Zabaleta

Eskabetxean prestatutako **jakiak** saltzeko postua. Lopez de Arana

Odolkia lurrera erori zitzaion hartan argi ibili zen Blanca, etxeko zakurra, **jaki** hura ahora eramateko. Xabier Etxabe

Bildutako **jakiekin** otordu galantak antolatzen genituen. Jon Arretxe

Ez nekien zer zen okerragoa: antropofagoen **jaki** gertatzea edo bizirik lurperatua izatea. Patxi Zubizarreta

Garai [...] horixe baita udazkeneko ezkurretan gizendutako etxebereak, zerriak batik bat, etxeratu eta **jakitako** hiltzen eta atontzen direnekoa. Patziku Perurena

Hamar asteme gari-alez, ogiz eta **jakiz** kargaturik. Elizen arteko biblia

**Jakiz** eta edariz oparo hornituak zeuden. Karlos Linazasoro

· Tonik esan zigunez, gaueko **jaki**-edaki-errekiek eraginda. Jon Arretxe

**2** (izenondoekin)

Zerbitzariari zer hartuko duten esan berri diote (nork bere atarikoa, nork bere **jaki** nagusia eta bi botila ardo, beltza eta zuria), eta jan aurreko edariak edaten hasi dira. Oskar Arana

Irakurria nintzen ahardiaren alu betea zela erromatarren **jaki** gogokoena, finena. Joxan Elosegi

Ekarri ehiza eta presta iezadak **jaki** on bat. Jose Antonio Mujika

Giltzazain agurgarriak janaria atera zuen, **jakirik** gozoenez horniturik. Juan Kruz Igerabide

Baina arimaren nahigabeak **jakirik** gozoena ere alferrik gal dezake. Patxi Zubizarreta

Jantokiko mahaiaren inguruan eserita gaude laurok, **jaki** hotz batzuk, fruta eta gazta jaten. Oskar Arana

**Jaki** egosi koipetsuak. Fernando Rey

Txinatarrek erabili ohi dituzten **jaki** minak. Irrikaz irensten dituzte ostrak, karramarroak eta bestelako **jaki** bitxiak. Joxemari Iturralde

**Jaki** gazituak eta bestelako mokadu bizigarriak. Jose Morales

Arroltzea da jakietan **jaki** goxoena. Herria

Maite ditu emazteak, maite ere **jaki** onak, moko fina baita. Herria

**3** *irud*

Zinez **jaki** hauta eskaintzen dauku beti berdin gazte eta suhar emaiten duen Piarres Charritton euskaltzainak, **jaki** hauta eta ez duena ere gatz eta biper eskasik bixtan dena! Herria

Itxaropenaren eztia dastaka, geroaren **jaki** gozo eta guriak amets, Maastricht deitzen den hirira iritsi zen. Felipe Juaristi

Pilotako **jaki** hori ez naski aski kausitua gatz biperretan. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jaki** -hondarrak uztea platerean. Mirentxu Larrañaga

**Jaki** -denda korearrak. **Jaki** -gelatik bi botila Bass besoetan hartuta gora zihoala. Irene Aldasoro

Ez zuen inolako **jaki** -hornidurarik ontziratu, harrapakinen esperantzan. Juan Garzia

Etxe osoan toki egoki bakarra ikusi zuen: **jaki** -gordailua. Bego Montorio

**Jaki** -zerrendak, berriz, halako zintzotasun lau bat erakusten zuen. Irene Aldasoro

Bazkaldu genuena ere ez zen kartako **jaki** -izen puztuek iradokitzen zutenaren galgakoa izan. Anjel Lertxundi

Sukalderako esku aparta du: bi **jaki** -muturrekin denontzako jatordua moldatzeko moduko horietakoa. Arantxa Iturbe

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lehengo barkoxtarraren "ahuntz- **jaki** jate" hartan ez omen baitzen deus eskasik. Herria

Karibu **jaki** xehatuz egin opila hauta atzeman zuten. Aurelia Arkotxa

Axer, oparoa haren ogia, errege- **jakien** hornitzailea. Jose Antonio Mujika

**6** *jaki-ontzi* ik **jakiontzi**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jaki bat** (5); **jaki batzuk** (3); **jaki denda** (4); **jaki gordailua** (3); **jaki gordailuan** (3); **jaki goxo** (3); **jaki goxoa** (4); **jaki goxoak** (3); **jaki gozo** (3); **jaki gozoak** (4); **jaki gozox** (3); **jaki hondarrak** (3); **jaki on bat** (3); **jaki onak** (3); **jaki ugari** (3)

**bestelako jakiak** (3); **jakiak erosi** (4); **jakiak jan** (4)

---

## jakile

**1** *iz* zerbait dakien pertsona.

Eta *'-l-hîm* (= Jainkoa, Jainkoak) bezalakoak izanen zarete, ongiaren eta gaizkiaren **jakile** . Xabier Kintana

Jadanik hilotz zetzanaren gelan sartu zen, herioaren misterioaren **jakile** bakarra bailitzan. Itxaro Borda

Magistratu horrek, jakintsu bezain **jakile,** ez zigun deus ere egiteko utziko bere argi eta oinarriei men eginda askatasun osoz jardun izan balu. Elizen arteko biblia

Mertzenariorik ere bildu nuen neure ostera, bide **jakile** trebeak omen eta desertatzen lehenak izaki. Juan Garzia

Batzuek uste dute pertsiar sekretu- **jakileren** batzuk etorri zirela harekin hitz-aspertu bat egitera. Juan Garzia

**2** *ipar* lekukoa.

Txomin Peillen: Algerian **jakile** . Herria

Arbasoen **jakile** bezala segitzen. Herria

**Jakileen** arabera, [...] ederra izan da besta hori, aberatsa eta hunkigarria. Herria

· Hortan imita ditzagün, gizaldien katea lüza dezagün, **jakilea** (lekukoa) ondokoer eman. Herria

---

## jakilego

*(orobat **jakilegoa**)* *iz ipar* lekukotasuna.

Azkenik **jakilegoa** bat entzünen dügü Basabürüan eüskararen alde orai egiten den lanaz, irakaskuntzan eta beste sailetan. Herria

Azken 50 urteetan herriko bizitza hanitx kanbiatü beita, herritar adinetakoen **jakilegoa** bildü da. Herria

---

## jakiletza

*iz* lekukotasuna.

Bretainian izan den borroka armatuaz **jakiletza** gutxi daude. Berria - Mundua

Iraken presoen aurka izandako torturen **jakiletzak** lau haizetara zabaldu ostean. Berria - Mundua

---

## jakin-min

*(853 agerraldi, 159 liburu eta 155 artikulutan; orobat **jakinmin** 212 agerraldi, 49 liburu eta 20 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jakin-min** agertzen da)* **1** *iz* jakiteko edo zerbait jakiteko gogo bizia.

**-Jakin** -mina besterik ez da. **Jakin** -min eta ikusmin handikoa izaki, munduan zehar abiatu zen jakituria bila. Patxi Zubizarreta

Asko hil dizkizute? -egin zuen espantu Txitxikovek, **jakinmin** handiz. Jose Morales

Harridurari bere baitan bizirik eusten saiatzen da, **jakinmin** berezi bat, bisitatzen dituen tokiek, aurretik ere ziur aski aspertu arte ikusiak dituenak, beti zerbait berria eta jakingarria gordeko balute bezala. Pako Aristi

Eta horrek, noski, areagotu egiten zuen jendearen berezko **jakinmina** . Patxi Zubizarreta

Liburuak egundoko **jakinmina** sortu zuen Europan. Juan Martin Elexpuru

Polemika eta ika-mikarik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako **jakinmina** eta interesa -edo morboa, zuzenago esateko-. Juan Luis Zabala

Gazteak berez dakar **jakinmin** ergela, baina ez da kapaz tolerante izateko. Patziku Perurena

Era horretan ase dut neure **jakinmin** gaitzesgarria, baina zorionekoa. Jon Muñoz

**Jakin** -mina hasieran, min soila gero. Felipe Juaristi

Bat-bateko **jakin** -minak jota. Aingeru Epaltza

Aitaren hitzek Joanttoren baitan hainbeste aldiz ito **jakin** -mina eta susmatzen zuen sekretu haren jakiteko behar gorria areagotu zituzten. Elena Touyarou

Denak ere elkarri ia bultzaka erliebe bati begira, istripu baten lekukoak bailiran, eta niri ere **jakin** -mina piztu. Joxe Austin Arrieta

Bere **jakin** -min zientifikoa hainbesteraino bortiztu zitzaion non [...]. Josu Zabaleta

**2** ***jakin-minez***

**Jakin** -minez beterik, ministroa Nur Al-Dinengana joan zen eta honek azken gertakarien berri eman zion. Patxi Zubizarreta

Neskatoak **jakin** -minez betetako irribarre batez begiratzen zigun. Jon Muñoz

Bere aspaldiko festa laguna aztertu zuen, **jakin** minez. Elena Touyarou

-Non ikasi zenuen biolina jotzen? -galdegin zion da Ruak, **jakin** -minez-. Felipe Juaristi

**Jakinminez** galdetu zuen nolakoa zen lurraldeko egoera. Jose Morales

Baina begiratu, begiratzen dizute, harrituta edo **jakinminez,** agian. Harkaitz Cano

**3** ***jakin-mintsu*** *izond*

Igogailua bazterturik, eskaileretan goiti abiatu nintzen haren arrastiri on **jakin** -mintsuari ihardetsi gabe. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jakin min handia** (25); **jakin min handikoa** (3); **jakin min handirik** (3); **jakin min handiz** (6); **jakin min hutsez** (6)

**jakinmin handia** (12); **jakinmin handiz** (3)

**jakin mina agertu** (3); **jakin mina areagotu** (5); **jakin mina ase** (8); **jakin mina asetzeko** (3); **jakin mina asetzen** (3); **jakin mina eragin** (3); **jakin mina izan** (5); **jakin mina pizteko** (3); **jakin mina pizten** (7); **jakin mina piztu** (32); **jakin mina piztuko** (3); **jakin mina sortu** (9); **jakin mina sortzen** (11)

**jakinmina piztu** (4); **jakinmina sentitu** (3)

**jakin minak bultzatuta** (6); **jakin minak jota** (9)
**jakin minaren harrak** (3)
**jakinminaren jakinminez** (6)
**jakin minez begira** (4); **jakin minez begiratu** (10); **jakin minez begiratzen** (5); **jakin minez behatzen** (3); **jakin minez beterik** (9); **jakin minez betetako** (3); **jakin minez bezala** (5); **jakin minez dago** (3); **jakin minez zegoen** (4)
**jakinminez beterik** (3)

---

# jakin-mindu, jakin-min(du), jakinmintzen *(orobat* ***jakinmindu****)* da/du *ad*

Hoel bere ontzian bezain **jakin-mindurik** neu, egun batean Baionara jo eta falta nituen hiru liburukiak erosi nituen. Pablo Sastre
Cerratok, ordea, **jakinmindurik** nindukan. Juan Garzia

---

# jakin-minoxo *(corpusean* ***jakinminoxo*** *soilik)* *izond adkor* jakinguratsua.

"Bere burua bota ote du?", galdegiten du maiz jende **jakinminoxoak** zenbait heriotza dudazkoren egiletza argitu nahiz. Iñaki Segurola
Kazetari **jakinminoxo** batek. Iñaki Segurola

---

# jakin-nahi *(orobat* ***jakin nahi*** *eta* ***jakinahi****)* **1** *iz* ik **jakin**[1] **7**.

Izan ere, jakin- **nahi** hau ezingo litzateke aztikerien bitartez baino gogobete, eta nik ez dakit ezer honetaz. Ibon Uribarri
Nire patu beldurgarrira hurbildu ahala, **jakin-nahi** hori hazi egiten zela ematen zuen. Koro Navarro
Aitak salbatu ninduen amaren **jakin nahi** hartarik. Lehen planoan ageri den liskarraren atzetik, elkarrekiko **jakin-nahi** bera eta gaizki-ulertu berberak daude. Joxan Elosegi
Zu zerk mugiarazten zaitu: zalantzak, **jakin nahiak,** erakutsi nahiak...? Ana Urkiza
Lehen bisitako **jakin-nahi** eta lotsa hura baretu ziren arren. Ibon Uribarri
Ezinegona eta **jakin-nahia** nagusituko dira ikuskizunean. Berria - Kultura
Ezjakintasuna eta **jakin nahia** omen da informazio iturri gaiztoena. Berria - Harian
Nire **jakin-nahia** eta deserosotasuna areagotzen zituena, halere, besteak ere zain egotea zen. Monika Etxebarria
Gorteko geografo ofizialari **jakin-nahia** piztu zitzaion Pierre-Olivierrek kontatua aditzean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Erraz aski aseko dut ba berorren **jakin-nahia** . Patxi Ezkiaga
Asko ziren **jakin nahiak** kitzikatuta hurbiltzen zitzaizkidanak. Hasier Etxeberria
Beharrak eta **jakin-nahiak** akuilaturik. Jose Morales
Eta ezin jabetu da **jakin-nahiak** nagitu dituen bideaz bestaldeko langileen keinuez. Pello Lizarralde
Galdekizun haiei ihardespena ez da, noski, dogmatiko gogoberoaren **jakin-nahiak** nahiko lukeen modukoa gertatu. Ibon Uribarri
Ikerpen eta behatze filosofikoek soilik janaritzat balio diote gure **jakinahiari..** . Patziku Perurena
Barrez hasi dira, eta inguruan duten jendeak harriturik begiratu die, **jakin nahiaren** atarian. Pako Aristi
Gogoan baitut nola geratu nintzen behin lotan Jacqueren etxean eta nola ezin nion haren gorputza ezagutzeko **jakin-nahiari** eutsi. Josu Zabaleta
Txintik ere ez zuen esan, **jakin-nahizko** begirada bat egin soilik. Migel Angel Mintegi
Ez dut zureganako inolako **jakin-nahirik** sentitu. Joxan Elosegi

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Istorioak berez ez du suspentserik edo **jakin-nahi** handirik sortzen, kontakizuna amaieratik hasten baita. Berria - Kultura
Baina poliziaren **jakin-nahi** setatsuak aspertu egin zuen gizona. Pako Aristi
**Jakin-nahi** lauso batek erakarri ninduen harengana. Josu Zabaleta
Bereizi egiten zituen zintzoak, benetako adiskidetasuna agertzen zutenak, eta gaiztoak, **jakin-nahi** hutsak bultzatzen zituenak. Joseba Urteaga
Aipatu dut lehenago ere nire hasierako izu-laborrien lekua hartu zuen **jakin-nahi** naturaren kontrakoa. Koro Navarro
"Zergatik hil ondoren ez dago ezer?", galderak zulatu zion alderik alde bihotza, bota zion gainera mendeetako nekea, betiereko **jakin-nahia** . Felipe Juaristi

## • 3 *izond*

Denak ni baino zaharragoak ziren, eta **jakin nahiak** . Eta hori guretzat mixteriozko mundu bat zen, **jakin nahia** eta jakin ezina, gure belarrietara iristen ez zen ixilpeko mundu bat. Aingeru Epaltza

---

# jakin[1], jakiten **1** du *ad* zerbaiten berri eskuratu edo izan.

Nola **jakin** zuen Tomen helbidea? Oskar Arana
Elias Elortzaren deitura **jakin** zutenean, bazela berekin ere Elortza izeneko bat esan zioten. Ramon Saizarbitoria
Nola **dakizu** ni ez naizela kriminala? Lopez de Arana
Gauza asko **jakin** nahiko dituzu. Jon Muñoz
Ongi **zekiten** hori etxe hartako emakumeek, eta haurrek ere bai. Anton Garikano
-Ofizio asko **dakizkizu..** . Joan Mari Irigoien
E, e, **jakin** duzue berria?, entzun genuen. Anjel Lertxundi
*ik beherago* 15. Askoren artean
Berri kezkagarriak **jakin** ditut. Elena Touyarou
Harengandik **jakin** nuen. Elena Touyarou
Ezaguera zuenak **jakin** zezan ongia gaizkitik bereizten. Felipe Juaristi
Aztiak **jakin** zuenez, egun haietan Aladin ehizaldi batean zegoen, eta bost egunen buruan zen itzultzekoa. Patxi Zubizarreta
Stalingradon **jakin** zuen *gerra* hitzak zer esan nahi zuen. Felipe Juaristi
Hasieran ez nuen **jakin** zer egin. Jon Muñoz
Migelek, nik ez bezala, txiki-txikitatik **jakin** zuen zein zen bere etorkia eta zein bere etorkizuna. Aingeru Epaltza
Tomek Harryri buruz **jakin** uste zuen ia guztia gezurra zen. Oskar Arana
Eta narratzaileak diosku: "ez dut inoiz **jakin** itoa anaia zen ala ni". Juan Garzia
Ezin nuen **jakin** ziur, baina susmoa nuen bazuela zerikusia denborarekin. Oskar Arana
Judua nintzela **jakin** nuenetik, ordea, ezinezkoa zitzaidan ongiaren eta gaizkiaren arteko marra argi bakar bat trazatzea. Anjel Lertxundi
**Jakin** izan banu, ez nizun ezer esango. Anjel Lertxundi
Ezin dugu, bada, deus ere **jakin** munduan gehien interesatzen zaigunaz: zer gertatuko den bihar. Juan Garzia

Estatistikari zegokionez, Hannak ez zuen hartaz deus ere **jakin** nahi, patuan sinesten baitzuen. Joxe Austin Arrieta

Noiz **jakin** duzue? -galdegin zion. Elena Touyarou

Sinkroniaren aitzakian, lan diakronikoetatik **jakina** zenari ez zaio ahal adina etekinik atera. Lourdes Oñederra

Ideia argi bat, esan baino lehen esana eta **jakina** dagoena, bere buruaren oihartzun antzua. Iñaki Segurola

**Jakina zegoan** gauzak hola bukatuko zirela! Bernardo Atxaga

Susmoaren eta seguru **jakitearen** arteko zerbait zen. Matías Múgica

*ik* jakite 5.

**2** (esaldi konpletibo batez)

Alessandroren desenkusa hitzak entzun orduko, **jakin** zuen emakumeak, eskarmentu handiko izaki, zerbait ezkutatzen ziola maitaleak. Felipe Juaristi

Gisa hartan **jakin** ahal izan zuen Maguntziako hiriburuan zegoela. Patxi Zubizarreta

Halako gizonak badirela **jakin** izan banu. Patxi Zubizarreta

Han egon ez denak ezin dezake **jakin** zer den hori. Felipe Juaristi

Berehala **jakin** zuen haren irabazaldiaren zergatia. Felipe Juaristi

Sumatu zuen -edo **jakin** zuen, nahiz bere buruari ez zion aitortuko- Europako aberririk gehienak ezagutzen zituen arren, ez zuela berak aberririk. Felipe Juaristi

Judua nintzela **jakin** nuen egunaren biharamunean izan zen. Anjel Lertxundi

Honengandik **jakin** zuen Teillary erretorea eta Bordaguibel erretore-laguna baserri batean bizi zirela. Elena Touyarou

Inork ezin **jakin** zezakeen hura neu nintzela. Joxe Austin Arrieta

**3** (hizkuntzei buruz)

Hola mintzo den baxkoak [...] **jakin** baino gehiago, ezagutu egiten du "bere" hizkuntza -oso bana dira hizkuntza bat ezagutzea eta jakitea-. Iñaki Segurola

Baserritarrak, euskara baztertu eta, gaztelania **jakin** nahi du. Joxe Azurmendi

Aurretik espainola **jakitea**. Joxe Azurmendi

Lan egiteko errusiera, letoniera eta ingelesa **jakin** behar dira. Berria - Mundua

Gutxienez, frantsesa edo ingelesa **jakin** beharko lukete eurodiputatuek, ama-hizkuntzaz gain. Berria - Euskal Herria

Hi grina hadi eskola bat izan dadin herrian eta errientak frantsesa **jakin** dezan. · Euskaraz ez **jakitea** oso mingarria zen niretzat. Elena Touyarou

Legeak dio 16 urterekin ikasle guztiek euskaraz eta gazteleraz **jakin** behar dutela. Berria - Euskal Herria

Eta amak gazteleraz **jakinda,** baita alabak ere. Edorta Jimenez

Nola asmatu duzu espainolez **dakidala**? Bernardo Atxaga

XIX. mende hasieran gutxi omen ziren hegoaldean frantsesez **zekitenak**. Mikel Hernandez Abaitua

Ez dirudi ingelesez **zekienik** eta, horra oztopoa. Edorta Jimenez

Halako batean mutilak niregana begiratu du eta ingelesez **badakidan** galdetu dit. Iban Zaldua

Indian ingelesez **jakinez** gero, batetik bestera traba handirik gabe ibiliko zara. Gotzon Garate

Ekaitza errusieraz **dakitenen** artean dabil bihotzak indartsuen astintzen. Edorta Jimenez

**4** (objektua aditza denean, era ez burutuan) gai bati buruz aski ezaguera, zerbait erabiltzeko trebetasuna izan.

Irakurtzen **dakien** bati. Elizen arteko biblia

Bilatuko dugu zitara jotzen **dakien** norbait. Elizen arteko biblia

Gaitzak belarrez sendatzen **zekien** hark berak sukarra airez etorria zela uste ote zuen, bada? Edorta Jimenez

Ibiltzen eta mintzatzen **dakiten** panpina horietako baten modura jantzirik. Lopez de Arana

Bai pozgarria erantzuten **jakitea**! Elizen arteko biblia

Hitz-jario handiko gizona zen, argudioak ongi lotzen **zekiena**. Joan Mari Irigoien

Agintzen **jakitea** da behar duten trebetasun bakarra. Joxerra Garzia

Beren seme-alabak eta etxea ongi gobernatzen **dakitenak**. Elizen arteko biblia

Argiak dira guztiak, ulertzen **dakienarentzat** eta errazak, jakitun denarentzat. Elizen arteko biblia

Eszena barregarriak klasiko bihurtzen **zekien** Fellini maisu berdin ezinak. Anjel Lertxundi

Beste seiei izena ipintzeko orduan, bazen irudimena dantzatzen **zekienik**. Pello Zabala

Haiek bai bizitzen **jakin**! Patxi Zubizarreta

Haren asmoa intuitzen **jakin** nuelako. Ramon Saizarbitoria

Dohatsua, adiskide ederra, zu bezala, sekula amore ez ematera ohitzen **jakin** duena! Jon Muñoz

Aitortzen diat ez dudala **jakin** kementsu izaten. Elena Touyarou

Ez nuen **jakin** hori zehazten. Jon Muñoz

Zeruan bego halako gauza bikaina asmatzen **jakin** zuena. Jon Alonso

Hiru aukeren artean hautatu ordez, hiruak integratzen **jakin** duela, batez ere eskultura egiterakoan. Anjel Lertxundi

Aita tirano baten aurka altxatzen **jakin** zuelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez duzue bakea lortzen **jakin**. Bernardo Atxaga

Egokitzen **jakin** zutenen saria. Aingeru Epaltza

Whiskya ere hor ikusten dut, Kristinak arrotza ohoratzen **jakin** duen seinale. Aingeru Epaltza

**5** (aditz laguntzailerik gabe)

Nik artean mendiko zapoa bakarrik ezagutzen, eta ez **jakin** itsasoan zaporik izaten zenik. Iñaki Segurola

Musika hark, orduan ez **jakin** zergatik, bere izaera zauritu eta urratu egin zuelako. Felipe Juaristi

Karrika kantoian zegoen etxe batean bildu ziren, [...] inork ez **jakin** nola, Londonera joateko baimena eta bidaia-txartela lortuak zituen injineru ospetsu baten apartamenduan. Felipe Juaristi

Alemanek ezin **jakin,** ordea, zer ahal dezakeen ironiak. Felipe Juaristi

Eta ezin **jakin** inoiz helduko ote garen benetan gertatu denaren irudia berrosatzera. Juan Garzia

Basapiztia madarikatuak ezin, bada, **jakin** zer zetorkion. Patxi Zubizarreta

Argibide gehiagorik ezean, ezin **jakin** hori guztia ona ala txarra zen. Aingeru Epaltza

Zer esan nahi duzu? -esaten dut, baieztapen bitxi hori nola ulertu **jakin ezinik**. Oskar Arana

Mesfidati begiratu zien hiru gizonei, haietako nork ordainduko ote zion **jakin** nahian. Felipe Juaristi

*ik beherago* 25. Askoren artean

Alde edo kontra nengoen **jakin** nahi zuen. Jon Muñoz

Emazte bakarra dik eta hura gobernatzen **jakin** ez! Patxi Zubizarreta

Nahi zuten **jakin** nora ari nintzen.. Elena Touyarou

Nor nintzen **jakin** bezain laster ireki zidan atea. Aingeru Epaltza

Gainerako xehetasunak **jakin** arte behinik behin. Migel Angel Mintegi

Judua nintzela **jakin** aurretik besterik uste banuen ere. Anjel Lertxundi

**6** (**jakin** errepikaturik)

**Jakin,** bazekien Said abiatzekoa zela, baina ez zion ardura. Patxi Zubizarreta

Eta **jakin** ere ez dakit gutun hau bera edo beste batzuk iritsiko ote zaizkizun. Jon Muñoz

Ez dakit zer uste ote zuen Herbertek, espainieraz **jakin** ere ez baitzekien. Joxe Austin Arrieta

**7** (era burutu objektuduna hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Besteekin konpartitzeko premia azaleratu zitzaidan eta irakurlearen edo, nire kasuan, entzulearen iritzia **jakin nahia**. Ana Urkiza

Eta beti sortu izan du irudi artistikoak, historia denetik behintzat, mintzagaia, irudi artistikoa zer den, zer indar duen, zertarako den **jakin nahia**. *ik beherago* 25. Josu Zabaleta

Barre algara haiek zerk eragin ziezazkiokeen **jakin nahiak** eraman ninduen lehendabizikoz telebista aurrera saio haiek ikustera. Ramon Saizarbitoria

Beharginek irakurtzen eta idazten ba ote dakiten **jakin** beharra duela. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik beherago* 19, 20 eta 21. Askoren artean

Ez zuen **jakin** beharrik ere. Edorta Jimenez

Gai ilun edo zailen bat, batzuetan gai erraz bat azaldu edo argitzeko, aipatu edo aldez aurretik **jakin** beharrekoa. Xabier Kintana

Demagun Mirenek minaren fisiologiari eta psikologiari buruz **jakin** beharreko guztia badakiela. Askoren artean

· *(objekturik gabe)* Jakingogo, **jakinmaitale** da gizakia, inongo zalantzarik gabe. Jenaro Garate

[...] -esan zuen astoak, idiarengan **jakin**-gosea piztuz-. Patxi Zubizarreta

Erregeak, orduan, **jakin**-gosearen **jakin**-goseaz, onartu beste aukerarik ez zuen izan. Berria - Mundua

Potzolo **jakin**-goseago ageri zen orain. handian paso eman eta ttikitik jotzen du hordago, eta ttikian ez dio inork irabazten, eta horrela du **jakin**-usteko ustela bereganatzen. Aingeru Epaltza

**Jakin** usteko ezjakin arrunt pedanteen kontra irakiteraino asaldatzen zena. Iñaki Segurola

**8** (era burutua izenondo gisa; ik **jakin**[2])

Kontu **jakina** da ez dagoela larrialdiak konpainian bizitzea bezalakorik elkartasun-lokarriak estutzeko. Anjel Lertxundi

Gizakion arteko harremanen oinarrietako bat baita denok gauza **jakinez** modu **jakinean** hitz egitea. Pako Aristi

Etorkizun **jakina** aspergarri mortala delako eta etorkizun ez-**jakina** izutzeko moduko muturrarekin agertu ohi delako. Iñaki Segurola

Eta hortik ondorio **jakin** bezain logikora iristen ziren. Felipe Juaristi

Oso gauza teknikoa da zoriontsu izate hori, oso jakina, eta gauza tekniko eta **jakin** guztiak bezalaxe, mundu guztiak dakizki. Iñaki Segurola

Baina ez ginateke ausartuko esatera, nik uste, arautua, **jakina,** arrazoitua edo zertarakoduna denik; ala bai? Iñaki Segurola

Apirila beti izan dela xelebre samarra, portaera ero antzekoa duena, hori kontu **jakina** da. Pello Zabala

Ostiralak lanak ematen zituelakoa, hori **jakina** da. Pello Zabala

Baina *Yod-He-Waw-He* letrekin adieraziak ez du etimologia **jakinik**. Xabier Kintana

Autore **jakinik** gabeko doinuak, mendez mende herriak gorde dituenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

· Gaurko teologo muslariari **jakineko** kartak, ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura. Iñaki Segurola

Hori gaur egunean normala da, gizarte eri honen sintomatologia **jakinekoa**. Iñaki Segurola

**9** ***jakina***

**-Jakina,** osaba... Txillardegi

**-Jakina,** eseri, arren. Koro Navarro

**-Jakina, jakina...,** umezurtza, aita ezezagunaren alaba. Patxi Zubizarreta

**Jakina,** etxean ez genuen inolako oharrik jaso. Juan Kruz Igerabide

Ez da, **jakina,** gure modukoentzat egiten dena, ez ginen jaio holako gauzak sentitzeko. Iñaki Segurola

Gero, **jakina,** bulgarizaziotik kanpora ere, behin-behineko hipotesiak aise bihurtzen dira behin-betiko jakite. Iñaki Segurola

Besterik da, **jakina,** eskolako eta bestetako bulgarizazio edo dotrinak erakusten duena. Iñaki Segurola

Hauetan jakitea eta egitea nahasiak daude, kasik bat dira, hizkuntzan bezalaxe, eta **jakina,** bizitzan bezalaxe. Iñaki Segurola

Baina funtsezkoena da egin dutela azioa berriz ere, gero bere gain hartzeko, **jakina,** bestela ez baitu ezertarako balio. Iñaki Segurola

Irria, errukia eta eskerra (ona, **jakina)** asmatu zituena. Iñaki Segurola

Eta esan egin nion, frantsesez **jakina,** neure galdera multzoari jarraipena emanez: [...]. Txillardegi

Iruditzen zait -orain, **jakina-** hauts etno-nazionalak zeharo astindu gabe zituen nere aurreko bat ote zen gauza horiek idazten ari zena. Iñaki Segurola

Iraintxe -geure mundualdian- sartuak dira *Urola-aldea* eta horiek, izatez *Urola-aldekoa* izatea, eta zer esanik ez, **jakina,** *Urola-Kosta* delakoa. Iñaki Segurola

Hil-berria ematerakoan ez du inork Joxe hilda dago esaten, baizik-eta Joxe hil da: zerbait esateagatik, **jakina**. Iñaki Segurola

Eta pertsona aluaren egintza alukeria da, **jakina,** Azpimarra nerea, **jakina**. Iñaki Segurola

Hemen, **jakina**. Iñaki Segurola

**10** ***jakinean*** *(172 agerraldi, 46 liburu eta 82 artikulutan)* jakinaren gainean.

**-Jakinean** atxikiko zaitut. Elena Touyarou

**Jakinean** egongo zara, hortaz, ezta, Kit? Josu Zabaleta

Nehork ezin du erran ez dela **jakinean**. Berria - Euskal Herria

Egin balu, herri osoa **jakinean** izanen zen. Elena Touyarou

Eta asko badira, batzuk **jakinean,** bertze batzuk ez **jakinean,** gure arbasoen herria zaintzen dutenak. Menane Oxandabaratz

Ez ofizialki bistan dena, baina denak **jakinean** dira. Ramuntxo Etxeberri

Komisarioaren eta zure arteko harremanaz denak **jakinean** dira... Elena Touyarou

Askotan sentitzen nintzen besteek abandonaturik, baina goizetik gauera arte lanpeturik nengoenez, ez nintzen pentsatzen hasten, eta ahal nuen guztia jostatzen nintzen, **jakinean** edo jakin gabe, hutsunea txantxen bidez uxatu nahiz. Josu Zabaleta

· *(-en atzizkiaren eskuinean)* Mundu guztia bere ibileren **jakinean** ipintzen saiatu zen, eta baita ederto lortu ere. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aita-amen **jakinean** ala isilean... Aingeru Epaltza

Gure herriaren eta gure ohituren **jakinean**. Piarres Xarriton

Eta minixtroek denen **jakinean** altxatuko dutela beren hilabete-saria. Herria

**11** ***jakinez*** ik beherago **12.**

-Zure izena? -galdegin zion, **jakinez** galdera zozoa zela. Elena Touyarou

Herri horietako biztanleek ez zuten batere gobernuaren lanaren errazteko gutiziarik, **jakinez** beren lege zaharrak deuseztatu zituela. Elena Touyarou

Dena den, gu orain hemen nazioaz ari gara, **jakinez** euskarazko "sorterria" besterik ez dela izaitez nazioa. Piarres Xarriton

Eta **jakinez** ondoko urteetan belaunaldi berriak agertuko direla, bada poztekoa! Herria

Aurretik **jakinez** herrialde hartako jendeak ohoratuko zuela gehien eta bereziki beneratuko. Askoren artean

**Jakinez,** gainera, funtzionario hau gure zergekin pagatua dela! Ramuntxo Etxeberri

Herri horietako jendeek, ez **jakinez** zer egin, bidekariak gure etxera igortzen zituzten. Marzel Etxehandi

Eta han nengoen, murru-pareta bezain txuri, ez **jakinez** gehiago nola mintza... Daniel Landart

Beti lanak izan dira egia ezin **jakinez**. Herria

Bi mintzaje **jakinez,** aberats gizona. Herria

· Era berean, niri ere ezin dit kalterik egin bizitzaren ibilbidea noiz hasi nuen ez jakiteak, atseden izango dudan helmuga non dagoen **jakinez** gero. Imanol Unzurrunzaga

Dena dago eskura bilatzen **jakinez** gero. Harkaitz Cano

Baina zendako behar diagu haur bati bizia eman **jakinez** geroz denentzat ere lur honetako egonaldia zoin den hitsa eta nahigabez betea? Janbattitt Dirassar

## 12 *jakinik* ik gorago 11.

Elkarren bila ibili gabe ibiltzen ginen, baina elkarrekin topo egiteko genbiltzala **jakinik**. Imanol Zurutuza

Nagusi jauna iristear zegoela **jakinik,** jauretxearen aurrean bildu ziren herrixkako biztanle guztiak. Jose Morales

Behin batean, agintariek, **jakinik** Txitxikoven etxean bi milioi errublo zegoela billete faltsuetan, etxea zigilatu eta zaintzaileak jarri zituzten, bi soldadu ate bakoitzean. Jose Morales

Gure erretinako bi irudiak desberdinak direla **jakinik,** nola atzematen dira gauzak bakarrak balira bezala (eta "erliebean", atzeman ere)? Josu Zabaleta

Atxiloturiko emakumea non zeukaten **jakinik,** hara joan zen zuzenean. Jose Morales

Baina askok, **jakinik** nolakoa zen, negar pixka bat egiten zioten, eta batere pagatu gabe libratzen ziren. Patziku Perurena

Etzen, segur, mereximendu ttipia, **jakinik** zertara zihoazen, eta librantza atean genuela. Marzel Etxehandi

Horrelako mintzaldietan nolako bizioa datzan **jakinik** ere, horiek esaten dituena, [...]. Xabier Kintana

Hori **jakinik,** bihotza urratu zitzaidan... Janbattitt Dirassar

-Ez dakit ordea, hori **jakinik** ere, zure galderek erantzunik ukanen duten. Elena Touyarou

Zehaztasunez mintzatze aldera, dudarik gabe, baina **jakinik,** aldi berean, zehaztasunak ez diola argitasunik ematen gaixoari zenbaitetan. Imanol Zurutuza

**Jakinik,** ordea, bizi ere, bizi behar dela, Itsas Armadako Ministerioan sartu zen funtzionario. Josu Zabaleta

Joanes harri eta zur geratu zen hitz haiek entzutean, ez **jakinik** zer joko-klase zerabilen alkateak buruan. Felipe Juaristi

Urrutiminez beteta bizi zen, hodei beltz bat ur beltzez bezala, non hustu ez **jakinik,** zer busti ez jakin eta, horregatik, gero eta puztuago, gero eta deserosoago. Felipe Juaristi

· -Eta, irakurtzen **jakinik,** nolatan zara artzain soila? Xabier Aranburu

## 13 *batek daki* auskalo ik beherago 18.

**Batek daki** erabiltzeagatik ez ote zaizun sariren bat egokituko. Migel Angel Mintegi

**Batek daki** honezkero ez dizun atsegin emango... Migel Angel Mintegi

**Batek daki** zergatik amaitu zenuten bere etxean eta ez zurean. Sonia Gonzalez

Ez da komeni -**batek daki** zergatik- agurrari erantzutea, eta berak ere ez du halakorik espero, Gero, konturatu gabe, haren pentsamenduek beste bide batzuk hartu zituzten, eta **batek daki** noraino iritsi ziren azkenean. Urtzi Urrutikoetxea

Zapi-puska bat, **batek daki** nondik iritsia hara. Jose Morales

Ezkongabeari, ordea, ezin asma dezaket nork egiten dion, **batek daki,** nik ez dut-eta horrelakorik erabili inoiz. Jose Morales

Orduan gazteagoa zelako ote zen, **batek daki**. Edorta Jimenez

**Batek daki**! Migel Angel Mintegi

## 14 *batek jakin* auskalo. ik beherago 29.

Batek **jakin** ez ote zen ilusioa pizturik izateko noizbehinka sortzen diren zurrumurru horietako bat. Migel Angel Mintegi

Kezkaturik zegoen, nabarmen zen, batek **jakin** Arrietarekin izandako solasak edo detektibearen presentziak kezkarazia; biek, nonbait. Migel Angel Mintegi

Ohean sarturik, Lepic kale-kantoiko arraindegia zebilkion buruan, **batek jakin** zergatik. Jon Muñoz

Bestela, **batek daki** zer egingo nukeen. Edorta Jimenez

**Batek jakin** noren ezkutua izan zen hori, XVI. mendekoa baita berez etxea. Hasier Etxeberria

Ibili zoroan dabiltza, kontrolik gabe, eta **batek jakin** datorren denboraldian zenbat izango garen: lau, hiru, bi edo bat. Berria - Kirola

Harry Brightman-engatik izan ez balitz, **batek daki** zenbat denboran jarraitu izango zukeen purgatorio horretan. Oskar Arana

Edo, **batek daki,** edonora joango naiz azkenean. Eskarne Mujika

Patua, halabeharra, sorginkeria edo aztikeria, **batek jakin**. Joxemari Urteaga

**Batek** jakin egia ala gezurra diren. Berria - Kirola

Batek **jakin**! Migel Angel Mintegi

## 15 *-en* ***berri jakin***

Har ezak hogei arrauneko ontzi bat, eta abia hadi aitaren **berri jakitera**. Behinola Herbieren **berri jakin** zuen. Juan Kruz Igerabide

Nire **berri jakin** duenean elkarrizketa baterako prest agertu da. Pako Aristi

Inortxok ere ez zuen ezertxoren **berri jakin,** harik eta paper guztiak sinatu zituen arte. Mirentxu Larrañaga

Prezioaren **berri badakit** eta jakinarazi nahi izan dut. Piarres Aintziart

Ilobak Ohando gazteari eman zion jipoialdiaren **berri jakin** zuen egunean bertan. Koro Navarro

Gertatuaren **berri jakin** zuenean. Koro Navarro

Zaila izaten da itsasokoen **berri jakitea** lehorrean. Koldo Izagirre

Jonathanek bere ohean Manausen gainbehera bizi izan zuen bitartean, Pascalen hastapenen **berri jakiten** aritu zen Léa berean. Jon Muñoz

Hire asmoen **berri jakin** arte ez diat ezertxo ere emango. Jose Morales

Propagandak badaki gure **berri, badaki** zer komeni zaigun eta hobe beharrez ari zaigu gainera. Iñaki Segurola

Egiptoarrek dardara egingo dute Tiroren hondamendiaren **berri jakitean**. Elizen arteko biblia

Zin eginez ez zirela berriro elkarren **berri jakin** gabe egongo. Oskar Arana

Tsarrak -haien adiskidetasunaren berri **jakinik-** jeneral izendatuz sarituko zituen. Jose Morales

· Hitzaldiño hau ere, duela zenbait urte prestatu nuena, [...], hemen berriz ager nezakeela, ene barneko **berri jakin** gura duenari emaiteko baizik ez balitz ere. Piarres Xarriton

## 16 *gauza jakina izan* da *ad*

Gauza **jakina da** munduan badirela tankera horretako aurpegi ugari. Gauza **jakina baita** atzerritarrek, salbuespenik gabe, eguzki eder hau, brisa leun hauek, urdin konparaezinezko zeru hau hagitz maite dituztela. Jose Morales

Eta gauza **jakina da** jende guztiak ahalik eta zati txikiena jarri nahi duela gordailu publikoan. Juan Martin Elexpuru

Eta, gauza **jakina denez,** barnetegietan jasotzen da heziketa ona. Jose Morales

Izugarria izan zintezkeela gauza **jakina zen** niretzat, eta, hala ere, beldurtu egiten nintzen halakoak aditzean. **Jakina zen,** agerikoa zen, eguzki argia bezain ziurra, Enperadoreak bizia salbatu nahi ziola bere lehengusuari. Xabier Montoia

Ordurako **jakina zen** dietatik A bitamina kentzen zitzaien arratoiek usaimena galtzen zutela. Irene Aldasoro

· Gauza guztiz ere **jakina da** Milanera landaldaturiko turindarrak ez direla han sustraitzen. Juan Garzia

## 17 *Jainkoak daki*sup_1

Eta **Jainkoak daki** ez dugula eslogan eskasik izan gutartean. Piarres Xarriton

**Jainkoak daki** nola sentitzen dudan! Iñaki Zabaleta

**Jainkoak daki** gin-kas hark zenbat on egin zidan... Itxaro Borda

· Eta badakit gizon hori paradisura eraman zutela -gorputzarekin ala gorputzik gabe ez dakit, **Jainkoak daki-,** eta han, gizakiak ezin esan ditzakeen hitzak entzun zituela. Elizen arteko biblia

## 18 ***Jainkoak daki**sup_2* auskalo. ik gorago **13.**

Filologoak belarriak erne ditu, eta askotan aditu du kristauaren ahotik **Jainkoak daki** ! esaten, eta ohartu da **Jainkoak daki** ! horrek esan nahi duela... inork ez dakiela! Iñaki Segurola

**-Jainkoak daki** zenbat festa eman ditudan. Fernando Rey

Alkandora lisatu gabe daramazu, **Jainkoak daki** nork moztu dizun ilea horrela. Oskar Arana

Goiz horretantxe zen New Yorkera iritsia, **Jainkoak daki** zenbat ehunka kilometro egin ondoren. Oskar Arana

Konturatu egin zen, **Jainkoak daki** zein senekin, alde egitekoa nintzela. Koro Navarro

Edo norbait falta delarik, haren bila ibilirik **Jainkoak daki** non zakurrekin. Marzel Etxehandi

Aski nuen beraz hitz bat erraitea eta biak joanen ginen **Jainkoak daki** norat. Janbattitt Dirassar

**Jainkoak daki** bihar zer. Oskar Arana

Eta **Jainkoak daki** zer gertatuko zen gero. Jose Morales

Eta **Jainkoak daki** zer ez zitzaion gertatuko. Eta aitak deus ere ezin egin, urrun baitzegoen, **Jainkoak daki** non... Jose Morales

Bazirudien hitz haiek putzu batera erori zirela, ur gardenak zituena, baina aldi berean hain deformatzaileak non jaitsi ahala ikus zitezkeen kiribiltzen, umearen buru zolan **jainkoak daki** zer itxura hartu arte. Anton Garikano

**Jainkoak daki** gure harremanak nolakoak izanen ziren berriz elkar kausitu bagenu. Janbattitt Dirassar

**Jainkoak daki** zer duen gogoan. Janbattitt Dirassar

Eta **Jainkoak daki** kalmatzearen beharra banuenetz... Daniel Landart

**Jainkoak daki** zenbat neska tuntun engainatu ote zituen... Aitor Arana

Eta Héraclius haserretuak esku hartu izan ez balu, **Jainkoak daki** zer litxarreriaz aseko ez ote zen lau eskudun Tantalo hura. Josu Zabaleta

## 19 ***jakin-behar*** *(orobat* ***jakinbehar*** *g.er.) iz* ik gorago **5.**

Eta ulertu-behar eta **jakin** -behar horrek, fede-gose horrek hitzen maitemin gordina zapuzten du. Iñaki Segurola

Zeren eta Ttipiren **jakin** -behar mugagabea ez baitzen letra larriz idazten diren jakintzetara mugatzen. Aingeru Epaltza

Dena izan zen poza eta **jakin beharra** . Koldo Izagirre

Honenbeste gei eta **jakinbehar** aipatzen. Herria

Oinarrizko ikerkuntzak, berriz, funts-funtseko **jakin** -beharrei heldu nahi die. Juan Garzia

Esadazu, mesedez! -galdegin zion mutilak jakin-minez eta **jakin-beharrez** . Felipe Juaristi

## 20 ***jakin beharra eduki***

**Jakin** beharra daukazu nik seme bat desio dudala ezeren gainetik. Patxi Zubizarreta

Baina **jakin** beharra daukak, papao horrek, zoologikoan tximinoak kaioletan bizi direla, taldeka banatuak. Patxi Zubizarreta

**Jakin** beharra daukat zer diodan eta zertaz ari naizen, zer horiek bat baino gehiago edo hainbestetxe direla esateko. Iñaki Segurola

Hitz egin behar nion, **jakin beharra** neukan gure etorkizuna ipuinetakoen modukoa izanen zen, edo txantxa bat ote zen irria baino gehiago negarra eragiten zuena. Fernando Rey

Egia esateko, ez nekien ziur koldarra nintzen edo ez, eta **jakin beharra** neukan. Mirentxu Larrañaga

Zer gertatu zaion **jakin beharra** daukat. Ramon Etxezarreta

Gustura zegoen bere buruarekin, eta ez zeukan hori inork **jakin beharrik** . Harkaitz Cano

## 21 ***jakin beharra egon***

Horregatik **jakin beharra** zegoen, nor ziren ez ezik, zergatik zuten hainbesteko interesa Grosrouvreren demostrazioetan. Jon Muñoz

**Jakin beharra** dago Txitxikov munduan sekula izan den gizonik gisakoena zela. Jose Morales

Izan ere **jakin beharra** baitago Txinako erregearen bufoirik gogokoena zela. Patxi Zubizarreta

**Jakin beharra** zegoen zer ordutegi zen aproposa obuluak biltzeko. Juan Garzia

Baita zer den ez dakigun (gauza batzuk ez dago **jakin beharrik** ) bizimina ere. Iñaki Segurola

Gauza bat zein distantziatara dagoen **jakin** beharrik ez dago, gainera, gauza hori zer den jakiteko. Josu Zabaleta

Psikoanalisiaren teorian, lapsusek subkontzientea azalarazten dute eta, ametsetan bezala, esanahia interpretatzen **jakin beharra** dago. Iñaki Arranz

## 22 ***jakin beharra izan***

-Eta **jakin beharra** dut. Koro Navarro

**Jakin beharra** baitzuen emakume batek onar ote zezakeen gabezia hura. Ramon Saizarbitoria

**Jakin beharra** duzue, Antje Italiako hondartza batean ikusi nuela egun batean. Fernando Rey

**Jakin beharra** nuen, kontzertuz kontzertu hazten eta hazten ari baitzitzaidan ezinegona. Xabier Mendiguren Elizegi

Horixe duzu nire bitartekoei esker dakidana, horixe duzu duke handiak ez dakiena, eta horixe duzu **jakin beharra** duena! Karlos Zabala

## 23 ***jakin gabe*** ik **jakingabe.**

Baina, hona, Adoniasek errege izendatu du bere burua, zuk deus ere **jakin gabe** . Antzinako Grezian, ezein errege ez zen ausartzen ekinaldirik txikienera ere augurioek zer zioten aurrez **jakin gabe** . Elizen arteko biblia

Lancelot Meleaganten segada batean erortzen da, eta ziega batean sartzen dute, inork **jakin gabe** . Juan Kruz Igerabide

Nire dokumentazioari zer ikusi ote zion **jakin gabe** aparkatu nuen autoa [...] hiru solairuko jauregitxoaren aurrean. Anjel Lertxundi

Zer zen **jakin gabe** segitzen nuen. Anjel Lertxundi

Gerra etorri zen eta armadan sartu nintzen zergatik **jakin gabe** . Monika Etxebarria

Idazten ari naiz zergatik ari naizen **jakin gabe,** hori da egia. Anjel Lertxundi

**Jakin gabe** nora noan eta non emango diodan akabera. Anjel Lertxundi

Askotan, **jakin gabe** bada ere, iraganean bizi gara. Pako Aristi

Nola egin arrantza, igeri **jakin gabe** ? Juan Kruz Igerabide

Horixe izan da gure eskola eta gure jakitea; asko, izugarri, gero eta gehiago jakitea, zer diogun **jakin gabe** baina badakigula uste izanik. Iñaki Segurola

Zure lagunen otoitzei eta gutunei esker ez bainintzen gertatu ez hain gaizki ez hain **jakin gabe** . Piarres Xarriton

· Gau ilunean, inork **jakin gaberik** , zaldunen lehiara abiatu zen Lancelot Kamelotetik, bere ezkutariarekin. Juan Kruz Igerabide

· Begiak hartan erre beharrean eman nion segida, xede oraindik **jakin gabeko** bidaiari. Aingeru Epaltza

## 24 *jakin-min ik* **jakin-min.**

## 25 *jakin-nahi ik* **jakin-nahi.**

## 26 ***jakina izan*** *da* ad

**Jakina da** denboran pentsatzeak zenbat ontzen duen, zenbat edertzen duen bizialdi bat. Iñaki Segurola

**Jakina da** muskuluen esfortzutik ateratzen dela mugitzeko behar den energia. Irene Aldasoro

**Jakina da** , *Amayur,* garai hartako nafar aldizkari abertzale eta euskaltzalea izan zela. Patziku Perurena

Eta bestalde, **jakina da** behar bezalako emakume gaixoa garbimin eta zikin-beldur paranoiko batek harrapatua bizi dela. Iñaki Segurola

**Jakina da,** bestalde [...] Batuaren idazkeratik ekin diogula ahoskerari eta ez alderantziz. Lourdes Oñederra
Ikasleek, harrezkeroztik, ezkutuan egiten zituzten bihurrikeriak, eta, **jakina denez,** agerikoak baino okerragoak izaten dira horiek. Jose Morales
**Jakina zen** hizketan ari zenak informazio-iturri ezkutuak zituela. Irene Aldasoro

### 27 *jakinaren gainean* (*513 agerraldi, 142 liburu eta 166 artikulutan*) ik gorago **10.**

-Sekula ez dut ezer egin maltzurkeriaz eta **jakinaren gainean**. Mirentxu Larrañaga
Ez baikinen ez bera eta ez ni aldez aurretik **jakinaren gainean**. Joxe Austin Arrieta
**-Jakinaren gainean** nengoen -erantzun zion Alcide Jolivetek. Karlos Zabala
Ez dakit **jakinaren gainean** zauden -esan zidan. Bernardo Atxaga
**Jakinaren gainean** zeuden iristekoak ginela. Josu Zabaleta
**Jakinaren gainean** zegoen noiz nintzen iristekoa, eta ezin izan nion ixkin egin. Joxe Austin Arrieta
Biharamunean, Verlaque jauna ikuskatzaile berria **jakinaren gainean** jartzen hasi zen. Karlos Zabala
Marixak, deitu, ni **jakinaren gainean** jartzeko baizik ez omen zuen deitzen. Aingeru Epaltza
Ikusi egingo naitek eta aita **jakinaren gainean** jarriko ditek, lehenago ikusi ez banau behinik behin. Patxi Zubizarreta
Horra, **jakinaren gainean** jarri zaituztet aldez aurretik. Elizen arteko biblia
**Jakinaren gainean** mintzatzen direlakoan. Aingeru Epaltza
Iruditzen zait erreginak ez zuela **jakinaren gainean** hil zalduna. Juan Kruz Igerabide
Ez dut sekula, **jakinaren gainean** diot, gaur galtzen dudan zoriona berriz aurkituko. Jon Muñoz
**Jakinaren gainean** aritu ote zen ilehoria? Migel Angel Mintegi
Baina **jakinaren gainean** bekatu egiten duenak [...] iraindu egiten nau. Elizen arteko biblia
Nola frogatuko zuketen Harryk **jakinaren gainean** saldu nahi izan ziela eskuizkribu faltsu bat beren buruak ere hartan nahastu gabe? Oskar Arana
Gezurra den **jakinaren gainean,** edozer gauza goresten dugu erremedioaren kategoriara. Harkaitz Cano
· Ongi **jakinaren gainean** egongo zen noski Ivan Ogareff tsarraren mandatari bat Irkutsk aldera zihoala. Karlos Zabala
· *(-en atzizkiaren eskuinean)* Ez, jauna, ez dugu halakorik hartuko gurean, ez behintzat nire **jakinaren gainean**. Mirentxu Larrañaga
Mitxelena-k erakusten du arazoaren **jakinaren gainean** dagoela, besteak beste, FHV liburuan zubererazko [y] bokalaren fonemikotasunaren inguruko gogoetetan. Lourdes Oñederra
Ez nuen nekerik hartu haiek xehetasun ororen **jakinaren gainean** jartzeko. Oskar Arana
Hala ere, izan berri zuten solasaren **jakinaren gainean** jarri ninduen. Anjel Lertxundi
Merezi al du eskatzea ezezkoaren **jakinaren gainean**? Pedro Alberdi
Guztiaren **jakinaren gainean** zen noski. Fernando Rey

### 28 *jakitera eman* (*203 esaldi, 19 liburu eta 168 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***aditzera eman*** *agertzen da —476 esaldi, 89 liburu eta 200 artikulutan—*) aditzera eman.

Emazteak **jakitera eman** zion aita Mathieu Berako apezetxe batean errezebitu zutela, eta bera arazorik gabe itzuli zela Baionara. Elena Touyarou
Aitortzen badit edota arduragabekeriaz nolabait adierazi eta **jakitera ematen** badit Jaungoikoaz gauza arbuiagarriak sinisten dituela [...]. Imanol Unzurrunzaga
Eskarmentua duenak daki; eskarmenturik ez dutenei ez zaie **jakitera ematen**. Askoren artean
Ardiekin, ordea, eskoziar ikertzaile batzuek **jakitera eman** berri dute lortu dutela halakorik: ardi-arrautza gunegabetu batean ardi-errapeko zelula baten gunea txertatu, eta bildotsak sortu dira. atsekabe izugarria zabaldu zen juduen artean, erregearen dekretua **jakitera eman** zenean. Juan Garzia

### 29 *nork jakin* auskalo. ik gorago **14.**

**-Nork jakin** hura ba ote datorren -esan zuten neskek. Josu Zabaleta
**Nork jakin** zer salatzen dioten elkarri. Xabier Montoia
-Ba, agian bai, **nork jakin** -erantzun zion. Jon Maia
Etxe honetan sukaldatzen dudan azken aldia dun eta, **nork jakin,** beharbada ene bizitzan sukaldatzen dudan azken aldia... Patxi Zubizarreta
Begirada itsasoan, ez zen ohartu detektibearen etorreraz; edo ez ohartuarena egin zuen, nork **jakin**. Migel Angel Mintegi
Beharbada ez ene hitzek ez besterenek lortu ez dutena lortu ahal izango duzu, **nork jakin**. Patxi Zubizarreta
Zer ez ote nuen nik galdu urte haietan guztietan, **nork jakin** hori. Koro Navarro
Baina horiek pairatzen dutena, **nork jakin**? Eskarne Mujika
**Nork jakin**! Joxemari Urteaga

---

## jakin² *izond* mugatua edo zehaztua izan dena. ik **jakin¹ 8.**

Informazio **jakin** bat eskatu nahi dizut, besterik ezer ere ez. Oskar Arana
Irudi mota **jakin** batetik abiatuta. Josu Zabaleta
Oraindik ez nengoen gauza **jakin** batzuetarako prest. Jon Muñoz
Nola sorrarazten du zinemak ikusle mota **jakin** bat? Josu Zabaleta
Efektu **jakin** baten kausaren bilaketa. Ibon Uribarri
Lurraldeko puntu **jakin** batetik abiatzen bagara norabide guztietan urruntzeko. Isabel Arrigain
Testuinguru sinboliko **jakin** batean. Josu Zabaleta
Eremu proteiko **jakin** batek bere baitan daukan ezagutze-gunea. Juan Garzia
Eginak eta gertakariak irakurtzea interpretazio **jakin** batekin bestelakotu gabe. Iñaki Segurola
Baliteke gure sare kognitiboak hutsarte handiegiak izatea tamaina **jakin** batetik beherako arrainak harrapatzeko. Juan Garzia
Toki **jakinean** finkaturik dagoena. Xabier Amuriza
Gauza guztiak, bidezko denez, hazi **jakinetik** hazten baitira astiro-astiro, eta haztean, euren endari eusten baitiote. Xabier Amuriza
Zuhaitzak denbora **jakinean** loratzen eta denbora **jakinean** loregabetzen dira. Xabier Amuriza
Ez da, beraz, hain harritzekoa ilargia denbora **jakinean** sortzea eta berriro denbora **jakinean** desegitea, hainbeste gauza izan baitaiteke denbora **jakinean** egina. Xabier Amuriza
Lehen, ikus-entzunezkoen hastapenetan, oso toki **jakinetan** (taberna batzuetan eta) izaten zen irratia, eta gerora, telebista. Iñaki Segurola
Egia da protekzionismoak, baldintza **jakinetan,** nazio-ekoizpena sustatzen duela. Koro Navarro
Uzkurdurak bazkalondoan hasi zitzaizkion tarte **jakinetan** errepikatzen. Aingeru Epaltza
Ezin dut eraman ordu beti **jakinetan** dutxatzera joan beharra. Anjel Lertxundi
Unibertso osoaren espazio guztia nonahitik ertz **jakinez** itxia eta mugatua balitz. Xabier Amuriza
-Iduneko hori erosi dut gaur, arrazoi **jakinik** gabe. Oskar Arana
Ez da definitzen, ordea, ez du itxura **jakinik**. Josu Zabaleta
Xede **jakinik** gabe. Xabier Olarra
Aukeran nahiago izaten baitut hirietako kale zaharretan zeregin **jakinik** gabeko asti nagiaz ibili. Anjel Lertxundi

jakinahi ik **jakin**[1] **24**.

# **jakinarazi**, jakinaraz, jakinarazten *(orobat* ***jakinerazi*** *g.er.)* **1** du *ad* jakitera behartu.

Aurretiaz ikusi dut nik hori guztia; Jainkoak **jakinarazi** dit, eta zuri adieraztera bidali nau. Gizabanakoak inori **jakinarazten** ez dizkion pentsamendu ezkutuak. Jose Antonio Mujika

Nire samina **jakinarazi** nahi dizuet; maiteminak narama mundu honetatik. Juan Kruz Igerabide

-Gutun batzuk aurkitu nituen amonaren etxean **-jakinarazi** nion. Jon Muñoz

Ezin norbanako bakoitzari legea **jakinarazi** . Andres Urrutia

Prezioaren berri badakit eta **jakinarazi** nahi izan dut. Piarres Aintziart

Garrantzizkoa da ingurumarietan gertatzen diren gorabeherak garunari **jakinaraztea,** eta oso ondo egiten da hori bizkar-muinaren goiko eta beheko esteken bidez. Irene Aldasoro

Horren objektiboak diren zifrak, datuak, estatistikak eta adierazleak **jakinarazten** direnean. Iñaki Heras

Hil egin behar badute, lehenbailehen **jakinarazi** behar diguk, laguntza eskaini behar zioagu eta. Juan Kruz Igerabide

Zergatik ez diguzu berehala **jakinarazi** nor zegoen zurekin? Jose Morales

Ume menditarrak dira **-jakinarazi** zion maisuak inspektoreari bisita egitera etorri zitzaigunean-.Oraingoz bertzerik ez zigutek **jakinarazi,** atso bat dela, alegia. Bernardo Atxaga

Esan zuen mekanika oso aurreraturik zegoela Ingalaterran eta, hango egunkariek **jakinarazi** zutenez, egurrezko hanka harrigarriak asmatu zituztela. Jose Morales

Dena den, Pariseko nagusi berriek **jakinarazia** digute argi eta garbi euskal departamendurik bederen ez dugula nehoiz izanen. Piarres Xarriton

Megafoniatik **jakinarazi** zuten atzeneko borroka hura bost asaltotara izango zela. Josu Landa

Al Gazteak hitz ematen dit egunero-egunero **jakinaraziko** didala autoaren konponketa nola doan. Oskar Arana

Iruditzen zitzaidan zerbait mingarri **jakinaraziko** zidala. Bernardo Atxaga

Ez zidaten ezer susmagarririk **jakinarazi** hari buruz. Josu Zabaleta

Partiduko Zuzendaritza Batzordeari **jakinarazi** nion dena. Jon Alonso

Gaur, Riche jauna, bi **berri jakinarazi** dizkidazu, bata txarra eta bestea ona. Jon Muñoz

Niri dagokit **jakinaraztea,** horretarako ordaintzen didate eta. Harkaitz Cano

**2** *-en* ***berri jakinarazi***

Bere susmoen **berri jakinarazi** zion ganberaburuari. Jose Morales

Aitari idatzi zion eginikoaren **berri jakinaraziz** . Jose Morales

Seme-alaben apeta xaloen **berri jakinaraztean** gurasoei zuzendu ohi zaizkien irribarre txiki horietako bat. Jose Morales

Giraud irakaslea azterketaren emaitzen **berri jakinaraztera** joan zitzaionean. Ramon Saizarbitoria

Adiskidetasunezko eginbehartzat hartu nuen jaun haiei Guatemalako beren plantazioaren egoeraren **berri jakinaraztea** . Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**abokatuak jakinarazi** (7); **agentziak atzo jakinarazi** (9); **agentziak jakinarazi** (9); **agentziek jakinarazi** (8); **agerraldian jakinarazi** (8); **agintariek jakinarazi** (13); **antolatzaileek jakinarazi** (13); **arduradunek jakinarazi** (14); **ari dela jakinarazi** (16); **ari direla jakinarazi** (18); **asmoa duela jakinarazi** (12); **atxilotu zituztela jakinarazi** (8); **atzo jakinarazi** (429); **atzo jakinarazi zuenez** (261); **atzo jakinarazi zutenez** (58); **aurretik jakinarazi** (8); **barne ministerioak jakinarazi** (7); **batzordeak atzo jakinarazi** (8); **batzordeak jakinarazi** (11); **berehala jakinarazi** (9); **berri agentziek jakinarazi** (8); **berria jakinarazi** (7); **dagoela jakinarazi** (55); **daudela jakinarazi** (33); **egin dela jakinarazi** (7); **egin zuela jakinarazi** (9); **egingo dela jakinarazi** (8); **egingo duela jakinarazi** (10); **egingo dutela jakinarazi** (9); **egunkariak jakinarazi** (16); **egunkariak jakinarazi duenez** (10); **elkarteak jakinarazi** (16); **elkarteak jakinarazi duenez** (11); **emaitzak jakinarazi** (13); **enpresak jakinarazi** (11); **erabakia jakinarazi** (13); **erakundeak atzo jakinarazi** (12); **erakundeak jakinarazi** (21); **erakundeak jakinarazi zuenez** (9); **ertzaintzak atzo jakinarazi** (10); **ertzaintzak jakinarazi** (40); **ertzaintzak jakinarazi duenez** (14); **ertzaintzak jakinarazi zuenez** (23); **gobernuak atzo jakinarazi** (7); **gobernuak jakinarazi** (23); **herenegun jakinarazi** (33); **herenegun jakinarazi zuenez** (14); **herrizaingo sailak jakinarazi** (34); **hil direla jakinarazi** (8); **hil dituztela jakinarazi** (7); **hil zela jakinarazi** (10); **hil zirela jakinarazi** (11); **iturriek jakinarazi** (42); **iturriek jakinarazi dutenez** (10); **iturriek jakinarazi zutenez** (27); **izan zela jakinarazi** (11); **izan zirela jakinarazi** (10); **izango dela jakinarazi** (17); **izango direla jakinarazi** (10); **izango dutela jakinarazi** (8); **izena jakinarazi** (8); **izenak jakinarazi** (9); **jakinarazi aurretik** (8); **jakinarazi duenez** (341); **jakinarazi dutenez** (92); **jakinarazi zionez** (14); **jakinarazi zuen atzo** (293); **jakinarazi zuen herenegun** (16); **jakinarazi zuenaren arabera** (8); **jakinarazi zuenez** (702); **jarraituko duela jakinarazi** (9); **jarraituko dutela jakinarazi** (8); **konpainiak jakinarazi** (7); **ministerioak jakinarazi** (20); **ministerioak jakinarazi zuenez** (11); **ministroak atzo jakinarazi** (9); **ministroak jakinarazi** (19); **ministroak jakinarazi zuenez** (7); **nafarroako gobernuak jakinarazi** (13); **nagusiak jakinarazi** (9); **nahi zuela jakinarazi** (7); **ofizialki jakinarazi** (8); **ohar batean jakinarazi** (11); **ordezkariak jakinarazi** (8); **ordezkaritzak jakinarazi** (7); **poliziak atzo jakinarazi** (7); **poliziak jakinarazi** (25); **poliziak jakinarazi zuenez** (9); **presidenteak jakinarazi** (15); **presidenteak jakinarazi zuenez** (8); **prest dagoela jakinarazi** (12); **sailak jakinarazi** (46); **sailak jakinarazi duenez** (20); **sailak jakinarazi zuenez** (21); **sailburuak jakinarazi** (8); **taldeak jakinarazi** (12); **taldeko presidenteak jakinarazi** (7); **udalak jakinarazi** (8); **udaltzaingoak jakinarazi** (9); **zegoela jakinarazi** (25); **zegoela jakinarazi zuen** (10); **zeudela jakinarazi** (12); **zuzendariak jakinarazi** (9); **zuzendaritzak jakinarazi** (7)

**gaur jakinaraziko** (31)

**atzo jakinarazitako** (10); **jakinarazitako datuen arabera** (8)

**jakinarazitakoaren arabera** (11)

**auzapezak jakinarazten** (14); **elkarteak jakinarazten** (8); **etxeak jakinarazten** (7); **herriko etxeak jakinarazten** (7); **jaun auzapezak jakinarazten** (7)

# **jakinarazle** *iz* jakinarazten duen pertsona.

Berri txarrik ez, jauna, ez nik dakidanez behintzat, **jakinarazlea** besterik ez naiz, idazkaria... Harkaitz Cano

# **jakinarazpen** **1** *iz* jakinaraztea; zerbait jakinarazten duen mezua edo agiria. ik **ohartarazpen.**

Bere izendapenaren **jakinarazpena** etorri zitzaion egunetik. Aingeru Epaltza

Exekuzioaren **jakinarazpen** ofiziala irakurri behar dizugu, Hagrid. Iñaki Mendiguren

Horren inguruko **jakinarazpen** ofizialik ez dutela jaso gaineratu dute talde horretako kideek. Berria - Euskal Herria

**jakinarazpenak** gaztelania hutsean igorri izana ez zuen eskubide urraketa gisa hartu epaileak. Berria - Harian

Idatzizko **jakinarazpena** nahi du. Berria - Kirola

**Jakinarazpena** -isilpekoa dioen gainazal batean iritsi zaio- jokabide-araubidearen kopia batekin batera igorri diote. Oskar Arana

**Jakinarazpenak** euskara hutsean jasotzeari buruz. Berria - Euskal Herria

Udalaren arabera, gazteek uko egin zioten **jakinarazpena** sinatzeari. Berria - Euskal Herria

Gainera, irailean greba egiteko **jakinarazpena** bideratu dute. Berria - Euskal Herria

Zer egin zuen greziar gizarteak **jakinarazpenaren** berri izatean? aste egin nituen zigor-espedientearen **jakinarazpenaren** esperoan. Jon Muñoz

Sekulako **jakinarazpena** izan zen hura matematikaren munduan. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan)

Orduan isun **jakinarazpen** bat jarri zion gure aitari. Pello Lizarralde

Adin txikiko mutiko baten bilaketa **jakinarazpen** bat iritsi baitzen. Pello Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

## jakinarazteke *adlag* jakinarazi gabe.

Gizonak, gero, igurtzi eta laztan egin zion, emakumearen konfiantza irabaztearren, eta emakumeak utzi egin zion ferekatzen, gustura ala disgustura ote zegoen **jakinarazteke**. Felipe Juaristi

## jakinbehar ik **jakin[1] 17**.

## jakinbide *iz* zerbait jakiteko bidea.

Gizakiak beste gizaki batekin harremanetan diharduenean, zuhurra eta zentzuduna behar du izan; eta bere interesaren alde jokatu, komeni dituen **jakinbideak** eskuratu eta onuragarri zaiona ez zokoratu. Andres Urrutia

Haien irakurleei **jakinbide** ederra eman nahian. Karlos Zabala

Ganorazkoa da, gai zibilak soil-soilik aztertzerakoan ere, herri bat arautzen duten lege mota desberdinen **jakinbide** orokorra ematea. Andres Urrutia

Aitzitik, kontrako eragina izango dute -entzulearen arreta desbideratzen dutelako, gorde beharko liratekeen **jakinbideak** aurreratzen dituztelako [...]- eraginkortasun hori indartuko ez duten baliabideek. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Neure barren-barrenean, ordea, nago ez ote den biologia molekular misteriotsu hori [...] epe ertainerako garapenez etekintsuago gertatuko [...] bizitzaren eta haren nahasmenduen fenomeno funts-funtsezkoei buruzko gure **jakinbidean**. Juan Garzia

## jakindegi *iz*

Dena dakienak ez daki entzuten edo entzundakoa aditzen, zeren, nola bere **jakindegian** dena eta dena bere **jakindegian** baitago, handik kanpoko guztia ezereza baizik ez baitaiteke izan, eta ezereza ez dago entzuterik eta are gutxiago aditzerik. Iñaki Segurola

## jakinduria *(766 agerraldi, 89 liburu eta 59 artikulutan)* 1 *iz* jakitea, norbaitek dakizkien gauzen multzoa. ik **jakituria; jakitate; jakintasun; jakite**.

Honegatik guztiarengatik Jainkoak ahalmena, **jakinduria** eta borondatea dauzkala aldarrikatzen dugu. Xabier Kintana

Ezintasuna ahalmenik eza dela eta ezjakintasuna **jakinduriarik** eza. Xabier Kintana

Jakintsua eta **Jakinduria,** egiazalea eta Egia, ona eta Ontasuna, zuzena eta Zuzentasuna, bata bestearen baitan ikusi ohi direla. Joan Mari Lekuona

Gizakiari buruzko **jakinduria** ororen hasiera eta amaiera poesia da. Patziku Perurena

**Jakinduria** hori filosofia da. Xabier Amuriza

**Jakinduriaren** ahots sakona. Pako Aristi

Eta **Jakinduriaren** Liburuan esaten da: [...]. Joan Mari Lekuona

Kartografiak (militarren **jakinduriak** asmatutako zera horrek). Iñaki Segurola

Aditu nuen guztia baino askoz gorago zaude zu bai **jakindurian** bai aberastasunean. Jose Antonio Mujika

Talde-animalien psikologiaz eta portaeraz duen **jakinduria** dela eta. Xabier Olarra

Batzuk probidentziaren **jakinduriaz** harritzen dira intsektu bati begiratzen diotenean. Jose Morales

**Jakinduriaz** eta maitasunez idatzitako liburu bat. Askoren artean

Bestelako komunikabideek euren **jakinduriaz** eta esperientziaz baliatu behar dute aurrera egiteko. Berria - Gaiak

Babiloniar eskribauen eta aztien jakintza neurrigabea bereganatu, eta **jakinduriaz** eta ezagueraz gainezka itzuli zen Samosera. Jon Muñoz

Bi mila urte gizatasun, bi mila urte **jakinduria,** zakurkeria, ilusio, oinaze, zer eta, azkenean robot itxurako haur kontsumitzaile huts baten lortzeko. Patziku Perurena

Ezertxo aldatu edo zerbaitxogatik borrokatu nahi duen orori esperientziak iluminatuaren **jakinduriazko** mespretxu errukitsuz goitik behera begiratzen diotenak. Joxe Azurmendi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Han zegoen, ordea, Eladio, bere **jakinduria** oparoaz Lizarriturri zirikatzeko. Pako Aristi

Zer informazio motatan, antzinako zer **jakinduria** ezkututan? Pako Aristi

Guk Jainkoaren **jakinduria** misteriotsua irakasten dugu. Elizen arteko biblia

**Jakinduria** amaigabe eta neurtezin hura. Karlos Linazasoro

Ez dute euren **jakinduria** baliotsua txikikeriatan edo eta axolagabekeriatan xahutzen. Jon Alonso

Goren mailako ikasketetan murgiltzeko eta neure burua **jakinduria** klasiko zein modernoaz janzteko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jakinduria** sublime zertangabe batez igurtzia dago. Iñaki Segurola

Horri esker, antzinateko **jakinduria** matematikoa bereganatu zuten [arabiarrek], eta hura gogotik zabaldu. Jon Muñoz

Pentsamendu galarazіaren aroan [...] ezjakintasun jakintsua edo **jakinduria** ezjakina da pentsamenduaren eta adimenaren helduleku bakarra. Iñaki Segurola

Gure aitalehena, **jakinduriazko** iturri agortezina. Jon Alonso

Ezjakina edo analfabetoa izan liteke, baina badu berezko **jakinduria** sakon bat. Pako Aristi

Ikusi baitzuten jainkotiko **jakinduria** zuela epai zuzenak emateko. Jose Antonio Mujika

Badela halako jainkozko **jakinduria,** profetek erdiets dezaketena. Xabier Kintana

Esperientziak sortutako **jakinduria** da eurena, eta esperientzia horrek naturaren aroak eta zikloak ditu oinarri. Pako Aristi

Beraz, oinarriak jarri behar ditugu ekosofia, gure etxeko **jakinduria,** gure bizitoki globalaren eta gure bizileku bereziaren jakinduria sortzeko asmoz. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gogoa zorrozten, esnatzen eta lantzen dute, eta haren **jakinduria**-egarria asetzen. Jon Muñoz

-Santxo -esan zuen Don Kijotek- **jakinduria** hitz asko esan dituk, oso hitz gutxiren barruan. Patxi Ezkiaga

Gurekiko Lurraren joko honetan **jakinduria**-mota bat sortzen da, hots, kultura. Askoren artean

Eta erregeak aurkezten zizkien arazo eta **jakinduria** kontu guztietan, erreinuko azti eta igarle guztiek baino hamar aldiz hobeto erantzuten zuten. Jose Antonio Mujika

Zizeronengandiko **Jakinduria** kontzeptua nahiko abstraktua zen. Imanol Unzurrunzaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bertutea, eta [...] giza **jakinduria,** bere araztasun osoan ideiak dira. Ibon Uribarri

Herri **jakinduriaren** altxor amaigabea. Jon Alonso

Asko dira, euskaraz zein erdaraz, giza jokabide mixerable hori gaitzesteko herri **jakinduriak** oratu eta iraunarazi dituen esaerak. Joxerra Garzia

Espiritua eta Pauloren kristau-**jakinduria**. Elizen arteko biblia

Euskara berreskuratu eta normalizatzeko soziolinguistika **jakinduria** garatzea. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**benetako jakinduria** (4); **berezko jakinduria** (3); **egiazko jakinduria** (3); **ematen jakinduria** (3); **giza erako jakinduria** (3); **haren jakinduria** (13); **honetako jakinduria** (4); **horien jakinduria** (3); **indar eta jakinduria** (5); **jainkoaren jakinduria** (5); **jakinduria baino** (5); **jakinduria bat** (4); **jakinduria da** (6); **jakinduria dela** (3); **jakinduria den** (4); **jakinduria dena** (4); **jakinduria eta** (55); **jakinduria eta adimena** (5); **jakinduria eta ahalmena** (4); **jakinduria eta ezaguera** (3); **jakinduria eta zuhurtzia** (3); **jakinduria ez** (9); **jakinduria ez da** (4); **jakinduria gorena** (3); **jakinduria guztia** (10); **jakinduria handia** (3); **jakinduria handiz** (3); **jakinduria hori** (10); **jakinduria lortzeko** (3); **jaungoikoaren jakinduria** (4); **mundu honetako jakinduria** (4); **nuen jakinduria** (3); **salomonen jakinduria** (6)

---

## jakinduriazale *iz* jakinduriaren zale den pertsona.

**Jakinduriazaleak** behin ere ez legeari gorrotorik, baina beronekin leial ez dena itsasontzia ekaitzaren erdian bezala da. Elizen arteko biblia

---

## jakinez[1] *(orobat **jakin-ez**) iz*

Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, ezjakinak edo **jakinezak** gozatutako jakite bat, eta hargatik dira pentsamenduaren ama eta ume. Iñaki Segurola

Gertaeraren protagonisten eta gizartearen protagonisten balioek eta sinesmenek, interes ezak eta **jakinezak** ere ahalbidetzen dute tratu txarra. Berria - Euskal Herria

Beraren **jakinezaz** baliatzen ari zelako susmoa. Pedro Alberdi

Haren irribarre hantustea nire **jakin**-ezaz trufatu zen. Aingeru Epaltza

Ziurgabetasunaren (hau da, arriskuarena baino ezagutza-eza sakonagoa inplikatzen duen **jakineza** egoeraren) kudeaketan. Berria - Gaiak

---

jakinez[2] *adlag* ik **jakin[1] 11**.

---

## jakinezin *(orobat **jakin ezin**) iz* ezin jakinezkoa.

Lehen emakumeek bakarrik zeukaten komunera binaka edo hirunaka sartzeko eskubidea, eta hori guretzat mixteriozko mundu bat zen, jakin nahia eta **jakin ezina,** gure belarrietara iristen ez zen ixilpeko mundu bat. Iñaki Segurola

Itxaropenaren eta Beldurraren alaba, Ezjakintasunari erakusten diona **Jakinezina** zer den. Xabier Olarra

Beraz, inork ez beza nigandik eskatu nik ez dakidala dakidana, ez bada ikasteko jakin egin behar dela **jakinezina** dela. Jenaro Garate

Zalantza: zerbait hala den edo ez, **jakin ezinak** sortzen duen arimako ezbaiko egoera. Sonia Gonzalez

---

## jakingabe *izond* ezjakina.

Haatik, ez litazke ene iduriko intelektual mailak buluzi behar, oraiko gizartea hain da **jakingabea** erlijioneko gauzetan. Herria

---

## jakingabekeria *iz* ezjakintasun gaitzesgarria.

**Jakingabekeria** honek begien plazerra mendratzen dit. Piarres Aintziart

---

## jakingabezia *iz* ezjakintasuna.

Eritasun mota batzuen **jakingabezia** ez dakit zer den. Piarres Aintziart

---

## jakingai 1 *iz* ikasgaia. ik **jakinkizun.**

Behar ziren **jakingai** guztiak eman nizkion Rifkin anai-arreben gainean. Matías Múgica

Mila historia **jakingarri,** protestantei buruzkoak edo agramondar eta beaumondarrei buruzkoak. Joan Mari Irigoien

Irakasleen artean, teologia eta latina bezalaxe, gizalegezko hainbat **jakingai** erakusten zituzten: erakutsi eta baita ahal zen neurrian praktikatu ere. **Jakingai** guztien artean, ikasleengan sorterriarekiko atxikimendua sorraraz zezaketenak soilik hautatu zituen. Pello Zabala

Ni, adibidez, unibertsitatean ibilia naiz, eta **jakingai** guztiei buruzko eskolak jaso ditut, baina ez ditut ikasi ez gizalegearen arauak ez bizitzearen antzea. Jose Morales

Zuretzat eskuartekoak diren zenbait **jakingai** motaren berri ez duen pertsona, eta zuretzat erabat ezezagunak diren beste batzuk dakizkiena. Xabier Olarra

**2** (izan aditzarekin)

Bertsolaritza **jakingai** eta aztergai izan dadin oinarrizko tresna nagusia Xenpelar Dokumentazio Zentroa da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Linguistikoki, morfologiak ez du helburu benetako eta autonomorik; ezin izan daiteke sintaxiaz kanpoko **jakingai**. Isabel Arrigain

Ba ote da **jakingairik** gizakiaren kalterako litzatekeen ezaguera batera daramanik? Juan Garzia

---

## jakingarri 1 *izond* jakitea merezi duena.

Faxismoaren eta futurismoaren uztartze hori gauza polita eta **jakingarria** da modernotasuna, garaikidetasuna [...] gauza onak edo jende onaren gauzak direla uste dutenentzat. Iñaki Segurola

-Gauza **jakingarri** franko ikasten ari gaituk hiri esker. Aingeru Epaltza

Gauza **jakingarri** asko ditu komentu honek. Xabier Mendiguren Elizegi

Sormen literarioari buruzko ohar **jakingarriak**. Jon Alonso

Bikain idatzitako elezahar **jakingarriez** bizkortzen zuten ikasle gazteen arreta. Imanol Unzurrunzaga

Hitzaldi **jakingarria,** Armei eta Letrei buruz Don Kijotek egin zuena. Patxi Ezkiaga

Luze mintzatu zen, eta, dudarik gabe, oso modu **jakingarrian**. Koro Navarro

Irakur ezazu liburu hau [...] eta ikusiko duzu gustagarri ez ezik, **jakingarri** ere gertatuko zaizula. Jose Antonio Mujika

**2** (izan aditzarekin)

Erasoa izan zuen gizonaren hitzok **jakingarriak** dira: "Mutil horrek zakurra pistola bezala erabiltzen du". Gotzon Garate

Gizartearentzat **jakingarri** den argudioren bat eman lezakeelakoan. Patziku Perurena

**Jakingarriak** dira Ranvir Sena-ko buruzagi baten hitzok: [...]. Gotzon Garate

Zelata nekaezinen fruitu diren **jakingarriak** hobesten ditu berak. Aingeru Epaltza

-Kontu gehiago kontatu behar didazu, oso **jakingarriak** dira-eta. Javi Cillero

**Jakingarri** litzateke, zendako beilari bakotxak, bere etxe xokoan dagoelarik, hartzen duen erabakia bide horri lotzeko. Herria

**3** (-en atzizkiaren eskuinean)

Zuen **jakingarri** izanen dira agian. Aingeru Epaltza

Ekar dezadan hona delako testu hura [...] Jexux Lete zena ezagutu zuten apurren oroigarri eta ezagutu ez zuten saldoen **jakingarri** . Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin diat, mugitzen banauk lekua kenduko zidatek! -erantzun du takar bezain ozen Cienfuegosek, jendearen **jakingarri** . Koldo Izagirre

**4** (izen gisa) jakitea merezi duen gauza.

Hauteskundeei buruzko **jakingarriak** . Berria - Harian

**Jakingarriz** hornituak itzuli ziren aitatxik igorri lau berri-biltzaileak. Aingeru Epaltza

5.300 karaktere idatzirik nituen aferaren gaineko **jakingarri** berri guztiekin. Tomasek gure lehiakideen egunkarian irakurritako **jakingarri** makabro guztiaren arrosarioa aletu zion. Aingeru Epaltza

Web orrian **jakingarri** zehatzak eskaintzen zituzten auto bat errausteko erabili beharreko gasolina dosi doiaz. Aingeru Epaltza

Aste bat gabe, **jakingarri** mamitsuak eskuratu nituen. Aingeru Epaltza

Gertakariaren gaineko **jakingarriak** biharamunean bertan agertu ziren *Sud Ouest* eta *Belfast Telegraph* egunkarien azalean. Patxi Iturritegi

Itsasoan zuhur nabigatzeko **jakingarriak** baitziren [liburu] hartan bildurik. Edorta Jimenez

Hona **jakingarri** nagusia: karratua 2 duen zenbaki bat da diagonalaren luzera! Jon Muñoz

• **5** *izond* jakin daitekeena.

Ezin da inola ere, ordea, **jakingarri** ez dena jakin. Imanol Unzurrunzaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jakingarriren bat** (3); **kontu jakingarri** (3); **zenbait jakingarri** (4)

---

# jakingogo *izond* jakiteko gogoa duena.

**Jakingogo,** jakinmaitale da gizakia, inongo zalantzarik gabe. Jenaro Garate

---

# jakingogotsu *izond* jakiteko gogoz betea.

**Jakingogotsu** gara, era guztietako egien jakin-minak jota bizi gara. Jenaro Garate

Izaki maitari ez balitz, ez Kantek eta ez beste inork ezingo luke erakutsi zergatik jotzen duen gizakiak argi bila, horrenbesteko jakin-minez, hain **jakingogotsu** . Jenaro Garate

---

# jakingoxo *iz*

Lehen peredikiak ahoko gostua emanik, erne ernea joan dira oro, artemarterik gabe, luzamenik ez batere: duela mila urteko euskal errege haundienaren bizi eta egintzetan sarturik gu gaurko **jakingoxoak** oro. Herria

---

# jakingura *(orobat **jakin gura** g.er.)* **1** *iz* jakin nahia.

Ez zuen gauza handirik lortu, egia esan, **jakingura** piztea soilik. Migel Angel Mintegi

-Komunista zelako? -bisitariari jakin **gura** piztu zitzaion. Edorta Jimenez

Parisko hotelean Sri Lankako hainbeste langile ikusi ostean herri horrekiko **jakingura** itzartu zitzaidan. Edorta Jimenez

Bere **jakingura** asegaitzak eraginikoa. Xabier Montoia

Horrek **jakingura** itogarri bat eragin zidan. Edorta Jimenez

Ferminek **jakingura** handiz entzuten zion, etsirik. Josu Zabaleta

«Ezagutza baino garrantzitsuagoa da **jakingura»,** utzi zuen idatzita bere oharretako batean. Berria - Harian

Eguraldiaren **jakingura** jakin-min bihurtu duena. Pello Zabala

Alferrikako **jakinguratik** guztiei atzera eragiteko. Askoren artean

Jakin **gurak** erreta zegoen bisitaria. Edorta Jimenez

**Jakinguraren** harra! Edorta Jimenez

Bera zutik gelditu zen, **jakinguraz** eta kezkaz begira. Migel Angel Mintegi

Jendeari buruzko **jakingurarik** eza. Xabier Olarra

• **2** *izond* jakingura duen pertsona.

-Ene, bada!, hau gizon **jakingura** ! Horra igortzen dut irakurle **jakingura,** bi maisulan zoragarri horietaz gozatzeaz gain bere egarria iturri horretan ase dezan. Jose Morales

Txitxikov behingoan konturatu zen funtzionario haiek **jakingura** hutsak zirela. Jose Morales

Gainera, zenbat eta ilunago agertu hura guztia, hainbat eta **jakingurago** nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (izen gisa)

Polizia batzuk lerroan jarri dira hilotza **jakinguren** begiradetatik babesteko. Antton Olano

**Jakingura** lotsagabetzat hartzen banauzu ere [...] zenbait galdera egiten jarraituko dut. Imanol Unzurrunzaga

**4** (adizlagun gisa)

**Jakingura,** deseroso eta lausoki gogo-errea sentitzen nintzen. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jakingurak erreta** (5); **jakinguraz begiratzen** (3)

---

# jakinguratsu *adlag* jakinguraz beterik.

Etxekoen begiradak sumatzen ditut, eta kideen senideenak, kezkati, **jakinguratsu** . -Noiz bil gintezke **-jakinguratsu** zebilen emakumea, noski. Jokin Urain

Garrantzia kentzeko, akaso? **-jakinguratsu** esan zuen. Edorta Jimenez

Berehala zorrotz begiratu zion Teresari; gero, **jakinguratsu** Maizari. Migel Angel Mintegi

Erabaki behingoz! -behartu zuen, **jakinguratsu-**. Migel Angel Mintegi

---

# **jakinki** *adlag* jakinez, jakinik.

Zer egin behar du aita edo ama batek, **jakinki** pedagogikoki ez dela batere egokia maisuak esandakoa zuzentzen ibiltzea? Pello Salaburu

Zu ere ibiliko zara talde batean elkartu eta zazpi lagunetatik batek bakarrik ez **jakinki** euskara gainerako guztiek haren erdarazko esanetara moldatu behar duzuenean. Pello Salaburu

Etxebizitzaz mintzatu dira azkarki, denek **jakinki** -eta nolako arrangura handiak badiren eskualde hortarik. Herria

Kasik denek **jakinki** Nafarroako errege bat izan zela. Herria

**Jakinki** nola kondatzen duen poliziak, eginen dugu bide erdi erranez 400.000 zirela, nahiz *Sud Ouest*-ek (eta ez da ezkertiarra) 500.000 aipatzen dituen. Herria

Pilotari guzien izenak guk ez **jakinki** oraino lerro hauk idaztean, salbu hiru izanen direla Txilerat joaiteko berexietarik. Herria

Koxepak gazteleraz hitzik ez **jakinki** eta, halere, euskaraz mintzatzeko beldurrez egon behar... Eneko Bidegain

· Azkenik, hauxe on dena ere jakitea: Ipar-Euskal-Herrian, 16 eta 24 urte arte, hortako gazteetan, % 12 dira bakarrik elebidunak, % 20-ek euskara poxi bat **jakinki** eta % 68 erdaldun hutsak. Herria

Zu bezalako gazte euskaltzaleak eta euskara **jakinki** ez? Pello Salaburu

---

# **jakinkizun** *iz* jakingaia.

Buruz ikas zitezkeen gauza ez ohiko guzti-guztiak ikasi baitzituen, hala nola zientziari buruzko **jakinkizun** guztiak. Karlos Linazasoro

Ez daki *ez dakit* sano-sano esaten, ezin asmatu du inola ere; gehienez ere, "ez daukat datu hori orain esku artean" edo gisako zerbait botako dizu, esanez bezala: delako **jakinkizun** hori, beste **jakinkizun** oro bezalaxe, datu edo informazio bihurtua dago .[…] baina nik orain ez dut hura irispidean · Erabakia hartu aurretik ETAk Espainiako Gobernuaren aldetik zer berme jaso dituen **dago** jakinkizun, baldin eta ezer hitzartu badu. Iñaki Segurola

---

# **jakinluze** *izond adkor* jakin-nahia.

Beste batzuek, ostera, jakinmina izaten dute, **jakinluzeak** izaten dira, kuskuseroak, eta erantzun nahi izaten dute. Patxi Zubizarreta

Eta koinata **jakinluzeari** zer bururatuko, eta lakariaren ipurdiari koipe doi bat igurtzea bururatu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Badakit ez duela asmo txarrez egiten, baina Dan oso **jakinluze** eta indiskretoa da. Patxi Zubizarreta

---

# jakinmaitale ik **jakin[1] 7**.

---

# **jakintasun** *(**55** agerraldi, **9** liburu eta **8** artikulutan)* **1** *iz* jakinduria.

Haren begi argiek **jakintasuna** isurtzen zuten. badirela indar goi-goiko batzuk gizabanakoa **jakintasunera,** kulturara eta artera bultzatzen dutenak. Aingeru Epaltza

Halako **jakintasun** berezi bat utzi nahi dute agerian, hitz teknikoak lekuz kanpoko testuinguruetan purrustean erabiliz. Pello Salaburu

Hirugarrena eta gorena, bihotzaren **jakintasuna,** zuhurtasuna, saindutasuna eta beraz fedea. Herria

Defentsa mekanismo bat, alegia, ikasleen aurrean sarri erakusten duan harrokeria eta [...] sasi **jakintasuna** bezalakoxea. Jokin Muñoz

**2** *ez(-)jakintasun* ik **ezjakintasun**.

---

# **jakinti** *izond* jakintsua.

Baina gizon **jakintien** lasaitasunerako, bada modu bat lurra zer den jakiteko. Iñaki Segurola

"Gizon" da neretzat hiztun jendeak hitz hori aditzen duenean ulertzen duena eta besterik ez; ez dut "gizaki", "ugaztun adimendun" eta antzeko bihurrikeria **jakintietan** katigatu nahi. Iñaki Segurola

---

# **jakintsu** *(orobat **jakintsun** ipar)* **1** *izond* jakintza gaietaz edo gai jakin batez asko dakiena.(pertsonez)

Pierre Gassendi filosofo, astronomo eta matematikari **jakintsua**. Joan Mari Irigoien

Salomonek, gizon **jakintsu** hark. Elizen arteko biblia

Gizon **jakintsua** da, herriko gorabeheren gobernuan zuhurtzia paregabez jokatzen dakiena. Jose Antonio Mujika

Aramaioko Ipurtotz baserrian, bazen gizon **jakintsu,** hiztun eder bat, Emeterio Bergaretxe. Gotzon Garate

Agure **jakintsuaren** begiekin itsasoari begira. Pako Aristi

Gizon letradun **jakintsua** eta bizimolde saindukoa. Piarres Xarriton

Gauza bera gertatzen zaie autore **jakintsuei** ere. Xabier Kintana

Haren ikasle argi eta **jakintsu** doktor Miranda. Piarres Xarriton

Inozentzio III. deitu Aita Saindu hain **jakintsu** bezain kartsuak erran zuena. Piarres Xarriton

Magistratu horrek, **jakintsu** bezain jakile, ez zigun deus ere egiteko utziko bere argi eta oinarriei men eginda askatasun osoz jardun izan balu. Elizen arteko biblia

Oraintsu ezjakin **jakintsu** baten ahotik ikasi dudan honako hauxe: "dena dakienak gezurrak ere jakiten ditu". Iñaki Segurola

Adinak ez du berez **jakintsu** bihurtzen, zahartzaroak ere ez ulermen zuzena ekartzen. Elizen arteko biblia

Freston **jakintsu** hark, niri gela eta liburuak lapurtu zizkidanak. Patxi Ezkiaga

Gizonetan **jakintsuena** izan baitzen. Elizen arteko biblia

**Jakintsutik** guti zuela don Frantziskok, bihotz oneko gizona zen arren. Joan Mari Irigoien

Ez jo zeure burua **jakintsutzat**. Elizen arteko biblia

**2** (animaliez)

Zirkoko jendea ditun beharbada bi morroi dotore horiek, eta beren loro **jakintsua** berreskuratu nahian zabiltzan. Jon Muñoz

**3** (gauzez)

Natura **jakintsua** da oso. Josu Zabaleta

Izan dezagun konfiantza monarka lotsagabe bat handikeriaren gailurretik urkabearen oinetara eramateko gai izan den herri **jakintsu** eta ausart honekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Senatoreek, erakunde **jakintsuenaren** kide eta erlijioaren buru zirenak. Juan Martin Elexpuru

Esku **jakintsuak** gidatu zuen besoa, Maria Sararen gerria ukitu zuen, aldakaraino jaitsi zen [...]. Jon Alonso

Hoska ari zitzaidan ordurako "ahots **jakintsua"** -ahots aurresentipen adierazlea, Virgiliori sinestera-. Bernardo Atxaga
Esperientzia ikaragarrienak ere kontrolatu eta erabiltzeko gauza izan beharko genuke, gogo **jakintsu** eta adimentsuaren bitartez. Javi Cillero
Artisauari bere eskuetako lana goraipatzen zaio eta herriaren buruzagiari bere hizketa **jakintsua**. Elizen arteko biblia
Salomonen mintzaldi **jakintsuak** entzutera. Elizen arteko biblia
Hitz **jakintsuen** bidez. Askoren artean
Zure iritzi **jakintsuak**. Askoren artean
Hiru mota bereizten ditu San Bernardok: maitasun biguna, maitasun **jakintsua,** maitasun sendoa. hipoteken oreka berma dezaketen lege **jakintsuak**. Joan Mari Lekuona
Simone Weil (1909-1943) idazlearen eleen umilitate **jakintsuaren** aixolbetik abiatu naiz ipuin hauek idazterakoan. Itxaro Borda
Ezjakintasun **jakintsua** edo jakinduria ezjakina da pentsamenduaren eta adimenaren helduleku bakarra. Iñaki Segurola
Atzera-aurrera **jakintsuak** egiten zizkidan, eta bere mihi txit trebeak zakilburua lantzen zidan beste inork inoiz ez bezala. Juan Martin Elexpuru
Bereizketa fin eta **jakintsuak** dira hauek, jende askori ihes egiten dietenak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Ezezagun zitzaizkien, ordea, eskuoi, mailuaren pisu hotsandiko, orekatu hori; [...]; zuraren ehundura **jakintsua;** [...]. Juan Garzia

## 4 (izan aditzarekin)

Asko jakitea eta **jakintsu** izatea ez dira gauza bera. Joxerra Garzia
**Jakintsu** handia naizela animalia kontuetan. Hasier Etxeberria
Ez dira asko **jakintsu** izatera helduak. Xabier Kintana
Denok gara Eros, hots, ez arras azkar, ez absolutuki ahul; ez **jakintsu** ezta ezjakin ere. Askoren artean
Zuetako norbaitek mundu honen arabera **jakintsu** dela uste badu, egin bedi zoro, egiaz **jakintsu** izateko. Elizen arteko biblia
Munduaren barne-egitura ezagutzeko bezain **jakintsu** izan badira, nola ez dute munduaren Jauna lehenago aurkitu? Elizen arteko biblia
**Jakintsu** ala ezjakin eta ergel izan, hausnartzen ari izan nintzen hobea zer ote den. Elizen arteko biblia
Bada, bizizalea ez ezik **jakintsua** ere bazen gizona. Edorta Jimenez
Neskaren hatzak oso hotzak eta **jakintsuak** ziren. Anton Garikano
Isil-isilik egongo bazinete, orduan bai zuek **jakintsu**! Elizen arteko biblia

## 5 (adizlagun gisa) ik **jakintsuki**.

Bada munduan urrea eta korala ugari; askoz baliotsuago, ordea, **jakintsu** mintzo dena. Elizen arteko biblia
Bi mutilak eder eta galant, **jakintsu** eta xarmant hazi ziren. Patxi Zubizarreta
Liburu honi buruz zertxobait gehiago jakitearren etorri naiz, eta uste baino askoz **jakintsuago** joango naiz. Patxi Ezkiaga

## 6 (izen gisa)

Dakitena esateko moduan ere alde handia dago jakitun hutsetik **jakintsura**. Ez duzu parekorik herrietako **jakintsu** eta erregeen artean. Elizen arteko biblia
Antzinako herrietako filosofo eta **jakintsuen** artean. Xabier Kintana
Herriko **jakintsuek** jende askori irakatsiko diote. Elizen arteko biblia
Egiptoko azti eta **jakintsu** guztiei deiturik, ametsa kontatu zien. Elizen arteko biblia
Ezpeletar **jakintsun** famatuaren izenaz bataiatu dute lizeoa: Armand David. Herria
Goresten zaitut, Aita, [...] gauza hauek **jakintsu** eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako. Elizen arteko biblia
Makur ezazu belarria eta entzun **jakintsuaren** esanak. Xabier Kintana
Antzinako **jakintsu** handien ildo beretik. Jon Muñoz
**Jakintsu** handia zuen aita, astronomo entzutetsua. Jon Muñoz
Maitale suharrek eta **jakintsu** zuhurrek. Josu Zabaleta
**Jakintsu** metafisikari eta teologo handi guztiak. Xabier Kintana
Marie Curie ikerle eta **jakintsun** famatua. Herria
Gidaliburua badut, Valladolideko Unibertsitatean irakasle den **jakintsun** batek egina. Piarres Aintziart
Tales Miletokoak, zazpi **jakintsuetako** batek. Santiago Iruretagoiena
Greziako Zazpi **Jakintsuetariko** bat. Jon Muñoz
**Jakintsuek** diotenez piztiaren begiak [...] beste era batera bereizten ditu gauzak... Josu Zabaleta

## 7 (hitz elkartuetan)

Herriak eta idazleek **jakintsu** mailara jasoa. Markos Zapiain
Simonidesek Greziako, Asiriako eta Egiptoko antzinako eskuizkribu batzuk saldu zizkien aditu turkiarrez osatutako -ustez- **jakintsu**-talde bati, dirutza handiaren truke. J.M. Olaizola "Txiliku"
Hain sona handiko eta **jakintsu** ospekoa izandako John Dee distiratsua. J.M. Olaizola "Txiliku"
Legelari **jakintsu** fama zutenei. Piarres Xarriton
· Dei egin zien lege-**jakintsuei,** zeren lege eta arauetan adituak direnen aurrean behar baitira errege-arazoak aztertu. Elizen arteko biblia
Sutan, lege-**jakintsuei** deitu zien berehala. Jose Antonio Mujika

## 8 ***jakintsu-aire*** *(corpusean **jakintsuaire** soilik)*

Akademiko eta politiko probintziano batzuen diskurtso **jakintsuairea** Estatuaren ezdeusaz. Joxe Azurmendi

## 9 ***jakintsu usteko***

**Jakintsu** usteko edozein ergelen maiseaketa-xedea izateko arriskurik gabe. Xabier Kintana
Horregatik dira haren beldur gizakiak, eta berak ez ditu **jakintsu** ustekoak kontuan hartzen. Elizen arteko biblia
Eta zenbat **jakintsu**-ustekok ez ote dioten lehen azalduari zail iritziko, horren egia absolutua jakitea gure adimenaren gainetik dagoela pentsatuz. Xabier Kintana
**Jakintsu** usteko fama daukadan arren. Josu Zabaleta
Berbaro ofiziala beste eredurik gabe gelditu den jendaje ustel **jakintsu** usteko honek. Patziku Perurena
Batez ere haren "barka, jauna" **jakintsu**-usteko hark gaixotzen ninduen. Joxe Austin Arrieta

## 10 ***sasi jakintsu***

Baina oker dabiltza sasi **jakintsu** horiek ere. Piarres Xarriton
Egunkariko idazmakina zaharrak tramankulu sasi-**jakintsu** horiekin ordezkatu zituztenean. Aingeru Epaltza
Sasi-**jakintsuak** gorrotagarriak zaizkit, eta are gehiago sasi-**jakintsua** nor eta Manolo Sarasa baldin bada. Aingeru Epaltza
Mario sasi **jakintsu** horietako bat delako. Lander Garro
Euskaldungoaren defentsari unibertsalismoaren aitzakiaz uko egitera behartu nahi gaituzten filosofo, soziologo, sasi **jakintsun** batzuei. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**benetako jakintsu** (3); **gizon jakintsu** (26); **gizon jakintsu bat** (3); **herri jakintsu** (3); **jakintsu bakar** (3); **jakintsu eta ikasiei** (3); **jakintsu handi** (3); **jakintsu handia** (6); **jakintsu handiak** (7); **jakintsu izan** (12); **jakintsu izatea** (6); **jakintsu izaten** (3); **jakintsu izatera** (3); **jakintsu usteko** (5); **pentsalari jakintsu** (3); **sasi jakintsu** (4); **zahar jakintsu** (4)

**gizon jakintsua** (15); **jakintsua izan** (11); **jakintsua izatea** (3); **maitasun jakintsua** (3); **natura jakintsua** (4); **oso gizon jakintsua** (3); **oso jakintsua** (9); **seme jakintsua** (3);

zuhur eta jakintsua (3)
gizon jakintsuak (7); jakintsuak idatzi (3); jakintsuak izan (3); oso jakintsuak (3)
gizon jakintsuaren (3)
jakintsuek diotenez (5)
jakintsuen arabera (4); jakintsuen artean (4)
erakasle jakintsuna (3); gizon jakintsuna (3); ikertzaile jakintsunak (3); jakintsun handia (3); jakintsun zenaren (3); jakintsunen arabera (3)

---

jakintsuaire ik **jakintsu 8**.

---

# jakintsuki *izond* jakinduriaz, jakintsu.

Haurtzaroan, segurantza gose gara guztiok eta, gero, burasoek eta haien laguntzaileek eskaintzen digute **jakintsuki** beren segurantza. Piarres Xarriton

*Ez da onurarik ekarriko ez duen gaitzik,* hona esaera famatua, sortu ziren erlatibismo filosofiko guztiak baino lehenagokoa, **jakintsuki** erakusten diguna alferrik dela bizitzako kasuak garia eta iraka bereiztea balitz bezala epaitu nahi izatea. Jon Alonso

---

# jakintsutasun *iz* jakintsua izateko nolakotasuna.

Jakite zertandunean sar daitezke pentsatzen, igerian, babak egosten edo pianoa jotzen jakitea bezalakoak, eta beste mordo bat, baina ez mordo azkengabe bat, eta hargatik ez dago hemen askotasunik eta **jakintsutasunik;** hauetan jakitea eta egitea nahasiak daude, kasik bat dira. Iñaki Segurola

---

# jakintsutu, jakintsu(tu), jakintsutzen da/du *ad* jakintsu bihurtu.

Denbora jakinegiak oso **jakintsutu** gaitu, eta gehiegi dakigu: zer egingo diogu ba? Iñaki Segurola

---

# jakintxu *izond pei* jakintsua.

Eta hori, finean, arriskutsua duk, beti izaten baita **jakintxuak** gorrotatzen dituenik... bala parea begitartean sarrarazterainokoan. Aingeru Epaltza

---

# jakintza *(904 agerraldi, 113 liburu eta 141 artikulutan; cf* ***zientzia*** *3343 agerraldi, 164 liburu eta 659 artikulutan)* **1** *iz* helburu jakin bat eta metodo berekia duten ezaguera sailen multzoa; horrelako ezaguera sail bakoitza. ik **zientzia; jakite**.

**Jakintza** liburutegietan dago bildua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Jakintza** gizarteratzeko beste bide batzuk. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zientzia eta **jakintzaren** zabalkuntza egiteko orduan zer hizkuntza erabili behar dugun. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Jakintza** eta zientzia egiazki dei daitezkeenaz ezer ez badakite ere beren burua gizon espekulatibotzat dutenek. Xabier Kintana

Genetikak ongia baino gaizkia ekarriko duela uste dute, zientzialariak **jakintza** zuzen erabiltzeko gai izango ez direla arrazoituz. Berria - Gaiak

Isidorok bere garaiko **jakintza** guztia eraberritu nahi izan zuenean. Askoren artean

Lady Madelineren eritasunak aspalditik zuen auzitan jarria sendagileen **jakintza**. Koro Navarro

Hala sortu zen aritmetika, zenbakien **jakintza**. Jon Muñoz

Baina etimologia edo hitzen erroen **jakintza** ez da biziki segurra... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oro har, sailkapenaz eta bereziki landare eta animalien sailkapenaz diharduen **jakintza**. Bernardo Atxaga

Latinez *Morala* edo grekoz *Etika* deitu **jakintza**. Piarres Xarriton

Ahotik belarrira irakasten zitean beren **jakintza** pitagorikoek. Jon Muñoz

Sanchezek, jendea sendagile berriaren **jakintzan** sinesten hasia zela ikusirik, [...]. Josu Zabaleta

**Jakintzaren** historialaria den G. Sartone-k bere *Introduction to the History of Science* ospetsuan dio [...]. Askoren artean

***Jakintzaren*** *arbola* Barojaren idazle-bizitzaren betearen beteko eleberria da. Josu Zabaleta

**2** (izenondonekin)

Zeren benetako **jakintza** espekulatiboak esperientziaren objektuak baino ez baititu ukitzen. Ibon Uribarri

Matematikariek mekanika esaten diotena **jakintza** teoriko bat dela, eta ez eskulana. Jon Muñoz

Vitruviok neurri handi batean grezieraz emanda zeuden **jakintza** praktikoak eta nozio teorikoak transmititu behar zituen. Santiago Iruretagoiena

Estrukturalismoa bezalako **jakintza** berriak. Anjel Lertxundi

Ekonomia politiko modernoa garai hartantxe sortu zen **jakintza** berezi gisa. Koro Navarro

Minari buruz ikertuz hirugarren pertsona batek lor dezakeen **jakintza** zientifiko guztia eskuratu arren, horrekin bakarrik Mirenek ezin izan du mina zer den erabat ikasi. Askoren artean

Irakurketa haiei esker jabetu nintzen bibliotekako orduak zirela **jakintza** akademikoaren iturri nagusia. Xabier Mendiguren Elizegi

Aristotelesen **jakintza** unibertsalaren proiektua gauzatzea erabaki zuen Demetriosek. Jon Muñoz

Epe laburrean, agian, historia irabazleek idatziko dute, baina **jakintza** historikoa, epe luzean, gehiago aberasten dute galtzaileek. Joseba Zulaika

**Jakintza** teologikoa estimatzen eta errespetatzen bazuen ere, errezeloz begiratzen zion. Askoren artean

Zazpi urtez munduko lau hegaletan ibilia zen, mistizismoa, Kabalah eta **jakintza** ezkutuak ikasten: Egipton, Thailandian, Indian... Gotzon Garate

Judutasunaren **jakintza** mistikoa, batez ere Erdi Aroan zabaldu zena. Koro Navarro

Antzinakoen **jakintza** arkitektonikoaren altxorra. Santiago Iruretagoiena

**Jakintza** erabilgarriaren transferentzia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**3** (izenlagunekin)

Askotako **jakintza** espezializatuak izatea eta indar handiko kodeketa sinbolikoz baliatzea. Josu Zabaleta

Oinarrizko **jakintza** horiek ez dira gizateria osoaren ondarea bakarrik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrexek bihurtzen du matematika ereduzko **jakintza** Goi mailako **jakintzak** direla eta. Jon Muñoz

Epe luzerako **jakintzaren** garapenaren aurka. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Helburutzat itxurazko **jakintza** hori argitara ekartzea eta gainditzea duen Kanten Dialektika transzendentala aldi berean ordu arteko Metafisika ororen gaitzespena da. Ibon Uribarri

Munduari buruzko **jakintzak** mundua urrundu, eta hari buruz geroz eta eredu abstraktuagoak, matematikoagoak emateko joera hartzen baitu. Josu Zabaleta

Esoterismoan eta ezkutuko **jakintzetan**. Alberto Ladron Arana

Zerutar **jakintzaren** jarduera guztietan. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geroxeago, gizonezkoei buruzko beste solasaldi batean, nire **"jakintza**-gizon baten bizitokiaren" esana aipatu baitzuen hitzez hitz, nik zientzia, eta izpiritua oro har, monopolio maskulinotzat omen nuelako frogatzat. Joxe Austin Arrieta

Errealitateari buruzko **jakintza** forma kodetuan. Josu Zabaleta

Laborategi baten helburua **jakintza** mota zehatz bat ekoiztea baldin bada, unibertsitatearen zeregina ez da **jakintza** mota batera mugatzen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitatean era askotako ikerkuntza egiten da, nolakoak diren helburuak eta nolakoak **jakintza** esparruak ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ekonomia, **jakintza** esparru gisa, oso da zabala. Iñaki Heras

**Jakintza** arlo guztietan iker daiteke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrelaxe sortu zen Hizkuntzaren Filosofia **jakintza**-arlo berezi gisa. Askoren artean

Ataletan banaturiko **jakintza**-arlo bat izan da enbriologia luzaroan. Juan Garzia

Ikerketa egitea beti da **jakintza** iturria. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Balio handiko **jakintza** ondarea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Jakintza**-liburu bakar batek ere ez du hori argitzen. Jon Muñoz

**Jakintza**-gosea arbuiatzen du. Askoren artean

Quinek **jakintza**-sistema holista defendatzen du. Askoren artean

Ez dugu alderdi baten alde edo erlijio baten alde jotzen **jakintza**-kontu hutsengatik. Juan Kruz Igerabide

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **jakintzaren** alor guztiek darabilte hizkuntza, hizkuntza hori arrunta, kimikoa edo matematikoa izan daitekeen arren. Askoren artean

Landare **jakintzan** euskaldun nagusiena. Hasier Etxeberria

Historia-**jakintzak** zalantzan uzten gaitu gizabanakoei buruz. Juan Garzia

Hizkuntza **jakintzaren** barruko dualtasuna. Isabel Arrigain

Knox doktorea ospetsu bilakatu zen lankideen artean bere anatomia-**jakintzarengatik**. Juan Garzia

Kimika bera nahiz haren auzo-**jakintzak** (fisika, geologia, biologia...). Juan Garzia

**6** jakitea, jakinduria.

Euskal Herrian, berriz, besterik ezean, herri-espiritua, herriaren **jakintza,** nekazari jendearen kulturarekin lotu zen ia erabat. Bernardo Atxaga

**Jakintza** gehiago aurkitzen dut amandre-ipuinetan zientzia liburuetan baino. Bernardo Atxaga

Harritu egiten ninduen Hollywoodeko film zaharrei buruz zeukan **jakintza** entziklopedikoarekin. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**filologia jakintza** (3); **herri jakintza** (7); **itxurazko jakintza** (5); **jakintza alor** (3); **jakintza arkitektonikoaren** (3); **jakintza arlo** (29); **jakintza arloa** (5); **jakintza arloen** (4); **jakintza arloko irakasleak** (3); **jakintza berriak** (4); **jakintza elkartea** (6); **jakintza elkarteak** (7); **jakintza elkartearen** (4); **jakintza esparru** (8); **jakintza eta ezagutza** (3); **jakintza gai** (4); **jakintza gizarteratzeko** (3); **jakintza guztia** (4); **jakintza guztiak** (3); **jakintza guztien** (3); **jakintza lortzen** (6); **jakintza maila** (9); **jakintza mota** (7); **jakintza sistema** (4); **munduko jakintza** (3); **oinarrizko jakintza** (4)

**oinarrizko jakintzak** (3)

**giza jakintzaren** (8); **jakintzaren arbola** (14); **jakintzaren bidez** (4); **jakintzaren bidezko** (3); **jakintzaren eta kulturaren** (3); **jakintzaren etxea** (3); **jakintzaren etxeko** (3); **jakintzaren transferentzia** (3); **zientzia eta jakintzaren** (3)

---

## jakintzagai *(orobat **jakintza(-)gai**) iz* jakintzaren edo jakintza jakin baten gaia.

Zer besterik aztertu behar dugu, bada, dialektikaren **jakintzagaiaz**? Imanol Unzurrunzaga

Euskara **jakintza** gai teorikotzat harturik. Joxerra Garzia

Haren kontakizunak entzuteko prestatu zen, inondik ere **jakintza**-gaiei eta natur zientziei buruzkoak izango baitziren. Jose Morales

**Jakintzagai** baten edukia baino zerbait gehiago den liburu bat: bizitza den filosofia, filosofia bilakatzen den bizitza. Piarres Xarriton

Baserriaren inguruko guztiaren gainean eman beharreko **jakintzagaiak**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## jakintzazale *izond* jakintzaren zale dena.

Ez eta **jakintzazale** omen diren Agarren ondorengoek, Merran eta Temango merkatariek eta ipuin-kontalari eta jakintza-bilatzaileek ere, ez dute jakinduriarako bidea ezagutu, ez eta hura non bilatu asmatu ere. Elizen arteko biblia

---

## jakinzale *(orobat **jakintzale** g.er.)* **1** *izond/iz* jakitearen zale dena.

Honek eraman zintuen, oi Platonen ikasle hori!, zeure ahalegin guztiz **jakinzaleak** zientziaren esperantza orotik etsitzera. Imanol Unzurrunzaga

Gizona, suharra, **jakinzalea,** zorrotza, eta Artearekin jada ezkondua; neska, edertasun berezieneko dontzeila, eta maitagarria bezain bizitasunez betea. Koro Navarro

Oi, bidaiariak, **jakintzale** lotsagabeak, ez ezazuela ahantz! Koldo Izagirre

· Ez naiz besteren bizi-barruetako **jakinzale**. Patxi Ezkiaga

**2** *adlag*

Herodesek, **jakinzale,** etengabe galdegin zion, eta Jesusek ez zion deus erantzuten. Patxi Altuna

---

## jakiontzi *(orobat **jaki-ontzi**) iz* jakiak gordetzeko ontzia.

**Jaki**-ontzi handi bat zekarren eskuetan. Inazio Mujika Iraola

Atzera eskaileretan behera joan zen neskatoa, **jaki-ontzia** eta katilu hutsak erretiluan zeramatzala. Inazio Mujika Iraola

Handik minutu batzuen buruan [...] berritz giltza harrabotsak zerrailuetan, klaska! klaska! klaska!, gero eta hurbilago eta iduriz **jakiontzi** harrabots batzuk bi klasken artetik. Filipe Bidart

---

## jakitate *(**173** agerraldi, **25** liburu eta **66** artikulutan)* **1** *iz* jakinduria.

**-Jakitate** gehientsuenak ahoz transmititzen ziren. Jon Muñoz

Estatu Aitatxik orduan oraino, burua ongi zeukan eta bazuen **jakitate**. Daniel Landart

Ikasitako **jakitateak** inori ez zabaltzeko debekua zuan haien legeetariko bat. Jon Muñoz

Amak, bere bizi guzian bildua zuen **jakitatea,** begien elean ezartzen zigun. Piarres Aintziart

Anartean, betiko gustu atsegingarriarekin joaten nintzen Fakultatera, ikasien **jakitatea** irentsiz. Piarres Aintziart

Ilun janzkera eta ilun kopeta, **jakitatea** besapean zekarten, paper multzoetan bildua. Aingeru Epaltza

Ez ezazu jan ongiaren eta gaizkiaren **jakitatearen** zuhaitzetik. beren indar guziez **jakitatearen** amodioa ikasleetan sortarazi beharrez. Imanol Zurutuza

**2** (izenondoekin)

Izpiritu bikaina eta **jakitate** finkoa duen gizona. Piarres Xarriton

Mongaston apeza, **jakitate** handiko gizona. Herria

Batuetan historiaz eta politikaz egin zituen artikulu, hitzaldi eta liburuengatik **jakitate** eta zuhurtzia handiko hiritar fama erdietsi zuen. Piarres Xarriton

Eta heien ildoari jarraiki da bizi osoan, erlezaintzaz **jakitate** handia beretuz. Herria

Fede handiko eta **jakitate** zabaleko gizon horrek idatzi zuen behin: [...]. Piarres Xarriton

Nola bada, poesiaren **jakitate** zientifikorik gabe, horrelako pieza ederrak moldatzen ahal dituzue? Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan)

Fedeaz ez nuen dudarik eta **jakitate** gose nintzen. Piarres Aintziart

Aurrebizitzen dudan herioa misterio bat da eta herioa da nire **jakitate** eremurik zabalena. · Deusetan ez zituen baliatuko bere teologia **jakitate** zabalak artzain eta laborari herri hartan. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gaizkiaren jakitatearen** (3); **jakitate handiko** (3); **jakitate haundiko** (3)

---

# jakite **1** *iz* zerbaiten berri eskuratzea edo izatea. ik **jakinduria; jakintza.**

Eta herorrek hura baketan eta fedez betea dela jakinik, **jakite** horrek herorri ere beste baketasun bat emango dik. Edorta Jimenez

Hitzek inon ikasi gabeko **jakite** bat dakarte berekin, ezjakinak edo jakinezak gozatutako **jakite** bat, eta hargatik dira pentsamenduaren ama eta ume. Kanpotik gorputzaren sentimenen bidez datozkigun **jakite** guztiak alde batera utziko ditugu hausnarketa honetan. Iñaki Segurola

Axioma eta perpausen idortasunpean **jakite** guztiz alai bat mamitzen da; bizitza bera **jakite** bihurtua den bizi-ordena bat. Piarres Xarriton

Jardute diskurtsibo batean zertaz hitz egin daitekeen, horixe da **jakite** bat. Xabier Arregi

Eraketa diskurtsibo guztietan, zientzia eta **jakitearen** arteko harreman zehatza aurkitzen da. Xabier Arregi

Zer da gaur *epistéme* **(jakitea)** eta zer *dóxa* (iritzia)? Askoren artean

Askotan ezagutza eta **jakitea** bereizi egiten dira, eta hurrenez hurren objektuei eta proposizioei dagozkiela esaten da. Askoren artean

Teologia eta ontologia metafisikan elkartu ziren, fisikaz harago dagoen **jakitean**. Askoren artean

Alde batetik, ekologia, *oikos*aren etxe global honen *lógos*a edo **jakitea,** eta beste aldetik, ekonomia, [...] *oikos*aren *nómos*aren zientzia, *oikos*a kudeatzeko araua edota legea. Askoren artean

Jakitearen kontzeptu homerikoa praktikoa da[…]; **jakitea** teknika da ezer baino lehen, trebetasun praktikoa. **Jakitea** oroimenean datza. Askoren artean

Filosofo grekoentzat etika eta politika batuta zeuden; baina, kontuan izan ote behar luke gaur egungo Filosofia Politikoak bi **jakite** horien arteko batasun hori? Askoren artean

Eta okerrena ez zunan ez **jakite** hori, ezin jakina baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Lanean zer egin ez dakienean, beste ez- **jakite** bat izaten da, txarra baina eramankorra. Lourdes Oñederra

Zientziak [...] agertzen dira eraketa diskurtsibo baten ingurumenaren baitan **jakitezko** atzealde baten gainean. Xabier Arregi

**2** (izenondoekin)

Jainkoak jakinduria eta zuhurtzia handia eman zizkion Salomoni, bai eta itsasertzeko hondartza bezainbateko **jakite** zabala ere. Elizen arteko biblia

Zu ez zara gorputz ederrekoa, ez duzu **jakite** handirik, ez zara handikia. Askoren artean

Munduko maluratuek zientzia barri bat ikasi behar zuten, baina gerezien sasoia ez zen **jakite** hutsaz helduko. Koldo Izagirre

Ene unibertso osoaz **jakite** egiazko eta sendoa lortu zuen. Xabier Kintana

Jakiteaz gogoeta egiten duenean **jakite** praktikoaz ari da, zehazki […] teknikaz. Askoren artean

Platonen ustez, **jakite** politikoa **jakite** filosofikoaren mende dago. Askoren artean

Ez dago edertasunik teknozientzian, ez dago **jakite** teknikorik arteetan? Askoren artean

Hori bide da etika eta Etikaren auzia: nola liteke **jakite** gorena eta aintzatetsiena gizaki hain guztiz dohakabeak sortzeko gai izatea? Piarres Xarriton

**Jakite** hibridoen laborategia. Berria - Kultura

**3** (izenlagunekin)

Gero, jakina, bulgarizaziotik kanpora ere, behin-behineko hipotesiak aise bihurtzen dira behin-betiko **jakite,** arian-arian eta ahotan maiz erabiliaren bortxaz. Iñaki Segurola

Debekaturiko **jakite** bat zen hura. Joxan Elosegi

Izuz, lotsaz, ukazioz zikinduriko **jakite** bat, horman atxikiriko, harrituriko, **jakite** bat. Joxan Elosegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Antzin Aroko pentsamenduan **jakite** -diziplina nagusia ontologia zen. Askoren artean

Zientzia (edo zientziatzat jotzen dena) **jakite** -arlo batean kokatzen da. Xabier Arregi

Bi **jakite** -mota ditugu baliagarri: *sophia* -*episteme* delakoa- eta politikaren zientzia. Askoren artean

Geure buruaren ontologia kritikoa ez da teoria gisa hartu behar, ezta metatzen den **jakite** -multzo gisa ere; jarrera gisa hartu behar da, ethos gisa. Askoren artean

Nola lortzen duzue [euskararen] **jakite** maila erabilerarekin uztartzea? Berria - Euskal Herria

Orain artean **jakite** maila eskolak ematen zuen eta erabilera aparte zegoen, gu jakitea erabilerarekin uztartzen ari garela uste dut. Berria - Euskal Herria

Gure hizkuntza berreskuratu, hedatu eta plazara jalgiarazi nahian, **jakite** hegoek igoa. Pello Salaburu

**5** (aditz osagaiekin)

Etsitzen **jakite** bat baita zoriontasun deklaratua. Iñaki Segurola

Etorraldi bakoitzean joko zaituzte, egunero-egunero, gau eta egun; horren berri **jakite** hutsak ikara gorria emango dizue. bikaintasun berezkoaren ezaugarri den isilik egoten **jakite** dotore hori. Elizen arteko biblia

Biharko eguna zerekin etorriko zaigun ez **jakite** horrek nori bere erara eragiten dio. Juan Garzia

Malgutasun hori, taldea eskutik edukitzeko soka noiz askatu **jakite** hori zen Perikok falta zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asmoz eta jakitez** (7); **jakite hutsak** (5); **jakite maila** (7); **jakite naturalez** (3)

---

# jakitegi *(3 agerraldi, 2 liburutan)* *iz* jakien gordetegia. ik **jakitoki; janaritegi.**

Eta gainera aterpea geneukan, nahikoa egur sutarako, janaria sobran **jakitegian..** . Xabier Mendiguren Elizegi

Hor, **jakitegi** horretan, badagoela gordea amuarrain bat galanta. Koro Navarro

**Jakitegian** zer geneukan begira hasi zen Oriol. Xabier Mendiguren Elizegi

## jakiteke *adlag* jakin gabe.

Zergatik egiten zuen **jakiteke**. Karlos Zabala

Safok biolin bat hartu zuen, Juvenaliarena ote zen **jakiteke**. Felipe Juaristi

Veneziako marinelek Venezia uztera zihoazenean itzuliko ote ziren ziur **jakiteke,** kantatzen zuten agur kantari ekin zion. Felipe Juaristi

Eta berriro ekiten zioten ibilaldi gogorrari, iritsiko ote ziren ala bestela bidean geratuko ote ziren **jakiteke**. Felipe Juaristi

Miopia puntu batek sortzen duen begirada galdu eta erakargarria, eta noizean behin, nola **jakiteke,** ateratzen zitzaion irribarre samur eta laño hura. Unai Iturriaga

---

## jakiteratu, jakitera(tu), jakiteratzen da *ad* jabetu (4. adieran).

Gauzarik esanguratsuenek deus gutxi esaten digutela **jakiteratzen** gara. Iñaki Segurola

Lehentxeago edo geroxeago **jakiteratuko** zara urrutieneko hemen haietan ere 2 ardi eta 2 ahari 4 buru direla, jaioak hiltzea zor duela eta hilak bakea. Iñaki Segurola

---

## jakitoki *(10 agerraldi, 5 liburutan) iz* jakitegia.

Elkarrekin bazkaltzen genuen ahal genuen guztietan -han goian, bikario-etxeko **jakitokian,** eta bikarioaren emazteak limoi-edaria ekartzen zigun-. Mirentxu Larrañaga

Jaki berriak atera zituzten sukaldeko hozkailu erraldoitik eta **jakitokitik**. Aitor Arana

Patxaran dezente edan zuen ahizpa nagusiak, eta txanpaina ere bai, dena sukaldeko **jakitokitik** ekarrita. Aitor Arana

-Hau da nire Zaindaritza konpainiaren biltegia eta **jakitokia** -esan zuen Beregondek-. Agustin Otsoa

**Jakitoki**-usain koipetsua zerion. Lopez de Arana

---

## jakitun 1 *iz* dakien pertsona.

Dakitena esateko moduan ere alde handia dago **jakitun** hutsetik jakintsura. Joxerra Garzia

**Jakitunak,** asko dakien kasuan ere, dakiena baino ez daki. Joxerra Garzia

Maitaleen ahotsa, isilmandatariena, **jakitunarena** eta ezjakinarena, zuhurrarena eta maltzurrarena... Jon Muñoz

Ezjakinaren txantxa inozoa edo **jakitunaren** probokazio zitala? Aingeru Epaltza

Ezjakin bi balio baititu **jakitun** batek. Juan Garzia

• **2** (egon, izan, egin, eduki, jarri… aditzekin)

Orain, ohartarazi didatenez, **jakitun** nago eta beldur naiz; lehen, ordea, ez nekien ezer eta lasai edango nuen kafea. Jose Morales

Danceny **jakitun** dago jadanik. Jon Muñoz

Iluntze hartan, eguzkia sartzearekin batera, Sanker **jakitun** egin gabe irten zen kafetik. Patxi Zubizarreta

Luze gabe, gidaria **jakitun** jartzea eta kamioneta gelditzea lortu dugu. Patxi Zubizarreta

Gu **jakitun** jarri gabe ezkondu egin al zara? Patxi Zubizarreta

Giuliak, ezin izan zuen egiaztatu ea orduko elkarrekin oheratu ote ziren: **jakitun** edukiko ninduen. Juan Garzia

Batzuetan, garaiko obraren bat ere irakurriko zuen, **jakitun** egotearren. Monika Etxebarria

**Jakitun** egon nahiak ikasbideak iradoki zizkidan. Jon Muñoz

Zuhaur ez zaude menturaz ni baino **jakitunago**. Jon Muñoz

Aberats ametsak gorabehera, bere egoeraz **jakitun** zegoen. Patxi Zubizarreta

Ondo **jakitun** zeuden guztiaz. Jon Muñoz

Destilatzen hasi orduko, **jakitun** zara aspaldiko mendeek sakratuztaturiko erritu bat errepikatzen ari zarela. Juan Garzia

Alabaina, **jakitun** zen sumendi baten gorenean bizi zela. Patxi Zubizarreta

**3** (egon, izan, egin, ipini… aditzekin, -en atzizkiaren eskuinean)

Gelaria sekretuaren **jakitun** dago. Jon Muñoz

-Sekretu baten **jakitun** egin behar zaitut. Patxi Zubizarreta

Ziur naiz gertakari handi horren **jakitun** dagoela jadanik. Jon Muñoz

Zortzi egun baditu alabaina neure eder horren isilgordeen **jakitun** naizela. Jon Muñoz

Bere mugen **jakitun** zen. Juan Garzia

Zertarako egin behar nuen Edurne horren guztiaren **jakitun**? Aingeru Epaltza

Haiei entzunda egin nintzen egoeraren **jakitun**. Aingeru Epaltza

Etorri aitzin, neronek egina nuen, telefonoz, neure premien **jakitun**. Aingeru Epaltza

Neronek eman nahi nion berria, eta barrua hustu haren aurrean, txikitandik gorderik nekarren zama hustu, nire historia sekretuaren **jakitun** ipini, koipea erabat garbitu behingoz. Juan Kruz Igerabide

Egia esateko, horren guztiaren **jakitun** naiz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neure ezjakintasunaren guztiz **jakitun** nago... Berria - Euskal Herria

· *(aditza ezabaturik)* George Westinghousek, bere aurkariaren azpijokoaren **jakitun,** uko egin zion hasieran aulki elektrikorako bere produktuak saltzeari. Harkaitz Cano

Naziek, horren **jakitun,** Hungaria okupatu zuten 1944ko martxoaren 19an. Urtzi Urrutikoetxea

**4** (adizlagun gisa)

Nahitara joaten zen Abasekin ibili bat egitera, haiekin topo egingo zuela **jakitun,** eta arretaz aztertzen zituen haien begirakune jakin-goseak. Patxi Zubizarreta

**Jakitun,** antza, nola ez dakidan arren, erantzunagatik edozer gauza ordaintzeko prest nengoela. Ramon Saizarbitoria

Ontzia hondora zihoala ikusirik eta hil egingo zirela **jakitun,** marinelek uretara salto egin zuten "Donostiako Martxa" kantatzen. Martin Anso

• **5** *iz* jakintsua.

Literatur berpizkunde baten monumentu tipikoa bere lehen fasean antologia, corpus, thesaurus, lexiko edo entziklopedia bat izaten da, printze baten eskariz **jakitun**-talde batek bildua. Iñaki Mendiguren

Babiloniako **jakitun** guztiak bilarazi nituen, ametsaren esanahia azaltzeko. Elizen arteko biblia

Erregea haserre gorritan jarri zen, eta Babiloniako **jakitun** guztiak hiltzeko agindu zuen. Elizen arteko biblia

Danielek erantzun: -Errege jauna, ez dago **jakitunik,** ez aztirik, ez igarlerik edo astrologorik ametsaren misterioa azal diezazukeenik. Elizen arteko biblia

· Denak ere harribitxigintzan **jakitunak** eta harri kristaldu hura nondik moztu asmatzeko eginahalako azterketa zientifiko guztiak egin zituztenak. J.M. Olaizola "Txiliku"

• **6** *izond* dakiena, jakintsua.

Hura bezalako gizon **jakitun** eta ospetsua erre ondoren, nola barkatu etxeko nagusia hil zuen familia bati? J.M. Olaizola "Txiliku"

Orduko argitaratua du *Gero,* lortua du gizon **jakitunaren** fama, ortodoxiak zimendu ezin sendoagoak aurkitu ditu beraren lan nekagaitzean. Anjel Lertxundi

Emakume **jakitunen** bilgune sakratuak hurritzez osatuak omen ziren. Pello Zabala

Arazorik gabe egin zitzakeela, gelako horma zurietan, aurrean airean eskegirik edo proiektaturik zeukanaren marra nagusiak, kamera **jakitun** baten gisara. Xabier Olarra

Katedraleko artxiboan, Santxo **Jakitunaren** garaiko [...] hamaika tratu jasotzen da. Patziku Perurena

Etxe zahar batzuk, hauetako bat Alfontso **Jakituna** errege astronomoaren garaian jasoa. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arriskuaren jakitun** (5); **egoeraren jakitun** (6); **guztiaren jakitun** (5); **guztiz jakitun** (3); **horren guztiaren jakitun** (3); **horren jakitun** (36); **horren jakitun da** (3); **horren jakitun dira** (3); **horretaz jakitun** (4); **jakitun da** (27); **jakitun dago** (4); **jakitun dira** (19); **jakitun egin** (20); **jakitun egitea** (4); **jakitun egon** (7); **jakitun egonik** (3); **jakitun egoteko** (3); **jakitun guztiak** (4); **jakitun hutsetik** (4); **jakitun izan** (17); **jakitun izango** (5); **jakitun izanik** (4); **jakitun izatea** (4); **jakitun jarri** (6); **jakitun nago** (3); **jakitun naiz** (5); **jakitun nintzela** (3); **jakitun zegoen** (8); **jakitun zela** (5); **jakitun zen** (13); **jakitun ziren** (4); **mugen jakitun** (3); **sekretuaren jakitun** (3); **zailtasunez jakitun** (3)

**antso jakituna** (18); **antso jakituna fundazioak** (6); **antso jakituna kalean** (3

---

# jakituria *(383 agerraldi, 81 liburu eta 36 artikulutan)* **1** *iz* jakinduria.

Arrazoimenak gauza iragankorrekin duen loturari buruz ari da zientzia; **jakituria,** ostera, aldaezinera eta betikora begira dago. Imanol Unzurrunzaga

Jakintsuak izango zarete eta ez duzue **jakituria** ezagutuko. Imanol Unzurrunzaga

Zientzia, filosofia, **jakituria** guztiak, gizakiaren izaeran biltzen dira. Jenaro Garate

Ikuskari polita, Sorbonako **jakituria** guztia lurreko apalean! Aingeru Epaltza

Edozein behatzaile axalekok *bluff*tzat hartuko luke aipuz osatutako **jakituria** hura guztia. Iñaki Iñurrieta

Ahozko kulturetako kontalarien **jakituria**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Helburua ezaguera eta **jakituria** bilatzea denean. Berria - Gaiak

Balioa duena ez da informazioa bera, haren bidez lortzen dugun **jakituria** baizik. Berria - Gaiak

· Ttipiren ordenagailuaren **jakituria** horretarainokoa ote zen? Aingeru Epaltza

**2** (izenondoekin)

Aldaezina den **jakituria** gorenaren kontenplazioan. Imanol Unzurrunzaga

Zelten elezahar-sorta aberatsean, hurra beti ageri da **jakituria** mamituaren zeinu eta sinbolo. Pello Zabala

**Jakituria** entziklopedikoa zuela, eta karisma ikaragarria. Unai Elorriaga

Han txertatu nahi izan zuen bere **jakituria** akademikoa. Berria - Kirola

Hauek beste bizitzako gauzetarako laudagarria den ardura erakutsi zuten, [...] baina bizitza honetako arazoez oso **jakituria** urria. Iñaki Iñurrieta

Bere **jakituria** ñimiñoaren gotorlekuan babestua. Juan Garzia

Gogoan dugu hark zuhurtasun eta **jakituria** handiz esandakoa. Santiago Iruretagoiena

Imanolek, hala ere, bere **jakituria** isilaz ustekabe bat baino gehiago eman zidan azken urteetan. Aitor Arana

**-Jakituria** dirdaitsuaren aldean hutsa da gure axaleko adimena. Patxi Zubizarreta

Bere horretan dirauen Jakituriaren maitasuna mespretxatuz, aldi baterako gauza aldakorren **jakituria** esperimentala gutiziatzen denean. Imanol Unzurrunzaga

Bere **jakituria** eszeniko guztia baliatzen du esku artean duen altxorrari distira eta sendotasuna emateko. Berria - Kultura

Galbraith-ek aipatu ohi duen *conventional wisdom* edo **jakituria** konbentzionala delakoa ezartzen, alegia. Iñaki Heras

**3** (izenlagunekin)

Bizirik irauteko soilik balio duen oinarrizko **jakituria** duen jendea. Pako Aristi

Bizkaiko edozein taxi-gidarik herriko kaleak ezagutzea bezain beharrezkoa du futbol-taldeaz gutxieneko **jakituria** bidaiariarekin berba egin gura izanez gero. Urtzi Urrutikoeetxea

Benetan ukatu nahi ote dute Jainkozko **Jakituria**? Patxi Zubizarreta

Ezinezkoa dela egiazko **jakituria** lortzea aitzinetik horien jabe izan gabe. Xabier Kintana

Egiazko **jakituria** egiaren ezagupena baino ez da, edozein dela ere arloa. Esteban Antxustegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskarmentua zuen **jakituria**-iturri orduan Pessoak. Juan Luis Zabala

Ilararen azken muturrean, ordea, bazegoen fraide bat, komentuko apalena, sasoiko **jakituria**-testuak sekula ikasi ez zituena. Xabier Aranburu

Abentura eta **jakituria** gose aseezina duen gaztea. Berria - Kultura

Bada hor beraren gainetik -beraren ezjakinean- dabilen **jakituria** puntu bat. Iñaki Iñurrieta

Zoriaren kontra borrokatzea zein alferra zen sentitu zuen: hori zuen urteek utzi zioten **jakituria**-zama. Irene Aldasoro

Hala bada, nazioarteko zuzeneko inbertsioa **jakituria**-transferentzia ere bada, alegia, ikaste baten transferentzia. Koro Navarro

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina giza **jakituria** eskasa litzateke hauetara soilik mugatuko balitz. Imanol Unzurrunzaga

Atsotitz eta esaera horien azpian dagoen herri- **jakituria** laudatzeaz gainera, [...]. Pello Zabala

Narrazio- **jakituria** eskerga bat zebilela jaun eta jabe [bi liburu] haien orrietan. Juan Garzia

Dahlmann-en esgrima **jakituria** guztia zera zen: kolpeak gorantz jo behar zirela, laban ahoa barrurantz. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egiazko jakituria** (3); **herri jakituria** (3); **jakituria guztia** (9); **jakituria lortzeko** (4); **jakituria puntu bat** (4); **jakituria zer den** (3); **jaungoikoaren jakituria** (3)

**herri jakituriak** (3)

---

# jakiunde *(3 agerraldi, 2 liburutan)* *iz* jakinduria.

Teologoak mundua ikusten dutenak dira (gorrak dira berenez, hitz burtzoragarrientzako gorrak), eta interpretazio eta **jakiunde** salbagarri baten behar direnak. Iñaki Segurola

Jende informatuaren ondotik ihesi, hainbeste ideia, kontzeptu, esplikazio, informazio, abstrakzio kultural, jakite, jakintza, jakitate eta **jakiundetatik** ihesi... zinezko hitz apur batzuen bila, bataiatu gabeko ur pixkaten bila. Iñaki Segurola

---

# jakiundetsu *izond* jakiundez betea.

Jo dezagun gizonaren letaniak kantatzen hasi behar dugula **(jakiundetsuek** hala egin ohi dute beren gisara: *homo habilis, homo sapiens, homo sexualis*...). Iñaki Segurola

---

# jakobetiar *iz ipar* Santiago Bidea egiten duen erromesa. ik **jakuetar.**

Azken hamarkada hauetan ikusten ditugu **jakobetiarrak** oinez, Galiziara buruz. Herria

Mendeetan zehar, Jainkoak daki zenbat eta zenbat kristau, nafar eta **jakobetiar,** belaunikatu diren, orai bezala, Orreagako Amaren oinetan, bereziki irailaren 8 guziz, haren urtebetetzekari. Herria

---

# jakobinismo 1 *iz* Frantziar Iraultzan sorturiko doktrina politiko erabat erradikala.

Gutxiengo menderatzailearen aurkako erreakzio proletarioak adierazpide bortitza aurkitu zuen hainbat garaitan eta hainbat lekutan, Erdi Aroko nekazari-gerretatik Frantziar Iraultzako **jakobinismoraino**. Iñaki Mendiguren

**2** errepublikanismo errotik zentralista aldarrikatzen duen joera politikoa.

Beste alde bat ere izan zuen, bizkitartean, Frantziako Terroreak, bere kulturari doakiona, **jakobinismoa** deitzen baita geroztik behialako iraultzak hedatu zuen gaitz politiko itsusia. Piarres Xarriton

Zentralismoa eta **jakobinismoa** oraino ere printzipio sakonak baitira Frantzian. Berria - Euskal Herria

PS alderdiko kide, zinegotzi eta eskualde kontseilari ohia ez da alderdiaren Pirinio Atlantikoetako zuzendaritzaren ildokoa, **jakobinismoaren** aurkakoa eta euskal departamenduaren aldekoa da. Berria - Euskal Herria

Frantses **jakobinismoak** izigarrizko kalteak eragin ditu gure Herrian. Herria

**Jakobinismoa** izan zen [Kemal Ataturkek] Napoleonengandik hartu eta [turkiar] Errepublikari ezarri zion beste ezaugarrietako bat. Berria - Mundua

---

# jakobinista *izond/iz* jakobinismoaren aldekoa.

Zer duzu libido mota horren kontra, ala **jakobinista** zara, arrazoi errepublikanoz betea? Piarres Aintziart

Jesus! **jakobinista,** arrazionalista, errepublikarra! Piarres Aintziart

---

# jakobinkeria *iz* jakobinismoa.

Hizkuntza bat, bakarra, frantsesa, bertzeak ixilik! hori da azken **jakobinkeria**. Herria

---

# jakobino 1 *izond* jakobinismoari dagokiona; jakobinismoaren aldekoa.

Iraultzaile **jakobinoek** aldiz, beren Errepublika jarririk Erregeren aulkian, lepoa moztu zioten gillotinaz Erregeri berari. Piarres Xarriton

Errepublikak bete zuen Grégoire apez abertzaleak eta haren lagun iraultzaile **jakobinoek** egin ametsa: *transformer les paysans en français,* hots, "gure arbaso baserritarren frantsestea" eta Nazio Handiaren menpeko zerbitzari isil eta umil egitea. Piarres Xarriton

• **2** Frantziar Iraultzako alderdi erradikaleneko kidea.

Erregeak eta nobleek ez zuten onartu nahi girondinoek proposatzen zuten monarkia konstituzionala, are gutxiago **jakobinoek** aldarrikatzen zuten errepublika. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jakobinoek** isuri zuten beraz odola, berena eta besteena, gaindika, Parisetik Marseilla, Lyon, Bordele edo Baionaraino helaraziz "terrorea". Piarres Xarriton

Ondoko asteetan, Joantto Ithurbide Aturri ertzeko hirian barna ibili zen, **Jakobino** sutsuenek Pariseko boterea uzkaili eta politikoki haiekin ados ez ziren guziak garbitu gogo omen zituztelako zurrumurruei soraio. Elena Touyarou

Kristautasunaren aurkako beroaldi handienean **jakobinoen** lehendakari aukeratu zuten Cloots, baina berehala hasi zitzaion Robespierre kontra egiten. J.M. Olaizola "Txiliku"

1790ean, Parisa itzulirik, **Jakobinoen** klubean sartu zen, eta "Journal des Amis de la Constitution" ("Konstituzioaren Adiskideen Kazeta") **jakobinoen** aldizkariaren zuzendari izan zen. Jon Muñoz

• **3** *izond/iz* zentralismoaren aldezle sutsua.

Eta Unamuno-ren tesia, [...] tesi "ilustratu" klasikoa **(jakobinoa):** progresoaren hizkuntza Estatuaren hizkuntza bakarrik dela. Joxe Azurmendi

Artean nazionalismoa ere ezkertiarra eta iraultzaile **jakobinoa** zen -Polonia, Grezia, Italia!-. Koldo Izagirre

Frantzia **jakobinoa** da. Herria

Beti izan da Chirac frantses **jakobinoaren** paradigma. Hasier Etxeberria

Dupont-Aignan-en inguruan baitaude Europaren kontra direnak, **jakobino** errabiatuak, hots, eskuinaren eskuina. Herria

Haien artean, izan diten komunistak, sozialistak edo bertze alderdietakoak badira **jakobino** okituak, Korsikan ikusi den bezala azken erreferendumean. Herria

Denek dakiten bezala, gobernuak aldatzen dira, bainan **jakobino** integristen xedeak ez. Herria

Departamenduan gehiengoa duen tendentzia **jakobinoa** da, euskal departamenduaren aurkakoa errotik. Berria - Euskal Herria

Alderdi Sozialistako **sektore** jakobinoak «proiektu arriskutsutzat» jo du «Frantziaren batasunarentzat». Berria - Harian

PCF alderdi **jakobinoak,** abertzaleak nekez jasaten dituen LCR alderdiak eta PSko sektore **jakobinoak** onartuko ote dute beste itun baten negoziazioari begira, herri eta hizkuntza gutxituen onarmenaren alde ere borrokatzea? Berria - Harian

PSOEk «demokrazia eraberritzeko» aukera duela gaineratu zuen: «Bere bi arima historikoetatik bat hautatu beharko du, PPren antzekoa den arima **jakobino** eta zentralista, edo federalismoatik hurbilago dagoen arima». Berria - Euskal Herria

Jose Bono **jakobinoak** gobernua utzi du. Berria - Harian

---

# jakuebide *iz* Santiago Bidea.

**Jakuebideari** buruzko museo txiki bat dago zerbitzugunearen barruan, frantsesek edozein aitzakia hartzen dute turismoa promozionatzeko Mikel Hernandez Abaitua

---

# jakuetar *izlag* Jondoni Jakueri dagokiona.

Testamentu Berriaren bertsio **jakuetarra**. Xabier Olarra

---

jakuzzi ik **jacuzzi**.

---

jakuzzidun ik **jacuzzidun**.

---

# jale 1 *izond* jaten duena.

Igandeko bazkaria arraroa zen ona eta hemen 333 **jale** izan dira. Herria

**Jaleagandik** sortu da jatekoa, / indartsuagandik gozotasuna. Jose Antonio Mujika

**2** (izenondoekin)

Nik bazterretik beste zerbaiti tira eta kosk egiten diot, tripazale samarra bainaiz; **jale** handia alegia. Berria - Kirola

Nahikoa izango dugu noski, oilasko pare bat erretzen badigute; mintxo-samar baitabil urdailetik nire nagusia eta neroni ere ez naiz **jale** handi-handitakoa. Patxi Ezkiaga

Hasieran beldur zen anaiari nahigabea emango ote zion, **jale** txikia baitzen hura, janari onez destainaka baizik mintzatzen ez zena gizon ezjakinen gisan. Karlos Zabala

Hastapenetan entretenimendu hauek hildakoen omenezko jaiak izaten ziren; [...] nahiz eta uste zabalduena izan antzinako hildakoak, gaurkoen antzera, **jale** kaxkarrak zirela. Xabier Olarra

Tripazain handiek odola xurgatu zietek **jale** urriei... Karlos Zabala

Errezetak gaur egungo **jale** mokofinen premietara egokitzen. Joxerra Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aitaren aldetiko osaba batzuei ere, pasta- **jale** omen handikoak guztiak, nabarmendu zitzaien zahartzaroan gaitzaren sintomarik. Juan Garzia

Charlyk etorkizuna iragarri zion ogitarteko- **jaleari:** [...]. Aingeru Epaltza

Asko barazki **jaleak** dira; okelarik erosi ezin dutelako. Gotzon Garate

Zimaur- **jale** honek oraino gauza franko kontatu behar ziguk komisaldegian. Aingeru Epaltza

Denboraren alaba; esapide bitxia benetan, berez denbora haur- **jalea** izaki. Juan Kruz Igerabide

Nazio askotako txerpolari, su- **jale** eta gezur-esale ugarirekin batera. Felipe Juaristi

Ez naiz, parrandaren batean baizen, ez bertsozale ez bertso- **jale** amorratua. Anjel Lertxundi

Zenbaitek kontatzeko jaioa dirudi: pagotxa kontu- **jalearentzat** . Kontu- **jalea** kontu-jateko dago. Arantxa Iturbe

Hitz **jaleak** dira gobernukoak, izan diten ezkerrekoak ala eskuinekoak. Herria

Hi baizik ez hintzen falta sarraski- **jaleen** kofradiatik. Aingeru Epaltza

Ezin konpreniturik geunden zer ikus zezakeen Charlyk saindu- **jale** motz-estu horrengan. Aingeru Epaltza

Beste hizkera judu-italiar batzuetan bada "khalto" adjektiboa, **"argizari-jale"** zentzuan justu, batez ere kristau irudi-gurtzailea izendatzeko erabilia. Juan Garzia

· Batek bere haragi **jale** hortzak erakutsi zizkidan. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, elkarketak izenondo balioa duela)

Su oro- **jalea** bezala lehertu zitzaidan barrenean. Matías Múgica

Beltzak idolo ankerrak ditu, gizon- **jaleak** . Josu Zabaleta

Neurtu behar liteke uraren kalitatea Aturrira heltzen den mementoan, landare pozoi **jaleen** balioa zer den jakiteko. Herria

Zer bihurtu behar du, bururik gabeko gorpu ala bare haragi- **jale** ? Iñaki Mendiguren

Zimino gasna- **jale** horien herri zaharra. Herria

Sagu liburu- **jalea** . Anjel Lertxundi

Hiltzaile bila dabiltzanek ez diete jaramonik egiten eskeko santu- **jaleei** . Anjel Lertxundi

Gure karrakako gizon katu- **jaleari** . Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gizon jalea** (3); **kontu jalea** (3)

---

# jalea *iz* jelea.

Imajina daitezkeen zapore guztietako izozkiak, sagar-tartak, melaza-tartak, txokolatezko tximistak eta marmeladazko doughnutsak, trifle-a, marrubiak, **jalea,** arroz-pastela... Iñaki Mendiguren

---

# jalekeria *iz* jalearen bizioa.

Gabon gaueko afariaren **jalekeria** margotu nian, gauerdian tripakadari emandako ordua, kantikek hustutako urdailen betekada, ezta? Karlos Zabala

*Khaltrúm,* edo *Khantrúm,* katolikoen erritu eta argizari- **jalekeria** da, birritan jasanezina: politeista delako eta, batez ere, imajinaz josirik egonik [...] idolatria delako. Juan Garzia

---

# jalgi, jalgitzen *(orobat **jali** g.er., **jalki** g.er. eta **jelki** g.er.)* **1** da *ad* irten, atera. ik **ilki.**

Oihanetik **jelki** da, karruz beztitürik. Herria

Jean Marie fabrikatik **jalgi** zen astiro, Roland, Sebas, Roger gorritua eta langile batzuk gibeletik zeuzkala. Itxaro Borda

"Agur Maria" kantatuz eta kutxa segituz **jalgi** ginen elizatik. Daniel Landart

Luixa **jalgi** zen bere aitaren autotik. Janbattitt Dirassar

Burgosetik **jalgitzean,** harri eder batean, hitz hauek: Camino de Santiago 532 km. Piarres Aintziart

Burlatatik **jalgia** naiz, gibelean utzirik hartu behar nuen bidea! Piarres Aintziart

Jendea ez oraino **jalgia** plaza zabal eder pausagarrira. Piarres Aintziart

Hirira **jalgi** aitzin, so egona nintzaion gizonari. Piarres Aintziart

Goiz erditsutan **jalgi** zen halere karrikarat. Janbattitt Dirassar

Orduan behar nuen presondegitik **jalgi,** utzi apezgoa. Piarres Aintziart

Ondoren, urrezko gurutze bat ikusi zuen Frantziskoren ahotik **jalgitzen** . Askoren artean

Hondartzari buruz bazoazelarik, lainoen artetik **jalgitzen** ari zen eguzkiak azken lanbroak urmariarazi zituen. Aurelia Arkotxa

Hitzak listuka **jalgi** zitzaizkidan: [...]. Aingeru Epaltza

*ik* jalki[1] 4.

Hitz-jario lasterra **jalgi** zitzaion ezpainetatik. Mirentxu Larrañaga

Hainbesteko berotasunez eman zion muxu non emazteari malkoak **jalki** baitzitzaizkion begietara. Anton Garikano

**2** *irud*

Loeriatik **jalgitzen** zenean, gizonaren ezpainak mugitzen jarraitzen zituen. Itxaro Borda

Ordu arte jasan errabia haserre gorrian **jalgi** zitzaion. Elena Touyarou

Ezin trenkatuzko auzitik **jalgitzeko** . Piarres Aintziart

Bulta luze batetako isilunetik **jalgi** dira bi neska gazteak. Piarres Aintziart

Menturaz goizetik metatua dudan akidurak nahi baitu nonbaitik **jalgi** . Piarres Aintziart

Orduko erakasleen gisa, biek larderia gaitza izanez, ez zuten barkatzen urratsak eta jauziak ongi **jalgi** arte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Laborari ainitzek SMIC-aren heineko mozkina **jalitzen** dute bere lanetik. Herria

Nahi gabeko oroimenak baizik ez dezake ekar oso-osorik, sakonaldeetatik berez **jalgiz,** inozentzian, harriduran eta izuan bildurik, haurtzaroko esperientziaren zer-nolakoa. Xabier Olarra

• **3** du *ad* atera.

Martiz buhameak sakelatik ganibeta **jalgi** eta saihetsean metatuak ziren mihimen ezpaletarik bat hartu zuenean. Itxaro Borda

Sukalde hutsa zeharkatu, hozkailua ireki eta garagardo bat **jalgi** zuen. Itxaro Borda

Behin gezur bat sakatzen duenak alabaina ez ote du beste bat berdin aise **jalgitzen** ahal? Janbattitt Dirassar

Etxeparek euskarazko lehen liburua plazara **jalgi** zuenean. Joxerra Garzia

Behin, haietarik batek ateraldi hau ere **jalgi** zuen: Ni hasteko, Jainkoak begira nazala, edozein gisaz, euskararen agonia luzatzetik! Piarres Xarriton

**4** ***sar-jalgi*** *iz* sartu-irtena.

Lisboako bidean ez baldin bazuen arterik hartu bere Xabierko sortetxean sar-**jalgi** baten egiteko [...]. Piarres Xarriton

Ene azken piezak beno labürtxeago da, hots hiru orenez emaitekoa, bizitarzün amiñi batekin aritzez, eta bereziki sar-**jelkietan** denbora sobera galdü gabe, hori beita llabürtzeko giltzik hoberena. Herria

**5** ***sar-jalgika*** *(corpusean **sar-jalika** soilik)* *iz* sartu-irtenka.

Dena den, nik dakitan pentze batean , sar-**jalika** ari dira, egunaz kanpoan eta gauaz barnean. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **elizatik jalgi** (3); **etxetik jalgi** (6); **euskara jalgi hadi** (5); **ganbaratik jalgi** (3); **herritik jalgi** (4); **jalgi hadi dantzara** (3); **jalgi hadi mundura** (3); **jalgi hadi plazara** (3); **kanpora jalgi** (3); **kanporat jalgi** (5); **oihanetik jalgi** (3); **plazara jalgi** (3); **presondegitik jalgi** (7); **sar jalgi** (3)
>
> **jalgitzen da kantua** (3)

---

# **jalgiarazi**, jalgiaraz, jalgiarazten *(orobat **jalkiarazi** g.er.)* du *ad* jalgitzera behartu, aterarazi.

Hoteleko etxekoandreak prestatu didan iratzargailuak ohetik punpeka **jalgiarazirik,** banoa. Piarres Aintziart

Joanttok Mari besotik hartu zuen eta etxetik **jalgiarazi,** bortizki. Elena Touyarou

-Gure etxeetarik **jalgiaraziak,** irainduak, abereak bezala garraiatuak izatea, gure lurretik erbesteratuak izatea... Elena Touyarou

Zientzia oinarri enpirikoen gainean jasotzen da, behaketa eta saiakeren bitartez, printzipioak esperientziaren orokortzea baino ez izaki [...] ezin da hastapeneko proposizio nabari batetik hara dedukzioz **jalgiarazi** . Askoren artean

Horrela batek bere espekulaziotik halako nozioa **jalkiaraz** dezake, eta beste bati, ordea, hori erabat ulergaitz gertatzen zaio. Xabier Kintana

---

# **jalgibide** *(corpusean **jalibide** eta **jelkibide** soilik)* irtenbidea, aterabidea.

Psikiatrikotik eroetxera, edota **jalibidea** otoi? Jose Angel Irigaray

Xiberoan eta Baxenabarren **jelkibide** baikor bat ediren züan laborari-artzainen kexüari, oihanetako legearen hobekuntza bat ardietsiz, Kontseilü jeneralaren arartez, Pariseko depütatüen kanberan. Herria

---

# **jalgidura** *iz* jalgitzea.

Eta aldi berean, beragan dagoen, izan ere Beragandik jalgitako ezagupenean, maitasunaren ezin esanezko uholdea ateratzen da, Izpiritu Santua dena; nola **jalgidura** miragarri haiek distiratzen duten Hirutasunaren esan ezinezko atseginean: Hirutasun berean eta esentziazko batasunean. Joan Mari Lekuona

---

# **jalgigune** *iz* irteteko gunea.

Eusebio, pasabideko **jalgigunearen** gibeletik barrandan zegoen. Eneko Bidegain

---

# **jalgitze** *iz* irtetea.

Denen buru [...] sartze baino **jalgitze** gehixago, 13.630 liberaren makurra, ez baita hori haatik batere zilo handia. Herria

Gerokoaren gatik denik ere ukan dezake halere munta zerbait hirugarren **jalgitze** horrek, bainan bi lehenetarik ez hain urrun gelditzekotan eta laugarrena ahal bezen urrun utziz... Herria

Egunak joan, egunak jin, horra lehen **jalgitze**-ateraldiak: Marseilla, Bordele, [...]. Herria

Sartze eta **jalgitzeak** laburtu ditu horiek ere ez diten nardagarriak izan. Herria

---

# jali ik **jalgi**.

---

# **jalki**[1], jalkitzen **1** du *ad* isurkari edo gas batean dilindan dauden zatikiak hondoratu. ik**sedimentatu**.

Lurraren pisua, gorputza kondentsaturik, geratu egin zen eta, munduaren lokatza bailitzan, hondora joan zen astunki eta hondarrak bezala **jalki** . Xabier Amuriza

Lohiak **jalkitzeko** lekua. Santiago Iruretagoiena

Argi dauka, baina, denborarekin sedimentu garbiagoak **jalki** direla, eta horrek muga fisikoa egin duela uraren eta kutsaduraren artean. Berria - Euskal Herria

**Jalkitzen** egondako ardoak bezala, ontzitik ontzira aldatu gabeko ardoak bezala, ez du galdu bere gozoa, ez zaio joan bere usain ona. Elizen arteko biblia

Nekez ikusten zuen mutilak zer ari zen gertatzen, baina hautsa **jalkitzen** hasi zenean ordura arte inoiz sentitu gabeko izua nabaritu zuen bere barrenean. Xabier Aranburu

Bitsa unetxo batez **jalkitzen** utzi zuen. Lopez de Arana

**2** *irud*

Kontzeptuak eratzeko arauak, edozein dela euren orokortasuna, ez dira gizabanakoek burututako eragiketen emaitza, historian ipinitakoa eta ohikuntza kolektiboen sakontasunean **jalkitakoa;** ez dute osatzen lan ilun baten eskema gordina, [...]. Xabier Arregi

**3** erori.

Erbeste honetan atseginez jan behar ditu aingeru santuen mahaitik **jalkitako** ogi-apur gozoak. Askoren artean

**Jalkitako** lore bat hartu eta sudurrera hurbildu du. Pello Lizarralde

**4** kideko gauzak elkarren ondotik esan.

Ramsay andreak azkenean ernearazi ahal izan zuen alabarengan lorito sen hura, Mildreden hitzak zehatz jaso eta **jalkitzeko** gai, itxoinez gero, lelo motelean. Anton Garikano

Bitartean erlojuak taupaka **jalkitzen** zituen segundoak. Matías Múgica

Denek batera **jalki** zuten lanturu alfer bat. Anton Garikano

· Patxada inozo atseginean **jalkitzen** zitzaizkion esaldi ikaragarri haiek. Joxan Elosegi

«Gizon jatorra, bai»: hitz hauek zaizkio **jalkitzen** Chaplinetaz mintzatzean. Berria - Kultura

---

jalki[2] ik **jalgi**.

---

**jalkin** **1** *iz* isurkari edo gas bat daukan ontziaren hondoan gelditzen den materia, isurkariak edo gasak dilindan zituen zatikiern hondoratzearen ondorio dena.

Portzelana esmaltatuzko kapsula bat aurkitu nuen; urez bete, gar kedartsuaren gainean ezarri, eta kapsularen hondoan **jalkin** beltzaran bat formatzen ikusi nuen. Juan Garzia

Zilar nitratozko soluzio baten tantatxo batekin ukitu nuen **jalkina**, eta agertuz joan zen kolore beltz-urdinak baieztatu zidan metala kadmioa zela. Juan Garzia

**2** irud/hed

Ezer ezingo litzateke ortzi sapaiaren azpian sortu, egon ere ez legoke ortzirik, ez eguzkiaren argirik, materia guztia pilaturik bailetzake, denbora mugagabearen **jalkin**. Xabier Amuriza

Badira irudi opakoak, argiaren erreflexioz, ispilatzez ikusteko eginak, uki daitezkeenak; irudi horiek hor daude gure aurrean, unibokoki, gure begien aurrean; euskarri baten gainean geratu eta hartatik bereizi ezin daitekeen **jalkin** baten emaitza dira. Josu Zabaleta

Eta badira argi-irudiak, inolako **jalkinek** eraginak ez direnak, gainazal batean argi gutxi-asko iheskor batek jota eraginak, baina gainazal horri inoiz atxikitzen ez zaizkionak. Josu Zabaleta

Elkarren kontra jarri izan ditugula askotan Vitruvio bat "benetakoa" (Vitruvio erromatarra) eta bata bestearen gaineko **"jalkin**-geruzaz" ezkutatutako mezu baten ekarle zena, eta beste bat, irudimenezkoa, interpretatua eta manipulatua, Europako tradizio klasikoak azaltzen zuena. Santiago Iruretagoiena

---

**jamaikar** **1** *izlag* Jamaikakoa, Jamaikari dagokiona.

**Jamaikar** musikaz kutsatu norberaren hizkuntzaz abestuz. Berria - Kultura

Reggae musika du talde hunek emaiten, **jamaikar** molde atsegingarrian, askoren plazerrarendako. Herria

Reggae doinu klasikoetatik *dance hall* erritmo berritzaileetara zabaltzen diren **jamaikar** riddimak. Berria - Kultura

**Jamaikar** doinuak bildu ditu Akatzek lehenengo diskoan. Berria - Kultura

**2** (izenondo gisa)

Amama **jamaikarrarengana** joan zen egunaren biharamunean. Oskar Arana

Asafa Powell atleta **jamaikarra** eta Leisel Jones igerilari australiarra izan ziren protagonistak atzo Melbourneko (Australia) Commonwealth Jokoetan. Berria - Kirola

Bere ahots **jamaikar** goxoarekin. Oskar Arana

Bere diskorik **jamaikarrena** orain arte *Brigadistak Sound System* izenekoa izan da. Berria - Kultura

• **3** *iz* Jamaikako herritarra.

Asafa Powell **jamaikarra** bere proba kutunean ariko da etzi, Melbournen (Australia): 100 metrokoan. Berria - Kirola

Larru-azal argiko **jamaikar** garaia, arrosa koloreko lepoko luzea eramaten duena. 45 urterekin, gogor entrenatzen jarraitzen du **jamaikarrak**. Oskar Arana

---

**jamoi** *iz* urdaiazpikoa.

"Kolgatu" batzuk zirelako, koadrilako bakarren batek esaten zuenez; "Sabigaingo **jamoi** bat baino kolgatuago gagoz" esan ohi zuen, bere hitz zehatzak errepikatzearren. Jon Alonso

Noiz edo behin igual batek galdetzen zuen norbaitez, ausentzia luzatzen bazen, eta hasierako okurrente horrek berak esan ohi zuen, horrelakoetan, "haren **jamoia** erretiratu dabe". Jon Alonso

---

**jan**[1], jaten **1** du *ad* janaria irentsi ahoan txikitu ondoan.

**Jan** eta edan ondoren. Juan Kruz Igerabide

Gizonarentzat hoberena **jatea,** edatea eta bere lanaren fruituaz gozatzea. Elizen arteko biblia

**Jan** dezagun eta edan, bihar hil behar dugu eta. Elizen arteko biblia

Jaiki eta **jan,** oso bide luzea baituzu. Elizen arteko biblia

Asetzeraino **jan** ahal izango duzue bertan. Elizen arteko biblia

Aladinek bapo **jan** eta edan ostean esnatu zen ama. Patxi Zubizarreta

Herrietan oraindik ere eskuarekin **jaten** dute. Gotzon Garate

Norbait gose bada, **jan** dezala bere etxean, zuen batzarrak gaitzesgarri gerta ez daitezen. Elizen arteko biblia

Baratzeko arbola guztietatik **jan** dezakegu. Jose Antonio Mujika

Garagar hartatik **jan,** eta dardarizoka hasi zen. Patxi Zubizarreta

Beraz, egun hartan Samuelekin **jan** zuen Saulek. Elizen arteko biblia

Matxinsaltoek dena **jan** dute. Elizen arteko biblia

Hantxe zeuden Ulisesen emazte Penelope bereganatu nahi zuten gizonak, **jan** eta edanean. Juan Kruz Igerabide

**-Jan** eta lo besterik ez zuen egiten.Gero, pastelak, galletak, gerezi tartak, [...] izan zituen saltzeko, zume gurutzatu batzuen gainean; baina Marjolinek **jan** zizkion gehienak. Iñaki Mendiguren

Ikaskidearen gorputza imajinatu nuela, harrek **jana** eta desegina. Joan Mari Irigoien

Askok ogia eta **jateko** beste zenbait gauza eraman zizkieten *ik* jateko. Askoren artean

Basoaren ertzetan hazten den belar gizen bat da, **jateko** ona. Juan Garzia

Ez dut **jateko** gogorik. Antton Olano

**Jatea** erritua da, eta errituek erraztu egiten dituzte gauzak. Oskar Arana

**2** (objektuarekin)

Ez **jan** ogirik, ez edan urik, ez itzuli lehen joan zaren bidetik. Elizen arteko biblia

Basa animaliak **jatea** osasunerako arriskutsua dela uste dute orain elkarrizketaturiko txinatarren %93k. Berria - Gaiak

Urduritasunak jota, tarta osoa **jan** nuen. Fernando Rey

Atzo afaltzeko **jan** genuen patata. Pablo Sastre

Sua piztu, gaztak **jan,** eta leize barruan eserita geratu ginen, zain. Juan Kruz Igerabide
Galarazi nizun arbolako fruitua **jan** al duzu? Esteban Antxustegi
Nork bere mahatsondoaren eta pikuondoaren fruituak **jan** ahal izanen ditu eta bere putzuko ura edan. Elizen arteko biblia
Mably kafetegian nago, sandwich bat **jaten**. Monika Etxebarria
Untxi bat **jan** zuten egun hartan. Karlos Zabala
Hona hemen **jan** ditzakezuen animaliak: zezena, bildotsa, antxumea. Elizen arteko biblia
Hemendik aurrera sei ontza zerriki **jan** behar dituzu egun biz bat. Xabier Olarra
Ez dezatela **jan** sasijainkoei eskainitako haragirik. Jose Antonio Mujika
**-Jan** ezazu zopa. Koro Navarro
Gero zomorroentzako pozoia **jan** eta bera ere hil egin zen. Gotzon Garate
Eta afari nazkagarriren bat **jan** beharko zuela. Josu Zabaleta
Bere semea **jan** zuen Saturnok bezala. Bernardo Atxaga
Zergatik ez duzu ezer ere **jan** nahi? Elizen arteko biblia
Horiek ere beren kaka **jan** eta pixa edan beharko baitute. Elizen arteko biblia
Ai, saiak usoa **jan** du; otsoak bildotsa **jan** du; lehoiak bufalo adar-zorrotza **jan** du. Josu Zabaleta
Otsoek **jan** ote zuten, bada, bere txerria? Pablo Sastre
Bi begiak **jan** dizkio beleak. Patziku Perurena
Ava ganbelako belarra **jaten** ari zen. Bernardo Atxaga
Hegazti harrapariok uzta sail izugarriak hondatzen, eta batez ere ale **jaten** hasi zirenean. Patziku Perurena
Ez **jan** hazpizarrak!", aditzen zen aitaren trumoi-ahotsa aldian behin. Fernando Rey
Azal-mamiak **jan** dizkit, hezurrak hautsi. Elizen arteko biblia
Zer **jan,** hura izan. Edorta Agirre
Hiesaren birusak, berez, ez gaitu hiltzen, baina birusak gure linfozitoak **jan** egiten ditu. Luis Elberdin
Haragia **jateko** debekuaz eztabaidan ari ziren batean. Askoren artean
San Jose eta Pazko egunez bildotsa **jateko** ohitura oraindik bizi bizirik dago euskaldunen artean. Patziku Perurena

**3** *irud*

Gizonek ondasun guztiak **jaten** dizkiotenean, alferrik etorriko da nigana ogi puska baten bila. Karlos Zabala
Quenu, bitartean, isilik, erpuruak **jaten** ari zen, barrenari eutsiz. Karlos Zabala
Denek **jan** zuten espirituzko janari bera. Elizen arteko biblia
Begiekin **jan** behar banindu bezala! Janbattitt Dirassar
Nire buruak dena **jan** nahi zuen, dena jakin, dena miatu. Juan Kruz Igerabide
Emakumeek, noski, ikusi bainoago **jan** egin zuten begiez mezulari gaztea. Felipe Juaristi
Asko **jan** du kartzelak euskal presoen artean; kide asko erauzi dizkigu. Jokin Urain
Egia esan zalduneria liburuetako orri asko **jan** ditut. Patxi Ezkiaga
Ikasleengana doa, mahaietarainoko distantzian bere hitzak galtzen utziz; musikak **jan** ditu, ikasleen aurrean mututu baino zertxobait lehenago. Pako Aristi
Umetan izan nuen gaixotasun bat zela medio botika gehiegi hartu, eta, antibiotikoak batez ere, esmaltea **jan** zidalako. Ramon Saizarbitoria
Murrua gorrixka da, likenak **jana**. Koldo Izagirre
Kontzientzia, beti bezala, eskrupuluaren pipiak **jana** eta zuhirindua. Joan Mari Irigoien
Hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak **jana**. Iñaki Segurola
Berriro, ordea, kezkak **jan** zion bihotza. Juan Kruz Igerabide
Harik eta [...] erraiak **jan** zizkiòn harrak -jelosiarenak eta ezinegonarenak- bere ahotsa altxatu zuen arte: [...]. Joan Mari Irigoien
Eta, bere kabuz, Ruche jaunari azpiak **jan** nahian, zera erantsi zuen: [...]. Jon Muñoz
Amorruak barrenak **jan** dizkit. Jon Alonso
Bortz minutu geroago, zainak **janak** nituen barrenak. Aingeru Epaltza

**4** *(era burutua hitz elkartuen lehen osagai gisa; ik* **jan**$^2$ **2**)

Errege-ordearen jauregian **jan** orduetan jotzen zuen batzuetan, eta ohera aurretik besteetan. Felipe Juaristi
**Jan** tenoreetan baizik ez genuen elgar ikusten. Marzel Etxehandi
EguPeryko opariak usu, gure gero gosearen baketzeko, mardoak, hirotuak eta **jan**-egun epetik haratekoak ziren. Itxaro Borda
**Jan**-aurrekoen platerak zeuden mostradore bat. Koro Navarro
Eta menbrilo-xerra batzuk, mehe-meheak urdailari lagundu eta **jan**-ondo ona izan dezan. Israeldarrekin batutako arrotz-jendea **jan**-gose zen. Patxi Ezkiaga
**Jan**-irrika sartu zitzaien basamortuan, eta Jainkoa tentatu eremuan. Elizen arteko biblia
**Jan**-opari haiekin indarturik. Anton Garikano
Beraz, **jan**-kontuetan egunero denok hiruzpalau aldiz dihardugunez, alor guztietako agintariek [...] prebentzioa lehenetsi beharko dute. Edorta Agirre
-Uste baino **jan**-urriago duzu zeure aita priore hori... Joan Mari Irigoien

**5** (era burutua hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Zikiro-**jana** egin zuten. Xabier Etxabe
Egingo al dugu txokolate-**jan** bat? Xabier Mendiguren Elizegi
Biribilean eseri ginen hilobiaren inguruan eta hileta-oturuntza izan genuen, masusta-**jana**. Mirentxu Larrañaga
Harekin egindako bizikleta-apustuak eta Serraseneko pastel-**janak**. Xabier Etxabe

**6** ***hitza jan*** ik **jate 4**.

Baina ez **jan** emandako **hitza**. Elizen arteko biblia
Hala izan nadin betiere jaun eta jabe hitza atxikitzeko, edo **hitza jateko**. Jon Muñoz
Bazekinat okasio ederra dela **hitza jan** izanaz espantuak egiteko. Jon Muñoz
Ez du ematen **hitza jan** izanak asko kezkatzen zuenik ofizial italiarra. Jokin Urain
Zorionez, **hitza** aise **jaten** dutenetarik naiz. Aingeru Epaltza
-Nire **hitza** zaldun-**hitza** da, eta ez dut **jateko** asmorik. Zuen aitak sekula **jan** al du emandako **hitzik**? Martin Anso
-Baina nik ezin dut nire hitza **jan,** Ismail Aga. Fernando Rey

**7** ***jan-edan*** du *ad* jan eta edan. ik **jan**$^2$ **3**.

Zeren Jaunaren gorputza dela kontuan izan gabe **jan**-edaten duenak bere gaitzespena baitu jaten eta edaten. Elizen arteko biblia
Ez joan festa-otordua egiten ari diren etxera, bertakoekin **jan**-edatera. Elizen arteko biblia
Gogor egiten zion bere buruari, **jan**-edateari eta hitz egiteari utziz. Askoren artean

**8** ***jan-edate*** *iz* jatea eta edatea.

Mahaira eseri ordez, egunean hamaika aldiz **jan** -edatea, zizka-mizka, oiloak bezala. Edorta Agirre

Nolako eraginak ditu eguneroko bizimoduaren antolamenduaren aldaketak elikaduran, **jan** -edateko azturetan? Edorta Agirre

**Jan** -edateko guztiak maletategian pilatu ditiat. Aingeru Epaltza

Hirurek **jan** -edatekoak hurrupatzeko baizik ez genuen ahoa irekitzen. Aingeru Epaltza

## 9 *jan eta edan/jan eta jan* *adlag*

**Jan** eta edan ari dira denak. Elizen arteko biblia

· Nire lagunak **jan** eta **jan** ibili ziren. Patxi Zubizarreta

Laranjak **jan** eta **jan** ari naiz. Piarres Aintziart

Egun osoa **jan** eta **jan** ematen dute. Edorta Agirre

Zelaietan aranondoen gerizpean eserita, **jan** eta **jan** aritzen ziren. Agustin Otsoa

Santxo ere isilik era berean, ezkurrak **jan** eta **jan** . Patxi Ezkiaga

Erruki dio, bai, horrela ikusten duenean, barrenak **jan** eta **jan** . Jokin Muñoz

## 10 *jan samartu*

Lotsagarrizko eusbakofharen sasiak **jan** samartu dizkigu oraintxe bazter guztiak. Iñaki Segurola

## 11 *jan-tornu* (*orobat* ***jantornu***) otordua.

Igande arte, Baionan, Harrasietako erromeria handia, **jan-tornu,** soinu eta beste. Herria

**Jan-tornuentzat,** tokiak arrastatu behar dira deituz 05 59 47 10 44. Herria

Bosgarren estai trixte honetan nago, ahal bezain arranda ttipia pagatuz eta **jan** -tornu gisa ez dut ardurenean ogitarteko txar bat baizik hartzen. Janbattitt Dirassar

**Jan-tornu** hauta, "Ereintabil"-ek prestatua. Herria

Mediku batzuk berek ere hartzen dute frangotan beren gain, arno xorta bat on baizik ez dela gorputzarentzat, izarian edanez, ahalaz hein bat onetik eta gisa guziz **jantornuetan,** ez **jantornuetarik** kanpo... Herria

## 12 *jan-txakur*

Baserria jendearen etengabeko pasaleku bihurtua dagoenez zaunkarik ere inori egiten ez diotenak, egonean egon eta gizendu beste lanik ez duten **jan-txakurrak** . Xabier Mendiguren Elizegi

Arrasateko baserri batean bada Kittolis arratoi txakur edo **jan-txakur** argi bat. Gotzon Garate

Eldarnioak berriro jo ote ninduen, hots, egunetan eta egunetan **jan-txakurrak** egiten egon izanak eroturik ote nindukan, [...]. Edorta Jimenez

## 12a *jan uzte*

Jakietan behar da eduki **jan-uzterik** handiena eta beteena; zeren gai honetan suspergarriagoak baitira bai jangura neurritik irteten, bai tentaldia ikertzen; eta horregatik **jan-uztea** jakietan, gehiegikeria uzteko, bitara eduki daiteke: bata, jaki lodiak jaten ohituz; bestea, guriak badira, gutxika janez. Patxi Altuna

Horregatik, gehiegizko eta eramanezineko **jan-uzte** gogorrari ekin diozula jakin dudanez, erregu eta eske egiten dizut Jaunagan, ene laztana, utz dezazula zuhurki eta zentzuz laztasun hori. Askoren artean

## 13 *jateko moduko* *izlag*

Eskuarki ez ditu gustuko izaten batatak, baina Lucyk zerbait egiten die limoi-azalarekin, gurinarekin eta espezieekin, eta **jateko** modukoak prestatzen ditu, **jateko** modukoak baino hobeak. Oskar Arana

**Jateko** modukoa dago. Juan Martin Elexpuru

Gosetzen nintzen eta edozein gauza irensten nuen, baita **jateko** modukoak ez zirenak ere. Pello Lizarralde

Letxugarekin edo tipularekin gogoratzea aski, jabetzeko garatzea […] alferrik galtzea dela, gehiago **jateko** modukoa ez izatea. Iñaki Segurola

Sukaldean urdaiazpiko ederra dugu, ordea, juduek ere **jateko** modukoa. Joan Mari Irigoien

Gordinik **jateko** moduko umetxoa! Joseba Sarrionandia

## 14 *jaten eman*

Idien uztarriaz sua egin eta erre zuen okela eta **jaten eman** zion jendeari. Elizen arteko biblia

Dudarik ez zuten eslaboek **jaten eman** eta lotara eramango zituztela segituan. Josu Zabaleta

Alemaniaren eltzea txikiegia duk aleman guztiei **jaten emateko** . Anjel Lertxundi

Txakurrei **jaten eman,** barazkiak landatu, merkatura joan. Oskar Arana

Kontzientzia garbiak ez du ordea **jaten ematen** . Xabier Mendiguren Elizegi

Sei hilabeteko ume bati ezin zaio bildotsa **jaten eman** . Ana Urkiza

Nondik atera behar dut jende honi guztiari **jaten emateko** adina haragi? Jose Antonio Mujika

Alferra zela, gizajo bat, beste aho bat **jaten emateko,** ez besterik, halakoxeak esaten zizkion. Koro Navarro

Guri etxean ongi **jaten ematen** gastatzen ez zuen dirua erabiliko zuen honetarako. Aitor Arana

**Jaten ematen** dizun eskuari ez omen zaio kosk egiten eta... Xabier Mendiguren Elizegi

## 15 *tripa-jan* *iz* estualdia.

Pentsa ezak zer tripa-**jan** eginarazi zion apaiz likits hark gure amari. Pako Aristi

Emakume guztiek eduki behar lukete motoa; batzuetan tripa-**jan** ederrak eragotziko lizkieke. Pako Aristi

## 16 *tripak jan beharrean*

Aurreko bi hilabeteetan tripak **jan** beharrean egon zen aterpetik ezin irtenaz. Jokin Muñoz

## 17 *zer jana*

Ekarri osorik zeuen hamarrenak tenpluko altxortegira, nire etxean zer **jana** egon dadin. Elizen arteko biblia

Zuen hirian bizi diren lebitar, etorkin, umezurtz eta alargunei emango dizkiezue, zer **jana** izan dezaten. Behartsuen soroak ematen du zer **jana** ugari. Elizen arteko biblia

Zer **jana** eta zer edana gordetzeko eraikitako bihitegiok. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**arraina jan** (7); **asetzeraino jan** (10); **asko jan** (13); **bakarrik jan** (15); **bapo jan** (11); **bere hitza jan** (11); **elkar jan** (8); **elkarrekin jan** (8); **emandako hitza jan** (8); **ezer jan gabe** (24); **fruituak jan** (6); **gustura jan** (5); **gutxi jan** (14); **guztia jan** (19); **guztiak jan** (14); **haragia jan** (8); **hartu eta jan** (8); **hitza jan** (56); **hitzak jan** (5); **jan beharra** (24); **jan edanean** (46); **jan edanean ari** (5); **jan edo edan** (7); **jan eta edan** (93); **jan eta edanez** (5); **jan eta edango** (7); **jan eta edaten** (5); **jan eta gero** (19); **jan eta jan** (32); **jan eta lo** (16); **jan ondoan** (12); **jan ondoren** (31); **jendea jan** (5); **lurra jan** (5); **mundua jan** (8); **nahikoa jan** (5); **ogia jan** (6); **ogitarteko bat jan** (5); **ogitartekoa jan** (6); **oilaskoa jan** (5); **ondo jan** (9); **osorik jan** (6); **pixka bat jan** (7); **segundo jan zizkion** (7); **txokolatea jan** (6)

**pipiak janda** (5); **sitsak jandako** (6)

**hitza janez** (8)

**gustura jango** (8); **legamigabeko ogia jango** (12); **ogia jango** (15)

**jatea eta edatea** (5); **ondo jatea** (5); **ongi jatea** (5)

**jateari utzi** (20)

**edateko eta jateko** (12); **jateko aukera** (5); **jateko edo edateko** (5); **jateko eta edateko** (93); **jateko gogo** (5); **jateko gogoa** (36); **jateko gogorik** (21); **jateko gogoz** (5); **jateko lain** (5); **jateko manera** (6); **jateko moduan** (5); **jateko moduko** (6); **jateko modukoa** (12); **jateko ogia** (6); **jateko ohitura** (15); **jateko ona** (5); **jateko onak** (6); **jateko ordua** (6); **jateko orduan** (7); **jateko parada** (6); **jateko prest** (13); **okela jateko** (5); **tartea jateko** (5)

**asko jaten** (17); **azkar jaten** (5); **bakarrik jaten** (22); **barrena jaten** (14); **barrenak jaten** (7); **barrua jaten** (5); **barruak jaten** (6); **begiekin jaten** (5); **belarra jaten** (17); **belarra jaten ari** (6); **burua jaten** (6); **denetik jaten** (7); **egunero jaten** (6); **elkar jaten** (5); **entsalada jaten** (5); **frijituak jaten** (6); **gaizki jaten** (7); **gazta jaten** (6); **gehiegi jaten** (14); **gordinik jaten** (5); **gorputza jaten** (12); **gustura jaten** (8); **gutxi jaten** (11); **gutxiago jaten** (6); **guztia jaten** (6); **haragia jaten** (11); **herdoilak jaten** (7); **hitza jaten** (6);

**hitzak jaten** (5); **hobeki jaten** (5); **jaten ari** (217); **jaten aritu** (5); **jaten egon** (8); **jaten eman** (72); **jaten emango** (7); **jaten ematea** (12); **jaten emateko** (39); **jaten ematen** (56); **jaten ematera** (6); **jaten eta edaten** (40); **jaten jarraitu** (7); **jaten segitu** (7); **jaten segitzen** (5); **jaten utzi** (5); **nire gorputza jaten** (5); **ogia jaten** (17); **okela jaten** (8); **ondo jaten** (14); **ongi jaten** (9); **opilak jaten** (5); **tripak jaten** (5); **zopa jaten** (6); **zopak jaten** (6)

**jatera behartu** (5); **jatera eman** (7); **jatera eta edatera** (10); **jatera gonbidatzen** (8); **jatera joan** (6); **mokadu bat jatera** (5)

---

# jan[2] **1** *iz* janaria.

Grina naturalak eta beharrak dira, funtsean, gure biziari zutik eusten diotenak: **jana,** edana, loa, arropa... Patziku Perurena

**Janari** eta jantziari dagozkien premiarik beharrezkoenak asetzera. Haiek ematen zidaten **jana** eta edana. Askoren artean

**Jan** asko alferrik galtzen da egun. Edorta Agirre

Horien **jana** arroza, azukrea, gatza, dilistak eta landare-olioa da. Gotzon Garate

Gero eguzkiaren beroak irakatsi zien **jana** egosten eta garraren beroan biguntzen. Xabier Amuriza

Bere baitara biltzen da une batez eta **jana** irensten amaitzen du. Monika Etxebarria

**Jana** xuhur genuen, ez baiginen lanean aritzen. Marzel Etxehandi

Erregailu, frijigailu, hozkailu, garbigailu herdoilezin itzelak nagusi; ez **jan** onik, ez giro goxorik: bakardadea eta burrunba. Edorta Agirre

**Jan** urria, ia larrugorri, lo lur gorriaren gainean autobus geltokian zeru sabaia babesgarri. Gotzon Garate

Eta **jan** gutxia eta baraua, horiexek dira horrek ohi dituen sendagaiak. Patxi Ezkiaga

Jakintsuak puntu honetan bat datoz: zakurrak gizakiei **jan** bila hurbildu zitzaizkien. Gotzon Garate

## 2 (hitz elkartuetan; ik **jan**[1] **4**)

**Jan** pixka baten truke. Eskarne Mujika

**Jan** hondarrak gustura jaten ditut. Gotzon Garate

Jendeak **jan** hondakinak kale bazterrera botatzen ditu. Gotzon Garate

**Jan**-gordailutik atera eta mahaian jarri zuen izebak platera. Irene Aldasoro

Alabaina **jan** eskasa zen bazterretan, oraingo anitz jendek ezagutu ez duena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

· Isaakek maiteago zuen Esau, gogoko baitzuen ehiza-**jana**. Elizen arteko biblia

Trinko-trinkoa zen kiratsa; eta epela; txerri-**jan** egosiarena gogorarazten zuen. Anjel Lertxundi

Katu-**jan** piloa eskuan hartu. Javi Cillero

Zinemako porrotak muturtuxea ni, eta zabor-**janari** emana semea, isiltasunak jo gintuen puska batean. Aingeru Epaltza

## 3 ***jan-edan*** *iz*

**Jan**-edana bagenuen, baita aterpea ere. Biarnoko elizaren kontura emanen diate eskola, ohantzea eta **jan**-edana. Aingeru Epaltza

Hor amaituko dira zuen **jan**-edan eta nasaikeriak. Elizen arteko biblia

**Jan**-edanak gure kontu. Gehiegizko **jan**-edanak gaixotasuna ekartzen baitu. Elizen arteko biblia

Hura axolatzen zen **jan**-edanen banatzeaz. Aingeru Epaltza

Jainkoaren erregetza ez baitatza **jan**-edaneko gauzetan, baizik eta Espiritu Santuaren dohain diren zuzentasun, bake eta alaitasunean. Elizen arteko biblia

Bitartean, Ulises zerrizainaren etxolan **jan**-edanean ari zen. Juan Kruz Igerabide

Han ari dira denak berarekin **jan**-edanean eta oihuka: "Gora Adonias erregea!". Elizen arteko biblia

Lasaikeria eta biziotan, **jan**-edan eta mozkorkerian. Elizen arteko biblia

## 4 ***jan-edari*** *pl* janari eta edariak. ik **janari 7.**

Bazuten **jan**-edaririk aski eta pozik bizi ziren. Elizen arteko biblia

Berrogeita hamar kilometro egiten ditu egunero, **jan** edari guziak berekin dituela eta arratsetan oihalpean lo eginez. Piarres Aintziart

Erregearen **jan**-edariekin ez kutsatzeko. Jose Antonio Mujika

Bideko **jan**-edariak emateko ere agindu zuen. Jose Antonio Mujika

**Jan**-edari finak hartzen ikusten dituztenak. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jan bila** (9); **jan edana** (12); **jan edanak** (29); **jan edanaren** (3); **jan edanari** (4); **jan edanen** (6); **jan edanerako** (4); **jan edanetan** (4); **jan edari** (4); **jan edariak** (10); **jan hondarrak** (3)

**jana egin** (3); **jana eman** (4); **jana ematen** (14); **jana eta edana** (10); **suge jana** (3); **ura eta jana** (4); **zabor jana** (4)

**janaren bidez** (4); **janaren bortxaz** (3)

---

# janaldi **1** *iz* otordua.

Eta lehen **janaldia** egin ondoan, ostalertsak saltzen zizkien xirioak. Piarres Aintziart

Bi **janaldi,** ortzirale aratsean xerri ttipia eta igande egverditan angirak. Herria

12ak aldean zintzur bustitzea eta ondotik **janaldia**. Ondotik euskal **janaldia**. Herria

Bisitatik landa, hurrupaldi eta **janaldiaren** artetik, denek solas bera zuten: zer lantegi harrigarria! Herria

13.30: **janaldia,** pik-nika moduan edo ostatuetan [...] aitzinetik jakinaraziz. Herria

**Janaldiak**: salda, piperrada xingarrarekin eta urineko ahatea baratzekariekin. Herria

19.00etan **janaldia** komertsio zuzeneko ekoizpenekin. Herria

## 2 *hed*

Banekien nire txanda zela, txilibitua ahoratu eta **janaldi** oso gozoa egin nion. Juan Martin Elexpuru

## 3 (hitz elkartuetan)

Aratsaldea ederki bururatu da trinketean eskainia izan zaikun **janaldi**-hurrupaldi batekin. Herria

· Eguerditan "angira **janaldia"** oihalezko aterbearen azpian. Herria

Jatetxean, hurrupaldi-**janaldi** bat zerbitzatua izan da bisitarieri. Herria

· Ortzirale aratsean xerri ttiki **janaldia,** *Hiruak* taldeak alaiturik. Herria

· Urriaren 21ean antolatua izanen da bio-**janaldi** bat, Hazparneko laborantxa eskolako eta Donibane Garaziko lizeoko kantinetan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eguerditan angira janaldia** (3); **janaldi on** (4)

---

# janarazi, janaraz, janarazten **1** du *ad* jatera behartu.

Haien ondoan eserarazi ninduten, eta oilasko-errotak eta aingira **janarazi** zidaten. Juan Kruz Igerabide
Ahoa zabaltzera behartu eta txerrikia **janarazi** nahi zioten. Elizen arteko biblia
Zure zapaltzaileei beren okela **janaraziko** diet, beren odolez mozkorraraziko ditut. Elizen arteko biblia
Goizetan txakurrari atea zabaldu eta zopa **janarazten** diot. Itziar Otegi
Ganaduari, jakina denez, okela eman izan zaio jateko, pentsuan nahasita, izokinari izokin eta oilaskoari oilakia **janarazten** zaien bezala. Edorta Agirre
Lotofagoek ez zituzten hil, baina loreak **janarazi** zizkieten. Juan Kruz Igerabide

**2** *hed*

"Gizon meheak" droga zikinen bat **janarazi** ziola nonbait. Karlos Zabala
Ahoa zabaldu nuen eta liburua **janarazi** zidan. Elizen arteko biblia
Hura azpiratu eta lurra **janarazi** arte ez zuen onik izango. Patxi Zubizarreta

---

**janari** **1** *iz* elikatzeko gaia, isurkaria ez dena (ik **edari**); bereziki, gizakiek hartzen dutena (ik **bazka**). ik **jan**[2]**; jateko, jaki.**

**Janaria** sabelarentzat da eta sabela **janariarentzat**. Elizen arteko biblia
Izan ere, bizia **janaria** baino gehiago da, eta gorputza jantzia baino gehiago. Elizen arteko biblia
Izan ere, **janariak** behar du dena indartu, berritu eta zutoindu, **janariak** du dena iraunarazten. Xabier Amuriza
Bere **janari** eta edari beretik emateko agindu zuen erregeak. Elizen arteko biblia
Aulki bigunetan eseririk, **janari** eta edariz inguraturik, emakume ederren konpainian. Felipe Juaristi
**Janaria** xehe-xehe eginda ekartzen didate. Hasier Etxeberria
**Janaria** ekarri zieten asto, gamelu, mando eta idiz: irina, piku-opilak, mahaspasak, ardoa, olioa, behi eta ardi ugari. Elizen arteko biblia
Ez zen mizkina **janariarekin;** nekez sortuko zuen iskanbilarik ezergatik. Oskar Arana
Arboletatik hartzen zituen fruituak zituen **janari** bakar. Xabier Mendiguren Elizegi
Eta gorputza hemen gelditzen da harren eta beste animalia basen **janari**. Piarres Xarriton
Hainbat kilo **janari** daramat gainean. Eskarne Mujika
Sotoetan 3.600 tona **janari** zekarren. Edorta Jimenez
Haizeek Saharatik itsasora eramaten duten hautsa Atlantikoko planktonaren **janaria** da. Berria - Gaiak
Uzta txarreko urteetan soilik lan egiten dute nire fabriketan, **janariaren** truke. Jose Morales

**2** (aditz baten objektu gisa)

Armak eta **janaria** gotorleku hartan bildu zituzten. Elizen arteko biblia
Ikasleak hirira joanak ziren **janaria** erostera. Elizen arteko biblia
Emakumeak zuen **janaria** banatzen. Aingeru Epaltza
**Janaria** urritzen ari zaigu. Elizen arteko biblia
Urte hartan **janaria** ahitu zen hirian eta jendearen gosea izugarria zen. Elizen arteko biblia
Etxera etorri, **janaria** eskatu eta jan zuen. Elizen arteko biblia
Ukatu egin zenieten **janaria** nekatuak zeuden nire gizonei. Elizen arteko biblia
Norbaitek **janaria** zapuzten duenean, bere gosearekin uztea da onena. **Janaria** prestatzen ari zen bitartean. Juan Kruz Igerabide
Gas-sukaldetxoa, tea egiteko edo kontserba-poteetako **janaria** berotzeko. Oskar Arana
Ez ote dugu, bada, **janaria** eta edaria hartzeko eskubiderik? Elizen arteko biblia
Amak, berriz, **janaria,** gozokiak eta ardoa ekarri zizkion biderako. Juan Kruz Igerabide
Goizero eramaten zien **janaria** basoan ari ziren zerrategiko langileei. Bernardo Atxaga
Gülbaharrek, ezkutuka oso, **janaria** bidaltzen zien eta. Fernando Rey
Basapiztien eta hegazti harraparien **janari** bihurtuko zaitut. Elizen arteko biblia
**Janaria** erre egiten zitzaion eta gainezka egiten zion esneak. Koro Navarro
Beti **janaria** ahalik eta astiroen txikituz ahoan. Oskar Arana
Gaztetxoa zenean bezala irensten zuen **janaria**. Ander Irizar
**Janaria** eztarriko zuloan trabatzen da. Koro Navarro
Gosearen aurka jokatzea ez da **janaria** eskaintzea behartsueri. Herria

**3** (izenondoekin)

**Janari** nazkagarria eman zidatek gaur bazkaltzeko. **Janari** gozo eta oparoa eman dietela. Jose Morales
Ez nuen hartu **janari** goxorik, ez haragirik, ez ardorik. Elizen arteko biblia
Orduan **janari** fin-finak erosten zituen, eta xanpaina. Fernando Rey
**Janari** minetara ohitu egin behar duzu... Lopez de Arana
**Janari** bikaineko oturuntzak. Xabier Amuriza
**Janari** sendoa, berriz, pertsona helduentzat da. Elizen arteko biblia
Eta inoiz ahul edo nekatuta dagoelako **janari** mamitsuagoak behar baditu [...]. Askoren artean
**Janari** bizkorgarriren bat. Askoren artean
Nire gorputza ez dagoela **janari** suspergarrien premian. Xabier Kintana
Beste haurrek jogurtak eta **janari** indargarriak jaten dituzte... Ander Irizar
**Janari** gordinak bakarrik jaten zituen. Askoren artean
Nekez edo oso gutxitan onartzen zuen **janari** egosirik. Askoren artean
Hiri osoan **janari** merkearen usaina zegok, lurrin merkeena eta ohe zikinena. Xabier Olarra
**Janari** aukeratu eta ongi gozatuak. Askoren artean
**Janari** kutsatu haietara ez behartzeko eskatu zion jauregiko funtzionarioburuari. Elizen arteko biblia
Txerrikia jaten dute eta **janari** kutsatuz eginiko salda-katilukadak hartzen. Elizen arteko biblia
**Janari** sakratuetatik jatea debekatu egin zien gobernariak. Elizen arteko biblia
**Janari** urri eta landareki hutsezkoak. Josu Zabaleta
Bilauen **janari** zakarra genuen, beraz, baba. Patziku Perurena
Bizkor gainditu zituen **janari** espiritualaren gose asegabeak. Iñaki Mendiguren

**4** (izenlagunekin)

Nire eguneroko **janari** kopurua areago urritu zen. Jon Arretxe
Handik aurrera, ohiko **janaria** eta ardoa alde batera utzi, eta barazkiak ematen zizkien beti. Jose Antonio Mujika
Aurrez prestaturiko **janari** gehienei (hesteki, gosaltzeko labore, opil, esneki, otorduz kanpora hartzekoak, etc.) era askotako bitaminak gaineratuko zaizkie etorkizunean. Edorta Agirre

Egunero janari bereziren bat ematen hasi zitzaion, ez aparteko **janaririk**, bera ere pobrea baitzen. Askoren artean

Animalientzako **janari** (pentsuak, irinak) edo soro eta baratzeak simaurtzeko ongarri bihurtuko du industriak. Edorta Agirre

Zakurrentzako **janari** berezi hori. Jon Alonso

Janari espiritualaz nahiko indarturik zeudenez, ez ziren arduratu gorputzeko **janariaz**. Askoren artean

Arimako **janari** espiritualez gorputza indartu nahian. Askoren artean

Denek jan zuten espirituzko **janari** bera. Elizen arteko biblia

Nire gorputza benetako **janari** baita, eta nire odola benetako edari. Elizen arteko biblia

Zeruko **janariaren** premia gorrian zirenak. Askoren artean

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Janari**-orgarekin ibiltzen zen andre potoloa konpartimentuko atera iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Hoa atez ate **janari**-hondarrak eskatzera. Askoren artean

Eguneroko **janari**-banaketan. Elizen arteko biblia

**Janari** banatzea erdi lasterka, presaka egiten zuten. Filipe Bidart

Honek **janari**-zorroan sartu zuen. Elizen arteko biblia

**Janari** bilketa bat antolatua da Hazparnen azaroaren 28 eta 29an. Herria

Populazioak **janari** hornidurak baino azkarrago hazteko joera duela. Xabier Olarra

Indiako **janari**-horniduraren gehikuntza. Iñaki Mendiguren

Guk iragarri dugun bezalako **janari**-krisia gertatuz gero. Iñaki Mendiguren

**Janari**-saltoki batzuk zabalik zeuden oraindik. Bernardo Atxaga

Garrantzitsua da halaber **janari**-anoa denboran ondo banatzea. Urtzi Urrutikoetxea

**Janari**-parteak murriztu beharra zegoen. Aingeru Epaltza

Erran gabe zihoan Delbardek bere **janari** zatia erdietsi zuela. Itxaro Borda

Dagoeneko dauzkagun ehun **janari** poteez gainera, beste 135 kilo egoskari erosi ditugu. Josu Zabaleta

**Janari**-poltsa hartu eta sukaldera abiatzen da korrika. Antton Olano

Hamat lurraldean ere hiriak eraiki zituen, **janari**-biltegi izateko. Elizen arteko biblia

Lo faltan eta **janari**-gabezian. Elizen arteko biblia

**Janari** ezak gosea eta inbidia dakartza. Aitor Arana

**Janari**-arazo batengatik, ez hondatu Jainkoaren egintza. Elizen arteko biblia

Bigarren zerbitzua amaitutakoan, hirugarren **janari**-txanda ekarri zuten, hura ere beroa. Felipe Juaristi

Identifikazio txartel berriak banatu behar ditu biztanleen artean **janari** errazionamendurako. Josu Zabaleta

Uhal garraiatzaile batenaren jiteko prozesua da, funtsean, heste meharrean egiten den **janari**-digestioa. urrezko erloju bat, Hanukkah-ko argimutil bat, **janari**-bizigarrien kutxatila bat. Irene Aldasoro

Airea **janari**-usain koipetsuz blai zegoen. Lopez de Arana

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sugarrek ez zuten erretzen beraien artetik igarotzen ziren abere ahulen haragirik, ez eta nolabaiteko jainko-**janari** hura urtzen ere. Elizen arteko biblia

Nik supermerkatuko txakur-**janari** nazkagarria jan behar izaten nuen sukalde txokoko ontzi zikinean. Jon Arretxe

## 7 ***janari denda*** (*orobat* ***janaridenda*** *g.er.*)

Aurki, farmaziaren atal handi bat **janari-dendako** apalategietan egongo da salgai. Edorta Agirre

**Janari-denda** batean aritu nintzen lehendabizi. Anjel Lertxundi

Ordu hartan, ez zegoen zabalik Habibiren **janari-denda** baino. Jon Muñoz

Ihes egin ezin izan zutenek **janari-dendan** zegoen guztia lapurtu zuten. Joseba Urteaga

Agian on egingo dizu -esan zuen **janari-dendako** andreak. Anton Garikano

Kale-kantoiko **janari-dendako** ugazabandreak. Joseba Urteaga

Gure beste aiton-amonen **janari-dendako** furgonetaren maletalekuan ezkutatuta erbestera ihes egiteko. Mikel Hernandez Abaitua

**Janaridendetatik** eta alkoholik gabeko edariak saltzeko postuetatik. Lopez de Arana

## 8 ***janari-edari*** *pl* janari eta edariak. ik **jan**$^2$ **4.**

Jantziak eman zizkieten larrugorritan zeudenei, bai eta oinetakoak eta **janari**-edariak ere. Elizen arteko biblia

Han zeuden **janari**-edariak jan eta edan. Juan Kruz Igerabide

Ateratzera gindoazela, hiru erromes, hiru gizon, ostatuan sartzen dira batek tiratzen du karrosaño bat, puska eta **janari**-edariz betea. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**basapiztien janari** (5); **edari eta janari** (4); **janari bat** (5); **janari beroa** (4); **janari bihurtuko** (5); **janari bila** (23); **janari bilketa** (6); **janari biltegi** (4); **janari denda** (21); **janari dendako** (10); **janari dendan** (9); **janari edari** (4); **janari edariak** (4); **janari eske** (7); **janari eta edari** (18); **janari gozo** (5); **janari gutxi** (4); **janari guztia** (8); **janari guztiak** (8); **janari guztietatik** (4); **janari hondarrak** (7); **janari izango** (6); **janari lasterra** (7); **janari lasterreko** (10); **janari mota** (8); **janari on** (5); **janari onez** (5); **janari pixka** (6); **janari poltsa** (4); **janari ugari** (5); **janari usaina** (4); **tona janari** (5)

**janaria banatzeko** (4); **janaria banatzen** (5); **janaria ekartzen** (5); **janaria eman** (6); **janaria ematen** (8); **janaria eramateko** (4); **janaria eramaten** (6); **janaria erosteko** (7); **janaria eskatu** (4); **janaria eskuratzeko** (4); **janaria eta edaria** (10); **janaria eta ura** (6); **janaria izan** (4); **janaria jan** (4); **janaria prestatu** (7); **janaria prestatzeko** (14); **janaria prestatzen** (13)

**janariak hartu** (5); **urdaiz atondutako janariak** (4)

**janariari uko egin** (6)

**janariz beteta** (5); **janariz betetako** (6); **janariz eta edariz** (4); **janariz hornitu** (4)

---

# janaridenda ik **janari 7.**

---

# **janarigintza** *iz*

ONU erakunde mundutiarrak egin ere du Erroman Elikadura **(janarigintza)** eta laborantzaren FAO kongresuan dei bat munduari buruz. Herria

---

# **janaritegi** *iz* janarien gordetegia. ik **jakitegi.**

Sukaldariek zergatik jokatzen zuten hain modu ergel eta zentzugabean, **janaritegia** zergatik zegoen beti erdi hutsik, giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain zikinak eta mozkortiak. Jose Morales

Baina neskameen gelan edo **janaritegian** daudenean, ikaragarri aldatzen dira, bai horixe! Jose Morales

Hartu giltza eta eman Mavrari, **janaritegira** joan dadila; han, apal batean, Aleksandra Stepanovnak tearekin batera jateko ekarri zuen gozopilaren zati bat zegok!

**Janaritegia** hutsik zegoela utzia nuen gaztelua. Jose Morales

**Janaritegiaz** arduratzen zen morroiarekin Jose Morales

---

## **janaritu,** janari(tu), janaritzen **1** da/du *ad* elikatu.

**Janaritu** nituen eta ase ziren. Haragi guriz **janarituko** ditut apaizak, nire ondasunez aseko da herria. Elizen arteko biblia

Amak haurtxoa bularrean bezala **janarituko** zaituzte nazio eta erregeek. Elizen arteko biblia

Datil bat jaten duzuelarik, mamiak **janaritu** egiten du zuen gorputza; haren gozagarriak, haren lurrinak eta koloreak, ostera, zuen izpiritua elikatzen dute. Patxi Zubizarreta

Aireko hegaztiak **janaritzen** eta zelaiko loreak janzten dituenak ez dizue huts egingo. Elizen arteko biblia

Emakumezkoak, haurrak, abereak eta hiriko ondasunak, berriz, gudu-harrapakintzat hartuko dituzue eta Jaunak zeuen Jainkoak emandako etsaien harrapakinez **janarituko** zarete. Elizen arteko biblia

Busti beza ortziko ihintzak, **janaritu** bedi belarrez, abereak bezala. Elizen arteko biblia

**2** *irud*

Janari harekin zertxobait suspertuta, santuak bere aldetik Jainkoaren hitzaz **janaritu** zituen ama-alabak. Askoren artean

Asisko Frantziskoren giza abentura iturri aberatsenetakoa dugu erretzen gaituen egarria asetzeko eta gure sormena **janaritzeko**. Askoren artean

Zeruko gozotasunaz **janaritzen** zenez, zozoa gertatzen zitzaion mundua. Askoren artean

Kanpoko errealitatez **janaritzen** dira zentzuak. Joan Mari Lekuona

Labore-uztak itsasoz bestaldera eramaten baitziren Egeo arroan hirietako biztanleria helenikoa **janaritzeko**. Iñaki Mendiguren

---

## **janba** *iz* leiho edo ate bateko arkuari eusten dioten elementu bertikaletako bakoitza. ik **atezango**.

Baoen tartean **janbak** jartzen badira pilare eta pilastren arabera, haiek ez dute akatsik izango. Santiago Iruretagoiena

**Janbak** jartzen direnean azpitik eta falka bidez finkatzen direnean, habeak asenturik ez izatea lortzen da eta gainean kargarik ez izatea. Santiago Iruretagoiena

**Janben** ondoko langaluzeek langeten zabaleraren erdia izango dute. Santiago Iruretagoiena

Hogeita bostetik hogeita hamar oinera bitarteko altuera badu, estutu bedi goiko aldea **janbaren** zortziren batera. Santiago Iruretagoiena

---

## **janbaka** *adlag* beeka, marrakaz.

Badakizu, orduan: joan zaitez Arandara eta *roast lamb* eskatu, edo **janbaka** hasi, bildoski errea jan nahi baldin baduzu. Pello Salaburu

---

## jandarma ik **jendarme**.

---

## jandarmeria ik **jendarmeria**.

---

## **janezin** *izond* ezin janezkoa.

Ardoa edanezina zen eta elikagaiak **janezinak**. Iñaki Mendiguren

-Pikuak: onak benetan aukerakoak dira; txarrak, aldiz, guztiz txarrak, **janezinak** izateraino hondatuak. Elizen arteko biblia

Txarraren txarrez **janezinak** ziren piku ustelak. Elizen arteko biblia

Nahaski **janezina** benetan. Berria - Euskal Herria

---

## **jangai** **1** *iz* janaria, jatekoa.

Zazpi urte oparo haietan **jangai** ugari bildu zuen Josek. Elizen arteko biblia

Era berean lurreko fruituek ere, behar guztien gainetik ugari emanik **jangaia,** animalia guztiak elikatu eta mantentzen dituzte etengabe bazkatuz. Santiago Iruretagoiena

Gerora ere elikagairik nahi bada, **jangaiak** oro (fruta, arraina, laboreak, ganadua, barazkiak, etc.) bertakook ekoitzi beharko ditugu. Edorta Agirre

Prestatzea **(jangaiak** ebaki, lumatu, garbitu, zuritu, txikitu...). Edorta Agirre

**Jangaien** makro- eta mikro-nutrienteak (proteinak, erradikal askeak, karbohidratoak, mineralak, aminoazidoak etc.). Edorta Agirre

Ontzi horretako ura **jangai** den zerbaiti botatzen bazaio, kutsaturik geldituko da. Elizen arteko biblia

**Jangai** duzuen abere bat hiltzen bazaizue. Elizen arteko biblia

Beharrak edozer gauza bihurtu zuen **jangai,** eta piztiek ere jan ohi ez dutena gizakien hortzek irensten zuten. Askoren artean

Kontua da, *The Group*eko putreek, **jangai** gisan saltzen dutela irin hori goseak estutzen duen Afrikako zenbait herritan. Hasier Etxeberria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**"Jangai** osatu edo aberastuak" izango dira, aditu batzuen iritziz, nutrizioaren eta gastronomiaren ikuspegietatik: osasuntsuago eta goxoagoak, batera, usain-alorrean sekulako aurrerapenak egiten ari baita teknologia. Edorta Agirre

Kontsumitzaile ertainak mahaian aukera handiagoa eta **jangai** hobeak eduki nahi ditu. Edorta Agirre

Laster, elikagaien aukera amaigabea izango denez, **jangai** elkargarriak ere ugaldu egingo dira. Edorta Agirre

Genetikoki aldarazitako elementuez osaturiko **jangai** baliagarri asko izango ditugu salgai ohiko dendan. Edorta Agirre

Koilarako **jangaiak** (zopak, eltzekiak, barazkiak) ia erabat desagertu dira-eta. Edorta Agirre

Aurretiaz prestaturiko **jangaien** industriak. Edorta Agirre

Animalientzako **jangaiak** eta kosmetikoak ekoizteko. Berria - Ekonomia

Etxeko baratzekari eta **jangailuen** artean. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Patatak, mendetan txerri-**jangai** izan ondoren, ogiaren tokia bete du leku zenbaitetan. Edorta Agirre

Parmalat elikadura-**jangailu** komertzialdegi haundiaren sortzailea. Herria

---

## **jangailu** *iz* jateko gailua.

Hiesa ez da kutsatzen eztularen edo doministikuen bidez, ezta edalontzi eta **jangailuen** bidez ere, ez eskuzapi edo toaila bera erabiltzeagatik, ez janaren bidez, ez igerilekuan bainatzeagatik. Luis Elberdin

**jangaitz** 1 *izond* jateko gaitza dena

Jatetxe italiarrean pizza **jangaitzarekin** deman ari nintzen bitartean. Aingeru Epaltza

Jaiki, komunera joan, bi galleta marruskatu -igandekoak bezain zahar eta **jangaitz-** eta baso bat ur edan ondotik egunkarira deitu nuen. Aingeru Epaltza

**2** *irud*

**Jangaitza** da jarrera hori, baita gizartearen kultur eskabideak zaintzeko ardura duten administrazioarentzat edo kultur mundutik hurbil dauden erakundeentzat ere. Anjel Lertxundi

---

**jangale** *(2 agerraldi, 2 liburutan)* **1** *iz* jateko gogoa. ik **jangura**.

Haren besartean ama, alegia **jangalea** puska bat hazia bere elikagaiaz; eta, hala eta guztiz ere, hilabetera orduko... Juan Garzia

**2** (izenondo gisa)

Batzuetan zabaltzen zitzaion ahoa sentsualitate **jangale** baten itxura hartzeraino. Matías Múgica

---

**jangarri** 1 *iz* janaria, janaria.

1950eko urteetan Kubako azukre-ekoizleek kanabera bedeinkatua mozteko, biltzeko eta **jangarri** gozo bilakarazteko modu tradizionalean berrikuntzak sartu zituzten. Edorta Jimenez

· Beren haragi zikina Alaren gizakien gorputz argalduen **jangarri** laster izango den arren. Jon Alonso

• **2** *izond* jateko modukoa.

Emaiten digutena ez da biziki **jangarria,** baina gosearekin, dena badoa beheiti. Marzel Etxehandi

**3** jan daitekeena.

Animalia **jangarrien** jakiez. Edorta Agirre

Gatza: harri **jangarri** honen kontsumo gastronomikoa ugalduz doa. Esnekiak jende askorentzat **jangarri** ez izaki, […] proteina-iturritzat, sojaren kontsumoa biderkatu egingo da. Edorta Agirre

Gozotegiek eta txarkuteriek, adiera zabalean, geroz eta litxarreria (bai *fast food* moduko zabor sasi-**jangarriak,** baita *delicatessen* plegukoak ere) gehiago ekoitziko dituzte. Edorta Agirre

Sobratutakoa (hurrengo baterako) ostera **jangarri** bihurtzea. Edorta Agirre

Landare basa **jangarriak** kozinatzeko errezetak. Herria

---

**jangarritasun** *iz* jangarria denaren nolakotasuna.

Galleta idor batzuk, **jangarritasun** eskasekoak. Aingeru Epaltza

---

**jangartsu** *(orobat **jangartzu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jangartxu** agertzen da)* **1** *adlag* jateko gogorik gabe.

Gure amak, berriz, "janak jankizunik ez" esaten zuen, norbait, desorduetan gehiegi janda, otorduan **jangartsu** azaltzen zenean. Joxerra Garzia

**-Jangartsu** habil. Txillardegi

Gero eta **jangartsuago,** gero eta isilago ere bai. Txillardegi

Belarra bezala zimeldu zait bihotza, **jangartzu** eta akiturik nago. Elizen arteko biblia

**2** (izenondo gisa)

Begira iezaiozu zeure barne **jangartzu** horri. Hasier Etxeberria

---

**jangela** *(416 agerraldi, 86 liburu eta 22 artikulutan; orobat **jan-gela** g.er.)* **1** *iz* etxe batean, bazkaltzeko eta afaltzeko prestatua dagoen gela. ik **jantegi**.

Behean, sukaldea, **jangela** eta egongela zeuden; Roberten langela, bikotearen ganbera eta Johnena, lehen solairuan; nirea izanen zen gela eta biltegia erraten ziotena, teilatupean. Xabier Montoia

Van Daan senar-emazteen logela, denon egongela, **jangela** eta irakurgela. Josu Zabaleta

Neskame zahar bat atera zitzaien harrera egitera, eta **jangela** batera eraman zituen. Josu Zabaleta

Denbora gutxi beharko dute atalondoa, salaurrea eta **jangela** zeharkatzeko. Jose Morales

Sutondotik **jangela** osoa ikus zezakeen Areitioaurtena jaunak. Aitor Arana

**Jangela** saltxitxa frijituen usain gozoaz eta jendearen berriketa alaiaz betea zegoen. Iñaki Mendiguren

**Jangela** osoan isilune handia hedatu zen. Joxemari Iturralde

Geroxeago etxera itzuliko ziren, kikara bat te edanen zuten, familian, **jangelako** mahaian. Monika Etxebarria

Mahaitik jaiki, eta **jangelako** leihora joan da. Anjel Lertxundi

**2** (ikastetxe batean)

**Jangela** husten hasia zen, jendea lehenengo eskolarako irteten ari baitzen. Iñaki Mendiguren

Eta naski [Garaziko ikastolan] gela preziatuena kantina edo **jangela** ote den, behar dituen tresneria eta apalaimendu guziekin! Herria

Hango eskola bateko **jangelan** lan egiten zuen. Berria - Gaiak

[Eskolako] **jangelako** arrautzek edo oilaskoek eragin zituzten gaixotasunak. Berria - Euskal Herria

**3** (bestelakoetan)

Erregea jauregiko lorategitik **jangelara** itzuli zenean. Elizen arteko biblia

Ondo-ondoan, ostatuaren eta jantokiaren artean goiti, eskailera estu batzuk zenbait **jangela** tikitarako bide ziren, jite pribatuagoko oturuntza eta besten ospaleku. Aingeru Epaltza

Ia **jangela** osoa zeharkatzen dugu, maîtrea aurretik dugula. Anjel Lertxundi

Gero jatetxean afaldu zuten, **jangela** bat eta zenbait zerbitzari berentzat bakarrik harturik. Xabier Olarra

Trattoria edo dena delakoaren **jangela** oso luzea zen. Xabier Montoia

Berriro jantzi eta hoteleko **jangelara** noa afaltzera. Mikel Hernandez Abaitua

Zentroak lau zerbitzu eskaintzen ditu: adinduentzako **jangela,** eguneko zerbitzua, egoitza eta erretiratuen etxea. Berria - Euskal Herria

Adinekoentzat zentroa, sendagileak, hainbat ekintza egiteko aretoa, komunak, deskantsurako eta lotarako lekua eta **jangela** ere badituzte, besteak beste, Zegamako zentruan. Berria - Euskal Herria

Aizu, mutil, non dago **jangela** pribatua? Lopez de Arana
Irudiak ematen hasi zirenean, bost presoak batera jaitsi ziren **jangelara**. Berria - Euskal Herria
Lehen moduluko **jangela** gurutzatzen. Jokin Urain
Portuko **jangela** handian langileen artean gordea zioten lekuan. Koldo Izagirre

**4** (izenondoekin)

Familiako lau Larrabazter-Mendiri-tarren argazki handi bat zegoen iaz hemengo **jangela** nagusian. Txillardegi
**Jangela** xarmanta zen, bai; eta ez oso zabala. Txillardegi
Egongela handi samar bat aurrealdean, sukalde eta **jangela** txiki bat erdian eta hiru logela txiki atzealdean, korridore estu baten buruan. Oskar Arana
**Jangela** txiki bat dago egongelaren ondoan, eta sukaldera ematen duen lehiatila bat dauka. Oskar Arana
Egun batez, **jangela** handian, kasik bakarrik, irakurtzen ari nintzen, [...]. Marzel Etxehandi
**Jangela** lasaian ari dira bilera egiten. Xabier Mendiguren Elizegi
**Jangela** epel hartan. Alberto Ladron Arana
**Jangela** horixkaren garbitasun eta epeltasun burgesak barrena biguntzen zioten atean bertan. Karlos Zabala

**5** (hitz elkartuetan)

**Jangela** mahaiko sagarrak zuritu. Anton Garikano
Abenduan, zuzendariarekin elkarrizketatzea eskatu zuten euskal presoek, berogailu falta, **jangela** arazoak eta aurkezteko. Jokin Urain
Espageti tontor bat zegoen jaun eta jabe **jangela**-egongelako mahai gainean. Jon Muñoz
· Saloi-**jangela** handiak modaz pasatutako dekorazio estilo berarekin jarraitzen zuen. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**jangela egongelako** (4); **jangela egongelan** (10); **jangela osoa** (3); **jangela osoan** (6); **jangela txiki** (3); **saloi jangela** (3)
**jangelako ate** (4); **jangelako atea** (3); **jangelako mahai** (7); **jangelako mahaia** (3); **jangelako mahaian** (3); **jangelako mahaiaren** (3)
**eskolako jangelan** (3); **jangelan sartu** (6)
**jangelara abiatu** (4); **jangelara itzuli** (8); **jangelara sartu** (6); **sartu ziren jangelara** (4)
**jangelatik irten** (8); **jangelatik kanpora** (3)

---

# jangura *(29 agerraldi, 15 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *iz* jateko gogoa. ik **jangale.**

Ez zuen ia deus jaten, eta ez zuen, gainera, oro har, **jangurarik**. Juan Garzia
Loa galtzen duk, **jangura** galtzen duk, ultzera edo ekzema ateratzen zaik. Juan Garzia
Haragi-usainak haragijaleen **jangura** pizten du eta animalia ehizara bultzatzen. Irene Aldasoro
Zizka-mizkak zerbitzatu zituzten **jangura** bizkortzeko. Karlos Zabala
Goserik geunden; hotzak **jangura** xorroxten zigun; ohointzak baziren aski ardura. Marzel Etxehandi
Bera izan baitzen betiko **janguraz** gosaldu zuen bakarra. Jose Morales
**Jangura** bizia asetzeko, ezohiko elikagaia prestatu zenion: galeperrak. Elizen arteko biblia
Ulertezina iruditzen zait gure seme-alaben **jangura** asegabea. Iban Zaldua
Jatun handia bazara, eutsi zeure **jangurari**. Elizen arteko biblia
Jan eta jan, **jangurari** eutsi ezinik diharduenari. Jenaro Garate
Arrandegia aipatze hutsarekin **janguraren** harra bihurka hasi zen lekukoen sabelean. Jose Morales
Gozoki edo opiltxo bat ateratzen zuen, bestela bezala, eserlekuaren azpitik, eta **janguraren** araberako prezioan saltzen zion. Jose Morales
Dientzefaloak funtzio oinarrizkoak erregulatzen ditu, loa, **jangura** eta libidoa bereziki. Xabier Olarra
-Hori **jangura,** Serioja! Jose Morales

**2** *irud*

Nota onez gainditzen zituen azterketak, baina ez bide zuen sumatzen bere baitan, nik ez bezala, ikastea egokitzen zitzaion gauzen **jangura** jator halakorik. Juan Garzia

---

# janguratsu *izond* janguraz betea.

Europa gizena, **janguratsua,** sabel betea, gripea gaitz larriena duen Europa, hau bezalako hoteletan igartzen dena. Edorta Jimenez

---

# janiza *(orobat **janhiza** g.er.)* **1** *iz ipar* gose handia.

4-ak eta erdietan, [...] filma bat euskaraz, "Angus", gaitzeko **janhiza** zuen mutiko lodi baten harremanak bere lagunekin, ixtorio bat arras hunkigarria. Herria
Nornahiren etxeko mahaian gasna agertzen zaidan oroz, mekanikoki harrapatzen ninduen **janiza** erraldoiaren oinarriak non zeuden ulertu nuen. Itxaro Borda

**2** grina makurra.

Eta ber denboran, prefosta, lür eta hontarzün elibatez jabetzeko **janiza**. Herria
Funtsezko arrazoi askorik ez da, harentzat esker onik ez izateko eta, esker txarra emateko azaleko aitzakia zerbait besterik ez eta, beste alde batetik, gizakiaren **janiza** hut-hutsa bakarrik. Piarres Xarriton

---

# janizari *(orobat **jenizari**)* *iz* turkiar talde militar bateko kidea.

**Janizari** egin zen, agintari turkoen konfiantzazko soldadu alegia, eta Viena hiriaren aurkako bigarren setioan parte hartzera ere iritsi zen. Felipe Juaristi
Arrapaladan zeharkatu genituen turkoen lurrak, laino artean, gotorlekuko **janizariek** gure atzetik ote zetozen beldurrez. Felipe Juaristi
Hegazterren Zabalduaren **Jenizariak;** Tenplu Magikoaren Hazikin Lumatuak. Xabier Olarra
Nekeak puskaturik gindoazelako izango zen, uste dut, baina ez genuen **janizari**-talde bat gureganatzen ikusi. Felipe Juaristi

---

# jankide *iz*

Nik ezin dut egun batetik bestera **jankide** izan sukaldaria banaiz. Berria - Kirola

---

# jankizun *iz*

Gure amak, berriz, "janak **jankizunik** ez" esaten zuen, norbait, desorduetan gehiegi janda, otorduan jangartsu azaltzen zenean. Joxerra Garzia

## **janleku** *(15 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* jantokia.

Dendaren eskuinaldean, **janlekua** zegoen, gela garbi-garbi bat, haritz argiz egindako arasa batek, mahai batek eta zumezko jarleku batzuek hornitzen zutena. Karlos Zabala

Etorri ziren anaiak mahaira eta han agertu zen Junipero **janlekuan** bere lapikokoarekin. Askoren artean

Literatura eta soziologia klaseetara joaten nintzen, unibertsitateko **janlekura,** eta eguerdian eta gauean kafea hartzera La Faluchera, ikasleak elkartzen ziren tabernara. Joseba Urteaga

Etxea du [zakurrak] bizitoki eta **janleku**. Gotzon Garate

---

## **jansenismo** *(orobat **jantsenismo**)* Jansenius-en dotrina, Jainkoak aldez aurretik hautetsiak soilik salba daitezkeela zioena; dotrina horren aldekoek eragin zuten erlijio higikundea.

Hiruak izanen dira geroago **jansenismoaren** aitzindariak. Michel Oronoz

Kalbinismo gisa zokoratua, laster agertu zen **jantsenismo** gisa, altzo katolikoaren baitan, kalbinismora gehien hurbildu zitekeen planteamendua. Iñaki Mendiguren

XVIII. mendean, alabaina, Galiako Elizaren "libertateez" baliatuz, **jansenismoaren** hondakinetarik sortu ziren *prêtres patriotes* deitu "apez abertzale Frantziakoak". Piarres Xarriton

---

## **jansenista** *(orobat **jantsenista** g.er. eta **jansenist** g.er.)* **1** *iz* jansenismoaren aldeko pertsona.

Gorputza, ordea, gozatzeko ere bada, eta aurkakoa diotenak, **jansenistak** eta abar, erlijio triste eta ilun baten ordezkari dira. Berria - Kultura

Parisko jesuitek **jansenisten** kontra izan zituzten borroken ondotik. Joan Mari Irigoien

Blas Pascalen lagun mina zen Domat, **jansenistengandik** gertu ibili zen, eta adiskidetasun horren isla agertzen da liburuan, itzultzailearen arabera. Berria - Kultura

Jean Duvergier de Hauranne baionarraz mintzo da Unamuno, **jantsenisten** buruetakoa izandakoaz. Koldo Zuazo

• **2** *izond* jansenismoari dagokiona.

Eskema ustez progresista askoren atzean ez da zaila bizitzari buruzko ikuspegi **jansenista** aurkitzea gaur ere. Anjel Lertxundi

Gizon Handia laguntzaile estimatzekoa zen, baina batzuetan bazuen, nola esan, halako ukitu **jansenista** bat. Beharrik laster itzalaren goxoak, erromesen jestu, irri eta eleek, aurreikusia nuen sakrifizioaren gustu masokista eta **jansenista** kendu didate. Jon Alonso

Baiona hiri **jansenistean**. Piarres Aintziart

---

## **jantegi** *(48 agerraldi, 5 liburu eta 31 artikulutan -denak Herria astekarikoak-)* **1** *iz* jantokia. ik **jangela; janleku.**

Hoteleko **jantegian**. Piarres Aintziart

Herriot eskolako **jantegia** eta sukaldea osoki berrituak izan dira udako bakantza hauetan. Herria

Justin Larrebat eskolan kantina edo **jantegi** berria ezarri dugu. Herria

Obrak egiten ari dituzte lizeoko **jantegiaren** handitzeko, Akitania lurraldearen laguntzarekin. Herria

Kanbon, herriko **jantegian,** mus xapelketa, Errobi ikastolak muntatua. Herria

Eguerdian, fabrikako **jantegira** noa bazkaltzera. Eskarne Mujika

Uztaritzeko seminarioan, 15-16 urte nituelarik eta, **jantegiko** mahaian *Nor gira gu*-ka ari ginelarik, [...]. Piarres Xarriton

**Jantegian,** Lineren mahaira joaten naiz postrearen platera hartuta. Eskarne Mujika

Bi emakume bakar eta eskarmentu gabeko, [...] jostun bihur daitezke, **jantegi** bat jar dezakete edo brodatze lanetan aritu. Ander Irizar

**2** (hitz elkartuetan)

Bilatzen du **jantegi** arduraduna (1400 bazkari afari). Herria

**3** jaten emateko lekua.

Harriturik zaudela barneko aldakuntzaz, gehienek gogoan baitzituzten oraino aintzineko urtetako behien **jantegi** eta gainerateko gela xahartuak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **herriko jantegian** (3); **jantegi gelan** (7)

---

## **jantoki** *(260 agerraldi, 67 liburu eta 39 artikulutan)* **1** *iz* otorduak zerbitzatzeko prestaturiko tokia. ik **jangela; jantegi; janleku.**

Hoteleko **jantokian** elkartu ginenean. Xabier Olarra

Ostatuko **jantokian** eztabaidan aritu nintzen aitarekin. Alberto Ladron Arana

Sukaldaritza etxezulotik irten egingo da gehienbat, jatetxera, ikastegiko edo lantokiko **jantokira,** hegazkinekora, ospitalekora, etc. Edorta Agirre

Erakuts iezazkidazue aurrenik kapera, kapitulu-aretoa, klaustroa, **jantokia,** sukaldea, logela eta ukuilua. Askoren artean

Isiltasuna gordeko dute beti elizan eta logelan ere; **jantokian,** berriz, otorduetan bakarrik. Askoren artean

Mobilizazioak Osakidetzako **jantokietan**. Berria - Ekonomia

Bakarrik abiatu nintzen kanpuseko **jantokira**. Iban Zaldua

Ikastetxeko **jantokian** bazkaltzen ari ginela. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazkaldu ere Eskolapioetako **jantokian** bertan egiten genuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikastola inguruan zegoen **jantoki** merke baterako dirua ematen zidaten. Iban Zaldua

Kolegioan tortilla jaten zuten egunean halako batean txintxarri-hotsa aditzen zela eta istantean zuzendaria sartzen zela **jantokira** [...]. Fernando Rey

Pentsioko **jantokian** bazkaldu genuen. Juan Luis Zabala

Lehengo egunean jauregiko **jantokian** zegoen bertze zaldun bat. Aingeru Epaltza

Pasabide zuri eta gangadunetan, ikasgeletan, **jantokian,** lotokietan, alde guztietan. Xabier Olarra

Taberna edo self moduko **jantokietan**. Edorta Agirre

Bi ofizial gazteak arrotz-etxean gelditu ziren puxka batean eserita, palmondo haustuz dekoratutako **jantokiko** txoko ilun batean. Xabier Olarra

**Jantokiko** atea zabaldu, eta mahai guztietara begiratu nuen. Anjel Lertxundi

Merkea zelako ez zegoen **jantokian** aukerarik: patatak bazkaltzeko, patatak afaltzeko. Arantxa Iturbe

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Otorduak **jantoki** kolektibo batean egiten genituen. Rafa Egiguren

Istant bat gabe, mariaren usain sarkorrak gainerakoak jan zituen **jantoki** tikian. Aingeru Epaltza

Hango saihets batek pasabide egiten zuen **jantoki** dotore handiraino. Aingeru Epaltza

Etxaldearen administrariak egiten zien harrera basoko etxean, han beti egoten baitzen prest guztia, beti, gau eta egun, edozein urte-garaitan: logelak, bainugelak, sukaldea, ehiztarientzako **jantoki** zabala, gorape irekia. Xabier Olarra

Oihalezko **jantoki** zabalaren pean. Herria

Kanpamendu hartako oihal-denda hartatik, zelai kixkaliaren gainean inprobisatutako behin-behineko **jantoki** hartatik. Harkaitz Cano

**Luxuzko** jantoki batean. Berria - Ekonomia

Txinar **jantokian** bazterrak eta sukaldeko ontziak garbitu. Gotzon Garate

Merkezurreko azokan eta **jantoki** ongintzazkoetan emandako haragi erdi-ustela. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan)

Ba al dakizu non den **jantoki**-bagoia? -galdetu zidan. Anjel Lertxundi

**Jantoki** ataritik arraza eta adin guztietako jendea igarotzen zen. Unai Iturriaga

Edantoki eta **jantoki** batzordea. Herria

· McDonalds-etik hasita, enpresa-**jantoki** eta eguneroko otordua ematen duten jatetxeetaraino, plater gutxi eskaintzen dute denek. Edorta Agirre

**4** jaten den tokia.

Gela hori izango zen ezkonberrien logela, bulegoa eta **jantokia**. Josu Zabaleta

Oinez doala, maiz kalea izango du **jantokia** ibiltariak. Edorta Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **jantoki bagoian** (3)
>
> **erabiltzen dute jantokia** (3); **eskolako jantokia** (3)
>
> **eskolako jantokian** (3); **hoteleko jantokian** (5); **ikastetxeko jantokian** (3); **jantokian bazkaldu** (4); **jantokian bazkaltzen** (4); **jantokian bazkaltzera** (4); **jantokian bazkaltzera geratzen** (3)
>
> **eskola publikoetako jantokien** (3); **jantokien prezioen** (3); **publikoetako jantokien** (3)

---

jantornu ik **jan**[1] **11**.

---

**jantzarazi**, jantzaraz, jantzarazten *(orobat **jantziarazi** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jantzarazi** agertzen da)* **1** du *ad* janztera behartu.

Berehala **jantzarazi,** eta automobilean sartu genuen. Xabier Olarra

Oroitu nolako lehiaz **jantzarazi** hinduen, eta Soria, berriz, biluzi. Aingeru Epaltza

Plazako mutikoei ikusi bezalako kapa iluna **jantzarazi** zidaten. Aingeru Epaltza

Liho finezko arropak **jantzarazi** zizkion eta urrezko lepoko katea ipini. Elizen arteko biblia

Bi egunez asto-belarriak **jantzarazi** zizkioten eskola bitartean. Aingeru Epaltza

**Jantzarazi** zizkidan Gwilym lehengusuaren galtzerdiak eta osabaren jaka zahar bat, untxi eta tabako usaina zeriona. Koro Navarro

Ahalegindu dira txano bat **jantzarazten** buruan, baina Charliek ez du nahiko. Mirentxu Larrañaga

Monsieurrek, berriz, eskuan zuen kapela, Mariek **jantziarazi** zion arte. Joxemari Urteaga

Gainera, nork jakin neskatoak berak janzten ote duen buruzapia, ala aitak **jantzarazten** ote dion? Joxerra Garzia

• **2** *irud*

Bizia baikortzen duen Argi fidagarria, zamak arinduz, bozkarioaren hegalak **jantzaraziz**. Herria

---

**jantzi**[1], jantz, janzten **1** da *ad* gorputza arropez estali; arropak jarri. ik **beztitu**.

Jaiki eta **jantzi** ginen, kafea hartu eta hitz egitea erabaki genuen. Koro Navarro

Telemako jaiki zen, **jantzi,** bizkarrean ezpata hartu, eta kanpora irten zen. Juan Kruz Igerabide

Ikusten dut Line **janzten,** bere poltsatxoa hartzen. Eskarne Mujika

Sakristian geunden biok, bera mezatarako **janzten** eta ni banku batean eserita. Bernardo Atxaga

**-Jantz** naiteke? -galdetu zuen Liubak. Jose Morales

Azkar bai azkar **jantzi** eta Pierrenera joan nintzen lasterka. Josu Zabaleta

Bere **janzteko** eran ere neurriz goitik ibili ohi zen. Askoren artean

Esate baterako, nola **janzten** ziren euskaldunak orain 150 urte? Koldo Izagirre

Antzerkira joaten zen, dotore **janzten** zen, hilero-hilero andregai berri bat zuen. Josu Zabaleta

Txukun **janzten** utzi ziotela behintzat. Josu Landa

Nabarmentxo **janzten** zen, antzinako postiloien dotoretasun bizi horrekin. Koro Navarro

Kolore deigarri samarrez **janzten** zen. Josu Zabaleta

Gero saltoka joan zen **janztera**. Inazio Mujika Iraola

Galtzak lurretik jaso eta heriosuharrean **janzten** hasi zen. Pako Aristi

Berokia arrapaladan hartu eta bizkarraren gainean bota nuen, **jantzi gabe**. Monika Etxebarria

Nahiz eta zaldia **jantzi gabe** zegoen, haren gainera igo zen trebezia handiz. Bernardo Atxaga

*ik* jantzigabe.

Eta anaia guztiak arropa zirtzilez **jantzi** bitez. Askoren artean

Amonatxo beltzez **jantzi** bati besoa emanez. Josu Zabaleta

Maritxu hori emakumez **janzten** da, belarritakoak erabiltzen ditu, belarrietan zuloak baititu, eta neska-ehizara joaten da. Josu Zabaleta

Berehala ikusi nuen nire adiskidea, amonatxo beltzez **jantzi** bati besoa emanez Josu Zabaleta

**2** *hed/irud*

Zelaiak artaldez **jantzi** dira, ibarrak gariz estali. Elizen arteko biblia

Ibai suz **jantzi** hau baizik ez zen ikusten bi mendi zuri haien artean. Josu Zabaleta

Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, **jantz** zaitezte bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz. Elizen arteko biblia

Esna zaitez, esnatu, Jaun ahaltsu hori, **jantzi** zaitez indarrez! Elizen arteko biblia

Zuek egon hemen, hirian, Jainkoarengandiko indarraz **jantzi** zaitezten arte. Elizen arteko biblia

Rulforen paradigman kezka existentziala [...] fatalismoz **janzten** da. Juan Garzia

Idazlea gala filosofikoz **janzteko** asmoz. Josu Zabaleta

Gau osoa bozkarioz **janzten** da. Askoren artean

Garaipena baizik ez da **janzten** sukarrez. Josu Zabaleta

- **3** du *ad (norbaitek zerbait)*

Isil-isilik, galtzak eta alkandora **jantzi** nituen, gimnasiako arropa izerdituaren gainetik. Anjel Lertxundi

Korbata **janzten** zuen eta ongi etorri egiten zioten politikoen bulegoetan. Aingeru Epaltza

Euskarazko jendeak ardurenik **janzten** dituen prakak. Iñaki Segurola

Gabardina **jantzi** eta maletak jaitsi zituen Matiasek astiro. Unai Elorriaga

Utzi zizkioten arropak **jantzi** zituen. Juan Kruz Igerabide

Eguzkitako betaurrekoak **jantzi** nituen. Aingeru Epaltza

Zutitu eta kapela **jantzi** zuen. Koro Navarro

Erantzia dut soinekoa; nolatan **jantzi** berriro? Lotu gerrikoa eta **jantzi** oinetakoak. Elizen arteko biblia

Baina, **jantz** ezazu kapela, doktore jauna. Monika Etxebarria

Bakeak aurrera ere **jantz** zezan bere buruxka-girlanda, eta iraupenez lotu bien arteko adiskidetasuna. Juan Garzia

Oinetako zahar eta birjosiak **jantzi** zituzten oinetan. Elizen arteko biblia

Jaka, galtzak, feza eta oinetakoak **janzten** dituen benetako gizon bat. Patxi Zubizarreta

**Jantz** ditzagun armak. Juan Kruz Igerabide

Neska hura eta mutil hura apartamentu txiki bat altzariz **janzten** ari ziren. Koro Navarro

Etxe hartako altzariak errekisatuak izan ziren, Jeneralak Donostian udarako zeukan jauregia **janzteko**. Koldo Izagirre

· Gizonak berak **jantzi** zion soinekoa, eta txapinak luzatu. Patxi Zubizarreta

Ondoren, tunika **jantzi** zion Aaroni. Elizen arteko biblia

Han, apaiz-arropak erantzi zizkion Moisesek Aaroni eta Eleazarri **jantzi**. koroa **jantzi** zizun emazteari bezala eta hodeien gainetik altxatu zintuen. Elizen arteko biblia

· Beraz, zer jan eta zer **jantzi** edukiz gero, aski dugu. Elizen arteko biblia

**4** (norbaitek zerbait abstraktu)

Ezin aitor diezaiokezu zeure buruari biografia bat **janzten** ari zarela eta eraikitzen. Iñaki Segurola

Euskaraz egiten badugu, ez dugu egiten euskara **jantzeko,** euskaraz **janzteko** baizik. Patziku Perurena

Lotu gerrikotzat egia, **jantzi** bularrekotzat zintzotasuna. Elizen arteko biblia

Guk alaitu egin dugu heriotza, lorez **jantzi** dugu, usain gozoz bildu, errazago bihurtu. Josu Zabaleta

Gaixotasunak, ordea, gizartean **jantzi** ohi dugun gaineko geruza hori kendu egiten digu. Xabier Mendiguren Elizegi

**5** (norbaitek zerbait beste zerbaitez)

Baina ez nuen berriro altzariz **jantzi** etxea. Josu Zabaleta

Tenplua eraikitzen bukatu zutenean, sabaia zedrozko habez eta oholez **jantzi** zuen. Elizen arteko biblia

Marfilezko errege-aulki bikain bat ere eginarazi zuen Salomonek eta urre garbiz **jantzi**. Elizen arteko biblia

Larruazalez **jantzi** eta bizi-arnasa emango dizuet. *Elizen arteko biblia*

Ohorez **jantzi** nau Jaunak eta neure Jainkoa dut indar. **Jantzi** adorez, naziook. Elizen arteko biblia

· Jaun honek bere burua jakintzaz **janzten** zuen! Monika Etxebarria

Horrela bada, **jantzi** zeure burua ospe eta handitasunez. Elizen arteko biblia

Frantziskok Liburu Santuetan aditua zen Spirako Zesareo anaiari gomendatu ziola, "berak hitz xumez idatziriko Erregela Ebanjelioko hitzez **janzteko** eginkizuna". Askoren artean

· Bere gelara joan ginen; ondo **jantzia** zeukan, altzari distiratsu dotorez betea. Josu Zabaleta

**7** (norbaitek beste norbait)

Zaldun behartsu bat **jantzi** zuen. Beren idoloei kendutako arropaz **janzten** dituzte apaizek emazte eta seme-alabak. Askoren artean

Biluzik nengoen, eta **jantzi** egin ninduzuen. Elizen arteko biblia

Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta **jantzi**? Elizen arteko biblia

Azalez eta haragiz **jantzi** ninduzun, hezurrez eta zainez ehundu. Elizen arteko biblia

**Jantz** itzak agudo, hotzak hiltzen zaudek eta. Askoren artean

· Bere jantziaren erdiaz **jantzi** zuen behartsua. Askoren artean

Soinekoak erantzi zizkioten eta purpurazko kapa batez **jantzi** zuten. Elizen arteko biblia

Bidean aurkitzen zuen lehenengo behartsua **janzten** zuen hartutako jantziarekin. Askoren artean

· Gazteluzaina zaldia **janzten** ari zen, Domingok lagunduta. Aingeru Epaltza

· Bere salbamenez **jantzi** bainau, garaipenezko soinekoz estali. Elizen arteko biblia

**8** (zerbaitek norbait edo beste zerbait)

Galminak bizimindu egiten gaitu, eta biziarazten, urduritzen, tirtiritzen, xaxpikitzen, ezinegon gozo batez **janzten**. Iñaki Segurola

Izenak eta diruak asko **janzten** dute merkatu horretan gizontxoak duen balioa edo prezioa. Iñaki Segurola

Beltzak **janzten** ditu ederkienik larru gorria eta azal zuria. Iñaki Segurola

Ezpain-xokoan loratzen zaion irriño ezti batek **janzten** du tarteka haren solasa. Iñaki Segurola

**9** ***txapela jantzi*** norgehiagoka batean irabazle gertatu.

Aukera ezin hobea dute txapela **janzteko**. Berria - Kirola

Lau taldeek txapela **janzteko** moduko maila dutela erakutsi baitute dagoeneko. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**abitua jantzi** (5); **alkandora jantzi** (5); **arropa jantzi** (10); **arropak jantzi** (20); **azkar jantzi** (7); **bata jantzi** (5); **beltzez jantzi** (12); **berokia jantzi** (10); **berriro jantzi** (19); **berriz jantzi** (11); **betaurrekoak jantzi** (13); **bizkor jantzi** (6); **dotore jantzi** (8); **elastikoa jantzi** (8); **eraztuna jantzi** (5); **eskularruak jantzi** (6); **gabardina jantzi** (9); **galtzak jantzi** (5); **jaka jantzi** (12); **jantzi beharra** (9); **jantzi du txapela** (10); **jantzi eta kalera** (7); **jantzi zuen txapela** (27); **jantzi zuten txapela** (6); **kapela jantzi** (12); **kolorez jantzi** (9); **koroa jantzi** (8); **maillot horia jantzi** (8); **mantala jantzi** (8); **mozorroa jantzi** (6); **oinetakoak jantzi** (12); **pijama jantzi** (7); **soinekoa jantzi** (13); **soingainekoa jantzi** (5); **txanoa jantzi** (5); **txapela jantzi** (83); **txapelak jantzi** (9); **txapinak jantzi** (5); **zapatak jantzi** (7); **zuriz jantzi** (5)

**arropaz jantzia** (5); **beltzez jantzia** (36); **dotore jantzia** (10); **gaizki jantzia** (5); **gizon jantzia** (8); **larruz jantzia** (5); **ondo jantzia** (7); **ongi jantzia** (10); **oso jantzia** (12); **trajez jantzia** (5); **zuriz jantzia** (16)

**beltzez jantziak** (10); **ongi jantziak** (9); **zuriz jantziak** (6)

**txapela jantziko** (5); **zuriz jantziko** (5)

**beltzez jantzirik** (26); **doluz jantzirik** (5); **dotore jantzirik** (8); **ondo jantzirik** (5); **zuriz jantzirik** (11)

**beltzez jantziriko** (7)

**beltzez jantzita** (65); **berdez jantzita** (8); **betaurrekoak jantzita** (5); **doluz jantzita** (6); **dotore jantzita** (30); **elastikoa jantzita** (8); **eskularruak jantzita** (7); **gorbata jantzita** (5); **gorriz jantzita** (8); **jantzita ageri** (7); **jantzita agertu** (17); **jantzita agertzen** (5); **jantzita atera** (7); **jantzita ateratzen** (6); **jantzita azaldu** (12); **jantzita dago** (12); **jantzita daude** (9); **jantzita egoten** (6); **jantzita etorri** (12); **jantzita ibili** (7); **jantzita ibiltzea** (5); **jantzita ibiltzen** (14); **jantzita ikusi** (9); **jantzita ikusten** (11); **jantzita joan** (11); **jantzita joango** (8); **jantzita joaten** (9); **jantzita zebilen** (8); **jantzita zegoen** (65); **jantzita zeraman** (13); **jantzita zetorren** (6); **jantzita zeuden** (11); **jantzita zeukan** (7); **jantzita zihoan** (10); **jantzita zihoazen** (7); **kaleko jantzita** (7); **kalez jantzita** (5); **kamisoia jantzita** (6); **kapela jantzita** (13); **kolorez jantzita** (5); **larruz jantzita** (6); **mantala jantzita** (5); **ondo jantzita** (19); **ongi jantzita** (5); **oso dotore jantzita** (6); **pijama jantzita** (7); **pijamaz jantzita** (6); **soinean jantzita** (7); **soinekoz jantzita** (5); **trajez jantzita** (7); **txabusina jantzita** (7); **uniformea jantzita** (12); **uniformez jantzita** (14); **urdinez jantzita** (10); **zapatak jantzita** (6); **zuriz jantzita** (45)

**beltzez jantzitako** (53); **beltzez jantzitako emakume** (7); **beltzez jantzitako gizon** (5); **berdez jantzitako** (5); **dotore jantzitako** (7); **gorriz jantzitako** (12); **grisez jantzitako** (6); **horiz jantzitako** (5); **kaleko jantzitako** (27); **kaleko jantzitako bi** (5); **kalekoz jantzitako** (12); **kalez jantzitako** (15); **kolorez jantzitako** (5); **lihoz jantzitako** (6); **uniformez jantzitako** (7); **urdinez jantzitako** (12); **zibilez jantzitako** (5); **zuriz jantzitako** (25)

---

# jantzi[2] 1 *iz*

**Jantzi** hau aurkitu dugu; ikus zure semearena den ala ez. Elizen arteko biblia

Zutik zegoen, armairutik hurbil, **jantzi** bat beso gainean zeramala-. Lopez de Arana

Beste **jantzi** batzuk jarriko dituzte. Elizen arteko biblia

Hickson´s-en erositako **jantzi hori**. Lopez de Arana

Nork eman dizkik **jantzi horiek**? Juan Kruz Igerabide

Eta nik ordezko **jantzi hauek** hartu ditut garbitegitik. Iñaki Mendiguren

## 2 (izenondoekin)

Inork ez dio **jantzi** zaharrari **jantzi** berriari kendutako adabakirik josten. **Jantzi** fin dotoreak zerabiltzaten, txukun ebakiak, txukunago josiak. Elizen arteko biblia

Gudarien aurretik kantari-talde bat ipini zuen, **jantzi** sakratuak soinean. Elizen arteko biblia

Apaizek, beren **jantzi** bereziak soinean zituztela, […]. Elizen arteko biblia

**Jantzi** bordatuak eman nizkizun. Elizen arteko biblia

Lihozko **jantzi** sakratuak jantziko ditu. Elizen arteko biblia

Quenu irribarrez zegoen; Lisa, tankera egokian; biak **jantzi** beltzean. Karlos Zabala

Ikusten zituen sartzen, **jantzi** dotoreetan tinkaturik, ileorde errautseztatuak buruan. Elena Touyarou

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urrezko sei mila txanpon eta hamar **jantzi**-sorta berekin zeramatzala. Elizen arteko biblia

**Jantzi**-ertzak ogia, eltzekoa, ardoa, olioa nahiz bestelako janariren bat ukitzen duela. Elizen arteko biblia

Alasak, **jantzi**-armairuak, jantzitokiak, gainezka zeuden guztiak jantziz eta arropa xuriz. Joxan Elosegi

Banku-txekeen taloitegia, berriz, zure **jantzi**-mahaiaren goiko tiraderan. Mirentxu Larrañaga

**Jantzi**-biltegitik trapuzahar-puskak harturik. ez baitzaizkit inoiz **jantzi** kontuak inporta izan. Joxemari Iturralde

Ez dute janzten kaparik, ez **jantzi**-gainekorik, ez kapusairik. Askoren artean

*ik* jantzigain.

Nicolas Bricoletenean, **jantzi** alokatzailea bera, altzari zaharren saltzailea. Josu Zabaleta

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Israelgo erregea eta Josafat, Judakoa, errege-**jantzi** ederretan, aulki banatan jarriak zeuden. Elizen arteko biblia

Gudu-**jantzi** berria zeraman. Elizen arteko biblia

-O -esan zuen Annak zeruari so-, Parisko gau-**jantzi bat** izan nahi nuke neuretzat eta etiketa-**jantzi bat** zuretzat... Lopez de Arana

Gazteek gudari-**jantzi** ederrak zeramatzaten. Elizen arteko biblia

Arrotzak azti-**jantzi** oso higatuak zeramatzan soinean. Iñaki Mendiguren

Lan-**jantzi** zikin hark. Inazio Mujika Iraola

Jaten amaitu ondoren, labana lan-**jantzian** igurzten zuen garbitzeko. Joseba Urteaga

*ik beherago* 5. Askoren artean

Negarra dantza bihurtu didazu, dolu-jantzia festa-**jantzi**. Elizen arteko biblia

Dolu-**jantzi** zarpailak hartu zituen soinean. Elizen arteko biblia

Hil-**jantzi** itxurako tunika hura. Mirentxu Larrañaga

## 5 *jantzian* (izen soil baten eskuinean)

Bi neska ikusi nituen handik hurbil, tenis-**jantzian**. Anjel Lertxundi

Lokatzez lohitutako uniforme-**jantzian**. Mirentxu Larrañaga

Artzain **jantzian** landaz landa. Patxi Ezkiaga

Handik hurbil samar bi neska ari ziren, zaldun **jantzian,** zaldi bana eskuilatzen. Anjel Lertxundi

Ikusten dun neska hura, errotari-**jantzian** dagoena? Anjel Lertxundi

Kale-**jantzian** zebiltzan poliziekin paseatzen ikusi ohi zuten sarritan. Irene Aldasoro

· -Poliziak eraman dik; edo auskalo, kaleko **jantzian** zihoazaan eta. Juan Kruz Igerabide

## 6 *jantzi denda* (*orobat* ***jantzidenda*** *g.er.*)

Malkin andrearen **jantzi-dendan** ikusitako mutiko zurbila zen. Izarra bezalaxe, Salzedo gizon **jantzi denda** hetsi berria da Baionan. Iñaki Mendiguren

Okasio Guztietarako **jantzi**-dendara joan zen. Iñaki Mendiguren

Izter dantzaria ez zitzaidala iruditzen andre beltzaran harena, baizik gehiago ematen zuela luxuzko **jantzi dendetako** manikien izterra. Pello Lizarralde

Hartu duen lehendabiziko erabakia atari gaineko iragarkia aldatzea izan da: ***jantzi*** - ***denda*** kendu eta *arropa-denda* jarri du. Anjel Lertxundi

## 7 *lan-jantzi* (*36 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan; orobat* ***lanjantzi*** *18 agerraldi, 6 liburu eta artikulu 1ean*) *iz* laneko jantzia.

Laneko arropak jantziko ditut, galtza beltzak eta atorra urdina, **lanjantziaren** soingainekoa, letoizko botoiekikoa, amak sidolaz garbitzen didana. Fernando Rey

Tornuan **lan-jantzi** urdineko gizon batek palanka bat zerabilen. Lopez de Arana

Hantxe agertu zen Karmen bera, **lan-jantzi** urdina soinean eta organizazioko kapela gorri-beltza buruan. Inazio Mujika Iraola

**Lan-jantzi** urdin zarpaila jantzita. **Lan- jantzia** koipe zikinez belzturik. Javi Cillero

**Lanjantzi** zituen galtza gorriak eta atorra zuri-gorria erantzirik, bere autoan sartu eta Unzaluren etxera abiatu zen. Xabier Montoia

Jaiegunetako **lanjantziarekin**. Fernando Rey

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**apaiz jantzi** (3); **emakume jantzi** (3); **enperadorearen jantzi berria** (6); **erositako jantzi** (3); **etxeko jantzi** (5); **gau jantzi** (3); **gizon jantzi** (3); **jantzi aldaketak** (3); **jantzi apain** (5); **jantzi apainez** (3); **jantzi arin** (3); **jantzi arinekin** (3); **jantzi arruntak** (4); **jantzi beltz** (15); **jantzi beltza** (6); **jantzi beltzak** (8); **jantzi beltzekin** (4); **jantzi beltzekin dator** (3); **jantzi berde** (5); **jantzi berezi** (5); **jantzi bereziak** (5); **jantzi bero** (5); **jantzi berri** (7); **jantzi berria** (13); **jantzi berriak** (17); **jantzi bitxiak** (4); **jantzi bordatuak** (4); **jantzi denda** (7); **jantzi distiratsu** (3); **jantzi dotore** (5); **jantzi dotorea** (5); **jantzi dotoreak** (6); **jantzi ederrak** (11); **jantzi ederretan** (3); **jantzi ederrez** (3); **jantzi fin** (4); **jantzi gris** (4); **jantzi guztiak erantzi** (3); **jantzi kurdu** (3); **jantzi luze** (6); **jantzi luzeak** (3); **jantzi mota** (3); **jantzi sakratuak** (14); **jantzi urdin** (10); **jantzi urdina** (3); **jantzi urdinak** (3); **jantzi xuri** (3); **jantzi zabalegi** (3); **jantzi zahar** (6); **jantzi zaharra** (3); **jantzi zaharrak** (7); **jantzi zaharrari** (3); **jantzi zarpailak** (4); **jantzi zikinak** (3); **jantzi zuri** (15); **jantzi zuri bat** (5); **jantzi zuriak** (3); **jantzi zuriz** (3); **kirol jantzi** (3); **koloreko jantzi** (4); **lan jantzi** (14); **mozorro jantzi** (3); **udako jantzi** (3); **zetazko jantzi** (5)

**apaiz jantzia** (5); **bainu jantzia** (4); **dolu jantzia** (14); **doluzko jantzia** (3); **efod apaiz jantzia** (5); **efod jantzia** (4); **etxeko jantzia** (3); **gatibu jantzia** (4); **hil jantzia** (3); **jantzia egiteko** (4); **jantzia erantzi** (9); **jantzia eta bularrekoa** (3); **jantzia hartu** (5); **jantzia zeraman** (10); **jantzia zeraman soinean** (3); **lan jantzia** (9); **lan jantzia soinean** (3); **laneko jantzia** (3); **litsekiko jantzia** (6); **purpurazko jantzia** (3)

**apaiz jantziak** (7); **apaiz zerbitzurako jantziak** (3); **azpiko jantziak** (3); **bitxiak eta jantziak** (3); **dolu jantziak** (4); **egindako jantziak** (4); **ehizarako jantziak** (3); **eszenografia eta jantziak** (6); **euskal jantziak** (4); **jantziak aldatu** (4); **jantziak atera** (3); **jantziak banatu** (3); **jantziak banatzen** (3); **jantziak egin** (3); **jantziak egiteko** (6); **jantziak eman** (10); **jantziak erabiltzen** (4); **jantziak erantzi** (16); **jantziak eranztera** (3); **jantziak eta oinetakoak** (6); **jantziak garbitzen** (3); **jantziak gordetzeko** (3); **jantziak hartu** (7); **jantziak ikuzteko** (3); **jantziak ipini** (3); **jantziak jarri** (3); **jantziak kendu** (8); **jantziak kentzen** (4); **jantziak probatzeko** (3); **jantziak saltzen** (4); **jantziak**

soinean (15); jantziak urratu (25); jantziak urraturik (8); jantziak zeramatzan (5); jantziak zeramatzaten (3); jantziak zituzten soinean (3); kaleko jantziak (3); laneko jantziak (3); larruzko jantziak (3); liturgi zerbitzurako jantziak (3); purpurazko jantziak (4)

doluzko jantzian (3); errotari jantzian (3); hil jantzian (3); kale jantzian (8); kaleko jantzian (5); lanskenete baten jantzian (3); militar jantzian (3)

jantziaren azpian (4); jantziaren gainetik (3); lan jantziaren (6)

kaleko jantziekin (5)

jantzien azpian (10); jantzien eta oinetakoen (5); jantzien gainean (4); jantzien gainetik (3)

jantzirik ederrenak (4); jantzirik onenak (3)

errege jantzitan (5)

dolu jantziz (20); dolu jantziz estali (4); dolu jantziz estalirik (3); estali dolu jantziz (3); gau jantziz (3); jantziz aldatu (6); jantziz aldatzera (3); jantziz estali (4); jantziz estalirik (3); kaleko jantziz (3)

---

jantziarazi ik **jantziarazi**.

---

jantzidenda ik **jantzi**[1].

---

**jantzidun** *izond* jantzia duena.

Alai eta kaskarin salto batez jaitsi ziren bagoitik, txolarre **jantzidunak** balira bezala, eta gutxik egin zuen ez baitziren txioka hasi. Matías Múgica

Lepo-zuriak ofizinetako langileak dira (alkandora zuridunak, nolabait), eta lepo-urdinak berriz ekoizpen-langileak (mahonezko **jantzidunak,** alegia). Iñaki Heras

---

**jantzigabe** *(orobat **janzi gabe**) izond* jantzirik ez duena.

Zurezko mahai **jantzigabe** batean eseri zen, bi neska langile eta mekaniko baten aurrez aurre. Irene Aldasoro

Logelara iristeko, jarlekuak baino ez zituen gela **jantzi** gabe bat zeharkatu beharra zegoen aurrena. Karlos Zabala

Ohe txiki **jantzi** gabe bat zegoen atearen pareko hormaren kontra. Anjel Lertxundi

Plagioaz ari al zara orain? kazetari **jantzigabeak**. Berria - Kultura

---

**jantzigain** *iz* gainjantzia.

**Jantzigain** beltzetan, elurraren antzeko loreak zituen zuhaitz zuria zeramaten brodaturik, zilarrezko koroa baten eta punta anitzeko izar askoren azpian. Agustin Otsoa

---

**jantzigela** *(orobat **jantzi-gela**) iz* jantzteko gela. ik **jantzitoki 2**.

Adler **jantzigelatik** etorri zen, uniformearen gainean gerrikoa lotuz. Xabier Olarra

Etxeko **jantzigelan** daukat. Antton Olano

Gau batean, biak elkarrekin joan zirelarik Jimmyrenera, Morse andreak **jantzi-gelara** egin zuen halako batean, Florence Miller andrearekin batera. Mirentxu Larrañaga

---

**jantzigile** *iz* jantziak egiten dituen pertsona.

Dirua behar duk, diru asko, etxerako, janaritarako, jostunarentzat, **jantzigilearentzat,** antzerkirako, kotxerako; nik ahal dudan bezala bilatzen diat diru hori. Josu Zabaleta

---

**jantzigintza** **1** *iz* jantziak egitea.

Bi milioi eta erdi lagunek jarduten dute Europan ehungintzan eta **jantzigintzan**. Berria - Harian

Ehungintzako eta **jantzigintzako** inportazioak kontrolatzen. Berria - Harian

Andresek **jantzigintzako** dendara joateko ohitura kendu nahi izan zuen, baina ezin zuen. Josu Zabaleta

Hiru hilabetean joera ona izan dute petrolio fintzeak (%48); energia elektriko, gas eta urak (%28,9); ehungintza eta **jantzigintzak** (%4,2) eta metalgintzak (%3,4). Berria - Ekonomia

**2** (hitz elkartuetan)

Londreseko **jantzigintza** tailer batean. Iñaki Heras

Europako ehun eta **jantzigintza** industriaren elkartea. Berria - Harian

**Jantzigintza** eta ehungintza arloan, oso ohikoa da azpikontratazioa, ekoizpen prozesuan gerta daitezkeen gehiegikerien erantzukizuna ez bereganatzearren. Iñaki Heras

---

**jantzitasun** *iz* jantzia denaren nolakotasuna.

Begirada amatiar haren atzean, laguntasun eta bihotz-zabaltasun haren atzean, buru-**jantzitasun** egonkor haren atzean... neurosi ezkuturen bat artean. Juan Kruz Igerabide

---

**jantzitegi** *(orobat **janztegi** g.er.) iz* jantziak gordetzen diren tokia. ik **jantzitoki.**

[Jantzi-ilara mordoa] esekigailu bernizatuetatik erreskadan zintzilikatuta, bere logelako **jantzitegian** paratuta zituen haga luzeetatik. Mirentxu Larrañaga

Trocaderon denek ezagutzen zuten Smithers andrea: mandatu-mutilak, atezainak, **jantzitegiko** neskak, maîtreak..., jende guztiak. Fernando Rey

Lantegi eta bulegoetako jarlekuen ondoan proposatzen ditu: apalak, artxibategiak, **janztegi** eta trenkada metalikoak. Herria

Kutxa gotorra, **jantzitegia,** eta idazteko gauzak gordetzeko armairu bat dagoen gelatxo batetik igarota. Josu Zabaleta

**Jantzitegira** sarturik, kapela zintzilikatu zuen, eta, hurrengo, bizkarra makurtu zuen feltrozko txapinak hartzeko. Mirentxu Larrañaga

**Jantzitegian,** zabal-zabalik baitzegoen, beroki-esekigailuak baino ez ziren ageri. Mirentxu Larrañaga

Korridore luze eta estu hura, hango jantoki iluna eta **jantzitegi** desegokiak. Mirentxu Larrañaga

**Jantzitegi** barruan ezkutatu ziren. Iñaki Mendiguren

Antzerkiko **jantzitegi** zahar batetik. Irene Aldasoro

---

**jantzitoki** 1 *iz* jantzitegia.

Alasak, jantzi-armairuak, **jantzitokiak,** gainezka zeuden guztiak jantziz eta arropa xuriz. Joxan Elosegi

**2** jantzeko tokia. ik **jantzigela**.

Buruan zerabilen distribuzio berriaren arabera, solairu nagusia eremu publikoa izango zen: despatxua, harrera-gela, saloi-biblioteka, jantokia, sukaldea eta officea; eta goiko planta familiaren bizitza pribaturako txokoa: sala, **jantzitokia,** logelak, bainugelak. Patxi Iturritegi

Aspaldi bi gela izan ziren han: logela eta **jantzitokia** . Xabier Olarra

Orain burua erakutsi du **jantzitokiaren** gainetik. Xabier Paya

---

**jantzitxo** *iz* jantzi txikia.

Zazpiak eta hogeita bostetan Peter bere gelan ezkutatu zen, eta zazpiak eta erdi puntu-puntuan berriro atera zen, goitik behera biluzik, bainu **jantzitxo** urdin bat eta kirolerako oinetakoak salbu. Josu Zabaleta

Gustura askorik ebatsiko zintuzket, zure marinel-**jantzitxo** eta guzti, bai horixe! Mirentxu Larrañaga

---

**janzkera** *(orobat* ***jazkera*** *g.er.)* **1** *iz* janzteko modua, norbait jantzirik dagoen era.

**Janzkera** ere bertakoa zen: kapela hegal zabala, artilezko maripulisa eta galtzak, larruzko bota luzeak. Felipe Juaristi

Emakumeak Corte Inglesko poltsekin, neska gazteak Zarakoekin, nerabeak Bronxeko beltzen **janzkerarekin** . Unai Iturriaga

**Janzkera,** orrazkera, gorputzaren jarrera eta hitz egiteko modua zaindu beharko dute. Berria - Mundua

Mahuka luzeko beste soineko bat, popeen **janzkera** oroitarazten zuena. Karlos Zabala

Mairu-herritik etorri-berria zirudien bere **janzkeran** . Patxi Ezkiaga

-Andere, zure **janzkerak** ukatzen diguna, zure adatsak aitortzen digu. Patxi Ezkiaga

Motxila handiak eta **janzkerak** salatzen dute mendizalea, ez paseatzaile noragabearen ibilerak. Aingeru Epaltza

Makila, zakutoa eta oinetakoak utzi eta **janzkera** aldatu zuen, orain anaiek daramaten abitua hartuz. Askoren artean

Hau egin ondoren, Frantziskorekin elkartu zen, haren biziera eta **janzkera** hartuz. Askoren artean

Zuraje gaitzeko laguna zen, itxuraz nahiz **janzkeraz** . Aingeru Epaltza

**Janzkeraz** jendarmea zirudien interbentore batek. Unai Iturriaga

-Mairua da gorputzez eta **janzkeraz,** baina bene-benetako kristaua da arimaz. Patxi Ezkiaga

Beste guztiengandik ezberdinak ziren, bai **janzkeraz** eta bai bizieraz, eta gizon basatiak ziruditen. Askoren artean

Hiru gizaseme agiri, hirurok dotore oso **jazkeraz** eta jarreraz. Txillardegi

Atzeratuta zaudela arlo guztietan, **janzkeran,** hizkeran, ibileran. Joseba Urteaga

Ibileran baldarra eta **janzkeran** ez batere dotorea. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** *hed/irud*

Abesti batzuen **janzkera** elektronikoa beste batzuena baino handiagoa da. Berria - Kultura

Fernandez de la Vega oraingo Gobernu bozeramaile eta orduko Justizia idazkaria erabakiari **janzkera** juridikoa emateaz arduratu zen. Berria - Euskal Herria

Oso erraza da froga honi ohiko egokitasun akademikoaren **janzkera** ematea. Ibon Uribarri

*Arbi errea abenduko, gauza guztiak bere garaiko*; edo esanahi berdina duen **janzkera** bestelako hau: *Denboraren denborako, gauza guztiak bere garaiko.* Pello Zabala

**3** (izenondo edo izenlagunekin)

Batzuetan, **janzkera** bitxia erabiltzen zuen: belusezko berokia, belaunetarainoko galtzak, krabelin berdea botoi-zuloan... Antton Olano

Sydney judua zen, gizon txikia, **janzkera** dotorekoa, eta buruargia. Mirentxu Larrañaga

**Janzkera** berria hurrengo zenbakian deskribatzen da. Askoren artean

Eder hori **janzkera** lotsagarri honetan jantzarazi dutenak. Patxi Ezkiaga

**Janzkera** nazionala zeramaten, eta bitxiz apaintzen ziren erruz. Karlos Zabala

**Janzkera** ausartak are ageriagoan jarritako gorputz gazte eta lirain baten jabe zen, itsu baten amets erotikoak elikatzeko gauza. Aingeru Epaltza

Haren **janzkera** militar antxak nolabaiteko aldea markatzen du gainerakoekin. Aingeru Epaltza

**Janzkera** iluneko mutilak hiriko karriketan desagertuak ziren, agertu bezain isil. Aingeru Epaltza

Aurpegia eta batez ere begi bueltak puztu-puztuak zituela agertu zen sukaldera, ohiko **janzkerarekin:** praka bakeroak, artilezko jertse azul iluna eta Marteensak. Unai Iturriaga

Nahiago dinat hire lehengo **janzkera** . Antton Olano

Iheserako **janzkera** prestatzen hasi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen ez irain, ez iseka, baizik eta **janzkera** -aholku bat. Xabier Olarra

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Umeak jostari topatzen genituen, ama gazteen eskutik edo inude **janzkerako** emakumeen besotan. Txillardegi

Artzain **janzkera** zuen, baina ez zen artzaina. Anjel Lertxundi

-Kirol **janzkera** zaramak soinean! -gure ondoan, kazetari batek. Aingeru Epaltza

Kale **janzkeran,** emakume asko eta asko, hamaika koloretako guardasolak eskutan zeramatzatelarik. Txillardegi

Bortzak […] dolu **janzkera** akatsgabeaz apainduak zeuden. Aingeru Epaltza

Guda **janzkera** zeraman. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> janzkera aholkuak (3); janzkera juridikoa (3)

---

**janzkeradun** *izlag*

Honetan, korrika, oihuka, irrintzika eta deiadarka, **janzkeradun** zaldunak hurbildu ziren Don Kijote harriturik zegoen lekura. Patxi Ezkiaga

---

**janzki** 1 *iz* jantzia.

Alkandora jantzi zuen; aldamenean zeuzkan beste **janzki** guztiak ere, lehor eta garbi. Jose Morales

Ehun zurizko lepo almidoiztatua zeraman samaren jiran, mahuka zuri batzuk igotzen zitzaizkion ukondoetaraino, mantal zuri batek oinetakoen puntak ezkutatzen zizkion, eta, **janzki** argi horien azpian, haren kaxmir beltzezko soinekoaren izkinak baino ez ziren ikusten ahal. Karlos Zabala

Eman zeure ogia gose denari eta zeure **janzkiak** biluzik daudenei. Elizen arteko biblia

Matson andreak, aurreko udaberriko tafetazko **janzki** urdina soinean, gonbidatu bakoitzari zegokion eserlekua esleitu zion egongelan barrena. Mirentxu Larrañaga

Temisek halaxe hartzen zituen bisitariak, zegoen bezala, batere txukundu gabe, etxeko **janzki** arruntak soinean. Jose Morales

Horrenbestez, uztailaren 16ko goiz hartan bertan, **janzki** errusiar arrunta soinean eta zorroa bizkarrean, Mikel Strogoffek geltokira jo zuen lehenengo trena hartzeko asmotan. Karlos Zabala

**Janzki** guztiak zeharo urratuak zituen, zapatak deseginak. Fernando Rey

Soin osoko **janzkia** behar. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** gizonezkoen jantzia, kolore eta ehun bereko jaka eta galtzak osatua.

**Janzki** argi bat zeraman, bidaietarako halako traje zabal modako bat. Ander Irizar

**Janzki** eta gorbata dotorez jantzitako gizon bat zetzan errepide bazterreko areketako batean. Juan Luis Zabala

**Janzki** eta gorbata beltzaz eta alkandora zuriaz jendearen txaloak lortu zituzten berehala. Berria - Kultura

Berehalaxe antzematen zen hori haren asko ibiliaren itxuran, haren tweedezko **janzki** ondo josian eta hitz egiteko modu bipilean. Irene Aldasoro

Orduan, bi neska gazte sartu ziren, kapela handiak buruan, eta mutil gazte bat, **janzki** koadroduna soinean, eta ondoko mahai batean eseri ziren. Irene Aldasoro

Semearen argazkirik kuttunena erakutsi zidan: gizonezko gazte bat, biboteduna, flanelazko **janzkia** soinean, [...]. Javi Cillero

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aterperik gabe gelditu zirenentzat jaki eta **janzki** biltze bati ekin zion... Pablo Sastre

Hori esateaz batera, zapiak eta sorbalda-oihalak ateratzen zituen handik barrutik, bere **janzki**-kutxatik hartuko balitu bezain lasai. Jose Morales

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tailleur: emakume-**janzkia**, gizasemeentzako moduko jaka batek eta ehun bereko edo antzeko ehuneko gona batek osatua. Fernando Rey

Ondoragotu, eta orduan eta handitzenago zitzaion aurpegia alde guztietatik, soinean zituen emakume **janzki** zabalegi aseegiek efektu bera egiten zutela. Matías Múgica

Berehala agertu zen Ada, bere abadesa-**janzki** errauskolorean. Anjel Lertxundi

Argazki biotako lehenengoan marinel **janzki** zuriez apaindurik ageri da. Edorta Jimenez

Antisemitismoa bezain aspaldidanikoa dela otoitz-**janzkiaren** laidoztapena. Juan Garzia

Hezetasuna alde guztietatik sartzen duk: ohe-**jantziei**, barne-**janzkiei**, liburuei, tabako-toxari, ogiari, den-denari sartzen zaiok. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **janzki eta gorbata** (3)

---

# **janzkidun** *izlag* janzkiko.

Mutil hark berdin gogoko zituela ebakera axolagabeko **janzkidun** damak eta metalezko instrumentu burrunbatsuen pareko kolore biziez jantzitakoak. Mirentxu Larrañaga

---

# **janzteke** *adlag* jantzi gabe.

Lagundu, mesedez, oraindik **janzteke** nago! Xabier Paya

---

# **janzteko** *iz* jantzia.

Garrüzeko eguneroko egitekoak ere Iba-etaz haratako bertze batzuen gain utzi zituen, jatekoaren eta **janztekoaren** ordain: Martin Abaurre eta bere familia. Aingeru Epaltza

Jaunak maite du etorkina, jatekoa eta **janztekoa** ematen dizkio. Askoren artean

Eta, arestian biluzik geundenok eta norat behatu ere ez genekienok, irri zabal bat egin genion elkarri, **janztekoak** jantzi bezain sarri duintasun galdua berreskuratu izan bagenu bezala. Joan Mari Irigoien

---

# **japones** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **japoniar** agertzen da)* **1** *izlag/iz* japoniarra.

1941eko abenduan, **japones** soldaduek Filipinak atakatu eta berenganatu zituzten. Ramuntxo Etxeberri

'Kempetai' **japones** polizia talde bereziak. Ramuntxo Etxeberri

Amerikano edo **Japones** autoak erosten balinbadütügü. Menane Oxandabaratz

**Japones** banderak erretzen zituztela Japoniako enbaxadaren aitzinean. Herria

Hori du salatu Kofi Annam berak **japones** kaseta batean egin duen elkarrizketa batean. Herria

Han plantatua den Kayaba **japones** multinazionalak 209 langile kanpora lezazke ondoko denboretan. Herria

Junichiro Koizumi **japones** lehen ministroak. · **Japonesa** da Minoru Salto eta balentria bat egin du ederra. Herria

Xinan manifestaldi zorrotzak egin dira berriz ere **japonesen** kontra. Herria

Beldurraz baliatuz, **japonesek** gogorki tratatu zituzten filipindarrak. Ramuntxo Etxeberri

Irakian betiko soinu bera, bi **japones** bahitu libratu balinbadituzte ere jazarleek berriki. Herria

**2** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **japoniera** agertzen da)* japoniera.

Guretzat **japonesa** ez da euskara, baina ezta "erdara" ere, eta ezta japones bat "erdalduna" ere. Iñaki Segurola

---

# **japoniar** *(498 agerraldi, 61 liburu eta 149 artikulutan; cf. **nipondar** 29 agerraldi, liburu 1ean)* **1** *izlag* Japoniakoa, Japoniari dagokiona. ik **nipondar**.

**Japoniar** Inperio bakartuaren barruan. Iñaki Mendiguren

**Japoniar** gobernu zentral ezarri berriak. Iñaki Mendiguren

Uharteetako **japoniar** gizarteak [...] honela erreakzionatu zuen portugaldar kanpotarren aurrean. Iñaki Mendiguren

**Japoniar** uhartedia. Iñaki Mendiguren

**Japoniar** eta europar diruen balioa, dolarrari buruz, 1985 eta 1995 bitartean asko handitu izana. Koro Navarro

**Japoniar** ekonomiaren desoreken ondorio orokorrak. Koro Navarro

**Japoniar** eta aleman armadak garaitezinak zirela. Juan Garzia

Kawabata **japoniar** literaturaren testuinguruan. Ibon Uribarri

Ingeles filologia ikasten hasi zen, baina gero **japoniar** filologiara aldatu zen. Ibon Uribarri

**Japoniar**-estatubatuar merkataritzaren desoreka. Koro Navarro

**2** (izenondo gisa)

Takafumi Horie enpresaburu **japoniarra** herenegun atxilotu zuten. Berria - Ekonomia

Hurrengo eguneko arratsean hitzordua zuten jatetxe **japoniar** batean. Ibon Uribarri

Parisen egindako egonaldietan, pintore **japoniar** batekin ikasten aritua zen. Juan Kruz Igerabide

Garai batean Annyk maleta izugarri bat eramaten zuen bidaia guztietara, xalez, turbantez, mantelinaz, maskara **japoniarrez,** kromoz betea... Monika Etxebarria

Bere begiek loreontzitxo **japoniarrarekin** topo egin zuten orduko, ezpainak hertsatu zituen. Mirentxu Larrañaga

Astigar **japoniarraren** hostoak guztiz gorritu aurretik ihartzen dira, ezta? Ibon Uribarri

• **3** *iz* Japoniako herritarra.

**Japoniarra** zenez, ez zen eroso ibiltzen txinatarren artean ezta amerikanoen konpainian ere. Javi Cillero

Tinko bezain mamu geratu zen **japoniar** ongi hezi haren begitartea. Joxan Elosegi

Alemanak eta **japoniarrak** garaitezinak zirela. Juan Garzia

**Japoniarrek** ez zuten idazkera-sistemarik txinatar kultura topatu zuten arte. Ibon Uribarri

1941eko abenduaren 7an **Japoniarrek** airez eraso zuten Pearl Harbor. Edorta Jimenez

**Japoniarrek** bi naziorekin bakarrik jarduten dute merkataritzan: txinatarrekin eta holandarrekin. Iñaki Iñurrieta

Zentralizazio-politika abian jartzea eta nazio barneko ekonomia liberalizatzea izan zen **japoniarren** erreakzioa. Koro Navarro

Bihotzekoak eragiten dituen genea identifikatu dute **japoniarrek**. Berria - Gaiak

Sitsak **japoniarrak** baino hobeak dira. Unai Elorriaga

**4** (pertsona izen berezien eskuinean)

Asagoe **japoniarrak** harrituta dauzka guztiak. Berria - Kirola

Takashi Shimuzu **japoniarraren** *The Grudge 2.* Yuji Ide **japoniarra** izango da Takuma Satoren taldekidea Super Aguri taldean. Berria - Kirola

43 urteko Michio Sato eta 49ko Hideji Nazuka **japoniarrak** hil dira Himalayan, Annapurna mendian gora, elurrolde batek harrapatuta. Berria - Kirola

---

# japoniera *(orobat **japoiera** g.er.)* *iz* Japonian mintzatzen den hizkuntza.

Izen bereziak **japonieraz** ematen diren moduan idatzi ditut, abizena aurreratuz. Ibon Uribarri

Oraingoz, [robotak] **japoniera** baino ez daki. Berria - Gaiak

-Zuk ez dakizu **japonieraz**. Joxan Elosegi

*Suikoden* izeneko eleberri txinatar bat **japonierara** itzuli zutenean. Javi Cillero

Itzulpen hau **japonieratik** zuzenean egin da. Ibon Uribarri

**Japonieraz** ezin hobeki hitz egiten duzula. Joxan Elosegi

Stephen sasi-**japonierazko** hitz parrastadak botatzen hasi zen. Xabier Olarra

---

# jarabe *(orobat **xarabe**)* *iz* ziropa.

Gaixo batek **jarabe** arrunt pixka bat hartzen zuen, eta urdaileko gaixotasun kroniko batetik sendatuta aurkitzen zen; beste batek, **jarabe** bera hartuz, hiltzear zegoela esango zuen. Josu Zabaleta

Gaixotzen denean eta arrosa koloreko **jarabe** nazkagarria hartu behar duenean. Berria - Kultura

Aspirina bi eta **jarabe** bat eman dizkit. Koldo Izagirre

Marrubizko **jarabe** pixka batez. Jon Muñoz

**Jarabe**-ur asko ematen zuen. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Maletatxoa ezkutuan ireki zenbaki-konbinaketa jakin batez, eta **xarabe**-potoa eta pilula mordoa ateratzen du. Jon Arretxe

· -Gerezi-**xarabea** eta soda, izotz eta aterkiarekin? Iñaki Mendiguren

---

# jaramon 1 *iz* arreta, ardura.

Utikan, Van Eys jauna, edozer espero baitaiteke, izugarrikeriarik handienak barne, hezur zaharrei alaba gaixoari baino **jaramon** gehiago eskaintzen dien gizon batengandik. Anjel Lertxundi

Eta, bere hitzei **jaramon** berezia eman nahiz edo, honela mintzatu zaio neskari: [...]. Txillardegi

**2** ***jaramon egin*** kasu egin, kontu eman, gogo eman.

Zuhurtziari kasu egin eta zentzu onari **jaramon egiten** badiozu. Elizen arteko biblia

Zaratari **jaramon egitera**, dozena erdiren bat gizaseme izango dira gutxienez. Mirentxu Larrañaga

Zuetariko nork **egingo** dio **jaramon** honi guztiari? Elizen arteko biblia

Elkarri **jaramon egiten** hasi ziren, bada. ondoretasunaren teoria posibleez espekulatu gabe, datuei **egin** ziela hark **jaramon**. Edorta Jimenez

Zentzuari eta isilpekotasunari **jaramon egiteke**, ireki ezazu, ireki, etxe gaineko kaiola. Juan Garzia

Jabier Muguruzak intuizioari egiten dio **jaramon**. Berria - Kultura

Berpizte kulturalak berekin zekartzan eskakizunei gero eta **jaramon** gehiago **egiten**. Askoren artean

Nork egin dio arreta, nork **jaramon**? Elizen arteko biblia

-Zure burkideek ez diote **jaramon egin** aldarrikapen horri, inork ez dizu elkartasunik ageri. Koldo Izagirre

*ik beherago* 3. Askoren artean

Baina ez dit beti **jaramon** egiten, eta halakoetan inoiz baino gehiago edaten dut, nire atsekabeak itoarazteko. Mirentxu Larrañaga

Nri ere ez baitidate **jaramon egin** nahi. Askoren artean

Irudien gainetik baino ez ziela **jaramon egiten** gonbidatu gazteen mintzo alaiei.· Ez nion **jaramon** handirik **egin**. Karlos Zabala

Ahozko euskarari **jaramon** handiagoa **egin** beharraz mintzatu naiz. Koldo Zuazo

**Jaramon** gutxi **egiten** omen zion Honorineri, bere emazteari. Karlos Zabala

Begiraleek **jaramon** gehiago **egiten** diete korridoreetako landare hotzez maskalduei guri baino. Anjel Lertxundi

Baina, aldi berean, hasiak gara horietara ohitzen, eta gero eta **jaramon** gutxiago egiten diegu. Mirentxu Larrañaga

Ministerioetan inork **jaramon** pittin bat **egin** balio. Lutxo Egia

Maeli eta Fionni **jaramon** izpirik **egin** gabe. Joanes Urkixo

Ohar modura, esan dezadan Jean konturaturik zegoela Madrilen OK Expressoari **eginiko jaramonaz**. Edorta Jimenez

· Zergatik ez **jaramon egin** une batez haren aholkuari? Jon Muñoz

**3** (**jaramonik egin** ezezko esaldietan)

Semeak ez zion **jaramonik** egin. Gotzon Garate

Oraingoan ere, aztiak ez zion **jaramonik** egin. Iñaki Mendiguren

Egunero esaten zioten arren, ez zien **jaramonik** egiten. Elizen arteko biblia

Esan nizuen nik mutikoari kalterik ez egiteko, baina ez zenidaten **jaramonik** egin; orain, haren heriotzaren kontua eskatzen zaigu. Elizen arteko biblia

Baina ez zidaten aditu, ez eta **jaramonik** egin ere. Elizen arteko biblia

Baina konfederazioak ez zien haien hitzei **jaramonik** egin. Edurne Elizondo

Eta aldarteei dagokienez, bada, ez diet **jaramonik** egiten, esan bezala. Joxe Austin Arrieta

Heldutasun gutxiko gizarte batean, ezkontzari ez zaio **jaramonik** egiten, espeziea ugaltzeko ezpada. Andres Urrutia

Eta aldarteei dagokienez, bada, ez diet **jaramonik** egiten, esan bezala.Gero, Blacki **jaramonik** egin gabe, Harry Lupinengana jiratu zen. Joxe Austin Arrieta

Tropa tatariarrek, bi zutabetan zatiturik, ezkerretara jo zuten Omsk aldera, eta eskuinetara, Tomsk aldera, erdiko eskualdeari **jaramonik** egiteke. Karlos Zabala

Ez dit batere **jaramonik** egin, ordea. Hasier Etxeberria

-Baina ez didate sinetsiko, ez **jaramonik** egingo; Jauna ez zaidala agertu esango didate. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 5. Askoren artean

Itzuleran, negar egin zenuten Jaunaren aurrean, baina ez zizuen aditu, ez **jaramonik** egin. Elizen arteko biblia

· Baina Marotok **jaramonik** ez eskabideari, eta ezetz erantzun. Txillardegi

Nik hitz egin eta zuek **jaramonik** ez. Elizen arteko biblia

Baina hala ere agureak **jaramonik** ez. Koldo Izagirre

## 4 *ez jaramon egin*

**Ez jaramon egin** soinean daukadan jakari, ni ez nauk Francozalea. Koldo Izagirre

Gustu garratz bezain sotil bat gozatzen ote zuen bereizkuntzaren legeei **ez jaramon eginik;** ez ote zen, finean, isilpean, aliatu bat, nigan aliatu bat bilatzen zuena. Juan Garzia

## 5 *ez jaramonik egin*

Ez **jaramonik egin,** ez du merezi eta. Iñaki Mendiguren

–Ez **jaramonik egin** -esan zuen Hermionek, Harryren atzean zihoalarik-. Iñaki Mendiguren

**-Ez jaramonik egin** horri, Lo. Patxi Iturritegi

## 6 *jaramon ez* *iz mug*

Horixe izango zen seguru asko **jaramon** ezaren erakusgarri beteena. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aholkuei jaramon egin** (3); **esanari jaramon egin** (3); **jaramon egin** (85); **jaramon eginda** (4); **jaramon eginez** (15); **jaramon eginez gero** (4); **jaramon egingo** (12); **jaramon eginik** (4); **jaramon egitea** (8); **jaramon egiteko** (12); **jaramon egiten** (31); **jaramon egiten zion** (3); **jaramon egitera** (9); **jaramon ez** (6); **jaramon gehiago** (10); **jaramon gehiago egiten** (5); **jaramon gutxi** (10); **jaramon gutxi egiten** (6); **jaramon gutxiago** (3); **jaramon handiegirik** (3); **jaramon handiegirik egin** (3); **jaramon handirik** (42); **jaramon handirik egin** (25); **jaramon handirik egiten** (10); **jaramon handirik ez** (7); **jaramon izpirik** (3)

**aginduei jaramonik ez** (3); **batere jaramonik ez** (3); **jaramonik egin barik** (4); **jaramonik egiten ez** (26); **jaramonik ere ez** (4); **jaramonik ez** (54); **jaramonik ez egitea** (10); **jaramonik ez egiteko** (6)

---

# jaramonaldi *iz* arreta aldia.

**Jaramonaldi** horien emarietako bat neskaren biografiaz zerbait ikastea izan zen. Edorta Jimenez

---

# jaraunspen *(orobat **jarauspen**)* 1 *iz* jaraunstea; oinordekotzan hartzen den ondasuna. ik **jarauntsi**[2].

Abokatuek amaiturik zeukaten Harryren ondarearen **jaraunspenaren** gaineko lana, eta Tom eta Rufus *Brightman's Attic* liburu-dendaren eta hura kokatua zegoen eraikinaren legezko ugazaba bihurturik zeuden. Oskar Arana

Zure amaren **jaraunspena** konpontzen denean bost mila eta bostehun bat dolarren jabe izango zara. Lopez de Arana

**Jaraunspena** dezenteko dirutza izango zen orotara. Oskar Arana

Honey iritsi eta egun batzuetara, utzi egin zion **jaraunspenarekin** zer egin zalantza amaigabean ibiltzeari, eta eraikina salgai jartzea erabaki zuen. Oskar Arana

Etorkizunean, baserriekin geratuko ote dira robotak, **jaraunspenak** direla medio? Berria - Gaiak

## 2 *hed*

Erran dut isuri dena, eta abar adierazteko, Jainkoak mirakuluz egin baleza, bere baitarik eta beste bide batez, ez ordea giza haziaren bitartez, ez eta ere lehen gizonetik sorturik, beste gizon bat, ez lezakeela gizaki hark bekatu haren **jaraunspenik** izan. Piarres Xarriton

## 3 (hitz elkartuetan)

Abantaila pneumatismoaren aldean dago guztiz, baina honek ezin du **jaraunspen**-akats bat ukatu, alegia, bere aldeko itxura oro dela ere, kritikaren suzko proban lurrun soila bihurtzea. Ibon Uribarri

---

# jarauntsi[1], jaraunts, jaraunsten 1 du *ad* oinordekotzan hartu.

Zazpigarren Etorbideko eraikina **jarauntsiko** zuten biek. Oskar Arana

Nire nagusia hil egin zen, eta badirudi neuk **jarauntsi** dudala liburu-denda hau. Oskar Arana

Gurasoak hil ostean ume zela bizi izandako etxe hura **jarauntsi** zuen oinordetzan. Oskar Arana

## 2 *hed/irud*

Aitarengandik **jarauntsia** zuen arratoiekiko eta garatxoekiko dohain berezia. Mirentxu Larrañaga

Kultura grekoarengandik Mendebaldeko munduak **jarauntsitako** ikusmolde batetik jaio eta garatu da zientzia modernoa. Juan Garzia

## 3 oinordekotzan eman.

Ezer gutxi **jarauntsi** zion: higatuaren higatuaz ezin jantz zitezkeen lau elastiko, astrakan-larruz forraturiko bi jaka zahar eta diru-kopuru ezin urriago bat. Jose Morales

---

# jarauntsi[2] 1 *iz* oinordekotzan hartzen den ondasuna. ik **jaraunspen**.

Ezingo zen norberaren **jarauntsirik** eman edo transmititu aginduzko hitzen bidez ez bazen; ondorioz, zenbait kasutan aldaketa egin zitekeen, eta **jarauntsia** beste oinordeko bati pasa zekiola agindu; baina inoiz ezin zen fideikomisorik egin, alegia norbaiti enkargatu, erregu gisa, **jarauntsia** edo **jarauntsiaren** parte bat beste norbaiti itzultzeko. Iñaki Iñurrieta

Oinordekoak bere familia erosten zion testamentugileari, hau da, bere **jarauntsia**. Iñaki Iñurrieta

Batzuek itzuli egin zuten **jarauntsia**. Iñaki Iñurrieta

Erromako lege zaharren arabera, amak ez zuen parterik bere seme-alaben **jarauntsian**. Iñaki Iñurrieta

Dena eman ziezaioketen elkarri elkarrekin haurrak bazituzten; ez bazituzten, **jarauntsiaren** hamarrena jaso zezaketen ezkontzari esker. Iñaki Iñurrieta

Emakumeek legatu gisa hartu ahalko zuten **jarauntsi** gisa jaso ezin zutena. Iñaki Iñurrieta

Legeak diru-kopuru bat ezartzen zuen **jarauntsiaz** gabetzen zien emakumeei emateko. Iñaki Iñurrieta

Primuek beren anaia gazteagoei **jarauntsiaren** parte bat ematen zietenean, [...]. Iñaki Iñurrieta

Gau batez, kapataza, bere aitaren kargua **jarauntsia** zuen mutil gazte bat, [...]. Juan Garzia

**2** *hed/irud*

Beraz, arrazoimen hutsaren kritikaren arabera egindako Metafisika sistematiko baten **jarauntsia** ondorengoei uztea oso zaila ez bada ere, gutxietsi behar ez den oparia da, Industriaurreko enpresa-askatasuna, industrialismoaren aitzindari horiek aurretiko gizarte-sistematik **jarauntsia,** izan zen haien ekimenak sortarazitako sistema berriaren inspirazio eta bizi-odola. Ibon Uribarri

"España una"ren **jarauntsiaren** zama. Joxe Azurmendi

Neurri handi batean haien **jarauntsia** da, 98tarrak bitarteko, Espainian gaur arte dirauen joera, fenomeno sozial eta historikoentzat oroz gain esplikazio moral edo psikoanalitikoak gustatzekoa. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jarauntsia jasotzeko gai** (4)

---

# jardin *(Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2014an onartu zuen)* **1** *iz* lorategia.

Tebas Hekatompylos-ko **jardin** batean. Juan Garzia

Luis eta Andrés zure aurretik doaz pabilioi eta **jardinen** arkitekturaz hizketan. Lourdes Oñederra

**Jardinen** atzealdeetan ezkutatutako gela freskoz hornitutako etxe haiei. Xabier Olarra

**Jardina** ederra da eta harbide bat dago aldapan gora eraikin nagusiraino. Joseba Sarrionandia

**Jardineko** landareak ureztatu. Iban Zaldua

Central Park Westeko nire terrazako **jardinaren** gainean sumatzen den burrunba dardarti horixe bera. Joxe Austin Arrieta

**2** *irud*

Desenkantuaren **jardina** kultibatzen duten "alesandrino depresiboak" deritze Rortyk. Joxe Azurmendi

**3** (izenondoekin)

**Jardin** publikoko belardi batean etzan nintzen luze-luze. Pello Lizarralde

Geroago, **Jardin** botanikoan, bere lehen hitza esan zuen: "txikori-belarra". Hai Feng-eko **jardin** simetriko batean. Xabier Olarra

**Jardin** hori-beltzean gizon bakarra zegoen. Juan Garzia

Leihoek aranondoz betetako **jardin** luze eta estu batera ematen zuten. Xabier Olarra

**Jardin** joria zuen, euskal paisaia zentzuzkoak inguraturiko landare tropikalen oasi hostotsua, hamaika urmael, zubitxo eta estatuarekin. Joseba Sarrionandia

---

# jardinera *iz* landare ontzia.

Azaloreen mami zuri guriak ernamuintzen ziren, arrosa itzel batzuen antzera, hosto handi berdeen erdian, eta emaztegaien lore sortak ziruditen, sekulako **jardinera** batzuetan lerrokaturik. Karlos Zabala

Aparkatzea galaraztearren Udalak paratutako **jardineretariko** batera hustu nuen sabela. Aingeru Epaltza

---

# jardineria *iz* lorezaintza.

Emakumea egiteko kultura behar da; "sozietateko izpiritua" deritzon **jardineria,** mendian eta landan ez dagoen hori, behar da. Koldo Izagirre

---

# jardinero *iz* lorezaina.

San Frantziscora mugitu eta ikastetxe bateko gau-zaindari, eta **jardinero** aritu zen. Berria - Kultura

---

# jarduera **1** *iz* jardutea, aritzea.

Gizarte mugimenduen **jarduera** eteteko. Haien utzikeria zuzendu baino, haien **jarduera** mugatu beharra zegoen. Iñaki Iñurrieta

Errepresioak ere bere **jarduera** gogortu zuen. Bernardo Atxaga

Gorputzaren **jarduera** guztiak kontrolatu eta zaintzen dituen organoa. Irene Aldasoro

Merkataritzak **jarduera** guztiak hartzen ditu pixkana, eta mugak gainditoz zabaltzen ditu bere sareak, harik eta planetaren mailako merkatu bakarra osatzen duen arte. Koro Navarro

Apurka-apurka, ekoizpen-sistema autarkikoa pitzatu egiten da, eta **jardueren** espezializazioa sortzen da. Koro Navarro

Ogibideak eta **jardueraren** adar espezializatuak ugaltzen direlako. Koro Navarro

Nekazaritzakoak ez diren **jardueretan** . Koro Navarro

Berriz indartuko zen munduko espazio ekonomikoaren integrazio prozesua, **jardueraren** hazkundea iraunkorra zen testuinguru batean. Koro Navarro

Herrialde industrializatuetako **jardueraren** mugimenduarekin lotuta dauden inflexio ziklikoak. Koro Navarro

ETAren **jarduera** armatuaren aurrean. Txema Ramirez de la Piscina

Izakien forma, haien tasunak, haien karaktereak, sistema horren barne-erregulazioaren baitan daude, elementuen **jarduera** koordinatzen duten eragin-trukeen jokoaren baitan. Juan Garzia

Ikas daitekeen prozedura baten bidez diseinatu den produktu bihurtzeko materialaren gaineko **jarduera** baita teknika. Askoren artean

Euskal Herria izuli aitzin, erdaran bizi izan dut adimenaren **jarduera** . Piarres Aintziart

Jaunak bere **jardueraren** hasieran sortu ninduen, bere lehen egintzen aurretik. Elizen arteko biblia

**2** (izenondoekin)

Garuna [...] pentsamendu abstraktua, sormen artistikoa eta, oro har, **jarduera** mental sofistikatu erregular edo jarraitua ahalbidetzeraino garatu da. Irene Aldasoro

Abiadura txikiko atzera-aurrerako motor sail bat eratzen dute muskuluek gorputzaren **jarduera** fisikoak eragiteko. Irene Aldasoro

Hiru multzo erabili dira hemen unibertsitateen gastua aztertzeko, inbestimenduei, soldatei, eta **jarduera** arruntari dagozkienak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Urte askotako **jarduera** neketsuaren ostean. Andres Urrutia

Bankuen **jarduera** arriskutsuen balizko ondorioetatik babesturik. Koro Navarro

Hamabost urteko kartzela-zigorra ezarri zioten **"jarduera** iraultzaileengatik".

Zientzia **jarduera** soziala bada ere, errealitateak [...] badu zer esanik ezagutzaren eraketa prozesuan.Sexu berekoen arteko **jarduera** sexualak. Askoren artean

Emakumeen parte-hartze masiboak **jarduera** zientifiko eta teknologikoetan. Berria - Gaiak

Badirudi, gainera, nolabaiteko **jarduera** enpresarialen bat ere izango zuela, beti armadaren premiekin lotuta. Santiago Iruretagoiena

Horiek guztiek zientzia, hein batean, **jarduera** hermeneutiko bilakarazten dute. Askoren artean

Nola karakterizatu **jarduera** esperimentala? Askoren artean

Ikustea, ikusmenezko atzematea, ikusmenezko pertzepzioa oso **jarduera** konplexua da. Josu Zabaleta

Lobulu frontalen **jarduera** gehiegizkoek edo patologikoek eragiten zizkietela gaixo eskizofreniko haiei obsesio, haluzinazio eta ilusiozko aztoramenak. Xabier Olarra

## **3** (izenlagunekin)

Merkataritzako eta finantzetako **jarduerak** ez zeuden ondo ikusiak, klase nagusientzat ez baitziren duinak. Koro Navarro

Tokiko merkataritza nekazarien bigarren mailako **jarduera** zen. Koro Navarro

1980ko hamarraldiaren bukaerako higiezinen boomaren finantzaketan, eta balantzaz kanpoko **jarduerak** bultzatu dituzte. Koro Navarro

Garunaren berezko **jarduera** elektrikoa detektatzeko. Irene Aldasoro

Irudiari egozten zaion eragin modua zer den zehazten saiatu direnak, ekintza modu horiek osagaietan zatikatu eta osagai bakoitzaren balizko **jarduera** aztertu dute gehienetan. Josu Zabaleta

Harentzat, arrazonamenduzko eta ezagutzazko **jarduera** bikoitz bat gertatzen da film-ikuslearengan. Josu Zabaleta

Zergatik iraintzen nauzue zeuen idolatriazko **jardueraz**. Elizen arteko biblia

Legez kanpoko **jardueren** hazkunde kontrolatu gabean. Koro Navarro

Badira plazera sorrarazten diguten bestelako **jarduerak,** estetikoak ez direnak. Askoren artean

Etengabeko **jarduerar en** hotsak heldu zitzaizkien bertatik: mailuen kolpeak, paleten kaskadak eta gurpilen kirrikak. Agustin Otsoa

Sexu berekoen arteko ageriko **jarduera** sexualak. Luis Elberdin

Gure eguneroko **jardueran**. Berria - Euskal Herria

Zuzeneko **jarduera** bat da pertzepzioa. Josu Zabaleta

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jarduera** sektore guztiei eta kualifikazio maila guztiei. Iñaki Heras

Beren **jarduera** sarea atzerrian zabaltzen ari diren tamaina txiki eta erdi mailako enpresak. Iñaki Heras

Haren **jarduera**-eremua izugarri zabala da. Jose Morales

Estatu Batuetako enpresen **jarduera**-eremu gogokoena. Koro Navarro

Lurzoruen planean Eusko Jaurlaritzak **jarduera**-ildoak eta lehentasunak finkatuko ditu. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzak 2000. urte amaieran onetsi zuen **jarduera**-protokoloa. Berria - Euskal Herria

Enpleguen eta gastuen biderkatzaileen joko makroekonomikoak [...] **jarduera-** ardatz bateko hazkundea beste ardatz batera eraman dezake. Koro Navarro

Zenbait herritako 25-64 urteetako biztanleen **jarduera** tasak 2001ean. Bi **jarduera**-mota baitzituen: batetik, piramideen eraikuntza eta bestetik metal bitxien erauzketa. Iñaki Heras

Politika ekonomikoei **jarduera**-askatasun pixka bat emateko. Koro Navarro

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Aurreneko giza **jarduera** trukea eta salerosketa izan baitzen. Markos Zapiain

Gizarte-**jardueraren** maila guztietan. Iñaki Mendiguren

Talde-**jarduera** ludikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ezagutza eta zientzia-**jarduera** gauzatzen den testuinguru sozialari. Askoren artean

Ikerkuntza **jarduera** suspertu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikerketa **jarduera** sustatzeko erabiltzen diren edo erabili beharko liratekeen pizgarriei buruz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beste sexu-**jarduera** batzuk askoz ere maizago agertzen direla haren obretan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ernest Hemingwayren kontraespioitza **jarduera** gorabeheratsu haien ostean. Edorta Jimenez

Banku-**jarduerari** dagozkion kontrolak eta araudiak murriztuz. Koro Navarro

Diruaren korritu zentzuzkoak enpresa **jarduera** guztiak bultzatzen ditu. Andres Urrutia

Nazioarteko merkataritza banatzeko prest dagoen ekoizpen **jarduera** masa jakin bat omen da, tarta finko bat bailitzan. Iñaki Heras

Herrialde hartzaileak finkaturiko muga-sariak direla-eta [..] produkzio-**jarduera** bertan kokatzea erabaki dezakete transnazionalek. Iñaki Heras

Haren ustez, ordea, bazen tartean "gogo-**jarduera** edo konputazio subliminal"en bat, bukatutakoan emaitzak kontzientziara jaurtitzen zituena. Xabier Olarra

Arte-**jardueraren** berezitasunaren mamia. Josu Zabaleta

Plano bakartuan mamitzen da erakutsiaren maila hori, eta narrazioaren maila planoen arteko muntaketa-**jardueran** dago. Josu Zabaleta

## **6** jardutea.

Zainduko dut neure **jarduera,** mihiaz huts egin ez dezadan; ezpainak josirik gordeko ditut, aurrean gaizkilerik dudan bitartean. Elizen arteko biblia

## **7 *ekonomia jarduera*** jarduera ekonomikoa.

Arrantza da **ekonomia jarduera** nagusia, bakailao eta izokinarena bereziki. Ekonomia orokorra, **ekonomia jarduera** orokorra aztertzea helburu duen esparrua. Bernardo Atxaga

Atzeraldian **ekonomia jarduera** moteldu egiten da. Iñaki Heras

Estatua da, esan bezala, ekonomia **jarduera** erabat planifikatzen duena. Iñaki Heras

Lan erreforma hau ezinbesteko laguntza izango da Espainiako **ekonomia jarduerak** sustatzeko, eta gainera enplegu egonkorra sortuko du. Berria - Ekonomia

**Ekonomia jarduerak** bultzatu, auzoak bizigune izan daitezen eta ez soilik lotarako guneak Berria - Euskal Herria

## **8 *jarduera ekonomiko*** ik gorago **7**.

**Jarduera ekonomikoaren** nondik norakoan eragitea. Iñaki Heras

Herrialde jakin bateko balizko **jarduera ekonomikoa**. Iñaki Heras

**Jarduera ekonomikoan** aukera berdintasuna bermatuz. Iñaki Heras

Europako Banku Zentralari (EBZ) eskatuko dio interes tasak jaisteko «eurogunearen **jarduera ekonomiko** pattala» suspertzeko. Berria - Ekonomia

## **9 *lan jarduera***

Gaitzek gaixoen zein haien zaintzaileen **lan jardueran** duten eraginaren inguruko ikerketak. Berria - Gaiak

Bost urteko iraupena laura jaistea, **lan jardueran** urte bakoitzeko ordu bat murriztea. Berria - Ekonomia

Gainera, greba hark herri osoari eragiten zion zuzenean ala zeharka: merkataritza, tabernak, tailer txikiak eta bestelako gremio askok ere beren eguneroko **lan jarduerari** kaltea zetorkiola ikusi zuten eta ia herri osoak parte hartu zuen mobilizazioetan. Jon Maia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**abertzalearen jarduera** (4); **adimenaren jarduera** (5); **arte jarduera** (5); **eguneroko jarduera** (7); **ekoizpen jarduera** (5); **ekonomia jarduera** (7); **enpresaren jarduera** (7); **enpresen jarduera** (4); **erakundearen jarduera** (4); **ezker abertzalearen jarduera** (4); **gipuzkoako industria jarduera** (4); **giza jarduera** (21); **gizakiaren jarduera** (6); **gobernuaren jarduera** (4); **gorputzaren jarduera** (8); **ikerketa jarduera** (6); **ikerkuntza jarduera** (5); **industri jarduera** (11); **industria jarduera** (13); **jarduera armatua** (10); **jarduera armatuaren** (9); **jarduera baldintzatu** (5); **jarduera ekonomiko** (9); **jarduera ekonomikoa** (15); **jarduera ekonomikoak** (11); **jarduera ekonomikoaren** (12); **jarduera ekonomikoari** (5); **jarduera ekonomikoen** (4); **jarduera elektrikoa** (4); **jarduera eremua** (4); **jarduera eten** (8); **jarduera eteteko** (7); **jarduera moteldu** (4); **jarduera nagusia** (6); **jarduera nagusiak** (4); **jarduera nuklearrez** (4); **jarduera politiko** (6); **jarduera politikoa** (21); **jarduera politikoak** (5); **jarduera politikoan** (4); **jarduera politikoaren** (5); **jarduera politikoari** (4); **jarduera politikorako** (4); **jarduera publikoa** (4); **jarduera sektore** (5); **jarduera sexual** (4); **jarduera sexuala** (10);

jarduera sexualaren (5); jarduera sexualik (4); jarduera sozio (4); jarduera tasa (15); jarduera terrorista (7); jarduera terroristaren (4); jarduera ulertzeko (4); kazetaritza jarduera (4); kirol jarduera (11); kontrako jarduera (4); lotutako jarduera (5); ohiko jarduera (9); sexu jarduera (4); zientzia jarduera (5)

aberasteko jarduerak (7); bestelako jarduerak (5); ekonomia jarduerak (5); giza jarduerak (6); jarduerak egin (6); jarduerak egiten (4); jarduerak eten (5); jarduerak etenda (7); jarduerak etetea (4); jarduerak eteteko (7); jarduerak sustatzeko (4); kanpoko jarduerak (6); kirol jarduerak (5); kultur jarduerak (7); legez kanpoko jarduerak (5); uranioa aberasteko jarduerak (5)

eguneroko jardueran (10); gure eguneroko jardueran (4)

giza jarduerаren (7); jarduerаren balantzea (8); jarduerаren balantzea egin (5)

jardueratan parte hartu (4)

industria jarduerek (4)

ekoizpen jardueren (5); enpresa multinazionalen jardueren (4); giza jardueren (5); giza jardueren ondorioz (4); jardueren etena (4); jardueren etetea (17); jardueren ondorioz (4); multinazionalen jardueren (4)

---

## jardueradun *izond*

Dado handi batzuekin jolastuz, handik pasatzen zen orori erakusten zizkion halako egituren bertuteak, aise oszila baitzezaketen bi egoeraren artean, bata entzima-**jardueraduna** eta bestea gabea. Juan Garzia

---

## jardueragabe *izond* jarduerarik gabekoa.

Orain, beste bi gehitzea proposatu du Bruselak: «zaintza denbora» eta «zaintza denboraren zati **jardueragabea»** . Berria - Ekonomia

Ondorioz, «zaintza denboraren zati **jardueragabea** ez da lan denbora». Berria - Ekonomia

---

## jardueragune *(orobat **jarduera gune**)* *iz* jarduteko gunea.

Bi hiri horiek eta Bagdad hiriburuak berak osatzen dute erresistentzia irakiarraren **jarduera gune** nagusia, hiruki sunita. Filialekiko sozietateen sorrerari esker, malgutu egin zen enpresen egitura, haien bidez saihestu egiten baitzen **jardueragune** batek kiebra jo eta ondoren taldea osorik galtzeko arriskua. Koro Navarro

Kristau-aroko hogeigarren mendean negozio probetxagarriak egiteko Mendebaldeko klase ertainak zituen aukerak gero eta murritzagoak ziren Mendebaldeko **jarduera-gune** kapitalista guztietan. Iñaki Mendiguren

---

## jarduketa *iz* jardutea, aritzea. ik **jarduera**.

Madariagak aurton egingo dituzten obra hidraulikoen berri eman du: 100 obra baino gehiago egingo dituzte, eta horietatik 76 **jarduketa** berriak izango dira. Berria - Euskal Herria

Estatuen nazio askotarikotasunaren arloan egokienak diren politikei eusteko egitarauetan [EAJk, CiUk eta BNGk] batera jardutea azterketa lanetan, horien egokitzapen iraunkorrean eta baita **jarduketa** fasean ere. Berria - Euskal Herria

Txetxu Aurrekoetxea Ingurumen **Jarduketarako** Sozietate Publikoaren (IHOBE) zuzendariak. Berria - Harian

---

## jarduki ik **iharduki**.

---

## jardukitze ik **ihardukitze**.

---

## jardukizun *iz* jarduera.

Baina zuk eta zure semeek bakarrik beteko dituzue aldarean nahiz kortinaz barrualdera bete beharreko apaiz **jardukizunak;** eginkizun hori zuei dagokizue, zuei eman baitizuet apaiz-kargua. Elizen arteko biblia

---

## jardule *(orobat **jardunle** g.er.)* **1** *iz* jarduten duen pertsona.

Kontenplazio guztietan numeroko hainbat puntu eman ziren arren, hiru edo bost, etab., **jarduleak** ipin ditzake puntu gehiago edo gutxiago, hoberena iritziko dionez. Patxi Altuna

Faltan bota nuen jarduerаren ostean topaketa txiki bat antolatu ez izana, ikusleok eta **jarduleek** elkarri komentatzeko bizi izandako esperientziaren emaitzak. Berria - Kultura

San Frantses ikastetxeko zuzendariak ikasle andana pastorala batean **jardule** izana oso modu hunkigarrian azaldu zuen: [...]. Berria - Kultura

**2** agentea.

1994ko genozidioaren **jardule** nagusiak izan ziren hutu miliziek Kongoko Errepublika Demokratikotik erasoak egiten jarraitzen baitute. Berria - Mundua

Ameriketako Estatu Batuetako Katmanduko enbaxadak Nepalen baitezpada egoterik ez duten **jardule** diplomatikoei eta euren senitartekoei. Berria - Mundua

Arabiar eta asiar jatorrikoak ziren kontsuletxeko **jardule** horiek. Berria - Mundua

Agintariak eta sorospen zerbitzuetako **jarduleak** ahalegin guztiak egiten ari gara.

Haatik, NATOk ez du gerraren **jardule** nagusiak izan ziren Radovan Karadzic eta Ratko Mladic buruzagi serbiarrak atxilotzea lortu.

Iragan urriaren 28an Kabulen bahitu zituzten Nazio Batuen Erakundeko hiru **jarduleak** aske utzi zituzten atzo Afganistango hiriburuan.

*Hirugarren Bidea* zerrendako burua da Nazioarteko Diru Funtseko **jardulea** izandako ekonomista ezagun hori. Berria - Harian

Diktadurako bi **jardule** kondenatu dituzte, ume bat bahitzeagatik. Berria - Mundua

Gatazka honetan sartutako **jardule** guztiek krimenak egin dituztela ondorioztatu du Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak aste hasieran plazaratutako azterketa txostenak. Berria - Mundua

Egindako lana ikasleen eskura eta **jardule** juridikoen esku jarri dugu. Berria - Euskal Herria

Zuberoako euskal kulturako azken hamarkadetako **jardule** aipagarrienetatik bat zendu da. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Maiatzeko Antzerkialdiko antolatzaileek etorburu anitzeko antzerki **jarduleak** eta obrak hurbilarazi dituzte Maulera datozen egunotan. Berria - Kultura

Guzti-guztiak bat zeuden, politika kargudun, ekonomia **jardule,** instituzioetako arduradun, diru mailegutzaile, Muskildi herrian [...] atzo estreinatu zen *Azkorria* (egunsentia) gasnategi kooperatibaren bilakabidea goraipatzeko. Berria - Ekonomia

Iraken gerra hasi denetik 51 kazetari edo prentsa **jardule** dira jada. Berria - Mundua

Berezkoa, parekorik gabekoa, besterik ezagutu ez duten lege **jarduleentzat** . Andres Urrutia

· Darfurko iheslarientzat eratutako eremuetan lan egiten duten giza laguntza **jarduleei** laguntzea. Berria - Mundua

**4 *jardule politiko*** agente politikoa.

Preso politikoen sostengurako batzordeak 1970eko hamarkadatik daude Korsikan; mugimendu nazionalista uharteko **jardule** politiko nagusietatik bihurtu zenetik. Berria - Mundua

Boterea baita Akileo bezalako heroi homerikoak **-jardule** politikoak, esango dugu- daukan helburu bakarra. Askoren artean

---

# jardumen *iz* jardutea.

Arrazoimenarentzat, aitzitik, ona edo txarra esentziaz esaten dira, gizakiak izatasunez desiratzen duen horretaz: gauzekin bat egitea, zeinekin funtsean bat datorren eta **jardumena** areagotzen duten. Piarres Xarriton

---

# jardun[1], jarduten *(orobat **ihardun** g.er.)* **1** du *ad* aipatzen dena egin, aipatzen den gauzan aritu.

Bularrak oretzen **jardun** zidan minutu batzuetan. Juan Martin Elexpuru

Hiru egunez **jardun** zuten harrapakinak hartzen. Elizen arteko biblia

Premiarik gabe hizkuntza aldatzen ez **jardutea**. Koldo Zuazo

Beste bi gaztek ere **jardun** zuten altzarien garraioan. Anjel Lertxundi

Ni baino dezente zaharragoa zen, eta zera horretan **jarduteko** unean... ni baino motelagoa segur aski. Migel Angel Mintegi

Haiengana joan eta hiru larunbatez **jardun** zuen beraiekin eztabaidan. Elizen arteko biblia

Amonak etxean zeuzkan liburuen artean begira **jardun,** bat hartu eta irakurtzeko ahaleginean hasten nintzen. Anjel Lertxundi

Bizitza osoan euskal kulturaren alde **jardundako** gizona. Bernardo Atxaga

Morse andreak edan eta edan **jardun** zuen arratsalde osoan. Mirentxu Larrañaga

Eginahalak egin arren, alferrik **jardun** nuen. Anjel Lertxundi

Alferrik **jardutea** baino alferrik egotea hobe dela ere esan ohi dute. Iñaki Segurola

· Parisen, Joachimengandik banandu ondoren, argitaletxe batean **jardun** omen zuen. Joxe Austin Arrieta

Harekin dozena bat urtez grabatzaile **jardun** zuen. Pablo Sastre

Ikasgelan sartu aurretik, elkar berotzen **jardun** genuen aupadaka. Anjel Lertxundi

**2** (nola adizlagunekin)

Jaunarekiko begirunez, leial eta jator **jardun** behar duzue. Elizen arteko biblia

Ero baten moduan **jardun** nuen, ez nion erreakzionatzeko aukerarik eman. Anjel Lertxundi

Buru-belarri **jardun** zuen lanean Abelek. Jon Muñoz

Hastapenean zaletu gisara aritu bazen ere, gerora beharrak hartaratua **jardun** zuen. Patxi Zubizarreta

Ez da motzean **jardun** behar. Koldo Izagirre

Handik aurrera, berdinak berdinari ohi dion hurbiltasunez **jardun** zidan hizketan. Anjel Lertxundi

Atean deika **jardun** zuena. Anjel Lertxundi

Txistu eta bozina joka **jardun** genuen. Joxe Austin Arrieta

Haiek zure kontra biraoka **jardun** zutenean. Elizen arteko biblia

· Lanean ez zela gogo gaiztoz **jardun** behar. Karlos Zabala

**3** (zertan)

Zertarako gezurretan **jardun**? Anjel Lertxundi

Eta soldatak jaso ezin direnez, kontrabandoan **jardutera** behartuta dago jendea. Josu Zabaleta

Berorrekin **jardun** zuten prostituzioan lurreko erregeek. Elizen arteko biblia

Gizon bat etorri eta borrokan **ihardun** zuen berarekin egunsentiraino. Jose Antonio Mujika

Komunean nintzela, pentsatzen **jardun** nuen ea beste nonbait eser ote nintekeen. Joxe Austin Arrieta

Hilabete batzuk Senako bazterrak garbitzen **jardun** ondoren. Anjel Lertxundi

Berriketan **jardun**. Donatienek edozein sexutako gazteekin **jarduten** duela gehiegikerietan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

• **4** da *ad*

Nire kapitulua inprimatu eta irakurtzen **jardun** da. Xabier Etxabe

Jexuxen txikitako kontuak kontatzen **jardun** naiz arratsaldean. Xabier Etxabe

Gero askatu zuten, mota guztietako lanbideetan **jardun** zen, kontuak egin zituen, umeei irakurtzen irakatsi zien. Karlos Zabala

Gogo onez **jardun** naizela esan nahi dut. Imanol Unzurrunzaga

Tabernan, Martin, Bautista, Kapistun eta agure zahar bat, Ospitaletx esaten ziotena, hizketan **jardun** ziren; gerrate karlistaz ari ziren. Koro Navarro

Ni eta nire lagun bat, esaterako, bizi-bizi **jardun** ginen gau batean nire neba Rodolforekin eta hartan [...] bata bestearen ondoan jarri ginen belauniko eta ipurdia gora, txandan-txandan sar ziezagun. Karlos Zabala

Egun batez, denbora pasa geundela, lehengo gerra aurreko ixtoriak kontatzen **jardun** zitzaidan. Koldo Izagirre

• **5** du *ad* hitz egin, berriketan aritu.

Ez zuen hartaz **jardun** nahi izaten, ematen zuen lotsatu egiten zela soldadu-garaiaz hitz egiteaz. Anjel Lertxundi

Ez zuen luze **jardun,** baina ingelesez egin zien. Koldo Izagirre

Eguraldiaz mintzatu zen, eta radarrari buruz, honetaz deus gutxi zekien arren; gero, bigarren mundu-gerlaren ostean ohi zen bezala, europar senidetasunaz **jardun** zuen. Joxe Austin Arrieta

Politikaz **jardun** nahi dut gaur, baina zintzoki, gixonki: politikoek, gurasoek eta intelektualek **jardun** ohi duten eran. Iñaki Segurola

Folklorearen gainean **jardun** genuen. Xabier Etxabe

Luzaroan **jardun** nintzaion neure lanbideari buruz: Herri Azpigaratuentzako Laguntza Teknikoa, gai horretaz lasai hitz egin baitezaket, zeharo bestelako zerbaitetan pentsatzen ari naizen bitartean. Joxe Austin Arrieta

Gurasoei galdetu, amona Erikarekin **jardun,** eta udaletxeko artxibategian arakatu, nire zuhaitz genealogikoa gero eta adartsuagoa zen. Anjel Lertxundi

Ematen zuen damu zela nirekin **jardun** izanaz. Anjel Lertxundi

Irribarre bitxi bat agertu zitzaion ezpainetan, eta marmar apal, presatu, ezin ulertuzkoan **jardun** zela ikusi nuen. Koro Navarro

Bikiak sinpatikoak ziren, **jardun** eta **jardun** ari zitzaizkidan, eta laurdena ulertuz, hiru laurdenak asmatuz, moldatzen nintzen. Joxean Sagaztizabal

Behiei ematen zizkien aginduak zituen euskaraz **jarduteko** aukera bakarrak. Anjel Lertxundi

Bizilagun multzo handiko eskualdea zen, bizimoduz aurreratua [...] eta eguneroko **jardunean** euskara zerabilena. Koldo Zuazo

• **6** da *ad*

Haren ondoren, bizar txikiko errabino zahar bat, Alemaniatik iheslari etorria, eltze bat ematen zuen kapela beltz bat jantzita, alemanez **jardun** zen. Koro Navarro

**7** (era burutua hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Biltzarraren **jardun**-haria. Elizen arteko biblia

Bi oinarrizko helburu nabari daitezke obraren **jardun**-hari osoan: irakurlea informatzea eta onbidean eraikitzea. Askoren artean

Mdaukan bidetik segitzea erabaki du, **jardun**-lerro berriak aintzat hartu gabe. Jon Alonso

Bi munduon arteko lotura handiagoa edo txikiagoa izan daiteke ikertzaile bakoitzaren eta **jardun**-esparruaren arabera. Juan Garzia

Borges guztiz ezinbesteko bihurtu zen gure egitekoetan, gure **jardun**-moduetan. Jon Alonso

**8** ***jardun behar***

Seiak arte lana neukan dendan, lan gogor eta nekosoa, baina ondo hartzen nuen, **jardun beharrak** neure egoera ez hain mingarria sentiarazten baitzidan. Eduardo Matauko

Eta hori duk, eiki, [...] herri guztia halako lehia larri eta **jardun-behar** bizian agitzearen arrazoi nagusia. Juan Garzia

Nazka-nazka eginda zeukala haren estudianteen kontrako **jardun beharrak**. Inazio Mujika Iraola

**9** *jardunean* ik **jardunean.**

**10** *jarduneko* ik **jarduneko.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**ahaleginetan jardun** (7); **ahul jardun** (6); **alde jardun** (8); **alferrik jardun** (7); **aurka jardun** (17); **aztertzen jardun** (6); **batera jardun** (5); **begira jardun** (7); **beharraz jardun** (7); **beharrean jardun** (5); **berriketan jardun** (10); **bikain jardun** (7); **bila jardun** (19); **biltzen jardun** (6); **borrokan jardun** (5); **buru belarri jardun** (13); **buruz jardun** (21); **egiten jardun** (33); **elkarlanean jardun** (10); **ematen jardun** (6); **erne jardun** (5); **eroso jardun** (6); **eskuz esku jardun** (10); **etengabe jardun** (5); **euskaraz jardun** (8); **eztabaidan jardun** (8); **gogor jardun** (12); **gustura jardun** (11); **hizketan jardun** (17); **idazten jardun** (10); **ikasten jardun** (11); **irakasle jardun** (7); **irakurtzen jardun** (14); **jardun beharra** (13); **jardun dute lanean** (5); **jardun eta gero** (12); **jardun eta jardun** (6); **jardun izan** (31); **jardun izana** (8); **jardun ondoren** (48); **jardun ostean** (15); **jardun zuen lanean** (10); **jardun zuten atzo** (7); **kontatzen jardun** (6); **kontra jardun** (8); **kontu handiz jardun** (5); **laguntzen jardun** (5); **lanean jardun** (57); **lehian jardun** (9); **luzaroan jardun** (5); **luzaz jardun** (7); **luze jardun** (28); **ondo jardun** (6); **ongi jardun** (21); **politikaz jardun** (5); **prostituzioan jardun** (5); **tiroka jardun** (5); **txukun jardun** (13); **zabal jardun** (5)

**lanetan jardungo** (6)

**berriketan jarduteko** (5); **elkarlanean jarduteko** (9); **euskaraz jarduteko** (8); **jarduteko ahalmena** (5); **jarduteko asmoa** (6); **jarduteko asmorik** (6); **jarduteko aukera** (24); **jarduteko aukera eman** (5); **jarduteko baimena** (5); **jarduteko eskubidea** (13); **jarduteko gogoa** (6); **jarduteko modu** (8); **jarduteko moduan** (5); **jarduteko prest** (5); **lanean jarduteko** (14); **tentuz jarduteko** (5)

**alde jarduten** (7); **euskaraz jarduten** (8); **jarduten ari** (5); **lanean jarduten** (10)

---

**jardun**[2] *(orobat **ihardun** g.er.)* **1** *iz* jartutea.

Zerbitzu publikoen **jardun** eta finantzaketarako behar ziren baliabideak. Koro Navarro

Ume haiekin zegoen bitartean, eguneko **jardun** bakarra jolasa zen, beti ametsetako munduetan jira eta bueltaka. Julen Gabiria

Informatzaileak 26 direla dio **-jardun** osoko sei eta tartekako hogei-. Edorta Jimenez

Bat-bateko **ihardunak** utzi-ezinezkoa du erretorikaren teknika hau.. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** hitz egitea, berriketaldia.

Ondorengo **jardun** osoan ez zuen ikazkina aipatu, ezta lastozko kapeladun gizona ere. **Jardun** horrek eta tankera horretako aitaren aldeko beste hainbat jardunek izaten ote zuen eraginik nigan? Anjel Lertxundi

**3** (izenondoekin)

Atsegin nuen emakumearen **jardun** gozoa, hitz xumeez osatua. Taldeko **jardun** ludiko ez-formala: bertso-eskola. **Jardun** fisikoak hezurren osaeran duen eragina. garunaren **jardun** elektrikoa amaitzean geratzen den egoera. Anjel Lertxundi

Suaren hotsa eta aitaren telefonoko **jardun** urrutiarena, ez zen besterik entzuten. Anjel Lertxundi

Herr Haspernek Hitlerren aurkako **jardun** koldar eta disimulurik gabearekin segitzen zuen. Anjel Lertxundi

**Jardun** builatsua. Anjel Lertxundi

Arrotz egiten zitzaion euskara bera ere, haurretako **jardun** askatu noranahiko hartatik hain desberdina, askotan ulertzea ere kostatu egiten zitzaiona. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bada, beraz, kultur **jardun** honen etorkizuna segurtatuko duen muina. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Egunkarian nire piano-**jardun** bat iragartzen zuen ohartxoaren bila nenbilela, [...].Newton-en buru-**jardun** gehiegia haren izaeraren kontinentzia absolutuari egotzi behar zaiola. Anjel Lertxundi

Marujako gau-ibilerak, itzulpen saioetako aurkikuntzak, Rohmerren filmei buruzko eztabaidak... bere barrena aztertzeko, hausnartzeko, kontenplatzeko eta hitzez nahiz gogoz otoitz egiteko edozein modu, eta beste zenbait espiritu-**jardun,** aurrerago esango denez. Patxi Altuna

Palak eta pilota berberak dira, baina haren eskuetan ez da halako areto-**jardun** jendetasunezko bat, baizik eta kirol bete-bete eta akigarri bat. Oskar Arana

Etxez etxe zihoala eskaintze-**jardun** horretan. Josetxo Azkona

**5** *jardunean* ik **jardunean 5.**

**6** ***gogo jardun****sup_1 (orobat **gogojardun**) pl* otoitz eta penitentzia egun batzuek osatzen duten erlijio praktika, apaiz baten zuzendaritzapean eta taldean egiten dena.

Esperientzia guztiz berri bat ere ezagutu genuen Eskolapioetako lehen ikasturte hartan: euskara txukunean **gogo-jardunak** deritzenak, ejertzizio espiritualak alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Aditzea dut, garai bateko **gogo- jardunak** zorrotzak, estuak, ikaragarriak izaten zirela, barru-barruraino beldurra sartu eta ikara batean edukitzeko pentsatuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Hil honen lehenengoetan **Gogo** Jardunak izan nituen. Edorta Jimenez

Izan ere, adin batetik gorako gutako nork ez ditu noizbait **gogojardunak** egin? Patxi Altuna

Baldin **gogojardunak** ematen ari denak hartzen ari dena ikusten badu goibeldua eta zirikatua, ez bedi izan honekin zakar eta gozakaitz, baizik samur eta bigun. Patxi Altuna

**Gogojardun**-egileari adinak, gorputzaldiak eta eguraldiak laguntzen dioten neurrian, egingo ditu egunero bost jardun edo gutxiago. Patxi Altuna

Hiru arrazoigatik izaten ditugu batik bat lehorraldiak: lehenengoa da epelak, alferrak edo zabarrak garelako geure **gogojardunetan,** eta horrela geure hutsengatik alde egiten du gugandik espirituko pozaldiak. Patxi Altuna

· **Gogojardunak** liburua zer den. Patxi Altuna

Badakizu zer irakurri dudan? Loiolaren **Gogo**-jardunak. Monika Etxebarria

**7** ***gogo jardun****sup_2 (orobat **gogojardun**)* gogoaren jarduna.

Baina bere ariketa intelektual eta **gogo jardun** guztiak alferrekoak izan dira. Jon Alonso

Bere gogoeta, gogo eta gogorapenezko **gogojarduna** da. Jenaro Garate

Hausterren **gogo-jardun** bereziak. Iñaki Iñurrieta

**8** ***lan-jardun*** *(orobat **lanjardun** g.er.)*

Eguneko **lan-jarduna** amaitu eta alde egitear zelarik [...]. Mirentxu Larrañaga

**Lan jardun** amaigabeak, ordainsari eskasak eta kontratu prekarioak. Berria - Euskal Herria

Akordioaren arabera, **lan jarduna** egokitzeko malgutasuna ezarri zen eta lan orduak gutxitu egin ziren. Berria - Ekonomia

Irujok bere **lan jarduna** hiru zutabetan oinarrituko duela aurreratu zuen. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahozko jardun** (4); **eguneroko jardun** (6); **eguneroko jardun arruntean** (3); **gogo jardun** (4); **jardun armatuaren** (3); **jardun arruntean** (7); **jardun eremua** (3); **jardun etengabea** (3); **jardun luzearen** (3); **jardun politiko** (3); **jardun politikoa** (9); **jardun politikoan** (3)

**alavesen jarduna** (3); **aldeko jarduna** (3); **aurtengo jarduna** (3); **azken jarduna** (3); **barruko jarduna** (3); **bat bateko jarduna** (3); **bertsolariaren jarduna** (4); **bien arteko jarduna** (3); **eguneko jarduna** (3); **eguneroko jarduna** (11); **elkartearen jarduna** (3); **eten zion jarduna** (5); **etengabeko jarduna** (3); **gazteen jarduna** (3); **geneen jarduna** (3); **jarduna amaitu** (7); **jarduna entzun** (3); **jarduna erabakigarria** (6); **jarduna eten** (21); **jarduna eteteko** (5); **jarduna eteten** (4); **jarduna euskalduntzeko** (3); **jarduna hobetzeko** (4); **jarduna mugatu** (3); **kirol jarduna** (12); **klubaren jarduna** (3); **kultur jarduna** (3); **kultur jarduna euskalduntzeko** (3); **lan jarduna** (6); **nazioarteko jarduna** (3); **orain arteko jarduna** (3); **sexu jarduna** (5); **taldearen jarduna** (7); **taldeen jarduna** (3); **urte osoko jarduna** (3)

**; bat bateko jardunak** (3); **gainerako jardunak** (46); **gogo jardunak** (11); **jardunak eta egintzak** (3); **jardunak sortzen** (3); **sexu jardunak** (3)

**bertso jardunaren** (3); **iazko jardunaren** (4); **jardunaren balantzea** (4); **jardunaren berri eman** (3); **jardunaren bidez** (3); **jardunaren emaitza** (6); **orduko jardunaren** (3); **talde baten jardunaren** (3)

**bat bateko jardunari** (3); **eguneroko jardunari** (3); **gizakiaren jardunari** (3); **iazko jardunari** (3); **jardunari ekin** (4); **jardunari esker** (7); **jardunari eutsi** (4)

**ahozko jardunean** (8); **bat bateko jardunean** (4); **eguneroko jardunean** (33); **jardunean ari** (10); **jardunean aritu** (3); **jardunean egongo** (3); **jardunean jarraitzeko** (3); **kirol jardunean** (3); **kirol zuzendari jardunean** (4); **kontrako jardunean** (3); **mediku jardunean** (3); **orain arteko jardunean** (4); **otoitz jardunean** (3); **profeta jardunean** (4); **txirrindulari jardunean** (3); **zuzendari jardunean** (5)

**eaeko jarduneko arartekoa** (3); **ehuko jarduneko errektoreak** (3); **jarduneko arartekoa** (3); **jarduneko arartekoak** (3); **jarduneko ehuko errektoreak** (3); **jarduneko errektoreak** (5); **jarduneko estatu** (3); **jarduneko garailea** (7); **jarduneko gobernuak** (4); **jarduneko gobernuaren** (3); **jarduneko gobernuko** (3); **jarduneko lehen ministro** (32); **jarduneko lehen ministroa** (14); **jarduneko lehen ministroak** (33); **jarduneko lehen ministroaren** (8); **jarduneko lehen ministroari** (4); **jarduneko ministro** (3); **jarduneko munduko txapelduna** (3); **jarduneko presidente** (20); **jarduneko presidente leonid** (3); **jarduneko presidentea** (8); **jarduneko presidenteak** (18); **jarduneko presidentearen** (5); **jarduneko presidenteari** (3); **jarduneko txapelduna** (5); **jarduneko zuzendari** (3); **kontseiluko jarduneko presidente** (3); **kutxma jarduneko presidenteak** (4)

---

# jardunaldi 1 *iz* zerbaitetan jarduten den aldia.

Ordu beteko **jardunaldi** bat. Gotzon Garate

Aipatu den Bulda hura ez doala Kontzilioko 24. **jardunaldiko** 5. kapituluak [...] ezkontzaren berrikusteaz dioenaren aurka. Piarres Xarriton

**Jardunaldi** luzetan egiten du bidaia eta halako batean bidean aurkitu du heriotza. Imanol Unzurrunzaga

**2** gai bati buruz aritzeko eratzen diren lan bilerak edo saioak.

90 **jardunaldi** izango dira EHUren Udako Ikastaroetan. Berria - Euskal Herria

Unibertsitateak berak antolatutako **jardunaldi** batzuetan. Berria - Euskal Herria

Torturari buruzko **jardunaldiak** Bartzelonan. Agurtzane Juanena

Txillardegiren omenezko **jardunaldiak** gaur amaituko dira, Pilartxo Etxeberria irakaslearen hitzaldiarekin. Berria - Kultura

Euskal arteak 1875etik 1939ra bitarteko epean egindako bidea aztertzeko **jardunaldiak**. Berria - Kultura

Donostian, Koldo Mitxelenan, emigrazioari buruz egin ziren **jardunaldietan**. Patxi Zubizarreta

Bidaia literaturari buruz egin ziren beste **jardunaldi** batzuen inguruan, ekitaldi bera eskaini genuen Miguel Seoane piano jotzaileak eta biok. Patxi Zubizarreta

Gaur egun antolatzen diren erakusketa, **jardunaldi** eta ekitaldietara ez naiz joaten. Berria - Kultura

Bateko liburu, hitzaldi, egitasmo, saiakera, lege, **jardunaldi,** eta besteko hutsegite, eraso, krisialdi eta birplanteatze. Luis Elberdin

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zein Indarkeriaren Biktimen Arretarako zuzendaritzekin elkarlanean antolatu ditu Eudelek iraileko **jardunaldiak**. Berria - Euskal Herria

Atzoko **jardunaldiko** hiru parte-hartzaileek. Berria - Euskal Herria

Hainbat ikastaro eman nituen, "Irratia eskolan" izenburupean, gehienak Adarrak antolatzen zituen **Jardunaldi** Pedagogikoetan. Joxerra Garzia

Etxarri-Aranatzen Askapenak antolatutako **Jardunaldi** Internazionalistetan parte hartzeko. Berria - Harian

Trikitixaren II. **jardunaldiak** eta Bizkaiko Trikitixa Eguna. Berria - Kultura

Biktimekiko Elkartasunerako **Jardunaldiak** antolatu ditu BAKek. Berria - Euskal Herria

**3** (kiroletan)

Lehen **jardunaldiko** emaitzak. Berria - Kirola

Denboraldi osoan, hamar **jardunaldi** egin zituen Realak jaitsiera postuetan. Berria - Kirola

Espainiako Ligako Bigarren A Maila amaitzeko hamahiru **jardunaldi** geratzen dira, eta Alavesek zortzi garaipen behar ditu igoera lortzeko. Berria - Kirola

Ligako azken bi **jardunaldiak** asteburuan jokatuko dira. Berria - Kirola

Lehen **jardunaldian** Orio nagusitu zen, eta bigarren Tiran izan zen, 8 segundora. Berria - Kirola

Bi asteko etenaldiaren ondoan, Top 14ko **jardunaldia** jokatuko da gaur. Berria - Kirola

A multzoko aizkolariek bi **jardunaldi** jokatuko dituzte gaur eta bihar.

**Jardunaldi** bakoitzean hiru aizkolari ariko dira lehian. Berria - Kirola

560 kilo (4 **jardunaldi** jokatuta). Herria

Emakumezkoen 260 eta 280 kiloko lehian [sokatiran], Gaztedi (Laukiz), Gatika eta Torrekolanda (Berango) Bizkaiko taldeak ariko dira lehian, eta bina **jardunaldi** jokatuko dituzte. Berria - Kirola

Finalerdietan baitago dagoeneko bi **jardunaldi** irabazi ondoren. Berria - Kirola

**Jardunaldi** bakoitzak lau proba puntuagarri izango ditu, eta puntu gehien batzen duen bikotea izango da **jardunaldiko** garailea.

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jardunaldi** sorta bati ekingo dio Aldaketak, urtarriletik aurrera. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

45 lan **jardunaldiko** soldata, 42 hilabeteko mugarekin, gehi beste 10.000 euro gordin, likidazio modura. Berria - Ekonomia

Komiki **Jardunaldiak** antolatu ditu Ondarroako Luterl taldeak. Berria - Kultura

Pasaiako umorezko antzerki **jardunaldiak**. Berria - Kultura

Kolonbian, literatur **jardunaldi** batzuetan. Berria - Kultura

Mauleko Udalak eta *Tokia* antzerki taldeak hasieratik eskuz esku eratu dituzten kultur **jardunaldi** hauek. Berria - Kultura

Izan ere, dei mordoa jasotzen du hitzaldi eta musika-**jardunaldietan** parte hartzeko. Alberto Ladron Arana

"Bertsolamintza" izeneko gogoeta-**jardunaldietan,** gaien eta gaijartzaileen hau aztertu genuen duela pare bat urte. Andoni Egaña

Egun batean, bazkalondotik ia iluntze arte irauten zuen ohe-**jardunaldi** batean zirrika geundela, aitortu nion Asuni nondik zetorkidan ahalmen ikaragarri hura. Josetxo Azkona

Sexu-**jardunaldi** luze bezain bero baten ondotik, gizasemea ohetik jaiki da eta badoa aldameneko aulkirantz. Josetxo Azkona

*Arriaga eta XIX. mendeko Bilbo* **jardunaldiak,** Bidebarrietako liburutegian. Berria - Kultura

*Literary Translation Summer School* **jardunaldiak** antolatu ditu Ingalaterrako East Anglia unibertsitateak. Berria - Kultura

Dezima eta Bertso Inprobisatuaren Iberoamerikako IV. Jaialdi-**Jardunaldietan**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**antolatutako jardunaldi** (6); **azken jardunaldi** (9); **bi jardunaldi falta** (6); **bi jardunaldi geratzen** (12); **bi jardunaldi jokatu** (8); **jardunaldi berezi** (8); **jardunaldi bereziak** (4); **jardunaldi bikaina** (4); **jardunaldi daramatza** (8); **jardunaldi egin** (7); **jardunaldi erabakigarria** (8); **jardunaldi falta dira** (15); **jardunaldi gelditzen** (7); **jardunaldi geratzen** (39); **jardunaldi izango** (6); **jardunaldi izango dira** (4); **jardunaldi jokatu** (27); **jardunaldi jokatu dira** (10); **jardunaldi jokatuko** (15); **jardunaldi jokatuko dira** (4); **jardunaldi jokatuko dituzte** (9); **jardunaldi jokatuta** (8); **jardunaldi ona** (5); **jardunaldi ona izan** (5); **jardunaldi pedagogikoetan** (5); **jardunaldiz jardunaldi** (9); **lau**

jardunaldi falta (8); lehen jardunaldi (5); ligako jardunaldi (4)

aurreko jardunaldia (7); azken aurreko jardunaldia (4); azken jardunaldia (73); azken jardunaldia arte (6); azken jardunaldia jokatu (11); azkenaurreko jardunaldia (6); bigarren jardunaldia (100); bosgarren jardunaldia (11); faseko azken jardunaldia (6); hirugarren jardunaldia (39); hurrengo jardunaldia (8); jardunaldia antolatu (9); jardunaldia egin (8); jardunaldia hasiko (7); jardunaldia izan (6); jardunaldia izango (21); jardunaldia izango da (8); jardunaldia izango du (7); jardunaldia jokatu (79); jardunaldia jokatu zen (16); jardunaldia jokatu zuten (42); jardunaldia jokatuko (79); jardunaldia jokatuta (14); lan jardunaldia (5); laugarren jardunaldia (18); lehen jardunaldia (91); lehenengo jardunaldia (5); seigarren jardunaldia (9); txapelketako bigarren jardunaldia (12); zazpigarren jardunaldia (5)

antzerki jardunaldiak (7); azken bi jardunaldiak (10); azken jardunaldiak (8); aztertzeko jardunaldiak (6); historia jardunaldiak (4); izeneko jardunaldiak (5); jagon jardunaldiak (4); jardunaldiak antolatu (40); jardunaldiak antolatuko (5); jardunaldiak antolatzen (7); jardunaldiak aurrera joan (7); jardunaldiak egingo (24); jardunaldiak egingo dira (7); jardunaldiak egingo ditu (6); jardunaldiak egiten (6); jardunaldiak gaur amaituko (4); jardunaldiak hasiko (7); jardunaldiak izango (8); jardunaldiak izango dira (8); jardunaldiak jokatu (5); jardunaldiak jokatuko (5); lehen jardunaldiak (6)

antolatu jardunaldian (4); antolatutako jardunaldian (5); atzoko jardunaldian (8); aurreko jardunaldian (23); azken aurreko jardunaldian (6); azken jardunaldian (201); azken jardunaldian lortu (5); azkenaurreko jardunaldian (7); azkeneko jardunaldian (5); bigarren jardunaldian (57); bosgarren jardunaldian (8); datorren jardunaldian (4); denboraldiko azken jardunaldian (8); hamargarren jardunaldian (4); hirugarren jardunaldian (21); hurrengo jardunaldian (23); iragan jardunaldian (19); jardunaldian egindako (5); jardunaldian izan (4); jardunaldian jokatu (7); jardunaldian lortu (15); joan den jardunaldian (14); joan zen jardunaldian (4); laugarren jardunaldian (11); lehen jardunaldian (167); lehen jardunaldian egindako (5); lehenengo jardunaldian (5); ligako azken jardunaldian (9); nbako jardunaldian (4); sasoiko azken jardunaldian (4); seigarren jardunaldian (7); txapelketako lehen jardunaldian (7); zazpigarren jardunaldian (5)

jardunaldiaren atarian (7); jardunaldiaren ostean (5); lehen jardunaldiaren (4)

jardunaldiek aurrera egin (4)

antolatutako jardunaldien (8); egindako jardunaldien (4); jardunaldien barruan (24); jardunaldien hasiera (4); jardunaldien helburua (4)

azken jardunaldietako (22)

antolatu dituen jardunaldietan (5); antolatutako jardunaldietan (20); antzerki jardunaldietan (8); aurreko jardunaldietan (6); azken bi jardunaldietan (14); azken jardunaldietan (99); egindako jardunaldietan (6); eginiko jardunaldietan (4); eibarko antzerki jardunaldietan (7); hurrengo bi jardunaldietan (6); hurrengo jardunaldietan (8); jardunaldietan egin (4); jardunaldietan erakutsi (5); jardunaldietan izan (5); jardunaldietan parte hartu (7); jardunaldietan parte hartuko (6); jardunaldietan parte hartzeko (5); jardunaldietan parte hartzen (4); lehen bi jardunaldietan (7); lehen jardunaldietan (9)

atzoko jardunaldiko (8); atzoko nbako jardunaldiko (4); azken jardunaldiko (33); azken jardunaldiko partida (8); bederatzigarren jardunaldiko (4); bigarren jardunaldiko (41); bigarren jardunaldiko partidak (9); hamargarren jardunaldiko (7); hirugarren jardunaldiko (21); jardunaldiko azken partida (8); jardunaldiko emaitzak (34); jardunaldiko garailea (10); jardunaldiko jokalari onena (6); jardunaldiko lehen partida (6); jardunaldiko lehia (5); jardunaldiko ligaxka (4); jardunaldiko neurketa (8); jardunaldiko norgehiagoka (6); jardunaldiko partida (59); jardunaldiko partidak (73); jardunaldiko partidan (13); jardunaldiko partidarik (8); jardunaldiko sailkapena (12); jardunaldiko tiraldiak (4); laugarren jardunaldiko (13); lehen jardunaldiko (41); ligaxkako bigarren jardunaldiko (7); nbako jardunaldiko (8); seigarren jardunaldiko (6); txapelketako bigarren jardunaldiko (4); zazpigarren jardunaldiko (8); zazpigarren jardunaldiko partida (4); zortzigarren jardunaldiko (8)

azken jardunaldira (17); azken jardunaldira arte (9)

bigarren jardunaldirako (5)

bederatzi jardunaldiren faltan (5)

bederatzi jardunaldiren faltan (5)

---

## **jardunarazi**, jardunaraz, jardunarazten du *ad* jardutera behartu.

Ez al dute esango gerora, baldin antzezle arrunt bilakatzen badira [...] kalte egiten dietela idazleok gaizki esaka **jardunaraziz** beren etorkizunaren aurka? Juan Garzia

Niri gabizain **jardunaraztea** ez zuela ezeren mendekuz ebatzi. Edorta Jimenez

---

## **jardunbide** **1** *iz* jarduteko edo aritzeko bidea.

«EAJren lehentasunezko helburua da era guztietako indarkeria bukatzea», eta horretarako «ezinbesteko» dira **jardunbide** hauek: «Pertsonen segurtasuna, askatasuna eta bizitza bermatzeko bitarteko demokratiko guztiak erabiltzea», «indarkeriaren aurkako mobilizazio soziala bultzatzea», [...], eta «distentsio politikoak garatzea». Berria - Euskal Herria

Tentazioa izan nuen bete-betean haren aurka oldartzeko [...] baina konturatu nintzen **jardunbide** hori neure aurka bihurtuko zitzaidala ziur asko. Oskar Arana

"Hori egin nahi al duzue benetan?" erantzungo zioten, ohiko **jardunbideari** jarraituz. Oskar Arana

Hortaz, **jardunbidea** aldatzea deliberatu zuen, zuhurtziaz baina zuzenago aritzea, alegia. Migel Angel Mintegi

Durant jaunak bere Jainko bereziaren **jardunbide** eraginkorrari egotzi zion inor bulegora sartu ez izana. Mirentxu Larrañaga

Beste **jardunbide** batzuk erabiliz. Isabel Arrigain

Oso desberdinak izan arren, azalpen-sistema guztiak, magia bezala mitoa eta zientzia ere, **jardunbide** beretik datoz. Juan Garzia

Ez da hain harrigaria bernizgintzak, bere tolesturen artean [...] aspaldian bazter utziriko zenbait **jardunbide** eta prozeduraren aztarna gorde izana. Juan Garzia

Formula bidezko **jardunbidean** oinarritzen da ahozko testuen produkzioa, eta horregatik dugu ahozko mintzamoldea metakor ez analitikoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez da gure asmoa teknika eta **jardunbide** horiek mekanikoki bat-bateko bertsolaritzaren interpretazio-lagun bihurtzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Nik errealitateko soinuak hartzen ditut, eta gero, ordenagailu eta **jardunbide** digitalen bidez, giro bereziak sortzen ditut. Berria - Kultura

Inork baliatzen ez duen **jardunbidea**. Jon Muñoz

Beren eginkizunei dagozkien **jardunbidean**. Juan Garzia

**2** (zientzian eta filosofian)

Zientziaren **jardunbidearen** irudimen fasean funtzionatzen du zientzialariak artistak bezala; hipotesiak eratzeko orduan, alegia. Juan Garzia

Azterketa filosofikoek duten **jardunbide** arrunta. Ibon Uribarri

Metafisikaren **jardunbidea** gaurdaino itsumustuka aritze hutsa baino ez da izan ezbairik gabe eta, okerrena dena, adigai soilen artean itsumustuka aritzea. Ibon Uribarri

Kritika ez zaio kontrajartzen arrazoimenak zientziaren gisako ezagutza hutsean duen **jardunbide** dogmatikoari [...] baizik eta dogmatismoari. Ibon Uribarri

Beraz, dogmatismoa arrazoimenaren ahalmenari aldez aurretiko kritikarik egiten ez dion arrazoimenaren **jardunbide** dogmatikoa da. Ibon Uribarri

**3** (zuzenbidean)

Garai hartako **jardunbide** judiziala. Iñaki Iñurrieta

Ferrerren iritziz, «epaiketa hau **jardunbide** juridikoaren kontrako atentatua da». Berria - Euskal Herria

Galdetuko zait agian zergatik agindu zuen San Luisek **jardunbide** bat bere baroien epaitegietarako, eta beste bat bere mendeko epaitegietarako. Iñaki Iñurrieta

Frantzisko I.ak ezarritako **jardunbide** hau, Luis XIV.ak 1670ean eman zuen ordenantza batetik bildu eta moldatu zuten komisarioek. Juan Martin Elexpuru

Lehia judizialaren bidezko **jardunbidearen** arabera, delitu-kasuetan, galtzen zuen alderdiak bizia eta ondasunak galtzen zituen, ahalik eta zigorrik handiena jasotzen zuen. Iñaki Iñurrieta

· EBko ministroek uztailean ebatziko dute gehiegizko defizitagatik Italiari **jardunbidea** ireki edo ez. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan)

Lyssenkoren adierazpenak irakurtzean, garbi ageri da, azal eta mami, haren ezgaitasun erabatekoa, haren ezjakintasuna, biologiarik oinarrizkoenari buruz ez ezik, baita zientzia-**jardunbideari** berari buruz ere. Juan Garzia

Alkoholizatuta zegoen [...], baina nahiko itxuran eusten zion, eguerdi arte behintzat, irakasle-**jardunbideari**. Anjel Lertxundi

**5** hizpidea

-Baneuka ere, uste al duzu hemen edukiko nukeela? **-jardunbidea** aldatu zuen Iturbidek. Migel Angel Mintegi

---

## **jardunean** **1** *adlag* aritzen, jardunda.

Aldiak oro, iraganak eta iragaitekoak, ez lihoazke eta ez letozke zuk **jardunean** iraungo ez bazenu. Imanol Unzurrunzaga

Baina ofizioa da, eginez eta **jardunean** ikasten den zerbait. Ana Urkiza

Denek erabakia zuten norberaren alderdirik onenak **jardunean** jartzea eta mota guztietako armak erabiltzea. Jose Morales

Inozoek Jainkoari egotzi ohi dioten guztia, beti **jardunean** eta beti ibilian dagoen naturak bere baitatik sortzen duela.... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina lan egin dut, **jardunean** aritu naiz. Jose Morales

Oihalaren beste aldean, ikusezinik, **jardunean** ziharduen Maxek. etengabe **jardunean** ibilarazten du. Jon Muñoz

**2** (-en edo -ko atzizkiaren eskuinean) aritzean.

Bere **jardunean** hain kontzentratuta. Iñaki Iñurrieta

Administrazio publikoen **jardunean** eta egituran hizkuntz politika ardatza izatea. Berria - Euskal Herria

Plataformaren aburuz, geldotasun kezkagarria sumatzen da erakundeen **jardunean,** eta epe luzerako egitasmoak egin ahal izateko gaitasun gutxi ikusi dute. Berria - Kultura

Tolosak, bere **jardunean,** bere industrian, bere errota, ibai, gerizpe, ingude eta zaratan, hiri frantses polit baten antza du. Koldo Izagirre

Arimak bere ahalmenaren **jardunean** edo bere desirak gauzatzean ohiko trabaren bat aurkitzen badu. Imanol Unzurrunzaga

Zientziaren **jardunean,** aurrerabidean, lehenbizi datuak daude, behatuak, aurkituak, neurtuak. Jenaro Garate

Batasunak ere bere **jardunean** aritzeko debekua jaso du, eta hori benetan larria da. Berria - Euskal Herria

Udalen **eguneroko** jardunean Internet sartuta dago, ziurtagiriak eskatu, zergak ordaindu edo baimenak eskatzeko. Berria - Harian

Gertaerak ez zuela erietxeko **jardunean** eragin nabarmendu dute. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gobernuburu **jardunean,** pribatizazio andana gauzatu zuen Justxenkok. Berria - Mundua

Saileko lan-**jardunean,** hasieratik bukaeraraino, gorde behar den garbitasun-erritual miragarria nire aurrean justifikatzeko. Polonia eta Bielorrusia artean kontrabando **jardunean,** Sergiuszek eta bere lagunek ibilaldi luzeak egiten dituzte... Juan Garzia

Phil Jackson entrenatzailea, halere, trebea da suhiltzaile **jardunean** . Berria - Kirola

Norbait profeta-**jardunean** hasten bada. Elizen arteko biblia

10 urte daramatza dagoeneko kirol zuzendari **jardunean** . Berria - Kirola

Politika-**jardunean** izaten diren giza-harremanez gogoetatzera jotzen badu ere. Berria - Kultura

Beren otoitz **jardunean** ohiko barne debozioa sentitzen ez bazuten [...]. Askoren artean

**4** (kargu publikoez mintzatuz: jardueran)

Formula horietan, alderdi publikoko abokatua **jardunean** ageri zaigu: lapur bat harrapatu eta kondearen aurrera eraman ez zuenaren aurka. Iñaki Iñurrieta

Errepublikako instituzioak indarren daude eta ni neu ere **jardunean** nago. Berria - Mundua

Honek bultzatutako herritarrentzako gizalaguntza sareek **jardunean** iraun zuten, haatik. Berria - Mundua

**5** (kargu publikoez mintzatuz: kargudun berria hautatu bitartean)

Santana Lopes **jardunean** egongo da otsailaren 20ko bozak egin arte. Berria - Mundua

Kargu hori **jardunean** bete du azken hiru hilabeteetan, Sergei Abramov gobernuburuak auto istripua izan zuenetik. Berria - Mundua

Izan ere, bost udalerri horietan aukeratu zituzten zinegotziek ez zituzten euren karguak hartu eta, beraz, aurreko legealdiko udalbatzek jarraitzen dute **jardunean** .

Koalizio xiitak Jauad al Malki aurkeztuko duelako lehen ministro posturako, **jardunean** karguan ari zen Ibrahim al Jaafariren ordez. Berria - Mundua

Mertxe Agundezi egokitu zaio azken lau urteotan karguan **jardunean** egotea. Berria - Euskal Herria

Ariel Sharon lehen ministroa larri, ospitalean, dagoen bitartean Ehud Olmert dago haren postuan, **jardunean** . Berria - Mundua

Sindikatu abertzalearen aburuz, horrelako erabaki bat ez luke **jardunean** dagoen ministro batek hartu beharko. Berria - Ekonomia

Eskubideak bermatzeko lanak ez baitu etenik izan, nahiz eta karguak ia lau urte eman **jardunean** . Berria - Euskal Herria

**6** (-en atzizkiaren eskuinean) hizketan.

Bere **jardunean** gustu txarreko iruzkinak eta hitz zantarrak tartekatuz. Anjel Lertxundi

Neuk ere neure **jardunean** biltzen baitut euskararen historia osoa. Anjel Lertxundi

Gu iritsi ginenean, bero-bero ari zen Fructuoso, sakratuenaren kontrako **jardunean** . Inazio Mujika Iraola

Bere **jardunean** etengabe botatzen du hermano hitza, konplizitatea sortu nahian edo. Pako Aristi

**7** ***jarduneangosup_1*** *izlag* jardunekoa, kargudun berria hautatu bitartekoa.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **jarduneango** Ararteko Mertxe Agundezek agurtzeko baliatu zuen, atzo, Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran egindako saioa iazko txostenaren berri emateko. Berria - Euskal Herria

**8** ***jarduneangosup_2*** *izlag* jardunekoa, ari dena.

Agirre'tar Nikola, alias Metxa, agirretarra, **jarduneango** partisanoa. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahozko jardunean** (8); **bat bateko jardunean** (4); **eguneroko jardunean** (33); **jardunean ari** (10); **jardunean aritu** (3); **jardunean egongo** (3); **jardunean erabiltzen** (4); **jardunean jarraitzeko** (3); **jardunean zen** (4); **kirol jardunean** (3); **kirol zuzendari jardunean** (4); **kontrako jardunean** (3); **lehen jardunean** (3); **mediku jardunean** (3); **orain arteko jardunean** (4); **otoitz jardunean** (3); **profeta jardunean** (4); **txirrindulari jardunean** (3); **zuzendari jardunean** (5)

---

# jarduneko

**1** *izlag* kargudun berria hautatu arte ari dena. ik **jardunean 5**.

Bilera egin zenean Carod-Rovira Kataluniako **jarduneko** presidentea zela, Pascual Maragall bidaia bat egiten ari zelako. Berria - Euskal Herria

Hura **jarduneko** *Charge d'Affaires of Spain* dago, harik eta Francoren gobernu berriak bere enbaxadorea izendatu arte. Edorta Jimenez

Bere esanetan, Leonid Kutxma **jarduneko** presidentea ez da herritarren adierazpen askatasuna bermatzeko gai izan. Berria - Mundua

Israelgo **jarduneko** lehen ministro Ehud Olmerti.

CIAko **jarduneko** zuzendari John McLaughlin bere postuan bozak iragan arte uzteaz. Berria - Mundua

Jushtxenkok emaitza ofizialak ez onartzeko eskatu zion atzo Europako Batasunari eta **jarduneko** gobernuak iruzur egin zuela salatu zuen.

Mertxe Agundez **Jarduneko** Arartekoak. Berria - Euskal Herria

Hamasek «Konstituziotik kanpoko» iritzi zion **jarduneko** diputatuek hartutako erabakiari. Berria - Mundua

Egungo **jarduneko** presidenteak irabaziko ditu bozak. Berria - Mundua

Manuel Montero **jarduneko** EHUko errektoreak hauteskundeetara ez aurkezteko erabakia jakinarazi zuen herenegun. Berria - Euskal Herria

· Mayo da **jarduneko** garailea, eta aurten lasaiago ari bada ere, irabazle sena darama barru-barruan. Berria - Kirola

Bi karrerista euskaldun korritzen ari dira Cofidisen maillotarekin: Igor Astarloa ermuarra, **jarduneko** munduko txapelduna, eta Bingen Fernandez bermeotarra. Berria - Kirola

**2** hizketakoa.

Eguneroko **jarduneko** hitzak hartzen zituzten euskaratik. Koldo Zuazo

Hizkera mailak daude hor jokoan: lagunarteko **jardunekoa** da bata, eta jardun jasokoa, bestea. Koldo Zuazo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eaeko jarduneko arartekoa** (3); **eguneroko jarduneko** (4); **ehuko jarduneko errektoreak** (3); **jarduneko arartekoa** (3); **jarduneko arartekoak** (3); **jarduneko ehuko errektoreak** (3); **jarduneko errektoreak** (5); **jarduneko garailea** (7); **jarduneko gobernuak** (4); **jarduneko gobernuaren** (3); **jarduneko gobernuko** (3); **jarduneko lehen ministro** (32); **jarduneko lehen ministroa** (14); **jarduneko lehen ministroak** (33); **jarduneko lehen ministroaren** (8); **jarduneko lehen ministroari** (4); **jarduneko ministro** (3); **jarduneko munduko txapelduna** (3); **jarduneko presidente** (20); **jarduneko presidente leonid** (3); **jarduneko presidentea** (8); **jarduneko presidenteak** (18); **jarduneko presidentearen** (5); **jarduneko presidenteari** (3); **jarduneko txapelduna** (5); **jarduneko zuzendari** (3); **kontseiluko jarduneko presidente** (3); **kutxma jarduneko presidenteak** (4)

---

## **jardungai** *iz* jardunaren gaia, jarduteko gaia.

Atalburu honen eta hurrengoaren **jardungaia** Paduako San Antonio da, lehen frantziskotar belaunaldiaren emaitza baliotsuenetakoa. Askoren artean

Nere **jardungaia** Koldo Mitxelena izan zen, eta haren jaiotegunaren 81. urteurrenean atera zen. Iñaki Segurola

---

## **jardunketa** *iz* jardutea, jarduna.

Biologia hutsarekin (azalaren kolore, garezurraren tamaina eta forma, etab.) ez dugu deus argitzen gizakiaren -izpirituaren- **jardunketari** begira. Joxe Azurmendi

---

## **jardunkide** *iz* aipatzen denarekin jardun berean hari dena.

«Iraneko kontuei begira, Errusiak dauzkan interesak eta helburuak ez dira geure **jardunkide** europar eta estatubatuarren jarreretatik bereizten, jokatzeko moduan iritzi ezberdinak izan baditugu ere», adierazi zuen Lavrovek, AEBetako diplomaziaburu Condoleezza Ricerekin bildu eta gero. Berria - Mundua

---

## jardunle ik **jardule**.

---

## **jarduntsu** *izond*

Objektua ez dago linboan bera askatuko duen ordenaren zain, bere burua objektibotasun ikusgarri eta **jarduntsu** batean gorpuztea baimenduko dion ordenaren zain. Xabier Arregi

---

## **jarduntxo** *iz adkor* jardun laburra.

On egingo lioke zure **jarduntxo** batek, badakizu zuri kasu gehiago egiten dizula. Anjel Lertxundi

---

## **jardunzale** *izond* jarduten zale dena.

Gaztea zen apaiza, **jardunzalea;** segituan deitu zien gazteei, jolastoki bat antolatzeko, eta orobat liburutegi bat eta hitzaldietarako nahiz bileretarako areto bat prestatzeko, guztia apaizetxe handiaren soto zabalean. Juan Kruz Igerabide

---

## **jardurio** *iz* jarduna, hizketa.

Baina langileen auzia aipatu zuen orduko, Soterok, horren xeheki adostua genuena algaretean utzita, oihu egin zuen eskua jasoz, "Aizak!", harengana itzuli ziren buru guztiak, isiltzeko esan zioten, hala hobe, baina apezak eten egin zuen bere **jardurioa,** lasai egoteko agindu zuen, uzteko hizketan mutilari. Koldo Izagirre

---

## **jardute** **1** *iz* aritzea.

Guraizeen **jardute** hura gorabehera. Bere **jardutea** determinatuz soilik bihurtzen baitu ageriko **jardute** hori berori ahalbidetzen duen eremu horrekiko mantentzen duen erlazioa. Piarres Xarriton

Harrezkero, isiltasun osoz egindako operazioa bihurtzen zen oherako prestatze hura, eta isilik **jardute** horrek halako zeremonia kutsua ematen ziola esango nuke. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala ere, inoiz ez zait gehiegi gustatu telefonoz **jardute** hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure ikasle denborako memoriakeria txarra zela noski, baina oraingoa ere, zerbait buruz ikastea bekatu larria balitz bezala **jardute** hori, ez zela askoz hobea. Joxerra Garzia

Kontua da **jardute** diskurtsiboak agerraraztea euren konplexutasunean eta euren sendotasunean. Eta, azkenean, itzuli gara **jardute** diskurtsiboa bera ezaugarritzen duen harreman modura. Xabier Arregi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Esaldi baten bat-bateko agerpena, zentzuaren oinaztargia, izendapenaren keinu bortitza, beti sortzen direla enuntziazio-funtzio baten **jardute** -eremuan. Xabier Arregi

Hitzezko **jardute** -multzoak, elkarren artean uztartzen ez direnak esaldien mailan lotura gramatikalen bidez. Xabier Arregi

Gizarte, ekonomia, geografia eta hizkuntza esparru baterako enuntziazio-funtzioaren **jardute** -baldintzak. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hitzezko jardute** (5); **jardute diskurtsibo** (34); **jardute diskurtsiboa** (8); **jardute diskurtsiboak** (10); **jardute diskurtsiboaren** (4); **jardute diskurtsiboen** (9); **jardute politikoak** (4)

---

## **jare** *adlag* aske.

Giza izatea zein den auziak […] eta izate hori errebelazio eta erlijiotik **jare,** razionalki definitzeko grinak filosofia inbaditu du. Askoren artean

"Etxeko zoro" delakoa **jare** ibil ez dadin bere gisa, zientziagintzan dabiltzanen eginkizuna da atsedenik gabe jartzea aurrez aurre izan litekeena eta dena. Ez dugu diskurtsoaz gaindiko egoerara jotzen, berak taxutu eta bere atzean **jare** dituen formak berraurkitzeko. Juan Garzia

Bai, esadak, eta hoa **jare** . Juan Garzia

---

## **jaregile** *iz* jaregiten duen pertsona.

Espesuraren **jaregilearen** begirada etsia. Txillardegi

Bai **jaregilea,** bai Txelu neure kidea, neure ondoan neuzkan, orroka. Txillardegi

**jaregin**, jaregiten *(orobat **jarein** g.er eta **jare egin** g.er.)* **1** du *ad* askatu.

Batek ebazten du Eufrates ibaiaren uretara Taprobanako zafiro bat bota dadila; beste batek, dorre baten gainetik txori bat **jaregin** dadila. Juan Garzia

**Jaregin** dut, eta berak, artean izuak erabat harturik, azaldu dit gure haren moduko zilarbizi gordinak ez duela askorik balio. Juan Garzia

Gaztelua **jaregitea** falta zaigu. Txillardegi

Txalupak, ur lasterrarekin berriro beherantz baitzihoan, katea muturreraino **jaregin,** eta gelditu egin zen. Josu Zabaleta

Gai baita berun oxidoarekin egonkorki konbinatzeko, kloruro disolbaezin eta geldo bat emanik eta amoniakoa **jareginik**. Juan Garzia

Nik uste dut baietz, erantzun nion arrapaladan, baina hitzok **jaregin** orduko, irmoago ez erantzun izanaz damutu nintzen. Anjel Lertxundi

Iazko Sanjuanetan **jaregin** behar hinduten putakume horiek... Txillardegi

· **2** (dio aditz gisa)

Ivyk bere zigarretari **jaregin** gabe erretzen segitzen zuela. Orduan Crookshanksek poltsa-hondakinei **jaregin** zien, mahai gainera salto egin eta Scabbers izutuaren atzetik abiatu zen. Joxe Austin Arrieta

-Ikusten? -esan zuen Ronek sututa, harriari eskutik **jareginez-**. Iñaki Mendiguren

Honek buruaz baiezkoa egin berriro eta besoari **jaregin** zion. Iñaki Mendiguren

Luze gabe […] ametsik gabeko lo gogor batek estutu ninduen bere altzora eta goizeko hamar eta erdiak arte ez zidan **jare** egin. Aingeru Epaltza

Sarri eutsi zion haserreari, bere sumin guztiari **jaregin** gabe. Elizen arteko biblia

Idaztera jartzen nintzen bakoitzean, hasteko begiak itxi eta gogoari **jaregingo** nion noranahi ibil zedin. Oskar Arana

**Jaregin** egiten dio bulldog-ari. Oskar Arana

Marmar ozen baten modukoa aditzen zen, gangatik **jareginik** lurraren kontra kanka jotzen zuten mila tantena. Juan Garzia

**3** (era burutua izenondo edo izen gisa)

Inguruka zebilkigula haren izate materiagabe, **jaregin,** aske, guztiahaldun eta menderatzailea. Josu Zabaleta

Kameraren birtuosismoaren zaletasunak "kamera **jaregina"** *(entfesselte Kamera)* deitu zena ekarri zuen. Josu Zabaleta

· Hiru seme-alaba zituzten emakume libreak eta lau zituzten emakume **jareginak** aske ziren Erromako lege zaharrek lotzen zituzten tutorepeko egoera betiereko hartatik. Iñaki Iñurrieta

Hark dioenez, garai hartan **jareginei** libre ere deitzen zitzaien. Iñaki Iñurrieta

Luis Errukitsuak jare egin zuen Hébon, eta, jopu **jareginek** nagusiaren legea hartzen zutenez, Hébon franko bihurtu zen; ez saxoniar edo germaniar. Iñaki Iñurrieta

Uste dudanez, jopu bati honako kasu hauetan onartzen zitzaion borrokatzea: beste jopu baten kontra; **jaregin** baten kontra eta are kapare baten kontra ere bai, baldin eta honek erronka egiten bazion. Iñaki Iñurrieta

Augustok bide eman zien senadore ez ziren pertsona libre guztiei **jareginekin** ezkontzeko. Iñaki Iñurrieta

Honorioren legeak heriotza-zigorra ezartzen zuen **jaregin** bat jopu gisa erosten edo artegatzen zuenari. Iñaki Iñurrieta

**4** (era burutua hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Heriotzatik askatzeko **jarein**-saria ezartzen badiote, eskatutako guztia eman beharko du biziaren ordain. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> besoari jaregin (3)

---

**jaregintza** *iz* askatasuna.

Bestek ere sumatua zuen, ikusi nuenez, nik baino aise lehenago, Euskal Herriaren **jaregintza** ez zela tronu arrotz baten gorabeheretan erabakiko. Txillardegi

---

**jaregite** *iz* askatzea.

Ingeniaritzari dagokionez, bere kabuz husten den zisterna bat da maskuria, barne-presioa maila jakin batera igotzean **jaregite**-mekanismoa abiarazten duen tentsio-galga batek kontrolatua. Irene Aldasoro

---

jarein ik **jaregin**.

---

**jargia** *(orobat **jargi** g.er.)* *iz* jarlekua.

Treneko bitratik, **jargian** kasik etzanik, begira zegokien fazinaturik. Itxaro Borda

Maiana **jargia** batean pausatu zen, ipurdi-erdia kanpoan. Itxaro Borda

Komunetako **jargi** xuriaren azpian. Ramuntxo Etxeberri

Komunetako **jargian** biluzirik jarri zen eta maleta beltza belaunen gainean ideki zuen. Ramuntxo Etxeberri

---

**jargoi**1 *iz* tronua.

Errege aulkian edo Jainko handiaren **jargoian**. Patxi Altuna

Gurdia, atzeko gurpilak handiak zituena, **jargoi** bat bezala, neskaz bete--bete eginda zegoen. Josu Zabaleta

Gu gure **jargoitik** kentzera, bere mende jartzera, gu bezatzera. Josu Zabaleta

---

**jargoi**2 *iz* gizarte edo lanbide talde jakin baten hizkera berezia.

Alemaniarrak, frantziarrak, hiritik kanpoko eskolatu gabeak, juduak eta New Yorkeko **jargoia** darabilten hiztunak ditugu, besteak beste, Manhattan Transfer liburuko pertsonaietako batzuk, zein bere mintzaera eta bereizgarri fonetikoekin. Lopez de Arana

Ez zuen askorik ulertu nik logelan emandako eskola iraultzaileetako **jargoiaz**. Fernando Rey

Ekonomilarien beste ezaugarri ezagun bat beren buruari jartzen dioten tranpa baino are gehiago da beste gizaki guztioi jartzen digutena: erabiltzen duten hizkera, **jargoia** edo argota. Iñaki Heras

---

**jargune** **1** *iz* norbait edo zerbait jarrita dagoen gunea.

Falujan, aldiz, AEBetako Armadak zuen gerra hegazkinekiko eraso bat burutu, matxinoak zeuden **jargune** batzuen kontra. Berria - Mundua

Gudulari xiitek [...] soldadu britainiarren hainbat **jarguneri** eraso zieten. Berria - Mundua

Apache gerra helikopteroek eta itsasaldetik ontzi militarrek bonbardatu zituzten ekintzaile palestinarren ustezko **jarguneak** . Berria - Mundua

**2** eserlekua.

Greban jarri dira hango hautetsiak beren **jarguneak** hutsik utziz, protesta gisa. Herria

---

# jariaera *iz* jariatzeko era.

Euskaraz pitin bat idatzi duen nornahik daki, lexiko tekniko edo kultuak baino mila aldiz lan gehiago ematen duela joskerak, esaldiak, h[au] d[a], euskararen **jariaera** gramatikal ez indoeuroparrak. Joxe Azurmendi

---

# jariakari *izond* jariatzen dena.

Gaixotasun batzuek harrapatzen zaituztenean, badirudi izaki fisikoaren baliabide guztiek huts egiten dutela, indar guztiak desegiten, gihar guztiak lasaitzen, hezurrak haragia bezain bigun bihurtzen direla, eta haragia ura bezain **jariakari**. Josu Zabaleta

---

# jariakin **1** *iz* jariatzen den gaia.

Adituentzat gauza jakina da **jariakin** (latinez *secretio*) guztiak kaltegarri edo toxiko direla. Juan Garzia

Sinuetatik **jariakin** bat isurtzen da sudur-hobietara, horiek heze egon daitezen. Irene Aldasoro

Hiesa gorputzeko fluidoen bitartez -odola, semena, baginako **jariakinak** eta amaren esnea- kutsatzen da, ez bestela. Luis Elberdin

Geneak txertatu zizkioten besikulari eta zelulako **jariakina** proteinak ekoizten hasi zen, zelula normal bat balitz moduan. Berria - Gaiak

Substantzia dentsoago bat, hala nola ura (edo beste edozein **jariakin** biologiko), ezin da hain erraz konprimitu. Irene Aldasoro

Gernua da urea gorputzetik ateratzeko garraiobidea, giltzurrunek sortzen duten **jariakin** bat. Irene Aldasoro

Pankreako **jariakin** bat injektatzen zaio lehenik janari likidotuari. Irene Aldasoro

Digestio-prozesuaren hurrengo fasera pasatzen dira elikagai gehienak, **jariakin** lodi bihurturik. Irene Aldasoro

Ondo pozik legoke ingeniaria baldin eta hodi-sare konplikatu bateko **jariakina** gai balitz berak jarioa detektatzeko eta, gainera, aparteko materialen beharrik gabe jarioa berehalaxe konpondu, hondakinak garbitu eta gune kaltetua berriaren pare uzteko. Irene Aldasoro

Hori dela eta, zelularen parte urtsuak eta inguruko **jariakinek** ez dute konposizio bera. Irene Aldasoro

Testikuluen eta guruin lagungarrien **jariakinez** eratutako likidoa da esperma. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Negar- **jariakinaren** emari etengabea. Irene Aldasoro

Buru- **jariakinean** toxinak drainatzen badira, alzheimerraren ondorioak egonkortu egiten direla esan du AEBetako zientzialari talde batek.

---

# jariakor **1** *izond* jariatzeko joera duena.

Materia **jariakorraren** izaeraz. Ibon Uribarri

Giza gorputza izaera desberdineko atalez osatua dela: **jariakor,** bigun eta gogorrez. Piarres Xarriton

Dena **jariakorra** dela eta munduan iraunkorra eta geldikorra den ezer ez dagoela. Ibon Uribarri

Odola usnatzen zuen, ezkaratzaren garbitzeko plantatzen zenean, **jariakor,** mingar eta karats. Itxaro Borda

**2** *irud*

Bere hizketa modu pausatu **jariakorra** eta kontakizun gihartsu haren oihartzunak oraindik bisitari etortzen zaizkit akordura batzuetan. Jokin Urain

Haien ibilera pertxent eta **jariakorra** . Joxe Austin Arrieta

Enkuadratze finkoa darabil, oso landua; aldi berean, enkuadre barruan gertatzen dena oso **jariakorra** da. Berria - Kultura

---

# jariakortasun *iz* jariakorra denaren nolakotasuna.

**Jariakortasun** eta antze handiz, hitz samurrak trukatu zituen dama batzuekin. Jose Morales

---

# jariapen *iz* jariatzea.

Sortzailearen existentziarengatik oro existitzen delako, eta Bera da horien iraupena luzarazten duena **"jariapena"** deritzon zerbaiten bitartez. Xabier Kintana

---

# jariarazi, jariaraz, jariarazten du *ad* jariatzera behartu. ik **jarioarazi**.

Orain noizean behin haize kirriak granada-arbolaren adarrak astintzen zituen, euri lodi bat zurrustaka **jariaraziz,** gero aurki lausotzen ziren tanta distiratsuz pikortatuz lurra. Juan Garzia

---

# jariatu, jaria, jariatzen **1** du *ad* zerbaitek isurkari bat jaregin. ik **jario**[2].

Malko hotzak **jariatuz**. Izerdia **jariatzen** dabiltzan intsektu bi bezala. Urtzi Urrutikoetxea

Lo gaudela, hormona asko **jariatzen** ditugu. Berria - Gaiak

Mundu guztiak daki [...] urarekiko kontaktuan [potasioak] ez bakarrik hidrogenoa **jariatzen** duela, baizik are su hartzen duela. Odolezko izerdiari buruzko kontuek ez dute oinarririk, izatez, nahiz eta guruin apokrinoek izerdi gorria **jariatzen** duten hipopotamoetan, eta, oso gutxitan, gizakietan. Juan Garzia

Pankreako zelulek **intsulina** jariatzen dute. Berria - Gaiak

Histamina **jariatzen** duten garuneko zelulei esker gara kontziente esna gaudenean. Berria - Gaiak

Gene horrek, eta horrek **jariatzen** duen proteinak, eragin handia dutela prostatako minbiziaren garapenean. Berria - Gaiak

Nargilearen pipa hartzen zuen, bestela, eta ezpainak estutzen zituen [...] eta gero kea **jariatzen** zuen. Patxi Zubizarreta

**2** *hed*

Eguzkia sartua bazen ere, artean zoladurak eta etxeen hormek beroa **jariatzen** zuten. Lopez de Arana

Bafada trinko geldietan zabaltzen zen kirats hura, zirimola uzkurtuetan, estoldek **jariatzen** duten hatsa iduri. Lopez de Arana

• **3** da *ad* nonbaitetik isurkari bat irten. ik **erion**.

Hortik ziur konturatu zen saihetseko zauritik **jariatzen** zen odola zela hura. Askoren artean

Zainetan barrena korronte elektrikoaren antzera **jariatuko** zaizu. Patxi Zubizarreta

Sudurretik, kokotsetik eta ahotik isuri zitzaion odola; makillajearen hautsekin eta kremekin nahasirik, lepoan eta soinekoan behera **jariatu** zitzaion. Patxi Zubizarreta

**4** *hed/irud*

(Pentsamendu soila) ez ote den **jariatzen,** berak elkar kateatzen dituen gainerako pentsamenduak **jariatzen** diren bezala. Ibon Uribarri

Generoa tipikoki ernazentista kontsideratzen da, Virgilioren eta Petrarcaren lirikatik **jariatua**. Berria - Kultura

**5** (beste aditz baten objektu gisa)

Eraztunak ostu nahi izan dizkidate, eta hatza moztu didate; odola **jariatzen** hasi da, eta horrek piztu nau. Josu Zabaleta

Berriro butxatu dira isurbideak, ezin dugu ura **jariatzen** utzi, tantaka ez bada, ezin dugu komuna erabili. Josu Zabaleta

Ez dut zurekin gai astun eta sakonik erabili nahi, bizitza erraz **jariatzea** nahi dut, trabarik gabe, emaro odolusten den suizida bati isurtzen zaion bezala, eztiki. Berria - Kultura

---

## jariatzaile *iz* zerbait jariatzen duen gauza.

Biblia nazional antzeko zerbait bilakatu da historia (ideologia nazionalaren **jariatzaile** nagusi). Joxe Azurmendi

---

## jariatze *iz*

Jolas, kantu, bertso, hizketa eta abarrek kilika egiten diote; erritmoa eta jarioa, izatearen **jariatze** bat dutelako, kilika eginez berekin eramaten eta suspertzen dute. Aurretik igarotako denboraren **jariatzearen** bitartez. Xabier Olarra

---

## jario[1] **1** *iz* jariatzea; zerbaiti darion gauza.

Doneztebeko atzelariak **jario** bat eduki zuen belaunean. Berria - Kirola

Minutu batzuez sentsazio aldakorren **jario** batek harrapatzen nau Kolore baten antza zuen baina baita... zauri batena edo **jario** batena, [...]. Oskar Arana

Hizkuntzaren ibaiaren **jarioa** etengabea da; eta **jario** hori barea edo lasterra den bigarren mailako kontua da. Isabel Arrigain

"Kontzientziaren **jario"** izenekoa. Anton Garikano

Zein **jario** dute *Querida madre* eginez hasten ditudan gutunetako sentimenduek? Anjel Lertxundi

Zerbaitek etenarazi zuen ene **jarioa**. Aingeru Epaltza

Gure gaurko gizarteak [...] halako urrutiramendu bat erakusten dugu sentimenduen eta emozioen aurrean, sentimenduen **jarioak** ahuldu egingo bagintu bezala. Anjel Lertxundi

Komunak **jarioa** du, eta kanilak haria hondatuta dauka. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Uraren **jario** mutua ene urrats isilekin jarraikiz. Piarres Aintziart

Batzuetan begietatik sodio-kloruro hidratatuaren **jario** ugaria izaten du lagun. Xabier Olarra

Ai zer plazera odolaren **jario** lodia kokotsean behera isurtzen sentitzea! Itxaro Borda

Hasieran **jario** xume bat zen, baina berehala, Jainkoaren ahalmenaz, iturburu bilakatu zen. Askoren artean

Ezinezkoa zait emakumearen **jario** xumea paperera pasatzea. Anjel Lertxundi

Doinu goibelez eta **jario** betiberdineko ahots sakonez. Jose Morales

Ezin zion segitu hizkera akademiko zatar haren **jario** motelari. Anton Garikano

Erantzungailu baten **jario** mekanikoa entzungo zuen. Iban Zaldua

Imajinazioaren **jario** emankorra etetea zaila denez. Jon Alonso

Airea etengabe ari da gauzetatik sortzen eta berriz gauzetaratzen, argi baitago zer guztiek **jario** etengabean dihardutela. Xabier Amuriza

Hizketan eta hizketan, atertu gabeko **jario** ulergaitz baten zirimirian. Anjel Lertxundi

Antzeman zuen lagunurkoarekiko sentimendu batasuna, emozioak eman ohi duena, bereizketaren hormak erabat mehetuz [...] dena **jario** bakar bat bihurtu balitz bezala. Anton Garikano

Elizabethek bazuen Nathanielen **jario** literarioaren benetako balioa neurtzerainoko sena. Anjel Lertxundi

Gogamena bizi-bizi nuela eta mingaina, berriz, **jario** errazeko. Anjel Lertxundi

Hango istil, urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da, non eguzkiak **jario** osasun-galgarriak sortzen dituen, bidaztia nekaraziz eta maiz arrisku larrian utziz. Karlos Zabala

**3** (izenondoekin; hedaduraz)

Ospitale eta klinika txikiagoek ezin diote gaixo eta zaurituen **jario** handiari aurre egin. Berria - Mundua

**Jario** handiko errepide bat egitea, Europako ardatzarekin bat egiteko. Berria - Euskal Herria

Ia 26 milioi euro bideratuko dituzte Ipar Euskal Herrian **jario** handiko internet sarea txukuntzeko. Berria - Euskal Herria

**4** (izenlagunekin)

Kanpoko **jario** haren aurka ekiteko. Anton Garikano

Denbora, bada [...], ez da gutaz kanpoko **jario** jarraitu, erregular bat. Josu Zabaleta

Berriz ere, ahalegin latza egin behar izan nuen taxuz pentsatzeko, odol ilunezko **jario** hura ez ikusteko. Alberto Ladron Arana

Zer da, ordea, berezko **jarioa**? Anjel Lertxundi

Gurean, egia da, itzulpenen gainean hotsa zabaldu da ez dutela jatorrizko obren berezko **jariorik**. Anjel Lertxundi

Geratu ezinezko **jarioan** jarraitu zuen 1987ko urtarrilean hasitako sakabanaketa hark. Jokin Urain

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanila zabaldu zaion iturri oparo bat bezala hasi zen berriro hizketan, bi idazleen arteko konparazioak ematen zizkion emaitzen **jario**-darioan. Anjel Lertxundi

Euria ari zuen: gau osoan jardun zuen zirri-zarra, eta gu hantxe, faroak piztuta, egonean egon arren, atergabeko uholde haren **jario**-marmarraren pean. Joxe Austin Arrieta

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izen balioaz)

Ur **jario** mehe baina etengabe hartaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Gatzagetako lurrun-**jario** errea. Anjel Lertxundi

Ultzera nazkagarriz eta sabel **jario** beltzez. Xabier Amuriza

Apar-**jario** moduko bat duk halakoena, iritzi burutsuenen artean ur gaineko bitsetan bide eragiten diena. Juan Garzia

Mahuka aurpegitik pasatzen zuen, baina ez zegoen tanta-**jario** hura gelditzerik. Julen Gabiria

Kaskarin fin izan zen urteetan ere, ordea, nabari zuen negar-**jario** ganoragabe halakorako joera. Mirentxu Larrañaga

Gizonezkoa, sexu-**jarioa** duenean, kutsatu bihurtzen da. Elizen arteko biblia

Gidoiak umore fina, hitz joko bihurriak eta ideia **jario** etengabea dakartza. Berria - Kultura

Bere alferrikako emozio **jario** harengatik. Anton Garikano

Lajos gezurretan hasten zen eta, gezur **jario** hartan, bere onetik irten, lehertu eta negarrari ematen zitzaion. Ander Irizar

Inor harritu ez delako Leandroren jardunarekin, denek ezagutzen baitiote ele-**jario** dotorea. Anjel Lertxundi

Osaba Joanikoten ele-**jario** luzearekin baterat. Joan Mari Irigoien

Kontzientzia **jarioaren** eredua. Xabier Arregi

· Europako garraio **jario** handiena bildu nahi dute. Berria - Euskal Herria

Trafiko **jario** haundia espero dute estatuko berrebidetan. Herria

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo balioaz)

Koldar beldur-**jario** bati. Joan Mari Irigoien

Ez du merezi lerde-**jario** horiek jotzea, eskua mailatzea besterik ez duzu lortzen. Jose Morales

Ni gabe ere, ezti-**jario** asko ditu inguruan, beti lausenguka. Jose Morales

Esku batean zatarra eta baso tanta-**jario** bat bestean. Koro Navarro

Gizon jainkozalea, malko-**jario** hauen artean halako zerutiar poztasun batez azaltzen zen. Askoren artean

Are eta amorru handiagoa ematen zioten nesken ikastetxeetara joan eta, larrua jotzea beste pentsamendurik gabe, hormak *fuck* hitzaz zikintzen zituzten praka-**jario** guztiek. Bernardo Atxaga

Opalgaiaren gorputza ebakiko lukeen ezpata su-**jariozkoa** bailitzan. Xabier Olarra

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa adizlagun balioaz)

Florentziara etorri zen ostera, hautsa **jario**. Juan Garzia

Lorategia argi-**jario** egoten da gau osoan, argiontzi eta kriseiluz apaindurik. Jose Morales

Eztulka eta muki-**jario**. Jon Muñoz

Orro antzeko ahots batez eta listu **jario,** galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Hantxe zen zakur gizajoa, lerde **jario,** atzetik mutiko koadrila bat harrika zuela.Sanker atzera-aurrera zebilen, deiadar **jario,** erle lantsu baten gisara. Jon Maia

Adrenalina **jario** jarri ninduen bihurrikeriak. Harkaitz Cano

Txapelik ez buruan, brusa urratua, galtza **jario** eta alkandora bistan. Karlos Zabala

Eskuak fraide batek bezala igurtziz, jendea koipe-**jario** agurtuz. Anjel Lertxundi

Koipe-**jario** lotu nintzaion, Ttipirekin sekula huts egin ez zidan jukutria. Aingeru Epaltza

**9** ***hitz-jario****sup_1 (orobat* ***hizjario*** *g.er.) iz*

Mailu baten antzera sentitzen nuen **hitz-jario** hura. Irriak eta **hitz-jario** oparoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Hitz jario** ederra erakutsi zuen hitzak hain ongi neurtzen zekien gizon puska burusoilak. Imanol Zurutuza

Gainerakoan, **hitz-jario** handiko gizona zen, argudioak ongi lotzen zekiena. Joan Mari Irigoien

**Hitz** -totela zen eta kantatzen zuenean baizik ez zuen **hitz-jario** normala. Fernando Rey

Nora ez zen duda-mudan gelditu aitaren **hitz-jario** trinkoa entzunda. Anjel Lertxundi

Cardiffeko marinelen **hitz-jario** zakarra. Iban Zaldua

**Hitz-jario** koipetsuak ez zion ezer berezirik iradoki. Migel Angel Mintegi

**Hitz-jario** gehitxo zegoen eta irudi gutxi. Andoni Egaña

Atzean utzi dut alferrikako bizitza hori guztia, batere lorpenik gabeko **hitz jario** hori. Ramon Etxezarreta

Etengabeko **hitz-jarioa**. Elizen arteko biblia

**Hitz-jario** jasangaitzeko kaze taria. Berria - Kultura

Atergabeko **hitz jarioa** ile zuriko emakume harena. Iñaki Zabaleta

Izan ere, kezka gehiegik amesgaiztoa dakar, eta **hitz-jarioak** zoro-berriketak egitea. Elizen arteko biblia

Agortu ezineko **hitz-jarioz**. Askoren artean

Ez zuen horrelako **hitz-jariorik** espero. Jose Morales

· Axular da hau, apez **hizjario** beti aberatsekoa. Pello Zabala

**10** ***hitz-jario****sup_2 izond* asko hitz egiten duena.

Tabernari **hitz-jario** batekin eta txanoa zapaldua zeraman mozkor batekin ari zen xahutzen egun dohakabe hura. Koro Navarro

Weinerrek eta Horvathek ez zekiten zer erantzun **hitz-jario** hari , eta lotsatuta zeuden irribarrez. · Eta irri-**hitz** -jario izanik Santxo, ber-bertatik aitortzen dut buru-argia dena. Anton Garikano

**11** ***hitz-jario****sup_3 adlag*

Sobakevitx **hitz-jario** zegoen, mihiak ekarri ahalean hitza eta pitza zeriola: [...]. Jose Morales

Ohi bezala, **hitz jario** hasi zen bisitaria ongi hartua senti zedin. Patxi Zubizarreta

Zer isiltzen du beti **hitz-jario** dabilenak? Joxerra Garzia

· Baina, unearen eztitasunak eskatzen zuena egin ordez, lasaitu, isildu, **hitz-jario** batean jarraitu nuen nire ikaskideez azalpenak ematen. Bernardo Atxaga

Eta bitartean **hitz jario** batean ari zen alemanez, jendea pozik edukitzeko. Josu Zabaleta

**12** ***jario batean*** *adlag*

Arrasateko arbigarak etortzen zaizkit gogora, eta, listu-bide guztiak **jario** batean ditudala, berehala naiz gose puntu gozoan. Joxerra Garzia

Behin ezkondu eta baretu zelarik, **jario** betean isurtzen zituen malkoak. Mirentxu Larrañaga

**13** ***lerde-jario****sup_1 (orobat* ***lerdejario****) iz (irain hitza)* lerdea dariona.

Ez du merezi **lerde-jario** horiek jotzea, eskua mailatzea besterik ez duzu lortzen. Jose Morales

Irribarre eztia, gozoa, inozoa, batzuetan **lerdejarioaren** atarikoa. Arantxa Iturbe

**14** ***lerde-jario****sup_2 (orobat* ***lerdejario****; izenondo gisa)*

Barre-algara **lerdejario** batean lehertu zen orduan. Inazio Mujika Iraola

Herritarrek, ordea, ez zioten Lady Godivaren edertasunen kontakizun **lerdejarioa** bukatzen utzi. Anjel Lertxundi

Ez nenkian heu ere emakume guztiok soka motz bana daukagula uste duten gizon klase **lerdejario** horretakoa hintzenik. Anjel Lertxundi

Gure Hizkuntzarekiko ezinezko mistika **lerdejariozko** batean lausoturik bizi zirenak eta direnak. Iñaki Segurola

**15** ***lerde-jario****sup_3 (adizlagun gisa)*

Emakume sofistikatu eta eder haren keinuek eta mainek liluratu egin zuten, eta **lerde-jario** utzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hantxe zen zakur gizajoa, **lerde jario**, atzetik mutiko koadrila bat harrika zuela. Jon Maia

Agian ni hari begira-begira, eta, zergatik ez erran, **lerde jario** harrapatu izana izan zen nigana etortzeko arrazoia. Alberto Ladron Arana

**16** ***odol jario*** *iz*

Odol **jario** nabarmena zerion ahotik. Junek odol-**jario** handi bat izan zuen burmuinean, etxeko baratzean lanean ari zela. Oskar Arana

Tira, odol **jario** hori sendatu beharko dugu behintzat. Harkaitz Cano

Baina odol-**jario** ñimiño hura gelditzen ez zela erreparaturik, zainetan jarri nintzen. Txillardegi

Beste modurik ez zen odol-**jarioa** gerarazteko. Oskar Arana

Israelgo lehen ministroak garuneko beste odol **jario** bat jasan du eta hirugarren ebakuntza egin diote. Berria - Mundua

Odol **jario** dezentea eragin zidan. Joxerra Garzia

Odol **jario** bat suertatuz gero […] Jainkoaren borondatea zela esaten zuen. Patxi Zubizarreta

Hilerokoa izanik, odol-**jarioa** duen emakumea zazpi egunez geldituko da kutsaturik. Elizen arteko biblia

· Odol **jario** itzela uztailaren 18az geroztik. Edorta Jimenez

· *izond* Borroka latz odol-**jario** batez. Felipe Juaristi

**17** ***txima-jario*** *izond*

-Urka ezak! -oihu egin zuen emakume **txima-jario** batek. Koldo Biguri

-Zerorrek ikusi -esan zion behin Egor Timofeievitxi, eskuaz bizar **txima-jarioa** laztantzen zuen bitartean-. Jose Morales

**18** (adizlagun gisa)

**Txima jario** jaikitzen zen. Karlos Zabala

Dama batek, ordea, gogoko zuen **txima-jario** ibiltzea, eta inpresio bitxi samarra eragiten zuen Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argi jario** (3); **hitz jario** (65); **hitz jario oparoa** (3); **jario errazeko** (3); **jario etengabea** (4); **jario etengabean** (6); **jario handia** (3); **jario handiko** (8); **jario oparoa** (3); **koipe jario** (5); **lerde jario** (6); **malko jario** (4); **odol jario** (15); **odol jario bat** (3); **odolaren jario** (3); **poz jario** (3); **tanta jario** (4); **txima jario** (3); **ur jario** (4)

**hitz jarioa** (28); **jarioa eten** (4); **jarioa etengabea** (4); **jarioa eteteko** (5); **jarioa gelditu** (3); **jarioa izan** (3); **jarioa zuen emakumea** (3); **malko jarioa** (3); **odol jarioa** (26); **odol jarioa gelditu** (3); **odol jarioa zuen** (3); **sexu jarioa** (4); **ur jarioa** (5); **uraren jarioa** (3); **zorne jarioa** (3)

**hitz jarioak** (6)

**etengabeko jarioan** (3); **hitz jarioan** (3); **jarioan hasi** (3)

**hitz jarioarekin** (4); **hitz jarioaren** (4); **hitz jarioari** (8); **hitz jarioaz** (4): hitz jariorik (3)

**hitz jarioz** (4); **odol jarioz** (3)

---

# jario², jariotzen **1** zaio *ad* jariatu.

Begietatik odol-zorrotada **jario** zitzaion, besoan zain bat irekitzen denean bezala. Askoren artean

Saihetseko zauria erakutsi eta kopa bat eskatu zion saihetsetik **jario** zitzaion odola jasotzeko. Askoren artean

Saihetsa lantzaz zauritu zioten, eta eskutik ur-odol tantak **jario** zitzaizkion. Patxi Altuna

Zauri horiei hazia **jarioko** zaie, geldiro, eztiki, odolaz nahasturiko hazia, beirakara eta epela, burbuila txikiekin. ur biziko errekak **jarioko** zaizkio barru-barrutik. Monika Etxebarria

Adigai hau ezin da inoiz **jariotako** betikotasun osora iritsi. Ibon Uribarri

• **2** du *ad*

Eta ikusi zuen suge buruhandi bat bere gainera zetorrela, begi biak, ahoa eta sudurra kea eta txinpartak **jario** zituela. Josetxo Azkona

---

# jarioarazi, jaioaraz, jarioarazten du *ad* jariarazi.

Harkaitzetik ura **jarioarazi** zuen haientzat: harkaitza zulatu eta ura sortu zen. Elizen arteko biblia

Guztiz Gorenak, (gorets bedi!), beragandik ezaguera **jarioarazi** eta gutariko batzuen gainean errebelazioa isurarazi nahirik, […]. Xabier Kintana

---

# jariodun **1** *izond* jarioa duena.

Azkenean, purifikazioaren sinboloa zela-eta, iturri bat egitea erabaki genuen, urmael **jariodun** garden frantziar bat. Karlos Linazasoro

**2** jarioa duen pertsona.

**Jariodunaren** etzalekua ukitzen duenak arropak eta gorputza garbituko ditu eta kutsaturik geldituko da arratsera arte. Elizen arteko biblia

**Jariodunak** zaldiz ibiltzean erabilitako zela kutsatua geldituko da. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

Izan bedi beti Joaben etxean odol-**jariodunik,** legendunik, eme-itxurako gizonik, ezpataz edota goseak hilko denik! Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**pertz jarioduna** (5); **pertz jariodunean** (9); **pertz jarioduneko** (3); **pertz jariodunera** (7)

---

# jarioka **1** *adlag* jarioa dariola.

Hortzetako pasta, tantaka baino areago, **jarioka** ari zitzaion ahotik. Fernando Morillo

Hitzak **jarioka** ateratzen ziren haren ezpainetatik-. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan)

Bat-batean, malko-**jarioka** hasi nintzen bete-betean, etxekoen oroi-minez eta Mollyren maite-minez. Mirentxu Larrañaga

Begiak dirdai **jarioka** txingarren pare. Karlos Zabala

**3** ***lerde-jarioka*** *adlag*

Harentzat Europara bidaia egiteko plan polita zen Potsdam-en lau egun ematea eta Orangerie-n ibiltzea **lerde-jarioka** eta poloniar guztiak zutoina ipurditik sartuta akabatuko zituela amets eginez. Karlos Zabala

---

# jarion, jarioten da *ad* jario, erion.

Zin egin zuen arnasa emango ziela, mugitu eta **jariotera** behartu, bere agindua betearaziko ziela biharamunean. Anton Garikano

---

# jariotasun *iz* jaritzen duenaren nolakotasuna.

Uraren **jariotasuna**. Xabier Amuriza

## **jariotsu** *izond* jario handikoa.

Solas **jariotsukoa** zelako. Anjel Lertxundi

Hodei eta ninbo **jariotsuak** alde guztietatik etortzen eta elkargaintzen direnean. Xabier Amuriza

Euri fin baina **jariotsu** batean. Berria - Kultura

## jaritsi ik **jadetsi**.

## **jarkera** ik **jarrera**.

## **jarki,** jarkitzen zaio *ad* buru egin, aurpegi eman.

Zergatik dezake ilargiak eguzkiaren argia mozt eta bere buru gailena haren eta lurraren bitartean ezar, bere disko iluna izpi goriei **jarkiz,** […]? Xabier Amuriza

Horri guztiari **jarki** eta gogor eginez. lapurrak eragozpen gehiago gainditu behar ditu, eta haren arima denbora luzeagoan **jarkitzen** zaie legeei. Askoren artean

Noizbait, ordea, **jarki** zitzaion beldurrari. Iñaki Iñurrieta

Badator bekatu larri bat egiteko pentsamendua; eta pentsamendu horri bertantxetik **jarkitzen** natzaio, eta garaitua gelditzen da. Patxi Altuna

Oso sentikorra da indarrarekiko eta gure indarrari **jarkitzen** zaion zernahirekiko. Xabier Amuriza

Batzuen ahotsak badu halako guritasun berezi bat, **jarki** ezin zaiona, jateko gozoak diren gauzen ahogozoa. Josu Zabaleta

## **jarkiezin** *izond* ezin jarkizkoa.

Maitasuna eta bere larrialdiak, sentimenduen oinaze eta plazer nahasiak, grinen oldar **jarkiezina**. Xabier Mendiguren Elizegi

## **jarleku** *(342 agerraldi, 85 liburu eta 61 artikulutan; cf.* ***eserleku*** *998 agerraldi, 139 liburu eta 248 artikulutan)* **1** *iz* eserlekua. ik **jartoki**.

Harri xabala **jarleku** goxo bilakatzen zait segidan. Piarres Aintziart

Sei maila zituen errege-aulkiak; bizkarraldea biribila zuen eta **jarlekuaren** alde banatan besoak. Elizen arteko biblia

Kadera: bizkarra daukan **jarlekua,** bainan besorik ez. Xipri Arbelbide

**Jarleku** batean eseri zen eta eskuak belaunen gainean gurutzatu zituen. Lopez de Arana

Larru leuneko **jarleku** batean patxada ederrean eseria. Jon Muñoz

Mauleko Marius Rodrigo kirol zelaiko 4.000 lekutako harmaila eta **jarlekuetara**. Berria - Kultura

Goian, koruko **jarlekuak** eta sainduen tailuak. Piarres Aintziart

Lorategiko **jarleku** batean. Jon Alonso

Tuillerietara joanen naiz burdinazko aulki batean jesartzera, hobeki **jarleku** batean, aurrezteko. Monika Etxebarria

Lo, berriz, idi-gurdietan, abandonatutako eskoletako **jarleku** eta aulkietan. Urtzi Urrutikoetxea

Urdaitegian bizi zen, sukaldeko **jarleku** batean eserita ematen zuen denbora. Karlos Zabala

Bikoteak autobuseko **jarlekuetan** bil-bil eginda ibiltzen ziren. Lopez de Arana

**Jarlekuaren** ertzean eserita. Lopez de Arana

Seguraski, egongo da lekutxoren bat berarentzat gidariaren **jarlekuan**. Jose Morales

Kopilotoaren **jarlekuan** eseri zen. Mikel Hernandez Abaitua

Kaskoa **jarlekuaren** azpiko kofretxoan sartzen ari zen motorraren gidaria. Aingeru Epaltza

Hiru **jarlekuko** ilara hartan ezin zen beste inor eseri hegaldi guztian. Joxemari Iturralde

Aireplanoa gidatzen, edo motorrean ziztuan atzeko **jarlekuan** neskatxa bat hartuta gona nahasturik eta belaunak agerian. Ander Irizar

Ohantzeko lasto gainean bilatu nuen **jarlekua**. Aingeru Epaltza

Sei edo zazpi baizik ez zituen ezagutzen gehienez ere akusatuen **jarlekuan** eserita zeuden hogeitaka haietatik. Karlos Zabala

**Jarlekuen** lehen ilaratik ikusiko zuen gerraren festa, eta, are garrantzitsuagoa zena, garaileen eserlekuetan eroso-eroso jarrita. Alberto Ladron Arana

**Jarlekuetan** ez zegoen lekurik, eta zutik nengoen harroin baten ondoan. Joan Mari Irigoien

Parlamentuko 50 **jarlekuetatik** 27 dituzte. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Amak sukaldean lo egiten zuen, kamaina inprobisatu batean, **jarleku** zabal xamar batean etzanda, ikonoa gain-gainean zuela. Matías Múgica

Jauregiko aitzin-paretaren kontra paratu nintzen, kanpoko **jarleku** luzean. Joan Mari Irigoien

Larruzko **jarleku** txikian erdi etzanda. Lopez de Arana

Haren ondoan zen larru eta zur landuzko **jarleku** handian jarri zen zalduna. Aurelia Arkotxa

Bertan zeuden, su aurrean, zumitzezko **jarleku** apalak. Xabier Mendiguren Elizegi

Raimundo Silva harrizko **jarleku** batean esertzen da. Jon Alonso

Eskorga hartuta jardin publikoetara joan zen burdinazko **jarleku** bat lapurtzera. Pello Lizarralde

Gustura geunden mantaz tapatutako larruzko **jarlekuan**. Fernando Rey

Seat 850 haren atzeko **jarleku** eskaizkoan. Iñigo Aranbarri

Mahaiaren aitzinean, **jarleku** bitxi bat, betoinezkoa hori ere, zolari lotua. Filipe Bidart

Gurasoek **jarleku** bereziak zituzten Urbiaingo elizan. Joan Mari Irigoien

Barra pareko **jarleku** garaitik. Aingeru Epaltza

Taxiaren larruzko **jarleku** hautsez betearen gainean. Lopez de Arana

**3** (antzoki eta kidekotan)

Aizu, lortuko dizkidazu bi **jarleku** *Follies*-ak ikusteko?... Lopez de Arana

**4** *irud*

Han dago isiltasunaren **jarlekua** gauerdian. Joan Mari Lekuona

**5** (hitz elkartuetan)

Hogei **jarleku**-ilara daude beraren eta Melanieren artean. Oskar Arana

Kanjak futbolariak honela esan zion Andreas bere **jarleku**-lagunari: [...]. Matías Mujika

· Bulego **jarlekuen** merkatuak krisi gotorra ezagutu du 90/96 artean. Herria

Mary erregina katolikozalea -*Bloody Mary,* Maria Odoltsua- igo zen errege-**jarlekura,** Eta Kalmanen ondoan eseri, gidari-**jarlekuan**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zutitu nintzen, salto egin nuen dentista-**jarlekuan,** baina deseginik egonda ni, ez nuen tente egoteko indarrik. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jarleku batean eseri** (7); **jarleku batean eserita** (4); **jarleku luzean** (3); **ondoko jarleku batean** (3); **zinema jarleku** (3)

**kantxako jarlekua** (4)

**akusatuen jarlekuan** (3); **apaizetxe aurreko jarlekuan** (3); **atzeko jarlekuan** (6); **aurreko jarlekuan** (3); **aurreko jarlekuan eserita** (3); **gidariaren jarlekuan** (3); **jarlekuan eseri** (4); **jarlekuan eserita** (5)

**jarlekuen gainean** (4)

---

# jarlekudun *izond* jarlekua duena; jarlekuak dituena.

Beste hiru portiko horietan exhedra zabalak egingo dira, solas-gela **jarlekudunak,** filosofoek, erretorikako maisuek eta beste hainbat jakitunek beren iritziak azaldu eta eztabaidatzeko leku egokiak. Santiago Iruretagoiena

---

# jarrai[1] *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **jarraitu** eta **jarraiki** agertzen dira)* *izond* jarraitua, jarraikia.

Florent lo egiteko premia **jarrai** batean balego bezala bizi izan zen merkatuan, kasik zortzi hilabetean. Karlos Zabala

Ameriketako Estatu Batuetako ekonomiak hazkunde aldi **jarrai** eta egonkor bati ekin zion. Iñaki Heras

Historia bizi, **jarrai** eta ireki baten gaian. Xabier Arregi

Estatu palestinar **jarrai** eta bideragarri baterako aukera. Berria - Mundua

Dantzaren mugimendu **jarraian**. Imanol Unzurrunzaga

---

# jarrai[2] *adlag* jarraituz.

Ama Florak, Zefiroren urratsei **jarrai,** bide guztia kolore eta usain zoragarriz jazten du. Xabier Amuriza

Nik, oinatzei **jarrai,** haren arrazoiak azaltzen ditut eta bertsoz irakasten gauzak zer legez sortuak izan diren. Xabier Amuriza

---

# jarraian **1** (-en atzizkiaren eskuinean) *adlag*

Antzinakoen **jarraian,** bidea egiten. Askoren artean

Hauen **jarraian** eta Sagitario, Eskorpio eta Libraren gainetik, Sugea dator, bere buru-gainarekin Koroa ukituz. Santiago Iruretagoiena

Eta haien **jarraian** beste lagun guztiak: Martin, Teresa, Adrian eta Joseba. Bernardo Atxaga

Putzuaren **jarraian** urak beste ehun bat metro egiten zituen sastraka eta ihi artean, bizi-bizi orduan ere. Bernardo Atxaga

Eta beste bat haren **jarraian**. Bernardo Atxaga

· Ehunak tresna bidez antolatu eta irazkiak eta bilbeak **jarraian** elkartuz egindako asmakizunarekin. Santiago Iruretagoiena

Kontzeptuak aldi berean edo **jarraian** sortzen diren gunean. Xabier Arregi

Zer sistema ez-deduktiboren arabera ipini ahal izan diren objektuok bata bestearen ondoan eta **jarraian**. Xabier Arregi

## **2** ondoren, segidan.

**Jarraian,** mahaia prestatua zegoen lekura eraman zuten. Askoren artean

**Jarraian** banan-banan aztertuko dira hiru aukerak. Askoren artean

Ulisesek, **jarraian,** zerrizainaren etxolan asmaturiko eskalearen historia kontatu zion, eta Egiptoko kontakizuna eta feniziarrekin izandako pasadizioa. Juan Kruz Igerabide

Gero **jarraian** material hori legarraren tamainara eho, idortu, eta sailkatu egiten zen. Juan Garzia

Ez al dira apartak?", esan zuen **jarraian** zaldiei begiratuz. Bernardo Atxaga

Maimonek, ordea, ez zuen horrela egin, **jarraian** ikusiko dugun moduan. Xabier Kintana

Eseri egin naiz eta, **jarraian,** eseri izanaz damutu. Bernardo Atxaga

Tomas Akinokoak, adibidez, Jainkoaren izateaz diharduelarik, *De Deo* kapituluan, honela hasten du solasa: Jainkorik ez dela dirudi... eta, **jarraian,** iritzi horren aldeko argudio guztiak sailkatzen dizkigu. Piarres Xarriton

"Zer iruditu zaik gaur hemen egin duten orri banaketa hori?", galdetu zion Adrianek **jarraian**. Bernardo Atxaga

## **3** etenaldirik gabe.

Gainerakoan ia hogeita lau ordu daramatzat **jarraian** lanean. Migel Angel Mintegi

Garate hemezortzi ordu **jarraian** aritu zuan lehengo astean. Koldo Izagirre

Baina ongi zekien Nadia, oinez Obi ibaitik hona etorria, hau da, zortzi egun **jarraian** ibilita, indarrez husteko zorian zegoela. Karlos Zabala

Hainbat egunetan **jarraian** zirku jokoak arretaz ikusten ari zirenek. Xabier Amuriza

Bestela txapelketatik kanpo geratuko gara zortzigarren urtez **jarraian**. Iñaki Mendiguren

## **4** ***elkarren jarraian***

Tetrakordio diatonikoak bi tonu ditu elkarren **jarraian,** eta hirugarren tonuerdiarekin bukaera ematen zaio tetrakordioari. Santiago Iruretagoiena

Giza ezagutzaren barruan bil daitezkeen gauza guztiak ere modu horretantxe daudela elkarren **jarraian**. Askoren artean

Tratatu honetan era ordenatuan eta elkarren **jarraian** ere aurkitzen ez direnak. Xabier Kintana

Eta ez utzi gizon bati baino gehiagori, elkarren **jarraian,** zure ipurdian isurtzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hortik abiaturik akzidenteak elkarren **jarraian** sortuak direla esatera heldu ziren. Xabier Kintana

## **5** ***jarrai-jarraian***

Barazki pilak metatzen ziren, elkarren jarrai-**jarraian** datozen olatuen irudira. Karlos Zabala

Bata bestearen oinatzean datoz saminak, **jarrai-jarraian**. Juan Garzia

**Jarrai-jarraian** hain zuzen, Europa eta Asiaren kontrastapena daukagu hor ere, bizitzaren eta patuaren aurreko bion jarrerari buruz oraingoan. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bata bestearen jarraian** (12); **bi aldiz jarraian** (7); **bi egunez jarraian** (5); **bi garaipen jarraian** (6); **bi jarraian** (4); **bi partida jarraian** (20); **bi urtez jarraian** (8); **biak jarraian** (3); **bigarren aldiz jarraian** (14); **bigarren egunez jarraian** (8); **bigarren hilabetez jarraian** (4); **bigarren urtez jarraian** (44); **bigarrena jarraian** (4); **bigarrenez jarraian** (4); **bosgarren urtez jarraian** (4); **bost partida jarraian** (5); **bost partidatan jarraian** (3); **elkarren jarraian** (9); **esan zuen jarraian** (6); **hiru garaipen jarraian** (3); **hiru partida jarraian** (21); **hiru pase jarraian** (4); **hiru urtez jarraian** (5); **hirugarren aldiz jarraian** (10); **hirugarren egunez jarraian** (4); **hirugarren urtez jarraian** (15); **hirugarrena jarraian** (3); **hirugarrenez jarraian** (3); **irabazi ditu jarraian** (12); **irabazi dituzte jarraian** (4); **irabazi du jarraian** (14); **irabazi genituen jarraian** (3); **irabazi zituen jarraian** (9); **irabazi zuen jarraian** (18); **irabazi zuten jarraian** (3); **jarrai jarraian** (4); **jarraian ariko** (3); **jarraian atera** (3); **jarraian azaldu** (3); **jarraian egin** (21); **jarraian egin**

**zituen** (5); **jarraian egin zituzten** (5); **jarraian egindako** (3); **jarraian egingo** (3); **jarraian eginiko** (3); **jarraian egiten** (6); **jarraian eman** (5); **jarraian esan** (8); **jarraian gaineratu** (4); **jarraian gaineratu zuen** (3); **lau egunez jarraian** (3); **laugarren aldiz jarraian** (3); **laugarren egunez jarraian** (3); **laugarren hilabetez jarraian** (3); **laugarren urtez jarraian** (4); **sei aldiz jarraian** (3); **sei partida jarraian** (3); **sei urtez jarraian** (3); **seigarren urtez jarraian** (4); **tantoak jarraian egin** (5); **zazpigarren urtez jarraian** (3)

---

## **jarraiarazi,** jarraiaraz, jarraiarazten **1** du *ad* jarraitzera behartu.

Arrazoitik sortzen den Desirak, ongiari **jarraiarazten** gaitu zuzenki eta gaizkitik urruntzen zeharka. Piarres Xarriton

• **2** dio *ad*

Dena prest zeukan, esan zidanez, itxuraz etsiak jota zeuden gela ilun andana luze batean barrena **jarraiarazten** zidala. Juan Garzia

---

## **jarraibide** *(orobat **jarraipide** g.er.)* **1** *iz* zerbait lortzeko jarraitu behar den bidea.

Papertxo bat da, saskibaloiko euskarrian erdi ezkutatuta; zabaldu eta **jarraibide** zehaztuxeagoak irakurriko dituzte bertan: hara joan, bestea egin, eta arrasto berriaren bila abiatuko da talde osoa berehala. Xabier Mendiguren Elizegi

Coloradoko Estatuko Unibertsitateko bere bulegoa aurkitzeko **jarraibide** zehatzak eman zizkidan. Xabier Olarra

Makineria mugitzeko **jarraibideak** ez genituela ezagutzen. Ana Urkiza

Gure maisuengandik jasotakoak azalduko ditugu; hain zuzen ere, bakarren batek nahiko balu **jarraibide** hauen arabera lan egin, proportzioak esplikatuta aurki ditzan, eta gai izan dadin horien arabera tenpluak ordena doriarrean altxatzeko, inolako akatsik eta okerrik egin gabe. Santiago Iruretagoiena

Charlyren **jarraibideei** segituz, irteerarik gabeko karrikaren hondoraino egin genuen, aparkatzeko lekua aurkitzearren. Aingeru Epaltza

Migel Mailuk **jarraibideak** eskatu ditu Donibanera. Aingeru Epaltza

Apezpikuak **jarraibide** moralak ematen ditu, eta gero katoliko bakoitza libre da nahi duena erabakitzeko. Berria - Euskal Herria

Bere mezu-hartzaile kristauentzat honela **jarraipide** gisa diziplina militarra gomendatzean, Klementek ordena ezarri nahi zuen Elizan. Iñaki Mendiguren

**2** jarraitzekoa edo imitatzekoa izan daitekeela uste den egite edo jokaera. ik **etsenplu**.

Kasiodororen **jarraibideari** segitzeko, Erroman zuen arbaso-jauregia monasterio bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Bagenuen zuen kontura bizitzeko eskubidea; baina lan egin nahi izan genuen zuei **jarraibidea** emateko. Elizen arteko biblia

Anaiei **jarraibide** ona ematearren. Askoren artean

Izan ere, Jaunak berak jarri gintuen eredutzat, **jarraibide** eta ispilu izan gintezen. Askoren artean

Har itzazu **jarraibidetzat,** Kristo Jesusengan oinarritzen diren sinesmen eta maitasunari buruz niregandik entzun dituzun hitz osasungarriak. Elizen arteko biblia

**3** jarraitzeko eredua.

Haren eginak eta ekinak **jarraibide** harturik. Joan Mari Irigoien

EAEko sarea **jarraibide** bilakatu da, eta Hegoamerikako hainbat herrialdetan parke berriak irekiko dira, hemengo arduradunekin elkarlanean. Berria - Ekonomia

Haren pentsamoldean egon daitezkeen **jarraibideak** aurkitzen saiatu. Antton Olano

Probintzia Batuak ziren orduan Europako ekonomian nagusi, eta haiek eman zuten **jarraibidea,** koloniekiko harremanetako monopolioa zuten lehen konpainia handiak sortuz. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan)

Nik ez diat zabaldu, ez bainuen inolako baimen idatzirik aurkitu: berak ez zian utzi **jarraibide**-liburseverrik bere oinordetzako gauza haren ondoan. Xabier Olarra

· Gure baloreak, bizimoduak, kontsumo eta produkzio **jarraibideak** aldatzea eskatzen duen garapen eredu berri bat da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hona datozen anaiek pobretasun **jarraibide** ona eraman dezaten beren lekuetara. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**jarraibide ona** (4); **jarraibideak eman** (3); **jarraibideak ematen** (4)

---

## **jarraiezin** *izond* ezin jarraituzkoa.

Bai, nire inguruan ilunabarrean plaza honi begira, ekaitzak astindutako eta milaka promesaz betetako kaleari begira, sentitzen dut zelan hazten, puzten den jarrera hau: nire bizitza **jarraiezina** bizitzen jarraituko dut. Urtzi Urrutikoetxea

---

## **jarraigabe** *izond* jarraitasunik ez duena.

Aldi berean begiratu zituen neska eta flotatzen segitzen zuen gorputz geldia; neskak lasterka egiten zuen ur gainean, arrasto apetatsu eta **jarraigabeak** utziz, gorputza pedalari atxikia zegoen, setati. Jon Alonso

---

## **jarraigai** *izond* jarraitzen diogun gauza.

**Jarraigai** dugun atomoa luzaroan irauteko itxura guztiak dituen egitura batean tartekaturik dago: zedro beneragarri baten enborra da, azkenetako bat; ostera pasatu da dagoeneko deskribatu ditugun egoeretatik, eta bera parte deneko glukosa zelulosa katea luze bati dagokio, errosario bateko alea bezala. Juan Garzia

---

## **jarraigarri** *izond* jarraitua izan dadin merezi duena.

Iraun duen "hondar" eder eta **jarraigarri** bat da... antzinako garai santua gure "negozio eta bihotzetara" hurbiltzen diguna. Xabier Olarra

---

## **jarraigo** *iz* laguneria, jarraileria; ahukua.

Txinako printzea, bere **jarraigoko** gizon-emakumeak eta abereak harturik, galdu egin da, ibai galdutako baten modura, bere herrira doan bidean. Felipe Juaristi

Jainkorik bateratu ezinenen eta sinesterik zentzugabeenen **jarraigo** munstrozkoa, dotrina eta hipotesien elkar gurutzatze fantasiazkoa. Josu Zabaleta

Nonahi bezala, han zeukan errege segizioa eta, honako honetan, Midiko printzeak eta Espainiako Borboiak ziren **jarraigoa** osatzen zutenak. Koldo Izagirre

Egun hileta egiten zaion gizonaren gorpuari **jarraigoa** egitearren. Egun hileta egiten zaion gizonaren gorpuari **jarraigoa** egitearren. Koldo Izagirre

---

## **jarraika** **1** *adlag* jarraituz, jarraikiz. ik **jarraiki**$^2$.

Herensugea, lurrera bota zutela ikustean, semea izan zuen emakumeari **jarraika** hasi zitzaion. Elizen arteko biblia

Kamioiari **jarraika** Hendaiaraino heldu ziren. Alberto Ladron Arana

Heriotza gorrotatu ez duzunez, bera izango duzu atzetik **jarraika**. Elizen arteko biblia

Ihes egin zuen Harryk, atzetik tarte txikira bludgerra **jarraika** zuela. Iñaki Mendiguren

Haren arabera, mutil gaztea izutu egin zen poliziak **jarraika** zituela pentsatu zuelako. Berria - Mundua

Vicenteren tabernan guardia zibilak **jarraika** balitu bezala sartu zen Nabo. Jon Maia

Harengandik nahi diat ihes egin, alferretan, **jarraika** ari zaidak; hor zagok; etengabe hertsatzen naik. Jon Muñoz

Besterik da **jarraika** nabilan ibaia -ihardetsi zuen tristeki-. Juan Garzia

Goibel eta ikarati dago, Lucyri batera eta bestera **jarraika,** haren orpoen ondoan beti. Oskar Arana

Lanjerrez inguraturik bizi dira, izurriteen eta miseriaren mehatxuak orpotik **jarraika**. Xabier Montoia

### 2 *jarraikako izlag*

**Jarraikako** infinitua ezin onartuzkoa dela. Xabier Kintana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzetik jarraika** (15); **jarraika ari** (4)

---

## jarraikarazi ik **jarraikiarazi**.

---

## **jarraiketa** *iz* jarraitzea.

**Jarraiketa** poliziala izugarria izan da gure familiarentzat. Pako Aristi

---

## **jarraiketari** *iz* jarraitzailea.

Sanz del Río eta **jarraiketari** krausistek. Joxe Azurmendi

Sanz del Río-ren **jarraiketari** eta osagarri Francisco Giner de los Ríos-en historiaren filosofiatik, López-Morillas-en zati bat osorik aldatuko dut, orokorki pentsamendu krausistaren laburbildumatxo gisa balio baitezake: [...]. Joxe Azurmendi

---

## **jarraiki**[1], jarraikitzen **1** zaio *ad* jarraitu.

Proposizio hau 23. proposizioari **jarraikitzen** zaio, aitzinekoa 21. proposizioari darraion bezala. Piarres Xarriton

Emazteak irri egin zuen, eta bideari **jarraiki** zitzaion, Graxi eta aita Mathieu ondotik. Elena Touyarou

Trabak ezartzen baldin badizkizute bidean, ez iezaiozula nehori kasu egin, **jarraiki** zakizkio beti errege-bide handiari eta zoaz zuzen nehora itzuli gabe.Herrirantz abiatu zenean, zakurra luzaz **jarraiki** zitzaion ondotik. Aurelia Arkotxa

Eta san Lukasen 10. kapitulu horri **jarraiki** zaio Jondoni Jakobe ere. Piarres Xarriton

Hemen ere beharko zaie legeei **jarraiki,** baina obedientzia hau ez da izanen nehoiz baldintzarik gabekoa. Piarres Xarriton

Aitortzen dut oraino eta ohoretzat daukat gure delako Jauregien jabeak [...] **jarraiki** zitzaizkiola, beren sutondoak utzirik, orduan haien Errege zen eta zin egina zioten Joanes Albretekoari. Piarres Xarriton

Nik eskatu gabe, talde txiki bat **jarraiki** zitzaidan, batek daki zerk erakarririk. Aingeru Epaltza

Kontzilioari hurbiletik **jarraiki** ondoan Pierre Eyt teologo gazteak idatzi zuen *La Nouvelle Revue Théologique* delakoan [...]. Piarres Xarriton

Isilune pisu bat **jarraiki** zitzaien nire desenkusa ahulei. Aingeru Epaltza

Joan zaitez, zu zeu eta zuri **jarraiki** zaizun herria. Jose Antonio Mujika

Geroztik, bi aldeetako politikaren gorabeherei **jarraikirik,** ziur eta fida gaude, urteen buruan, gero eta gehiago garela herritarrok, ohartuak garenok, Euskal Herria badela, gure jende kopuru seinalatu bat jokatzen delakotz nazio bat balitz bezala. Piarres Xarriton

Ezinezkoa da gizakia Naturaren parte bat ez izatea, eta haren ordena komunari ez **jarraikitzea**. Piarres Xarriton

· Bide horri **jarraiki**, **jarraikitzen** eta **jarraikiko** direnetan, nola ez gorets ere, oroz gainetik beharbada, euskararen salbatzeari arizan, ari eta ariko direnak? Herria

### • **2** du *ad*

-Bai, gizonak **-jarraiki** zuen ahalik amultsukien Frantxuak-. Itxaro Borda

-Eta ez zen deus gertatuko **-jarraiki** zuen emazteak- gazte hura ez balitz etxera itzuli, azken botoak egin aitzinttoan, denboraldi baten iragatera. Elena Touyarou

Eta horrela **jarraiki** zuten leihotik heldu zen argia joan zen arte. Aurelia Arkotxa

Ibilaldia **jarraiki** aitzin bakarrik freskagarri bat onetsi zuten. Elena Touyarou

Andereak monologo bilakatzen ari zen solasaldia **jarraiki** zuen. Itxaro Borda

Beti gurekin aintzina **jarraikiko** du haatik gutarteko HERRIA-ren zerbitzari handienak. Herria

Baina laster aitzakia ederra izan dute horrekin gure legelari eta epaileek [...] erresuma barneko hizkuntza gutitu guztien, lasaiki eta hobeki, lehertzen **jarraikitzeko**. Piarres Xarriton

· Gaur oraino, nahiz doi bat herbaildurik den, lan horri **jarraikitzen** dio, eskola zenbaitetako ikasleak lagunduz. Herria

### **3** (era burutua izenondo gisa)

Hori izigarri goxo düzü lan **jarraiki** baten egiteko. Menane Oxandabaratz

Eta ibilian ibili, erritmo **jarraiki** batean banoa orain. Piarres Aintziart

Haren eldarnioa **jarraikia** da. Jon Muñoz

Euskaltzale **jarraikia** eta suharra izan zelakotz. Herria

Ordainez erregearen zerbitzari **jarraikia** eta leiala egonen dela..., mendez mende haren arbasoak izan diren bezala. Michel Oronoz

Gogorki salatzen du bereziki nola frantsesek molde **jarraikian** erabili zuten tortura. Herria

Frantses estatuko administrazio langileen formakuntza **jarraikia** pagatzen duen erakundearekin bildu dira euskal Herriko hautetsiak. Herria

Formakuntza **jarraikian** ere ikasle kopurua goititzen ari da. Herria

Hori kendu egin didate, trebakuntza **jarraikiaren** beharrik ez bagenu bezala.

· Apez kartsua, bere eginbideari osoki **jarraikia**. Herria

Aleman anitz, Holandesak, kontzientzia eragozleak edo Jehovah-ren lekukoak egun oroko Bibliaren irakurtzeari **jarraikiak** ziren. Marzel Etxehandi

**Jarraikia** zen beti otoitzari. Xipri Arbelbide

### **4** (era burutua izen gisa)

Eta banoa, deliberoak emaiten duen **jarraikiarekin**. Piarres Aintziart

Christine Duguine kantinako xerbitxu eta **jarraikiaz** arduratzen da. Herria

Christine Duguine kantinako xerbitxu eta **jarraikiaren** arduraduna. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aintzina jarraiki (5); beti jarraiki (4); formakuntza jarraiki (3); halabeharrez jarraiki (3); izateari jarraiki zaion (4); izateari jarraiki zaion (4)

formakuntza jarraikia (8); guziz jarraikia (3); irakurle jarraikia (4); jarraikia izan (4)

harreman jarraikiak (10)

formakuntza jarraikian (4); haren jarraikian erran (3); molde jarraikian (4)

ikusle jarraikiek (4)

aintzina jarraikiko (4)

aintzina jarraikitzen (3); bertuteari jarraikitzen (7); bertuteari jarraikitzen zaion (4); jarraikitzen zaion gizaki (3)

bazterrari jarraikiz (3); bideari jarraikiz (5); deialdiari jarraikiz (4); ederrari jarraikiz (3); ildoari jarraikiz (4); kontseiluei jarraikiz (4); ohidurari jarraikiz (11); ohidureri jarraikiz (3); ohiturari jarraikiz (6); urratseri jarraikiz (5); usaiari jarraikiz (6)

---

# **jarraiki**² *adlag* jarraituz, jarraikiz. ik **jarraika.**

Itsaso Beltzera iritsi ginen gero, Don ibaiari **jarraiki,** eta Azov hirian sartu ginen. Felipe Juaristi

Ibaiari **jarraiki,** Etxalarko bidegurutzetik ezkerretara, mugarako bidea hartu genuen. Rafa Egiguren

Greaves jaunari **jarraiki,** hementxe seinalatuko dizkizut, irakurle, poxi bat gehiago estima ditzakezun zuhaitzak. Pello Zabala

Eta gero, Errusiako ohiturei **jarraiki,** oinordeko argalek berehala xahutzen dituzte berriro aitaren ondasun guztiak. Jose Morales

Badira, ikuspegi horri **jarraiki,** gaur egun nagusi diren ideia ekonomikoen aldeko interes talde nabarmenak. Iñaki Heras

Sabatier-ek, bere maisu Renan-en iradokizunari **jarraiki,** maitasunez eta grina biziz ekin zion Asisko Frantziskori buruzko ikerketari. Askoren artean

Aurretik ezarritako eredu bati **jarraiki** konposaturiko sekuentziek. Iñaki Arranz

Bi tximeleta dantzan ari ziren lorategiko harlauzei **jarraiki** zegoen landare-hesian. Ibon Uribarri

Sortalderanzko bidea hartu dut halaz guztiz, hondartzari **jarraiki**. Juan Garzia

Justiziaren arabera emango dira epaiak, hari **jarraiki** ibiliko bihotz zuzenekoak. Elizen arteko biblia

Erakunde baten aurka joatea, sistema guztiaren aurka joatea litzateke ekibalentziaren kateari **jarraiki**. Joseba Zulaika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

adigaiei jarraiki (5); adigaiei jarraiki egindako (4); aginduari jarraiki (5); aginduei jarraiki (4); aholkuari jarraiki (4); aholkuei jarraiki (4); akordio bati jarraiki (4); akordioari jarraiki (4); arauari jarraiki (3); argibideei jarraiki (3); aurresuposizio honi jarraiki (4); baldintzei jarraiki (3); bideari jarraiki (12); datuei jarraiki (4); deialdiari jarraiki (3); deiari jarraiki (7); dioenari jarraiki (6); duenari jarraiki (4); ebazpen bati jarraiki (3); ebazpenari jarraiki (3); egunkariari jarraiki (5); ekimenari jarraiki (3); erabakiari jarraiki (3); ereduari jarraiki (13); erregela bati jarraiki (6); erregelei jarraiki (5); eskaerari jarraiki (3); gomendioari jarraiki (5); hariari jarraiki (3); hartutako erabakiari jarraiki (3); helburuari jarraiki (4); ibaiari jarraiki (4); ideiari jarraiki (4); ikuspegi horri jarraiki (4); ildo horri jarraiki (3); ildoari jarraiki (7); inkesta bati jarraiki (3); inkestei jarraiki (3); itunari jarraiki (5); izaerari jarraiki (4); joerari jarraiki (3); konpromisoari jarraiki (3); legeari jarraiki (19); legeei jarraiki (7); ohiturari jarraiki (14); ordenari jarraiki (4); planari jarraiki (6); proposamenari jarraiki (3); tradizioari jarraiki (9); txostenari jarraiki (3); urratsei jarraiki (3)

---

# **jarraikiarazi**, jarraikiaraz, jarraikiarazten *(orobat **jarraikarazi**)* du *ad* jarraikitzera behartu.

Ibilaldi güzientako bezala, oski honak behar dira hartü, anhoa bai eta hura ere **jarraikiarazi** -ekirik ez izanik ere korpitza izertzen beita- eta arropa bero bat, nola aizeari para egiteko zerbait ere. Herria

Larderia eta ernetasun handia zuen aita Garatek etxeko erregelari xuxen **jarraikarazteko** bere jende guziak. Xipri Arbelbide

---

# **jarraikiro** *adlag* molde jarraikian.

Laburtua esan dut, adimenak aldi oro hara-hona ibili gabe, lehengo jardunean kontenplatu dituen gauzen oroitzapenean **jarraikiro** pentsa dezan; eta hiru hizketatxo berberak egin. Patxi Altuna

---

# **jarraikitasun** *(**31** agerraldi, **17** liburu eta **20** artikulutan)* *iz* jarraikia denaren nolakotasuna. ik **pertseberantzia.**

Eta ez otoi uste izan **jarraikitasun** hori oraiko Apezek asmatua dela. Xipri Arbelbide

PSE-EEren **«jarraikitasunari»** egotzi zion akordioa lortu izana. Berria - Euskal Herria

Antoñitok anglosaxoniar baten **jarraikitasunaz** ziharduen emakume aberats baten bila. Josu Zabaleta

Hor baitzen haren laguna, ttipia baina haundia **jarraikitasunez**. Herria

Mikelen hitz batzuekin amaituko dut artikulua: **jarraikitasunak** askatuko gaitu! Berria - Harian

---

# **jarraikitzaile** *(orobat **jarraikizale** g.er.)* *iz* jarraitzailea.

Eta liberalismoaren **jarraikitzaile** gehienek, hala nola aita Griffiths galestarrak, kantu bera zerabilten: Gure Galesera mintzaira hil bedi, eztiki, goxoki, ohorezki. Piarres Xarriton

Zalgize, Maulen ezagutu nituen guztiak bezala, Erlijioaren **jarraikitzaile** sutsua zen. Aingeru Epaltza

Mementoko ez düe **jarraikizalerik**. Berria - Euskal Herria

Helduden larunbatean beraz, Baionan *Kantuz*-en **jarraikitzaileak** bilduko dira joanden urtean bezala. Herria

Ez bat eta ez bi, korridore ilun batean barneratu ginen, hura itsu-mutil isil, ni **jarraikitzaile** itsaskor. Aingeru Epaltza

---

# **jarraikitze** *iz* jarraitzea.

Bestalde, abantaila da ikasle bakotxak sendabide **jarraikitze** sakona baduela. Herria

---

jarraikizale ik **jarraikitzaile.**

---

# **jarraiko** *izlag* ondokoa, ondoren datorrena.

**Jarraiko** orrialdeotan dugun Kode Zibilaren atariko hitzaldiaren egilea. Andres Urrutia

Lege testu hauekiko bertako herritarren gogoa bistan da **jarraiko** bi testuotan: a) […]. Andres Urrutia

Pozgarri da, halaber, epaileak ikasteko, ikertzeko eta aurrean dituen kontuetan sakontzeko premia horrek sekula ere **jarraikoa** bazter ez uztea, alegia, zenbait puntu haren arrazoimenaren pean ebaztekoak direla. Andres Urrutia

**Jarraikoa** jakin eta gero ez duzu atzera egiterik izango, garbi izan. Migel Angel Mintegi

**Jarraikoa** aitaren batean gertatu zen: segundo bat ere galdu gabe bat-batean zutitu, bi jauzitan gizonarenganaino joan, lepotik heldu, eta arrastaka eraman zuen denda baten sarbidean barrena, hondo ilunean galdu arte. Migel Angel Mintegi

Baldintzaz amaitutako esaldi guztiek dakarte jarraipena segurtatzen duen ondorioa, eta hau ondo daki Lizarriturrik; zenbat aldiz ez du sintaxiaren amarru hau erabili kontu bat **jarraikoarekin** lotzeko! Pako Aristi

Hau dena XVIII. mendeko filosofiaren aurka esaten da, eta haren **jarraikotzat** ematen den positibismo (naturalismo) garaikidearen aurka. Joxe Azurmendi

---

# jarraikor *izond* jarraitua.

Halako batean izeba oihuskak egiten hasi zen, txikiak eta **jarraikorrak,** luzaro samar. Aitor Arana

Aurreko egunetako euri **jarraikorraren** emaitza. Aitor Arana

Neurriko zigor **jarraikorrekin**. Juan Martin Elexpuru

---

# jarraikorki *adlag* era jarraituan.

Erkatzen baditugu Espainia eta Frantzia edo Ingalaterra, ikusten dugu, historia egiaz **-jarraikorki-** egin duten herriok, gutxiengo bidatzaile bat zutenak izan direla. Joxe Azurmendi

---

# jarraikortasun *iz* jarraitutasuna.

**Jarraikortasuna** agindu zuen arren, Perezek argi utzi zuen «trantsizio garaian gaudela», eta berea ez dela «aurreko taldearen jarraipena». Berria - Euskal Herria

Metodoa eta **jarraikortasuna** ezarri behar ditugu euskararen normalizazioan. Berria - Euskal Herria

Augustoren sistema sortu eta zazpi mendera puskatu zen bitartean, Liu Pang-en sistemak, nolabaiteko **jarraikortasunez** behintzat, K.o. 1911 arte iraun zuen. Iñaki Mendiguren

Urte luzeetan, esaterako, funtsezkoa zen etxean norbait haztea, horrek bederen segurtatzen zuelako etxean familiaren **jarraikortasuna,** baina orain bizitza ikusteko modu hau ere aldatzen ari da, normalean umeak kanpora jotzen baitu. Pello Salaburu

**Jarraikortasunik** gabe aritu da. Berria - Kirola

Erritmo hautsi eta **jarraikortasunik** gabeaz. Harkaitz Cano

[Euskal estiloa], bi arima edo erritmo dituena: bata irregularra eta **jarraikortasunik** gabekoa; erregularra eta konstantea bestea. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**jarraikortasun falta** (6); **jarraikortasuna lortu** (3); **jarraikortasuna lortzeko** (4); **jarraikortasunaren alde** (3)

---

# jarraile *(Euskaltzaindiaren Hiztegian **jarraitzaile** agertzen da)* *iz* jarraitzailea.

Ez dauka nehork etxe hortan egin obra baliosaren segida hartzerik, ez dute ez **jarrailerik** ez ordainik nahi! Herria

Senarra De Foucauld-en **jarraile** kartsua izanik, hau otoizten dute eta mirakuilua ardiesten. Herria

Eta historian zehar ez dut aurkitu, Jainkoari esker, nafar bihirik, Jondoni Petiriren **jarraile** Jondoni Satordirenganik ukan Kristau fedea arbuiatu duenik gaurdaino. Piarres Xarriton

---

# jarraipen **1** *iz* norbaiti edo zerbaiti jarraitzea.

Izan ere, Hendaiako kirol-portuan kokatzen zuen **jarraipenaren** amaiera. Migel Angel Mintegi

Auzipetuei eginiko entzuketa telefonikoen eta **jarraipenen** hainbat agiri ezkutatu dizkigute. Berria - Euskal Herria

Orduz orduko **jarraipena** egin ondoren, ez da mugimendu susmagarririk sumatu zelatatu dugun etxean. Arantxa Iturbe

EHUk onartu du **«jarraipen** oso handia» izan zuela irakasleen asteazkeneko grebak. Berria - Euskal Herria

**2** zerbaiten garapen edo bilakaerari arretaz segitzea. ik **segimendu.**

Gertuko **jarraipena** egiten ari zaizkie, lehengo gaitza guztiz desagertu den ikusteko, eta leuzemiaren zantzurik agertzen den aztertzeko. Berria - Gaiak

Zientzialariek bi asteko **jarraipena** hobesten dute. Berria - Euskal Herria

Lanak: idazkaritza, kontablitatea, dosierren **jarraipena**. Herria

FIES **(Jarraipen** Bereziko Presoen Fitxategia) moduluetan sartzen bazaituzte, helikopteroz zure bila etorrita ere, ez zaituzte handik aterako. Berria - Euskal Herria

Laster hasiko ziren kartzeleroak hari **jarraipen** berezia egiten. Jokin Urain

**3** zerbaitek jarraitzea.

Garaipen politiko horri **jarraipena** emateko. Iñaki Mendiguren

Israeldarrek tinkotasuna eman nahi diote bere herriari, erakundetu eta **jarraipena** ziurtatu. Jose Antonio Mujika

Jarduera ekonomikoaren **jarraipena** bermatzeko. **Jarraipen** egokiaren legea: bada joera "natural" bat forma jakin bat, bukatuta ez baldin badago, arrazoizko modu batean jarraitzeko. Josu Zabaleta

Horrelako ekoizpen eredu batek beharrezkoa du **jarraipena,** prozesua ez etetea. Iñaki Heras

**4** zerbaiti darraiona.

Politikaren **jarraipena** da gerla, beste baliabide batzuekin egina. Piarres Xarriton

Eragile asko izan zituen arnasa-krisi haren **jarraipenak:** loditurik eta fibrosiak jota zeuden Virgilen birikak; bronkitis eta enfisema aurreratuak zituen; [...]. Xabier Olarra

Bizitza aurrera doan bezala, liburuak ere **jarraipena** eskatzen zuen. Janbattitt Dirassar

HZ Batasunaren **jarraipena** den ala ez erabakitzeko ardura epaileek dute. Berria - Euskal Herria

Ideia hau azaldu berri dugunaren **jarraipen** bat besterik ez da, funtsean. Josu Zabaleta

Hona gutunaren **jarraipena:** [...]. Edorta Jimenez

Ruche jaunak begiratu bat eman zion prestatua zeukan testuaren **jarraipenari**. Jon Muñoz

-Espeziearen instintua seme-alabak izan nahia da, **jarraipena** izan nahia. Josu Zabaleta

Globalizazioaren fenomenoa, nazioartekotze-prozesu horretan, aldaketa da **jarraipena** baino areago. Koro Navarro

Zoritxarrez, Manuel Lekuonaren ekarpenak ez du **jarraipenik** izan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Baldintzaz amaitutako esaldi guztiek dakarte **jarraipena** segurtatzen duen ondorioa. Pako Aristi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urrian, **jarraipen** talde hori sortzeko proposamen zehatza helaraztea da helburua, Gorka Espiauk jakinarazi zuenez. Berria - Euskal Herria

Martxoaren 14ko hauteskundeen **jarraipen** plana onartu du EITBk. Berria - Euskal Herria

Batzordeen kontrol eta **jarraipen** lanetan. Iñaki Heras

Ezinbestekoa da kodeak benetan betetzen diren ala ez kontrolatzeko **jarraipen** sistema eraginkorrak antolatzea. Iñaki Heras

**Jarraipen** organo bat izango luke. Berria - Euskal Herria

PSOE eta PPren arteko Estatu Itunaren **jarraipen** bilerako gaietako bat **Jarraipen**-mugimenduak, mugitzen ari den gauza bati jarraitzeko egiten direnak. Josu Zabaleta

Helduentzako **jarraipen** egiturak daude eta egun gutxitan ateratzen dira SASetik. Berria - Euskal Herria

Haurren **jarraipen** liburuxka ezarri nahi du Sarkozyk. Berria - Euskal Herria

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Haur bakoitzaren eskola **jarraipena** egiteko liburuxka Berria - Euskal Herria

**7 *jarraipen batzorde***

Itunaren **Jarraipen** Batzordean hitz egindakoaz azalpenak emateko. Berria - Euskal Herria

Horiek guztiak beteko direla bermatzeko **jarraipen** batzorde bat osatuko dute 11 eragileok, Kontseiluarekin batera. **Jarraipen** Batzordea osatzen duten entitate guztiei. Berria - Euskal Herria

Berehala ekingo zaio **jarraipen** batzordea antolatzeari. Berria - Euskal Herria

Greenpeace talde ekologistak **Jarraipen** Batzordeak hartutako erabakia ez zuen ontzat jo. Berria - Euskal Herria

Horixe erabaki zen atzo Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko **Jarraipen** Batzordeak San Markoseko Gotorlekuan eginiko bileran.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **akordioaren jarraipen** (3); **auziaren jarraipen** (3); **estatu itunaren jarraipen** (3); **itunaren jarraipen** (11); **itunaren jarraipen batzordea** (4); **jarraipen batzorde** (10); **jarraipen batzorde bat** (6); **jarraipen batzordea** (9); **jarraipen batzordeak** (32); **jarraipen batzordean** (5); **jarraipen batzordearen** (8); **jarraipen batzordeko** (8); **jarraipen bereziko** (3); **jarraipen egokia** (5); **jarraipen eman** (3); **jarraipen eskasa** (3); **jarraipen estua** (8); **jarraipen estua egin** (3); **jarraipen gisa** (3); **jarraipen handia** (5); **jarraipen medikoa** (5); **jarraipen medikoa egiten** (3); **jarraipen naturala** (3); **jarraipen organo bat** (3); **jarraipen zabala** (5); **jarraipen zabala izan** (4); **jarraipen zehatza** (9); **jarraipen zehatza egin** (3); **jarraipen zehatza egiten** (3); **jarraipen zorrotza** (5); **jarraipen zorrotza egingo** (3); **jarraipen zuzena** (5); **plan integralaren jarraipen** (7); **plan integraleko jarraipen** (3); **plan orokorreko jarraipen** (5); **ubidearen jarraipen** (3)
>
> **athleticen jarraipena** (3); **baskoniaren jarraipena** (3); **baskoniaren jarraipena egiten** (3); **blokeoa eta jarraipena** (6); **bolada ikusgarriari jarraipena** (3); **delituen jarraipena** (3); **dosierren jarraipena** (3); **eguneko jarraipena** (3); **ekimenak jarraipena izango** (3); **enpresaren jarraipena** (3); **gai beraren jarraipena** (36); **gaixotasunen jarraipena** (3); **gertuko jarraipena** (9); **gertuko jarraipena egin** (4); **grebaren jarraipena** (9); **hartzaren jarraipena** (3); **ikasleen jarraipena** (3); **izan zuten jarraipena** (4); **izango du jarraipena** (5); **jarraipena bermatzen** (3); **jarraipena egin** (40); **jarraipena egin ondoren** (3); **jarraipena eginen** (6)); **jarraipena egingo** (14); **jarraipena egitea** (16); **jarraipena egiteko** (47); **jarraipena egiten** (32); **jarraipena egiten ari** (7); **jarraipena eman** (34); **jarraipena eman zion** (4); **jarraipena emanez** (8); **jarraipena emango** (8); **jarraipena ematea** (19); **jarraipena ematea erabaki** (4); **jarraipena emateko** (23); **jarraipena emateko asmoz** (3); **jarraipena ematen** (7); **jarraipena erabatekoa** (3); **jarraipena izan** (37); **jarraipena izan du** (5); **jarraipena izango** (29); **jarraipena izatea** (6); **jarraipena izateko** (3); **jarraipena ziurtatu** (3); **lanaren jarraipena** (7); **lanari jarraipena** (6); **neurrien jarraipena** (5); **pertsonen jarraipena** (3); **politikaren jarraipena** (4); **prozesuaren jarraipena** (4); **taldearen jarraipena** (3)
>
> **jarraipenaren aldeko** (3)
>
> **itunaren jarraipenerako** (3)

---

# jarraipengailu *(corpusean **jarraipen-gailu** soilik)* *iz* zerbaiten jarraipena egiteko gailua.

-Hemen daukazu kokapena... hara, ba ez dago bere etxean **-jarraipen**-gailua eman zion Milleri; agente gazteak besoa igurzten jarraitzen zuen-. Fernando Morillo

---

# jarraipide ik **jarraibide**.

---

# jarraitasun *(187 agerraldi, 17 liburu eta 20 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jarraitutasun** agertzen da)* **1** *iz* jarraitutasuna.

Denborak zenbatekoarekin eta **jarraitasunarekin** harremana dauka. Xabier Kintana

Argi zegoenean gizakiak, bera zenari buruz galdekatua, ezin zuela bere sexualitatearen eta bere inkontzientearen kontu eman, ezta bere hizkuntzaren forma sistematikoena edo bere fikzioen erregulartasunarena ere, historiaren **jarraitasunaren** gaia berpiztu egin da. Xabier Arregi

[Lehen planoak] espazio filmikoaren **jarraitasunik** eza azpimarratzen du. Josu Zabaleta

**Jarraitasunaren** printzipioak edozein jauzi debekatzen du agerpenen (aldaketen) ilaran ("in mundo non datur saltus"), eta era berean bi agerpenen arteko zulo edo arrakala oro debekatzen du espazioaren sintesi enpirikoaren multzoan ("non datur hiatus"). Ibon Uribarri

Erritmoaren **jarraitasunari** eusten diotenak. Berria - Kultura

**2** (izenondoekin)

Identitate formalak, **jarraitasun** tematikoak, kontzeptuen traslazioak, joko polemikoak. Xabier Arregi

Arkeologiak, beraz, ez du eredutzat hartzen ez aldiberekotasun eskema logiko hutsa, ezta gertaeren **jarraitasun** lineala ere. Xabier Arregi

**Jarraitasun** kronologikoen haria jarraitzen. Xabier Arregi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erretinako irudian gertatzen diren argitasunaren **jarraitasun**-etenak espazioari buruzko informazioa dira. Josu Zabaleta

Zinemak, zinema moten artean nagusi denak behintzat, **jarraitasun** eta zentratze-bilaketa bat du ezaugarri. Josu Zabaleta

Testuak izenburutik gertu joan behar du, mezuari **jarraitasun** zantzua eman diezaion. Txema Ramirez de la Piscina

Beste era batera esanda, zinema ikusleari argizko estimulu eten bat ematen zaio; estimulu horrek [...] **jarraitasun**-sentipen bat ematen du, batetik; eta horretaz gainera barne mugimenduzko sentipen bat eragiten dio irudiari. Josu Zabaleta

Deskribapen arkeologikoak gogoan dituen jardute diskurtsiboei uztartuta egon behar dute **jarraitasun**-gertaerek. Xabier Arregi

Denboran barreiatzeko era bat, **jarraitasun,** egonkortasun eta berpizte era bat, garapen edo errotazio-abiadura bat. Xabier Arregi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Munduaren ezaugarri aldaketarik gabe hauen [...] pertzepzioari deitzen diogu pertzepzio-**jarraitasuna:** pertzepzioen desberdintasunak gorabehera, konstanteak atzematen ditugu guk. Josu Zabaleta

Proiektatzen denean, tarte beltzez bereizitako fotogramen proiekzio-**jarraitasun** batek sortzen du filmeko irudia. Josu Zabaleta

Etenik ez duen sentimendu **jarraitasun** batean bizi da , eta horrexegatik ezin du bere bizitzaren kontzientziarik izan. Josu Zabaleta

**5 *jarraitasun-ez***

Ez dezala inork irudikatu, itxurek nahastuta, historiaren diziplina batzuk jarraitasunetik **jarraitasun**-ezera iragan direla, eta besteak, berriz, **jarraitasun**-ezen nahasmendutik etendurarik gabeko batasun handietara iragan direla. Xabier Arregi

Zerekin dago lotuta behin eta berriz **jarraitasun**-ezei buruz jardute hau? Xabier Arregi

Nola zehaztu **jarraitasun**-eza pentsatzea zilegitzen duten kontzeptuak (atalasea, haustura, ebakidura, mutazioa, eraldaketa)? Xabier Arregi

Azken baten, pentsamenduaren, ezagutzen, filosofiaren eta literaturaren historiak badirudi hausturak ugaritzen dituela eta **jarraitasun**-ezaren harrotze guztiak bilatzen dituela. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gertaeren jarraitasun** (3); **jarraitasun eza** (10); **jarraitasun ezaren** (12); **jarraitasun ezari** (3); **pertzepzio jarraitasuna** (3)

**jarraitu** *(18538 agerraldi, 270 liburu eta 6324 artikulutan)* , jarrai, jarraitzen **1** dio *ad* norbaiten ondotik joan edo ibili; atzetik joan, aurrekoarekin biltzeko, hura atzemateko. ik **segitu; jarraiki**[1].

Harryk Tomi **jarraitu** zion zurezko eskailera dotore batzuetan gora. Iñaki Mendiguren

Bulegora **jarraitu** zion Lupini. Iñaki Mendiguren

Rufusek **jarraitu** egin zion, baina emeki, zuhurki, ia-ia beldurrez paralizaturik. Oskar Arana

**Jarraitu** egin nien, gero rue Royaletik biratu nintzen eta bulebarretara itzuli nintzen berriro. Josu Zabaleta

Ur gaineko argi gorri batek **jarraitu** zion odolezko begi baten gisa. Karlos Zabala

Begiekin **jarraitu** zion Ruche jaunak. Jon Muñoz

Gorriak maleta eskuan **jarraitu** dit, burua apur bat makurturik. Joseba Sarrionandia

Jauregitik irten zen Urias, eta errege-opari batek **jarraitu** zion ondotik. Jose Antonio Mujika

Biok ala biok ere ongi ziurtatu ohi genuen, aldez aurretik, inork ez zigula **jarraitu**. Mirentxu Larrañaga

Emakumeak bere kutxa handiarekin ihes egin du; aitak atzetik **jarraitu** dio. Juan Kruz Igerabide

Berak egin du lehenengo ihesaldia eta nik atzetik **jarraitu** diot. Berria - Kirola

Atzetik **jarraitu,** eta berebiziko sarraskia egin zuten Lanceloten aldekoek. Juan Kruz Igerabide

**2** (zerbaiti)

Austerlitzko zubia zeharkatu, bulebarren lerroari **jarraitu,** eta Havreko geltokira iritsi ziren. Karlos Zabala

Hildakoaren segizioari **jarraitu** diot eta ongi ohartu naiz bideaz. Patxi Zubizarreta

Detektibeek Dryer-en arrastoari **jarraitu** zioten New Yorkeraino. Oskar Arana

Perun kontrako bideari **jarraitu** zioten, eta hiriburua itsasertzean, Liman, egin zuten. Iñaki Mendiguren

Herritarrek beste bide batetik **jarraitu** zioten protestari. Berria - Euskal Herria

Beraz, mihiari hozka egin, eta Albertoren hizketari **jarraitu** nion. Juan Kruz Igerabide

**3** (zaio aditz gisa)

Atzetik **jarraitu** zitzaion, nahaspilatik irteten lagunduko ziolakoan. Karlos Zabala

Quenu, harriturik, haren gelaraino **jarraitu** zitzaion, hitzik atera gabe. Karlos Zabala

Itsas armada itsasertzari **jarraitu** zitzaion Indo ibaiaren bokaletik. Iñaki Iñurrieta

Letra letrari **jarraitzen** zitzaion, lerroa lerroari, atala atalari, liburua liburuari: ibilera hark goxoki eramaten ninduen loaren mugara. Bernardo Atxaga

Felipe II.ak, Karlos V.ari **jarraitu** zitzaiolarik, mundu guztiak ezagutzen duen bankarrota egin behar izan zuen. Iñaki Iñurrieta

Umeen hasierako frustrazioari poza **jarraitu** zaio. Anjel Lertxundi

Altzolako zakurrek usaina hartu diote, eta zaunka hasi dira; zaunkari zaunka **jarraitu** zaio. Itziar Otegi

Eta irrintziari, berriro ere, cowboy sonbreiruko gaztearen txistua **jarraitu** zitzaion. Bernardo Atxaga

Modernoak aurreiritzi horri **jarraitu** zaizkio. Iñaki Iñurrieta

**4** dio *ad* beste zerbaiten ondotik etorri edo gertatu.

Ezusteko atsegin hari, beste ezusteko eder batek **jarraitu** zion. Anjel Lertxundi

Aitortza laburrari ezpata-kolpeak **jarraitu** zion, eta horrela, martiri bezala bukatu zuen bizia. Askoren artean

Kristau jaiotako Teodosio I.a enperadoreak pagano izandako Konstantino I.a konbertituari **jarraitu** zion. Iñaki Mendiguren

Batasunaren proposamenari ekintza terrorista ugarik **jarraitu** diote, eta horrek esan nahi du Batasuna Anoetan ez zela gai izan ETAri armak, xantaia eta estortsioa uzteko exijitzeko. Berria - Euskal Herria

Aurreko mendean Otomandar Inperioaren zatiketari **jarraitu** zitzaizkion ondorio tragikoak berragertzeko mehatxua ekarri zuen zatiketak. Iñaki Mendiguren

**5** norbait edo zerbait gidaritzat edo arautzat onartu; norbaiten iritziak edo erakutsiak onartu.

Hark bete zituen nire aginduak eta bihotz osoz **jarraitu** zidan, niri atsegin zaidana baizik ez eginez. Elizen arteko biblia

Pasaiari askok **jarraitu** zioten gure etsenpluari. Joxe Austin Arrieta

"Hezitzaile" burgesek hitzez hitz **jarraitu** zituzten maisuaren erakutsiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina nire urratsei **jarraituko** baliete, benetan maiteago izango nituzke. Askoren artean

Zinemaren teoriari **jarraitu** dioten azterketak. Josu Zabaleta

Emakumeek badakite ez dutela zertan eredu maskulinoari **jarraitu**. Luis Elberdin

Era berean, *nintzan, intzan, zan* esaten direnez, eredu horri **jarraituaz** sortu dira *gintzan* eta *zintzan* berriak. Koldo Zuazo

Oro har, Euskaltzaindiaren arauei **jarraitu** diegu. Askoren artean

Egia zatiezinak behartu nau gizon handi honen lorratz argitsuei **jarraitzera**. Juan Martin Elexpuru

• **6** du *ad* egoera edo jarrera jakin batean iraun.

Irakurtzen **jarraitu** zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Deskargatu eta deskargatu **jarraitzen** zuten. Karlos Zabala

Royer-Collard kaleko gelan **jarraitu** zuten bizitzen. Karlos Zabala

Halere, Roboamek **jarraitu** zuen Judako hirietan bizi ziren israeldarren errege izaten. Elizen arteko biblia

Ubanbek hizketan **jarraitu** nahi izan zuen baina puruaren keak eztula eman zion. Bernardo Atxaga

Horretan **jarraitzen** al duzu? Bernardo Atxaga

Lo **jarraitu** zuen. Jasone Osoro

Gizonak, irrikaz, segika **jarraitu** zuen. Patxi Zubizarreta

Zapoek kantari **jarraitzen** zuten. Anjel Lertxundi

Neskak bidean aurrera **jarraitu** zuen, zentzuak erne. Patxi Zubizarreta

Handik pixka batera, erruduna beste norbait zela garbi adierazten zuten frogak agertu ziren, baina Dreyfus zigorturik **jarraitu** zuen. Karlos Zabala

Hala ere, bere teman **jarraitu** zuen Faraoiak eta ez zion herriari joaten utzi. Jose Antonio Mujika

Eugeniak berokia soinetik kendu gabe **jarraitzen** zuen. Ramon Saizarbitoria

Eta unibertsitatera joan ginenean ere elkarrekin **jarraitu** genuen, nahiz karrera desberdinak ikasi. Bernardo Atxaga

Literatura ikasten **jarraitzeko** edo agian kazetaritzan saiatzeko. Oskar Arana

· Petroliozko lanparen inguruan biltzen ginen, klaseak **jarraitzeko;** hotz handia egiten zuen. Juan Kruz Igerabide

**7** (hizketaldietan)

Eta **jarraitu** zuen: -zergatik zabiltza zure morroi honen ondoren, ene jauna? Gero, haren alboan eseri eta **jarraitu** zuen: [...]. Elizen arteko biblia

Mikaiasek, berriz, honela **jarraitu** zuen: [...]. Elizen arteko biblia

-Beti bezala, ezta? **-jarraitu** zuen Saget andereñoak-. Karlos Zabala

Erru guztia nirea da, halere **-jarraitu** zuen-. Bernardo Atxaga

E! **-jarraitu** zuen Florentek barrez-, osaba Gradellek entzuten badizue, gauza da zuengana etorri eta dirua kentzeko... Karlos Zabala

-Kontu alaiagoak orain **-jarraitu** zuen-, aurten atsegin handiz ongi etorria egin behar diet gure artera bi irakasle berriri. Iñaki Mendiguren

Gizonak gorra bailitzan **jarraitu** zuen, Martinen esana aintzat hartu gabe: [...]. Bernardo Atxaga

**8** (grebez-eta mintzatuz) parte hartu.

Boikoterako deia jende askok **jarraitu** du. Bernardo Atxaga

Greba langileen %44k **jarraitu** dutela dio Euskotrenek. Berria - Ekonomia

**Lanuzteak** askok **jarraitu** zituzten, sindikatu abertzaleak ia ordezkaritza osoa baitu aulki eta haltzari fabrika horretan. Berria - Ekonomia

**9** (era burutua izenondo gisa) etenik edo etenaldirik ez duena.

Amonen otoitzen marmar **jarraitua**. Alberto Ladron Arana

Nerbio bati estimulu **jarraitu** bat aplikatzen zaionean, erantzuna ez da **jarraitua** izaten. Irene Aldasoro

Mundu biziaren egitura ez da jada lineal eta **jarraitua,** baizik, aitzitik, ez-lineal eta etena. Juan Garzia

Pentsamenduaren lan **jarraitu** eta luzea denboran barrena. Xabier Arregi

Zaldiak beren kasa zebiltzan, burumakur, ibilera **jarraitu** eta nagiaz. Karlos Zabala

Nazio-merkatuetan eskari **jarraituago** baterako baldintzak sortzen saiatzen ziren. Koro Navarro

Garuna [...] pentsamendu abstraktua, sormen artistikoa eta, oro har, jarduera mental sofistikatu erregular edo **jarraitua** ahalbidetzeraino garatu da. Irene Aldasoro

Lehengaien prezio errealen beheranzko joera **jarraitu** hori. Koro Navarro

Ur hari bat isurtzen zen etengabe konketa batean, hain modu **jarraituan,** ezen xirripa hura geldirik zegoela iduri baitzuen. Karlos Zabala

Lan **jarraitua,** gorabeherarik gabea. Lopez de Arana

Hazkunde ekonomiko **jarraitua** eta egonkorra. Iñaki Heras

Argitasunaren edo koloreen aldakuntza gutxi-asko **jarraituak,** berezko itzalak edo itzal eraginak. Josu Zabaleta

Gauza jakina baita edozein indarrek, nahiz eta oso txikia izan, era **jarraituan** aplikatuz gero, irabazi egingo diola edozein gorpuzkiri ematen zaion indar zakarrenari ere. Juan Martin Elexpuru

Behin parranda egin nuen / bederatzi gau **jarraituetan**. Pako Aristi

Bokal arteko herskari ahostunen aldaera **jarraituak**. Lourdes Oñederra

Benetan garapen **jarraitukoak** izan dira azken hogei urteak Templerentzat. Xabier Olarra

Eragile jarraitu eta mailakakoa den seinale akustikoa, gure oharmenak kategoria ezberdin ez-**jarraituetan** banatzen du. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**adi jarraitu** (9); **aitzina jarraitu** (12); **arretaz jarraitu** (17); **atzetik jarraitu** (55); **atzetik jarraitu zion** (13); **aurrera jarraitu** (269); **aurrera jarraitu zuen** (97); **begira jarraitu** (37); **berdin jarraitu** (24); **bere bideari jarraitu** (9); **bere hartan jarraitu** (10); **bere horretan jarraitu** (25); **bere teman jarraitu** (10); **berean jarraitu** (24); **beretik jarraitu** (20); **berriketan jarraitu** (9); **bertan jarraitu** (16); **bide beretik jarraitu** (9); **bidea jarraitu** (31); **bidean jarraitu** (13); **bideari jarraitu** (67); **bideari jarraitu zioten** (14); **bila jarraitu** (14); **bizirik jarraitu** (25); **bizitzen jarraitu** (39); **borrokan jarraitu** (25); **egiten jarraitu** (137); **ematen jarraitu** (31); **eredua jarraitu** (10); **esaten jarraitu** (12); **gertutik jarraitu** (60); **gora jarraitu** (19); **hartzen jarraitu** (10); **hitz egiten jarraitu** (35); **hizketan jarraitu** (88); **hurbiletik jarraitu** (10); **idazten jarraitu** (22); **igotzen jarraitu** (12); **ikasten jarraitu** (12); **ikertzen jarraitu** (15); **ildo beretik jarraitu** (11); **irakurtzen jarraitu** (40); **isilik jarraitu** (36); **izaten jarraitu** (127); **jarraitu beharra** (58); **jarraitu beharra dago** (15); **jokatzen jarraitu** (25); **jotzen jarraitu** (9); **kontatzen jarraitu** (13); **lanean jarraitu** (113); **lanean jarraitu beharra** (10); **noiz arte jarraitu** (14); **nola jarraitu** (24); **oinez jarraitu** (25); **orpoz orpo jarraitu** (11); **pentsatzen jarraitu** (10); **teman jarraitu** (10)

; **aurrera jarraituko** (75); **berdin jarraituko** (20); **bere hartan jarraituko** (12); **bere horretan jarraituko** (25); **beretik jarraituko** (10); **bidea jarraituko** (13); **bideari jarraituko** (10); **biltzen jarraituko** (9); **borrokan jarraituko** (29); **defendatzen jarraituko** (16); **egiten jarraituko** (94); **ematen jarraituko** (20); **gertutik jarraituko** (14); **greban jarraituko** (13); **izaten jarraituko** (128); **jokatzen jarraituko** (12); **karguan jarraituko** (12); **lan egiten jarraituko** (12); **lanean jarraituko** (102); **lehen mailan jarraituko** (11); **mobilizazioekin jarraituko** (12); **taldean jarraituko** (28); **tinko jarraituko** (12)

**aholkuari jarraituz** (12); **aholkuei jarraituz** (12); **aurrera jarraituz** (16); **aurrera jarraituz gero** (10); **bideari jarraituz** (20); **ereduari jarraituz** (11); **etsenpluari jarraituz** (10); **ildoari jarraituz** (9); **ohiturari jarraituz** (30); **senari jarraituz** (9); **urratsei jarraituz** (10)

**aurrera jarraitzea** (40); **aurrera jarraitzea erabaki** (9); **bere horretan jarraitzea** (9); **bidea jarraitzea** (12); **bideari jarraitzea** (13); **egiten jarraitzea** (27); **izaten jarraitzea** (27); **jarraitzea erabaki** (81); **jarraitzea erabaki zuen** (32); **jarraitzea espero** (16); **jarraitzea gustatuko** (9); **jarraitzea izango** (13); **jarraitzea proposatu** (10); **lanean jarraitzea** (29); **lehen mailan jarraitzea** (16)

**jarraitzearen alde** (15)

**atzetik jarraitzeko** (9); **aurrera jarraitzeko** (103); **aurrera jarraitzeko asmoa** (9); **beretik jarraitzeko** (14); **bide beretik jarraitzeko** (12); **bidea jarraitzeko** (10); **bizirik jarraitzeko** (12); **bizitzen jarraitzeko** (21); **borrokan jarraitzeko** (18); **egiten jarraitzeko** (80); **gertutik jarraitzeko** (12); **hitz egiten jarraitzeko** (10); **ikasten jarraitzeko** (13); **izaten jarraitzeko** (28); **jarraitzeko agindu** (19); **jarraitzeko agindua** (9); **jarraitzeko asmo** (11); **jarraitzeko asmoa** (166); **jarraitzeko asmoa agertu** (16); **jarraitzeko asmorik** (16); **jarraitzeko asmoz** (15); **jarraitzeko aukera** (80); **jarraitzeko aukerarik** (9); **jarraitzeko baimena** (23); **jarraitzeko baimena eman** (11); **jarraitzeko borondatea** (22); **jarraitzeko deia** (20); **jarraitzeko deia egin** (13); **jarraitzeko esan** (12); **jarraitzeko eskatu** (52); **jarraitzeko gai** (12); **jarraitzeko gauza** (10); **jarraitzeko gogoa** (20); **jarraitzeko gogorik** (9); **jarraitzeko indarra** (14); **jarraitzeko konpromisoa** (31); **jarraitzeko moduan** (18); **jarraitzeko prest** (40); **jokatzen jarraitzeko** (22); **lanean jarraitzeko** (104); **lanean jarraitzeko asmoa** (22); **lanean jarraitzeko konpromisoa** (10); **lehen mailan jarraitzeko** (21); **negoziatzen jarraitzeko** (34); **negoziatzen jarraitzeko asmoa** (9); **negoziazioekin jarraitzeko** (12)

; **aitzina jarraitzen** (9); **atzetik jarraitzen** (28); **aurrera jarraitzen** (154); **aurrera jarraitzen du** (52); **bakarrik jarraitzen** (14); **bat izaten jarraitzen** (9); **begira jarraitzen** (38); **berdin jarraitzen** (50); **bere hartan jarraitzen** (24); **bere horretan jarraitzen** (53); **berean jarraitzen** (29); **beretik jarraitzen** (11); **bertan jarraitzen** (16); **bidea jarraitzen** (21); **bideari jarraitzen** (25); **bidetik jarraitzen** (13); **bila jarraitzen** (24); **biltzen jarraitzen** (14); **biraka jarraitzen** (11); **bizirik jarraitzen** (34); **bizitzen jarraitzen** (15); **borrokan jarraitzen** (12); **desagertuta jarraitzen** (9); **egiten jarraitzen** (121); **ematen jarraitzen** (23); **erabiltzen jarraitzen** (11); **esaten jarraitzen** (10); **eserita jarraitzen** (13); **espetxean jarraitzen** (10); **gabe jarraitzen** (104); **gertutik jarraitzen** (37); **gorantz jarraitzen** (10); **greban jarraitzen** (17); **hala jarraitzen** (12); **han jarraitzen** (37); **hartuta jarraitzen** (21); **hartzen jarraitzen** (14); **hitz egiten jarraitzen** (16); **hizketan jarraitzen** (17); **hurbiletik jarraitzen** (10); **idazten jarraitzen** (19); **indarrean jarraitzen** (30); **irakurtzen jarraitzen** (12); **irekita jarraitzen** (9); **isilik jarraitzen** (20); **itxita jarraitzen** (16); **izaten jarraitzen** (269); **jarraitzen saiatu** (13); **jarraitzen utzi** (17); **jasotzen jarraitzen** (9); **joaten jarraitzen** (11); **jokatzen jarraitzen** (10); **kartzelan jarraitzen** (10); **lanean jarraitzen** (63); **lanean jarraitzen du** (17); **lanean jarraitzen dute** (14); **lehengoan jarraitzen** (18); **lider jarraitzen** (20); **lo jarraitzen** (10); **lotuta jarraitzen** (12); **min hartuta jarraitzen** (20); **negarrez jarraitzen** (10); **ospitalean jarraitzen** (10); **pentsatzen jarraitzen** (13); **postuan jarraitzen** (17); **postuetan jarraitzen** (13); **postuetan jarraitzen du** (9); **preso jarraitzen** (12); **sendo jarraitzen** (9); **tinko jarraitzen** (10); **urratsei jarraitzen** (10); **zabalik jarraitzen** (10); **zabaltzen jarraitzen** (15)

---

## jarraituki *adlag* era jarraituan.

Ez nintzen **jarraituki** eskolan ibiltzen eta beraz maiz amatxirekin egoten nintzen, hura ere beti eria baitzen. Menane Oxandabaratz

Nahierara egiten du presioa: **jarraituki,** gorabeheraz nahiz sakaldika. Xabier Olarra

Astiro eta **jarraituki** indar egiteko diseinaturik dago muskulu lisoa, eta, osasuntsu egonez gero, ez da nekatzen. Irene Aldasoro

**Jarraituki** haziz joatea eta hazi ahala funtzioak garatzea, eta makinaren jarduerak oztopatu gabe egitea hori, ingeniaritzaren ahalmenetatik kanpo geratzen den prozesu bat da. Irene Aldasoro

Oinaze-atalasetik hurbileko soinuen eraginpean **jarraituki** egoteak kaltea dakar. Irene Aldasoro

---

## jarraitutasun *(14 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan)* *iz* jarrraitua denaren nolakotasuna. ik **jarraikitasun**.

Hogeiren bat urtetik hona, hautespen naturalaren guztiahaltasuna eta eboluzioaren **jarraitutasuna** auzitan jarri ditu Eldredge eta Gould-ek proposaturiko "jauzikako oreka" delakoaren teoriak. Juan Garzia

Historiaren **jarraitutasunaren** talde kontzientzia da bizitza, pentsatzeko eta bizitzeko modua. Berria - Gaiak

Proiektua hiru zatitan banatuta egongo bada ere, **jarraitutasuna** izango du «ez bakarrik uhartearen barruko zatien artean, baita hiriak, itsasadarraren bazter bietako auzokoekin ere», azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Gorago aipatu [baβa] hitzaren bigarren /b/ horren **jarraitutasuna** ez da antzematen. Lourdes Oñederra

**Jarraitutasun** eta koherentzia lerro bat eman nahi diot gure argumentazioari eta gure jarrera politikoari. Berria - Euskal Herria

---

## jarraitzaile *(orobat **jarraitzale** g.er.)* **1** *iz* norbaiti edo zerbaiti jarraitzen dion pertsona.

Al Khaiamen lanen **jarraitzaile** da Sharaf. Jon Muñoz

Egiazko pobretasunaren **jarraitzaile** denaren alde. Askoren artean

Sekta protestante komunitarista baten **jarraitzaileak**. Xabier Olarra

Erlijio positibo baten **jarraitzaile** guztientzat. Xabier Kintana

Ez da beraz harritzeko, garatu eta hozitu zelarik teologia, Herriaren Aita deitu zuten gizonaren obrak [...] hain eragin handia izan baldin bazuen, Tomas Akinokoaren eta honen **jarraitzale** Vitoria eta Azpilkuetaren teologia politikoraino. Piarres Xarriton

Ni ez naiz inolako erlijioren **jarraitzailea,** gorroto diet erlijio antolatuei, direnak direla. Karlos Zabala

Egiaztapen honen testigu eta **jarraitzaile** naizelako hasi nintzen hau dena errepasatzen eta idazten ere. Pello Zabala

Hamabi ontzi nituen **jarraitzaile,** eta bakoitzari bederatzi ahuntz egokitu zitzaizkion. Juan Kruz Igerabide

Gero eta ugariagoak ziren dotrina berriaren **jarraitzaileak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Erregearen arrasto guztiak errotik kentzeko, haren **jarraitzaileak** larrutzeko. Felipe Juaristi

Bildu dira haren **jarraitzaileak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Uste dut iruzurti bat dela [...] baina bereganaturik ditu **jarraitzaileak,** eta maite dute, denek maite dute. Oskar Arana

Imamak hilketak egitera bultzatzen zituen **jarraitzaileak**. Berria - Mundua

Sortaldeko eta sartaldeko ereduek, biek izan zituzten **jarraitzaileak** ondorengo belaunaldietan. Koldo Zuazo

1.500 **jarraitzaile** inguru izango dira bertan, Gasteizko taldeari babesa emateko prest. Berria - Kirola

**Jarraitzaileen** eskolak ez, **jarraitzaileen** elizak segitu dio. Joxe Azurmendi

Oposizioko dozenaka **jarraitzailek** Hauteskunde Batzordearen egoitzaren leihoak hautsi zituzten.

Une berean bikotearekin bat egin zuten futbol-**jarraitzaileek**. Migel Angel Mintegi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Rousseau eta haren **jarraitzaile** burgesek. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kristoren morroi zintzo eta **jarraitzaile** bikain zen Frantziskok. Askoren artean

Oso pozik sentituko nintzateke berak bezala jasoko banitu arrazoiaren **jarraitzaile** ilun eta baketsuen isileko eskerrak. Juan Martin Elexpuru

Joakin di Fiore-ren teorien **jarraitzaile** sutsua. Askoren artean

Bere **jarraitzaile** kontaezinen aldetik. Haren **jarraitzaile** jatorrena. Askoren artean

Irakasle betaurrekodun bat, ezkondua, santujale aurpegikoa eta alderdi kontserbadorearen **jarraitzaile** esanekoa limurtzea eta harekin larrutan egitea. Karlos Zabala

V. mendeko indiar kalkulatzaileek, eta haien arabiar **jarraitzaileek** ere bai, zuzenean zoruan idazten zituzten beren zifrak, edo lur bigunean edo harearen gainean. Jon Muñoz

Kristoren egiazko **jarraitzailea**. Askoren artean

Frantziskoren lehen **jarraitzaileak** laikoak ziren. Askoren artean

Frantziskoren hasierako **jarraitzaileen** artean. Askoren artean

**3** (izenondo gisa) norbaiti edo zerbaiti jarraitzen diona.

Eta bi begi pare **jarraitzaileen** ikusmiratik aldendu bezain laster, irri firfira batez jendetzari begira geratu zen. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ebanjelioko perfekzioaren jarraitzaile** (3); **jarraitzaile fidelak** (3); **jarraitzaile hil** (8); **jarraitzaile hil dituzte** (3); **jarraitzaile inguru bildu** (4); **jarraitzaile izan** (16); **jarraitzaile izango** (4); **jarraitzaile kopurua** (4); **jarraitzaile mordoa** (3); **jarraitzaile sutsu** (14); **jarraitzaile sutsua** (18); **jarraitzaile sutsuak** (5); **jarraitzaile sutsuek** (4); **jarraitzaile zintzo** (4); **jesusen jarraitzaile** (4); **kristoren jarraitzaile** (4); **pobretasunaren jarraitzaile** (4); **realeko jarraitzaile** (5); **xiitaren jarraitzaile** (3)

**jarraitzailea izan** (5); **jarraitzailea izatea** (3); **zer erlijioren jarraitzailea** (3)

**al zarkauiren jarraitzaileak** (4); **islamaren jarraitzaileak** (3); **kideak eta jarraitzaileak** (3); **taldearen jarraitzaileak** (4); **taldeko jarraitzaileak** (3); **xiitaren jarraitzaileak** (4)

**esan zien jarraitzaileei** (3); **eskatu zien jarraitzaileei** (3); **jarraitzaileei eskatu** (3); **santuaren jarraitzaileei** (3)

**al sadren jarraitzaileek** (6); **alaveseko jarraitzaileek** (3); **athleticeko jarraitzaileek** (4); **baskoniako jarraitzaileek** (3); **buruzagi xiitaren jarraitzaileek** (3); **jarraitzaileek egin** (4); **justxenkoren jarraitzaileek** (5); **oposizioaren jarraitzaileek** (3); **presidente ohiaren jarraitzaileek** (3); **presidentearen jarraitzaileek** (6)

**al sadren jarraitzaileen** (8); **bere jarraitzaileen aurrean** (3); **buruzagi xiitaren jarraitzaileen** (4); **islamaren jarraitzaileen** (3); **jarraitzaileen artean** (30); **jarraitzaileen arteko** (13); **jarraitzaileen aurrean** (17); **jarraitzaileen laguntza** (6); **jarraitzaileen matxinada** (3); **jarraitzaileen oihuak** (5); **oposizioaren jarraitzaileen** (3)

---

## jarraitzale ik **jarraitzaile**.

---

## **jarraitze** *iz* ondotik ibiltzea, atzetik joatea.

Hartara, tangoa dantzatzen ez jakin arren, edonork nire zapatek utzitako oinatzen gainean salto egitea aski likek nire pausoak **jarraitze** hutsarekin gura gabe ere tangoa dantzatzeko! Harkaitz Cano

Tomas Akinokoa nabarmendu da Aristotelesen oinatzei **jarraitze** horretan (kristau-fedearen ikuspegia galdu gabe, noski). Askoren artean

**Jarraitze** hau anaiartean bizi behar da. Askoren artean

---

## **jarraldi** *iz ipar* eserialdia. ik **jarrialdi**.

Arrantzalea altxatu zen eta besoak luzatu zituen, **jarraldiaren** ondoko gorputz gogorduren uxatzeko. Elena Touyarou

**Jarraldi** bat egin dute orduan han berean, trein guziak bi orenez gelditzea bortxatuz. Herria

Bestalde, Euskal Konfederazioak **jarraldiak** antolatzen ditu Uztaritzeko Lapurdi gelan, maiatzaren 19 an. Herria

---

## **jarrarazi**, jarraraz, jarrarazten *(orobat **jarriarazi** g.er.)* **1** du *ad* jartzera behartu.

Hilobian marmolezko eskultura eder bat **jarrarazi** zuen. Joseba Urteaga

Gure aitak geletan berogailuak **jarrarazi** zituen. Fernando Rey

Betaurrekoen ordez ukipen-leiarrak **jarrarazi** zizkion. Oskar Arana

Ezkutuko mekanismo bat martxan **jarrarazi** ondoren. Joxemari Iturralde

Nazioaren ohiturak Eurikok **jarrarazi** zituen idatziz. Iñaki Iñurrieta

Beharrik Schumacherrek burua beste zerbaitetan **jarrarazia** zidan, bere etxeko egoera zailaren kezkan. Fernando Rey

**2** (jarrera jakin batean)

Belauniko **jarrarazi** ninduen bere aurrean. Joxan Elosegi

Lau hankatan **jarrarazi** ondoren, usnatzen eta miazkatzen ninduten. Joxan Elosegi

Geroago Antoniok txakurka **jarriarazi** ninduen. Aitor Arana

Kendu egin zizkioten hegoak eta, lurretik altxaraziz, bi hanken gainean **jarrarazi** zuten, gizakia bezala, eta giza adimena eman zioten. Elizen arteko biblia

Etengabe biraoka ari denak ileak tente **jarrarazten** ditu. Elizen arteko biblia

**3** eserarazi.

Lurrean **jarrarazten** ninduen eta nik berehala begiak hetsiz burua bi eskuez tinkatzen nuen. Daniel Landart

Nire parean **jarrarazi** zuen, mahaiaren bertze aldean. Aingeru Epaltza

Komunzuloaren gainean **jarrarazirik,** kotoi puska bat ur oxigenatuarekin blaitu eta bisaia igurtzi zidan. Aingeru Epaltza

Labe gorri baten gainean **jarrarazi** beitzüen. Herria

Lucy egongelan telebistaren **aurrean jarrarazi** eta marrazki bizietako hogeita lau orduko kanal bat aukeratu nuen harentzat. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat jarrarazi** (3); **gainean jarrarazi** (6); **jarrarazi eta** (5); **jarrarazi ninduen** (4); **jarrarazi zituen** (8); **jarrarazi zuen** (13); **jarrarazi zuten** (5)
> **jarrarazia zuen** (4)
> **jarrarazten zuten** (3)

---

# jarrera *(orobat* ***jarkera*** *g.er.)* **1** *iz* gai edo arazo baten aurrean izaten den ikusgunea, batez ere ondorioz jokaera jakin bat dakarrenean.

Bi liburu, bi **jarrera,** bi ikara hitzen behar unibertsalaren aurrean. Pako Aristi

Horren kontrako **jarrera** esentzialismoa da. Askoren artean

Baina Sokratesek (Platonek) zinismoa ikusten du **jarrera** horietan. Askoren artean

Axolagabekeria zen orduan nire **jarrera** eta ahalik eta gutxien egitea nire helburua. Xabier Mendiguren Elizegi

Maimonen **jarrera,** fundamentalista ez den ortodoxian kokatzen da. Xabier Kintana

Gombrich ez da **jarrera** hori duen bakarra. Josu Zabaleta

Errealismoa joera bat da, **jarrera** bat, iritzi bat, irudikapenaren definizio partikular bat. Josu Zabaleta

Nire **jarrera** hura, hain zuzen, erronkatzat hartzen zuen Juliok. Juan Kruz Igerabide

Geroztik, gizartearen **jarrera** aldatu egin zen. Bernardo Atxaga

Apezak, ordea, bere **jarrera** zuritzen segitzen zuen. Anjel Lertxundi

*Sortzen-Ikasbatuaz*ek, halaber, Gobernuak euskarazko irakaskuntzaren kontra duen **jarrera** gaitzetsi du. Berria - Euskal Herria

Pausuak, mugimendu guztiak, **jarrerak** azaltzeko eskatu nion. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

**Jarrera** positiboa zuen, eraginkorra. Anjel Lertxundi

Pentsaera eta **jarrera** nihilistak. Xabier Mendiguren Elizegi

Aristotelesen aurkako **jarrera** logiko eta filosofikoak. Askoren artean

Bere **jarrera** enpiristak direla eta. Askoren artean

Zer ezkutatzen zen aitaren **jarrera** barnebilduaren atzean? Juan Kruz Igerabide

Giputzen **jarrera** itxi eta txokozaleak salatu zituen, era berean. Koldo Zuazo

Arrazoirik gabeko **jarrera** makur bat. Pako Aristi

Katalunieraren aurkako **jarrera** zitalek. Markos Zapiain

Haren **jarrera** argi eta garbiak min ematen zidan. Juan Kruz Igerabide

Emakumeenganako **jarrera** bikoitza, amultsua eta aldi berean epela. Aingeru Epaltza

Haren **jarrera** ezinago hotzagatik, bazakiat Cecily nire zain dagoela. Antton Olano

**Jarrera** gogo-biluzi horrek haustura asko sor zezakek literatur lantegiko kide bat baino gehiagoren psikologian. Anjel Lertxundi

Behin baino gehiagotan ikusi duk **jarrera** arreta-galdu horrekin. Jokin Muñoz

**3** (izenlagunekin)

Mesfidantza eta kontrako **jarrera** erabatekoa jaso dute. Iñaki Heras

Muturreko **jarrera** feminista erakutsi balu. Juan Kruz Igerabide

Hasierako **jarrera** nahiko pluralista bazen ere. Askoren artean

Antzeko **jarrera** erakutsi zuen Joseph Conrad-en *Narcissus* eleberriko sukaldari beltzak ere. Anjel Lertxundi

Bestelako **jarrera** eta arrazoibideak ezkutatzen. Iñaki Heras

Aita, ezohiko **jarrera** erakutsirik, malkoak lehortzen hasi zitzaion alabari. Anjel Lertxundi

Nofuturek mehatxuzko **jarrera** hartu zuen. Jon Muñoz

Etsaitasunezko **jarrera** gogorrez. Askoren artean

Garenarekiko eta nahi dugunarekiko autokonfiantzazko **jarrera**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hala egon zen, deboziozko **jarrera** batez, harik eta gizon-taldea urrutiratzen entzun zuen arte. Anjel Lertxundi

Erruki eskezko **jarrera** biktimista. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Boterearen erabilera eta abusuarekiko antzeko **jarrera**-aldaketa gertatu zen beste zibilizazio batzuen historian arazoalditik estatu unibertsalerako trantsizioarekin batera. Iñaki Mendiguren

Filipinetako gobernuaren **jarrera**-aldaketa Irakeko bahituak salbatzeko, Arazo nagusiak, larrienak, hezkuntza, kualifikazio, berrantolaketa eta **jarrera** arazoak izan ziren. Anjel Lertxundi

**Jarrera**-desberdintasun horren adibide hutsal baina, hala ere, esanguratsua. Iñaki Mendiguren

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne-**jarrera** egokia. Askoren artean

Espiritu-**jarrera** hori japoniarrengana pasatu da, tartariar jatorrikoak izaki, erraz froga daitekeenez. Iñaki Iñurrieta

Erlijioaren historian, ondorio etikoaren aukera egiten da, giza **jarrerak** asmatu nahian bezala. Askoren artean

Zelote arrazionalista baten buru-**jarrera**. Iñaki Mendiguren

Piper harena bezalako bizi-**jarrera:** erabat itsua. Joxe Austin Arrieta

Garaiko gizarte **jarrerekin** eta taldeekin lotutako nahiak eta frustrazioak. Josu Zabaleta

Kooperazio **jarrera,** bertso-dialektikaren sakonean dagoena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Legearen aurka indar **jarrera** hartu dutela. Iñaki Heras

Hasierak eta amaierak Frantziskoren kristau-**jarreraren** mamia biltzen digute. Askoren artean

Horretantxe datza, hain zuzen, "jatorrismoa": artaburu **jarrerak** babestean eta indartzean. Koldo Zuazo

Bohemio **jarrerak** izan gabe izan daiteke ertzekoa. Andoni Egaña

**6** norbait edo zerbait jarria dagoen era.

Badira beste **jarrera** batzuk ere, baina azaltzeko irudiak beharko nituzke. Luis Elberdin

Noiz edo noiz, amak abisuren bat emateko-edo atea zabaldurik, **jarrera** xelebre haietan harrapatzen ninduen. Juan Kruz Igerabide

Ezta Kamasutra modernoeneko azken **jarrera** saiatuta ere. Luis Elberdin

Eta **jarrera** berriak asmatu genituen. Luis Elberdin

Koitoan ere klitoria modu erosoan estimulatzen jarraitzeko **jarrera** batzuk. Luis Elberdin

**Jarrera** honetan, gizonak zakila zenbateraino sartu kontrola dezake. Luis Elberdin

Deus esan gabe, poliki-poliki **jarrera** egokian jarri eta 69a egin genuen. Aitor Arana

Arrainak ordena eta **jarrera** horretan zeudela, San Antonio ospakizun handietan bezala hasi zen predikatzen. Askoren artean

Jira eta buelta ibili da jesarlekuan **jarrera** egokia ezin harturik. Pello Lizarralde

*ik beherago* 7. Askoren artean

**Jarkera** hieratikora itzuli zen Mentxu. Josu Landa

Baina nola itzultzen da besoa berriro **jarrera** horizontalera? Irene Aldasoro

Etzanda, eserita edo belauniko, egonkor dago gorputza, baina zutikako **jarrera,** berez, ezegonkorra da ingeniaritzari dagokionez. Irene Aldasoro

Orobat iluntasuna, gelditasuna, begi-**jarrera** jakin bat. Juan Garzia

Gauerdia pasatuta, lepoko minez nengoen, gorputz-**jarrera** hartu ezinik. Juan Kruz Igerabide

Koito **jarreretan** ere gertatu ziren berrikuntzak. Luis Elberdin

Eskuineko belauna ezkerrekoaren gainean ezarrita babes-**jarrera** hartuz. Ibon Uribarri

Ikertaldea datorrenean bere postuan hilik aurki dezaten, soldadu **jarrera** ederrean. Anton Garikano

## 7 ***jarrera hartu*** (gai edo arazo baten aurrean)

Noizbehinka, pailazo samar ere sentitzen nintzen gorputz-**jarrera** bitxi haietan. Galderei erantzuteak **jarrera** hartzea baitakar. Juan Kruz Igerabide

Atxiloketen aurrean zer **jarrera** hartu erabakitzeko. Juan Kruz Igerabide

Ez dut uste kristautasunaren eraginez hartu nuenik **jarrera** hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Abiaburuko egiaztapen horregatik hartu da, beraz, liburu honetan hartu den **jarrera**. Josu Zabaleta

Muturreneko **jarrera** hartu zuten eurek ere. Koldo Zuazo

Zer **jarrera** hartu halako mindura baten aurrean? Josu Zabaleta

Edozein gatazkaren aurrean har daitekeen **jarrerarik** arduragabeena haren kausak ukatzea edo desitxuratzea liteke. Piarres Xarriton

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**adegiren jarrera** (10); **aeben jarrera** (8); **agertutako jarrera** (14); **agintarien jarrera** (26); **aldeko jarrera** (150); **aldeko jarrera agertu** (11); **aldeko jarrera hartu** (11); **alderdiaren jarrera** (14); **alderdien jarrera** (9); **antzeko jarrera** (18); **ari den jarrera** (8); **aurkako jarrera** (99); **bestelako jarrera** (18); **eajren jarrera** (26); **eko udalaren jarrera** (10); **elaren jarrera** (12); **elkarrizketarako jarrera** (8); **emateko jarrera** (8); **enpresaren jarrera** (11); **erakundeen jarrera** (10); **erakutsi duen jarrera** (11); **erakutsi zuen jarrera** (9); **erakutsitako jarrera** (45); **ertzaintzak izandako jarrera** (8); **ertzaintzaren jarrera** (20); **espainiako gobernuaren jarrera** (23); **euskararen aldeko jarrera** (13); **eusko jaurlaritzaren jarrera** (9); **frantziaren jarrera** (15); **gizartearen jarrera** (14); **gobernuaren jarrera** (86); **gobernuen jarrera** (11); **gorputz jarrera** (8); **hartu duen jarrera** (19); **hartu duten jarrera** (9); **hartuko duen jarrera** (8); **hartutako jarrera** (20); **iruñ izan duen jarrera** (45); **izan duten jarrera** (24); **izan zuen jarrera** (24); **izan zuten jarrera** (11); **izandako jarrera** (76); **izandako jarrera salatu** (18); **izango duen jarrera** (12); **izaniko jarrera** (8); **jarrera agertu** (30); **jarrera aktiboa** (19); **jarrera aldaketa** (77); **jarrera aldaketak** (14); **jarrera aldaketarik** (11); **jarrera aldatu** (104); **jarrera aldatu ezean** (14); **jarrera aldatuko** (30); **jarrera aldatzea** (27); **jarrera aldatzeko** (30); **jarrera aldatzeko eskatu** (10); **jarrera aldatzen** (23); **jarrera arbuiatu** (13); **jarrera arduragabea** (9); **jarrera argia** (23); **jarrera argitu** (9); **jarrera argitzeko** (22); **jarrera argitzeko eskatu** (16); **jarrera azaldu** (13); **jarrera azaltzeko** (13); **jarrera basatia** (8); **jarrera bateratua** (16); **jarrera bera** (55); **jarrera berbera** (10); **jarrera berean** (13); **jarrera berretsi** (20); **jarrera berri** (9); **jarrera berria** (13); **jarrera bortitza** (12); **jarrera egokia** (25); **jarrera epela** (9); **jarrera erakusten** (12); **jarrera erakutsi** (21); **jarrera erasokorra** (15); **jarrera errepresiboa** (8); **jarrera ezberdinak** (8); **jarrera ezkorra** (10); **jarrera gaitzetsi** (48); **jarrera gogor** (27); **jarrera gogor kritikatu** (9); **jarrera gogor salatu** (9); **jarrera gogorra** (12); **jarrera hartu** (79); **jarrera hartuko** (35); **jarrera hartzeko** (9); **jarrera hartzen** (9); **jarrera ikusita** (17); **jarrera irekia** (31); **jarrera irmoa** (19); **jarrera itxia** (26); **jarrera izan** (42); **jarrera izango** (21); **jarrera izatea** (11); **jarrera jakin** (8); **jarrera kontrajarriak** (13); **jarrera kritikatu** (79); **jarrera kritikoa** (23); **jarrera lotsagarria** (12); **jarrera ofiziala** (10); **jarrera oldarkorra** (18); **jarrera ona** (41); **jarrera ona erakutsi** (9); **jarrera ona izan** (8); **jarrera pasiboa** (11); **jarrera politiko** (14); **jarrera politikoa** (19); **jarrera politikoak** (16); **jarrera positiboa** (16); **jarrera salatu** (166); **jarrera salatzeko** (32); **jarrera sendoa** (8); **jarrera tinkoa** (10); **jarrera txarretsi** (12); **jaurlaritzaren jarrera** (20); **jokalarien jarrera** (10); **kontrako jarrera** (82); **lehengo jarrera** (8); **muturreko jarrera** (8); **nafarroako gobernuaren jarrera** (15); **oso bestelako jarrera** (8); **oso jarrera ona** (8); **patronalaren jarrera** (17); **politikoen jarrera** (13); **poliziaren jarrera** (16); **ppren jarrera** (36); **presidentearen jarrera** (11); **pse eeren jarrera** (12); **psoeren jarrera** (38); **sailaren jarrera** (9); **sindikatuen jarrera** (11); **taldearen jarrera** (17); **taldeen jarrera** (8); **udalaren jarrera** (33); **zaleen jarrera** (8); **zer nolako jarrera** (10) zuzendaritzaren jarrera (17)

**aldeko jarrerak** (12); **aurkako jarrerak** (12); **kontrako jarrerak** (19); **muturreko jarrerak** (13)

**jarrerari eutsi** (15)

**jarreraz aldatzeko** (10)

---

# **jarri**, jar, jartzen **1** du *ad* norbait edo zerbait lehen ez zegoen toki batean egonarazi. ik **ezarri**; **ipini**; **paratu**.

**jarri** Leiho baten ondoan **jarri** gintuzten. Bernardo Atxaga

Horrela, erregeak Bet-Sur bereganatu eta gudari-taldea **jarri** zuen bertan, hiria defendatzeko. Elizen arteko biblia

Erreka-bazterrera heltzean, bertan **jarri** zituen Judasek gudarosteko ofizialak. Elizen arteko biblia

Aulki baten bizkarraldean **jarri** zuen Maxek hegaztia. Jon Muñoz

Mary Annek urrezko letretan **jarri** zuen hatza. Bernardo Atxaga

Ruche jaunaren esku gainean **jarri** zuen Perrettek berea. Jon Muñoz

Bost orga tenpluaren eskuinaldean **jarri** zituen eta beste bostak ezkerraldean. Elizen arteko biblia

Orduan bere zokoan **jarri** zuen berriz telefonoa, ogi erregailuaren atzean. Koro Navarro

Alkandora, zuria, ondo sartuta **jarri** zuen gerrian. Bernardo Atxaga

Egurra txikitu, eta bost urteko zerri bat **jarri** zuten **sutan**. Juan Kruz Igerabide

*ik beherago* 24. Askoren artean

Zurian beltza **jarri** ezkero, han gelditzen da. Iñaki Segurola

## 2 irud/hed

Perfumea **jarri** duzu. Anjel Lertxundi

-Benetan, gure eskuetan **jarri** du Jaunak lurralde osoa. Elizen arteko biblia

Jaunak bere etsaiak oinpean **jarri** zizkion arte. Elizen arteko biblia

Ez nuen gogo-berotasun gehiegi **jarri** nahi, baina ez nuen ezta ere axolagabekeria transmititu behar. Anjel Lertxundi

Eta orduan gizonak beste disko bat **jarri** zuen. Koro Navarro

Tailer bat **jarri** zitean Obabako industrialdean kamioiak konpontzeko. Bernardo Atxaga

Horrek lekuz kanpo utzi ninduen, maleta aipatze hutsak errealitate gordin baten aurrean **jarri** baininduen. Anjel Lertxundi

-Nork **jarri** hau hi gure buru eta epaile? Jose Antonio Mujika

## 3 norbait edo zerbait lehen ez zegoen egoera batean egonarazi.

**Jarri** al dituzte artaldeak babesean? Bernardo Atxaga

Aitaren zakarraldiren batek ama negarrez **jarri** zuen. Anjel Lertxundi

Ez zintuen **jarri** nahi iritzi bat emateko premian. Bernardo Atxaga

Adiskide bati behin entzundakoak barre-irudika **jarri** ninduen: "Lotsagarria da, maitemintzen naizenean nire kasua top zerrendetako kanta guztietan azaltzen da". Bernardo

Atxaga
Ernegarazten **jarri** nauzu. Koro Navarro
Haren zalapartak zaunka **jarri** zuen zakur bat. Anjel Lertxundi
Ikara batek kristalak astindu, eta dardaraz **jarri** zituen. Jon Muñoz
Ardoak mingaina dantzan **jarri** dit. Juan Kruz Igerabide
Sexuak berotu egiten gaitu, **sutan jartzen** gaitu. Luis Elberdin
*ik beherago* 24. Askoren artean

• **4** (da ad gisa)
Judako Asaren erregealdiko hirugarren urtean hil zuen Baxak Nadab, eta bera **jarri** zen errege, haren ordez. Elizen arteko biblia
Berehala bildu zituzten bela-oihalak, eta Patrizio bera **jarri** zen lemazain. Felipe Juaristi
Begira honi, etorkina izaki eta epaile **jarri** nahi dik! Jose Antonio Mujika

• **5** da *ad* norbait edo zerbait lehen ez zegoen toki batean gertatu.
Aldi batez, Daviden lekuan **jarri** nintzen, bera bizirik eta ni hilda banengo bezala. Bernardo Atxaga
Sarrerak erosteko ilaran **jarri** nintzen. Anjel Lertxundi
Joan, bere gudariekin, etsaiaren aurrez aurre **jarri** zen. Elizen arteko biblia
Baldar hega-biraka, tximinia gaineko igeltsuzko erlaitzean **jarri** zen. Jon Muñoz
· *irud/hed* Ezin orain telefonoan **jarri** . Aingeru Epaltza

**6** norbait edo zerbait lehen ez zegoen egoera batean gertatu.
Izerditan **jarri** nintzen. Bernardo Atxaga
Erne **jarri** nintzen. Anjel Lertxundi
Eskuak lotu zizkiguten atzean, eta kopetari kopeta **jarri** ginen. Anjel Lertxundi
Komun-ontziaren gainean hanka puntetan **jarri** eta, ahalegin izugarria eginez, teilatura irten nintzen. Anjel Lertxundi
Eta garai haietan gosete izugarria zegoenez, jendea haien alde **jarri** zen. Elizen arteko biblia
Zerua geroz eta ilunago **jarri** zen, hodei eta aldagoi-haizearen eraginez. Elizen arteko biblia
Odola irakiten **jarri** zitzaidan. Migel Angel Mintegi
Adinik gabeko fela bat kokoriko **jarri** zitzaion ondoan. Jon Muñoz
Hiltzeko zorian **jarri** zen Rakel. Jose Antonio Mujika
Badaki, izatez preso bat izanik, "zerbaitegatik" dagoela dagoen tokian eta, okerrenean **jarririk,** baita "zerbaiterako" ere. Iñaki Segurola
Bakarrik bizi behar nuen eta bakarrik bizitzen **jarri** nintzen. Joan Mari Irigoien
David erregeak, bere etxean bizitzen **jarri** zenean, esan zion Natan profetari: [...]. Elizen arteko biblia
Misterio handiko gauza da ibaia, pentsatzen **jarrita** . Iñaki Segurola
Haurraren heziketan pentsatzen **jartzen** garenean. Luis Elberdin
Ama galdu nuenean, aldiz, pozez zoratzen **jarri** nintzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**7** (-tzera atzizkiarekin)
Sofan eseri eta igandeko egunkaria irakurtzera **jarri** zen. Koro Navarro
Pentsatzera **jarrita,** Mitzkin doktorea ere Granaten orgian zen. Koro Navarro
Weldon andrea ere berripapera aztertzera **jarri** zen. baina ez dut uste inor entzutera **jarriko** zaionik. Mirentxu Larrañaga
Eta horrexegatik **jartzen** eta tematzen da *zergatik?* galdetzera. Iñaki Segurola
Baina hamabost urterekin, lehenengoz, helburu literarioa zuen zerbait idaztera **jarri** nintzen. Iban Zaldua

**8** (egoera berrira) ohitu.
Egia da, hala ere, **jarria** nagoela ni izen horretara, zakurra berera bezala. Iñaki Segurola
Animaliekin bizitzera **jarria** zegoen baserrian eta hori jatorduetan nabarmentzen zen. Xabier Etxabe
Heriotza arrunt komun baten xehetasunak ezkutatzera **jarritako** erreportariaren hitz zuhur haiek urdaila nahastu zioten. Irene Aldasoro
Beste inon baino lerro zuzen, lauki, paralelo, diagonal eta bestelako erregulartasun geometriko planifikatu gehiago ikustera **jarriak** daudelarik xiudadeko hiritarraren begiak eta buruak, [...]. Iñaki Segurola
Naturaz emandako hitza haustera **jarrita** dauden gizonek izan dezatela beldurtzeko motibo handiago bat, zin egin izanagatik. Esteban Antxustegi

• **9** du *ad* norbaiti edo zerbaiti zerbait kokatu.
Marko batzuk **jarri** zizkidan eskuan. Anjel Lertxundi
Esku bat **jarri** zidaten sorbaldan. Bernardo Atxaga
Ondoren, janaria **jarri** zien aurrean. Jose Antonio Mujika
Gero, Rebekak bere seme nagusi Esauren arroparik dotoreenak hartu [...] eta Jakobi, seme gazteari, **jarri** zizkion. Jose Antonio Mujika
*ik* jantzi[1].
Egokiera izango zuten mozorro jantzia **jarri** eta muga igarotzeko. Karlos Zabala
-Ez zitean garbitu nahi; muturrekoa **jarri** nahi ziotean -zuzendu zion Maxek. Jon Muñoz
Mikel Strogoffek zaldiari aho-burdina **jarri,** zelako zingila tenkatu, [...], eta emeki-emeki hasi zitzaion tiraka bridatik. Karlos Zabala
"Deskubrimendu" hitz horri, ordea, komatxoak **jarri** dizkiogu guk, bai baitakigu Vitruvio ez zela erabateko ezezaguna inoiz izan Erdi Aroko kulturarentzat. Santiago Iruretagoiena
Ruche jaunak, gaitasun harrigarri horri ohartu baitzion, *Max eolikoa* ezizena **jarri** zion. Jon Muñoz
Abrahanek leku hari "Jaunak du hornitzen" **jarri** zion izena. Jose Antonio Mujika
· *irud/hed* Jainkoak bere tokia **jarri** zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Elizen arteko biblia
Baldintza hori **jarri** zidak, David. Bernardo Atxaga

**10** paperean eman, idatzi.
Eta zer **jarri** telegraman? Anjel Lertxundi
Hilarrian oso leku justua zeukala hiru hizkuntzatan **jarri** beharreko esaldi harentzat. Bernardo Atxaga
*Euskera bizkaino* **jartzen** zuen benetako tituluan. Iñaki Segurola
Gero, ahoz aho eta mendez mende gorde izan duk tradizioa, lehengo mendean norbaitek bertso-paperean **jarri** zuen arte. Joan Mari Irigoien

**11** (bestelakoetan)
Berak **jarri** zuen musika festa horretan. Bernardo Atxaga
Matematikak ematen duen -hartan bere sinestea **jarria** duenari ematen dion- segurantzia. Iñaki Segurola
Enfasi berezia **jarri** zuen *bestelakorik* esaterakoan. Anjel Lertxundi
Ez zion eragozpenik **jarri** Teresak. Migel Angel Mintegi
Kristorengan **jarria** dugun itxaropenak bizitza honetarako bakarrik balio badu, gizaki guztietan errukarrienak gara. Elizen arteko biblia

Ez zuen, behintzat, familia oneko alabek erabili ohi zuten aitzakiarik **jarri** . Anjel Lertxundi
Antonio **jarri** nuen aitzaki, konturatu egingo zela kolpeak entzutean. Bernardo Atxaga
Ez **jarri** aurpegi hori. Bernardo Atxaga
Berak zalantza aurpegia **jarri** zuen. Bernardo Atxaga
Emakume kezkatuaren aurpegia **jarri** zuen. Jon Muñoz
Hala ere, izan berri zuten solasaren jakinaren gainean **jarri** ninduen. Anjel Lertxundi
Bazekiat ezetz, Joseba, baina proban **jarri** nahi nian. Bernardo Atxaga
Arroza edo... ez dakit zer **jarri** . Pablo Sastre
Irratia **jarri** eta, trikitixa entzunez hain ederki familia osoak lana egiten. Pako Aristi

**12** bertsoez mintzatuz, bat-batean ez ondu, idatziz eman. ik**jartzaile 4**.

Itxura guztien arabera, bertsoak **jartzen** zituztenek bat-batean ere jarduten zuten. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Delako Estrada bertsolari horrek bertso-sail dezente **jarri** zituen. Berria - Kultura
Bat-bateko bertsoak eta aurrez **jarritakoak** kantatuko dituzte. Berria - Kultura
Maiatzeko Amabirjinari bertsoak **jartzen** nizkion eta antzerkira ere joaten ginen. Arantxa Iturbe
Salgai dauzkat, aldean ditut Bargotako apaizaren ibileren bertso berriak, Vianako itsuak **jarriak** . Anjel Lertxundi
Pedro Mari Otañok ombuari **jarritako** bertsoak. J.M. Olaizola "Txiliku"
Hilketa gertatu eta urtebetera, 1927an, Patxi Erauskinek **jarritako** bertsoak ikusi besterik ez. Pako Aristi
Juan Krutz Zapirainek Jenobeba Brabantekoaren bizitza gai harturik **jarri** zituen bertsoetan. Iñaki Segurola

**12a** (era burutua izenondo gisa)

Ezagutzen ditugun bertsook, ordea, bertso **jarriak** dira, ez bat-batean sortutakoak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Edo irratirako propio egindakoak... bertso **"jarriak"** izendatuko nituzke horiek nolabait deitzearren. Andoni Egaña
Bereizi egin behar genituzke bertso-**jarriak,** bertso-paperak eta enkarguzko bertsoak. Andoni Egaña
Amurizak zioen bertso-**jarrietatik** egiten dituela hobekuntzak bat-batekoak. Andoni Egaña
Bertsolaritzaren eboluziorako beharrezkoa da bertso **jarria** . Andoni Egaña
Bereizi egin behar genituzke bertso-**jarriak,** bertso-paperak eta enkarguzko bertsoak. Andoni Egaña
Estiballes bertso **jarrien** lehiaketa askoren irabazlea da. Berria - Kultura

• **13** da *ad* eseri. ik **jesarri.**

Jauntxoa supazter aitzineko zizeiluan **jarririk** zegoen. Elena Touyarou
Bere aulkian **jarria** ikusi dut Jauna, zeruko bere zerbitzari guztiak ezker-eskuin zutik zituela. Elizen arteko biblia
Mahaira **jarria,** hurrengo minutuez gozatu nintzen. Aingeru Epaltza
Erreginaren mahai berean **jarria** zen. Aingeru Epaltza
[...] pentsatu zuen komuneko eserlekuan **jarrita** zegoen bitartean. Joxemari Iturralde
Ez nekien zer erran ene ondoan **jarria** zegoenari. Janbattitt Dirassar
Eskailer-maila baten puntan **jarririk** dago, pipa ahoan eta oinak bertz batean. Piarres Aintziart
Ondoren, Salomon **jarri** zen bere aita Daviden errege-aulkian eta sendotu egin zuen haren erregetza. Elizen arteko biblia
Bertze bat, lurrean **jarria,** Jehaneren barrikatik edaten ari zen, Gibeleko aulkian **jartzean,** Mikelek Jon Aboitizen helbidea gidariari erakutsi zion. Aingeru Epaltza
Eta onginahi hori gorde egin diozu, gaur haren aulkian **jarria** dagoen seme hau berari emanez. Elizen arteko biblia
· du *ad* Ahal bezala, aulkian **jarri** genuen. Daniel Landart
*ik* jarrarazi 3.

**14 *abian jarri*** *(977 agerraldi, 82 liburu eta 652 artikulutan)* ik beherago **23.**

Lainoa altxatzen zenean, berriz, kanpamentua jaso eta **abian jartzen** ziren. Jose Antonio Mujika
Hori esanik, zigorra astindu eta mandoak **abian jarri** zituen. Juan Kruz Igerabide
Trena **abian jarri** zen berriro. Anjel Lertxundi
Alkatea ere orduantxe sartu zen [...], eta eskuaz zalgurdiko sabaia joz, **abian jartzeko** agindu zuen. Felipe Juaristi
Cirok makina **abian jarri,** palanka jiratu eta lurrikara gertatu zen. Koldo Biguri
Motor zahar haietako bat **abian jartzeko** probak egiten. Juan Kruz Igerabide
Sekulako ehizaldia **jarri** zuten **abian** Alexandriako agintariek. Jon Muñoz
Demokrazia (Rousseauren zentzuan) geurean behingoz **abian jartzeak,** araudi berri bat eskatzen du. Markos Zapiain
Aldi hori, normalean keynesianismo deitzen zaiona, Estatu Batuetan hasi zen, 1933an **abian jarri** zen *New Deal* delakoarekin. Koro Navarro
Truke haietan oinarrituta **jarri** zen **abian** europar mundu-ekonomia, eta handik aterako ziren kapitalismoa eta ekonomiaren globalizazioa. Koro Navarro
Libertinoek naturatik jasotzen dituzte **abian jartzen** dituzten irizpideak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Proiektua **abian jartzeko** . Berria - Euskal Herria
Urratsez urrats Euskal Herri berri bat **abian jartzeko** . Herria

**15 *agerian jarri***

Gauzak **agerian jartzea** beste erremediorik ez zegok. Bernardo Atxaga
Aurrerago baino ez zen sekretua **agerian jarri** . Karlos Zabala
Honek bai, honek bai jakin du bihotzeko misterioak **agerian jartzen** ! Jose Morales
Ez zuen asko behar izan gorpuak erabat jiratu eta ur gainean ahozgoratzeko: orekarik batere gabeko pinu enbortzar bat bailitzan, ezkutuko aldea **jarri** zuen **agerian** . Hasier Etxeberria
Nire bizitza guztia **agerian jarri** nahi dizut, egiazkoa, ezagutu zintudan egunean bertan hasitakoa. Eduardo Matauko
Nahastu egin ote nintzen pasatu zitzaidan burutik, baina haren aurpegiko orbanak **agerian jartzen** zuen nor zen aurrean neukana. Anjel Lertxundi
Venus Express zundak aste honetan **agerian jarri** du planetaren alde ezezaguna. Biologia molekularrak **agerian jarri** zuen zelularen funtzionamendua gobernatzen duten sistema genetikoen eta oinarriko mekanismoen batasuna. Juan Garzia
Hala **jarri** da **agerian** badela gene mota bat organismoen forma zehazten jarduten duena. Juan Garzia
Halako mutanteak sortzeak **agerian jartzen** du mekanismoaren beste alderdi bat. Juan Garzia
Gona motzak **agerian jarritakoa** eta elastiko estuak nabarmendutakoa begiesten ari zelarik, ordu bietako kanpaiak aditu zituen. Migel Angel Mintegi
Ustekabeko arazoren bat **jar** dezake **agerian** simulazio horrek, eta, hala gertatzen bada, arazoa non den atzeman. Xabier Olarra

**16 *arreta jarri***

**Arreta jar** dezagun orain hogeita hamar idaz-aipamen horietan. Joan Mari Lekuona
Zaila da elizaren balioan edo Donatelloren eskultura eta erliebeetan **arreta jartzea,** erlauntza erraldoi baten adinako hotsa baitabil. Anjel Lertxundi
Jamesek telebistan **jarri** zuen **arreta** . Koro Navarro
Planetako atmosfera zehaztasun handiz ikertuko dute; hodeietan **jarriko** dute **arreta,** eta klima aldaketa eragiten duten aerosol partikula txikietan. Berria - Gaiak
Konradek idatzi dit -esan zuen jeneralak gutuna eskuan altxatuz, keinuari **arreta jarri** gabe, Niniri erakusteko gogoz-. Xabier Olarra

Kosta egiten zitzaiola azalpenei **arreta jartzea**. Imanol Zurutuza

Naturalistak **arreta jartzen** hasiak ziren bizidun guztien tasun erkideei. Juan Garzia

Xehetasun txikienei **arreta jarriz**. Joxean Agirre

Leihotik aldendu eta telebista piztu nuen, **arreta** pantailan **jarri** eta nire pentsamenduen gurpila gelditzeko. Bernardo Atxaga

Ez zuen hitzik egiten, autoa gidatzen **jarria** baitzuen **arreta** osoa. Anjel Lertxundi

Zuhaitzaren osotasunean zuen **jarria** bere **arreta** guztia. Ibon Uribarri

## 17 *arriskuan jarri*

Hitz potoloak edo bete-antxekoak gure esaldietan erortzen diren bakoitzean beren esanahi ofizialaren gantzak urtzeko **arriskuan jartzen** direla. Iñaki Segurola

Zergatik hasiko gara ba txalupa hau kulunkarazten eta iraultzeko **arriskuan jartzen,** geure buruari buruhausteak ematen? Oskar Arana

Aitaren bizia **arriskuan jar** dezakezu horrelakoak kantatzen badituzu. Juan Kruz Igerabide

Ordainketa-sistemari buruzko mesfidantza izugarria zabaldu zen, merkatuak higatu zituena, eta eragile asko **arriskuan jarri** zituena. Koro Navarro

**Arriskuan jarriko** ote zaitudan beldur naiz. Jon Muñoz

Beren buruak **jartzen** dituzte **arriskuan**. Elizen arteko biblia

Langile frontea ez bazen indartzen, organizazioa bera **jarriko** zen **arriskuan**. Bernardo Atxaga

**Arriskuan jarri** nahi gintuen, hiltzera gindoazela pentsa genezan. Fernando Morillo

## 18 *aurrean jarri*

Jaunaren aingerua **jarri** zitzaion **aurrean** Balaani, bidea oztopatzen. Jose Antonio Mujika

Hondatu ditut **aurrean jarri** zaizkizun etsaiak oro. Elizen arteko biblia

Lasai asko egin diezaioke eraso **aurrean jartzen** zaion edonori. Bernardo Atxaga

Pragmatismoak, eraginkortasunean oinarrituriko jarrera horrek, **aurrean jartzen** zaizkion aukera eta gertakizun guztiak baliatzen ditu. Anjel Lertxundi

Botila ardoa **jarri** zidan **aurrean**. Anjel Lertxundi

Ipurdi eder bat **aurrean jarri** eta harekin gozatzeko erregutu zidanean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bran leizearen parera iritsi zen, zuloaren aurre- **aurrean jarri** eta zaunka hasi zen artegatasunez. Joanes Urkixo

Gauerdian ate **aurrean jarri** nintzen zelatan. Matías Múgica

· *(-en atzizkiaren eskuinean)* Detektibe pribatua nauzu -agiria begien **aurrean jarri** zion. Migel Angel Mintegi

Gero, bi gizon maltzur-gaizto etorri eta Naboten **aurrean jarri** ziren. Elizen arteko biblia

-Atera zeuk likorea -esan zidan, kikara bat nire **aurrean jarri** eta gero-. Migel Angel Mintegi

Ruche jaunaren aurre- **aurrean jarri** zen: [...]. Jon Muñoz

Ilobaren irudiaren **aurrean jarri** denean, sentimendu gaizto bat esnatzen sumatu du. Lander Garro

## 19 *auzia jarri*

Herri-agintarien jauregira joan zen, bere semeari **auzia jartzera** eta etxetik ostu zuen dirua itzularaz ziezaiola eskatzera. Jaunak **auzia jartzen** zion bere epaitegiari goragoko epaimahaiaren aurrean; eta irabazten bazuen, itzuli egiten zitzaion auzia, eta hirurogei liberako isuna ordaintzen zitzaion. Askoren artean

Inori **auzia jartzen** edo salaketa egiten bazioten, ia beti zeukan bere burua zuritzea, lekuko-kopuru jakin batekin zin eginez ez zuela egin berari egozten zitzaiona. Iñaki Iñurrieta

## 20 *bidean jarri*sup_1 da *ad*

Biharamunean, goiz-argiarekin, agurtu eta astoak hartuta **bidean jarri** ziren gizonak. Jose Antonio Mujika

Egunsentian **jarri** zen **bidean,** beraz, baina paraje hartan, zoritxarrez, Barabako lurzorua gero eta higuingarriagoa zen. Karlos Zabala

Ez **jarri bidean** benturazale ausartarekin, ondorio txarrik izan ez dezazun. Elizen arteko biblia

**Bidean jartzen** ari den Europear Konstituzioak ez dio euskarari ofizialtasunik emaiten. Herria

· Hurrengo tabernara **bidean jarri** gara biok. Xabier Etxabe

Buick markako auto batean sartu, eta Loiolara **bidean jarri** ginen. Inazio Mujika Iraola

Etxerako **bidean jarri** naiz, maitasunaren metafora ulertu ezinik. berari esker arrakastarako **bidean jarri** ahal izango gara... Unai Iturriaga

Sendatzeko **bidean jarri** da. Joan Mari Irigoien

Bere burua hiltzeko **bidean jarrita** ere. Karlos Zabala

## 21 *bidean jarri*sup_2 du *ad (norbait)*

-Patuak nire **bidean jarri** zaituelako. Migel Angel Mintegi

Arau-hutsegite horiek kezkatu ninduten; estetikari dihoazkion bertze batzuek egiaren **bidean jarri** ninduten. Juan Garzia

Esaldiak **bidean jartzen** gaitu gainera. Iñigo Aranbarri

Gertaera hark eromenerako **bidean jarri** ninduen-eta berriro. Juan Kruz Igerabide

· *(zerbait)* Lagun hurkoari zurikeria egiten dionak tranpa **jartzen** dio **bidean**. Autoan zoaz eta batbatean, mafiakoek hiru auto **jarri** dituzte **bidean** trabes zure aurrean, zu tiroka hiltzeko agindua dutelako. Elizen arteko biblia

Orain, proiektu berri bat du **bidean jartzen** Euskal Kultur Erakundeak, *Kantuketan*-en ildoaren lekukoa hartuko duena. Herria

Hori bai, **bidean** eragozpenik **jartzen** ez baldin badiote... Edorta Jimenez

Parisko zelula gorriek fronte bakarra proposatzen zuten Estatu osoan Iraultza Sozialista **bidean jartzeko**. Rafa Egiguren

Hau guztia konpontze **bidean jartzeko** diru asko beharko litzateke. Pello Salaburu

## 22 *harremanetan jarri*

Uste baino errazago gertatu zitzaion gizonarekin **harremanetan jartzea;** bien arteko hizketaldia lortzea ez, ordea. Migel Angel Mintegi

Robert Wassermann oftalmologoarekin jarri nintzen **harremanetan**. Xabier Olarra

Azpisuge horiek aztikerien bidez deabruarekin **harremanetan jartzen** dira. Patxi Zubizarreta

Batzuetan gertatzen da jendeak ahaleginak eta bi egitea norbaitekin telefonoz **harremanetan jartzeko,** baina kale egitea, dena delako telefono-zenbakian erantzunik jaso ez dutelako. Mirentxu Larrañaga

Uste dut gure zuzendaria dagoeneko **jarria** dela **harremanetan** zurekin... Alberto Ladron Arana

Alaba beste gizon batekin **harremanetan jarri** zen eta haurdun gertatu zen. Gotzon Garate

Itsuentzako Institutu Juduarekin **harremanetan** jarri ginen ikastaldi trinko batean sar zedin. Xabier Olarra

Niretzat, Mendebaldeko Europarekin **harremanetan jartzea** zen Jacques Kohni zloti bat "maileguz" uztea. Koro Navarro

Irudi bati begiratzea gure eguneroko espazioa dugun espazio erreal honen barrutik oso bestelakoa den beste espazio batekin **harremanetan jartzea** dela, irudiaren gainazalarenarekin **harremanetan jartzea,** hain zuzen. Josu Zabaleta

Honetan gauza bat izendatzen da beste batekin duen harremanaren bidez, biak **elkarrekin harremanetan** jarriz. Xabier Kintana

Demografia-eztanda hori ezin ulertu da garapen-maila desberdineko gizarteak **harremanetan jartzeak** sortzen dituen usadiozko demografiaren hausturak kontuan izan gabe. Koro Navarro

Nazioarteko ekonomiak [...] **harremanetan** jartzen zituen oraindik guztiz integratu gabeko osotasun baten parteak, trukeen, inbertsioen eta kredituen fluxuen bitartez. Iñaki Heras

## 23 *martxan jarri* *(824 agerraldi, 97 liburu eta 514 artikulutan)* abian jarri.

Giltzak hartu, barrura sartu, eta **martxan jarri** ginen Amara aldera. Inazio Mujika Iraola

Norbait utziko zuten guardian eta xagutxo bat bezala harrapatuko naute, bertan gelditzea erabaki dut, **jarriko** naiz **martxan** eguna argitzen duenean. Bernardo Atxaga

**Martxan jarri** nuen autoa, eta eskua luzatu genion elkarri. Bernardo Atxaga

Susto ederra hartu zuten autoa **martxan jarri** zenean. Fernando Morillo

Sotora jaitsi beharko zukeen elektrizitate-sorgailua berriz **martxan jartzera**. Aitor Arana

Automatikoki **martxan jartzen** den eragingailu mekanikoa. Xabier Olarra

Estimulu sexual batek helburua lortzen duenean eta desioa eragiten duenean, mekanismo harrigarri bat **martxan jartzen** da. Luis Elberdin

Lehen esturekin batera, jendearen buru-mekanismoak **martxan jarri** dira. Karlos Linazasoro

Erreflexuek, iraupen senak eta kinka larrietan **martxan jartzen** diren gainerako guztiek bat egin zuten Maizaren alde, eta errebolberra eta txostena eskuratuak, Arrietaren ondotik pasa, eta lau oinkadetan bulegotik irten zen. Migel Angel Mintegi

Elkarteak **martxan jarri** berria duen web orriak, dudarik gabe, are eskurago jarriko ditu aurrerantzean dokumentuok. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

"Kokapen-informazio" horrek, **martxan jarriko** ditu guneko geneak, erdiak aitarengandikoak eta erdiak amarengandikoak. Juan Garzia

Erroma berritzeko egin zen ahalegin handi hura **martxan jarri** zenean. Santiago Iruretagoiena

Nire bizitza idorrera ere iritsiko dela bihotza **martxan jarri** eta geldotasuna astinduko didan freskura berria. Pako Aristi

## 24 *sutan jarri* guztiz haserre jarri.

Eta amak kasu handirik egiten ez bazion, **sutan jartzen** zen aita. Fernando Rey

Guardia zibilaren Komandantziatik lore koroa bat zekartela jakin zuenean, **sutan jarri** zen gajoa, amorru bizian. Ramon Saizarbitoria

**Sutan jartzen** zenean, bere onetik atera eta giharrak, zainak eta matrailak zurrundu eta gogortzen zitzaizkion. Baina beti **jarri** nau **sutan** niretzat munduko gauzarik naturalena zena isilgordeka eduki beharrak. Fernando Rey

**Sutan jartzen** ziren bazekitelako amerikanoei ematen geniela haiei ukatzen geniena. Karlos Zabala

Katxok errabiaz ekiten zion pilotari, falta bat egin eta **sutan jartzen** zen. Koro Navarro

Gure aita, hitz haiek adituta, **sutan jarri** zen amaren kontra: [...]. Fernando Rey

Ez duk bidezkoa, **sutan jartzeko** modukoa duk burges demontreek hau guztia jatea! Karlos Zabala

Aski giro nahasia piztu da Pariseko alde hortan, bazterrak kexatu baitira eta **sutan** bezala **jarri,** lehenik Clichy hirian, ondotik inguru hartako beste hiri batzuetan. Herria

· Haserre-sutan **jarri** zen Moises eta esan zion Jaunari: [...]. Elizen arteko biblia

· Federicori barrena **sutan jartzen** zitzaion, baina gero onartu egin behar zuen hasperenka. Pello Lizarralde

Nik ez nuen bide hartatik jarraitu nahi, ezen, izen hura entzun hutsarekin erraiak **sutan jartzen** zitzaizkidan. Juan Kruz Igerabide

## 25 *zalantzan jarri*

Arau batzuk onartuta daude, eta inork ez ditu **zalantzan jartzen**. Iñaki Arranz

Zerbait gertatu zait, orain ez dut **zalantzan jartzerik**. Monika Etxebarria

Lege hau, beste asko bezala, ez zen gauzatu, Celestino III.a aitasantuak eskumikatu egin baitzuen erregea, eta bere erregetza **zalantzan jarri**. Juan Martin Elexpuru

Ezin baita **zalantzan jarri** Estatuak zergak jartzeko duen ahalmen juridikoa. Hau aipatua dugu jada geure obra nagusian, eta gure sineskideetatik ez du inork hori **zalantzan jartzen**. Esteban Antxustegi

-Zergatik **jarri** beharko nuke hori zalantzan? Jon Muñoz

-Nire errugabetasuna **zalantzan jartzen** al duzu? Migel Angel Mintegi

Ez, ez nintzen huskeriengatik munta handiko kontuak **zalantzan jartzen** hasiko. Anjel Lertxundi

Hezur-txertaketa aspaldian finkaturiko eta inork **zalantzan jartzen** ez duen transplante mota bat da. Irene Aldasoro

Horra zergatik erraten dugularik gizaki batek faltsukeriak onartzen dituela eta ez dituela **zalantzan jartzen,** ez dugun erraten horrengatik segur dela, baina bakarrik zalantzarik ez duela edo faltsukeriak onartzen dituela, bere irudimena zalantzan edukitzeko arrazoirik ez duelako. Piarres Xarriton

**Zalantzan jarri** ezinezko egiatzat zeukaten Letamendi jeinu bat zelakoa. Josu Zabaleta

· Ezagutu dudan mutil berri honek **zalantzan jarri** nau. Pako Aristi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**abian jarri** (423); **adi adi jarri** (12); **adi jarri** (22); **adibide bat jarri** (12); **adibide gisa jarri** (9); **adibidea jarri** (11); **adibidetzat jarri** (14); **ados jarri** (207); **agerian jarri** (101); **ahoan jarri** (22); **ahuspez jarri** (11); **airean jarri** (9); **aitzakiarik jarri** (15); **alboan jarri** (13); **aldamenean jarri** (15); **alde jarri** (69); **aldean jarri** (14); **amaiera jarri** (16); **arreta berezia jarri** (16); **arreta jarri** (36); **arretarik jarri** (35); **arretarik jarri gabe** (13); **arriskuan jarri** (115); **aske jarri** (25); **atezuan jarri** (14); **atzean jarri** (43); **atzetik jarri** (11); **aulkian jarri** (24); **aurka jarri** (40); **aurkako salaketa jarri** (34); **aurpegia jarri** (73); **aurrean jarri** (191); **aurrera begira jarri** (16); **aurretik jarri** (72); **aurretik jarri zen** (18); **aurrez aurre jarri** (54); **autoa martxan jarri** (12); **auzibidean jarri** (14); **auzitan jarri** (130); **azkar jarri** (11); **azpian jarri** (33); **azpikoz gora jarri** (14); **baldintza bat jarri** (13); **baldintza jarri** (38); **baldintzak jarri** (20); **baldintzarik jarri** (17); **baliabideak jarri** (9); **bandera jarri** (10); **barrikadak jarri** (13); **batera jarri** (29); **begira begira jarri** (11); **begira jarri** (331); **beha jarri** (13); **bekozko iluna jarri** (13); **bekozkoa jarri** (9); **belauniko jarri** (76); **berde jarri** (9); **bere lekuan jarri** (19); **berehala jarri** (38); **bermea jarri** (21); **berotzen jarri** (9); **berriro jarri** (24); **berriz jarri** (19); **berrogeialdian jarri** (16); **betoa jarri** (15); **bidean jarri** (134); **bidean jarri zen** (11); **bidean jarri zuen** (11); **biluzik jarri** (9); **bistan jarri** (10); **bitartekoak jarri** (20); **bizia arriskuan jarri** (15); **bizitzen jarri** (52); **bizkarrean jarri** (15); **bonba jarri** (12); **bularrean jarri** (9); **buru gainean jarri** (9); **buruan jarri** (43); **buruz behera jarri** (11); **dantzan jarri** (34); **dardarka jarri** (21); **datarik jarri** (9); **dirua jarri** (17); **egiten jarri** (13); **elkarrekin bizitzen jarri** (10); **elkarrekin jarri** (11); **elkarren ondoan jarri** (11); **entzuten jarri** (14); **epea jarri** (25); **eragozpenik jarri** (37); **erakusketa jarri** (16); **erdian jarri** (41); **erne jarri** (34); **eroso jarri** (15); **erronka jarri** (11); **ertzean jarri** (14); **eserita jarri** (13); **esku bat jarri** (21); **esku jarri** (54); **eskua jarri** (45); **eskuak jarri** (11); **eskuan jarri** (13); **eskuburdinak jarri** (13); **eskuetan jarri** (38); **eskura jarri** (33); **espetxe zigorra jarri** (19); **etzanda jarri** (16); **euro jarri** (28); **euroko bermea jarri** (13); **euroko isuna jarri** (37); **ezbaian jarri** (28); **ezizena jarri** (9); **gaia jarri** (11); **gain jarri** (27); **gainean jarri** (448); **gainetik jarri** (39); **gaixo jarri** (18); **gaizki jarri** (10); **goian jarri** (11); **gorago jarri** (9); **gorri gorri jarri** (29); **gorri jarri** (44); **greban jarri** (11); **hanka puntetan jarri** (12); **hankaz gora jarri** (82); **haren ondoan jarri** (9); **hari begira jarri** (9); **harremanean jarri** (9); **harremanetan jarri** (188); **haserre bizian jarri** (28); **haserre jarri** (10); **hasieran jarri** (9); **hasieratik jarri** (12); **helburua jarri** (14); **helegitea jarri** (132); **hesiak jarri** (11); **hormaren kontra jarri** (9); **idatziz jarri** (17); **ikusgai jarri** (21); **ilaran jarri** (22); **indarrean jarri** (182); **inguruan jarri** (35); **interneten jarri** (14); **ipurdia jarri** (12); **irakiten jarri** (18); **isuna jarri** (73); **isuna jarri dio** (18); **isunak jarri** (11); **izena jarri** (123); **izenburua jarri** (21); **jakinaren gainean jarri** (48)

**jarri beharra** (53); **jarri beharra dago** (10); **jarri da lider** (14); **jarri du abian** (50); **jarri du arreta** (9); **jarri du martxan** (33); **jarri zen abian** (22); **jarri zen aurretik** (24); **jarri zen bizitzen** (47); **jarri zen indarrean** (23); **jarri zen martxan** (14); **jarri zuen martxan** (40); **jarri zuen salaketa** (13)

**jokoan jarri** (16); **kalean jarri** (10); **kartzela zigorra jarri** (13); **kereila jarri** (26); **kokoriko jarri** (15); **kolokan jarri** (109); **kontra jarri** (128); **lanak jarri** (10); **lanean jarri** (44); **larri jarri** (11); **legea indarrean jarri** (19); **legea jarri** (9); **lehen postuan jarri** (10); **lehergailu jarri** (9); **lehergailua jarri** (10); **lehergailuak jarri** (11); **lekuan jarri** (55); **lepoan jarri** (10); **lerroan jarri** (19); **lider jarri** (42); **lurrean jarri** (32); **magalean jarri** (13); **mahai gainean jarri** (117); **mahaia jarri** (9); **mahaian jarri** (31); **maila berean jarri** (11); **markagailuan aurretik jarri** (9); **martxan jarri** (367); **martxan jarri zuen** (33); **mende jarri** (18); **menpe jarri** (21); **menpean jarri** (19); **milioi euro jarri** (15); **modan jarri** (37); **moduan jarri** (40); **mugak jarri** (12); **mugarik jarri** (17); **musika jarri** (17); **ohean jarri** (9); **oilo ipurdia jarri** (10); **oinarriak jarri** (28); **ondo jarri** (16); **ondoan jarri** (118); **ongi jarri** (10); **oso urduri jarri** (14); **oztopoak jarri** (28); **oztoporik jarri** (24); **paperean jarri** (12); **pare jarri** (33); **parean jarri** (76); **paretaren kontra jarri** (16); **parez pare jarri** (12); **pentsatzen jarri** (51); **plana abian jarri** (9); **plana jarri** (9); **pozik jarri** (19); **praktikan jarri** (18); **prest jarri** (17); **proban jarri** (11); **programa jarri** (10); **salaketa bat jarri** (15); **salaketa jarri** (287); **salaketak jarri** (28); **salaketarik jarri** (11); **salgai jarri** (37); **sarean jarri** (14); **sarreran jarri** (11); **sekretupean jarri** (9); **serio jarri** (42); **so jarri** (13); **sorbalda gainean jarri** (10); **sorbaldan jarri** (26); **susmopean jarri** (13); **sutan jarri** (120); **sutan jarri zen** (39); **sutan jarri zuen** (9); **tente jarri** (59); **tente tente jarri** (9); **trabak jarri** (12); **trabarik jarri** (19); **triste jarri** (15); **txukun jarri** (9); **urduri jarri** (102); **urduriago jarri** (9); **urteko zigorra jarri** (20); **xabik martxan jarri** (20); **zail jarri** (11); **zain jarri** (14); **zaintzapean jarri** (10); **zalantzan jarri** (415); **zelatan jarri** (15); **zerbitzua jarri** (10); **zerbitzuan jarri** (12); **zerbitzura jarri** (25); **zigorra jarri** (107); **zigorrak jarri** (13); **zilegitasuna zalantzan jarri** (9); **zintzilik jarri** (16); **zurbil jarri** (12); **zuri jarri** (20); **zuri zuri jarri** (12); **zutik jarri** (177); **zuzen jarri** (11); **zuzenketa jarri** (12)

**bertso jarriak** (14)

**abian jarriko** (67); **adibide bat jarriko** (11); **ados jarriko** (14); **agerian jarriko** (17); **alde jarriko** (13); **arriskuan jarriko** (52); **aurka jarriko** (12); **aurrean jarriko** (12); **auzitan jarriko** (9); **begira jarriko** (34); **bidean jarriko** (26); **dirua jarriko** (13); **enkantean jarriko** (16); **eragozpenik jarriko** (14); **eskura jarriko** (10); **euro jarriko** (22); **euro jarriko ditu** (20); **gainean jarriko** (35); **hankaz gora jarriko** (19); **harremanetan jarriko** (23); **helegitea jarriko** (71); **indarrean jarriko** (48); **isuna jarriko** (11); **izena jarriko** (11); **jakinaren gainean jarriko** (9); **jarriko dira salgai** (18); **jarriko dute abian** (11); **jarriko dute martxan** (22); **kereila jarriko** (9); **kolokan jarriko** (19); **kontra jarriko** (12); **mahai gainean jarriko** (10); **mahaiak jarriko** (11); **martxan jarriko** (56); **milioi euro jarriko** (12); **musika jarriko** (9); **oztoporik jarriko** (14); **salaketa jarriko** (40); **salgai jarriko** (26); **sutan jarriko** (12); **zalantzan jarriko** (37); **zigorra jarriko** (14)

**aurrean jarririk** (11); **begira jarririk** (10); **belauniko jarririk** (10); **gainean jarririk** (33); **inguruan jarririk** (11); **kontra jarririk** (18)

**ados jarrita** (20); **atzean jarrita** (12); **aurka jarrita** (9); **aurrean jarrita** (31); **aurrera begira jarrita** (9); **begira jarrita** (60); **erdian jarrita** (11); **eskuburdinak jarrita** (13); **gainean jarrita** (82); **ilaran jarrita** (12); **kontra jarrita** (54); **lurrean jarrita** (14); **mahai gainean jarrita** (9); **martxan jarrita** (9); **ondoan jarrita** (33); **ongi jarrita** (9); **parean jarrita** (11); **pentsatzen jarrita** (66); **txukun jarrita** (11); **zutik jarrita** (29)

**; abian jarritako** (97); **abokatuek jarritako** (12); **aurka jarritako** (61); **aurka jarritako kereila** (11); **aurka jarritako salaketa** (13); **aurrean jarritako** (11); **errepidean jarritako** (10); **espainiako gobernuak jarritako** (12); **gainean jarritako** (35); **gobernuak jarritako** (20); **hasieran jarritako** (12); **indarrean jarritako** (24); **jarritako babes** (9);

jarritako baldintza (11); jarritako baldintzak (25); jarritako bonba (18); jarritako helburuak (31); jarritako helburuak bete (9); jarritako helegitea (70); jarritako helegiteak (15); jarritako helegitearen (9); jarritako helegiteari (9); jarritako kereila (34); jarritako lehergailu (9); jarritako muga (12); jarritako oztopoak (10); jarritako salaketa (48); jarritako salaketak (16); jarritako salaketaren (14); jarritako zigorra (16); kontra jarritako (36); mahai gainean jarritako (19); martxan jarritako (27

agerian jarriz (14); arriskuan jarriz (19); aurpegia jarriz (12); aurrean jarriz (12); begira jarriz (15); gainean jarriz (32); kontra jarriz (9); martxan jarriz (9); ondoan jarriz (15); pentsatzen jarriz (16); pentsatzen jarriz gero (16); zalantzan jarriz (19)

abian jartzea (85); ados jartzea (52); agerian jartzea (21); alde jartzea (10); arreta jartzea (14); arriskuan jartzea (35); aurrean jartzea (21); aurretik jartzea (25); aurretik jartzea lortu (9); aurrez aurre jartzea (12); auzitan jartzea (18); begira jartzea (21); bidean jartzea (20); esku jartzea (17); ezbaian jartzea (9); gainean jartzea (26); gainetik jartzea (13); harremanetan jartzea (35); helegitea jartzea (16); indarrean jartzea (55); izena jartzea (14); jartzea egotzi (12); jartzea erabaki (88); jartzea eskatu (25); jartzea eskatzen (9); jartzea espero (18); jartzea izan (18); jartzea izango (13); jartzea leporatu (29); jartzea lortu (57); jartzea proposatu (16); kolokan jartzea (15); mahai gainean jartzea (14); martxan jartzea (89); mugak jartzea (18); oztopoak jartzea (12); oztoporik ez jartzea (12); praktikan jartzea (10); salaketa jartzea (16); zalantzan jartzea (28)

adibide bat jartzearren (22)

abian jartzeko (180); ados jartzeko (48); agerian jartzeko (24); alde jartzeko (13); arreta jartzeko (18); arriskuan jartzeko (12); aurrean jartzeko (12); aurretik jartzeko (15); auzitan jartzeko (18); begira jartzeko (20); berriz indarrean jartzeko (11); berriz martxan jartzeko (11); bidean jartzeko (29); bizitzen jartzeko (11); dantzan jartzeko (12); errauste planta jartzeko (9); esku jartzeko (21); eskura jartzeko (9); gainean jartzeko (56); gainetik jartzeko (13); gatazka konponbidean jartzeko (11); hankaz gora jartzeko (16); harremanetan jartzeko (97); helegitea jartzeko (39); indarrean jartzeko (83); isuna jartzeko (10); izena jartzeko (19); jartzeko agindu (39); jartzeko agindua (10); jartzeko asmoa (60); jartzeko asmorik (9); jartzeko asmotan (9); jartzeko asmoz (19); jartzeko aukera (73); jartzeko aukerarik (10); jartzeko baimena (11); jartzeko balio (13); jartzeko erabakia (12); jartzeko erabiltzen (11); jartzeko esan (18); jartzeko eskatu (115); jartzeko eskatzen (15); jartzeko eskubidea (9); jartzeko exijitu (12); jartzeko gai (31); jartzeko gai izan (9); jartzeko gaitasuna (10); jartzeko garaia (15); jartzeko konpromisoa (18); jartzeko konpromisoa hartu (10); jartzeko mehatxua (9); jartzeko moduan (9); jartzeko moduko (17); jartzeko modukoa (22); jartzeko modukoak (9); jartzeko orduan (11); jartzeko prest (37); jartzeko unea (10); kolokan jartzeko (15); konponbidean jartzeko (21); lanean jartzeko (17); lekuan jartzeko (14); mahai gainean jartzeko (24); martxan jartzeko (159); mende jartzeko (11); oinarriak jartzeko (9); oztopoak jartzeko (13); oztoporik ez jartzeko (12); parean jartzeko (12); praktikan jartzeko (20); prozesua abian jartzeko (9); prozesua martxan jartzeko (13); salaketa jartzeko (30); urduri jartzeko (9); zalantzan jartzeko (46); zigorra jartzeko (9); zigorrak jartzeko (11); zutik jartzeko (15)

abian jartzen (51); ados jartzen (68); agerian jartzen (104); airean jartzen (10); aitzakiak jartzen (11); alde jartzen (23); arreta handia jartzen (11); arreta jartzen (24); arretarik jartzen (18); arriskuan jartzen (121); atzean jartzen (9); aurka jartzen (21); aurpegia jartzen (24); aurrean jartzen (79); aurretik jartzen (24); aurrez aurre jartzen (35); auzitan jartzen (67); azpian jartzen (16); azpikoz gora jartzen (10); baldintzak jartzen (9); begira jartzen (54); beha jartzen (10); belauniko jartzen (17); bere lekuan jartzen (9); berehala jartzen (10); bero bero jartzen (19); bero jartzen (28); bidean jartzen (31); bizia arriskuan jartzen (10); bonbak jartzen (10); dantzan jartzen (20); dardaraz jartzen (12); dardarka jartzen (16); dirua jartzen (14); dudan jartzen (16); esku jartzen (13); eskua jartzen (9); eskuetan jartzen (21); eskura jartzen (12); ezbaian jartzen (19); gainean jartzen (111); gainetik jartzen (31); galbidean jartzen (20); gogor jartzen (9); gorri gorri jartzen (14); gorri jartzen (18); hankaz gora jartzen (34); harremanetan jartzen (59); harremanetan jartzen saiatu (10); ilaran jartzen (9); indarrean jartzen (33); irakiten jartzen (9); izena jartzen (16); jartzen ahalegindu (10); jartzen ari (250); jartzen ari da (27); jartzen du zalantzan (11); jartzen hasi (86); jartzen hasia (10); jartzen hasiak (9); jartzen hasita (10); jartzen saiatu (50); jartzen saiatuko (10); jartzen saiatzen (18); jokoan jartzen (16); kolokan jartzen (66); kontra jartzen (24); lanean jartzen (16); lekuan jartzen (29); mahai gainean jartzen (27); martxan jartzen (60); mende jartzen (14); menpe jartzen (12); menpean jartzen (10); modan jartzen (9); moduan jartzen (9); mugak jartzen (23); mugarik jartzen (10); musika jartzen (22); ondo jartzen (10); ondoan jartzen (26); oso urduri jartzen (12); oztopoak jartzen (35); pare jartzen (19); parean jartzen (25); pean jartzen (11); pentsatzen jartzen (17); pozik jartzen (16); praktikan jartzen (12); sutan jartzen (76); tente jartzen (22); trabak jartzen (26); trabarik jartzen (12); triste jartzen (19); urduri jartzen (143); urduriago jartzen (11); zalantzan jartzen (306); zintzilik jartzen (10); zutik jartzen (38)

abian jartzera (9); gainean jartzera (9); jartzera behartu (11); jartzera behartzen (9); jartzera etorri (9); jartzera joan (10)

---

# jarrialdi cf **jarraldi.**

**1** ***bertso-jarrialdi*** *iz* ik **jarri 12.**

Denak ere larre motzean haziak eta behartsu bizi izanak, eta bertsoa zaletasun ez ezik diru pixka bat ateratzeko baliatutakoak, nork gehiago nork gutxiago, bertso-**jarrialdien** eta haien salmentaren arrakastaren gorabeheran. Berria - Kultura

Gorago aipatutako sindikatuak agiriak atera zituen euskara ederrean, eta sindikatu hartakoa zen Urkiolegi bertsolari azkoitiarrak bi bertso-**jarrialdi** argitaratu zituen. Berria - Kultura

---

# jarriarazi ik **jarrarazi.**

---

# jartoki *(22 agerraldi, 3 liburu eta 12 artikulutan) iz* jarlekua.

Aturri eta Errobi ibaiak bateratzen diren juntan, hango arbolpean diren **jartokietan**. Janbattitt Dirassar

**Jartoki** berriak ezarri behar zituztela Miarritzeko Agilera kirolzelaiko eskualde batean. Herria

Badira orotarat hiru gela, batto handia bezen ederra, hiru ehun bat **jartokirekin,** beste biak aise ttipiagoak bainan arras pollitak, batean ehun bat lagun kokatzen ahal, bestean berrogoita-hamar bat. Herria

Xutik, **jartoki** guziak hartuak baitziren. Janbattitt Dirassar

---

# jartzaile 1 *iz* zerbait jartzen duen pertsona. ik **paratzaile.**

Aurreko gauean lan ona egin zuten **jartzaileek**. Iñaki Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Etxeko beste tipo bat [...] Maisu Txikia zen, mantxatar pedante eta orojakin bat, drogeriako saltzailea, sendalaria eta izain-**jartzailea**. Josu Zabaleta

Bere lan ofizialetako batzuk aipatu dizkigu: dekoratu egile, eskaparate **jartzaile,** obretako langile, horma margotzaile... Harkaitz Cano

Nire ustez, hauxe adierazi nahi zuen iragarki-**jartzaileak:** "Norbaitek mantentzea nahi dut". Bernardo Atxaga

Sexu menderatzaile edo, agian hobeki, eredu-**jartzailearen** ale bat haiz erremedio gabe, eta badakik, berez, "gizon guztiak berdinak direla" haien iritzian eta begietan. Iñaki Segurola

Espainiak Giza Eskubideen Europako Itunean jasotako hainbat eskubide urratu zituela iritzi zioten salaketa **jartzaileek;** adierazteko, biltzeko eta berme eraginkorrerako eskubideak, hain zuzen. Berria - Euskal Herria

· *izond* Hitz horiekin zabaltzen du José Ortegak bere saio oinarri-**jartzailea,** 1917an. Josu Zabaleta

**3** ***auzi-jartzaile*** *iz* auzia jartzen duen pertsona.

**Auzi-jartzaileak** bere testigantza adierazten zuen auzia ezartzeko; salatutakoak bereak adierazten zituen bere burua zuritzeko; eta epaileak egia bilatzen zuen testigantza batzuen eta besteen artean. Iñaki Iñurrieta

Zenbait **auzi-jartzaile** eta lekukok, berriz, bere buruaz beste egin dute eta hainbat proba desagertu egin dira, komunikabideek diotenez. Berria - Gaiak

Kay Wadey auzi-**jartzaileetako** batek azaldu zuenez [...]. Berria - Gaiak

Europako Auzitegiak kasu honetan **auzi-jartzailea** izateko zilegitasuna ukatu dio Eusko Jaurlaritzari. **Auzi-jartzaileen** argudio nagusia ere horixe izan zen. Berria - Euskal Herria

Auzi horrek ez du ohiko bide burokratikoa hartuko, ni neu izango bainaiz **auzi-jartzaile** eta salatzaile, eta ezin gezurtatuzko frogak aurkeztuko ditut. Jose Morales

· *izond* Eduardo Contreras abokatu **auzi-jartzailea,** berriz, ironiaz mintzatu zen: [...]. Berria - Mundua

**4** ***bertso-jartzaile*** bertsoak jartzen -ez bat-batean botatzen- dituen bertsolaria. ik **jarri 10.**

Ramos Azkarate Otegi **bertso-jartzailea** 1847ko martxoaren 28an sortu zen. Berria - Kultura

Donostiarren espiritu eta izaera hori erretratatzen du aldi berean Juan Bizente Etxegaray **bertso-jartzaileak**. Askoren artean

Oso **bertso-jartzaile** ugaria izan zela argi uzten du Zabalak atondu duen liburuaren mardultasunak: 3.500 bertso idaztea ez dago edonoren esku. Berria - Kultura

Bertsolaritzaren inguruko hainbat eragile biltzen ditu (bertsolariak, bertso-**jartzaileak,** gai-jartzaileak, epaileak, irakasleak, antolatzaileak, bertsozale engaiatuak). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**5** ***gai-jartzaile*** *(166 agerraldi, 5 liburu eta 41 artikulutan, edo* ***gaijartzaile*** *39 agerraldi, 3 liburu eta 2 artikulutan)* bertsolari

jaialdietan gaiak jartzen dituen pertsona.

Bihar 16:00etan Senpereko Ibarrun auzoko Inharrian, Xumai Murua eta Saroi Jauregi **gaijartzaile** dituztela. Berria - Kultura

**Gaijartzaile,** berriz, Manu Legarra, Josu Etxanobe, Alaitz Rekondo, Miren Bidarte, Mikel Legarra eta Migel Berekoetxea. Berria - Kultura

Mixel Itzaina gai **jartzaile** trebeak kudeatu du saio hori. Herria

Aurtengoan, **gai jartzaileen** lana saritu nahi izan dute. Berria - Kultura

**Gai jartzaileak** bertsolaria espazio eta kokapen zehatz batean jarriko du eta ondoren jarriko diote gaia. Berria - Kultura

Bertso saioetan **gai-jartzaile** lanak egiten dituenean. Xabier Etxabe

Bertso eskolak bertsolariak ez ezik, gai-**jartzaile,** antolatzaile eta epaile berriak sortzeko guneak dira. Berria - Kultura

**Gai-jartzaileari** ondo ulertu nion, ezkongaiak ziren eta Lazkanok dudak zeuzkan, bestea ez ote zitzaion aitaren dirutzagatik arrimatuko. Joxean Sagaztizabal

Dena den, jaialdi batean nahiz eta **gai-jartzaileak** marka dezakeen saioaren nondik norakoa, **gai-jartzailea** bigarren mailako aktorea da. Berria - Kultura

**Gai-jartzailea** sortzailea al da? Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bertso jartzaile** (4); **disko jartzaile** (8); **gai jartzaile** (27); **jartzaile lanak** (3)
**auzi jartzailea** (3); **disko jartzailea** (6); **gai jartzailea** (12)
**auzi jartzaileak** (3); **disko jartzaileak** (12); **gai jartzaileak** (25); **jartzaileak emandako gaiarekin** (3)
**disko jartzailearen** (3); **gai jartzailearen** (3)
**disko jartzaileen** (6)
**gai jartzailerik** (7)

---

# jartzailetza

## 1 *gai-jartzailetza* *iz* gai-jartzailearen jarduera.

Bai komunikazioan, bai antolaketan bertan, bai gai-**jartzailetzan,** bai epailetzan. Berria - Harian

Ba, duela urte dezente, 1991ko martxoaren 23an justu, Irunen zuten saioa, Joxerra Garzia gai-**jartzailetzan** zutela. Pello Zabala

---

# jartze *iz jarri* aditzaren aditz-izena.

B-ren bizitza bera eta errealitatearen arteko bionbo **jartze** etengabe bat bezalakoa izan zen. umea izateko bide bakarra hazi-**jartze** artifiziala baldin bada. Jon Alonso

Eguzki **jartze** lelaren izpiek Sena ibaia grisatzen zuten. Iñaki Zabaleta

Barkuei begira **jartze** hutsarekin zorabiatzen den horietakoa nauk ni. Harkaitz Cano

Ados **jartze** orokor baterako aukerarik badela iritzi diogu. Berria - Mundua

Frantses modernoa, objektu zuzena adierazi ahal izateko, izena aditz iragankorraren atzetik **jartze** soilaz baliatzen da. Isabel Arrigain

Baina zer-nolakoa izango ote zen ikaste hori, **abian-jartze** hori? Argazkiaren sorkuntza **agerian jartze** horretantxe datzala makina horien magia. Xabier Olarra

Berak orduan osatzen du, eremu marjinal bat baino gehiago, aztertzeko estilo bat, perspektiban **jartze** bat. Xabier Arregi

Horregatik harritzen ninduen zendu zenez geroztik Benito bertute guztien eredutzat **jartze** hark, edozer gauza egiten nuenean [...] haren zintzotasunaren aipua entzun beharrak. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ados jartze** (5)

---

# jartzia *iz pl* (ontziko) sokateria.

Fragata bat, eta marinelak **jartzietan** belak biltzen, eta baupres luze bat, akula erraldoiaren ziria airean bide egiten, hegan hasi behar duen hegazti zuriaren moko. Koldo Izagirre

Baupresaren muturretik trinketa nagusiaren eta mesanaren barrena txoparaino zetorren argizko xingola bat, masten **jartziek** beste ilara bana zuten, eta karelaren perimetro osoa ere gar txipitan zen. Koldo Izagirre

---

# jas 1 *iz* itxura; gorpuzkera.

Hortaz, "egin dezagun gizakia geure irudira" esatean, forma espezifikoa adierazi nahi zen, hau da, ahalmen intelektuala, eta ez itxura eta **jasa** . Xabier Kintana

Hogeita hamar bat urte jo nizkion, baina **jasa** zuen neska gazte batena bezain arin eta xaloa. Oskar Arana

Batetik, aire basatia eta primitiboa dauka eta, bestetik, kantetan ohituta dagoanaren **jasa** eta jagitasuna. Xabier Amuriza

Zekarren **jasa** ez zitekeela izan inon ikusi edo ikasitakoa, adorea eta segurantzia ere behar baitziren, horrela jantzirik, eskuan makila eta buruan txapela, agertzeko. Hasier Etxeberria

Tinaren duintasunezko eta nahigabezko **jas** hura doluzko alarguntasun irudi perfektua zen. Oskar Arana

Halaxe jokatzen du naturak: iratzearen **jas** ederra oihanlurreko usteltzatik ateratzen du, eta bazka-belartza simaurretik. Juan Garzia

Horra armada hori, halako **jas** eta muntakoa, printze delikatu eta xamur bat duela buruzagi. Juan Garzia

Beraz, Jainkoak gizaki itxura duela uste zuten, hau da, haren forma eta **jasa,** eta hortik, ondorioz, Jainkoaren gorpuztasunaren doktrina ateratzen zitzaien. Xabier Kintana

Haren **jasa** eta molde dotoreak handikiren baten mutila zela adierazten baitzuten. Edorta Jimenez

Halako dotoretasun bat bazuen Fogarty jaunak **jasean** . Irene Aldasoro

## 2 *jaseko izlag*

**Jaseko** hago! -gazteago behintzet bai. Txillardegi

Andreak hogeita hamarren bat urteko beltz bati heldu dio, **jaseko** eta are dotorea, lumazko kapelu [...] batez apaindua. Juan Garzia

Gizonak erabakitsu, **jaseko,** txairo, makinak bezala doaz. Gotzon Garate

Ez da gizakia, giza irudiko eta **jaseko** animalia baizik. Xabier Kintana

Hahor, hartzen duzuna hartzen duzula, gorpuzkera **jaseko,** mintzo dotoreko gizona, oratoriaren mausoleo bizia. Iñigo Aranbarri

Louvren esekita daukaten Karlos løa enperadore zaldiz dabilenaren irudi **jasekoa** . Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**itxura eta jasa** (4)

---

**jasa** **1** *iz* euriaz eta kidekoez mintzatuz, kopuru handia edo eraso bortitza.

Benetako **jasa** ari zuen. Bernardo Atxaga

Haien argiek zailki gurutzatzen zuten **jasa**. Iñaki Zabaleta

Erauntsi eta **jasa** egokitzen zaizunean, baztertzea hobe! Pello Zabala

Ez da hain ekaiztsua, ez da hain kolpekako **jasa** eta erauntsiak dakartzana, ez baita, berez, abendua ekaitz sasoia. Pello Zabala

Dendaren sarrerako aterpetxoan arropa zaharrez jantziriko gizaseme pare bat zegoen zigarroa erretzen, **jasaren** tanta zorrotzetan begirada galdurik. Iñaki Zabaleta

· Zure basamortu hartan gerta liteke tantaka hastea erasoa jotzea **jasa** botatzea erauntsia etortzea goian-behean egitea, letro adarka ibaika etxabotaka aritzea, zeruak irauli ahalean. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jarraitzen dute hotz gorriak, haize zitalak eta elur **jasek**. Lurgaineko beroxkak kilimatzen du hodeitzarron sabela, berotzen zaizkio erraiak, eta hor hasiko da bota eta bota, mendi kaskoak zurituz eta kostaldean kazkabar-**jasa** axkarrak oparituz... Xabier Montoia

Leihoan haize balen eta tartekako kazkabar **jasen** hotsa entzuten nituen.Uzta ona eskatzeko, eguraldi ona edo ekaitz trumiltsu eta harri-**jasa** gaiztoetatik libre ateratzeko. Txillardegi

Honek ekaitz **jasa** eta kazkabarraldi eta harri erauntsi askotatik libratzen lagundu dio nekazariari. Pello Zabala

Trumoi eta oinaztu **jasa**. Pello Zabala

Hormatzar ikaragarria altxatzen zen zerurantz, basoko zuhaitzetatik gora, eta goitik, ahotzar batetik, ur **jasa** izugarriak egiten zuen jauzi, putzu berde zabal batera. Jon Maia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, irud/hed)

Hango kolpe-**jasa**! Juan Kruz Igerabide

Ez zen tiro bat izan, zenbait tiro-**jasa** baizik. Koro Navarro

Metrailadoreen edo tiro bizkorreko kanoien tiro **jasa** bakoitzak ehunka jaurtitzen ditu obusak edo bala argitsuak. Kritika **jasa** haren aurrean harriturik, [...]. Josu Zabaleta

Sentimentuaren **jasa,** ekaitz eta, xuxen niokeenez, zirimolaren erdi-erdian. Juan Garzia

Pentsamendu galaraziaren aro honetan, deus galdetzeko gogoa egin baino lehen erantzun mordo bat emanez eta atergabeko informazio **jasa** hazkorrez lortzen da muinak asetzea, zopatzea eta ezertarako gauza ez direla uztea. Iñaki Segurola

Hitz-**jasa** hori bukatu arte itxaron zuen Perrettek. Jon Muñoz

Goizeko zortzi eta erdietatik eguerdia ondo jo zuen arte, hitz-**jasa** batek harrapatu ninduen, istorio, izkirimiri eta gai zentzuzko nahiz zentzugabeen gaineko hitz-uholde zinezko batek. Oskar Arana

Abenturazko liburu **jasa** bat izan zen, baita euskaraz ere. Berria - Kultura

**4** ***euri jasa***

Nekez ateratzen dugu guardasolik kalera, ezta euri-**jasa** handienarekin ere. Iñaki Segurola

Euri **jasa** zakarren artean. Txillardegi

Euri **jasa** bortitz batek eragotzita. Josu Zabaleta

Euri **jasa** galanta bota du horretan. Txillardegi

Kanpoan, zerua bitan zatikatu zen eta euri **jasa** izugarria askatu zuen. Fernando Morillo

Atzo arratsaldean egundoko euri **jasa** batek ustekabean harrapatu gintuela. Patxi Zubizarreta

Euri-**jasa** izan zen berrogei egun eta berrogei gauez. Elizen arteko biblia

Herri askoren gain euri-**jasa** isuraraziko dut, kazkabar, su eta sufrez. Elizen arteko biblia

Biharamunean, euri-**jasapean,** batailoi osoa behartu zuten Charlieren zigorraren lekuko izatera. Mirentxu Larrañaga

· Sheela plaza bazterreko palmondo baten azpian dago kuxkurtuta, goitik behera montzoi euri **jasa** den bitartean. Gotzon Garate

· Beheko jostura askatu [zakuari] eta babarrun pinttozko euri **jasa** bat, edo, hobeto esanda, txingorraldi bat erori da airean eskaileretan behera. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**euri jasa** (52); **euri jasa ari** (3); **euri jasa izan** (3); **hitz jasa** (4); **jasa izugarriak** (3)

**euri jasaren** (4); **euri jasek** (6); **euri jasen** (6); **euri jasen ondorioz** (3)

---

**jasaile** *(orobat **jasale**)* *iz* jasaten duen pertsona.

Antzina bizitzaren alderdirik basatiena ezagutzeko ez zegoen beste erremediorik; edo norbera zen eragilea, edo norbera **jasalea**. Pako Aristi

Komunitatea (ekilearen eta **jasalearen** arteko elkarreragina). Ibon Uribarri

Izenordain pertsonalak ingelesez hiru kasu ditu, menpekoa, aurkagarria eta **jasalea**. Xabier Olarra

Animoz une bajuenetan zegoenean [...] **jasailearekin** egoteak berak, halako neska ongi hezia eta ustekabeki hain atsegina zen batekin, animoa bizkortzeko eta, botika bailitzan, bere depresio hasi berriari aurre egiteko balio izan zion. Joxemari Iturralde

Hortaz, iruditzen zitzaidan halako sentimenduaren **jasaile** izatea eta erantzun onik ez lortzea badela aski zigor, horrez gainera inoren marmar-iturri bihurtzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Zonbat eztira, gutarik hurbil, ukaldi gaixto **jasaile**! Herria

---

**jasaka** *adlag* jasa boteaz.

Montzoi garaian euria egunero **jasaka** izaten da, erradaz botata bezala. Gotzon Garate

---

**jasaldi** *iz*

Egoera ez zela larria baieztatzen zuen, galdetutakoan, ez zela komeni alde egitea, alde eginez gero galduko zutela iraultzaren irakasgaia, gizon emakumeen barnekoa azpikoz gora iraulirik zintzoa gaizto bihurtuko zela, eta gaiztoa zintzo, eta ikuskizun horrek merezi zituela **jasaldiak**. Felipe Juaristi

---

**jasan,** jasaten **1** du *ad* zerbaiten pisuari edo indarrari eutsi.

Segidan, Oja ibaiaren hogoita lau arkuek **jasaten** duten zubia iragan dut. Piarres Aintziart

Hezur batek edo beste edozein elementu estrukturalek **jasan** ohi dituen indarrak bi motatakoak dira batez ere: konpresioa eta tentsioa. Irene Aldasoro

Honelako eraikuntza batek **jasan** behar izaten duen ur-presio gaitzari. Joxe Austin Arrieta

Habe solido batean, bada eskualde bat geruza neutral horren gainean eta azpian, konpresio- edo tentsio-indar nahiko txikiak **jasaten** dituena habea kargatzen denean. Irene Aldasoro

Planeta izoztua da Saturno, eta horregatik, izugarrizko presioa dago han; Cassinik **jasan** ahal izateko handiegia. Berria - Gaiak

Oso bestela gertatzen da errodamenduak karga handiak **jasan** behar dituenean mugimendu gutxi edo batere gabe. Irene Aldasoro

Tentsio mekaniko handiak **jasan** behar ditu larruazalak. Irene Aldasoro

Espektroaren zati horretan, bada, bilioitik baterako intentsitate-eskala **jasan** dezake belarriak. Irene Aldasoro

Ikusmen-kortex primarioa funtsean ukitu gabe zegoen, eta kortex sekundarioa zen [...] lesioaren ia zama guztia **jasan** zuena. Xabier Olarra

**2** gogaikarria edo gogorra gertatzen denari eutsi.

Ezin dut gehiago **jasan** . Elena Touyarou

Ezin dut **jasan,** ezin dut. Mirentxu Larrañaga

Baina ni ez naiz hain adoretsua, ezin dut presioa **jasan** . Mikel Hernandez Abaitua

Nik, berriz, ez dut **jasaten** Florentzia. Fernando Rey

Orain libre hagoela -niri-, haurrik **jasan** beharrik ez duk, bederen. Aingeru Epaltza

Basabazter haietan sugeak, eltxoak, inurriak eta mendigoizale kirolkoiak **jasan** behar direla. Iñaki Segurola

Ilehori dohakabeak oso *tête-â-tête* gogaikarria **jasan** behar izan zuen. Jose Morales

Noiz arte **jasan** beharko ote zuen emazte hura? Patxi Zubizarreta

Ezin nuen gehiago **jasan** denak nire zain egote hura. Joxe Austin Arrieta

Mutiko arrotz haren soa ez zezakeen **jasan,** urduritasun esplikagaitza sortzen zion. Elena Touyarou

Ezin ditu **jasan** negu bortitzak. Oskar Arana

Ezin ditut zaharrak **jasan,** zahar-zaharrak, esan nahi dut, beti kontent dabiltzan horiek. Karlos Zabala

-Zazpi eginahalak egin ditut, baina gibelak ez dezake gehiago **jasan..** . Elena Touyarou

Jende pila ezagutzen dut egia hori **jasan** ezin duena ahalegin izugarriak egin gabe. Karlos Zabala

Stepehenek, 15 urte beterik, ongi **jasan** zuen bidaiaren nahasmendua, urte batzuk lehenago ez bezala, bere onetik aterata ibili baitzen orduan. Xabier Olarra

Izugarriak **jasan** ditut etsaien aldetik. Jose Morales

Musulmanen erasoak denbora gehiagoz **jasan** ezinik, iparraldeko etsaiari, Charles Marteli, eskatu zion laguntza. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ezin da atsegin hau **jasan** ! hiltzera noa... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** pairatu. ik **eraman**; **nozitu.**

Gure seme-alaba eta ikasleei azaltzea nolakoa izan zen guk jaso -eta **jasan** - genuen hezkuntza. Joxerra Garzia

El Salvadorren lan egitera derrigortuta dauden haurren %60k tratu txarrak **jasaten** dituztela salatu du HRW erakundeak. sufrimendua **jasateak** giza bihotza anitz gauza ulertzera irekitzen duenez, [...]. Askoren artean

Ageri da ezen, bera auzitan ezarria dela jakitea **jasan** duela eta pairatzen duela. Piarres Xarriton

Inork ezin duela beste inoren minik **jasan** eta sufritu. Felipe Juaristi

Esamesa zebilen nire aitonak bere burua hil ote zuen, haren infideltasunak **jasan** ezinez. Juan Garzia

Amets txar baten antzeko zerbait **jasan** duela. Bernardo Atxaga

Gure herritarrek **jasan** ohi dituzten bidegabekerien aurka jazartzean. Piarres Xarriton

**Jasan** behar izan zituen irainak eta laidoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kezkatu egiten ninduen pentsatzeak zer oinaze ez ote zituen **jasan** bere sekretu hari eusteko. Oskar Arana

Eta Eliza horren esker txarra **jasan** behar zutela gure herritar anitzek eta orobat gure Euskal Herriak. Piarres Xarriton

Berak **jasan** zituen nekeak zuk ere **jasan** izan dituzulako. Elizen arteko biblia

Une hartan, ezin izan zuen **jasan** galera haren larria. Xabier Olarra

Aro gogorrak ziren: bakartasuna gaztigu gisa **jasan** zuen. Itxaro Borda

Eta ez du martirioa **jasan** nahi. Jon Alonso

Hamaika umiliazio eta errepresalia **jasan** behar izan zuten. Joan Mari Irigoien

Eraso gogorrak **jasan** zituzten langileek egun haietan. Rafa Egiguren

Nazioarteko mekanismo honek, 1960ko hamarralditik aurrera, eurodolarren merkatuaren konkurrentzia **jasan** behar izan zuen. Koro Navarro

**4** izan.

Hizkuntza aldatu egiten dela, edo hobe esanda, bilakaera bat **jasan** duela. Iñaki Heras

Plaza zeharkatu zuten eta denbora luzea aldaketarik **jasan** gabe egona zela zirudien etxe bati buruz abiatu ziren. Elena Touyarou

Geroztik, anitz gorabehera **jasan** duela sabindar alderdiak. Piarres Xarriton

Histura bulta **jasan** zuen Agatak. Itxaro Borda

Bost urte zituela trauma ikaragarria **jasan** zuen. Fernando Rey

Denborak aurrera egin ahala istripu larririk **jasan** gabe handitzen ari bainintzen. Juan Kruz Igerabide

Bihotzeko bi hutsegite **jasan** izan zituen iragan hiru urteetan. Oskar Arana

Europako Batasunean 48 milioi lagunek **jasaten** dute 2 motako diabetesa, eta, Osasun ministroek goi bilera hasi zuten atzo gaiaz mintzatzeko. Berria - Gaiak

**5** ***ezin jasanezko*** *izlag*

Solas nahasia, ezin **jasanezko** zentzugabekeria zorrotza! Janbattitt Dirassar

Ezin **jasanezko** pena baten zama idorrak lehertua zeukan Josepe. Janbattitt Dirassar

Ezin **jasanezko** mina sentitzen zuten. Irene Aldasoro

Ezin **jasanezko** oinazeak dituenean. Askoren artean

Eta gau hartan, besteren logelako isiltasun eta bakardadean, ezin **jasanezko** izu batek hartu zuen goi-mailako funtzionarioa. Jose Morales

Harik eta beheraldiaren azkengabearen ideia hutsak zorabio ezin **jasanezko** bat gaineratu zidan arte. Koro Navarro

Ausaz zuk erdeinatzen dituzun emakumeekin nahasiko eta haiek bezain arinki tratatuko ote ninduzun ideia ezin **jasanezkoa** . Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**aldaketa jasan** (7); **asko jasan** (15); **egoera jasan** (6); **eragina jasan** (6); **erasoa jasan** (26); **erasoak jasan** (17); **ezin dut jasan** (16); **ezin jasan** (44); **ezin zuen jasan** (21); **gehiegikeriak jasan** (12); **hainbat eraso jasan** (6); **herriak jasan** (7); **herritarrek jasan** (6); **hobenaren ondorenak jasan** (6); **indarkeria jasan** (12); **irainak jasan** (7); **jasan beharra** (19); **jasan beharreko** (10); **jasan ezina** (7); **jasan ezineko** (8); **jasan ezinik** (29); **jasan izana salatu** (20); **jaso eta jasan** (5); **jazarpena jasan** (19); **kalte gehien jasan** (8); **kaltea jasan** (6); **kalteak jasan** (20); **kalterik jasan** (12); **kalterik jasan gabe** (6); **lagunek jasan** (7); **mehatxuak jasan** (11); **mina jasan** (5); **nekez jasan** (6); **ondorenak jasan** (14); **ondorioak jasan** (16); **porrota jasan** (6); **presio handia jasan** (7); **presioa jasan** (8); **presioak jasan** (10); **sexu gehiegikeriak jasan** (5); **tortura jasan** (10); **torturak jasan** (38); **tratu txarrak jasan** (37); **zauri larriak jasan** (5); **zauriak jasan** (14); **zigorra jasan** (9)

**atxilotuek jasandako** (5); **jasandako eraso** (7); **jasandako kalteak** (5); **jasandako tortura** (5); **jasandako torturak** (8); **jasandako torturen** (12); **jasandako tratu txar** (5); **jasandako tratu txarrak** (9); **jasandako tratu txarren** (8); **jasandako zaurien** (5); **tratu txarrak jasandako** (5)

**epaiketa bat jasateko** (5); **jasateko arrisku** (5); **jasateko gai** (6); **jasateko gauza** (6); **jasateko prest** (9)

**emakumeek jasaten** (8); **erasoak jasaten** (14); **euskal presoek jasaten** (5); **indarkeria jasaten** (16); **jasaten ari** (162); **jasaten ari diren** (37); **jasaten duten egoera** (5); **jasaten duten emakumeak** (5); **jazarpena jasaten** (17); **nekez jasaten** (9); **ondorioak jasaten** (10); **presio handia jasaten** (6); **presioak jasaten** (5); **presoek jasaten** (9); **tratu txarrak jasaten** (37); **zigorra jasaten** (5)

---

**jasanarazi,** jasanaraz, jasanarazten du *ad* jasatera behartu. ik **pairarazi.**

Izugarriko presioa **jasanarazten** digute Sarkozyk boterea hartu duenetik. Berria - Harian
Euskal Herriak menderen mendeetan jasan eta **jasanarazi** duen bortizkeria politikoaren eritasunaren sendatzeko puntura helduak garela. Itxaro Borda
Aeme-alabei **jasanarazten** dizkiezu gurasoen gaiztakeriaren ondorenak. Elizen arteko biblia
Aurrez egarria **jasanarazi** zenien. Elizen arteko biblia
Mikel Strogoffek, bere aldetik, biei tormentu bera **jasanaraziko** zietela pentsatzen zuen. Karlos Zabala
Mikel Strogoffek, bere aldetik, biei tormentu bera **jasanaraziko** zietela pentsatzen zuen. Karlos Zabala
Ez die horrelako desohorerik **jasanarazi** nahi. Oskar Arana
Orok badakite zer sofrikarioak **jasanarazten** zizkieten garai hartako judueri. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jasanarazitako tratu** (5)

---

# **jasanbera** *izond* jasateko joera agertzen duena.

Franco garaiko Justizia zurruna zela txiroekin, **jasanbera** klase ertainekin, eta otzan jauntxoekin. Whittaker andrearen adeitasunezko jokamolde **jasanbera** hura ez zen mugatzen soilik beraren ahaide zorigaitzekoenengana. Mirentxu Larrañaga
Baina harridura **jasanbera** zen, ez erretxina. Mirentxu Larrañaga
Bere ahots adeitsu eta **jasanberaz**. Mirentxu Larrañaga

---

# **jasanezin** *(orobat **jasan ezin** g.er.)* **1** *izond* ezin jasanezkoa. ik **jasangaitz**.

Kontzientzia psikologiko, moral eta profesionalaren pisuak berak ere [...] indar **jasanezinez** estutu gaitzake batzuetan. Xabier Olarra
Bere onetik aterata eta etsiak harturik mugitzen zen ziega barruan, hagineko min **jasanezina** duen norbaitek egingo lukeen bezala. Jose Morales
Barre-algara **jasanezin** batez hartu zuen don Ottaviok galdera. Jon Muñoz
Errealitate **jasanezina** mozorrotu nahiko luke. Monika Etxebarria
Ez dut berriz munduratu nahi, obligazio **jasanezina** iruditzen zait. Karlos Zabala
Jukutria **jasan** ezinak egin zizkien. Elena Touyarou
Kolpetik ohartu nintzen Monika betiko galdua nuela eta, minarekin batean, lotsa **jasanezin** bat sentitu nuen bere gelan maite nuela esanez utzi nion gutunarekin gogoratuz. marea beltz eta hondamendi ekologiko **jasanezinen** arduradunak eta hobendunak nor diren jakin arte. Joxean Agirre
Zerion kirats nardagarri **jasanezinagatik**. Elizen arteko biblia
Urdaitegiak nazka eman zion berriz ere, lehen baino modu **jasanezinagoan**. Karlos Zabala
Izatearen arintasun **jasanezinak** oro berdinduko gaitu. Karlos Linazasoro

**2** (izan aditzarekin)

Barruko piztia **jasanezin** zaienek kanpoko egiazko piztiak hiltzeko joera izaten dute. Markos Zapiain
Ni, ordea, ukitu egiten naute, **jasanezina** da. Isiltasuna **jasanezina** da. Monika Etxebarria
Inurri lana **jasan ezina** baita lilurarik gabe. Joxerra Garzia
Tentsioa **jasanezina** zen ordurako. J.M. Olaizola "Txiliku"
Hango beroa **jasan** ezina zen. Elena Touyarou
**Jasanezina** baitzen arropa bustia soinean. Joxe Austin Arrieta
Martinaren irria **jasan ezina** zitzaidan. Itxaro Borda
**Jasanezinak** zitzaizkion museo eta galeriak, eta berdin bere margolan kuttunen kopia koloretakoak. Xabier Olarra
Bertan zegoen Jaunari iraingarri eta **jasanezin** zitzaion idoloa. Elizen arteko biblia

**3** (beste aditz batzuekin)

Baina, azkenean, exekuzioa hurbildu ahala, irudi hautsien oldarra **jasanezin** bihurtu zen. Jose Morales
Egoera okerragotzen ari zen, eta laster **jasan** ezina bihurtuko zen. Elena Touyarou
Hain **jasanezina** eta mingarria gertatu zitzaion hori guztia [...], ezen hortzak karraskatu baitzituen, tristuraz. Jose Morales
Kanpoan iragan zituzten bi minutuak **jasan ezinak** iduritu zitzaizkion. Ramuntxo Etxeberri
Zakurra ez da aurrera egiten ausartzen, beldurra **jasanezina** egin zaio. Jon Alonso
Lehen gozo eta leun iruditzen zitzaizuna, **jasanezina** eta samina egingo zaizu. Askoren artean
· Tripa zorriak esnatu zitzaizkion, **jasanezin,** errukigabe. Karlos Zabala

**4** (izen gisa)

**Jasanezin** hori larri-larria izan daiteke baldin eta pertsona "kitzikatzailea" tourettedunaren atzean badago. Xabier Olarra
Vasili Kashirin [...] **jasanezinak** harturik zegoen, baina ahalegin biziak egiten zituen beldurra menderatzeko eta epaileei ez erakusteko. Jose Morales
**Jasanezina** jasaten du eta beste guztiak harekin bakeak egitera erakartzen. Askoren artean
Zapaltzaileak markatzen du beti **jasanezinaren** neurria. Hasier Etxeberria
· Eta **jasanezinetan jasanezinena** zen Normandoaren tar-tar taigabea. Aingeru Epaltza

**5** ***jasanezineko*** *izlag* jasanezina.

Zoritxarrekoak zuzengabeko legeak ematen eta **jasanezineko** dekretuak idazten dituztenak! Elizen arteko biblia
Bero **jasanezineko** egun honetan. Anton Garikano
Higuina ematen zioten maukek, amorrua txanoak, eta haren luzera eta laztasuna **jasan ezineko** zama iruditzen zitzaizkion. Askoren artean
Garbiegi dituzu begiak gaiztakeria aurrean edukitzeko, **jasanezineko** duzu zapalketa. Elizen arteko biblia
Gizonen inbidia pittin bat dut nik hori dela-eta, aberastasun sinboliko **jasanezinekoa** da hazia isurtzeko momentua. Karlos Zabala

**6** ***jasanezinezko*** *izlag* jasanezina.

Fede basa eta neurotiko hura eta hari lotua zitzaion **jasanezinezko** pairamena. Piarres Aintziart
Eta hori gogoratzen dudan aldioro halako lotsa **jasanezinezko** bezalako bat hasten zait barru-barrutik ernatzen. Jon Alonso
Horiek bihotzekoaren ohiko sintomak zirela jakiteko beste irakurria nintzen, eta minak handituz jarraitzen zuenez, are bizitasun **jasanezinezkoagoen** mailak igotzen jarraitzen zuenez, pentsatu nuen iritsia zela nire unea. Oskar Arana
Bakartasuna **jasan ezinezkoa** zitzaidan. Itxaro Borda
Ezjakitearen agonia **jasan ezinezkoa** gertatu zitzaidan azkenean. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jasanezin bihurtu** (4); **jasanezin egin** (3)
> **; beroa jasanezina** (5); **egoera jasanezina** (25); **egoera jasanezina bihurtu** (3); **erabat jasanezina** (3); **izatea jasanezina** (3); **jasanezina dela ohartarazi** (3); **jasanezina egin** (9); **jasanezina egin zen** (3); **jasanezina egiten** (13); **jasanezina egiten zitzaion** (4); **jasanezina gertatzen** (3); **jasanezina iruditzen** (3); **jasanezina izan** (7); **jasanezina**

izango (5); jasanezina izateraino (4); kiratsa jasanezina (3); mina jasanezina (4); presio jasanezina (3); usain jasanezina (5); zarata jasanezina (3)
baldintzak jasanezinak (4)

---

**jasanezintasun** *iz* jasanezina denaren nolakotasuna.

Jaki batekiko **jasanezintasuna** eta alergia gauza bera dira? Berria - Gaiak

Beren **jasanezintasuna** mutur beltza eta kopeta iluna bihurtzen zen, begiratu hitsak eta aurpegi hotz-hotzak. Fernando Rey

---

**jasangaitz** **1** *izond* nekez jasaten dena, ia jasanezina.

Zama **jasangaitza** izandako zalantza. Imanol Unzurrunzaga

Gizon **jasangaitz** haserrekor batek darama filmaren haria. Berria - Kultura

Egoera **jasangaitz** honi nolabait aurre egiteko. Berria - Mundua

Desira **jasangaitz** eta sutsuak. Joan Mari Lekuona

Une txikien pilo handiaren neke **jasangaitza**. Lourdes Oñederra

Normal samar jasotzen zituen zuri-beltzeko irudiak; koloretako irudiei begiratzean gauza bitxi eta **jasangaitz** bat gertatzen zitzaion. Xabier Olarra

Eguneroko telefono dei haiek zigor **jasangaitz** bihurtu zitzaizkion. Joxemari Iturralde

Usain **jasangaitzeko** tabako mentolatua. Aingeru Epaltza

**2** (izan aditzarekin)

Beroa **jasangaitza** zen. Iñaki Mendiguren

Bere ahulezia ergelaren isla emaztearen begietan, horixe zaio **jasangaitz**. Berria - Kultura

Gero eta **jasangaitzagoa** zitzaidan ikuskizuna. Joan Mari Irigoien

Baina zer axola dio harrotasunak, **jasangaitza** bazait harekin hitz egin ezina? Mirentxu Larrañaga

Pistolak **jasangaitzak** zitzaizkion. Mirentxu Larrañaga

**3** (beste aditz batzuekin)

Baionako etxea gertatzen zitzaidan **jasangaitz**. Txillardegi

Zaldi hezigabea menperagaitza izaten da, bere gisara utzitako semea **jasangaitz** bihurtzen. Elizen arteko biblia

-Esan dizut ikaragarri **jasangaitza** egin zaidala zure hutsunea -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

Isiltasuna mintzatzea baino askoz **jasangaitzagoa** iruditzen zitzaidalako. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> egoera jasangaitza (10); jasangaitz bihurtu (4); jasangaitz egiten (3); jasangaitza egin (3); jasangaitza egiten (3); jasangaitza izan (6)

---

**jasangarri** **1** *izond* jasan daitekeena.

Probak eta probak eginez, bizimodu **jasangarri** batera ez ezik, bizimodu atsegin eta zentzuzko batera iritsia ote zen? Josu Zabaleta

Nahiko **jasangarria,** pentsatzen du bere artean, eta nahiko alaia. Oskar Arana

Esan liteke honelatsu direla gauzak, erabat harturik eta salbuespenak salbuetsirik: neurri **jasangarri** batetik aurrera, bat zenbat-eta abertzaleago orduan-eta españolagoa dela izatez. Iñaki Segurola

Lagunaren eleketa firfira **jasangarri** baten gisara egokitzen zen ene belarrietara. Aingeru Epaltza

Itxaronaldia **jasangarriago** bihurtzeko asmoz. Agustin Otsoa

Jonathan Swift-ek beste errezeta gehigarri bat aurkitu zuen heriotzaren ideia **jasangarri** egiteko. Juan Garzia

**2** (izan aditzarekin)

830 langileek eskatzen duten gastua estatuko bana bestekoa baino apalagoa dela eta hiriaren zorra **jasangarria** dela. Herria

Hipotesi ausartenak ere, fisikoak baino ez direnean, hiperfisikoak baino **jasangarriagoak** dira, h[au] d[a], honen mesedetan aurresuposatzen den jainkotiar sortzailera jotzea baino **jasangarriagoak**. Ibon Uribarri

Zuri-beltzeko argazkiak, berriz, **jasangarriago** zitzaizkion. Xabier Olarra

Estudioan baizik ez zitzaion **jasangarri** bizitza. Xabier Olarra

Heriotzaren ideia **jasangarri** samar bazaigu, zerari zor diogu hori: ordua, salbuespenak salbuespen, aldez aurretik jakin ezina izateari. Juan Garzia

**3** (ekologian) iraunkorra.

Azken urteetan garapenaren beste ikuspegi bat ere nabarmendu izan da: garapen eramangarria edo **jasangarria**. Iñaki Heras

Garraio **jasangarriaren** eredua. Berria - Euskal Herria

Erraustegien aldeko apustua eta zaborraren kudeaketa **jasangarria** bateragarri ote dira? Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> garapen jasangarria (16); garapen jasangarriaren (13); garapen jasangarriaren aldeko (4); garraio jasangarriaren (3)

---

**jasangarritasun** *iz* iraunkortasuna. ik **jasangarri 3**.

Bi helburu horietaz gainera, Euskal Herriko «eraikuntza soziala eta **jasangarritasuna»** ere xedetzat hartu dituzte Arabako hautagaiek. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta *sustainability* hitza euskaratzeko **"jasangarritasuna"** erabili izan maizenik, tranpetan ez erortzeko eta terminoari duen benetako balioa emateko, argi dago "iraunarazgarria", "eramangarria" edo "bateragarria" behar duela, ez baita "jasan" edo "pairatu" daitekeen zerbait. Iñaki Heras

---

**jasangogor** *izond* zaila, egoera gogorrak jasaten dituena.

Astotxo ttikiak dira (ez, ordea, katu adinako ttiki, kontinentean esaten zenez), baina sendo eta **jasangogor**. Juan Garzia

---

**jasangogortasun** *iz* jasangogorra denaren nolakotasuna.

Esan ziguten gure **jasangogortasun** burlati hura ez zela aski; sumin bihurtu behar zela, eta sumin hori iraultza organiko eta xuxen baten ildora ekarri: baina ez ziguten irakatsi nola fabrikatzen den bonba bat, ez eta fusila nola erabiltzen den ere. Juan Garzia

---

**jasankeria** *iz*

Alabaina, politikarien edo kultura arduradunen ahoetarik isurtzen zen hitz horrek, kolonialismoaren samin gustua zeukan enetako, hainbatetan gaitzetsi lehenagoko **"jasankeriaren"** beste apaindura bat zen, hots. Itxaro Borda

---

**jasankizun** *iz* jasan behar den gauza.

**Jasankizunik** ez du inork nahi, jasatea maite badu ere. Imanol Unzurrunzaga

---

**jasankor** **1** *izond* eraman handikoa dena.

Horregatik da Jauna gizakiekin **jasankor** eta bere errukia isurtzen die gainera. Elizen arteko biblia

Kosako talde batek babestu eta kolpe bortitzez zabaltzen zioten bidea jendetza **jasankorraren** artetik. Karlos Zabala

Hemen, gizonaren izpiritua ere agertzen duk bere aberastasunean: gogoa argi, zehatz, kementsu, **jasankor,** sekulan etsitu gabe, aski abila jokoaren aitzinetik asmatzeko, kontrakoaren ahalak eta hutsak berehala neurtzeko; zuzena, ez bihurria, ez zikanatzale, ez gezurti. Michel Oronoz

**2** (izan aditzarekin)

Mundu zapaldua zen, mundu mindua, mundu **jasankorra** eta esperantzaz betea, mundu galdua. Berria - Kultura

Errurik gabeko ezjakintasunaren aurrean tolerante izatea zein ausarkeriaren aurrean **jasankorra** izatea prestakuntza moral onaren seinalea da. Jon Alonso

Onar ezazu letorkizukeen guztia, izan **jasankor** zeure apalaldiko ezbeharretan. Elizen arteko biblia

Izan apal, otzan eta **jasankor,** elkar maitekiro eramanez. Elizen arteko biblia

---

**jasankortasun** *iz* jasankorra denaren nolakotasuna.

Urrun doan ibiltariaren baitan zuhurtziak ezartzen baitu **jasankortasun** iraunkorra. Piarres Aintziart

Hortik dator ideia ezegokiek gehienean osatzen duten Izpiritua izatea gehienik jasaten duena eta haren **jasankortasuna** izatea haren eraginkortasuna baino lehen hura bereizten duen ezaugarria. Piarres Xarriton

**Jasankortasunean** hazi naiz, nolabait esatearren; **jasankortasunak** hezi nau, **jasankortasunak** elikatu nau, esan nezake hezur-haragizko **jasankortasuna** bera nauzula. Jose Morales

Zintzoaren **jasankortasuna** ere ez da hutsean geratuko. Elizen arteko biblia

---

**jasateke** *adlag* jasan gabe.

Ez zekien zein motatako kontrola izaten zen muga igarotzeko, baina bazekien eguneko azken bihotz iraulia **jasateke** zegoela. Unai Iturriaga

---

**jasmin** *(orobat **jazmin**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jasmin** agertzen da)* **1** *iz Oleaceae* familiako landare aihenduna, lore zuri urrintsuak ematen dituena *(Jasminum sp.).*

Han-hemenka, izotzetik babesteko, hegora begira jarritako limoiondoek, bugainbileek, gliziniek eta **jasminek,** paradisu bildua bilakatzen dute bazter hau. Hasier Etxeberria

Ostera ez ikustea nola jolasten zen haizea **jasminetan**. Juan Garzia

Zaldi haiek udako gau batean loretan den **jasminarena** bezalako argia ematen zuten, hain ziren zuriak. Fernando Rey

**2** landare horren lorea.

Gelako koloreak oso leunak ziren, eta, txoko batean, **jazmin** bi ageri ziren pitxar lepaluze batean, neskatxa gazte bi bezain lirainak. Javi Cillero

Ahal zuelarik, logeletan ezartzen zituen tulipa, edo margarita, edo **jasmin** batzuk, beti, airostasun eta usain ona ematen zutenak. Daniel Landart

**3** (hitz elkartuetan)

Ate inguruko **jasmin** landarea. Koldo Biguri

Txoritxoon burrunba entzuten zen **jasmin** lore artean, lorez ia abaildurik baitzegoen arbola. Juan Garzia

Garbi diezazkizutela oinak **jazmin** urez, eta burua Pertsiako ukenduz igurtzi. Javi Cillero

**Jasmin**-usaina gela osoan barreiatu zen. **Jasmin** usaina galdu gabeko ukendu pote hutsak. Jose Morales

**Jasmin** hatsa zerion neskatxari. Karlos Zabala

---

**jaso**, jasotzen **1** du *ad* lurrean-edo dagoena altxatu.

Maleta **jaso** du abokatuak, eta makurtu delarik alkandoraren lepoaren barru aldea agertu zait, zuri, izerdi arrastorik gabe. Koldo Izagirre

Lurretik **jaso** zuten sendagileak eta erizainak alboko gelatik presaka etorrita. J.M. Olaizola "Txiliku"

Galtzak lurretik **jaso** eta heriosuharrean janzten hasi zen. Pako Aristi

Lurra garbitu, isilik, eta kikara **jaso** zuen. Anton Garikano

Harri-jasotzaileak kokotsa igurtzi zuen, eta baietz esan zuen, bost bider **jaso** zezakeela esku bakarrez minutu batean. Juan Kruz Igerabide

Axenariok hegala apurtuta duen oilagorra **jaso** du, harrotasunez astindu eta bolbora usaina arnastu du. Itziar Otegi

Joseluk zakutoa bizkarrera **jaso** eta bestearen urratson hariari jarraitu zion. Josu Landa

**2** altxatu, goratu.

Gora egin zuten urek eta ontzia lurretik **jaso** zuten. Jose Antonio Mujika

Lurretik apur bat **jaso,** beste eskuaz burua jirarazi, eta zuzen-zuzen begiratu zidan. Juan Kruz Igerabide

Pultsuan **jaso** zuen gorputza eskuinekoarekin. Koldo Izagirre

Pisu astun bat **jaso** behar denean. Irene Aldasoro

Gero, edalontzia **jaso** zuen ostera ere: "Zure osasunaren alde, osaba Nat". Oskar Arana

Gizonak ere burua makurtu, kapela **jaso** eta irribarre atsegin bat egin zion. Irene Aldasoro

Gona **jaso** nuen nire kulero zuriak azaldu ziren arte. Juan Martin Elexpuru

Eskua **jaso** nuen, beste txokolate bat eskatzeko. Juan Kruz Igerabide

Ukabila **jaso** zuen batek. Juan Kruz Igerabide

Etxekoandreak sorbaldak **jaso** zituen. Karlos Zabala

Bekainak **jaso,** eta, begiak grabatutik saltzailearengana, eskaintza hari buruzko argibideren bat eskatu nion. Anjel Lertxundi

Emakumeak zerura **jaso** zituen begiak, baina ez zuen deus esan. Anjel Lertxundi

Goiko habeari heldu, eta airean **jaso** zuen Ana esku batez. Juan Kruz Igerabide

Leihoko pertsiana **jaso** zuen. Lopez de Arana

Estalkia **jaso** zuenean, diamantearen forma bereko kristal puskak besterik ez omen zeuden kutxa barruan. Anjel Lertxundi

Orduan, harmoniumaren egurrezko tapa **jaso** eta, [...]. Pako Aristi

Behe-lainoa **jaso** du, eta eguzkiaren argia turrustan sartzen da leiho irekietatik. Oskar Arana

Kontenplazioaren hegoetan **jasota** . Askoren artean

## **3** irud/hed

Zugana **jaso** dut bihotza. Anjel Lertxundi

Euskal Herrian ere, dozenaka ezagutuko dituzu, burua **jaso** ezinik dabiltzanak. Gotzon Garate

Abesti pasarte batzuk kantatu nituen ahotsa **jaso** gabe. Josu Zabaleta

Aitasantutzako ohorera **jasoa** izan zenak. Askoren artean

Otoitz bat eta bestea goieneko mailara **jasorik** daude bizitasunean, tarterik gabe. Joan Mari Lekuona

## **4** bildu, hartu, bereganatu.

Han Helen **jaso** eta denok afaltzera joateko. Bernardo Atxaga

Lainoa altxatzen zenean, berriz, kanpamentua **jaso** eta abian jartzen ziren. Jose Antonio Mujika

Gero, hartu ez genituen zukuak eta galletak **jaso** zituen. Juan Kruz Igerabide

Sukaldea **jaso** eta ontziak garbiturik, ama telebistaren aurrean esertzen zen. Juan Kruz Igerabide

Etxerako zerbait baliagarri **jaso** edo salmenta eginez txanpon batzuk ateratzeko asmotan. Pako Aristi

1856ra arte, haren gutunak **jaso** zituen berandutik berandura. Karlos Zabala

Arlotea kalean **jaso** eta etxera eraman du. Karlos Zabala

Eskuan **jaso** nuen pistola; bazuen pisurik burdin puska hark. Juan Kruz Igerabide

Matildek, **jaso** duen bezalaxe, itzuli egin dio musua. Itziar Otegi

Neskak soldata **jaso** berria zuen, eta Charvetek hamar libera uzteko eskatu zion. Karlos Zabala

**Jasotako** dirua, Alderdiaren hainbat sorospen-erakundetara bidaltzen genuen. Anjel Lertxundi

Prezipitazio intentsitatea **jaso** eta apuntatu. Pello Zabala

Dena zuzen **jaso** diat? Aingeru Epaltza

Zuritutako ilea atzean **jasoa** dakar, betiko moduan. Xabier Etxabe

Bada atsotitz bat ere Bizkai aldean **jasoa,** *San Estebantxu, leheneratsu* dioena. Pello Zabala

Zireneko Jasonek idatzitako bost liburuetan daude **jasoak** gertakari hauek. Elizen arteko biblia

San Joanen ebanjeliotik **jasoa** . Patxi Ezkiaga

## **5** irud/hed

Xabierrek aise **jaso** du mezuaren mamia: egoera larria da oso. Anjel Lertxundi

Bere ezetzik biribilena **jaso** nuen arren. Xabier Montoia

Ez duzu erantzunik **jaso** . Rafa Egiguren

-Jipoi handia **jaso** al duk? Rafa Egiguren

Ondo merezitako txaloak **jaso** zituen neskak. Irene Aldasoro

Amak egundoko kolpea **jaso** zuen; aitaren heriotza bat-batekoa iruditu zitzaion. Juan Kruz Igerabide

Hiltzeko mehatxuak **jaso** zituen, traidoretzat hartu zuten, eta Ingalaterrara ihes egin behar izan zuen. Karlos Zabala

Agindu berririk **jaso** arte. Jon Alonso

Gure seme-alaba eta ikasleei azaltzea nolakoa izan zen guk **jaso** -eta jasan- genuen hezkuntza. Joxerra Garzia

Familia ohoretsua da zurea, heziketa ona **jaso** duzu. Karlos Zabala

Azalduko ditut, beraz, horiengandik **jaso** ditudan irakatsiak. Santiago Iruretagoiena

Italiar eta alemanen laguntza **jaso** ezean, gorriak ikusiko zituzten gerra irabazteko. Alberto Ladron Arana

Etsipena etsipenaren gainean, besterik ez dut **jaso** . Juan Kruz Igerabide

Ekarri oraintxe konfesore bat nire aitortza entzun dezan, eta eskribau bat nire testamentua **jaso** dezan. Patxi Ezkiaga

Isilpeko informazioa **jaso** . Serio ala txantxetan, hala **jaso** zian paperean! Pako Aristi

Zaragozako Unibertsitateko Ekonomia irakaslea da eta Goldman saria **jaso** berri du. Edurne Elizondo

## **6** eraiki.

Etxe berriak **jaso** dituztela, trafikoa marduldu dela... Pako Aristi

Hesola bat **jaso** dute ezpel-pilaren erdian eta bertan lotu dute andre Madalen. Anjel Lertxundi

Eta hurrena, Samek hesi bat **jaso** zuen eta Cliffek beste bat. Koro Navarro

Bestaldetik, adivasien haurrentzat eskolak **jaso** ditu. Gotzon Garate

Alexandrian eta Bagdaden, behatoki bana **jasoa** zuten. Jon Muñoz

## **7** (era burutua izenondo gisa) altxatua, goratua.

Tren **jasoaren** burdinazko egitura atzean utzita. Lopez de Arana

Lepoa luzatzen zuen, kiribilkatzen zen, eta ukitzen ez nuenean, zutitu eta nire esku **jasoaren** kontra bultzatzen zuen burua. Josu Zabaleta

Lurrean kuxin batean eseri nintzen, nire belaun **jasoak** beso artean hartuta. Josu Zabaleta

Aire hezetasun **jasoegia** iruditzen zitzaidala, zeru hain garbiak ikusita... Pello Zabala

Jainkoak egitate bat eman dio sorkari guztiei berak duenaren antzekoa: zeruari, eguzkiari, izarrei eta maila **jasoagoan** aingeruei eta gizakiei, bakoitzari bere izate bereziaren arabera. Joan Mari Lekuona

Gauza handiez eta **jasoez** handitasunez eta jasotasunez behar da hitz egin. Joan Mari Lekuona

Zeregin **jasoetan** erdarara jotzeko ohiturak sustrai sakonak ditu. Koldo Zuazo

Nork erabakitzen du zer den maila **jasoagokoa** ? Ana Urkiza

Zuzenketak (hitzaren zentzurik **jasoenean)** . Juan Garzia

## **8** (era burutua izenondo gisa) goi mailakoa.

Hizkera **jasoan** ez ezik, lagunartekoan ere. Koldo Zuazo

Euskara **jasoa** eta euskaldun guztiendako ulerterraza. Koldo Zuazo

Hizkera estandar **jasoaz** gainera, beste hizkera batzuk ere bazirela onartu zen horrenbestez. Koldo Zuazo

Gizonezkoek idatzitako literatura **jasoagoa** dela dirudi emakumezkoek idatzitakoa baino... Ana Urkiza

-Noizbait ikasiko al duzu esamolde **jasoagorik** erabiltzen? Patxi Zubizarreta

Musika **jasoa** lantzen zuen musikari batek. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

abisua jaso (24); agindua jaso (62); agiria jaso (15); agurra jaso (14); airean jaso (9); atxikimendu jaso (8); atxikimendua jaso (12); babes handia jaso (8); babes zabala jaso (8); babesa jaso (119); baikor jaso (9); baimena jaso (37); baloia jaso (11); begiak jaso (76); begirada jaso (26); bekainak jaso (24); berehala jaso (24); berriro jaso (17); besoa jaso (20); besoak jaso (20); bisita jaso (19); boto jaso (37); botoa jaso (11); burua jaso (149); bururik jaso (10); datuak jaso (20); dei bat jaso (45); dei jaso (13); deia jaso (75); deirik jaso (13); diru gehiago jaso (8); diru laguntza jaso (18); diru laguntzak jaso (18); dirua jaso (30); dirurik jaso (10); dolar jaso (12); domina jaso (12); donostia saria jaso (8); egurra jaso (9); ekarpenak jaso (19); emaitzak jaso (12); erantzuna jaso (41); erantzunik jaso (118); erasoa jaso (11); errebote jaso (14); eskaera jaso (33); eskaera jaso ditu (8); eskaintza jaso (11); eskaintzarik jaso (16); eskua jaso (57); eskuak jaso (18); eskutik jaso (20); espetxe zigorra jaso (9); estalkia jaso (8); euro jaso (46); euro jaso zituen (13); ezezkoa jaso (27); gol gehien jaso (10); gol gutxien jaso (21); gol jaso (27); gola jaso (8); golik jaso (28); gonbita jaso (13); gora jaso (61); gutun bat jaso (27); gutuna jaso (36); gutunak jaso (12); hainbat sari jaso (9); heriotza mehatxuak jaso (8); idatziz jaso (9); informazioa jaso (43); informazioa jaso eta (9); informaziorik jaso (8); iritzia jaso (15); iritziak jaso (18); irudiak jaso (9); isuna jaso (15); izena jaso (16); izendapena jaso (13); jaso begiak (9); jaso beharra (10); jaso beharreko (27); jaso bezain laster (14); jaso bezain pronto (12); jaso ondoren (154); jaso orduko (11); jaso ostean (52); jaso zituen begiak (19); jaso zuen erantzuna (9); jaso zuen saria (11); jipoia jaso (9); kalte ordaina jaso (11); kalte ordainak jaso (22); kartzela zigorra jaso (19); kexa jaso (10); kokotsa jaso (8); kolpe gogorra jaso (8); kolpea jaso (12); kolpeak jaso (11); kritika asko jaso (8); kritika gogorrak jaso (17); kritika onak jaso (9); kritika ugari jaso (28); kritikak jaso (18); laguntza jaso (67); laguntzak jaso (27); laguntzarik jaso (26); lanak jaso (11); liburuan jaso (8); lizentzia jaso (9); lurretik jaso (29); mahaia jaso (8); mehatxuak jaso (26); merezitako saria jaso (10); mezu bat jaso (8); mezua jaso (16); milioi euro jaso (22); nobel saria jaso (18); odola jaso (10); omenaldia jaso (11); onespena jaso (23); oniritzia jaso (47); oparia jaso (10); ordaina jaso (26); ordainak jaso (22); ordainik jaso (9); porrot jaso (8); porrota jaso (9); proposamena jaso (11); puntu jaso (8); salaketa jaso (25); salaketak jaso (9); sari jaso (21); saria jaso (246); sariak jaso (12); saririk jaso (14); sinadura jaso (12); soldata jaso (14); sorbalda jaso (15); sorbaldak jaso (100); sostengua jaso (45); telefono deia jaso (10); telegrama bat jaso (8); testigantzak jaso (11); tiro bat jaso (10); tratu txarrak jaso (11); tratua jaso (8); txalo zaparrada jaso (10); txaloak jaso (16); txostena jaso (14); txostenean jaso (11); ukabila jaso (9); urteko zigorra jaso (8); zaparrada jaso (12); zerura jaso (13); zerurantz jaso (24); zigorra jaso (73); zigorrik jaso (12); zuzenean jaso (10)

hizkera jasoa (19); hizkera jasoan (23); tren jasoaren (12)

babesa jasoko (9); bisita jasoko (12); diru laguntza jasoko (11); dirua jasoko (8); euro jasoko (77); euro jasoko ditu (46); euroko saria jasoko (13); informazioa jasoko (9); jasoko du saria (14); kalte ordainak jasoko (9); laguntza jasoko (21); laguntzarik jasoko (10); milioi euro jasoko (15); ordaina jasoko (10); ordainak jasoko (9); saria jasoko (58); soldata jasoko (9); zigorra jasoko (16)

begiak jasorik (8); burua jasorik (11); gora jasorik (8); jasorik eta (11); zerurantz jasorik (10)

besoa jasota (9); ere jasota (10); eskua jasota (8); gora jasota (12); jasota dago (30); jasota daude (12); jasota dauden (10); jasota eta (14); jasota gelditu (14); zerurantz jasota (11)

gurasoengandik jasotako (8); jasotako babesa (18); jasotako datuak (14); jasotako datuen (15); jasotako datuen arabera (14); jasotako diru (29); jasotako dirua (17); jasotako elkartasuna (11); jasotako erantzuna (10); jasotako gol (10); jasotako informazioa (9); jasotako kolpe (8); jasotako kolpeen (12); jasotako kolpeen ondorioz (8); liburuan jasotako (10)

babesa jasotzea (4); burua jasotzea (5); datuak jasotzea (4); diru laguntza jasotzea (3); dirua jasotzea (5); dolar jasotzea (4); egurra jasotzea (3); ekarpenak jasotzea (4); erantzuna jasotzea (4); erantzunak jasotzea (3); gol jasotzea (3); golik ez jasotzea (19); harri jasotzea (62); hezkuntza jasotzea (3); informazioa jasotzea (8); jasotzea eskatu (3); jasotzea espero (34); jasotzea ezinezkoa (4); jasotzea gustatzen (3); jasotzea izan (7); jasotzea izango (6); jasotzea lortu (6); jasotzea oso garrantzitsua (6); jasotzea proposatu (6); jasotzea ukatu (3); kalte ordainak jasotzea (4); laguntza jasotzea (6); laguntzak jasotzea (4); oniritzia jasotzea (3); ordaina jasotzea (4); ordainak jasotzea (4); saria jasotzea (5); sostengua jasotzea (3)

dirua jasotzeak (3)

albistea jasotzean (3); saria jasotzean (9)

babesa jasotzeko (9); bandera jasotzeko (8); diru laguntzak jasotzeko (20); dirua jasotzeko (10); ekarpenak jasotzeko (17); erantzuna jasotzeko (8); euskaraz jasotzeko (13); informazioa jasotzeko (33); jasotzeko asmoa (9); jasotzeko asmoz (13); jasotzeko aukera (45); jasotzeko baldintzak (11); jasotzeko epea (13); jasotzeko eskaera (12); jasotzeko eskubidea (56); jasotzeko gai (11); jasotzeko hautagaiak (8); jasotzeko prest (21); kalte ordaina jasotzeko (11); kalte ordainak jasotzeko (19); laguntza jasotzeko (17); laguntzak jasotzeko (34); ordaina jasotzeko (17); ordainak jasotzeko (19); saria jasotzeko (41)

aukera jasotzen (25); berri jasotzen (18); bidez jasotzen (17); burua jasotzen (14); diru laguntza jasotzen (15); diru laguntzak jasotzen (16); dirua jasotzen (18); eskua jasotzen (8); euro jasotzen (21); gora jasotzen (9); harri jasotzen (28); hitzak jasotzen (10); informazioa jasotzen (20); irudiak jasotzen (12); laguntzarik jasotzen (17); lanak jasotzen (8); legeak jasotzen (16); nagusiak jasotzen (9); proposamenak jasotzen (9); saria jasotzen (16); soldata jasotzen (23); sorbaldak jasotzen (11); testigantzak jasotzen (8); testuak jasotzen (10); tratamendua jasotzen (13); txostenak jasotzen (13); txostenean jasotzen (13); ugari jasotzen (10); zerurantz jasotzen (9); zigorra jasotzen (12)

saria jasotzera (13)

---

**jasoaldi** 1 *iz* jasotzea.

Belarra ebakitzen zuten bitartean, ez zien begiratzen igitai ugarien **jasoaldi** lasterrei. Jose Morales

Gineako okumearekin ari ginen eta material horrekin erne ibili beharra daukagu, zama desberdina izaten da **jasoaldi** bakoitzean eta abiada ongi erregulatuta jaso behar dira. Koldo Izagirre

2 (harri-jasotzaileena)

Harri-jasotzen, Lasartek marka saioa egingo du 100eko kuboarekin: 11 **jasoaldi** 2 minutuan. Berria - Kirola

Handik zortzi egunera, berriz, 22 **jasoaldi** egin zituen kuboarekin. Berria - Kirola

Seinaka egin zituen **jasoaldiak,** baina azkenekoan 14 egin zituen; guztira, 80 **jasoaldi**. Berria - Kirola

**Jasoaldi** ederra eman zion atzo Inaxio Perurenak 220 kiloko zilindroari esku bakarrez. Berria - Kirola

Garaileek 10.438 kilo (97 **jasoaldi)** bizkarreratu zituzten eta 10.412 kilo (95 **jasoaldi)** galtzaileek. Berria - Kirola

Txapelduna **jasoaldi** gehien egiten duena izango da, eta 760 euroko dirusaria jasoko du.

Aurreko marka 88 **jasoalditan** zegoen. Berria - Kirola

Aiakoak 249 **jasoaldiko** marka ondu nahi du bihar 100eko zilindroarekin. Berria - Kirola

3 (hitz elkartuetan)

Agurra ere ez zirudien buru-**jasoaldi** batez Santosek diosala itzuli zion. Josu Landa

Dekano jaunaren bizkar **jasoaldi** beldurgarriei eta Errektore jaunaren txantxa ikaragarriei aurre egiteko ausardia. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eginiko jasoaldi (3); jasoaldi egin (63); jasoaldi egin zituen (43); jasoaldi eginda (14); jasoaldi egitea (4); jasoaldi egiteko (6); jasoaldi egiteko asmoarekin (3); jasoaldi egiten (3); jasoaldi sorta (4); sei jasoaldi egin (5)

seigarren jasoaldia (3)

egin zituen jasoaldiak (4)

jasoaldiko aldea (5)

---

**jasoarazi**, jasoaraz, jasoarazten 1 du *ad* jasotzera behartu, altxarazi.

Kokotsetik oratu eta aurpegia **jasoarazi** zidan, begiak ikusteko. Anjel Lertxundi

Tira, goseak nago, buka dezagun lehenbailehen: non dago txostena? -errebolberrarekin burua **jasoarazi** zion. Migel Angel Mintegi

Karlos X.ak, apaizek, aitoren seme-alabek, berak kanpora botatako jendaila horrek guztiak sorbaldak **jasoarazten** zizkioten artean. Karlos Zabala

Zaratak ahotsa **jasoarazi** zidan-: [...]. Anjel Lertxundi

Plazerrak bularra **jasoarazi** zion Bibiri. Paddy Rekalde

2 biltzera behartu.

Benetako testamentu bat diktatzearekin batera, noiz ezkondu zen, semea noiz jaio zen eta gertatu zitzaion guztia **jasoarazi** zion Patxi Zubizarreta

3 eraikiarazi.

Bideetatik aparte bakantzen zuen loretegi eder baten erdian **jasoarazia** nuen etxea. Josu Zabaleta

Hassanek **jasoarazitako** liburutegiak. Jon Muñoz

Handik ehun urtera, Maraghako hirian, beste behatoki bat **jasoarazi** zuen Hulagu khanak. Jon Muñoz

Lerroko trintxera zaharrak hutsik utzi, eta gordeleku ezkutuak **jasoarazi** zituen zulo berri sakabanatuetan. Ramon Saizarbitoria

Hemen konturatu nintzelako, plaza honetan bertan, ez nintzela sekula Espainiara itzuliko, eta nire malkoak isuri ziren leku honetan estatua hau **jasoarazi** nuen. Jon

Muñoz

---

**jasoera** *iz* jasotzea. ik **jasokera**.

Zenbat eta sakonago jaitsi den, orduan eta goragokoa izango da horren **jasoera:** gauza bat bera dira bata eta bestea. Joan Mari Lekuona

Arraza espainolaren **jasoera** kulturala. Joxe Azurmendi

---

**jasoezin** *izond* ezin jasozkoa.

Eta detektore zientifikoek azaltzen ez dutena, ez dela ilunean geratzen fenomeno ez zientifikoak badirelako izan, orain arte zientziak **jasoezinak** direlako baizik, orain arteko zientziaren ezjakinagatik baizik. Jenaro Garate

---

**jasogailu** *iz* jasotzeko gailua.

Horiei egokituriko eserlekuek **jasogailu** bat izaten dute bizkarraldean. Berria - Euskal Herria

Bazen, ordea, karga-**jasogailu** bat, baina sotoan hartu beharra zegoen, erdi ezkutuan, arropa zikineko fardel baten tankeran zerbitzu-esparrutik pasatu ondoren. Jon Muñoz

---

**jasogarri** **1** *izond* jaso daitekeena.

Napumoceno jaunarentzat ez zegoela zehaztasun alferrekorik, eta bere bizitzarekin lotura zuen oro zitzaiola garrantzitsu eta etorkizunerako **jasogarri**. Bego Montorio

**2** altxagarria.

Hiriko sarreraren aitzinetik iragatean, zubi **jasogarriaren** kateen karranka entzun dut. Koldo Izagirre

---

**jasokera** *iz* jasotzeko era. ik **jasoera**.

Noizbait, neurria hartu zioten [Perurenak eta] **jasokerari**. Berria - Kirola

---

**jasoki** *adlag* era jasoan.

Goian eta **jasoki** gabiltza. Pello Zabala

---

**jasokunde** **1** *iz* Ama Birjina zerura mirariz jasoa izatea; mirari horren urteurreneko egunean Elizak egiten duen jaia, Ama Birjina Abuztukoa.

Non nahi ikusten dira alabaina aingeruak umetxoen itxuran margoturik, Jaiotzaren laukietan eta Jesu Kristo gure Jaunaren Igokundean eta Andre dena Mariaren **Jasokundean** eta askotan gainera. Piarres Xarriton

Zazpi aldiz har bezate Jauna, hau da: Jaunaren Jaiotzan, Ostegun Santu egunean, Jaunaren Piztueran, Mendekoste egunean, Ama Birjinaren **Jasokundean,** San Frantziskoren jaian eta Santu Guztien jaian. Askoren artean

San Lorentzoren zortziurren ondoko lehen gauean eta Andre Mariaren **Jasokundearen** zortziurren barruan. Askoren artean

Esaldiok Andre Mariaren **Jasokundeko** (Abuztuaren 15ean) Liturgi ofiziotik egokituak dira. Askoren artean

Donibane auzoko **Jasokundearen** elizan. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Jasokunde** egunean jaio zen, eta Amabirjinaren zale grinatsu egokitu. Juan Garzia

Urte horretan bertan Jainkoaren Amaren **Jasokunde** egunean. Askoren artean

Eta hala, Mikel santuaren omenez, Ama Birjinaren **Jasokunde** jaitik haren jaira arte berrogei egunez barau egiten zuen debozio handiz. Askoren artean

**Jasokunde** plazan, tanatorioaren ondoan. Berria - Euskal Herria

**3** ***Jasokundeko Andre Maria***

**Jasokundeko** Andre Maria eguna baino lehen iritsi zen leku hartara. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> jasokunde egunean (3)

---

**jasole** *iz* aipatzen dena jasotzen duen pertsona.

Irainaren **jasole** behar zuenak barre hordia egin zion kardinalaren esaldiari. Anjel Lertxundi

---

**jasotasun** *iz.* jasoa denaren nolakotasuna.

Gauza handiez eta jasoez handitasunez eta **jasotasunez** behar da hitz egin, arima leinargiz. Joan Mari Lekuona

Ezaugarri bi horiek -ulermena eta **jasotasuna-** uztartzea izan behar dugu helburua. Koldo Zuazo

---

**jasotzaile** *(orobat **jasotzalle** g.er.)* **1** *iz* aipatzen dena jasotzen duen pertsona.

Kantu xahar honen gainean, ondoko ohar hau egiten du **jasotzaileak:** [...]. Patziku Perurena

Aktak-eta erdaraz egiten ditugu, bandoak ele bitan, eta eskutitzak **jasotzailearen** arabera. Berria - Euskal Herria

Ondare baten **jasotzaile** gisa bizi izan nuen txikitan kristautasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

Errealitate ugari daude, errealitatearen **jasotzaileak** edo errealitatea jasotzeko moduak adina. Berria - Kultura

Manolo (tratu txarren emailea), Marga (tratu txarren **jasotzailea),** Virginia euren arteko alaba eta honen mutilaguna, Imanol. Berria - Kultura

Gaijartzailea baita bertsogintzan, futbolean epailea dena: begirazun guztien gune, kritikarik zorrotzenen **jasotzaile** eta muturreko handienen hartzaile. Andoni Egaña

Hartara, igortzailea eta **jasotzailearen** arteko harremana askoz ere estuagoa da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

· Konponbide prozesuaren **jasotzaile** nagusia herria dela nabarmendu du Agerrek. Berria - Harian

**Jasotzailea** askotarikoa izan daiteke gaur egun ordea. Andoni Egaña

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pisu- **jasotzaileek** eta disko-jaurtitzaileek eman zuten hezur-mineral kantitate handiena, eta, haien ondoren, korrikalariek eta futbolariek. Irene Aldasoro

Gero Ziantzar karga- **jasotzailearen** tabernan bazkaltzen zuen. Koldo Izagirre

Bere *Apostoluen Egintzak, Acta Apostolorum* idatzi zuelakoz [...] agiri- **jasotzaile** eta notarioek ere bere zaindaritzapean nahi izan dute ipini beren lana. Pello Zabala

Une horretan iritsi zen epailea akta- **jasotzailearekin** eta bi guardiarekin. Josu Zabaleta

Epaileak hauts-pala armairu batean sartu zuen, itxi zuen, eta akta- **jasotzaileari** deitu zion ezkoz zigila zezan. Josu Zabaleta

Geroagoko utziz Osberno [...] izeneko hitz- **jasotzaileak** sartuko dituen mintza-jarioaren edergailuak. Jon Alonso

**3** (izenondo gisa)

Kanpoko ekarpen horiek bestelakoturik, mozorroturik, sartu behar izaten dira gehienetan, gizarte **jasotzaileak** onar ditzan. Edorta Agirre

Grezia (3.400 milioi), Portugal (2.700 milioi) eta Irlanda (1.600 milioi) ere **jasotzaileak** dira. Berria - Ekonomia

Entzutea, ikustea, sentsazio guztiak, erabat pasibo eta **jasotzaile** ziren Lockerentzat. Xabier Olarra

**4** ***harri-jasotzaile*** *(orobat* ***harrijasotzaile*** *g.er.)*

Eztabaidan hasi ziren, ea **harri-jasotzaileak** "kottarik" ba ote zuen ehun eta berrogeita hamar kiloko harria esku bakarraz bizkarreratzeko. Juan Kruz Igerabide

**Harri-jasotzaileak** kokotsa igurtzi zuen, eta baietz esan zuen, bost bider jaso zezakeela esku bakarrez minutu batean. Juan Kruz Igerabide

Hiru **harri-jasotzaileek** 18 altxaldi atera baitzizkioten lehen harriari. Berria - Kirola

Iduritzen zait **harri-jasotzaile** zeingehiagoka batentzat ari naizela prestatzen! Ramuntxo Etxeberri

Hondarretan, presidentziari begira, toldo moduko izara erraldoi bat, eta, haren azpian, **harrijasotzailea** beroketa-lanetan. Karlos Linazasoro

Zail da jakitea zenbat jasoaldi egingo dituen, baina ez da **harri-jasotzaile** askorik izango Paskualsoro harria jasotzen duena; bospasei, agian. Berria - Kirola

Jaialdi berean, Inaxio Perurena **harri-jasotzaile** 275 kiloko harriarekin marka ezartzen saiatuko da. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **harri jasotzaile** (45); **harri jasotzaile bakoitzak** (3); **harri jasotzaile handia** (3)
> **harri jasotzailea** (18); **perurena harri jasotzailea** (7)
> **harri jasotzaileak** (22)
> **harri jasotzaileek** (7)
> **harri jasotzaileen** (10); **harri jasotzaileen torneoa** (3)

---

# jasotze 1 *iz* altxatzea.

Garrüzetik lekutzean, altzairu pisua **jasotze** hutsak lanak ematen zizkidan; orain, nire besoek buru gainean inarrosten ahal zuten neke handi-handirik gabe. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Entzulearen **jasotze**-prozedura hasten baita bertsolariaren osatze-prozedura amaitzen den lekuan: hots, kantuaren lehen silabekin. Andoni Egaña

· Pisu- **jasotze** eta antzeko jardueretan. Irene Aldasoro

-Eskerrik asko! -erantzun zuen Cortiellak; esku **jasotze** bat izan zen zure diosala. Koldo Izagirre

Buru- **jasotze** laburrak. Urtzi Urrutikoetxea

Segidan, gutun bidaltze- **jasotze** ezusteko hura iritsi zen. Joxemari Iturralde

Giza burmuinaren informazio- **jasotze** eta galbahetze prozesuei buruz. Berria - Kultura

**3** ***harri jasotze***

Jakina, **harri-jasotzea** alde batera utzi gabe. Berria - Kirola

Zaila ikusten du leitzarrak **harri-jasotzearen** etorkizuna aldatzea. Berria - Kirola

Mallabian egiten ditu ikasketak eta **harri-jasotze** saioak. Berria - Kirola

Orain dela sei hilabete hitzartu zuten **harri-jasotze** apustua eta urriaren 31n jokatuko dute. Berria - Kirola

Bi aizkora saioen artean, **harri-jasotze** proba izango da ikusgai. Berria - Kirola

Gaur, Nafarroako **Harri-jasotze** Txapelketa jokatuko dute Iñaki Perurenak, Lasartek, Urrutiak eta Igoak. Berria - Kirola

Antzuolan jokaturiko Nartxi Saralegiren Oroimenezko II. **harri-jasotze** txapelketan. Berria - Kirola

Urteko lehen **harri-jasotze** marka ahalegina. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **harri jasotze** (17); **harri jasotze txapelketa** (3)
> **dirua jasotzeak** (3); **harri jasotzeak** (5)
> **harri jasotzearen** (3); **jasotzearen truke** (8)
> **harri jasotzeari** (3); **jasotzeari ekin** (5)

---

# jaspe 1 *iz* kuartzo mota nabarra eta ez gardena, hainbat koloretakoa.

Hiriko harresiaren oinarriak era guztietako harribitxiz zeuden apainduak: lehenengo oinarria **jaspez,** bigarrena zafiroz, [...]. Elizen arteko biblia

Harresia **jaspezkoa** zen, eta hiria urre hutsezkoa. **Jaspezko** oinarri gainean eraikiko zaitut, zafirozko zimendu gainean ezarriko. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

Haren distira harribitxi ederrarena bezalakoa zen, **jaspe** harria bezain gardena. Elizen arteko biblia

Tronuan eseriak **jaspe** eta kornalina harrien itxura zuen. Elizen arteko biblia

---

# jaspeztatu *izond* hainbat koloretako zainak edo orbanak dituena.

Roquefort gaztek printze itxura hartzen zuten kristalezko kanpaien azpian; begitarteak gantzatsuak zituzten, **jaspeztatuak,** zain urdin-horiz margotuak. Karlos Zabala

Badago igel erraldoi bat muino goi baten tontorrean kokoriko, likenek tanta hori eta zurbilez **jaspeztatua** . Koldo Izagirre

---

# jasta ik **dasta**.

---

jastatu ik **dastatu**.

---

# jatagana *iz*

Sakelan ganibeta luze bat, bai labanarekin bai **jataganarekin** antza duten horietakoa, ehiztari siberiarrek garbitasunez eta larru baliotsua hondatu gabe hartzari tripak ateratzeko erabiltzen dutena bezalakoa. Karlos Zabala

Urrezko eta zilarrezko sare-kota soinean; sable kakotua, **jataganaren** antzekoa, harri biziz jositako galtzarbe-uhal liluragarri batetik zintzilik, bitxi preziatuzko zorro dirdaitsu baten barruan. Karlos Zabala

---

# jate **1** *iz* janaria ahoan txikitu ondoan irenstea; jatordua.

Jai izaten zen orduan Schwarenbacheko bentan, eta haragi freskozko **jate** handia. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkertuetan)

Ernioko tontorreraino igo behar nuenez, **jate** kontuak arratsalderako utzi ditut. Txillardegi

Ez bedi, ordea, zutaz ohartu **jate** -edatea bukatu arte. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkertuetan)

Arkume- **jate** batera gonbidatzen baikintuen urtero: aurrena pikatxa-tortilla eta tripotxak, ondoren arkume errea entsalada ugariarekin eta, menu beti-berdina bukatzeko, mamia. Xabier Mendiguren Elizegi

Indioilar- **jate** haien ondoren, [...]. Fernando Rey

Skula ahantziko ez dudan arrain- **jate** pozoitsu batengatik. Joxe Austin Arrieta

Larunbat aratsean, Larribarren, zikiro **jate** eta dantzaldi Imintzorekin. Herria

11.30etan hurrup edan eta klik, eta 12.30etan aingira **jatea** ostatuetan. Herria

Larunbat eguerditan, Baigorrin, xardina- **jatea** Bixentenean. Herria

Aratseko 8etan, gaztain **jate** eta zintzur bustitze bi kantariekin eta horien musikariekin. Herria

Eta eguna bururatuko da talo eta xingar **jate** batekin. Herria

Aitzineko urtetan bezala, telethon gaualdi bat antolatua zen joanden ostiral aratsean, trinketeko gelan: talo **jate,** sagarno edate... eta elgarrekin goxoki eta lasaiki mintzatzeko parada. Herria

Lehengo barkoxtarraren "ahuntz-jaki **jate"** hartan ez omen baitzen deus eskasik... daukat halere sendi zutela kantari horiek norbaiten mina... Herria

**4** ***hitz jate*** ik **jan**[1] **6**.

Hoinbertze zapalkuntza ta aunitz **hitz jate** . Herria

Itzulpenak itzulpen, eta hitz jateak **hitz jate,** hara, ordea, zer idatzi zuen jatorrizkoan moralista eskoziarrak. Iñaki Heras

Ondotik **hitz jate,** batzuen sudur luzeegia deitoratuz. Herria

Euskaldun Gazteriak, MRJC elkarteko Euskal Herriko adarrak, gogorki salatzen du frantses estatuaren **hitz-jatea** . Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **hitz jate** (3); **jate bat** (6); **jate eta** (6); **talo jate** (5); **zikiro jate** (22); **zikiro jate bat** (5)
>
> **aingira jatea** (13); **aingira jatea ostatuetan** (5); **aratsean zikiro jatea** (4); **eguerditan angira jatea** (3); **jatea herriko ostatuetan** (3); **oilo jatea** (3); **paella jatea** (5); **tripotx jatea** (4); **xardina jatea** (3); **xerri ttipi jatea** (8); **xingar jatea** (5); **zikiro jatea** (79)

---

# jateke *adlag* jan gabe.

Ezin bizi zitezkeela ezer **jateke** eta gorputzeko beste eginbehar guztiak egiteke. Patxi Ezkiaga

Ez baita **jateke** gelditzen. Patxi Ezkiaga

---

# jateko **1** *iz* janaria.

**Jateko** batzuk zeramatzaten [...] kutxa txiki batean. Karlos Zabala

Handik aurrera gure **jateko** bakarra babarrun zopa zen. Pello Lizarralde

Lanik ez baitugu oraino, **jatekoa** xuhur dugu. Marzel Etxehandi

Andreek irria ezpainetan, ez kexatzeko, **jatekoa** bazela denentzat eta aski zutela kantoi hartako mahaian jartzea. Aurelia Arkotxa

Bazekien non zitutzten **jatekoak** . Marzel Etxehandi

**Jatekoaren** osagai gisa saltzen dituzte botikok eta sendagai naturalak direla esaten dute.Diru gehiago ez baduzue, emazkidazue zeuen abereak **jatekoaren** truke. Elizen arteko biblia

Ezin zen arriskatu ezkutuan sukaldera joatera, **jatekoaren** bila. Iñaki Mendiguren

Treneko **jatekoetan** ostera, okela nagusi. Edorta Jimenez

**Jatekoen** salmentak egin du bereziki behera, inflazioa kontuan hartuta: %7,3 Bizkaian, %7,2 Gipuzkoan eta %6,1 Araban. Berria - Ekonomia

**2** (aditzaren objektu gisa)

Ordainez, urtean zilarrezko hamar txanpon, jantzi-multzoa eta **jatekoa** emango dizkizut. Elizen arteko biblia

Ostatua eta **jatekoa** behar zuten garaian. Askoren artean

**Jatekoa** eskatu zuten. Eskarne Mujika

Oinak garbitu eta **jatekoa** prestatu zion. Askoren artean

Bere etxera igoarazi zituen, **jatekoa** atera eta famili festa egin zuten. Elizen arteko biblia

**Jatekoa** eta edateko ura erosi egingo dugu. Elizen arteko biblia

Ez zegoen han modurik behar zuten **jatekoa** aurkitzeko. Askoren artean

Bizikide dituzten arratoiek **jatekoa** ebasten diete. Elena Touyarou

**3** (izenondoekin)

**Jateko** finak eta ardo ezin hobeak. Edorta Jimenez

**Jateko** beroa eta edateko hotza izango nuelakoan. Patxi Ezkiaga

Berehala bukatu zuten beren **jateko** lehor murritza. Patxi Ezkiaga

**Jateko** guti... eta txarra. Marzel Etxehandi

-Badakizu non dagoen **jateko** ona? Harkaitz Cano

**4** ***ganadu-jateko*** *iz pl*

Gauaz ateratzen ginen ganadu-**jatekoak** egitera. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **jateko bila** (5); **jateko gehiago** (4); **jateko gutxi** (4); **jateko guztia** (3); **jateko hautak** (3); **jateko hondarrak** (3); **jateko nahikoa** (3); **jateko ona** (5); **jateko onak** (6); **jateko pixka bat** (3)
>
> **jatekoa ekarri** (5); **jatekoa eman** (4); **jatekoa ematen** (4); **jatekoa eskas** (3); **jatekoa eskatu** (4); **jatekoa eta edatekoa** (8); **jatekoa ez** (5); **jatekoa prestatu** (3)
>
> **jatekoak eta edatekoak** (3)
>
> **jatekoaren bila** (5)
>
> **ez zen jatekorik** (3); **jatekorik gabe** (5)

---

# jaten *iz* jatekoa.

Kaparetasuna franko, meza franko, jota franko, baina **jatena** beti eskas. Koro Navarro

Guk ondo jaten genian koartelean, eta handik xixatzen genian **jatena** zela, edo botak zirela, salmentan aritzen gintuan haiekin. Pako Aristi

Erauskin izeneko dendariarengana erosketak egiteko izendatua, han biltzen zuen **jatena** goizero. Txillardegi

**Jatena** edo egurra banatzen zebiltzan gurdiek kirrinka egiten zuten, minez bezala. Anton Garikano

Ahaztu egin zait heretikoek ere behar izaten dutela **jatena** eta burua jartzeko burko bat. Koro Navarro

Hegaztiak hutsik zeukan **jatenaren** ontzira bota zituen katiluaren hondoko barazki beratuak. Iñaki Mendiguren

Badatoz basapiztiak, jauzika eta orroka, beren **jatenaren** bila. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaztetasuna da benetako Saturnoren Erreinua, Urre Aroa lurrean berritua, sasiak pikuak ematen zituena, zerriek txistu hotsei kasu egiten zietena, zurdak zetazkoak zituztena, **jatenetako** beti pagotxa zutena. Xabier Olarra

---

# jatetxe **1** *iz* bazkari-afariak zerbitzatzen diren etxea.

*Metropolitan Diner* **jatetxeko** barran egindako jatordua. Oskar Arana

Alde Zaharrean bazkaldu genuen; *Cheval Blanc* izeneko **jatetxean** . Rafa Egiguren

Sei urte pasatu nituen Amerikan, ikasle lehenengo, **jatetxe** bateko zerbitzari gero. Jon Arretxe

**Jatetxe** berria ireki ditek Arrantzale kalean. Iban Zaldua

Taberna, **jatetxe** eta kafetegietako arduradunek erretzaile ez direnentzako egokitu behar dute lokalaren erdia. Berria - Gaiak

**Jatetxe** eta Erretegia. Pablo Sastre

**Jatetxean** afaltzen ari ziren hainbat bikotek. Bernardo Atxaga

Hoteleko **jatetxean** afaltzera jesarri ginelarik. Edorta Jimenez

**Jatetxeko** nagusiak adierazi zuenez, emakumea atzeko atetik sartu zen. Iñigo Aranbarri

Dimitrios-i galdetu nion, **jatetxearen** jabeari. Oskar Arana

**Jatetxeko** arduradunen eta bezero mozkorren arteko liskarrak konpontzen zituen. Jose Morales

Baina bazkari extrak **jatetxearen** kontura. Joan Mari Irigoien

McDonalds-etik hasita, enpresa-jantoki eta eguneroko otordua ematen duten **jatetxeetaraino,** plater gutxi eskaintzen dute denek. Edorta Agirre

## **2** (izenondo edo izenlagunekin)

Izar askotako hotelak, denda eta **jatetxe** dotoreak. Jon Arretxe

Karrika jendetsuak, gau osoan irekirik diren **jatetxe** argitsuak. Ramuntxo Etxeberri

Sukaldari haundiekin ginen joan den astezkenean, **jatetxe** izardun horietan. Herria

**Jatetxe** onen eta arropa garestien zalea. Oskar Arana

**Jatetxe** merkeetako zerbitzariek menua jakinarazteko ohi duten doinua zerabilen. Aingeru Epaltza

Beste era batera esateko, **jatetxe** lasai eta intimo bat. Oskar Arana

**Jatetxe** txukunen bat erostea bagenu edo errepideko ostaturen bat... Lopez de Arana

Hotelaren inguruko **jatetxe** folky batera goaz. Edorta Jimenez

**Jatetxe** jendetsu batean. Anjel Lertxundi

Puntako **jatetxe** batean sartu eta aurki ez dugu asmatuko zein den sukaldea. Edorta Agirre

Beirate distiratsuko gozotegiak eta luxuzko **jatetxe,** pub nahiz kafetegiak ere. Jon Arretxe

Erdipurdiko **jatetxe** batean afaltzeko. Anjel Lertxundi

Bortz sardexkako **jatetxeen** minik ez duzue izanen gaur gauaz. Aingeru Epaltza

Japoniar **jatetxe** batean ari ginen bazkaltzen. Oskar Arana

'Barruko **jatetxean** bazkaldu genezake, ez? Lourdes Oñederra

Hiriko frantses **jatetxe** garestienean zerbitzatzen. Oskar Arana

**Jatetxe** italiarrean pizza jangaitzarekin deman ari nintzen bitartean. Aingeru Epaltza

## **3** (hitz elkartuetan)

"Roadhouse" hitza errepide ertzean dagoen **jatetxe**-dantzalekua izendatzeko erabiltzen da. Lopez de Arana

Geltokiaren aurreko aldapan dauden kafetegi-**jatetxe** haietako batean eseri nintzen, zain. Txillardegi

· Ondo ezagutzen naute denda batzuetan eta barazki **jatetxeetan** . Koro Navarro

Taxiak buelta erdia eman zuen eta bide-**jatetxe** baten ondoan gelditu zen. Lopez de Arana

Bazkaltzeko, bertako arrain-**jatetxe** bat begiz jo genuen. Xabier Olarra

Ostatu-**jatetxe** bat, oinez baizik aurki ez daitekena. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **donostiako jatetxe** (4); **herriko jatetxe** (5); **izeneko jatetxe** (3); **jatetxe batean afaldu** (6); **jatetxe berri** (3); **jatetxe dotore** (6); **jatetxe garesti** (3); **jatetxe italiar** (5); **jatetxe italiar batera** (4); **jatetxe japoniar** (5); **jatetxe on** (7); **jatetxe txiki** (8); **jatetxe txiki batean** (3); **jatetxe txinatar** (10); **jatetxe txinatarrean** (4); **jatetxe txinatarrera** (5); **jatetxe txinatarretan** (3); **mcdonald s jatetxe** (3); **ostatu eta jatetxe** (3); **ostatu jatetxe** (3); **parisko jatetxe** (3); **taberna eta jatetxe** (4)
>
> **letea jatetxea** (6)
>
> **jatetxearen aitzinean** (3)
>
> **jatetxeetako sukaldeetan** (4); **taberna eta jatetxeetako** (6)
>
> **jatetxeetan erretzea** (5); **taberna eta jatetxeetan** (12)
>
> **jatetxeko nagusiak** (3)
>
> **jatetxetik irten** (3)

---

**jator** **1** *izond* herri edo lurralde baten hizkuntzari, ohiturei, izaerari eta beste ezaugarriren bati berez dagokiona; horiei arrotz zaien gauzarik ez duena.

Ahoskera batu **jator-jatorrean**. Iñaki Segurola

Mendebalean ere *ditugu* eta *dituzu* dira betikoak eta **jatorrak**. Koldo Zuazo

Baliteke, norbaiten ustez, sartaldeko bizkaiera izatea **jatorrena,** aberatsena eta zuzenena, baina sortaldean egiten da euskara gehien, eta hizkuntzak ezertarako badira, erabiltzeko dira. Koldo Zuazo

Batere beharrik gabe hartzen zirela, lehendik zegoen euskal hitz **jatorra** eta orokorra arrazoirik gabe baztertuaz. Koldo Zuazo

Euskara **jatorrean** *telegrama* zelan esan behar den. Edorta Jimenez

Euskal dotrina **jator** puru-purua. Iñaki Segurola

Gugan euskalduntasuna lehenagokoa da, zaharragoa eta **jatorragoa,** gizontasuna baino. Iñaki Segurola

Mendebaleko aldaera peto eta **jator** batzuek ere aldakuntza berbera izan dute. Koldo Zuazo

Politikan jeinu espainolaren espresio **jatorrena** inperioa da. Joxe Azurmendi

Franco-ren "Espainia berriak" izpiritu espainol **jatorraren** berpizkunde bezala presentatu du bere burua: Don Pelaio eta Errege Katolikoena, Inperioarena, hots, aldare eta ezpatarena. Joxe Azurmendi

Espainol denak ere ez direla espainol **jatorrak**, arraza espainol **jatorrekoak**. Joxe Azurmendi

**2** persoonez mintzatuz, bere herri edo lurraldeko ezaugarriak dituena.

Alabaina, gazte ginenean, turismoaz bizitzeko ideia bera, euskaldun **jatorrarentzat** bekatua zen, beniala baino gehiago, mortala. Itxaro Borda

Beste euskaldun **jator** bat borrokan sartua. Txillardegi

Ez zenuen, izan ere, karismarik (zerorrek askotan aitortua), ez zinen garbi-**jator** horietakoa, etsai-lagun kolaborazionista sasikoa zinen jendaila buru-zapal ortogonalarentzat, eta badakit, maisu, arantza horrek zazpitan zulatu zizula bihotza. Iñaki Segurola

Nola ahal izango ditu frantses **jator** batek "ulertu", izan ere, musulmanen ohitura desilustratuak eta erlijio islamikoaren sura itxuragabekoak[...]? Joxe Azurmendi

Bere garaian ezinezkoa zen Usurbilgo seme **jator** bat polizia izatea. Hasier Etxeberria

Herri txiki bateko giro garbi eta inozentean jaiotako mutil **jator** bat. Bernardo Atxaga

**3** bere izaerari edo jatorriari berez dagozkion tasunak soilik dituena.

Jesusen Ebanjelioaren ispilu argi eta lekuko **jator** dugu Frantzisko. Askoren artean

Hori ez dela kristau **jator** baten jarrera. Patxi Ezkiaga

Epikuroar **jatorra** zen aldetik, Andresek ez zuen batere joerarik apostolutzarako. Josu Zabaleta

Basati **jatorrak** bezala. Josu Zabaleta

Hori al da fortuna-zaldun **jator** baten jokaera? Juan Garzia

"Esplandianen Ekintza Handiak", Amadis Gaulakoren seme **jatorra**. Patxi Ezkiaga

Ikuspegi horretatik, neure familian gabeziatzat ikusi ditudan guztiak ez lirateke hortaz akatsak, inondik ere, ezpada nortasun **jator** eta antzinako baten berezko ezaugarriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Horren adierazpen **jatorra** dugu Maria dohatsuari agurra. Askoren artean

Aspaldian omen gaude logosa, arrazoia eta legea beste oinarririk ez duen pentsabide **jator** aurreratuan kokatuta. Joxerra Garzia

Eta suposatu egiten da testu guztian, kultura unibertsal **jator** ilustratu hori tradizio frantses **jatorrean** beti egon dela eta orain ere han bilatu beharko dela nonbait. Joxe Azurmendi

Aristotelesen filosofia soilera espresuki biltzeko asmoa agertu zuen, filosofia **jator** bakarra, arrazoizko derrigortasunarekin batera, harengan aurkitzen zelakoan. Askoren artean

Behin ere ez da gauza izan iruzkin **jator** bat egiteko, erabat eta osorik bere baitakoa den ezertxo ere esateko. Oskar Arana

Faxistarik faxistenak ere demokrata **jator** bihurturik! Edorta Jimenez

Metafisika platoniko **jatorra** gainera, idealista. Joxe Azurmendi

Oposizio nagusiaren terminoak euskal paganismo **jatorra** eta kristautasun arrotz etorkina dira. Joxe Azurmendi

Bulego-hizkeramodu **jatorrez** txosten bat idatzi, eta Zuzendaritzak soldata igo zidan. Juan Garzia

**4** tasun goragarriak dituena. (pertsonak)

Bera baino hobeak ziren bi gizon **jator** eta zuzen hil baitzituen ezpataz. Elizen arteko biblia

Emakume **jator** bat aurkitu eta harekin bizi. Gotzon Garate

Ikasle on eta **jator** askoak ziren, ez dut nik haienganako kexurik batere. Joxerra Garzia

Ongi etorri, Horazio; ongi etorri, Martzelo **jator** hori. Juan Garzia

Beste bat egokitu zitzaion senargai, morroi **jator** bat, gris-gris eta arrunt-arrunta, Bulego Teknikoko enplegatua. ginen sindikatu gorri-beltzekoak, komunista **jator** samar batzuk ere bagenituen tarteko. Juan Garzia

D ereduan biziarazten duen barruko polizia hori nik ezagutzen dudan poliziarik onbera, **jator** eta bigunena da. Iñaki Segurola

-Gizon on eta **jatorra** zu, aita on eta **jator,** zuzen eta eskuzabalaren semea! Jose Antonio Mujika

**-Jatorra** mutila -esan zuen Ninik. Josu Zabaleta

Paktista samarra bere alderdiko guztiak bezala, baina **jatorra**. Bernardo Atxaga

Ospitaleko lanean era askotako jendea ikusten duzu: harroak eta apalak, **jatorrak** eta zekenak, alaiak eta tristeak. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso familia **jatorra** da! Fernando Rey

**5** (bestelakoak)

Animalia polit eta **jatorra** katagorria! Gotzon Garate

Guttienez hegazti **jator** horiei mesede egingo nieke. Gotzon Garate

Gizartea aldatu nahia sentimendu **jatorra** zela. Koldo Izagirre

Gezurti mainontziak baitira eta gizalege **jatorrik** gabeak. Patxi Ezkiaga

Borondate **jator** eta indartsuko gizona zen. Juan Garzia

Guaia -ez **"jatorra"-** eta euskarazko jende natula izatea oso zaila da, azpeikoitiarra edo ondarrutarra ez denarentzat, eta hau, dakienak badaki eta ez dakienak ez dauka erremediorik. Iñaki Segurola

Onura unibertsala dakarten lege **jatorrenen** aurka. Juan Martin Elexpuru

**6** (hitz elkartuetan)

Berak ere **jator** itxura dauka. Urtzi Urrutikoetxea

Ez du aintzat hartzen inongo tokiko **jator** kolorerik. Juan Garzia

· **Jator** uste horrek prentsari eman diezaiokeen tonua ikusteko, hona Urola-Kostako Hitza-tik jasotako txatal bat.. Han elkartu ginen, hura bizkor agertu zen, **jator**-plantan, baina nik haren eskuak kendu nituen gainetik eta geldirik egoteko esan nion, gauzak ez zirela gaurgero lehen ziren bezala. Iñigo Aranbarri

Hunkiturik zegoen Lisari hain erraz eta **jator** antzean isurtzen zitzaion zintzotasun hartaz. Karlos Zabala

· *Iniciativa*ko hautagaiak duen hippy **jator** itxurak kolore pitin bat ematen dio gristasunari. Berria - Euskal Herria

• **7** *adlag* jatortasunez.

Eta, nolanahi ere, zer esan behar nuen **jator** eta esker oneko agertzeko? Iñaki Segurola

Lagunkoi eta aholkuak emateko prest agertu zen beti Kearney andrea: **jator,** hitz batean esateko. Irene Aldasoro

Jaunarekiko begirunez, leial eta **jator** jardun behar duzue. Elizen arteko biblia

Iruditzen zitzaidan hain gizabidetsu eta **jator** portatzean zetzala nire hutsa. Juan Garzia

-Goazen -esan zuen Lisa ederrak-, **jator** portatu haiz, hau dena niri erakutsita... Karlos Zabala

**Jator** jokatu zuten nirekin. Jesus Mari Mendizabal

**Jator** eta gizalegez jokatzen ikas dezaten. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adiskide jator** (3); **emakume jator** (3); **euskaldun jator** (6); **gazte jator** (5); **gizon jator** (15); **jator asko** (3); **jator askoa** (3); **jator batek** (8); **jator jator** (5); **jator jatorra** (3); **jator jokatu** (8); **jator jokatzen** (6); **jator portatu** (6); **jende jator** (9); **kristau jator** (4); **lagun jator** (5); **neska jator** (5); **oso jator** (8); **seme jator** (6)

**andre jatorra** (3); **emakume jatorra** (9); **espainol jatorra** (7); **euskaldun jatorra** (6); **euskara jatorra** (3); **gazte jatorra** (6); **gizaseme jatorra** (5); **gizon jatorra** (33); **itxura jatorra** (3); **jator jatorra** (3); **jatorra ematen** (12); **jatorra ematen du** (4); **jatorra eta noblea** (5); **jatorra iruditu** (3); **jatorra iruditzen** (6); **jatorra izan** (9); **jatorra izango** (3); **jatorra izatea** (3); **jatorra mutila** (5); **jende jatorra** (18); **morroi jatorra** (5); **mutil jatorra** (33); **neska jatorra** (24); **ona eta jatorra** (3); **oso gizon jatorra** (3); **oso jatorra** (27); **oso neska jatorra** (7); **pertsona jatorra** (4); **seme jatorra** (3); **tipo jatorra** (18)

**euskaldun jatorrak** (4); **jatorrak eta zuzenak** (3); **jatorrak izan** (4); **lagun jatorrak** (9); **oso jatorrak** (6)

**mutil jatorraren** (3)

---

## jatordu 1 *iz* otordua.

Noiz dira **jatorduak** eta non dago jantokia, baldin badago? Agustin Otsoa

**Jatorduak** ordu orduan. Joseba Sarrionandia

Berehala amaituko da gaurko barauaaldia, berehala izango dute **jatordu** oparoa euren etxeetan. Jon Arretxe

Norbait behar dut etxea txukuntzeko, komuna garbitzeko, eta beharbada **jatordu** batzuk prestatzeko ere bai. Jon Arretxe

Eustache hori Marieren senargai ofizialtzat onartua zen, ostatuan bizi zen, eta hantxe egiten zituen **jatorduak** ere. *Metropolitan Diner* jatetxeko barran egindako **jatordua**. Koro Navarro

Egunero **jatordu** bat egiteko zazpi ahaleginak egin behar dituzte. Gotzon Garate

Edozein egunetan delarik ere, bi **jatordu** egin ditzakete. Askoren artean

Hiru **jatordu** bero egunean. Mirentxu Larrañaga

Garbitu hortzak **jatordu** bakoitzaren ostean. Oskar Arana

Ez zuela **jatorduetan** alkohola hartzeko ohiturarik esan eta gero. Anjel Lertxundi

Animaliekin bizitzera jarria zegoen baserrian eta hori **jatorduetan** nabarmentzen zen. Xabier Etxabe

**2** jateko ordua.

**Jatordua** heldu zenean bada, morroientzat ohi diren mahai luze horietako batera jarri ziren denak eserita. Patxi Ezkiaga

---

## jatorkeria *iz* jatortasun gautzesgarria.

Abertzalismoak asmatu dituen **jatorkeria** eta arrazakeria asko. Patziku Perurena

Jator portatu zinela esango nuke, **jatorkerian** erori gabe. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jatorkeria** da nagusi giroan. Oskar Arana

---

## jatorki *adlag* jator, jatortasunez.

Oso **jatorki** agurtu ninduen telefonoa belarrian neukan bitartean. Hasier Etxeberria

Barkamena indak **jatorki,** Hamlet, nik hiri bezala. Juan Garzia

---

## jatorkizun *iz*

Gaur huts egite haien aurka ari diren euskaldun hauek, nola orduan elkartu ziren gure **jatorkizunen** arerio haiekin? Jokin Urain

---

## jatormazo *iz*

Mitxel izena hartu du (Azkona Estudiotik nire ostatura eta nire ostatutik Azkona Estudiora itzulpenen-eta disketeekin atzera-aurrera ibiltzen zen mutil **jatormazoaren** izena da Mitxel), baina ez nire benetako izenez agertzeko lotsaz, nobelaren legearekiko fideltasunez baino Anjel Lertxundi

---

## jatorri 1 *iz* pertsona edo talde baten arbasoak edo hasierako giza ingurunea. ik **etorki**; **iturburu**.

Handik Espartara joan zen itsasoz, babeslekua aurkituko zuelakoan, hangoak juduen **jatorri** berekoak zirelako. Elizen arteko biblia

Neskatxaren **jatorria** pobrea izango zela pentsatu zuen erregeak. Patxi Zubizarreta

**Jatorri** anitzeko gizon-emakume aldren bilgune. Lopez de Arana

Koaderno hori nire **jatorriari** buruzko hausnarketa-oroitzapen antzeko bat zen, baina, gure **jatorria** genetikoki beti bitan banatzen bada, nik erdi bakarrari egin nion kasu ordukoan: Errekarte aitaren baserria zen, eta aitaren aldetiko famili kontuak ageri ziren hor. Xabier Mendiguren Elizegi

Beren paradisuetatik egotzitako **jatorri** guztietako europarrak. Iban Zaldua

Jean-Baptiste Cloots 1755. urtean jaio zen Kleve inguruan (Alemanian), **jatorria** Herbehereetan zuen familia prusiar aberats batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bost orduon ostean Jeanettek bere **jatorriaz** hitz egiten dit. Edorta Jimenez

Zure leinuak ere gure mendietan du **jatorria**. Fernando Rey

Euskal herriaren **jatorriari** buruzko ameskerien kritika. Joxe Azurmendi

Kretan diat **jatorria,** eta gizon aberats baten semea nauk. Juan Kruz Igerabide

Adinak eta **jatorriak** salatzen zuten Fernandorekiko lotura. Lutxo Egia

Poema haiek [...] gehiago zor zioten galestar **jatorriari** bere garaiko poesia sozialaren aldeko gustuari baino. Koro Navarro

Siriar **jatorriko** greziar letra-gizonak. Iñaki Mendiguren

Italiar **jatorriko** erromatar hiritarren kolonia hau. Iñaki Mendiguren

· Espezien **jatorriari** buruzko Darwin-en obraren gainean eztabaidan. Iñaki Heras

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jatorri** aristokratikoko idazleak. Bernardo Atxaga

Ohitura garbi eta **jatorri** nobleko andre batek. Askoren artean

Jende ona da zure senitartea eta **jatorri** onekoa zara. Elizen arteko biblia

Hitz horiekin, bere **jatorri** apala ekartzen zuen gogora. Askoren artean

**Jatorri** xumekoa zen, nerau bezala. Juan Garzia

Izen horren azpian turkiarrak eta **jatorri** persiarreko jendeak batzen dira. Karlos Zabala

**Jatorri** indigenako klase ertaineko agenteak. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsalen sortzaileak beti ez direla **jatorri** berekoak ikusi dugu. Iñaki Mendiguren

**Jatorri** euskaldunekoa eta Mexikoko Tlaxcala-n jaioa. Juan Martin Elexpuru

Bada zure Inperioan herri bat, **jatorri** berezikoa, probintzia guztietako herrien artean sakabanatua bizi dena. Jose Antonio Mujika

Hogeita sei urte zituenean lehen aldiz bere egiazko **jatorriaz** jabetu zen. Gotzon Garate

Haurrak bere egiazko **jatorria,** sorburu genetikoa eta genealogikoa ezagutzeko eskubidea baitu. Ramon Saizarbitoria

## 3 *(Biblian)*

Neu ere israeldarra naiz, Abrahamen **jatorrikoa,** Benjaminen leinukoa. Elizen arteko biblia

Hauek dira Simeonen **jatorriko** familiak. Elizen arteko biblia

Judas, bere anaiekin, Esauren **jatorriko** jendearen kontra abiatu zen hegoaldeko lurraldera. Elizen arteko biblia

Desegin zitzala Agagen **jatorriko** Hamanek juduak galtzeko emanak zituen aginduak. Elizen arteko biblia

Ptolomeo erregearen kontseilari eta apaiz gantzutuen **jatorriko** den Aristobulori. Elizen arteko biblia

Esdras apaizak gizon batzuk, **jatorri** bakoitzeko familiaburuak, aukeratu zituen eta izendatu. Elizen arteko biblia

## 4 zerbaitek hasiera duen, zerbait sortzen den edo datorren denbora edo ingurunea.

Munduaren eta gizadiaren **jatorria**. Elizen arteko biblia

Gurasoen **jatorriko** herrietara. Urtzi Urrutikoeetxea

Zibilizazioen **jatorriaren** azalpenaren giltza. Iñaki Mendiguren

Lege feudalen **jatorriaz**. Iñaki Iñurrieta

Jabetza eskubideak berez du **jatorria** izadian. Berria - Euskal Herria

Gaitzaldi guztiaren **jatorri** eta iturburua. Juan Garzia

Biologoek, berriz, beren irudimenaren baliabide guzti-guztien beharra izaten dute bizitzaren **jatorria** itxuratzeko orduan. Juan Garzia

Gizakion elkartearen **jatorria** eta **jatorri** honi lotzen zaizkion aurrerapenak. Santiago Iruretagoiena

Berez, emakumearen sexuak eta gizonarenak **jatorri,** egitura eta bilakaera bera dute. Luis Elberdin

Beti zabalik dagoen **jatorri** batera itzultzea. Xabier Arregi

Mota eta **jatorri** askotako testuak. Jose Antonio Mujika

Eliminatibismoaren **jatorrian** 1930eko hamarkadan sortutako Positibismo Logikoa jarri behar da. *ik beherago* 8. Askoren artean

Mendia du **jatorri,** herrixka edota baserria. Berria - Kirola

Alemania aldean, latina **jatorri** ez duten hizkuntzen eremuan sartu gara. Edorta Jimenez

Filosofia jator eta egiazkoak helburu bat baino ez du, alegia, gauza guztien **jatorririk** gabeko **jatorriria** irakastea. Imanol Unzurrunzaga

## 5 (izenondoekin)

Baina hain **jatorri** nabarreko osagaiekin batera, hor daukagu mendebaleko bereizgarri bat: [...]. Koldo Zuazo

**Jatorri** publikoko baliabideak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beste batzuen ikuspegitik, berriz, ondoezak **jatorri** biologikoa, endokrinoa, guruinetakoa, organiko-funtzionala luke. **Jatorri** teologikoko kontzeptuak argitzeko. Iñaki Iñurrieta

**Jatorri** ezezaguna duen indarra. Felipe Juaristi

**Jatorri** iluneko amorru, oinaze eta suhartasun baten eraginez. Jose Morales

Zenbaiten aburuz, hiriaren **jatorri** gaskoiak badu zerikusirik Donostiaren espiritu jolaszale horretan. Askoren artean

Lege horrek eduki eta **jatorri** jakin bat izan behar duela. sutea ez zen **jatorri** kriminalekoa; istripua edo suizidioa izan behar zuen, beraz. Juan Martin Elexpuru

Ateismo heroikoan aurkitzen da haren **jatorri** jainkozkoaren froga. Juan Garzia

Baliteke putzu ustelduan izatea beren **jatorri** beldurgarria. Koro Navarro

Forma artistikoen **jatorri** naturalaren gai klasikoa. Josu Zabaleta

**Jatorri** egiaztatua. Edorta Agirre

Eta honi ere Lisak halako ikara **jatorri** lausoko bat ematen baitzion, isilik eduki zuen. Karlos Zabala

## 6 (izenlagunekin)

Ziur gaude, frantziskotar **jatorriaren** historian, toki guztiz berezia dagokiola Asisko Klarari. hemen gizakia Jainkoaren irudira moldaturik dago, jainkozko **jatorria** du eta Jainkoaren familiakoa da. Askoren artean

Ustea, eustea, iriztea, estea, etsitzea: elkarren ahaide txit hurbilak dira, eta batzuk, euskarazko **jatorriaren** aldetik, baita senideak ere. Iñaki Segurola

Hitzaren egiazko **jatorrian**. Iñaki Arranz

Beste zenbaitek, berriz, kultura hutsezko **jatorria** egozten diote fenomenoari. Juan Garzia

Hala ere, judizioetan ez ezik, adigaietan ere azaltzen da hauetako batzuen apriorizko **jatorria**. Ibon Uribarri

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

XIX. mendearen erdi aldera, zelulak aurkitzearekin, eraikuntza-batasuna frogatu zen: biziaren atomoak edo; gero, eboluzioaren teoriarekin, **jatorri**-batasuna. Juan Garzia

**Jatorri** kontuak izaten dira tartean, baina guk, gure analisian, ez diogu hitzaren etimologiari begiratuko. Iñaki Arranz

**Jatorri**-izenak zein diren eta baserri bakoitza non dagoen esplikatzen. Xabier Etxabe

*ik beherago* 11. Askoren artean

Handik Espartara joan zen itsasoz, babeslekua aurkituko zuelakoan, hangoak juduen **jatorri** berekoak zirelako. Elizen arteko biblia

Esaiezu ipuin eta amaigabeko **jatorri**-zerrendetan arretarik ez jartzeko. Elizen arteko biblia

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ardatz bertikala marraztu zuen gero, ahapeka esanez: "y'y, koordenatu-ardatza", Elkargunean, J lodi bat idatzi zuen: "koordenatu-**jatorria"**. Nazio-**jatorri** bereko etorkinek ez zuten elkarren ondoan lantegi berberetan lan egiten bakarrik; apartamentu-etxe berberetan elkarren auzoko ere izaten ziren. Jon Muñoz

Eta bat-batean bere leinu **jatorri** ezkutuak ukiturik antza, barkamendu eskatu dit: Phárka, Koxemai! Txillardegi

Bazen Erroma hirian andre bat, noblea ohituren garbitasunaz eta famili **jatorriaz**. Askoren artean

Netaniasen seme eta Elixamaren biloba Ismael, errege-**jatorrikoa** bera, Mitzpara joan zen hamar gizonekin eta hil egin zuen bertan Godalias. Elizen arteko biblia

Tinko ezarriko dut betiko zure errege-**jatorria,** sendo sekulako zure tronua. Elizen arteko biblia

Eta hara, neurekin nuen Tito ere, jentil-**jatorrikoa** izan arren, ez zuten erdaintzera behartu. Elizen arteko biblia

Izenak izen [...] ez da ahaztu behar ahozko tradiziotik datozela eta asko direla zurrumurru edo istorio hilezin horien herri-**jatorria** erakusten duten ezaugarriak. Bernardo Atxaga

-Zeurok arduratuko zarete, orduan? -esan zuen aleman-**jatorria** adierazten zuen frantses behartu batez. Anjel Lertxundi

Haren arraza- **jatorriari** buruzko iluntasun erabatekoa zela kausa. Juan Garzia

Diru **jatorriak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egitura sendokoa dirudi gorputzak kanpotik begiratuta, baina gure itsas **jatorria** islatzen du, oraindik ere, haren barruko antolamenduak. Irene Aldasoro

## 9 *jatorrian*

Ala, **jatorrian,** mugakizunak, izadiaren lege direlakoak, ez diren menturaz izan, haiek ere, kontingentzia baten emaitza. Juan Garzia

Ekonomia, **jatorrian,** etxeko gobernamenduarekin zerikusia zuten ondasun eta arazoez arduratzen zen. Iñaki Heras

Perpaus bat ulertzeko, nahitaezkoa da **jatorrian** dituen muin-perpausak ulertzea. Itziar Laka

Horien guztien arabera, **jatorrian** Jainkoaren gogoa (edo ideia guztien multzoa) baizik ez legoke eta gure mundua haren arabera sortutako eta egituratutako bigarren mailako mundutxoa besterik ez litzateke. Askoren artean

Diakronikotzat jotzen ditugun asimilazio horiek **jatorrian** (gertatzen ari zirenean) aldaketa sinkronikoak izango zirela. Lourdes Oñederra

Ezaguera horrek aukera ematen digu bere alderdirik sakonenetan atzemateko errealitatea: printzipioetan eta **jatorrian**. Juan Garzia

## 10 *jatorrizko* izlag

Beren **jatorrizko** hizkuntzan. Iñaki Mendiguren

**Jatorrizko** testuak *disponebant provincias* dakar. Askoren artean

Horrela dio liburuaren **jatorrizko** izenburuak. Ibon Uribarri

**Jatorrizko** bertsioa, seguruena, Edouard Lamaignerek 1860ko urteetan argitaratu zuena da. Martin Anso

Ondarrutar kantari edo musikero batek *Beti lo* hitzekin itzuli zuen **jatorrizko** *Without love*. Iñaki Segurola

Metaforaren **jatorrizko** adieran. Xabier Kintana

Somervell jaunaren lanaren zatirik baliotsuena **jatorrizko** hamar liburukien Laburpenaren azkeneko sintesia iruditzen zait. Iñaki Mendiguren

Nolabait, gure **jatorrizko** komunitatea desagertzen ari zela iruditzen zitzaidan, bazihoala. Agurtzane Juanena

Lege Vokoniarra egin zen garaian, ohiturek artean gordetzen zuten beren **jatorrizko** araztasuna. Iñaki Iñurrieta

Uste dut Pasaian Hugoren **jatorrizko** proiektua nolabait aldatu egin zela. Koldo Izagirre

Erabat horizontala denean bakarrik eusten dio urak bere **jatorrizko** duintasunari. Koldo Biguri

**Jatorrizko** zazpi usain ditu sistema horrek, Kartilagozkoak dira hezurren **jatorrizko** ereduak enbrioiaren lehen faseetan. Irene Aldasoro

Edo nahiago ote zuen [...] bere **jatorrizko** egitasmora itzuli eta bigarren hezkuntzako ingelesezko irakasle izateko lanpostua bilatu? Oskar Arana

Beraz ez digu edozein nazionalismok eta edozein askatasunak balio, zioen **jatorrizko** ETAk. Joseba Zulaika

**Jatorrizko** abiapuntura itzuli behar dugula horien bila. Imanol Unzurrunzaga

Ez dut onartzen **jatorrizko** ezjakintasuna galarazten duen ezer. Antton Olano

**Jatorrizko** lau murruetarik bat bakarra zegoen zutik. Aingeru Epaltza

## 11 *jatorri izen* sor-marka.

Erronkariko gaztagile nagusiek **jatorri izena** aldatu nahi dute, kanpoko ardi arrazak sartu ahal izateko.

Idiazabal **Jatorri Izenaren** Batzorde Arautzailearen esanetan. Berria - Ekonomia

Uzta historikoa izango da Nafarroako **Jatorri Izeneko** lurraldeetan. Berria - Ekonomia

**Jatorri Izeneko** eta Aldundiko teknikoak mahastiak aztertzen ari dira. Berria - Ekonomia

## 12 *jatorrizko izendapen* sor-marka.

Hor ditugu, adibidez, musikan, canción española, euskal musika, jota navarra, brit pop edo saldu beharrak asmatutako ezin konta ahala label, etiketa edo **jatorrizko izendapen**. Iñaki Segurola

Nafarroako Aratxearen Kontseiluaren barruan daude baserritarrak, baina **jatorrizko izendapenak** ezin dio aurre egin kanpoko haragiaren «larregizko eraginari». Berria - Harian

Era berean, ardoaren tasak %24 gehitzea kritikatu zuen, bai eta Espainiako **jatorrizko izendapena** «ezartzea» ere. Berria - Euskal Herria

## 13 *jatorrizko bekatu*

**Jatorrizko bekatua** gizaki naturaren bekatua da. Karma-ren eta **"jatorrizko bekatuaren"** (bekatuaren eta determinismoaren ideiak elkartzen dituzten) doktrinak. Piarres Xarriton

Zera duk, hain zuzen, **jatorrizko bekatuaren** kontu bera: ez duk ezer egin, baina errudun haiz eta ordaindu behar duk. Juan Garzia

Perspektiba, "mendebaldeko pinturaren **jatorrizko bekatua"**. Josu Zabaleta

Identitaterik eza, itsumenera eramango gaituen **jatorrizko bekatua**. Juan Kruz Igerabide

**Jatorrizko bekatuak** libre egin gaitu guk mina eta poza sentitzeko eta artearen sormenari ekiteko. Berria - Kultura

Ikusiak ikusi, aitortu beharra dago **jatorrizko bekatua** ez zela oso orijinala izan. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**idiazabal jatorri izeneko** (4); **jatorri arabiarreko** (6); **jatorri asiarreko** (4); **jatorri askotako** (10); **jatorri askotariko** (4); **jatorri bereko** (5); **jatorri berekoak** (4); **jatorri desberdineko** (4); **jatorri eta oinarri** (4); **jatorri ezberdineko** (9); **jatorri ezberdinetako** (6); **jatorri genetikoa** (4); **jatorri herriaren** (4); **jatorri izen** (8); **jatorri izena** (12); **jatorri izenaren** (10); **jatorri izeneko** (11); **jatorri latinoko** (4); **jatorri oneko** (4); **jatorri politikoa** (9); **jatorri turkiarreko** (4)

**benetako jatorria** (4); **danborradaren jatorria** (6); **gaitzaren jatorria** (16); **hitzaren jatorria** (8); **isuriaren jatorria** (6); **izenaren jatorria** (9); **jatorria argitzeko** (7); **jatorria aurkitu** (7); **jatorria ezagutzen** (4); **jatorria izan** (4); **jatorria zein den** (10); **liburuaren jatorria** (4)

**jatorriaren bila** (4)

**danborradaren jatorriari** (5)

**afrikar jatorriko** (6); **arabiar jatorriko** (5); **euskal jatorriko** (21); **italiar jatorriko** (4)

**abrahamen jatorrikoak** (4); **euskal jatorrikoak** (7); **palestinar jatorrikoak** (4)

---

# jatorridun *izond* aipatzen den jatorria duena.

Euskal **jatorridun** argentinarra. Berria - Euskal Herria

Bostongo musikari amerikar frantses- **jatorridunak**. Joxe Austin Arrieta

Panamako **jatorridun,** baina Kalifornian jaiotako jokalariak Greziako Panionios taldean jokatu zuen iaz. Berria - Kirola

---

# jatorriratu, jatorrira(tu), jatorriratzen du *ad* jatorrira ekarri.

Eguneroko errutinan, euren gainean irristatuz, hainbat gairi buruz hitz egiten ohiturik, -Lukreziok ez du jendeak ezagutzen ez zituen fenomenoez hitz egiten, eguneroko gertakari hauexez baizik-, perspektiba berrian ipintzean, euren esanahia **jatorriratu** egiten du, berritu egiten dira. Xabier Amuriza

Eta horrekin zerbait itxuraz tribiala **jatorriratzea** lortzen du: ortzi urdinaren eta egunsentiaren miraria. Xabier Amuriza

---

# jatorrismo *iz pei* jatortasun gaitzesgarria.

Horretantxe datza, hain zuzen, **"jatorrismoa":** artaburu jarrerak babestean eta indartzean. Koldo Zuazo

Ahozko euskarari jaramon handiagoa egin beharraz mintzatu naiz, baina ahalegin horretan egin ohi diren akatsez ere ohartarazi dut; hain barneratua daukagun **"jatorrismoaz",** besteak beste. Koldo Zuazo

**Jatorrismo** amalurtarraren apaiz estralurtarra. Iñaki Segurola

Folklorismorako eta **jatorrismorako** joera obsesiboa. Berria - Kultura

---

## jatorrista *izond*

Adierazkortasunetik hizkera aberkoi, matxista, arrazista eta **jatorristara,** ez dago ezer. Iñigo Aranbarri

---

## jatorrizkotasun *iz* jatorrizkoa denaren nolakotasuna.

Iparraldeko bazter batera doa hiriburuko gizon "modernoa", lurralde elurtuan **jatorrizkotasun** jakin bat bilatzera, baina azkenean horrek ere ihes egiten dio. Ibon Uribarri

"Arrazaren arimaren" edo soil arrazaren lehentasun, **jatorrizkotasun** absolutu hau. Joxe Azurmendi

---

## jatortasun **1** *iz* jatorra denaren nolakotasuna.

Donostiarrek, nola pixka bat zibilizatu egin diren [...], basatitzat daukate Pasaia; haren naturaltasun eta **jatortasuna,** barbaroa iruditzen zaie. Koldo Izagirre

Gaiak aldatzen hasi zen, esaldiak dotoretzen, naturaltasuna galtzen eta **jatortasuna** baztertzen. Berria - Kultura

Zuzentasuna eta **jatortasuna** zaindu beharrekoak direla esan zuen, baina egokitasuna horien gainetik egon behar dela. Berria - Euskal Herria

Hizlari gisa ere ona zen [Basarri], baina hizlari-jarioa eraman nahi zuen paperera: **jatortasun** horrek galdu zuen idazle moduan. Anjel Lertxundi

Itsasoarekin jolasean aritzen diren neska hauen **jatortasun** libre eta errugabea. Koldo Izagirre

Ebanjelioan inspiraturiko bere bizimoldearen **jatortasuna** osorik gordetzea. Askoren artean

Izan ere, ezin baita obrarik egin **jatortasunik** eta zintzotasunik izan gabe. Santiago Iruretagoiena

Ez dago inolako zalantzarik gutunaren **jatortasunaz**. Askoren artean

Nirekin haranzkoan **jatortasun** handiz jokatu zuen polizia turkiar berbera topatu dut hemen. Jon Arretxe

Horrela, zuen fedeak bere **jatortasuna** erakutsiko du, galkorra izan arren sutan garbitzen den urreak bezala. Elizen arteko biblia

Zain egote hau, ordea -barkatu esamoldearen **jatortasuna-,** ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Bernardo Atxaga

Mintak **jatortasunez** deskribatu zuen [emakumea], ia mirespenez. Anton Garikano

**2** (hitz elkartuetan)

Hirekin ez zegok lagun minekin bezala hitz egiterik... zintzotasun-izpirik ere ez duk!, **jatortasun**-arrastorik ez!, Sobakevitx bezain doilorra haiz! Jose Morales

Zinegitea, poliki-poliki, itxurakeria huts bihurtzen da, horrela erlijio sentimenen indarra, gizon gehienek duten **jatortasun**-berme bakarra, desegiten delarik. Juan Martin Elexpuru

---

## jatortu, jator(tu), jatortzen **1** da/du *ad* jator edo jatorrago bihurtu.

Zuzentasuna eta **jatortasuna** zaindu beharrekoak direla esan zuen, baina egokitasuna horien gainetik egon behar dela. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta ederki dator karakola, etxea bizkarrean ibilia den jendaje horren gaitzizen moduan, baina nago, paleolitotik egundaino holako jendaje asko euskaldun **jatortua** (?) ez ote den. Patziku Perurena

---

## jats *(orobat **jatsa** g.er.)* **1** *iz ipar* erratza.

Ziega garbitzeko **jats** normal bat eskatu nuen. Berria - Euskal Herria

Ostatuko zerbitzaria **jatsa** pasatzen ari zen. Ramuntxo Etxeberri

Burregoaren makila **jats** gider bat da. Marzel Etxehandi

Azken egun hotan ondoko Kaukasian ere **jats** ukaldi bat arras indartsua eman dute errusoek, eta bi herrialde horietan hemeretzi hil eginez. Herria

Froga hor, esku ukaldi bat emanez edo **jats** batekin ere euskara zerbitzatzen ahal dela. Herria

**2** isatsa, zuhaixka lekadun lore-horia.

Eremaiten zaitu eolikoetarik urbil, mahasti artean (Rioja eta Bierzo), ogi alorren sahetsean, larre eta **jatsa** den basamortuetan barna. Herria

---

## jatsi ik **jaitsi.**

---

## jatsuar *izlag/iz* Jatsukoa, Jatsuri dagokiona; Jatsuko herritarra.

Berenaz **Jatsuarra** zen. Herria

Mat Sterle **jatsuarrak** laguntzen zuen ongixko bere gitarrararekin. Herria

Beti ere Berttolin, Loidisaletxeren ondoan, Txomin Ezponda **jatsuarra,** Jokin Uranga azpeitiarra eta Xumai Murua urruñarra aritzekoak dira. Berria - Kultura

Horrat sartzen da lehen aldikotz Ferdinand Daguerre pilotari **jatsuarra**. Herria

Orain ontsa ikasia duten bezala beren kantu, irakurtze eta antolakuntza parteak prestatuak zituzten **jatsuarrek** lehen lehenik, bai-eta garaztar kantari dohatuenetarik ere. Herria

---

## jatun **1** *iz* jalea.

Esate baterako, urraburu itsastarra [...] dastatzean izkira eta itsaskiaren ahogozoa sentitzen dugu, arrain horrek besterik jan ez duelako bere bizitza osoan; itsaski bilakatu da, **jatunarentzat**. Edorta Agirre

Tresnak tresna, elikagaiak erdi prestatuak erosiko ditu **jatun** ugariri eman behar dion enpresak (eskola, ostatu, fabrika, komentu, kartzela...). Edorta Agirre

Asetasun sentsazioa eragiten du **jatunarengan**. Edorta Agirre

Cleopatra **jatun** bikaina izan zen eta, neskato onen modura, aurrean zeukan guztia jaten zuen. Lopez de Arana

Sperling familiak oso maite nau, batez ere **jatun** txikia naizelako eta jaten dudan baino janari gehiago ekartzen dudalako. Felipe Juaristi

Egun hartako ibilaldia **jatunik** eskasenaren gosea ere pizteko modukoa izana baitzen. Juan Luis Zabala

**Jatun** gaixoti batzuk legez, irensten duenaren kontzientzia ez dute eta. Edorta Jimenez

**2** asko jaten duen pertsona edo animalia.

Aurrena Sultan maitemindu nuen, gehien jaten zuena; hurrena Bobo, ez hain **jatuna** baina mokofinagoa. Bernardo Atxaga

Dionisosek gustuko zuen kalabaza purea, **jatuna** izan ez arren bai baitzekien gauza onak estimatzen. Unai Iturriaga

**3** (izenondo gisa)

Emakume **jatun** batek. Xabier Olarra

Ibaian arrain ugari egoten da: zarboak, tenkak, lutxo **jatunak,** karpa zilarkarak, perka hegalgorriak. Koldo Biguri

Goizean zakur gosekilen moduan ibili garen idazleok izar **jatun** bilakatu gara hemen. Edorta Jimenez

Oso **jatuna** dela uste diat, eta lehengo batean esan zidaan: "Oso pozik nago, txo; harakinek solomoa oparitzen didate, xerrak oparitzen dizkidate... Josu Zabaleta

**4** ***jatun handi***

**Jatun** handia bazara, eutsi zeure jangurari. Elizen arteko biblia

Lucy hain zen **jatun** handia, ezen orduko, ziur asko, goseak akabatzen egongo baitzen nolanahi ere. Oskar Arana

Tranpa-puxka bat badute apustuetan eta olako gauzetan, baiña bestela persona onak dira, leialak eta nobleak, bromosuak eta triposuak; alegia, gizon umorezkoak eta **jatun** aundiak. Iñaki Segurola

**5** ***jatun on***

**-Jatun** ona da, bai. Arantxa Iturbe

Satanek, nagi bezain **jatun** ona baitzen, bertatik onartu zion. Josu Zabaleta

Denak **jatun** onak, baina amonaren sakea! Joxean Sagaztizabal

**Jatun** ona, horratio, hain mehea izateko. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> jatun ona (3)

---

**jatunkeria** *iz* jatunaren bizioa.

Uste dut mundu guztiaren arreta erakarri zuela nire **jatunkeriak**. Matías Múgica

Handiustea, kodizia, haragikeria, hira, **jatunkeria,** inbidia eta nagikeria izendatu zituen Tomas Akinokoak bekatu nagusi. Berria - Kultura

Hasier Etxeberriaren hitzaldia **jatunkeriari** buruz. Berria - Kultura

---

jaube ik **jabe**.

---

**jaugin** *iz* joera.

Matematikarako zenuen **jaugina** ikusita, horretan aritzeko askatasuna utzi nizun, zure etorkizuna horixe izanen zela jakinik. Halako barre bitxi eta zorrotz bat atera zitzaion, hain barre garratz eta garaitzazkoa, hain **jaugin** mikaztu eta kontraesankorrez betea, non ia ez bainekien zer pentsatu ere. Xabier Kintana

· Nola pentsatuko zuen, bada, haren gogoa zauri ireki bat bazen, masa zornatu bat, burmuineko materiaren, neurona lehertuen eta **jaugin** elektriko zirkuitulaburtuen nahasturaz egina? Oskar Arana

---

**jaukal** *izond* bikaina, miragarria.

Eraikuntza **jaukalaren** frontisean. Juan Garzia

Herriaren arima espainola handia eta **jaukala** da. Joxe Azurmendi

Liliubel bat nola udaberri **jaukalean:** goizerne, ez iraunkor; kutun, ez luzaroko; lipar bateko urrin laketgarria, besterik ez. Juan Garzia

---

**jauki,** jaukitzen **1** du *ad* jalgi.

Eleak nahas-mahas **jaukitzen** zitzaizkion: [...]. Itxaro Borda

Negarra begietara **jauki** zorian zeukan, berriz. Itxaro Borda

Ezpainetan irri mehar bat **jauki** zitzaion. Itxaro Borda

Buruaren ondotik besoak eta soinaldeak **jauki** ziren, gero sabela eta azkenik oinak, lekeda beltz, zeru grisaren pean distira ketsuz emokatuak. Itxaro Borda

Parisen nengoela behin eta gero berriz dibortziatzean gontzetarik **jauki** nintzen. Itxaro Borda

**2** (auzitegira) eraman.

Jakobinoen leloa Aske izan edo hil kantonamendu guzietan idatzia izan dadin manatuko dut, eta aintzakotzat hartuko ez duten guziak auzitegira **jaukiko** ditut, edo bestela presondegiratuko. La Haye-ko auzitegi hortarat dira **jaukituak** Bosniako gertakarietan hobendun haundi diren arduradunak. Elena Touyarou

Muammar Gadafi Libiako agintari gorenaren aurka Europako Giza Eskubideentzako auzitegian **jaukitako** salaketa. Berria - Mundua

Auzitegi Gorenean **jaukitako** helegiteak. Berria - Mundua

**3** (era burutua orobat **jaukitu**)

Presondegiak mukuru beteak zeuden, **jaukituak** milaka ziren. Elena Touyarou

---

**jaukiezin** *izond*

Ongiaren Gaztelu **jaukiezinean**. Joxe Azurmendi

---

jaukitu ik **jauki 3**.

---

**jaulier** *iz adkor* espetxezaina.

Galeria barrurakoan, behaztopa egin dut ate ondotik patioa zaintzen duen **jaulier** baten belaunean. **Jaulierrak** funtzionari demokratak dira, araua betearazten dute. Koldo Izagirre

Badakit kamainetako koltxoiak lehertu eta muelleak irensten dituztela **jaulierren** aitzinean. Koldo Izagirre

Luzatu zuen eskua **jaulierrak** eskaintzen zion papera hartzeko, Koldo Izagirre

---

**jaulki**, jaulkitzen **1** zaio *ad* (ahotik) itzuri, atera.

Oihu bat **jaulki** zitzaion orduan postaburuari. Jose Morales

Aurreneko minutuko oihu berbera **jaulkitzen** zitzaien guztiei: "Ene Jainko zeruetakoa, zeinen eremu zabala!". Jose Morales

Higuinezko keinu eta hitzak **jaulkitzen** zitzaizkion Mathilderi, Willemen zentzaldiekiko sorgor. Anjel Lertxundi

Ongi entrenatuta zegoen [sakratuenaren kontrako jardunean], eta gogoan hartu ez nituen ale potoloak **jaulki** zitzaizkion. Inazio Mujika Iraola

Luze eta zabal eseririk zegoen besaulki batean [...], ahotik hots ulergaitzak **jaulkitzen** zitzaizkiola, aitarenka, eta txitean-pitean eskuaz ahoa estaltzen. Jose Morales

Hotzak nago -esan zuen Vasili Kashirinek, ezpainak gogor, benetan izozturik baleuzka bezala; eta honela **jaulki** zitzaion esaldia: hotz-na-o. Jose Morales

-Zoragarria duk jauregi hau... **-jaulki** zait erraietatik-. Txillardegi

Atseginez harriturik begiratu zenidan, irribarre txiki bat **jaulki** zitzaion zure ahoari. Eduardo Matauko

**2** atera.

Sosegatuago zegoen Mathilde, haren begiei eta ezpain-arteari ohikoa zuen aldarte xaloa **jaulkitzen** zitzaiela. Anjel Lertxundi

Azaro sagar helduaren gisan arratsaldeari gaua **jaulkitzen** zaionean. Pako Aristi

Zirtots txiki bat entzun zen, eta txinpart hori xorta bat **jaulki** zen bertatik. Juan Garzia

Gauzak sortu egiten dira: jaio, etorri, agertu, **jaulki,** irten. Iñaki Segurola

• **3** du *ad* (ahotik) egotzi, bota.

Norbaitek "sua" hitza **jaulki** zuen arnasestuka. Lopez de Arana

-Porrot eginda nagoela uste duzu **-jaulki** zuen Harlandek-. Lopez de Arana

Ezpainak estutu ditu eta ez du hitzik **jaulki**. Pello Lizarralde

Sekulako biraoak **jaulkitzen** zituen. Iban Zaldua

Hitzak bata bestearen ondoren **jaulki** zituen malkoz beteriko negar-zotinen artean. Lopez de Arana

Bihotzetik **jaulkitako** ahotsez, esan zion: […]. Patxi Zubizarreta

Borreroari inoiz ez diote minik eman kondenatuek **jaulkitako** irain gordinek. Karlos Linazasoro

Ezpainak luzatuz eta buruari eraginez bere iritzia **jaulki** zidan: [...]. Gotzon Garate

Van Daan andreak inon diren ergelkeriarik handienak **jaulkitzen** dituenean, Putti sutan zutitzen da askotan. Josu Zabaleta

Barrako gizonak txistu-antzeko hots bat **jaulki** zuen letaginen artetik. Lopez de Arana

Arrazoi egokiak **jaulkitzen** nonbait. Pello Zabala

Belarriek inoiz entzun gabeak **jaulkitzean** gertatzen den bezala. Xabier Amuriza

Honako epai harrigarri hau **jaulki** zuen: […]. Oskar Arana

Zilegi bekit burutazio bat edo beste **jaulkitzea**. Pello Zabala

Ekaitz bateko trumoi-soka danbartsuari […] Jaunaren mintzoa deitzen dio, eta mintzo boteretsu latz horren egintzak **jaulkitzen** ditu 7 bider. Pello Zabala

Azienda mutuek ere, baita basapiztiek ere, hots ezberdinak eta askotarikoak **jaulki** ohi dituzte, beldurrak ala minak ala pozak jotzen dituenean. Xabier Amuriza

**4** bota, egotzi.

Azken zurrutadan edana **jaulki** zuen ahotik. Lopez de Arana

Niloaren zazpi ahoek kolore desberdineko zazpi istinga **jaulkitzen** dituzten leku horretan. Juan Garzia

Egurrak kea edo suak beroa **jaulkitzen** duenez. Xabier Amuriza

Atsotitz hauek soka beretik doaz, enbor bereko ezpalak **jaulkitzen..** . Pello Zabala

Hurrak, heldu ahala, putzura **jaulkitzen** dira, bertako izokinak arrapalada batean jaten dituztela. Pello Zabala

Bazter batean egokitu zen, lurrak **jaulkitako** deabru ñimiño baten gisara. Patxi Zubizarreta

**5** igorri.

**Jaulkitzen** duten argiaren uhin-luzera 486-720 mmkoa izaten da. Jon Alonso

**6** (ekonomian) horretarako esku duenak banku billete, akzio, obligazio eta kidekoak zirkulazioan jarri.

Estatuek zorra **jaulkitzen** dute, sarritan oso epe luzera [...], eta urtero dirutza jakin bat erabiltzen da interesak eta zorra kitatzeko. Iñaki Heras

Dirua **jaulkitzea** *acte de présence* bat da, gobernua harreman zuzen eta iraunkorrean jartzen duena bere mendekoen gutxiengo gogotsu, buruargi eta eragin handiko batekin. Iñaki Mendiguren

Zor agiriak **jaulkiko** ditu BBK-k, 900 milioi euroko balioarekin. Berria - Ekonomia

Zuzeneko finantzaketa indartu zen berriz, hau da, tituluak finantza-merkatuetan **jaulkiz** eta ezarriz egiten den finantzaketa mota. administrazioak berak **jaulkitako** zor publikoaren bidez. Koro Navarro

Champagneko ferietan hainbeste jende biltzen zen, non haietan ordaintzekoak izaten baitziren Europan **jaulkitako** obligazio gehienak, baita printzeek eta pertsonaia handi guztiek, laiko nahiz elizgizonek, kontratatzen zituztenak ere. Koro Navarro

Nazioarteko obligazio klasikoak, atzerritar mailegu-hartzaile baten kontura **jaulkiak,** herrialde mailegu-emailearen finantza-lekuan eta diruan. Koro Navarro

Eroski banaketa konpainiak jakinarazi du CNMVn menpeko finantza ekarpenak **jaulkiko** dituztela laster. Berria - Ekonomia

Kutxak «Urrezko Txartela» **jaulki** du adinekoentzat. Berria - Ekonomia

Kreditu txartelen eskariak hazkuntza nabarmena izan zuen, *Gazte Txartela* berria **jaulki** zutelako eta, beraz, 734.000 txartel dira Euskadiko Kutxak orotara **jaulki** dituenak. Berria - Ekonomia

**7** aletu.

Supazterrean, artaburuak **jaulkitzeko,** babarrun lekak aletzeko, esaera zahar eta kontuzaharrak akordatu eta berritzeko... balio zezakeen egunak. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ekarpenak jaulkiko (3); oihu bat jaulki (3)

---

**jaulkiarazi**, jaulkiaraz, jaulkiarazten du *ad* jaulkitzera behartu.

Behin eta berriz atera nituen prismatikoak; mirespen-oihuak **jaulkiarazten** zizkidaten bihurgune bakoitzean topatzen genituen miragarriek. Xabier Olarra

Hasi nintzen ni ere printze gazteari aitorra aitorraren ondotik **jaulkiarazten;** oraingoan, ordea, arrakasta gehiagorekin. Zerbaitek "koipu!" **jaulkiarazi** zidan. Matías Múgica

Hala ere agian aski izango zen Errusian geratu zitzaizkion kamaraden izenak **jaulkiaraztea**. Matías Múgica

---

**jaulkika** *aldag* atereaz, boteaz.

Ikusiko dituzu baforeen tximinia ondoko tutuak lurrun **jaulkika**. Koldo Izagirre

## **jaulkipen** 1 *iz* batera jaulkitzen diren banku billete, akzio, obligazio eta kidekoen multzoa.

NDFren **jaulkipenak** eta Munduko Bankuak emandako maileguak. Koro Navarro

Fagorren finantza aportazioen **jaulkipena** amaituko da bihar. Berria - Ekonomia

Lehen **jaulkipenerako** eskariak eskaintza gainditzen zuela ikusita [...]. Berria - Ekonomia

Kuotak jaso, **Jaulkipen** Bereziko Eskubideak atera, maileguen akordio orokorrak egin dira. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Logikoa denez, nazioarteko diruaren **jaulkipen** -bankutik behar zuen erreakzioak etorri. Koro Navarro

Moody's-ek epe luzeko eta motzeko gordailuak, BBKren «sendotasuna» eta **jaulkipen** gaitasuna goraipatu ditu. Berria - Ekonomia

Menpeko finantza ekarpenak ez dira amortizatuko **jaulkipen** egunetik gutxienez bost urte igaro arte. Berria - Ekonomia

Eroskiren finantza ekarpenen eskariak %15ean gainditu du taldeak **jaulkipen** muga gisa ezarrita zuen 200 milioi euroko kopurua. Berria - Ekonomia

Aportazioen eskariak **jaulkipen** bolumena bikoiztu du. Berria - Ekonomia

TERRAK autokartera gisa zituen 26,5 milioi akzio amortizatu ditu, **jaulkipen** erreserbekin. Berria - Ekonomia

Probintzia Batuek ez bezala [...] eta Erresuma Batuak ez bezala orobat [...] Luis XIV.aren Frantziak ez zuen ez **jaulkipen** -erakunderik, ez banku zentralik. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erregimen horretan, izan ere, banku zentrala diru- **jaulkipen** oro bermatzera konprometitzen da. Koro Navarro

Northern Pacific konpainiaren bonu- **jaulkipen** berriarekin lotutako negozio txiki hori... Lopez de Arana

**3** igorpena.

Nik ez dakit negutegi-efektua, CO2 **jaulkipena,** ozono-zuloa edo atmosferaren berotzea den. Jon Alonso

---

## **jaulkitzaile** *izond* jaulkitzen duena.

Baina onura handiagoa etorri zitzaien ziur aski gobernu **jaulkitzaileei** berei. Iñaki Mendiguren

---

## **jaulkitze** *iz* jaulkipena.

Beraz, kapital **jaulkitzea** gertatzen den une horretan enpresak behar zuen dirutza jasoko du, eta akzioak erosi dituztenak enpresako akziodun bihurtzen dira. Iñaki Heras

Oraindik ez da zehaztu noiz zabalduko duten **jaulkitzea,** baina Eroskik jakinarazi du konpainiako bazkide eta soldatapeko langileek lehentasuna dutela ekarpenak erosteko orduan. Berria - Ekonomia

---

## **jaun** 1 *iz* zernahi gizon; batez ere, gizarteko behe mailetakoa ez dena.

**Jaun** bat eta andre bat sartu ziren. Monika Etxebarria

**Jaun** bat agertu zen bidearen amaieran; haienganantz zetorren, kapelua buruan eta makila adabegitsu bat eskuan. Jose Morales

Ongi jantzitako **jaun** bat sartu zen. Matías Múgica

Lebigre jaunak gabon opa zien **jaun** haiei. Karlos Zabala

**Jaun** sendokote bat zen, kapela gogor arre batez. Irene Aldasoro

Lainoa, argiz beteriko gaua, **jaun** smoking-dunak beren andereak besarkatuz berotu nahian. Joxe Austin Arrieta

-Obediarazten dakien **jaun** bat! Karlos Zabala

Abas, ostera, zinezko **jaun** bat zen, bizartegi baten jabea eta erdi mailan zegoena. Patxi Zubizarreta

**Jaun** hark, tituluduna eta lur askoren jabea zenak, esposatu egin nahi zuen. Koro Navarro

**Jaun** haundi egin dira gerlaren medioz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** zernahi gizonezkori ematen zaion titulua.

**Jauna,** limosnatxo bat umezurtz honentzat! Jose Morales

-Nik, **jauna** ? -esan nion. Berria - Kultura

-Dena ongi, **jauna** ? Monika Etxebarria

-Alferrik, **jaunak;** elkar ezagutzen dugu. Karlos Zabala

-Aurrera, **jauna** ! Monika Etxebarria

Eskerrik asko, **jauna** ! Juan Garzia

Ez horregatik, **jauna** ! Joxe Austin Arrieta

-Barka, **jauna** . Joxe Austin Arrieta

-Barkatu, **jauna,** ez zintudan molestatu nahi. Monika Etxebarria

-Barka ene atrebentzia, **jauna** . Txillardegi

-Barkatuko didazu, **jauna,** baina [...]. Jose Morales

Iritzi horretakoa al zara, **jauna** ? Monika Etxebarria

-Zer bada, **jauna** ? oso ongi geunden. Monika Etxebarria

**-Jauna** ! -ganbarako ateetan deiez ari zen eskifaiako norbait. Edorta Jimenez

Ez, noski, **jauna;** ez da oso gai interesgarria. Antton Olano

-Ai, **jauna** -hasi zen oihuz eta zotinez-, nire nagusi gaixoa, hil egin dutela. Josu Zabaleta

-Zer hartu behar duzu, Antoine **jauna** ? Monika Etxebarria

--Egiok kasu Bevan **jaunari,** Dan, galdera bat egin dik. Koro Navarro

Izeba Kate Browne **jaunarengana** itzuli zen. Irene Aldasoro

Badakit, Uriarte **jauna** -esan zuen bisitariak; nik lekuz kanpoko ***jauna*** hartan ironia nabaritu nion-. Edorta Jimenez

Bettina, hau Oskar Schmidt **jauna** dun. Alberto Ladron Arana

Antonio Canovas del Castillo **jauna** zen bestek Montjuichen egin ei dituztenen erantzule. Koldo Izagirre

Weasley andre potolotxoa, Weasley **jaun** luze eta burusoila. Iñaki Mendiguren

Delako Robles **jaun** hori ezagutu izan dute luzaidarrek duela 75 urte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Kapelak eta berokiak jaso zituzten barandatik Humphries jaunak, Roberts jaunak, eta Thomas **jaun** gazteak. Koro Navarro

Ez, **jaunak:** izen horiek ezin izan daitezke inola ere herri-jendeak jarriak. Iñaki Segurola

**3** Frantziako Iraultza aurreko gizartean, lurralde, herri edo pertsonei buruz esku edo aginpidea zuena; delako gizartean goi mailako gizonei ematen zitzaien ohorezko titulua. ik **andre.**

**Jaunak** erregearengandik eskuratzen du lurra, edo goragoko maila duen beste jaun batengandik, zerbitzu militarren truke. Koro Navarro

Bilauak ez zeukan bere **jaunaren** epaitegia faltsutzat jotzerik. Iñaki Iñurrieta

Biarnoko **jaun** gehiena eta Nafarroako erregе. Aingeru Epaltza

Haietarik bat, Azpilkuetako **Jauna** eta Colinako Bizkondea, Nafarroaren eta Biarnoaren arteko eskualdean aurkitzen den Erronkariko buruzagia da. Piarres Xarriton

Nafarroa Behereko **jaun** guztien omenaldia jaso zuen. Aingeru Epaltza

Aitzineko prioreek alabaina erreinuko **jaun** handien itxura hartua zuten eta haien bizimoldeak errenta guztiak irensten zituen. Piarres Xarriton

Zin egin zenidan, ene **jaun** horrek, nire seme Salomon izanen zela zure hurrengo erregea. Elizen arteko biblia

Eta Frantzisko santua biziki poztu zen, halako **jaun** beneragarriak hain jarrera onbera, maitasun eztia eta hitz eraginkorrak eskaintzen zizkiola ikusiz. Askoren artean

Azkenik, lodiak, Jainkoa eta Erregea zerbitzatu ondoren, guztien begiramena irabazirik, erretiroa hartu, egoitzaz aldatu, eta lurjabe bihurtzen dira, Errusiako handiki itzaltsu eta abegi oneko **jaun**. Jose Morales

Gure Elkarteko Ministro jeneralari, neure **jaun** agurgarria dudanez. Askoren artean

Harekin batean ziren gorteko bertze **jaun** eta andre anitz. Aingeru Epaltza

**Jaun** baten basailuak kondearen agindupean joaten ziren gerrara. Iñaki Iñurrieta

· Lan ederra eginik, Bordeleko bidea hartu du berriz **jaun** De Lancrek. Aingeru Epaltza

-Nire **jaun** Don Kijote -bizarginak galde- zer uste du berorrek, zenbaterainokoa ote zen Morgante erraldoia? Patxi Ezkiaga

## **4** zerbaiti edo norbaiti buruz esku duena.

Europa mendebaldeko **jaun** eta handikiek. Felipe Juaristi

Egin beharra daukazu, lur honek **jaun** bat behar du lehenbailehen. Juan Kruz Igerabide

Abas, ostera, zinezko **jaun** bat zen, bizartegi baten jabea eta erdi mailan zegoena. Patxi Zubizarreta

Senarra duenak **jaun** izaten ohi du. Aingeru Epaltza

Jakin ezazu, Thomas Peaceful, hemen ni izango nauzula **jaun** eta maisua. Mirentxu Larrañaga

Behin batez, bazen **jaun** aberats bat bere babesean aszeta bat zuena. Patxi Zubizarreta

Zeru-lurren egile eta bizidun guztien **jaun** dena. Jose Antonio Mujika

Ezkutariak ia-ia esan zion zein zen bere **jauna,** hain atsegina zen emakume gaztearen hizketa. Juan Kruz Igerabide

## **5** hainbat kargu edo bizibide edo kidekoren izenaren eskuinean erabiltzen den gizalegezko hitza.

Aita santu **jaunak** baietsi egin zidan. Askoren artean

Neska gazte birjina bat bilatu behar genizuke, errege **jauna**. Elizen arteko biblia

Ez al zenidan, ene errege **jaun** horrek, zin egin nire seme Salomon izango zela zure hurrengo erregea eta bera jarriko zela zure errege-aulkian? Elizen arteko biblia

Markes **jaunak** neskaren esku zuri-zuria hartu eta muin eman dio. Anjel Lertxundi

Ongi, komandante **jauna**. Josu Zabaleta

-Gerran gaude, alkate **jauna**. Edorta Jimenez

Berriketan jardun dugu pixkatean mediku **jaunak** eta biok buruz buru. Iñaki Segurola

-Atrebentziarekin, komisario **jauna**. Felipe Juaristi

Lotinant **jauna,** hona hemen aleman herria. Anjel Lertxundi

Dekano **jauna** eta Errektore **jauna,** hain zuzen. Josu Zabaleta

Errektore **jaun** txit gorena: [...]. Anjel Lertxundi

Grandchamps-eko Institutu Teknikoko zuzendari **jaun** agurgarria. Jesus Mari Mendizabal

Zer uste duk?, nagusi **jaunak** ez dakiela nolakoa haizen? Jose Morales

Irakurle **jaunak** edota andreak, seguru zuei ere niri bezala gertatu zaizuela azalpenaren bukaerara iristean. Bernardo Atxaga

## **6** (ezkerrean)

Horietarik zen Jean Etxepare **jaun** medikua. Piarres Xarriton

Hitzaldi baten emaitera etorri zela Uztaritzeko Seminariora Robert Schuman **jaun** ministroa. Piarres Xarriton

Eskutitz bat bidaliko diot Orreagako **Jaun** Prioreari. Piarres Xarriton

Aita René Coste **jaun** irakasleak lagundurik. Piarres Xarriton

Ofizio Sainduaren larderiari dagokiola jadanik preso den gure **Jaun** Artzapezpiku Agurgarria, hobenik gabea izanik ere, bederen kargutik kentzea. Piarres Xarriton

**Jaun** tenienteak eta, oro har, kapitainetik gora igo ez direnak ditugu solasean maisu. Jose Morales

Reclus **jaun** geografo hori anarkista seinalatua izan zen eta Kropotkin printzearen adiskidea. Iñaki Segurola

## **7** (J larriz) Jainkoa.

Eta israeldarrek hari obeditu zioten, **Jaunak** Moisesi agindu ziona betez. Jose Antonio Mujika

**Jaunaren** aingeruak basamortuko iturri ondoan aurkitu zuen. Jose Antonio Mujika

Zu zaitut, **Jauna,** neure on guztia, neure kopa, bedeinkapenez betea; zure esku nire zoria! Elizen arteko biblia

Izan ere, **Jauna,** zuen Jainkoa, Jainko da goian zeruan eta behean lurrean. Jose Antonio Mujika

Tenplura joan zen, eta **Jauna** gurtu zuen. Jose Antonio Mujika

Uste ona izan zuten **Jaunarengan** eta haren zerbitzari Moisesengan. Jose Antonio Mujika

Bere zerbitzari nauen **Jaun** ahalguztiduna bizi dela bezain egia da. Elizen arteko biblia

**Jaun** zerukoak sarituko ahal hau nire alde egiten ari haizen guztiarengatik! Karlos Zabala

O zu, Printze eta Aita Gorena, zeru goiko **Jaun** bakarra. Joan Mari Lekuona

**Jaun** onak gorde zaitzala... Anjel Lertxundi

Damutu zen, bada, **Jauna** gizakia egin izanaz eta, bihozmindurik, esan zuen: "Ezabatu egingo dut mundutik nik sortu dudan gizakia". Jose Antonio Mujika

**-Jauna,** ene Jainkoa, nola jakin nezake lurralde hau neurea izango dudala? Jose Antonio Mujika

Argi eta garbi dio **Jaunak:** "Jainkoaren erregetza zuen artean baitago jadanik" (Lk 17,21). Joan Mari Lekuona

Ikus dezagun bada, guztiak **Jaunak** eginak gaituela. Piarres Xarriton

· Jesu Kristo gure **Jaunaren** amodioak. Piarres Xarriton

## **8** (hitz elkartuetan)

Ez dute, aperantziarik ere, beste **jaun**-etxeek Etxauzea balio, ez Leizaratzuk ez Urdoz jauregiak. Michel Oronoz

· Koru maisua zen Tuterako katedralean, eta horrek esan nahi du musika-**jaun** zela, Orestes hori berori hartu zuen aldi batez bere idazkari Atilak, hunoen gerra-**jaun** ospetsuak. Felipe Juaristi

## **9** ***etxeko jaun***

Ez etxeko **jauna,** ez etxekoandrea, ez zerbitzariak. Jose Morales

Aitor dezagun, etxeko **jaun** askoren ahotan bagaudela gu ere horrelako zenbait solas entzunik. Piarres Xarriton

Etxeko-**jaun** aldaketa izugarri gaizki bizitu zuen Bittorrek. Itxaro Borda

## **10** ***Jainko jaun***

**Jainko Jaunak** zeru-lurrak egin zituenean. Jose Antonio Mujika

Ondoren, **Jainko Jaunak** baratzea landatu zuen Eden-en. Jose Antonio Mujika

Orduan, **Jainko Jaunak** lur-hautsez gizona moldatu zuen. Jose Antonio Mujika

Aintza eta ohore eman diezaiola **Jainko Jaun** bizi eta egiazkoari. Askoren artean

Errespeta eta ohora, gorets eta bedeinka, eskerrak eman eta adora ezazue **Jainko Jaun** ahalguztiduna bere Hirutasun eta Batasunean, Aita eta Semea eta Espiritu Santua, gauza guztien egilea. Askoren artean

Gure **Jainko Jaunak** nahiko ahal du, bizi honetan elkar ikus dezagun, ene laguna eta ni neu Indietara joan aitzin. Piarres Xarriton

Gure **Jainko Jaunak** begira dezala Errege Jaunaren Ospea. Piarres Xarriton

Gainera, goi-mailako gizontzat hartu nauzu, **Jainko Jaun** horrek. Elizen arteko biblia

Yahveh **Jainko Jaun** errukigabeak ez zion zigorra barkatu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Yahveh **Jainko Jaunarengana** joan zen Lilith, eta sedukzio hutsez Haren izena jakin zuen, inoiz aipatu ezin den Jahvehren izen ezkutua. J.M. Olaizola "Txiliku"

· Zu bazara nor, **Jainko** gure **Jaun** hori, gorespena, aintza eta ohorea eta bedeinkapena hartzeko. Askoren artean

· **Jainko Jauna!,** ez nuen horrelakorik esan nahi. Koldo Izagirre

**Jainko Jauna,** zenbat maite dudan Merteuil andrea! Jon Muñoz

Makina bat bider amore eman izan dut, sarriegitan, **Jainko Jaunak** badaki. **-Jainko Jaun** Bedeinkatu eta Ahalguztidunaren izenean! -esan zuen medikuak. Mirentxu Larrañaga

## 11 ***jaun-andere*** *pl*

Portugaleko Errege eta Erregina **Jaun** Andere ospetsuek. Piarres Xarriton

**Jaun** -andere batzuk auto urdin beltz aire batean, ez dea hala? Janbattitt Dirassar

Lurreko eta zeruko **jaun** -andere boteretsuak, otoi, egizue otoi, egun batez, Xanti ene kontra besarka dezadan! Michel Oronoz

· Esker onez [...] agurtu nituen bi urtez bizilekua eta mantenua doan eman zizkidaten Duhau **jaun** -andereak. Txillardegi

· Etxeko **jaun** -andereak ez dira oraindik itzuli, beraz, zatoz barrura. Xabier Paya

## 12 ***jaun-andre*** *pl*

Hiriburuko seme-alabek maitasun epela agertzen zieten erresumako **jaun** -andreei. Aingeru Epaltza

-Bueno, **jaun** -andreok, hasi egin beharko dugu dantzaldia. Eta izen garbi jakinen eremuan, **jaun** -andreok, zoriontasuna ez dena zorigaitza da, eta tristura. Irene Aldasoro

Poker gaua, **jaun** -andreak! Xabier Paya

Mila esker, **jaun** -andreok. Jesus Mari Mendizabal

· Nik izango diat Gallaher **jaun** -andreei bizi luze eta zoriontsua opa izateko atsegina. Irene Aldasoro

Jose Olarra eta Maria Luisa Larramendi **jaun** -andre historialari tolosarrek. · Gonbidatuari etxeko **jaun** -andreen erdian jartzeko eskatu zioten. Piarres Xarriton

## 13 ***jaun eta jabe*** *pred/adlag* ik **andre eta jabe.**

Itsasoan **jaun eta jabe** zinen. Elizen arteko biblia

De Gaulle izeneko militar bat **jaun eta jabe** zela Frantzian. Bernardo Atxaga

Auto kontuetan, italiarrak dira **jaun eta jabe:** Ferrari, Maserati, Lamborghini... Jon Muñoz

Jesu Kristo, gure **Jaun eta Jabe** bakarra. Elizen arteko biblia

Max, haren seme gazteena, **jaun eta jabe** zen bere gela-zokoan. Jon Muñoz

Gizonaren noblezia, saio eta hutsegitez josiriko ehun mendetan zehar irabazia, materiaren **jaun eta jabe** egitean zetzala. Juan Garzia

Dirua **jaun eta jabe** dela. Bernardo Atxaga

· Ghiberti, Della Robbia, Brunelleschi eta Donatello bizi zituen inguruan, zein bere artearen **jaun eta jabe** harro. Juan Garzia

· *mug* Ene **jaun eta jabea,** ez gutxietsi haren hitzak. Elizen arteko biblia

Nor zen herri hartako biztanlea, haren **jauna eta jabea** ? Jose Morales

Jainkoak, zeru-lurren **jaun eta jabeak,** lurra eta zerua itxi zituenean [...]. Joan Mari Lekuona

Ni **jaun eta jabeen** aldekoa banintz, [...] dudarik gabe egongo nintzateke gutxiengoen eta zapalduen alde, eta batik bat haien eskubide guztien alde. Iñaki Segurola

## 14 ***Jauna hartu*** *(orobat **jaunartu** du ad; Euskaltzaindiaren Hiztegian **Jauna hartu** agertzen da)* ik **komulgatu.**

Sarritan **jaunartzen** zuen. Askoren artean

Hori egiterik ez badu, jendeak atzea eman ohi du eta ez du **jaunartzen** . Joan Mari Lekuona

Meza entzun zuten eta anaietako batek **jaunartu** ere bai. Askoren artean

Eta ohiko bidetik Jainkoari eskerrak eman nahi dizkiodanez gero, **Jauna hartu** nahi nuke. Koldo Biguri

Katolikook, adibidez, debekatuta dugu beste eliza ebangeliko batzuetan **jauna hartzea** . Berria - Harian

Ireki zuten ezarritako egunetan Kristoren mirabeek **jaunartzeko** erabiltzen zuten leiho txikia. Askoren artean

Kendu zuten leihotik **Jauna hartzeko** eta inoiz Jainkoaren hitza entzuteko ahizpek erabiltzen zuten burdina-hesia. Askoren artean

Gona motx batekin joango naiz **jaunartzera** . Bernardo Atxaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**errege jaun** (15); **etxeko jaun** (29); **gerra jaun** (10); **izeneko jaun** (10); **jainko jaun** (93); **jainko jaun ahalguztidunak** (13); **jaun agurgarri** (63); **jaun agurgarri hori** (54); **jaun agurgarria** (28); **jaun ahalguztidun** (28); **jaun ahalguztiduna** (46); **jaun ahalguztidunak** (161); **jaun ahalguztidunaren** (33); **jaun ahalguztidunari** (12); **jaun andere** (35); **jaun andereak** (34); **jaun andereek** (22); **jaun andre** (9); **jaun andreak** (23); **jaun andreek** (14); **jaun andreok** (62); **jaun apeza** (27); **jaun apezak** (14); **jaun apezpikua** (34); **jaun apezpikuak** (33); **jaun apezpikuaren** (15); **jaun artista** (11); **jaun artistak** (35); **jaun artistaren** (23); **jaun auzapeza** (18); **jaun auzapezak** (31); **jaun auzapezaren** (15); **jaun don** (13); **jaun erretor** (18); **jaun erretora** (42); **jaun erretorak** (43); **jaun erretoraren** (10); **jaun erretorari** (11); **jaun eta jabe** (310); **jaun eta jabea** (13); **jaun handi** (17); **jaun handia** (9); **jaun handiak** (11); **jaun haundi** (10); **jaun iluna** (10); **jaun ilunak** (9); **jaun mera** (14); **jaun merak** (13); **jaun ohoragarri** (27); **jaun ohoragarri hori** (26); **jaun txit** (32); **jaun zaharra** (9); **jaun zerukoa** (13); **jaun zerukoak** (21); **kristo gure jaun** (12); **nire jaun** (29); **prezeptore jaun** (13)

**agur jauna** (9); **agure jauna** (10); **alkate jauna** (28); **apaiz jauna** (28); **bedeinka ezazue jauna** (37); **bedeinkatua jauna** (31); **doktore jauna** (16); **ene errege jauna** (30); **ene jainko jauna** (9); **ene jauna** (148); **epaile jauna** (30); **eraztunen jauna** (10); **errege jauna** (95); **etxeko jauna** (32); **gora jauna** (28); **goretsazue jauna** (20); **goretsi jauna** (10); **gotzain jauna** (32); **irakasle jauna** (16); **jainko gure jauna** (10); **jainko jauna** (121); **jauna agertu** (22); **jauna agertu zitzaion** (12); **jauna etorri** (13); **jauna goresteko** (9); **jauna goresten** (12); **jauna goretsi** (15); **jauna gurtu** (13); **jauna gurtzera** (17); **jauna hil** (13); **jauna ikusi** (13); **jauna izan** (25); **jauna izango** (11); **jauna lagun** (19); **jauna zerbitzatu** (9); **kapitain jauna** (60); **komandante jauna** (18); **kristo gure jauna** (47); **kristo jauna** (13); **maita ezazu jauna** (11); **mediku jauna** (11); **mintzatu zitzaidan jauna** (47); **mintzatu zitzaion jauna** (73); **nagusi jauna** (25); **neu naiz jauna** (67); **ni naizela jauna** (75); **ostiako jauna** (13); **zuzendari jauna** (42)

**; agur jaunak** (28); **agure jaunak** (12); **aita santu jaunak** (11); **apaiz jaunak** (9); **erantzun zion jaunak** (10); **errege jaunak** (29); **errektore jaunak** (11); **esan zion jaunak** (24); **etxeko jaunak** (26); **gotzain jaunak** (9); **honela dio jaunak** (85); **jainko gure jaunak** (11); **jainko jaunak** (270); **jaunak adierazi** (12); **jaunak agertu** (14); **jaunak agindu** (73); **jaunak agindua** (15); **jaunak atsegin** (10); **jaunak atseginez** (30); **jaunak atseginez onartuko** (17); **jaunak bedeinka** (16); **jaunak bedeinka zaitzala** (9); **jaunak bedeinkatu** (12); **jaunak bidali** (15); **jaunak egin** (41); **jaunak egindako** (9); **jaunak egiten** (12); **jaunak eman** (57); **jaunak emandako** (13); **jaunak emango** (9); **jaunak ematen** (11); **jaunak erantzun** (66); **jaunak erantzun zion** (32); **jaunak ere** (40); **jaunak erran** (12); **jaunak esan** (315); **jaunak esan bezala** (22); **jaunak esan zion** (172); **jaunak esana** (16); **jaunak esandako** (10); **jaunak esaten** (14); **jaunak eskura** (10); **jaunak gogoko** (10); **jaunak gorde** (10); **jaunak gure jainkoak** (9); **jaunak hartu** (9); **jaunak nahi** (21); **jaunak onartu** (10); **jaunak zeuen jainkoak** (71); **jesu kristo jaunak** (16); **jesus jaunak** (14); **kristo gure jaunak** (50); **kristo jaunak** (16); **zuen jainko jaunak** (9)

**errege jaunaren** (19); **etxeko jaunaren** (16); **gure jaunaren bitartez** (9); **gure jaunaren izenean** (11); **jainko gure jaunaren** (22); **jainko jaunaren** (71); **jainko jaunaren maitasunagatik** (25); **jaunaren agindua** (12); **jaunaren aginduak** (11); **jaunaren agindura** (13); **jaunaren aginduz** (16); **jaunaren ahotsa** (17); **jaunaren aingerua** (39); **jaunaren aingeruak** (40); **jaunaren aintza** (18); **jaunaren aintzak** (12); **jaunaren aitzinean** (17); **jaunaren aurka** (35); **jaunaren aurrean** (171); **jaunaren aurrera** (22); **jaunaren aurretik** (13); **jaunaren bila** (14); **jaunaren bitartez** (13); **jaunaren egintza** (11); **jaunaren eguna** (29); **jaunaren erantzuna** (13); **jaunaren esana** (18); **jaunaren esku** (13); **jaunaren eskua** (9); **jaunaren eskuetan** (13); **jaunaren espiritua** (28); **jaunaren espirituak** (27); **jaunaren etxe** (11); **jaunaren etxea** (38); **jaunaren etxean** (54); **jaunaren etxeko** (49); **jaunaren etxera** (39); **jaunaren etxerako** (13); **jaunaren gorespenak** (26); **jaunaren gorputz** (31); **jaunaren gorputza** (13); **jaunaren grazia** (15); **jaunaren haserre** (12); **jaunaren haserrea** (34); **jaunaren hitz** (13); **jaunaren hitza** (47); **jaunaren hitzak** (23); **jaunaren indarra** (9); **jaunaren itun** (33); **jaunaren itun kutxa** (27); **jaunaren izen** (11); **jaunaren izena** (33); **jaunaren izenean** (97); **jaunaren jaiotza** (11); **jaunaren kutxa** (31); **jaunaren maitasunagatik** (32); **jaunaren mezua** (25); **jaunaren nahia** (14); **jaunaren ohorez** (51); **jaunaren ondoan** (12); **jaunaren ospea** (10); **jaunaren zerbitzari** (13); **jaunaren zerbitzaria** (12); **jaunaren zerbitzariak** (17); **jaunaren zerbitzuan** (16); **jaunaren zeuen jainkoaren** (32)

**jaunarengana itzuli** (9)

**jaunarenganako begirunea** (20)

; **esan zion jaunari** (15); **geure jainko jaunari** (9); **gure jaunari** (49); **jainko gure jaunari** (16); **jainko jaunari** (39); **jaunari atsegin** (71); **jaunari atsegin zaiona** (16); **jaunari begirune** (38); **jaunari dei** (18); **jaunari egin** (10); **jaunari eman** (12); **jaunari erre** (15); **jaunari erre oparitzat** (9); **jaunari erregutu** (9); **jaunari eskaini** (13); **jaunari eskainiko** (10); **jaunari eskainiriko** (16); **jaunari esker** (19); **jaunari eskerrak** (10); **jaunari kontsulta** (10); **jaunari oparia** (10); **jaunari otoitz** (16); **jaunari sagaratua** (13); **jaunari sagaraturiko** (16); **jaunari sakrifizioak eskaintzera** (10); **jaunari zeuen jainkoari** (23); **kanta jaunari** (23); **kristo gure jaunari** (19)

**andere jaunek** (22)

---

jaunartu ik **jaun 14**.

---

**jaunartzaile** *iz* Jauna hartzen duen pertsona.

Abadea, Walter Scottena, **Jaunartzaile** deboziotsua eta Vidocq-en oroitzapenak. Irene Aldasoro

---

**jaunartze** *iz* Jauna hartzea.

Aitortza eta **jaunartzea**. Askoren artean

Hilabete batzuk lehenago hasten ziren pentsatzen ezkontza eta **jaunartzeetan**. Joseba Urteaga

Garai hartan, gure lehen **jaunartzea** prestatzen ari ginen. Ana Urkiza

Nire arreben **jaunartzeko** argazki guztietan. Xabier Mendiguren Elizegi

Oraintxe entzun dugun doinu hori ondo etorriko litzaioke **jaunartzeko** uneari. Bernardo Atxaga

Bere ezkontzako soinekoa guretzako **jaunartzeko** soineko egin zuen; **jaunartzekoa,** jaiegunetako; jaiegunetakoa, astegunetako; astegunetakoa, amantal; amantala, trapu zahar eta trapu zaharra tomate-parrak lotzeko zinta. Ana Urkiza

Erdi Aroan **jaunartzearen** maiztasunari buruz, araua ez zen berdina alde guztietan. Askoren artean

**Jaunartzea** galaraziko ziela. urte hartan, hala ere, haurren **jaunartzeetan** ibili nintzen txistulari taldean. Xabier Mendiguren Elizegi

Zer-nolako soinekoa zenuen **jaunartzea** egin zenuenean. Lourdes Oñederra

-Nik ere egin nuen **jaunartzea**. Gotzon Garate

Hiru oroigarri-klase daude: lehen **jaunartzean** egin ohi direnak, ezkontzakoak […] eta hildakoenak (hauexek ugarienak gainera). Xabier Mendiguren Elizegi

**Jaunartze** egunetako bazkarietan. Joseba Urteaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jaunartze egunean** (3); **jaunartzea egin** (4); **lehen jaunartzea** (5)

---

jaundone ik **jondoni**.

---

**jaundu,** jaun(du), jauntzen da *ad* jaun bihurtu.

Aitzinatu zitzaidan beldurraren zaldia, eta **jaundu** zen hura nitaz. Joan Mari Irigoien

Halako ezinegona **jaundu** eta nagusitu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Frantziako jende maila eta gradu gorenekoak bikain **jauntzen** baitira eredubide horretan. Juan Garzia

Ekia zeruaren erdian **jauntzen** zenean. Itxaro Borda

Zeren eta ehun urtetan ikus baitezakek jauna bilauturik, baina baita bilaua **jaundurik** ere. Joan Mari Irigoien

---

**jauneria** *iz ipar* jaun multzoa.

Hor zituzten hain zuzen egun hortan ehun bat gomitez goiti : andere eta **jauneria** bat, prefeta, suprefeta, kontseilu jeneral eta auzapezetan, Baigorri, Azkarate Irulegi, Banka, Urepelekoak, […]. Herria

**Jauneria** batek gauazko itsuskeriak muntatzen zituela, heietan baitzen fama txarreko emazte, droga eta beste. Herria

Besta hortan bilduak ziren Alemania naziaren kontra irabazi libertatearen zelebratzeko, Errusiako armaden burua eta beste kargudun haundi batzu ere han, noiz-eta **jauneria** horren guziaren buruzagi lerroa jauzarazi baitu aitzinetik prestatu bonba izigarri batek. Herria

Berrehun bat zaldi gaitzeko karrosa ederrak tiratzeko eta beste hainbeste zaldiz heldu zen **jauneriarentzat**! Herria

---

**jaungai** *iz* jaun izatekoa.

Alegrantziarik handienean ospatu zen etxeko **jaungaiaren** munduratzea. Itxaro Borda

---

**jaungoiko** 1 *iz* jainkoa.

**Jaungoikoa** Ongi Aldaezin eta Gorentzat hartzen da; Beragandik datoz ondasun guztiak. Imanol Unzurrunzaga

**Jaungoikoak,** beraz, bere antzeko egin zuen gizakia, **Jaungoikoaren** beraren irudira egin zuen. Imanol Unzurrunzaga

Hauek bilduz eta elkartuz hau aurkitzen dut: ene **Jaungoikoak**, **Jaungoiko** betikoak, ez zuela egin sorkaririk asmo berriz, eta haren jakinduria ez dagoela iraganaren mende. Imanol Unzurrunzaga

Fedegabeek ere "gauza guztien Jaun unibertsala" aitortzen duten **Jaungoiko** ahalguztidunak. Imanol Unzurrunzaga

**Jaungoiko** Jauna gogoan dauka. Imanol Unzurrunzaga

**Jaungoikoaren** Hirutasunean sakontzeko, **Jaungoiko** Hirukoitzaren isla eta irudi den gizakiarengan aurkitzen dituen analogia zenbait erabiltzen ditu Agustinek. Imanol Unzurrunzaga

Jaungoikoaren Hirutasun soil eta aldaezina, **Jaungoiko** Aita, **Jaungoiko** Semea eta **Jaungoiko** Espiritu Santua, **Jaungoiko** bakarra. Imanol Unzurrunzaga

Agustin deunak Jakinduria **Jaungoiko** Semearekin identifikatzen du Eskritura Santuen autoritatean oinarrituz. Imanol Unzurrunzaga

Giza adimena iritsi al daiteke **Jaungoikoa** ezagutzera? Imanol Unzurrunzaga

Ikusiko ditu Jaunak nire opari ugariak, onartuko ditu **Jaungoikoak** nire eskaintzak. Elizen arteko biblia

Polizia batek haietako garezur bati emeki-emeki so egin eta oihu bat egin zuen: **"Jaungoiko** maitea, burezur hau Mary Hoganena duk!" Mary Hogan, 34 bat urteko emakumea, taberna baten jabea zen, hiru urte lehenago galdua, inongo arrastorik utzi gabe. Gotzon Garate

**-Jaungoikoaren** izenean -oihukatu zuen-; atzera denok, bestela burua apurtuko dizuet! Koldo Biguri

**Jaungoikoa** zurekin; ongi ibili. Juan Garzia

· Harria hautsaren menpera makurtuko nuen **jaungoiko** txiki baten ahalmenarekin. Hasier Etxeberria

**2** (hitz elkartuetan)

Guk Jaungoikoaren Seme bakarra deritzoguna, eta argiago zehaztu nahian **"Jaungoiko** Ahalmen" edota "Jaungoikoaren Jakinduria" deitzen dioguna. Imanol Unzurrunzaga

Maitagogo den gizakia **Jaungoiko** Maitasunaren parabola da. Jenaro Garate

Ikusi ere ez gintuan egiten hik heure **Jaungoiko** uste horietan itsututa. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egiazko jaungoiko** (5); **jaungoiko bakar** (4); **jaungoiko bakarra** (7); **jaungoiko hirukoitzaren** (3); **jaungoiko jauna** (4); **jaungoiko jaunaren** (3); **jaungoiko maitea** (7); **jaungoiko nirea** (8); **jaungoiko onak** (6); **jaungoiko semea** (3)

---

## jaungoikotasun *iz* jainkotasuna.

Baina aldakor ororen gain dagoen **Jaungoikotasuna** aldaezina denez, bai Aita, bai Semea, bai Espiritu Santua, hirurak, uren gainean eramanak izan ziren. Imanol Unzurrunzaga

Jaungoikoaren betiereko ahalmena eta **Jaungoikotasuna** ikusgarri gertatzen zaiola haren egintzak aztertzen dituenari. Imanol Unzurrunzaga

Jesukristok **Jaungoikotasunera** egin zuen igoera miragarria. Jenaro Garate

---

## jaungoikotu, jaungoiko(tu), jaungoikotzen du *ad* jainkotu.

Maitale sortzaile bat, izadi osoa **jaungoikotu** eta Aita Jaungoikoari eskainiko diona. Jenaro Garate

Kreazioaren helburua garatzen da: Jesukristo, maitasuna, maitatzea, gu ere berarekin **jaungoikotuz**. Jenaro Garate

---

## jaunka *adlag*

Gymnasiumean distantzia zaintzen zuen **-jaunka** hitz egiten zigun-, eta kalean, zer esanik ez. Anjel Lertxundi

---

## jaunkilo *iz pei* jaunskila.

Aberria nahi dutenek bestalde, arrotzei eta **jaunkilotei** ez diezazkiete hemengo botereen giderrak har, etxean nagusi izatea lehia duten arren. Itxaro Borda

Illiersetik at zegoen **jaunkiloten** palazioa helburu. Berria - Kultura

---

## jaunkiro *adlag* jauntasunez.

Irakasle laguntzaile hura, aldiz, ia ematen zuen gure aurrean desenkusatzen ari zela, gure lekuan eta gure alde jarririk: haren irribarre lotsak eragotzixe eta **jaunkiro** ironikoan, zera irakur ote zitekeen zirudien: […] Juan Garzia

---

## jaunkote *iz pei*

Han ziren **jaunkote** guztien artetik, bakarra ere ez zen ni beste norberaren erretena garbitzen eta taxutzen. Hasier Etxeberria

---

jaunskila ik **jaunxkila**.

---

## jauntasun 1 *iz* jaun denaren aginpidea. ik **jaurgo**; **nagusitasun**.

**Jauntasun** eta nagusigotzat jo baitituzu Ordenako karguak, zama eta morrontza deitu behar direnak. Askoren artean

Foix-ko kondeak eta Leonor, erregearen alabak, erreinuaren gobernadore zirenak, kendu zioten **jauntasuna,** Behamontesen alderdia segitu baitzuen. Michel Oronoz

Bazirudien berarentzat prestatzen ari ziren heriotzak biluzi egin zuela, bere ohiko **jauntasun** eta arrandia neurrigabe guztiaz gabetu zuela. Jose Morales

Lege horiek on eta kalte amaigabeak egin zituzten; nagusitasuna galdu eta gero eskubideak utzi zituzten; hainbat pertsonari gauza batez edo pertsona batzuez jabetza-mota desberdinak eman zizkieten, eta **jauntasun** osoaren pisua gutxitu zuten. Iñaki Iñurrieta

**2** jaun izateko nolakotasuna.

Beti miretsi izan dut Andrein Hazparneko meraren **jauntasuna,** bere isilean. Marzel Etxehandi

Kalte egin dizut; baina barka iezadazu, zure **jauntasunari** duin zaion legez. Juan Garzia

**Jauntasun** eta duintasun osoa galdu zuen. Agustin Otsoa

**3** *hed/irud*

**Jauntasun** handiko automobil haren balioa lan-ordutan ematen saiatu zen Jimmy. Irene Aldasoro

**Jauntasun** handiko meza izan zen, gisa guzietara biziki aberatsa. Marzel Etxehandi

---

## jauntsu *izond*

Erranen dizuet ezen, nola haien nagusiak inguruko etxaldeetako jaunik **jauntsuenak** diren, guarnizinoko soldaduek ez dituztela aintzakotzat hartzen zalduntxoen bilaukeriak... Joan Mari Irigoien

---

## jauntto *iz ipar* jauntxoa.

Jendeek salatu dute ere Europa gauza arrotz bat dela, Bruselako **jauntto** batzuen meneko dena. Herria

Bainan Pariseko **jauntto** batzuk erraiten dutena beti behar omen da sinetsi... Herria

Baionara joaiteko ez dute Donostiatik pasatu nahi UPN-ko **jauntto** horiek. Herria

Etxe-orratzaren ezkaratzean, asiar, europar ala ipar-amerikar **jaunttoak** agertzen ziren: maleta beltza, soineko dotorea, 'pastel' kolorezko ttattarra, […]. Ramuntxo Etxeberri

Bere burua **jauntto** boteretsu batentzat zeukan hark Joanesi bereak eta asto beltxarenak entzunarazi zizkion. Eneko Bidegain

Batean jauregietako **jaunttoak** lausengatuz eta heien alde agertuz, bestean ez batere samur **jauntto** horieri zuten boteretik parte bat bederen kenduz edo mugatuz. Herria

Musean eta Pilotan gu gira **jaunttoak**. Herria

Hautetsia izanen denak ez duela behar Paueko edo beste nunbaiteko **jauntto** baten "xakur" bat izan, bere kantonamenduko boz-emaileri dituela konduak eman behar bai eta boz-emaile horiekin azkar kurutzatu... Herria

---

# jaunttoeria *iz ipar* jauntto multzoa.

Joan den astean Miguel Sanz-en inguruan egin den ekitaldi ofizialean, Iruñan, urtegiaren kontrako bi emazte sartu dira eta **jaunttoeriaren** aintzinean buluzi, beren gorputzean urtegiak urperatu dituen herrien izenak idatziak zituztela. Herria

---

# jauntxo **1** *iz* maila apaleko jauna; herrietan-eta diruaren bidez gehiegizko aginpidea lortzen duen pertsona. ik**jaunxkila**; **jauntto**; **kazike**.

Halaxe bihurtzen dira nagusia **jauntxo,** eta menpekoa esklabo. Joxerra Garzia

Zuzen ibili denak ez dauka zertan kezkatu, izan **jauntxo** edo izan zerbitzari. Hasier Etxeberria

Ez da erraz izango horrelako **jauntxo** baten gaztelua porrokatzea. Gotzon Garate

Amgadek **jauntxo** bat, itxuraz jauregiko nagusia, ikusi zuen. Patxi Zubizarreta

Herri-koxkorretan **jauntxoaren** mehatxuek beldurtzen eta apaizaren esanak itsu-itsuan sinesten zituzten herritar otxan gixaixo haien ondorengo eta oinordeko zuzenak. Iñaki Segurola

Herriko **jauntxo** eta kazikeek. Jon Maia

Donostiako **jauntxo** bat, familia karlistakoa. Koro Navarro

Iraultzaren habia zen Eibar, Bergarako **jauntxo** guztien ikara. Koldo Izagirre

Baina neskatxak artzain pobrea gogoan, eta **jauntxoarekin** ezkondu nahi ez. Patxi Zubizarreta

Dawood Ibrahimek **jauntxo** baten esanetara egin zituen urte batzuk, kontrabandoan eta hiltzaile lanetan. Gotzon Garate

Lorden Ganbera **(jauntxo** eta aristokraziarena) desegin, erregetza sekulako baztertu; errepublika izendatu... J.M. Olaizola "Txiliku"

Toki guztietan **jauntxoak** bere gangsterrak bidaltzen ditu diru-hozkak kobratzera. Fernando Rey

Lehentxeago **jauntxoek** 10 paria garbituak zituzten. Gotzon Garate

Huraxe duk **jauntxoa** hemen: Joaquin Aldaz. Hasier Etxeberria

## **2** irud/hed

Park Avenue-ko **jauntxo** bat; dirutan igerian bizi da, zinez. Oskar Arana

Bereziki de Gaulle bezalako **jauntxo** bat beren jainko zutelarik. Piarres Xarriton

## **3** (izenondoekin)

**Jauntxo** handien arteko setak eta borrokak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Noblezia eta zaldunak alde batetik, errege Charles agintari zutela, eta **jauntxo** txikiak, burgesak eta nekazariak bestetik, Cromwel buru zutela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Donostiar **jauntxo** liberalek. Txillardegi

Badirudi, ehizarako eskubidea, hasiera batean libre zena, **jauntxo** feudalek monopolizatu zutela lurrak berenganatu ahalean. Patziku Perurena

Eliza Katolikoak abusotzat jo zuen, erregeek, printzeek eta **jauntxo** nobleek beren ehizakurrak elizaren kontura bazkatze hura. Patziku Perurena

Errege eta **jauntxo** aberatsen otorduetan. Patziku Perurena

**Jauntxo** izandun batek haurdun utzi ondoren. Patziku Perurena

Gotzaiak egin ziren eliza handien jabe, baina eliza koskor asko **jauntxo** laikoen esku zeuden. Patziku Perurena

Populua ideologikoki menderatzen zuen **jauntxo** eliztarraren botere zapaltzailea. Itxaro Borda

Don Blas Carreño izeneko bat, Alcoleako **jauntxo** aski diruduna. Josu Zabaleta

## **4** (izenondo gisa)

Biharamunean herriko agure **jauntxo** bi etorri zitzaizkion. Gotzon Garate

Nire herrikide **jauntxo** haien iritziz. Txillardegi

Beste gudaroste hori, berriz, bide luzeagoan datorren aberats **jauntxoen** zalduneria da. Patziku Perurena

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Paraje idorra iruditzen zait; eta **jauntxo**-aldra horiek... asper itxura dutela. Txillardegi

Apez eta **jauntxo** herria, ez bestea! Elena Touyarou

Unamuno, euskal "arrazaren" bere **jauntxo** harrotasun guztiarekin, inoiz ez da izan arrazista. Joxe Azurmendi

**Jauntxo** itxurako haiek nirekin zetozelako. Xabier Montoia

## **6** gizon txikia.

## **7** ***gerra jauntxo*** *(orobat* ***gerrako jauntxo****)*

Hamid Karzai presidenteak herrialdearen «arrisku nagusia» talibanak ez, baizik eta **gerra jauntxoen** miliziak direla esan zuen. Berria - Mundua

**Gerra jauntxo** indartsuek kontrolatzen dituzte oraindik ere herrialdeko probintziak. Berria - Mundua

Beste eskualdeak tribuetako buruen eta **gerrako jauntxoen** kontrolpean daude. Berria - Mundua

**Gerra jauntxoek** botere handia lortu zuten talibanen garaian eta oraindik ere indar handia dute, bai politikan eta baita gizartean ere. Berria - Mundua

**Gerrako jauntxoek** bultzatutako milizietan 100.000 pertsona inguru daudela esan du Defentsa Ministerioak. Berria - Mundua

Abdul Rashid Dostum **gerra jauntxoa**. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkientza hartako jauntxo** (3); **gerra jauntxo** (3); **jauntxo protestanten** (3)
**herriko jauntxok** (3); **herriko jauntxoak** (3)
**jaurenea ko jauntxoaren** (3)
**gerra jauntxoek** (4); **gerrako jauntxoek** (4); **herriko jauntxoek** (3)
**herriko jauntxoen** (4); **jauntxoen alde** (3); **jauntxoen artean** (4

---

# jauntxokeria *(orobat* ***jauntxokeri*** *g.er.)* *iz* jauntxoaren jokabide gaitzesgarria.

1979an Nogueirako alkate izendatu zuten, eta han ikasi zituen **jauntxokeriaren** oinarriak. Berria - Mundua

Jendeak pentsatzen bide duelako justiziaren ideiari indarraren eta **jauntxokeriaren** ideia nagusitu zaiola oraingo sistema kriminalean. Juan Martin Elexpuru

Hona, bada, beste adar garrantzitsu bat nire azterketarako: baserri giroetako lur eta baserri jabeen **jauntxokeria,** eta **jauntxokeria** horrek boterean dagoenarekin konpontxo egiteko daukan abildadea. **Jauntxokeriazko** politika bat zen, elkarren arerio ziren bi bandoren arteko borroka. Anjel Lertxundi

Esparru guztietara zuzendurik UPNk eta CDNk egindako politika salatu zuen EAko lehendakariak eta **«jauntxokeri** demokratikoa» zein «eroskeria politikoa» egotzi zien. Berria - Euskal Herria

Espainiar **jauntxokeriak** sortu zuela Euskadin orain arte ludi osoan ikusi den gudarik zital eta gogorrena, Eusko Aberria zapaldu eta hiltzeko asmo hutsez. Berria - Kultura

---

# **jauntxokume** *iz pei* jauntxo baten semea edo alaba.

Jendea hil, herrietara taldeka joan eta neskak bortxatu, jauntxoei lagundu eta **jauntxokumeek** egiten dituzten erokeriei jaramonik egin ez... Gotzon Garate

---

# **jauntzi**1, jauntz, jaunzten da/du *ad ipar* jantzi.

Ez dira kasik etxetik ateratzen ahal edo bestenaz behar dituzte gisa hartako soinekoak **jauntzi,** aurpegia ere untsa gordez, doi-doia begiak ageri. Herria

**Jauntzi,** ohea bildu eta altxatu, hormako katean lotuz. Filipe Bidart

Berrogeita hamabortz aldiz **jauntzi** du frantses taldearen jauntzia. Herria

Zoin eder Larrun mendi hori, izan neguan, elurrez **jauntzia,** izan udaberrian, bazterra berriz berdatzearekin... Herria

Europa batuak bi mailetan ezartzen dituela bere mintzairak, lehen maileko batzu ofizialtasunez **jauntziak,** eta bigarren mailekoak aise apalago ekarriak nahitez... Herria

Entzun ditugu ere kantuak, anarkista horren kantuak, hunkigarriak batzu [...], hitz gordinez **jauntziak** batzutan. Herria

Kantu horren airea **jauntzi** behar litake beraz hitz berri batzuekin. Herria

---

# **jauntzi**2 *iz* **1** *ipar* jantzia.

Besoak altxatu eta miaketa, axalekoa, **jauntzien** gainetik. Filipe Bidart

**Jauntziak** inarrosi zituen errautsaren eta belar limarren kentzeko. Elena Touyarou

**Jauntzi** idorrak behar dituzte, gureak organ blai egin dira. Elena Touyarou

Beste batzu hor berean gelditu **jauntzi** zibiletan. Xipri Arbelbide

**Jauntzi** xuri gorritan agertzen da jendea, gizon ala emazte, zahar ala gazte, denak alegerak iduriz. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ikusi zuen aita Michel zetorrela, estola sakratua lepotik dilindan eta kaliza eskuan, beretter **jauntzia** zeraman mutiko batekin. Elena Touyarou

Horra beraz Jospin uztail betean Papa Noel edo Olentzero **jauntzietan** jarria..! Herria

Sorginkerietan sartuak gara XXI. mendearen hastapen honetan, sorgin **jauntzietan** sorginarena eginez. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jauntzi berezi** (5); **jauntzi berezietan** (6); **jauntzi ederrak** (5); **jauntzi horia** (5); **jauntzi koloretsuak** (3); **jauntzi xuri** (4); **jauntzi xuritan** (6); **udako jauntzi koloretsuak** (3) **gorriz jauntziak** (3); **xuriz jauntzia** (3)

---

# **jaunxkila** *(orobat **jaunskila**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jaunxkila** agertzen da) iz* jauntxoa.

Sos gehienik ematen zuenaren zerbitzuko salatariek, bortxaz soldadu altxatuak zirenek, bezero eske zebiltzan **jaunxkilek,** apez arnegatuek, bai eta emozio bortitzen tirria zuten burgesek ere. Elena Touyarou

Apezeriak eta zenbait **jaunskilek** erreformatuen kontra xaxatua zuten herriko jendaila. Aingeru Epaltza

Beraz, gero eta oldarkorrago **jaunskilak,** ausartago sakela mukuru betetzeko. Xabier Montoia

Betiko **jaunskilak** nagusi eta mendekoak beti bezain kontent beren hartan. Xabier Montoia

Gure herrira bazatoz zure **jaunxkila** manerekin eta, guri goratik so eginez, [...]. Elena Touyarou

---

# **jaupadaka** *adlag* dei eginez.

Apaiza izateaz aparte, ehiztari amorratua zen Mateo, beti zakur gorri batekin batera eta bestera ibiltzen zena, beti zakur horri txistuka eta **jaupadaka;** hortik Txistu ezizena. Pako Aristi

---

# **jaupari** *iz* apaiza.

Saseta batailoiko Iriondo **jaupariaren -jaupari** esaten zitzaien orduan gudarien abadeei- hiru argazki ziren hantxe. Edorta Jimenez

Abade honek -izena aipatuz esan zuen bisitariak- bazekien elizan Iriondo **jauparia** egona zela, eta hark ostiak edo berak hartu edo gudarien artean banatu zituela. Edorta Jimenez

---

# **jauralki** *iz* tronua.

Haren **jauralkiraino** igo bedi norberaren zolagune sakonenetik ateratako aiene bat. Joan Mari Lekuona

Graziaren **jauralkia**. Joan Mari Lekuona

---

# **jauregi** **1** *iz* eraikuntza handi eta bikaina, errege, printze, goi mailako elizgizon edo handiki baten egoitza dena. ik **jauretxe**; **palazio**.

**Jauregi** bat zirudien etxe batean. Xabier Olarra

Garai joanen oihartzun apalduak dira inguru haietako etxe eta **jauregi** asko. Anjel Lertxundi

**Jauregi** hau ez baita edozein gizonentzat, Jainko Jaunarentzat baizik. Elizen arteko biblia

Tsarrak **jauregi** gisa erabiltzen duen eraikin dotorera. **Jauregi** bat egiteko asmoa agertu zion. Jose Morales

Gero, **jauregia** berreraiki zutenean, espazio ilun hura birmoldatu, eta bi partetan partitu zuten. Joan Mari Irigoien

Erregea ere txunditua du, eta zazpi **jauregi** eraikiaraziak ditu alabaren plazererako, zein baino zein ederragoak. Patxi Zubizarreta

Oliteko **Jauregia** berritzeko. Patziku Perurena

**Jauregiaren** kanpoko harresian zehar ibili zen inguruka. Felipe Juaristi

Zure babeslekuak lurreratuko ditu, Eta zure **jauregiak** hustuko. Elizen arteko biblia

Galdu dira elizak, galdu dira **jauregiak,** etxeak eta dorreak. Edurne Elizondo

Jerusalemgo etxeak eta Judako erregeen **jauregiak**. Elizen arteko biblia

Kaifas zeritzan apaiz nagusiaren **jauregian** bildu ziren. Elizen arteko biblia

**Jauregiaren** kanpoko harresian zehar ibili zen inguruka. Felipe Juaristi

Deiotik gertu Iguzkiza dago, eta, bertan, Medranotarren **jauregia**. Martin Anso

Zinez frantses ondarea dela Versailles-eko **jauregia**. Herria

Hendaiako Abbadia **jauregian**. Herria

## 2 *hed*

Gasteizen Musika eta Arte Eszenikoen **Jauregia** egiteko.

Auditoriuma, kongresuen **jauregia,** eta erakustaretoarena egiten duen eraikinak kritikarien eta arkitektoen oniritzia jaso du, ez ordea erabiltzaileena. Berria - Kultura

## 3 (izenondo eta izenlagunekin)

**Jaauregi** handi-ederra eraikiko dut neuretzat, sala aireztatuz hornitua. Elizen arteko biblia

Nikolas Mickevicius kondea, alargundu zenetik, Vilniusen bizi zen zerbitzariekin, **jaauregi** txiki baina txukun batean. Felipe Juaristi

Klara Schulzek trena hartu zuen, [...] txekiarrek Terezin deitzen zuten **jaurgi** zaharreko geltokian. Felipe Juaristi

Marfilez jantzitako etxeak desagertuko dira, eta **jauregi** bikainak ezereztuko. Elizen arteko biblia

Urtetan **jauregi** inperialean bizi izan zen, bisir handien artean. Fernando Rey

Abadia maldatsua, han, **jauregi** fantastiko bat bezala lurretik urruti baztertua, ametsezko palazio bat bezala harrimen eragilea. Josu Zabaleta

**Jauregi** arabiar bateko emakume dantzariak ziruditen. Felipe Juaristi

Dendak [...] **jauregi** barroko bateko beheko solairua hartzen zuen. Felipe Juaristi

Marmolezko eta zilarrezko **jauregi** eder hori eraitsi behar zutela azkenean. Fernando Rey

Antzinako **jauregi** bat. Felipe Juaristi

Gobernadore nagusiaren behin-behineko **jauregia** ageri zen Volgaren beste aldeko zabaldi handi batean. Karlos Zabala

Preso zegoela luxuzko **jauregi** ondo zaindu hartan. Jon Muñoz

Urrezko **jauregi** lur-zilarreztatu baten aurrean zaindari. Koro Navarro

Marmolezko eta zilarrezko **jauregi** eder hori, eraitsi behar zutela azkenean. Fernando Rey

Belusezko **jauregi** bat. Eider Rodriguez

## 4 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jauregi**-bizimoduaren jakin-minez zegoela. Askoren artean

Askatasuna **jauregi**-intriga batek eman dion herri baten bozkario denboraz kanpoko eta prekarioa. Juan Garzia

Ohorea litzateke niretzat -gaineratu zuen, doinu-apal, **jauregi** jabeak. Felipe Juaristi

Zurturik utzi zuten inguru bikain haiek eta **jauregi**-gela zabaletan bere margolanak ikusteak. Xabier Olarra

Tolosako estazioaren ondoan ezagututako **jauregi**-bulegora jo nuen. Txillardegi

Gero, errege-etxe edo **jauregi**-gaztelu aberats horietako bat ikusi nuen aurrez aurre. Patxi Ezkiaga

Museo berri gehienak **jauregi** zaharrak eraberrituz ari dira sortzen. Anjel Lertxundi

**Jauregi** barruan bazela lorategi bat, inoiz ikusi den ederrena. Felipe Juaristi

**Jauregi** barneko atarian agertu zen, erregearen gela aurrean. Elizen arteko biblia

Bost soldadu sentitu zituen **jauregi** sarrerako ezker aldean. Felipe Juaristi

Jauregia eta **jauregi**-ingurua zer-nolakoa zen adieraziko dizut. Joan Mari Irigoien

**Jauregi** trazako asentu ederreko etxe bat zen. Anjel Lertxundi

Urdinarbe eta Muskildi aldean, nolabait azaltzeko, **jauregi** itxurako etxe zabal bat zegoen. Txillardegi

**Jauregi** atariraino hurbildu ziren biak. Felipe Juaristi

## 5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hara, zure aurka noa, haranaren gainaldean, harkaitza bezain tinko lautadaren gainaldean zauden errege-**jauregi** horren aurka. Elizen arteko biblia

Bere besoetara ekarriko zuen eta errege-**jauregi** berreskuratuan berarekin batean sarraraziko. Aingeru Epaltza

Erret **jauregian** urririk egoteko eskubidea. Piarres Xarriton

-Nire semeak gotzain-**jauregia** zikindu diola esan nahi al dit berorrek? Koldo Biguri

Estatu-kolpea gertatu zenean apezpiku-**jauregiaren** inguruan egin zuten zaintza euskal nazionalistek egunez eta gauez. Mikel Hernandez Abaitua

Milaka lagun Miraflores presidentetza-**jauregiaren** inguruan paratu ziren Chávezen itzulera aldarrikatuz. Txema Ramirez de la Piscina

Caracas kontrolatzearen ardura Chavezi eman zitzaion, bera zen Miraflores gobernu **jauregia** hartu behar zuena. Pako Aristi

Udaletxeetan eta diputazio **jauregietan**. Iñigo Aranbarri

Herri-**jauregiaren** aurreko plazan. Askoren artean

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; hed)

Bilboko Euskalduna musika eta kongresu **jauregiaren** bosgarren urteurren honetan. Berria - Kultura

Baluarte batzar **jauregia** izanen da erakusketa hartuko duen aretoa. Berria - Kultura

Musika **Jauregiaren** egitasmoa. Berria - Kultura

Europa guziko pilota **jauregi** ederrena izanen omen da. Herria

Eta estoldak, egun, izugarri luzatu eta korapilatu dituk, justizia-**jauregiak** eta ministerioak ordezkatzeraino. Iban Zaldua

Izan gara eta ikusi dugu Nafarroako errege-erreginen gaztelu **jauregia**. Piarres Aintziart

Erroman zuen arbaso-**jauregia** monasterio bihurtu zuen. Iñaki Mendiguren

Madrilgo Kongresuen Udal **Jauregian**. Berria - Kultura

## 7 *irud*

Hitzezko **jauregi** gotorra eraiki zuen izuaren aurka. Felipe Juaristi

Isiltasuna genuen etxe, neurririk gabeko **jauregi,** formarik gabeko loratei. Felipe Juaristi

Horren beldurrez naizelako gelditu nahi dut beti-betirako hemen, gau iluneko **jauregi** honetatik inoiz alde egin gabe. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**errege jauregi** (5); **erregearen jauregi** (5); **hernaniko jauregi** (4); **jauregi aurrean** (8); **jauregi aurreko** (5); **jauregi barneko** (5); **jauregi berria** (4); **jauregi berrian** (6); **jauregi berriko** (10); **jauregi eder** (17); **jauregi eder bat** (6); **jauregi ederra** (4); **jauregi inguruan** (4); **jauregi zaharra** (7); **jauregi zaharrean** (4); **kongresu jauregi** (4)

**arte eszenikoen jauregia** (6); **bilboko euskalduna jauregia** (32); **errege jauregia** (5); **euskalduna jauregia** (61); **jauregia hartu** (5); **jauregia utzi** (4); **justizia jauregia** (5); **kirol jauregia** (4)

**abbadia jauregian** (4); **abbadiako jauregian** (7); **ajuria eneko jauregian** (9); **asisko gotzainaren jauregian** (14); **baluarte jauregian** (4); **basoko jauregian** (4); **bilboko euskalduna jauregian** (101); **donostiako kursaal jauregian** (21); **donostiako miramar jauregian** (55); **errege jauregian** (6); **erregearen jauregian** (15); **euskalduna jauregian** (184); **faraoiaren jauregian** (4); **gasteizko europa jauregian** (7); **goiuri jauregian** (7); **gotzainaren jauregian** (19); **ibaigane jauregian** (4); **izotz jauregian** (4); **jauregian bizi** (14); **jauregian biziko** (4); **jauregian egin** (22); **jauregian egin zuten** (8); **jauregian egindako** (16); **jauregian egindako ekitaldian** (4); **jauregian egingo**

(18); **jauregian eginiko** (10); **jauregian egiten** (4); **jauregian geratu** (5); **jauregian hartu** (4); **jauregian izan** (6); **jauregian izango** (8); **jauregian sartu** (5); **justizia jauregian** (8); **kirol jauregian** (5); **kursaal jauregian** (30); **madrilgo moncloa jauregian** (7); **miramar jauregian** (93); **moncloa jauregian** (23); **moncloako jauregian** (15); **stormonteko jauregian** (4); **zarzuela jauregian** (6)

**errege jauregiaren** (4); **euskalduna jauregiaren** (6); **foru jauregiaren** (9); **jauregiaren aitzinean** (6); **jauregiaren atarian** (4); **jauregiaren aurrean** (18); **jauregiaren aurreko** (9); **jauregiaren barruan** (4); **jauregiaren inguruan** (7); **jauregiaren kanpoaldean** (4); **jauregiaren kontra** (4); **jauregiaren parean** (5); **justizia jauregiaren** (4)

**jauregietan bizi** (6)

**abbadia jauregiko** (11); **abbadia jauregiko kaperan** (9); **errege jauregiko** (4); **erregearen jauregiko** (4); **euskalduna jauregiko** (21); **jauregiko aitzin** (4); **jauregiko andere** (6); **jauregiko arrano** (5); **jauregiko atarian** (9); **jauregiko ate** (7); **jauregiko buru** (6); **jauregiko gela** (5); **jauregiko jaun** (4); **jauregiko kaperan** (11); **jauregiko leiho** (4); **jauregiko loretegira** (4); **jauregiko maiordomoen** (4); **jauregiko portalera** (5); **jauregiko sala** (6); **jauregiko salan** (4); **jauregiko zerbitzari** (4); **miramar jauregiko** (4)

**erregearen jauregira** (4); **euskalduna jauregira** (7); **graemetarren jauregira** (4); **jauregira abiatu** (5); **jauregira eraman** (18); **jauregira eramateko** (4); **jauregira iritsi** (4); **jauregira itzuli** (19); **jauregira jo** (6); **jauregira joan** (12)

**jauregirat etorri** (7); **jauregirat iritsi** (4)

**foru jauregitik** (5); **jauregitik alde egin** (4); **jauregitik atera** (5); **jauregitik irten** (10)

---

## jauregiburu *(corpusean **jauregi-buru** bakarrik)* *iz* jauregi baten burua. ik **jauregizain**.

Gosete handia zen Samarian, eta Akabek Abdiasi, **jauregi**-buruari, dei egin zion. Jose Antonio Mujika

---

## jauregigile *iz* jauregiak egiten dituen arkitektoa.

Banan-banan eta ordenaz Markako Jaun eta Andre guztien izenak zerrendatu zituen: Eorl Gaztea; eta Brego **Jauregigilea;** eta Aldor, Baldor Zoritxarrekoaren anaia; [...]. Agustin Otsoa

---

## jauregiratu, jauregira(tu), jauregiratzen da *ad* jauregira etorri.

Eta, hala, iparraizeak bazterrak inarrosten zituen martxoko egun batean **jauregiratu** zitzaigun, zaldiz, Alessandro de Novara. Dukea **jauregiratu** baino bi hilabete eskas lehenago. Joan Mari Irigoien

---

## jauregitxo *iz* jauregi txikia.

Denak plazan zeuden, Spilimbergo kondeen **jauregitxoaren** inguruan, Museo bat du Madame Beylek bere hiru pisuko **jauregitxoan**. Anjel Lertxundi

Serrano kalean zegoen, baina oso goian; El Viso aldean ugariak diren **jauregitxo** haietako batean. Ramon Saizarbitoria

---

## jauregizain *iz* jauregia zaintzen duen pertsona. ik **jauregiburu**.

Erregea Tirtzan zegoen, Tirtzako **jauregizaina** zen Artzaren etxean, edaten eta mozkorturik. Elizen arteko biblia

Eta Amotzen seme Isaias profetagana bidali zituen Eliakim **jauregizaina,** Xebna idazkaria eta apaizik zaharrenak, doluz jantzirik. Elizen arteko biblia

Akabek Obadiasi, **jauregizain** nagusiari, dei egin zion. Elizen arteko biblia

---

## jaurerri *iz* jaun baten agindupeko lurraldea.

Baina ezin konta ahala **jaurerri** eratu zirenean, basailutza-gradu desberdinak ezarri zirenean, [...]. Iñaki Iñurrieta

Mugikortasun geografikoa mugatua da: jopuek ezin dute jauna askatasunez utzi, eta jaunek ezin dituzte jopuak saldu, **jaurerriarekin** batera ez bada. Koro Navarro

**Jaurerri** bakoitzak zuen bere zuzenbide zibila. Iñaki Iñurrieta

Hitz batez, kondeak leude ziren beren konderrietan; leudeak, berriz, konde beren **jaurerrietan**. Iñaki Iñurrieta

**Jaurerri** horietako bakoitza unitate politiko eta ekonomiko beregaina da, gazteluek ia ezin sartuzkoa bihurtzen dutena. Koro Navarro

Hantxe zegoen Nabarrenkoxe, **jaurerri** subiranoko lurretan, eta aldi berean Nafarroa Beheretik legoa guti batzuetara. Aingeru Epaltza

---

## jauresle *iz* jauresten duen pertsona.

Baina *cultor* ere gizon egoiliarra da eta, beste zentzu batzuetan, gizon laguna, babeslea, zaindaria, eta erlijioan gizon gurtzailea, **jaureslea,** adoratzailea. Askoren artean

---

## jaurespen *iz* jaurestea, gurtzea.

Hura bai **jaurespena,** Tolstoiri ziona. Joxe Austin Arrieta

---

## jaureste *iz* gurtzea, adoratzea.

Soil-soilik Jainkoari (gorets bedi!) eman behar zaizkion gurkera eta **jauresteari**. Xabier Kintana

---

## jauretsi, jaurets, jauresten du *ad* gurtu, adoratu.

Edertasuna miresten nuen, bertutea **jauresten**. Jon Muñoz

Gizona Jainko gure Jauna goresteko, **jauresteko** eta zerbitzatzeko egina da. Patxi Altuna

---

## jauretxe 1 *iz* jauregia.

Elizaren aldameneko "Kondenea" **jauretxeak**, esate baterako ez luke parekorik izango Donostia osoan. Txillardegi

**Jauretxe** zaharrek itxita zeuzkaten beren ate handiak. Koro Navarro

Bazeuden eskualde hartan beste lauzpabost **jauretxe** dotore, ez askoz gehiago, hondar-muino idorren arteko belargune zekenetan nabarmen. Txillardegi

Itxura negargarria zuen **jauretxe** eder hark. Koro Navarro

Ezenarro familiaren **jauretxearen** ondoan. Lutxo Egia

Ulibarritarren **jauretxe** horretaz luzaz behar nuke mintzatu. Txillardegi

Aita Azpilkuetako **jauretxetik** zetorren, hortik ere haren izena. Piarres Xarriton

Oso ondo imajinatzen zuen Malfoy **jauretxe** handi batean harropuztuta. Iñaki Mendiguren

Izbetatik **jauretxerainoko** tarte guztia lantegiz josirik ageri zen. Jose Morales

Teilatu garaiko **jauretxe** zaharraren aurreko patioan sartu ziren. Jose Morales

**2** (hitz elkartuetan)

Pariseko Batzarrak pribilegioak eta **jauretxe**-abantailak oro ezeztatu zituen, probintzia, printzerri, kantonamendu, hiri bai eta komunitate eskubideak barne. Elena Touyarou

**3** tenplua.

Jainko-tenploa eta **jauretxea** ezin da izan giza-eskuek egina, antolatua eta itxuratua. Pello Zabala

Lehenengoa, Jainkoa zerbitzatzea **jauretxean**. Joan Mari Lekuona

Hantxe eraiki zen ermita, gero basilika ederra izango zena, eta urtero-urtero, makina bat litro ur bedeinkatu izan deneko **jauretxe** ederra. Pello Zabala

Filistearren artera mezulariak bidali zituzten, idoloen **jauretxeetan** herriari berri ematera. Elizen arteko biblia

Berit jainkoaren **jauretxe** azpiko kriptan gorde ziren. Elizen arteko biblia

Egun batez, bere jainko Nisrok-en **jauretxean** ahozpeztua zegoelarik [...] bere semeek ezpataz jo eta hil egin zuten.

**Jauretxea** eraiki zion Baali Samarian eta aldarea ezarri bertan. Elizen arteko biblia

Jerusalemgo **jauretxe** handi ederrean. Pello Zabala

**4** irud/hed

Unibertsitateak ez dira ezagutzaren **jauretxeak** izango, eskaintzen diren lanpostuetarako irtenbideak emango dituzten erakundeak baizik. Berria - Euskal Herria

---

# jaurgo *(orobat* **jaurgoa** *g.er.)* **1** *iz* jauntasuna, nagusigoa.

Panitaliar **jaurgo** ahaltsua, denbora labur batez estatu batean elementu germaniar, erromatar eta Ekialdekoak bildu zituena. Iñaki Mendiguren

Geroxeago, 1576an, Jean Bodin legelari frantsesak, "Errepublikaren Sei Liburuak" argitaratzean, Estatu subiranoaren definizioa osatu zuen, Estatuaren esku ezarriz Jainko Ahalguztidunaren **jaurgoa** bera, hau baita Botere Absolutua. Piarres Xarriton

Herriaren subiranotasuna edo **jaurgoa** bermatzen duen Demokrazia. Piarres Xarriton

Bizkitartean hiri bakarra zelarik edo zenbait hiri baina bakoitza bere alde egoki, hiri bakoitzeko hiritar guztiek bazuten bakoitzak bere jabegoa eta eskubidea, **jaurgoa** horretaz jabetu arte [...] gizaki bakarra. Piarres Xarriton

**2** *irud*

Eguerdiko labe gorietan, ekia bere **jaurgoaren** gailurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** jaurerria.

Araba, Bizkaiko **Jaurgoa,** Gipuzkoa beregana bilduz. Joxe Azurmendi

**4** (hitz elkartuetan)

Garai hartan, **jaurgo**-ekonomia zen oraindik nagusi landa-lurretan. Koro Navarro

---

# jaurkitu, jaurki(tu), jaurkitzen du *ad* jauki.

Hunek auzitegirat **jaurkitua** du. Herria

---

# jaurlaritza **1** *iz* gobernua.

Estatutua Madrilen onartuta, Euzkadiko **Jaurlaritza** sortu zen. Edorta Jimenez

Alvaro Tobio de Sarrionandiak, zuela gutxira arte Euzkadi'ko **Jaurlaritzaren** ordezkaria izana zenak. Edorta Jimenez

Ez Iruñeko Gobernuan ezta Gasteizko **Jaurlaritzan** ere. Txema Ramirez de la Piscina

Haien gobernua ez zen gobernu, **Jaurlaritza** baizik. Joxerra Garzia

**2** Euzko Jaurlaritza.

Euzko Deya zen, **Jaurlaritzak** Parisen argitaratzen zuen kazeta. Alberto Ladron Arana

Mugaldeko laguntza prestatzen ari da, **Jaurlaritzakoekin** batera. Alberto Ladron Arana

Badaezpada ere, ez hurbildu **Jaurlaritzaren** Parisko egoitzara. Alberto Ladron Arana

**3** Eusko Jaurlaritza.

**Jaurlaritzarentzat** egiten du lan. Iban Zaldua

Ez diat uste IU **Jaurlaritzan** sartuko denik -bota du-. Iban Zaldua

Gogoan dut "laurak bat" armarriarekin gertatu zena ere, nola **Jaurlaritzak** bere ikur egin zuen, nola gero Nafar gobernuak kateak handik kentzeko esijitu zuen [...], nola azkenik Espainiako auzitegiek Nafarroari eman zioten arrazoia; kateen lekuan hutsune gorri bat geratu zen geroztik, zauri odoldu baten antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** ***Euzko Jaularitza*** 1936tik aurrerako euskal gobernu beregainaren izena.

Jose Antonio Agirre **Euzko Jaurlaritzako** lehendakaria erbesteko **Euzko Jaurlaritzako** lehendakaria baino ezin izan zela 1937ko abuztutik aurrera. Juan Luis Zabala

Erbesteko **Euzko Jaurlaritzaren** eta aliatuen zerbitzu sekretuen arteko harremanak. Alberto Ladron Arana

Alderdiarentzat eta aurki osatuko zen **Euzko Jaurlaritzarentzat** nazioarteko laguntza bilatzea. Inazio Mujika Iraola

**Euzko Jaurlaritzaren** egoitza zen Angeluko *Endara* etxean. Alberto Ladron Arana

**5** ***Eusko Jaularitza*** 1980az gerozko euskal gobernu beregainaren izena.

Eusko **Jaurlaritza,** Herrizaingo Saila, Trafiko Zuzendaritza. Iñaki Arranz

Jon Landa, Eusko **Jaurlaritzako** Giza Eskubideen zuzendariari eginiko elkarrizketa. Iñigo Aranbarri

Eusko **Jaurlaritzako** Hezkuntza sailburu zen Inaxio Oliveri adiskideak eskuratu zizkidan laguntza ofizialak. Pello Salaburu

Eusko **Jaurlaritzaren** Kultura Saila. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ezusteko handia hartu nuen jakin nuelarik OICko idiskoa EAJra joan zela eta **Jaurlaritzaren** Ekonomia Sailean zegoela, goi-mailako postu batean. Juan Kruz Igerabide

Eusko **Jaurlaritzako** kapar parasito bat gehiago. Unai Iturriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ari da jaurlaritza** (7); **eusko jaurlaritza** (351); **jaurlaritza osatzen** (47); **jaurlaritza osatzen duen** (13); **jaurlaritza osatzen duten** (31); **jaurlaritza prest** (8); **jaurlaritza sostengatzen** (11)

**ari da jaurlaritza** (7); **berretsi du jaurlaritzak** (7); **eusko jaurlaritzak bultzatutako** (8); **eusko jaurlaritzak egindako** (8); **eusko jaurlaritzak emandako** (9); **eusko jaurlaritzak onartutako** (13); **jaurlaritzak antolatutako** (7); **jaurlaritzak aurkeztutako** (13); **jaurlaritzak bultzatutako** (10); **jaurlaritzak dio** (13); **jaurlaritzak egindako** (22); **jaurlaritzak eman** (8); **jaurlaritzak emandako** (14); **jaurlaritzak esan** (8); **jaurlaritzak hartutako** (9); **jaurlaritzak onartu** (12); **jaurlaritzak onartutako** (19); **jaurlaritzak prestatutako** (10); **jaurlaritzak proposatzen** (9); **jaurlaritzak uste du** (13); **nahi du jaurlaritzak** (19); **onartu du jaurlaritzak** (9); **uste du jaurlaritzak** (11)

**eusko jaurlaritzako** (1830); **eusko jaurlaritzako alderdiek** (9); **eusko jaurlaritzako bozeramaileak** (36); **eusko jaurlaritzako lehendakariak** (121); **eusko jaurlaritzako lehendakariorde** (10); **jaurlaritzako alderdiek** (11); **jaurlaritzako bozeramaile** (43); **jaurlaritzako bozeramailea** (8); **jaurlaritzako bozeramaileak** (60); **jaurlaritzako bozeramailearen** (9); **jaurlaritzako eledun** (20); **jaurlaritzako eledunak** (26); **jaurlaritzako garraio sailburu** (8); **jaurlaritzako gobernu** (34); **jaurlaritzako gobernu**

**batzordeak** (17); **jaurlaritzako gobernu kontseiluak** (14); **jaurlaritzako herrizaingo sailak** (95); **jaurlaritzako herrizaingo sailburuak** (14); **jaurlaritzako hezkuntza sailak** (69); **jaurlaritzako hezkuntza sailburuak** (36); **jaurlaritzako hezkuntza saileko** (10); **jaurlaritzako immigrazio zuzendari** (8); **jaurlaritzako industria sailak** (12); **jaurlaritzako industria sailburuak** (11); **jaurlaritzako ingurumen sailak** (21); **jaurlaritzako ingurumen sailburuak** (15); **jaurlaritzako justizia sailak** (11); **jaurlaritzako justizia sailburu** (25); **jaurlaritzako kultura sailak** (45); **jaurlaritzako kultura sailburuak** (25); **jaurlaritzako lan sailak** (16); **jaurlaritzako lan sailburuak** (13); **jaurlaritzako lehendakari** (92); **jaurlaritzako lehendakaria** (40); **jaurlaritzako lehendakariak** (136); **jaurlaritzako lehendakariarekin** (20); **jaurlaritzako lehendakariaren** (19); **jaurlaritzako lehendakariari** (33); **jaurlaritzako lehendakariorde** (15); **jaurlaritzako lehendakariordeak** (14); **jaurlaritzako ordezkariek** (10); **jaurlaritzako osasun sailak** (28); **jaurlaritzako osasun sailburu** (8); **jaurlaritzako osasun sailburuak** (13); **jaurlaritzako osasun saileko** (9); **jaurlaritzako sailburu** (8); **jaurlaritzako trafiko zuzendaritzak** (10)

**eusko jaurlaritzaren esku** (12); **eusko jaurlaritzaren gobernu** (14); **eusko jaurlaritzaren izenean** (9); **eusko jaurlaritzaren jarrera** (9); **eusko jaurlaritzaren proposamena** (11); **eusko jaurlaritzaren ustez** (9); **jaurlaritzaren aburuz** (8); **jaurlaritzaren aurka** (8); **jaurlaritzaren bozeramaile** (10); **jaurlaritzaren bozeramaileak** (8); **jaurlaritzaren diru laguntza** (10); **jaurlaritzaren egitasmoa** (21); **jaurlaritzaren egitasmoak** (11); **jaurlaritzaren egitasmoaren** (11); **jaurlaritzaren esanetan** (10); **jaurlaritzaren esku** (38); **jaurlaritzaren esku uzteko** (8); **jaurlaritzaren estatutu** (291); **jaurlaritzaren estatutu berriaren** (8); **jaurlaritzaren estatutu berrirako** (83); **jaurlaritzaren estatutu proposamena** (50); **jaurlaritzaren estatutu proposamenak** (19); **jaurlaritzaren gobernu batzordeak** (8); **jaurlaritzaren herrizaingo sailak** (11); **jaurlaritzaren izenean** (24); **jaurlaritzaren jarrera** (20); **jaurlaritzaren planaren** (8); **jaurlaritzaren proposamena** (43); **jaurlaritzaren proposamenak** (14); **jaurlaritzaren proposamenaren** (23)

**; eskatu dio jaurlaritzari** (10); **eskatu diote jaurlaritzari** (13); **eusko jaurlaritzari eskatu** (11); **jaurlaritzari eskatu** (26); **jaurlaritzari eskatu zion** (11); **jaurlaritzari leporatu** (8)

---

# **jaurlaritzatu**, jaurlaritza(tu), jaurlaritzatzen du *ad adkor* gobernatu.

Eta ikusi egiten dut: lehendakariak **jaurlaritzatzen** duen herria Euskadi bada, nola deitzen da **jaurlaritzatua**? Iñigo Aranbarri

---

# **jaurti** *(1817 agerraldi, 195 liburu eta 451 artikulutan)*, jaurtitzen **1** du *ad* eskuaz, edo ukaldi edo tresna egoki edo hartako baten bidez, (zerbait) abiadan bidali. ik **jaurtiki**.

Orduantxe **jaurti** nuen neure azken bonba. Koldo Izagirre

Autobus baten aurka molotov koktelak **jaurtitzea** leporatzen diete bi gazteei. Berria - Euskal Herria

Bigarren dardoa **jaurti** zuen Enrikek. Iñaki Iñurrieta

Bat-batean, aizkora **jaurti** zuen labana bailitzan, eta bost bat metrora zegoen zuhaitz batean sartuta utzi zuen garbi. Bernardo Atxaga

Gogoz **jaurti** zuen, baina ezin izan zuen gola lortu. Berria - Kirola

Makinak **jaurti** behar duen harriaren pisua zenbatekoa den kontuan hartuz. Santiago Iruretagoiena

Bi librako harria **jaurti** behar duen baleztak. Santiago Iruretagoiena

Eskua zorroan sartu, harri bat atera, habailaz **jaurti,** eta bekokian jo zuen filistearra. Jose Antonio Mujika

Tabernara sartu, eta botila **jaurti** zion aurpegira. Patxi Zubizarreta

Haserretu egin zen orduan Adjib, eta bere aitari harri bat **jaurti** zion. Patxi Zubizarreta

Momenturik egokienean, harrikada bat **jaurti** eta aurpegian jo nuen bete-betean. Koldo Biguri

Jendetza handi bat ikusi zuen, txalo jo eta loreak **jaurtitzen** zizkiona. Koldo Biguri

Nola itsasontzi batek hondora joan aurretik baitu jotzen tutua edo airera **jaurtitzen** bengalak. Juan Kruz Igerabide

Handik patio barnera **jaurti** zituen pikotxa eta kandela. Patxi Zubizarreta

Gure azken kanoikada **jaurti** genuenean. Koldo Izagirre

**Jaurti** ditut tiro batzuk hodeietara. Koldo Izagirre

Estatubatuar hegazkinek **jaurti** dituzten bonbek hildako kubatarren hiletetan. Edorta Jimenez

Ezkontzaginak beloa erantzi, eta besaulkira **jaurti** zuen. Patxi Zubizarreta

Hartu zuten kedarra labetik, eta Moisesek zerurantz **jaurti** zuen Faraoiaren aurrean: gizakiak eta abereak zauri zornatsuz bete ziren. Jose Antonio Mujika

Lagunak mendekua hartzeko alabatxoari aurpegira azidoa **jaurti** zion. Gotzon Garate

Karkaxa bildu eta **jaurti** egin nuen, marranta kentze aldera. Anjel Lertxundi

Bigarren penaltia ez **jaurtitzea** erabaki zuen. Berria - Kirola

Zenbatek ez ote dute beren gorrotoaren kopa zeru-lurren kontra **jaurti**? Patxi Zubizarreta

Bera ere egonean doan gezi sentitzen baita sarri, ez nork ez norantza **jaurti** duen ez dakiela. Joxerra Garzia

## **2** *irud*

**Jaurti** ezak urrunera bizimolde lohi eta likits honetako zama! Patxi Zubizarreta

Harryk tu egin eta gurin-garagardo pixka bat **jaurti** zuen ahotik nahigabe. Iñaki Mendiguren

Ikus dezazun gorputzek beti argi berria behar dutela, izpiak **jaurti** ahala hiltzen direla. Xabier Amuriza

Kea bisaiara **jaurti** nion. Aingeru Epaltza

Jendeak lasaitasunezko aieneren bat **jaurti,** eta arnasa hartu zuen. Anjel Lertxundi

Nire pubak zortzi bafle dauzka, eta 2.000 batioko indarra **jaurtitzen** dute lokalaren hesteetara. Pako Aristi

Kobrak ere halaxe kulunkatzen dira, beren tximista **jaurtitzen,** eta beren kulunkara itzultzen berriro. Josu Zabaleta

Lorategira doaz erdeinuzko begiradak **jaurtiz**. Antton Olano

## **3** bota.

Bada, gizon hura ere Karibe itsasora **jaurti** zuten. Edorta Jimenez

Txitxikovek, amorruaren amorruz, lurrera **jaurti** zuen sablea. Jose Morales

Zigarrokina **jaurti** zuen lurrera. Anjel Lertxundi

Oholak uretara **jaurti** ostean gaua iritsi zen. Edorta Jimenez

Zakuetan bildu eta herri erditik igarotzen den ubidera **jaurti** zituzten. Gotzon Garate

Mezkitan sartzean, Korana jaso eta bere zaldien oinpera **jaurti** zuen. Iñaki Iñurrieta

Jaunak trumoi, tximista eta kazkabarra **jaurti** zituen Egipto osoan. Jose Antonio Mujika

Guk ere badugu San Joan sutara zer **jaurti**. Edorta Jimenez

Oldarrean **jaurti** zuen aulki gurpilduna aldapan behera. Jon Muñoz

Dirdai jainkozkoa da, ezjakinaren itsutasunera **jaurtitzen** gaituena. Joan Mari Lekuona

Zergatik **jaurti** behar da iruzurgile errugabea espetxe batera, [...] gelditzen zaion ondasun bakar eta tristea ere kentzen zaiolarik, askatasuna, alegia? Juan Martin Elexpuru

Zozketan atera ez diren zenbaki txartelak zakarrontzira **jaurtitzera** doan itsuaren inportezaz begiratzen dio harriak Nemesiori. Pako Aristi

## **4** irud/hed

Jendeak lasaitasunezko aieneren bat **jaurti,** eta arnasa hartu zuen. Anjel Lertxundi

Piztiaren hilketa kontatzean garaipen oihuak **jaurtiz** eta poz jauziak. Josu Zabaleta

Bere patu txarraren kontrako madarikazioa ari zen behin eta berriro zeruetara **jaurtitzen**. Anjel Lertxundi

Amak hamaika birao eta hitz ustel **jaurti** zituen azti afrikarraren kontra. Orain hartu sudurretik eta **jaurti** ahotik! Patxi Zubizarreta

Baina emazteak, buruz buru, begitartera **jaurti** zion: […]. Patxi Zubizarreta

-Eta bide luzeena hartzea nahi duzu, gainera! **-jaurti** zuen Léak. Jon Muñoz

-Zein izango da ba! **-jaurti** du Jordik Preteritok Dani begira-: [...]. Patxi Zubizarreta

-Gizon bat agindu zigutek, eta hona gixon bat! -berbak hasperen batean **jaurti** zituen, niri barik aireari. Edorta Jimenez

Besteen diruaren gaia itxuraz ez zuen gogoko, eta haratik hara **jaurti** zidan hurrengo galdera. Edorta Jimenez

Erlojurik ez dut! **-jaurti** zidan purrustaka. Josu Zabaleta

Isidora da akusazioa **jaurti** duena. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **airera jaurti** (6); **atera jaurti** (6); **aurka jaurti** (4); **behera jaurti** (3); **bi misil jaurti** (4); **bonba bat jaurti** (5); **bonba jaurti** (4); **bonbak jaurti** (3); **botilak jaurti** (4); **gainean jaurti** (3); **gainera jaurti** (9); **gasa jaurti** (5); **gasak jaurti** (3); **gezi bat jaurti** (3); **gezia jaurti** (3); **gogor jaurti** (4); **granada bat jaurti** (3); **granadak jaurti** (5); **hainbat misil jaurti** (3); **harri bat jaurti** (3); **harria jaurti** (6); **harriak jaurti** (14); **hiru misil jaurti** (3); **hitzak jaurti** (3); **itsasora jaurti** (8); **jaurti zion aurpegira** (3); **jaurti zuen lurrera** (3); **kalera jaurti** (3); **kanpora jaurti** (6); **kohete bat jaurti** (3); **kohete jaurti** (4); **koheteak jaurti** (5); **koktel bat jaurti** (4); **koktel jaurti** (5); **koktelak jaurti** (12); **kontra jaurti** (11); **lehergailu bat jaurti** (3); **leiho batera jaurti** (3); **lurrera jaurti** (22); **misil bat jaurti** (4); **misil jaurti** (13); **misilak jaurti** (8); **molotov koktelak jaurti** (9); **mortero bat jaurti** (3); **morteroak jaurti** (9); **muturreko bat jaurti** (3); **negar gasa jaurti** (3); **obus jaurti** (3); **suziriak jaurti** (3); **tinko jaurti** (3); **tiro jaurti** (3); **uretara jaurti** (18); **zigarroa jaurti** (3)
>
> **kanpora jaurtia izan** (3)
>
> **jaurtigai bota** (4); **jaurtigai bota zituzten** (3)
>
> **balezta batek jaurtiriko** (3)
>
> **misil bat jaurtita** (3); **misilak jaurtita** (3)
>
> **); aurka jaurtitako** (5); **helikopteroek jaurtitako** (4); **jaurtitako bonba** (4); **jaurtitako misil** (4); **jaurtitako misilek** (5); **kontra jaurtitako** (5)
>
> **jaurtitzea erabaki** (4)
>
> **hiruko lerrotik jaurtitzeko** (3); **jaurtitzeko ardura** (3); **jaurtitzeko aukera** (10); **jaurtitzeko prest** (5); **lerrotik jaurtitzeko** (4); **penaltia jaurtitzeko** (3)
>
> **bonbak jaurtitzen** (5); **etengabe jaurtitzen** (3); **gauzak jaurtitzen** (3); **harriak jaurtitzen** (10); **harriak jaurtitzen ari** (3); **jaurtitzen ari** (13); **jaurtitzen hasi** (11); **lokatza jaurtitzen** (3); **lurrera jaurtitzen** (4); **oihuak jaurtitzen** (4); **toxikoak jaurtitzen** (3); **uretara jaurtitzen** (5)
>
> **lurrera jaurtiz** (3)

---

## jaurtialdi *iz* jaurtizea.

Gereziak jaten etortzen zen eta hexurrak paretaren kontra botatzen zituen **jaurtialdi** lehor eta tupustekoan. Fernando Rey

Diana bat, bere zirkulu kontzentrikoekin, koloreak higatu samar **jaurtialdi** askoren arrastoengatik. Iñaki Iñurrieta

Bere **jaurtialdi** luzeak harri astunen bidez indartzen ditu, piezarik handienak baino ez ditu arrantzatzen. Itziar Otegi

---

## jaurtiarazi, jaurtiaraz, jaurtiarazten du *ad* jaurtitzera behartu.

Dadoak sutara **jaurtiarazi** zituen harrapa ahala. Aingeru Epaltza

Prest al zaudete orain, [...] lurreraino ahozpeztuz, nik eraikitako irudia gurtzeko? gurtu nahi ez baduzue, berehala labeko su bizira **jaurtiaraziko** zaituztet. Elizen arteko biblia

---

## jaurtigai 1 *iz* eskuaz edo jaurtigailu batez jaurtikitzen den gauza.

**Jaurtigaiak** botatzen hasi ziren egundoko altueratik. Agustin Otsoa

Bi **jaurtigairen** ibilbidea. Jon Muñoz

Gure gain-gainetik igaroko dira **jaurtigaiak**. Jon Muñoz

Beste behin bludger batek ziztu bizian egin zuen bere bidea, kanoiaren **jaurtigaia** bezala. Iñaki Mendiguren

Huraxe zen heriotzaren eragilea, 37 kalibreko **jaurtigai** txiki hura. Aritz Gorrotxategi

Dozena bat **jaurtigaik** autoaren muturra zulatu zuten. Alberto Ladron Arana

Debekaturiko **jaurtigaiak** baliatzen ditu. Berria - Mundua

Uraniozko burua duten **jaurtigaiak**. Berria - Mundua

Israeldarrek 2.000 **jaurtigai** inguru bota dituzte Gazara. Berria - Mundua

*Deep Impact* zundak **jaurtigai** bat bota zuen Tempel 1 kometaren aurka iazko uztailean. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Etsaien konpainia berriek laster muntatzen zituzten **jaurtigai** makina handiak, bakoitza lubaki baten babesean. Agustin Otsoa

Eta ez dute haiek inoiz ezagutu hura baino **jaurtigai** -zaparrada hilgarriagorik. Jon Muñoz

· Kanoi- **jaurtigai** bat ziztu bizian irteten. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **jaurtigai bota** (4); **jaurtigai bota zituzten** (3)

---

## jaurtigailu 1 *iz* jaurtigaiak jaurtitzeko erabiltzen den tresna.

Zientzia berri bat sortua zuen Tartagliak, balistika: **jaurtigailuen** mugimenduen zientzia. Jon Muñoz

Zer lotura dago **jaurtigailu** baten helmenaren eta jaurtiketa egiteko eratu den angeluaren artean? Jon Muñoz

Roketa eta airekoen kontrako **jaurtigailuak,** Esku batean pistola sofistikatu bat zuen, laser izpien **jaurtigailu** edo. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Neska zarpatsu talde baten atzetik oldartu zen, bere harri- **jaurtigailua,** kargatu gabe, keinatzen ziela. Irene Aldasoro

Taigherren atzetik P.P. Carbayoren irudia agertu zen, granada- **jaurtigailu** bat eskuan zuela. Jon Alonso

Bazookak eta kohete- **jaurtigailuak** erabiltzea zilegi bada ere, arma horiekin zehar-hildakoak eragitea oso erraza da. Iban Zaldua

Roketa **jaurtigailu** dirdiranta besapean. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **granada jaurtigailuak** (5); **roketa jaurtigailu** (3)

---

## jaurtigailudun *izond* jaurtigailua duena.

Tanke telezuzendu misil- **jaurtigailuduna,** supernintendoa, lau eguneko bidaia Eurodisneyra. Aingeru Epaltza

---

**jaurtigarri** *izond* jaurti daitekeena.

Mendeku egiteaz gain, Israelgo Armadaren helburua zen ere, Rafako bizigunean haren ustez kokatutako Kassam lehergailu **jaurtigarri** fabrikak desegitea. Berria - Mundua

---

**jaurtigune** *iz* jaurtitzeko gunea. ik **jaurtileku**.

Kassam morteroen **jaurtiguneak** eta fabrikak desegin nahi ditu Tsahalek. Berria - Mundua

---

**jaurtika** 1 *adlag* jaurtiz.

Itsasontzietatik arkuak, geziak eta lantza eztenluzeak hartu eta, hiru taldetan banaturik, **jaurtika** hasi ginen. Juan Kruz Igerabide

Eta, emakumezkoak ere baziren han, soldaduei loreak **jaurtika,** arrosak gehienbat. Mirentxu Larrañaga

Txistu joka eta txanpon **jaurtika** hartu zuten ikusleek. Josu Zabaleta

Umeak elkarri petardoak **jaurtika**. Koldo Izagirre

Azpitik, norbait ari zitzaion leihora harritxo **jaurtika**. Koldo Biguri

Ni ez nauk aurkarien aurpegira tomate-**jaurtika** ibiltzen den doilorkume bat! Koldo Biguri

Hamabi ehizako eta bederatzi bonbaketari trimotor Junker 52 aritu zitzaizkigun arratsaldeko lehen orduetan herio **jaurtika**. Koldo Izagirre

2 ***jaurtika egin*** jaurti.

Ez al dakizue harresi gainetik **jaurtika** egiten dutela. Elizen arteko biblia

---

**jaurtikari** *iz* jaurtigailua.

Simon Mannek onartu zuen «asalturako errifleak, granadak, tankeen aurkako misil **jaurtikariak»** eta beste zenbait arma Zimbaweko defentsa enpresei erosten saiatu izana Berria - Mundua

---

**jaurtiketa** 1 *iz* jaurtitzea.

H-bonbaren **jaurtiketaren** ondoren. Joxe Austin Arrieta

NASAk atzeratu egin du Aura satelitearen **jaurtiketa**. Berria - Gaiak

Dadoen beste **jaurtiketa** baterako aukera. Xabier Olarra

**Jaurtiketak** hasieran ahul samarrak ziren, gero gogorragoak, azkenean tiroketa ia profesionalak. Joseba Sarrionandia

Ez zela istripu bat izan, ongi eta luzaroan saiaturiko **jaurtiketa** bat baizik. Karlos Linazasoro

Fernando Vazquezen taldeak gertu izan zuen bigarren gola, baina Oscarren **jaurtiketak** langa jo zuen.

Jokaldi onak, **jaurtiketa** bikainak... Berria - Kirola

Bilbo Basket 97-99 aurretik zela, Santutxukoak bi **jaurtiketak** huts egin zituen. Berria - Kirola

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kanoi baten gehienezko helmena 45 graduko **jaurtiketa**-angelu bati dagokio. Jon Muñoz

**Jaurtiketa** eremutik kanpo. Joxean Sagaztizabal

**Jaurtiketa** puntuan. Xabier Olarra

**Jaurtiketa** plataforma batez. Koro Navarro

Futbol-zelaiari buelta batzuk eman ondoren **jaurtiketa**-saio bat egiten ari ginela. Joan Mari Irigoien

Zelai barruan, berriz, bi oren aitzinago hasi ziren ikusgarriak, besteak beste, suziriak eta hagetarako **jaurtiketa** txapelketa. Berria - Kirola

Behin ikusi egin zituen jolasten **-jaurtiketa**-joko bat-, eta haren so suminduak begiak kliskarazi zizkion Paul D-ri. Anton Garikano

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bakuba hiri ondoan AEBek duten base baten kontra mortero eta kohete **jaurtiketak** bi soldadu hil eta beste bat zauritu zituen.

19 pertsonak bizia galdu zutela misil **jaurtiketa** horren ondorioz. Berria - Mundua

Mailu-**jaurtiketako** munduko errekorra. Jon Alonso

Sousaren falta **jaurtiketa** batek hesia jo eta Juan Pablo lekuz kanpo harrapatu baitzuen. Berria - Kirola

Hiru zigor kolpe **jaurtiketa:** Hodgson (20., 45. eta 54. m.). Berria - Kirola

4 ***jaurtiketa egin*** jaurti.

Zer lotura dago jaurtigailu baten helmenaren eta **jaurtiketa** egiteko eratu den angeluaren artean? Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**disko jaurtiketa** (3); **drop jaurtiketa** (11); **drop jaurtiketa gauzatu** (6); **egin zuen jaurtiketa** (3); **egindako jaurtiketa** (9); **falta jaurtiketa** (27); **falta jaurtiketa bat** (7); **hiruko jaurtiketa** (5); **jaurtiketa arriskutsua** (3); **jaurtiketa asmatu** (9); **jaurtiketa baten ondorioz** (3); **jaurtiketa behartuak** (4); **jaurtiketa bortitza** (3); **jaurtiketa egin** (12); **jaurtiketa egiteko** (3); **jaurtiketa errazak** (3); **jaurtiketa garbiak** (3); **jaurtiketa gauzatu** (132); **jaurtiketa gauzatuta** (3); **jaurtiketa gelditu** (9); **jaurtiketa gogor** (3); **jaurtiketa libre** (6); **jaurtiketa libreen** (6); **jaurtiketa libreen bidez** (4); **jaurtiketa ona** (10); **jaurtiketa saio** (3); **kanpoko jaurtiketa** (3); **kolpe jaurtiketa** (164); **kolpe jaurtiketa asmatu** (7); **kolpe jaurtiketa gauzatu** (120); **korner jaurtiketa** (5); **lehen jaurtiketa** (7); **pisu jaurtiketa** (6); **puntu bateko jaurtiketa** (3); **zigor kolpe jaurtiketa** (164)

**albokoen jaurtiketak** (3); **falta jaurtiketak** (3); **jaurtiketak egiten** (3); **kanpoko jaurtiketak** (7); **mortero jaurtiketak** (4); **penalti jaurtiketak** (3)

**pisu jaurtiketan** (4); **zigor kolpe jaurtiketan** (3)

**jaurtiketen bidez** (8)

**egin zituen jaurtiketetan** (7); **hagetarako jaurtiketetan** (5); **hiruko jaurtiketetan** (5); **jaurtiketetan egin** (5); **kanpoko jaurtiketetan** (4); **penalti jaurtiketetan** (12)

---

**jaurtiki** *(554 agerraldi, 72 liburu eta 29 artikulutan)*, jaurtikitzen **1** du *ad* jaurti.

Arkulariak ziren, geziak eta nahiz harriak **jaurtikitzen** trebeak, nola eskuinez hala ezkerrez. Elizen arteko biblia

Baleztarekin **jaurtikitako** hirurehun eta hirurogei librako harrien kolpea ondo jasan ahal izateko. Santiago Iruretagoiena

**jaurtikitzeko** dorreak. Elizen arteko biblia

Kezko poteak **jaurtikiz** sartu ziren, bortitz. Jokin Urain

Azkonak **jaurtikitzeko** uztaiak. Elizen arteko biblia

Harresi gainetik errotarri bat **jaurtikiz**. Elizen arteko biblia

Dragoiak bere arnasa nazkagarria **jaurtiki** zuen. Koro Navarro

Ahoetatik sua **jaurtikitzen** zuten metro batzuetara. Joanes Urkixo

Farolak [...] isla berdeak **jaurtikitzen** zituzten etxe-bloke moreen gainean. Lopez de Arana

**2** bota.

**Jaurtiki** zituzten, beraz, israeldarrek Baalen eta Astarteren irudi guztiak. Elizen arteko biblia

Lehoi-zulora **jaurtiki** zituzten beren emazte eta seme-alabekin batera. Elizen arteko biblia

Zuzien argiak itzal fantasmagorikoak **jaurtikitzen** zituen tontorraren inguruan bildutako gerlari ugarien gainera. Joanes Urkixo

Itotakoen gorpuak uretara **jaurtikitzen** badira. Koro Navarro

**3** (era burutua izen gisa)

Harresietatik geziak botatzen zaizkienean, **jaurtikiek** ez dezaten aurrealde zapalean jo. Santiago Iruretagoiena

Azkenik, makina guztia suzko **jaurtikiekin** eta balezta-tiroekin desegin zuten. Santiago Iruretagoiena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gainera jaurtiki** (3); **gezia jaurtiki** (4); **itsasora jaurtiki** (5); **lurrera jaurtiki** (5); **uretara jaurtiki** (3); **uretarat jaurtiki** (3)
**infernura jaurtikia** (3); **infernura jaurtikia izan** (3); **jaurtikia izan** (7); **sutara jaurtikia** (3)
**gorpua ibaira jaurtikitzeko** (4); **jaurtikitzeko aukera izateko** (3)
**gorpuak uretara jaurtikitzen** (3); **kontra jaurtikitzen** (3); **sua jaurtikitzen** (3); **uretara jaurtikitzen** (5)
**harriak jaurtikiz** (5)

---

## jaurtikigai *iz* jaurtigaia.

Bustitako **jaurtikigaiek** sarraski itzela sortzen zuten, demonioak garretan iraungitzen ziren. Joanes Urkixo

Deabruzko musika lagun zutelarik berriro, demonioek ubidea zeharkatu zuten, gainera erori zitzaien **jaurtikigai** uholdeari aurre eginez. Joanes Urkixo

---

## jaurtikigailu **1** *iz* jaurtigailua.

Bildu zirenean, gotorlekua inguratzen hasi ziren, **jaurtikigailuak** eta gudurako beste zenbait tramankulu eraikiz. **jaurtikigailu** eta arma ugari zuten bildua. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

Su- eta harri-**jaurtikigailuak**. Elizen arteko biblia

Granada **jaurtikigailu** bat, 60 pistola, 20 fusil, hainbat arma, 23.000 munizio, 30 detonagailu eta 25 kilo dinamita. Berria - Euskal Herria

---

## jaurtikika *adlag* jaurtika.

Horrela ibili zen maisua, dorretik harri-**jaurtikika**. Joan Mari Irigoien

Bertze partaide guztiek harri-**jaurtikika** ekiten zioten bitartean. Joan Mari Irigoien

---

## jaurtikin *iz* jaurtigaia.

Hogeita hamar urte atzerago, **jaurtikin** horrek berak Lincoln hil zuen, antzezle baten egintza kriminal edo eta magiko bat tarteko. Juan Garzia

Ikusi nuen baztanga-pikatuz josita zegoela hura, ilargia bezala, berak emandako ukitu eta ukabilkaden ondorioz; eta, harantzago, hozkailuaren atea koskatua eta mailatua, meteorito edo **jaurtikinek** jo balute bezala. Xabier Olarra

---

## jaurtikitze *iz* jaurtitzea.

Izan ere, haren erretzeko modu hura ez zen soil ke hartze eta ke **jaurtikitze** bat, mintzatzeko modu bat ere bazen. Joan Mari Irigoien

Emakumearen atsegin seinalatuena -hartzen duena- ezin kontatua omen duk, azken jakinik gabea jeneralean, eta gizonarena berriz, badakik, kolpe edo **jaurtikitze** bat. Iñaki Segurola

---

## jaurtilari *iz* jaurtitzailea.

Zeren eta gimnasioan dauzkaten estatua guztiei auzitegian ari diren hizlarien itxura eman baitiete, eta foroan dauzkatenei, berriz, disko-**jaurtilarien** edo lasterkarien edo pilotarien itxura. Santiago Iruretagoiena

---

## jaurtileku *iz* jaurtitzeko lekua. ik **jaurtigune**.

**Jaurtileku** egokia arretaz bilatu, kanoia hantxe tentuz paratu, eta handik egin behar izaten da aurrerantzean tiro. Joxerra Garzia

Iturri beraren arabera, suziriak botatzeko **jaurtilekuak** suntsitzeko helburua ere bazuen atzoko operazioak. Berria - Mundua

---

## jaurtitzaile **1** *izond* zerbait jaurtitzen duen pertsona. ik **jaurtilari**.

Une hau aukeratu zuten mairuek punta sutan zuten gezi eta biroteak goitik jaurtitzeko, erauntsian, [...] eta han-hemen erortzen ziren, barreiatuta, zorionez haizeak **jaurtitzaileen** punteria okertzen zuen. Jon Alonso

Geziak, berriz, oraingo hau hemendik, hurrengo hori hortik, eta hirugarren hura handik jaurtitzeko libertatea ematen diote **jaurtitzaileari**. Joxerra Garzia

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakume bat atera zen, lehen begi kolpean pisu-**jaurtitzaile** edo agian mailu-**jaurtitzaile** errumaniarraren itxurakoa iruditu zitzaidana. Jon Alonso

Xabalina **jaurtitzaileak** zeuden bertan, lehian. Karlos Linazasoro

Elsak labana-**jaurtitzailearena** egiten du numeroetako batean: jendea aho-zabalik geratzen da berak ganibeta eskuetan hartu orduko. Harkaitz Cano

Haren zerbitzari Conseil eta Ned Land arpoi-**jaurtitzaile** ausarta. Imanol Zurutuza

Harritxo **jaurtitzailea** nor zen ikusi eta atea irekitzera joan zen. Koldo Biguri

· *izond* Terrorista bonba-**jaurtitzaile** ezaguna. Jose Morales

Ku-kux-klanaren eraso txiza-**jaurtitzaileak** sortutako egonezina uxatzeko aproposa zelakoan denok sarrarazi gintuen gure irakasle maiteak. Joxean Sagaztizabal

**3** zerbait jaurtitzen duen tresna. ik **jaurtigailu**.

i120ko 4 piezaz eta 76,6ko torpedo-**jaurtitzaile** batez hornitua. Edorta Jimenez

-Zenbat pistola, zenbat fusil, zenbat bonba, zenbat granada- **jaurtitzaile** ? Juan Kruz Igerabide

Badakit, baina, hau amaitzen denean gure bila etorriko direla, eta prest egon behar dut haiei aurre egiteko, dena delakoari; gasari, beharbada, sugar- **jaurtitzaileei,** edo granadei, edo baionetei. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jaurtitzaile onak** (5); **jaurtitzaile onenak** (3); **kanpoko lerroan jaurtitzaile** (3)

---

# jaurtitze **1** *iz* zerbait abiadan bidaltzea.

Tiramen eskasa eta **jaurtitze** ahula. Aingeru Epaltza

Palacios tenorrak lan handia egin bazuen ere, **jaurtitze** bortxatua sumatu genion. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Munduko atxur- **jaurtitze** txapelketa ez-dakit-nongo-herritan. Aingeru Epaltza

· Neska-mutikoek, lehengo modura lotsa-gabeturik, beren **jaurtitze** jolasari ekin diote berriro. Berria - Kultura

---

# jausaldi *iz* eroraldi.

Malenkonia **jausaldi** batek hartu zuen eta besteak, antzeman baitzion, galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Aldizkarikoei ahantzi egin zitzaien nabarmentzea, alkoholarekin batera, zein garrantzitsua izan daitekeen [...] **jausaldietan** beste norbaitentzat desiragarri izatea. Patxi Zubizarreta

---

# jausarazi, jausaraz, jausarazten *(orobat **jausiarazi**)* du *ad* erorarazi.

Bi harritzar **jausarazten** zituen oihuak iratotzeko. Juan Garzia

Niregandik ordaina nahi baldin baduzue, gertu nago: berehala **jausaraziko** dut ordaina zuen bizkarrera. Elizen arteko biblia

Nire barneko harresiak **jausarazten** dituen hots larria. lokatz izoztuan buruz behera **jausarazten** bagintuen ere, [...]. Xabier Montoia

Harria lurrerantz abiatu eta **jausiarazten** duen mugimendua harriarena dela. Imanol Unzurrunzaga

---

# jausgailu *(22 agerraldi, 3 liburu eta 8 artikulutan; orobat **jauskailu** g.er.)* *iz* hegazkinetatik jauzi egiten duten pertsonen edo botatzen diren gauzen abiadura gutxitzeko erabiltzen den gailua, airean zabaltzen denean aterki handi baten itxura hartzen duena. ik **paraxut**.

11:00: kapsularen lehen **jausgailua** zabalduko da. Berria - Gaiak

Beldur nintzen, bizkorregi zabaltzen banuen, neure **jausgailuan** korapilatuko ez ote nintzen. Josu Zabaleta

**Jausgailuan** jauzi egiterakoan hegazkinaren egonkorgailuak belauna harrapatu eta hautsi zion, baina Sagonek ez zuen talka sentitu. Josu Zabaleta

Sagonen unibertsoa ere horretara mugatzen zen: tranpal irristaria abiarazten duen biradera, **jausgailuaren** helduleku bat -haren lekuak kezkatzen baitzuen- eta bere ekipoaren egoera teknikoa. Josu Zabaleta

Nola liteke, **jausgailuan** horrelako jauzi izugarria egin ondoren oraindik ere horrelako odol hotza izatea! Josu Zabaleta

Ilunabar aldera iritsi zen, azkenean, agindutako hegazkina, kirol-aparatu bat, luzaroan itzulinguruka ibili zena, bere **jauskailua** askatzera deliberatu zen arte: hiru zaku eta bi kaxa, hirurehun metroko ingurunean han-hemenka sakabanatuta jaso behar izan genituenak. Joxe Austin Arrieta

---

# jausgailukari *iz* paraxutista.

Egun hauetan irakurtu dut Algeriako gerlan **jausgailukarien** omonier edo apez izan den euskaldun baten lekukotasun ederra. Herria

---

# jausi, jaus, jausten **1** da *ad* erori. (norbait)

Irristatu egin zen, eta **jausi** ere egingo zen haitz bati eutsi izan ez balio. Patxi Zubizarreta

Zuhaitzetik **jausi** ez da ba! Patxi Zubizarreta

Komuneko zulotik behera **jausi** garela pentsatuko dute. Sonia Gonzalez

Maria eskaileretatik **jausi** zenekoa. Unai Elorriaga

Baraibarko pilotari ohia 20 metroko amildegi batetik **jausi** zen herenegun arratsaldean.

Aldapa pikoan behera abiatu ginen, Rio Mundoren uretara **jausi** arte. Jon Maia

Hori guztia ikusi zuelarik, oihu handi bat egin, eta zorabiaturik **jausi** zen. Patxi Zubizarreta

Konortea galdurik **jausi** zen lurrera. Patxi Zubizarreta

Bere ama **jausi** zen lekurantz joan zen narrasean, haztamuka. Karlos Zabala

Dena dela, **jausteko** zorian egon arren, artean zutik zirauen. Migel Angel Mintegi

Asko dira ezpataz **jausiak,** baina ez mihiaz **jausiak** beste. Elizen arteko biblia

**2** (norbait, nola adieraziz)

Ziplo **jausi** da lurrera. Patxi Zubizarreta

Neskame koitadua hankaz gora **jausi** zen. Patxi Zubizarreta

Baratzean harri batekin estropezu egin, eta muturrez aurrera **jausi** zen. Patxi Zubizarreta

Etsaia estropezu eginda ahuspez **jausi** zen. Joanes Urkixo

Lurrera **jausi** zen zerraldo. Patxi Zubizarreta

Fardeltxo baten antzera **jausi** zen lurrera. Julen Gabiria

Belauniko **jausi** zen lurrera mutila, eta negarrari ekin zion. Xabier Aranburu

Balantza txiki bat, eta ipurdiz **jausi** zen. Unai Iturriaga

Txitxikov luze-luze **jausi** zen lokatzetara. Jose Morales

**3** (zerbait)

Zahagitik ezti tanta bat **jausi** zen. Patxi Zubizarreta

Tantaka **jausten** zaion izerdia kendu nahian. Paddy Rekalde

**Jaus** bedi babiloniarren gain isuri duten nire odola! Elizen arteko biblia

Eskuetatik **jausi** zitzaion telefonoa. Xabier Montoia

Eraztuna lurrera **jausi** zitzaion. Patxi Zubizarreta

Aizkora kirtenetik atera eta uretara **jausi** zitzaion. Elizen arteko biblia

Elurrari **"jausi** lur gainera" agintzen dionean. Elizen arteko biblia

Baloia portuko uretara **jausi** zenean. Joseba Sarrionandia

**Jausten** hasiriko euri-lanbro itxiak etxera egotzi zituen kalean zebiltzan azken oinezkoak. Migel Angel Mintegi

Salbamendu operazioan, helikoptero bat itsasora **jausi** zen eta sei lagun galdutzat jo dituzte. Berria - Gaiak

**4** (zerbait abstraktu)

Isiltasun sakona **jausi** zen gazteluan. Iñaki Mendiguren

Lucy doi-doia besoa luzatzen ari zela edontzia nire eskutik hartzeko, zerua **jausi** zitzaion gainera. Oskar Arana

**5** egoera gaizto batean gertatu.

Hiltegira doan idia bezala, lakioan **jausten** den oreina legez. Elizen arteko biblia

Karraskari txiki bat zirudien, tranpan **jausi** berri. Urtzi Urrutikoetxea

Nirekin gurutzatzen zen jendearen jarrera zaintzeko harrokerian **jausi** nintzen. Bernardo Atxaga

Pasarelako gloriatik zimurren miserietara **jausitako** modelo batenak. Joan Mari Irigoien

Hura ez da agintariaren alderdikerian **jausten,** ez dio aberatsari behartsuari baino gehiago laguntzen. Elizen arteko biblia

Pedanterian **jausi** gabe baina esan behar zuena xehetasunez eta txukuntasunez adieraziz. Juan Kruz Igerabide

Izu-ikarazko espiral batean **jausi** naiz, amesgaizto paranoikoan. Patxi Iturritegi

Tentazioan **jaustea**. Xabier Kintana

Hiri inperialak, beraz, injustizian **jausi** gabe ezin zuen probintzietan agindu, errepublika handiko hiriburu gisa. Imanol Unzurrunzaga

Erregresio batean **jausita** hago, David. Bernardo Atxaga

· Lohadarrak indar-kamuts **jausitakoan**. Xabier Amuriza

**6** gerran-edo garaitua gertatu.

Bilbo **jausi** ostean hogeita hamarren bat ontzik Santanderra jo genuelarik, [...]. Edorta Jimenez

Bartzelona **jaustean,** hots, Iparraldeko Frontea **jausi** zenetik urte erdi igaro denean, [...]. Edorta Jimenez

· Dionisos heldu zenerako **jausiak** ziren lau bat txikito eta nobelaren lehen hogei orrialdeak. Unai Iturriaga

**7** (era burutua izenondo gisa)

Egun berrian urdinez irristatu diren ur tanta **jausiak** desager daitezen. Sonia Gonzalez

Uretan jausten utzi gabe zekartzan haizeak lanaren zarata guztiak, txatar **jausiak** lokomotoraren ziztuak garabien intziria birakoan. Koldo Izagirre

Bihozkadeak emon eustan, hurrengoan **jausiago** eta penagarriago aurkituko nebala. Xabier Amuriza

**8** (era burutua izen gisa) jausialdia.

Atzoko ahulaldia **jausiaren** ondorioz izan zitekeelako zalantzak ere uxatu zituen: «Ez, jada ez daukat inolako minik, **jausia** guztiz ahaztuta dago». Berria - Kirola

Sugea bere ezkaten eraginez sigi-saga narrasten den moduan, ez pausoz pauso, era berean **jausiaren** mugimendu labankorrak herrestarazten ditu apurka-apurka ganoragabeak. Imanol Unzurrunzaga

Obrak egiten direnean beti joera horiek neurtu behar dira eta euskarriak ipini **jausiak** galarazteko: buloiak, aingurak, hormak edo harri-lubetak. Berria - Harian

Bere jauzi-**jausien** dardara, / bere kontu-kantuen dirdira. Iñaki Arranz

**19** (era burutua hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Atetik Jimmyk dantzan ikusi zituen, aurrera eta atzera, argi-**jausi** luzangen azpian. Lopez de Arana

Haren sinadurak, elur-**jausi** baten gisa handituz, laboratorio-buruaren sinaduraren bermea bildu zuen. Juan Garzia

Alpinista batek eztul egiten duela, eta elur-**jausia** abiarazten du. Josu Zabaleta

Halako ekaitza eta halako harri-**jausia** eragin zuen goiko Subasio menditik behera, ezen [...]. Askoren artean

Machu Picchuko lurzorua 2.500 metroko altueran dago ez zela batere egonkorra eta lur-**jausiak** egoteko arriskua handia zela. Berria - Gaiak

Leitza eta Goizueta arteko errepidean, esaterako, lur **jausiak** izan ziren. Berria - Euskal Herria

Haitik eta Dominikar Errepublikak azken egunotan pairatutako uholde eta lokatz **jausien** ondorioz. Berria - Mundua

**10** *-en* ***eskuetan jausi*** -en eskuetan erori.

Gogora dakar nola **jausi** zen etsaien eskuetan. Elizen arteko biblia

Faxisten eskuetan **jausi** da, preso. Edorta Jimenez

Basati haiek Kako-oker traidorearen eskuetan **jausi** ziren. Julen Gabiria

Ni ere emalizun horren atzaparretan **jausi** naiz eta! Patxi Zubizarreta

Eulien antzera **jausten** ari gaituk, Charlie. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**amildegi batetik jausi** (3); **atzaparretan jausi** (9); **behera jausi** (14); **belauniko jausi** (7); **elur jausi** (3); **gainean jausi** (5); **gainera jausi** (28); **gainera jausi zen** (6); **habia uretara jausi** (3); **itsasora jausi** (3); **jausi izan** (3); **jausi ondoren** (4); **jausi orduko** (3); **jausi ostean** (4); **jausi zen lurrera** (6); **lurrera jausi** (46); **lurrera jausi zen** (22); **lurrera jausi zitzaion** (3); **ohetik jausi** (3); **oinetara jausi** (3); **uretara jausi** (10)

**lur jausiak** (5)

**behera jausiko** (4); **gainera jausiko** (8)

**lurrera jausitako** (7)

**jausteko zorian** (4)

**behera jausten** (16); **bertan behera jausten** (3); **buru gainera jausten** (3); **gainean jausten** (3); **gainera jausten** (24); **goitik behera jausten** (3); **harriak jausten** (3); **jausten ari** (15); **jausten ari zen** (4); **jausten utzi** (14); **jausten uzten** (5); **lurrera jausten** (9); **menditik jausten** (3); **tantaka jausten** (4); **uretara jausten** (4)

---

## jausialdi *iz* erorialdia. ik **jauskera**.

Barruko **jausialdia** erabat baztertu ezinik. Joxemari Iturralde

Historia hori entzuten ari nintzela halako susmo lauso bat izan nuen ni nintzela tximino hura, eta luzaro sufritu nuela itxura hartan, **jausialdi** baten oroitzapenez bezala. Josu Zabaleta

Goragoko mailako bizialdien oroitzapena ematen zaio animaliari, bere **jausialdiaren** sentipena bera zigor izan dezan. Josu Zabaleta

---

## jausiarazi ik **jausarazi**.

---

## jausitasun *(orobat* ***jaustasun****)* *iz* jausia dagoenaren egoera.

Atzera lotsagorriturik, nostalgiak, estutasunak eta emozioak **jausitasuna** ekarri zioten. Patxi Zubizarreta

Hitz ustelka jarraitzen zuen semeari etxetik alde egiten utzi, eta eguna **jausitasunik** handienean igaro zuen. Patxi Zubizarreta

Tristeziaren eta etsipenaren kopa oinazetsua hurrupatua zuen, eta bere bihotzak **jausitasunaren** hondoa joa zuen. Patxi Zubizarreta

Baina, zer gertatu ote zitzaion Kamar Al-Samanen hondamenaren eta **jaustasunaren** eragileari? Patxi Zubizarreta

---

## **jausitxo** *iz* jausialdi txikia.

Artega ari zen gimnasioan borroka aurreko **jausitxo** ohi baino dantzariagoak oin-punta ezkerrekotik eskumakora tartekatuz. Josu Landa

---

## **jauskera** 1 *iz* jaustea, erorikoa. ik **jausialdi**.

Gaztetan, [...] txirrindulari ibili ei zan, harik eta, **jauskera** bat bide zala, aproba gogor samarrak albora itzi behar izan arte. Xabier Amuriza

Gaurko hego haize horren goxoak kanpora igorri nau, hostoen **jauskerari** so nagoela. Piarres Aintziart

Hotz minak gogortutako elurraren **jauskera** zuriak. Xabier Amuriza

Zaldiek alboka ihes egiten baitzien piztien hagin amorratuei edo, hanka-goran, haizea ostikatzen zuten, alfer-alferrik, han ikusiko baitzenituen, belaunburuak apurtuta, lurjotzen eta **jauskera** astunean zorua estaltzen. Xabier Amuriza

**2** jausteko era.

Etorkizuneko soinekoari sabeleko gunean eutsirik, ukondoa bildurik, mahukaren luzera, beso-zuloaren **jauskera** edo izur baten barnegunea ebaluatzeko. Joxan Elosegi

Arnasari eusten zion ezkila itxurako oihal baten kurba, besape gunea, gerrialde baten ebakera, papar baten irekidura biribila, papar-hegal baten lerroa, gona baten **jauskera** berriz ukitu, zuzendu edo atzera trazatzerakoan. Joxan Elosegi

Gozamena topatzen zuen xehetasun bakoitzean, itxuraren fintasunean, **jauskeraren** edertasunean, ebakeraren berezkoan, izur baten, kurba baten mugimenduan. Joxan Elosegi

Autoaren puntu egokia altuerak, karga aerodinamikoak, malgukiek, **jauskerak,** indargetzaileek eta beste hainbat gauzek ematen dute, eta konbinaketa egokia entrenamenduetan lortzen da. Berria - Kirola

---

## **jausketa** *iz* jaustea.

Izan ere, lokatzetara jausteko talaian dagoenaren buruan ez baita ezer kabitzen, soilik **jausketa** horretatik libratzeko nahia. Bernardo Atxaga

---

## **jauskin** *iz* jausten den hondakina.

Bere bizitza bideratzeko pentsatzen zituen sistema guztiek uzten zituzten **jauskin** disolbaezinak, bere sistemen hasieratiko huts egitea erakusten zutenak. Josu Zabaleta

---

## **jauspen** *iz ipar* begirunea, axola, arreta.

Amodioaren gainetik eginbidea eta obedientzia edo **jauspena**. Xipri Arbelbide

---

## jaustasun ik **jausitasun**.

---

## **jauste**[1] *iz* erortzea.

Tentazioan jaustea ondorio pertsonalak baina baita sozialak eta politikoak ere dituen **jaustea** da. Xabier Kintana

Hutsegitea eskaladan zoazenean bezala zen, indarrak neurtze bat, kontura-**jauste** bat, maila bat gora, adoretsuago eta trebeago bilakatzen zaituena. Juan Garzia

---

## **jauste**[2] *iz ipar* jaistea.

Eta batzuen ala bertzen **jauste** edo igaiteak hamar bat partidetan erabaki litaizke. Herria

Gure beharri tapatuxeek senditu dute bat-batean **jauste** hori eta erdi-aharrosika bezalako batean. Herria

Hala nola Hendaiarat **jauste** hartan. Herria

*Ur Biziak* eskaini 4 Rafting **jauste,** n° 9009, Tote Zaldubehere (Atharratze). Herria

---

## **jautsarazi**, jautsaraz, jautsarazten *(orobat **jauts-arazi**)* du *ad* jaitsiarazi.

Bagoietatik salbaiki **jautsarazi** zituzten, besotik harturik lurrera botaz, azote eta makil ukaldika aitzinaraziz, ihizi arriskutsuak balira bezala. Eneko Bidegain

Bagoiez bagoi **jautsarazi** gintuzten, ortutsik salda nahas-mahas baten edanarazteko. Marzel Etxehandi

Nere aitormenak izigarriko goxoa **jautsarazi** zidan bihotz barne barnean. Piarres Aintziart

Teilatuak xut xutak dira, elurrak **jautsarazteko,** zeren eta hango elurteak noiz-nahi negu bortitzean zortzi zehe loditasunekoak egiten ditu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez hain aspaldi, Raffarin-ek ere lan eskasa % 10-ez **jauts-arazi** beharra zuen arras epe laburrean bainan ez da holakorik ikusi... Herria

---

## **jautsi**, jauts, jausten **1** da *ad* jaitsi.

Gizon bat **jautsi** zen orgatik. Elena Touyarou

Autotik **jautsi** orduko. Piarres Aintziart

Hamazazpi urteko neska euskaldun bat, Francisca Saragueta hain zuzen ere, **jautsi** zen San Franciscoko geltokian Southern Pacific trenetik, bere ametsetako Ameriketan bizimodu berria eta hobea aurkituko zuelakoan edo. Pello Salaburu

**Jauts** zaitez honaino, zurekin mintzatu nahi dugu! Elena Touyarou

Baigorrirat, halarik ere, **jausten** zinezten? Menane Oxandabaratz

Neguari buruz artzaina **jausten** da behereko bazketara. Michel Oronoz

Negarra **jautsi** zitzaion. Itxaro Borda

Paristik agindu dizkioten liberek [...] ez diote ez argituko ez arinduko "betiko gaua, gau lazgarri hori, begietara **jautsi"** zaiona. Anjel Lertxundi

Nola Mendekoste egunarekin Izpiritu Saindua **jautsi** zen apostoluen gainerat... Herria

Ez da beraz harritzeko 1200 biztanleetarik 600-etara **jautsi** bazen Luzaide. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hara non bi zenbakiko kopurura **jautsi** naizen, Moimentos herrian "99,8 km", dio Goikoetxeak. Piarres Aintziart

**2** du *ad*

Egun guziz, iluntzean, trena gelditzen da eta gorputzak bagoietarik **jausten** ditugu azken lau bagoietan metatzeko. Michel Oronoz

Eskailera **jautsi** nuen, gibelera so eginez. Piarres Aintziart

Bakoitzari, bana bana, galtzak **jautsi** zizkion. Eneko Bidegain

**3** ***jauts ahala*** *(orobat* ***jautsahala****)*

Ibiltokian sartu eta euria **jauts** ahala ari dela ohartzen naiz oraino gehiago. Filipe Bidart

Ber denboran euria hasi zen **jautsahala**. Ramuntxo Etxeberri

Ainitz tokitan, euria **jauts** -ahala eta biziki haize latza, beste batzuetan elurra. Herria

Euria **jauts** -ahala hasi zen. Daniel Landart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> errekara jautsi (3)

---

jautzarazi ik **jauzarazi**.

---

jautzi ik **jauzi**[1].

---

**jauzarazi**, jauzaraz, jauzarazten *(orobat* ***jauz(-)arazi*** *g.er.,* ***jauziarazi*** *g.er. eta* ***jautzarazi*** *g.er.)* **1** du *ad* jauzi egitera behartu.

Atean jo zuten kolpe bortitz batek ohetik kanpora **jauzarazi** ninduen. Josu Zabaleta

Ontzi bat pausatu zuen, itxurari eta usainari esker atseginezko negarra **jauzaraz** lezaketen horietakoa. Elena Touyarou

Sehiaren eleek irria **jauzarazi** eta giroa lasaitu zuten. Elena Touyarou

SSek presoen sufrimenduarekin hartzen zuten plazerrak odola **jauzarazten** zion. Eneko Bidegain

Lepoko mina **jautzarazteraino** begira egoten zen Graxi.Salto mortale logiko batean arrazoia hermeneutikatik ontologiara **jauzaraziz**. Itxaro Borda

Labe hark emango zuen beroak harriak zabalduaraziko zituela eta junturak beren tokitik **jauziaraziko**. Jon Alonso

Dena den, libratze horrek berriz ere sukar gaitza **jauz** -arazi du hor gaindi. Herria

Giltza ingelesa ekarri nuen landroverretik, eta Herbertek sarraila **jauzarazi**. Joxe Austin Arrieta

**2** eztandarazi.

Pekin hirian bonba bat **jauzarazi** ere dute parlamentuaren biltzar etxetik 300 metrotan. Herria

Bonba-auto bat **jauzarazi** du Madrilgo olinpiar eremu batean. Herria

Gauaz, bi lehergailu **jauz** -arazi dituzte Uztaritzen, jandarme bat bizi zen etxearen aintzinean. Herria

Beste zartagailu batek soldado amerikano bat eta zibil batzu **jauzaraziz** beren autoan, hil ditu ere Bagdad kapitalean. Herria

Hamar kiloko dinamita zapartatze batek, Furianin, EDFeko etxe batean bulegoak **jauzarazi** ditu. Herria

Hiru urte egin ditu, irailaren 11 huntan, New-York hiriko egoitza dorreak **jauzarazi** zituztela, hiru mila hil eginez hurbil. Herria

75 hil eta 90 kolpatu egin dituzte [...] bi kamikazek beren gerrian ekartzen zituzten bonbak **jauzaraziz**. Herria

Igande goizean beste bolontario batek bere burua **jauzarazi** du autobus baten barnean eta hor zazpi hil eta hogei kolpatu izan dira. Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Tikrit herrian berriz, auto **jauzaraziak** badira, han ere hil eta kolpatuekin. Herria

---

**jauzarazle** *iz* eztandarazten duen pertsona.

Hauek alabaina bestaldeko suniten kontra dute mesfidantxa haundia, hek zitazkeela bonba **jauzarazleak**. Herria

---

**jauzarazte** *(orobat* ***jautzararzte****)* *iz* eztandaraztea.

Joan den martxoaren 11n han berean egin ziren trein bideko **jauzarazte** izigarri heien ondorioz, eta 191 hil izan baitziren ukaldi txar hartan. Herria

Jakin dudanaz Arbideko posta-bulegoaren **jautzaraztean** parte hartzea leporatzen diote. Itxaro Borda

---

**jauzgailu**[1] *iz* eztandarazteko gailua.

Indar gutiagoko **jauzgailuekin** [...] aldi huntan ez da hilik izan, haatik beldurra beti bizi bazterretan. Herria

---

**jauzgailu**[2] *iz* jausgailua.

Gizon batek jauzi egin du Pariseko Eiffel Dorre gainetik, bere paraxuta edo **jauzgailua** azken mementoan idekitzeko gogoarekin, lurrean polliki pausatzeko gisan. Herria

**Jauzgailua** ez zaio ideki, eta gure jauzi egilea lurrean da lehertu Herria

---

**jauzi**[1] *(2667 agerraldi, 232 liburu eta 775 artikulutan; orobat* ***jautzi*** *g,er,)* **1** *iz* bat-bateko abiadaz, norbaitek edo zerbaitek, bera dagoen tokia epe labur batez utzi, eta toki berean edo beste batean gelditzea. ik **salto**.

Bertigoa ematen bazion ere, kilikagarria zitzaion **jauzia**. Patxi Iturritegi

Ikusi bazenute Fionnek zuhaitzeraino egin zuen **jauzia**! Joanes Urkixo

*ik beherago* 13. Askoren artean

Bi edo hiru metroko **jauzia** egiteko gauza naizela uste badut, baliteke jauzi egitea. Josu Zabaleta

Ekintza hura gogora ekarri eta Mabelek onartzen du, nolabait, "hutsera egindako **jauzia"** izan zela. Edurne Elizondo

Urek jaistean egiten duten **jauzian** izigarriko indarra hartzen baitute alimaleko uhainak sortuz. Aurelia Arkotxa

Ekintza hura gogora ekarri eta Mabelek onartzen du, nolabait, "hutsera egindako **jauzia"** izan zela. Edurne Elizondo

Izan da ere hor bagona **jauzian** airatu dena eta beste bagonaren gainerat erori punpean. Herria

*ik beherago* 8. Askoren artean

Lehen aldiz, ekimen pribatu batek gauzatu zuen espaziorako **jauzia**. Berria - Gaiak

## **2** irud/hed

Horrela, etxetik eskolarako iraganbidea "urratsa" izango da, eta ez **"jauzia"**. Koldo Zuazo

Bizitzari berez dagokion zahartzeak ez du haurtzaroa zein heldutasuna "gainditzen": beste mundu bat da, aldaketa **jauzi** bat da. Markos Zapiain

Argitasunetik ilunperako **jauzia**. Jose Angel Irigaray

Zortzi mendeko **jauzia**. Jon Alonso

Ur handietara egin dugu **jauzia** ustekabean. Iñaki Segurola

Zineman horren adibide asko daude, **jauzia** (edo inoiz ingelesez *jump cut*) esaten zaiona, ikuspuntua gorde baina denborazko elipsi bat egiten den plano-aldaketa gisa definitzen dena, [...]. Josu Zabaleta

Alabaina, neskaren irudimenak, orainaldia gaindituz, etorkizunerako **jauzia** egin zuen. Patxi Zubizarreta

## **3** (izenondoekin)

Ganibeta gerrikotik aterata, **jauzi** ikusgarri bat egin zuen irtengunearen beste aldera. Karlos Zabala

**Jauzi** zalu batez buruz behera jarri eta baserriko kare zurizko hormaren kontra paratu nintzen. Harkaitz Cano

**Jauzi** arin batez jaitsi zen. Jose Morales

*ik beherago* 12. Askoren artean

Esku eta hanka lotuta zetozen, eta **jauzi** motzetan iritsi ziren errepide erdira. Inazio Mujika Iraola

Gero eta **jauzi** goragoak egiten ditu. Michel Oronoz

Zuloan sartzeko, baina, **jauzi** handiegia egin behar. Gotzon Garate

Zerk jaso dezake gorputza **jauzi** azkarrean, lohadarrak gobernatzen dituen arimaren indarrak ez bada? Xabier Amuriza

Gizabanakotik gizamordora, eta mordotik banakora, **jauzi** ikaragarri mortala dagoela. Iñaki Segurola

Hortik nire ingurukoak antzaldatzera **jauzi** laburra zegoen. Aingeru Epaltza

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hurrena, **jauzi**-mugimendu bat sumatu zuen inguruan, eta berehala pentsatu zuen [...] kanguru bat izan behar zuela. Xabier Olarra

Gero, **jauzi**-ordeko batean gorputz osoaren zama beso luzatuan tanpez eskegita [...]. Koldo Izagirre

## **5** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*

Ontzia asko mugitzen zen, kulunka **jauzi** bortitzak egiten zituen etengabe. Harkaitz Cano

Istripu txiki bat gertatu zen dantza-**jauzi** horren ondorioz. Jose Morales

Aingeru-**jauzi** itzel bat handitasun betierekora. Ibon Uribarri

Ahots bare eta neurritsu bat, iruditu zitzaidan, emozio eta doinu-**jauzi** urrikoa. Oskar Arana

Han egin zuen kalitate **jauzia:** ia partida guztiak jokatu, bost gol sartu, eta funtsezko jokalaria izan zen Lehen Mailarako igoera lortzeko. Berria - Kirola

Hegaldiak iraun zuen lipar laburretan, atzera-**jauzi** bat eginarazi zidan bizirik eusteko senak. Juan Garzia

Denbora-**jauzia** kasualitatez deskubritu omen zuen, eta ezin izan zuen askotan erabili, ez iragananera joateko, ez etorkizunera salto egiteko. Iban Zaldua

Edo poz-**jauzi** egin beza. Anjel Lertxundi

Imanolek susto-**jauzia** egin zuen. Fernando Morillo

Salto handi haien, artazi-**jauzi** basa haien, irribarre xuri eder haien azpian. Joxan Elosegi

## **6** *(kiroletan; ik beherago* **9, 10, 16** *eta***17**)

Ekainean 4,47ko **jauzia** egin zenuen eta Espainiako marka ondu. Berria - Kirola

Atenasera joan aurretik 4,47 metroko **jauzia** hobetzea da nire helburua. Berria - Kirola

Normalean beherantz hasi bezain laster jakiten da **jauzia** ona edo txarra den. Berria - Kirola

Tim Mack pertika jauzilari estatubatuarrak 6,01 metroko **jauzia** egin zuen atzo Montecarlon. Berria - Kirola

Kelly Holmesek arazorik gabe irabazi zuen 1.500 metroetan, eta gauza bera egin zuten Veronica Campbellek (200 m.), [...], Christian Olssonek (**jauzi** hirukoitza) eta Osleidys Menendezek (xabalina). Berria - Kirola

## **7** (adizlagun gisa)

Marmolezko eskailerak jaitsi zituzten biek batera, salto eta **jauzi**. Felipe Juaristi

Bata bestearen atzetik **jauzi** eta salto hasi ziren. Felipe Juaristi

Lehorrean zeuden mutilek soka muturrak askatu eta piztien erara **jauzi** eta zapart, barrura egin zuten. Felipe Juaristi

Artalokotsezko lastairetatik **jauzi** eta lasterka abiatu ziren etxean zehar. Josu Zabaleta

## **8** ***jauzian*** laster-laster. ik beherago **11.**

**Jauzian,** ohean jarri zen. Janbattitt Dirassar

Haren bizkarrera igo naiz **jauzian** eta tinko eutsi diot. Mirentxu Larrañaga

Autoan **jauzian** sartu, gakoak itzuli eta segidan berogailua pizten du. Eneko Bidegain

Agerre **jauzian** abiatuko zen bere poltsan arakatzera. Aingeru Epaltza

Itsasun, mugazaina eta hunen etxekoak **jauzian** iratzartu baitira, bi lagun ikusiak izan dira iheska partitzen moto baten gainean... Herria

## **9** ***altuera-jauzi*** gorako jauzia.

Atenasera joateko larri ibiliko den bestea Eunice Barber, **altuera jauzian** Munduko txapelduna izango da. Berria - Kirola

Espainiako **altuera-jauziko** txapelketan. Berria - Kirola

## **10** ***gorako jauzi***

Kajsa Bergqvist suediarrak **gorako jauziko** munduko marka ondu du: 2,08. Berria - Kirola

**Gorako jauzian** zilarrezko domina lortu zuen, 1,92 metroko jauzia eginda. emakumezkoen **gorako jauzian** Hestrie Cloete hegoafrikarra jardunaldi guztietan nagusitu da. Berria - Kirola

**Gorako jauziko** sailkapenean. Berria - Kirola

Marta Mendia **gorako jauziko** finalaren atarian geratu da. Berria - Kirola

Euskaldunen artean Alex Soto, Mikel Jimenez **(gorako jauzia)** eta Iban Maiza (60 metro hesidunak) arituko dira, besteak-beste. Berria - Kirola

Gizonezkoetan, Juri Borzakovskik (800 metrokoan), Jaroslav Ribakovek **(gorako jauzian)** eta Aleksandr Pogorelovek (heptatloian). Berria - Kirola

Norbait **gorako jauzi** batean ilargiraino joatea posible dela pentsatzea. Pello Salaburu

## **11** ***jauzi batean*** jauzian.

**Jauzi batean** egur-meten gainean jarri zen. Agustin Otsoa

**Jauzi batean** zutitu eta korrika bizian hasi zen. Berria - Kultura

Telefonoak jo zuen eta **jauzi batean** altxatu nintzen. Fernando Rey

Orduan, atzeko aldera **jauzi batean** oldartu, bizkarra ardatzari eman, hankak lurrean sendo tinkatu, eta [...] oin batzuk aurreraka bultzatzen du zalgurdi astuna. Karlos Zabala

**Jauzi batean** ardandegia zeharkatu zuen sarrera aldera. Felipe Juaristi

**Jauzi batean** Yamaha zaharrera igo zen. Migel Angel Mintegi

Autoa gelditu, eta Roman, Karmen eta hirurok atera ginen **jauzi batean**. Inazio Mujika Iraola

## 12 ***jauzi batez*** jauzian.

**Jauzi batez** agondu nintzen ohean. Alberto Ladron Arana

**Jauzi batez** zutitu nintzen. Koro Navarro

Ohetik **jauzi batez** jaiki, laster bai laster jantzi eta sukaldera joan zen. Josu Zabaleta

Liebkind Bendel **jauzi batez** altxatu eta telefono kabina batera joan zen. Koro Navarro

**Jauzi batez** ateratzen naiz ohetik. Josu Zabaleta

**Jauzi batez** igo zen Txitxikov kalesara. Jose Morales

-Gelditu! -esan zion Platonovek gidariari, eta **jauzi batez** jaitsi zen kalesatik. Jose Morales

Katagorriz betetako lorategira **jauzi batez** sartzea erraza ematen du. Harkaitz Cano

## 13 ***jauzi egin***

Noizean behin perka batek **jauzi egiten** zuen, eta plast erortzen zen berriz uretara. Koro Navarro

Baina zakur batek katua ikusi, eta, **jauzi eginez,** katua akabatu zuen. Patxi Zubizarreta

Zalditik **jauzi egin** zuen, aiztoa eskuan zuela. Josu Zabaleta

Ibaira **jauzi egin** eta desagertu egin zen. Josu Zabaleta

Lepora **egin** zidan **jauzi,** eta ezpainetan musukatu ninduen. Juan Kruz Igerabide

**Jauzi egin** nion eta musuz estali haren aurpegia, lepoa, belarriak. Juan Martin Elexpuru

Pozez ia eroturik **egin** zuen **jauzi**. Josu Zabaleta

Egoera negargarrian **jauzi egina** zen jausgailuz, hegazkina lasterren zihoanean. Josu Zabaleta

Bihotzak **jauzi** egin zion bortizki. Joanes Urkixo

Gaur, denak argi: hautu bat egitea, arriskatzea zen, libertatearen mugagabetasunean **jauzi egitea**. Piarres Aintziart

Burura etorri zitzaion, bere memoriaren zulotik **jauzi eginda** bezala, Prince Ruperteko ospitalean Corgean doktoreak esana: […]. Bernardo Atxaga

Animaliak bezala, poesiak ezkututik **jauzi egiten** du, eta jokoa hasten da haren eta zure artean, borroka, jazarpena. Pako Aristi

Gero, goreneko mailara **jauzi egiten** kosta egiten zaie. Andoni Egaña

· Hark **jauzi** bat **egin** zuen atzera. Josu Zabaleta

Errekastoak **jauzi** bat **egiten** zuen, putzu ilun batera. Jon Maia

**Jauzi** bat **egingo** dut, bada, denboran aurrera. Juan Kruz Igerabide

**Jauzi** txikiak **eginez** zihoan espaloitik. Jose Morales

Bere solasak gora-behera haundiak ditu tonuan eta **jauzi** harrigarriak **egiten** ditu hitz batetik bestera. Pello Lizarralde

**Jauzi** bitxi arin bat **eginez**, autoraino gidatu ninduen. Xabier Olarra

## 14 ***jauzi eginarazi*** jauzi eragin.

Charlesek harriak jaurti eta **jauzi** eginarazten zien. Anton Garikano

Gero, titulu berri bila abiatu behar izan nuenean, idatzitakoa berrirakurri nuen eta, sinbolismo bila, liburutik **jauzi eginaraz** zezakeen zerbaiten bila, *the deep blue lake, the deep blue book*... irakurri nuen, eta berdintasun horrek […] eskura jarri zidan titulua. Berria - Kultura

## 15 ***jauzi eragin***

-Hara nor dugun hemen! -ahots ozen trumoitsuak **jauzi eragin** zidan aulki gainean- Nor eta gure mutiko jokalaria! Alberto Ladron Arana

Ez ditu zomorro batek izutzen pertsonak leihotik behera **jauzi eragiteraino**, kolerak eragiten du hori. Josu Zabaleta

Itsasgora genuen, moilara **jauzi eraginda** atera zituzten atxilotu haiek denak Manzisidor buzoaren biltegi aitzinean. Koldo Izagirre

## 16 ***luzera-jauzia***

**Luzera jauzian** Atenaserako txartela lortu zuen atzo, AEBetako sailkapen probetan 7,11 metroko jauzia eginez. Berria - Kirola

Bost proba ziren: stadion, **luzera jauzia,** disko jaurtiketa, xabalina eta borroka. Berria - Kirola

Emakumezkoetan, Maria Bolikovak (60 metrokoan), Natalia Nazarovak (400 metrokoan), Olga Kotliarovak (800 metrokoan), Jelena Sobolevak (1.500 metrokoan), Lilia Shobukhovak (3.000 metrokoan), Jelena Isinbaievak (pertika jauzian), Tatiana Kotovak **(luzera jauzian)**. Berria - Kirola

Perla Bustamante mexikarra **luzera jauziko** munduko marka ontzen saiatuko da (3,49 metro).

Pertika eta **lutzera jauzian** nagusitu zen. Berria - Kirola

**Luzera jauzian** brontzea lortu zuen, 6,14ko jauziarekin. Berria - Kirola

-Johnson-ek irabazi du **luzera-jauzia** -esan zion hiru ordu geroago Marcosi, etxera ailegatu zenean. Unai Elorriaga

## 17 ***pertika-jauzia***

Naroa Agirre seigarren izan da **pertika jauziko** finalean. Berria - Kirola

**Pertika jauzia** konplexua da, gutxieneko teknika bat behar da eta jauzi txarra emanez gero min hartu daiteke. Berria - Kirola

Emakumezkoetan, Maria Bolikovak (60 metrokoan), Natalia Nazarovak (400 metrokoan), Olga Kotliarovak (800 metrokoan), Jelena Sobolevak (1.500 metrokoan), Lilia Shobukhovak (3.000 metrokoan), Jelena Isinbaievak **(pertika jauzian),** Tatiana Kotovak (luzera jauzian). Berria - Kirola

Isinbayevak 4.86ko jauzia egin zuen **pertika jauzian,** eta munduko errekorra hobetu. Berria - Kirola

Urrezko domina irabazi du **pertika jauzian**. Berria - Kirola

Munduko bi marka ondu ziren: Stacy Dragila estatubatuarrak **pertika jauzian** (4,83 metro) lortu zuen, eta Kenenisa Bekele etiopiarrak 10.000 metrokoan (26:20.32). Berria - Kirola

3.000 metro oztopoetako eta **pertika jauziko** errekorrak hobetu dira Bruselan. Berria - Kirola

## 18 ***ur-jauzi***

**Ur-jauzi** hotzak mahuketatik behera erortzen zitzaizkion. Lopez de Arana

Ur-turrustak, deabruzko **ur-jauziak**! Jon Muñoz

Komuneko **ur-jauziak**. Anjel Lertxundi

**Ur-jauzi** burrunbatsuetako ur-hauts betierekoa. Jose Morales

**Ur-jauzi** burrunbatsuaren abarrotsak berriz bete-betean hartu ninduen. Jon Maia

Eta berriz ere burua urperatu zidaten, ur berde esmeralda haietara jausten zen **ur-jauzi** erraldoiaren uhertasunaren zurrunbiloak gorputzari barrura tiraka-tiraka, putzuaren sakoneraino eraman ninduen. Jon Maia

**Ur-jauzi** apartsuen ondorengo ubera bi. Anjel Lertxundi

Europako **ur jauzirik** haundiena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

[Ontziak] bai itsas zabalekoak, bai Nilo ibaian barrena joango direnak, lehenengo **ur-jauziraino,** eta bai hondoa laua dutenak, hiri inguruko zingiretarako. Jon Muñoz

Iguazuko Deabruaren Eztarria **ur-jauziaren** aurrean. Iñigo Aranbarri

Niagarako **ur-jauzi** indartsuak. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bihotzak jauzi egin** (10); **dantza jauzi** (12); **egin du jauzi** (14); **egin zuen jauzi** (39); **egiten zuen jauzi** (8); **gainera jauzi egin** (16); **gainetik jauzi egin** (10); **ibaira jauzi egin** (4); **jauzi bat egin** (20); **jauzi bat eman** (9); **jauzi batez** (95); **jauzi batez altxatu** (7); **jauzi batez igo** (10); **jauzi batez jaiki** (7); **jauzi batez jaitsi** (8); **jauzi batez zutitu** (11); **jauzi egin** (341); **jauzi egin zuen** (79); **jauzi eginda** (7); **jauzi eginez** (43); **jauzi egingo** (18); **jauzi eginik** (11); **jauzi egitea** (30); **jauzi egitean** (6); **jauzi egiteko** (72); **jauzi egiten** (81); **jauzi egitera** (7); **jauzi handi** (7); **jauzi handi bat** (5); **jauzi handia** (34); **jauzi handia egin** (8); **jauzi handia eman** (4); **jauzi handia emango** (4); **jauzi hirukoitza** (9); **jauzi hirukoitzean** (7); **jauzi hirukoitzeko** (4); **jauzi itzela** (4); **jauzi kualitatibo** (13); **jauzi kualitatibo bat** (6); **jauzi kualitatiboa** (31); **jauzi kualitatiboa eman** (10); **jauzi kualitatiboak** (4); **jauzi politikoa** (5); **jauzi txiki** (20); **jauzi txiki bat** (14); **jauzi txikiak** (14); **jauzi txikiak eginez** (6); **jauzi txikiak egiten** (5); **leihotik jauzi egin** (5); **ohetik jauzi egin** (8); **salto eta jauzi** (6); **ur jauzi** (35); **ur jauzi baten** (4); **uretara jauzi egin** (6)

**; altuera jauzia** (5); **gorako jauzia** (9); **jauzia egin** (41); **jauzia egin zuen** (16); **jauzia egitea** (5); **jauzia egiteko** (13); **jauzia egiten** (7); **jauzia emak** (7); **jauzia eman** (36); **jauzia ematea** (6); **jauzia emateko** (8); **jauzia ematen** (4); **jauzia handia** (4); **jauzia izan** (5); **jauzia izan zen** (4); **luzera jauzia** (9); **metroko jauzia** (13); **pertika jauzia** (8); **sekulako jauzia** (9); **su jauzia** (5); **ur jauzia** (4)

**dantza jauziak** (16); **eski jauziak** (8); **euskal jauziak** (5); **jauziak eginez** (6); **jauziak egiten** (5); **ur jauziak** (6)

**gorako jauzian** (6); **luzera jauzian** (13); **pertika jauzian** (11)

**ur jauziaren** (6)

**soinu eta jauziekin** (4)

**ur jauzien** (5)

**altuera jauziko** (4); **gorako jauziko** (12); **jauziko finalean** (15); **jauziko finalean gailendu** (9); **pertika jauziko** (19); **pertika jauziko finalean** (12)

---

**jauzi**[2], jauz, jauzten da *ad* jauzi egin; bat-batean jaiki, igo, jaitsi...

Trumoiaren moduan **jauzi** ziren etsaiaren gainera, saihetsetatik eraso eginez. Agustin Otsoa

Ezbaia baliatuz, erbinudea gainera **jauzi** zitzaion eta haginka egin zion bizkarrean. Joanes Urkixo

Helikopteroa pausatzearekin batera militar amerikanoak uniforme zuriekin eta fusilak eskuan **jauziko** dira elurtzara. Joseba Sarrionandia

Batek buruz behera eta itzulipurdiak eginez airean, beste batek tripa plastada galanta joko zuen uraren kontra, beldurtienak zutik **jauzten** ziren eta eskuaz sudurra tapatuz. Joseba Sarrionandia

Han, lurrera **jauzi,** buztin gorrian sartu eta atzamarretan apur bat hartu zuen gertuagotik aztertzeko asmoz. Joanes Urkixo

Irria aise **jauzten** zitzaion, badu zonbait irri goxo eginik lagunekin. Herria

Holakoetan sukarra aise **jauzten** dela eta nornahik ere burua doi bat galtzen duela. Herria

Gorritzen ikusi genuen, eta ukabilak biltzen, bere aurrean ogitartekoari emana segitzen zuen figura lasai baina erneari lepora **jausteko** prest. Aingeru Epaltza

---

**jauzika** **1** *adlag* jauziak eginez. ik **punpaka**.

Eskailerak **jauzika** jaitsi nituen. Juan Kruz Igerabide

Zaintzalea **jauzika** eta oihuka [...] dantzan ari balitz bezala, zango batetik bestera **jauzika,** zolari so. Filipe Bidart

Dantzan ez ezik **jauzika** hasi zen. Bernardo Atxaga

Zabaldu zutenean, Sam, zakur handi ile-kizkurra, **jauzika** hasi zitzaien inguruan. Josu Zabaleta

Lasterka ibiltzen duk, **jauzika,** itzulika, pilotaren ondotik, airetik, errebesatik, etzanik. Michel Oronoz

Kale ondoko arboletan ziminoak **jauzika** ikusten nituenean. Gotzon Garate

Adarrik adar **jauzika** zebilena. Jon Alonso

Ahuntzen gisa **jauzika**. Josu Zabaleta

Hegalaburrak **jauzika** ikustera. Jon Alonso

Zalgurdia galtzadan **jauzika** eta zabuka hasi zen berriro. Jose Morales

Lurrezko errege-bidean, autoa emeki eta **jauzika** doa. Aurelia Arkotxa

Itsaontziak zaldia zirudien uhinen gainean **jauzika,** abiada bizian, arranoa baino azkarrago. Juan Kruz Igerabide

Itsasoko uhinak **jauzika** ari ziren barraren gainetik. Joseba Sarrionandia

Hilobiz hilobi **jauzika** eta erorka iritsi nintzen neure benetako etxera, neure benetako hilobira. Felipe Juaristi

Adarrik adar **jauzika** zebilena. Jon Alonso

Hegaldatu gabe, gehienaz ere lasterka txikian **jauzika,** [txoritzarrak] apartatu egin ziren pixka bat, sarraskia arrastaka eramanez, azokaren erdian bertan. Joxe Austin Arrieta

· Sua bizi-bizi zegoen, zirtaka, argitsu; garrak **jauzika**. Fernando Rey

**2** irud/hed

Bihotza **jauzika** jarri zitzaidan lehenbiziko "Kaixo, Oliver!" diosala entzun nuenean. Xabier Olarra

**Jauzika** nuen bihotza, golkotik irten beharrean. Anjel Lertxundi

Odola **jauzika** hasi zitzaidan barrenean. Aingeru Epaltza

Lehertzeko zorian neukan burua, muinak **jauzika** eta kirioak zoro. Anjel Lertxundi

Gogoa oroitzapen batetik bestera **jauzika,** Elsbeth etorri zitzaidan. Anjel Lertxundi

Ideia batetik bestera **jauzika,** esaldiak ingelesezko eta gaztelaniazko esamoldeekin zipriztinduz. Anjel Lertxundi

Baditugu minutuak, **jauzika** dabiltzanak airean, eta baditugu segundoak, tximistargien modura eztanda egin eta gero presaka galdu egiten direnak. Felipe Juaristi

Pentsamenduak **jauzika** zihoazkidan abestiarena baino crescendo biziagoan. Bernardo Atxaga

**3** (hitz elkartuetan)

Ama ahuntz-**jauzika** ondoratu zitzaion, afruntatua: [...]. Itxaro Borda

Han zebilen halaber saguzar miope bat, etxerako bidea asmatu ezinik; hara eta hona ari zen hego-**jauzika,** eltxoz leporaino betea. Joxan Elosegi

**4** botaka.

Sua bizi-bizi zegoen, zirtaka, argitsu; garrak **jauzika**. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batetik bestera jauzika** (6); **bihotza jauzika** (11); **gainean jauzika** (5); **gainetik jauzika** (5); **jauzika ari** (10); **jauzika aritu** (3); **jauzika eta saltoka** (3); **jauzika hasi** (12); **jauzika hasten** (8); **jauzika ibili** (3); **jauzika ibiltzen** (3); **jauzika zihoan** (3); **lasterka eta jauzika** (3); **pozez jauzika** (10); **saltoka eta jauzika** (3)

---

jauzikari[1] ik **jauzilari**.

---

jauzikari[2] ik **jauzkari**.

---

## jauzilari *(orobat **jauzlari** g.er. eta **jauzikari** g.er.) iz* jauzi probetan aritzen den atleta.

Pilotari, rugbilari, futbolari, lasterkari, **jauzikari,** [...] saristatuetan, bazen denetarik... Herria

Marta Mendia gorako **jauzilari** iruindarra eta Naroa Agirre pertika **jauzilari** donostiarra. Berria - Kirola

Luzera **jauzilari** kubatarrak kale egin zuen herenegun eta dominarik eta markarik gabe geratu zen. Berria - Kirola

Zortzi **jauzilari** sailkatuko dira finalerako, eta 4,50 metroko marka eskatuko dute ziurrenik. Berria - Kirola

Orain dela lau urte ez zen puntako **jauzilaria**. Berria - Kirola

Lars Bystol eski **jauzilari** norvegiarrak irabazi zuen. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gorako jauzilari (3); pertika jauzilari (5); pertika jauzilaria (5)

---

## jauziño *iz* jauzitxoa.

**Jauziño** batez berriz gibelerat egin zuen. Janbattitt Dirassar

Azkenik **jauziño** bat egin du Donibane Lohizunerat eta han ere hautetsiekin mintzatu. Herria

Handik ixtante, **jauziño** bat herriko etxerat. Herria

Prezioetan goragoko ozkarat **jauziño** bat eginez. Herria

Orai, kolpez egin dezagun mende laurden baten heineko **jauziño** bat. Herria

---

## jauzitxo *iz* jauzitxo txikia.

Mugimendu bitxi batzuk egiten hasi zen: **jauzitxo** batzuk hasieran, gero erreberentzia bat, ondoren dantza gurutzatu oraindik aski bizi bat dantzatu zuen bere hanka mainguaz. Josu Zabaleta

Milimetro bat edo biko **jauzitxoak** eginez errepikatzen ditu oinak pultsazio-uhinak. Irene Aldasoro

Neskak **jauzitxo** batzuk egin zituen ohearen gainean. Koro Navarro

Linterna zeukan gizonak etengabe mugitzen zuen, eta argi borobilak **jauzitxoak** egiten zituen gorpuaren aurpegian. Bernardo Atxaga

Buztin gorriz estalitako bidezidor bihurriak, ur-**jauzitxoa** eta haren harri goroldiotsuak, Ander Irizar

---

## jauzitxoka *adlag* jauzitxoak eginez.

Txinatar mamu bat, aurpegi zurbilarekikoa; **jauzitxoka** ibiltzen da. Juan Kruz Igerabide

---

## jauzkari *(orobat **jauzikari** g.er.)* **1** *izond* jauzika ari dena.

Musikari bat eta bost artixta **jauzikari**. Herria

Bideko hautsa harrotuz orga **jauzkarietan** pasatzen ziren nekazariak. Jose Morales

Belarriak laztanduz zetorren txoko batetik ur xirrista **jauzkari** bat, eta ez zen besterik entzuten *shrine* hartan. Javi Cillero

Ilea gaztaina-kolorea eta sarria zuen, alde batean artesia egina, mugimendu eta ibilera **jauzkariak,** eta pertsona osasuntsu eta bizkorraren itxura. Xabier Olarra

Hitzak onbidezkoak eta inozoak ziren [...] baina musika alai eta **jauzkaria** zuen. Joseba Urteaga

Animalia urdin bizkor haren arineketa **jauzkariari** erantzuteko. Irene Aldasoro

**2** (izen gisa) ik **jauzilari**.

Amaitu dira jaiak, amaitu ospakizunak eta ikuskizun miragarriak, horien artean Deportiboko Zirkuan eskaini izan direnak, hala nola, Juan Duñabeitia Sinbad marinel, irakasle eta **jauzkari** ospetsuarenak. Edorta Jimenez

**Jauzkariak,** zenbat eta salto handiagoa jo, orduan eta gerrikomin gutxiago nozituko zuen gero liho-biltzean eta gainerako uzta-lanetan. Pello Zabala

---

## jauzketa *iz* eztanda.

Ipar Korean industri-kimika gune batean izigarriko **jauzketa** gertatu da iragan astean, 154 jende hilik utzi dituena hango bereko podorearen arabera eta xuxena nehork ez jakin ez-eta jakinen ere menturaz. Herria

---

## jauzkor *izond* haserrekorra.

Poriomania indar ezinago **jauzkorra** da, obsesiboa, bakerik ematen ez duena. Karlos Linazasoro

'Oreka **jauzkorra,'** esanen du batek. Joseba Sarrionandia

Beasaingo Kontseiluak, Valdespina **jauzkorra** bera buru zelarik, ezer onik ez zuen ekarri. Txillardegi

Nola arima motak bereizten baitira gosegaleak edo minkor-**jauzkorrak** diren heinean, gutiziak halaber bi gisatakoak dira. Piarres Xarriton

---

jauzlari ik **jauzilari**.

---

## jauzte *iz* jauzi egitea, jauzia.

Energia-maila biren arteko **jauzte** bikoitz bat-bateko batek du, zirt gora eta zart behera, nire esku hau gidatzen paperaren gainean puntu hau inprimatzera: hauxe. Juan Garzia

---

## jauzteka *iz* jauzika.

Azkenean atabal handiaren inguruan kantuz eta **jauzteka** ari diren gazteen eskuen hauspoak eta bestaldetik ozen den herriaren bozkario miragarriak, ez diote nehon nehori

kalterik egiten. Piarres Xarriton

Funtsean Behenafarroan ere oihanak gaindika baziren eta erran batek zioen lehengo denboretan urtxintxa bat Ezterenzubitik eta Baionara arbolaz arbola joaiten ahal zela **jauzteka** lurra sekulan hunkitu gabe. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## jauztekari 1 *iz*

Diote gure arbasoak zirela heretikoak, juduak, mauroak, ijitoak, lepradunak, eroak, **jauztekariak,** bertze errorik zoin arrazetan oraino? Michel Oronoz

**2** (izenondo gisa)

Saluineko pianoaren aitzinean jarri zen Ravel, bere pieza eder batzuk joiten zituela, dena nota **jauztekari** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## javatar *izlag/iz* Javakoa, Javari dagokiona; Javako herritarra.

Gela handi hura [...] oihal **javatar** eta kaobazko moldurez apaindurik zegoen. Lopez de Arana

---

## jazar *iz*

Iduri luke Espainian etxeko gela bakoitzean aurreikusia dela **jazar** -eraso baten kasua. Koldo Izagirre

Molaren atzeguardari **jazar** egiteko. Koldo Izagirre

*izond*

---

## jazargo *iz* erasoa.

Eta huna [...] Nazione Batuen hiru ehun soldado hedatu dituztela, Timor Iguzkialde hortakoak, Timor mendebalarekilako muga heietan: baziren alabaina bi hil izanak orduko **jazargo** batean. Herria

Noiznahi badituzte hor bere berkarien **jazargoak,** hor eta auzo batzuetan ere, bereziki Inguxia eta Dagestan herrietan. Herria

---

## jazarketa 1 *iz* erasoa.

Hiru palestinar, Hamasekoak, hil dituztela Israelekoek **jazarketa** batean Gazako zerrendan. Herria

**Jazarketa** suizidioak dira beldurgarrienak israeldarrentzat. Herria

Islamista talde batzuek dute beregain hartu **jazarketa** hori. Herria

Hiru **jazarketa** izigarri auto bonbadunez baziren Irakian izanak, Nadjakoa azkena, ehun hil baino gehiago eginez. Herria

Grenadaz eginak dira maiz **jazarketa** horiek. Herria

**2** jazarkundea.

Funtsean ez da atzo hasia Irango **jazarketa** eta erresistentzia politiko hori. Herria

Aspaldiko Salazar zenaren diktatura orduantxe zen bururatu, kapitain multxoño baten **jazarketa** zela medio. Herria

---

## jazarkoi *izond* oldarkorra

Kamera numerikoaren begiaren bestaldean zegoen Agatak ez zuen argi borobil **jazarkoia** baizik ikusten. Itxaro Borda

---

## jazarkor *iz* oldarkorra.

Herostratosen ama **jazarkor** eta urguilutsua zen. Juan Garzia

---

## jazarkunde 1 *iz* esetsaldia, zapalkuntza.

1989an, Belgradek Kosovoren aurka bultzatutako **jazarkundeari** aurre egiteko, LDK Kosovoko Liga Demokratikoa alderdia sortu zuen. Berria - Mundua

Genozidio armeniarraren auzia eta kurduen eskubideen ukazioa eta **jazarkundea** hor daude, haatik. Berria - Mundua

Alabaina, Lukashenkoren agintearen **jazarkunde** honek ez diela etsiaraziko ziurtatu du Demokrata Gazteak erakundeko kide Denis Denissovek. Berria - Mundua

**Jazarkunde** gogorrak izanak ere dira han girixtinoen kontra jadanik terrorismo giro hortan. Herria

**2** oldarraldia, matxinada.

Presonerren **jazarkunde** bat aipu da Aliatuak hurrandu bezain laster. Michel Oronoz

Mantxuria inbaditu, milaka txinatarren **jazarkundean** parte hartu. Joxan Elosegi

Ezin-bizitzearen edo bizitzeko manera trixteen kontrako **jazarkundeak** . Herria

**3** erasoa.

Hauen **jazarkunde** terroristen beldurrez, Israelgo armadak ez du uko egina bere segurtamen harresiari. Herria

---

## jazarkuntza *iz* erasoa.

Arabia sauditarrean beti segitzen da petrolio munduari interesatzen diren mendebal aldetiarren kontrako herrak eta **jazarkuntzek** . Herria

---

## jazarle 1 *iz* jazartzen den pertsona, oldartzailea, erresistentziako kidea.

Boli Kostan gobernuak eta **jazarleek** hautsi mautsi bat onartu dute guduen baratzeko. Herria

53 soldado amerikar badituzte hilak irakiar **jazarleek** . Herria

Amerikano aitzindariek nolako manuak zituzten xuxen emanak beren soldadoeri irakiar **jazarle** batzuen mintzarazteko. Herria

Israelgo Lurraren Eguna baliatu dira **jazarle** batzu beren buruaren zapartarazteko bonba batean, soldado batzuen ondoan. Herria

Mazedonian gobernuaren armadak lanak ditu UCK-ko albaniar **jazarleeri** buru egiten. Herria

**Jazarleak,** 200.000 biztanleko hiri honetako komisaldegiaz eta beste egoitza publiko andanaz jabetu ondoren, gobernuaren aldeko indarrek kontrola hartzeko saioan porrot egin zuten larunbatean. Berria - Mundua

Ruhakana Rugundu da **jazarle** horien buruzagia. Herria

Juduek lehenik seleukotarren eta gero erromatarren gobernuaren aurka [...] egindako hainbat matxinadarekin kontraste bizian, kristauak sekula ez ziren armaz matxinatu erromatar **jazarleen** aurka. Iñaki Mendiguren

Zeruko arranoak baino bizkorrago dira gure **jazarleak;** segika dabilzkigu mendietan, tranpak jartzen dizkigute basamortuan. Elizen arteko biblia

*Comunero*-ak deitzen ziren Gaztelako **jazarleen** aurka. Piarres Xarriton

**2** (izenondo gisa)

Gudukak ari dira hiru egun huntan [...] Nadjah inguruan xihitar miliziano **jazarleen** eta irakiar podore ofizialekoen artean. Alonsoren politika **jazarlea**. Herria

**3** eseslea, pertsegitzailea.

Atzetik **jazarleak** zituztelakoan, hego aldera jo zuten, iparraldera beharrean. Felipe Juaristi

Haien **jazarleek** ez baitzuten erlijioa, judutarren erlijioa bereziki gorroto, arraza baizik, judu arraza. Felipe Juaristi

· *Bullying* kasuren bat gertatzen denean irakasleek zer-nola jokatzen duten galdetuta, LHko ikasleek diote **jazarleak** zigortzea dela ohikoena (%38). Berria - Harian

*Mobbing* motak, **jazarleen** ezaugarriak, eta jazarpena jasaten ari direnen sintomak laburbiltzen ditu eskuliburuak. Berria - Ekonomia

---

## jazarpen **1** *iz* esestea, erasotzea.

Bitartean, biktimak jasaten du erasotzailearen **jazarpena**. Berria - Euskal Herria

Gerra Hotzaren garaian intelektual disidenteen **jazarpena,** giltzapetzea eta hilketa ohiko kontuak izan ziren ekialdeko erregimenetan. Iban Zaldua

Turkiako Gobernua gogortzen ari da kurduen aurkako **jazarpena** Ondorioz, poliziaren **jazarpenak** jasan eta, tarteka, berriro ere kartzelan izan ziren. Joseba Zulaika

**«Jazarpena»** salatu dute berriki askatu dituzten disidenteek. Berria - Mundua

EAJk argudiatzen du bere zinegotzien kontrako «mehatxuak» eta **«jazarpena»** desagertzen ez badira ezin dela prozesurik egin. Berria - Euskal Herria

Aralarrek «ideien **jazarpena»** salatu zuen atzo Donostian emandako prentsaurrekoan. Berria - Euskal Herria

Demokrazian onartezina da ideien **jazarpena** erabiltzea. Berria - Euskal Herria

**Jazarpenari** «ekimen politikoa areagotuz» erantzunen diotela azpimarratu du. Berria - Euskal Herria

Argentinako **jazarpena** Txilekoa baino maltzurragoa izan zen, Argentinan, ofizialki, inor ez zutelako garbitu! Berria - Euskal Herria

Etxerik gabekoek pairatzen duten **jazarpena** salatu dute. Berria - Euskal Herria

Preso hartu zituzten, **jazarpenik** ez zela izanen sinetsi zuten judu zorigaiztoko asko bezala. Fernando Rey

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Gizonezkoen moduluko bi presok, berriz, **jazarpen** ekonomikoak leporatu zizkioten. Berria - Euskal Herria

Jesus Egigurenek (PSE) gogor kritikatu zuen EAJk **«jazarpen** ideologikoaren» aldeko hautua egin duela. Berria - Euskal Herria

Lan Ikuskaritzak 217 eskari jaso ditu **jazarpen** morala ikertzeko. Berria - Ekonomia

Laneko **Jazarpen** Moralaren Euskal Behatokiak egin duen txosten bateko datuak. Berria - Ekonomia

Errugabe dela dio Josu Larizek, eta **jazarpen** politikoa salatu du. Berria - Euskal Herria

Espainiako segurtasun indarrek antzeko **jazarpen** poliziala egiten zuela. Berria - Euskal Herria

EAJren **jazarpen** politiko eta poliziala salatu zuten. Berria - Euskal Herria

Batasunaren ustez, Grande-Marlaskaren **«jazarpen** paranoikoa» islatzen du auziak. Berria - Euskal Herria

Bereziki, **jazarpenezko** indarkeria hartzen du hizpide. Berria - Euskal Herria

*ik beherago* 10. Askoren artean

Ordutik «etengabeko **jazarpena»** pairatu dutela. Berria - Euskal Herria

**3** *(eskolakoa; ik beherago* **9***)*

Adituen esanetan, **jazarpenak** iraunkorra izan behar du, hilabete batzuetakoa, *bullying*-a izateko. Berria - Euskal Herria

**Jazarpena** eskola guztietan ari da gertatzen. Berria - Harian

Ikasleen **jazarpenari** aurre egiteko neurriak. Berria - Euskal Herria

Egitasmo berriak ikaskideen **jazarpena** jasaten duten neska-mutilak babesteko neurriak aurreikusten ditu. Berria - Euskal Herria

**Jazarpena** jasaten duten ikasleek zailtasun handia dute gertatzen zaienari buruz hitz egiteko. Berria - Euskal Herria

Ikasleen **jazarpenei** aurre egiteko neurriak eskatuko dira larunbatean. Berria - Euskal Herria

**4** (erlijiozkoa)

K.o. 303ko **jazarpena** lehen-lehenik armadako kristautasunaren aurka bideratu zen [Dioklezianok]. Iñaki Mendiguren

Galerio zesarrak bultzatutako **jazarpenaren** ondoren. Juan Martin Elexpuru

Osiriar Elizak sekula ez zuen **jazarpenik** pairatu eta azkenean gutxiengo menderatzaile egipziakoaren erlijioarekin nahastu zen. Iñaki Mendiguren

Araubidearen 3. artikulua tratu bidegabearen edo **jazarpenaren** gainekoa da, arrazarengatik, jatorri etnikoarengatik, erlijio, genero, sexu-joera edo ezintasun fisikoarengatik inor jazarri edo inori tratu txarra ematearen gainekoa. Oskar Arana

Eliza barruan **jazarpena** sufritu duten kristauak. Berria - Euskal Herria

Luteroren oldartzeak erlijio-gerrak ekarri zituen eta, haiekin batera, pentsamendu desberdina izateagatik, **jazarpena**. Askoren artean

1540: Higanoten kontrako **jazarpena** Frantzian. Aingeru Epaltza

**5** *(sexuala; ik beherago* **12***)*

Italiako emakumezkoen erdiek **jazarpena** pairatu dute. Berria - Gaiak

Poliziaren **jazarpenen** aurrean gay eta lesbianak errebelatu ziren Stonewall tabernaren paretik igarotzean. Harkaitz Cano

Herritar homosexualek sufritzen genuen **jazarpenaren** aurrean, begiak ireki behar izan zituztelako. **Jazarpen** sexuala eta jokabide profesional okerra leporatu zitzaizkion Lurie irakasleari. Oskar Arana

**6** (kirolean)

Abiadura patinajeko taldekako **jazarpenean,** berriz, Alemaniarentzat eta Italiarentzat izan ziren urreak. Berria - Kirola

10:00: Buruz buruko **jazarpena**. Berria - Kirola

10:30: Taldekako olinpiar **jazarpena**. Berria - Kirola

Euskaltel-Euskadik, Lamprek eta Liberty Segurosek egin zuten **jazarpen** lana, baina goseak geratu ziren helmugan. Berria - Kirola

18.35: 'Match Omnium' Joane Somarriba Zoulfia Zabirovaren aurka (10 itzuli **jazarpenean)**. Berria - Kirola

Iraupen eskian eskuratu ditu guztiak: Kristina Smigunek bi, **jazarpeneko** 15 kilometrokoan eta 10 kilometrokoan. Berria - Kirola

Iraupen eskia: 30 kilometroko **jazarpen** proba (gizonezkoak). Berria - Kirola

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jazarpen** garai latz hauetan buruko ile bat ere ez baitiete ukitu hango Erlijiokideei. Aingeru Epaltza

Estatuak **«jazarpen** fase» berri baten aldeko hautua egin zuen. Berria - Euskal Herria

Euskal herritarren kartzelaldi, erbesteratze, deportazio eta gainerako **jazarpen** moduen sustrai bila hasita, oso atzera joan gaitezke historian eta urteetan. Jokin Urain

*Ikasleek Apurtu tratu txarren katea* izeneko triptikoa jasoko dute, **jazarpen** egoeretan jarraitu beharreko hainbat irizpiderekin batera. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalaren erabaki hau aspaldian hasitako **jazarpen** estrategiaren beste urrats bat besterik ez da. Berria - Euskal Herria

Zapalkuntza, **jazarpen** eta kriminalizazio estrategia horien alde apustua eginez gero, konponbiderako prozesutik urruntzen ari direla adierazi du. Berria - Euskal Herria

Argentina, Brasil, Bolivia, Paraguai, Txile eta Uruguaiko diktadurek 1970eko hamarkadan ezarritako **jazarpen** plan honen ondorioz, Talde parlamentarioaren kontrako erasoak **«jazarpen»** testuinguru baten barruan kokatu zituen Salaberriak. Berria - Mundua

Inkisidorea **jazarpen** organo gorena zenean. Berria - Euskal Herria

**Jazarpen** neurrien gainetik gai izan gara mugitzeko eta benetako udal demokratikoak lortzeko. Berria - Euskal Herria

Berangoko txirrindulariak zilarra irabazi zuen atzo, hiru kilometroko **jazarpen** proban. Berria - Kirola

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herritarren aurkako «polizia **jazarpena»,** zaurituak eta atxiloketak egon izana salatu zituen. Berria - Euskal Herria

2003ko otsailetik gaur arteko hilabeteetan Estatuak egindako zigor **jazarpenagatik** delituaren jarraipenerako arriskua desagertu dela pentsatzea. Berria - Euskal Herria

Suzko armen biktimek abiatutako lege **jazarpenetik** arma ekoizleak babestu eta immunitatea emateko legea proposatzen du. Berria - Mundua

Genero **jazarpenaren** inguruko mintegi bat zuzenduko du Mercedes Farriols aktoreak. Berria - Kultura

Orain arte 60 lan **jazarpen** salatu dira. Berria - Ekonomia

## 9 *eskola jazarpen*

Eskola **jazarpena** ere normaltzat jo izan da orain arte. Berria - Euskal Herria

Urruntze agindua eskola **jazarpena** izan den kasuetan aplikatu ahal izango du epaileak. Berria - Euskal Herria

Gasteizko *Sagrado Corazon* ikastetxean ustez izan den beste eskola **jazarpen** kasu baten berri eman zuen atzo. Berria - Euskal Herria

## 10 *jazarpen indarkeria*

**Jazarpen** indarkeriaren biktima direnei babesa adierazteko. Berria - Euskal Herria

**Jazarpen** indarkeria sufritzen dutenei askatasun murrizketa hori ahalik eta gehien leuntzea. Berria - Euskal Herria

**Jazarpen** indarkeria, polizia torturak edo presoen sakabanaketa. Berria - Euskal Herria

## 11 *jazarpen mania*

-Zurea paranoia da -eten zuen-, **jazarpen** mania hutsa, begitan hartua naukazu eta. Migel Angel Mintegi

Berak, berean zorrotz eta gogor, "suisar zehaztasun" delakotzat saldu nahi izan zizkidan, laboratorioaren eta lantegi osoaren arimatzat, baina niri traba zozo mordo bat iruditu zitzaidan, **jazarpen-maniaren** muga-mugan. Juan Garzia

**Jazarpen mania** nozitzen zuen kondenatu hura, ikaraz beterik borreroari aulki elektrikoaren atzean ea norbait ezkutatzen zen begira zezala behin eta berriz erregutu ziona Karlos Linazasoro

## 12 *sexu jazarpen*

Diziplina-batzorde baten aurrera agertzeko dei egin zaio, sexu-**jazarpena** leporatuta. Oskar Arana

Sexu **jazarpena** eta eroskeria ere leporatzen zioten lankideek. Berria - Mundua

Ruud Lubbers Errefuxiatuentzako goi komisarioak sexu **jazarpena** egin zuela. Berria - Mundua

Beste lekuko batek aitortu du kartzelako Segurtasun buru ohiak sexu **jazarpenak** egin zizkiola. Berria - Euskal Herria

Bost emakumeri sexu **jazarpenak** egitea eta bi gizoni jazarpen ekonomikoa egitea egotzi diote. Berria - Euskal Herria

Segurtasun buruak inputatu gisa deklaratu zuen, ustezko sexu **jazarpenengatik**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkako jazarpen** (7); **eskola jazarpen** (3); **etengabeko jazarpen** (3); **etengabeko jazarpen politiko** (3); **jazarpen arraziala** (4); **jazarpen egoera** (3); **jazarpen handia** (4); **jazarpen indarkeria** (7); **jazarpen kanpaina** (4); **jazarpen lan** (6); **jazarpen lana** (6); **jazarpen lanean** (5); **jazarpen morala** (8); **jazarpen moralaren** (5); **jazarpen plan** (3); **jazarpen politiko** (7); **jazarpen politiko zorrotza** (3); **jazarpen politikoa** (9); **jazarpen politikoaren** (3); **jazarpen poliziala** (6); **jazarpen proban** (7); **jazarpen sexuala** (3); **kilometroko jazarpen proban** (3); **kontrako jazarpen** (8); **laneko jazarpen** (9); **laneko jazarpen morala** (3); **laneko jazarpen moralaren** (4)

**aurkako jazarpena** (27); **aurkako jazarpena salatu** (3); **bazterketa eta jazarpena** (3); **buruz buruko jazarpena** (3); **egindako jazarpena** (3); **eskola jazarpena** (12); **eskolako jazarpena** (3); **estatuen jazarpena** (3); **etengabeko jazarpena** (3); **ideien jazarpena** (3); **ikaskideen jazarpena** (5); **ikaskideen jazarpena jasaten** (3); **jasandako jazarpena** (3); **jasaten duten jazarpena** (3); **jazarpena areagotu** (6); **jazarpena bertan behera** (4); **jazarpena bizi** (4); **jazarpena egin** (3); **jazarpena egiten** (6); **jazarpena eragin** (3); **jazarpena gaitzetsi** (5); **jazarpena gelditzeko** (3); **jazarpena gertatzen** (3); **jazarpena izan** (3); **jazarpena jasan** (19); **jazarpena jasaten** (17); **jazarpena jasaten duten** (5); **jazarpena leporatu** (3); **jazarpena pairatu** (6); **jazarpena pairatzen** (10); **jazarpena salatu** (31); **jazarpena salatzeko** (3); **jazarpena sufritu** (5); **kontrako jazarpena** (16); **kontrako jazarpena salatu** (4); **poliziaren jazarpena** (6); **polizien jazarpena** (3); **sexu jazarpena** (17); **sexu jazarpena egin** (3); **sexu jazarpena leporatu** (3); **taldekako jazarpena** (3)

**aurkako jazarpenak** (4); **jazarpenak akituta** (5); **jazarpenak antzeman** (3); **jazarpenak egitea** (4); **kontrako jazarpenak** (4); **sexu jazarpenak** (6); **sexu jazarpenak egitea** (4)

**aurkako jazarpenaren** (4); **frantziaren jazarpenaren ondorioz** (3); **jazarpenaren aurrean** (3); **jazarpenaren kontrako** (3); **jazarpenaren ondorioa** (3); **jazarpenaren ondorioz** (4); **ustezko jazarpenaren** (3)

**eskola jazarpenari** (5); **ideien jazarpenari** (3); **jazarpenari aurre egiteko** (11); **jazarpenari buruzko** (5); **ustezko jazarpenari buruz** (3)

**kilometroko jazarpenean** (3); **taldekako jazarpenean** (4)

**ustezko sexu jazarpenengatik** (3)

**jazarpenik jasan** (3)

---

# **jazarraldi** *iz* erasoaldia, matxinada.

Inkisizioaren torturak, heresiaren aurkako borroka Frantzian, Italian, Flandesen, Alemanian, [...], zientziaren eta askatasunaren aurkako **jazarraldiak**. Felipe Juaristi

Eta kanpotik salbamendua ez bazen berehala etortzen, **jazarraldiaren** antolatzen hasiak ziren, alemanei armak hartzeko eta beren buruen askatzeko. Eneko Bidegain

EZLNren **jazarraldiaren** hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Berria - Mundua

Kurduen **jazarraldia** Istanbulera hedatzeak kezkatuta, premiazko bilera bat egin zuen atzo Turkiako Gobernuak. Berria - Mundua

Ziurtatu bazuen ere agintarien helburua ez zela ahal bezainbat matxino hiltzea, **jazarraldiari** irmoki erantzun nahi izan zela aitortu zuen. Berria - Mundua

Xiiten **jazarraldiaz** gain, erresistentzia sunitaren erasorik gertatu zen atzo. Berria - Mundua

Demokraziaren eta askatasunaren alde borroka egin zuten pertsona guztiei eta diktadura frankistaren **jazarraldia,** erbestea eta heriotza jasan zuten guztiei. Berria - Euskal Herria

Hamabosgarren mendean jende xehea eta pobrea azkarki oldartu zela, jaun feudalen kontra; "guerras de los irmandiños" dio gidaliburuak, aipatzen dituela ere garai berean Frantzian izan ziren "cabochiens" delakoen **jazarraldiak**. Piarres Aintziart

Esklaboen **jazarraldietan**. Elena Touyarou

Azkenik, Mobuturen aurkako **jazarraldiek** garaipena lortu zuten, eta diktadore zaharra atzerrian hil zen. Iban Zaldua

Iraultza Sandinista XX. mendeko azken iraultza soziala eta azken **jazarraldi** militarra izan zelako. Berria - Mundua

Goiko Frantziakoen eta peko errekan direnen arteko “berdintasunak” sortuko ditu, bihar edo etzi kalapitak, istiluak, **jazarraldiak** eta behar bada iraultza. Herria

---

# **jazarri**, jazar, jazartzen *(orobat **jazartu** g.er.)* **1** zaio *ad* eraso, oldartu.

Afrikan, aldiz, Tunisia eta Maroko **jazarri** zitzaizkion hasteko IV. Errepublikari. Piarres Xarriton

Geroztik, muga guztiak gainditu, sozialismoaren itzalean lo zeuden nazionalismo guztiak **jazarri** zaizkie Mendebaldeko estatuburuei. Piarres Xarriton

Gogorki **jazarri** zitzaion Salamancako Unibertsitatea, baina amore eman zuen, Karlos V. Enperadoreak haren errentak eta tituluak murrizteaz mehatxu egitean. Piarres Xarriton

Zeren Kristau guztiek hura behar baitugu sinetsi, hari **jazarri** gabe galdatuz, zergatik egin duzu hori? Piarres Xarriton

Sartzerakoan etxeko zakurra **jazarri** zitzaien. Gotzon Garate

Lehentasuna Estatuari emaiten zioten bere irakaslekide guztiei **jazartzen** zitzaien. Piarres Xarriton

Barnetik ala kanpotik **jazartzen** zitzaizkien etsai guztiei. Piarres Xarriton

Bere asmoak lortzeko, jokabide bi erabiliko zituen: barur egin eta bidegabeko aginduei **jazarri**. Gotzon Garate

Trafikatzaileen kontrako ekintzak hasiak ziren, gazteak drogara eraman eta **jazartzeko** ahalmena jaten omen zietelako. Juan Kruz Igerabide

· Justizia hura galduz geroz, galdu zen ere hastapeneko ordena eta harmonia miresgarria, eta sentsuak **jazarri** ziren arrazoiaren aurka. Piarres Xarriton

**2** du *ad* esetsi.

Magistratuek **jazarri** zituztenean, berezko eskubidea aldarrikatu zuten guztiek. Juan Martin Elexpuru

Heinrich von Virneburg, Koloniako Artzapezpikuak, aldez aurretik Begardoak eta "Izpiritu Askearen Senideak", baita beste sekta batzuk ere **jazarri** zituenak. Joan Mari Lekuona

Etorri zen Franco, debekatu eta **jazarri** zuen euskara, pizkunde literarioa zanpatu, eskolak espainolismoaren burdinola bihurtu. Joxe Azurmendi

30.000tik gora herritarrek salatu dute torturatuak edo politikoki **jazarriak** izan zirela 1973-1990 bitartean. Berria - Mundua

Iheslariak milaka ari omen ziren pilatzen mugako errepideetan, Katalunia osoa hartua zuen Francoren armada garaileak **jazarrita**. Alberto Ladron Arana

Jauna, **jazar** itzazu zeure haserreaz, eta garbitu eguzkiaren azpitik! Elizen arteko biblia

Erlijio ofizialaren defendatzaileek **jazarririko** mistiko bat. Joan Mari Lekuona

Gizartetik kanporatuak ziren, deiadarka **jazarriak** lapurrak bailiran. Elizen arteko biblia

Horregatik, masturbazioa, uzki-koitoa, lesbianismoa edo homosexualitatea -ugalketarik gabeko jarduerak guztiak- gogor **jazarri** eta kondenatuko dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beraz, genozidio krimenik ez dago, legez, **jazarritako** herriak ez badu bizirauteko eskubide kolektiborik. Berria - Gaiak

• **3** (dio aditz gisa)

Beldur handia nuen, pentsatzen nuelako hil arte **jazarriko** ziotela, ez ziotela barkatuko. Berria - Euskal Herria

FCCri leporatu zioten, gainera, garbitzaileei **jazarri** izana. Berria - Ekonomia

Papistek, Liga Katolikoa delakoan bildurik, bazter guztietan **jazartzen** zieten fededunei. Aingeru Epaltza

Pentsamendu liberala duten gizonei **jazartzen** diegula diozu, liburutegiak suntsitzen ditugula. Ramon Etxezarreta

**4** (ikaskideak, emakumeak)

Jokin Z. zena **ustez** jazarri zuten ikaskideek Ertzaintzaren aurrean deklaratu zuten atzo goizean. Berria - Euskal Herria

3.1 artikulua, ostera, irakasleek ikasleak **jazartzearen** edo haiei tratu bidegabea ematearen gainekoa. Oskar Arana

Ezaugarri horiek betetzen dituzten gazteak **jazarriak** izateko hautagaiak dira, argi eta garbi. Berria - Euskal Herria

Emakumearen esanetan, gizonak **jazarri** eta iraindu egin zuen. herenegun iluntzean Bilboko taberna batera sartu zen eta bere bikotekide ohia **jazarri** zuen. Berria - Euskal Herria

**5** (era burutua izenondo gisa) jazarpena jasan duena.

Mauritaniarrak garaituak izan ziren; lehenago hiri **jazarriek** hartzen zuten lurra pluton-jainkoei eskaini zitzaien sekulako. Juan Garzia

Merkatari **jazarrietako** bati elkartasuna erakusten. Xabier Mendiguren Elizegi

Borreroak mila aurpegi baditu, guk, **jazarriak** garenok, bakarra dugulako, minak taxututakoa. Felipe Juaristi

Bandera debekatua eta **jazarria,** Franco hil eta gero, edozein herritako edozein kaletan. Alberto Barandiaren

Bertan arnasestuka egon zen luze, basapiztia **jazarriaren** gisan, eta gero haremera jo zuen. Fernando Rey

Idazle preso eta **jazarrien** eskubideen aldarrikapena. Berria - Kultura

Bizi erdia kartzelan, beste bizi erdia **jazarria**. Berria - Kultura

Hondarribiako Talaia Institutuan ikasle **jazarri** bakarra ez zen Jokin Z. izan. Berria - Euskal Herria

Bakea eta **jazarrien** eskubideak bermatu behar dituztenak. Berria - Mundua

**6** (era burutua izen gisa) jazarpena.

Hala, eskatu zuen **jazarri** politiko gisa hartzeko, eta estradizioa ez onartzeko. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gaztea jazarri** (4); **gogor jazarri** (3); **jazarri eta zigortzea** (3)

---

**jazarrika** *adlag* jazartzen, esesten.

Argia lehengoa zen, ordea, nik ezagutu nuen argi bera, eta iruditu zitzaidan nire zain egon zela argi hura mendeetan, argia infinitua baita, iluna ere infinitua den bezala, eta biek ala biek diraute batak besteari **jazarrika** denbora jaio denetik hona. Felipe Juaristi

Guregana hurbildu ahala konturatu naiz, ordea, ez dabiltzala jirabiraka, bata bestearen atzetik baizik, elkarri **jazarrika**. Mirentxu Larrañaga

---

**jazartoki** *iz* jazarpenaren tokia.

Lehen **jazartokia** beraz Casablanca erdian, bigarren bat izan dute Safir hotelaren aintzinean, hau delarik israelita biltokia. Herria

---

jazartu ik **jazarri**.

---

**jazartzaile** *iz* jazarlea.

Inor **jazartzaile** eta sadikoa izatekotan, huraxe zen. Jokin Urain

Zergatik hitz egin beharko luke bada hark, bere **jazartzailetzat** kondenatua izan zen gizonarekin? Oskar Arana

---

**jazartze** *iz* erasotzea, esestea.

Ba bide ditu 31 **jazartze** eginak eta heietan bat Bogota kapitalean bonbaz egin zuen balentria. Herria

**Jazartze** horrek iraunen duela, ikusi artio palestindar bandera mahometano eta girixtino otoitz etxetako puntetan Jerusalemen. Herria

**Jazartze** hortarik zauri larriekin gelditua zen gizona. Herria

Kolore nazionalez kanpo edozein **jazartze** seinale zeraman nornahi presondegiratua edo erailа izanen zen. Elena Touyarou

Eman zen osoki otoitzari, barurari, bere buruaren kontrako bertze hainitz **jazartze** bortitzeri. Xipri Arbelbide

**jazban** *(orobat* ***jazzban*** *g.er. eta* ***jazpan****)* **1** *iz* eskusoinuak, saxoak eta bateriak osaturiko musika taldea.

**Jazbanaren** musikarekin dantza sueltoan ari ziren gazteak. Alberto Barandiaren

Kasinoan **jazbana** zegoen, eta musika leun batek airea edertzen zuen. Edorta Jimenez

Arrakastatsua gertatuko zen, ematen duenez, Gerrikabeitiaren saioa, hurrengo urtean beste hiru **jazban** agertu baitziren Ezkurdi plazan bertan, Bizkaiko hiru muturretatik etorriak. Iñigo Aranbarri

*Azken* ***jazzbana*** deitzen da Iñaki Garmendia "Laja" (eskusoinua), Enrique Eguren (saxofoia) eta Jose Makazaga "Ziolar" (bateria) hirukoteak plazaratu berria duen diska. Herria

**2** jazbanetako bateria.

Hiruko formazio klasikoa mantendu du bizitza guztian: soinua, **jazbana,** saxoa. Pako Aristi

Etxean festa jartzeko falta zena: Jexuxen soinua, Pioren **jazbana,** Juanitoren armonika eta gainera Antonioren atabala. Xabier Etxabe

Haren atzean Mendoza, **jazbana** jotzen zuena. Pako Aristi

Soinu txikiaren laguntzaile izan ordez, protagonista bihurtu ziren pandero, botila eta **jazpanak**, eta mundu osoko erritmoz jantzi zuten ekitaldia. Berria - Kultura

**3** ***jazban-jotzaile*** *(corpusean* ***jazpan jotzaile*** *eta* ***jazbanjole*** *soilik)* *iz* jazbana jotzen duena.

Pandero, botila êta **jazpan** jotzaileen erakustaldiarekin aretoa bero-bero jarri bazen, ekitaldiaren amaieran iritsi zen unerik hunkigarriena, hainbat trikitilari omentzeko sasoian. Berria - Kultura

Horretaz aparte beste saxo eta bateria edo **"jazbanjoleak"** izan dira Gelatxo taldean urteotan: Arturo Zuloaga "Txokolo", [...]. Pako Aristi

---

jazbanjole ik **jazban 3**.

---

jazinto ik **ihazinto**.

---

jazkera ik **janzkera**.

---

jazko ik **iaz 2**.

---

jazmin ik **jasmin**.

---

**jazo**, jazotzen **1** da *ad* gertatu. ik **agitu**.

Bost minutu horietan **jazo** zen dena. Urtzi Urrutikoetxea

Ez zen halakorik **jazo**. Josu Landa

- **Jazoko** duk izugarriren bat laster! Koldo Izagirre

Danborradari dagokionez, 1936an gertaera bitxi bat **jazo** zen, harrezkero ohitura bihurtu dena. Askoren artean

Gertatuak Euskal Herrian **jazo** ziren, 1975ean. Agurtzane Juanena

Baina, lehen erasoa, horrela gertatu zela badakiguna, ezer baldin bada, bigarrena, ia aldi berean **jazo** zena, modu berean gertatu ez zelako froga da. Koro Navarro

Duela urte gutxi **jazoriko** gertakari baten (edo batzuen) urruneko oihartzunak. Iban Zaldua

Azkeneko gertakari handia 1992an **jazo** zen. Gotzon Garate

K motako gertaldi bakoitzaren ondoren E motako gertaldiren bat **jazotzen** bada. Askoren artean

Aspaldi **jazotako** kontuak dira. Rafa Egiguren

Istripuaren aurretik neurriak ez hartzea, eta **jazo** ostean isilik egon izana egotzi zioten oposiziokoek foru diputatuari. Berria - Euskal Herria

Hori bera **jazo** zitzaion tren geltokian semearen aholkuak entzun zituen atsoari. Urtzi Urrutikoetxea

Ostiral gaueko aire alarmen bitartean **jazo** zen. Urtzi Urrutikoetxea

Laurehun bat urte dira eroaldi hura **jazo** zenetik. Anjel Lertxundi

Zallako gazte bat hil da Gueñesen **jazotako** auto istripuan. Berria - Euskal Herria

Mirenekin **jazotakoa** kontatu nion. Xabier Montoia

Bururaino joango gara **jazotakoak** argitzeko. Berria - Mundua

Hori da asteazkenean **jazotakoaz** Poliziak eman zuen azalpena. Berria - Euskal Herria

Bidean **jazotakoaz** ezer ez dakitela. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Halaxe azaldu zidan **jazoa,** alegia, Basurtoko jaunak askotan egiten ziola ganbarara agertzeko deia, familiaz, sorterriaz eta halakoez mintzatzeko aitzakiaz, azken batean lagun hurko baten semea zen mutil haren ardura bere gain hartua zuelako aitzakiaz, eta berak amore ematen zuela, han, ontziburuaren ganbaran, ontzian beste inork ez zituen jakiak eta edatekoak eskaintzen zizkiolako, eta [...] Edorta Jimenez

**3** ***zer jazo ere*** zer gerta ere.

Eta zer **jazo** ere, zuhurtziaz, faxista ospetsua eta Concha Valdes bera bahitura legez geratuko direla esan dio Jesus Galindezek neskari, Valentziara abiatu aurretik. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ezbeharra jazo** (3); **gertaera jazo** (3); **gertakaria jazo** (4); **gertakariak jazo** (5); **gertakariak jazo ziren** (3); **gertu jazo** (3); **herrian jazo** (4); **istripu jazo** (3); **istripua jazo** (6); **jazo eta berehala** (4) jazo zen ezbeharra (3); **zer jazo da** (3)

**jazotako gertakari** (3); **jazotako istripu** (3); **jazotakoa ikertzen** (3); **jazotakoaren berri eman** (4)

---

**jazoarazi**, jazoaraz, jazoarazten du *ad* jazotzera behartu.

Sekula ez dozu ezer **jazoarazi** beldurtuta edo haserre zengozenean? Iñaki Mendiguren

---

**jazoera** **1** *iz* gertaera.

Ertzaintzak emandako datuen arabera, **jazoera** goizeko 08:00ak aldera gertatu zen, Iturriza kaleko denda batean. Berria - Euskal Herria
**Jazoerak** labur eta zehatz azaldu nizkion, Akzioko ofizialak niri azaldu bezala. Edorta Jimenez
Cabo Quilateseko eta Altuna-Mendiko **jazoeren** ostean Jaurlaritzak ahaleginak eta bost egin zituen, halakorik berriro jazo ez zedin. Edorta Jimenez
Azken egunetako **jazoeren** ondoriozko tristuraz kutsaturik. Jon Arretxe
Bestelako izen, pertsonaia, toki eta **jazoera** guztiak, berriz, Morpurgoren irudimenaren asmakizunak dira. Mirentxu Larrañaga
Non kazetaritzaren objektibotasunaz baliatu, [...], eta non subjektibotasunari hel egin, **jazoeren** segida hutsa eta hotza nagusi ez dadin. Aingeru Epaltza
Bere eskaria argudiatzeko, **jazoerak** gizartean eragin duen alarma aipatu du PSEko legebiltzarkideak. Berria - Euskal Herria
**Jazoera** baten edozein atzemate, beraz, beste hautemapen bati jarraiki zaion hautemapena da. Ibon Uribarri

**2** (izenondoekin)

**Jazoera** txiki horiek guztiek iradokitzen duten joera. Berria - Euskal Herria
Hogeita hamar urteren ostean, gasteiztar askoren memorian gelditu dira egun hartako **jazoera** tristeak. Berria - Harian
Gurasoen etxean atxilotu zuten gaztea, Santurtzin bertan, **jazoera** larria gertatu eta handik ordu gutxira. Berria - Euskal Herria
Eibarko **jazoera** «doilorra» izan dela kritikatu du. Berria - Euskal Herria
Azken boladan Bilbon **jazoera** tamalgarri larregi gertatu direlako labanak tartean zirela. Berria - Euskal Herria
Gertatu dena, **jazoera** «isolatu» gisa ezin dela ulertu diote, Grenet auzapezak «orokorrean duen jokamoldearen» adibide argia dela. Berria - Euskal Herria
Gertatu ziren hiri eta mendi beretan berrituz **jazoera** historikoak. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan)

Familia hizkera komun eta partitu batean ehuntzen diren mintzoz egina da, [...] sendi barruko oroipen eta **jazoera** sare halako baten ondorio denez gero. Berria - Kultura
Ezohikotasunak, azken buruan, gertaera baten **jazoera**-frekuentzia txikiari egiten dio erreferentzia, besterik ez. Berria - Gaiak
· Ingelesen aurrean frantziarrak goraipatzea du helburu eleberriak, eta horretarako, maitasun eta gerra **jazoerak** kontatzen ditu. Berria - Kultura
Mundu-**jazoeren** beren kausetatiko eratorketaren totalitatearen ideia kosmologikoaren konponketa. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> jazoeren ilara (3)

---

# jazokun *iz* jazoera, gertaera.

Gure egunotan ere gertatu ohi dira horrelako **jazokunak**. Gotzon Garate

---

# jazotze *iz* gertatzea.

Filosofia Politikoa, beste filosofia-esparruetan gertatzen ez den legez, ez da soilik **jazotze** pasiboa, bere inguruan jazotzen denari buruzko hausnarketa baino. Askoren artean

---

# jazpan ik **jazban**.

---

# jazz 1 *iz* Ipar Ameriketako beltzen musikatik sorturiko musika mota eta estiloa, ezaugarri nagusitzat inprobisazioa duena.

Blues, **jazz** edo kantu espiritualen tradizioari jarraituz, elkarri eskua emanda doaz zoriona eta tristura. Anton Garikano
'12 años de éxitos' lanean, ska, **jazz** eta eta reggaea uztartu ditu taldeak. Berria - Kultura

**2** (izenondoekin)

Europan oso **jazz** ona egiten da. Berria - Kultura
Gauean **jazz** klasikoa, eta hasieran aipatu dudan Trakai gaztelura egin genuen bisitaldian, **jazz** esperimentala. Edorta Jimenez
**Jazz** tradizionalaren egiturei jarraiki, buleriak, tangoak eta fandangoak jotzen ditu. Berria - Kultura
**Jazz** latinoa sasoi onean dagoela dirudi. Berria - Kultura
**Jazz** alternatiboa jorratzen duen talde hori oso ezaguna da AEBetan. Berria - Kultura
**«Jazz** berritzailea» eskainiko du Tejadak gaur Donostian. Berria - Kultura
Emanaldia hasteko, Brecker eta Evansen **jazz** garaikidea Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lagun taldean barre egiten zidaten, uniformez jantzita azaltzen nintzelako **jazz**-kobetara. Javi Cillero
*ik beherago* 18. Askoren artean
Hemen Vilniusen **jazz** kontzertuak eskainiko dizkigute datozen hiru egunetan. Edorta Jimenez
**Jazz** maisu estatubatuarren piezen egokitzapenak. Berria - Kultura
Orotara, zazpi emanaldi antolatu ditu **jazz** elkarteak. Berria - Kultura
Shirley Horn **jazz** abeslariarekin batera. Berria - Kultura
*ik beherago* 10. Askoren artean
Musikari gazteak **jazz** jotzaile handiekin jotzeko aukera izan zuen. Berria - Kultura
**Jazz** kritikariek ere jazz hutsa baino ez zuten aintzat hartzen. Berria - Kultura
*Downbeat* **jazz** aldizkariak. Berria - Kultura
Musika klasikoko jotzaile ospetsua bada ere, **jazz** munduan ere badu itzalik. Berria - Kultura
Jean Louis Hargous saxo-joilearekin batera eginikako **jazz**-obra, 12 kantuz osatua. Herria
**Jazz** pieza klasikoen eta euskal kantu ezagunen moldaketak. Berria - Kultura
Erritmo sinkopatuak eta **jazz** akorde bereziak. Berria - Kultura
Arratsaldeetan diskodenda batera joaten ginen, txanpon batzuen truk **jazz** disko berriak entzutera. Javi Cillero
Eta goizean gosaldu ondoren, aitaren batean alde egiten zuten, elkarrekin, harmonian, **jazz**-erritmoan. Fernando Rey
Hala, swing, cha-cha-cha eta bolero doinuek bat egiten dute **jazz** pasarteekin. Berria - Kultura
**Jazz** mota hura burubakoa ez ote zen galdetu zion Galderrek. Lutxo Egia
Iñaki Salvadorren obrak, esaterako, **jazz** usaina du. Berria - Kultura
**Jazz** koloreak aste osoan. Herria
Pat Crowleyk **jazz** arima atera zion pianoari. Berria - Kultura
Barber-ren *Medea*-ren **jazz** oihartzun sentsual eta koloretsuekin. Berria - Kultura

**Jazz** kutsuko abesti bat haritzat harturik. Iban Zaldua

Hauxe da abesbatzak **jazz** inprobisazioa egingo duen estreinako aldia. Berria - Kultura

**Jazz** sonoritateak bide luzeagoko trenbidean jarri nau. Berria - Kultura

Zarauzko Nazioarteko **Jazz** Mintegia. Berria - Kultura

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Argi dago antzinako folk-**jazza** oraingo moduan moldatu duela gizonak. Berria - Kultura

Tabernan free-**jazz** jotzen ari ziren. Lutxo Egia

*Art Ensamble of Chicago* taldearen estiloan jokatutako free-**jazz** entzuteko aukera izan genuen Vilniusko geltokian. Edorta Jimenez

Latin **jazz** gauek, esaterako, berebiziko garrantzia hartu dute. Berria - Kultura

Latin **jazz** ekitaldi didaktikoa. Berria - Kultura

Horrela acid-**jazz** delakoaren aita ponteko bilakatu eta artista garaikide askorengan eragin du. Berria - Kultura

Guruk, hip-hop-**jazz** uztarketaren aitzindariak, Bilbon joko du gaur. Berria - Kultura

Bluesetik (*At last, Mean Mistreatin' Mama*) ska-**jazzera** (*Sopa de caramelo*). Berria - Kultura

1976an erbestetik itzuli eta *Gwenda*l taldearekin beste disko bat grabatu ondoren, pop-**jazzera** hurbildu zen *Klabelin Komik* taldearekin. Berria - Kultura

Euskal-**jazz** moduko zerbait sortu nahi genduke. Berria - Kultura

## 5 *jazz banda*

Four Friends **jazz bandak** lagunduta. Berria - Kultura

Gregory Taten **jazz banda**. Berria - Kultura

Garai bateko **jazz banden** espirituarekin landu du diskoa Javi Pezek. Berria - Kultura

EAJ ez dela orkestra sinfonikoa, **jazz banda** baizik: batutaren gidaritzapean jo beharrean, norbere modulazioarekin egiten dute, baina, osotasunean, soinu ona da emaitza. Berria - Euskal Herria

## 6 *jazz doinu*

**Jazz doinu** baten lehendabiziko noten gisa. Monika Etxebarria

Oraingoz, **jazz doinua** ari da jotzen; ez dago melodiarik, notak baizik ez, ezin konta ahala bulkada txiki. Monika Etxebarria

**Jazz doinuek** bustiriko poesia errezitaldia. Berria - Kultura

Duke Robillardek blues, swing eta **jazz doinuak** ekarriko ditu Bilbora. Berria - Kultura

Bide-jatetxe baten ondoan gelditu zen, bere zirrikitu guztietatik argi arrosa eta **jazz doinuak** zerizkiona. Lopez de Arana

## 7 *jazz emanaldi*

**Jazz emanaldiak** antolatu ditu Bilbaina Jazz Club elkarteak Bilboko lau kultur etxetan. Berria - Kultura

Astero zuzeneko **jazz emanaldiak** antolatzen dituen elkarteari. Berria - Kultura

## 8 *jazz festibal* *ipar* jazz jaialdia.

Aurtengo **Jazz festibalak** 15 000 bisitariren marra pasatu du. Herria

"Scène Nationale" erakundeak Baionan urtero antolatzen zuen **jazz festibala**. Herria

Donostiako **Jazz Festibala** bukatu berria delarik, bere marka guziak hautsiz [...]. Herria

**Jazz festibaleko** kontzertu nagusira heltzeko seinalerik kasik ez zela Herria

## 9 *jazz jaialdi* ik **jazzaldi**.

Horrelaxekoa izan nahi du uztailaren 15, 16, 17 eta 18an Baionan iraganen den **jazz jaialdiak**. Berria - Kultura

Gasteizko **Jazz Jaialdiko** antolatzaileek. Berria - Kultura

*Jazz Sextet of Rostov* talde errusiarrak irabazi du Getxoko **jazz jaialdiko** lehiaketa aurtengo ekitaldian.

Aurtengo **jazz jaialdiko** egitaraua. Berria - Kultura

Sonny Rollins eta Sergio Mendesek ere parte hartuko dute **jazz jaialdian**. Berria - Kultura

*La Mitad del Mundo* (Munduaren Erdia) nazioarteko **jazz jaialdiaren** lehen ekitaldian. Berria - Kultura

## 10 *jazz kantari*

Itxaso Gonzalez **jazz kantariak** gidaturiko saioa izango da. Berria - Kultura

Shirley Horn **jazz kantari** handienetakoa da, eta Kursaalean abestuko du. Berria - Kultura

Soinua izan zuen lehenbiziko pelikula *The jazz singer* izan zen, **Jazz kantaria,** alegia. Berria - Kultura

## 11 *jazz klub*

**Jazz kluben** urterik distiratsuenetan. Harkaitz Cano

*Blue Note* **jazz klubak** ez du soilik New Yorkeko publikoa biltzen, Japoniako eta Europako jendea ere batzen da han. Berria - Kultura

Gauean 00:30ean hasiko dira Heineken **Jazz Klubeko** emanaldi guztiak. Berria - Kultura

**Jazz Klub** ziklo berriaren barruan bost kontrabaxu jotzaile ariko dira Kursaalean. Berria - Kultura

Jazz-soul begikoa, lasaia eta bikaina gauzatzen du, **jazz klub** batean entzuteko oso egokia. Berria - Kultura

## 12 *jazz laukote*

Saxofoi jotzaile nafarrak Donostiako *Be-Bop* tabernan joko du gaur bere **jazz laukotearekin**. Berria - Kultura

Emanaldi hartan pop-**jazz laukote** batek eta Miguel Zeberiok zuzendutako *Et Incarnatus* orkestrak lagundu zuten. Berria - Kultura

**Jazz laukote** talendutsu bati uztartu da obra hunen lantzeko. Herria

## 13 *jazz musika*

Harrera zeremonian **jazz musika** eta poesia nahasturik hartu gintuzten. Edorta Jimenez

**Jazz musikaren** koloretan dabil Baiona aste honetan. Herria

Kursaaleko emanaldia **jazz musikaren** estandarretan oinarrituko du seikoteak. Berria - Kultura

**Jazz musikaren** izen klasikoak. Berria - Kultura

Euskal **jazz musikak** egun duen osasun onaren adibidea da Teresa Zabalza Quintet. Berria - Kultura

Zarauzko **Jazz Musika** Elkarteak. Berria - Kultura

**Jazz** eta blues **musika**, uztailetik kanpo, egonkortasunaren bila. Berria - Kultura

## 14 *jazz musikari*

Chicagoko **jazz musikari** ospetsu batek jotzen zuen gau hartan. Bernardo Atxaga

Orkestraren lehenengo diskoan Euskal Herriko eta Akitaniako **jazz musikari** onenek hartu dute parte. Gorka Benitez **jazz musikariak** saxoa, alboka eta txirula jo ditu. Berria - Kultura

Charlie Parker, Dizzy Gillespie eta 52. kaleko gainerako **jazz musikari** guztiak Wagner jotzen jarriak zituen orain. Harkaitz Cano

Europako puntako **jazz musikariak**. Berria - Kultura

Estilo zeharo ezberdinak lantzen dituzten punta-puntako **jazz musikari** ezagunak ariko dira. Berria - Kultura

Beste hainbat **jazz musikariekin** batera, Ruben Blades, Femi Kuti, Carlinhos Brown, Cachao eta jazzari hain estuki lotuta ez dauden artistek joko dute Donostian jazzaldiaren

39. ekitaldian. Berria - Kultura

**Jazz musikarien** arteko topaketa batean. Berria - Kultura

### 15 *jazz talde*

Stay Blues **jazz taldeak** Donostiako Altxerrin joko du gaur. Berria - Kultura

Jatetxeko **jazz taldea** *Hindustan* jotzen ari zen. Lopez de Arana

Chano Dominguezek eta haren **jazz taldeak**. Berria - Kultura

Gainera, **jazz taldeetan** gitarra eta pianoa uztartzea zaila izaten da. Berria - Kultura

Hilean behin, euskal poeta batek bere testuak irakurtzen ditu AEK-ko Kalderapeko kulturgunean, Bilbon, **jazz talde** baten doinuek lagundurik. Berria - Kultura

Euskal Herriko **jazz** eta blues **taldeak** ere bultzatu nahi ditu zirkuituak. Berria - Kultura

### 16 *jazz saio*

Bakarka jotzen den **jazz-saio** inprobisatu baten gisan. Karlos Zabala

Bilboko Kalderapekon antolaturiko Literatur **Jazz saioetan** parte hartu zuen bi urtez. Berria - Kultura

### 17 *jazz-zale*

Gau berean, **jazz zaleak** *Hadouk Trio* talde frantziar heterodoxoa ezagutzeko aukera izango du. Berria - Kultura

**Jazz-zaleek** badute, horrenbestez, non aukeratu eta zer entzun. Berria - Kultura

Horrekin batera gazte denboran gogamenean izaten nuen erritmo sinkopatua, **jazz-zale** amorratua bainintzen. Pello Lizarralde

Oso **jazz zalea** da Francis. Berria - Kultura

### 18 *jazz-zulo*

**Jazz zulo** batera sartu eta jendea pianoaren inguruan eserita ikusi dugu. Harkaitz Cano

**Jazz-zulo** guztiak ibiltzeko prest nengoen, baita disko berriak erosteko ere. Javi Cillero

Gau hartan bertan, **jazz-zulo** batera joan nintzen, aspaldiko lagunak ikusteko asmoz: Jack, Neal, Allen eta Dianne. Javi Cillero

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**blues jazz** (3); **euskal jazz** (4); **free jazz** (4); **gasteizko jazz jaialdian** (3); **getxoko jazz jaialdian** (3); **getxoko jazz jaialdiko** (4); **jazz abestuko** (4); **jazz banda** (3); **jazz blues** (4); **jazz club** (4); **jazz disko** (3); **jazz doinu** (3); **jazz doinuak** (8); **jazz emanaldiak** (4); **jazz era** (5); **jazz eta blues** (9); **jazz festibala** (4); **jazz garaikidea** (5); **jazz hutsa** (3); **jazz jaialdi** (4); **jazz jaialdia** (7); **jazz jaialdiak** (5); **jazz jaialdian** (11); **jazz jaialdiaren** (4); **jazz jaialdietan** (5); **jazz jaialdiko** (7); **jazz klub** (4); **jazz klubak** (3); **jazz kontzertu** (3); **jazz kontzertua** (3); **jazz latinoa** (7); **jazz latinoaren** (8); **jazz latinoko** (3); **jazz laukote** (3); **jazz mundu** (3); **jazz munduan** (3); **jazz musika** (13); **jazz musikaren** (10); **jazz musikari** (17); **jazz musikaria** (5); **jazz musikariak** (3); **jazz pieza** (3); **jazz sonoritateak** (3); **jazz talde** (3); **jazz taldeak** (5); **jazz trio** (6); **jazz zale** (5); **jazz zale amorratua** (3); **jazz zulo** (4); **latin jazz** (5)

**literatur jazza** (3)

**europako jazzaren** (3); **jazzaren historiako** (3); **jazzaren munduan** (5)

---

## **jazzaldi** *iz* jazz jaialdia.

Hilabete horretantxe izaten ditugu **jazzaldiak** Getxon, Gasteizen, Baionan nahiz Donostian. Berria - Kultura

Igande arte, Baionan, udako **Jazzaldia,** karriketan eta Chaho-Pelletier plazan. Herria

Donostiako **Jazzaldiaren** saria. Berria - Kultura

*Donostiako* ***Jazzaldia*** saria Fernando Truebari emango diote igandean. Berria - Kultura

Donostiako **Jazzaldian** joko duten euskal taldeen lehen aukeraketa egin du antolakuntza batzordeak. Berria - Kultura

Heineken **Jazzaldia** izango da, datorren uztailaren 21etik 26ra egingo dute eta orduan joko duten taldeak 45 taldeko zerrenda batetik aukeratuko dituzte. Berria - Kultura

Udaberria iritsi bezain pronto, urtero legez, Gasteizko **Jazzaldiak** programa aurreratu du. Berria - Kultura

Iñaki Añua Gasteizko **Jazzaldiko** zuzendaria. Berria - Kultura

Pio Lindegaard omenduko du Getxoko **Jazzaldiak**. Berria - Kultura

Trinitate plazan, **Jazzaldiaren** gune nagusian. Berria - Kultura

Horregatik hasi bide zitzaizun gustatzen jazz musika, **jazzaldiarekin** Donostian agertzen zen jendea zure gurasoei eta euren lagunei gustatzen ez zitzaielako. Lourdes Oñederra

Askoz gehiago gustatzen zitzaizun **jazzaldiaren** inguruko giroa estropadetakoa baino. Lourdes Oñederra

**Jazzaldiko** Batzorde Antolatzaileak. Berria - Kultura

Acido C taldea ariko da gaur Donostian, **jazzaldiko** tokiko taldeen hautaketan. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**donostiako jazzaldia** (7); **donostiako jazzaldia saria** (5); **gasteizko jazzaldia** (5)

**donostiako jazzaldiak** (5); **gasteizko jazzaldiak** (4); **getxoko jazzaldiak** (6)

**donostiako jazzaldian** (8)

**aurtengo jazzaldiaren** (3); **donostiako jazzaldiaren** (5); **jazzaldiaren saria** (3)

**donostiako jazzaldiko** (6); **gasteizko jazzaldiko** (4); **jazzaldiko tokiko** (3); **jazzaldiko zuzendariak** (5)

---

## **jazzistiko** *izond* jazzari dagokiona.

Horrela azaldu zizkigun hasieran, tartean eta bukaeran saxofoi **jazzistikoarekin** eta emakumearen abesti tribalarekin. Berria - Kultura

Bigarren zati **jazzistikoan** erakustaldia eskaini zuen, cadenza erritmikotik sinkopatua den perpetuum mobil-era pasatuz beheko errejistroetatik goienetaraino, akatsik gabe. Berria - Kultura

Bere estilo propioa sortu du, flamenko **jazzistikoa**. Berria - Kultura

---

## **jazzlari** *iz* jazz musikariak. ik **jazzman.**

Europako **jazzlariak** ekartzen ahalegintzen gara. Berria - Kultura

Datozen urteetan ere euskal **jazzlariei** tarte bat eskainiko diegu. Berria - Kultura

Lacy New Yorken jaio zen, eta oso gazte zela saxofoi sopranoa jotzen hasi zen, **artean** jazzlari gutxik jotzen zutenean tresna hori. Berria - Kultura

**Jazzlari** handien potretak pindatu ditu ere. Herria

**Jazzlari** mozkor baten pieza inprobisatuak Aritz Gorrotxategi

---

## **jazzman** *iz* jazzlaria.

Geltokia konpontzeko lanetan ziharduten arren, harrera gelan lau olerki-esatari zeuden, lau zokondoetan bana, eta erdian **jazzmanak**. Edorta Jimenez

Gershwin-en *Rapsody in Blue*-n Camilo dominikarrak jotzaile klasikoa eta **jazzmana** batera izateko gaitasuna zuela frogatu zuen. Berria - Kultura

Roland Curc amerikar **jazzmanari**. Herria

Roland Kirk **jazzman** zenaren omenez. Herria

---

**je** **1** *interj (errepikatua)* ja, kar.

**-Je, je,** ikusten? bikiek bezala hitz egiten dezu dagoeneko! Joxean Sagaztizabal

Izkiratxo izoztuak bezalaxe geldituko ginateke, **je, je**. Karlos Linazasoro

-Ni, deabruaren laguntzaile? **je, je**! baliteke, baliteke! Joxean Sagaztizabal

**-Je-je** eta **je**! -irribarre burlatsua luzatu zion aurpegiaz. Joxemari Iturralde

**-Je-je-je**! -irri egin zuen aitak-. Joan Mari Irigoien

Uste dut komikietako pertsonaia bihurtu naizela, **je, je, je..**. Joseba Sarrionandia

Txitxikov jeneralaren barrea imitatzen saiatu zen hasieran, baina, haren alderako begiruneak eraginik, e letra hautatu zuen azkenean: **je, je, je, je, je**! Jose Morales

**2**

**-Je**! Heroinaz lepo eginda dagoela, egundoko biajearekin. Patxi Iturritegi

---

jean ik **jean**s.

---

**jeans** *(orobat **jean** g.er.)* **1** *iz pl* kotoi sendozko ehun urdin kolorearekin eginiko galtzak.

**Jeansak** eta cowboy estiloko alkandora dauzka beti soinean, eta bodyak. Xabier Olarra

**Jeansak** eramaten zituen, eta jertse handiak. Juan Kruz Igerabide

Tom gaur unai zamarra batekin jantzirik agertu da, eta **jeans** batzuekin. Patxi Zubizarreta

Uda partean, freskotasun sentsazioa izateko, **jeans**-ak garbitu, eta bustirik jantzen ditut. Patxi Zubizarreta

Bere **jeansen** atzealdean sakelaratu zuen Léak txartela. Jon Muñoz

Miarritze du hautatu bere lanen berri emaiteko : **"jeans"** jantziez beztiturikako zizelkadurak.

**Jeans** estiloko jakaren azpian gordeta. Edorta Jimenez

*ik* jakablu.

**2** (izenondoekin)

Alkandora, **jeans** estuak eta cowboy kapela. Xabier Olarra

Begi handiak zituzten, urdin argiak, **jeans** koloregabetuen tankerakoak. Jon Muñoz

Nancy-k **jean** urdin batzuk eta kotoizko elastiko zuri bat zeramatzan. Oskar Arana

Ikusgarria zegoen **jean** estu-estu batzuekin eta blusa laranja batekin. Oskar Arana

Horregatik hautatu ditu **jeans** ilunak eta marfilaren koloreko kotoizko jertse zuri bat, lepoa itzulita duten horietakoa. Hasier Etxeberria

Irakiarrek, arabiarrek oro har, AEBen bandera erretzen dute, baina Arnold Schwarzenegger edo Julia Robertsen filmak ikusteko irrikan daude, **jeans** dotoreak jantzita. Berria - Harian

Ongitxo oroitarazten didate hori oraintsu gelako aulki baten bizkarrean eseki ditudan **jeans** garbitu berriek. Patxi Zubizarreta

**3** (**pare** hitzarekin)

Bere atorra koleretsuaz zein markako **jeans** pareaz Peterrek ez zuela egoeraren larritasuna errespetatzen eman zezakeen. Itxaro Borda

Tiserta xuria eta **'jean's'** pare zahar bat zituen soinean. Ramuntxo Etxeberri

Filipindarra markazko arropekin jantzia zen: 'Diesel' **jean's** pare bat, 'Armani' ator xuria, 'Nike' zapata gorriak. Ramuntxo Etxeberri

**4** ***blue-jeans***

Tabako gorri amerikarra, auskalo nondik ekarritako **blue-jeanak**. Trieste, flasko hutsak, kale bakartiak gaueko ordu txikietan, Trieste, blue-**jeansak** eta biraoak, Trieste, Trieste baztertua. Aingeru Epaltza

Aitzineko eguneko **blue-jeanak** egokitu nizkion neure zango-ipurdietako larruari. Aingeru Epaltza

---

**jeansdun** *izond* jeansak daramatzana.

Bagenekien denok apaiza elizako sakristian gazte taldeekin biltzen zela, mutil bizardun eta neska **jeansdun** eta kangurudunekin, eta haiei guztiei doktrina erakusten ziela, eta ez preseski Ebanjelioaren bidea. Juan Kruz Igerabide

---

**jebustar** *izlag/iz* antzinako Israeleko leinu bati dagokiona; leinu horretako kidea.

Israeldar ez ziren amortar, hitita, periztar, hibiar eta **jebustar** jende haietatik bizirik gelditu zirenak. Elizen arteko biblia

Negebeko eskualdean amalektarrak bizi dira; mendebaldean hitiar, **jebustar** eta amortarrak; itsasaldean eta Jordan inguruan, berriz, kanaandarrak. Elizen arteko biblia

**Jebustar** bat hil dezan lehenengoa buruzagi eta gudalburu eginen dut. Elizen arteko biblia

---

**jeep** *(orobat **Jeep** g.er. eta **jipa** g.er.)* **1** *iz* ibilgailu sendoa, txikia eta arina, edozein lekutatik ibiltzeko gai dena.

Ez nion jaramonik egin ate aurrean aparkatuta zegoen **jeep** militarrari. Jon Muñoz

Beste **jeep** bat eta dozena erdi bat soldadu uniformedun baitzeuden atarian zelatan. Jon Muñoz

Israelgo Armadako **jeepak**. Berria - Mundua

Hiru amerikano hil dituzte palestinar terroristek lehen aldikotz auto-bonba bat jauzaraziz hiru **jipa** pasatzen ari ziren orduan. Herria

Guardia zibilen **jeep** eta kamioi berdeak patruilan ibili ziren egun osoan. Joseba Sarrionandia

Motorra piztuta zeukan **jeep** batek argia ematen zien uretan sartuta zeuden hiru gizoni. Bernardo Atxaga

Biak **jeep** batera igoarazi zituzten, bultzaka, eta aldapa aldera abiatu ziren abaila batean. Juan Kruz Igerabide

Orduan ikusten ditut bi **Jeep** eta zortzi bat guardia zibil gure aurrez aurre. Anjel Lertxundi

Segurtasunekoen **jeep** batera igo nintzen; okerrena espero nuen. Juan Kruz Igerabide

**Jeepak** abiadura moteldu baitzuen hara hurbiltzean. Jon Muñoz

Halako batean **jeepa** gelditu eta jaisteko agindu digute. Joseba Sarrionandia

Bertara, Florestik, zaldiz bakarrik joan omen zitekeen, baina Palenquetik [...] **jeepez** ere bai, inolako arazorik gabe. Joxe Austin Arrieta

Baigorrirat mediku gazte etorria 1937 an, egon zen 1953 inguru artio, balea guzia kurritzen zuela mendian zaldiz gerla aintzinean eta gero **jeepan**. Herria

Istripua izandako beste lau lagunak, berriz, **Jeep** Grand Cherokee batean Durangora (Bizkaia) zihoazen. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Bota hotsak eta **jeep** motorrak entzun zituen. Joseba Sarrionandia

---

**jefa** *iz* nagusia (emakumezkoa).

Zaindu txiringitoa, **jefa,** esan nion Maialeni, limurtzaileen moduan, baina ez zion ilusiorik egin eta *ni ez naiz* ***jefa*** erantzun zidan, ohi baino azkarrago. Lander Garro

---

**jefatura** *iz* buruzagitza; bulego nagusia.

Zentroan, kartzelako **jefatura,** kartzelero eta abarrez gain, guardia zibil taldea dago. Jokin Urain

**Jefaturan** adierazpen horiek egiten dituenean. Jokin Urain

---

**jefe** **1** *iz* nagusia. ik **xefa**.

Hau desenkusatu zen: barkatu, **Jefe**. Jon Alonso

Mekanikoen **jefea**. Unai Elorriaga

Ofizinan bertan kristoren mutur-janak denek elkarri, harik eta **jefea** etorri arte. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jefearen** bulegotxoan, hau eta Marta. Xabier Mendiguren Elizegi

Terroristek Borges deitzen duten **jefe** bat daukate. Jon Alonso

**2** burua, buruzagia.

Bergara ondoko herrixka batean, Osintxun, bere aita bertako tren geltokiko **jefea** zen. Mikel Hernandez Abaitua

Andonik, indioen pelikuletako **jefe** indioaren uzkurtasuna imitatuz esango dizu: [...]. Joseba Sarrionandia

---

jei ik **jai**.

---

jeialdi ik **jaialdi**.

---

jeiki ik **jaiki**.

---

**jeinu** *(262 agerraldi, 55 liburu eta 65 artikulu; ik* ***jenio****)* **1** *iz* zerbaitetarako gaitasun gailena.

Burke jaunaren **jeinu** ahalguztidunak. Juan Garzia

Ez du bere **jeinu** handiaren zorroztasuna erakutsi besterik egin. Piarres Xarriton

**Jeinu** handiko musikari gazte asko. Herria

Gaitzeko gostua bazuen margolanentzat, eta gostuarekin batean **jeinu** handia ere ba. Herria

Paul Claudel olerkaria, **jeinu** nasaieko idazlea. Herria

Duela hogei urte iratzarriak ditu marrazkirako dituen **jeinu** eta ahaltasunak. Herria

Oroz gainetik badu nornahi eta noiznahi bere amodiora biltzeko **jeinu** arras baliagarria. Jon Muñoz

Nehor ez da **jeinu** bikoitz horren hura bezain jabe: liluratzen du bataz, eta ikara sortzen bertzeaz. Jon Muñoz

Ikusi ditugu errepika egun batez, jakizazue badutela **jeinu** eta zinez gogotik ari direla beren prestakuntza lanari. ehun eta berrogoita-zonbait margo, Jean-Marc Lanusseartixta herrikoiak moldatuak bere **jeinu** finarekin. Herria

Christian Belascain, 50 urte, **jeinu** haundiko errugbilaria izana, supituki hil dena. Herria

**2** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian adiera hau* ***jenio*** *sarreran agertzen da)* jenioa, gainerako gizakien gainetik goratzen duen gaitasun gailena duen pertsona. ik **jenio**.

Munduko poetarik onena deritzote, gaina hartzen die munduan diren beste **jeinu** guztiei. Jose Morales

Ni **jeinu** bat nintzela uste zuten. Fernando Rey

**Jeinu** hutsa da. Iñaki Mendiguren

Ez da **jeinu** bat izan beharrik asmatzeko. Iñaki Mendiguren

Pedro Huizi ez zela **jeinu** bat, baina, halarik ere, bere ofizioa zekien gizona zen. Joan Mari Irigoien

Pedro Handiak, **jeinuaren** zolitasunaz, mendebaldartze-politikak "dena ala ezer ez" izan behar zuela igarri zuen. Iñaki Mendiguren

**3** giza komunitate baten izpiritua.

Herri bakoitzak bere **jeinua** du, dio Ganivet-ek. Herri gogo edo *Volksgeist*a, edo herriaren **jeinua,** arima, etab. Joxe Azurmendi

**Jeinu** espainola -mestizoa- munduko hiru **jeinuen** sintesi eta harmonia da: orientala (arabiar eta juduek egin dutenagatik), mendebaldarra (bisigodoei eskerrak), eta erromatar-kristaua. Joxe Azurmendi

Arraza garbi honen **jeinu** literarioak ("génie gallois") behiala Europa osoan distiratu zuen. Joxe Azurmendi

Izpiritu eta **jeinu** nazionalaren araberako filosofia liberal batek. Joxe Azurmendi

Mendebaldeko bertako **jeinu** intelektuala Bacon-en ildoetatik naturaren mundua ikertzeari ekinez finkatu zenean. Iñaki Mendiguren

Arkitekturaren eremuan helenismoaren berpizkundeak Mendebaldeko **jeinuan** eragin zuen antzutasuna. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko **jeinu** artistikoaren antzutzea aurrekoa bezain nabarmena izan zen pintura eta eskulturaren eremuetan ere. Iñaki Mendiguren

**Jeinu** sortzailea salbatzaile gisa. Iñaki Mendiguren

**4** *(Euskaltzaindiaren Hiztegian adiera hau* ***jenio*** *sarreran agertzen da)* jenioa, aiurria, izaera. ik **jenio 5**.

Mutila buruargia eta **jeinu** bizikoa zela. Koro Navarro

Inork erabaki nahi ez, eta harrobiak berak erabaki zuen, bere **jeinu** gaiztoarekin. Juan Garzia

**5** jainko modukoa edo alegiazko izakia, ahalmen bereziak dituena. ik**jenio 6**.

Bat-batean **jeinu** bat agertu zen eta kutxa batetik andere xarmant bat atera zuen. Patxi Zubizarreta

Argiontziko **jeinuari** deitu zion, eta azkar demonio bainuetara eramateko eta soinekorik ederrenak prestatzeko agindu zion. Patxi Zubizarreta

**Jeinu** maltzur horrek ene eztei gauean bahitu ninduenetik [...]. Patxi Zubizarreta

Agureak ere txistu egin zuen eta, ez bat eta ez bi, lau hegoekiko **jeinu** bat agertu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Ez dit inork ostuko altxorra, ezta lurpeko **jeinu** madarikatu batek ere! Iban Zaldua

Une hartan otoitz egiteko eskuak bildu zituelarik, eraztuna nahi gabe igurtzi, eta animaleko **jeinu** begigaizto bat agertu zitzaion: [...]. **Jeinua** arkakuso bihurtu zen eta, izara artean sarturik, iztarrean heldu zion neskari. Patxi Zubizarreta

Behin batean, Mariren kobazulora hurbildu zen Martintxo, eta jainkosa, **jeinu** edo dena delako hura han aurkitu zuen. Martin Anso

**Jeinu** zintzo bat edo Juan Bataiatzailea bera gutaz arduratu izan balitz bezala. Bernardo Atxaga

Dorrepeko putzu batean Maimuna izeneko andrazko **jeinu** bat esnatu zen. Patxi Zubizarreta

**6** *hed*

Finantza munduan ere oso gertu izan da amildegia, nekez ahaztuko dute hori askok, baina ez oso luzera; lur jotako eta sinesgarritasunik gabeko **jeinu** edo iratxo finantzarioa berpiztuko da, bai noski. Iñaki Heras

**7** (hitz elkartuetan)

**Jeinu** -lan erabatekoa. Dela garaiaren zertzelada bereziengatik, dela asturu hutsagatik, egundoko **jeinu** -tropela batu zen mende hasierako Viena hartan, bai idazletzan, bai musikan, bai pinturan. Berria - Kultura

Excelsior estudioetako **jeinu** -bilatzaile batek ekarri ninduen eta proba bat egin zidaten..., baina ez dut besterik jakin. Fernando Rey

· Frantses aldean, berriz, esperientzia guztia eta Napoleonen militar- **jeinu** noski bikaina. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **animaleko jeinu** (3); **jeinu bat agertu** (5); **jeinu espainolaren** (6); **jeinu handiko** (6)
> **arrazaren jeinua** (3)
> **argiontziko jeinuari** (3)

---

## jeinutasun *iz* jenialtasuna.

Serioa zen eta ez zuen bere buruaren gupidarik, **jeinutasunik** gabe eta poz-atseginik gabe ikasten zuen (poza zer zen ez zekiela zirudien). Juan Garzia

**Jeinutasun** zantzu batzuk topatu bazizkion ere, ez zen inolaz ere maisu-lan bat. Iban Zaldua

Egia da Musikaren Historiako maisu handien **jeinutasun** ukitua falta dutela herri doinuek. Berria - Harian

---

## jeinutsu *izond* jeinuz betea.

Shakespeare edo Goethe-ren garako idazle espainol kreatzaile **jeinutsu** bakarra. Joxe Azurmendi

Margolari **jeinutsu** batek. Joan Mari Lekuona

Napoleon izigarriko jeneral **jeinutsua** zen leku zabaletan, zelaietan, etsaiaren garaitzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Emazte bat biziki **jeinutsua,** axeria bezain abila... Zure esku jeinutsuek. Herria

---

## jeitsi ik **jaitsi**.

---

## jeitzi ik **jetzi**.

---

## jejeje *interj* je. ik **jaja**.

**Jejeje** ! Unai Iturriaga

---

## jeke ik **xeke**[1].

---

## jel[1] ik **gel**.

---

## jel[2] ik **jele**.

---

## jela **1** *iz* izotza.

**Jelaz** edo elurrez betetako zulo batean murgiltzen zen maiz. Askoren artean

**Jelan** irrista egin eta, besoa apurtu zuen. Pablo Sastre

Prest dituzte gatz tona pila bat, ahal dela **jelaren** eta elurraren ondorioak saihesteko. Berria - Harian

1979tik, oro har, **jelazko** zabalgune hori txikitu eta txikitu ari da. Berria - Gaiak

**Jelazko** hesia latza zen eta ertz-zorrotza, eta eskuak odoldu zitzaizkien. Karlos Zabala

Eta beti esaten du, gero, ***jela*** eta *epela* bertsotarako bakarrik direla lagun. Pako Aristi

Whisky botila bat hautatu, eta **jelarik** gabeko baso zabal batean kantitate oparo bat isuri du. Iban Zaldua

Benedictine kopatxo bat, **jelarekin,** jaten amaitzen dudanerako. Iban Zaldua

Segur aski **jela** botako du, eta kaleak izoztuta egongo dira. Berria - Harian

**2** (erkaketetan)

**Jela** baino hotzago utzi ninduten, ordea, argitzapen horiek. Txillardegi

Alcide Jolivetek jo zuen erronka lehenbizi, eta, **jela** bezain hotza izanik ere, Harry Blountek onartu egin zuen. Karlos Zabala

Eskuak leunak zeuzkan oso, zeta bezain finak, baina **jela** bezain hotzak. Migel Angel Mintegi

Ez zaie ardura bihotza **jela** baino hotzagoa edukitzea. Joan Mari Lekuona

**3** *irud*

-Ba, kontu zaharrak dituk -hautsi du Ferminek **jela-**. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan)

**Jela** zatiak edalontzian mugitzen zituen bitartean hizketan jarraitu zuen. Joxean Agirre

Etzanda jarri ziren biak **jela** zati haren gainean. Karlos Zabala

-Tira, ekarri egidak J.B. bat, bi **jela** pusketarekin. Joxemari Iturralde

**Jela** pusketa zuri handi horietakoak. Pello Zabala

Bostehun oin beherago, ibaiaren ibilgua zabaltzen zen berriro ere, eta izotz puskak **jela** banku haren beheko ertzetik bereizi eta aurrera segitzen zuten Irkutskeraino. Xanpainerako botila luze eta bikoterik gabeko kopa haiek, **jela**-ontzia, **jela**-kozkorretarako pintzak. Karlos Zabala

Izozkailua **jela** bloke egina zegoen eta labanaz erreskatatu behar izan zuen garagardo lata izotzezko presondegitik. Harkaitz Cano

· Egin dezagun jartzen dugula lur osoa, 35 metroko izotz-**jela** geruza batez estalia. Pello Zabala

**5** ***jela-jela** adlag*

Ebro ibaia **jela-jela,** horma eginik ikusten zuten neguko egun askotan. Pello Zabala

Tajo ibaia Toledon **jela-jela** hormatuta utzi zuen izotzaldi makur batek. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jela zatiak** (3).

---

# jelatu, jela(tu), jelatzen **1** da/du *ad* izoztu.

Bainugelan ez zegoen berogailurik, eta hango kanila **jelatu** egin zen; ez zegoen garbigailua erabiltzerik. Ibaietatik iristen zen ur hotza, ur gazi pisua baino arinagoa izanik, itsas gainean zabaldu, eta han **jelatzen** da, hotzari eta ipar poloetako jela hormatuei eutsiz. Juan Kruz Igerabide

Kanpoan ondo **jelatu** eta gero sartu zen barrura. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** *irud*

Oroitzen dudan bakoitzean, kontzientzia **jelatzen** dit bertso horrek. Juan Kruz Igerabide

Institutuaren aurreko zelaietan hotz handia zegoen arren, izerdi **jelatu** batek bortizki busti zuen gizona. Fernando Morillo

**3** (era burutua izenondo gisa)

Sodomako zingira gazien eta izotzezko Itsasoaren zabaldi **jelatuen** gainetik. Koro Navarro

Arrautzen tamainako harri **jelatuak**. ibaiaren ertzean isiltasuna da nagusi maindire zuriak estalitako lurralde **jelatuan**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ur **jelatuzko** izotz-kandelak. Askoren artean

Zer ote zebilkion zainetan tipo hari: odol **jelatua** agian? Migel Angel Mintegi

Artiko aldean dagoen Itsas **Jelatuan**. Pello Zabala

---

# jelatxo *iz* jela zati txikia.

Hodei partikulatxoak, pixkaka, elektrizitatez kutsatzen doaz: molekulatxoak abian gora eta behera hasi direneko, eta ur-ttanttak goraka jelatzen direneko, txoke eta tupust dabiltz, **jelatxo** eta izotz txintxarrok, hodeiaren masa hori elektrizitatez kutsatzen. Pello Zabala

---

# jele *iz* **1** fruitu zukuarekin eginiko gelatina modukoa.

Denverrek ogi mutur bat busti zuen **jelean**. Anton Garikano

Egin berria nuen **jele** pixka bat ere, baina hori ez nion esan. Koro Navarro

Behin ere ez zinan atera eltzekada bat **jele** baino gehiago. Anton Garikano

**2** (hitz elkartuetan)

Katilua adinako ahoan txanponak zeuden [...] baina berdin egoten ziren botoiak, orratzak edo sagar-**jelea**. · Beti ekartzen dizkit marmelada eta **jele** poteak. Anton Garikano

Leihoak txikitu eta **jele**-ontziak bazter batean pilatuta. Anton Garikano

Irribarre ere egiten zuten -eskua **jele**-txarroan harrapatutako umea bezala-. Anton Garikano

**3** ***erle-jele***

Erle-**jelea** hartu behar zenuke gosaltzeko. Anjel Lertxundi

**4** ***erregina-jele*** erle-jelea.

Bitamina pilula miragarriak aipatuko zizkion batek, aloe landarearen mirakulu sinesgaitzak goraipatuko beste batek, ginseng eta erregina-**jele** anpuluak oparituko hirugarren batek. Imanol Zurutuza

---

# jelkaldi *iz* pastoraletan, agerraldia, eszena.

Maulek aurten emango duen pastorala ez da hauetatik gutxienekoa izango, bere 22 **jelkaldi,** 262 bertset, 12 abesti eta 3 gudukekin. Lau **jelkaldi,** hots, hiru ordu laurden soilik geratzen ziren pastorala amaierara iristeko. Haatik, berak ditu moldatu Junes Casenavek idatzitako obraren 20 **jelkaldi** edo historia zatiak. Berria - Kultura

Bigarren **jelkaldiaren** ondotik "Esperantza" kantua, erresistentziaren lehenbiziko amentsak agertzen ditu. Herria

**Jelkaldietako** taula joko ikusgarriak, abesti ederrak eta dantza sorta liluragarriak tartekatu ziren hiru ordu eta erdiz, akats nabarmenik gabe. Berria - Kultura

---

jelki ik **jalgi**.

---

jelkibide ik **jalgibide**.

---

# jelkide **1** *iz* Eusko Alderdi Jeltzaleko kidea. ik **jeltzale**.

Haiek **jelkideak** ziren, eta gu ezkertiarrak, sozialistak. Pako Aristi

Herriko parrokoa **jelkideen** aldekoa omen zen, baina hala ere herrian geratu zen. Edorta Jimenez

1910eko hamarkadan aldatu ziren gauzak, Manuel Sarasola **jelkide** bihurtzearekin seguru asko. Xabier Mendiguren Elizegi

Han sartu zen Agirre, **jelkide** harroa, alderdiak negozio beltzetarako ipinitako jauntxoa. Paddy Rekalde

**2** (izenondo gisa)

Agirreren eta Monzonen ideologia **jelkidea** 60ko hamarkadatik aurrera ondorengo belaunaldiak zuen pentsamoldearekin lehian iritsi zen. Berria - Kultura

---

# jelkidetasun *iz* jelkide izateko nolakotasuna.

**Jelkidetasunak** giza gogo zuzena eskatzen du, barrendik bultzatzen dena eta etengabe eraberritzearen alde ibili dabilena. **Jelkidetasuna** izan zen Monzonen kezka eta gai nagusietako bat. Berria - Kultura

---

# jelos *izond ipar* bekaztia. ik **jeloskor**.

Aitortu behar dut **jelos** naizela, eta miresle. Piarres Aintziart

Ez naiz haietaz bekaizti ez eta **jelos**. Daniel Landart

Aldiz zure idazteko maneraz **jelos** naiz, banuke ikasteko! Herria

Alemanian gaitzeko osagarrian zituztelakotz dirua eta ekonomia, hetaz **jelos** ziren frango Europan eta Europatik kanpo. Herria

Iruñea guztiak zekien apezpikuaren atari-zakur horiek haren **jelos** zirela, ezin barkaturik-eta haren ele ederra eta harengana hurbiltzen ziren emakumeen suspirioak. Aingeru Epaltza

Eskolako balentriak ere hor ziren, honen trufan, haren **jelos**. Piarres Aintziart

---

# jelosaldi *iz* jeloskokortasuna sentitzen den aldia.

Txoro klase horretakoak lasaiak izaten dituk arruntean, baina **jelosaldi** batek jotzen dituenean, nornahi garbitzeko gauza dituk. Aingeru Epaltza

---

# jelosgo *iz ipar* jelosia.

Haste hartan erosi nuen oraino enekin dut, ez baitu nehoren **jelosgorik** pizten. Marzel Etxehandi

Jokogarbian ere, adinekoetan, **jelosgorik** ez izaiteko, [...]. Herria

---

# jelosia *iz* **1** jeloskortasuna.

Irrika orok du alde iluna, **jelosia** da amodioaren egia. Markos Zapiain

Ez nuen gorputz desiorik txikiena ere sentitzen, ez **jelosiarik** txikiena ere, ez behintzat gutako bakoitzak dudarik gabe sentitu izan duen **jelosia** narras hartatik, norbaitek bere maitea kentzen diola ikusi duenean eta, are gehiago, ikusi duenean nola bere maiteak pozik asko onartzen duen kentzea. Matías Múgica

Jeloskor zaude ordea, eta **jelosia** ez da arrazoizalea. Jon Muñoz

Desamodiotik amodiora, maitasunetik **jelosiara,** jelosiatik maiteminera. Berria - Kultura

Bere bekaizkeria malezia eta **jelosia** gabea zen. Patxi Zubizarreta

Azkenean emakumeek, **jelosiak** eta mesprezuak erasanda, mutil gazteen zerbitzu berberak eskaini zizkieten euren senarrei. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sibelek maitale bat baino gehiago izango du, eta horietako bat hilko du, **jelosiak** bultzatuta, Cahitek. Berria - Kultura

Harrapatutako bikotea, bazterrera utzitako amorantea leiho-joka, **jelosiak** jotako senarra. Oskar Arana

**Jelosiak** bihotzean ausiki. Josu Zabaleta

**Jelosiaren** zastada sentitu nuen. Juan Martin Elexpuru

Bertaren txolinkeriak senarraren **jelosiaren** garra hauspotu zuelako. Martin Anso

**Jelosiaren** harrak ez baitzidan lo egiten uzten. Joan Mari Irigoien

**2** bekaiztia.

**Jelosia** sorgor horrek Florenten aurkari sistematiko bihurtu zuen. Karlos Zabala

Zalantzak Sarari bere berezko **jelosia** handiagotu zion. Joan Mari Irigoien

Izan ere, gobernu errepublikar zoriontsu batek gorrotoa eta **jelosia** piztu behar ditu bere inguruan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrelako harremanek **jelosia** pizten dute giza talde guztietan. Xabier Olarra

Berriro ekin nion, halako **jelosia** batek, emakume hura aurkitu zuen gizon haren kontrako halako aiherkunde lauso batek harturik: [...]. Josu Zabaleta

Bekaizkeria edota **jelosia** ardatz duten ipuinak. Berria - Kultura

Irainarenak ez hau zipitzik ere arduratzen, **jelosiak** erre dik bihotza. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan)

Jeloskorra zela eta **jelosia**-sortzaile ere izan zela, gazte guztiak bezalakoa izan dela ama. Felipe Juaristi

Barren-barrenetik zetorkidan **jelosia**-bolada batek bete ninduen. Ander Irizar

Gau hartan, **jelosia** kontuak zirela-eta errietan, gizonak emakumea jo zuen eta errebolber bat ipini zion lokian. Koro Navarro

· Haien izaera kontrajarriak eta nolabaiteko lanbide **jelosia**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> jelosiak eraginda (3); jelosiaren harrak (5)

---

# jeloskeria 1 *iz* jeloskorkeria.

**Jeloskeriaren** laban zorrotza nitan higitu zen. Itxaro Borda

Neure begiokin ikusten nuenak min bortitza egiten zidan, egia, baina ez **jeloskeriarik** txikiena ematen! Matías Múgica

Bekaizkeriari loturik doan maitaturiko gauzaren Gorroto hori **Jeloskeria** deitzen da. Piarres Xarriton

Ez nintzen jabetzen haren begiradaren **jeloskeriaz**. Xabier Olarra

Oroit nola Cain-ek bere anaia propioa, Abel, **jeloskeriaz** hil zuen. Michel Oronoz

**2** (hitz elkartuetan)

Gerta zitekeen berdinki, anai-arreba txikiagoak nola balakatuak ziren ikusten zuela, **jeloskeria** ziztek izpiritua urratzen ziotela. Itxaro Borda

**Jeloskeria** sentimendua nigan iratzar arazten entseiatzen zela iritzi nion. Itxaro Borda

---

**jeloski** *adlag* jeloskorki.

Amatxik, labean bero-beroan **jeloski** atxikitzen duen altxorra erakusten dio Ninari. Ramuntxo Etxeberri

---

**jeloskor** **1** *izond* maite duen pertsonarekiko jeloskortasuna sentitzen duena; bekaiztia.

Bankari **jeloskor** baten emazte eta bost neska-mutilen ama abenturagose batekin topo egiteak beti ere sortarazten duen azkurak kitzikatuta. Anjel Lertxundi

Emakume **jeloskor** hark ez zidan bada, arratsetik beretik, gutun bat etxera igorri? Jon Muñoz

Graxik, begirada **jeloskorrak** botatzen zituen Nakorengana. Itxaro Borda

Aitaren begirada sutu, basati eta **jeloskorrean**. Juan Kruz Igerabide

Garaitiarik ederrena eragozteko ez da behar izaten beltzuri une bat edo susmo **jeloskor** bat baizik. Jon Muñoz

Ahots **jeloskor** bat uluka hasi zitzaidan barrenean. Ander Irizar

Maitasun **jeloskor** eta erresumindu bat zion. Josu Zabaleta

**Jeloskorraren** belarriak den-dena entzuten du. **Jeloskorrek** beti dute arrazoia, bista luzeagoa baitute senar edo emazte edo nobio lasaiek baino. Elizen arteko biblia

**Jeloskor** inozo bat. Mikel Hernandez Abaitua

**2** (izan aditzarekin)

Haurtzarotik, handien **jeloskor** izan zen Cecco. Juan Garzia

Ez naiz Margoten **jeloskor,** ez naiz inoiz izan. Josu Zabaleta

Ene diruaren eta giza mailaren **jeloskor** dira. Patxi Zubizarreta

Peterren suerteaz **jeloskor** zen Beinat. Itxaro Borda

Erotu nintzela, **jeloskor** absurdo bat nintzela. Mikel Hernandez Abaitua

**Jeloskorrak** diren gizonekin eta edaten dutenekin ere arlo horiek lantzen ditugu. Berria - Euskal Herria

Ni, Jauna, zure Jainkoa, Jainko **jeloskorra** bainaiz. Elizen arteko biblia

Ez du gusturik ematen beste tipo bat zure emaztea matxukatzen ari dela jakiteak, gauza horietan venezuelarrak oso **jeloskorrak** gara. Pako Aristi

**Jeloskorra** banintz, balio handiagoko norbaitekiko nengoke jeloskor, eta ez mari txepel, tuntun, nagi, ezdeus, berekoi, histeriko, arrunt, nabasi eta sexu-grinak jotako horiekiko... Mirentxu Larrañaga

• **3** *adlag*

**Jeloskor** zaude ordea, eta jelosia ez da arrazoizalea. Jon Muñoz

Bistan dago **jeloskor** dagoela, Van Daan andrearekin berekin baino gehiago hitz egiten dudalako. Josu Zabaleta

Baina ez zegoen Cadineren **jeloskor,** aspaldiko lagun zahar baten gisa tratatzen zuen. Karlos Zabala

Nik uste **jeloskor** zegoela hitaz. Antton Olano

Izan ere, Jainkoak bere herriarengatik sentitzen duen jelosiaz nago ni zuengatik **jeloskor**. Elizen arteko biblia

Inoiz ez da kexatu, nik dakidala behintzat, eta ezta **jeloskor** azaldu ere. Josu Zabaleta

**Jeloskor** jartzen hasia baitzen. Joxan Elosegi

**Jeloskor** jarri nahi ote nau? Itziar Otegi

Bazen gainera nire baitan beste zerbait, **jeloskor** sentiarazten ninduena etengabe. Joxe Austin Arrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jeloskor egoteko** (3); **jeloskor jarri** (5); **jeloskor jarriko** (4); **jeloskor jartzeko** (4); **jeloskor jartzen** (3); **jeloskor sentitu** (4); **jeloskor sentitzen** (3); **jeloskor zegoela** (3); **jeloskor zegoelako** (4); **jeloskor zegoen** (9); **jeloskor zeuden** (3)

**jainko jeloskorra** (8); **senar jeloskorra** (3)

---

**jeloskorkeria** *iz* jeloskortasun gaitzesgarria.

Gaur eta bihar Bilboko Arriaga antzokian amodio, desamodio, **jeloskorkeria** eta tratu txarrei buruzko *El sur* dantza emanaldia ikusi ahal izango da.

Urteroko **jeloskorkeria** atakeak jota zegoen. Jon Alonso

**Jeloskorkeriaz** eginak. Berria - Euskal Herria

---

**jeloskorki** *adlag* era jeloskorrean.

Burutazio neketsutik landa, bi gauza baiestekoak nituen: primo, Herri Urrats ez zela toki egokia segiketa sistematiko baten obratzeko; secundo, Senpereko lakuaren inguruan bildu eta metatuek begia **jeloskorkiago** ebasten zidatela, azkenean beren erantzukizun propioa zen beste bi ohaideek baino anitzez haboro. Itxaro Borda

---

**jeloskortasun** **1** *iz* norbaitek, maite duen pertsonaren amodio edo txera osoa ez duenean, edo ez duela uste duenean, pairazen duen sentipen mingarria. ik **jelosia; maiterre.**

Neskaren logelara jo zuen, **jeloskortasunak** haraino eramanik. Felipe Juaristi

Prosper Mériméeren *Carmen* ipuineko karabineroen kaporala -maitasunez gaueko lanetan eta bide lapurretan aritu zena, eta **jeloskortasunez** amorantearen hiltzailea izan zena- Don Jose elizondotarra. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jeloskortasun** erretrospektiboak ematen duen argitasunarekin ikusi nuen idazlea, ni neu inoiz ibili nintzen bezalaxe, Monikaren etxe atariko espaloiak iragaitzez bezala baina goiko leihoetako argiei erreparatuz behin eta berriro euripean zeharkatzen. Joxean Agirre

Baina bi urte pasatu eta gero, **jeloskortasunak** beste batena dirudi eta malenkonia dut bihotz-galga bakar. Anjel Lertxundi

"Bera da gauetan Sophieren etxera etorri ohi zena" errepikatu omen zuen, **jeloskortasun** ezkuturen batek eraginda beharbada. Joxean Agirre

**2** bekaitza.

Izan zaitezte, beraz, prelatuen mendeko, zuen esku dagoen neurrian behintzat **jeloskortasunik** sor ez dadin. Askoren artean

Itsu batek ere ikusiko zuen Lajosenganako **jeloskortasuna** piztu zitzaiola Laciri, **jeloskortasun** irrigarria piztu ere. Ander Irizar

Julioren jarreran, **jeloskortasuna** eta etsaigoa nahasten ziren; **jeloskortasuna,** maistrak haurren eta gurasoen artean zuen arrakasta ikusita; etsaigoa, [...]. Juan Kruz Igerabide

**Jeloskortasunak** eta suminak bizitza laburtzen dute, eta kezkek garaia baino lehen ekartzen zahartzaroa. Elizen arteko biblia

Zuen **jeloskortasunak** eta bekaizkeriak seme endekatu zaretela frogatzen du, eta zuen ohore-gutiziak sasikume zaretela. Askoren artean

Beste kontu garbitze bat Díaz-ekin egiten duena da, Zestoako medikuarekin, haserre bukatu baitzuten lanbide-**jeloskortasun** kontuengatik. Josu Zabaleta

---

**jeloskortu,** jeloskor(tu), jeloskortzen da/du *ad* jeloskor bihurtu. ik **jelostu**.

Eta musu eman dio, behin bakarrik, kopetan, inor ez dadin **jeloskortu**. Itziar Otegi

Donatien bere faboreak beste emakume batzuei eskaintzen hasi zenean, guztiz **jeloskortu** eta zapuztu zen madame de Montreuil, hainbesteraino, non polizian zituen influentzia guztiak erabili baitzituen mendeku hartzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beharbada, edozein gizoni onartuko zion, egiazki, gonbidapena: ideia horrek ez ninduen sumindu, baina **jeloskortu** bai, zeharo sentimentaldu alegia. Joxe Austin Arrieta

Zu besarkaturik nahi dut zalduna **jeloskortzeko** bezain plazer handia hartu. Jon Muñoz

---

## **jelostu**, jelos(tu), jelosten **1** da/du *ad* bekaiztu; jeloskortu.

Koloman neska gazte baten konpainian ikusi nuenean, **jelostu** egin nintzen. Ez zen **jelostu** jeloskorra ez zelako. Eskarne Mujika

Krabelinak bere aurpegiaz **jelostuak** direlako ez darama neska horrek lore sorta, komentatuko nieke ikusleei. Koldo Izagirre

Ergel halakoa, benetan baleki nortaz **jelostu** behar lukeen! aireko bideak ez baitira hala zehaztuak, bi hegal ukaldiz uste gabeko itzuli ederra egiten ahal baitute zeruko hegaztinek, lurrari urratsez urrats lotua ibiltzen dena **jelosten** baita holako libertateaz. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta hara non adar-ezarle **jelostua** tiroka abiatua -Potzoloren eri zuzena pistola bateko kanoi bilakatu zen-. Aingeru Epaltza

---

## **jeltzale** *(orobat* ***jeltzaile*** *g.er. eta* ***jelzale*** *g.er.)* **1** *iz* Arana Goiri-tar Sabinen ideien eta politika helburuen jarraitzailea. ik **jelkide**.

Agirre, hik garai hartan hainbat aldiz madarikatutako **jeltzale** negoziante ezagun hura. Paddy Rekalde

Euskal Herriko politikagintzan ere gogotik parte hartu zuen, **jeltzale** eta abertzale sutsu beti. Berria - Kultura

Zinegotziak **jeltzale** zaharrari besoa ipini zion sorbaldan. Juan Kruz Igerabide

Xabier Arzalluz **jeltzaleen** presidente ohiak. Berria - Euskal Herria

Joseba Egibar GBBeko kidea izan **zen** jeltzaleen ordezkarietako bat. Berria - Harian

Araban Gebara **jeltzale** ohiak hartu du Rojoren lekua. Berria - Harian

**2** (izenondo gisa)

Eusko Alderdi **Jeltzale** eta Eusko Alkartasuna alderdietako Ipar eta Hegoaldeko ordezkariek. Herria

Nire gelako pija bat, betidaniko familia **jeltzale** batekoa, eta orain EAko zinegotzia udaletxean. Xabier Mendiguren Elizegi

Horien artean faxistek gupidagabe fusilatu dituztenak dira, hala nola herriko alkate **jeltzalea,** Alejandro Mallona Iza. Edorta Jimenez

Hauteskundeetarako hautagai, eta diputatu zein senadore ohi **jeltzale** ugariren aurrean. Berria - Euskal Herria

Errepublikako ministro **jeltzale** Manuel Irujoren guardiako kide. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi jeltzalea** (51); **buruzagi jeltzalea** (4); **eusko alderdi jeltzalea** (9); **euzko alderdi jeltzalea** (5)

**alderdi jeltzaleak** (79); **alkate jeltzaleak** (5); **buruzagi jeltzaleak** (20); **diputatu jeltzaleak** (9); **eusko alderdi jeltzaleak** (19); **euzko alderdi jeltzaleak** (8); **hautagai jeltzaleak** (5); **legebiltzarkide jeltzaleak** (3); **luis etxegarai jeltzaleak** (3); **ordezkari jeltzaleak** (5); **zinegotzi jeltzaleak** (8)

**alderdi jeltzalean** (8)

**alderdi jeltzalearen** (37); **alderdi jeltzalearen izenean** (5); **buruzagi jeltzalearen** (5); **eusko alderdi jeltzalearen** (7); **euzko alderdi jeltzalearen** (4)

**alderdi jeltzaleari** (12)

**buruzagi jeltzaleen** (3)

**alderdi jeltzaleko** (17); **alderdi jeltzalekoak** (8); **eusko alderdi jeltzaleko** (3); **talde jeltzaleko** (3)

---

## jemendar ik **yemendar**.

---

## **jenagarri** *izond* [fr] gogaikarria.

Egia da hori biziki **jenagarri** dela. Menane Oxandabaratz

Zonbait bizitzalendako oraino **jenagarri** bada ere lanak aitzina doazi eta bukatu behar lukete tenorean. Herria

---

## **jenatu**, jena, jenatzen da/du *ad* [fr] *ipar* gogaitu, eragotzi.

Ez zira zu, halarik ere, **jenatia** eskuaraz leitzeko? Menane Oxandabaratz

Charritton ez zen segurki **jenatua** gai hortaz mintzatzeko, bi orenez atxiki gaitu xoraturik. Herria

Iduriz, Hazparneko pesta komiteko gazteak aski **jenatuak** omen dira, Aihertar gazteeri buruz. Herria

-Zerk **jenatzen** zaitu gaurko telebista huntan? Menane Oxandabaratz

Ez zaitu sobera **jenatzen**? Menane Oxandabaratz

Nehor guti beha zagolarik, nehor **jenatu** gabe utzi du Eulalie Larre-k 89 urtetan bere munduko egoitza. Herria

Denbora ere holakoa zen, pixka bat hotza, bainan euriak ez **jenatzen**. Herria

---

## **jendaila** **1** *iz pei* jende arbuiagarria.

Gizartearen aitak ere agindu egin behar du, sendo, **jendailaren** apetak eta umekeriak aintzat hartzeke. Markos Zapiain

Lapurrak dira, **jendaila** nazkagarria. Iñigo Aranbarri

Bere alkandora nabarren ejerzitoa **jendailarik** txarrenaz osatua dago. Ramon Etxezarreta

-Espainiako kapitala denik eta **jendailarik** makurrenaren eskuetan dago -bukatu zuen Ferminek. Josu Zabaleta

Ez zinen garbi-jator horietakoa, etsai-lagun kolaborazionista sasikoa zinen **jendaila** buru-zapal ortogonalarentzat. Iñaki Segurola

Nolako ikara mezako **jendailak** zerraldoa gurutzerik gabe generamalako hilerrira. Koldo Izagirre

Um Hamida bezalako **jendailarekin** hitz egitera makurtzea nekeza zitzaiolako. Patxi Zubizarreta

-Mesedez, ez nazak *Egunkaria*-rako elkarrizketatzen nuen **jendaila** horren maila berean jar -arranguratu nintzaion. Juan Luis Zabala

-Nekrofiloak eta klase horretako **jendaila**? atsegin ez nuen **jendaila**-klasearen sartu-irten gehiegi. Anjel Lertxundi

Bazka polita hire lanbideko **jendailarendako**. Aingeru Epaltza

Hori da **jendailaren** artean nagusi den iritzia, Giza Anaitasunak bere garapen logikoena eta defendatzailerik xaloenak aurkitzen dituen jendartean, alegia. Xabier Olarra

**2** (izan aditzarekin)

Hots haiek entzunda pentsatzen baitzuten **jendaila** ginela, oso ezjakinak eta heziketa eskasekoak. Pello Lizarralde

Eta gu, han, atzerritarrak ginen, **jendaila**. Juan Kruz Igerabide

Tolstoik entzungo balizu, esango lizuke: Fakultateko **jendaila** besterik ez zara. Gizakia, bere egoera naturalean, **jendaila,** ergela, eta berekoia da alde guztietan. Josu Zabaleta

· Hazel, ordea, **jendaila** zital eta baztergarria bilakatzen zen adoregabetuta eta goibel bazebilen. Mirentxu Larrañaga

Lapurrak ez beste, **jendaila** hori. Karlos Zabala

Bai leloak eta **jendaila** hutsala gu hilkorrok. Oskar Arana

**3** *irud*

Bestetik, kloruroak oro har **jendaila** dira, gehienean azpiproduktu doilor, higroskopiko eta ezer gutxitarako onak Juan Garzia

---

# jendaje *iz* jendaila.

Nonahiko **jendaje** arrotzak. Patziku Perurena

Beti **jendaje** gaizkile bandolero basatien esku. Patziku Perurena

Groucho Marxek erran zuen ez zitekeela inola ere bera bezalako **jendajerik** onartzen zuen elkarte bateko kide izan. Aingeru Epaltza

Nolabait esan, Ehiztari Beltza, kristandadetik bazter gelditzen dena genuke, edo sotana beltzaren azpian gordetako hereje, moro, jito, judio edo dena delako **jendaje** iluna. Patziku Perurena

Azpeitiarrak **jendaje** takarra eta tranposoa dira. Iñaki Segurola

---

# jendaki 1 *iz* giza leinu edo taldea.

Zeltiberia guztia suak hartu baitzuen eta **jendaki** salbaia batek haren erraietan eskua basaki sartu. Piarres Xarriton

Gauza garbi gutxi dakigu **jendaki** horien inguruan, baina, haien hizkera zela eta, albiste hauxe jaso du Koldo Artolak [...]. Koldo Zuazo

Bazkaria oparoa izan bazen, are oparoagoa bazkalondoa, solas-molasean armagizonaren **jendakiekin**. Aingeru Epaltza

Ohitura ezberdinetarik sortu liskarrek desegin ohi dituzte **jendaki** ezberdinek osatzen dituzten estatuak Piarres Xarriton

**2** ahaidea.

Ximurraren ama, seme-alabak eta gainerako **jendakiak**. Aingeru Epaltza

Maiatzaren 22 an **jendaki** eta adixkide multxo handiak lagun, ehortzia izan da bere sort herriko azken egoitzan. Herria

Pedro eta Carmen Salaburu nire **jendaki** urrunak. Pello Salaburu

Andreak ezin dira lanera joan, edo kalean ibili, aldamenean ez badute gizon bat, haien **jendakia** dena. Pello Salaburu

**Jendaki,** ezagun eta adixkide frango, Euskaltzainditik, HERRIA-tik ala nun nahitik, denek beren konplimenduak egiten zaizkiotela denek hoinbeste estimatzen dugun apezari. Herria

**3** *(orobat **jendakia** g.er. eta **jendeki** g.er.)* ahaideria.

Doluminak heriotze hunek doluan uzten duen familia eta **jendaki** guziari. Herria

Gure doluzko sendimenduak helarazten ditugu Karrikaburuko haurride, iloba eta **jendakia** guziari. Herria

Alaba eta hunen familiari eta bere **jendaki** handiari eskaintzen ditugu gure doluminak. Herria

Ziburutar familia askok **jendakia** baitute Hondarribian. Herria

Gure dolumin bizienak bere **jendakiari,** hemengo haurrideri, eta Ameriketako anaia eta arrebari. Herria

Penetan gelditzen den emazteari, seme alaba eta horien familieri bai eta ere Bereau eta Ibarra **jendaki** handiari eskaintzen ditugu gure doluminak. Herria

Doluminak eskaintzen ditugu familia eta **jendekiari**. Herria

**4** gizakia.

Lekuizenetan eta **jendakien** deituretan. Patziku Perurena

Denbora: existitzen ez den abstrakzioa eta **jendakia, jendaki** denetik, neurtzen, zenbatzen eta atxilotzen saiatu dena. Sonia Gonzalez

Eta "lehen harritze" horietan, "aurreneko inpresio" horietan, zailtzen da, inon ez bezala, **jendaki** bakoitzaren nortasuna. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **familia eta jendaki** (15); **hurbileko jendaki** (10); **hurbileko jendaki handiari** (5); **jendaki eta adixkide** (11); **jendaki guziari eskaintzen** (13); **jendaki handiari eskaintzen** (11)

---

# jendakin ik **jendekin**.

---

# jendalde *(orobat **jendealde** g.er. **jendealde** eta **jendealdi** g.er.)* 1 *iz* jende multzoa. ik **jendeketa**.

Igande aratsaldean iragan diren ehorzketetan **jendalde** gaitza bildu da Ortzaizeko elizarat. Herria

**Jende** alde ederra bildu da, denak jendetasunez, hunkia den familia gogoan. Herria

**Jendalde** ederrak parte hartu du eztei hauietan, familiako, lagun, musikari eta dantzari. Herria

Ortzaizeko herriko etxean, **jendalde** ederraren aintzinean aurkeztua izan da Izpegi argitaletxeak ateratu duen liburu berria. Herria

**Jendalde** pollitak nahi izan du parropiako patroina ohoratu elizkizun eder hortan parte hartuz. Herria

Ortzaizeko herriko etxean, **jendalde** ederraren aintzinean aurkeztua izan da Izpegi argitaletxeak ateratu duen liburu berria. Herria

Berriz ere, bi fakziotan banatu zen Iparraldeko **jendalde** euskaraduna. Itxaro Borda

Ehortzetan parte hartu zuen **jendaldea**. Itxaro Borda

**Jendaldea** banatu zen. Itxaro Borda

Gero Zan Pantzar jujatua eta errea izan da, **jendealde** baten aintzinean. Herria

Huna 144.000 direla seinaleaz markatuak, hamabi mila, Israeleko 12 leinu bakotxetik eta ezin kondatzeko **jendealdi** haundi bat bertzalde... nik osatzen nuela bertze leinu bat Kerwich, Etchegaray eta besteak gogoan. Herria

**2** jende taldea.

Gizon guziek, **jendalde,** nazione, arraza guziek. Herria

Europako beste **jendalde** guztiek hor segitu zuten ezpata harroaren mendean penatuak. Iñaki Segurola

Euskalduna **jendalde** menderaezina dela ikusteak plazer ematen du. Itxaro Borda

Noizbait Euskal Herria askatua baldin bada, abertzaleek, etxean azkenean nagusi, **jendalde** mutu horrekin bizirauն beharko dute. Itxaro Borda

Nola obra **jendalde** desesperatuaren ahotsa marea beltz politiko bihurtu ez dadin? Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jendalde eder** (4); **jendalde eder batek** (4); **jendalde ederra** (39); **jendalde ederra aurkitu** (4); **jendalde ederra bildu** (12); **jendalde ederrak** (10); **jendalde ederraren** (4); **jendalde gaitza** (9); **jendalde gaitza bildu** (7); **jendalde handi** (3); **jendalde handia** (3); **jendalde pollita** (10); **jendalde pollita bildu** (6)

---

## jendarma ik **jendarme**.

---

## jendarme *(283 agerraldi, 44 liburu eta 60 artikulutan; orobat **jandarma** 75 agerraldi, 5 liburu eta 55 artikulutan, **gendarme** g.er. eta **jendarma** g.er.)* **1** *iz* Frantziako eta beste zenbait herrialdetako poliziako kidea. ik **hedexuri**.

-Apezak eta **jendarmeak** errespeta itzan! Itxaro Borda

140 bat polizia-gizon eta **jendarme,** gaitzeko xixtuan ibilki, etxe-miatze batzu eginez goizean goizik... Herria

Berehala Donapaleuko **jendarmeengana** jo zuen. Itxaro Borda

Hasperenka, **jendarmeen** auto beltzean sartu zen, oldarrik gabe. Itxaro Borda

**Jendarmeen** sarjentu baten idazkari izendatu ninduten. Edorta Jimenez

Horrelaxe jokatu dute, esaterako, Dogubayazit inguratzen duen kanpamentu militarreko tanke ugarien ondotik igaro garenean, baita **jendarmeen** kontrola pasatu dugunean ere. Jon Arretxe

Hamar **jendarme** hil omen zituen Greneta kaleko barrikadan. Karlos Zabala

Gazte talde batek **jendarme** bat jipoitu du Hazparnen. Berria - Euskal Herria

Hemendik aitzina, **jandarma** bat etorriko zaizu egunero eta beharko diozu eman mezu bat neretzat, behar diren xehetasun guziekin. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Jendarmeek** ehundik gora bala-zorro jaso dituzte gertalekuan. Alberto Ladron Arana

Poliziaren ordez, beste batzuk zetozela gure ondoan, soldaduen moduan jantzita baina luma koloretsuagoekin txanoetan: **jendarmeak** ziren. Urtzi Urrutikoetxea

Janzkeraz **jendarmea** zirudien interbentore batek azaldu zion bere litera-konpartimenduaren kokapena. Unai Iturriaga

Hala pentsatu dute inkesta egileek izan diten **jendarma,** juje edo adituek. Herria

Nahi nuke jakin zenbat ikasle anarkista ohi, **jendarme** bilakatu diren. Piarres Aintziart

Orain bazekiagu, jakina, frantses **jendarmeek** aukeratu gintuztela. Josu Zabaleta

**Jendarme** emakumerik ez dugu ikusi aurrez aurre, jarrita zeuden afixetan bai. Berria - Kultura

**2** *irud*

«Alderdien Legearen **jendarme** politikoa» izatea egotzi zion atzo Batasuneko Arnaldo Otegik Josu Jon Imaz EAJren lehendakariari. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezti-ezti igarotzen gara polizia eta **jendarme** kabinetatik. Berria - Kultura

Polizia edo **jendarme** kontrol batean. Itxaro Borda

Hondartzaren pareko bidetik bi **jendarme**-auto ikusi genituen. Juan Luis Zabala

Zenbat **jendarme** ofizialen postu dauden agertzen da afixetan, zenbat ofizialordeenak eta gainerakoak.Gobernadoreak adierazi zuen asmo oneko gizona zela; prokuradoreak, berriz, zentzuzkoa zela; **jendarme**-koronelak esan zuen gizon jakintsua zela; [...]; poliziaburuaren emazteak, berriz, oso atsegina eta oso adeitsua zela. Jose Morales

**Jendarme** buruzagiak, barda, aipatu digu... autopsia... eta beraz... Daniel Landart

*ik* jendarmeburu.

Bazterrak harritu ziren haatik jakin zelarik kaxketadun batzuk zutela sua eman, **jendarme** aintzindari bat buru. Herria

Ordubete geroago, lehenengo konboi hura abian zen itsasontzietarantz eta erbesterantz, eskumuturrak bilurrez lotuta, bi **jendarme** ilara alboetan, fusilak kargaturik. Karlos Zabala

**jendarme** pare batek gas-kriseiluekin argitu omen zuten denda barrena. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**frantziako jendarmeek** (3); **jendarme bat jipoitu** (3); **jendarme hil** (4); **polizia eta jendarme** (3)

---

## jendarmeburu *(orobat **jendarme-buru** g.er.)* *iz* jendarmeen burua.

Mazeres koronelak, Korsikako **jendarmeburuak** *Le Parisien* egunkariari aitortu zion berak hondartzetako jatetxeak erretzeko agindu zuzenak eman zituela. Berria - Mundua

Henri Mazeres **jendarmeburuaren** aurkako espetxe zigorrak berretsi zituen Frantziako Auzitegi Gorenak. Berria - Mundua

Hainbesteraino zabaldu zen kontua, eta halako istilu eta hotsekin, non bertako **jendarme-buruak,** "beldur baitzen agerpenei buruzko zurrumurru haiek, halako batean, jende xehe eta sobera sinisbera asaldatuko ote zuten", neskato hura zaintzea erabaki zuen. Bernardo Atxaga

---

## jendarmeria *(138 agerraldi, 16 liburu eta 59 artikulutan; orobat **jandarmeria** 31 agerraldi, 28 artikulutan –denak Herriakoak-; eta **gendarmeria** g.er.)* **1** *iz* Frantziako eta beste zenbait herrialdetako polizia berezia.

Altxorraren bulegoak, **Jendarmeriaren** kasernak, justizia jauregiak eta prefeturak izan ziren jomuga. Berria - Mundua

GIGN **Jendarmeriaren** unitate bereziko 40 kide iritsi ziren Sable-sur-Sarthera. Berria - Mundua

GIGN **Jendarmeriako** Talde Bereziak egin zuen atxiloketa. Berria - Mundua

**Jendarmeriako** funtzionario bati. Jose Morales

**Jendarmeriako** detektibeek lapurretaren hipotesia hobesten dute. Alberto Ladron Arana

Mont-de-Marsanetik (Landak) etorrarazitako **Jendarmeriako** unitate bereziak. Berria - Euskal Herria

**Jendarmeria** indar bat eratzeko akordioa sinatu dute 5 herrialdek. Berria - Mundua

Autopistako **jendarmeriak** istripuaren arrazoiak zehazteko ikerketa abiatu du. Berria - Euskal Herria

Pietrosella herrian Frantziako **Jendarmeriak** duen polizia etxearen aurka larunbat gauean eginiko tiroketa.

Kohete baten bidez, erasoa egin zioten Cauro herrian Frantziako **Jendarmeriak** duen egoitzari. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Frantziako Aire **Jendarmeriako** Jacques Alexandre koronelak. Berria - Mundua

Erregearen Indar Armatuak, Errege **Gendarmeria,** Nazio Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusia eta Babes Zibileko indarrak. Berria - Mundua

**3** jendarmeen egoitza edo kaserna.

**Jendarmeriara** joatea erabaki genuen, Hazparnera. **Jendarmerian** egindako galdeketan, Goldstein andreak adierazi du ez dakiela zer dela eta sartu diren gizatxar haiek bere etxean. Alberto Ladron Arana

Pietrosellako **Jendarmeriaren** kontrako ekintza. Berria - Mundua

Lehergailu indartsu batek **jendarmeria** hondatu du Bastian. Berria - Mundua

Goizaldean bonba baten leherketak Aleriako **jendarmerian** kalte material handiak eragin zituen. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**frantziako jendarmeriak** (8); **jendarmeriara eraman** (4); **jendarmeriara joan** (4); **jendarmeriaren arabera** (5)

---

## jendarte *(orobat **jendearte** g.er. eta **jende arte**)* **1** *iz* leku agerian dagoen jendea.

Turistak eta herrikoak bereizteko froga bikaina dela anbulantziarena: **jendarte** itzelaren erdian, burua jiratu dutenen artean ikusi ahal izan ditut ezagutzen ditudan herritar apurrak. Hasier Etxeberria

Guardia zibilek eta errefortzuan zain zeudenek **jendartea** itsu-itsuan tirokatzeari ekin zioten. Jon Maia

Diban batean luze etzaten zen eta oparo mintzatzen zen, begiak erdi itxirik, bere dizipuluen **jendarte** gosetua inguruan zuela. Monika Etxebarria

Presoen eskubideen aldeko **jendarte** uholde indartsua bilakatzen laguntzeko konpromisoa. Berria - Euskal Herria

Jesusi buruz esaten zena entzunik, **jendartean** atzetik joan eta jantzia ukitu zion. Elizen arteko biblia

**Jendartean** nahastu zen. Iñaki Zabaleta

**Jende artean** ez ditu etorri berriak ikusi. Pako Aristi

Josebak begiradaz segitu zuen baina **jendartean** galdu zen. Iñaki Zabaleta

Hamida beldur izan zen gizonak alde egin, eta ez ote zen **jende artean** aienatuko. Patxi Zubizarreta

Isil deiak entzun ziren **jende artean**. Anjel Lertxundi

Hantxe izango nauzu **jendartean** txaloka, jo eta su. Mirentxu Larrañaga

Udaltzainek **jendartean** irekitako pasabidetik. **Jendartean** ezkutaturik. Joan Mari Irigoien

**Jendarteko** fariseu batzuek esan zioten Jesusi: -Maisu, egiezu errieta ikasleei. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 4. Askoren artean

Azkenean, **jendarteko** batek psikoanalisiaz galdetu zion. Berria - Harian

Ez dituk Salemdarrak -jakin nahi izan zuen **jende arteko** batek. Anjel Lertxundi

Marmarioak gora egin zuen eta lau gizonak **jendartera** sartu ziren. Jon Maia

Oinek eramaten zituzten biak ala biak [...] orain aurrera orain atzera, orain **jende artera** orain **jende artetik** kanpora. Felipe Juaristi

**Jendartetik** Alexandro zelako bat atera zuten aurrera, juduek bultzaturik. Elizen arteko biblia

Hor atera naiz ni **jende-artetik** oihuz: [...]. Iñaki Segurola

Merkatu sexualeko arrakastak ere badu, bistan denez, bekatuaren eta atentatuaren kutsu bat... jendeen **jende-artearentzat**. Iñaki Segurola

**2** jende komunitatea.

Gure **jendarte** hartan ez zen falta ez faltsariorik ez kontzientzia gabeko gizonik, baina hura, denetan zinikoena eta eskrupulu gabeena zen. Matías Múgica

Sarako **jendarte** guziak nahi du euskararen alde urrats bat egin. Herria

Baina orain, ezta aparteko **jendarte** horretan ere, ez diat lotsarik sentituko. Agustin Otsoa

Hitlerrek suntsitu nahi zuen **jendarte** bateko kide. Eneko Bidegain

Ez baita dudarik, **jendarte** batean agertzen diren baztertuak, gizarte horren ezaugarri direla ere. Herria

**Jendarte** batek sustengatzen duelarik bere hizkuntza, segur da hizkuntza hori ez dela hilen. Herria

Deia **jendarte** osoari eginen diogu, Kostaldeari, Hegoaldeari, Frantzia guziari ere, *Confédération Paysanne* sindikatak sustengatzen gaitu. Herria

**3** gizartea.

**Jendarte** neoliberal batean bizi garen emakumeontzat. Berria - Euskal Herria

Hiruak ados gara diogularik gerlaren premiarik ez dela **jendarte** zuzen, orekatu eta baketu batean. Itxaro Borda

Berdintasunean oinarritutako **jendarte** baten aldeko borroka feminista gizonek badute euren egitekoa. Berria - Euskal Herria

Iruñera joateko deia egiten diogu euskal **jendarte** eta, batez ere, euskal gazteriari. Harako haiexek bide zituen zegozkion etxea, altzariak, senarra eta **jendarte** -maila. Mirentxu Larrañaga

Gure nortasunean oinarritutako **jendarte** eta bizi ereduak eraikitzeko guneak dira gaztetxeak. Berria - Euskal Herria

Lehentasun osoa **jendarte** eragileen artean, lehentasun osoa herritar guztien artean. Berria - Euskal Herria

Aldaketa politikoaren ezinbestekotasuna hemengo **jendarte** sektore zabaletan errotu da. Berria - Euskal Herria

Kontsumo **jendartea** eta izerdiaren esplotazioa. Itxaro Borda

**Jende artean** ezaguna eta onartua izatea lortzen ez duena. Juan Kruz Igerabide

Euskal herritar guztiei eta **jendarteko** eragileei (alderdi politiko, elkarte eta besteri). Berria - Euskal Herria

**4** ***jendarteko*** *izlag* jendartean gertazen dena.

Ez du bere egiten, ordea, Frantziskoren **jendarteko** biziera eta hura munduan barrena eramaten duen misio-grina. Askoren artean

**Jendarteko** harremanak goxoak ziren, zenbait aldiz adiskidantzazkoak. Marzel Etxehandi

**Jendarteko** antzeztaldi isilpekoak egun batzuk hartu zituen. Juan Garzia

Kolorearen ikusmena galtzeak mundu naturalaren edertasuna, **jendarteko** mundua eta eguneroko bizitzaren osagaitzat kolorea duten hainbat eta hainbat gauza ez ezik, artearen mundua galtzea ekarri baitzion. Xabier Olarra

Gaurko **jendarteko** arketipoak atzematen ahalegindu gara. Berria - Kultura

Gainera, ni xaketik aldendu eta beste jolas **jendeartekoagoetara** hurbiltzea nahi zuen. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**jendarte eredu** (3); **jendarte osoari** (3); **jendarte sano** (6); **jendarte sano batean** (3); **jendarte sano baten** (3); **oinarritutako jendarte** (3)
**euskal jendarteak** (9)
**euskal jendartean** (6); **gaurko jendartean** (3); **jendartean eragina** (3); **jendartean galdu** (3); **jendartean zabaltzeko** (3)
**euskal jendartearen** (11)
**euskal jendarteari** (4)

---

## jendartegintza *iz* gizartegintza.

**Jendartegintzan** ausart diren ainitz arras gogoetatatuak daude: jendearen gero eta gehiago xahartze horrek buru-hauste gaitzak ere ekarriko dituela. Herria

Asteazkenean, **jendartegintzaz** eta ekonomia gai batzuetaz ariko dira. Herria

---

## jendarteratu, jendartera(ru), jendarteratzen **1** da/du *ad* jendartera etorri; jendartera ekarri.

*Navarra Marítima* tituluarekin **jendarteratu** zen Nafarroa/Nabarra Osoaren ideia. Iñaki Segurola

Rerrorezko filmeek **jendarteratutako** figura horretarik. Aingeru Epaltza

Desesperaturen batek beren hitzak **jendarteratu** nahi balitu ere, inork ez lioke sinetsiko. Jon Alonso

Zelan egin mezua **jendarteratzeko** eta hedabideak zein neurritan dituzten bidaialagun eta zein neurritan oztopo. Berria - Euskal Herria

Oraingoan, Ray Charlesek **jendarteratu** zituen 13 kanta oinarritzat hartuz, bluesaren bideetan murgildu da, Rayk ondo merezia zeukan omenaldirik bikainena prestatzeko. Berria - Kultura

**2** gizarteratu.

Sorkuntza handitzea eta sorkuntza hori **jendarteratzeko** baliabideak jartzea da horrenbestez, MusikHerriaren eginbeharretako bat. Berria - Harian

---

# jendartetsu *iz* jendetsua.

Negua, eskiatzeko, baina ez eski gune antolatu **jendartetsuetan**. Juan Garzia

---

# jendaurre 1 *iz* aurrean egokitzen den pertsonen multzoa.

Askotan, **jendaurre** eta egokiera askotan saiatu naiz ni, ia erabat zabaldutako uste ustel hori egia-argitan zuritzen.Bizitza pribatua, giza bizitza huts-soila, inportanteagoa, tragikoagoa da munduko **jendaurre** guztiak baino. Patxi Ezkiaga

Eta hala berari eskerrak Espainian arima/arrazak justifikazio "zientifiko" bat aurkitu duen **jendaurre** kultuan eta literaturan. Joxe Azurmendi

Herriaren gogo kontzeptuarekin nahiko kritiko izan dela [...] eta nahiko positibo eta esplikatiboa ber denboran **jendaurre** espainolarentzat, alferrik izan bada ere. Joxe Azurmendi

Landare batzuek argiari aiher eta gorroto dioten bezalaxe, badaudela pertsonak ere izenari, famari eta **jendaurreari** beldur diotenak. Joxean Agirre

**2** ***jendaurrean*** *(orobat* ***jende aurrean*** *g.er. eta* ***jendeaurrean*** *g.er.)* hainbat lagunen aurrean.

Beraren ahalegin guztia, **jendaurrean** zein bakarrean, Jaunaren gurutzera zuzendua egon baitzen. Askoren artean

Garbi azaldua dut **jende aurrean** nire erlijioaren lekukotasuna. Juan Martin Elexpuru

Kasuaren inguru-minguru gehienak aipatu nizkion, **jendaurrean** agertzeko modukoak, behintzat. Aingeru Epaltza

Miopea zen, baina ez zuen **jendaurrean** betaurrekorik jantzi nahi. Jon Muñoz

Kosta egiten zaie hori **jendaurrean** edo bikotekidearen aurrean onartzea, gizartean gaizki ikusita dagoelako. Luis Elberdin

Baina Hadassek, **jendaurrean** lotsagarri uzten bazuten berriz ere (Avigdorrekin lotsarazi zuten bezala), bere burua putzura botako zuela adierazi zuen. Koro Navarro

Bere burua **jendaurrean** aurkezteko prest zegoela erabaki ondoren. Juan Luis Zabala

Zuhurtzia eskuraezina da burugabearentzat, ez da gauza **jendaurrean** ahoa zabaltzeko. Elizen arteko biblia

**3** ***jendaurreko*** *(orobat* ***jende aurreko*** *g.er. eta* ***jendeaurreko*** *g.er.) izlag*

Nazien **jendaurreko** agerraldiak eta mitinak liskar larriekin bukatzen ziren. Alberto Ladron Arana

Gure **jende-aurreko** gixonkeriak eta takarkeria tristeak. Iñaki Segurola

**Jendaurreko** erakusketa bat. Oskar Arana

Printzesaren **jendaurreko** aurkezpen-dantzaldian [...] bere bihotzeko desiorik onena eskaini zioten Peterri. Julen Gabiria

Inoiz ez da **jendaurreko** ekitaldietan agertzen. Jon Muñoz

1994an, **jendeaurreko** Biltzarra egin zen Leioan. Koldo Zuazo

Oraingoz, izendatze ekimena **jendaurreko** informazio prozesuan dago. Berria - Euskal Herria

**Jendaurreko** lanpostuak. Berria - Euskal Herria

**Jendaurreko** administrazio-atal elebidunak. Berria - Euskal Herria

**Jendaurreko** zerbitzua, gizarte zerbitzua eta gazteriari zerbitzua eskaintzen zituzten atalak euskaldundu beharra zegoen.

Auzia **jendaurreko** epaiketan aztertzea erabaki zuen Hedleyk.

**4** ***jendaurrera*** *(orobat* ***jende aurrera****)* hainbat lagunen aurrera.

Lehen aldiz, atzo arratsaldean atera zuten **jendaurrera** Joan Paulo II.aren gorpua. Berria - Harian

Indartsu eta gogotsu atera zen **jendaurrera**. Berria - Kultura

**Jendaurrera** azaltzean izuak harrapatuko zituela. Josu Zabaleta

Badira [bertsolariak] urtean 150-200 aldiz **jendaurrera** ateratzen direnak). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Jende aurrera** atera ordu, galtzetara kaka egin. Patziku Perurena

· Baina ikusi nuenean zein harro jasotzen zituen jendearen aupadak, **jendaurrerako** aritu zela konturatu nintzen. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jendaurrean agertu** (9); **jendaurrean aitortu** (3); **jendaurrean aurkezteko** (9); **jendaurrean aurkeztu** (6); **jendaurrean azaldu** (6); **jendaurrean azaltzeko** (6); **jendaurrean egin** (8); **jendaurrean egiten** (3); **jendaurrean erakutsi** (6); **jendaurrean esan** (7); **jendaurrean hitz egin** (3); **jendaurrean hizketan** (3); **jendaurrean jakinarazi** (5); **jendaurrean onartu** (4); **jendaurrean salatu** (3)

**jendaurreko aurkezpena** (7); jendaurreko entsegua(3)

---

# jende 1 *iz* gizaki kopuru zehaztu eta mugatu gabea, multzotzat hartua.

Ehorzketetara **jende** guti azaldu zen, emazteak gehien bat. Elena Touyarou

Oso **jende** gutxik zekien haren berri. Juan Kruz Igerabide

Une hauetan ez da tabernan **jende** asko ageri. Pako Aristi

Urte haietan boxeolariek **jende** askoren interesa pizten zuten. Pello Salaburu

**Jende** gehiena arrotza da, eta maitemindu egiten da. Patziku Perurena

Zenbat **jende** ez zen hilko, zenbat **jende** ez zuten hilko hori zela kausa, Jainko maitea. Karlos Zabala

Hitzaldira **jende** ugari azaldu zen. Juan Kruz Igerabide

Azkenean, **jende** guztiarekin aise mintzatzeko gauza zen. Juan Kruz Igerabide

**Jendea,** bakoitza ahal bezala bizi zen. Pako Aristi

Eliza ideikia da, **jendea** mezan delako. Piarres Aintziart

**Jendea** komunisten eta juduen kontra jartzeko. Anjel Lertxundi

Harriturik ohartu ziren hiritarrak han zebilen **jendeak** ere bi beso eta bi hanka zituela. Pello Salaburu

**Jendeak** lasaitasunezko aieneren bat jaurti, eta arnasa hartu zuen, Martha Cory zintzilikatutakoan bezalaxe. Anjel Lertxundi

**Jendearen** artean galduko zela pentsaturik. Anjel Lertxundi

*ik* jendarte.

Zoaz eta ez nazazu desohoratu **jendearen** aurrean. Patxi Zubizarreta
*ik* jendaurre.
-Barkatu, Willem, berandutu izana, baina ez nengoen **jendearen** aurrerako moduan. Anjel Lertxundi
[Sofistak] **jendearen** aurrez aurre egiten zituzten beren hitzaldiak. Joxerra Garzia
Herrialdea suntsiturik eta **jende** gabe gelditukо baita. Elizen arteko biblia
*ik* jendegabe.
Etorbide **jenderik** gabeak. Joxe Austin Arrieta
Guztiz ilundu eta kaleak **jenderik** gabe geratzen ziren arte. Anjel Lertxundi
Hondartza zabal bat **jenderik** gabe, itsaso urdina. Antton Olano
**Jenderik** gabeko hondartza batean. Pello Salaburu
Bai, bada **jendea** deabrua dena. Koro Navarro
Bizarra kendu gabe ez naiz batere gustura sentitzen; ez **jendearengatik,** neuregatik baizik. Joxe Austin Arrieta
Etxea, Txiberriko gure etxea, **jendez** betea zegoen. Jon Maia
Baina ez dut utziko nire testua **jende** horren eskuetan. Karlos Zabala
Etxeko **jende** horrek guztiak ordaintzen zion bere zerga, dirutan edo salgaietan. Josu Zabaleta
Zergatik nahasten zara **jende** horrekin? Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

**Jende** tristea, mahaietan eseria. Josu Zabaleta
**Jende** sakonak ez du luze jarduten hizketan; are gutxiago idazketan. Iñaki Segurola
Erdara (eta kultura) gutxiko **jende** argiaren mintzotik. Iñaki Segurola
"Guk ez dugu ulertzen eta!", dio **jende** otxanak etsita. Iñaki Segurola
**Jende** ahul, urri edo mendratuari. Iñaki Segurola
**Jende** jatorra, baina haiekin egotea baino gauza gogaikarriagorik ez zegoen. Karlos Zabala
Herriko **jende** xumea. Elizen arteko biblia
Laket zait bakarrik egoitea eta ixilik, leku ezezagun batean naizelarik **jende** arrotzen erdian. Piarres Aintziart
**Jende** ikusmina erruz bildu zen exekuzioa bertatik bertara ikusteko. Patxi Zubizarreta
**Jende** onentzat badela bizia eta betiereko dohatsutasuna eta **jende** gaiztoentzat heriotza eta betiereko zorigaitza. Piarres Xarriton
Beste askotan arras **jende** anonimoa dator, gehiago itzultzen ez direnak. Pako Aristi
**Jende** gaizkilearen ezinikusi horiek. Josu Zabaleta
Alde batetik **jende** egiatia, zintzoa, barren onekoa, bihotz onekoa; bestetik **jende** doilor eta harroa. Josu Zabaleta
**Jende** azal-iluna ezagutzea. Mirentxu Larrañaga
**Jende** on-onen gizarte onak malko epel gezurrezko bat ixurtzen du mendizale zintzoaren heriotzan. Iñaki Segurola
Jainkoaren erresuman emagalduak **jende** plantakoen aitzinean izanen direla. Piarres Aintziart
**Jende** aldrebesa gara, eta aldrebesa bezain egokia. Iñaki Segurola

**3** (izenondoekin edo kidekoekin, pluralean)

**-Jende** zintzoak. Elena Touyarou
Baina, oro har, **jende** onak ziren, abegitsuak. Jose Morales
**Jende** adimendutsuak miresten zituen. Elena Touyarou
Eta gu, oroz gain, **jende** zibilizatuak gara. Aingeru Epaltza
Haren egoitzan sartu ziren **jende** bakarrek. Elena Touyarou
**Jende** susmagarriak ikusten zituen orotan. Elena Touyarou
Egunkari-saltzaileak **jende** abila dira eta buru argi-argikoak. Karlos Zabala
**Jende** guziek ez dutela ber jitea ikasketentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Mintzagai ditugun **jende** horiek erregearen kontseilukoak zirela. Iñaki Iñurrieta
Euskarazko **jende** belarridun bakanek. Iñaki Segurola
Batzuetan neke zitzaion hain hetsiak eta ele gutikoak ziren **jende** haiek ziotenaren ulertzea. Elena Touyarou
Jakin nahi dut nor diren **jende** hain handi horiek. Elena Touyarou
**Jende** hauek berek erran zuten Jainkoaren naturatik eta ez ezdeusetarik kreatuak zirela arimak. Piarres Xarriton
· Etxe hartan handiki-**jendea** zirela denak. Joxerra Garzia
*ik beherago* 8. Askoren artean

**4** (izenlagunekin)

Holako **jende** gutxi ikusiko duzu. Patziku Perurena
Udazkenean, Lapurdiko **jende** anitz atxilotua izan zen, iraultzaren etsai ekarririk. Elena Touyarou
Herriko **jende** guztia ihesi, haurrak negar batean. Jose Morales
Tokiko **jendearekin**, **jende** xehearekin, solasean ari naiz. Piarres Aintziart
-Utzi bakean kalezuloko **jendea,** mihiluze hori! Patxi Zubizarreta
Tropelean dator oinezko **jendea** ere. Anjel Lertxundi
Etxegabeko **jende** horiek eraikuntza handian lo egiteko ohitura hartu zuten. Ramuntxo Etxeberri
Antigoaleko **jende** askorentzat. Patziku Perurena
Gero batailoiko **jendea** batu zitzaion. Ramon Saizarbitoria
Zer egin zuen euskarazko **jendeak** hitz sorgin horrekin? Iñaki Segurola
Israel osoan legegabeko **jendea** agertzen hasi zen. Elizen arteko biblia
Konfiantzako **jendea** bidali zuen. Iñaki Iñurrieta
Errugabeko **jendea** hilez. Elizen arteko biblia
Irakurritako **jendea** izaten da eskuarki, eta Historiaren ametsak egiatzat dituztenak. Iñaki Segurola
· Izaera biko **jendea** zen. Felipe Juaristi
Hamasei urteko **jendeak** berezkoa duen xalotasun eta naturaltasuna. Anjel Lertxundi
Gaizki [...] egindako **jendea** gara, okerreko bidera edo kontrako eztarrira eroritakoa. Iñaki Segurola
Gaupasa egindako **jende** ugari zebilen kaleetan. Pako Aristi
Greziarrek, buru argiko **jende** noble eszeptikoa zuten gogoko. Patziku Perurena
Euskaldunok ordea, negar zaileko **jende** noblea omen gara. Patziku Perurena
Judas, bere anaiekin, Esauren jatorriko **jendearen** kontra abiatu zen hegoaldeko lurraldera. Elizen arteko biblia
Gaur eguneko literaturara ohitutako **jendea**. Pello Lizarralde

Gu bezalako esker txarreko **jendearentzat**. Pello Lizarralde

**5** (predikatu gisa)

Gu **jende** gara filologo baino lehen. Iñaki Segurola

Horixe da guretzat **"jende"** izatea: deus edo inor ez izatea. Iñaki Segurola

Izan gintezkeen menturaz **"jende"** euskaldun baino lehen ("ume-jendea" esaten dugu), baina ez "gizon", eta ezta, aski segur, "pertsona" ere. Iñaki Segurola

Ba al da hirietan -gero eta inguru zabalagora hedatzen diren hirietan- **jende** dei daitekeen gizagauzarik. Iñaki Segurola

· Ni **jende** zibilizatua naiz. Aingeru Epaltza

**6** (izen elkartuetan lehen osagai gisa)

Auzo herrietan **jende** parrasta bat atxilotu zuten apez ihardokitzaileak sostengatzeagatik. Elena Touyarou

Zurrunbilo bat bailitzan igaro zen **jende** aldra hura hiriko kale nagusietatik. Josu Zabaleta

Yolok **jende** uholdearen artetik keinuren bat egin dit, ez dakit zerena. Pako Aristi

**Jende**-uhin oldarkor batek eraman zuen berarekin plazaraino. Felipe Juaristi

Zer **jende** kasta gordetzen da Nikolas horien azpian? Patziku Perurena

Kea desagertu zenean, **jende**-sail bat ikusi zuen leiho baten koskatik zintzilik. Lopez de Arana

Herriska bat esango nuke, levantinoa, **jende**-inurritegiak karrika erdian, eta ostera berriz bakar-mortua. Joxe Austin Arrieta

Taberna aurrean **jende**-inguru bat zegoen, eta gorputz bat lurrean. Juan Kruz Igerabide

Horixe zen **Jende**-Zuzenbidea garai hartan: denaz gabetzen zen gerran, dena adosten zen bakean. Iñaki Iñurrieta

Goiz batean, kanpoan **jende** hotsa eta, izebak esan zidaan: [...]. Pablo Sastre

**Jende**-ahotsak zitunan; baina ez ahots argiak, sekretuak baizik. Juan Garzia

· *izond* Gurasoen ondoan aspertzen den haur izu kale-beldur eta **jende**-beldur bat. Iñaki Segurola

**7** (izen elkartuetan bigarren osagai gisa, pluralgile betekizunaz eta singularreko komunztaduraz)

Artistak eta bankariak, gaizkileak eta negozio-**jendea,** puta-zorriak eta espiak. Anjel Lertxundi

Lehenak gerra-**jendearen** askonahia balakatu zuen; beste biek, berriz, elizgizonena. Iñaki Iñurrieta

Itsas armada amerikanoaren itsasontziak porturatu orduko, emakume-**jendea** itsasertzera biltzen zen saltoka. Karlos Zabala

Ume-**jendea** eskolara joaten da. Jon Muñoz

Pozarren iratzarri zen On Egas Moniz, langile-**jendea** bildu zuen, eta, mando gainean, Carquerera abiatu zen. Jon Alonso

Ikasle-**jendea,** oro har, bere adinarengatik, gerlan zegoelako. Txillardegi

Lotsa gaiztokoa militar-**jende** hura. Karlos Zabala

Zerbitzari-**jendea** hain eszena itsusiaren lekuko izan ez zedin. Jose Morales

Gogor borrokatzea mairu-**jendea** aldiri lasai hauetatik kanporatzeko. Jon Alonso

"Gizon" da neretzat hiztun **jendeak** hitz hori aditzen duenean ulertzen duena eta besterik ez. Iñaki Segurola

Gehiago hurbildu zitzaizkienean, nabarmen gelditu zen, beren arropen zikin eta zarpailtsuarengatik, ez zela nagusi-**jendea**. Jon Alonso

Erregea jada ez dago han, bere dendara erretiratu da, zeren, errege-**jendea** denez, ez baitu inoren zain egon behar. Jon Alonso

Errezeloa daukat *jakintsu* hitz hori ez ote den beti edo gehienean txarrerako edo burlaizean hartzen herri-**jendearen** artean. Iñaki Segurola

Zabor-**jendeak** ez bezala, andre-gizon gisakoek halako gider koipetsuei kontzen diete. Aingeru Epaltza

· Bertako azienda-**jendea** gaixotu ez zedin. Anjel Lertxundi

Belar edo landare-**jendea** ihartu edo erre egiten da. Iñaki Segurola

**8** (izen elkartuetan bigarren osagai gisa, pluralgile betekizunaz eta pluraleko komunztaduraz)

Arima-gidari eta interpretari datozen apaiz-**jende** anitzen laguntza. Jon Alonso

Animaliak babesten aritzen den jendea, nolabait, kristau- **jende** zenbaiten antzekoa da. Oskar Arana

Ume-**jendea** eskolara joaten da. Jon Muñoz

· Herri-**jende** desengainatu eta sinesgogorrak. Iñaki Segurola

**9** (ezkerrean izenondo bat duela, pluralgile gisa)

Beharrezkoak direla saguak, arratoiak, tximitxak eta gainerako txiki-**jendea**. Jokin Urain

Batzuetan eskuindar mozorrotuak besterik ez dira; beste batzuetan, dakitela ala jakin gabe, arrazistak edo xenofoboak; bestetan, txoro-**jendea**. Bernardo Atxaga

Hollywoodera etorria zen ospetsu-**jendearen** buru izatera. Fernando Rey

Eta hor hasi zen hitz garratzez gaitzesten liberalismoa, eta, bide batez, baita gazte-**jendea** ere. Jose Morales

Gazte-**jendeari** gaizki erakusteagatik. Iñaki Segurola

Eskola gutxiko zahar-**jendearengana**. Iñaki Segurola

Euskaldun **jendea** txepeltzeko. Iñaki Segurola

Bohemio **jende** narrasen ibiliak. Josu Zabaleta

Horretarako zeuden, arrotz-**jendea** beldurtzeko eta haiek baserritik urruti edukitzeko. Xabier Etxabe

Zigarro kea, foku-argiak, mozkor-**jendea,** tzunda-tzunda musika. Fernando Morillo

Hemengo dontsu-**jendeari** bizi izan ditudan gertakari latz guztiak kontatzen hasiko banintz, [...]. Anjel Lertxundi

Bada zuri-**jende** gaiztorik ere, gure artean. Mirentxu Larrañaga

Men horiek gay **jendearentzat** dira eta, emakume heterosexualek, jai. Edorta Jimenez

Erdi Aro izenekoan erruz baliatzen zela jankitsu **jendea** fantasiaz. Iñaki Segurola

Konforme, baina hor ez gara ari guai-**jendeaz** edo jende guaiaz. Iñaki Segurola

**10** pertsona.

Protesta ugaria izan zen, **jendeak** milaka bildu ziren karriketan. Ramuntxo Etxeberri

Bi **jendeak** ahantziz, leihotik begira nintzela, [...]. Itxaro Borda

Kontratuan bertze hiru **jendeen** izenak aipatzen dira: Joannes de Harismendy, hargina -Jean Martin Berroet, Argaitzeko nagusia- Pierre de Barreneche, zapatagina, azken biak lekuko gisa. Herria

Espainiako Estatuan, igandeko erreferendumean, baia da nagusitu, lau **jendetarik** hiru Europako Konstituzioaren alde agertuz. Herria

Zenbat dira joak? hamabi **jende,** dotzena bat, dakigularik 250 miliun bizidun badirela Estatu Batuetan. Herria

Berrogei eta zazpi **jende** izan ziren arrastatuak. Itxaro Borda

Bere xokoan badauka zonbait **jende** goxarazirik ostatuan. Herria

Goiz goizetik sekulan Auritzen izan den jendeketarik haundiena hor zen, dozena bat mila **jende**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hango herrixka eta hemengo hiriaren artean lerratzen den mila eta mila **jenderen** urratsek leundu uhala iraganik. Piarres Aintziart

Hamar mila **jendez** azpiko herrietan. Herria

Ehun mila **jende** bazen segizio hartan. Jokin Urain

Oxtikenekoek ongi-etorri beroena egin dute hirurogoi bat **jenderi,** olerkari ezagun eta xume, ipar eta hegoaldekoak, Auxtin Zamora-ren inguruan bilduak. Herria

Ehun bat **jendek** parte hartu dute biltzar hortan. Herria

· Urrunetik, estralurtarra zitekeenari **jende** forma antzeman nion. Itxaro Borda

Muga horiek duela hamahiru urte finkatu zirela, geroztik **bi jende** kondatze izan direla, lekuka jendetzea polliki emendatu dela, beste toki batzuetan aldiz ttipitu, hori behar dela kondutan hartu. Herria

### 11 *jende arte* ik **jendarte**.

### 12 *jende aurre* ik **jendaurre**.

### 13 ***jende-klase***

Ze **jende klase** da? Zer **jende-klase** da oraingo hau? Irene Aldasoro

-Sophie-k bekainak torratzen ditu, ahoa berriz ireki aitzin- zer **jende klase** zara. Eneko Bidegain

Pozik bizitzeko motibo guztiak izan arren, bizitzaren bihurguneren batean zoritxarra zain egongo dela pentsatzen duen **jende klase** hori. Anjel Lertxundi

Israeleraino ere iritsi zen Holofernes eta, hara hurbiltzen ari zela, israeldarrak zer **jende klase** ziren jakin nahi izan zuen. Jose Antonio Mujika

### 14 ***jende-modu*** (*orobat* ***jendemodu***)

Ze **jende-modu** da? Patxi Ezkiaga

Erromatarrak, **jende-modu** errebelde eta ankerra. Askoren artean

Eta berebat gertatzen da, konparazio batera, beste **jende-modu** batzuekin. Iñaki Segurola

"Estiloa gizona da", esan zuen gizonen batek, eta paretetako literaturaren estiloa pareta horien artean ibili ohi den **jende-modua** da. Hitz zuri faltsua aho-beteka botatzen bestetan ez dakien **jende** -modu horrek. Iñaki Segurola

Ze irlandarrak oso **jendemodu** ona dira, geure estiloko mozkorti parrandazaleak. Jon Arretxe

Yuppie itxurak erakutsi nahian dabilen **jende-modu** horietako bat. Patxi Iturritegi

Bizitzeko arrazoi sakonak behar omen dira; hala deklaratu ohi dute goraki asko dakitenek: guraso, apaiz edo psikologoek; hots, bizitzeko gogoa galdutako **jende-moduak**. Iñaki Segurola

### 15 ***jende olde*** (*orobat* ***jendeolde*** *g.er. eta* ***jendolde*** *g.er.*) jende multzo handia.

Hondoa jotako aitoren seme, zimarkun eta urre-bilatzailezko **jende olde** bat lehorreratu zen Potomak-eko urertzean, eta oholezko txabolak eraiki zituzten. Juan Garzia

Desertuetako euskaldunak gu, **jende olde** ikaragarriei begira. Autografoak sinatzen ari zen ate nagusiaren ondoan, **jende olde** histerikoari eutsi ezinik. Hark zioenez, halako **jende oldearen** etorrerak hiriaren nortasuna galarazten zuen. Itxaro Borda

**Jende oldeak** jarraitzen zion kotxeari, txalo joz. Julen Gabiria

Sekulako **jendoldeak** lagundu zuen Al Sistani Najaferako bidean, ibilgailu mota guztietan. Berria - Mundua

**Jende oldean** nahasturik irten da bagoitik. Eider Rodriguez

Izan ere, gogo biziko jendeak, bere soilean bakartzera egiten baitu, eta gogo ahul eta zurikoak, **jende oldearen** zurrunbiloan bere burua babestera. Patziku Perurena

Argazkian erromesak **jende oldearen** azpian hildakoen argazkiei begira. Berria - Mundua

HZk **«jende oldea»** espero du gaur Bilboko manifestazioan. Berria - Euskal Herria

### 16 ***jende oste*** jende oldea.

Jerusalemen bildu zen **jende ostea** harriturik zagon bakoitzak bere ama-hizkuntzan entzunez apostoluen mintzaldiak. Herria

Ba Irulegin ba Baigorrin **jende ostea** ibili da elizkizunetan. Herria

**Jende oste** batez lagundua izan da bere azken egoitzarat. Herria

**Jende oste** gaitza bildu da joan den larunbat aratsaldean Aiherrako elizan, Beñat zenari azken agur baten egiteko. Herria

### 17 ***jende-talde*** (*orobat* ***jendetalde*** *g.er.*)

Ez zen horrelako **jende talderik** ardura ikusten: eskale urrintsua, alde orotarik sanoa eta planttakoa zirudien emazte xaharra eta kukusoz kateztatu ora. Itxaro Borda

Fraintzi aldetik, erromes bidea aitzaki, sartutako gizajo itxurako **jende talde** alderrai, alproja, engainadore haien kutsu negartia. Patziku Perurena

**Jende-talde** bat hurbildu zen gertalekura eta hantxe begira geratu, jakin-minez. Mirentxu Larrañaga

Erabat sakabanatuta omen zegoen militantzia, eta sekulako jende piloa -gerra ondoko **jende-talderik** ugariena- ari omen zen muga zeharkatzen; berrehunetik gora lagun. Rafa Egiguren

Eszena edo **jendetalde** bat [...] gauza sendo borobildu bihurtzeko. Anton Garikano

Gero **jende talde** eder horrek elgarrekin egin du bazkari bat ona. Herria

· **Jende-taldetxo** bat biltzen zen meza ondoren Cathedral Street izkinan. Irene Aldasoro

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**adineko jende** (15); **ainitz jende** (147); **ainitz jende bildu** (20); **aise jende** (10); **anitz jende** (19); **asko jende** (11); **auzoko jende** (10); **bertako jende** (11); **beste jende asko** (10); **bezalako jende** (22); **ehun bat jende** (9); **ehun mila jende** (14); **gazte jende** (9); **hango jende** (27); **hemengo jende** (11); **herrietako jende** (11); **herriko jende** (54); **inguruko jende** (18); **jende ainitz** (136); **jende ainitz bildu** (27); **jende ainitzek** (34); **jende alde** (69); **jende alde ederra** (20); **jende alde pollita** (13); **jende aldea** (9); **jende andana** (84); **jende andana bat** (13); **jende andana bildu** (15); **jende andanak** (14); **jende anitz** (64); **jende anitzek** (21); **jende arrunta** (29); **jende arruntak** (39); **jende arruntaren** (19); **jende arrunten** (10); **jende artean** (112); **jende arteko** (9); **jende artera** (16); **jende artetik** (33); **jende asko** (623); **jende asko bildu** (21); **jende asko bizi** (11); **jende asko dabil** (11); **jende asko dago** (47); **jende asko etorri** (12); **jende asko ezagutzen** (10); **jende asko joan** (9); **jende asko joaten** (12); **jende asko zebilen** (11); **jende asko zegoen** (24); **jende askok** (305); **jende askok egin** (10); **jende askorekin** (22); **jende askoren** (63); **jende askorentzat** (30); **jende askori** (51); **jende askorik** (15); **jende aurrean** (41); **jende bat** (26); **jende batek** (21); **jende batzu** (31); **jende batzuek** (19); **jende batzuekin** (9); **jende batzuen** (14); **jende batzuk** (26); **jende berri** (13); **jende berria** (30); **jende bildu** (79); **jende bildu da** (36); **jende bildurik** (18); **jende biltzen** (14); **jende bizi** (16); **jende dezente** (14); **jende etorri** (14); **jende ezagun** (16); **jende ezaguna** (21); **jende frango** (67); **jende frango bildu** (9); **jende frangok** (12); **jende franko** (13); **jende gaixo** (23); **jende gazte** (10); **jende gaztea** (32); **jende gazteak** (10); **jende gehien** (41); **jende gehiena** (54); **jende gehienak** (84); **jende gehienaren** (11); **jende gehienarentzat** (9); **jende gehienari** (13); **jende guzia** (41); **jende guziak** (45); **jende guziek** (20); **jende guzien** (20); **jende guzieri** (12); **jende guztia** (243); **jende guztiak** (198); **jende guztiak daki** (10); **jende guztiarekin** (20); **jende guztiaren** (54); **jende guztiaren aurrean** (19); **jende guztiarentzat** (12); **jende guztiari** (54); **jende handi** (9); **jende heldu** (17); **jende heldua** (9); **jende helduak** (12); **jende hil** (19); **jende hiltzen** (15); **jende hori guztia** (11); **jende hura guztia** (17); **jende ibili** (23); **jende ibili da** (10); **jende ikasia** (10); **jende ilara** (12); **jende jator** (9); **jende jatorra** (18); **jende klase** (12); **jende kondaketa** (11); **jende kopuru** (19); **jende kopurua** (74); **jende modu** (10); **jende mordoa** (29); **jende mota** (52); **jende multxo** (78); **jende multxo bat** (21); **jende multxo batek** (9); **jende multxo pollita** (18); **jende multzo** (88); **jende multzo bat** (21); **jende multzo handia** (9); **jende multzoa** (16); **jende multzoak** (9); **jende normala** (9); **jende olde** (9); **jende oldea** (9); **jende on** (14); **jende ona** (25); **jende onak** (19); **jende oste** (30); **jende ostea** (10); **jende pila** (31); **jende piloa** (18); **jende saldo** (17); **jende talde** (25); **jende taldea** (10); **jende ugari** (101); **jende ugari bildu** (14); **jende ugarik** (12); **jende uholdea** (9); **jende xehe** (22); **jende xehea** (44); **jende xeheak** (36); **jende xehearen** (44); **jende xumea** (9); **jende xumeak** (13); **jende xumearen** (9); **jende xumeari** (9); **jende zintzoa** (22); **jende zuzenbide** (9); **jendea jende** (13); **kanpoko jende** (10); **makina bat jende** (9); **mila jende** (44); **milaka jende** (22); **milako bat jende** (9); **miliun jende** (27); **munduko jende** (10); **oso jende gutxi** (34); **oso jende gutxik** (30); **sobera jende** (17)

**adin guztietako jendea** (13); **adineko jendea** (11); **bertako jendea** (18); **bezalako jendea** (20); **bildutako jendea** (10); **denetariko jendea** (9); **gaitzeko jendea** (19); **gazte jendea** (23); **hango jendea** (33); **hemengo jendea** (13); **herriko jendea** (37); **hiriko jendea** (9); **horrelako jendea** (9) inguruko jendea (21); **jendea arras polliki** (9); **jendea bildu** (70); **jendea bildu da** (35); **jendea biltzen** (24); **jendea bizi** (35); **jendea erakarri** (9); **jendea erakartzeko** (9); **jendea etorri** (30); **jendea etorri da** (15); **jendea etortzen** (11); **jendea ezagutu** (16); **jendea ezagutzeko** (15); **jendea ezagutzen** (11); **jendea hasi** (16); **jendea hasi zen** (10); **jendea hil** (23); **jendea hiltzen** (22); **jendea ibili** (16); **jendea ibili da** (15); **jendea ikusi** (13); **jendea ikusten** (13); **jendea izan** (12); **jendea jende** (13); **jendea kalera** (11); **jendea kantuz** (11); **jendea kexu** (12); **jendea konturatu** (9); **jendea korrika** (13); **jendea loriatua** (10); **jendea mugitzen** (9); **jendea pasatzen** (9); **jendea sartu** (16); **jendea sartzen** (11); **kanpoko jendea** (13); **mota guztietako jendea** (9); **usaiako jendea** (10)

**adineko jendeak** (17); **bertako jendeak** (14); **bezalako jendeak** (9); **euskal jendeak** (12); **gaixo jendeak** (15); **gazte jendeak** (22); **hango jendeak** (22); **hemengo bereko jendeak** (9); **hemengo jendeak** (21); **herriko jendeak** (47); **hiriko jendeak** (14); **inguruko jendeak** (20); **jendeak badaki** (16); **jendeak dio** (11); **jendeak dira** (9); **jendeak egin** (13); **jendeak egiten** (16); **jendeak esan** (19); **jendeak esaten** (21); **jendeak ez daki** (11); **jendeak ezagutzen** (10); **jendeak ikus** (9); **jendeak ikusi** (16); **jendeak ikusten** (10); **jendeak jakin** (22); **jendeak pentsatzen** (12); **jendeak uste** (58); **jendeak uste du** (23); **kaleko jendeak** (11)

**herriko jendearekin** (10)

**bertako jendearen** (9); **herriko jendearen** (17); **jendearen ahotan** (16); **jendearen arreta** (23); **jendearen artean** (104); **jendearen arteko** (13); **jendearen artetik** (9); **jendearen aurka** (9); **jendearen aurrean** (62); **jendearen baitan** (9); **jendearen begietara** (9); **jendearen beldur** (11); **jendearen erantzuna** (9); **jendearen iritzia** (9); **jendearen kontra** (12); **jendearen laguntza** (11); **jendearen parte hartzea** (24); **jendearen txalo** (9); **jendearen txaloak** (9)

**inguruko jendeari** (9); **jendeari begira** (17)

**hainbeste jenderen artean** (9)

**jendez bete** (24); **jendez betea** (24); **jendez beterik** (26); **jendez beterik zegoen** (9); **jendez beteta** (44); **jendez beteta zegoen** (12); **jendez betetzen** (11); **jendez gainezka** (104); **jendez gainezka zegoen** (32); **jendez gainezka zeuden** (10); **jendez hustu** (15); **jendez inguratuta** (10); **jendez lepo** (36); **jendez lepo zegoen** (9); **jendez mukuru**

(23); **jendez mukuru zegoen** (9)

jendealde ik **jendalde**.

jendealdi ik **jendalde**.

jendearte ik **jendarte**.

jendeaurre ik **jendaurre**

**jendedi** *iz* jendaldea, jendeketa.

Jendea zuen gogoan, haraino joateko mendia edo ibarra utzi zuen **jendedia**. Fernando Rey

Jendetzaren artetik burrunba bat sortu zen eta **jendedia,** ezinegonak harturik, asaldatzen hasi zen. Fernando Rey

**jendedun** *izond* jendea duena, jendea bizi dena.

Halere, frogaturik dago Lurra esfera itxurakoa dela, eta beraren ardatzaren mutur bietan badirela herri **jendedunak**. Xabier Kintana

· *izlag* Berrogei urtez jan zuten mana israeldarrek, **jendedun** lurraldeetara, Kanaango lurmugetara, iritsi arte alegia. Elizen arteko biblia

**jendegabe** **1** *izond* jenderik ez dagoena, jenderik bizi ez dena.

Kale **jendegabean**. Juan Garzia

Soldaduz inguratutako nasa **jendegabean**. Jose Morales

Leipzig, eskualde **jendegabea,** Waterloo, han nekazariak altxatu ziren eta bataila haren sugarra piztu zuten... Lopez de Arana

**2** ***jendegabeko*** *izlag* jendegabea.

**Jendegabeko** bide luze honek lasaitu nau. Piarres Aintziart

**jendegabetu,** jendegabe(tu), jendegabetzen da/du *ad* jende gabe gertatu; jende gabe utzi.

Hura izan zen Manausen hondamena; **jendegabetu,** eta porrot egin zuen. Jon Muñoz

Frantzia **jendegabetuko** ote den beldurra al dago? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Sargoriak **jendegabetutako** kalean aurrera. Pako Aristi

[Galtzaria] zinta elastikoa, emakumeari galtzerdietatik irtetea eta herrialdea **jendegabetzea** galarazten diona. Xabier Olarra

**jendegune** *iz* jendea bizi den gunea.

Larru-apaintzaileek Nabarreriako **jendegunean** zuten beren karrika, San Martin ospitalearen eta San Tirso elizaren artean. Aingeru Epaltza

Frantsesek mende bat lehenago suntsitu zuten **jendegune** hori. Aingeru Epaltza

San Nikolas **jendeguneko** harresi zaharrak behiala izan ziren tokian. Aingeru Epaltza

**jendeketa** **1** *iz* jende multzoa. ik **jendalde**.

Gure sala eskasegia baita halako **jendeketa** hartzeko. Aingeru Epaltza

Holako **jendeketa** ez zen sekulan etorriko, txapelketa izan ez balitz. Menane Oxandabaratz

Goiz goizetik sekulan Auritzen izan den **jendeketarik** haundiena hor zen, dozena bat mila jende. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ospitaleko atearen parean bildu **jendeketa** ikusirik. Xabier Montoia

Ez baitugu ikusten non kokatuko zen **jendeketa** hori dena, mendixka horretan. Xipri Arbelbide

Kaleak gainezka betetzen zituen **jendeketaren** artean. Fernando Rey

Isildu egin zen Sikat kaleko **jendeketan** barrena aurrera egin bitartean. **Jendeketa** horren artetik, ezin sala guk hemen nor aipa eta nor gorets, berexiz. Patxi Zubizarreta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jendeketa** handia, lekukoak edo presoen etxekoetarik guri so zeuden, isilik, begiez bilatuz ezagun bat, familiako bat. Marzel Etxehandi

Astelehenean ere berriz **jendeketa** ona ekarri du usaiako partidak. Herria

Nonahi **jendeketa** gaitzak zolaren gainean barreiatuak. Gotzon Garate

Alderdi Jeltzaleak **jendeketa** ederra bildu du Bilbon, Juan Jose Ibarretxe eta Josu Jon Imaz-en inguruan. Herria

Igandeko mezan ere **jendeketa** polita bildu zen. Elena Touyarou

**Jendeketa** gogorra biltzen baita alabainan hiri hortarat Azoka-ren karietarat. Herria

**Jendeketa** nasaian, zenbat buru, hainbertze aburu. Herria

Eta harri idor bat bezala, **jendeketa** alegeraren itsaso goxoan hondatua, sendi dut ene izaite osoa. Piarres Aintziart

Gaitzeko **jendeketa** bildu da ehorzketen karietarat. Herria

Trenaren esperoan, espaloian, sekulako **jendeketa**. Fernando Rey

Izigarriko **jendeketa** bildu da, Aiherrako elizan [...] Lauhaizetako Miren BARBIERren ehorzketetan. Herria

**3** ***jendeketako*** *izond*

Udaberriari buruz estreinatuko "A 380" **jendeketako** hegazkin erraldoia, barnean 555 lagun kokatzen ahal! Herria

**Jendeketako** itsas-untzi handi eta eder horietarik zonbait jiten dira Donibane Lohizunerat. Herria

Egunean hamar bat **jendeketako** trein direla hortik iragaiten Baionatik Hendaiarat. Herria

**Jendeketako** zerbitzuenzat ere gauza bera egitekoa dute funtsean. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bildu jendeketa** (3); **jendeketa ederra** (4); **jendeketa gaitza** (7); **jendeketa handia** (3); **jendeketa haundi** (3)

---

## jendeki[1] 1 *iz* gizakia.

**-Jendeki** soziala naiz ororen gainetik -erantsiz atera nintzen. Itxaro Borda

**2** ik **jendaki**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **familia eta jendekiari** (3)

---

## jendeki[2] *izlag* jendetasunez.

-Frantxuak bederen **jendeki** tratatuko nau! Itxaro Borda

---

## jendekin *(orobat **jendakin** g.er.)* *izond* lagunartea atsegin duena. ik **lagunkin**.

Lagunartekoa zen, **jendekina**. Gotzon Garate

**Jendekina** eta omore onekoa baitzen, ainitz lagun bazituen. Herria

Berenaz biziki gizon laketa eta xuxena, **jendekina** eta mintza-erretxa. **Jendekina,** bazituen solasean ateraldi batzu irringarri bezain ustegabekoak. Herria

Oso mutil **jendekina** izan da beti, solaskide egoki eta ikasle bizkorra. Joxerra Garzia

Gizon goxo eta **jendekin** baten oroitzapena uzten dauku. Herria

Josek fama polita bazuen Iparralde guzian, **jendakina** zen biziki, kantaria, manera ederreko pilotaria eta besta maite zuen. Michel Oronoz

Zoin gizon argia eta denbora berean zoin **jendekina**. Herria

Presuna zinez goxo, **jendakin** eta bihotz handikoa. Herria

Funky Chicken, batere **jendekina** ez den idazle isila. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **biziki jendekina** (9); **gizon jendekina** (3); **jendekina zen** (3)

---

## jendekintasun *iz* jendekina denaren nolakotasuna.

Zorionak eta ainitz urtez oraino, beren erretreta denbora goza dezatela ahal bezen goxoki, beti begiratuz denek ezagutzen diotegun omore ona eta **jendekintasuna..**. Herria

---

## jendekoi *izond* jendekina, lagunkina.

Ordurako bilduta zeuden errege-erreginak, hainbat aitorenseme eta alaba, kapare, zaldun eta elizgizon; denak **jendekoi** eta hizketa atsegineko. Anjel Lertxundi

Errana dizuet ni ez nintzela oso haur **jendekoia,** ama ez beste gizakien presentziak beldurtu, kikildu egiten ninduela. Alberto Ladron Arana

**Jendekoia** betidanik izan naiz, baina, ez dakit urteen berezko uzkurtze baten poderioz ala irakurketaren sentsibilitate erne berriaz, artaldean ez nintzela gustura sentitzen ohartu nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## jendekote *iz*

Lagunak bere inguruan bildu eta txiste-kontatzen hasten den dontsua konspiratzailetzat hartzen du begiraleen arrazak (ezagutu dudan **jendekoterik** abilena da begiraleena konspirazio-edo halako edozein zera baten itzalik txikiena ere sumatzeko orduan). Anjel Lertxundi

---

## jenderatu, jendera(tu), jenderatzen da *ad* pertsonetara igaro.

Horiek hola, ezpezializtek diote urrun gaudela kabaletarik gaitza **jenderatzetik**. Herria

---

## jenderatzaile *izond* jenderatzen duena.

Horrekin amaitzeko beharrezkoak dira neurri hezitzaile eta **jenderatzaileak,** emakume eta gizonen errespetuan eta parekidetasunean oinarrituko den balio sistema eraikiko dutenak. Berria - Euskal Herria

---

## jenderazino ik **jenerazio**.

---

## jendetasun 1 *iz* adeitasuna, gizalegea.

Hala bada, **jendetasunak** agintzen duenaren kontrara, ez zion senarraren osasunaz galdegin. Patxi Zubizarreta

**Jendetasunak** erakusten du norbaitekin hitz egiten zaudenean aurpegira begiratu behar zaiola... Josu Zabaleta

**Jendetasunak** hala galdegiten duelako [...] eta denboraren bortxaz ikasia baitu, xutitzen da ezagutzen ez duen neskari bi pott murritz emaiteko eta gizonari eskua tinkatzeko. Eneko Bidegain

**Jendetasunak** debekatzen zuen nola nahika mintzatzea, hitz gordinik ez enplegatzea. Herria

Badirudi, **jendetasunaren** maila, nor den nor, nor den zer, zer den zer, oinarri-oinarrizko bereizketa horiek egiteko behar den **jendetasun** eta sen arrunta amildegian beheiti bota dugula. Pello Salaburu

Kortesia bi aldetarako **jendetasuna** da. Herria

Izan adeitsua eta ez hitz egin handiki hauei **jendetasunik** gabe! Patxi Zubizarreta

*ik* jendetasungabe.

Luzaz, berrehun bat urte huntan, Frantziak **jendetasun** nasaia frangotan agertu du iheslarien alderat. Herria

**Jendetasun** hutsa, ala amarru maltzur bat hura ohera eramateko? Oskar Arana

-Nire aitzinetik, otoi -orain arteko **jendetasun** zuria, are zuriagoa. Aingeru Epaltza

Zeozer hartu nahi duzu? -galdetu diot, **jendetasunaren** legeak ikasten hasita. Xabier Mendiguren Elizegi

Beste hurbiltasun bat, beste **jendetasun** bat, beste gizatasun bat. Berria - Kultura

**2** gizarte harremanetarako antzea eta trebetasuna.

Mundu berri horretan beharrezkoak ziren dohain guztiak zituen: **jendetasuna** hala esanetan nola eginetan, eta antzea lan-kontuetan. Jose Morales

Nik ez nuen ez **jendetasun,** ez ondasun, ez edertasun, ez sarritan behartsuen bertute izan ohi den alaitasunik ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Pobreak eta eskaleak ziren, baina **jendetasun** apurraren jabeak ere bai. Itxaro Borda

**Jendetasunik** batere galdu gabe. Harkaitz Cano

Lasaitzeko eskatu zidan zuzendariak **jendetasunik** batere ageri ez zuten moduak erakutsiz. Joxan Elosegi

**Jendetasuna** zer den badakite hemen ere. Daniel Landart

**Jendetasunik** eza jo mugan. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkatuetan lehen osagai gisa)

**Jendetasun** arauak kontuan harturik. Patxi Zubizarreta

Aurrerantzean, **jendetasun** formulen imintziorik ere gabe [...] zerbitzatu nituen katilu te eta kafeak. Joxan Elosegi

Gizontxo haren **jendetasun** falta nabaria zen. Fernando Morillo

Hori ezin barkatuzko **jendetasun** eskasa zela eta besterik ez! Janbattitt Dirassar

**4** *ipar* pertsonatasuna, nortasuna.

Anitzetan, zure **jendetasuna** sineste kolektiboen aldarean sakrifikatzen zenuelako irudipena eduki dut. Itxaro Borda

Itsaso zabal bat jarri dut kolektiboaren eta neure **jendetasun** hazi berriaren artean. Itxaro Borda

**Jendetasunaren** geruzaren azpian ttattit aiduru zegoen kabalatasunaren antzeko zerbait. Itxaro Borda

Zeren... **jendetasuna..** . nortasun hori, badakizu? Menane Oxandabaratz

**5** ***jendetasunez*** *adlag*

**Jendetasunez** tratatzen zuten elkar. Jose Morales

Mutilak **jendetasunez** erantzun zion. Patxi Zubizarreta

Jende alde ederra bildu da, denak **jendetasunez,** hunkia den familia gogoan. Herria

-Gazte, mesedez, parkea ixtera goaz -esan dit, **jendetasunez**. Patxi Zubizarreta

**Jendetasunez** eta elkartasunez, lana gisa hartarat partikatuz denen artean. Herria

· **Jendetasun** handiz hartu ninduen Haneda jaunak bere bulego handi argitsuan. Joxan Elosegi

Kirxa, burua makurturik, **jendetasun** handiz mintzatu zitzaion: [...]. Patxi Zubizarreta

**6** ***jendetasunezko*** *izlag*

**Jendetasunezko** ongi etorria. Herria

**Jendetasunezko** irri labur, hotz eta axolagabea. Eneko Bidegain

**-Jendetasunezko** giroan ez da sekula *dick* hitza erabiltzen -esan zuen Harryk. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jendetasun eskasa** (3); **jendetasun handiz** (4)
> **egiazko jendetasunaren** (3)
> **jendetasunez eta elkartasunez** (3); **jendetasunez hartu** (4)
> **jendetasunik eza** (3)

---

# **jendetasungabe** *izond* jendetasunik ez duena.

Diziplina garratz eta **jendetasungabea** behin Loire Atlantiqueko ene lagun batek, postaren aitzinean pasatzean, ez die soldadoei agurra egiten, eskua sakelan du. Marzel Etxehandi

---

# **jendetasungabekeria** *iz*

**Jendetasungabekeria**.

---

# **jendetasunkeria** *iz*

Jesturik eta **jendetasunkeriarik** gabe lotzen zaio bakoitza bereari. Eneko Bidegain

---

# **jendetsu** 1 *izond* jende asko dagoena.

Toki **jendetsu** eta zaratatsua zen, epela eta kez betea. Iñaki Mendiguren

Marmolezko hall **jendetsura** irten zen. Lopez de Arana

Karrika **jendetsuak,** gau osoan irekirik diren jatetxe argitsuak. Ramuntxo Etxeberri

Azoka **jendetsu** baten erdi-erdian Metroko bagoi **jendetsuan**. Patxi Zubizarreta

Bi manifestaldi **jendetsu** iragan dira joan den larunbatean, Hego Euskal Herrian, helburu arrunt desberdinekin haatik, bata ala bertzea. Herria

Lehen argiarekin batean, talde **jendetsua** abiatu ginen basorantz. Joan Mari Irigoien

Badirudi ospakizun horiek ez zirela oso **jendetsuak**. Askoren artean

Hiri guztietan goiz parteko ordurik **jendetsuena** izan ohi den hamabiak inguru horretan. Anjel Lertxundi

Paxtun deitzen da hango [Afganistango] populu **jendetsuena**. Herria

**2** jende asko bizi dena.

Herri handi eta **jendetsua** zen. Elizen arteko biblia

Hiri **jendetsuak** errausturik eta herrialdea suntsituta gelditudo dira. Elizen arteko biblia

Astebete iraun zuten liskarrek, eta auto erreketak eta kale kalapitak nonahi piztu ziren aldi horretan, nola Berlinen bertan, hala Hamburgen, Frankfurten edota Alemania guztiko hiri **jendetsuenetan**. Hasier Etxeberria

Hestebete denda bat izango zuten, Plaisancen inondik ere, Parisko mutur **jendetsuren** batean. Karlos Zabala

Kalifornia da hain zuzen hango Estadu guzietan **jendetsuena**. Herria

Txinan izan ginelarik senditu ginuen herrialde zabal eta **jendetsu** horrek nahi zuela munduari ideki. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**manifestaldi jendetsu** (7); **manifestaldi jendetsu bat** (4); **manifestazio jendetsu** (10); **manifestazio jendetsu bat** (4)

**biziki jendetsua** (3); **ekitaldi jendetsua** (4); **elkarretaratze jendetsua** (3); **elkarretaratze jendetsua egin** (3); **herri jendetsua** (4); **jendetsua izan** (14); **jendetsua izan da** (6); **jendetsua izango** (8); **jendetsua izatea** (4); **manifestaldi jendetsua** (10); **manifestaldi jendetsua egin** (3); **manifestazio jendetsua** (29); **manifestazio jendetsua egin** (13); **manifestazioa jendetsua** (6)

**ehorzketa jendetsuak** (3); **jendetsuak izan** (14); **jendetsuak izan dira** (6); **jendetsuak ukan** (3); **jendetsuak ukan ditu** (3); **jendetsuena izan** (14); **manifestaldi jendetsuak** (5); **manifestazio jendetsuak** (12); **manifestazio jendetsuak egin** (3); **mobilizazio jendetsuak** (3); **oso jendetsuak** (5)

**prentsaurreko jendetsuan** (4)

**manifestazio jendetsuaren** (3)

**egunik jendetsuena** (3); **ibilaldi jendetsuena** (3); **inoizko jendetsuena** (3); **inoizko jendetsuena izan** (3); **manifestazio jendetsuena** (4); **manifestaziorik jendetsuena** (7); **manifestaziorik jendetsuena egin** (4)

---

# **jendetu,** jende(tu), jendetzen da/du *ad ipar* pertsona bihurtu.

Eta makina izateaz asperturik, **jendetu** naiz, ikasteko eta ikusteko, are gehiago ikasteko eta ikusteko. Itxaro Borda

Lanak gorputzak higatzen zizkigun [...] baina atelierretan zein bulegoetan, gutxi edo aski **jendetzen** gintuen elkartasun zerbait bermatzen zen. Itxaro Borda

---

# **jendetza** *(orobat **jendetze** g.er., **jentetza** g.er. eta **jentetze** g.er.)* **1** jende multzo handia.

Paueko karrikan **jendetza** bildu zen iheslariari ongi etorri egitera. Aingeru Epaltza

Egunkariak **jendetza** behar badu lanean, 24 orduko irrati batek, zer esanik ez. Pello Zabala

Baina han **jendetza** zegoen, denak taldeka, lurrean jakiz betetako manta handiak zabalduta, familiak, lagun koadrilak... Jon Maia

Gazte eta zahar, **jendetza** etxe guztian. Iñigo Aranbarri

**Jendetza** bat hizketan ari balitz bezala. Koldo Izagirre

Percy Weasley ahal zuena egiten ari zen **jendetza** hura sakabanatzeko. Iñaki Mendiguren

**Jendetza** ugaritzen ari zen salmenta bulegoen inguruan. Karlos Zabala

Jesusek **jendetzari** bigarrenez jaten eman. Elizen arteko biblia

**Jendetza** estu-estu zegoen polizien lerroen kontra. Lopez de Arana

Kolpistek hartu eta gero, bertara abiatu zen **jendetzak** katearen kontrolaz birjabetzea erdietsi eta kolpearen gezurrak agerian utzi zituen. Txema Ramirez de la Piscina

Zaldi zuri baten gainean zihoan hura, [...] eskuaz **jendetza** agurka. Felipe Juaristi

Esku-agurka jarraitu nintzaion **jendetza** artean aienatu zenetik gerora ere. Joxe Austin Arrieta

Gero, bira egin eta Broadwayko **jendetzaren** artean desagertu zen. Lopez de Arana

**Jendetzaren** artetik ukondoka bide eginez. Irene Aldasoro

**Jendetzaren** artetik burrunba bat sortu zen. Fernando Rey

Orduan Abdellahk, ez baitzen erraz kikiltzen zena, **jendetza** arteko norbaiti hots egin zion. Bernardo Atxaga

Itsasoaren ertzean desfilean zebilen **jendetza** artera sartu nintzen. Monika Etxebarria

Halako batean, bere talaiatik ile luzeko buru horail bat nabaritu zuen **jendetzaren** erdian. Karlos Zabala

Ematen dik ez haizela ohartzen ezkon-bizitzan hiru lagun **jendetza** dela, eta bi lagun, berriz, ezereza. Antton Olano

Gure soldaduak eta kuartelak ere **jendetzak** erabat inguratuak daude eta ezin izanen dute behatzik ere mugitu. Fernando Rey

Arrastiri osoan kurritü den **jentetzeari**. Herria

Beste behin bere [...] halantxe ibili ginan, **jentetzea** atzetik eta kantuan genduala. Xabier Amuriza

**2** (izenondoekin)

Eguerdia baino lehentxoago, *steam-boat*aren kanpaiak **jendetza** handia ekarri zuen Volgako ontziralekura. Karlos Zabala

Usaiako **jendetze** handia bilduko dela. Herria

**Jendetza** handia baitzihoan futbolera, banderak astinduz eta "aupa Madrid" oihuka. Ramon Saizarbitoria

**Jendetza** gaitza itsas aldera begira. Txillardegi

Bidegurutzean **jendetza** ikaragarria metatu zen. Lopez de Arana

Eta **jendetza** ikaragarria ezkontzen da, ongi joango zaien ziur jakin gabe. Mirentxu Larrañaga

Herri guztietatik etorritako **jendetza** kontaezina. Askoren artean

**Jendetza** kontagaitz eta kasik betidanikako horren atomo bat baizik ez naiz. Piarres Aintziart

Ez da **jendetza** makala etorri! Iñaki Mendiguren

Beti zegoelako **jendetza** berritsu batez inguratuta. Iñaki Mendiguren

1826ko uztaila zen, eta **jendetza** alaiz beteta zegoen zubia. Jon Muñoz

Kaleak [...] **jendetza** koloretsu alaiez gainezka zeuden. Irene Aldasoro

**Jendetza** haserretuaren marmarra entzun zuen. Julen Gabiria

**Jendetza** isila banatu egin zen, haiei igarotzen uzteko. Iñaki Mendiguren

Su lazgarriak iziotu dira, bizirik zeuden giza gorputzak garren elikagai bihurtu dira; ikuskizun gozatsua eta harmonia atsegina **jendetza** itsuarentzat, ke beltzaren ertzetatik irteten ziren intziri sorgor eta larriak entzutea. Juan Martin Elexpuru

**3** (izenlagunekin)

Sekulako **jendetza,** sekulako zarata, sekulako kea! Jon Muñoz

Sekulako **jendetza** ari zen biltzen han-hemendik Madison Square Garden aldean. Xabier Olarra

Egundoko **jendetza** tabernan, eta merezi duen inor ez. Sonia Gonzalez

Izugarrizko **jendetza** pilatu zen karabana igarotzen ikusteko. Jon Muñoz

Hemendik gutxira sortuko da iganderoko **jendetza,** denda zerratuen eta ate itxien artean. Monika Etxebarria

Astelehena izanik, bezperako **jendetzarik** ez. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan)

Baina **jendetza** nahaspila bat, kontzientzia bakar bat badago, edo lotzen ari bada, ez da jadanik nahaspila. Josu Zabaleta

· Palma-adarrak eta kandela piztuak zeramatzaten haur **jendetza** batek inguratzen zuen plazan burdinorizko turuta bat jotzen ari zen gizon basa bat. Juan Garzia

Espaloi zabaletan, enplegatu eta administrari **jendetza** bizi bizia zebilen. Ramuntxo Etxeberri

**5** biztanleria.

**Jendetza:** 70 milioi biztanle gutti gorabehera. Ramuntxo Etxeberri

**Jendetze** guziaren % 38 edo 40 paxtun horietarik izan behar da. Herria

**Jendetze** guziaren % 25 joa du gaitzak. Herria

Kantonamendu hortan azken urtetan sekulalo **jendetze** emendioa izan da eta orai biztanle kopuruak 14 000 jende gainditzen ditu. Herria

Nazio indartsuek baizik ez zezaketen balia delako printzipioa, hots, lurralde doi bat zabala eta **jendetze** kopuru handia zeukaten herriek, hala nola, Italiak eta Alemaniak. Piarres Xarriton

**Jendetze** arau, Frantzia da Europan lan eskasak gehienik joiten duen herrialdea. Herria

Alabainan, ikerleen arabera, **jendetzea** azkarki xahartuz joanen da. Herria

XIX. mendean alabaina, ekonomiaren beherakadak eraman gaitu **jendetzearen** erdia galtzera, eta XX. mendean ez dugu jakin herriaren odolustea geldiarazten, ez aterabide berriak asmatzen. Piarres Xarriton

· Eta **jendetze** bakotxak behar du bere nortasuna zaindu, eta euskaldunek ere, bixtan da, behar dute bere nortasuna zaindu. Menane Oxandabaratz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bilduriko jendetza** (3); **bildutako jendetza** (4); **egundoko jendetza** (4); **etorritako jendetza** (6); **horrelako jendetza** (3); **izugarrizko jendetza** (3); **jendetza artean** (6); **jendetza artetik** (4); **jendetza batu** (4); **jendetza batu zen** (4); **jendetza bildu** (15); **jendetza bildu zen** (10); **jendetza elkartu** (3); **jendetza erakarri** (3); **jendetza gaitza** (5); **jendetza guztia** (3); **jendetza handi** (10); **jendetza handia** (39); **jendetza handia bildu** (9); **jendetza handia ikusi** (5); **jendetza handiak** (8); **jendetza handiarekin** (3); **jendetza handiaren** (4); **jendetza handiena** (4); **jendetza ikaragarri** (4); **jendetza ikaragarria** (5); **jendetza ikusi** (3); **jendetza ikusita** (3); **jendetza izugarri** (6); **jendetza izugarria** (8); **jendetza osatzen** (3); **jendetza ugaria** (5); **jendetza zegoen** (4); **sekulako jendetza** (5)

**bildu zen jendetzak** (3); **bildutako jendetzak** (4); **jendetzak eta jendetzak** (3); **jendetzak txalo** (3); **oihukatu zuen jendetzak** (5)

**masatik jendetzara** (4)

**bildutako jendetzaren** (3); **irakeko jendetzaren** (7); **jendetzaren artean** (45); **jendetzaren artetik** (14); **jendetzaren aurrean** (5); **jendetzaren erdian** (14); **jendetzaren gainetik** (3); **munduko jendetzaren** (3)

**jendetze guziaren** (4); **jendetzea azkarki emendatu** (3); **jendetzearen goiti beheitiak** (3)

---

## jendetzar *iz*

**-Jendetzar** madarikatu horrek, laga ber-bertan karroza horretan gogoz kontra daramazkizuen printzesa goreneko horiek; hala egin ezik, para zaitezte bizia ber-bertan ematera, zuen gaiztakerien ordainez. Patxi Ezkiaga

---

## jendetze ik **jendetza.**

---

## jendezale *izond* jendearen lagunartearen zale dena.

Sekula ez naiz oso **jendezalea** izan, eta nire adinekoen lagunartea beldurgarriago zitzaidan atsegingarri baino... Alberto Ladron Arana

Euskaltzale, familia eta **jendezale,** eta gizon dinamiko eta fededuna. Herria

---

## jendeztatu, jendezta, jendeztatzen **1** du *ad* eremu bat biztanlez hornitu. ik **populatu.**

Egun Ukraina dena **jendeztatu** zuten lehen jende multzoak kultura tripiliarrekoak (Neolitiko garaikoak) izan ziren. Berria - Mundua

Britainiar gobernuak emigrazio hori sustatu zuen, bere *dominions* direlakoak **jendeztatzeko**. Koro Navarro

Industria-iraultzatik kanpo geratu zirenek, beraz, **jendeztatu** zuten "Mundu Berria": Estatu Batuak aurrenik (hogeita bederatzi milioi etorkin 1861 eta 1920 artean), [...]. Koro Navarro

Hor ikusi zen hiria handia eta jendetsua zela eta behar bezala **jendeztaturik** zegoela. Jose Morales

**2** (era burutua izenondo gisa)

Aire-burbuila **jendeztatu** bat zirudien kabinak. Jon Muñoz

Lurbirako lurralde **jendeztatu** eta jende gabeko guztietara. Iñaki Mendiguren

---

## jendeztatugabe *izond* jendeztatu ez dena.

Ez bakarrik Sirakusa inguruko harea, baita eskualde jendeztatu nahiz **jendeztatugabe** orotan datzana ere. Jon Muñoz

---

## jendeztatze *iz* eremu bat biztanlez hornitzea.

Hiri **barneko** jendeztatzea bultzatzean lantegi batzuek ez dute tokirik orain arteko lekuan. Berria - Euskal Herria

---

## jendilaje *(orobat **jentillaje** g.er.)* *iz* jendaila.

Soldadu lana egiten dutenak **jendilajea** baitira denak. Koldo Biguri

Protestanteak **jendilajea** zirela erakutsi zidaten eta Luterori gorroto hartu nion. Karlos Zabala

-Zuretzat mundu guztia **jendilajea** da. Sonia Gonzalez

-Denok gara estilo bereko **jendilajea** -oihu egin zuen beste batek. Fernando Rey

**Jendilaje** klase hori, sariaren desiraz baino areago, eta baita ihes egiteko nahiaz baino areago, traizioaren beldur izaten da. Koro Navarro

-Politikariak, kazetariak, ederra **jendilajea**. Anjel Lertxundi

Bainu-jantzitan ere igartzen zaie dolardunak direla; eta horien ahotsak [...] ene, zeinen jasanezinak diren, hori bai hori Ongizatearen **Jendilajea..**. Joxe Austin Arrieta

Mundua zornatzen doskun **jentillajearengandik** oso-oso urrun. Sonia Gonzalez

---

## jendolde ik **jende 15.**

---

## jene ik **gene.**

---

## jeneral[1] *(orobat **general** g.er.)* **1** *iz* armada baten edo armadaren atal nagusi baten gainean buru gisa agintzen duen

militarra.

Baina funtzionario hura **jenerala** zen, eta gure Kopeikin, aldiz, kapitain arrunta. Jose Morales

Horrelako gauzak **jeneralek** egiten dituzte, ez komandanteek. Pako Aristi

Lizarran hartu zuen uniformea **jeneral** batena zela konturatu zen. Koro Navarro

Eta gero aginduak ematen zizkidan **jeneral** batek bezala. Pello Lizarralde

Jose Peron koronela, gero **jeneral** izendatua. Edorta Jimenez

Cherburgen alemaniarren lau **jeneral** hil dira, eta beste bi preso hartu dituzte. Josu Zabaleta

Detektibea itzal handiko **jeneral** batekin ari da. Anjel Lertxundi

Ez da seinale ona **general** batek hezkuntzako edo kulturako kontuetan muturra sartzea. Berria - Kultura

Asparrots gaskoia dugu **jeneral**. Aingeru Epaltza

Enperadorearen **jeneral** guztien buru egiten zuenari. Felipe Juaristi

*ik beherago* 4. Askoren artean

Esan zioten bazela goi-mailako batzorde bat, kontseilu-moduko bat alegia, ulertzen?, halako eta halako **jenerala** buru zuena. Jose Morales

Lizarraga **jeneralaren** hiru batailoi gipuzkoarrak. Txillardegi

Martínez Campos **jeneralak** hemengo agintea hartu zuenez geroztik, oso giro pozointsua zegok "facciosoen" kontra. Txillardegi

**Jeneralaren** idazkari nagusia. Jose Morales

-Eskerrik asko, ene **jenerala**. Koro Navarro

-Aurrera, **jenerala** -esan zion tsarrak hotz eta motz-. Karlos Zabala

-Esan nahi duzu, **jenerala,** atzerriratuak inbaditzaileekin elkartuko direla? Karlos Zabala

Alias komandanteak **jeneralarenean** eman du gaua logika soilari buruz eztabaidatzen. Josu Zabaleta

· *irud/hed* Aita Olivak, jesuiten **generalak,** idatzitako izendapen-agiriak ikusi zituztela. Juan Martin Elexpuru

Gogora hadi Duranekin [...] inoiz militar antzeetan ikasi gabea eta musikagilea zena eta mutil jatorra zena, eta gero deabruaren **jeneral** ona bihurtu zena. Edorta Jimenez

**2** (izenondoekin)

Liberalen **jeneral** haundi bat Orreagara etorri da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Atezainak berak **jeneral** handi baten itxura zuen: makila urrekara, konde-aurpegia, ondo gizenduriko dobazakur potoloa ematen zuen. Jose Morales

Napoleon izigarriko **jeneral** jeinutsua zen leku zabaletan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Elio **jeneral** patxadatsua iritsi zain. Txillardegi

Terride izeneko **jeneral** odol-gosea. Aingeru Epaltza

Nkunda **jeneral** matxinoak ere Ruandaren laguntzarik jaso izana ukatu zuen. Berria - Mundua

Leonardo Canal **jeneral** eskuinzalearen armadan sartu zen, kapilau militar. J.M. Olaizola "Txiliku"

Une hartan bertan iritsi zen don Karlos Borboikoa, erregenahia, **jeneral** karlisten estatu nagusiaz eta Vendéeren aldeko zenbait frantsesez inguratua. Koro Navarro

Villapadierna **jeneral** liberala Erriberitik harantz zihoala jakin genuen guk Zugarramurdin. Txillardegi

Afrikako militar oilartu batzuk eta Iruñeko komandante-buru Mola **jeneral** faxistak Errepublikaren kontra jo zuten. Edorta Jimenez

*El Campesino* **jeneral** komunistaren Brigada. Edorta Jimenez

Nobleziako **jeneral** aleman bat. Josu Zabaleta

Har ditzatela euren Sam Browne gerriko guztiak eta **Jeneral** Gorenari ipurtzulotik sartu... Lopez de Arana

Andrew Jackson zen **jeneral** nagusia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gerra garaian parlamentuak **Jeneral** Agintari Nagusi izendatu zuen Cromwel. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (izenlagunekin)

Ventura Caro español **jeneralak** desegin zuen zaintoki hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Albaniar **jeneral** hau, industria-garapenaren garrantziaz oharturik eta Frantziaren laguntzarekin [...] herrialdea modernizatzen saiatu zen. Koro Navarro

"Zergatik gelditu zarete?" egiten zuen orro Chikamaugan erasoa agindu zuen dibisioko **jeneral** batek. Xabier Olarra

Bonapartek artileriako **jeneral** izendatu zuen eta Rhin-eko gudarostera bidali. Jon Muñoz

Estatu Batuetako Armadako **jeneral**. Alberto Ladron Arana

**4** (hitz elkartuetan)

Hori gertatzen da Paul Aussaresses **jeneral** ondoak idatzi duen liburuarekin. Herria

Francisco Francok bere **jeneral** uniformearekin arbel gainetik zaintzen gintuen. Joseba Sarrionandia

Baxu-ahots apur bat erlastua, **jeneral**-mugimenduak. Jose Morales

Batek daki nola hartuko duten **jeneral**-mailara iritsi direnek. Jose Morales

**Jeneral**-algunak oso berri txarrak eman zizkion M. Charroni. Matías Múgica

Eisenhower dibisio **jeneral** izendatu zuten 1942an. Alberto Ladron Arana

**5** ***jeneral buru*** jeneralen buruzaia.

Zoaz **Jeneral Buruarengana**. Koro Navarro

-Gizon honek gutun batzuk dakartza **Jeneral Buruarentzat**. Koro Navarro

Ramón Nouvillas "Norteko" **jeneral- buru** liberalaren aginduz. Txillardegi

Tío Tomás-en (Zumalakarregiren) oinordeko agertzen baitzen Nikolas Ollo (Nafarroako gure **Jeneral-Burua)**. Txillardegi

Inor ez da besterik gabe, hau da, arrazoi pribaturik gabe, **jeneral-buru,** edo anarkista, edo sozialista, edo erreakzionario egiten. Matías Múgica

**6** ***jeneral ohi*** jeneral izandakoa.

Errepublikaren **jeneral ohi** Asensiok kontaktatu zuen Agirre. Edorta Jimenez

Guillermo Garin **jeneral ohi** eta Pinocheten eledunak. Berria - Mundua

Falujako Brigadako buruzagi nagusia Husseinen guardia presidentzialeko **jeneral ohi** bat dela. Berria - Mundua

Armadako **jeneral ohi** Susilo Bambang Yudhoyono. Berria - Mundua

Enrique Rodriguez Galindo Espainiako Armadako **general** ohiari. Berria - Euskal Herria

**7** ***kapitain jeneral*** espainiar armadako jeneral gorena.

**Kapitain Jeneralaren** jazkera anpurusaz jantzirik, Don Carlos bera zen heldu. Txillardegi

Don Carlosek, berriz, txapel gorria zeraman, eta **Kapitain Jeneralaren** uniformea. Txillardegi

Gero, botila bat Madeirako ardo ekartzeko agindu zuen, kapitain **jeneral** batek inoiz edango lukeena baino hobea. Jose Morales

Massachusetts-eko gobernadore izendatu zuen erregek, Maineko eta Eskozia Berriko kapitain **jeneral**. Juan Garzia

**8** ***teniente jeneral*** jeneral gorenaren azpikoa.

Armadako idazkari Jose Miguel Soto **teniente jeneralak** eman zuen berria atzo. Berria - Mundua

Koalizio indarren komandante Ricardo Sanchez **teniente jeneralak**, berriz, euren asmoa Moktada Al Sadr «atxilotzea edo hiltzea» zela adierazi zuen astelehenean. Berria - Mundua

Hautsak harrotu ditu Espainiako Armadako **teniente jeneral** Jose Mena Aguadok herenegun Espainiako Konstituzioaz eta Kataluniako estatutu proposamenaz eginiko

adierazpenak. Berria - Mundua

Estrategia horretan, Otegiren ustez, une honetan edozein tresna erabiltzeko prest agertu da: gotzainak, **teniente jeneralak**, irrati kateak, auzitegi nazionala... Berria - Euskal Herria

· Louis-Charles Machault (1667-1750), poliziako **teniente generala**. Juan Martin Elexpuru

**9 *lotinant jeneral*** jeneral gorenaren azpikoa.

Nafarroako Erresumako lotinant **jeneral** Antonio Agaramontekoaren sinadura. Aingeru Epaltza

Agaramont kendu eta Arros ezarri zuen erresumako lotinant **jeneral** eta armadaburu. Aingeru Epaltza

Uztail erdiko arratsalde batean, Biarnoko **lotinant jeneralarengana** deitu ninduten berriz. Aingeru Epaltza

**Lotinant jeneralak** begirale tropa bat igorri zuen Nabarrenkoxetik, presoak bere aitzinera ekar zitzaten. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**armadako jeneral** (14); **clark jeneral** (5); **dio jeneral batek** (3); **erresumako lotinant jeneral** (4); **espainiako armadako jeneral** (3); **guardia zibileko jeneral** (17); **jeneral buru** (4); **jeneral burua** (4); **jeneral estatubatuarrak** (5); **jeneral ingeles** (3); **jeneral izendatu** (5); **jeneral izendatu zuten** (3); **jeneral kargua** (4); **jeneral karlista** (3); **jeneral mark kimmitek** (3); **jeneral ohi** (8); **jeneral ohia** (28); **jeneral ohiak** (22); **jeneral ohiarekin** (4); **jeneral ohiaren** (5); **jeneral ohiari** (6); **kapitain jeneral** (3); **kapitulu jeneral** (5); **kontseilari jeneral** (7); **kontseilu jeneral** (25); **lehen ministro jeneral** (3); **lotinant jeneral** (7); **ministro jeneral** (21); **ministro jeneral zen** (4)

**armadako jenerala** (5); **barzani jenerala** (7); **jenerala etorri** (3); **jenerala hil** (4); **jenerala izan** (6); **jenerala izan zen** (3); **jenerala izendatu** (6)

**dio jeneralak** (19); **erantzun zuen jeneralak** (8); **esan zuen jeneralak** (24); **galdetzen du jeneralak** (10); **jeneralak adierazi** (4); **jeneralak azaldu** (4); **jeneralak berak** (7); **jeneralak eman** (6); **jeneralak emandako** (3); **jeneralak erantzun** (3) jeneralak esan (9); **jeneralak estatu** (12); **jeneralak hartu** (3); **jeneralak zehaztu** (4); **jeneralak ziurtatu** (5); **lotinant jeneralak** (4); **pentsatu zuen jeneralak** (5); **philippe rondot jeneralak** (3); **ricardo sanchez jeneralak** (4); **richard myers jeneralak** (6); **rondot jeneralak** (5); **sanchez jeneralak** (5); **shwe jeneralak** (3); **smith jeneralak** (3); **sultan jeneralak** (3); **taguba jeneralak** (5); **teniente jeneralak** (10); **than shwe jeneralak** (3); **zion jeneralak** (10)

**jeneralaren aginduz** (3); **jeneralaren hitzak** (6); **jeneralaren hitzetan** (3); **jeneralaren izena** (4); **jeneralaren izenean** (4); **jeneralaren operadore pertsonala** (7); **teniente jeneralaren** (5)

---

# jeneral[2] 1 *izond* orokorra, orotarikoa; nagusia.

*Samur*ek [...] esan nahi duena, bere esaterik oinarrizko eta **jeneralena,** da "erraza". Iñaki Segurola

Izenik esan gabe eta oso modu **jeneralean** aipatu baitzuen bere negozioen nondik norakoa. Anton Garikano

*ik beherago* 2. Askoren artean

Ibaia, karretera **jenerala** eta trenbidea. Joseba Sarrionandia

Dudarik gabe jujamendu **jenerala**! Itxaro Borda

Hango apaiz jaunarekin konfesio **jenerala** egiten. Juan Garzia

Gure Elkartea ere batzar izugarri handia da eta, Sinodo **jeneralak** bezala, munduko alde guztietako jendea bizimolde batean biltzen duena. Askoren artean

1970. urtean epaiketa militarra izan zuten Burgosko Kapitaintza **Jeneralean**. Rafa Egiguren

**2 *jeneralean*** *(138 agerraldi, 43 liburu eta 24 artikulutan)* *adlag* gehienean, maizenik. ik **normal 3; orokor 5**.

**Jeneralean** gauzen kontra egon ohi gara. **Jeneralean** "sena" esaten zaion horretaz ari dela uste dut. Iñaki Segurola

Gure afaria **jeneralean** tortilla bat eta Liebig zopa bat izaten zen. Fernando Rey

Zer da hau?", "zertan ari naiz?", "ze zentzu du honek?", "nondik nora nabil edo noa?"... izan ohi dira **jeneralean** paranoia arduratsuaren galderak. Iñaki Segurola

Unibertsitateko eskalafoian gora samar daudenak izaten dira **jeneralean** epaile: irakasle titular eta katedratikoak, alegia, lanpostu finkoa eta soldata polita dutenak. Joxerra Garzia

Gure jenerazioneak (badu alabainan mende erdi bat) ez zuen eskola handirik, 14 urtetan jalgitzen ginen **jeneralean** eskolatik. Herria

Zakurrak zituzten etxea zaintzeko, eta, **jeneralean** lotuta egoten baziren ere, egun hartan lotu gabe topatu zuen Amak bertako zakur bat. Xabier Etxabe

Nietzsche filologo trebea zen, halere arlo honetako bere etimologiek ez dute **jeneralean** gehiegi balio. Joxe Azurmendi

Gerra pasatakoak orojaleak dira **jeneralean:** edozer gauza jaten dute. Xabier Etxabe

Adrianen amak termo batean ekarritako kafea edanez esertzen zitzaigun aurrean, kafe hari bere petakako koñak tanta batzuk gehitu ondoren **jeneralean,** eta halaxe hasten zen gurekin hizketan. Bernardo Atxaga

Irri xitala egiten du fededunak **jeneralean**. Patziku Perurena

Mahaiaren erdian eltzea jartzen zuten, potajez betea **jeneralean**. Xabier Etxabe

Ile beltza du, luzea eta kizkur-kizkurra, baina bilduta eramaten du **jeneralean**. Xabier Etxabe

Behean dagoena, behean ez ezik azpian ere bai-baitago **jeneralean**. Joxerra Garzia

Behin erabaki bat hartuz gero, ez dut aldatzen, **jeneralean**. Xabier Olarra

**3 *bikario jeneral***

Eta orduan Jean Hiriart-Urruty **bikario jeneral** zena hortaz arduratzen baitzen, hark erran zautan: "bainan nolaz, Daniel, egin duzu hori frantsesez? Menane Oxandabaratz

Pierre Narbaitz, (1910-1984) Azkaratekoa, Baionako **bikario jeneral** ohia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pedro Cattani hiltzen da, eta Anai Eliasek ordezkatzen du **Bikario jeneral** bezala. Askoren artean

Gutuna [...] Ordenako **Bikario jeneralak,** anai Eliasek, Frantziako Ministro probintzialari eta anaiei idatzia da. Askoren artean

**4 *kapitulu jeneral***

1222an Asisen egin zen batzar nagusian **(kapitulu jeneralean),** 3.000 edo 5.000 (iturri ezberdinen arabera) anaia bildu zen. Askoren artean

**Kapitulu jenerala** Portziunkulako Santa Marian egin zen, 1227ko maiatzaren 30ean. Askoren artean

**Kapitulu jeneral** honetan, Alemaniako administrazioa bi zatitan banatu zuten: bata Rhinekoa eta Saxoniakoa bestea. Askoren artean

Izan ere, 1244an Genoan eginiko **Kapitulu jeneralak** Frantziskori buruzko ahalik eta dokumentazio zabalena biltzea agindu zuen. Askoren artean

Aita santuaren aholkuz eta borondatez eta **Kapitulu jeneralaren** oniritziz. Askoren artean

**5 *kontseilu jeneral*** kontseilu nagusia.

Diputatzioak konparazione gure **kontseilu jeneral** edo orokorraren gisakoak direla bainan aise eskubide gehiagorekin... Herria

Massard izeneko bat da, nik uste, Seine-ko **kontseilu jeneraleko** president-ordea, Kanadako eta Estatu Batuetako kazeta katolikoetan idazten zuena. Marzel Etxehandi

Horrengatik da Pauen Nafarroako Parlamentua deitzen den palazio bat, departamenduko **Kontseilu Jeneralaren** biltzar lekua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pauen, **kontseilu jenerala** bildu da bere presidentaren hautatzeko. Herria

Departamendu berri bat egiten bada, **kontseilu jeneral** berri bat ere izanen da, Baionan bil litakeena. Herria

**Kontseilu jeneraleko** hauteskundeetan. Herria

Hiriburuko kantonamenduan, Jean-Pierre Destrade deputatu ohia da **kontseilu jeneraleko** hautetsia. Herria

Orai beraz egundainokotan, **kontseilu jeneraletik** departamendu-kontseilurat pasatuko gira. Herria

**6 *kuartel jeneral*** kuartel nagusia.

Mustafa Barzani gure herriaren buruzagiaren **kuartel jenerala**. Juan Kruz Igerabide

Hantxe zeukaten kuartel **jenerala**. Patxi Iturritegi

Woolwortheko **kuartel jeneralean,** goiko pisuetako emakume haurdunak eta umeak oihuka entzuten zituen tarteka. Harkaitz Cano

**Kuartel jenerala** airez erasotzeko aukera. Harkaitz Cano

**7** ***ministro jeneral*** frantsiskotarren ordenako buruaren izena.

Ordenako lehen **Ministro jeneral** bezala anai Joan Parente hautatu zuten. Askoren artean

Espainiako Ministro probintziala zen **Ministro jeneral** izendatu zutenean. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bikari jeneral** (3); **bikario jeneral** (17); **jeneral edo orokor** (4); **jeneral edo orokorrak** (4); **jeneral edo orokorraren** (7)

**bikari jenerala** (3); **bikario jenerala** (21); **jaun bikario jenerala** (3); **kapitulu jenerala** (5); **kontseilari jenerala** (5); **kontseilu jenerala** (18); **kuartel jenerala** (3); **ministro jenerala** (24)

**bikari jeneralak** (5); **bikario jeneralak** (11); **camino bikario jeneralak** (3)

**kapitulu jeneralak** (5); **kontseilu jeneralak** (19); **ministro jeneralak** (31)

**kapitulu jeneralaren** (8); **kontseilu jeneralaren** (19); **kontseilu jeneralaren berritzeko** (3); **kontseilu jeneralaren izenean** (3); **lasserre kontseilu jeneralaren** (3); **ministro jeneralaren** (15); **ministro jeneralaren eta** (3); **roata jeneralaren** (3)

**ministro jeneralari** (20)

**kapitulu jeneralean** (12); **kontseilu jeneralean** (27)

**kontseilu jeneraleko** (13); **kontseilu jeneraleko bozak** (3); **kontseilu jeneraleko bozentzat** (3)

**kapitulu jeneralera** (5)

**kontseilari jeneraletarik** (3); **kontseilu jeneraletik** (5)

---

# **jeneraldu**, jeneral(du), jeneraltzen da/du *ad* jeneralizatu.

Garrantzizkoa da krisiaren kontzientzia hori guztiz arrunta zela ohartzea, oso **jeneraldua** zegoela, ezkerreko muturrean zein eskuinekoan Joxe Azurmendi

---

# **jeneralisimo** *(orobat **generalisimo**)* **1** *iz* Espainiako diktadore Franco jeneralari ematen zitzaion izena.

Espainian, Francisco Franco jenerala, **jeneralisimo** eta gobernuaren buru izendatu zuten. Joseba Sarrionandia

Alkateak habano bat ekarri zion aitari, eta Blanco y Negro errebista ere bai, portadan **jeneralisimoaren** erretratua zekarrena zaldiekin, banderekin eta mairuekin. Joseba Sarrionandia

Espainian Franco **generalisimoaren** etsaia da. Edorta Jimenez

Euskaldunen amets zoroak betirako zapuztu nahi izan zituen Kaudilloa, **Generalisimoa** . Koldo Izagirre

**2**

Itsasoaz alde honetan Trujillo **generalisimo** eta bera min-minak dira. Edorta Jimenez

---

# **jeneralizatu**, jeneraliza(tu), jeneralitzatzen *(orobat **generalizatu**)* **1** da/du *ad* erabat zabaldu.

Otorduz kanpoko elikadura **jeneralizatuko** den heinean. Edorta Agirre

Hauxe da Mendebaldean edo lehen munduan, oro har, aurki **jeneralizatuko** den elikatze estiloa. Edorta Agirre

Boterean giro hori eta despotismoa **jeneralizatu** direlarik, [...]. Edorta Agirre

**Jeneralizatzen** hasiak dira horrelako komertzioak. Edorta Agirre

**2** orokortu.

Xehetasun horietatik **generalizatzeko** edo kausa-ondorioen edo historiaren arabera egituratzeko. Xabier Olarra

Oroitzea harremana ezartzea da beti, **generalizatzea,** errekategorizatzea. Xabier Olarra

Ahalmen global edo integratzaile horrek ahalbidetzen dizkigu **generalizatzea** eta gogoeta egitea eta, orobat, subjektibitatea eta bere buruaz jabetzen den ni bat garatzea. Xabier Olarra

**3** (era burutua izenondo gisa)

Antibiotikoen erabilera **jeneralizatu** edo indiskriminatua. Edorta Agirre

---

# **jeneralizazio** *(orobat **generalizazio**)* *iz* jeneralizatzea.

Ohartzen naiz egin berri dudan **generalizazioren** arriskuaz. Anjel Lertxundi

Enuntziatu fisikoak justifikatzeko ezin lor ditzakegun -indukzioaren arazoa dela eta- **generalizazioak** beharko genituzkeelako. Askoren artean

Jendeari gehiago gustatzen zaizkiok **jeneralizazioak** . Anjel Lertxundi

**Generalizazio** asko dakartza berekin, baina teoriarik oso gutxi. Juan Garzia

---

# **jeneralki** *adlag* gehienean, maizenik.

Baina, **jeneralki,** mintzatzeko momentuetan nahi ginuke euskararen erabiltzera arribatu. Herria

---

# **jeneraltza** *iz*

**Jeneraltzak** jaisten dira. Xabier Olarra

---

# jenerazio ik **generazio**.

---

# jeneriko ik **generiko**.

---

# jenero ik **genero**.

---

## jeneros *(orobat* ***jeneroso****)* *izond ipar* eskuzabala.

Presuna giristinoa, mezetan jarraikia jitez bihotz onekoa eta **jenerosa**. Herria

Giristinoak baino giristinoagoak eta **jenerosoagoak,** guztia guztien artean partitzen zutenak. Joan Mari Irigoien

---

## jeneroski *adlag ipar* eskuzabaltasunez.

Hamargarren urtekotz gure herrian egun horren moldatzeaz arduratu direnek eskerrak bihurtu nahi dituzte beren lana, moltsa eta beren bihotzak hoin **jeneroski** ideki eta zabaldu dituzten herritarreri. Herria

Herriko elkarteetarat ere hedatzen zen **jeneroski** Herria

---

## jenerostasun *iz ipar* eskuzabaltasuna.

Etxetan beren emaitzak egin ondoan bazkari eta afarian aurkitu direnak beren **jenerostasuna** nasaiki erakutsiz. Herria

---

jenetiko ik **genetiko**.

---

## jengibre *(orobat* ***jenjibre****)* **1** *iz* bizigarri gisa eta edari bizi bat egiteko erabiltzen den indiar landarea, erraboil urrintsu eta bizia duena *(Zingiber officinale)*. ik **gingenbra.**

Drogagileak opio greziarra hartu zuen, eta kubaba txinarra; horrez gain, kanela, iltzea, **jengibrea,** piperrautsa eta mendiko sugandila ere bildu zituen. Patxi Zubizarreta

Aza hartzituz osaturiko janaria, gatza, piper, **jenjibre** eta halakoekin ondua. Juan Kruz Igerabide

Arrain freskoa, **jengibre** mina eta *noodles* egin berriak. Javi Cillero

Elkarrekin oheratzea, batera bainatzea, labean **jengibrezko** bizkotxak egitea, elkarren arropak probatzea. Oskar Arana

Zintzur bustitzea: **gingembre** jusa, bissap, samousas eta accras. Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jengibre**-opil bat eskatu zuen, eta, liburua zabaldurik, nobela irakurtzeari ekin zion. Anjel Lertxundi

Bulegoko mutilak ekartzen zizkion **jenjibre**-opilez elikatzen zen. Pablo Sastre

Arroz-budina bakarrik geratzen zen, eta zartagin erdi bat **jengibre**-ogi, oso ona atera ez zena. Anton Garikano

Aitak zorrotik **jenjibre** pastel puxka bat eman zion Lucyk tea zerbitzatzen dio, eta **jenjibre**-gaileten paketea eskuratzen dio. Anton Garikano

Oilaskoa borborka ari den tomatean, **jengibre** eta komino usaina dariola. Oskar Arana

---

## jenial *(orobat* ***genial*** *g.er.)* **1** *izond* jenioari dagokiona, jeniotik duena. ik **jeniodun.**

Taula gainean, hiru gizonezko, hiruak **jenialak**. Jostuna zen, kreatzaile **jeniala**. Edorta Jimenez

Tsíui Pĺn nobelagile **jeniala** izan zen, baina hura zen bezalako letra-gizon batek ez zuen noski bere burua nobelagile soiltzat joko. Juan Garzia

**2** (gauzei buruz)

Hausnartu eta hausnartu azkenean gai **jeniala** bururatu zitzaidan ipuin luze bat idazteko. Jon Arretxe

Beste ideia **jenial** bat izan dut hurrengo libururako. Jon Arretxe

Loroak harrigarri agudo, inteligentzia **jenial** batekin. Matías Múgica

Jokabide zentzuduna ei deritzo, antiekonomikoa izan arren, zinez **jeniala,** eta sakona. Joxe Austin Arrieta

Burubide **jenialen** bat izango nuela noizbaiteko batean. Matías Múgica

Intuizio **jenialez,** pasadizo bitxiz eta boutadez josia izaten zen beti haren jardun itxuraz inprobisatua. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ideia jenial** (3)

---

## jenialki *adlag* jenialtasunez.

Bigarren ordena hori labirinto miragarri bat da, **jenialki** ordenatua itxurazko desordena baten barruan. Xabier Kintana

---

## jenialtasun *iz* jeniala denaren nolakotasuna.

**Jenialtasunari** buruzko teoriak. Bernardo Atxaga

**Jenialtasuna** ez dela, dio, harribitxietan bildurik aurkitzen, hautsa bezala barreiaturik baizik. Joxean Agirre

Inspirazioa bera bezala, **jenialtasuna** dohain sekretua zen, esoterikoa, sorleku ezezagunekoa. Bernardo Atxaga

Baina haren **jenialtasun** ukaezinaren atzean, haurtzaro zaila dago. Berria - Kirola

Duintasuna lehenesten zuten guztiek, **jenialtasunaren** aurretik. Anjel Lertxundi

---

## jenio *(230 agerraldi, 75 liburu eta 39 artikulutan; orobat* ***genio*** *g. er.)* **1** *iz* gainerako gizakien gainetik goratzen duen gaitasun gailena duen pertsona. ik **jeinu 2.**

Santu bat da, guru bat, **jenio** bat. Xabier Olarra

Badira nortasun-gaietan **jenioak** direnak, musikan edo poesian ere **jenioak** izaten diren bezala. Ander Irizar

Agian erregelek on egingo diote idazle arruntari, baina ez **jenioari**. Bernardo Atxaga

**Jenioa** arrazoia baino gorago dago, eta ezin da makurtu eredu edo argudio jakinetara. Bernardo Atxaga

Otto Weining ere horrelakoxea zen, zoroa eta **jenio** bat. Koro Navarro

Ez naiz **jenio** bat, zuzendari-karguduna izan arren, baina gero eta jasangaitzago egiten zaizkit gazte jende horiek, beren tonua, beren hantustea. Joxe Austin Arrieta

Lana aparta da, **jenio** baten fruitua. Berria - Kultura

Noiznahi zutitu daiteke buruzagia; **genioa,** nola politikan hala beste guztian ere. Anton Garikano

Tvardovskik lan bikaina zela aitortu zuen, aparta eta sekulakoa, **jenio** batena, baina liburua ezin zela argitaratu. Felipe Juaristi

Matematikako **jenioa** omen, baina matematikariek ez dute halakotzat aitortzen. Jon Muñoz

**2** (izenondo gisa)

-Testua... interesgarria da -adierazi zuen irakasle **jenioak**. Fernando Morillo

**3** (izenondoekin)

Ospearen eta arrakastaren eztia ondo dastatu eta gozatuta hil baita Orioko **jenio** handia. Joxerra Garzia

Munduak bere historian inoiz izan dituen artista eta **jenio** handienetako batzuk. Pello Salaburu

Gizon lodikote hura **jenio** hutsa zen supersokei eta kromodinamika kuantikoari zegokienez. Fernando Morillo

**Jenio** gailena izateaz gainera, matematikan aritzeko gose asezina du. Jon Muñoz

Berak sortutako zenbait pieza ere jotzen ditu; horietako bat, "Battle of Manassas" izenburukoa, koloretsu eta bikaintzat har daiteke, zinez **jenio** musikal itsu batek bere kabuz sortutzat. Xabier Olarra

Beste Garrinchak ere -Botafogo-ko **jenio** brasildarrak-. Joan Mari Irigoien

Lehena Alan Turing zen, **jenio** matematikoa. Fernando Morillo

**4** ik **jeinu 3**.

Jacques Chirac Frantziako presidenteak **«jenio** zibil frantziarraren ikur berritzat» jo zuen zubia, nahiz eta Erresuma Batuko Norman Foster arkitektoak diseinatu «arte eta arkitektura miraria». Berria - Gaiak

**5** aiurria, izaera.

Baina Martinek ez zuen **jenio** hori erraz kontrolatzen. Alberto Barandiaren

Nik neuk ere **jenio** bizia nuen. Joan Mari Irigoien

Ozpina bezain **jenio** bizi eta mina zuen. Anjel Lertxundi

Anai Jaxinto nortasun handiko gizona zen eta ni **jenio** bizikoa. Joan Mari Irigoien

**Genio** biziko pilotaria zara kantxan; horrek lagundu dizu? Berria - Kirola

Neure **jenio** erasokorrak bultzaturik. Xabier Olarra

Manex mutil ona da, azken finean, aitaren **jenio** txarra badu ere. Lander Garro

Eskularruak erantzi eta **jenio** txarrez eseri da plastikozko eserlekuan. Eider Rodriguez

Hermioneri berehala itzuli zitzaizkion bai arnasa eta bai **jenio** petrala. Iñaki Mendiguren

Pertsona ona, **jenio** berezia... Xabier Amuriza

Oriotarren kasta eta **jenioa** ditu baina emakume langilea eta atsegina izan da beti. Xabier Etxabe

**6** jainko modukoa edo alegiazko izakia, ahalmen bereziak dituena. ik **jeinu 5**.

Baina *hautsak* deitzen genien etxeko sutan bizi ziren **jenio** zaharrei ere. Anjel Lertxundi

Halako batean, Jentil-baratzako gaueko **jenio** ahaideak agertu dira gelaren erdian, Gaueko buru dutela. Anjel Lertxundi

Akerbeltz **jenio** azienda-zaintzaileari. Anjel Lertxundi

Gau hartan harri-garraioan ibili ziren **jenioak,** eta saratarrek ozen asko entzun bazituzten ere haien lanerako adoreak -to, Mikolas; ekar, Mikolas-, ez zen saratarrik irten leihora, indartsuagoa baitzuten izua jakin-mina baino. Anjel Lertxundi

**7** *jenio-txartu* ik **jeniotxartu**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aitaren jenio** (4); **jenio ahaideak** (3); **jenio bizikoa** (17); **jenio biziz** (4); **jenio handia** (3); **jenio hutsa** (4); **jenio maltzurra** (4); **jenio maltzurraren** (4); **jenio txarra** (7); **jenio txarreko** (4); **jenio txarrekoa** (7); **jenio txarrez** (5); **santosen jenio txarra** (3)

---

# jeniodun *izond* jeniala.

Artista bat zenbat eta **jeniodunago** eta indartsuago izan, orduan eta tresna gutxiago beharko ditu. Joan Mari Lekuona

· *izlag* Pertsona bezala apala, baina **jeniodun** musikoa. Pako Aristi

---

# jeniotasun *iz* jenialtasuna.

**Jeniotasunari** esker atera zen txapeldun, beharrezkoak ez ziren arriskuak hartuz ordea. Berria - Kirola

Hura ere Oteizaren **jeniotasunaren** ondorio zen noski. Iñaki Iñurrieta

Lan honek, bere egilearen ekoizpenaren ezaugarri onenak dauzka: sorkuntza, ironia eta **jeniotasuna**. Berria - Kultura

---

# jeniotsu *izond*

Oteiza, bere xaman ahots eta guzti, bere izate zakar **jeniotsu** eta guzti, Orioko hondartzako zuloetan ezkutatzen zen haurra da, hondoan babestuta sentitzen zena, zuloaren ertzek mugatzen zuten ortzi zatia besterik ikusten ez zuela. Iñaki Iñurrieta

---

# jeniotxartu, jeniotxar(tu), jeniotxartzen (*orobat* ***jenio-txartu***) da/du *ad*

Europarrek, beraz, badute **jeniotxartzeko** arrazoirik. Berria - Mundua

Ezta lanetik **jenio-txartuta** etorri bada ere, ezta bidean egin behar izan dituen enkarguengatik hatzetako minez lehertzen badator ere. Arantxa Iturbe

---

# jenizari ik **janizari**.

---

# jentaldi *iz ipar* belaunaldia.

Talde bakoitxean baginen lau generazione, belaunaldi, gizaldi, **jentaldi**: bi gizon eta bi emazte. Herria

---

# jentarte ik **jendarte**.

---

# jente ik **jende**.

jentetze ik **jendetza**.

---

**jentezione** *iz ipar* jendetza.

Eta Bürüilaren (Setemeren) bian, bere hebenko azken mezan, eskertü dü **jentezione** handi batek, ez beita Mauleko elizan eden ahal izan. Herria

---

**jentil** **1** *iz* kristau ez den pertsona.

Horazio, Virgilio, Plauto, Seneka, Zizeron, Tazito, Terentzio, Fedro, Juvenal, Fabio Kintiliano, Petronio, Salustio... zeren han aipatu zenituenak, Erromari lotu autore eta skribatzaile **jentil** eta pagano haiek baitziren gehienbat, Elizako doktoreak kasik alde baterat uzten zenituela. Joan Mari Irigoien

Kristoren gudari indartsu bezala, [...] ahotsa goratzen dute turutaren pare, nazioen gain mendeku hartu eta **jentil** -herriak zigortzeko. Askoren artean

**2** Euskal Herria kristautu aurreko euskalduna, herri oroitzapenean izaki neurriz gaineko bihurtu dena.

Euskal Herriko lehen biztanleak ziren **jentilak**. Bernardo Atxaga

Ziria **jentil** inozo horiei bezain erraz sartuko zenidala uste zenuen, ezta? Martin Anso

**Jentilak,** berriz, iruzurraren berri izan zuenean, haserre, ate "faltsuari" pilota bat balitz bezala ostikoa jo eta Eunatetik hamar kilometrora dagoen Olkotzaino jaurti zuen. Martin Anso

**Jentilek** Aiako Harritik Baionako katedralaren aurka jaurtitako bi harkaitz handi. Juan Luis Zabala

[Lantzak edo tragazak] Greziako mitologiako jigant batek edo gure euskal lurretako **jentil** batek jaurtiki berriak. Joan Mari Irigoien

Iturtxo eta Elormendi baserrien artean (Elosua) ba omen zen **jentil** batek eramandako harri bat, bere arrastoekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Jentila** esnatu beldurrez, Marik hau agindu zien idiei: [...]. Pako Aristi

**3** juduentzat, judu ez den pertsona.

Asiako probintziako guztiek, judu nahiz **jentil,** entzun ahal izan zuten Jaunaren mezua. Elizen arteko biblia

Israeldarrek ezin bota izan zituzten **jentil** -herriak. Elizen arteko biblia

Zergatik behartzen dituzu **jentilak** judu bezala bizitzera? Elizen arteko biblia

Paulo **jentilengana** misiolari. Elizen arteko biblia

Jerusalem **jentilek** zapalduko dute. Elizen arteko biblia

Amerikar politikari **jentil** zinikoen kalkuluak. Iñaki Mendiguren

Sionistak beren burua gizarte-giro **jentil** batekin parekatzen ari ziren. Iñaki Mendiguren

Bere inguruko juduek helburu bat zuten: **jentil** bihurtu, ez txekiar **jentil,** aleman **jentil** baizik. Koro Navarro

**Jentil** -talde indartsua berekin zuela, abiatu zen Seron, israeldarren mendekua egiteko asmoz. Elizen arteko biblia

Eta hara, neurekin nuen Tito ere, **jentil** -jatorrikoa izan arren, ez zuten erdaintzera behartu. Elizen arteko biblia

**4** (izenondo gisa)

Filistear **jentil** arrotz hori. Elizen arteko biblia

Egurgile **jentil** batek bere etxean hartu zuen. Koro Navarro

Eta azken bolada hartan ez zen izan hiritik alde egindako emakume gazterik, ez judurik, ez **jentilik**. Koro Navarro

· Etapa hartan [...] burgesia **jentilak** judu-lehiakideen kanporatzea ziurtatzeko erabili zuen botere lortu berria. Iñaki Mendiguren

Makabeoen erresuman sartu berria zen probintzia **jentil** bateko seme hura. Iñaki Mendiguren

Tiro eta Sidon hiri **jentiletan**. Elizen arteko biblia

**5** ***jentil-baratze*** (*orobat* ***baratza***)

Ez gintuen eraman euskaldunok mairu-baratze, trikuharri edo **jentil-baratzeari** deitzen ditugun neolitiko-garaiko eraikuntzen harrespilera). Anjel Lertxundi

Baina sentimendu tragikorik bizitzekotan, hizkuntzaren ezarena bizi beharko zukeen Oteizak, cromlechetan ageri zaizkigun neolitiko aztarnak baino biziagoak baitira hizkuntzak eskaintzen eta eraikitzen dizkigun **jentil-baratzeak**. Anjel Lertxundi

Halako batean, **Jentil-baratzako** gaueko jenio ahaideak agertu dira gelaren erdian, Gaueko buru dutela. Anjel Lertxundi

**6** ***jentil-harri*** trikuharria.

Eta **jentil-harriaren** gaineko harlauza koskatsu lakarra besarkatzen saiatu naiz. Txillardegi

**7** ***jentil-herri*** judua ez den herria.

Gu judu gara jaiotzaz, eta ez **jentil-herri** bekatari horietakoak. Elizen arteko biblia

Izan ere, **jentil- herri** guztiek, gureganako gorrotoz, bat egin dute gu suntsitzeko. Elizen arteko biblia

Santutegia bera ere, gure santutegi eder eta ospetsua, horra toki bakarti bihurtua, **jentil- herriek** profanatua. Elizen arteko biblia

Anaia apostoluek eta arduradunek, Antiokiako, Siriako eta Ziliziako **jentil- herrietako** senideoi, agur! Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **filistear jentil arrotz** (3); **jentil herri** (9); **jentil herriak** (6); **jentil herriek** (7); **jentil herrien** (6)
> **esan zion jentilak** (3)
> **jentilen artean** (14); **jentilen arteko** (3); **jentilen kontra** (3); **mendebaldeko jentilen** (5)

---

**jentilizio** *iz* herritar izena.

Ondoren **jentilizioak,** toki izenak eta hizkuntzak agertzen dira. Berria - Euskal Herria

---

jentillaje ik **jendilaje**.

---

**jera** *izond adkor* astoa.

Nik horrelakoren bat egin beharko diat hurrengoan, mediku **jera** honek ez gaitik bestela sekula ospitalera bidaliko. Koldo Izagirre

---

jeranio ik **geranio**.

---

jerarkia ik **hierarkia**.

---

jerarkiko ik **hierarkiko**.

---

jerente ik **gerente**.

---

jerez ik **xerez**.

---

**jerga** *iz* jargoia; ahuntz erdara.

Irakaskuntzan, kazetaritzan, itzulpengintzan eta antzeko lanbideetan gabiltzanok ohituta gaude **jerga** horretara, baina ez euskaldun arrunta. Koldo Zuazo

Enpresaren baliabide nagusiak, aktibo nagusiak, langileak dira -giza baliabideak, **jerga** teknikoan-. Iñaki Heras

Yiddishez egiten ez zutenekin yiddisha, alemana eta ingelesa bateratzen zituen **jerga** batez aritzen zen. Koro Navarro

Marleytown haxixa erretzen zutenen arteko **jerga** bat zen, hara joaten baitziren kosto bila; ugari heltzen zen bertara. Pako Aristi

Ez zen erraza narrazioaren hariari jarraitzea, ez eta **jerga** lunfardo horretan saiatuenak zirenentzat ere. Berria - Kultura

---

jeringa ik **xiringa**.

---

**jeronimotar** *izlag* San Jeronimoren erlijio ordenako kidea.

Kaitik gertu dagoen **Jeronimotarren** komentuko fraide batzuk ere etorriak ziren, itxuraz kontsolamendu eskaintzera, egiaz beste klaseko laguntza ematera. Felipe Juaristi

---

**jerseytar** *izlag*

New **Jerseytarrak**. Xabier Olarra

---

**jertse** **1** *iz* puntuzko ehunez egindako jantzi mahukaduna, gorputza lepotik gerriraino estaltzen duena.

**Jertse** bat janzten zuen beste baten gainean. Fernando Rey

**Jertse** bat egin dizu. Iñaki Mendiguren

**Jertsea** eranzten lagundu nion. Migel Angel Mintegi

Bikiek **jertsea** burutik behera sartzen zioten bitartean. Iñaki Mendiguren

Zer? -esan dizu **jertsearen** lepotik helduta-. Rafa Egiguren

Bufandarekin eta **jertse** lodi berde ilun batekin jantzita. Pablo Sastre

**Jertsea** eta bularretakoa kendu zizkidan. Joseba Urteaga

Eskuz egindako **jertse** bat. Iñaki Mendiguren

Lore koloredunezko **jertsea**. Juan Kruz Igerabide

Artile hutsezko **jertse** bat. Joxemari Iturralde

Kolore berdeko **jertse** baten babesean ezkutatua. Aritz Gorrotxategi

**Jertsea** gerrian loturik. Fernando Rey

Bularrak nabarmen gelditzen zitzaizkion **jertsearen** azpian. Migel Angel Mintegi

Eskua **jertsepean** sartu eta betaurrekoak atera zituen alkandorako patrikatik. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Bere **jertse** zirtzilduaren mahukari heldu eta tira egin nion. Harkaitz Cano

**Jertse** bero polit hori jantzita. Fernando Rey

Idun altuko **jertse** gris, lodi bat. Joxemari Urteaga

**Jertse** beix lepo-luze batekin. Bernardo Atxaga

Artilezko **jertse** beltz tarratatua. Unai Iturriaga

**Jertse** marradun bat, zuri-urdina. Antton Olano

Puntuzko **jertse** zahar bat. Unai Iturriaga

**Jertse** botoidun bat erabiltzen zuen beti. Koro Navarro

**Jertse** mehe bat lepo gainean paraturik. Josetxo Azkona

Handia eta zabala zen; **jertse** mahuka motzaren azpian, bularrak beheraturik zeuzkan. Juan Kruz Igerabide

**3** (hitz elkartuetan)

Kirol-**jertse** grisaz, txanoa jantzita. Berria - Kultura

Marinel-**jertsea** eta kirol-zapatilak janzten zituen emakume gazteak. Migel Angel Mintegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **artilezko jertse** (9); **bakeroak eta jertse** (3); **jertse beltz** (8); **jertse beltz bat** (3); **jertse beltza** (6); **jertse berde** (5); **jertse gorria** (5); **jertse gris** (3); **jertse grisa** (3); **jertse lila** (3); **jertse lodi** (7); **jertse lodi bat** (3); **jertse lodiaren** (3); **jertse urdina** (4); **jertse zahar** (3); **jertse zuri** (3)
>
> **artilezko jertsea** (6); **jertsea kentzen** (3)
>
> **jertsetik heldu** (3)

---

**jertsedun** *izond* jertsea daramana.

Bi gizon **jertsedun** zeuden haien parean zegoen bankuan, gustura edaten, buru makurka adieraziz emakumeen emozioarekiko adostasuna. Koro Navarro

## **jertsetxo** *iz* jertse txikia edo mehea.

Hotz-beroen batez bestekoa atsegina da, mahuka hutsean lasai ibiltzeko modukoa, nahiz eta goizetik **jertsetxo** bat edo jaka xare bat ondo datorkeen. Pello Zabala

## **jerusalemdar** *izlag/iz* Jerusalemgoa, Jerusalemi dagokiona; Jerusaemgo herritarra.

**Jerusalemdarron** heren bat izurriz hilko da edo goseak akabatuko du hirian. Elizen arteko biblia

Antiokiar hiritartasuna zuten **jerusalemdar** batzuk. Elizen arteko biblia

Ardiak bailiran gidatuko dituzu **jerusalemdarrak** eta zakur batek ere ez dizu zaunka egingo. Elizen arteko biblia

Argitzeko geratzen zen **jerusalemdarrek** beren hiriburuan bozkatzerik izango zuten. Berria - Mundua

## **jesan**, jesaten du *ad* mailegatu, maileguz hartu.

Beste jente hanitzen beitan konfidantxarik ez bagünü, ez giniro ez sal, ez eros; kontratürik ez giniro sina; partzüergoan ez gintake sar ihorekin; sosik ez giniro ez **jesan,** ez peresta, ez bankan ezar. Herria

· *hed* Eta ausartu naiz *De Re Publica edo Politikaz* izena **jesatera,** duela hogei mende izen bereko liburua idatzi zuen Marko Tulio Zizeron erromatar politikari, hizlari, pentsalari famatuari. Piarres Xarriton

## **jesapen** *iz* jesatea, maileguz hartzea.

Bandak zalapartaka ari ziren, Askatasunarentzako **Jesapenaren** alde, Gurutze Gorriaren alde. Lopez de Arana

## **jesarleku** *(105 agerraldi, 30 liburu eta 12 artikulutan; cf* ***eserleku*** *990 agerraldi, 139 liburu eta 248 artikulutan)* *iz* eserlekua.

Geltokiaren kanpoaldeko **jesarleku** baten kokatu gara. Jon Arretxe

**Jesarleku** luzearen ertzean. Pello Lizarralde

Aulki bat eskaini zidaten aldagelak zeuden pasilloan eta plastikozko **jesarleku** horretan eserita egon nintzen. Joxean Agirre

Autoko atzeko **jesarlekuan** sartzeko keinua egin zidan. Edorta Jimenez

Ze txikiak diren turista klaseko **jesarlekuak** ! Patxi Iturritegi

Neure ondoan eseri da, **jesarlekuaren** besoan. Sonia Gonzalez

Bizkarralde gabeko **jesarlekua** . Urtzi Urrutikoetxea

Besaulki moduko **jesarleku** malgua. Josu Landa

50 **jesarleku** duen karpa txiki-txikian. Berria - Kultura

Erosoena Kongresuko **jesarlekuetan** geratzea izango zen. Berria - Euskal Herria

**Jesarleku** pare bat aurreragoko andrak ez zuen inorekin hitz egiten. Sonia Gonzalez

Sei **jesarleku** -lerro. Edorta Jimenez

**Jesarleku** piloa dago libre. Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atzeko jesarlekuan** (7); **aurreko jesarlekuan** (4); **jesarleku pare bat** (3); **jesarlekutik altxatu** (3)

## **jesarraldi** *(corpusean* ***jezarraldi*** *soilik)* *iz* eserialdia.

Otsailean bertan egingo diren hauteskundeei begira, ehunka hautagai zerrenda bertan behera utzi ditu Zaindarien Kontseiluak, eta diputatu erreformistek protesta **jezarraldia** egin dute Legebiltzarrean bertan Berria - Mundua

## **jesarrarazi**, jesarraraz, jasarrarazten *(orobat* ***jesarri arazi****)* du *ad* eserarazi.

Amama sofan **jesarrarazi** dugu berehala, lupa-betaurreko lodi eta guzti ez baitu ia ezer ikusten, eta entzun ere antzera egiten du. Urtzi Urrutikoetxea

Malkotan zegoela **jesarrarazi** zuten. Edorta Jimenez

Parlamentuko aulkietan **jesarri** arazi gintuztelarik, [...]. Edorta Jimenez

## **jesarri**, jesar(ri), jesartzen *(orobat* ***jezarri*** *g.er.)* *(orobat* ***jesarten*** *g.er.)* **1** da *ad* eseri.

Pianoaren aulkitxoan **jesarri** zen. Josu Landa

Jaka utzi eta ohe ertzean **jesarri** zen. Unai Iturriaga

Egongelako besaulkian **jesarri** zen, ni aurrean ninduela. Jon Arretxe

Gizon bat igo eta nire aurrean **jesarri** da. Monika Etxebarria

Bikotea, orduan, atari aurrean **jesarri** eta zain geratu zen. Jon Arretxe

Zoaz atzera, **jesar** zaitez itzalean. Monika Etxebarria

Bakotxa geure soinua paparrean, alkarren aurrez **jesarten** ginan. Xabier Amuriza

Nire alboan Bulgariako Georgi Borissov **jesarri** da. Edorta Jimenez

Alboan **jesarri** zitzaidan busean. Edorta Jimenez

Euren alboan **jesartzeko** eskatu didate. Jon Arretxe

Batzuk nahiago dugu besaulkietan **jesarri,** eta txandaren zain geratu. Edorta Jimenez

Eta? zeren zain zaude? **Jesarri** . Monika Etxebarria

Faluaren branka aldean **jesarri** berria zen agureari. Edorta Jimenez

Harkaitz irten baten azken muturrean nago **jesarria** . Koldo Izagirre

Haren gorputz gurixka patxadan **jesarririk** zegoen larruzko besaulki handi baten sakonunean. Monika Etxebarria

Tronuko eskaileretan **jesarririk** bufoiak. Monika Etxebarria

Harmailetan **jesarrita** Jose Antonio Agirre lehendakaria dago. Edorta Jimenez

Idazlari handi beltzarana, zurezko eserleku garaian **jesarrita,** astiro-astiro idazten ari zen. Karlos Zabala

**Jesartzeko** lekua bilatzen. Koldo Izagirre

**2** *jesarri arazi* ik **jesarrarazi**.

**3** ***jesarri eragin*** jesarriarazi.

Telefono azpian zegoen aulkian **jesarri eragin** zion. Josu Landa

Behearen gainean talde handietan **jesarri eraginda,** furgoietan sartzen gero, militarren baseetan ondoren eta hegazkinez deportaturik azkenik. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **alboan jesarri** (14); **alboan jesarri zait** (4); **aulki batean jesarri** (3); **aulkian jesarri** (3); **aurrean jesarri** (9); **bertan jesarri** (6); **besaulkian jesarri** (3); **ertzean jesarri** (4); **gainean jesarri** (10); **hantxe jesarri** (3); **inguruan jesarri** (3); **lurrean jesarri** (4); **mahaian jesarri** (4); **mahaira jesarri** (3); **ohe ertzean jesarri** (4); **ohean jesarri** (3); **ondoan jesarri** (9); **sofan jesarri** (5); **sofan jesarri zen** (3)
>
> **alboan jesarrita** (4); **aulkian jesarrita** (5); **aurrean jesarrita** (11); **gainean jesarrita** (5); **hemen jesarrita** (3); **inguruan jesarrita** (4); **jesarrita egon** (3); **jesarrita ikusi** (3); **lurrean jesarrita** (6); **mahai batean jesarrita** (3); **mahaian jesarrita** (3); **ohean jesarrita** (4); **sofan jesarrita** (3)
>
> **jesartzeko esan** (3); **jesartzeko eskatu** (3)

---

jestio ik **gestio**.

---

jestiogintza ik **gestiogintza**.

---

jestora ik **gestora**.

---

## jestu *iz* imintzioa, keinua.

Eskuaren **jestu** nagi batekin. Piarres Aintziart

**Jestu** motz batez jarleku bat seinalatu zidan, esertzera gonbidatu ez baizik eta handik uxatu nahi banindu bezala, euli bat bezala uxatu ere. Matías Múgica

Natura, artzain bat, ardiak, **jestu** bat, bi hitz: mendez mendeko biziaren sinpletasun sakonean murgildua nago. Piarres Aintziart

**Jesturik** eta jendetasunkeriarik gabe lotzen zaio bakoitza bereari. Eneko Bidegain

Kar eta **jestu** haundiz ari dira bi beltxaranak, emanahala emanez pilotari beren eskuko loturekin. Herria

Bastia hiriko prefeta **jestu** gutiz bere kargutik kendu du [Nicolas Sarkozy barne-minixtroak]. Herria

Konfidantzazko **jestu** bat nahi izan zion egin. Ramuntxo Etxeberri

Agustinek esku gibelaz haurraren zartatzeko **jestua** egin zuen. Itxaro Borda

Etzen holakorik gertatuko eskuindarrak ez balire beren artean arizan dena kalapita eta **jestu** tzar. Herria

Dena kantu, eskarnio eta **jestu** handi. Daniel Landart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dena jestu** (13); **dena jestu tzar** (3); **jestu bat egin** (5); **jestu bera** (3); **jestu ederra** (3); **jestu eta dena** (3); **jestu tzar** (4)

---

## jestualitate *iz*

Egiptorako ihesa: aurpegietako kezka eta **jestualitate** doia, datorkien mehatxuaren beldurrez. Anjel Lertxundi

---

## jestuka *adlag* imintzioka, keinuka.

**Jestuka** eta keinuka. Michel Oronoz

Kanpoan naiz berriz eta emazte bat **jestuka** ari zait. Piarres Aintziart

Ikusi dut aurrean, frango urrun oraino, gaztaina kolorezko norbait, bi erromesei **jestuka** ari, zerbait esplikatuz naski. Piarres Aintziart

---

## jestutsu *izond* jestuz betea.

Lehen partida huntan bi gazteak adretak, **jestutsuak,** urrats alferrik gabeak baina jotzaleak hala beharrean. Herria

Serge ere ez dugu ahantziko: holako lagun bat duelarik aintzinean, arras **jestutsu** eta segura da Serge gibelean. Herria

---

jesuista ik **jesuita**.

---

## jesuita *(orobat **jesuista**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jesuita** agertzen da)* **1** *iz* Jesusen Lagundiko kidea. ik **jesulagun**.

Aita J.A. de Obieta Chalbaud Deustuko **jesuita** zenak. Piarres Xarriton

Aita Gaspard Berze flandestar **jesuita** lagunari bidali zion gomendioa. Piarres Xarriton

Tito Oates **jesuita** ohia. Juan Martin Elexpuru

**Jesuita** euskaltzale batek. Iñaki Iñurrieta

Negar egin nuen, **jesuita** ei zen abade hark Domingo gazteari komunioa eman eta berehala hasi baitzen hizketan. Edorta Jimenez

Auzitegi Nazionalak Txema Auzmendi **jesuita** errugabea dela esatea espero du Lagundiak. Berria - Euskal Herria

Mundu osoko ehun bat **jesuista** bildu dira Azpeitian, Loiolako santutegian. Herria

Aita Olivak, **jesuiten** generalak, idatzitako izendapen-agiriak ikusi zituztela. Juan Martin Elexpuru

Pedro Arrupe **jesuiten** jeneralaren jaiotzaren mendeurrena ospatzeko. Berria - Gaiak

Haunditasunak harritu ninduen, bereziki **Jesuiten** San Nicolas elizarenak. Piarres Aintziart

Oso heziketa tradizionala hartu zuen Parmako **Jesuiten** Ikastetxean. Juan Martin Elexpuru

Kontua zen berak Pariseko **jesuitetan** ikasi zuela hamasei urte bete arte. Unai Elorriaga

**Jesuiten** misioak Indian eta Txinan. Iñaki Mendiguren

**Jesuiten** indar beltza Loiolako basilikatik harago zabalduta zegoen. Iñigo Aranbarri

Pariseko *Les Etudes* **jesuiten** aldizkarian. Piarres Xarriton

Amak aita **jesuitaren** predikuak aditu nahi baitzituen. Joan Mari Irigoien

**2** (izenondo gisa) Jesusen Lagundiarena.

Georgetown erakunde **jesuita** da, AEBetako unibertsitate katolikoen artean zaharrena. Berria - Euskal Herria

Unibertsitatea erakunde **jesuita** dela. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aita jesuita** (35); **aita jesuitak** (24); **aita jesuitaren** (16); **aita jesuitari** (8); **ako jesuiten** (5); **iruñ jesuiten kolejiorat** (3)

---

**jesuitina** *iz* Jesusen Alaben Konpainiako kidea.

Txikitatik ziren lagunak, beti elkarrekin ikasiak ziren, aurrena **jesuitinen** ikastetxean eta gero batera hasiak ziren fakultatean. Joxemari Iturralde

Mekanografia ikastera, handik ehun metro eskasera zegoen beste moja-eskola batean, **Jesuitinetan**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**jesuitismo** *iz* jesuiten doktrina.

Haren mendebaldar petoaren sen zorrotzak sumatua zeukan kristautasun integrala, zinezko **jesuitismoa** alegia, ez zela ongi uztartzen gizaera europarrarekin. Patziku Perurena

---

**jesulagun** *(orobat **josulagun**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jesulagun** agertzen da)* *iz* Jesusen Lagundiko kidea. ik **jesuita**.

Aita Gaztelumendi **jesulagunak** jaten ematen zien santutegi barruko bere gelan. Berria - Kultura

Lagundiak ziurtasun osoa du Txema Auzmendi **jesulagun** kideak ez duela izan eta gaur ere ez duela inolako loturarik, ez zuzenean eta ez zeharka, ETA erakundearekin. Berria - Euskal Herria

**Jesulagun** bati Basarriren liburua ostu zionekoa. Berria - Kultura

**Josulagunei** ez zitzaielako komeni Gipuzkoan beste santu baten debozioa sendotzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere etxetik herriaren beste muturrean zegoen **josulagunen** ikastetxera heltzeko. Pedro Alberdi

---

jetsi ik **jaitsi**.

---

jetxi ik **jaitsi**.

---

**jetzi**, jezten *(orobat **jeitzi**)* **1** du *ad* titiak zapatuz (behiei, ardiei eta beste zenbait etxe abereri) esnea atera. ik**deitzi**.

Lehen egunean, behiek marru egin zuten inork ez zituelako **jetzi** eta gose zeudelako. Koldo Biguri

Behiak, sakratuak direnez gero, ez dituzte **jezten**. Gotzon Garate

Eosek hatz gorriztak erakutsi zituenean, ziklopeak sua egin zuen, eta ardi-ahuntzak **jeitzi** zituen, gauean bezala. Juan Kruz Igerabide

Behiak eta ardiak **jetzi** ondoan. Itxaro Borda

Mutilak egun guztian atzetik nitinan, jorratzen ari nintzenean, edo **jezten,** edo sutako egurra ekartzen. Anton Garikano

Ahuntzak bertan **jetzi-jetzi** eginik, sos baten truke bakoitzari basokada zerbitzatzen zion. Pablo Sastre

Indioek edaten duten esnea, ia guztia, bufaloak **jetzirik** edaten dute. Gotzon Garate

Gero esnea **jetzi** ondoren. Patziku Perurena

Irribarre egiten zien denei esne **jetzi** berria bezain fresku. Karlos Zabala

**2** ***ostrukak jeztera*** antzarak ferratzera.

-Hoa ostrukak **jeztera**. Aingeru Epaltza

Ostrukak **jeztera** bidali ninduen -bai, hitzez hitz, "ostrukak **jeztera**". Aingeru Epaltza

---

**jetzialdi** *iz* jeztea.

Bizi-bizi hasten zinan eguna, eta bigarren **jetzialdirako** ezin zinan egon hanken gainean. Anton Garikano

---

jeutsarazi ik **jaitsarazi**.

---

jeutsi ik **jaitsi**.

---

jezarleku ik **jesarleku**.

---

jezarraldi ik **jesarraldi**.

---

jezarri ik **jesarri**.

---

**jezertar** *izlag/iz* Jezerren tribukoa.

Galaaden leinuko senitarteak: Jezerrengandik **jezertarrak,** Helekengandik helektarrak, Elizen arteko biblia

**jeztoki** *iz* abere esnedunak jezten diren tokia.

**Jeztokiak** ardiak biltzen, jezten eta maneiatzen diren lekuak dira. Berria - Euskal Herria

Hemen azpiegitura garrantzitsu batzuk egin dira: alde batetik, artzainek behar dituzten txabolak, **jeztokiak** eta gainontzeko azpiegiturak; eta beste alde batetik, aurten egin den ur-hornidura sarea. Berria - Euskal Herria

**Jeztokiak:** 30, estaliak. Berria - Euskal Herria

---

jiddish ik **yiddish**.

---

**jiga** *iz* antzinako dantza, jatorriz irlandarra, higidura bizikoa; dantza horri lagun egiten zion musika lana.

Eta primeran pasa genuen ere dantzan egiteko aireekin: *The Tressle bridge* **jiga** bilduma edo *The salt necklace* reel-ekin (Beroguettoren *Crancro cru* barne). Berria - Kultura

Kantariak [...] aukeratzen zituen bere piezak, instrumentu hutsezko batzuk tartekatuz (reel-ak eta **jiga**-k). Berria - Kultura

---

jigant ik **jigante**.

---

**jigante** *(corpusean **gigante** eta **jigant** soilik)* *izond/iz* erraldoia. ik **digante**.

Eta ziegak eta ziegak zeuden, hilobi **jigant** batzuk iduri. Joan Mari Irigoien

Zezen hilari so egin nion, eta zalantzan egon nintzen sagarroi **jigant** bat ez ote zen. Joan Mari Irigoien

Gainerat zetorkidan tirain **jigantak**. Joan Mari Irigoien

Taldean, ikus zitazken, hiru eskoletako haur pollitak, erraldoi edo **giganteak,** mozorroak, bai eta hartza; hurbildik, inguratzen bai eta zaintzen zutela artoski ZANPANTZAR. Herria

Argirik gabeko zuloan sartua dagoenak ez ditik nanoak **jigantetarik** bereizten. Joan Mari Irigoien

Greziako mitologiako **jigant** batek. Joan Mari Irigoien

---

jilaba ik **txilaba**.

---

jilbaba ik **txilaba**.

---

**jilipitxi** *izond/iz* astopito.

**Jilipitxiaren** lagun **jilipitxiak** ginen. Joxean Sagaztizabal

Hiru belaunaldi eta **jilipitxi** bat. Joxean Sagaztizabal

---

**jilipolla** *izond/iz* astopito.

-Baina zuk zer uste duzu, ni **jilipolla** naizela? Jon Arretxe

Maisu **jilipolla** eta txaposo horri. Jon Arretxe

---

**jilipollakeria** *iz* astopitokeria.

Ez dituzu entzun lehen deitu duen jilipolla horren **jilipollakeriak,** ala? Jon Arretxe

---

**jin,** jiten **1** da *ad ipar* etorri.

Jende batzuek gogoan zuten oraino ezkondu ondoan Jatsutik Sarara **jin** zen garaia. Elena Touyarou

Eta manatu ziguten, biharamunean tenore berean leku berera **jiteko**. Marzel Etxehandi

Ikustera **jiten** zitzaigun ardura. Marzel Etxehandi

Maddalen berriz **jin** zen eni buruz, halako irri penatu batekin. Janbattitt Dirassar

-Noiz **jinen** zara berriz Pariserat? Janbattitt Dirassar

Ene besoetarat **jin** zen. Janbattitt Dirassar

Gureganat **jiten** diren sentimenduak [...] bertzearekiko harremanetan ere onurak eragiteko baliosak suertatzen dira. Filipe Bidart

Osabak pot eman zion matelan, eta haurra ferekatu ondoan, **jin** bezala joan zen, lur hartan arrotza zenak ezagutzen ez zituen bide zidorretan barna mendian galduz. Elena Touyarou

Gestapoa **jin** zaie. Marzel Etxehandi

Geroxago, **jiten** ahalko zara enekin. Janbattitt Dirassar

Zortzi egun presondegi bildu zituen gu **jin** baino lehentxago. Marzel Etxehandi

Berriz **jin** daitekea gizona bizira? Michel Oronoz

Ortziralea **jin** zen. Janbattitt Dirassar

Pazko ondoan ere, eskolarik ez zeno, Pantxika **jitekoa** zen bere aitarekin. Janbattitt Dirassar

Alosiaren libratzera nonahitik **jiten** omen ziren zaldunak. Aurelia Arkotxa

Normandiatik **jina**. Janbattitt Dirassar

Bezti zaitez zalu-zalua, partitzeko tenorea **jina** zaizu... Janbattitt Dirassar

Parisetik **jin** agindu haren konplitzeari uko egin zioten. Elena Touyarou

Negua **jin** berria zen Joanesek anaiaren hitza eskuratu zuelarik. Eneko Bidegain

Argumentu horiek guztiak, **jin** arau, heldu diren bezala, jartzen ditut. Piarres Xarriton

Auritzek ere bazuen etxe berezi bat, herrian sartzean ezker, Orreagatik **jitean**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ez ahantz mozorroturik **jiten** ahal dela. Herria

### 2 *gogora jin* (*orobat* ***gogorat jin***)

Arleseko Elena hura **jin** zitzaidan **gogorat**... Janbattitt Dirassar

Gehexan Jaurenearen irudia **jin** zitzaion **gogora**. Elena Touyarou

Sakez **gogora jin** zitzaidan amatxiren heriotza. Daniel Landart

Galtzak janztean egin nion galde hori, tanpez, **gogorat jin** zitzaidan bezala. Janbattitt Dirassar

-Nik ez zaitut maite -izan zen **gogora jin** zitzaion erantzun bakarra. Elena Touyarou

Orduan zitzaion **gogora jin** fraileei ziela eskaini behar Agerria, frailegai ttipi eta gazteentzat formakuntza zentro bat egiteko eta fraile euskaldunekin sortzeko hemen eskola katolikoak. Xipri Arbelbide

Bertsolaritza aipatzen dugularik, **gogora jiten** zaigun lehen irudia bertsolariarena da. Berria - Kultura

Haien azalpenak ematea edo **gogora jiten** zaiena azaltzea, lehenik idatzirik eta gero jendearen aitzinean. Berria - Harian

### 3 *jin eta joan* ik beherago **5.**

**Jin eta joan,** hitzeman du berriz etorriko dela 2004-eko martxoa edo apirila baino lehen. Denbora **jin** eta **joan** denbora laster pasatzen. Herria

**Jin eta joan** da, ongi gerizaturik, bota du bere "ene falta". Herria

### 4 *jin... joan* ik beherago **7.**

Bizkitartean, egunak **jin,** egunak **joan,** eta horra zerua beti goibel. Egunak **jin,** egunak **joan,** eta urteak **jin,** urteak **joan,** beti bada berri frango, on eta txar. Herria

Urteak **jin** urteak **joan**, estrategiak ez ziren moldez kanbiatzen. Itxaro Borda

Mendeak **jin,** mendeak **joan,** beti izan dira kanpotikako jendeak Ziburun kokatu direnak kokatu eta segidatu ere... Herria

### 5 *joan eta jin* ik gorago **3.**

**Joan eta jin**: joan da Jalabert ; egin du igandean azken lasterkada. Herria

Eta haien dantza haragiaren joan-jin etengabe bat zen, **joan eta jin,** jin eta joan... Joan Mari Irigoien

### 6 *joan-jin* (*orobat* ***joanjin*** *g.er.*) *iz*

Gorteko berri dakien gizona baita, anitz **joan-jin** eta egonaldi egiten du bere diosesatik kanpo. Michel Oronoz

**Joanjina** autokarrez eginen da eta abiatzea goizeko 11 orenetan izanen da Ortzaizeko plazatik. Herria

Loriagarri izan zen bi bikotek Ibañetarat egin ginuen **joan-jina**. Michel Oronoz

Joantto etorri ondoko egunetan, herritar guziak haren **joan-jinen** goaitean egon ziren. Elena Touyarou

Gau hartako **joan jin** bakartian, labana bezain zorrotz, Jean Jacques Goldmanen kanta bat neukan buruan. Itxaro Borda

Astelehenetik ortziralerat, egunean bi **joan-jin** eginen ditu autobusak, batto goizean eta bestea aratsaldean. Herria

· SS-ak ate alde hartan **joan-jin** ari dira. Marzel Etxehandi

### 7 *joan... jin* ik gorago **4.**

Egunak **joan,** egunak **jin,** Graxik saldo ibiltariaren itxura burutik ezabatu zuen. Itxaro Borda

Asteak **joan** asteak **jin,** gero eta ausartago ziren biak, solaserako. Eneko Bidegain

Funtsean, denbora **joan,** denbora **jin,** zorraren ordaintzeko orain ere sinadura gutiago aski da, sosaren altxatzeko baino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Utopia: denbora **joan,** denbora **jin,** gerla gero eta gehiago finkatzen ari da Israeldarren eta Palestindarren artean. Herria

Urteak **joan** urteak **jin,** gobernuak **joan** gobernuak **jin,** «inork ez du lortu Euskal Herriaren askatasun nahiarekin bukatzea», dio Lefortek. Berria - Euskal Herria

Urte xaharra **joan,** berria **jin**. Herria

### 8 *joan-jinka adlag*

Ahaideak inguruan ikusten zituen **joan-jinka,** maitagarri izateko ahaleginetan. Elena Touyarou

Domengaren begiak **joan-jinka** ari ziren, haren begietarik, besteenetara, kezka gorde ezinik. Elena Touyarou

Zeldan hasten naiz **joan-jinka,** leihatilatik ateraino, atetik leihatilara, harat-honatka betoinezko jarraulkiaren eta ohearen arteko ibilbide bakarretik. Filipe Bidart

Zonbeit etxetan bertze zonbait **joan jinka** ibili behar, osasuna hobetu nahiz. Herria

### 9 *joan-jinkako izlag*

Alaves futbol taldea sailkatu da Errege Kopako finalerdietarako, Vigoko Celta taldeari nagusiturik finalalaurdenetako **joan-jinkako** partidetan (4-0 et 0-1). Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baionara jin** (6); **berehala jin** (5); **berriz jin** (26); **bila jin** (4); **denbora jin** (6); **egunak jin** (15); **etxerat jin** (4); **euskal herrira jin** (5); **gaua jin** (6); **gerla jin** (4); **gogora jin** (5); **gogorat jin** (9); **gogorat jin zitzaidan** (4); **gogotik jin** (4); **herrira jin** (5); **herrirat jin** (5); **ikustera jin** (7); **ikusterat jin** (6); **jendea jin** (4); **jin eta joan** (6); **jin eta urteak** (13); **jin ez** (8); **jin gabe** (5); **jin giten** (9); **jin gustian** (5); **jin haatik** (4); **jin izan** (4); **jin nahi** (15); **jin nahi luketen** (4); **jin nintzen** (6); **jin omen** (4); **jin ondoan** (5); **jin orduko** (10); **jin zaie** (6); **jin zaigu** (6); **jin zaiku** (11); **jin zaio** (13); **jin zaiote** (6); **jin zait** (15); **jin zait gogora** (4); **jin zaizkigu** (4); **jin zaizkit** (4); **jin zarete** (4); **jin zauku** (37); **jin zauku berria** (8); **jin zaut** (5); **jin zela** (9); **jin zelarik** (10); **jin zen** (109); **jin zen bere** (4); **jin zenean** (4); **jin zirela** (5); **jin zirelarik** (4); **jin ziren** (39); **jin zitzaidan** (23); **jin zitzaigun** (7); **jin zitzaion** (18); **jin zitzaizkidan** (7); **jin zitzaizkigun** (6); **joan jin** (25); **kanpotik jin** (10); **mendeak jin** (5); **negua jin** (4); **ondotik jin** (11); **parisetik jin** (7); **tenorea jin** (17); **urteak jin** (31)

**tenorea jina da** (4)

**joan jinak** (25)

**euskal herrirat jinen** (4); **herrirat jinen** (5); **ondotik jinen** (15)

**joan jinka** (17); **joan jinka ibili** (4)

**jiteko gogoa** (4)

**; berriz jiten** (4); **gogotik jiten** (3); **ikustera jiten** (4)

---

## jinarazi, jinaraz, jinarazten (*orobat* ***jin arazi***) da *ad* etorrarazi.

Etxarte komisarioa **jinarazi** ditek lan zikinaren obratzeko. Itxaro Borda

Geroztik ere Hazparneko jaun Erretorak maiz bere herrian predikatzerat **jinarazten** zuen Uztaritzetik. "Skyroom" dantzaleku berriak 'Le Tout-Manille' delako izarrak **jinarazten** zituen. Xipri Arbelbide

**Jin arazi** zütüt, Pierraren jarraikitzeko Herri Urratsen, beitakit han düala hitzordüa. Itxaro Borda

Errefuxiatuen haurrentzat, Hegoaldetik **jinarazi** irakasleekin funtzionatzen zuten eskola militanteak sortu ziren. Itxaro Borda

61 kiloko kuia **jinarazi** du bere baratzean Elixabet Hirigarrayek. Herria

---

## jinbide *iz* etorbidea.

Egun ederrik jastatuko zinuen zuk ere hedexuri edo mugazain horietan sartu bazine; gero xahartasun pollit eta jori bat, ahalaz bigarren **jinbide** batekin, adinak sobera jo baino lehen, zer litake gorpuzkinagorik bere burua maite duenarentzat. Herria

---

jinebra ik **gin**.

---

**jinete** *iz* zaldizkoa.

Basotik irteten zen bidezidor batean zaldi zurixka bat azaldu zen **jinetearekin**. Bernardo Atxaga

Artaldea zaintzen ari zirela, zaldi bat ikusi omen zuten arrapaladan eta **jineterik** gabe. Bernardo Atxaga

---

**jinetera** *iz* iraultzako Kubako prostituta mota.

-Esaten dute **jineterak** bestelako zerbait direla, harreman berezi eta eztia eskaintzen dutela, ez baitira ohizko prostitutak, bizimodua ateratzen saiatzen diren neska gazteak baizik... uharte hartatik atera eta haiekin ezkonduko den inozo baten bila. Jon Muñoz

**Jineterak** turistarekiko harremana bilatzen du, ondo pasa nahi du, jatetxe on batean jan eta dantzaleku batean dantzatu, eta gero turista horrekin oheratuko da, baina trukean ezer eskatu gabe. Jon Muñoz

**Jinetera** batek hogei, hogeita hamar edo berrogeita hamar dolarreko "eskupekoa" jaso zezakeen turista baten lagun ibiltzeagatik. Jon Muñoz

Esan zidan kubatar neskak munduko neska ederrenak eta beroenak zirela eta har nezala kubatar andregai bat, baina benetako andregaia, ez **jinetera** bat, horrelakoek niri dirua ateratzera besterik ez omen zitzaizkidala hurbilduko. Jon Muñoz

---

jingo ik **gingko**.

---

jinko ik **jainko**.

---

jipa ik **jeep**.

---

jipi ik **hippy**.

---

**jipijapa** *iz* palmondo mota baten hostoez egiten den kapela.

Kapela hark zapala, lohia eta biguna ematen zuen, onddo-kapela tripontzien eta esekitokietatik zintzilikatuetako **jipijapa** kapela dotoreen artean. Lopez de Arana

Udatiarrak alde egiten ikusi genituen euren arropa zuri, maleta dotore eta **jipijapekin**. Joseba Sarrionandia

---

**jipoi** **1** *iz* norbaiti ematen zaion kolpe multzoa, hondaturik uzten duena. ik **astinaldi**; **zafraldi**.

Golubtxik iguraia ez zen inoiz oneratu **jipoi** hartatik. Matías Múgica

-Nik **jipoi** bat hartzeak ez dio izeba Margeri ahantzaraziko entzundakoa. Iñaki Mendiguren

Zer lortuko nuen halako ekintza desesperatuekin, ingurukoak izorratzeaz eta **jipoi** gehiago hartzeaz aparte? Jon Arretxe

Kausaren zoritxarrerako eta nire zorionerako, zipaioek ez zidaten **jipoirik** ez tratu txarrik eman. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere bikotekide ohiak emandako **jipoiengatik**. Berria - Euskal Herria

Morroiak **jipoia** merezi badu, nagusiak jotzeko eskubidea du. Jose Morales

Hogeiren bat atxiloketa eta beste horrenbeste **jipoi** komisaldegian. Bernardo Atxaga

Iaz ia 60 **jipoi** eta eraso pairatu zituzten euskal presoek, horietako gehienak bakartuta zeudela. Berria - Euskal Herria

**Jipoi** haien ondorioz, sei egun ospitalean egon ondoren hil zen, Parisen. Berria - Kultura

**Jipoiak** utzitako seinaleak dauzka soinean nabarmen. Rafa Egiguren

Mattinek ohean aurkitu zuen nagusia, bezperako **jipoiak** lehertuta. Martin Anso

Gauza guztietara ohitzen baitzen: **jipoietara,** vodkara, hilobien antzeko konkor biribilez jositako zelai elurtuen goibeltasunera. Jose Morales

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Norbaitek zeloak ditudala esango balu, **jipoi** ederra emango nioke. Karlos Zabala

Bestela **jipoi** ederra emango ziela. Gotzon Garate

**-Jipoi** handia jaso al duk? Rafa Egiguren

Bortxatzeaz gain **jipoi** handiak ematen dizkiola. Pablo Sastre

Emakumeak umea galdu zuela senarrak emandako **«jipoi** basati» baten ondorioz. Berria - Euskal Herria

Haur-denboran, lagun onak direlako ospea hartzen dute eskolan, eta, hala ere, **jipoi** izugarriak ematen dizkiete. Jose Morales

Beste **jipoi** ikaragarriren bat ematen zioten arte. Fernando Rey

Egundoko **jipoia** eman ondoren, bere lagunaren berri galdetu zioten behin eta berriz. Rafa Egiguren

Deabruek etorri eta berebiziko **jipoia** eman zioten. Askoren artean

Amets egin diat berealdiko **jipoia** ematen zidatela. Jose Morales

Talde hark, egun batzuk lehenago, izugarrizko **jipoia** eman omen zien neska batzuei. Koro Navarro

Kartzeleroengandiko **jipoiak** sakabanaketaren ondoren hasi zirela batik bat. Jokin Urain

Horren ordez, inola ere espero ez bezalako **jipoia** eman dio. Jose Morales

Manta gaineko **jipoiek,** elektrodoek, bainerak edo plastikozko boltsek. Aingeru Epaltza

-Kristoren **jipoia** hartuko duzu, entzun? Iñaki Mendiguren

**3** irud/hed

Berebiziko **jipoia** hartzen du gorputzak. Arantxa Iturbe

Napoleonen gudarosteak sekulako **jipoia** eman dio Frantzisko Jose austriarrarenari. Anjel Lertxundi

Artean ez baitzuten gainditu aurreko hauteskundeetako **jipoia**. Patxi Zubizarreta

Ostiralean, ordea, orain arteko **jipoirik** handiena jasan zuen: akzioen prezioa 36 dolar merkatu zen eta 400 dolarreko langatik behera jaitsi zen. **Jipoi** handiagoa izan zen, ordea, Alemaniako enpresaburuen konfiantzaren beherakada. Berria - Ekonomia

ASTRAZENECA (-%8,26) farmazia enpresak **jipoi** galanta jaso du. Berria - Ekonomia

Europako txapelketa nagusian **jipoi** ederra hartu zuten nafarrek Bartzelonaren etxean. Berria - Kirola

Climamio Boloniaren aurka bilbotarrek **jipoi** galanta jaso zuten Casillako zaleen aurrean (102-79). Irain- **jipoi** ederra jaso zuen Nozdrioven familia osoak, eta, bereziki, egundokoak hartu zituzten zuhaitz genealogikoan bera baino gorago zeudenetako batzuek. Jose Morales

Bestalde, horrelako erabaki batekin euskal kulturari **jipoi** ikaragarria ematen diote. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Hildakoak **jipoi** zantzuak zituen. Berria - Euskal Herria

**5** soro eta baso lanetan erabiltzen zen jaka modukoa, zuria eta lasaia, etxeko ehunez egina.

Eskutitz garden bat tolestu eta **jipoi** barrura sartzen. Iñaki Mendiguren

Erbinude zuriz apaindutako kapa edota harri bitxiz jositako **jipoi** eta hopalanda guzti haien atzean ezkutatutako gorputzak [...] ezin zirela imajinatu guztiz garbi baino, antzinako atletak edo jainkosak bezain akatsik gabeak. Bernardo Atxaga

1950eko jaka, gerrontzea, prakak eta euritakoa K.o. 1700eko jaka, gerrontze, galtza eta ezpataren aldaera hutsak direla, eta biak oso desberdinak direla K.o. 1600eko **jipoi** eta gergizkoen aldean. Iñaki Mendiguren

Atera zuen bere jaka-laurden listatu hartako ezker sakelatik botilatxo zapal bat eta zipriztindu zituen hartaz bere **jipoiko** hegalak, eskuak eta gorbata zabal, urdin, pinta zuriduna. Matías Múgica

**6** ***jipoi-jipoi egin*** gogor jipoitu.

Neska askorekin oheratu naiz, / baina bakardadeak ere / gau askotan oheratu nau / **jipoi-jipoi** eginda. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jipoi bat eman** (3); **jipoi ederra** (15); **jipoi ederra emango** (5); **jipoi ederra hartu** (3); **jipoi galanta** (6); **jipoi handi** (5); **jipoi handi samarra** (3); **jipoi handia** (7); **jipoi latza** (3)

**berealdiko jipoia** (6); **berealdiko jipoia eman** (5); **berebiziko jipoia** (4); **egundoko jipoia** (3); **emandako jipoia** (3); **izugarrizko jipoia** (3); **jasotako jipoia** (5); **jipoia eman** (33); **jipoia eman zion** (10); **jipoia emanez** (3); **jipoia ematen** (7); **jipoia hartu** (4); **jipoia jaso** (9); **jipoia merezi** (3); **jipoia salatu** (3); **sekulako jipoia** (14); **sekulako jipoia eman** (10)

**jipoiak ematen** (4)

**jipoiaren irudiak** (3); **jipoiaren ondorioz** (4); **jipoiaren ostean** (8)

---

# jipoialdi *iz* jipoia, astinaldia.

Eta, **jipoialdi** bakoitzean, hala aitortzen zuen Girolamok, hilzorian egoteraino gaixotzen zen. Ilobak Ohando gazteari eman zion **jipoialdiaren** berri jakin zuen egunean bertan, agureak mutila bere babespean hartu zuen eta bizitzaren hastapenak irakasten hasi zitzaion. Koro Navarro

Eta egia zen, egunak edota egun hartan egin behar izandakoak eman baitzion **jipoialdi** ederra. Joxemari Iturralde

---

# jipoidun *izlag* jipoia duena.

**Jipoidun** gizona. Javi Cillero

---

# jipoiketa *iz* jipoia ematea.

**Jipoiketan** hasiko zirela pentsatu dut, eta plastikoak uzten didan albait sakonena hartu dut arnasa garrasi ozen egiteko. Koldo Izagirre

· *irud* Ez al zen nahikoa kondena hiru aurkezle haien **jipoiketa** pairatu behar izana? Karlos Linazasoro

---

# jipoitu, jipoi(tu), jipoitzen *(orobat **jipondu** g.er.)* **1** du *ad* jipoia eman.

Bi marokoar **jipoitu** zituztela Valentzian dantzaldi batetik ateratzean. Bernardo Atxaga

Tipo hura **jipoitu** behar genuela esan zidan berehala. Mikel Hernandez Abaitua

Makila-soinuak hasi dira gero, zerbait puskatzen edo norbait **jipoitzen** ari balira bezala. Anjel Lertxundi

Gizon batzuk erosi omen zituen, gauez Txitxikov **jipoi** zezaten kalezulo ilunen batean. Jose Morales

Emaztea **jipoitzen** zuten gizatxarrak. Harkaitz Cano

Martinek eskolatik irtetean **jipoitu** zuenean, Karlosen gorrotoa sumin bihurtu zen. Koro Navarro

Anaia, deabruek gogor **jipoitu** naute; horregatik zu nire ondoan egotea nahi dut, bakarrik egoteko beldur naiz eta. Askoren artean

Zakur bat makilaz **jipoitu** nuen, etzatera eta nire hatza miazkatzera behartzeko. Koro Navarro

Aurreneko egunetan gerrikoa hartu eta bere burua **jipoitzen** zuen. Bernardo Atxaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Garai hartan italiar **jipoitu** guztiek pentsatzen zutena pentsatzen genuen. Juan Garzia

-Eta zu gizon **jipoitu** bakarra zinelako kexu! Patxi Zubizarreta

Sebastianek ihes egin zuen, zakur **jipoitu** batek baino biziago. Anjel Lertxundi

Euskararen herri **jipoitu** horren identitatea. Joxe Azurmendi

Emagaldu, **jipoitu,** gaizkile eta drogazaleena. Markos Zapiain

Leinu garbirik gabeko txakur gorrail bat zen, sasikoa, **jipoitu** -itxura uzkurrekoa. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bortizki jipoitu** (3); **emazte ohia jipoitu** (3); **emaztea jipoitu** (9); **gogor jipoitu** (6); **gogor jipoitu naute** (3); **jendarme bat jipoitu** (3); **jipoitu eta torturatu** (3); **poliziak jipoitu** (4); **preso jipoitu** (4); **presoak jipoitu** (3); **zakur jipoitu** (3)

**gogor jipoituta** (3)

**jipoitzea leporatuta** (4)

**bikotekidea jipoitzeagatik** (10); **bikotekideak jipoitzeagatik** (5); **emaztea jipoitzeagatik** (15); **gizon bat jipoitzeagatik** (3); **laguna jipoitzeagatik** (6); **neska laguna jipoitzeagatik** (6); **ustez bikotekidea jipoitzeagatik** (6); **ustez emaztea jipoitzeagatik** (11)

**presoak jipoitzeko** (3)

**gogor jipoitzen** (3)

---

# jipoitxo *iz* jipoi txikia.

Noizbehinka **jipoitxo** bat ematen zion, unibertsitatean nagusi nor zer erakusteko. Gotzon Garate

---

# jipoitzaile *iz* jipoitzen duena.

Neskatila beltzen bortxatzailea eta bere emaztearen **jipoitzailea** . Pablo Sastre

Borroka feministaren aldekoa naiz, eta ezingo nuke **jipoitzaile** batekin bizi. Berria - Kultura

---

# jipoitze *iz* jipoia ematea.

Argazki hauek *Daily Mirror*-i helarazi dizkien bi soldaduetatik batek zehaztu du **jipoitze** honen ostean, lapurreta batez susmatuta zegoen irakiar hori kamioi militarretik bota egin zutela, hau martxan zegoelarik. Berria - Mundua

---

# jira 1 *iz* bira, itzulia.

**Jira** labur hark biharamuneko eginbeharra lasaitasun handiagoz hartzeko balioko zidalakoan nengoen. Alberto Ladron Arana

Aldaba poliki-poliki bere lekuan utzi, **jira** hartu eta etorritako bidetik itzultzea erabaki zuen. Harkaitz Cano

**Jira** hartu, eta harrituta, eskuoihalari eusten zion eskua ahora eraman zuen. Migel Angel Mintegi

Ezin da mahainguru bat utzi **jira** guztia osatzeko hainbeste gradu falta direnean. Bernardo Atxaga

*ik beherago* 19. Askoren artean

Usoak sarean egindako zulo batetik sartu-irten ibiltzen ziren, euren kasa, auzoko teilatu gainetan **jirak** egin eta berriz itzuliz. Jon Maia

Aste gutxiren **jiran** gutariko bakoitza aurreko hogei urte osoetan baino gehiago hazi ginen heldutasunerantz. Juan Garzia

**2** ingurua.

Kalkulatu nuen berrogeita hamar iardako **jira** izango zuela ziegak. Koro Navarro

**Jira** guztian begiratu nuen. Pello Lizarralde

Pareten **jira** guztian, ohol batzuen gainean eta baita mahai azpietan ere. Karlos Zabala

Pareten **jira** guztia hartzen duen liburu biribil izugarri handi bat. Juan Garzia

Lurrak eguzkiaren **jiran** egiten duen orbita. Pello Zabala

Zapi batean bil-bil egin, eta lepoaren **jiran,** eztarriari bero eusten, edukita nago ni txikitan. Pello Zabala

Gazte-jendea dantza batean suaren **jiran**. Pello Zabala

Tesia bertsolarien baliabide poetiko-erretorikoen **jiran** egin ondoren. Andoni Egaña

Bezero amestua berrogei urteen **jiran** zebilen. Juan Garzia

Begitandu zitzaidan etxearen **jirako** jardina infinituraino betaturik zegoela pertsona ikusezinez. Juan Garzia

Beste mundu batean bizi da, eta ez da bere **jirako** deusez konturatzen. Anjel Lertxundi

Oroitzapenak, pasadizoak, bizipenak, ideiak eta ideiara ere iristen ez direnak, bertsoen **jirakoak** guztiak. Andoni Egaña

Adinari zegokionez, nire aitaren **jirakotzat** hartu nuen hildakoa. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hartzazu zitara, egizu herri-**jira,** emagaldu ahaztu horrek! Ilargi **jira** bakoitza. Elizen arteko biblia

Gorputz-**jira** batez. Aingeru Epaltza

Enperadorea banintz, buruak moztuko nituzke inguru-**jira** guztian. Juan Garzia

Etxeari hiru itzuli-**jira** ematen zizkion inguruko pizti eta suge-ziraunak uxatzeko. Pello Zabala

Orain mende erdiaren adin-**jira** horretan gaudenoi. Joxerra Garzia

Hirian eta eskualdean barrena bisita-**jiran**. Juan Garzia

Enplegatu askok beren baratze koxkorra zuten, bulego-etxe karratuaren inguru-**jiran**. Juan Garzia

**4** *jira-bira* ik **jirabira**.

**5** *jira-biraka* ik **jirabiraka**.

**6** *jira-biran* ik **jirabira 3**.

**7** ***jira-buelta*** jirabira.

Badakizue, gure 24 orduko egun honek, eguzkiaren eta lurraren arteko **jira-buelta** horien artekoa ezin duela zehatz-mehatz bildu eta lotu, segundo batzuen koxka hor gelditzen da beti. Pello Zabala

Zeruko astroen **jirabuelta** espazialak. Juan Martin Elexpuru

Biziaren izerdia eta ongarri bakarra gogoa da, bizitzeko gogoa; eta ez dago beste **jira-bueltarik**. Iñaki Segurola

Tarte horretan nire buruak ziba batek baino **jirabuelta** gehiago eman zituen. Xabier Olarra

· *adlag* Zotinak egiten zituen, ohean **jira-buelta** zebilen... Pablo Sastre

**8** ***jira-bueltaka*** *(10 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean; orobat **jirabueltaka** 4 agerraldi 3 liburutan)* *adlag* jirabiraka.

Enarak **jira-bueltaka** dabiltza balkoien inguruan. Jokin Muñoz

Hegaz **jira-bueltaka** ari ziren antxeten karraka errepikakorrek. Txillardegi

Lema tinkotu zuen azkenik, gurpilaren erdialdean ezker-eskuinean zeuden gakoak estuturik, lemak, **jira-bueltaka** hasita, belaontzia kontrolik gabe utz ez zezan. Anjel Lertxundi

Nik Margaren gutunaren misterioa ezin argiturik **jira-bueltaka** nuen burua. Juan Luis Zabala

Orduan, gerritik heldu nau eta **jirabueltaka** hasi gara gure jardunari utzi gabe. Juan Martin Elexpuru

**9** ***jira-bueltan*** jirabiran.

Ekaitza **jira-bueltan** dabil. Pello Zabala

Haren **jirabueltan** kiribiltzen zen, estu-estu, ankerki. Karlos Linazasoro

**10** ***jira egin*** ik **jiratu**.

Latazko oilartxo bat haizeak bultzatuta **jira egiten** zuena. Fernando Rey

**Jira egiten** zuen bizikletaren gurpilak, **jira** argi farolaren dinamoak: atsegina zen jiratze hark sortzen zuen zurrumurrua entzutea. Bernardo Atxaga

Egunen gurpil hartan nik ere **jira egiten** nuen. Bernardo Atxaga

Dena doa aurreraka, munduak **jira egiten** du, amodio orok oinazea du akabera. Isiltasuna musika baitzitzaidan orduan, isiltasuna bera sendatzen zuena, isiltasunaren inguruan **jira egiten** zuena, isiltasuna biltzen zuena. Fernando Rey

· *(itzuli erdi egin)* Zer egin? ez neukan derrepentean **jira egin** eta joaterik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jira egin** eta sua eskatu zidan. Migel Angel Mintegi

· *(norabidea aldatu)* Bideak **jira egitean,** atzera begiratu eta autoa ikusi zuen. Koro Navarro

· *(itzulia egin)* Barrakoak kafea prestatu bitartean komuneko **jira egiteko** aprobetxatu dut. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru **jira egin** zizkioten hiriaren erdiguneari, beste abertzaleek ikus zezaten. Juan Kruz Igerabide

· *(izenondoekin)* Hegazkin arin bat hodeipean, **jira** dotorea **eginda** gaztelura buruz amiltzen. Koldo Izagirre

· *(egin ezabatua)* **Jira** eta beste alderantz begira jarri zen, miradorera, Obabako haranera. Bernardo Atxaga

**Jira egin** zuen etxearen inguruan, harik eta atzealdean leiho bat erdi irekita ikusi zuen arte. Felipe Juaristi

## 11 ***jira eman*** itzulia egin.

Eguzkiaren bueltan [Lurrak] **ematen** duen **jira** urterokoa. Pello Zabala

Zaldi, mando eta asto, denak eliz ingurura eraman, eta hiru **jira emango** zizkioten elizari. Pello Zabala

· *(itzuli erdia egin)* Han gelditu eta **jira emanda** begira geratu zitzaion detektibeari. Migel Angel Mintegi

· *(norabidea aldatu)* Bigarren zatian, erabateko **jira emanez,** Xabier Leteren hitzekin, Ramon Lazkanok idatzi duen *Otoitz baten gisan* lana eman zuten estreinako aldiz. Berria - Kultura

Haize oso zakarrak hegotik dabiltzaneko, laster **eman** ohi dutela mendebalerako **jira**. Pello Zabala

## 12 ***jira erdi egin*** *(orobat **jira erdia egin**)*

Bere gorputza ardatz harturik **jira erdi** egin zuen ilunpean, ordea, ardotan bustitako ziba batek bezala. Felipe Juaristi

Ez nuen nahikoa bizkortasun eduki **jira erdi** eginda irteteko. Agurtzane Juanena

· **Jira erdia** egin eta eskaileretan gora igo zen berriz. Felipe Juaristi

Aski izan zaio ezkerrerantz **jira erdia** egitea. Pello Lizarralde

**Jira erdia** egin eta gorantz ekin dio. Xabier Mendiguren Elizegi

Han, ezin ulertuzko arrazoi batengatik, **jira erdia** egin eta lehengo hartara itzuli nintzen. Matías Múgica

## 13 ***jira eta bira*** *adlag*

Miru bat ikusi genuen, zeruan **jira eta bira**. Juan Luis Zabala

Eta **jira eta bira** hasi ziren, gero eta arinago gero eta mugimendu zorabiagarriagoan. Felipe Juaristi

Hainbertze goiti eta beheiti, hainbertze **jira eta bira,** nola zehaztu zuen ibilbidearen nondik norakoa? Tiobiboan **jira eta bira,** gora eta behera, hor doa, joan eta joan, zalditxoa. Xabier Montoia

Elur-malutak dantzan, aiko-maiko, **jira eta bira** leiho handien beste aldean. Lopez de Arana

Antxetak **jira eta bira** zebiltzan, uluka. Lopez de Arana

**Jira eta bira** dabilen errota handi bat. Eskarne Mujika

Burua **jira eta bira** dabilkit. Mirentxu Larrañaga

Emakumea zutitu orduko ohartu zen auzitegiko aretoa astiro **jira eta bira** zebilkiola. Lopez de Arana

Ziri luze batez zeharkaturik, **jira eta bira** darabiltzazue. Xabier Montoia

Eta han ibili ginen biok **jira eta bira,** beti gai beraren inguruan. · Hemen **jira** eta han bira, letren eta hitzen desfile koloretsuan. Oskar Arana

· *iz* Hainbeste **jira eta bira** eman zizkion asmo horri, hain liluraturik zegoen harekin azkenerako, ezen. Karlos Zabala

Harik eta, hainbeste **jira eta bira** egin ondoren, izerditan hasi nintzen arte. Joan Mari Irigoien

Autoen argi urdinak **jira eta bira** iraunkorrean. Iñaki Zabaleta

## 14 ***jira eta biraka*** *adlag* jira eta bira.

**Jira eta biraka** hasi ziren musikaren doinupean. Felipe Juaristi

Bere burua ardatz harturik, **jira eta biraka** hasi zen, zoruaren gainean irristaka, errege garaiko dantzarien modura. Felipe Juaristi

## 15 ***jira eta buelta*** *adlag*

**Jira eta buelta** hasten ziren, bularrak bularren aurka jarririk. Felipe Juaristi

Ekaitza bueltaka dabil, toki berean **jira eta buelta...** ! Pello Zabala

Halako batean **jira eta bueltak** utzi eta eseri egin zen. **Jira eta buelta** aritu zuan gure aitona gauzak kontatzen, gerra zela eta ez zela. Anton Garikano

Pentsamendu bat, hala ere, astean zehar **jira eta buelta** ibili zaidana: [...]. Anjel Lertxundi

· Begiak bildu ezinda, **jira** alde batera eta **buelta** bestera, hasperen larrika. Felipe Juaristi

· *iz* Orain kontu horiek bestelako **jira eta bueltak** hartu badituzte ere Europako beste arrantzaleentzat eremuak zabaldu direnean. Pello Zabala

Eta ez ziren inolaz ere makalak horretarako egin behar zituen esfortzuak, eman behar zituen **jira eta buelta** guztiak. Iban Zaldua

Hainbat **jira eta buelta** eman ostean, alferrikakoa iritzi zion lo egiteari. Fernando Morillo

## 16 ***jira eta bueltaka*** jira eta biraka.

Ume haiekin zegoen bitartean, eguneko jardun bakarra jolasa zen, beti ametsetako munduetan **jira eta bueltaka**. Julen Gabiria

## 17 ***jira eta jira*** *adlag* jira eta bira.

**Jira eta jira** aritu ginen, ordubetez beharbada. Koro Navarro

Lepoari **jira eta jira** hasi zen, giharrak arintzeko. Anjel Lertxundi

Zeren zurrunbiloek **jira eta jira** ibili baikintuzten. Koro Navarro

Buruan **jira eta jira** omen zuen asmoaren berri eman zigun. Joxerra Garzia

· **Jira** batera **eta jira** bestera, torlojuaren eske dagoen dranbala balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Alabaina, ezin zen sosegatu, **jira** batera **eta jira** bestera. Juan Kruz Igerabide

Hamidaren lo eza borroka gotorra bilakatu zen, eta **jira** batera, **jira** bestera ibili behar izan zuen. Patxi Zubizarreta

## 18 ***jira-jira egin***

Eligiok hartu zuen poliki-poliki baso bat, **jira-jira egin** zuen eskuan, eta bestearen lagun bidali zuen, kolpe seko batez. Josu Zabaleta

## 19 ***jira oso***

-Eskerrik asko -oinen gainean **jira osoa** egin du, irri argi batekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan, burua apaldu du, eta, **jira osoa** egin ondoren, atzerakoari eman dio. Pello Lizarralde

Zabu eta astindu haiek iarda gutxi batzuk mugiarazten gintuzten zenbaitetan, eta besteetan berriz zurrunbiloaren **jira osoa** eginarazten ziguten ia-ia. Koro Navarro

Presondegiaren **jira osoa** egin eta itzulia bukatzean nahitaez aurkitu behar nuen pusketa hura. Koro Navarro

Zenbat geunden stadiumaren **jira osoan** eraztun perfektu bat osatuz? Karlos Linazasoro

Baina plazako **jira osoan** ez zegoen inor, ezta Xalbadora bera ere. Felipe Juaristi

Igande batez, azokan zehar ibilki **jira osoa** ematera zihoalarik, musika entzun zuen Sarak. Felipe Juaristi

**Jira osoa** eman zion katedralari, Andreas beste ateren batean zain aurkitzeko esperantzaz. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jira batera** (3); **jira bestera** (3); **jira biran** (15); **jira buelta** (12); **jira bueltak** (3); **jira bueltaka** (10); **jira egin** (16); **jira egin zuen** (4); **jira eginez** (4); **jira egiten** (8); **jira erdia** (8); **jira erdia egin** (6); **jira eta bira** (69); **jira eta biraka** (3); **jira eta buelta** (56); **jira eta bueltak** (3); **jira eta jira** (7); **jira guztia** (3); **jira guztian** (6); **jira hartu** (3); **jira osoa** (8); **jira osoa egin** (4); **jira osoan** (3)

**eguzkiaren jiran** (4); **jiran zebilen** (3); **mahaiaren jiran** (3); **samaren jiran** (3)

---

# jirabira

*(**32** agerraldi **25** liburutan; orobat **jira-bira** **13** agerraldi **12** liburutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jirabira** agertzen da)* **1** *iz* itzulbira, itzulia, bira.

Zaharrak **jirabira** bat egin zuen, berriro zaharren artera joateko bezala. **Jirabira** biren ostean, dagoeneko ezin nion fusilari goian eutsi luzaroan. Josu Zabaleta

Suzko gurdi bat sartu zen atetik eta bizpahiru **jirabira** egin zituen gelan batetik bestera. Askoren artean

Munduak **jirabira** asko eman ondoren, neska hark eta biok halako harreman labur bat izan genuen. Karlos Zabala

Bizitzak **jirabira** asko ematen zituela, inork ez zekiela zer gerta zitekeen handik bost minutura. Joxemari Iturralde

Berehala ugalduko da txorien algara, alturako **jirabirak** utzi eta arrapaladan jauziko dira uretara. Joseba Sarrionandia

Ni ikusi orduko haren zaunkak eta **jira-birak**. Sentsazio gurpilaren edozein **jira-biraren** distira edo itzala pausatutako unea kristalizatu eta izozteko. Gotzon Garate

Lehengoan auto-ilara batek harrapatu hinduen eta hamaika **jira-bira** eman behar izan hituen lanera iristeko. Iban Zaldua

Dantzariek mutila korapilatu zuten beren dantzen mila **jira-birekin**. Karlos Zabala

Egizue Sionen **jira-bira,** zenbatu bertako dorreak. Elizen arteko biblia

Lemaren kirrinka tarteka, kakotik askatu eta **jirabira** noiz hasiko. Anjel Lertxundi

Gerriaren **jirabira** osoan. Mirentxu Larrañaga

Erruleta handi horren **jirabirari** begira, zorabiatzeko zorian. Iñaki Heras

## **2** (izenondoekin)

Corleyren buruaren **jirabira** geldiaz oroitu eta nahikoa lasaitu zuen. Irene Aldasoro

Mota ezberdinetako hegaztiak azaldu ziren santuaren gelatxoaren inguruan hegaka, beren musika eta **jirabira** alaiz. Askoren artean

Haren ahots sarkorra belarri zuloetan **jirabira** beltzetan higitzen zitzaion, sabeleraino sartu aurretik. Gotzon Garate

Leihoz leihoko **jirabira** zorabiagarrian. Mirentxu Larrañaga

Harik eta bere pentsamendua, gero eta **jira-bira** bizkorragoen poderioz, intentsitate harengatixek lehertu zen arte. Anton Garikano

Baina mundua biribila da, eta **jira-bira** etengabean dihardu gainera. Joxerra Garzia

Mollyren txirikordak haren buruan **jirabira** zirimolatsuan zebiltzala. Mirentxu Larrañaga

Helizeen **jirabira** zaratatsua. Joseba Sarrionandia

Bistara azaltzen zen lurralde eremu hartan etxe dotoreak eta eliz dorreko kupula sabel-handiak nabarmentzen ziren aurrena; harago, ibaiaren **jira-bira** ugariak. Karlos Zabala

Eta ez zen ulertzen **jirabira** zehatz ero haien arrazoia. Patziku Perurena

## **3** (adizlagun gisa)

Errusiako poliziari **jira-bira** ibiltzea ez zaio atsegin. Karlos Zabala

Haren ikusmenean hiru eihera zebiltzan **jira-bira,** baina eskalea gureari begira zegoen. Pablo Sastre

## **4** ***jirabiran*** *(**20** agerraldi, **13** liburu eta **5** artikulutan; orobat* ***jira-biran*** ***16*** *agerraldi,* ***11*** *liburu eta* ***3*** *artikulutan)* *adlag* jirabiraka.

Zibaren antzera etengabeko **jirabiran**. Gure planetaren inguruan **jirabiran** dabilena. Joxe Austin Arrieta

Ok egin eta botatakoaren **jira-biran** dabilen txakurra bezalakoa. Elizen arteko biblia

Kanpamentuko suaren **jirabiran**. Xabier Mendiguren Elizegi

Untzia urperatu balitz, zurrunbiloaren **jira-biran** joan eta atsedena aurkituko zukeela itsas zolan. Anton Garikano

Itzulipurdika ibili dira, **jirabiran,** elkarri ukabilka eta madarikazioka. Mirentxu Larrañaga

Beren haurrak, tam-tamaren soinuan **jirabiran** dantzatzen dira konortea galdu arte. Monika Etxebarria

Hori dela eta, gaixoak zorabialdiak izaten ditu, eta, ohean etzanda dagoela ere, **jirabiran** dabilela iruditzen zaio. Irene Aldasoro

Aurreko egunetan **jira-biran** ibilitako ideiak biltzeko kontzentrazio ahalegin handiaren ondoren. Iñaki Iñurrieta

Burua **jira-biran,** eskema aldaketaren batekin beharbada funtzionatuko zuela pentsatu eta, bat-batean, zera etorri zitzaidan burura: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Gero esan beharrekoak hitz haren **jirabiran** josteko. Anjel Lertxundi

· Baina mundua biribila da, eta **jira-bira** etengabean dihardu gainera. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jirabira egin** (4); **jirabira egin zituen** (3)

---

# **jirabiraka** *(**109** agerraldi, **34** liburu eta **5** artikulutan; orobat* ***jira-biraka*** ***58*** *agerraldi,* ***25*** *liburu eta* ***4*** *artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian* ***jirabiraka*** *agertzen da)* *adlag* jirabirak egiten.

Hegazti zuriak helduko dira, ontzi geratu eta eskoratuaren gainean hegan **jirabiraka**. Joseba Sarrionandia

Gurpilak hutsaren gainean **jirabiraka**. Joxe Austin Arrieta

Etengabe **jirabiraka** ari ziren gurpilak. Jose Morales

Gramofonoaren orratzak diskoko ildo hutsean **jirabiraka** ateratzen zuen karraska-hotsa besterik ez zen aditzen. Alberto Ladron Arana

Masta gainean antena parabolikoa **jirabiraka** ari zen. Joseba Sarrionandia

Elur pilota txikia, maldan behera **jirabiraka** jaitsi ahalean, [...]. Hiru kaio **jira-biraka** zebiltzan. Iñaki Arranz

Txita-talde ugaria zuen eta inguruan zebilkion etengabe **jira-biraka**. Askoren artean

Ziegan **jirabiraka** aritzen zen, ziba baten antzera. Jose Morales

Maitagarri hura arratoi bihurtu zen, eta **jira-biraka** hasi zen bere isatsa harrapatu nahian. Iñaki Mendiguren

Fenardi-k lau ordu egin zitian **jira-biraka,** haize-errotaren antzera. Jose Morales

Lurreko atmosfera aztertzeko beste bi satelite baditu ja NASAk planetaren inguruan **jira-biraka:** Aqua eta Aura. Berria - Gaiak

**Jira-biraka** gabiltza oilo itsuen modura, geure buruak ezagutu gabe. Joan Mari Lekuona

Maelek berak dena **jirabiraka** ari zitzaiola nabaritu zuen. Joanes Urkixo

Hantxe egongo nintzateke etzanda, ohean etengabe harat-honat **jirabiraka**. Mirentxu Larrañaga

Oroimenaren gurpila **jira-biraka** hasi zitzaion. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jirabiraka** ari zitzaion Ruche jaunari burua. Jon Muñoz

Burua **jirabiraka** zebilkidan, zorabiatuta. Buruan **jira-biraka** bazerabilen ere, ez zuen lortzen korapiloa askatzea. Jose Morales

Zergatik setatzen zara kontu horri **jirabiraka**. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burua jirabiraka** (4); **buruan jirabiraka** (6); **dena jirabiraka** (3); **gainean jirabiraka** (6); **inguruan jirabiraka** (17); **inguruan jirabiraka zebilen** (3); **jirabiraka hasi** (7); **jirabiraka hasi zen** (4); **jirabiraka zebilen** (7)
> **buruan jira biraka** (6); **inguruan jira biraka** (4); **jira biraka** (58); **jira biraka hasi** (10); **jira biraka zebiltzan** (3)

---

# **jirabiratu,** jirabira(tu), jirabiratzen du *ad* jirabirak egin.

Ezpata **jirabiratuz,** demonioen artera oldartu zen. Joanes Urkixo

Hozteko ura gurpilaren erdialdera sartzen denean, palek, hura hartu, eta abiadura handian **jirabiratzen** dute, hornikuntza-hodira pasatu eta handik zilindrora joan aurretik. Irene Aldasoro

Orduan anai Maseo jirabiraka hasi zen, eta hainbeste bira egin zituen, ezen, horrela **jirabiratzean** gertatu ohi denez, zorabioak eraginda, lurrera erori baitzen behin baino gehiagotan. Askoren artean

---

jirabuelta ik **jira 7**.

---

jirabueltaka ik **jira 8**.

---

**jiradisko** *iz* musikako diskoentzako jiragailua.

Azken kantua bukatua zela adieraziz **jiradiskoan** orratzak salto egin zuenez, telebistari sakatu zion. Unai Iturriaga

---

**jiradizo** *iz*

Patakik, kontu handiz ireki zuen leihoa, eta bigarren tiroak autoaren karrozeria urratzen zuen une berean, gerri **jiradizo** zalu batez sorbalda leihotik atera eta hiru tiro egin zituen patruila autoaren aurka. Harkaitz Cano

---

**jirafa 1** *iz* Afrikako ugaztun hausnarkari handia, lepoa oso luzea duena *(Giraffe camelopardis).*

Animalia bat ezagutzekotan, mugimenduagatik edo ezaugarri bakar bategatik ezagutzen zuen Virgilek -kangurua jauziengatik, **jirafa** garaieragatik eta zebra marrengatik-. Xabier Olarra

Lur honen gainean bizi diren izakiak -zeinahi izanik ere haien ingurunea, tamaina, bizimodua; barea izan, zein otarraina, eulia edo **jirafa-** molekula ia berdin-petoz osatuak dira guztiak. Juan Garzia

Bazela han gazte bat, zeinaren lepoa baitzen **jirafa** oin-lasterrarena baino luzeagoa. Xabier Olarra

Jokabide sexual lesbikoak ikusi izan dira lehoi eme, kateme eta txakur emeen artean; ardien, behien eta behorren artean; txerri, untxi eta **jirafen** artean... Luis Elberdin

**2** (hitz elkartuetan)

Oreinki errea, **jirafa** xerrak, kabiar pote osoak. Joxan Elosegi

Hitz horiek esanda, **jirafa**-lepoko eta kapela txirikordaduneko gaztea azkar joan zen handik, esertzera joan ere. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jirafa lepoko** (4)

---

**jirafakume** *(orobat **jirafakume**)*

Bat-batean, **jirafakumea** amorratzen hasi da, aldameneko piztiatxoren bat apatxak zapaltzen ari zitzaiola aitzakiatzat jarriz. Xabier Olarra

**Jirafa**-kume lehen estrofan aipu dena. Xabier Olarra

Eta guztia ere, egoeraren baldintzak, azken buruan giza haur bat ager dadin mundura, eta ez ahatekume bat, **jirafakume** bat edo tximeletakume bat. Juan Garzia

---

**jiragailu 1** *iz* zerbait jirarazaten duen gailua.

Bazen hiri hartan hogeita bost metroko dorrea errautsez betea; dorreak **jiragailu** bat zuen, alde guztietatik isuria errautsetarantz zuela. Elizen arteko biblia

**2** musikako diskoak birarazteko gailua.

Neure gustu nahasien arabera egin nuen aukera, ez diskoetan baina zintetan, etxean ez baikeneukan **jiragailurik**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**jiragarri** *izond* biragarria.

Idazmahaiko aulki **jiragarria**. Josu Landa

Ate-orriak zipres-zurezkoak ziren eta bina ate **jiragarri** zituzten. Elizen arteko biblia

Ate haietako bakoitzak bi euskarri **jiragarri** zituen. Elizen arteko biblia

---

**jiraka** *adlag* biraka. ik **jirabiraka**.

Espazioan **jiraka** dabilen planeta honetan. Bernardo Atxaga

Elizaren inguruan **jiraka** ibiltzen ziren usoak hegan. Imanol Zurutuza

Baina ni aspertzen hasita nengoen denbora osoan putzu beraren inguruan **jiraka** ibiltzeaz. Anjel Lertxundi

Aparatuaren platera **jiraka** hasi zen, eta orratzaren ardatza automatikoki altxa zen bere euskarritik. Bernardo Atxaga

Gurpilak **jiraka** jarraitzen zuen nire buruan. Bernardo Atxaga

Ezkontza-eraztunari **jiraka** hasi zen Santos. Josu Landa

**Jiraka** eta biraka ari zen gauza gris bat. Josu Zabaleta

Azken-azken arte jarraitzen zioten musikari: zapata marroiak, zapata zuriak, zapata beltzak **jiraka** eta bueltaka. Bernardo Atxaga

Horra irudia: Lurra **jiraka** beti, eta beti geldi lurra. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**
> **beltzak jiraka** (3); **beltzak jiraka eta** (3); **bestera jiraka** (6); **burua jiraka** (6); **buruan jiraka** (15); **eta bestera jiraka** (5); **eta jiraka** (8); **inguruan jiraka** (24); **inguruan jiraka eta** (3); **inguruan jiraka zebilela** (3); **jiraka ari** (10); **jiraka ari zen** (3); **jiraka dabilen** (3); **jiraka eta** (17); **jiraka eta biraka** (4); **jiraka eta bueltaka** (6); **jiraka hasi** (14); **jiraka hasi zen** (8); **jiraka hasten** (5); **jiraka ibili** (5); **jiraka ibiltzen** (3); **jiraka jarraitu** (3); **jiraka jarraitzen** (5); **jiraka zebilela** (3); **jiraka zebilen** (3); **zapata beltzak jiraka** (3); **zeruan jiraka** (3)

---

**jirakari** *(2 agerraldi 2 liburutan; cf **birakari** 77 agerraldi, 27 liburu eta artikulu 1ean)* *izond* birakaria. ik **jirakor**.

Joan nintzen ate **jirakarira** eta buelta egin zuen. Koro Navarro

Hasieran **jirakaria** zela pentsatu nuen; gero konturatu nintzen esferak bere baitan zeuzkan ikuskizun zorabiagarriek sorturiko irudikeria zela mugimendu hura. Juan

Garzia

---

# jiraketa *(3 agerraldi 2 liburutan; cf* ***biraketa*** *65 agerraldi, 16 liburu eta 5 artikulutan)* *iz* biraketa, jiratzea.

Gurpiltxoek beste **jiraketa** bati ekin zioten. Bernardo Atxaga

Eta horrela, **jiraketa** etengabean, inolako helbururik gabe, inorako asmorik gabe, jiratze hutsagatik jiratuz. Bernardo Atxaga

---

# jirakor *izond* birakorra. ik **jirakari**.

Gain-gainean, "itsasargia", Farola alegia; baita lente **jirakorra** inguratzen duen burdinazko balkoitxoa ere. Txillardegi

Itsas faroa; dorrea, alegia, zuria, borobila, lerdena, hasia zen jadanik bere errainu **jirakor** bikuna bazterretara hedatzen. Txillardegi

---

# jiraldi *iz* biraldia, jira.

Tenporetako eguna zenez, badu bere morbotxoa, eta komeni da bere **jiraldi** osoan erreparatzea. Pello Zabala

---

# jirarazi, jiraraz, jirarazten *(54 agerraldi 30 liburutan; cf* ***birarazi*** *76 agerraldi, 31 liburu eta artikulu 1ean)* du *ad* birarazi, jiratzera behartu.

Hari [Cardan giltzadurari] esker **jirarazten** ditu bolanteak gurpilak. Jon Muñoz

Gurpiltxo hori **jirarazi,** eta nik txistu egingo dut. Xabier Olarra

Baina Jansonek, eskopeta eskuetan **jirarazi,** buruaz ezezkoa egin, eta ez zuen onartu. Jose Morales

Aulki gurpilduna bere ardatzean **jirarazi,** eta goi-ordokian zehar zihoan harresi-lerroa seinalatu zuen don Ottaviok. Jon Muñoz

Bost azukre koskor edontzira bota eta latorrizko koilara kanporantz **jiraraziz** eragin zien. Koro Navarro

Lurra jiraka ibiltzeak haizeak ere **jirarazi** egiten ditu. Pello Zabala

Bizarginak eserlekua **jirarazi** zuen, ispiluari begira jartzeko. Koro Navarro

Bizarginak berriz **jirarazi** zidan burua, eta lanean jarraitu zuen bere labanarekin. Koro Navarro

Haren eskutzarrak jertsetik heldu zidan, txakurtxo bati bizkarreko larrutik heltzen zaionean bezalaxe, lurretik apur bat jaso, beste eskuaz burua **jirarazi,** eta zuzen-zuzen begiratu zidan, begi-niniak erretzen zituen su gaizto harekin. Juan Kruz Igerabide

Zaldiari burua **jirarazi** zion, lepotik indarrez tiratuta. Lopez de Arana

Atzetik hurbildu, gerritik oratu, eta **jirarazi** egin nuen. Anjel Lertxundi

Atzetik joan, **jirarazi,** eta niri begiratzera derrigortu nuen. Anjel Lertxundi

Alkandoraren lepoa urratu zidan, eta iletik helduta **jirarazi** ninduen. Koro Navarro

Aurpegiz ez da horren polita, ez da kalean **jirarazten** zaituztenetakoa ipurdia begiradaren parekoa ote daukan ikusteko. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **burua jirarazi** (9); **edalontzia jiraraziz** (3)

---

# jiratorio *izond* jirakaria.

Dendaren atzeko aldean, ate **jiratorioaz** bestaldean. Alberto Barandiaren

---

# jiratsu *izond*

Berba mantsoetan ari zela zirudien eta eskuek airean egiten zuten norabide **jiratsua** ere abiadura bertsukoa zen. Josu Landa

---

# jiratu *(1171 agerraldi, 143 liburu eta 7 artikulutan; cf* ***biratu*** *193 agerraldi, 52 liburu eta 7 artikulutan; orobat* ***jirau*** *g.er. eta* ***jira*** *g,er.)* , jira(tu), jiratzen **1** da *ad* biratu, jira egin.

**Jira** hadi, mesedez, ene laztana. Antton Olano

Baina, tira... -Harryrengana **jiratu** zen-, eta zuk, zer esan behar zenigun? Iñaki Mendiguren

Harengana **jiratu** naiz eta irribarre egin diot. Monika Etxebarria

"-Bakarrik bizi al zara? -nireganantz **jiratu** zen. Migel Angel Mintegi

Ada leihorantz **jiratu** zen ostera. Anjel Lertxundi

Basamorturantz **jiratu** ziren israeldarrak. Jose Antonio Mujika

Begiak zabaldu eta ohean **jiratu** ginen, elkarri zuzenean begiratzeko. Koro Navarro

Osaba Vernonen begi txikiak Harryri begiratzeko **jiratu** ziren. Iñaki Mendiguren

Ez nintzen begiratzera **jiratu**. Matías Múgica

Gorrituta, Jenkyn jaunari erantzutera **jiratu** nintzen, zenbat urte nuen galdetu baitzidan. Koro Navarro

**Jiratu** nintzen eta berriz ekin nion nire lasterketari. Monika Etxebarria

**Jiratu** egin nintzen. Fernando Rey

**Jiratu** eta etxerantz abiatu nintzen. Anjel Lertxundi

**Jiratu** eta kanpora atera zen. Fernando Rey

-Ezin izan nuen galarazi -desenkusatu nintzen **jiratu** bitartean. Fernando Rey

Osaba Vernonen begi txikiak Harryri begiratzeko **jiratu** ziren. Iñaki Mendiguren

Burdinbidea ageri zen, geltokitik zuzen-zuzen ibaiertzean barna zihoana, mendialdera **jiratu** aurretik. Juan Kruz Igerabide

Bizikletaren gurpilak bezala, **jiratu** egiten ziren trenaren gurpilak ere. Bernardo Atxaga

Jende guztia **jiratu** eta begira jarri zitzaion. Jose Antonio Mujika

Harryk ez zuen astirik izan **jiratzeko** ere. Iñaki Mendiguren

Ateko heldulekua **jiratu** egin zen. Fernando Morillo

Barru osoa **jiratu** zitzaidala. Joan Mari Irigoien

**2** (adizlagunekin)

Izeba Petunia […] bizkor **jiratu** eta sukaldeko leihotik adi-adi begira geratu zen. Iñaki Mendiguren

Joxepa poliki **jiratu** eta hiru apaletegitan dituen flaskoak eta kaxak aztertzen hasi da. Pello Lizarralde

Mutila astiro-astiro **jiratu** zen eta izuz begiratu zigun. Anjel Lertxundi

Hain bortizki **jiratu** zen besaulkian, ezen zarrastatu egin baitzen bigungarria biltzen zuen ehun artilezkoa. Jose Morales

Bat-batean **jiratu** eta lasterka igo zen eskailera lohietan gora. Lopez de Arana

Trelawney andereñoa kolpean **jiratu** zen, Harryri barre-karkara batek ihes egin baitzion. Iñaki Mendiguren

Hain begirada gogor eta sakonez ezen brastakoan **jiratu** nintzen. Monika Etxebarria

Tupustean **jiratu** nintzenean, ez nuen han inor topatu. Harkaitz Cano

Orain arineketan **jiratzen** da. Jon Alonso

Dumbledorek begiratu bizkorra bota zion margolan hondatuari eta betilun **jiratu** zen. Iñaki Mendiguren

Begiak ilunak eta ederrak ziren, haien begiradan zerbait geldiegia zegoen arren, eta astiro eta astun **jiratzen** ziren beren zuloetan, aldi bakoitzean oso distantzia luzea ibiliko balute bezala. Jose Morales

• **3** du *ad*

Gero Abelengana **jiratu** du burua. Pello Lizarralde

Halako batean atzerantz **jiratu** zuen Norak burua. Anjel Lertxundi

Burua **jiratu** zuen Norak, ikuskizuna eraman ezinik. Anjel Lertxundi

Albo batera **jiratzen** dizuete burua, Penny Handirantz eta Umearen Jauregirantz. Julen Gabiria

Jendeak burua **jiratu** zuen; atzekoak hanka-puntetan zeuden. Iñaki Mendiguren

Denek burua **jiratu** zuten nigana, txunditurik. Juan Kruz Igerabide

Burua **jiratu** orduko Juanaren begiratua gogortu egin da. Pello Lizarralde

Gugana **jiratu** zituen begi itsuak. Juan Kruz Igerabide

Begitartea ezker-eskuin **jiratu** zuen, ongien nola egongo. Patxi Zubizarreta

Gorputza **jiratu** eta mostradore aurreko ispiluak kopetaren distira bueltatu zion. Joxemari Urteaga

Andreasek, sustaturik, brastakoan **jiratu** zuen gorputz erdia Noraren aldera. Anjel Lertxundi

-Une batez, bihotzekoren baten ondorioa izango zela ere pentsatu nuen nik -jarraitu zuen Philipek-, baina gorpua **jiratzean** odol putzua ikusi genuen lurrean eta arropetan. Joxemari Urteaga

Aurpegia niregana **jiratzeko** eskatu nion, ahoan musu emateko, eta **jiratu** egin zuen. Karlos Zabala

Mingaina oso-osorik nire ahoan sartzeko erregutu nion eta, bitartean, ipurdia **jira** zezala nik ferekatzeko. Karlos Zabala

Makila batez **jiratu** egin nuen, baina ez nion atzeman zauririk. Juan Kruz Igerabide

Esku-ohea **jiratzeko** eskatu zien. Karlos Zabala

Te-kikara beste aldera **jiratu** zuen. Iñaki Mendiguren

Eskailerak igo, atea jo, maratila **jiratu** eta sartu zen. Joxemari Urteaga

Kisketa eskuaz **jiratuko** du emakumeak, sudurra kristalaren kontra zapalduz oraindik. Joseba Sarrionandia

Poliki-poliki **jiratu** zuen giltza. Migel Angel Mintegi

Gero, klaxona jo, bolantea ezkerretara **jiratu,** eta ziztu bizian abiatzen da kalean gora. Patxi Iturritegi

Atea **jiratzen** badut, […]. zor nizun -beste argazkia ere **jiratu** eta erakutsi egin zion. Joxemari Urteaga

Zaratatsu **jiratu** zuen bere eserlekua Georg Weinerren aldera. Anton Garikano

Yolo Korreorengana doa, baina hau neska batekin ari da, eta burua **jira,** Yolo ikusi, burua bira, eta neskarekin jarraitu du. Pako Aristi

Poz zirrara Altgeldek bere azalean / beste **aldera** jira zuten bitartean. Xabier Olarra

**4** (zer osagairik gabe)

Eta *Fausto* obrak, Goetheren aurretik festetako barraketan kontatzen zen istorio horrek, ez al du ardatz berberaren inguruan **jiratzen**? Bernardo Atxaga

**5** *adkor* lortu. ik **inguratu 8.**

Nonondik gurditzar haundi bat **jirako** eban, lau txakur txikitan, eta gero, berak barri-barri imini eta barriaren prezioan salduko eban. Xabier Amuriza

Denporea aurrera joiala, Imanolen aita Rufinogaz hartu-emonean hasi zan, baita, geroago, soinu bat nonondik **jirau** eikion aitatu be. Xabier Amuriza

***6 erdi jiratu***

Erdi **jiratu** egiten naiz, eta haren eskua kopetatik kenduz, esaten diot: […]. Anjel Lertxundi

-Gero burua erdi **jiratu** zuen gizonarengana: nire senarra da, Willem. Anjel Lertxundi

-Hartzen al ditu agindutako horma-belarrak? -galdetu zuen, burua erdi **jiratu,** eta Nora seinalaturik. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aterantz jiratu** (3); **atzera jiratu** (19); **atzerantz jiratu** (7); **atzerantz jiratu zen** (4); **aurpegia jiratu** (3); **bat batean jiratu** (8); **begiratzeko jiratu** (8); **berriro jiratu** (3); **beste aldera jiratu** (9); **besteengana jiratu** (3); **bizkor jiratu** (7); **burua harengana jiratu** (3); **burua jiratu** (122); **burua jiratu zuen** (29); **bururik jiratu** (5); **denek burua jiratu** (3); **emakumea jiratu** (4); **erdi jiratu** (3); **eskuinetara jiratu** (5); **eskumara jiratu** (3); **gizona jiratu** (4); **gizonarengana jiratu** (3); **gorputza jiratu** (8); **gugana jiratu** (3); **harengana jiratu** (12); **jendea jiratu** (3); **jendeak burua jiratu** (3); **jiratu burua** (3); **jiratu du burua** (6); **jiratu eta esan** (5); **jiratu orduko** (6); **jiratu zuen burua** (18); **kolpean jiratu** (3); **leihorantz jiratu** (4); **neskarengana jiratu** (3); **nigana jiratu** (11); **niregana jiratu** (16); **niregana jiratu zen** (9); **ohean jiratu** (5); **orpoetan jiratu** (4); **pareta aldera jiratu** (3); **tupustean jiratu** (4); **zakar jiratu** (5)

**atzerantz jiraturik** (5); **aulkian atzerantz jiraturik** (3); **burua jiraturik** (3); **pixka bat jiraturik** (3); **txitxikovenganantz jiraturik** (4)

**burua jiratuta** (4); **burua jiratuz** (7); **burua jiratzeko** (3)

**alde batera jiratzen** (4); **alde guztietara jiratzen** (3); **burua jiratzen** (10); **jiratzen zuen burua** (3); **nigana jiratzen** (4)

---

# jiratxo *iz* biratxoa.

Hobe da goiko bazterrak ikusteko **jiratxo** bat autobusez egitea. Patxi Zubizarreta

Euskal Herri osoan **jiratxo** bat emanez. Patziku Perurena

---

# jiratzaile **1** *iz* aipatzen dena jiratzen duen tresna.

-Denbora-**jiratzailea** esaten zaio -xuxurlatu zion Hermionek-, eta McGonagall andereñoak eman zidan ikasturtearen hasierako lehen egunean. Iñaki Mendiguren

Hermionek jantzien azpira sartu zuen denbora-**jiratzailea**. Iñaki Mendiguren

• **2** *izond* jirakaria.

Betaurrekoak kopeta gainean, besaulki **jiratzaileari** mugimendu txiki batzuk ematen zizkion soinaz. Iñaki Zabaleta

---

# jiratze *iz* biratzea.

Jira egiten zuen bizikletaren gurpilak, jira argi farolaren dinamoak: atsegina zen **jiratze** hark sortzen zuen zurrumurrua entzutea. Bernardo Atxaga

Hura joan eta gero, planetak jiraka jarraitu zuen, baina **jiratze** hark ez zidan ekartzen lehen bezalako zorabio gozorik. Juan Kruz Igerabide
Bazirudien buruaren **jiratze** bakoitza, hatzen mugimendu bakoitza, hanken urrats bakoitza zeregin zail eta nekagarria zela. Jose Morales
**Jiratze** motel hark ez ninduen inora eramaten. Bernardo Atxaga
Eta horrela, jiraketa etengabean, inolako helbururik gabe, inorako asmorik gabe, **jiratze** hutsagatik jiratuz. Bernardo Atxaga
Lepoa ezkerrera edo eskuinera **jiratze** horrek salbatu zuen nire bizitza eta kondenatu zuen berea. Harkaitz Cano

---

# jiro *iz* jira, itzulia; aldaketa.

28-29 egun, hortxe-hortxe, izan ohi ditu ilargiaren **jiroak**. Pello Zabala
Egun berezia, eguraldi **jiro** jakin horietakoarekin, koarta-tenpora eguna izaki. Pello Zabala
Baina, ilargiaren martxan doazen 13 zuhaitz horietaz aparte, urtearen eta eguzkiaren **jiroari** ere erreparatu nahi izan dio zeltiarren kultura naturalak. Pello Zabala
Haizeak aparteko **jiro** edo aldaketarik egiten duen. Pello Zabala
Eta ostiraleko eguraldi tankerak eta haize **jiro** horiek markatuko dizute Aste Santu eta Pazkotako ilbetetik aurrerako eguraldien joan-etorria. Pello Zabala
Orduan, gariaren **jiroak** eta arto eta arbienak, urteko birajea ia-ia betean harrapatzen zuten. Pello Zabala

---

# jitanismo *iz* ijitoa izaeko nolakotasuna; ijito izaera eta zertzeladak.

Andaluzismoa, esana den bezala, **jitanismoa** dela gehien bat. Patziku Perurena
Eta horra non, Espainiako folklore nazionalistak (eta kasik kultura osoak) natural onartu eta aupatu duen **jitanismoa,** gaitzetsi eta estali egin du Euskal Herriko folklore nazionalistak. Patziku Perurena

---

# jite[1] 1 *iz ipar* izaera; jaidura.

Zer nahi duzu, ez dute gure **jitea;** manatu izan balitzaiote, batek ere ez zuen gibelera eginen. Marzel Etxehandi
**Jitea** halakoa baitzuen eta **jitea** ez baita bortxatu behar, Bettirik kanpoan egiten ez zuena bere etxe xokoan [...] egiten zuen, astiz eta asmoz, luma eskuan. Michel Oronoz
Ene ahizpa duk Elixabet eta maite diat segurki baina ez diagu **jite** bera. Janbattitt Dirassar
Beude paristarrak Parisen...! ez ditek batere hemengo jendearen **jite** bera. Janbattitt Dirassar
Zer gisetara ezagutzen ahal den bakoitzaren jitea eta zer ikasketa motari norbaitek hobe luken lotzea, agertzen duen **jite** horren arabera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Zaldiak ezagutu ditut eta Santxori esker ikasi dut zaldien **jite** berezia, nola manatzen diren, baina nola lehenik haietaz onartua izan behar den. Michel Oronoz

## 2 (izenondoekin)

Fede handiko eta **jite** nasaieko gizona ginuela Etienne Salaberry. Herria
Hire **jite** onak pozten nau; ez dira jabe guziak hain gogotsu agertzen. Elena Touyarou
Jainkoak populu bakoitxari eman dio bere **jite** berezia, bere nortasuna. Herria
**Jite** aberatsa zuen eta lagunkina zen. Herria
**Jite** handiko koregrafoa dugu Pantxika Telleria, ixila bezain sotila. Herria
Egun hartan Irfan Karakaz, **jite** kurdiarreko turkiarra, oinak eta eskuak estekan eraman zuten hegazkin batetara. Herria
Bizi daitezen beren **jite** propioaren arabera. Piarres Xarriton

## 3 *jitez*

Bortitza zen **jitez**. Xipri Arbelbide
Nitan dagoen abere xutituak baitaki sortzez eta **jitez** mugimenduaren berri. Piarres Aintziart
Bainan egia da **jitez** independientea zela. Xipri Arbelbide
Gizona **jitez** egiazko isiltasunaz beldur baita. Michel Oronoz
Bere **jitez,** bere bihotzeko behar batez, oren osoak iragaiten zituen bakarrik. Xipri Arbelbide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere jitearen arabera** (4); **gisa hartako jitea** (4); **jite berezia** (3); **jitez aldatu** (14); **tipula jiteko** (3)

---

# jite[2] 1 *iz ipar* etortzea.

Bainan izan da halere joaite baino aise **jite** gehiago. Herria
Denak markatuak ginen joaitean eta **jitean**. Marzel Etxehandi
Saran, negua bortitza abiatzen zen eta ogi bihiaren salneurria beti goiti ari, baina kezkagarriena Konbentzioak igorri ordezkari baten **jitearen** abisua izan zen. Elena Touyarou
Larunbatean, abendoak 18, Olentzeroren **jiteak** airostuko ditu Baionako karrikak. Herria

## 2 etekina

Neurri horiek dituzte kanbiatu nahi alegia-eta deusez: helduden urtetik harat, alargunduaren sos **jiteak** ez dituztela batere izari berean hartuko kondutan. Herria

---

jite[3] ik **eite**.

---

# jitetasun *iz*

Haizu gara gure bilduma atzerritarrei ere eskaintzera, eredugarri bezala eta Europako biztanleria zaharrenetariko baten **jitetasun** poetiko eta musikalaren taupada duen monumentu gisa. Berria - Kultura

---

# jito[1] 1 *iz* urak edo haizeak nora gabe bultzatzen duen gauzaren ibilera.

Izotz pusken **jitoa** ere aldekoa zuten, aurrerago oztopo gaindiezina eratzen ez bazuen, behinik behin. Karlos Zabala

## 2 *jitoan*

Itsasontzia, beraz, Gustavo konturatzeke, **jitoan** zihoan kostalderaino. amarrak hautsi eta **jitoan** doan itsasontzian bezala. Fernando Rey

Jendearen ustea da itsasora erori eta **jitoan** gelditzen den oro, biziduna nahiz bizigabea, hondartza horietako batean agertzen dela. Pako Aristi

Itsaso hari, inoiz **jitoan** azaldu zitzaien yate kanadar batek izena emana zion hari, Mateo Taboadaren Itsasoa esan zioten geroztik gure herriko marinelek. Koldo Izagirre

Portuaren sarrerako uretan txalupa txiki bat ikusten zen, hutsik eta uhinek **jitoan** kulunkatzen zutela. Joseba Sarrionandia

Izotz puska bakanak, **jitoan** ibaian behera. Karlos Zabala

Errekak **jitoan** zeroan gorpua. Urtzi Urrutikoetxea

**Jitoan** dagoen kea metatu zaigu gainean. Mirentxu Larrañaga

· *hed/irud* **Jitoan** nenbilen, galduta, eta Egunkaria-ko kontratua sinatu nuenean izar gidari bat atxiki nuela uste izan nuen. Juan Luis Zabala

Itakarik gabeko Ulisses baten gisan, **jitoan**. pitin bat edana inoiz, bere burua etxera garraiatu nahi baina norabiderik aurkitu ezinik, **jitoan** edo nora ezean.. Unai Iturriaga

---

jito[2] ik **ijito**.

---

**jiu-jitsu** *iz* armarik gabeko gudu artea, jatorriz Japoniakoa, indarrean baino areago borroka metodoan oinarritzen dena.

Karate, **jiu jitsu**, wing chun, boxeoa... -gazteak ostikada bat bota zuen airera, azkarra, altua. lagun horrek lezio handiak eman zizkidan antihipokrisia aplikatuari buruz, kontrarioari aurre egitean haren indarraz baliatu beharra dagoela-eta **jiu-jitsuko** borrokalariek egiten omen duten bezala. Fernando Morillo

---

**jo**, jotzen **1** du *ad* gauza batek beste bat halako indarrez ukitu. ik**talka 2**.

Bolantearen kontrola galdu eta beste auto bat **jo** zuen aurrez aurre. Oskar Arana

Motorrak zuhaitz bat **jo,** bera malkarrean behera ibaira erori, [...]. Juan Kruz Igerabide

Pasaian bapore batek harkaitza **jo** du eta, karabineroak jabetzerako, handik dakarzkigu. Pako Aristi

Harryk erasoa saihestu eta ganberaren horma **jo** zuen basiliskoak. Iñaki Mendiguren

Lema bat-batean eta kolpe bortitzez eskuinaldera biraraziz, *Leviatan* alboratzea lortu zuen, galeoia aurrez aurre **jo** ez zezan. Felipe Juaristi

Eguna argitzekotan zegoela, baltsak hondar banku bat **jo** zuen bortitz, zuhaitz enborrak askatu eta olatuek eraman zituzten. Karlos Zabala

Baina loreak zalgurdiko kristala **jo,** eta lurrean geratu zen maspildurik. Felipe Juaristi

Bat-batean, argi bat ikusi nuen niganatzen, ziztu bizian; **jo** ez nintzan, bidetik irten nintzen. Juan Kruz Igerabide

**2** kolpe bat edo kolpeak eman. (nor/zer osagaia norbait dela)

**Jo** egin nahi nuen, matrailezurra hautsi nahi nion. Bernardo Atxaga

Cadinek **jo** egiten zuen, haren kontrako amorruak harrapaturik, zergatik egiten zuen jakiteke. Karlos Zabala

**Jo** egiten ninduen, gizonek begiratzen zidatenean. Karlos Zabala

-Benetan aita, benetan **jo** zaituzte? eta zuk ere **jo** dituzu? zuk ere bai? gaiztoak ziren, gaiztoak? Aingeru Epaltza

Inork ere **jo** edo bortxatu ez zuela ziurtatzearren. Oskar Arana

Ronengana oldartu eta **jo** eta lurrera bota zuen. Iñaki Mendiguren

Han inguruan zen aizkora triste bat harturik, burutik behera **jo** du neska. Anjel Lertxundi

Eta **jo** eta istripuz hil egin bazuen? Oskar Arana

Baina bala batek berak ez ninduen **jo**. Jon Muñoz

-Eta hau egia ez bada, **jo** nazala zeruko tximistak -ari zen esaka. Koldo Biguri

Tximista batek **jo** izan balu bezala zegoen. Karlos Zabala

Jaitsi eta Antonio Ribera y Díaz de Heredia astin-astin eginda utzi zuen, irin orea egiteko arrabolaz **jo** ondoren. Felipe Juaristi

Gogotsu **jo** gintuen bizkarraldean esku-ahurraz. Mirentxu Larrañaga

Ematen zuen Ronek ostikoz **jo** zuela Lockhart orkatiletan. Iñaki Mendiguren

Davidek ukondoarekin **jo** ninduen saihetsean. Bernardo Atxaga

Orduan Enekoren baleztatik gezia atera eta bete-betean **jo** zuen jauna bizkarrean. Martin Anso

Ukabilkada batzuk **jo** dizkio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oposizioan zeuden kontserbadoreei inoizko kolperik handiena **joz**. Berria - Mundua

Bazekiten haizeak ez duela heriotza-kolperik **jotzen**. Xabier Aranburu

Hasierako kolpeak, ukabila itxita, Masaila bete-betean **jo** bazizkion ere, hurrena ukaldi indargabe sarriak eman zizkion. Inazio Mujika Iraola

Aurrez aurre egin zizkioten bi tirok ez zuten **jo,** mirariz, denek itsututa botatzen bai-tzuten, bizirik irauteko grinak gaiztoturik, herio larrian.· (dio *aditz gisa)* Gezi batek **jo** zion aurpegiaren erdi-erdian. Juan Kruz Igerabide

**3** (nor/zer osagaia zerbait dela)

Halako batean, amak atea **jo** zuen emeki. Juan Kruz Igerabide

Danba-danba **jo** zuen giltzaz itxi gabeko atea. Iñaki Mendiguren

Behin baino gehiagotan **jo** zuten arren, ontzia Atturrin sartu zen. Martin Anso

Aszetak makila jaso, eta buru gainean zeukan pitxarra **jo** zuen. Patxi Zubizarreta

Frantsesaren kanoikada batek **jo** zuen galeoia handik pixka batera. Felipe Juaristi

Katu hau ez dute erratzaz buruan **jo**. Iñaki Mendiguren

-Zer nahi duk, Peaceful, hire ipurtaldea **jo** eta airean leherraraztea? Mirentxu Larrañaga

*ik beherago* 40. Askoren artean

Ronanek, urduri, lurra **jo** zuen ostikoz. Iñaki Mendiguren

Gure aldera zetorren poliki-poliki, makilarekin lurra **jotzeari** utzi gabe. Irene Aldasoro

Koadroari ostikoa **jo** eta hautsi egin zuen erabat. Karlos Zabala

Orotara 427 jo oneratuak, horietarik 118 Goñik **joak**. Herria

**4** (nor/zer osagairik gabe)

Ikusgarrizko izotzak **jo** omen zuen hango paraje gehienetan. Pello Zabala

Tximista batek gazteluko zalditegian bete-betean **jo** eta sutea piztu zuen. Martin Anso

Egundoko galernak **jo** omen zuen Kantauriko itsas-bazterrean. Pello Zabala

10etik 12ra, ipar haizeak **jo** zuen bixi-bixi. Pello Zabala

Kristalezko atean kask-kask **jo** zuten. Lopez de Arana

Pikoan **jo** duzu. Jon Muñoz

**5** (kolpe mota adieraziz)

Zakar-zakar eseri zen, ukabilkada **jo** zuen mahaian. Karlos Zabala

-Hutsetik hasi behar -esaten zuen Charvetek, motz, aizkora kolpea **jo** izan balu bezala-. Karlos Zabala

Mailukadatxo bat **jo** zuen, bada, edontzi hutsean; beste bat, gero, erdi betean; bi hots, guztira. Jon Muñoz

Esku-zarta bat **jo** zuen. Iñaki Mendiguren

Baina urakanak zakarraldi bortitzagoa **jo** zuen orduan. Karlos Zabala

**6** irud/hed

Ondoezak **jo** zuen Marko eta Kosmasen ama, senarra zenaren puskak ikusitakoan. Felipe Juaristi

Tea hartzen ari zen bitartean, apoplexiak **jo** zuen. Jon Muñoz

Bi urte zituen gaitzak **jo** zuenean. Arantxa Iturbe

Garbi zegoen: eldarnioak **jo** zuen, noski, Nofutur! Jon Muñoz

Niri bihotzekoak **jo** dit birritan. Oskar Arana

Zein legek adierazten zuen Nathan Glass ere ez zuela gaixotasun horrek berorrek **jo**? Oskar Arana

Badirudi ero-boladaren batek **jo** dituela horrelako zerbait egiteko. Mirentxu Larrañaga

Zeharkako jakin-minez itaunka, heriok **jo** eta orduantxe eta bertantxe hilko ote zuen. Mirentxu Larrañaga

Etsiak **jorik,** eguzki sutsuaren azpian eseri zen. Juan Garzia

Gero, baina, etsipenak **jo** ninduen, ankerki. Juan Kruz Igerabide

Konturatu ahal izan ginen, bai, nagusikeriak **jo** eta harropuztuta zegoela, distiratsu agertzeraino. Mirentxu Larrañaga

Baina apaiz haiek ez dakit zer haizek **jo** zituen. Pello Lizarralde

Zintzoaldiak **jo** nau alderik alde. Iñaki Segurola

Haren begitartea ilunak **jo** zuen. Aingeru Epaltza

Kanpoko beroak ukabilkada batek bezala **jo** ninduen aurpegi-aurpegian. Aingeru Epaltza

Pantailako laukiaren behe aldeak **jo** ninduen begietara. Aingeru Epaltza

-Zoriontsua mutilaren begiek **jo** duten emakumea! Felipe Juaristi

· Baina mendeak eta mendeak geroago, esklerosiak gero eta **joago** dago, eta jada ia dena zurrun eta elkor da... Jon Alonso

*ik* 45.

Gero eta **joago** nengoen, trenpe txarraren maizter. Anjel Lertxundi

Atera gara, bainan biziraun dugunok osasunean joak garela senditzen dugu, gero eta **joagoak**. Marzel Etxehandi

· Berri-emaileen arabera, hain zen sakona ilunpea, non erretxinazko zuzi batez argitu behar izan baitzuen ehorzleak etxe izurri-**joaren** sarbidea. Juan Garzia

Bonboia pipi-**jorik** zegoen, eta nik poltsikora ezkutatzen nuen ziplo, lotsaren lotsaz. Juan Garzia

**7** iritsi, heldu.

Bizkitartean txalupak lehorra **joa** zuen. Koldo Izagirre

Egiptoko kostaldea **jo,** Mariotis aintziran barrena sartu, eta han, feluka batean ontziraturik, Nilo ibaian gora egin zuen Talesek. Jon Muñoz

Egun batzuk igaro eta gero, Casablancako portua **jo** dute, *Croix* ontzia erregaiez hornitu beharra baitago. Anjel Lertxundi

Lurra **jo,** urez hornitu, eta itsasontzien ondoan egin genuen otordua. Juan Kruz Igerabide

Baina ez zuen helmuga **jo**. Aingeru Epaltza

Ttipik markatu tokia **jo** nuelarik, bertzelako laguna espero nuen. Aingeru Epaltza

**8** hurrupadez eta mintzatuz, hartu.

Ahora eraman zuen botila-muturra, eta trago luzea **jo** zion. Anjel Lertxundi

Zurrut txiki bat **jo** zion sagardoari eta beste galleta bat hartu zuen. Mirentxu Larrañaga

Bi xurgada **jo** nizkion, motz, eta Charlyri pasatzeko imintzioa egin nuen. Aingeru Epaltza

Jauzkariak, zenbat eta salto handiagoa **jo,** orduan eta gerrikomin gutxiago nozituko zuen gero liho-biltzean eta gainerako uzta-lanetan. Pello Zabala

Bi trago luze **jo** ditu; ia izotzak ere joan zaizkio eztarrian behera. Pako Aristi

Zurrutada luzea **jo** zuen. Anjel Lertxundi

**Jo** zeuk ere tragoxka bat. Mirentxu Larrañaga

Beste hiru kalada **jo** behar izan dizkiot txirriari. Pako Aristi

**9** musika tresna edo kideko bati soinua atera.

Pianoa **jo** eta pianoari barne muinak harrotzeko. Felipe Juaristi

Andonik berdin **jotzen** zuen txistua, atabala, eskusoinua... Koldo Izagirre

*Pennsylvania* kabaretean **jo** zuen soinu handia 1950-54 bitartean musikari profesional moduan. Koldo Izagirre

Kezkatu egiten zuen trikitixa **jo** eta jendeak dantzarik ez egiteak. Iñigo Aranbarri

Jimmy Herfek berriro **jo** zuen txirrina. Lopez de Arana

Baforeak hiru tutuak **jo** zituen pailotari deika. Koldo Izagirre

· Nik **jo** eta haiek dantza; ni isildu eta haiek desagertu. Felipe Juaristi

· -Ene, hau da mina! -erosta **jo** zuen ahots leunaz, mutiko lokartu bat bailitzan. Lopez de Arana

· Argiak musika **jo** ahal baleza, saxo altuaren soinua aterako luke, eta oboearen eztia. Pako Aristi

**10** (zer osagaia jotzen den musika lana delarik)

Stonehamera egindako estreinako bisitan **jo** nuela kanta hura, Efrainen eta Rosarioren ezteietan hain zuzen ere. Bernardo Atxaga

Pena iruditzen zitzaidan [...] *Casatschok* eta antzeko pieza kaskarrak **jo** behar izana. Bernardo Atxaga

Aitaren ohar bat eman zidan gero eskura: **jo** beharko nituen piezen zerrenda. Bernardo Atxaga

Baina zeure txanda izango da, nik neure pieza **jo** eta gero. Anjel Lertxundi

Hiru pieza **jo** behar ziren: biribilketa bat, fandango bat eta arin-arin bat. Koldo Izagirre

· Bera aurrean paraten zan eta melodia baten hiru-lau nota astiro-astiro **joten** ebazan, guk geure soinuan bardin-bardin egin gengian. Xabier Amuriza

**11** (zer osagairik gabe) soinu edo zarata egin (zerbaitek)

Une hartantxe, ordea, tronpeta batek **jo** zuen eta gizon bat etorri zitzaion. Agustin Otsoa

Kanpaiak **jo** zuen. Askoren artean

**Jo** zuen bigarren kanpaiak ere. Jon Muñoz

Michel de Reyau zergatik zegoen kanpaiek noiz **joko,** [...]? Anjel Lertxundi

Telefonoak **jo** zuen. Unai Iturriaga

Une batzuk geroago, ateko txilinak **jo** zuen eta Malfoy dendara sartu zen. Iñaki Mendiguren

Berriz **jo** zuen sirenak. Jon Muñoz

· Argi oilarrak **jo** dute, eguna sentitu dute! Pako Aristi

Oilarrak **jo** berria zuen eta eguzkiaren lehen pindarrak ageri ziren ekialdean. Aingeru Epaltza

Trumoiak **jo** du. Iñigo Aranbarri

**12** *(erlojuaz mintzatuz, zer osagaia orduaren zenbakia dela).*

Ordu bata **jo** zuenean. Anjel Lertxundi

Jangela-egongelan, hamaikak **jo** zituen ordulariak. Jon Muñoz

Zortziak eta laurden **jo** gabe eta dagoeneko etxeko atariaren parean. Aingeru Epaltza

Danba **jo** zuen lehenengo kanpaiak, 19,45ekoak. Jon Muñoz

· Gauerdia **jo** baino lehentxeago sartuko zuen bala bat buruan. Jon Muñoz

Gaztelu Berriko ezkilak gauerdi **jo** zuenean. Elena Touyarou

Elizako erlojuak erdietako kanpaia **jo** zuen. Bernardo Atxaga

Erloju batek **jo** zuen nonbait. Iñaki Mendiguren

**13** sexu harremana gauzatu. *ik beherago* **54, 62.**

Ezkondu arte ez genuen **jo**. Luis Elberdin

Aitzinean Ximurra edo Charly izanez gero, itaun jakina etorriko zen ondotik: "baina **jo** huen, bai ala ez? Aingeru Epaltza

Ohean **jotzen** dugun bakoitzean lehenbiziko tximino ohatuaren desengainua eta oroimina berritzen ditugu. Iñaki Segurola

**Jo** osteko zigarreta erretzen ari ziren. Unai Iturriaga

Bestela, galde diezaietela Europan modu batera nahiz bestera gehien **jo** duen emakumeari: nik ziurtatzen diet ezin direla modu biak konparatu ere egin, eta nekez itzuliko direla aurrealdera, atzekoa probatuta gero. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Aurreneko aldiz zeinekin joko, eta arrebarekin **jo** omen zuela. Iñaki Segurola

· Normala da morroi batek atsegin handia hartzea beste bati **jotzean** eta berari **jo** diezaioten nahi ez izatea, eta, modu berean, beste horrek gustuko izan dezake hartzea eta ez ematea. Karlos Zabala

Fernandok hari ipurditik **jotzen** zionean, edo hark Fernandori **jotzen** zionean. Karlos Zabala

· Hori ezin da, ene aingerua; nire bizitza osoan ez dut alurik **jo**! ez naiz orain hasiko, nire adinean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**14** kopuruei buruz, zenbatekoa, aipatzen dena edo antzekoa dela uste izan.

Burgerreko bezerorik zaharrenari hemezortzi urte **jo** nizkion. Aingeru Epaltza

Nik baino bizpahiru urte gehiago **jo** nizkion. Aingeru Epaltza

Hogeita hamar bat **urte jo** nizkion, baina jasa zuen neska gazte batena bezain arin eta xaloa. Oskar Arana

Asko **jota** ere bikoiztu egingo da herri txikietako populazioa Araban. Berria - Euskal Herria

**15** (era burutua izen gisa)

Pauline-n **joak** egin du diferentzia partida huntan. Herria

Bien **joak** ere min egiten zion Istillarteren beso ttipittoari. Herria

20-14 aitzinean bi nafarrak, bi-paret urrezko bat Xalak, pilota aldatu eta... azken zortziak beretu dituzte lerroan, Xalak bere ausartzia eta **jo** finaz. Herria

**Jo** bortitza du, bainan irauten ikasi beharko du. Herria

**Jo** azkarrak, pilota behexte, zinez joko ederra erakutsi daukute lau ttipi hauiek. Herria

Hor izan dute arrapizte bat parioek baina ainitzek konprenitu zuten Biscoubyren **jo** ederrak eta Larrechearen aztaparra ez zirela aski izanen irabazteko. Herria

Berraondok 3 kintze botearekin eta **jo** luzeak gibeleraino. Herria

Orotara 427 **jo** oneratuak, horietarik 118 Goñik joak. Herria

· Haren baitan uzten dut neure burua beraren **jo eta jo** bortitzean, beraren bere egite leunean, zatirik uzteke. Juan Garzia

**16** *-ra* ***jo***[1] norabait edo norbaitengana joan.

Bidera iristean hegoaldera **joko** dugu, eta handik burguen amaierako harresietaraino zazpi bat legoa dago. Agustin Otsoa

Eibarrera ere **jo** zuten grabatzera, Arrate irratira, Pedro Gorostidi, Don Pedrorengana. Iñigo Aranbarri

Zuzenean **jo** nuen herritik lantokira, hirian sartu gabe ere. gero, bilatu Zazpigarren Errepidea, eta **jo** hortik zuzen Burlington-era. Aingeru Epaltza

Printzeak lasterka **jo** zuen Budurren gelara. Patxi Zubizarreta

Biharamunean bertan **jo** zuen gobernadore nagusiaren jauregira. Karlos Zabala

Gulanar gero eta kezkatuago zegoen eta itsas hondora **jo** zuen bere semearen berri izateko. Patxi Zubizarreta

Ibai bazterrera **jo** zuen berehala. Jon Muñoz

Malda batean gora **jo** zuen autoak. Jon Muñoz

Bertze nora **jo** asmatzeko patxadarik ezin harturik. Aingeru Epaltza

Ali Babak berriro ere hiru astoak hartu, eta harkaitz aldera **jo** zuen. Patxi Zubizarreta

Bixi eta zoli, autoaren atzealdera **jo** eta poltsa pare bat atera zituen maletategitik. Aingeru Epaltza

Biharamunean ere, Morgianak botikariarengana **jo,** eta hilzorian daudenei eman ohi zaien usaingarri bat eskatu zuen. Patxi Zubizarreta

Hala ere, bere amarengana **jo** beharrean, anaiarengana agertu zen dena kontatzeko asmoz. Patxi Zubizarreta

Egun batez, urringile batenera **jo** zuen, eta hark erregearen eta ministroen berri eman zion. **Jo** batera eta **jo** bestera, aldi bakoitzean erantzun ezberdin bat ematen zioten itaundutakoek. **Jo** batera eta **jo** bestera, baina haruzkoan adinaxe honuzkoan beti... Patxi Zubizarreta

· *(-rantz)* Norantz **jo** erabaki ezinik. mutil bat taldetik aldendu eta bagoi txikirantz **jo** zuen lasterka. Lopez de Arana

Emakumeak begi beltzak zeuzkan, dilatatuak, eta loreen gainetik, bere ezpain irtenek gizonarenganantz **jo** zuten. Lopez de Arana

Aulkia alde batera utzi eta Ellenengana **jo** zuen, beltzaran, kementsu, lerden. Lopez de Arana

Limite baterantz **jo;** gauza batera nahi bezain gertu hurbildu... sekula heldu gabe hara! Jon Muñoz

· *(-tik)* Hasieran, errealismoaren bidetik **jo** zuen. Jose Morales

Bagenekien nondik **jo,** beraz. Joxe Austin Arrieta

**Jo dezagun** urrunago; demagun mirari hori gertatua dela. Jon Muñoz

*ik beherago* 39. Askoren artean

**17** *-ra* ***jo***[2] zerbait lortzeko, argitzeko, konpontzeko... bidea, norbaitengan edo zerbaitetan bilatu.

Hiztegi-entziklopedietara **jo** aurretik. Jon Muñoz

Haien eskolara **jo** nahi izan dut: aiton-amon xaharrenen intentzio sanoenak ezagutu ditut atsotitz ongi ondu horietan. Pello Zabala

Al Khaiamen Aljebraren azken orrialdera **jo** zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

**Jo** dezagun botoetara. Jon Muñoz

Simsbury eta biok auzitegira **jo** gabe konpondu dugu kontua. Lopez de Arana

Sultanarengana **jo** zuen Omarrek, Hassani bizia barka ziezaion. Jon Muñoz

Ikasleen gurasoak ez zeuden orain isilik geratzeko, eta lurralde ordezkaritzara **jo** zuten kexatzera. Juan Kruz Igerabide

20 bat milioi lagun daude lan eske nora **jo** ez dakitela. Gotzon Garate

**18** *-ra* ***jo***[3] joera izan.

Merkatuak uniformetasunera **jotzen du,** baina joera horrek ez ditu tolerantzia faktoreak ongi egokitzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomia estandarrak merkatuan elkartrukatzen diren ondasunen azterketara **jotzen du** batik bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Merkatu-ekonomiak egonkortasuna ematen dion osaera politikoa suntsitzera **jotzen du** . Koro Navarro

Garapen iraunkorrak planteatzen duen ereduak norbanako oso, erabateko batentzako ingurune osasungarri bat lortzera **jotzen du** . Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Iparrak, [...] umelera eta euritsutara **jotzen du** paraje hauetan. Pello Zabala

Erretratuen koloreak, oro har, arre ilunkarara **jotzen du** . Monika Etxebarria

Haren adimenak gauza beteginetara **jotzen du** . Xabier Kintana

Marren arteko erlaziora, abstrakziora **jotzen du,** aurrean duen paisaiaren azpian datzan egiturara. Iñaki Iñurrieta

Horretarako, elipsira **jotzen du** sarritan, hizkuntzaren ekonomiara. Koro Navarro

Helburu hori lortu nahirik, abiapuntutik bertatik suposizio hutsetara **jotzen du** kazetariak. Koro Navarro

## 19 *-tzat jo*

Neure egitekoak amaitutzat **jo** nituen ate aurre horretan. Nire ingurukoek dohatsutzat **jo** ninduten, ikasketak oraino akitu gabea abiatu bainintzen lanean. Aingeru Epaltza

Freuden ekarpen handitzat **jo** da sexualitatea eta ugalketa bereizi izana. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez ditzagun geure buruak engaina eta naturaren legetzat **jo** interesak eta handinahiak sortutakoa dena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina pentsatzen dut, hala ere, izango dela zenbait ekintza arriskutsu, berez txarra den zenbait jokabide, beti kriminaltzat **jo** izan direnak. Ekologisten aitzindaritzat ere **jo** izan da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ziurtzat **jo** nuen ez nintzela aurrerantzean Adrianekin eta Martinekin ibiliko, baizik eta haiekin. Bernardo Atxaga

Buru sukarturen batek sorgintzat **jo** dituen emakumeak urkamendira eramanez? Anjel Lertxundi

Erreginak bururatutzat **jo** zuen batzarra, ihardesteko txandarik inori eman gabe. Aingeru Epaltza

## 20 *adarra jo*

Jagoleak, arerioa datorrela ikustean, **adarra jotzen** du jendea ohartarazteko. Gedeonek **adarra jo** eta bere ondoan bildu zituen Abiezerren senitartekoak. Elizen arteko biblia

Rohango **adarra joko** diat, eta inoiz entzun gabeko musika entzungo ditek. · iseka egin. Agustin Otsoa

Hala ere, haren begitartean ez zuen txantxetan edo **adarra jotzen** zebilelako aztarnarik nabaritu, aitzitik, benetan ari zen. Migel Angel Mintegi

Erdeinu handiz begiratzen zion Louiseri, honek, xingolazko korapiloak ageri-agerian, **adarra jotzen** zionean lepoko zapia oker lotua zeramalako. Karlos Zabala

Ja ez dira **adarra jotzen** dabilen norbaiten txantxak, beldur naiz. Antton Olano

Baina benetan gero, ez beren buruei **adarra jotzeagatik** ! Iñaki Segurola

Ugazabek **adarra jotzen** zigutek! Karlos Zabala

-Emakume hori **adarra jotzen** ari zitzaidan -esan zuen Jamesek. Koro Navarro

Beste mutilek **adarra jotzen** zidaten haren kontura. Mirentxu Larrañaga

Ximurrak adarra galanki **jo** ziguk behin berriz. Aingeru Epaltza

-Ez dago niri **adarra joko** didan oilartxo harrorik -esan zuen Txoriburuak, zutituz. Josu Zabaleta

Negar eginarazteraino **adarra jotzen** zionean. Karlos Zabala

**-Adarra jotzen** ari nintzen, besterik ez. Koro Navarro

- **Adarra jotzen** ari zara? -esan zuen, haserre, Petukhek-. Jose Morales

**Adarra jo** nahian, ala? Joanes Urkixo

**Adarra jo** nahi ote zion? Migel Angel Mintegi

Ez adarrik **jo** . Karlos Zabala

## 21 *aurrera jo*

Pauso bat atzera egin eta **aurrera jo** du berriz. Karlos Zabala

**Aurrera jo** zuten eta jagole musulmanekin egin zuten topo. Askoren artean

Gus McNielek aurrera **jo** zuen eta eskutik heldu zion bere esku gorri handiaz. Lopez de Arana

**Aurrera jo** behar ahal den moduan. Joxemari Iturralde

Orduan, entzunak izan ziren alproja horiek, eta oso arin **jo** zuten aurrera. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizon ausarta zen, adoretsua oso, zalantzaldietan beti **aurrera jotzen** zuena, arriskualdietan sekula ez atzera. Felipe Juaristi

**Jo** dezagun bada aurrera. Karlos Zabala

*ik beherago* 39. Askoren artean

Denborak ere **aurrera jo** zuen. Andoni Egaña

Baina gerrak eta neguak segitu zuten [...] gerrak eta neguak **aurrera jo** zuten beren irudimen gutxia erakutsiz. Felipe Juaristi

· Orduan hiru lagunek burua makurtu eta, gurutzearen seinalea eginik, bidean **aurrera jo** zuten. Askoren artean

Nolatan ausartzen da jentilen auzitegira jotzen, fededunen **aurrera jo** beharrean? Elizen arteko biblia

· Atzerapenak sortu ziren, Mikel Strogoffen **aurrera jo** nahi itsuak ere ezin saihestu zituenak. Karlos Zabala

## 22 *batera jo (eta) bestera jo*

Jotzen du haizeak hegoalderantz, jotzen iparralderantz, **batera jo,** bestera jo, eta jira-biraka hasten da berriro. Elizen arteko biblia

Jo **batera, jo** bestera, alferrik. Gotzon Garate

**Batera jo** bestera jo, inon ez zuen laguntzarik atzeman. Pablo Sastre

Han zebilen, **batera jo** eta bestera jo, aukera baten bila, eta lagunei, eta lagun ez zirenei, diru-eske. Irene Aldasoro

· Batek jakin egia ala gezurra diren, **baina batera** jo ala bestera jo, lepoa egingo nuke Osasuna bere bide onetik ateratzeko zurrumurruak direla. Berria - Kirola

## 23 *begia jo* atentzioa eman

Ravacholen fisonomian **begia jotzen** duen aurreneko gauza, basakeria da. Urteberri egunean eskumuturreko esmaltatu bat eman zion opari, Ramadan amaierako jaiegunean malakitazko lertxun txiki bat, opari-denda batean **begia jo** ziona. Koldo Izagirre

**Begia jotzen** duenak malkoak isurarazten ditu, bihotza jotzen duenak sentimenduak agerrarazten. Elizen arteko biblia

## 24 *begietan jo*

Honetan, ez dugu inola ere harrigarritzat jo behar nola, **begietan jotzen** gaituzten simulakroak banan ikusgaitzak izanik, gauza berak ikusten ditugun. Xabier Amuriza

Honen buruaren harrizko irudiak **begietan jo** zidan. Edorta Jimenez

· Betaurrekoengatik izan ez balitz, litekeena da haietako [ale] batzuek **begietan jo** izana. Oskar Arana

## 25 *begiz josup_1 (hautatu-edo)*

Zorionekoa zuk **begiz jotakoa** . Patxi Zubizarreta

Badakizu neurea nuela erregetza, eta Israel osoak **begiz jo** ninduela, errege izan nendin. Elizen arteko biblia

**Begiz jo** zuen honek neska, oso atsegina gertatu baitzitzaion. Elizen arteko biblia

Informatzailearen bulegoan ikusi nuen lehen momentutik neukan **begiz joa** . Aingeru Epaltza

Mikelek Lesakakotik du **begiz joa,** denetan helduena ematen duelako. Aingeru Epaltza

Dirua neurri duenak, nahi ez duela ere, "gauza garestiak" behar ditu **begiz jo,** onak diren edo zer diren begiratu gabe kasik. Iñaki Segurola

Bronxville-tik hurbileko finka txiki bat **begiz jota** zaukaat. Lopez de Arana

Izen bat behar da, **begiz jo** beharreko puntu bat. Iñaki Segurola

Ederki lo egin genuen Araxes ibaiaren ondoan, nik aurretik **begiz jotako** zelaian. Juan Luis Zabala

Erosteko **begiz jota** zituen arropen piloan. Joxean Agirre

Nire irakurraldietan **begiz jotako** edo nabarmendutako hamaika aipu eta pasarte. Patxi Zubizarreta

Nazioak gaizkian bat etorri eta nahastu zirenean, jakinduriak **begiz jo** zuen zintzoa, akasgabe gorde zuen Jainkoaren aurrean eta tinko eutsi zion. Zelulen arteko bat-egitea, zeinak aukera ematen baitu kromosometan zenbait gene **begiz jotzeko** eta zenbait funtzio aztertzeko. Elizen arteko biblia

Zer hormona-dosi komeni zen erabiltzea **begiz jotako** emaitza lortzeko. Juan Garzia

## 26 *begiz josup_2* (begia ezarri-edo, ikusi-edo)

Hara eskuartean pistola mitikoa, denek haren berri izanik inork **begiz jo** gabea. Juan Kruz Igerabide

Orduantxe **jo** zuen **begiz** loroa. Jon Muñoz

Atsegingarria zitzaion, betiere, bere etxea estreinakoz **begiz jotzen** zuen unea, bertarantz zihoalarik. Mirentxu Larrañaga

Mordoka erosten zuen saltokietan **begiz jotzen** zuen guztia: zamarientzako lepokoak, pipa pizteko kandelak, [...], irina, tabakoa, pistolak, sardinzar ketuak, margolanak, zorrotzarriak, pertzak, botak, buztinzurizko baxerak..., diru guztia xahutu arte. Jose Morales

**Begiz jo** zuen espaloitik zihoan emakume ingeles lirain bat, beltxarga bezain lerdena. Jose Morales

Ez naiz pazientzia handiko gizona: joan liburutegira eta **begiz jotako** lehen liburua hartu nuen eskuetan, Villiers de L'Isle-Adam idazlearen ipuin aukeratuak biltzen zituena. Bernardo Atxaga

**Begiz jo** zuen prismatikoez Governors Island-en parean zegoen bapore zuri lodi bat, tximinia hori kedartua zeukana. Lopez de Arana

## 27 *behea jo*

Herriak izugarrizko irrintzia egin zuen, eta harresiak **behea jo** zuen. Elizen arteko biblia

Gaiztoen etxeak **behea joko** du, zintzoenak gora egingo. Elizen arteko biblia

Haren erdian, borda zahar bat dago, **behea joa**. Aingeru Epaltza

Egoitza osoa zegoen goiak **behea jota**. Anton Garikano

Logika, hesi zahar hori, arrazoia, harresi zahar hori, zentzuzkotasuna, ideien itxitura zahar hori, zartatu egiten dira, erori egiten dira, **behea jotzen** dute aske jaregiten den [...] irudimenaren aurrean. Josu Zabaleta

· Zikloak **behea jo** ondoren, ekonomia-aldagaiak suspertzen hasten dira. Iñaki Heras

Babarrunen merkatuak **behea jo** du. Lopez de Arana

*Blackhead&densch*-ek **behea jo** du 10.000.000 dolar galdu ondoren. Lopez de Arana

Wall Street-ek **behea joko** du... Euriborrak aurtengo martxoan **jo** zuen **behea:** %2,055. Lopez de Arana

Espainiako *Principe de Asturias* baporeak Brasilgo kostan **behea jo** zuen eta 445 lagun hil ziren. Berria - Mundua

Beste hegazkin batek Pittsburg inguruan **jo** zuen **behea**. Berria - Harian

Realak **behea jo** du, jokoari zein sailkapenari begira, Nafarroako Erresuman galdu ostean. Berria - Kirola

Felsius, porrot eginda nago, **behea jota**. Lopez de Arana

Baina errealitatea era batera hautematen da, eta gizakiak ezin du jasan eta **jo** behea eta **jo** goia ibiltzen da beste era batean hauteman nahirik. Karlos Zabala

## 28 *burutik jo/jota*

-Hi **burutik jota** hago! Jon Muñoz

**Burutik jota** al zaude? Oskar Arana

**-Burutik jota** zaude, erabat -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

Bai, erabat **burutik jota**. Xabier Paya

Hura bai jatorra, **burutik jota** guztiz, gizon handia, barrez lehertzen ginen harekin. Karlos Zabala

Eta gero, zer esango, eta **burutik jota** nagoela, alajaina. Mirentxu Larrañaga

**Burutik jota** ote nagoen ere hasia naiz pentsatzen. Jesus Mari Mendizabal

Baina **burutik jota** zebiltzan haiek ia beti, normala den bezala. Karlos Zabala

-Horregatik komeni zaizu lehenbailehen igogailurantz abiatzea, **burutik jota** egoteaz gain, armatuta nagoelako. Migel Angel Mintegi

· Ambrogio burutik erdi **joarekin,** [...]; Michela neska zaharrarekin, [...]. Juan Garzia

## 29 *elkar jo*

Donostian, berriz, 15 ibilgailu inguruk **elkar jo** zuten. Berria - Euskal Herria

Mendabian noranahiko ibilgailu batek eta autobus batek **elkar jo** zuten.

Bi autok aurrez **aurre elkar** jo zuten.

Erregaia zuten bi trenek **elkar jo** eta leherketak 3.000 biktima eragin ditu.

Une horretan, **elkar jo** dute ontziek... Karlos Zabala

Esfera mugikor batzuk ageri zituen beheko partean, eta, **elkar joaz,** metal hots oso fin bat utzi zuten airean. Ramon Saizarbitoria

Armek **elkar jotzean** ateratzen zuten zarata. Elizen arteko biblia

Korronteek eta kontrakorronteek **elkar jotzean** sortua. Karlos Zabala

Hodeiek, **elkar jotzean,** suzko hazi ugari jaurtitzen dutenean. Xabier Amuriza

## 30 *erasoa jo*

Israelgo abioiek Libanon sartu eta **erasoa jo** diote Hezbolari. Berria - Mundua

Castroren ideiek eta nahiek bere horretan zirauten, ez ziren batere aldatu Moncada kuartelari **erasoa jo** zionez geroztik. Jon Muñoz

Erresistentziak oliobide bati ere **erasoa jo** zion, Bagdadetik 30 kilometro ekialdera dagoen Al Nahrauane hirialdean. Berria - Mundua

Urte hartako urrian, AEBek **erasoa jo** eta talibanen gobernua agintetik kendu zuten. Berria - Mundua

AEBetako bozetan Al Kaedak **erasoa joko** duela ziurtzat du Etxe Zuriak. Berria - Mundua

Bere helburu bakarra **erasoa jotzea** zen. Julen Gabiria

**Erasoa jo** nuen eta Igor Astarloa bera irten zen nire atzetik. Berria - Kirola

Beste behin Coppik, Izoard izeneko mendi frantsesean, **erasoa jo** eta denak hain atzean utzi zituen. Pello Lizarralde

Hori entzunik, **erasoa jo** zuen berak, suturik: [...]. Joxerra Garzia

Ekuazio aljebraikoen ebazpenei berriz ere erasoa **jo** aurretik, ordu artekoa laburbiltzeko premia izan zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

· Kontraerasoa **jo** nuenean ere, ez zen zipitzik apaldu. Aingeru Epaltza

## 31 *erreka jo* norbaitek edo zerbaitek porrot egin.

Lurjabeek diru asko galdu ditek kartetan; ohi dutenez, festaz festa ibili dituk, eta **erreka jo** ditek. Jose Morales

**Erreka joko** huen, bertzenaz, hainbertze diru xahututa! Aingeru Epaltza

Eta zer egin zuen **erreka jo** zuenean?, dendari hasi zen lanean. Jose Morales

"Gizon honek **erreka jo** du", pentsatu nuen. Ander Irizar

Emaginak zin egin zuen mendeku hartuko zuela eta **erreka jota** utziko zuela gure familia. Pello Lizarralde

**Erreka jotako** hainbat negozio. Harkaitz Cano

Eta horra non bat-batean ilusio horrek **erreka jotzen** duen. Josu Zabaleta

Garai hartan, gure harremanak **erreka jotzekotan** zeuden. Aingeru Epaltza

Ondorioz ekimenak **erreka jo** zuen. Iñaki Heras

III. Reichak **erreka jo** zuenean. Javi Cillero

· Aliatuen bonbardaketak hasiak ziren eta Hitlerri guti falta zitzaion **erreka** zola **jotzeko**. Eneko Bidegain

Biek [Uruguaiak eta Brasiliak] kasik peko **erreka joa** baitute ekonomiaren zeretan. Herria

## 32 *erronka jo*

Hain koleratuta ikustean, **erronka jotzen** nion: zergatik ez gaituzu hiltzen? Pello Lizarralde

Lehenagoko denboretan bezala, **erronka jotzen** ari zitzaidan: "hara, Edu, eskola nazak, ahal baduk". Aingeru Epaltza

Bazkalostean, Stanley gaztetu batek **erronka jotzen** dit ping-pong partida bat joka dezagun garajean. Oskar Arana

Gogoan dut zer-nola egun batean Mollyk **erronka jo** zion Charlieri, ezetz arropa guztiak erantzi. Mirentxu Larrañaga

Bere buruarengan zuen konfiantzari **erronka jo** nahi balio bezala. Patxi Zubizarreta

Furfuriatsu, gizonari oldartzeko eta **erronka jotzeko** gogoa etorri zitzaion. Patxi Zubizarreta

Duelorako **erronka jo** zion Galoisi. Jon Muñoz

Bizirik irauteko, besterik gabe; horra zertarako **jo** nion neure buruari erronka hura. Jon Muñoz

Edonori **jotzen** diot **erronka** ezetz beste bat aurkitu. egoera horretan «Eusko Jaurlaritzaren Plana aurrera ateratzea eta estatutuaren erreforma gauzatzea» **jo** dute **erronka** nagusitzat. Josu Zabaleta

## 33 *gailurra jo*

Xabier Ormazabal mendizale gaztea Cho Oyu **gailurra jo** eta beherakoan hil zen. Berria - Kirola

Ehun metro eta, gutienik, hiru ordu geroago, Martin eta Josurekin egin genuen topo, **gailurra jo** ondoan beheiti zetozela. Xabier Montoia

Itzal horren azpian, PPk **gailurra jo** zuen Hego Euskal Herrian 2000n. Berria - Euskal Herria

Mendearen amaierarako ordea, kotoigintzak **gailurra jo** zuenean, Egipto atzerriaren mendeko zen eguneroko elikagaiei zegokienez. Koro Navarro

Irrigarrikeriaren **gailurra jotzeko**. Josu Zabaleta

Hauxe dut beharbada azken aukera **gailurra jo** eta diru apur batekin erretiratzeko. Oskar Arana

Sei ginebrakada edan eta hamalau bat zigarro erre ondotik, gauaren **gailurra jotzen** ari nintzen, hots, zizare ustel bat denetan porrot egina nintzela ondorioztatzeko une hunkigarria. Aingeru Epaltza

## 34 *goia jo*

**Goia joa** zen eguzkia. Karlos Linazasoro

Halarik ere, ostiral batez, iluntzean, desioak **goia jo** zuenean telefonoa hartu, eta haren zenbakia markatu nuen. Aztoramenak **goia jo** zuen eta borborrean genuen giroa. Patxi Zubizarreta

Eta harridurak goia **jo** zuen, azkenik, Masudek emakumea hankaz gora ezarri, haren baitara sartu, eta lizunkerian hasi zirenean. Patxi Zubizarreta

Alemanian **nazismoak goia** jo zuenean jaio zen Schlondorff. Berria - Kultura

Harropuzkerian eta hantukerian **goia jo** zuenean. Patxi Zubizarreta

Hamabortz urte hituenetik irrigarria izan haiz, eta gaur, noiz eta gaur, **goia jo** duk hire irrigarrikerian. Aingeru Epaltza

Ez gara erraz konformatuko, **goia jo** nahi dugu. Berria - Kirola

Txapeldunen Ligaren distirak bultzatuta, **goia jo** zuen bazkide kopuruak (28.533), baina orduz geroztik, nabarmen egin du behera. Berria - Kirola

Petrolioaren prezioak oraindik ez du **goia jo,** Venezuelako Energia ministroaren ustez. Berria - Ekonomia

Baina errealitatea era batera hautematen da, eta gizakiak ezin du jasan eta **jo** behea eta **jo** goia ibiltzen da beste era batean hauteman nahirik. Karlos Zabala

## 35 *gora jo*

Eskuinetara jiratu, eta malda batean **gora jo** zuen autoak. Jon Muñoz

Operatik abiaturik, Bulebar Handietan **gora jo** zuten, automobilen zirkulazioaren alderantzizko noranzkoan, Saint-Martin ateraino. Jon Muñoz

Muino batean **gora jo** genuen, gainetik herria ikusten baitzen. Xabier Olarra

Suak ez du **gora jo** gutxienez. Alberto Barandiaren

Negozioetan ere oso **gora jo** dute. Gotzon Garate

Enpleguak **gora jo** zuela iaz. Berria - Ekonomia

Baina Paulok **gora jo** zuen, auzia enperadore jaunak erabaki zezala eskatuz. Elizen arteko biblia

Helegite Auzitegiak herenegun emandako ebazpenaren ondoren, **gora jotzea** erabaki zuten atzo diktadorearen abokatuek, beste helegite bat aurkeztuz. Berria - Mundua

Baina askok ezin izan dute **gora jotzeko** errekurtsorik aurkeztu ere. Berria - Euskal Herria

Defentsak ebazpenaren aurka **gora jotzeko** asmoa du, Olivier Metzner abokatu frantsesak azaldu duenez. Berria - Kultura

20 egun dituzte **gora jotzeko**. Berria - Kultura

## 36 *hondoa jo*

Idatziak dio akordio hark **hondoa** jota utzi duela Mexikoko nekazaritza. Berria - Gaiak

-Hondoa **jo** zuten itsasontziek. Jon Muñoz

Baina hondar-meta batean **hondoa** jo zuten; branka hondarretan sartua gelditu zen, mugiezinik. Elizen arteko biblia

Nola, aberastu ostean, **hondoa** jo, eta miseria gorrienean amaitu zuten. Patxi Zubizarreta

Saint-Exupéryk ongi ezagutzen duen frantses gizartea, Lehen Mundu Gerratik **hondoa** jota irtena. Josu Zabaleta

Idatziak dio akordio hark **hondoa** jota utzi duela Mexikoko nekazaritza. Berria - Gaiak

Negozioak **hondoa** jo zuenean, mekaniko lanak egiten hasi zen Ondarroan. Xabier Etxabe

Orain, **hondoa** jota nago. Juan Kruz Igerabide

Zer uste duzu, **hondoa** jo duela... edo hilda dagoela? Jon Muñoz

Horra iritsirik, Txitxikoven eroapenak **hondoa** jo zuen. Jose Morales

Hala ere, Willemek ez zuen artean etsipenaren **hondoa** jo. Anjel Lertxundi

Florentek uste izan zuen arrain sarda batek **hondoa** jo zuela hantxe, espaloi hartan, hilzorian oraindik, eta berarekin batera nakar arrosak, koral odolkarak, perla esne kolorekoak, ozeanoaren distirak eta zurbiltasun berdexkak oro haraino eraman zituela. Karlos Zabala

Aitorpen mingarria egin nion lagun **hondoak** joari, besarkada estu batean lotzen ginela: [...]. Karlos Linazasoro

## 37 *ilargi-jo* (orobat **ilargijo**) Ilargiaren eraginpean dagoen pertsona, aldizkako zoroaldiak dituena.

Badira, bai, artean ere, **ilargi-joak** eta ilargi-aldiak dituztenak... Pello Zabala

Ilargitar [...] Ilargiko biztanlea, **ilargi-joarekin** nahasi behar ez dena; hori ilargiak. Xabier Olarra

Eta Hitlerri halako **ilargijo** bat dauka bere buruzagien artean? Alberto Ladron Arana

## 38 *jo batera (eta) jo bestera*

**Jo** batera eta **jo** bestera, aldi bakoitzean erantzun ezberdin bat ematen zioten itaundutakoek. Pako Aristi

**Jo** batera eta **jo** bestera, baina haruzkoan adinaxe honuzkoan beti... Iñaki Segurola

Ikusitako filmaren irudiak zetozkion: oporretara norekin joan ez daukala eta, hor dabil protagonista, hogeitaka urteko neska bat, jo **batera, jo** bestera. Iñaki Iñurrieta

**Jo** alde batera, **jo** bertzera, gero eta malkarragoak dira bazterrak. Aingeru Epaltza

## 39 *jo dezagun* (esaldi konpletibo batekin) demagun.

**Jo dezagun** pianoaren soka bat gozakaiztua dagoela: pianoa jotzen dugun bakoitzean nota faltsu bat aterako da. Isabel Arrigain

**Jo dezagun** hizkuntzalari batek erabaki nahi duela ea ingelesaren hizkeraren batean metal "metala" eta medal "domina" fonemikoki ezberdinak ote diren ala ez. Itziar Laka

**Jo dezagun** orain bizia galtzea besteren baten egitez gertatzen dela. Iñaki Segurola

Baina **jo dezagun** baietz, arrazoia duela hala pentsatzen duenak eta *karniboro* eta *haragijale* direlako horien arteko bereizketa egin behar dela. Pello Salaburu

**Jo dezagun** lapurtu didaten traje bat aurkitzen dudala trapu-saltzaile baten dendan. Isabel Arrigain

**Jo dezagun** eguzkiaren inguruan higitzen diren planetetako bat pisuz eta tamainaz aldatzen dela. Isabel Arrigain

**Jo dezagun** Debagoienan gaudela: Arrasateko lantegi baten, adibidez. Koldo Zuazo

· Bada, tira, **jo** ezazu idunekoa eskupeko handi bat dela. Oskar Arana

## 40 *jo eta ...*

**-Jo** eta bertan akabatuko nituzke hori egin zioten animaliak. Oskar Arana

**-Jo** eta hil egingo zaituztet, kabendios! Juan Kruz Igerabide

**-Jo** eta txiki-txiki egingo ditugu, orduan, betegarri horiek? Mirentxu Larrañaga

Badakit hutsegite mortala dela, eta **jo**-ta-bertan hiltzea besterik ez dudala merezi. Iñaki Segurola

## 41 *jo eta jo*

Hamabi urtez **jo** eta **jo** aritu zitzaidaan, gogoak eman zion guztietan. Lopez de Arana

Meliton Manzanasen hilketari buruz ari zaizkiok galdezka, aitzurraren kirtenarekin **jo eta jo**. Rafa Egiguren

Ez dituzu zure kexuak ia aditzen, baina **jo eta jo** segitu du berak etsi gabe. Rafa Egiguren

Hiltzat uzteraino **jo eta jo** hebaindu zuen. Patxi Ezkiaga

**Jo eta jo** hasi zitzaion, beti ahoan, amorruak eroturik. Anjel Lertxundi

Lurrun ontzia ziztu bizian lerratzen zen Volgaren ibai hegien artetik, palek **jo eta jo** ura astintzen zutela. Karlos Zabala

Malfoy lau hankan zegoen, ukabilaz lurra **jo** ta **jo**. Iñaki Mendiguren

Goizeko zazpiak eta laurdenerako, hiru behatz bai, erantsi dizkiote beren habia lurrezkoari, mokoka-mokoka buztin bustia garraiatu eta han mokotxoarekin **jo**-ta-**jo,** ondo itsatsi arte. Pello Zabala

Berriz ari izan nintzen atea **jo eta jo**. Janbattitt Dirassar

Luzaroan geratu omen zen neska, atean **jo eta jo**. Edorta Jimenez

· Karrikaz karrika ibiltzen zen biolina eskuan **jo eta jo**. Felipe Juaristi

Zigarro erdi hila ezpainetan, soinua **jo eta jo**. Felipe Juaristi

Beren errepertoriotik hautatutako polka, mazurka, scottish eta baltsik ederrenak **jo eta jo**. Karlos Zabala

Berrogeita zazpi gizonez osatutako orkestra bat ari baitzen gillotinaren azpian, piezak **jo eta jo**. Felipe Juaristi

Trenak tutua **jo eta jo**. Joxe Austin Arrieta

Eta berriro sirenak **jo eta jo**. Joxe Austin Arrieta

Telefonoa **jo eta jo** hasi zitzaion. Migel Angel Mintegi

· Bere kirtenak uzkia zulatzen zidan bitartean, orgasmo bortitz bat etorri zitzaidan [...] baina hark **jo eta jo** jarraitzen zuen. Juan Martin Elexpuru

Gu Andyrekin **jo eta jo,** eta Tracy kontent-kontent buztana lehiaz eta hortzez norbaitek jaten ziolako. Karlos Zabala

Angel señorita horietako batekin etorri zunan Iruainera inork ikusiko ez zuelakoan, eta ari zunan hor larrua jotzen eta zaldia irrintzika, bera **jo** eta **jo** eta zaldia irrintzi eta irrintzi, ez uzten zaldi nazkanteak larrua lasai jotzen, eta halako batean, bazekinagu Angel ez dela oso gizon lasaia, hartu pistola eta danba buruan, eta zaldia isilik betiko. Bernardo Atxaga

· Haren baitan uzten dut neure burua beraren **jo eta jo** bortitzean, beraren bere egite leunean, zatirik uzteke. Juan Garzia

## 42 *jo eta ke*

-Ari naiz, **jo eta ke** ari naiz, baina oraingoz ez dut zorterik izan. Migel Angel Mintegi

Bi hilabetez, **jo eta ke** aritu zen bere gelan, atsedenik hartu gabe, zurezko kaiola txiki batean sarturik zeukan sagu bat hezten. Jose Morales

Ohoinak ari zaizkigu **jo eta ke** herrian, gauaz edo berdin egunaz; hetsiak diren etxetan edo berdin idekirik, jendea lo delarik. Herria

Hegalei **jo eta ke** eraginez. Jon Muñoz

Nola ibiltzen zen **jo eta ke** lanean, horixe gogoratu nian. Mikel Hernandez Abaitua

Begiak zorrotz jarririk, burua **jo eta ke** lanean. Migel Angel Mintegi

Han ari zen emakumea, **jo eta ke** edariak zerbitzatzen, basoak garbitu eta basoak betetzen. Pedro Alberdi

Asteburuak **jo eta ke** ikasteko aprobetxatzen bainituen. Juan Kruz Igerabide

Fredek eta biok ikusi genuen herenegun gauean Comet klubean, dantzan **jo eta ke**. Mirentxu Larrañaga

Han ari zen emakumea, **jo eta ke** edariak zerbitzatzen, basoak garbitu eta basoak betetzen. Pedro Alberdi

**Jo eta ke** saria lortu arte. Berria - Kirola

· **Jo ta ke** irabazi arte. Michel Oronoz

Oraindik ere polizia beraren atzetik dabil, **jo-ta-ke**. Gotzon Garate

Oraintxe bertan hor egongo dira lur azalaren gerrian, ia 2.000 ekaitz **jo**-ta-ke! Pello Zabala

## 43 *jo eta pasa* (*orobat* ***jota pasa***)

Monumentu haren neurriek, ordea, **jo eta pasa** egiten zuten irudikatua zuen guztia. Jon Muñoz

-Beti sortzen duk txiki berririk... eta haietariko batzuek **jo eta pasa** egin nahi izaten ditiztek handiak. Jon Muñoz

Esan zidaan, berak putatan gastatutako diru guztiak bata bestearen gainean jarriz gero, kanpandorrea **jo eta pasa** egingo zutela. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain ederki jarraitu zion Ludovicok, non **jo eta pasa** egin baitzion bere maisu maiteari. Jon Muñoz

## 44 *jo eta su* jo eta ke.

**Jo eta su** berriketan. Mirentxu Larrañaga

Putaseme hauek **jo eta su** ari zituan gu bota nahian. Aingeru Epaltza

Jokoan **jo eta su** ari zirenen inguruan. Felipe Juaristi

Irailaren lehenetik hasi nintzen **jo eta su** ikasten, eromenak hartua bezala. Juan Kruz Igerabide

Bolada honetan dantza klasikoaren eta bestelakoen aldi batek eman dit, eta gauero aritzen naiz **jo eta su** saioak egiten. Josu Zabaleta

Van Daanek bere emaztearen mantala zuen jantzita, eta [...] **jo eta su** ari zen lanean haragia prestatzen. Josu Zabaleta

Nonbait, polizia **jo eta su** ibili zen haren bila, baina albistea publiko egin gabe. Patxi Zubizarreta

Pattonen soldaduak, **jo eta su,** sekulako triskantza eragiten ari dira alemaniarren artean. Aingeru Epaltza

Hantxe izango nauzu jendartean txaloka, **jo eta su**. Mirentxu Larrañaga

Ez dio axola ordu bete lehenago ohean jardun badugu **jo eta su** lehertzeraino. Javi Cillero

## 45 -k *jota egon*

Miriamengana itzulirik, legenak **jota** ikusi zuen Aaronek. Elizen arteko biblia
Hiri bereko emakume bat itsumenak **jota zegoen** . Askoren artean
Nerbioak **jota zegoen** senarra. Pello Lizarralde
Beldurrak **jota nengoen,** haserre bizian baitzegoen Jauna. Elizen arteko biblia
Izuak **jota zegoen** mutila. Xabier Aranburu
Etsiak **jota nengoela,** alegia. Juan Garzia
Pedro eta lagunak logaleak **jota zeuden** . Elizen arteko biblia
Zahar batzuk "haizeak **jota" egoten** ziren, atakeren bat izan zutelako, eta beldurra ematen ziguten. Juan Kruz Igerabide
Gizadi osoa eskizofreniak **jota dagoelako** ideia ere erabili izan dut gogoan. Koro Navarro
HIESak **jota dago** Hegoafrika, sekulako izurritea da han gaixotasun hori. Joxerra Garzia
Zoroak **jota zaude,** inondik ere, baina zeure zoroan egia handi bat diozu: zertarako ditugu utopiak oro, gure etorkizuna hobetzeko ahalegin oro, baldin eta berandu baino lehen sega zorrotz bat zain badaukagu gure hankak mozteko? Juan Kruz Igerabide
Ustelak **jota daude** zuen aberastasunak, eta sitsak janda zuen jantzi dotoreak. Elizen arteko biblia
Herdoilak **jota daude** zuen urre-zilarrak. Elizen arteko biblia

## 46 ***kanpaia jo****sup_1*

Elizan ezkonduko gara, kristau guztiak bezala, edo baseliza zaharrean, eta **kanpaia jotzen** entzungo duzue orduan. Koldo Biguri
Gar-distiraldiren bat sumatzen zuenean, **kanpaia jotzen** zuen behealdeko jendeari abisatzeko. Koro Navarro
Elizako erlojuak erdietako **kanpaia jo** zuen. Bernardo Atxaga
· *pl* Poztu egiten ziren elizgizonak, **kanpaiak jotzen** zituzten. Askoren artean
Eguerdiko **kanpaiak jotzen** ari ziren ja. Josu Zabaleta
Elizkizun **kanpaiak jotzen** ari dira eta. Josu Zabaleta

## 47 ***kanpaia jo****sup_2* masturbatu.

Nagusiek **kanpaia jo** eta zutik zeudela hazi txuria arnasestuka isurtzen zuten txikien harrigarri. Aitor Arana
Hamar bat aldiz **kanpaia jo** eta haren haziaz Txinako andre guztiak haurdun uzteko gauza zela. Karlos Zabala
Bagenekien batzuen batzuk zelatan izan genituela eta bagenekien baten batek **kanpaia jo** zuela guri begira. Karlos Zabala
Orduan **kanpaia jotzeari** ekin nion eta minutu erdi bat aski izan zen esne bero eta txuria belar gainean ikusteko. Aitor Arana
Larrua nahiz **kanpaia jo** bitartean, potroazaleko laztanak gustura eta irrikatsu jasotzera. Aitor Arana
**Jo** ezak lasai **kanpaia** . Aitor Arana
Ipurdia miaztu behar diot **kanpaia jotzen** diodan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
-Hau duk motxinberoa! -esan du emakumearen begi aurrean **kanpaia** geldi-geldi **jotzen** ari den besteak-. Juan Martin Elexpuru
· Ikastetxean lasai egotearren fraileei **kanpai jotzeko** lana hartu behar izan zuen, eta mutiko sutsuei ere egin behar izan zien inbidiak baretzeko eta kolpeak saihesteko. Pello Lizarralde

## 48 ***kanpaiak jo***

**Kanpaiak jo** zuenean, arrapaladan **joan** ziren denak irteerara. Iñaki Mendiguren
Eguerdiko **kanpaiak jo** orduko. Agustin Otsoa
Danba **jo** zuen lehenengo **kanpaiak,** 19,45ekoak. Jon Muñoz
· Elizako **kanpaiak** arratsaldeko laurak **jo** zituenean. Joan Mari Irigoien
Urrutiko herritxoren bateko **kanpaiak** ozta **jo** zituen bere dunbada sor eta alaiak. Josu Zabaleta
· *pl* Elizako **kanpaiek** bederatziak jo zituztenean. Jon Maia
Eliza guzietako **kanpaiek** gauerdia jo arte. Patziku Perurena
Katedraleko **kanpaiek** hamabiak jo eta mundua ordurik gabe gelditzen den hurrengo une doi horretan. Anjel Lertxundi
Michel de Reyau zergatik zegoen **kanpaiek** noiz joko, gauza jakina denean jangela guztietan egon ohi dela hormako erloju ikusgarriren bat? Anjel Lertxundi

## 49 ***kiebra jo***

Nola veneziar bankuek **kiebra jo** zuten, batak bestearen ondoren, XIV. mendean. Koro Navarro
Banku-sistema nazionalak, argi eta garbi, **kiebra jotzeko** arriskupean geratzen dira, kanpoko finantzaketa masiborik iristen ez bazaie. Koro Navarro
Izar taldeak **kiebra joko** du bi hilabeteren buruan. Berria - Ekonomia
Bigarren aldiz bi urtean, **kiebra jo** du US Airways aire konpainiak.Tuterako NOI enpresak haize erroten hegalak egiten zituen iragan uztailean **kiebra jo** arte.
Kateak **kiebra jo** eta langabezian gertatuko ote ginen beldur. Joxan Elosegi
Bere eskarmentu gutxiagatik ez zuen bere jabegoa ondo administratzen asmatu, eta **kiebra jota** zegoen orain. Josu Zabaleta
Merkataritza-burgesiak prezio onean erosi zituen jaun feudal **kiebra jotakoen** lurrak. Koro Navarro

## 50 *-en* ***kontra jo***

Ontziak, berriz, mendiaren **kontra jo** zuen eta erabat puskatu zen. Olatuak sentitzen dira harkaitzen **kontra jotzen** . Askoren artean
Lantza kamustu du harri baten **kontra jota** . Martin Anso
Euriak Harryren betaurrekoen **kontra jotzen** zuen. Iñaki Mendiguren
Noizean behin, gure babeslekuaren **kontra jotzen** zuen balaren batek. Inazio Mujika Iraola
Harriarekin harriaren **kontra jotzen** dugunean. Xabier Amuriza
Konorterik gabe erori zen atearen **kontra jotzean** . Agustin Otsoa
Halako batean labaindu, behera erori, eta lurraren **kontra jo** huen. Jose Morales
Ustekabean zerbaiten **kontra jo** balu bezala, besoei eragin eta muturrez aurrera erori zen. Jose Morales
Euli itsua zela jakin zuen Matiasek horma guztien **kontra jotzen** zuelako euli hark. Unai Elorriaga
Kable elektriko baten **kontra jo** zuelako. saltoan zutitu eta amorruz burua leihoaren **kontra jotzen** hasi zen oihuka. Unai Elorriaga
Argudioek porlanaren **kontra jo** dute; duintasunak boterearen handinahiaren kontra. Edurne Elizondo
Esku ahurrak bata bestearen **kontra jo** zituen behin eta berriro. Bernardo Atxaga
Donostiarrek eta getariarrek elkarren **kontra jo** eta ez zutela estropada bukatzerik izan. Xabier Etxabe
Gidarien edo zaldien zabarkeriarengatik kotxeek hain ustekabean elkarren **kontra jo,** hedeak erabat nahasi, eta Mitiai eta Miniai zaldiak elkarrengandik bereizten saiatu ziren hartan. Jose Morales
Edontziek zirkuluz beteriko mahai biribilean elkarren **kontra jo** zuten. Lopez de Arana
Eta gure kontra ez ezik, zuen menpeko lurraldeen **kontra** ere **jo** dute.· Leihoaren **kontra** kaska **jo** zuen Léak. Elizen arteko biblia

## 51 ***kolpea jo***

Aitaren irratian, estatu-kolpea **jo** zuten biak salatzen zituen Mosku Irratiak. Juan Kruz Igerabide
Bagdaden kolpea **jo** zuten biak, Al-Bakr eta Saddam, bakeaz mintzo ziren, eta hegazkinik ez zen ageri. Juan Kruz Igerabide

## 52 ***kolperik ez jo*** batere lanik ez egin.

Horrek ez din **kolperik jotzen,** eta zabal bizi dun. Pablo Sastre

Ez dut **kolperik jo** lanean. Mirentxu Larrañaga

Eskolan ez duzu **kolperik jotzen,** kalera bota zaituzte, inork ez zaitu inora jaso nahi. Jesus Mari Mendizabal

Gurpilen hotsak etxe lokartuen fatxaden **kontra jotzen** zuela berriz ere. Karlos Zabala

Orpoak lurraren **kontra joz** militarren erara. Karlos Zabala

· Espainia, funtsean, Indietarik eta Ameriketarik **kolperik jo** gabe elikatu den kapareen herria da. Koldo Izagirre

Sekula **kolpe** santurik **jo** gabeko emakumea zirudien. Juan Martin Elexpuru

## 53 *kukuak makur jo*

Halatan, **kukuak makur joz** gero, nire alde erabili ahalko nuen eskuindarrak babestu izana. Parisen, baina, **makur jo** zien **kukuak** askatasun amets laino haiei. Berria - Kultura

Whistean aritu zen, baina **kukuak makur jo** zion horretan ere: kolorez okertu zen bi aldiz, eta, jokoaren arauak ahazturik, hainbat jokaldi ustel egin zituen. Jose Morales

Susmoa diat **makur jo** behar diala **kukuak**, Pedro Páramo. Juan Garzia

Baina, nonbait, **kukuak makur jo** zukeen. Daniel Landart

## 53a *kukuak oker jo*

**Kukuak** oker jo zigun berriz. Aingeru Epaltza

Eta, jakina, hain dago itsututa konplitu nahi horrekin, non azkenean **kukuak** oker jotzen dion beti. Luis Elberdin

## 53b *kukuak ederki/ongi jo*

**Kukuak** ederki jo digu. Juan Kruz Igerabide

- **Kukuak** ongi **jo** dizu gaur... Aingeru Epaltza

Hala izan ez bazen, bederen, ezin uka **kukuak** ongi **jo** ziola ama berriari. Aingeru Epaltza

**Kukuak** ederki **jo** digu. Juan Kruz Igerabide

· Gauzak dauden bezala ez gaude **kukuak** nondik **jotzen** duen zain egoteko moduan. Migel Angel Mintegi

## 54 *larrua jo* (*208 agerraldi, 71 liburu eta 2 artikulutan*) sexu harremanak gauzatu.

Arrantzara joaten ginen haren kanoan eta **larrua jotzen** genuen itsasoaren erdian. Beraz, **jo larrua**, Eugénie, **jo larrua**, ene aingeru maitea. Karlos Zabala

Gogoko zuen saltsa-maltsatan ibiltzea, Kenen emaztearekin eta lagun pila batekin **jo** zuen **larrua**. Karlos Zabala

Zuk ez duzu nigan pentsatzen, beste emakumeekin **larrua jotzean**? Harkaitz Cano

Gau hartan ere etorri zen gizona, **jo** zion **larrua** eta joan zen. Pako Aristi

Hamabi urte daramat ezkondurik, eta hamar edo hamabi mila lagunek **jo** didate **larrua**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

- **Larrua jo** nahi didak? Urtzi Urrutikoetxea

Harro nengoen bere emazteari **larrua jo** niolako, eta horrek bakarrik moteltzen zidan apur bat gizon hura hiltzeko nuen gogoa. Juan Martin Elexpuru

Nahi izan zuen modu guztietan **jo** zidan **larrua**, eta baita nik ere hari. Karlos Zabala

Bai, lagun, **jo** egidazu **larrua** ongi, baina ez egidazu sermoirik bota. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez duzu hara eta hona ibili behar inguruko emakume ezkonduei **larrua jotzen**. Oskar Arana

Eta jakin nahi duzu zergatik ez nion utzi aurrealdetik ere **larrua jo** ziezadan? Karlos Zabala

**Larrua** amorruz jotzen hasi zitzaidan, hurakan baten indarraz. Juan Martin Elexpuru

Gogotik gustatu zitzaidan atzetik **larrua jotzen** hasi zitzaidanean. Karlos Zabala

Ez erabili zapirik **larrua** hortik **jo** dizutenean: arrakala zabalik jarraitzea komeni da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta Rodolfo Rodolfo zen, gau guztian **jo** zigun **larrua** zulo guztietatik. **-Jo** al dizute **larrua** bi gizonek batera? Karlos Zabala

**Larrua jotzetik** alde egin dezazuen. Anjel Lertxundi

Emakumeak ez dira gaizki esaka aritzen haiekin **larrua jotzen** duten gizonen kontra. Karlos Zabala

Nik atzo **larrua jo** nion puta bera. Pako Aristi

Jo ezak **larrua,** eta ez adarra. Joxerra Garzia

· Puta honek gogoan izan dezan bake-bakean utzi behar duela bere alaba, nahi beste **larru jotzen**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 55 *lixiba jo*

Emakumeak hilero **lixiba jotzera** joaten zirenean. Joseba Urteaga

Horra zubia, **lixiba jotzen** genuen erreka. Xabier Olarra

**Lixiba jotzeko** harraska. Joseba Urteaga

Uda-giro bare eta argitsu hartan, liluragarri zeuden Urumea ibarreko inguru baketsuak... ertzeko ikuzleak zalapartan **lixiba jotzen,** eta belazeak lorez mukurru Txillardegi

## 56 *lur jo*

Atzerritarren gazteluak **lur jo** du, eta inork ez du berriro jasoko. Elizen arteko biblia

Haren harresi sendo eta garaiak Jaunak bota eta eraitsiko ditu, **lur jota** eta hauts eginda utziko. Elizen arteko biblia

Gurdi eta zaldizko gudaroste ahaltsua aterarazi nuen gudura: bat-batean **lur jo** zuten, eta berriz jaiki ez. Elizen arteko biblia

**Lur jota** geldituko zara, lurrean intzirika. Elizen arteko biblia

Haien aitak tiroz hilak izan ziren gudukan, haien amak **lur jotako** elizen eta eraikinen hondakinen azpian zeutzan. Oskar Arana

· *irud/hed* Tom *Brightman's Attic*-en lanean hasi zela hiru hilabete eta erdi inguru, isiltasunezko horma handi hark **lur jo** zuen. Oskar Arana

Israelen etsaiek **lur jo** dezaten arte. Elizen arteko biblia

Munduko beste nazioetako hiriek **lur jo** zuten. Elizen arteko biblia

Mezu hau hartzean, lur **jorik** gelditu zen Nikanor. Elizen arteko biblia

Epaiaren zartakoak **lur jota** utzi zuen Hagrid. Iñaki Mendiguren

Sukaldeko sofan eseri nintzen **lur jota**. Rafa Egiguren

**Lur jota,** nire burua ezertarako gauza ikusten ez nuela irten nintzen musika-eskolatik. Harkaitz Cano

Auskalo noizdanik ez ninduen ezerk hain **lur jota** utzi. Mirentxu Larrañaga

Orduan, bihotza **lur joa** gelditu zitzaion. Elizen arteko biblia

Nerbioak **lur jota** dauzkat. Xabier Paya

**Lur jota** eta etsita! Berria - Gaiak

-Beaky apur bat **lur jota** dago. Iñaki Mendiguren

Estatuen finantza-premien eta hiri-ekonomiaren artean harrapaturik, **lur jo** zuen betiko jaurgo-ekonomiak. Koro Navarro

## 57 *luze jo*

Abokatuaren ustez, **luze joko** du auziak. Patxi Iturritegi

Ikerketak **luze jo** zuen -hamar hilabete iraun zuen-. Lehen galdeketa horrek **luze jo** du. Patxi Zubizarreta

Rossen karrikara helduta, ez zidan **luze jo** 17. zenbakia aurkitzeak. Alberto Ladron Arana

**Luze joko** luke ahalegin guztien berri emateak. Anjel Lertxundi

**Luze joko** lidake horren arrastoa nola aurkitu genuen azaltzeak. Alberto Ladron Arana

Egunak **luze joan** ziren, **luze joan** ziren orenak, minutuak... Eneko Bidegain

Baina oso **luze jo** du horrek. Urtzi Urrutikoetxea

Urtebete baino **luzeago jo** zuen jokoak. Oskar Arana

Harrigarriena, zelan **jo** zizun hain **luze**. Xabier Montoia

Ez zitzaion **luze joan** eskola horiez baliatzen. Aingeru Epaltza

Palenquetik plantaziorainoko ibilbidea, airez zuzenean neurturik, eta **luze jota,** hirurogeita hamar bat miliakoa-edo izango zen. Joxe Austin Arrieta

## 58 *tiro(a) jo*

Edozein aitzakia zela medio, **tiro joko** zizuten-eta agian! Karlos Linazasoro

Une hartan, beste bi **tiro jo** zituzten. Juan Kruz Igerabide

Pistola batez Anari mehatxu egiten harrapatu izan banu Panizo, bi **tiro joko** nizkioan, eskuak batere dardararik egin gabe. Juan Kruz Igerabide

Hainbeste neke heriotzarekin, gero emazteak **tiroa jota** hiltzeko. Joxean Agirre

**Tiroa jo** eta bertan akabatu nuen. Anjel Lertxundi

Ehiztari batek **tiroa jotako** txori zaurituak bezala. Fernando Rey

**-Jo tiroa**, **jo**! -egin zion oihu Joxe Mariri-. Juan Kruz Igerabide

Ahoan **jo** zuen **tiroa**. Koro Navarro

Nire zeregina lehen **tiroa jotzea** zen. Edorta Jimenez

Donga baten hondoan buruan **tiroa jota**. Oskar Arana

**Tiroak jo** zizkiotenek erruduntzat zutelako. Edorta Jimenez

Gerra bat amaitzean, azken **tiroa jo** eta bakea edo garaipena ospatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Tenienteak graziako **tiroa jo** zion. Edorta Jimenez

· Inoiz **tiroak jotzen** bagaitu / behean aurkituko gara! Julen Gabiria

**Tiroak joa** zuelako seinale, pentsatu zuen Ratcok. Josetxo Azkona

Bere eskuineko eskua arabeskoak eginez zerutik jaisten ikusi nuen, **tiroak jotako** hegaztia bezala. Joxean Agirre

## 59 *tiroz jo*

Tiro-zaparrada baten erdian, oin banatan **tiroz joa,** arrastaka. Iñaki Segurola

Presoren bat **tiroz jotzen** zutenean, Ravensbrücken. Etxean judu bat gordetzen duen errusiarra **tiroz joko** dute, partisano bat gorde izan balu bezala. Felipe Juaristi

Alemanek lubaki hauetaraino eramaten dituzte gizon-emakume juduak eta denak **tiroz jotzen** dituzte, bat bera ere bizirik uzteke. Felipe Juaristi

Tiro egin ote diote, **tiroz jo** ote dute garrasi baten erdibidean, kantari hastera zihoanean, bere doinu marrantatuari ekin berri zionean? Mirentxu Larrañaga

· Bere burua **tiroz jota** garbitu ote zuen. Anton Garikano

## 60 *txalo jo*

Gutzi-guztiek **jo** zuten **txalo**. Lopez de Arana

Bidean doazen guztiek **txalo jotzen** dizute isekaz. Elizen arteko biblia

Etxekoandreak **txalo jo** zuen airean, bere harriduraren handia markatzeko. Anjel Lertxundi

**Txalo** eta txistu **jotzen** diote bere etxetik alde egitean. Elizen arteko biblia

Jangelatik irten zirenean, **txalo jo** zieten berriro. Iñaki Mendiguren

**Txalo jo** zitzaion Léaren esapideari. Jon Muñoz

Harry ere **txalo jotzen** hasi zen. Iñaki Mendiguren

Bakarrik! -eta **txalo jo** zuen-. Anjel Lertxundi

**Txalo jo** eta hau, **txalo jo** eta hura, horrela ohituta zeuden. Jokin Urain

· Eszena zuzendaria **(txalo** bat **joz,** diziplina eskatzeko). Josu Zabaleta

Markesak **txalo** labur bat **jo,** eta Willemi hitz egin zion. Anjel Lertxundi

Neska ilehoriak **txalo** labur parea **jo** zuen. Anjel Lertxundi

Hiru **txalo jo** zituen Eskumuturrak. Koldo Izagirre

· Jende guztiak **txaloak jo** zituen. Fernando Rey

Gure ama poztu egiten zen hari adituta, **txaloak jotzen** zituen. Fernando Rey

**Txalo** bizi-biziak **jo** baitzizkioten luzaro. Josetxo Azkona

**Txalo** gutxi batzuk **jo** eta kanpora irten ginen. Anjel Lertxundi

**Txalo** zaparrada ederra **jo** ziaten. Jon Maia

## 61 *txistu jo*

**Txistu jo** nuen harriduraz. Anjel Lertxundi

**Txistu jotzen** hasi nintzen, ahapetik, baina isildu nintzenean txistu hotsak nire atzean jarraitzen zuela iruditu zitzaidan. Koro Navarro

Léak txistu **jo** zion berriz, bestelako doinuz. Jon Muñoz

Bi hatz ahoan sartuz **txistu jo** zuen bere txakurrari deitzeko. Joxemari Urteaga

**Txistu jotzen** saiatu zen. Mirentxu Larrañaga

Portuko langile bat inguratu zen herrenka nasara, eta **txistu jo** zion Andreasi zirga bat bota ziezaion. Anjel Lertxundi

**Jo** nuen txistu, egin nion dei, baina alferrik, ez zen ageri. Anjel Lertxundi

Txalo eta **txistu jotzen** diote bere etxetik alde egitean. Elizen arteko biblia

· Ordezkari politikoei **jo txistuek** iratzarri ninduten. Berria - Kultura

## 62 *txorta jo* (*12 agerraldi, 7 liburutan*) larrua jo

Hango pertsonaiak masturbatu egiten dira, miaztu, zupatu eta sodomizatu egiten dute, eta talde-sexuan jardun, emakumeak emakumeekin **txorta jo,** eta gizonak gizonekin... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emaztea eta nire nagusia **txorta jotzen** ibiliko dira gaur, egun osoz. Karlos Linazasoro

Ane beste babalore horrekin joan da eta auskalo zein toki idilikotan ariko diren **txorta jotzen**. Unai Iturriaga

Koka zaitez ipurdia niri emanez: **txorta joko** dizut, Agustinek atzetik ematen didan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrela ez dago lasai **txorta jotzerik**. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)**

**abstentziora jo** (11); **adarra jo** (80); **adarrik jo** (19); **aldaba jo** (10); **amaitutzat jo** (44); **arduragabetzat jo** (12); **atea jo** (238); **atea jo zuten** (48); **atean jo** (51); **atean jo zuten** (11); **aterantz jo** (12); **atzera jo** (33); **atzetik jo** (18); **aurka jo** (76); **aurkakotzat jo** (14); **aurpegian jo** (20); **aurrera jo** (87); **aurrez aurre jo** (28); **auto bat jo** (14); **auto batek jo** (14); **autoa jo** (12); **autok elkar jo** (60); **auzitara jo** (25); **auzitegi gorenera jo** (9); **auzitegietara jo** (12); **auzitegira jo** (20); **baikortzat jo** (10); **baliogabetzat jo** (20); **bazterra jo** (9); **bederatziak jo** (12); **begiz jo** (72); **beharrezkotzat jo** (137); **behea jo** (34); **behera jo** (20); **berehala jo** (9); **berriro jo** (38); **berritzat jo** (9); **berriz jo** (28); **bete betean jo** (29); **bi aldiz jo** (9); **bide beretik jo** (20); **bidegabetzat jo** (15); **bihotzekoak jo** (10); **bila jo** (20); **bizkarrean jo** (9); **bortizki jo** (9); **bozina jo** (9); **bukatutzat jo** (21); **buruan jo** (39); **buruarekin jo** (9); **buruz jo** (10); **delitutzat jo** (10); **desegokitzat jo** (9); **ederki jo** (9); **egokitzat jo** (25); **ekialderantz jo** (9); **elgar jo** (10); **elkar jo** (153); **elkar jo ostean** (9); **elkar jo zuten** (106); **elkarren kontra jo** (13); **emaztea jo** (19); **epaitegietara jo** (24); **epaitegira jo** (11); **erasoa jo** (70); **erasoa jo zuen** (10); **erasora jo** (11); **erasotzat jo** (26); **erbestera jo** (10); **erregeagana jo** (9); **erreka jo** (15); **erronka jo** (11); **errudun jo** (13); **erruduntzat jo** (32); **errugabe jo** (15); **errugabetzat jo** (29); **eskandalutzat jo** (13); **eskuinera jo** (10); **estatu kolpea jo** (10); **etxeko atea jo** (9); **etxera jo** (13); **ez adarrik jo** (14); **ezinbestekotzat jo** (146); **ezinbestekotzat jo zuen** (70); **ezinezkotzat jo** (27); **ezkerretara jo** (15); **faltsutzat jo** (14); **frogatutzat jo** (20); **funtsezkotzat jo** (26); **gailurra jo** (24); **galdutzat jo** (13); **garailetzat jo** (9); **garaipentzat jo** (12); **garrantzitsutzat jo** (55); **gitarra jo** (9); **gogor jo** (69); **goia jo** (103); **goia jo zuen** (40); **gora jo** (36); **gora jo zuen** (10); **gorenera jo**

(11); **guztiak jo** (18); **haizeak jo** (23); **handitzat jo** (29); **harridurak goia jo** (21); **harrigarritzat jo** (16); **hegoaldera jo** (10); **helburutzat jo** (10); **hesia jo** (12); **hiru aldiz jo** (10); **historikotzat jo** (40); **historikotzat jo zuen** (16); **hondoa jo** (72); **horma jo** (9); **ia ziurtzat jo** (9); **ildo beretik jo** (51); **indarrez jo** (13); **iruzurtzat jo** (20); **jaunarengana jo** (14)

**jo aintzina** (34); **jo aitzina** (13); **jo beharra** (33); **jo beharrean** (24); **jo beharrik** (21); **jo eta ke** (148); **jo eta pasa** (12); **jo eta su** (90); **jo ostean** (57); **jo pilota** (25); **jo ta ke** (43); **jo ta su** (9); **jo zuen begiz** (17); **jo zuen erasoa** (32); **jo zuen gailurra** (9); **jo zuen lurra** (11); **jo zuen zuzenean** (12); **jo zuten atea** (10); **jo zuten erasoa** (9)

**kalera jo** (16); **kamioi bat jo** (21); **kanpaia jo** (17); **kanpaiak jo** (20); **kanpokotzat jo** (75); **kanpora jo** (12); **kezkagarritzat jo** (32); **kiebra jo** (16); **kolpea jo** (35); **komunera jo** (9); **kontra jo** (164); **kontrakotzat jo** (19); **larritzat jo** (68); **larrua jo** (68); **legez kanpokotzat jo** (67); **lotsagarritzat jo** (21); **lur jo** (52); **lur jo zuen** (15); **lurra jo** (69); **lurra jo zuen** (24); **luze jo** (72); **luze jo zuen** (32); **mahaia jo** (9); **makilaz jo** (10); **mendi aldera jo** (9); **mendira jo** (13); **mugarritzat jo** (9); **musika jo** (18); **nagusitzat jo** (13); **normaltzat jo** (30); **oilarrak jo** (12); **onartezintzat jo** (40); **ondo jo** (10); **ondoriotzat jo** (11); **ontzat jo** (240); **ordua jo** (15); **oso garrantzitsutzat jo** (16); **oso larritzat jo** (32); **oso ontzat jo** (12); **oso positibotzat jo** (15); **ostikoa jo** (11); **ostikoz jo** (15); **pianoa jo** (11); **pieza jo** (13); **pilota jo** (10); **politikotzat jo** (22); **positibotzat jo** (53); **pozgarritzat jo** (13); **premiazkotzat jo** (11); **probokaziotzat jo** (11); **sabelean jo** (11); **segurutzat jo** (11); **soinua jo** (20); **susmagarritzat jo** (11); **sustraietara jo** (10); **tamalgarritzat jo** (18); **telefonoak jo** (69); **telefonoak jo zuen** (40); **terroristatzat jo** (13); **tresnatzat jo** (10); **tutua jo** (11); **txalo jo** (26); **txartzat jo** (19); **txilina jo** (10); **txirrina jo** (89); **txirrina jo zuen** (17); **txirrinak jo** (21); **txirrinak jo zuen** (9); **txistu jo** (15); **txistua jo** (14); **ukabilkada bat jo** (14); **zangoz jo** (14); **zentzugabetzat jo** (12); **ziurtzat jo** (71); **zuhaitz bat jo** (10); **zutoina jo** (9); **zuzen jo** (16); **zuzenean jo** (38)

**begiz joa** (18); **gaitzak joa** (9); **lur joa** (19)

**adarra joko** (17); **aurrera joko** (10); **auzitara joko** (12); **auzitegi gorenera joko** (11); **erreka joko** (9); **hondoa joko** (12); **kiebra joko** (14); **kontra joko** (13); **luze joko** (87); **luze joko du** (25); **ontzat joko** (9); **soinua joko** (10); **taldeak joko** (11); **taldeek joko** (10)

**lur jorik** (13)

**asko jota** (114); **begiz jota** (37); **behea jota** (13); **beldurrak jota** (22); **bihotzekoak jota** (119); **bihotzekoak jota hil** (49); **birusak jota** (11); **bronkitisak jota** (9); **burutik jota** (38); **depresioak jota** (20); **elkar jota** (11); **erabat jota** (10); **etsiak jota** (14); **etsipenak jota** (20); **flakiak jota** (9); **gaitzak jota** (66); **gaixotasunak jota** (14); **gastroenteritisak jota** (10); **gehien jota** (38); **gehienera jota** (9); **gehienez jota** (13); **goseak jota** (10); **gripeak jota** (55); **hegazti gripeak jota** (10); **hegaztien gripeak jota** (20); **hiesak jota** (21); **hondoa jota** (34); **izuak jota** (23); **jakin minak jota** (9); **jota bezala** (43); **jota bizi** (10); **jota dago** (70); **jota dagoela** (16); **jota dagoen** (14); **jota daude** (21); **jota dauden** (12); **jota egon** (38); **jota egongo** (9); **jota egoten** (11); **jota gelditu** (16); **jota geratu** (50); **jota geratzen** (16); **jota hil** (115); **jota hiltzen** (10); **jota ibili** (14); **jota nago** (21); **jota nengoen** (16); **jota utzi** (66); **jota utzi zuen** (21); **jota utziko** (9); **jota uzten** (13); **jota zaude** (13); **jota zegoela** (28); **jota zegoen** (75); **jota zeuden** (25); **kontra jota** (9); **laborriak jota** (9); **lur jota** (289); **lur jota dago** (20); **lur jota gelditu** (9); **lur jota geratu** (23); **lur jota utzi** (32); **lur jota zegoen** (10); **lurra jota** (9); **minak jota** (16); **minbiziak jota** (31); **nekeak jota** (19); **nerbioak jota** (10); **sindromeak jota** (10); **sukarrak jota** (17); **tristurak jota** (10); **tuberkulosiak jota** (14); **tximistak jota** (11); **tximistak jota bezala** (9)

**begiz jotako** (18); **gaitzak jotako** (25); **gripeak jotako** (12); **jotako beste** (12); **lur jotako** (11)

**bikotekidea jotzeagatik** (30); **bikotekideak jotzeagatik** (9); **emaztea jotzeagatik** (24); **ustez bikotekidea jotzeagatik** (10); **ustez emaztea jotzeagatik** (12)

**adarra jotzeko** (25); **atea jotzeko** (9); **aurka jotzeko** (19); **aurrera jotzeko** (13); **auzitara jotzeko** (17); **auzitegira jotzeko** (12); **erasoa jotzeko** (9); **jotzeko asmoa** (37); **jotzeko aukera** (42); **jotzeko eskatu** (13); **jotzeko joera** (15); **jotzeko ohitura** (17); **jotzeko prest** (16); **jotzeko zorian** (18); **kontra jotzeko** (17); **larrua jotzeko** (18); **musika jotzeko** (14); **soinua jotzeko** (13); **zuzenean jotzeko** (10)

**adarra jotzen** (139); **atea jotzen** (35); **atean jotzen** (9); **aurka jotzen** (14); **aurpegian jotzen** (11); **aurrera jotzen** (13); **bateria jotzen** (12); **beharrezkotzat jotzen** (64); **beharrezkotzat jotzen du** (16); **berriro jotzen** (10); **berriz jotzen** (9); **bete betean jotzen** (19); **beti jotzen** (10); **biolina jotzen** (21); **danborra jotzen** (13); **egokitzat jotzen** (17); **egunero jotzen** (11); **eguzkiak gogor jotzen** (11); **eguzkiak jotzen** (28); **elkar jotzen** (18); **elkarrekin jotzen** (9); **erronka jotzen** (11); **erruduntzat jotzen** (10); **etengabe jotzen** (17); **ezinbestekotzat jotzen** (55); **ezinbestekotzat jotzen du** (12); **ezinbestekotzat jotzen dute** (11); **ezinezkotzat jotzen** (25); **faboritotzat jotzen** (13); **funtsezkotzat jotzen** (9); **galdutzat jotzen** (9); **garrantzitsutzat jotzen** (11); **gitarra jotzen** (26); **gogor jotzen** (55); **gogorrago jotzen** (10); **haizeak jotzen** (25); **handitzat jotzen** (9); **harengana jotzen** (10); **hasi zen jotzen** (12); **hiltzat jotzen** (9); **hondoa jotzen** (11); **jotzen hasi** (171); **jotzen ikasi** (16); **jotzen ikusi** (22); **jotzen jarraitu** (9); **jotzen saiatu** (15); **kanpaia jotzen** (27); **kanpaiak jotzen** (12); **kolpetxoak jotzen** (9); **kontra jotzen** (54); **larritzat jotzen** (12); **larrua jotzen** (48); **lurra jotzen** (12); **luze jotzen** (18); **musika jotzen** (40); **nagusitzat jotzen** (14); **normaltzat jotzen** (20); **ondo jotzen** (17); **ongi jotzen** (9); **ontzat jotzen** (47); **ostikoak jotzen** (9); **panderoa jotzen** (13); **pianoa jotzen** (48); **piezak jotzen** (11); **segurutzat jotzen** (14); **soinua jotzen** (56); **telefonoak jotzen** (10); **txalo jotzen** (10); **txirrina jotzen** (11); **txirula jotzen** (11); **txistua jotzen** (10); **ziurtzat jotzen** (31); **zuzenean jotzen** (14)

---

## joaera (*orobat* ***joaira, joanera*** *eta* ***joakera***) **1** *iz* joatea. ik **joaira**[1].

Eta eten egin nuen **joaera** edo etorrera hura. Iñaki Segurola

Etorrerako bidea **joanerakoaren** alderantzizkoa da. Anton Garikano

Bospasei guztira, **joairak** eta etorrerak barne. Txillardegi

Zein-ere luzea den zure **joaera** eta egonaldia, lehentxeago edo geroxeago jakiteratuko zara urrutieneko hemen haietan ere 2 ardi eta 2 ahari 4 buru direla, jaioak hiltzea zor duela eta hilak bakea, hartuak emana duela berekin eta emanak kendua, [...]. Iñaki Segurola

Kooperatiben zorroztasun kualitatiboari eusten zaio, baina egia da beheranzko **joaera** nabarmena duela. Iñaki Heras

Nire **joaneraren** arrazoi sendo bat eman behar zieat, berehala onartuko duten arrazoi bat. Anton Garikano

Gorputzak ezin baitu arimaren **joakera** kirats higuingarrian usteldu gabe jasan. Xabier Amuriza

Saio franko kaotikoa bere **joanera** formalean. Joxe Azurmendi

**2** joera.

Irudimenezko hautematea oinarritzeko **joaera** duenarentzat. Xabier Kintana

Abstentzio aktiboaren aldeko jarrera hartzea erabaki zuen, Espainia eta Frantziako instituzioetatik aldentzeko **joaera** bat nabarmentzeko helburuarekin. Berria - Euskal Herria

---

## joaia ik **joia**.

---

## joaieria ik **joieria**.

---

## joaiki ik **joaki**.

---

## joaile **1** *iz ipar* joaten den pertsona.

Berri txar horiek guztiek ez zuten bizkitartean agortzen Ameriketara zihoazen **joaileen** uholdea. Piarres Xarriton

Ez da harritzeko [...] Bordeletik, Baionatik edo Pasaiatik itsasontziz baldin bazihoazen, urteko 1.300 lagun, banabeste, Montevideora, Buenos Airesera, Santiagora, Mexikora edo Habanara, eta gero Kaliforniara; **joaile** haietarik baten semeak, Jean Etxepare medikuak [...]. Piarres Xarriton

**2** (aditz osagai batekin)

Bidean **joaile** handia. Piarres Xarriton

Bagira zenbait beilari [...] mendiz **joaileak**. Herria

Kristau erlisioan badaude bi alderdi [...]: bata dinamikoa, ernea, beti aitzina **joailea,** konkistatzailea, hala nola Ameriken kolonizazioan ikusi dena, onerako eta txarrerako ; bestea lasaia, [...]. Herria

Bazuten muga bat, doi doia pasatu dutena : behar ziren bozkatzera **joaile** % 50ko mailean bederen. Herria

---

## joaira[1] *iz* urlasterrez mintzatuz, uraren joatea.

Baina ez zen inolako intziririk aditzen, errekaren **joaira** baino ez, betiere ozenago entzuten baitzen gauez. Mirentxu Larrañaga

Begira egiozu errekatto batean, uraren **joairari,** eta tankera bakoitzean bere soinua ateratzen dizu. Patziku Perurena

**joaira**[2] ik **joaera**.

joaite ik **joate**.

joakera ik **joaera**.

**joaki** *(orobat **joaiki** eta **joanki**)* *adlag* joaten.

Bi senar-emazte, izigarriko abiaduran **joaki,** abantxu lasterka, konpetizioa eginez bezala. Piarres Aintziart

Citroen **joanki,** Leclerc handitzen. Herria

Milaka eta milaka erromes, Santiagora **joaki**. Piarres Aintziart

Kale nagusian nago, oixtian utzi dudan elizari buruz **joaki**. Piarres Aintziart

Arratsaldea han hara **joaki** eta, hotza sendi dut. Piarres Aintziart

· Pentsamenduak tarrapatan **joaki** zitzaizkidan kasko barnean. Aingeru Epaltza

Diru harat hunatetan ere, ez dela zilorik, bainan emaitzen aldetik ez direla batere hobetuz **joanki**. Herria

Gutartean lan seriosa egin ondoan bi urtez, **joaiki** zaiku jaun apez Noblia, Baigorri aldeko apez guzien lendakari. Herria

**joaldi** *(orobat **joaldi** g.er.)* **1** *iz* jotzea; jotzen den aldi bakoitza.

Hirugarren **joaldian** kale egin nuen, bolak ez zuen-eta nik nahi nuen beste indarrik hartu bandaren kontra jotzean. Anjel Lertxundi

Lehenengo **joaldian** lurreratzen badut. Patxi Ezkiaga

Banaka zein taldekako **joaldien** ondorioz hiltzeraino kolpatu eta jadanik panpina dislokatua bihurturiko mutikoa hagetan iltzatu zuten, gizagaixoaren oihu eta auhenei elkor. Itxaro Borda

Ardo zuriari beste **jotaldi** bat egin nion. Edorta Jimenez

**2** (musikan)

Eten egin zuen **joaldia** Mentxuk eta pianoaren estalkia itxi zuen. Josu Landa

Orkestraren **joaldi** landua. Berria - Kultura

Egun San Petersburg-eko *Philarmonic Halle*ko titularra eta Nizhnii Novgorod-eko Kontserbatorioko irakaslea eta kontzertista ona dena etorri zaigu **joaldi** interesgarria ematera. Berria - Kultura

Barber-ren *Medea*-ren jazz oihartzun sentsual eta koloretsuekin bukatu zuen EOSek bere harrerako **joaldi** arrakastatsua. Berria - Kultura

**Joaldi** ederra eskaini ziguten BOSek eta errusiar biek, Alexeiev zuzendariak eta Ierokin pianistak. Berria - Kultura

Txirrinaren lehen **joaldia** hastean hartu zuen telefonoa. Iñaki Zabaleta

Gero erlojuaren **joaldiak** iristen zaizkik. Koldo Biguri

Herrien biltzea, bozkariozko kantuak, kanpaien **joaldi** arranditsua, malkoen isuri oparoa. Askoren artean

**3** (pilotan)

Ez baitu ordean barkatu Gonzalezek, **joaldi** ederrik egin dute biek eta 12-13 ginuen iparraldekoa. Herria

**4** (sexu harremanetan)

Ba nik izango neuke **joaldi** bat neska horrekin. Unai Iturriaga

Alutik ematen dionaren **joaldi** lizunek, ipurditik ematen dionaren estasia leher dezatela, eta horrela, gizon bien haziz blai eginik, neskak berea isur dezala, plazerez hiltzen den bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Tronpeta **joaldi** batek bere nota argiak jaregiten zituen nagusi zen harmoniaren erdian, orkestraren akordeekin nahasita. Karlos Zabala

Tronpeta-**joaldi** luzea entzun zen. Agustin Otsoa

Virgiliak biola-**joaldi** batez sua itzuli zion maitaleari. Felipe Juaristi

Tarteka eliza erromatar baten ezkila-**joaldiak**. Joxe Austin Arrieta

Turuta-**joaldi** bat eta bi kanoi-danbada. Juan Garzia

Telefonoaren txirrin **joaldiak** moztu egin ziren. Iñaki Zabaleta

· Larru **joaldiak** eskatzen zuen epearen luzeran. Itxaro Borda

Gero aholkatu nion […] egunero hiruzpalau kanpai-**joaldi** egiteko gizontzearren, eta hori eginda litekeena zela ez izatea hain maritxua. Pello Lizarralde

Arrazoi beragatik onartzen zuen, dirudienez, fraile bati kanpai-**joaldi** bat edo beste egitea, hala bereganatuko zuelakoan. Pello Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**kanpai joaldi** (6); **kanpai joaldi bat** (4); **tronpeta joaldi** (3)

**joalditxo** *iz* joaldi txikia.

Zera, **joalditxo** bat... Karlos Linazasoro

**joaldun** *iz* Zubieta eta Iturengo inauterietako pertsonaia, joare handiz hornitua ibiltzen dena.

Zubietako **joaldunak** Iturenera joanen dira oinez, bost bat kilometroko bidea eginez, zortzi kiloko joareak bizkarrean. Herria

Goiz-goizetik hasten da txistularien diana, eta gero bata bestearen atzetik etortzen dira Ituren eta Zubietako **joaldunak,** Lizarrako gaita-joleak eta trikitilariak. Xabier Etxabe

**Joaldunen** joan-etorriek eta ezkilen hotsek iratzarriko gaituzte. Berria - Kultura

Manifestazio buruan **joaldunak** abiatu ziren. Berria - Euskal Herria

Egunean zehar, gainera, **joaldunak,** buruhandiak eta erraldoiak ibili ziren kaleetan zehar. Berria - Euskal Herria

Pantxix Bidartek bere kantu eztiak eskainiko ditu eta Hazparneko **joaldunak** hor izanen dira bazterren harrotzeko. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**hazparneko joaldunak** (7); **zubietako joaldunak** (4)

**joan**, joaten **1** da *ad* toki jakin baterantz higitu.

Hogeita bost urte zituenean Espainiara **joan** zen Brigada Internazionalekin. Bernardo Atxaga

1867an Amerikara **joan** zen anaiarekin "Greant Eastern" itsasontzian. Karlos Zabala

Elkarrekin **joan** ziren Anton Martin plazaraino, eta han bereizi ziren. Josu Zabaleta

Azkenean, aita mahaitik altxatu eta ohera **joan** zen. Koro Navarro

Elkarrekin jalgi ginen; eta haren esker on luzeak hartu ondoren, nor bere **ohera joan** ginen. *ik beherago* 36.Tente-tente, aldakak kulunkatzen, atzean zeukan aterantz **joan** zen. Jon Muñoz

Aiete aldera edo, **joan** omen ziren. Migel Angel Mintegi

Esan nora **joan** behar dudan. Migel Angel Mintegi

Redinen ondora **joan** zen esertzera. Bernardo Atxaga

Atzetik **joan** nintzaion eskaileretan gora. Migel Angel Mintegi

Lasta mugitu eta brastateko batean aurrerantz **joan** zen, haizebe aldera. Pako Aristi

Eskailera kiribil mugikorrean behera **joan** ziren. Iñaki Mendiguren

Antzerkira **joaten** zen, dotore jantzten zen, hilero-hilero andregai berri bat zuen. Josu Zabaleta

Elizara **joan** besterik ez du jendeak egiten. Koro Navarro

Batxilergoa institutura **joan** gabe egiten ari ginenoi. Juan Kruz Igerabide

Eta unibertsitatera **joan** ginenean ere elkarrekin jarraitu genuen, nahiz karrera desberdinak ikasi. Bernardo Atxaga

Eta hantxe **joan** ziren denak Jaramako frontera, festara bezala. Bernardo Atxaga

Behin, Rage hirira **joan** nintzen batean, hirurehun bat kilo zilar utzi nituen, zaku batzuetan gordeta, bahi gisa, Gabael zeritzan gizon baten etxean. Jose Antonio Mujika

Nora **joan den** jakiteko. Edorta Jimenez

Gero **joan** behar genuen etxekoez hitz egin zidan. Josu Zabaleta

· (*etorri-rekin; ik beherago* 20, 27, 28 *eta* 38*)* Azkenean, Iruainen geratzea erabaki nuen, Villa Lecuonara **joan** eta etorri ibili gabe. Bernardo Atxaga

Atera, eta **joan** eta etorri ibili zen lurreko urak lehortu arte. Jose Antonio Mujika

Azken boladan Mexikora **joan** eta Mexikotik etorri zebilen beti. Koro Navarro

**2** (norbaitengana)

Egea Saforengana **joan** da azkenik. Felipe Juaristi

Hala, Juditengana **joan** zen Bagoas, eta esan zion: [...]. Jose Antonio Mujika

Josuerengana **joan** ziren, eta gertatu zitzaien guztiaren berri eman zioten. Jose Antonio Mujika

Andregaiarengana **joan** zen Joxe Mari, berantetsirik izango zuen-eta ordurako. Juan Kruz Igerabide

Lizarran, ez zaitez gerrako ministroarengana **joan**. Koro Navarro

**Joan** al zara psikologo batengana, edo psikiatra batengana? Juan Kruz Igerabide

Eta orain nire nagusiagana **joan** eta hemen zaudela esateko eskatzen didazu. Jose Antonio Mujika

Iritsi ahala, lagunak hirira bidali eta **joan** hadi zerrizainarengana. Juan Kruz Igerabide

Egun batean bere senide hebertarrengana **joan** eta lan neketsuetan aurkitu zituen. Jose Antonio Mujika

**3** (zerbaitetara)

Aitaren atzetik **joan** nintzen, garbitzera. Koro Navarro

1872an Amiensera **joan** zen bizitzera. Karlos Zabala

Inolako kezkarik gabe **joaten** zen jaunartzera, konfesatu gabe. Hala egin zuen Akabek: jatera eta edatera **joan** zen. Josu Zabaleta

· Altxa, jantzi eta sukaldera **joan** zen kafea prestatzera. Migel Angel Mintegi

Ostiral horretan Bordelera **joan** nintzen, goizean goiz, Parisetik zetorren lagun batekin asteburua pasatzera. Migel Angel Mintegi

Eskuan dauka sardea, eta garia garbitzera **doa:** alea mandioan jasoko du. Elizen arteko biblia

Haize-ponpa eta urtegia ikustera **doaz** jabegoaren mugaraino. Oskar Arana

Aita ibaian kalamua sartzera **doa**. Itziar Otegi

Biziki hunkitu zuen aitaren erbestealdia partekatzera **zihoazen** bi gazte haien egoerak. Karlos Zabala

Yolo berriro horma igotzera **doa** eta... Pako Aristi

Otoitz egitera **zihoan** handik gertu. Askoren artean

Eguna gris dago, eguzkia sartzera **doa**. Monika Etxebarria

*%100 Basque*-ko denbora, susmo gaiztoa sentitzetik susmo gaiztoa gauzatzera **doa,** gainbehera. Markos Zapiain

Eskuineko mahaia bibaka eta txaloka hasi zen, Hannah Hufflepuffeko mahaian esertzera **zihoan** bitartean. Iñaki Mendiguren

· Hala ere, Zeusek baimena eman zion Ateneari, Ulisesi laguntzera **joan** zekion. Juan Kruz Igerabide

Derbya ikustera **joan** nauk. Migel Angel Mintegi

Gazte livoniarra ez zen **joan** afaritara. Karlos Zabala

Gero, lotara **joan** zen. Juan Kruz Igerabide

**Joan** daitezela haren bila. Jose Antonio Mujika

Nire kidea soinuaren bila **joan** zen. Bernardo Atxaga

Etxeko zaharrak **joan** zitzaizkion jaiki zedila esatera. Jose Antonio Mujika

Mezetara **joan** aurretik lisatu behar omen zuen alkandorarekin eta pasaratu behar omen zituen galtzerdi maiztuekin atera zen gelatik. Anjel Lertxundi

· Eskola-maisu **joan** zen Austriako mendialdeko urruneko herrixkaren batera. Oskar Arana

**4** (helmuga adierazi gabe)

**Joan** zen sendagilea eta begi beltzeko neskak gortinak zabaldu zituen. Koro Navarro

**Joan** behar dugu, anderea, gure biziak arriskuan daude-eta **Joan** beharra daukat. Felipe Juaristi

Katua usaindurik, atzetik **doakio** txakurra: gizona herioa uxatzen. Imanol Zurutuza

Txakur leiala atzetik **joan** zitzaien, Iruñetik aterata, Elizondoko errepidean barna **joan** zen. Karlos Zabala

Bi anaiek berekin **joan** nendila eskatu zidaten gauza bat erakutsi nahi zidatelako. Bernardo Atxaga

Baina buruarekin eta bihotzarekin urrun **joan** liteke. Karlos Zabala

Zaldizkoen taldea **joan** zenean. Karlos Zabala

**Joan** baino lehen, hala esan zidan Rajab-ek balkoitik: [...]. Juan Kruz Igerabide

Errepidetik **joan** gintezkeela esan nahi zuen. Bernardo Atxaga

**5** (modua adieraziz)

Agur eta ongi **joan**. Migel Angel Mintegi

Fabrikatik irtetean, autobusez **joaten** naiz hiriraino. Eskarne Mujika
Zaldi gainean **joan** zuan Frantziako mugaraino. Bernardo Atxaga
Iritsi zenean zuzenean **joan** zen barra ertzera. Migel Angel Mintegi
Zeharka **joaten** bagara, lehenago ailegatuko gara oinez. Bernardo Atxaga
Lasterka **joan** nahi zuen estepan aurrera. Karlos Zabala
Otzan **joan** zen nagusiaren atzetik. Karlos Zabala
Hiru mutil koskorrak korrika **joan** zitzaizkion atzetik. Bernardo Atxaga
Geldiro **joan** zen, ikaraz, ahiturik. Josu Zabaleta
Mikel Strogoff brankaraino **joan** zen narrasean. Karlos Zabala
Goibel eta haserre **joan** zen Akab etxera. Jose Antonio Mujika
Anfinomo burumakur **joan** zen, galbidea zetorkiola jakinik. Juan Kruz Igerabide
Eta Danhas tximistaren pare **joan** zen Txinako erresuma hartara. Patxi Zubizarreta
Nola **joan** nahi duzu? autoa hoteleko parkinean daukat. Bernardo Atxaga
**Joan** bezala itzuli ginen. Migel Angel Mintegi
Sekulako jauziak ematen baitzituen [zaldiak] dipteroen eztenetik ihesi **joan** nahian. Karlos Zabala
Eta **joan** egin ziren, zalapartaka, boten hotsa airean; **joan** egin ziren, barrezka, hitz beltzak airean. Felipe Juaristi
Aitak Rajab lasaiarazi zuen, eta hura deabruari irainka **joan** zen. Juan Kruz Igerabide

**6** (dagoen lekutik).

Halaz guztiz, ilehoria nire aldamenetik **joan** arte hantxe jarraitzeko asmoa nuen. Migel Angel Mintegi
Plazatik **joan** zen, eta bakarrik geratu zenean, Bautistaren papera irakurri zuen. Koro Navarro
Gizona despeditu eta **joan** egin zen etorritako bidetik, Agnèsen orainaldi hartan hotza utzirik. Felipe Juaristi
Irten eta **joan** egin dira, ez dakit nora. Jose Antonio Mujika

**7** irud/hed

**Joan** daitezela infernura jauna eta aita agurgarriak. Koro Navarro
Hogeita hamabost bat urte zituen dena pikutara **joan** zitzaionean. Koro Navarro
Tomen alderdi batek bazekien bere burua pikutara **joan** zedin uzten ari zela. Oskar Arana
· Nikotinazko txera biriketaraino **doakio** otzan. Eider Rodriguez
Bere nahiaz bestera, harengana **doakio** bihotza. Oskar Arana
Mendiaren maldarantz **joan** zitzaizkidan begiak, hotelerantz. Bernardo Atxaga
Bihotza zintzurreraino **joan** zitzaion. Elena Touyarou
Harengana **joan** ziren ber-bertatik gure begiradak. Josu Zabaleta
Inolako frogarik gabe sinetsi genuen komunistaren edo juduren baten boikotagatik **joan** zela argia. Anjel Lertxundi
Gure bizitza lur gainean itzala bezalaxe **doa,** itxaropenik gabe.· Denboran atzera **joan** aurretik. Elizen arteko biblia
· Arnasa ihesi **doakit**. Elizen arteko biblia
Garrasi bat ihesi **joan** berri zaio nahi gabe. Karlos Zabala
Nire ahotsa oihartzunik gabe **joan** zen hegan. Josu Zabaleta

**8** (bide edo kideko batek) halako norabidea izan, halako punturen artean hedatu.

Errepidea zuzen **zihoan,** mahastien artetik eta olibondo zahar eta makurtuzko olibadiren bat edo bestetik zehar. Josu Zabaleta
Hiriburura **zihoan** errepidearen ondo-ondoan. Felipe Juaristi
Zuhurtziaz jokatu zuen Permetik Jekaterinburgera **doan** bidea hautatu zuenean Ural mendien ekialdera iristeko. Karlos Zabala
Three Rivers aldera **doan** bidetik joan gara lehenbizi. Bernardo Atxaga
Zuhaitz landareen artetik **doan** bidexka erraz batek oinak goxoki berotzen dizkit. Piarres Aintziart
Fiterotik bainuetxeetara **doan** bide ertzean. Martin Anso
Ibaiaren ubidea bidexkaren azpitik **zihoan**. Agustin Otsoa
· Ibaia haien artetik **zihoan** sigi-saga. Agustin Otsoa
· Espektroa txuritik beltzera **doa,** baina, hori esan ondoren, nork bere gogora sailka ditzake koloreak. Bernardo Atxaga

**9** (denbora adierazten duten hitzez) igaro.

Zein azkar **joan** den denbora. Jon Alonso
**Joan** dira beste hiru urte. Bernardo Atxaga
Denbora **joan** ahala, nion herra epelduz joan zitzaidan pixkanaka, baretzen ari den ekaitza bezala Egunak arin **joan** ziren laku ondoko jauregian. Juan Kruz Igerabide
Tellagorri gizajoari ahaztu egin zitzaion pirme esatea, sasoia **joan** aurretik esango zuen bezala. Koro Navarro
Aurreneko urtean ondo **joan** zen dena. Koro Navarro
Urte oso bat **joan** zen. Josu Zabaleta
Zenbat ordu **joan** ziren, ez dakit. Josu Zabaleta
Uztailaren 14a **joan** zen. Marzel Etxehandi
Igande goizaz geroztik urteak **joan** direla ematen du. Josu Zabaleta
Urtebete luze **joana** zen ordurako emaztearen hilotza erraustu zutenetik. Imanol Zurutuza
*ik beherago* 36. Askoren artean

**10** desagertu; hil.

Zalantza guztiak **joan** zitzaizkidan orduan. **Joan** dira mundu hau poetiko bihurtzen zuten sinesteak. Bernardo Atxaga
Nola **joan** ote zitzaion bizitza? Migel Angel Mintegi
Etxetik **joan** zitzaionean. Karlos Zabala
Betiko **joan den** iraganaren bila. Edurne Elizondo
Nola galdu zitzaion maite zuena oro, nola **joan** zitzaizkion betiko aita-amak. Felipe Juaristi

**11** gertatu (irud)

Non ote dabilen, zer egiten ote duen, nola ote **doakion..** . Xabier Mendiguren Elizegi
Jainkoari begirune eta lotsa diotenei ongi **doakie**. Elizen arteko biblia
Eta mutilari primeran **doakio..** . Joan Mari Irigoien
-Eta zer moduz **doakizu** zuri, ba? -berak galde. Joxe Austin Arrieta
Mardokeo emakumeen ataritik hurbil ibili ohi zen egunero, Esterri nola **zihoakion** ikusteko. Elizen arteko biblia
Hitz egitera geratzen zen, ohi bezala, ea nola **zihoakidan** eta horrelakoak galdetzeko. Juan Kruz Igerabide
Zer moduz **joan** da eguna?", galdetu nion. Bernardo Atxaga
Nola **joan den** zer? Oskar Arana

**12** *(osagaitzat beste aditz baten era burutua -z kasu atzizkiaz, egintzaren jarraitasuna adierazten duela).*

Poliki-poliki, ilunera ohituz **joan** nintzen. Bernardo Atxaga

Elizako beiradura nagusia, zurixka, marrazkirik gabea, ilunduz **joan** zen. Bernardo Atxaga

Luzatuz **joan** ere, baina deia eten ez. Migel Angel Mintegi

Denbora joan ahala, nion herra epelduz **joan** zitzaidan pixkanaka, baretzen ari den ekaitza bezala. Juan Kruz Igerabide

Andres gizonduz **joan** ahala, aitaren eta haren arteko aiherkundea ere geroz eta handiagoa ari zen bihurtzen. hasieran bakoitza bere aldetik zabaldu zen, gero elkartuz **joan** ziren. Josu Zabaleta

Egunetik egunera gaixoagotuz **joan** zen heriotzako eguna arte. Askoren artean

Poliki-poliki argituz **joan** zitzaidan barnea, ulertzen hasi nintzen, gogoratu egin nintzen. Josu Zabaleta

Poliki-poliki, hala ere, ilunaren loditasuna mehetuz **joan** zen. Josu Zabaleta

Ez dut uste tipituz **joan den** Herria maite duten gure herritarren kopurua. Piarres Xarriton

Emakume haurdun bat ageri da ilargiak argitzen duen eremu mortuan, eta handituz **doakio** sabela etengabe. Imanol Zurutuza

Bitartean barreneko beroa gehituz **zihoakidan** . Migel Angel Mintegi

Errepidea, horixka, zuloz betea, bihurguneak osatuz **zihoan** soro berdeen artetik Koro Navarro

**13** *(osagaitzat beste aditz baten era burutua -tzen kasu atzizkiaz, egintzaren jarraitasuna adierazten duela).*

Pixkanaka gaitza areagotzen **joan** zitzaion. Askoren artean

Haurra suspertzen eta indartzen **joan** zen. Askoren artean

Liskarraren oihu eta zurrumurruak urruntzen **joan** ziren, tropelak Burdinahon sartu ahala. Agustin Otsoa

Ordurako, laminarriak osatzen **joan** ziren uhartea handi samarra zen, baina han ez zeukan janaririk jentilak. Pako Aristi

Gutxika-gutxika, husten **joan** ziren. Fernando Rey

Bakarrik dagoela, iraganik gabe, ezagunik gabe, baldartzen **doakion** adimen batekin, desegiten doan gorputz batekin. Monika Etxebarria

Denbora ahitzen **zihoakion** . Itxaro Borda

• **14** (nor-nori saileko adizki trinkoez, osagaitzat aditz izen bat-ra atzizkiaz duela, gertaera baten berehalakotasuna adierazten) egon (zaio ad); axola izan, gorabehera izan.

Ez dut ikusten zer asma daitekeen absurduagorik edo Jainko ahalguztidunari okerrago **doakionik** . Piarres Xarriton

Afektuen imitazio hori, Tristurari **doakionean,** Gupida deitzen da, [...]; baina Desirari **doakionean,** Emulazioa deritza. Piarres Xarriton

Erlijio katolikoa hobeto **doakiola** monarkia bati, eta protestantea hobeto **doakiola** errepublika bati. Iñaki Iñurrieta

Ez **doakio** hari bere bizitza antolatzea; beste norbaitek antolatu dio. Pako Aristi

Umiltasuna ez **doakizu** ondo -esan zuen Terrik. Koro Navarro

Zeren ez baita bekatu moral bihirik definizio hori ez **doakionik,** eta alderantziz, ez baita beste gauzarik, bekatu morala baizik, definizio berari dagokionik. Piarres Xarriton

Munduko populu guztiei **doakien** Autodeterminazio eskubidea. Piarres Xarriton

Behar dut, premia daukat, bizia horretan **doakit** . Harkaitz Cano

Berehala eskatu zioten begi hanpatu eta gorriz mesedez jotzen segitzeko, bizia **zihoakiela** bestela. Felipe Juaristi

Ondotxo **zihoazkion** gauzak, lur onak baitzituen. Koldo Biguri

• **15** du *ad ipar* eraman.

Biziki ahuldua zela, Fresnes hiriko presondegirat **joan dute** han badelakotz artategi bat. Herria

Etxerat **joan dute** eta han artatu. Herria

Zuri esker gure mutikoarekin Baigorriko itzulia bururaino **joan dugu** . Michel Oronoz

· *(hil)* Eritasun labur eta bortitz batek **joan du** . Herria

Hori dela medio izan ditu asko eta asko enegu eta enegu horietarik batek **joan du** . Herria

· *(irabazi)* Aitzin partidan, hola **joana zuten** lehen finalerdia gazte hauk. Herria

7-3, 18-6 eta 30-13, botatzen zuen bat ezker eta bestea gora, sartzen bera aitzinerat han pausatzeko edo altxatzeko, hiru sare eta besteak 1, hamar sake sartu, hiru oren laurdenez **joan du** partida. Herria

**16** (era burutua izenondo gisa)

Urte **joanak** nork ekarri, galdetu du lehen. Xabier Mendiguren Elizegi

"Motikotako" egun **joanak** ezin berreskuratua. Ez galdegin zergatik ote ziren hobeak **aldi joanak** oraingoak baino. Patziku Perurena

Haizeak **garai joanen** errautsak harrotzen ditu, eta nik usoak ikusten ditut zeruan. Juan Kruz Igerabide

Garai **joanen** oihartzun apalduak dira inguru haietako etxe eta jauregi asko. Anjel Lertxundi

Eta denbora **joana** ez da itzultzen. Txillardegi

Denbora **joana** berreskuratzeko ahaleginean. Juan Kruz Igerabide

Baina, behin iraganerako atea zabalduta, nekeza zen data hartan irautea, handia baita denbora **joanaren** erakarpen indarra. Bernardo Atxaga

Txomin Peillen-en "Mende **joanaz"** olerki bilduma. Herria

**17** (era burutua izen gisa)

Istant txiki bat, gertaeren **joana** eteteko. Anton Garikano

Ateen heldulekuak, uhalak, kakoak, izkinetan kuzkurtutako tristura, eta denboraren **joana** . Anton Garikano

Maite dut denboraren **joana** haustea, garaiak nahastea, istorioak apurtzea, zatika idaztea. Ana Urkiza

Hasieran kezka hutsala baino ez zena, ordea, larriagotu egin zen denboraren **joanarekin** . Imanol Zurutuza

Gau batetik besterainoko ibilbidea, betiko gaua helburu duen **joana** . Felipe Juaristi

Ez zekien zergatik baina garrantzitsua iruditzen zitzaion memento haren **joana** sakonki bizitzea, sentitzea. Iñaki Zabaleta

Naturak nolako indarrez gidatzen eta gobernatzen dituen eguzkiaren **joana** eta ilargiaren ibilera azalduko dut. Xabier Amuriza

Eraginaren grafikoak, datu estatistikoak, asmo beteak/betegabeak, planaren **joana,** eta batez ere mezuen transkripzioak eta argazkiak... Iñaki Zabaleta

**18** *-tzera* **joan** -tzeko zorian izan.

Abiatzera **doa** . Josu Zabaleta

Horra, desagertzera **doa** bera ere. Monika Etxebarria

Amaitzera **doa** mende askotako hitzarmen hori. Pako Aristi

Dena hondatzera **doa** . Itziar Otegi

Emaztea hiltzera **doa,** ez da kexatzen. Josu Zabaleta

Ron Lupini hitza kentzera **zihoan,** baina "ixo!" esan zion Hermionek. Iñaki Mendiguren

Merkatua ixtera **doaz** ! -zioen batek garrasika. Karlos Zabala

Festarako prestaketak egiteko eguna zen eta larunbata hastera **zihoan** . Elizen arteko biblia

Bere pozoia jaurtitzera **doa** sugea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Harengana oldartzera **doa..** . Karlos Zabala

Frak dotorea jantzita, urrezko erloju katedunarekin eta zigilu-eraztun gorri batekin, Maria Sackett ondoan duela ezkontzera **doa** . Lopez de Arana

Isurtzera **doakit** hazia! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 19 *burua joan*

Ez zuen kontzentratzerik lortzen, **burua joan** egiten zitzaion. Luis Elberdin

Nahasita, **burua joan** egiten zitzaidan, eta hitzak agorturik nituen. Fernando Rey

**Burua joan** egiten zitzaidan, ez nengoen han. Fernando Rey

**Burua joan** egin zait, eta atertu egin dituzte kolpeak. Agurtzane Juanena

Vaclav Feuersteinek ezin izan zuen halakorik jasan, **burua joan** egin zitzaion zeharo. Felipe Juaristi

**Burua joan** zait une batez... Iñaki Mendiguren

Eta **burua bazihoakiola** ere sentitzen zuen, uztailean, arratsalde bero-erreetan, meloiek musketa lurrun sarkorrarekin inguratzen zutelarik. Karlos Zabala

Gizajoa **burua joanda** dago, bueltaka ibiltzen zen hemen, hitzik zuzendu ezinda. Pako Aristi

Orain **burua joandako** agure zahar bat besterik ez duk. Juan Kruz Igerabide

Egia esan, ez dakit zergatik egozten zitzaien inolako zentzurik **burua joaniko** baten hitzei. Jon Alonso

## 20 *egunak joan (eta) egunak etorri* ik beherago **38.**

**Egunak joan, egunak etorri,** eta inork ez zidan esaten joateko edo gelditzeko, ezer ez. Fernando Rey

**Egunak joan egunak etorri,** gauza bera esaten zuen behin eta berriz: [...]. Rafa Egiguren

**Egunak joan, egunak etorri,** bera ere, antza, ohitu zen nire presentziara Iuri du izena, eta, **egunak joan, egunak etorri,** adiskidetu edo egin gara. Matías Múgica

Eta horrela, **egunak joan eta egunak etorri**. Imanol Zurutuza

Alferrik zuen kontu eske hastea, **egunak joan eta egunak etorri** bezero batzuek eta besteek aitzakia bera baliatzen baitzuten gutxi ordaintzeko. Anjel Lertxundi

· **Egunak joan egunak jin,** agertu da erregea eta neurtu du zein handia zen Gallegoen hasarrea... Herria

Ordea, **egunak joan, egunak jin,** deus ez duela Kogatrarengandik lortuko ikusiz, [...]. Aurelia Arkotxa

## 21 *gainera joan*

Orduan, ni, zalu-malu berriz iratze metaren **gainera joan**! Altxatu zen hura hortzak erakutsiz, eta orro eginez hezlearen **gainera joan** zen. Daniel Landart

Haren **gainera joan** nintzen, baina berak, zutik jarrita, bultza egin zidan. Juan Kruz Igerabide

Emakumezkoak, ordea, ez zion jaramonik egin eta orduan mutila **gainera joan** eta lurrera bota zuen. Berria - Euskal Herria

Gizonak, sinetsita, Zalakainen **gainera joan** ziren, eta hark biei ekin zien. Koro Navarro

Ia **gainera joan** zitzaion mutila orduan. Fernando Morillo

Euri ura eta itsas ura aspalditik bereiz bizi diren anaiak izaki, elkarrekin ibiltzeko duten grinak bultzaturik, bata bestearen **gainera joaten** dira. Felipe Juaristi

## 22 *goazemak*

**Goazemak**! -Tira, **goazemak** -mendian gora joan ginen, lehen baino lasterrago. Koro Navarro

**-Goazemak** kanpora, Marro. Juan Kruz Igerabide

Aizak, **goazemak** hemendik. Antton Olano

**Goazemak** eta aurkeztuko diat. Sonia Gonzalez

Konforme, **goazemak** lotara. Koro Navarro

-Tira! -esan nion-, **goazemak** zinera! Joxe Austin Arrieta

**-Goazemak** airean Kapistuni abisu ematera -esan zuen Bautistak. Koro Navarro

**Goazemak** trago bat jotzera, zer arraio! Lopez de Arana

Eta **goazemak** ea ni gordetzeko zuhaiztiren bat bilatzen dugun. Patxi Ezkiaga

## 23 *jin... joan*

Bizkitartean, egunak **jin,** egunak **joan,** eta horra zerua beti goibel. Egunak **jin,** egunak **joan,** eta urteak **jin,** urteak **joan,** beti bada berri frango, on eta txar. Herria

Urteak **jin** urteak **joan**, estrategiak ez ziren moldez kanbiatzen. Itxaro Borda

Mendeak **jin,** mendeak **joan,** beti izan dira kanpotikako jendeak Ziburun kokatu direnak kokatu eta segidatu ere... Herria

## 24 *jin eta joan*

**Jin eta joan,** hitzeman du berriz etorriko dela 2004-eko martxoa edo apirila baino lehen. Denbora **jin** eta **joan** denbora laster pasatzen. Herria

**Jin eta joan** da, ongi gerizaturik, bota du bere "ene falta". Herria

## 25 *joan den* (**urte, egun** eta kidekoen ezkerrean; orobat **joanden** eta **ganden**) ik beherago **34.**

Eta ez naiz bizi hurrengo segundorako heriotzaren esperoan, berpizten bizi naiz, **joan den** segundotik irtetean. Josu Zabaleta

**Joan den** gaueko ogi-apurrak. Askoren artean

Hori erraiten nion **joan den** egunean ene ametsetako andreari ere. Janbattitt Dirassar

**Joan den** egun hauetako batean hor erori naiz Hernaniko beheko plazako txoko batean. Iñaki Segurola

Badakizu zer gertatu zen **joan den** hogeita batean. Oskar Arana

Ehorzketak **ganden** asteartean 3 orenetan egin dira Ahetzeko elizan. Herria

**Joan den** igande goizean esplikatzen ari izana zitzaidan baizik eta bezperan aleman ehiztari kankailu batek tiro bat bota ziola. Daniel Landart

Hitz eman zenidan ahaztu egingo zenuela **joan den** asteazkenekoa Non izan haiz **joan den** ostegunaz geroztik? Mirentxu Larrañaga

Finalak Armendaritzen jokatu dira **joanden** asteburuan. Herria

**Joan den** astean, mihi arrain pare hura saldu hidanean. Karlos Zabala

Sophie **joan den** astean erosi oinetakoen erakusten ari zaio Kattalini. Eneko Bidegain

Ametsak izan ditut **joan den** hamabi egun honetan goizero, auto-ilarak sortzen zirela hiriko hamabi lekutan. Oskar Arana

Lanean aritu da **joan den** bi astean dena txukun utzi nahian. Oskar Arana

**Joan den** hilean koiote bat bota zuten errepidean, aintzirarako bidean. Javi Cillero

Aipatu genuen **joan den** hileko lehen egunean. Pello Zabala

**Joan den** otsailean lau urte. Alberto Barandiaren

Gogoan dut **joan den** maiatzaren 8an Sena ibaian gora nire etxe aurretik igaro zen hiru mastako brasildar itsasontzia. Josu Zabaleta

Ana praktiketan genuen egunkarian **joan den** uztailetik. Aingeru Epaltza

**Joan den** udan, saltegi handi batean ari izana naiz lanean. Janbattitt Dirassar

**Joan den** udako eklipseak. Pello Zabala

**Joanden** udaberrian, mututua gelditu zen Jospin. Herria

Bizirik atera nintzela **joan den** udazkenean egin behar izan zidaten ebakuntza larri hartatik. Imanol Zurutuza

**Joan den** urtean izan zen hori. Koro Navarro

**Joan den** urteko garagarrilaren atzen aldera. Patziku Perurena

**Joan den** urteari dagozkion oroitzapenak. Piarres Aintziart

**Joan den** urteko hostoa bezala nagok, adarrari ozta-ozta helduta. Patxi Zubizarreta

**Joan den** ikasturteko koadernoetan. Juan Kruz Igerabide

**Joan den** hamarkadako hiru ikasturtetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Frantses edo espainol eginak gara **joan den** aspaldi honetan. Pello Salaburu

Ohartu naiz gainean eraman ohi dudan agiria iraungia dagoela **joan den** aspaldian. Iñaki Segurola

Antzeko eztabaidak zerabiltzaten **joan den** mende hasieran. Markos Zapiain

**Joan den** mende erditsuan idatzitako lan honek. Joseba Zulaika

**Joan den** mende hau izan da giza eskubideen mendea. Pello Salaburu

**Joan den** mendeko 20ko hamarraldian-edo. Iñaki Segurola

**Joan den** mendeko estilokoak dira, Javi Cillero

## 26 *joan eta jin*

**Joan** eta **jin**: joan da Jalabert ; egin du igandean azken lasterkada. Herria

Eta haien dantza haragiaren joan-jin etengabe bat zen, **joan eta jin,** jin eta joan... Joan Mari Irigoien

## 27 *joan-etorrisup_1 (orobat joanetorri g.er.) iz*

Hiru **joan-etorri** egin behar izan ditut, uste baino gehiago pisatzen zuten. Josu Landa

Anbulantzien **joan-etorria**. Karlos Linazasoro

Gerlaren **joan-etorriekin** batera harat-honat ibili zen denboretan. Aingeru Epaltza

Moxolori min guti ematen zion, itxuraz, ordu tikien **joan-etorriak**. Aingeru Epaltza

Urteen **joan-etorriek** erakutsi dute gizakiak aiseago aldatzen duela aginpide moldea, legea bera baino. Andres Urrutia

Komuneko **joan-etorria** berriz ere egina zuen. Aingeru Epaltza

Gure gorputzeko ADN molekula guztiak lerroan jarriko bagenitu, egingo lukete 60 aldiz eguzkiaren eta lurraren arteko **joan etorria**. **Joan-etorria** egin bitartean. Pello Salaburu

Kanpoan zalaparta, **joan-etorria,** egurrezko zolen zartak. Urtzi Urrutikoetxea

**Joan-etorrietara** behartuko ninduela herritik hirira eta hiritik herrira. Aingeru Epaltza

Atzendua nintzen haren bidaiak **joan-etorriko** txartela zuela. Aingeru Epaltza

Gurasoenera **joan-etorriko** bidaia azkar bat. Joseba Urteaga

Bere eredu komunikatiboaren giltza mezu-hartzaileekin duen harreman berezian datza, **joan-etorriko** komunikazioa baita berea. Txema Ramirez de la Piscina

Zitara-jotzailea, **joan-etorrian** zebilen. Askoren artean

Bakarka zein taldeka batetik bestera **joan-etorrian**. Jose Morales

Buru-belarri beti memoria-txosten luzeak idazten, **joan-etorrian** Turindik Sassira eta Sassitik Turinera. Fernando Rey

Irakurtzerakoan izaten ditugun bihotz-zimikoez, memoria argitzera etorritako deiez, adimenaren bideetan barna egindako **joan-etorriez**. Anjel Lertxundi

Nolaz geldiarazi hitzaren harat-honatak, **joan-etorriak** eta ustekabeko jolasak eta jokoak, aurkikundeak eta galbideak? Iñaki Segurola

Ez zela hil errege hau, baizik-eta, mirari-jokoa zela bide, bele bihurtu zela; eta, **joan-etorriaren** noizbaitean, berriz errege izango dela. Patxi Ezkiaga

## 28 *joan-etorrisup_2* (izenondo eta izenlagunekin, eta bestelakoetan)

**Joan-etorri handi** samarra zegoen badian, abiatzen hasiak ziren txalupak. Anton Garikano

Garai batean **joan-etorri** handiko lekua izan zela hura. Jose Morales

Nekatuta omen daude berak ere eguneroko **joan-etorri** luzearekin. Bernardo Atxaga

Datu eta eraikin teorikoen arteko **joan-etorri** horrek zientzia-praktikaren arrabola (the mangle of practice) osatzen du. Askoren artean

Biziak **joan-etorri** bihurriak izaten ditu batzuetan. Aingeru Epaltza

Gutunak **joan-etorri** bizian zebiltzan, eta orobat telegramak. Juan Garzia

Hainbeste sartu-irten eta **joan-etorri** susmagarri. Edorta Jimenez

Anbulantziak **joan-etorri** etengabean dabiltza. Mirentxu Larrañaga

Dudarik izanez gero, Togasen **joan-etorri** kezkatiei so egitea aski nuen: Eskalatzailearen bulegotik gerentearenera eta gerentearenetik langile batzordeko buruarengana. Aingeru Epaltza

Bezero aunitzen **joan-etorri** ezaxolak ikusia zen tortilla puska. Aingeru Epaltza

· Gauaren minean, **joan-etorri** hotsek atzarri ninduten. Aingeru Epaltza

Errepidean, uda nahiz negu, beti izaten zen Rosatik Gruarora zebilen gurdi eta bizikleta **joan-etorria**. Josu Zabaleta

· Arropa-poltsak **joan-etorri** ibiltzen ziren amarenetik. Xabier Olarra

Mugitu egiten da jendea; denborazkoa da; **joan-etorri** dabil. Xabier Olarra

· Ontziok **joan-etorriko** laburrak egiten ari dituk-eta, Elena laster izango duk berriro hemen. Edorta Jimenez

## 29 *joan-etorrika*

Ellen **joan-etorrika** zebilen gelan zehar, hortzak estuturik. Kalkulatzen da 120 astronauta ibiliko direla **joan-etorrika** urte horietan. Lopez de Arana

Itzalak ziren trumilka eta **joan-etorrika,** baina ezin antzik eman. Eduardo Matauko

## 30 *joan... jin*

Egunak **joan,** egunak **jin,** Graxik saldo ibiltariaren itxura burutik ezabatu zuen. Itxaro Borda

Asteak **joan** asteak **jin,** gero eta ausartago ziren biak, solaserako. Eneko Bidegain

Funtsean, denbora **joan,** denbora **jin,** zorraren ordaintzeko orain ere sinadura gutiago aski da, sosaren altxatzeko baino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Utopia: denbora **joan,** denbora **jin,** gerla gero eta gehiago finkatzen ari da Israeldarren eta Palestindarren artean. Herria

Urteak **joan** urteak **jin,** gobernuak **joan** gobernuak **jin,** «inork ez du lortu Euskal Herriaren askatasun nahiarekin bukatzea», dio Lefortek. Berria - Euskal Herria

Urte xaharra **joan,** berria **jin**. Herria

## 31 *joan-jin (orobat joanjin g.er.) iz*

Gorteko berri dakien gizona baita, anitz **joan-jin** eta egonaldi egiten du bere diosesatik kanpo. Michel Oronoz

**Joanjina** autokarrez eginen da eta abiatzea goizeko 11 orenetan izanen da Ortzaizeko plazatik. Herria

Loriagarri izan zen bi bikotek Ibañetarat egin ginuen **joan-jina**. Michel Oronoz

Joantto etorri ondoko egunetan, herritar guziak haren **joan-jinen** goaitean egon ziren. Elena Touyarou

Gau hartako **joan jin** bakartian, labana bezain zorrotz, Jean Jacques Goldmanen kanta bat neukan buruan. Itxaro Borda

Astelehenetik ortziralerat, egunean bi **joan-jin** eginen ditu autobusak, batto goizean eta bestea aratsaldean. Herria

· SS-ak ate alde hartan **joan-jin** ari dira. Marzel Etxehandi

## 32 *joan-jinka adlag*

Ahaideak inguruan ikusten zituen **joan-jinka,** maitagarri izateko ahaleginetan. Elena Touyarou

Domengaren begiak **joan-jinka** ari ziren, haren begietarik, besteenetara, kezka gorde ezinik. Elena Touyarou

Zeldan hasten naiz **joan-jinka,** leihatilatik ateraino, atetik leihatilara, harat-honatka betoinezko jarraulkiaren eta ohearen arteko ibilbide bakarretik. Filipe Bidart

Zonbeit etxetan bertze zonbait **joan jinka** ibili behar, osasuna hobetu nahiz. Herria

## 33 *joan-jinkako izlag*

Alaves futbol taldea sailkatu da Errege Kopako finalerdietarako, Vigoko Celta taldeari nagusiturik finalalaurdenetako joan-**jinkako** partidetan (4-0 et 0-1). Herria

## 34 *joan zen* (urte, egun eta kidekoen ezkerrean) ik gorago **24.**

Austriak bi talde sartu zituen Europako finaletan **joan zen hamarkadaren** erdialdean. Berria - Kirola

**Joan zen urtean** Henry Bordeaux mintzatu zen bertan alpinismoari buruz. Monika Etxebarria

Oraindik ez ditu 40 urte bete eta **joan zen urtean** Liga irabazi zuen. Berria - Kirola

Gure lagun bati etxea erre zitzaion **joan zen urtean**. **Joan zen urteko** otsailaren 15an. Harkaitz Cano

Oraindik ez zekitek **joan zen ikasturtean** beka galdu nuela. Iñaki Iñurrieta

**Joan zen hilabetean** Estatu Batuetan egin zen G-8ren bileran. Berria - Mundua

**Joan zen hilean** hona etortzeko gonbit-txartelak bidali nituen postaz Europa, Asia eta Afrikako errege-etxerik entzutetsuenetara. Felipe Juaristi

**Joan zen astean** fusilatu zitean. Anjel Lertxundi

Badakizue Magiako Ministerioak gure jauregia arakatu zuela **joan zen astean**? Iñaki Mendiguren

**Joan zen asteko** astelehen goizaldean atxilotu zuten guardia zibilek Santutxun. Berria - Euskal Herria

*Sue lost in Manhattan* izeneko filma ikustera sartu nintzen **joan zen egunean**. Harkaitz Cano

Ez da ikusten dudan aurreneko aldia; **joan zen astelehenean,** urrutira gabe, ikusi nuen eta ez nuen deus esan. Monika Etxebarria

Motorreko arazoek ez zioten utzi lehiatzen **joan zen igandeko** Jaizkibelgo Igoeran. Berria - Kirola

Sarako haurrak Ataunen izan ziren **joan zen neguan** etnografoak egindako lanaren berri izateko eta bizitokia ezagutzeko. Berria - Kultura

**Joan zen udako** beroen ondotik. Berria - Ekonomia

Dagoeneko murriztu dituzte **joan zen uztailean** iragarritako helburuak. Berria - Harian

**Joan zen mendean** egindako parke bat da leku eder hori. Hasier Etxeberria

Dirudienez badago jendea **joan zen mende** hasierako EUZKADI aldizkaria irakurtzen denbora galtzen duena. Berria - Kirola

## 35 *joanak joan*

**-Joanak joan,** Tom. Koldo Izagirre

**-Joanak joan,** Anjel, dagoeneko ez zegok atzera egiterik. Migel Angel Mintegi

Hitza hitz!... eta... **joanak joan**! **Joanak joan,** oroitzapen, erakaspen eta gure esker onak geldi ditela. Herria

## 36 *luze joan*

**Luze doa** bidaia. Anjel Lertxundi

Bilera **luze joan** zen, bi ordu eta erdi. Berria - Euskal Herria

Amaren solasa **luze zihoan** eta, hargatik-edo, pausa bat egin zuen, laburra, haatik. Joan Mari Irigoien

Laster harrapatuko zuten, oso **luze joan** gabe. Karlos Zabala

Alcolean oso luze **joaten** zitzaion denbora Andresi. Josu Zabaleta

Minutu estu batzuk joan ziren horrela; luze, oso **luze joan** ere. Aitor Arana

Gerora aski **luze joango** den historia horren lehen urratsak. Jose Antonio Mujika

Goierrin ere negua **luze baitzihoan** gehienetan. Pello Zabala

Egunak **luze joan** ziren, **luze joan** ziren orenak, minutuak... Eneko Bidegain

Ez zitzaion **luze joan** eskola horiez baliatzen. Aingeru Epaltza

Martxa hartan, ez zen oso **luze joango** nire ezkutaleku badaezpadakoa aurkituko zuten arte. Jon Alonso

## 37 *ohera joan* (norbaitekin) oheratu.

Musu bat ematen nion bizkor mingaina eztarriraino sartuta, eta harekin **ohera joan** nahi nuela esan nion. Karlos Zabala

Gertatu izan zaiela zenbaitetan emakume batekin **ohera joatea** eta emakumea hantxe gelditzea ez atzera ez aurrera. Karlos Zabala

Baina inorekin **ohera joateko** emakumezkoa gustukoa izatea zuen araua, arau bakarra. Iñaki Zabaleta

Gau hartan, ohi ez bezala leihoko gortinak zabal-zabalik uzten ditu neskalagunarekin **ohera joatean,** eta inoiz baino hobeto jarduten saiatzen da. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohera **joan** ziren elkarrekin, kondea maiteminduta baitzegoen orduko emakumeaz, lehenago haren ahotsaz maitemindu zen bezala. Felipe Juaristi

## 38 *urteak joan (eta) urteak etorri* ik gorago **20.**

**Urteak joan, urteak etorri,** poliziak halako ontzien kopuru ederra bildua zuen dendari haien etxeetan egiten zituen ikuskaldietan **Urteak joan urteak etorri,** zertara bidali zituzten ere ahaztuko zitzaiean bai berei bai baserritarrei, eta ikazkin hasi zituan. Matías Múgica

**Urteak joan, urteak etorri,** beti gertatzen zaio zerbait. Berria - Kirola

Horrela egon daitezke indar antagonikoak **urteak joan eta urteak etorri** beren betiko jarreretan, bitartean munduan ezer aldatu izan ez balitz bezala. **Urteak joan eta urteak etorri,** Jaizkibelek erabakitzen du nork irabazten duen Donostiako Klaskikoa. Joseba Zulaika

Eta alajaina, **urteak joan eta urteak etorri,** ni beti oinez. · **Urteak joan, urteak jin**, lokamutsak senarraren izaera menderaezin eta neurrigabekoaren osagaitzat hartu ohi zituen zuen amak. Xabier Montoia

Hilabeteak **joan,** hilabeteak **etorri**, aldakuntzak burutu arau, urduritasuna emendatu zen. Elena Touyarou

Belaunaldia **joan,** belaunaldia **etorri**, Profetaren aldiaz geroztik istorio hauek gozamenez entzunak izan dira. Patxi Zubizarreta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**aebetara joan** (10); **afaltzera joan** (22); **agurtzera joan** (15); **ahulduz joan** (9); **aintzina joan** (10); **airean joan** (10); **aireportura joan** (12); **aitarengana joan** (11); **aitzina joan** (23); **aldageletara joan** (9); **aldatuz joan** (35); **aldatzen joan** (19); **aldiz joan** (32); **alemaniara joan** (13); **amarengana joan** (14); **ameriketara joan** (24); **antzerkira joan** (9); **areagotuz joan** (13); **aretora joan** (9); **argentinara joan** (11); **argia joan** (15); **arin joan** (16); **arineketan joan** (12); **arrapaladan joan** (12); **arrastaka joan** (10); **aspaldi joan** (10); **astea joan** (11); **asteak joan** (11); **astiro joan** (10); **ate aldera joan** (17); **atea irekitzera joan** (12); **atenasera joan** (9); **atera joan** (35); **ateraino joan** (29); **aterantz joan** (11); **ateratzera joan** (9); **atzealdera joan** (9); **atzera joan** (26); **atzeraka joan** (9); **atzerrira joan** (20); **atzetik joan** (238); **atzetik joan zitzaion** (26); **atzo joan** (24); **aurka joan** (31); **aurrera joan** (227); **aurrerago joan** (27); **aurretik joan** (61); **autoz joan** (9); **auzitegira joan** (13); **azkar joan** (26); **azkarrago joan** (14); **azkartuz joan** (15); **azokara joan** (13); **bainugelara joan** (9); **bakarrik joan** (79); **bankura joan** (12); **baretuz joan** (9); **barna joan** (13); **barrena joan** (41); **barrura joan** (10); **bartzelonara joan** (12); **basora joan** (18); **bazkaltzera joan** (20); **bazter batera joan** (13); **bazterrera joan** (10); **begiratzera joan** (11); **behera joan** (92); **berarengana joan** (23); **bere aldetik joan** (15); **bere bidetik joan** (13); **bere etxera joan** (30); **bere gelara joan** (27); **bere kabuz joan** (9); **berehala joan** (67); **berri ematera joan** (9); **berriro joan** (26); **berriz joan** (23); **beste aldera joan** (16); **beste norabait joan** (14); **betetzen joan** (13); **beti joan** (10); **betiko joan** (15); **bi urte joan** (11); **bide beretik joan** (13); **bidetik joan** (40); **bihurtuz joan** (10); **bila joan** (350); **bilbora joan** (23); **bilerara joan** (14); **biltzera joan** (9); **bisita egitera joan** (15); **bisitan joan** (34); **bisitatzera joan** (40); **bizitzera joan** (66); **bizkor joan** (18); **bordelera joan** (10); **bozeramaile joan** (10); **bozkatzera joan** (17); **bulegora joan** (46); **burua joan** (16); **bururaino joan** (12); **deklaratzera joan** (19); **dena ondo joan** (16); **denak ederki joan** (9); **denak joan** (48); **denbora aurrera joan** (11); **denbora joan** (46); **dendara joan** (32); **desagertuz joan** (12); **desagertzen joan** (9); **donostiara joan** (24); **edatera joan** (9); **ederki joan** (50); **edonora joan** (12); **egiptora joan** (18); **egiten joan** (10); **egitera joan** (175); **egoitzara joan** (17); **egongelara joan** (22); **eguna joan** (54); **egunak joan** (62); **egunero joan** (13); **elgarren bete joan** (9); **elizara joan** (31); **elkarrekin joan** (61); **ematera joan** (79); **emendatuz joan** (13); **epaitegira joan** (9); **erbestera joan** (19); **erostera joan** (22); **erredakzioa joan** (23); **erregeagana joan** (16); **errekara joan** (10); **erromara joan** (26); **esatera joan** (20); **esertzera joan** (23); **eskaileretan behera joan** (10); **eskaileretan gora joan** (14); **eskatzera joan** (17); **eske joan** (51); **eskolara joan** (87); **eskoletara joan** (14); **esku hutsik joan** (9); **eskutik joan** (14); **espetxera joan** (26); **estatu batuetara joan** (9); **etorri eta joan** (14); **etxe batera joan** (11); **etxeetara joan** (11); **etxera joan** (425); **etxerat joan** (13); **etxetik joan** (23); **etxolara joan** (9); **euskal herrira joan** (10); **ezin naiz joan** (11); **festara joan** (11); **florentziara joan** (9); **frantziara joan** (22); **gaizki joan** (18); **galduz joan** (19); **galtzen joan** (30); **gazterik joan** (21); **gelara joan** (122); **geltokira joan** (16); **gerrara joan** (31); **goiz joan** (15); **goizean joan** (12); **gora joan** (104); **gutxituz joan** (13); **hamar urte joan** (14); **handituz joan** (56); **handitzen joan** (11); **hartuz joan** (23); **hartzen joan** (22); **hartzera joan** (72); **haziz joan** (20); **hazten joan** (17); **hedatuz joan** (12); **hegan joan** (22); **hegaz joan** (9); **herri batera joan** (12); **herrialdera joan** (9); **herrira joan** (39); **herritik joan** (12); **hilabete joan** (17); **hilabete joan dira** (10); **hilabeteak joan** (15); **hilobira joan** (10); **hirira joan** (64); **hitz egitera joan** (20); **hobeki joan** (14); **hobeto joan** (13); **hobetuz joan** (18); **hondartzara joan** (12); **hondora joan** (25); **hotelera joan** (27); **hutsik joan** (13); **ihes joan** (18); **ihesi joan** (121); **iheska joan** (11); **ikastera joan** (18); **ikustera joan** (214); **indartuz joan** (10); **indiara joan** (10); **infernura joan** (11); **ingalaterrara joan** (17); **irabazten joan** (9); **irekitzera joan** (20); **isilik joan** (18); **italiara joan** (10); **itzaltzen joan** (16); **jantzita joan** (11); **jartzera joan** (10); **jasotzera joan** (10); **jatetxe batera joan** (10); **jauregira joan** (12); **jende asko joan** (9); **jerusalemera joan** (17); **jesusengana joan** (9)

; **joan aintzin** (15); **joan aitzin** (68); **joan beharra** (284); **joan beharra dago** (16); **joan beharra daukat** (47); **joan beharra dut** (14); **joan bezain laster** (9); **joan bezperan** (9); **joan den** (5046); **joan den abenduan** (48); **joan den abuztuan** (13); **joan den aldian** (9); **joan den apirilean** (28); **joan den aspaldian** (13); **joan den astean** (756); **joan den asteartean** (90); **joan den asteazkenean** (86); **joan den asteburuan** (128); **joan den astelehenean** (124); **joan den astetik** (9); **joan den astezkenean** (25); **joan den azaroan** (37); **joan den denboraldian** (31); **joan den egunean** (50); **joan den ekainean** (27); **joan den hilabetean** (34); **joan den hilean** (47); **joan den ibiakoitzean** (11); **joan den igandean** (310); **joan den irailean** (30); **joan den jardunaldian** (14); **joan den larunbatean** (344); **joan den maiatzean** (34); **joan den martxoan** (46); **joan den**

**mendean** (18); **joan den ortzegunean** (27); **joan den ortziralean** (22); **joan den ostegunean** (127); **joan den ostegunetik** (10); **joan den ostiralean** (175); **joan den otsailean** (38); **joan den sasoian** (17); **joan den udan** (41); **joan den udazkenean** (13); **joan den urrian** (38); **joan den urtarrilean** (29); **joan den urtean** (262); **joan den uztailean** (30); **joan eta joan** (10); **joan etorri** (190); **joan etorria** (109); **joan etorria egin** (12); **joan etorriak** (147); **joan etorrian** (115); **joan etorriarekin** (11); **joan etorriei** (13); **joan etorriek** (19); **joan etorrien** (42); **joan etorrietan** (35); **joan etorriko** (42); **joan ez joan** (14); **joan ezinik** (10); **joan jin** (25); **joan jina** (22); **joan jinak** (25); **joan jinka** (17); **joan zen** (5365); **joan zen abenduan** (16); **joan zen abuztuan** (9); **joan zen astean** (166); **joan zen asteartean** (19); **joan zen asteazkenean** (25); **joan zen asteburuan** (42); **joan zen astelehenean** (20); **joan zen batean** (20); **joan zen berriro** (16); **joan zen bizitzera** (49); **joan zen bizkor** (10); **joan zen denboraldian** (12); **joan zen etxera** (12); **joan zen hilean** (13); **joan zen igandean** (51); **joan zen ihesi** (12); **joan zen irailean** (12); **joan zen korrika** (18); **joan zen lanera** (9); **joan zen larunbatean** (90); **joan zen lasterka** (47); **joan zen martxoan** (10); **joan zen ostegunean** (24); **joan zen ostiralean** (25); **joan zen polizia** (9); **joan zen udan** (9); **joan zen urrian** (12); **joan zen urtarrilean** (9); **joan zen urtean** (42); **joan zen zuzenean** (18); **joan ziren bizitzera** (13); **joan ziren ihesi** (9); **joan ziren lasterka** (11)

**joanak joan** (12); **kafetegira joan** (13); **kalera joan** (21); **kanpora joan** (83); **kartzelara joan** (33); **komunera joan** (77); **kontra joan** (28); **korridorean aurrera joan** (9); **korrika joan** (61); **kubara joan** (11); **lagun joan** (23); **lagun joan ziren** (9); **laguntza eske joan** (13); **laguntzera joan** (46); **lan egitera joan** (9); **lanera joan** (89); **lasai joan** (36); **laster joan** (18); **lasterka joan** (156); **leihora joan** (46); **leku batera joan** (13); **logelara joan** (45); **londresera joan** (20); **lotara joan** (52); **lurrera joan** (15); **luze joan** (41); **luze joan zen** (12); **madrilera joan** (47); **mahaira joan** (15); **maldan behera joan** (9); **medikuarenera joan** (10); **medikuarengana joan** (9); **mendeak joan** (9); **mendira joan** (33); **mexikora joan** (10); **mezatara joan** (10); **minutuak aurrera joan** (23); **murrizten joan** (13); **murriztuz joan** (10); **museora joan** (10); **muturrera joan** (11); **new yorkera joan** (20); **norabait joan** (24); **normal joan** (9); **oharkabean joan** (11); **ohera joan** (98); **oinez joan** (52); **ondo joan** (72); **ondoan joan** (10); **ondora joan** (34); **ongi joan** (55); **ontsa joan** (18); **oporretan joan** (10); **oporretara joan** (19); **osatuz joan** (16); **osatzen joan** (9); **oso ondo joan** (11); **oso urrutira joan** (11); **ospitalera joan** (32); **ostatura joan** (10); **parisera joan** (54); **pariserat joan** (10); **partidaz partida joan** (16); **paseatzera joan** (10); **pausoz pauso joan** (11); **pertsona joan** (9); **pikutara joan** (27); **pilatuz joan** (10); **pilatzen joan** (9); **pixkanaka joan** (9); **plazara joan** (17); **poliki joan** (11); **polizia etxera joan** (14); **pozik joan** (12); **presaka joan** (15); **preso joan** (9); **realera joan** (9); **santuarengana joan** (9); **sartzen joan** (11); **sendagilearengana joan** (10); **sinatzera joan** (10); **soldadu joan** (10); **sukaldera joan** (73); **tabernara joan** (28); **tenplura joan** (10); **trenez joan** (9); **udaletxera joan** (11); **unibertsitatera joan** (27); **urrun joan** (76); **urrunago joan** (91); **urrunduz joan** (10); **urrunegi joan** (33); **urrunera joan** (9); **urruti joan** (17); **urrutiegi joan** (18); **urrutira joan** (54) urrutirago joan (13); **urte joan** (82); **urte joan dira** (49); **urtea joan** (29); **urteak aurrera joan** (10); **urteak joan ahala** (12); **urtero joan** (9); **xarmanki joan** (9); **zabalduz joan** (17); **zabaltzen joan** (11); **zabaltzera joan** (14); **zeiharka joan** (15); **zelaira joan** (9); **zerura joan** (13); **zinemara joan** (19); **zinera joan** (20); **ziztu bizian joan** (11); **zulora joan** (9); **zuzen joan** (19); **zuzenean joan** (51)

**bila joana** (20); **burutik joana** (10); **egitera joana** (15); **etxera joana** (12)

**denboraren joanak** (12); **egitera joanak** (9); **ihesi joanak** (15); **joanak joan** (12); **urrun joanak** (10); **urte joanak** (12)

**ematera joandako** (11); **euskal herritik joandako** (12); **herritik joandako** (14); **ihesi joandako** (16)

**joanden aldian** (20); **joanden aratsean** (13); **joanden aste hortan** (23); **joanden aste ondarrean** (16); **joanden astean** (279); **joanden asteartean** (11); **joanden asteburu hortan** (22); **joanden asteburuan** (25); **joanden astelehenean** (26); **joanden astezkenean** (12); **joanden azaroan** (9); **joanden egunean** (216); **joanden ekainean** (10); **joanden hilabetean** (12); **joanden ibiakoitzean** (18); **joanden igandean** (187); **joanden larunbat aratsaldean** (16); **joanden larunbat aratsean** (13); **joanden larunbatean** (239); **joanden ortzegunean** (27); **joanden ortzirale aratsean** (9); **joanden ortziralean** (44); **joanden ostiralean** (23); **joanden udan** (10); **joanden urtarrilean** (9); **joanden urtean** (51)

**denboraren joanean** (24); **urteen joanean** (15)

**final laurdenetako joaneko** (18); **final zortzirenetako joaneko** (17); **finalerdietako joaneko** (12); **joaneko partida** (70); **joaneko partida jokatuko** (15); **joaneko partidak** (29); **joaneko partidako** (27); **joaneko partidan** (150); **joaneko partidaren** (10); **laurdenetako joaneko** (18); **zortzirenetako joaneko** (17)

**emendatuz joanen** (12); **ikustera joanen** (16)

**afaltzera joango** (10); **atzetik joango** (17); **aurrera joango** (10); **aurretik joango** (18); **bakarrik joango** (27); **batera joango** (54); **berehala joango** (12); **bila joango** (53); **bilerara joango** (13); **egitera joango** (34); **elkarrekin joango** (20); **ematera joango** (14); **etxera joango** (47); **gora joango** (9); **gustura joango** (13); **ihesi joango** (18); **ikustera joango** (33); **kartzelara joango** (11); **laster joango** (21); **oinez joango** (19); **ondo joango** (17); **ongi joango** (15); **oraintxe bertan joango** (11); **pikutara joango** (10); **pozik joango** (11)

**atzetik joatea** (12); **aurka joatea** (17); **aurrera joatea** (9); **bakarrik joatea** (9); **batera joatea** (42); **bila joatea** (32); **egitera joatea** (16); **elkarrekin joatea** (11); **etxera joatea** (27); **haratago joatea** (11); **ikustera joatea** (32); **joatea debekatu** (10); **joatea deliberatu** (10); **joatea erabaki** (197); **joatea erabaki zuen** (76); **joatea erabakitzen** (10); **joatea espero** (20); **joatea gustatzen** (10); **joatea pentsatu** (11); **joatea proposatu** (28); **kanpora joatea** (9); **kontra joatea** (12); **oinez joatea** (10); **zinemara joatea** (12)

**joateari uko egin** (9); **joateari utzi** (12)

**atzetik joateko** (22); **aurrera joateko** (17); **batera joateko** (64); **batetik bestera joateko** (19); **bazkaltzera joateko** (10); **bila joateko** (71); **bilbora joateko** (9); **bizitzera joateko** (15); **botoa ematera joateko** (14); **bozkatzera joateko** (12); **ekitaldietara joateko** (9); **ekitaldira joateko** (10); **elkarrekin joateko** (22); **ematera joateko** (24); **eskolara joateko** (37); **etxera joateko** (80); **gasteizera joateko** (9); **gelara joateko** (9); **gerrara joateko** (13); **gora joateko** (13); **haratago joateko** (24); **hartzera joateko** (12); **herrira joateko** (13); **hondartzara joateko** (10); **ikustera joateko** (44); **italiara joateko** (9); **joateko agindu** (54); **joateko agintzen** (9); **joateko altxatu** (9); **joateko arriskua** (9); **joateko asmoa** (90); **joateko asmorik** (26); **joateko asmotan** (19); **joateko asmoz** (14); **joateko aukera** (92); **joateko aukerarik** (15); **joateko baimena** (66); **joateko bidea** (9); **joateko deia** (115); **joateko deialdia** (10); **joateko eguna** (9); **joateko erabakia** (24); **joateko erregutu** (10); **joateko esan** (54); **joateko esaten** (12); **joateko eskaera** (9); **joateko eskatu** (80); **joateko eskatzen** (9); **joateko garaia** (17); **joateko gogoa** (29); **joateko gogorik** (19); **joateko gonbita** (22); **joateko gonbita egin** (10); **joateko irrikan** (9); **joateko keinua** (10); **joateko moduan** (18); **joateko ohitura** (26); **joateko ordua** (52); **joateko prest** (50); **joateko proposamena** (13); **joateko tenorea** (10); **kanpora joateko** (19); **kartzelara joateko** (14); **komunera joateko** (35); **kontra joateko** (11); **lanera joateko** (51); **lekura joateko** (11); **lurraldera joateko** (9); **madrilera joateko** (13); **manifestaziora joateko** (49); **manifestaziora joateko deia** (30); **mendira joateko** (11); **ohera joateko** (17); **oinez joateko** (9); **ospitalera joateko** (9); **unibertsitatera joateko** (18); **urrunago joateko** (14); **zinemara joateko** (9)

**aldatuz joaten** (12); **askotan joaten** (31); **astero joaten** (9); **atzetik joaten** (28); **aurrera joaten** (23); **aurretik joaten** (9); **bakarrik joaten** (34); **bila joaten** (58); **bisita egitera joaten** (9); **bisitan joaten** (15); **bisitatzera joaten** (15); **bulegora joaten** (9); **egitera joaten** (59); **egunero joaten** (46); **elizara joaten** (21); **elkarrekin joaten** (23); **elkarrekin joaten ginen** (9); **erostera joaten** (9); **eskolara joaten** (53); **eskoletara joaten** (9); **etxera joaten** (83); **gelara joaten** (10); **goizero joaten** (9); **gora joaten** (12); **gurtzera joaten** (12); **gutxi joaten** (10); **hirira joaten** (11); **igandero joaten** (11); **ihesi joaten** (12); **ikastera joaten** (10); **ikustera joaten** (50); **jantzita joaten** (9); **jende asko joaten** (12); **joaten hasi** (93); **joaten ikusi** (32); **joaten jarraitzen** (11); **joaten saiatu** (13); **joaten utzi** (132); **joaten utziko** (33); **joaten uztea** (13); **joaten uzteko** (23); **joaten uzten** (26); **kanpora joaten** (19); **komunera joaten** (11); **korrika joaten** (9); **lanera joaten** (19); **lasterka joaten** (23); **lotara joaten** (13); **luze joaten** (9); **maiz joaten** (36); **mendira joaten** (17); **mezatara joaten** (13); **ohera joaten** (9); **oinez joaten** (16); **pozik joaten** (12); **sarri joaten** (16); **sarritan joaten** (16); **tabernara joaten** (12); **unibertsitatera joaten** (11); **urrunago joaten** (10); **urtero joaten** (9); **zinemara joaten** (15)

**joatera gonbidatu** (14)

---

## **joanaldi** *iz* joatea.

Hau idazten ari naizenean pare bat aste joan dira nere azkeneko **joanalditik** edo, hobeki esanda, abialditik. Iñaki Segurola

Bizikletaz egiten zituen bidaiak, eta **joanaldi** bakoitzean, zakukada handi batekin edo birekin itzultzen zen. Anjel Lertxundi

[Lizentzia] haietako bakar bat ere ez zuen uzten bere ama zaharrarengana bisita egin gabe, nahiz milaka verstako **joanaldia** egin behar izan, nahiz neguak bidea gaiztatu eta eragotzi erabat. Karlos Zabala

Goizeko bostetan jaikitzea; ibili beharra; autobusa hartzeko, kalean lasterka egin beharra; berrogei minutuko **joanaldi** hura; laugarren herrira iristea; fabrikako hormen artean sartzea. Eskarne Mujika

Eskola-umeon **joanaldi** zalapartaria. Pedro Alberdi

Euskaldun gazteagoak, azken **joanaldiko** errefuxiatuak, tabernara bildu dira. Pako Aristi

Diruak dakar beste guztia: autoa, pisua, eskiatzera **joanaldiak,** arropak, ezkontzak, bataioak... Pako Aristi

---

## **joandura** *iz ipar* alditxarra, zorabioa.

Bazuen urte zonbait osagarria mendratua zuela [...] zerbait **joandura** senditurik ereman dute Iruñeko eritegirat, egun batzu artatzen atxiki dute, nun ere uste ez ginuela, hil delako berri txarra jakin dugu. Herria

Buru **joandura** (Alzhaimer) eritasunari buruzkako ikerketen pusatzeko eginen da buruil arte huntan kanpaña bat, erresuma maileko elkartearekin josirik, emaitzak horrerat igorriak izanen dira. Herria

---

## joanera ik **joaera.**

---

## joanetorri ik **joan 27.**

---

## joanjin ik **joan 31.**

joanki ik **joaki**.

---

**joankin** *izond* emigratzailea. ik **etorkin**.

Halaber badakit, Abeberrik bezala, nire seme-alabek, hendaiarrak biak ala biak, etorkin beharko dutela izan, edo **joankin** -ez dakit nola beharko nukeen esan-, euren herrian bertan euskaldun bezala bizitzea inoiz erabakitzen badute. Hasier Etxeberria

Ez alferrik, **joankinak** izan gara gure bizitza guztian. Iñigo Aranbarri

---

**joankizun** *iz* iraganaldia.

Geroago eta lekuz kanpokoagoa, geroago eta sasoiz kanpokoagoa bihurtzen ari naizela, borradoreak zirriborratuz estaltzen naizela eta oraingo bizitza uzten dudala **joankizunaren** eta etorkizunaren narrazioa egiteko. Joseba Sarrionandia

Baina, **joankizuneko** eszenekin, orainera etorri naiz eta, bertan geratu beharrean, etorkizuna imajinatzeko ahaleginak egin ditut. Joseba Sarrionandia

· [Zoriontsua] denboraren barruan dago, denbora erreal eta gezurrezkoan, eta denbora horretan *hura* bi gauza bakarrik izan daitezke: edo gertakizun den etorkizuna (denbora etorkizuna, mundu **joankizuna),** edo bestela, gertatua, etorri eta joana. Iñaki Segurola

---

**joankor** *izond* joateko joera duena, igarokorra.

Egia da **joankorra** dela mundu honetako loria. Herria

Galera, zapuzte eta etsi-behar baten umeak gara: haurtzaro beti-**joankor,** gaztetasun beti-iheskor, amodio beti-galkorraren, lehenbiziko egunsenti itzalik gabeko haren, paradisuaren edo auskalo zeren galerak ekarri gaitu gure izatera, noizbaiteko geure onetik orain hauetako ondoezetara. Iñaki Segurola

---

**joarazi,** joaraz, joarazten **1** du *ad* jotzera behartu.

Gizonezkoa etxera iritsi eta bikotekidea erasotzen hasi zen: burua heldu eta horma baten kontra **joarazi** zuen. Itsaso zakarrak hondoko lohiak mugitzen ahal ditu, eta kalitate txarrekotzat **joarazi** hondartza bat. Berria - Euskal Herria

Arrazoiaren etengabeko kronologia honen lekuan -zeinak helezina den jatorrira, irekiera fundatzailera, **joarazten** gaituen- agertzen dira batzuetan laburrak diren eskalak. Xabier Arregi

Funtzioaren aldaketa infinituki txiki baten eta aldagaiari zegokionaren arteko erlazioa kalkulatuz, besterik gabe; eta, ondoren, azken horri 0rantz **joaraziz**. Jon Muñoz

Giza arrazari aurrera **joarazten** dion eragile nagusia. Xabier Olarra

Sarea zabaldu didate bidean, niri **lur joarazteko**. Elizen arteko biblia

Sekula gizonik maitatuko ez zuela zin egin omen zion bere buruari, nebak, gazteago izan arren, borrokarakoan bizkarrez lurra **joarazi** ziolako. Joxe Austin Arrieta

Esan dizut, gizagaixo hutsa da, eta ez diot hondoa **joarazi** nahi. Juan Garzia

**2** (musikan eta kidekoetan)

Kanpaiak luzaz **joaraziz**. Aragornek tronpetak **joarazi** zituen, eta heraldoek hitz egin zuten: [...]. Agustin Otsoa

Musika-bandaren bat eskura eduki izan balu, pieza bat **joaraziko** zion Matildek, Matiasi harrera egiteko. Unai Elorriaga

*Rendez-vous des Cheminots* ostatuaz mintzatu natzaio, pianoan **joarazten** dudan ragtime zaharraz, horrek ematen didan zorion arraroaz. Monika Etxebarria

Nozdriovek, biraderari eraginik, mazurka baten doinua **joarazi** zion gonbidatuen aurrean. Jose Morales

Urdai saltzaile ederra ikusteak txunditu egiten zuen, bozkariozko txaloak **joarazten** zizkion. Karlos Zabala

Ortzitik trumoia **joarazi** zuen Jaunak, deiadar egin Goi-goikoak. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hondoa joarazi** (3); **lur joarazi** (6)

---

**joare** **1** *iz* abereak lepoan daraman kanpai modukoa. ik **zintzarri**.

Ez zen arimarik ageri; txorien ttiuttak eta urruneko ardien **joareak** salbu, ez zen toki haren bakea hausten zuen beste azantzik. Elena Touyarou

Azaldu da azkenean gure ahari muturgorria: honatx **joarea** bere ustaiarekin, gainerakoen berri putreek jakinen dute. Patziku Perurena

Idien **joarea** entzun nuen, eta zuhaitzen ikara. Koldo Izagirre

Ate baten kirrinka aditzen da, behien **joarearen** tintina, mutiko baten ahotsa. Koro Navarro

Hala dagoelarik **joareen** soinua iritsi zaio, askoz ere biziago behiak beheko bihurgunean agertzen hasi direnean. Pello Lizarralde

Errauts argiaren dirdira duen haran zabal eta huts baten muturrean geratu dira, **joare** urrunak entzuten. Pello Lizarralde

Ardi marrakek eta **joare** ozenek. Itxaro Borda

Mendiko lepoari lotutako behia ematen du elizak, **joarea** inarrosten. Koldo Izagirre

Arotzak elizetako kobrezko santuak ostu ohi ditu, kobrea urturik **joareak** egiteko. Berria - Kultura

· Azkenean gatuari **joarea** ezartzen dio. Eneko Bidegain

**2** (joaldunarena)

Leihotik eskopeta tiro bat bota, eta ondoren denak ateratzen ginen **joareekin** kalera. Edurne Elizondo

Gero eta jende gutxiago ateratzen dela Santa Agedan, Errege bezperan edo Egun Ttun-ttun egunean, karriketan kantatzeko, etxeetan **joareak** eta zintzarriak jotzeko. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan)

Halaber erakusten zituzten saltzeko zituzten ardi larruzko xamarrak, abarkak, makilak, abere **joareak,** tabako zakutxoak, ganibetak. Elena Touyarou

Behien orroak eta ardi **joareak**. Piarres Aintziart

---

**joate** *iz*

Auto hauek guztiak, orduko hirurogei eta hirurogeita hamar milia orduko abiadan **joate** hau. Oskar Arana

Zerbait ikaragarria ezkutatzen da laster **joate** horretan, gauzak ziplo desagertzen dira agertu orduko, zehazteko astirik izan gabe. Jose Morales

Denboraren **joate** betikoan lerratzen. Xabier Amuriza

Zahartzen **joate** honen poderioz. Hasier Etxeberria

Kitto eskolara bila **joate** hori, kitto umeen ergelkeria haiek guztiak. Fernando Rey

Nofuturen harrapaketa; Maxen bahiketa, eta orain, berriz, Sirakusara korrika eta presaka **joate** hori. Jon Muñoz

Oriolek ere sumatzen zuen nire **joate** hurbila, nahiz eta nik ezer adierazi ez. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# **joateke** *adlag* joan gabe.

Izan zian hi hezteko modua lanera **joateke,** baina hark nire diruari probetxu atera besterik ez zian egin. Eskarne Mujika

Inoren aholkuaren bila **joateke** erabaki zuela [...] senarraren tokia hartuko zuela hiltegian. Felipe Juaristi

---

# **joba** *interj joder*-en leungarria den hitza.

**-Joba,** ama! -kexatu zen Leire-. **-Joba,** ama! -kexatu zen Leire-. Aitor Arana

---

# **jobial** *izond* arraia, alaitsua.

Bazekien gogoeta tontoa zela, baina gogoeta tontoak izaten dira normalenak etxetik kanpo, haizeak mugitzen dituen partikula **jobialak** sudurretik sartzen ari zaizkigunean, esate baterako. Unai Elorriaga

---

# **jockey**[1] *iz* zaldi lasterketetako zaldizko profesionala.

Zaldiak edo **jockeyak**. Berria - Kirola

**Jockey** bezala ez haut ikusten -erabaki zuen osabak-, baina hik zer uste duk dela zaldia? Bernardo Atxaga

Benetako **jockeyak** ziren informazio ehizaren steeple-chase honetan; hesien gainetik jauzi egiten zuten, ibaiak zeharkatzen, oztopoak gainditzen, zaldi odol-garbiaren adore paregabeaz, zeina "aurren-aurrena iritsi edo hil" lehiatzen baita lasterketan. Karlos Zabala

---

jockey[2] ik **hockey**.

---

# **jode** *interj joder*-en leungarria den hitza.

**-Jode,** zuek ere! Juan Kruz Igerabide

**-Jode,** tia, orain ez hadi heu borde jarri, nik jarri behar niken eta! Pako Aristi

**-Jode** Yolo, zakila jateak on egin dik! Pako Aristi

- **Jode,** Peio, no me jodas, nahikoa da, ez? kontaidazu, non ibili zara, zer egin duzu denbora honetan? Eider Rodriguez

**Jode**! Juan Kruz Igerabide

**jode**! ezin da atsegin hau jasan! hiltzera noa... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hiruron artean... **jode,** hi, ni oso txarra nauk gauza hauetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Atetik sartu zenean, **jode!,** oso urrundik nire tabernan hiltzera zetorren animalia jipoitua iruditu zitzaidan. Pako Aristi

Burua galduta ere, ezinezkoa da, **jode**. Harkaitz Cano

Asto emeari zaldia botata, **jode**! Patziku Perurena

---

# **joder** *interj adkor* kexa edo harridura adierazten duen hitza.

**-Joder** -kexatu zen-. Fernando Morillo

**Joder,** txo! Iban Zaldua

**-Joder,** Karlos! Sonia Gonzalez

**-Joder,** Charly, hi ere hasiko haiz horrekin talakan? Aingeru Epaltza

**-Joder,** neska, zurekin ez dago ezer egiterik. Sonia Gonzalez

**-Joder,** zenbat dakizun. Xabier Mendiguren Elizegi

-Ez, **joder**! Unai Iturriaga

-Ezetz, **joder**! Jokin Muñoz

-Egia da, **joder..**. Unai Iturriaga

-Itxi atea, **joder**! Juan Kruz Igerabide

Eta agian, **joder,** latzena zen agian piztia izan zela bere bizitza osoan ohartu ere egin gabe. Harkaitz Cano

-Itzel **joder,** itzel. Harkaitz Cano

Ez dinat ezer ulertzen, **joder,** ez dinat ezer ulertzen! Harkaitz Cano

-Utzidak bakean, **joder**! min egiten didak! Jokin Muñoz

Oso ederrak dira eta **joder**! ez dakizu zelan egiten duten larrutan! Jon Arretxe

Amonarentzat al da? **joder,** Bela. Pablo Sastre

-Peio, baietz, ez esan ez nauzula ezagutzen, **joder**. Eider Rodriguez

Ostiak jasotzeko egina dun, ahalik eta baketa kolperik gogorrenak jasotzeko egina, **joder**. Unai Iturriaga

Txintik esan gabe horrela begira jarraitzen badu... **joder**! Sonia Gonzalez

---

# **jodidu,** jodi, joditzen du *ad* izorratu.

Dena izorratu duzu, dena **jodidu** duzu, Eñaut, betiko legez. Sonia Gonzalez

Oraindik ez da jaio ni **jodiduko** nauenik! Sonia Gonzalez

Kaña **jodiduta** dago. Sonia Gonzalez

---

# **joegile** *iz* jotzailea.

KANTIRUKI taldeko hiru neska xarmantek kantu xoragarriak eskainiko dauzkigute, Mikel Erramouspe dutelarik gitarra **joegile**. Herria

---

**joera** **1** *iz* norbait edo zerbait bide jakin batetik jotzera, bilakaera jakin bat izatera, molde jakin batez aritzera daraman zera. ik **jokera**.

Orain, berriz, **joera** aldatu da eta ikasleen kopurua beherantz doa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Baina **joera** hura ez zen gailendu. Bernardo Atxaga
Petrolioaren prezioaren azken **joera** ikusirik. Berria - Ekonomia
Badira **joera** hau apurtzen duten salbuespenak ere. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Baina **joerak** hausteko neurriak hartu behar dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde
Animaliekin hitz egiteko **joera** areagotu egin ohi du bakardadeak. Imanol Zurutuza
Bi eskola edo **joera** bereiz daitezke horien artean. Berria - Kultura
Oinarrizko gizarte-elkartasun baten aldeko **joera** gaur desagertuak. Koro Navarro
Batzuetan krepeak egiteko **joerak** ematen zion. Juan Kruz Igerabide
Ez zuen ikustaldiak egiteko **joerarik,** ez zuen maizterrengana joateko usadiorik. Patxi Zubizarreta
Zergak beheratzeko **joera**. Koro Navarro
Ikusleak zentro huts hori berriro automatikoki betetzeko **joera** duenez. Josu Zabaleta
Pintura modernoak espazioaren ikusmolde "topologikoago" bat irudikatzeko **joera** izango du. Josu Zabaleta
Itsasoko uretan oxigeno gehiago dagoenez, zelulan sartzeko **joera** du oxigenoak. Irene Aldasoro
Denborak, gauzak ahaztarazteaz gain, haiek nahasteko eta apaintzeko **joera** du. J.M. Olaizola "Txiliku"
Beti zuka hitz egiteko bere **joera** hura. Bernardo Atxaga
**Joera** guztietako hautagaiak. Patxi Zubizarreta
XIX. mendeko azken hamarkadetan, mota eta **joera** guztietako iraultzaile talde txikiak zeuden Errusian. Jose Morales

**2** (izenondoekin)

Jazz kritikariek ere jazz hutsa baino ez zuten aintzat hartzen, *mainstream* **(joera** nagusia) diotena. Berria - Kultura
Zakur honek badu **joera** makur bat. Gotzon Garate
Obsesioa ez da urteekin hobera egiten duen **joera** psikologikoa. Ramon Saizarbitoria
Lotsagabetasunetik jaiotzen dira **joera** lizunak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Zuen amaren **joera** gizonzale neurrigabe horrek. Aitor Arana
Beti izan zuen halako **joera** depresibo bat. Bernardo Atxaga
Horietako % 3k (guztira 3.552.000) **joera** pederastak dituztela onartu dute. Berria - Gaiak
Itzulinguruka ibili gabe: zure senarrak **joera** homosexualak ditu. Migel Angel Mintegi
Beren **joera** gaiztoei jarraitu diete setati. Elizen arteko biblia
Sintesi hori berez gertatu ohi da, **joera** mekaniko bati esker. Isabel Arrigain
XX. mende hasierako **joera** garbizaleak ez ziren iritsi Eibarra. Koldo Zuazo
Burtsa indizeak **joera** argirik ez zuen izan. Berria - Ekonomia
Kulturan gertatzen ari diren homogeneizazio **joera** kezkagarriak. Iñaki Heras
Halako egoeretan, **joera** menderaezin bat izaten da hitz-joko eta jolasetarako. Xabier Olarra
Giza izaerak berez munduarekin bat egiteko duen **joera** panteista. Josu Zabaleta
Pinturako **joera** puntillista. Josu Zabaleta
Hiru **joera** handitan jaso daitezke hainbat eta hainbat autore eta pentsamendu eskola desberdinen ekarpenak: **joera** liberala, **joera** marxista eta **joera** keynesiarra. Iñaki Heras
Patrikek baditek berezko **joera** irensle bat, zulo beltzen pareko halako indar desagerrarazle bat. Harkaitz Cano

**3** (izenlagunekin)

Gizatalde guztiek zikoizkeriarako edo eskuzabaltasunerako berezko **joera** dute, estatistikoki oso antzera banatua. Iñaki Heras
Neurri batean, bazuen komunistenganako **joera,** eta nik hura ezin jasan, baita mistikoenganakoa ere: alegia, histerikoenganakoa, nik esango nukeenez. Joxe Austin Arrieta
2001eko irailaren 11ko atentatuek, ordea, kontrako **joera** eragin dute nazioartekoan. Berria - Mundua
Karga positiboa dutenak gorako **joera** dute. Pello Zabala
Energiaren prezioa eragiten ari da batez ere goranzko **joera**. Berria - Ekonomia
Irudikapen-artearen muturreko bi **joera** edo polo. Josu Zabaleta
Askotan ohargabeko **joera** da hau. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Garraioen kostuaren beheranzko **joera** eta trukeen liberalizazioa. Koro Navarro
Hamarraldi horretako pinturako garrantzizko **joera** guztiak espresionismoaren barruan kokatu ziren. Josu Zabaleta
Baina ez zuen galtzen ameskeriarako **joera** hura. Josu Zabaleta
Ez dut inoiz baserrirako **joerarik** izan. Xabier Mendiguren Elizegi
Okerrerako **joera**. Berria - Euskal Herria
Marxismoaren dogmatizazio eta teologizaziorako **joera**. Iñaki Heras
Gizakiak berezkoa al du indibidualismorako **joera**? I Halaber, dirua aurrezturik dutenentzat, kontsumorako **joera** sustatzen da. Iñaki Heras
Abenturarako **joera** ezin neurtuzkoa. Xabier Mendiguren Elizegi
Idealizaziorako eta oroiminerako **joera**. Xabier Olarra
Esan genezake aldi berean bi muturretarako **joera** dagoela Euskal Herrian. Joseba Zulaika

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Joera**-aldaketa nagusitua zen orain: ahalmen indartuen nahiz jende dohaintsuen egiturak behar ziren arakatu, eta dohain horiek garunean zer oinarri duten aztertu. Xabier Olarra
Bilera hori garrantzitsua da **joera** aldaketa bat adierazen duelako. Berria - Euskal Herria
1979an **joera** aldaketa sumatzen hasi zen, ordea. Berria - Euskal Herria
Ekonomiaren «susperraldia hiru hilean behingo **joera**-azterketan» oinarritu dute. Berria - Ekonomia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **joera** naturala. Iñaki Segurola
Militarismoaren suizidio-**joera**. Iñaki Mendiguren
Eskizofrenia **joera** edo. Gotzon Garate
Ez zion inoiz antzeman berarekiko arbuio **joerarik,** are gutxiago gorroto jarrerarik. Joxemari Iturralde
Zientifikoki frogatua dagoela sexu **joera** hori inondik ere ez dela normala. Patxi Zubizarreta
Adin edo **sexu** joera jakin batekoak direlako. Berria - Euskal Herria
Kulturan gertatzen ari diren homogeneizazio **joera** kezkagarriak. Iñaki Heras

Afektibitatezko (ukimenezko edo ikusmenezko) sentipen-**joera** nagusi batekin. Josu Zabaleta

Pentsamendu **joera** edo ikuspegi desberdinei loturikoak. Iñaki Heras

Poetak eta eleberrigileak, orduko literatura-**joera** nagusiaren ordezkari, beren buruaz mintzatzen hasi ziren. Juan Garzia

Bertutean badela barruko ekintza-**joera** bat, hau da, onerako **joera** eta isuri bat. Joan Mari Lekuona

Euskararen ahoskabetze **joera** ahultzen ari dela. Lourdes Oñederra

Beharrezkoa da murrizte-**joera** horri amaiera ematea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tiradizo edo eragin-**joera**. Pello Zabala

Ez nuen sekula ulertu izan Estepanen santujale **joera** hura. Edorta Jimenez

Adi egun osoko eta batik bat gaueko haize **joerari**. Pello Zabala

**6** joateko grina.

Gerraostean ere Urolarako **joera** handia zeukan Jazintok. Koldo Izagirre

Gizon modernoaren Himalayarako **joera**. Patziku Perurena

Eta ez dut aditu zaharra, Aranazko "San Joan Xar" izeneko iturri sonatura, [ijitoek] **joera** handia zutelakoa. Patziku Perurena

-Osteguneko kontzertuan jende-**joera** hobea izan zen, baina Kearney andreak berehalaxe ikusi zuen sasisarreraz beterik zegoela aretoa. Irene Aldasoro

Urriko arratsalde horretan, jende-**joera** handiko bi kaleren gurutzegunean zegoela, kalezuloko prostituzio-etxe-ra joatea erabaki zuen. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**aldatzeko joera** (5); **aldeko joera** (21); **aurkako joera** (6); **azken urteotako joera** (9); **baztertzeko joera** (5); **beherako joera** (10); **beheranzko joera** (30); **berezko joera** (22); **bihurtzeko joera** (14); **egiteko joera** (43); **emateko joera** (8); **erabiltzeko joera** (19); **erasorako joera** (5); **erosteko joera** (5); **esateko joera** (5); **europako joera** (5); **gorako joera** (8); **goranzko joera** (29); **gutxiesteko joera** (5); **hartzeko joera** (8); **hitz egiteko joera** (5); **ibiltzeko joera** (5); **idazteko joera** (6); **igotzeko joera** (5); **ikusteko joera** (11); **izateko joera** (19); **joateko joera** (8); **joera aldaketa** (7); **joera aldatu** (5); **joera aldatzen** (5); **joera areagotu** (6); **joera artistiko** (5); **joera berri** (6); **joera berriak** (17); **joera berrien** (5); **joera erakusten** (10); **joera erakutsi** (8); **joera ezberdinak** (8); **joera gaiztoei** (7); **joera garbia** (7); **joera handia** (40); **joera handiagoa** (31); **joera hartu** (13); **joera izan** (49); **joera izango** (12); **joera izatea** (5); **joera izaten** (32); **joera nabarmena** (20); **joera nagusi** (7); **joera nagusia** (11); **joera nagusiak** (9); **joera nagusien** (6); **joera naturala** (8); **joera orokorra** (7); **joera politiko** (12); **joera positiboa** (5); **jotzeko joera** (15); **kontrako joera** (8); **nahasteko joera** (15); **onartzeko joera** (6); **pentsatzeko joera** (12); **sexu joera** (7); **urteotako joera** (9); **uzteko joera** (5)

**egungo joerak** (8)

**goranzko joerari** (12); **goranzko joerari eutsi** (6); **joerari eutsiz** (6); **joerari jarraituz** (6)

---

# joeradun *izlag* joerako.

Begiratu egin zion eta, errukirako **joeradun** gizona zenez, Éowynen edertasunak eta tristurak bihotza urratu ziotela nabaritu zuen Agustin Otsoa

---

# joeratxo *iz adkor* joera.

Elur alditxoak neguan badutela euren **joeratxo** berezi eta propialik. Pello Zabala

Nimbus seriearen akats bat isats aldera okertzeko duen **joeratxo** horixe da... Iñaki Mendiguren

---

# jofaina *iz* konketa, garbiontzia.

Idurika itzazu lau horma zuri, lastozko bi aulki, tripode baten gaineko **jofaina,** iltze batean zintzilikatua dagoen ume kapelu bat lorez eta abalorioz apaindua. Koldo Izagirre

---

joga ik **yoga**.

---

# jogailu *(orobat **jo-gailu**)* **1** *iz* jotzeko gailua. ik **jotailu**.

Horiek biak elgarri eskuz lotuak dira eta denbora berean daramate bedera "zarpila" deitu **jogailu** bat, nehor ez dadin hurbil haien buluztera edo biluztera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** musika-jogailua.

Piztu din **jogailua,** eta hik berehala ezagutu dun kanta. Iban Zaldua

Anaiaren **jo-gailua** ere piztu nuen, [...] bakartasunaren zama arindu beharrez. Aingeru Epaltza

**3** ***disko-jogailu***

Mahaiaren gainean ontzi bat iratze landare batekin, zilarreria bere kaxan sartuta eta disko-**jogailu** bat. Koro Navarro

Disko **jogailu** bati halako musika karrankaria zerion eta Hamida txundituta ez ezik, gaitzitu ere egin zuen. Patxi Zubizarreta

Disko-**jogailuaren** altabozak. Harkaitz Cano

Garraioa errazteko, disko-**jogailuaren** ordez grabagailua aukeratu zuen. Bego Montorio

Alberto, berriro ere, dorrearen ondoan zegoen, disko-**jogailuan** beste *lp* bat ipintzen. Iban Zaldua

Azken aldian disko-**jogailuan** jartzen genituen kanten artetik Margaren gustukoena aukeratzeko. Harkaitz Cano

· CD-**jogailurik** gabe zaila izango zaik gaur egungo musika zertan den jarraitzea, ezta? Iban Zaldua

**4** ***musika-jogailu.***

Aitak, sarritan, etxeko musika-**jogailuan** ipintzen zuen Txaikovskiren vals magiko baten zurrunbiloan zegoela iruditu zitzaion tupustean. Aritz Gorrotxategi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**disko jogailu** (7); **disko jogailua** (4); **disko jogailuan** (5)

---

# jogurt *(orobat **yogur**, **yogurt** g.er., **yaourt** g.er. eta **yogourth** g.er.)* **1** *iz* bazilo batzuek eragindako hartziduraz lortzen den esnekia.

**Jogurta** egiteko aparatuen antzekoak. Edorta Agirre

Garagardoa gizonentzat eta **jogurta** emakumeentzat. Josu Zabaleta

Aurreko egunean erositako arrautzen eta **jogurten** iraungitze data hurbil dugula. Edorta Agirre

Halako **jogurtak** janez gaztetu egingo zara. Joxerra Garzia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jogurt** ontzi bat ekarri ziguten. Josu Zabaleta

Aitak bost **jogurt** pote galdu zituen Van Daan andrearekin egindako apustu batean. Josu Zabaleta

**Jogurt** apalei begira geratu zen Julen. Fernando Morillo

**Jogurt** laukote bat hartu zuen eskuetan. Fernando Morillo

Haxixez zipriztindutako **jogurt** krema goxoa. Jon Arretxe

Hondartzara joan gara **jogurt** izozki italiar bat jatera. Eider Rodriguez

---

## jogurtxo *iz*

Den-dena zurrupatuko nizuke mihi heze eta jostalari honekin, **jogurtxo** hori Jon Arretxe

---

## joia *iz* bitxia.

Denetarik bada hango erakus-tokian, **joia,** eltze eta bertze... Herria

Hautsi ere dituzte [berinak] eta jestu gutiz hartu barnekaldean ziren muntra eta **joaia** asko, denak balio handikoak. Herria

---

## joieria *(orobat* ***joaieria****)* **1** *iz* bitxi denda.

Begiratu ondoren erreziboak zirela jakin zuen: **joieriakoa,** peleteriakoa... Hiru lagun brau sartu dira hiriaren erdi-erdian den **joaieria** ezagutu batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Bi gizon gazte brau jautsi dira auto batetarik eta borra ukaldika plantatu **joaieria** baten berinak hautsi behar zituztela. Herria

**2** bitxi multzoa.

Denetarik, margo, zizelki, zetazko eta larruzko gauza, **joaieria,** apaindura eta beste. Herria

---

## joile ik **jole**.

---

## joka **1** *adlag* jotzen.

**Joka** ari zitzaizkion, zakur-hotsa entzun zutenean, eta tiroak eta oihuak atzetik. Juan Kruz Igerabide

Aterkiarekin **joka** hasi zitzaion ama. Juan Kruz Igerabide

**Joka** hasi zait ipurdian. Agurtzane Juanena

Edalontziak elkarri botaka, elkarren muturrak **joka** eta elkar lurrera botaka amaitu zuten. Felipe Juaristi

Afalondo batean, Ximurrarekin **joka** lotzeko puntuan egon zen Charly. Aingeru Epaltza

Arropa zikina hartu, eta lixiba-harriaren kontra lehen baino gogorrago hasi ziren **joka**. Felipe Juaristi

Iristen naiz ateraino eta, luzaro **joka** eta deika jardun ondoren, badator anaia eta galdetzen du: […]. Askoren artean

Haizea indarrez hasi zen, ipurdantzari, mendebaletik, izenik gabeko lurralde luzetik **joka**. Felipe Juaristi

Kanpoan ekaitza **joka** eta **joka** ari. Felipe Juaristi

Nire ohorez **joka** hasi zen Skettyko eliz kanpaia. Koro Navarro

Su kanpaiak **joka** hasi ziren elizan. Koro Navarro

**Joka** ari zen telefonoa. Anton Garikano

Itsua, berez barrenetik sortzen zitzaion soinua **joka** hasi zen. Felipe Juaristi

Ez al da alferrikakoa horma baten kontra **joka** aritzea? Fernando Morillo

· Etxera ailegatu nintzenean, eskuorri batzuei begira zeuden gurasoak, eta kalkulagailuari **joka**. Jesus Mari Mendizabal

Goizetik euri ttanttak etengabe ari ziren leihoari **joka**. Ramuntxo Etxeberri

Danba! danba! danba!, ateari **joka** hasten naiz. Filipe Bidart

Iguzkia aurpegiei **joka**. Piarres Aintziart

**2** (izen soil baten eskuinean)

Denek, bular **joka,** beren buruak salatzen zituzten, esanez: [...]. Askoren artean

Mutur- **joka** hasi da garailearekin. Koldo Biguri

Uretan ostiko **joka** ari zela, esan nion: [...]. Koro Navarro

Mikelete talde bat azaldu zen errepidean, lasterka eta tiro **joka,** eta Apaizaren jendea erretiratzen hasi zen. Koro Navarro

Ate **joka** hasi zen bizilagunen etxeetan. Koro Navarro

Mahai gainean kolpetxo **joka** hasi zen, eta bere artean kantari. Koro Navarro

Haren hatzak danbor **joka** ari dira jatetxeko mahaiaren gainean. Felipe Juaristi

Nik ez entzuna egin nion, eta txistu **joka** jarraitu nuen. Koro Navarro

Zoko batean txistu **joka** ari zen. Koro Navarro

Txalo **joka** hartu gintuzten denek. Inazio Mujika Iraola

Mukizu bat zen, 15 urte gazteagoa, adar **joka** ari zitzaiona. Aingeru Epaltza

Batzuetan sentimendu horiek guztiak elkar **joka** hasiko zitzaizkidan barrenean. Matías Múgica

**3** (izen gisa)

**Joka**-partida polit baten ikusle bilakatzeko esperantzan, gainerako ikasleok pilatzen hasiak ginen, bi borrokarigaien. Aingeru Epaltza

**4** ***kanpai joka*** *(orobat* ***kanpaijoka****) adlag*

Charlie artean **kanpai joka** eta iufika aditu nezakeen behean, danga eta danga artean, eta aise irudika nezakeen kanpai-sokatik zintzilikaturik, airean zinbulu-zanbuluka. Mirentxu Larrañaga

Antoniok orduan buztanari heldu eta **kanpai joka** hasi zen aurpegia zerura zuzenduz. Aitor Arana

Gutxien espero nuenean, eskua luzatu eta **kanpaijoka** hasten zitzaidan, niri halako zirrara berezia sortuz. Aitor Arana

Zakila gogor-gogorra neukan eta tentazio handia zen hari heldu eta **kanpai joka** hastea. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adar joka** (12); **ate joka** (136); **atean joka** (5); **ateari joka** (6); **biolina joka** (8); **bizkarrean joka** (3); **bular joka** (11); **buru joka** (3); **danbor joka** (3); **elkar joka** (29); **elkarri joka** (4); **hasi zen joka** (4); **joka agertu** (3); **joka ari** (80); **joka ari zela** (4); **joka aritu** (15); **joka ekin** (4); **joka entzuten** (4); **joka erabili** (3); **joka hasi** (84); **joka ibili** (4); **joka jarraitu** (7); **joka jarraitzen** (4); **joka segitu** (4); **joka segitzen** (5); **kanpai joka** (4); **kanpaia joka** (4); **kanpaiak joka** (6); **lurra joka** (5); **musika joka** (6); **mutur joka** (29); **mutur joka aritu** (4); **mutur joka hasi** (3); **mutur joka hasteko** (3); **ostiko joka** (3); **sakela telefonoa joka** (3); **telefonoa joka** (15); **telefonoa joka hasi** (9); **txalo joka** (5); **txirrina joka** (7); **txistu joka** (10)

# jokabide *(1750 agerraldi, 152 liburu eta 535 artikulutan)* **1** *iz* jokatzeko edo aritzeko modua. ik **jokaera; jokamolde**.

-Jakin nahi nuke zer **jokabide** izango duen Mitchel alkateak. Lopez de Arana
Jaun bati dagokion **jokabidea**. Antton Olano
Ideologiatik zetorkion gehienbat sexu-askatasuna, eta **jokabide** hura oso zabaldua zegoen ezkerreko zenbait jenderen artean. Juan Kruz Igerabide
Bertutea **jokabideen** eta sentipenen gida da. Askoren artean
Bitxi gertatzen da halako **jokabide** bat, eremu guztietan gizon portatze hori. Xabier Mendiguren Elizegi
Luixaren **jokabide** hori, gezurrez jantzia, ez zitzaidan gustatu. Janbattitt Dirassar
Beste **jokabide** bat hartu behar izan dut. Xabier Olarra
Ziminoek maiz pertsonen antzeko **jokabidea** hartzen dute. Gotzon Garate
Nirekin izan duzun **jokabidea** nolakoa izan den. Jon Muñoz
Kasu guztietan, berbera da **jokabidea**. Jon Muñoz
Ez du bere **jokabidea** zuritzeko hitzik aurkitzen. Jose Morales
Amak ez zuen ontzat ematen senarraren **jokabidea**. Askoren artean
Haren **jokabidea** argia eta neurrizkoa izaten zen beti. Ander Irizar
Ertzaintzaren **jokabidea** gogorra eta neurri gabea izan zela onartu behar dut. Berria - Euskal Herria
Hala ere, Adelaren **jokabideak** nahastu egiten ninduen Aztertu dut neure **jokabidea,** eta neure pausoak zure xedapenetara nahi ditut bideratu. Juan Kruz Igerabide
Beren **jokabidean** ez zuten inolako araurik. Jose Morales
Oker aritu haiz, ordea; hire **jokabideak** heriotza ekarriko dik. Juan Kruz Igerabide
Horrelako **jokabideaz** Jauna haserrearazi zuten eta izurrite latza etorri zitzaien gainera. Elizen arteko biblia
Eskarmentu handia nuen halako **jokabideak** egonarriz eramaten. Mirentxu Larrañaga
Zerbait arraro nabari zen kartzelazainaren **jokabidean**. Fernando Rey
**Jokabidea** gidatzen duten emozio-indarren azpian dautzan sistema neurologikoak deszifratzeko. Xabier Olarra
Alterazio nabarmena izan zuten animaliek izaeran eta **jokabidean**. Xabier Olarra
Maneretan, **jokabidean,** eskuak mugitzeko eta hitz egiteko moduan. Fernando Rey
Zuek, berriz, **jokabidez** aldatu eta atsegin zaidan erabakia hartu duzue. Elizen arteko biblia
Gaueko argi artifizialak espezie ugariengan eragiten du, eta animalia askoren **jokabidea** aldatzen. Berria - Gaiak
Analogia bat egin makinaren **jokabidearen** eta subjektuen **jokabideen** artean. Askoren artean
**Jokabideei** buruzko protokoloak ezarri beharra dago lehen mailako sorospenean. Berria - Euskal Herria

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jokabide** jakin bat hartzen bada, hartatik ondore jakin bat segitzen dela. **Jokabide** okerra iruditzen zaidak orain. Antton Olano
Bere **jokabide** okerra leporatzen diotenean. Xabier Mendiguren Elizegi
Min egiten dizutenei gorroto diezu; **jokabide** ia automatikoa da gizakiaren psikean. Juan Kruz Igerabide
Koroa eder dira ile urdinak buruan, **jokabide** zuzenaren ondorio dira eta. Elizen arteko biblia
**Jokabide** zuzenekoak begirune dio Jainkoari, bide okerretik dabilenak mesprezatu egiten du **Jokabide** lesbikoak eta homosexualak. Elizen arteko biblia
Antzinadaniko **jokabide** bati jarraiki. Juan Garzia
Ostatuko etxekoandrearen ohizkanpoko **jokabide** haren zergatiak. Anjel Lertxundi
Müller jaunak zure atzoko **jokabidearen** berri eman dit. Anjel Lertxundi
Gogorra eta neketsua: beti hitz egokiak, erreakzio zuzenak, **jokabide** eredugarriak eskaintzen jardun behar hori. Anjel Lertxundi
Legez kanpoko **jokabideak** bultzatzen ditu. Markos Zapiain
HPEEko herrialdeen **jokabide** ezin aurreikusizkoaren ondorioz. Koro Navarro

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Europako enpresentzat **jokabide** kodeak garatzeko agindua. Iñaki Heras
**Jokabide** arauak ezartzen dituen esparru baten baitan. Iñaki Heras
Unibertsitatearen **jokabide**-araubideko 3.1 artikuluan oinarrituta. Oskar Arana
Bi **jokabide**-eskema desberdin. Juan Garzia
Haien zentzatze eta **jokabide** zuzenketarako izugarri mesedegarriak. Xabier Olarra
Ohitura edo **jokabide** mota bat txarto datorkigu. Markos Zapiain
· *Do ut des* **jokabidearen** logika pitzadurarik gabea da. Anjel Lertxundi

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zaila da giza **jokabideak** ulertzea. Juan Kruz Igerabide
Nire sexu-**jokabideaz** berebiziko zalantzak eragin zizkidan hark guztiak, juxtu Marisarekiko harremanaren azken hilabeteetan. Juan Kruz Igerabide
Ekonomian gizarte **jokabidearekin** erlazionaturiko aldagaiak aztertzen direnez [...]. Iñaki Heras
Idoiari ez nion erakutsi nahi nire espioi-**jokabidea,** harik eta zerbait sendoa aurkitu arte behintzat. Juan Kruz Igerabide
Ez dagoela arrisku talderik baizik eta arrisku **jokabideak**. Luis Elberdin
Haren ustez, guraso-**jokabide** txarraren eta bereziki "hozkailu-jiteko ama" baten ondorio zen sarritan autismoa. Xabier Olarra
Epai hori ez dator bat Kilpatrick-en kristau **jokabide** onberekin. Juan Garzia

## **5** aditz bat jokatzeko bidea. ik **jokaera 5**.

Hitzen eta adjektiboen deklinabidea, **aditzen jokabidea**. Ibon Uribarri
*Have* "ukan" aditzaren **jokabide** ereduz kanpokoa. Itziar Laka
Aditz forma hauen **jokabidea** guztiz ereduzkoa da Itziar Laka

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**jeroboamen jokabide** (4); **jeroboamen jokabide bera** (4); **jokabide bera** (15); **jokabide bera hartu** (4); **jokabide berbera** (4); **jokabide berriak** (4); **jokabide desegokiak** (4); **jokabide etikoa** (5); **jokabide gaiztoa** (8); **jokabide gaiztotik** (5); **jokabide jakin** (4); **jokabide kodeak** (8); **jokabide okerra** (7); **jokabide okerrak** (4); **jokabide sexual** (7); **jokabide sexualak** (4); **jokabide txarra** (4); **jokabide txarretik** (4); **jokabide zuhurra** (7); **jokabide zuzena** (9); **poliziaren jokabide** (4)

**agintarien jokabidea** (4); **antzeko jokabidea** (6); **biziera eta jokabidea** (5); **eajren jokabidea** (4); **ertzaintzaren jokabidea** (12); **espainiako gobernuaren jokabidea** (6); **giza jokabidea** (5); **gobernuaren jokabidea** (16); **gobernuaren jokabidea kritikatu** (4); **izandako jokabidea** (10); **jaunaren jokabidea** (5); **jokabidea aldatu** (5); **jokabidea eta egintzak** (4); **jokabidea gaitzetsi** (9); **jokabidea hartu** (7); **jokabidea izan** (13); **jokabidea izan zuen** (4); **jokabidea kritikatu** (20); **jokabidea salatu** (18); **jokabidea salatzeko** (5); **jokabidea ulertzeko** (5); **jokabidea zaintzen** (4); **jokabidea zuritzeko** (5); **jokabidea zuzena** (5); **justiziaren jokabidea** (4); **nafarroako gobernuaren jokabidea** (5); **ohiko jokabidea** (5)

**jokabidearen arabera epaituko** (4)

**jokabidez aldatu** (5)

**jokada** *iz* jokaldia.

Orain erne, kasu eman beste honen **jokadari,** ez diat berriz erori nahi amodioaren zepoan. Fernando Rey

---

# jokaera *(725 agerraldi, 104 liburu eta 283 artikulutan)* **1** *iz* jokatzeko edo aritzeko modua. ik **jokabide**.

Dama horrek egin zuen gauza bera egiteko irrikaz zeudenetako askok haren **jokaera** gaitzetsi zuten, neurririk gabeko lotsagabekeria iritzirik. Jose Morales

Inguruetako hiri greziarretan ere **jokaera** bera izan zezaten juduen kontra. Elizen arteko biblia

**Jokaera** hori gehiegizkoa iruditu zitzaion Wendyri. Julen Gabiria

Morala beti tematzen da bizidunen **jokaerak** gaitzesten. Luis Elberdin

Alexisek aitaren **jokaera** gaitzetsi zuen, haren berekoikeria deitoratu zuen. Felipe Juaristi

Gobernu taldearen **jokaera** salatu du Langileen Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Sozialistek ez dutela **jokaera** aldatuko. Berria - Euskal Herria

Gazteen izaera eta gurasoen **jokaera** aztertu ditu psikologoak Bilbon. Berria - Euskal Herria

Zertarako eta nola sortu zen bikotea osatzeko **jokaera** hori. Luis Elberdin

S-ren **jokaera** etsigarria iruditzen zait. Bernardo Atxaga

Ez zen hura polizi agente baten **jokaera**. Anton Garikano

Ez dut epaitzen haren **jokaera,** ez dakidalako epaitzen, ama bezala ikusten dut, besterik ez. ezin zaie egitura proteikoen desberdintasunei egotzi, luzaroan egin den bezala, espezieen arteko formen eta **jokaeren** desberdintasuna. Josu Zabaleta

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jokaera,** sentiera eta biziera alternatiboak. Iñaki Mendiguren

Haren **jokaera** gaiztoak honelako azkena izan zuen: [...]. Elizen arteko biblia

Kontuak eskatuko dizkizuet zeuen **jokaera** txarrarengatik. Elizen arteko biblia

Jainkoak mundura begiratu eta gaiztakeriaz betea ikusi zuen, bizidun guztiek **jokaera** makurra baitzeramaten. Jose Antonio Mujika

Timoteoren **jokaera** jatorra. Elizen arteko biblia

Nire errua zela sendagileak hain **jokaera** zakarra izan bazuen nirekin. Joseba Urteaga

PSOEko kide batzuen **jokaera** ustelagatik. Berria - Euskal Herria

Istripuen kopurua jaistea eta gidarien **jokaera** desegokiak saihestea. Berria - Euskal Herria

Zeure idolatria eta **jokaera** higuingarriaz. Elizen arteko biblia

**jokaera** superstizioso eta gaitzesgarri haiek. Askoren artean

**Jokaera** hiltzaileen eta portaera patologikoen arteko antzekotasunaz. Xabier Arregi

Zintzoak bere bideari eusten dio, **jokaera** garbikoa sendotu egiten da. Elizen arteko biblia

Talde baten edo klase baten **jokaera** politikoa. Xabier Arregi

**Jokaera** lesbikoak eta homosexualak. Luis Elberdin

Gizon-emakumeen **jokaera** sexuala. Xabier Arregi

Gizonen bortizkeria **jokaera** kontrolaezina balitz. Berria - Euskal Herria

**Jokaera** mundutar horrekin ematen diote hasiera biziera santuari. Askoren artean

Ikasle saiatuari, bere **jokaera** ereduzko eta bikainarengatik. Jose Morales

Hau etxeko **jokaera** zuen. Askoren artean

Gizonezkoen **jokaera** handiustea eta zapaltzailea baztertzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zelulen **jokaera** genetikoki programatuak determinatzen du zelulaz gaindiko antolaera. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mundu osoko hainbat medikuk **jokaera** kodea hitzartu zuten herenegun. Berria - Gaiak

PPren porrotak UPNn **«jokaera** aldaketa» ekarriko duela espero du Allik. Berria - Euskal Herria

Ekintza moralek, fisikoek bezala, bere **jokaera**-esparru mugatua dute. **Jokaera** eredu bat da... Juan Martin Elexpuru

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Martxoaren 29tik apirilaren 4era, 5906 elgoibartarrek karriketan duten hizkuntza **jokaera** neurtu dute. Herria

Interes handia zegoen ugalketara zuzentzen ez zen edozein sexu-**jokaera** itotzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Argi kutsadurak animalia askoren ugalketa funtzioei eta migrazio-**jokaerei** eragiten diela. Berria - Gaiak

Anfetamina hori animaliei injektatzen zaienean, eszitazioa eta euforia sortzen du haiengan, eta gorteiatze **jokaerak** asko gehitzen dira. harremanean jartzen ditu lanak erakundeekin, ohitura edo gizarte **jokaerekin,** teknikekin, premiekin eta jardute mutuekin. Luis Elberdin

Antzina hartako egitate eta giza-**jokaerak** berdintsu gertatzen direla gaur bertan ere Patziku Perurena

**5** aditz bat jokatzeko era. ik **jokabide 5**.

Aditzen **jokaerak,** sinonimoak, atzizkiak, hiztegia, dena pilatzen zaio bere estuasunaren anabasan. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aitaren jokaera** (3); **ertzaintzaren jokaera** (4); **gobernuaren jokaera** (7); **izandako jokaera** (8); **jokaera aldaketa** (3); **jokaera arduragabea** (4); **jokaera bera** (6); **jokaera bera izan** (4); **jokaera bitxia** (3); **jokaera gaitzetsi** (4); **jokaera izan** (6); **jokaera kritikatu** (7); **jokaera makurra** (4); **jokaera politikoa** (3); **jokaera salatu** (14); **jokaera sexuala** (3); **kanpoko jokaera** (5)
>
> **ertzaintzaren jokaeraren** (3); **jokaeraren arabera** (5); **jokaeraren ordaina** (4)
>
> **jokaerari buruz** (4); **jokaerari dagokionez** (3)
>
> **formen eta jokaeren** (3)

---

# jokagune *iz* zerbait jokatzen den gunea. ik **jokaleku**.

Doneztebe (Nafarroa) izango da berriro aizkora txapelketa baten **jokagune**. Berria - Kirola

---

# jokalari *(orobat **jokolari** g.er.)* **1** *iz* kirol joko jakin batean esku hartzen duen lagun bakoitza.

Eta River Plateko **jokalari** hura, Di Stefano bera aulkian utziko zuena. Alberto Barandiaren

Christophe Lamaison **jokalaria** on da aritzeko baina trebatzaile nagusiarekin ez du hitzik egiten. Herria

Zer egiten du entrenatzaile berri batek talde batera iritsi eta **jokalari** ia guztiak berriak direnean? Berria - Kirola

Mazas miarriztar **jokalariak** partidako azken minutuan. Ramuntxo Etxeberri

Saskibaloiko **jokalariak** imitatuz. Pedro Alberdi

BO errugbi taldetik hiru **jokolari** etorriak ziren ere beren sustenguaren ekartzerat Jackson Richardson frantses **jokolariaren** taldeak Ligako xapela nahi luke beretu aurten, eta bide onean da. Herria

Berehala hasi baitzen, xakeko **jokalaria** bailitzan, hurrengo mugimenduaren nondik norakoak oldozten. Pedro Alberdi

Zazpina **jokalari** izaten dira alde bakoitzean. Iñaki Mendiguren

-Bada beste **jokalari** bat alde bakoitzean, zaintzailea deitua. Iñaki Mendiguren

Harry oso **jokalari** ona zen quidditchean. Iñaki Mendiguren

Bost euskal **jokalari** ariko dira Atenasko Olinpiar Jokoetan. **Jokalariak** dira, entrenamenduetan, hamaikakoa osatzen dutenak. Berria - Kirola

Denboraldiz denboraldi badira euskal taldeek utzita ateratzen diren **jokalariak** . Berria - Kirola

Barkero da Realetik atera ez atera ibili den bigarren **jokalaria** . Berria - Kirola

Toshackek fitxatutako **jokalaria** . Berria - Kirola

Bigarren zati horretan ohiko **jokalariak** zelairatu ziren. Berria - Kirola

Angelutarrek bi gol sartu zituzten **jokalari** bat gehiago zirela baliatuta.

Lau **jokalariak** trenpu hoberenean. Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jai alai **jokalari** gihartsuaren prototipoa. Edorta Jimenez

-Boleibol **jokalaria** naiz, gazte talde nazionalekoa naiz. Jon Muñoz

-Vernonek esan dit golf-**jokalari** aparta zarela, Mason jauna... Terrazako mahaiak xake-**jokalari** anitzen ohiko biltokia zirela. Iñaki Mendiguren

Ping-pong **jokalari** aparta. Oskar Arana

Mireille Darc zine **jokolariak** . Herria

**3** antzezlea.

Sustrai horien bila, hiru ataletan banatu dute liburua: Eszenatokia, **Jokalariak** eta euren argudioak, eta Ezkutuko argudioa. Berria - Euskal Herria

Antolatzaileek, **jokalariek** eta ikusle gehienek ekaitzaldia laburra izango zelako itxaropena ukan bazuten ere, euri erantsia iraunkorra izango zela agerian geratu zen laster, eta ikusgarriari berriro ezin izanen zitzaiola ekin argi geratu zen. Berria - Kultura

Gertakari horietarik eta **jokolarien** jokoari esker sortzen da irria, irri nasaia. Herria

Bakoitzak berea egiten du eta filma guzian irri egiten da nasaiki, hain irri egingarriak diren **jokolarien** arteko harremanak. Herria

Kantari paregabea, **jokolari** fina, ez dakit zenbat filmatan ; Brassens bezala, gogoan daukagu. Herria

• **4** (izenondo gisa; irud)

Lehen euskarri bat izan daiteke bertze ezker abertzale politikoki **jokalariago** bat eratzeko bere asmoetan. Berria - Harian

• **5** *izond* diru jokoetara zaletua, dirua jokatzera emana dena.

**Jokalaria** zen, jokoa gustatzen zitzaion. Koldo Izagirre

Dimitri gizon garaia zen, indartsua, Inperioko Guardetako ofiziala, kirolari ona, larruzalea, **jokalaria,** parranderoa... J.M. Olaizola "Txiliku"

Poker mahaiak, **jokalari** zurrunez inguratuak, iragan ondoren, blackjack jokorako mahaien artean sartu zen. Iñaki Zabaleta

**Jokalari** bakoitzak fitxak jarri zituen mahaian. Iñaki Zabaleta

Karta-**jokalari** oso bitxia zara zu... Ander Irizar

Poker-**jokalari** trebe eta porrokatua. Ramon Saizarbitoria

Miranda eta bere ahizpa bridge-**jokalari** paregabeak ziren. Fernando Rey

Atlantic City-ra, non oholezko kaiak eta ibilbideak, pelikuletan hainbat aldiz ikusiak, atsedentoki diren **jokalari** berotuentzat. Iñaki Zabaleta

Polizi auto baten argi zaflada urdin eta gorriek iluntasuna ebakitzen zuten eta kasino **jokalari** merke haien buruetan sega modura igarotzen ziren. Iñaki Zabaleta

**6** ***jokalari-ohi*** jokalari izandakoa.

Mahai teniseko **jokalari ohia** . Berria - Kirola

Winston Guest -Wolfie- da, hots, polo **jokalari**-ohia, milioiduna eta hegaldi-enpresa baten jabea. Edorta Jimenez

Frantziako selekzioko **jokalari ohi** batek bere emaztea hil du. Berria - Kirola

Tau Baskoniako **jokalari ohiak** . Berria - Harian

Entrenatzaileen artean ohikoagoa da **jokalari ohiak** aurkitzea. Berria - Kirola

Inazio Kortabarria **jokalari ohiak** eta Javier Exposito entrenatzaile ohiak. Berria - Kultura

Aurtengo sagardo denboraldiaren lehen txotxa Periko Alonso Realeko **jokalari ohiak** eta bere seme Xabi eta Mikel Alonsok, Realeko jokalariek, egin zuten. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**alaveseko jokalari** (11); **athleticeko jokalari** (35); **athleticeko jokalari ohia** (8); **bartzelonako jokalari** (8); **basketeko jokalari** (8); **baskoniako jokalari** (24); **bezalako jokalari** (11); **bi jokalari gutxiagorekin** (11); **bidasoako jokalari** (10); **bigarren taldeko jokalari** (12); **etxeko jokalari** (11); **europako jokalari** (7); **euskal herriko jokalari** (7); **euskal jokalari** (10); **futbol jokalari** (19); **golf jokalari** (9); **harrobiko jokalari** (21); **hartuta dagoen jokalari** (7); **iazko jokalari** (7); **jokalari aipagarriak** (12); **jokalari aparta** (10); **jokalari argentinarrak** (8); **jokalari ari** (7); **jokalari ariko** (11); **jokalari ariko dira** (11); **jokalari aritu** (11); **jokalari aritu ziren** (7); **jokalari arriskutsuak** (8); **jokalari azkarra** (9); **jokalari bat gutxiagorekin** (41); **jokalari berri** (34); **jokalari berria** (10); **jokalari berriak** (29); **jokalari berrien** (9); **jokalari beteranoak** (8); **jokalari bezala** (19); **jokalari bikaina** (11); **jokalari bikainak** (24); **jokalari deitu** (12); **jokalari deitu ditu** (9); **jokalari dezente** (11); **jokalari erabakigarria** (9); **jokalari erabakigarriak** (9); **jokalari fitxatu** (20); **jokalari fitxatu ditu** (11); **jokalari galdu** (8); **jokalari garrantzitsu** (29); **jokalari garrantzitsua** (36); **jokalari garrantzitsuak** (34); **jokalari gazte** (26); **jokalari gaztea** (17); **jokalari gazteak** (64); **jokalari gazteei** (7); **jokalari gazteek** (10); **jokalari gazteen** (10); **jokalari gazteena** (8); **jokalari gutxi** (15); **jokalari gutxiagorekin** (14); **jokalari gutxik** (7); **jokalari handia** (9); **jokalari handiak** (16); **jokalari izan** (8); **jokalari izatea** (8); **jokalari moduan** (9); **jokalari multzoa** (8); **jokalari nafarrak** (11); **jokalari ohi** (37); **jokalari ohia** (76); **jokalari ohiak** (61); **jokalari ohiaren** (8); **jokalari on** (23); **jokalari on asko** (10); **jokalari ona** (37); **jokalari onak** (85); **jokalari onena** (75); **jokalari onena izan** (12); **jokalari onena izendatu** (9); **jokalari onenak** (39); **jokalari onenaren** (23); **jokalari onenaren saria** (16); **jokalari sorta** (20); **jokalari txuri** (9); **jokalari ugari** (7); **jokalari zelairatu** (8); **jokalari zuri** (24); **jokalari zuri gorriek** (7); **lau jokalari** (55); **lehen mailako jokalari** (7); **lehen taldeko jokalari** (10); **ligako jokalari** (15); **miarritzeko jokalari** (16); **miarritzeko jokalari ohia** (8); **munduko jokalari** (12); **ohiko jokalari** (7); **ordezko jokalari** (8); **oso jokalari ona** (9); **partidako jokalari** (10); **portlandeko jokalari** (21); **realeko jokalari** (36); **selekzioko jokalari** (15); **taldeko jokalari** (74); **tauko jokalari** (12); **tenis jokalari** (9); **urteko jokalari** (16); **xake jokalari** (14)

**jokolari hoberenetarik** (4); **jokolari onak** (8); **taldeko jokolari** (5)

**alaveseko jokalaria** (8); **athleticeko jokalaria** (37); **azken jokalaria** (9); **baskoniako jokalaria** (11); **eskarmentu handiko jokalaria** (7); **funtsezko jokalaria** (9); **futbol jokalaria** (8); **golf jokalaria** (7); **jokalaria fitxatu** (10); **jokalaria izan** (26); **jokalaria izan zen** (11); **jokalaria izango** (12); **jokalaria izatea** (7); **lehen mailako jokalaria** (9); **madrileko jokalaria** (9); **miarritzeko jokalaria** (27); **portlandeko jokalaria** (21); **realeko jokalaria** (34); **taldeko jokalaria** (11); **tau baskoniako jokalaria** (10)

**alaveseko jokalariak** (14); **athleticeko jokalariak** (28); **bartzelonako jokalariak** (7); **bidasoako jokalariak** (8); **bigarren taldeko jokalariak** (7); **eibarko jokalariak** (7); **eskarmentu handiko jokalariak** (7); **etxeko jokalariak** (11); **gainerako jokalariak** (7); **goi mailako jokalariak** (17); **harrobiko jokalariak** (13); **izen handiko jokalariak** (7); **jokalariak fitxatu** (13); **jokalariak fitxatzeko** (9); **jokalariak izan** (13); **jokalariak partida** (7); **jokalariak zelairatuko** (8); **kalitate handiko jokalariak** (16); **madrileko jokalariak** (10); **maila handiko jokalariak** (18); **mailako jokalariak** (23); **miarritzeko jokalariak** (11); **portlandeko jokalariak** (32); **realeko jokalariak** (27); **taldeetako jokalariak** (10); **taldeko jokalariak** (30); **urteko jokalariak** (8); **utzitako jokalariak** (9)

**eskatu die jokalariei** (7)

**aguirreren jokalariek** (7); **alaveseko jokalariek** (11); **athleticeko jokalariek** (31); **bartzelonako jokalariek** (7); **ekisoainen jokalariek** (9); **erdiko jokalariek** (7); **etxeko jokalariek** (9); **jokalariek egin** (11); **jokalariek eta entrenatzaileak** (8); **jokalariek eta zaleek** (9); **portlandeko jokalariek** (28); **realeko jokalariek** (13); **taldeko jokalariek** (21); **tauko jokalariek** (7); **txakartegiren jokalariek** (7); **zelai erdiko jokalariek** (7)

**jokalarien izenak** (9); **jokalarien jarrera** (10); **jokalarien kalitatea** (11); **jokalarien lana** (10); **jokalarien maila** (7); **jokalarien zerrenda** (13); **taldeko jokalarien** (12)

**jokalaririk aipagarrienak** (8); **jokalaririk erabakigarriena** (7); **jokalaririk onena** (26); **jokalaririk onenak** (14)

---

**jokaldi** **1** *iz* joko batean bereiz daitekeen egite bakoitza, hala nola jokalari baten txanda bakoitza, edo irabazten edo

galtzen den gertaldi bakoitza.

**Jokaldi** batek partida osoa goitik behera alda dezake. Ezinezkoa zaio jokalariari **jokaldi** horrek ekarriko duen ondorioa zenbaterainokoa izango den aurreikustea. Isabel Arrigain

Partida xisteraz jokatuko zen eta hamar **jokaldi** izango ziren. Koro Navarro

Partida hartako hamabigarren **jokaldian,** pieza beltzekin jokatzen zuen jokalari alemanak bere erregina mugitu zuen. Alberto Ladron Arana

Ordurako **jokaldi** bat martxan zegoen, eta emakume batek zenbakiak esaten zituen oholtzaren gainetik. Koro Navarro

Toulonek ez zuen kasik **jokaldirik** egin baionarren esparruan. Berria - Kirola

Hans zaharrak hogeita hamaika **jokaldi** egin eta izerdi asko bota behar izan zuen mate emateko. Alberto Ladron Arana

**Jokaldi** maltzur batek ordaina merezi du. Oskar Arana

Gertagarria (sei aurpegiko dado batekin egindako 6 milioi **jokalditan** gutxi gorabehera milioi bat aldiz batekoa agertzea) eta gertagaitza (sei **jokaldi** jarraitan, dado berberarekin, sei aldiz segidan batekoa agertzea) ez dira, berez, izatez, diferenteak; maiztasunean datza aldea, soilik. Joxe Austin Arrieta

Burtsan **jokaldi** bat egin nahi zuen aldiro galdea egiten zidan lehenago. Aingeru Epaltza

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

'Oso **jokaldi** ona', esan nion nire arerioari. Koro Navarro

Biba lau pilotariak eta holako **jokaldi** ederrak muntatzen eta muntatuko ere dizkigutenak. Herria

Bereak izan ziren **jokaldi** onenak, eta baita partidako gol ederrena ere. Berria - Kirola

Bigarren zatia hasi orduko, partidako **jokaldirik** dotoreena burutu zuten gorritxoek. Berria - Kirola

Britaniarrek **jokaldi** txukunagoak osatu zituzten, baina ezin golik sartu. Berria - Kirola

Seigarren minutuan **jokaldi** ikusgarria egin zuen ezker hegaletik. Berria - Kirola

Barthez atezainak **jokaldi** ikaragarria egin du, salbatu baitu aldi bat baino gehiago atxikitzen duen atea. Herria

Enekoren **jokaldi** antologiko batek eman zion garaipena Barçari. Joan Mari Irigoien

**Jokaldi** inozo samarrak intentsitatea irabazten zuen esatariaren ahotsean, baloiaren norabideak iritsi batera zeukana baino arrisku askoz ere handiagoa iradokitzen zuen esatariaren emozioak. Pako Aristi

Zorigaiztoko **jokaldia** izan da berdinketarena. Berria - Kirola

Partidetan, batzuetan, aurkariak ustekabeko **jokaldia** egiten du, eta, orduan, erabakiak di-da hartu behar dira. Alberto Ladron Arana

Teknikoki futbolaririk onena da, eta landutako **jokaldietan** oso fina. Berria - Kirola

Erasoko **jokaldia** bikain amaitu zuen Bobok. Berria - Kirola

Azken hiru partidetan lortutako bost golak geldikako **jokaldietan** sartu dituzte. Berria - Kirola

Bakarkako **jokaldien** menpe gaude askotan, Stojanovicen kalitatearen menpe. Berria - Kirola

Buruz buruko **jokaldietan** maisua da Ronaldo. Berria - Kirola

## **3** irud/hed

Mahai Nazional "zaharraren" askapena Mayor Orejaren **jokaldi** makiavelikoa zatekeen, HBko buruzagitza "berriaren" irekiera-prozesua oztopatu nahian. Iban Zaldua

Mutilak alde egingo zuen, eta handik egun batzuetara berriro errepikatuko zuen **jokaldi** bera, bere izentzat politikari ezagun edo zezenketariren baten izena emanez. Josu Zabaleta

Hasiera-hasierako **jokaldi** jainkotiar hari *big bang* deitzen diote ingelesek. Joan Mari Irigoien

Ate itxiari begira igaro diren hogei segundo inguru horiek arras luzesten dira, eta are gehiago harritzen da ikuslea, konturatzen denean [...] hori baino askoz denbora luzeagoa irudikatzen zuela denbora horrek, narrazioaren **jokaldi** batez. Josu Zabaleta

Errege izateko edo izateari uzteko orain Gorteen (nazioaren) onarpena galdatzea, **jokaldi** juridiko-politiko abil bat zen, liberal konstituziozaleei bezain egoki kontserbatzaileei zetorkiena. Joxe Azurmendi

Eta horixe da gure **jokaldia:** Euzkadi herrialde-tapoi bihurtzea. Alberto Ladron Arana

Atergabeko miragarri zaizkigu izadiaren **jokaldiak,** behin eta berriro elementu genetiko berak erabiltzen baititu oso organo desberdinak gauzatzeko. Juan Garzia

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskolako patioan izan zen, ordu erdiko futbol **jokaldiak** egiten genituen sasoian. Joseba Sarrionandia

Estrategia **jokaldietan,** adibidez, arazo eta zalantza asko sortu dizkigute. Berria - Kirola

Ez da gol **jokaldirik** egon. Berria - Kirola

Geldialdian, zaldiak aldatzen ari ziren bitartean, dado-**jokaldi** batean sartu zuen Mérék Pascal. Jon Muñoz

Eskiak eta eskumakilak mikado-**jokaldi** nahaspilatu batean trabeskatuak. Jon Muñoz

Ez al da maisu-**jokaldia**? Jon Alonso

Beste batzuentzat, aldiz, desagerketaren afera karismarik gabeko hautagai izatetik itzal handikoa izatera pasatzeko publizitate **jokaldi** bat besterik ez da izan Ribkinen jokabidea. Berria - Mundua

## **5** antzeztaldia.

Teatro **jokaldi** hura iraganik, prestakizunetan hasi ginen berriz. Jon Muñoz

Tolosa aldeko 4 jokolarik oren bat eterdiz irri eginaraziko dute, beren gisako pailazo eta antzerkitxo **jokaldiekin**. Herria

## **6** jokatzea; jokatzen den aldi bakoitza.

Ezpata-jokoa zen, biren arteko **jokaldia**. Hiru pilotari badituzte Xilerat joaiteko hautatuak, pilotari gazteen **jokaldietarat**. Herria

## **7** ***jokaldi makur***

Azalpen bakarra dago: norbaiti bururatu zitzaion zure autoari **jokaldi** makurren bat egitea. Oskar Arana

Ez zuen okerra aurkitzen, baina **jokaldi makurren** bat egin zuelako sentipena ez zen desagertzen. Jose Morales

Lortuko ez bagenu, Kataluniari **jokaldi makurra** jokatzeaz gain, PPrentzat garaipena izango litzateke. Berria - Mundua

Eta asmatu zenuen, horixe asmatu zenuela, **jokaldi makurra** akatsik gabe atera baitzitzaizun. Migel Angel Mintegi

Ez du gogorik egin ziguten **jokaldi makur** higuingarriaren berri emateko. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egindako jokaldi** (5); **eginiko jokaldi** (4); **eraso jokaldi** (4); **geldikako jokaldi** (10); **geldikako jokaldi batean** (5); **jokaldi arriskutsu** (6); **jokaldi azkarrak** (3); **jokaldi bakar** (5); **jokaldi bakar bat** (3); **jokaldi berean** (5); **jokaldi bikaina** (4); **jokaldi ederra** (4); **jokaldi egin** (6); **jokaldi egin zituen** (3); **jokaldi lotu** (4); **jokaldi lotu bat** (4); **jokaldi makur** (3); **jokaldi makurra** (3); **jokaldi on** (7); **jokaldi ona** (3); **jokaldi onak** (6); **jokaldi pare** (3); **jokaldi politak** (6); **jokaldi taktikoetan** (3); **zoritxarreko jokaldi** (3)

**baldintzatu zuen jokaldia** (3); **egin zuen jokaldia** (4); **egin zuten jokaldia** (6); **golaren jokaldia** (3); **jokaldia baliatuta** (6); **jokaldia egin** (10); **jokaldia egin zuen** (3); **jokaldia egiten** (9)

**buruz buruko jokaldiak** (3); **erasoko jokaldiak** (5); **estrategia jokaldiak** (9); **geldikako jokaldiak** (3); **jokaldiak amaitzen** (8); **jokaldiak antolatzen** (3); **jokaldiak egiten** (3); **jokaldiak eta puntuak** (16); **lehen jokaldiak** (3); **partidako jokaldiak** (5); **puntuak eta jokaldiak** (7)

**azken jokaldian** (6); **eginiko jokaldian** (3); **hasitako jokaldian** (3); **hurrengo jokaldian** (12); **lehen jokaldian** (6)

**eginiko jokaldiari** (3); **jokaldiari amaiera emanda** (4)

**banakako jokaldietan** (3); **buruz buruko jokaldietan** (4); **estrategia jokaldietan** (5); **geldikako jokaldietan** (36)

**jokaldirik onenak** (5)

## **jokalege** *iz* jokatzeko era.

Inoiz testigutza baten sinesgarritasuna gutxitu egingo da, agian, berau elkarte pribatu bateko kide batena denean, elkartearen ohiturak eta **jokalegeak** gutxi ezagunak edo ageriko besteen ezberdinak direnean. Juan Martin Elexpuru

Lizunkeria kontuetan ez dizut sekula huts egingo; orain horixe da nire jainko bakarra, nire **jokalege** bakarra, nire ekintza guztien oinarri bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## **jokaleku** 1 *iz* jokatzeko lekua.

Egia da Veszpremena oso **jokaleku** zaila dela. Berria - Kirola

Orain, nafarren alde dago **jokalekua,** Iruñean ariko baita Portland. Berria - Kirola

Donostia izango da trontzalarien **jokalekua** . Berria - Kirola

Nasako harmaila hartu genuen **jokaleku,** harmaila gaztelutzat hartu eta gazteluaren setioan, defentsan eta erasoan. Joseba Sarrionandia

Denbora librea da libertatearen beste **jokaleku** nagusietako bat xoriño hega-baldarrentzat, eta hor libertatea hutsaren pare bilakatzen da. Iñaki Segurola

Idealak ematen dizun adorea daukazu alde, baina komisarian zaude; beraz, bere **jokalekuan** . Rafa Egiguren

**2** antzezlekua.

Adinekoen Etxea eta Udalbatzarraren aretoa dira ikusgarrien **jokaleku** izango. Berria - Kultura

**Jokalekua:** Manor Houseko egongela. Antton Olano

**3** irud/hed

Gerraren **jokalekua** bisitatzeko asmoz. Inondik ere ez nekien hura [lokatza] gure ardura nagusi, gure bizitzen **jokaleku** bihurtuko zenik. Urtzi Urrutikoetxea

Mila eta zortziehun urte geroago Erdi Aroko Mendebaldeko Kristandadeak paper nagusia izango zuen obra, Mediterraneoko **jokaleku** berean antzeztu ziren; eta bi antzezpenetan hiru aktore izan ziren oholtzan. Iñaki Mendiguren

**4** (politikan)

Venezuela **jokaleku** politikoan agertzeak etapa berri bat ireki du Kuban. Ohiko ereduak berriz aztertzera behartu gaitu garai iraultzaile honek, eta horrek **jokaleku** berriak ekarri ditu. Berria - Mundua

Sebas Andreuk deitoratu zuen **«jokaleku** gatazkatsua» irudikatu duela patronalak. Berria - Ekonomia

Bakean eta demokrazian oinarritutako **jokaleku** bat bultzatzeko lanean. Berria - Ekonomia

Bake prozesuaren eta **jokaleku** aldaketaren inguruan azterketa komunak egitea. Berria - Euskal Herria

Enpresaburuek adostasuna ezinbesteko baldintzatzat dute **jokaleku** aldaketarako. Berria - Ekonomia

Auzi politikoak **jokaleku** politikora ekarri behar dira. Berria - Harian

Orain arte sekula ere ez ziren komunak horren funtsezko eztabaida ideologikorako **jokaleku** gertatu. Joxan Elosegi

25 bat adituk osatutako talde dinamizatzailea sortuko du Elkarri-k; Etorkizuneko **Jokalekuen** inguruko Ikerketa Mintegia izena eman dion taldea, alegia. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bake jokaleku** (5); **beste jokaleku bat** (3); **beste jokaleku batean** (3); **beste jokaleku politiko** (5); **egungo jokaleku** (4); **egungo jokaleku politikoan** (3); **jokaleku bat lortzeko** (3); **jokaleku berri** (17); **jokaleku berri bat** (6); **jokaleku berri baterako** (3); **jokaleku berria** (3); **jokaleku berriak** (5); **jokaleku demokratiko** (4); **jokaleku demokratikoa** (4); **jokaleku politiko** (13); **jokaleku politikoa** (4); **jokaleku politikoan** (11)
>
> **gerraren jokalekuan** (3)

---

## **jokamen** *iz*

Lasaitu zen bada, eta bere bideari jarraitu zion; ez zuen beste biderik hartzen, zaldiak berak hartu nahi zuenez beste; hartantxe zegoela uste baitzuen arrisku-bilaketaren **jokamena** . Patxi Ezkiaga

---

## **jokamodu** *(4 agerraldi, 4 liburutan)* *iz* jokamoldea.

Ero baten **jokamodua** . Hasier Etxeberria

Erne ordea, bere **jokamoduari:** luzaroan arranoaren hegalpean babestuz, iristen baitu atzenean, bere erregetza. Patziku Perurena

Isilik geratzea, giza **jokamodu** legitimo eta oso logikoa da. Joseba Sarrionandia

---

## **jokamolde** *(303 agerraldi, 71 liburu eta 91 artikulutan)* **1** *iz* jokatzeko moldea. ik **jokabide**.

Nik ez baitut inoren akatsak besterik gabe zabaltzen ibiltzeko ohiturarik, ez da nire **jokamoldea** . Migel Angel Mintegi

Belarriak ez du zehazki harpak bezala jokatzen; belarriaren **jokamoldea** areago da *viola d'amore* batena. Irene Aldasoro

Hauxe izan zen haren **jokamoldearen** araua: haurra alai eta pozik handitzen ikustea. Karlos Zabala

Bere **jokamolde** hura argitzearren. Patxi Zubizarreta

**Jokamolde** horiek ezin dira ontzat hartu, baina bai ulertu. Koldo Biguri

Fidakorra zen, izatez, bihotz onekoa, besteen **jokamoldea** zuritzeko aitzakia bila ibiltzen diren gutxi horietarikoa zen. Patxi Zubizarreta

Haren **jokamoldea** ez zuen ulertzen. Elena Touyarou

Gizon emakoien eta emazteki gizakoien **jokamoldea** gaitzesten zuela. Joan Mari Irigoien

Salomonek zin egin zion txori askoren **jokamoldeak** irakatsiko zizkiola. Julen Gabiria

Harrapari eta harrapakinaren arteko **jokamoldeen** eboluzioa, unean uneko faktoreen arabera aldatzen da sarri. Berria - Gaiak

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Jokamolde** harro eta oldarkorra erakusten zuen. Patxi Zubizarreta

Aitona Nikolasen **jokamolde** gero eta koldarragoa eta uzkurragoa. Joan Mari Irigoien

Whittaker andrearen adeitasunezko **jokamolde** jasanbera hura. Mirentxu Larrañaga

Euskal konfederazioak salatu du SNCF-aren **jokamolde** hetsia euskarari buruz. Herria

Eskertuta nengoen Walden doktorearekin bere **jokamolde** duinagatik. Koro Navarro

Horiek ez dira, nolanahi ere, gure gizonaren ohiko **jokamoldeak** . Aingeru Epaltza

Itxurazkoa zela Afifi andereak ezkontzaren aurrean erakutsitako mesprezuzko **jokamoldea** . Patxi Zubizarreta

Legez kanpoko **jokamolde** higuingarri horrentzat. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Hori **jokamolde**-berdintasunaren obligazioaren kontrakoa zen. Koro Navarro

Nehongo arautegian idatzia ez zen **jokamolde** araudi bat hautsi zuen: harreman sexualak ukan zituen,ezkondu gabe, eta bekatuaren froga sabelean zeraman. Elena Touyarou

Joaquin Almunia Ekonomia komisarioak **jokamolde** kode bat proposatuko du eta eskumen handiagoak emango dizkio Eurostati estatu bakoitzeko estatistikak egiaztatzeko. Berria - Ekonomia

· Euromerkatuek 1973 ondoren zuten likidotasun izugarriak halabeharrezko eragina izan zuen merkatu horietan esku hartzen zutenen finantza-**jokamoldeetan**. Koro Navarro

Elikatze-**jokamoldeen** desegituratze honen eraginez. Edorta Agirre

**4** pilotan jokatzeko moldea.

Goizean ikastola guziak nahastekaturik kiñeletan arizan dira lau **jokamoldeetan** entseatuz: eskuz, xarez, xisteraz eta palaz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **frantziaren jokamoldea** (3); **prefetaren jokamoldea** (3)

---

## **jokarazi**, jokaraz, jokarazten *(orobat **joka arazi**)* du *ad* jokatzera behartu.

Jokalari batzuei atseden pittin bat ere emateko asmoa du, partidan minutu gutxiago **jokarazita**. Berria - Kirola

Hau eta beste ondokoa, Federazioak **joka-araziak** izan dira Armendaritze Elhinan, ez haatik berezkoen lehiaketa hartan bezenbat ikuslerekin. Herria

---

## **jokari**[1] *iz* jokalaria.

Bihar arratsaldean beren ametsa beteko dute Athleticeko **jokariek:** Europako txapelketa bat jokatzea. Berria - Kirola

Sevillak ere **jokari** onak fitxatu ditu. Berria - Kirola

---

## **jokari**[2] *iz* adarka ari dena.

Hots, lehen ere bazituzten bestek orotarik, **jokariak,** zauritzeak eta gehiagorik oraino. Herria

Aspaldiko ohidura hori ere, ez baitzen besta onik **jokari** eta kolpaturik gabe. Herria

---

## **jokatoki** *iz* jokalekua (laugarren adieran).

Behatokiak alorraren bilakaerari buruzko nondik norakoak emango ditu, etorkizunari aurrea hartuz, nazioarteko **jokatokietan** dugun rola sendotu ahal izan dezagun Berria - Euskal Herria

---

## **jokatu**, joka, jokatzen **1** du *ad* joko jakin batean aritu; jokoan jardun.

Inor ez arkupeetan, inor ez pilotan **jokatzen** elizako horma nagusiaren aurka. Bernardo Atxaga

Behin berarekin poloan **jokatu** huen. Edorta Jimenez

Baina nik futbolean **jokatu** nahi nuen oraindik. Joan Mari Irigoien

Kartetan **jokatu,** irakurri eta horrelako gauzak. Lopez de Arana

Esaten diot ez nagoela sasoian, ez dudala urteetan **jokatu,** baina ez du ezetzik onartuko. Oskar Arana

Nik hamar urtez **jokatu** diat Burtsan, hamar urtez. Lopez de Arana

Kasinoan **jokatu** baino hobe zenuke loteriako zenbaki bat hartuko bazenu eta telebista ikusten egon. Iñaki Zabaleta

Olgeta-areto flotagarri bat edo horrelako zerbait zen, txanpon-makinetan **jokatu,** pantaila erraldoian telebista ikusi edo dantzan ibiltzeko. Bernardo Atxaga

**Jokatu** beharrik ere ez daukak, nahikoa duk apustu egitea. Anton Garikano

· da *ad* Ezezkoaren alde **jokatu** direnak aldiz loriatuak dira, beren arabera bertzelako bide bat idekitzen zaiolako Europari. Herria

Gobernuak erakutsi du alabainan gaitzeko larderia eta **jokatu** da lege-nagusiak daukan 49-garren artikuluaren ildotik. Herria

**2** (jokatzen dena adierazten dela; partida bat)

Kanpora joaten zarenean, ligako, UEFAko edo Eurokopako partidak **jokatzera**, [...]. Joan Mari Irigoien

Aurreko abenduan, ohi bezala, Euskal Herriko selekzioarekin **jokatu** nuen urteroko partida. Joan Mari Irigoien

**Jokatu** berria zen orduantxe […] Cassius Clay eta Sonny Listonen arteko boxeo konbatea. Bernardo Atxaga

Hirugarreneko txandan **jokatu** behar zuen Joseluk bere lehenengo borroka. Josu Landa

Asteasuko plazan **jokatu** zen harri apustu bat datorkit gogora. Bernardo Atxaga

Tolosako Beotibarren **jokatu** genuen finalerdietariko lehena. Andoni Egaña

Xake-partida bat **jokatu** behar genuen. Fernando Morillo

Hiru-lau partida **jokatu** nituen josteta-makinan. Fernando Rey

Goiz hartan hiru partida **jokatu** nituen Bavariako terrazan. Alberto Ladron Arana

Baigorrin, Eki lehiaketaren finalak ere **jokatu** dira. Herria

· Olaizola II-Goñi III: 3 **jokatu,** 3 irabazi. Herria

Igandean **jokatu** dira Euskal Herriko xapelgoko finalak, gomazko paletan, Armendaritzeko trinketean. Herria

**3** (dirua)

Mugartegi izango da pilotaria, eta Arozamena bere alde dirua **jokatu** eta galdu egin duena. Andoni Egaña

-Marka jartzera eta dirua **jokatzera** joatea oso diferentea da, Luisa. Pako Aristi

Irakurri dudanez, Alacanten horrelako borroka batean 100 milioi **jokatu** omen ziren. Gotzon Garate

Prostituzio horietatik ateratako dirua loterian **jokatu** nuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Diru asko **jokatu** zen, bi aldeetatik. Koro Navarro

**4** (bestelakoak)

Buruz burukoa gazteluko patioan **jokatu** genuen, armagizonak eta zerbitzariak lekuko zirela. Aingeru Epaltza

Aian jaio zen bertsolari hau, 1780an, aspaldi beraz, eta behin desafioa **jokatu** omen zuen beste bertsolari batekin, ez dakigu norekin. Pako Aristi

Beste zenbait joko **jokatu** ondoren karta-emaileak kide bati deitu zion txanda egin ziezaion. Iñaki Zabaleta

Azkeneko jokoa **jokatu** zen arte geratu ziren. Koro Navarro

Jokoa sinplismoaren eta ergelkeriaren joko-zelai lokaztuan **jokatuko** baita ia beti. Berria - Mundua

Hollywooden ikasi dudan gauza bat da hau joko bat dela, garbi **jokatu** ezin dena. Fernando Rey

Joko-txirringan aritu ninduan: bi ukendu-pote, gitarra bat eta portzelanazko katilu bat irabazi nitian hasieran; gero, dena **jokatu** eta ezer gabe geratu ninduan. Jose Morales

Afari bat **jokatu** dute, San Frantziskon, Adelak baietz Danekin oheratzea lortu. Patxi Zubizarreta

Aita saldu nahi izan zuen behin, edo, are okerrago, kartetan **jokatu** nahi izan zuen. Jose Morales

Beste garagardo bana **jokatu** genuen billarrean eta neska kontuekin hasi ginen algara batean. Anjel Lertxundi

-Randu jaunak bihotza **jokatu** du, batekoa bota behar duzu. Monika Etxebarria

Jolasorduetan ohorea izaten zen jokoan, baina Ligan zerbait gehiago **jokatzen** da. Berria - Kirola

## **5** aipatzen den moduan aritu edo jardun.

Esandako lur hori aurkitzen ez den lekuetan, berriz, honela **jokatu** beharko da: armazoi edo kutxa bikoitzak egingo dira egurrak elkarrekin ondo lotuz kateekin, eta aurrez aukeratutako lekuan jarriko dira. Santiago Iruretagoiena

Antzera **jokatu** zuen *El País*-ek berak ere. Iñigo Aranbarri

Badira sexu-grina hutsez **jokatzen** dutenak ere... Aingeru Epaltza

Ahul dagoenak, aldiz, bere burua arriskuan ikusten baitu, zeken **jokatu** ohi du jeneralean. Joxerra Garzia

Sukaldea hornitzen ere ez zuen xuhur **jokatu** nahi izan. Aingeru Epaltza

Lajos Vilmarekin ezkondu zenean, Lacik alai zirudien, eta goxo eta eskuzabal **jokatu** zuen. Ander Irizar

Administratzaile guztiek bezala **jokatu** zuen: herrixkako nekazaririk aberatsenen laguna egin zen, zergak igo zizkien pobreenei. Jose Morales

Iraultzaren aurrean ere, epel **jokatu** zuela leporatu ohi zaio Portalis honi. Andres Urrutia

Batere zuhurtasunik gabe **jokatu** zuelako. Jose Morales

Egon erne, iraun sendo sinesmenean, **joka** gizonki eta izan indartsu. Elizen arteko biblia

Bihotz-gogor **jokatu** beharra daukat, gertaturikoak justizia eskatzen du eta. Jose Morales

Neure bizitzan ez baitut inoiz hain garbi **jokatu**! Joan Mari Irigoien

Neure burua babestearren **jokatu** dut horrela, nik uste, Hobie. Mirentxu Larrañaga

Denok zakiagu nola **jokatu** duen beti, putakumeetan putakumeena. Aingeru Epaltza

Gramatikalki **jokatzen** duten morfemak. Itziar Laka

Badu nun josta! kasu eginez beharko du **jokatu**. Herria

## **6** (norbaitekin)

Ez, Anne, bidegabe **jokatu** duzu gurekin. Josu Zabaleta

"Ez, ez diat oso zuzen **jokatu** emaztearekin", pentsatu du. Jokin Muñoz

Ea, bada, zintzo **jokatu** enekin. Juan Garzia

Ulisesen zerbitzariekin oso gogor **jokatu** duk beti, batik bat nirekin. Juan Kruz Igerabide

Leial **jokatu** nahi bainuen zurekin. Joan Mari Irigoien

· da *ad* Polizia gizonak dira omen sobera bortizki **jokatu** manifestatzaleekin Herria

## • **7** (da aditz gisa)

Nagusiak irakatsi zuhurtasun eta determinazioaz **jokatzen** zen Txoko. Itxaro Borda

Hobe zuten erraitea nola **jokatu** diren biltzarrean, dena konplimendu. Herria

Gogorki **jokatu** dira epaileak, hala nola gogorki **jokatu** ziren Emmanueli-ren kontra. Herria

Argi eta garbi dago gehiengo osoa ukanez gero lege Biltzarrean, diktadore gisa **jokatu** dela Aznar. Herria

## **8** (norbaiti) larrua jo.

-Lila... haugi Ttotte, **joka** nezak... Itxaro Borda

Zurekin **jokatzea** maite dut. Itxaro Borda

Diru-trukean **jokatuko** zituen gizonak hautatzeko eskubidearen erdiesteko. Itxaro Borda

## **9** norbaiti bere kalterako zerbait egin.

Lortuko ez bagenu, Kataluniari jokaldi makurra **jokatzeaz** gain, PPrentzat garaipena izango litzateke. Berria - Mundua

## **10** zezenez mintzatuz, zirikatu eta datorrenean, haren erasoa antzez saihestu.

Plaza zezenak **jokatzeko** erabiltzen zela ez zegoen dudarik. Iñaki Iñurrieta

Berehalaxe kendu zirela hondakinak, zezenketa **jokatzeko**. Askoren artean

## **11** aditz baten adizkiak hurrenez hurren esan edo idatzi.

Ez nituen albora utzi hizkuntza unibertsalak; aztertu nituen esperantoaren nondik-norakoak eta volapük-arenak, zeinak hizkuntz ahalbide guztiak ikertu nahi dituen, aditzak deklinatuz eta sustantiboak **jokatuz**. Juan Garzia

"Aurten bisustu al digu?; heldu den urtean bisustuko du; bisusten duen urtean, erne!" eta gisakoak aditz modura **jokatuak** maiz aditu izanik [...]. Patziku Perurena

## **12** antzeztu.

Bunin-en pieza bat **jokatu** behar dute arratsaldeko bostetan: *The dark alley*. Argi bete-betea, galderak hemendik, barretxoak handik, antzerkia **jokatu** eta disimulatu beharra. Edorta Jimenez

Zuetako zein antzezlek **jokatu** behar du Madama Pazena? ba, begira: hau da Madama Paz! Josu Zabaleta

## **13** *-ena* ***jokatu***

Ama guztiz amultsuarena **jokatzera** uztea. Aingeru Epaltza

## **14** ***lepoa jokatu*** bizia jokatu.

-Arduratuko ote litzateke zuetako inor negozio zail batez, **lepoa jokatu** behar bada ere? Koro Navarro

**Lepoa jokatuko** nikek hik eta nik ezagutzen ditugun gazte guztietatik bat bakarrak ere ez duela nahi aitarekin Saint James' Street-en paseatzen ikus dezaten. Antton Olano

**-Lepoa jokatuko** nuke berak hil zuela Ana -aitortu zien Amaiak besteei. Aitor Arana

**Lepoa jokatzen** dinat, film komertzialak baizik ez zaizkiola gustatzen. Eneko Bidegain

Zurezko gure estalpean, tapakien azpian eta txirbilez beteriko lastairen gainean; alegia, sute bat eragiteko arriskua harturik gure gain, eta, ikuspuntu pragmatikoago batetik, **lepoa jokatuz**: ezen urka-zigorra ezartzen baitzitzaion, besteak beste, estalpe barruan pospolo bat pizten zuen orori. **Lepoa jokatuko** zukeen Mirarik ere ez zekiela non zebilen. Juan Garzia

## **15** *–en* ***papera jokatu***

Frantziak bere **papera jokatu** du. Josu Zabaleta

Alegia deusez, dena zaintzen zuten, baina bezero normalen **papera jokatu** zuten. Ramuntxo Etxeberri

· Bernd-ek ostalari **papera jokatu** du Minna von Barnhelm obran. Josu Zabaleta

Animalien erabidean geneek **jokatzen** duten **papera**. Juan Garzia

Eta zer **paper jokatu** zenuen, bada? Juan Garzia

Williams, antzerki- **paperen** bat **jokatu** behar nukeela ari da adierazten, noski, komikoa bada, hobe. Joxe Austin Arrieta

Bizitzaren metaforak **paper** garrantzitsua **jokatu** du mitologia nahiz erlijio nagusietan. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

adi adi jokatu (8); adi jokatu (10); alde jokatu (36); aldiz jokatu (56); aldiz jokatu du (16); anoetan jokatu (10); antzera jokatu (27); apenas jokatu (8); apustua jokatu (13); arduraz jokatu (9); arratsaldean jokatu (8); asteazkenean jokatu (8); asteburuan jokatu (21); aurka jokatu (357); aurretik jokatu (9); ausardiaz jokatu (8); ausart jokatu (18); azken jardunaldia jokatu (11); azken partida jokatu (22); baionan jokatu (9); bartzelonaren aurka jokatu (9); batekin jokatu (9); baten aurka jokatu (8); batera jokatu (23); beotibarren jokatu (9); berriro jokatu (12); berriz jokatu (9); bertan jokatu (13); bikain jokatu (21); bikaina jokatu (11) bizi jokatu (11); bost partida jokatu (19); denboraldi honetan jokatu (10); derbia jokatu (20); dezente jokatu (9); donostian jokatu (12); ean jokatu (14); ederki jokatu (15); eibarren jokatu (12); elkarrekin jokatu (23); elkarren aurka jokatu (46); elkarren kontra jokatu (19); erantzukizunez jokatu (13); eroso jokatu (15); errespetuz jokatu (13); eskas jokatu (8); eskura jokatu (9); eskuzabal jokatu (13); etapa jokatu (14); etxean jokatu (47); etxetik kanpo jokatu (26); europan jokatu (12); ezingo dute jokatu (10); final jokatu (28); final jokatu ditu (11); final laurdenak jokatu (9); finala jokatu (145); finala jokatu zuen (34); finalak jokatu (16); finalerdia jokatu (19); finalerdiak jokatu (16); finalik jokatu (8); futbolean jokatu (9); gaizki jokatu (91); garbi jokatu (15); gasteizen jokatu (8); gauean jokatu (10); gogor jokatu (26); gutxi jokatu (50); gutxi jokatu du (8); han jokatu (9); hasieratik jokatu (43); hilabete jokatu (10); hiru partida jokatu (42); hirugarren jardunaldia jokatu (9); hobeto jokatu (43); igandean jokatu (44); iruñ jardunaldi jokatu (27); jardunaldi jokatu dira (10); jardunaldia jokatu (79); jardunaldia jokatu zuten (42); jator jokatu (8); jokalarirekin jokatu (9)

jokatu da partida (21); jokatu den partida (17); jokatu eta galdu (16); jokatu eta irabazi (23); jokatu zen partida (8); jokatu zuen partida (16); jokatu zuen partidan (8); jokatu zuten partida (12); jokatu zuten partidan (10)

kanpoan jokatu (13); kanporaketa jokatu (54); kanporaketa jokatu zuten (8); kanporaketak jokatu (22); kontra jokatu (207); kontra jokatu zuen (32); kopa jokatu (34); kopa jokatu zuen (10); kopako finala jokatu (16); kopan jokatu (9); larunbatean jokatu (23); lasai jokatu (16); lau partida jokatu (32); lehen aldiz jokatu (13); lehen jardunaldia jokatu (16); lehen mailan jokatu (12); lehen partida jokatu (43); lehia jokatu (15); leial jokatu (18); liga jokatu (20); ligan jokatu (28); ligaxka jokatu (9); luzapena jokatu (13); madrilen aurka jokatu (20); malgutasunez jokatu (8); minutu jokatu (31); minutu jokatu zituen (12); minutuak jokatu (12); munduko kopa jokatu (11); neurketa jokatu (22); norgehiagoka jokatu (14); oker jokatu (36); ondo jokatu (122); ongi jokatu (61); oso gaizki jokatu (17); oso gutxi jokatu (11); oso ondo jokatu (20); papera jokatu (12); parisen jokatu (8); partida asko jokatu (15); partida bakarra jokatu (11); partida bat jokatu (38); partida bikaina jokatu (8); partida gehiago jokatu (10); partida gehien jokatu (17); partida gogorra jokatu (9); partida ikusgarria jokatu (8); partida jokatu (625); partida jokatu ditu (165); partida kaskarra jokatu (12); partida ona jokatu (28); partida osoa jokatu (16); partida txukuna jokatu (8); partidak jokatu (59); partidarik jokatu (43); pilotalekuan jokatu (17); proba jokatu (17); racingen aurka jokatu (8); rola jokatu (18); sadarren jokatu (21); saio jokatu (19); saioa jokatu (25); san mamesen jokatu (18); sei partida jokatu (19); selekzioarekin jokatu (13); serio jokatu (17); taldean jokatu (25); taldearekin jokatu (8); tentuz jokatu (13); tolosan jokatu (8); trinketean jokatu (12); txapeldunen liga jokatu (16); txapelketa jokatu (43); txapelketak jokatu (8); txarto jokatu (14); urte jokatu (17); urtean jokatu (12); urtez jokatu (8); utzikeriaz jokatu (8); zazpi partida jokatu (24); zelaian jokatu (13); zentzuz jokatu (12); zintzo jokatu (43); zorrotz jokatu (12); zortzi partida jokatu (15); zuhur jokatu (60); zuhurtziaz jokatu (23); zuzen jokatu (47)

; alde jokatuko (10); aldiz jokatuko (46); aldiz jokatuko du (15); anoetan jokatuko (15); antzokian jokatuko (9); apustua jokatuko (11); arratsaldean jokatuko (21); arratsaldez jokatuko (10); asteburu honetan jokatuko (10); asteburuan jokatuko (23); astelehenean jokatuko (14); aurka jokatuko (577); azken jardunaldia jokatuko (9); azken partida jokatuko (23); bandera jokatuko (9); bartzelonan jokatuko (8); bartzelonaren aurka jokatuko (8); berriro jokatuko (14); berriz jokatuko (11); bertan jokatuko (17); bi kanporaketa jokatuko (13); bi partida jokatuko (41); bi saio jokatuko (11); bigarren finalerdia jokatuko (8); bigarren jardunaldia jokatuko (20); bigarren partida jokatuko (27); bihar jokatuko (150); bilbon jokatuko (8); derbia jokatuko (51); derbia jokatuko dute (42); donostian jokatuko (19); ean jokatuko (19); eibarren jokatuko (10); ekitaldia jokatuko (9); elkarren aurka jokatuko (58); elkarren kontra jokatuko (15); erlojupekoa jokatuko (10); estadioan jokatuko (12); estropada jokatuko (18); etapa jokatuko (27); etxean jokatuko (96); etxean jokatuko du (25); etxetik kanpo jokatuko (20); etzi jokatuko (46); euro jokatuko (9); euskal derbia jokatuko (9); ezkurraren aurka jokatuko (8); final laurdenak jokatuko (18); finala jokatuko (204); finala jokatuko dute (69); finala non jokatuko (9); finalak jokatuko (25); finalak jokatuko dira (21); finalerdia jokatuko (44); finalerdia jokatuko da (9); finalerdia jokatuko dute (19); finalerdiak jokatuko (42); finalerdiak jokatuko dituzte (19); frontoian jokatuko (17); gasteizen jokatuko (15); gauean jokatuko (12); gaur arratsaldean jokatuko (14); gaur jokatuko (248); geroago jokatuko (8); goizean jokatuko (8); hasieratik jokatuko (33); hiru partida jokatuko (27); hirugarren partida jokatuko (11); igandean jokatuko (83); igoera jokatuko (11); igoera jokatuko da (8); iruñ itzuliko partida jokatuko (10); jardunaldi jokatuko (15); jardunaldi jokatuko dituzte (9); jardunaldia jokatuko (79); jardunaldiko partida jokatuko (14); jardunaldiko partidak jokatuko (10); joaneko partida jokatuko (15); jokatuko da asteburuan (14); jokatuko da aurten (13); jokatuko da bihar (44); jokatuko da finala (23); jokatuko da gaur (131); jokatuko da igandean (9); jokatuko da partida (15); jokatuko den finalean (9); jokatuko den finalerako (9); jokatuko dira asteburuan (8); jokatuko dira bihar (14); jokatuko dira finalerdiak (8); jokatuko dira gaur (76); jokatuko dira partidak (11); jokatuko dituzte gaur (24); jokatuko du athleticek (16); jokatuko du etzi (8); jokatuko du gaur (122); jokatuko du larunbatean (8); jokatuko duen partida (13); jokatuko duen partidan (15); jokatuko dute finala (33); jokatuko dute gaur (174); jokatuko dute larunbatean (8); jokatuko duten partida (16); jokatuko duten partidan (10); kanporaketa jokatuko (75); kanporaketa jokatuko dira (33); kanporaketak jokatuko (15); kanporaketak jokatuko dira (8); kiroldegian jokatuko (11); kontra jokatuko (148); kopa jokatuko (32); kopako finala jokatuko (19); labriten jokatuko (11); larunbatean jokatuko (70); lasterketa jokatuko (12); lau kanporaketa jokatuko (8); lau partida jokatuko (13); lehen aldiz jokatuko (32); lehen finala jokatuko (12); lehen jardunaldia jokatuko (10); lehen partida jokatuko (28); lehia jokatuko (8); lepoa jokatuko (9); liga jokatuko (8); ligaxka jokatuko (26); madrilen aurka jokatuko (10); madrilen jokatuko (8); moskun jokatuko (11); munduko txapelketa jokatuko (10); neurketa jokatuko (18); norgehiagoka jokatuko (13); ostiralean jokatuko (12); partida bat jokatuko (24); partida erabakigarria jokatuko (13); partida jokatuko (360); partida jokatuko da (14); partida jokatuko dira (44); partida jokatuko ditu (37); partida jokatuko dituzte (27); partida jokatuko du (96); partida jokatuko dute (114); partidak jokatuko (67); pilotalekuan jokatuko (32); proba jokatuko (48); saio jokatuko (12); saio jokatuko dira (9); saioa jokatuko (34); saioa jokatuko da (15); saioa jokatuko dute (18); san mamesen jokatuko (19); sari nagusia jokatuko (11); taldean jokatuko (21); taldearen aurka jokatuko (13); taldeek jokatuko (10); taldeen aurka jokatuko (8); tolosan jokatuko (9); torneoa jokatuko (13); torneoko finala jokatuko (14); txapelketa jokatuko (71); txapelketak jokatuko (18); txapelketako finala jokatuko (23); valentziaren aurka jokatuko (8); zelaian jokatuko (24)

elkarren aurka jokaturiko (9); etxean jokaturiko (9); jokaturiko partida (17); jokaturiko partidan (28); pilotalekuan jokaturiko (14)

gaizki jokatuta (9); jardunaldi jokatuta (8); jardunaldia jokatuta (14); partida jokatuta (10); probak jokatuta (9)

aurka jokatutako (32); etxean jokatutako (15); etxetik kanpo jokatutako (8); galarretan jokatutako (13); jokatutako bi partidak (8); jokatutako hiru partidak (9); jokatutako minutuak (9); jokatutako partida (72); jokatutako partida guztiak (9); jokatutako partida nagusia (17); jokatutako partidak (22); jokatutako partidan (42); jokatutako partiden (9); jokatutako partidetan (13); kontra jokatutako (32); kontra jokatutako partida (9); kontra jokatutako partidan (10); sadarren jokatutako (10)

alde jokatzea (14); alderdikeriaz jokatzea (14); anoetan jokatzea (9); arduragabekeriaz jokatzea (9); arduraz jokatzea (10); aurka jokatzea (59); donostian jokatzea (10); etxean jokatzea (35); europan jokatzea (14); ez jokatzea erabaki (21); finala jokatzea (10); futbolean jokatzea (8); hasieratik jokatzea (13); jokatzea erabaki (79); jokatzea eskatu (10); jokatzea eskatzen (10); jokatzea espero (20); jokatzea gustatzen (10); jokatzea leporatu (29); kontra jokatzea (32); kopa jokatzea (10); lehen mailan jokatzea (9); liga jokatzea (9); ondo jokatzea (19); ongi jokatzea (8); partida bat jokatzea (10); partida jokatzea (24); partidak jokatzea (14); txapeldunen liga jokatzea (9); zuhur jokatzea (12)

aurka jokatzeak (10); etxean jokatzeak (11)

jokatzeari uko egin (11); jokatzeari utzi (16)

; (8); alde jokatzeko (14); arduraz jokatzeko (30); aurka jokatzeko (103); aurrean jokatzeko (8); ausardiaz jokatzeko (8); erantzukizunez jokatzeko (14); etxean jokatzeko (13); europako lehiaketak jokatzeko (8); europan jokatzeko (30); fasea jokatzeko (9); final laurdenak jokatzeko (13); finala jokatzeko (59); finala jokatzeko txartela (8); finalerdiak jokatzeko (11); futbolean jokatzeko (24); hasieratik jokatzeko (33); hegalean jokatzeko (8); herri gisa jokatzeko (10); igandean jokatzeko (18); jokatzeko arazorik (18); jokatzeko asmoa (20); jokatzeko aukera (273); jokatzeko aukera eman (20); jokatzeko aukera ematen (28); jokatzeko aukera gehiago (9); jokatzeko aukera izan (38); jokatzeko aukera izango (39); jokatzeko aukerak (11); jokatzeko aukerarik (37); jokatzeko baimena (10); jokatzeko deia (17); jokatzeko deia egin (12); jokatzeko eskatu (92); jokatzeko eskatzen (15); jokatzeko eskubidea (15); jokatzeko gai (42); jokatzeko gai dela (9); jokatzeko gaitasuna (18); jokatzeko garaia (15); jokatzeko gauza (9); jokatzeko gogo (10); jokatzeko gogoa (8); jokatzeko gogoz (14); jokatzeko irrikan (28); jokatzeko itxaropena (12); jokatzeko modu (12); jokatzeko modua (47); jokatzeko moduan (350); jokatzeko moduan da (18); jokatzeko moduan dago (16); jokatzeko moduan egongo (41); jokatzeko moduan izango (56); jokatzeko ohitura (8); jokatzeko prest (126); jokatzeko sailkatu (20); jokatzeko txartela (69); kanporaketa jokatzeko (10); kanporaketak jokatzeko (16); kontra jokatzeko (41); kontraerasoan jokatzeko (8); kopa jokatzeko (28); lauko finala jokatzeko (8); lehen mailan jokatzeko (14); lehen partida jokatzeko (10); lehiaketak jokatzeko (9); liga jokatzeko (29); ligan jokatzeko (11); minutuak jokatzeko (12); partida bat jokatzeko (16); partida jokatzeko (58); partidak jokatzeko (9); taldean jokatzeko (10); titulurako kanporaketak jokatzeko (10); txapeldunen liga jokatzeko (26); txapelketa jokatzeko (23); uefa jokatzeko (20); zentzuz jokatzeko (15); zuhur jokatzeko (20)

aginpidez jokatzen (8); alde jokatzen (23); antzera jokatzen (25); asko jokatzen (44); aurka jokatzen (55); behar bezala jokatzen (10); bikain jokatzen (9); buruz jokatzen (9); elkarrekin jokatzen (11); elkarren aurka jokatzen (13); eroso jokatzen (10); etxean jokatzen (83); etxetik kanpo jokatzen (9); europan jokatzen (12); euskal herrian jokatzen (9); finala jokatzen (10); futbolean jokatzen (23); gaizki jokatzen (15); gustura jokatzen (10); gutxi jokatzen (18); hasieratik jokatzen (11); hobeto jokatzen (16); jokatzen asmatu (8); jokatzen duen papera (8); jokatzen hasi (91); jokatzen ikasi (10); jokatzen ikusi (19); jokatzen jakin (12); jokatzen jarraitu (25); jokatzen jarraituko (12); jokatzen jarraitzeko (22); jokatzen jarraitzen (10); jokatzen ohituta (8); jokatzen saiatu (14); jokatzen saiatuko (10); jokatzen saiatzen (8); jokatzen utzi (23); jokatzen uzten (12); kanpoan jokatzen (12); kontra jokatzen (37); kontraerasoan jokatzen (8); kopa jokatzen (16); lasai jokatzen (14); ligan jokatzen (14); ondo jokatzen (72); ongi jokatzen (29); oso ondo jokatzen (15); papera jokatzen (15); partida jokatzen (28); partidak jokatzen (23); pilotan jokatzen (9); postuan jokatzen (8); rola jokatzen (17); taldean jokatzen (36); taldean jokatzen du (13); txapelketa jokatzen (18); xakean jokatzen (9); zein aginpidez jokatzen (8); zintzo jokatzen (18); zuhur jokatzen (9); zuzen jokatzen (27)

jokatzera behartu (12); jokatzera etorri (8); jokatzera ohituta (12); partida jokatzera (10); partidak jokatzera (8)

---

# jokatzaile 1 *iz* dirua jokatzen duen pertsona.

Berdintzen zirelarik bi pilotari andanak, nola baitziren sos **jokatzaileak,** oihu egiten zuen xaxariak jendea beroarazteko jokatzeari buruz: [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Lehenik, airez aire gaina hartu dute irabazleek, 29-13 eta orduan nork irriskatuko zuen galtzaleen alde? Alta merezitu dute **jokatzaileen** konfiantxa eta 42 etan berdindu ere. Herria

**2** antzezlea.

Hola-hola erakutsi nahi du naski Pier-Pol musikari-kantari-pastoral idazle eta **jokatzaileak,** Eppherre eta holako lagunekin, bere gisako trajedia hura ere. Herria

---

# jokatze 1 *iz* aipatzen den moduan aritzea.

Legez kanpo **jokatze** eta egitate makurrez gain, ‘auzibide paraleloak’ salatu dituzue abokatuok. Berria - Mundua

Erreakzioz **jokatze** hori aspaldiko joera nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

“Arima espainolaren” arabera **jokatze** hori. Joxe Azurmendi

Hegazkin hauek pairatu ditzaketen egoera larrienetan ere, pilotuaren **oker** jokatze bat edo sute bat, kasu, tripulazioak beti badu abisu bat eman denbora. Berria - Mundua

Bakan batzuen gaizki **jokatze** hauek. Berria - Mundua

**2** joko jakin batean jardutea.

Agian pilota eta **jokatze** gosearengatik izango zen, oraindik eta are motibazio handiagoarekin irteten nintzelako kantxara. Berria - Kirola

**3** antzeztea.

Zer **jokatze,** gero! Ez gara haurrak! Hemen seriotan antzezten da. Josu Zabaleta

---

# jokatzeke *adlag* jokatu gabe.

Igandeko partidan bonba abisu baten ondorioz **jokatzeke** gelditu ziren minutuak. Berria - Kirola

Bigarren itzulia **jokatzeke** zegoelako. Berria - Kirola

Vladimir Lujanek ere, ziatikak jota, azken partida **jokatzeke** utzi behar izan du. Berria - Kirola

---

# joker *iz* joko kartetan, jokalariari komeni zaion balioa hartzen duen karta.

-Eeee... **"joker"** bat har dezaket? Pako Aristi

Eta kartak aipatu ditudanez, hiztegira jo dut gaztelerazko *comodín* hitza nola erran behar den jakiteko: *komodina* Hegoaldean eta ***jokerra*** Iparraldean. Hasier Etxeberria

---

# jokera *iz* musika tresna bat jotzeko era.

Bizia eta erritmo handikoa da Elgetaren **jokera**. Koldo Izagirre

Rufinok, joten ez ezik, **jokera** bat, estilo bat transmitidu eustan. Xabier Amuriza

Roberto Etxebarriak haren **jokerea** "raziala" zala dino. Xabier Amuriza

Bizkaiko **jokerea,** ondo esplikaten ez dakit, baina kasta handiagokoa da, gelditze bruskoak daukaz, indartsuagoa da. Xabier Amuriza

---

# joko **1** *iz* atsegin hartzeko ariketa arautua, batek edo batzuek irabazten eta besta batek edo batzuek galtzen duena. ik **jolas**; **josteta.**

Futbolean dihardu gure semeak, eskolako taldean, lagun-arteko giro sanoan, jolasa **joko** eta jokoa jolas. Joxerra Garzia

"Jai alai" **jokoak** ez zuen behin ere pilotalekua arras bete. Ramuntxo Etxeberri

Ardurenean pilota zen **joko** nagusia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Danik esan didanez, ba omen dun **joko berri** bat, eta oso ongi omen dago, ezta? Antton Olano

*ik beherago* 15. Askoren artean

Nahasi egin zen **jokoa** zelai erdian eta Bartzelonak atera zuen etekin gehien egoera horretatik. Berria - Kirola

*ik beherago* 21. Askoren artean

Hainbeste **joko** erakusten zigun kartekin, ze txundituta uzten gintuen. Pello Lizarralde

Badut uste amerikar ordezkari batek eskatu digula bakoitzari gure **jokoko** kartak ager ditzagun azkenean. Piarres Xarriton

*ik beherago* 17. Askoren artean

Aspertu samar zegoen **joko** horrekin. Karlos Zabala

**Jokoan** galtzaile atera dadin. Xabier Olarra

Morfeo eta Llumek **joko** bat asmatu dutela, *Mutila* esaten dioten tipo baten aurkako putakeriak asmatzean datzan **joko** bat. Antton Olano

**Jokoa** gal ala irabaz daitekeen. Askoren artean

**Joko** bat proposatuko dizut, **joko** bat **Jokoaren** barruan: salbatu nahi duzu? Antton Olano

Gerran **joko** garbirik ez. Edorta Jimenez

**2** (dirua jokatzen dena)

**Jokoa debekatzen** da. Askoren artean

Victoriok bazuen joko-etxe sastar bat Olivar kalean, debekatutako **jokoetara** jokatzen zena, eta taberna bat Leon kalean. Josu Zabaleta

Beste zenbait **joko** jokatu ondoren karta-emaileak kide bati deitu zion txanda egin ziezaion. Iñaki Zabaleta

Beste zenbait **joko** jokatu ondoren karta-emaileak kide bati deitu zion txanda egin ziezaion. Iñaki Zabaleta

Baina **joko** horretan ez zegok bankarik; zoriak ez dik inolako eraginik izaten eta ez zegok engainurik egiteko modurik: ondo jokatzea, hori duk kontua. Jose Morales

Hau da, proban, **jokoan,** apustuan ari dena, sosik gabe gelditiko da. Iñaki Arranz

**Jokoa,** droga, mafia: egoera sozial ustel baten osagaiak. Ramuntxo Etxeberri

Negozioak, kontrabandoa, maite-kontuak, **jokoa..**. Koro Navarro

Makaoko administrazioaren aurrekontuen %60ak **jokoaren** industriatik datoz. Ramuntxo Etxeberri

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Joko** mahaien inguruan dozenaka metatzen ziren, jarririk edo xutik. Ramuntxo Etxeberri

Ez ditugu piezak ezagutzen, ez **joko**-taula, ez araudia. Fernando Morillo

**Joko**-taula prest zagok, eta piezak mugitzen hasita. Agustin Otsoa

Orduan *Hogar Vasco* delakoak bazuen frontoia [...] bazituen **joko**-gelak eta bazituen dantzalekuak ere. Edorta Jimenez

Imajina ezazue, bada, horrelako zabaldi bat, **joko**-makinaz beteta. Joxerra Garzia

**Joko**-oilarrak hazi eta heztea. Edorta Jimenez

Sartu zen hango ostatura eta berehala egin zituen **joko**-lagunak. Felipe Juaristi

**Joko** grina zuen eta jokalari gehienak bezala, zorretan zebilen. Gotzon Garate

Munduko ekonomiako **joko** arauak jartzen dituztenei. Iñaki Heras

Hi haiz **joko**-arauak aldatu dituena. Antton Olano

**Joko** kantak berak ere, kontu seriogoetarako balio izan zuen beste baserri batzuetan. Pello Zabala

**Joko**-kartak eskuetan. Edorta Jimenez

**Joko**-kartetako xotak. Patxi Ezkiaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

-Bai jauna, diru-**jokoa** da hori -esan zuen tabernariak. Lopez de Arana

1999an gazteen kirol **jokoak** ospatu ziren Maracayn. Pako Aristi

Hor bost pilota **joko** mota dira praktikatu behar, bata bestearen ondotik kontrario berarekin buruan buru. berdinketan trabaturiko xake-**joko** odoltsu eta azkengabe baina hala ere urrun bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

"Poxpolo-**jokoan** egingo al dugu?", botako du beste batek. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskuak dado **jokoan** trebatzen ziren bitartean. Iñaki Zabaleta

Delako "rol-**joko** bat" izan zitekeela esan zuten batzuek. Gotzon Garate

Zaldiko-maldikoekin, tiro-**jokoekin** eta intxaur, almendra eta mazpil pilekin batera. Josu Zabaleta

Hiriko zaldunak beren zaldietan plazan lasterka eta arma-**jokoak** egiten hasi ziren. Askoren artean

Eta gainera hamaika bideo-**joko** du bere gelako ordenagailuan. Patxi Iturritegi

Beraz hau da, honetarakoxe zen ezkutuko boxeo-**joko** guztia. Oskar Arana

Stanleyk lagun arteko poker **joko** bat proposatu zuen. Oskar Arana

Badaude horrelako mahai-**jokoak**. Iñaki Arranz

Kiñonesko Sueroko atean izandako zaldun-**jokoak**. Patxi Ezkiaga

Puxtarrien antzeko azti-**joko** bat. Iñaki Mendiguren

Ez da ilusionismoa ez esku-**jokoa** ere, baina haien mugan dabil. Juan Garzia

Don Kijotek gaztelutzat zeukan bentan jasandako min ikaragarriak ere kontatzen zaizkigu, eta Santxok pairatu behar izan zuen manta-**jokoa**. Patxi Ezkiaga

## **5** jokoarekin halako antza duen ariketa.

Artikuluxka bat zen, sedukzioaz hitz egiten zuena: **joko** bat zela, eta ez dakit zer gehiago. Xabier Mendiguren Elizegi

**Jokoa** sinplismoaren eta ergelkeriaren joko-zelai lokaztuan jokatuko baita ia beti. Berria - Mundua

Artetik hurbilago-edo dauden ikusmenezko formen arteko **joko** librean oinarritua. Josu Zabaleta

Bizi-gauzekin jostatzen asmatu ezinak edo hartarako gogorik ezak daitekeen jolas edo **joko** ergelenera duela osotara bulkatzen. Iñaki Segurola

[Hitzek] erabiltzen nautela ni eta menderatzen, berak direla beren eskuko eta aise moldatzen direla beren **joko,** jolas eta solasetan nere edo beste nornahiren ahoz mintzatzeko. Iñaki Segurola

Batzuak besteez maitemintzen, **joko** intelektualak asmatzen. Juan Garzia

Batzuak besteez maitemintzen, **joko** intelektualak asmatzen. Juan Garzia

Hizkuntza, […] zarata merke-salduenetatik eta autoritatezko argumentu orotarik ihesi dabilen jolas bat da, **joko** eder bat dakarren jolas bat. Iñaki Segurola

**-Joko** zikinean ari zara. Iñaki Zabaleta

Norbait ezkutukerian edo **joko** gaiztoan ari delako. Juan Kruz Igerabide

## **6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina indar **joko** eta sokatira izan dela, egundainotik, politika, ez dugu ahantzi behar. Piarres Xarriton

Hitzen esanahia haien erabilera dela azpimarratu baitzuen Wittgensteinek mintzaira-**jokoen** garrantzia azpimarratutakoan. Askoren artean

Tonu-**joko** askotarikoak islatzen saiatu da itzultzailea. Juan Garzia

Hortxe agertzen da lehenago aipatu dugun sedukzio-**jokoa**. Julen Gabiria

Zer porrota bere nortasunarentzat bere maite-**joko** horiek kontatzen baziren. Josu Zabaleta

Gaur maitasun-**joko** bat egingo dugu. Antton Olano

Sexu **jokoetan** gauzarik txarrena inor nahi ez duen zerbaitera behartzea duk. Aitor Arana

Ez zekiten zer jukutria eta isil-**joko** ustel erabiltzen ariko ziren, aldi berean, Ximurra, Kristina eta gainerako taldekideak, beren axolagabekeria alaitik hain metro gutira. Aingeru Epaltza

Perspektiba-**joko** baten bidez, paperontzia buruan ezarrita baleuka bezala ageri da. Oskar Arana

Azterketa **joko** horretan duda-mudatan ibiliko gara, zalantza gidari dugula, erantzun unibertsalei muzin eginez. Iñaki Heras

Estrategia eratzeko darabiltzan arau-**joko** guztiak. Xabier Arregi

Zer korrelazio eta menderatze-**joko** dagoen euren artean. Xabier Arregi

Horrela enuntziazio-**joko** batean integratzen da. Xabier Arregi

Babilonia ez baita halabehar-**joko** infinitu bat baizik. Juan Garzia

## **7** aditz bat jokatzea.

Morfologia, hitzen kategoria desberdinez (aditz, izen, adjektibo, izenordain eta abarrez) arduratzen da, baita flexioaren era desberdinez (aditz **joko** eta deklinabideaz) ere. Isabel Arrigain

· 5 orrian aditz-**jokoetatik** datozen hitzak pilatu ditut: *esana, izana, joana, emana, edana...* Andoni Egaña

## **8** sorta.

Zenbait astez behin, senarrak, Berl Chazkeles-ek, plater **joko** berri bat erosi behar izaten zuen. Koro Navarro

Bola-**joko** bateko birlak gordetzeko erabiltzen zuen kartoizko kaxaren barruan aurkitu zuen pistola. Aritz Gorrotxategi

Espetxe barrutik sotora ailegatzeko, ate bat zeharkatu beharra zegoen, eta behin, giltza-**joko** bat sartzeko abisua jaso genuen kanpoan. Rafa Egiguren

Barometroa, berak asmaturiko mikrobarometroa (sentikorra demasean), termometro **joko** bat eta merkurio-aneroideak... Pello Zabala

## **9** zerbitzua.

Hamar peniketako te **joko** batek egun osotarako egiten zuen Cam zoriontsu. Anton Garikano

## **9a** ***ahari joko*** aharien arteko borroka, apustu egiteko jokatzen dena.

Zenbat denbora da, bada, **ahari jokoa** egiten zela igande arratsaldeetan? Pako Aristi

## **10** ***bakar joko***

Kartak eskatzen zituen, eta **bakar-jokoan** aritzen zen. Joan Mari Irigoien

Burutik pasatu zitzaion [...] **bakar jokoan** aritzea, baina ez zuen gehiegi asebetetzen hark berekin zekartzan endredo guztiak, hala nola, kartak atera eta joko-mahaia gertatu beharrak. Mirentxu Larrañaga

**Bakar-jokoren** batean jokatzea pentsatzen du, baina nekatuegia dago. Antton Olano

## **11** ***belaun/hanka joko***

**Belaun-joko** bizian urrundu ginen pendizean gora. Koldo Izagirre

Baserrira lasterka doa, zaldikoei **hanka-jokoa** eraginez, suak hartutako etxeari laguntzera ziztuan bezala. Xabier Amuriza

Anastasiok jangelako atea ireki eta **hanka jokoari** eman zion, bertatik lasterka ateratzeko. Aitor Arana

Batzuen batzuek aurretik etxean nahikoa hezita zeuzkatela uste bazuten, burrukan bertan sumindu egiten zitzaizkien, zaurien, oihuen, **hanka-jokoaren,** izuaren, kalapitaren ondorioz. Xabier Amuriza

Gazte bat hurreratu, *gallego!* deitu eta bata bestearen atzetik **hanka jokoan** desagertzen kalean behera. Iñigo Aranbarri

## **12** ***esku joko***

Ez da ilusionismoa ez **esku-jokoa** ere, baina haien mugan dabil. Nola prestidigitadoreak, karta-multzo batean zazpiko pika aukeratu, eta, **esku-jokoa** egin ondoren, bada, hala zure karta erakutsi, eta "zazpiko pika!" garrasi egiten dizunean bezala. beste Hamabost animazio talde, musikan, antzerkian edo **esku jokoetan** ibiliko direnak egunez eta gauez publikoaren erdian. Juan Garzia

Koliseo zinegelan, Fred Teppe eta Matthieu Tassy, harrigarriko **esku-joko** batzuetan. Herria

Borreroak **esku-jokoekin** goxatzen dizkio azken uneak kondenatuari, honek mesedea eskatu gabe ere. Karlos Linazasoro

Asmakizun hartako panpinak bere **esku-jokoz** erabiltzeko. Patxi Ezkiaga

## 13 *hitz joko*

Batzuetan bai, bestetan ez zaizkit gustatzen bere ironiak, bere **hitz joko** zinikoak. Joseba Sarrionandia

Oso zabala da **hitz jokoen** mundua. Askoz errazago gordeko du oroimenak metafora bizi bat, **hitz-joko** harrigarri bat, antitesi-egitura deigarri bat edo plastizidade handiko hiperbole bat duen mintzabidea, eduki berekoa izanagatik inolako ezaugarri poetikorik ez duena baino. Iñaki Arranz

Ezin **itzulizko hitz** -jokoa. Jose Morales

Askotan mezu horiek **hitz jokoak** izaten dituzte, eta guk, **hitz jokoa** eta esanahia errespetatu nahian, indartsuak eta erakargarriak diren mezu berriak asmatu behar izaten ditugu. Berria - Harian

Errima bat lortzeko edo **hitz joko** bat egiteko. Koldo Zuazo

Hemen beste bide batetik egin da **hitz jokoa**. Xabier Olarra

Zelanok **hitz-jokoa** egiten du *ultio* (mendekua) eta *unctio* (gantzuketa, igurtzia) hitzen artean. Askoren artean

**Hitz jokoa:** "another and better world" = zerua/ "another and bitter world" = infernua. Xabier Olarra

**Hitz-joko** zale, ai sortu banintz. Xabier Olarra

## 14 *joko areto*

Irteteko esan zidan, eta gizonezkoak edozein **joko-aretotan** bezala jokoan ari ziren areto batera sarrarazi ninduen. **Joko-aretoa** gurutzatu ondoren atzeko ate ezkutua ireki eta edariaren eta emakume lizunen besoetan murgiltzen ziren. Josu Zabaleta

Zinema eta **joko aretoen** gunea ixtea erabaki zuten. Berria - Euskal Herria

Ekintza filmetarako zinemak, bideo- **joko aretoak,** teatro erakargarri baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat jostaketa-bide. Iñaki Zabaleta

## 15 *joko berri* pilota joko mota bat.

**Joko berria** oso erakargarria da, trinketea eta ezker pareta bat eginda. Berria - Kirola

**Joko-berri** horrek beste itxura bat emaiten dio segur ezkerparetari, trinketarekin uztartze on bat eginez. Herria

EPLPren asmoa trinketean eta **joko berrian** aritzea da. Berria - Kirola

Lehen aldikotz, Ezkia ikastolak antolatzen zuen **Joko Berriko** lehiaketa bat. Herria

## 16 *joko etxe*

Las Vegasko **joko-etxe** horietako batean. Joxe Austin Arrieta

Victoriok bazuen **joko-etxe** sastar bat Olivar kalean, debekatutako jokoetara jokatzen zena, eta taberna bat Leon kalean. Josu Zabaleta

Nazka ematen zieten probintzietako ikasleek ikasturte bat bai eta hurrengoa ere berdin, billarrean edo dominoan jolasten galtzen zituzten **joko-etxe** merke haiek. Josu Zabaleta

Beraiek zuzentzen dituzte Bonbaiko eskualdean urre salerosketak, drogak, prostituzioa, **joko-etxeak,** hilketak eta apostuak Gotzon Garate

## 16a *joko-garbi* *iz* pilota joko mota, errebotearen antzekoa, frontisaren kontra txisterarekin jokatzen dena.

Neguan trinketa -guretako hura zen ederrena-, eta udan **jokogarbia**. Menane Oxandabaratz

Igande 31an ziren gazteen egunak uztailaren 31an bereziki **jokogarbian** eta xixtera haundian. Herria

Aratsaldean **jokogarbian** Kadet-gazteak eta junior-gazteak. Herria

Astearte 9an Nabarrengosen gazte-kadeten finala, **jokogarbi** junior eta **jokogarbi** senior (2.) aratsaldean. Herria

## 17 *joko karta* jokoko karta.

**Joko-kartetako** xotak. Patxi Ezkiaga

**Joko-kartak** eskuetan. Edorta Jimenez

Beren kasa nahasten ziren **joko-kartak** hankapean zapaldu zituen nahi gabe Iñaki Mendiguren

## 18 *joko-lagun* ik **jokokide.**

Mus-mahaira eserita zeudenetako bat -obispoaren **joko-laguna,** hain zuzen-, aulkia atzera bota, zutitu, eta, eskuak behera ahurrak gure aldera jarrita, hasi zen kexuka: […]. Inazio Mujika Iraola

Agi denez, ezustean harrapatu nahi du Arrietak irakurlea, muslariak **joko lagunekin** egiten saiatzen diren bezala. Berria - Kultura

Behin-behineko **joko lagunak**. Berria - Kultura

Sartu zen hango ostatura eta berehala egin zituen **joko-lagunak**. Felipe Juaristi

## 19 *Joko Olinpiko* ik **olinpiko 3.**

## 20 *joko-txirringa*

**Joko** -txirringan aritu ninduan: bi ukendu-pote, gitarra bat eta portzelanazko katilu bat irabazi nitian hasieran. Jose Morales

## 21 *joko zelai*

Hor, **joko-zelaian,** zeure taldeko kideekin bakarrik... oso arriskutsua da, Potter... Iñaki Mendiguren

Carlosek **joko-zelaia** libre utzi nahi die. Edorta Jimenez

Eraiki behar dudala aspaldidanik buruan dudan lokaltxoa, badakik, igerileku, lorategi, **joko-zelai,** antzokia eta beste guztia edukiko dituena. Koldo Biguri

Ezinezkoa zen egun hartan lainoen gainean jolasean aritzea, eta *indoor* modalitatean jardutea erabaki zuten, **joko-zelaia** sala barrura murriztuta. Harkaitz Cano

Nabarmena da urtetan ETAren solaskide politiko nagusia izan omen dena **joko zelaitik** kanporatzeko erabakia hartu dutela Espainiako eta Frantziako estatuek. Berria - Euskal Herria

**Joko zelaia** lohitzen ariko dira batzuk, eta bakea lortzeko lanean beste batzuk, datozen asteotan. Berria - Euskal Herria

Jokoa sinplismoaren eta ergelkeriaren **joko-zelai** lokaztuan jokatuko baita ia beti. Berria - Mundua

## 22 *jokoan egon* ik beherago **22.**

Hiritar baten askatasuna eta ondasunak **jokoan daudenean**. Juan Martin Elexpuru

Zure bizitza **dago jokoan**. Luis Elberdin

Diru asko **zegoen jokoan**. Fernando Morillo

Inola ere ukatu ezin diren printzipioak **zauden jokoan**. Antton Olano

Uste baitugu gure planetaren geroa **dagoela** hor **jokoan**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nazio-ekonomien osaera zegoen une hartan **jokoan**. Koro Navarro

Alderdiaren izen ona **jokoan dagoelako,** horrek kezkatzen gaitu gehien. Migel Angel Mintegi

Nire bizitza **jokoan balego** ere ahoskatu ezingo nituzkeen hitzak. Oskar Arana

Hurbilpen horiek gehienek irudiaren pertzepzioan **jokoan dauden** adimenaren prozesuak [...] azpimarratzen dituzte bereziki. Josu Zabaleta

Egiten ari giren eta ondorengoei utziko diegun mundua da **jokoan dagoena**. Herria

Balio handia dute gaur Santanderren **jokoan egongo** diren hiru puntuek. Berria - Kirola

30.000 lanpostu **jokoan daudela** hasi dituzte negoziazioak VWn. Berria - Ekonomia

Behin bere lerro nagusietan ulertuz gero euliaren enbrioi-garapena, eta **jokoan dauden** geneak atzeman, hara non, guztion txundigarri, gene berak aurkitzen ditugun, antzeko eginkizunekin, hainbat organismo are beren artean oso desberdinetan. Juan Garzia

## 23 ***jokoan izan*** ik gorago **21.**

Ez **zen** maitasuna **jokoan**. **Jokoan izan** diren puntuen erdiak ere ez ditu eskuratu. Berria - Kirola

Bi etxe hoien jabegoa **da jokoan**. Xipri Arbelbide

"Representative Lager"-aren ohorea **jokoan zen,** iduriz! Marzel Etxehandi

Edozein gizabanakoren portaeran bi printzipio **dira jokoan**. Askoren artean

Hiru lurraldeotako lege beregainak **ziren jokoan**. Andres Urrutia

Hizkuntzaren esparrua gainditzen zuten gertakariak ere **baziren jokoan**. Koldo Zuazo

Gizarte-produktuaren banaketak, merkatuko ekonomia batean, ez diola jarraitzen ezein lege bereziri, **jokoan diren** indar sozialen arteko botere-harremanei ez bada. Koro Navarro

Jolasorduetan ohorea **izaten zen jokoan**, baina Ligan zerbait gehiago jokatzen da. Berria - Kirola

## 24 ***karta jokosup_1*** karta sorta.

**Karta-joko** bat erakutsi zidan txaketaren barruko poltsikotik aterata. Bernardo Atxaga

**Karta-jokoa** bi zatitan urratu zuen, ogi puska bat ebakitzen ari balitz bezala. Koldo Biguri

- **joko** oso bat apurtu du, horrela, di-da. Koldo Biguri

Berehalaxe itzuli zen, botila bat ardo gorrirekin, eta eskuan **karta joko** bat zekarren, auzoko bati eskatua. Josu Zabaleta

Bitartean, FBIk esku batean karta-**joko** bat eta bestean beste bat, horrelaxe lan egiten du. Edorta Jimenez

Hemen karta **joko** bat badugu gurekin, 80 galdera idatziekin. Menane Oxandabaratz

**Karta-joko** bateko lau batekoak; esleitu zion bateko bakoitzari hiriburu bat: bateko urreari Bilbo, kopakoari Donostia, ezpatakoari Gasteiz eta bastoikoari Iruñea; […]. Joan Mari Irigoien

## 25 ***karta jokosup_2*** kartekin jokatzen den jokoa.

Afaldu eta gero, denbora pasa, **karta jokoan** hasi ziren. *Whist* **karta-jokoan** ari zirelarik. Mirentxu Larrañaga

Lagunekin **karta jokoan** ziharduen Teok. Edorta Jimenez

Lurrean eserita batzuk **karta-jokoan** eta besteak, zutik, jokalariei begira ari. Felipe Juaristi

Tutean, juletean, briskan eta horrelako **karta jokoetan** aritzen ziren bitartean. Jon Maia

Berriketan edo **karta-jokoan**. Rafa Egiguren

**Karta-jokoan** ez zen guztiz zintzoa eta garbia izaten. Jose Morales

Errege Zedula 1786an atera zen tabernetako **karta jokoen** abusoa salatuz. Patziku Perurena

Emakumeak borobilean eserita eta gizonak karta-**joko** aspergarrian. Oskar Arana

Gauerdian, **karta jokoak** finiturik, Mazedonia labur bat proposatu nuen. Jon Muñoz

Suizidioari ere, bizitzaren kontra joka genezakeen azken **karta-jokoari,** ez al diogu gure buruaz beste egitea deitzen? Anjel Lertxundi

## 26 ***lore joko***

Bakartasunaren kronika biluzia dugu hau, apaindura eta **lore-joko** antzurik gabeko testigantza hunkigarria. Filipe Bidart

-Gerra ez da **lore-jokoa** bezain ikusgarria. Felipe Juaristi

Anton Abbadia irlandarrak antolatu zituen **Lore Jokoak**, 1854an, Urruñako herrian eta gero, 1879an, zabaldu Nafarroako Elizondon gaindi Hegoalde guztira. Piarres Xarriton

Antoine D'Abbadiek apailatu **lore-jokoetan** ere izan zen emakume bertsolaririk. Berria - Kultura

1874ko Abbadiaren **lore jokoetan,** adibidez, lehen saria izan zuten Jesusen lagundiko aita Aranaren bertso hauek: […]. Piarres Xarriton

Bilboko **Lore Jokoetan** Unamuno-k 1901eko abuztuko 26 gauean harrotu zituen hautsak. Joxe Azurmendi

Iurretako **Lore Jokoetan,** 1891n, aurkeztu zen ondoko sonetoa. Iñaki Arranz

· Beste eztabaida oro **lore jokoak** dira, fikzioa. Berria - Harian

## 27 ***Olinpi joko*** ik **olinpi 1.**

## 28 ***Olinpiar Joko*** ik **olinpiar 3.**

## 28 ***zorizko/zori joko***

Hasieratik, bere bizialdi laburra **zorizko joko** neurrigabe, arriskutsu eta ikaragarri baten antzekoa izan zen. Jose Morales

Zeren irabazteari dagokionez, milizia **zorizko jokoaren** antzekoa baita: asko dira porrot egiten dutenak, gutxi, ordea, irabazten dutenak. Esteban Antxustegi

**Zori joko** xelebrea, zeinean jokalariari pentsarazten zaion, lasaitzeko, jokozainari irabazten ahal diola. Xabier Olarra

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**egindako joko** (9); **erakutsiriko joko** (10); **erakutsiriko joko maila** (5); **erakutsitako joko** (8); **eraso joko** (7); **erasoko joko** (6); **euskal joko** (8); **haur joko** (12); **hitz joko** (42); **hitz joko bat** (10); **indar joko** (42); **indar joko lehiaketa** (6); **joko alaia** (7); **joko aldetik** (20); **joko antolatzaile** (29); **joko antolatzailea** (17); **joko antolatzaileak** (18); **joko antolatzaileek** (5); **joko arau** (30); **joko arauak** (72); **joko arauak errespetatu** (7); **joko arauak errespetatuz** (5); **joko arauei** (7); **joko arauei buruzko** (6); **joko arauekin** (6); **joko arauen** (13); **joko arauen arabera** (6); **joko aretoak** (5); **joko asko** (10); **joko azkarra** (10); **joko banatzaile** (31); **joko banatzailea** (30); **joko banatzaileak** (10); **joko banatzaileen** (7); **joko bat da** (11); **joko bera** (6); **joko berri** (37); **joko berri bat** (5); **joko bikaina** (14); **joko bikoitza** (7); **joko bizia** (19); **joko bolada** (42); **joko bolada gozoan** (11); **joko demokratikoaren** (6); **joko dotorea** (5); **joko eder** (5); **joko ederra** (22); **joko era** (7); **joko eraginkorra** (8); **joko erakustaldia** (18); **joko erakustaldia egin** (5); **joko erakustaldia eman** (9); **joko eredua** (5); **joko eskasa** (13); **joko eta ausagailu** (5); **joko eta bertze** (5); **joko etxe** (5); **joko fisikoa** (5); **joko gaitza** (8); **joko garbi** (23); **joko garbia** (14); **joko garbian** (26); **joko garbiko** (7); **joko gutxi** (5); **joko hobea** (13); **joko hobekuntza** (5); **joko ikusgarria** (21); **joko ikusgarria egin** (7); **joko ikusgarririk** (8); **joko indartsua** (7); **joko irekian** (6); **joko lehiaketa** (8); **joko maila** (45); **joko mailak** (6); **joko mota** (21); **joko nahasia** (6); **joko oldarkorra** (5); **joko olinpikoak** (10); **joko olinpikoetan** (6); **joko on** (10); **joko ona** (89); **joko ona egin** (19); **joko onak** (6); **joko onarekin** (11); **joko onaren** (7); **joko onari** (5); **joko onik** (11); **joko orekatua** (5); **joko osoa** (7); **joko plazan** (12); **joko polita** (15); **joko pollita** (8); **joko sistema** (55); **joko sistema aldatu** (6); **joko sistemak** (7); **joko sortzaileak** (5); **joko txarra** (11); **joko zabaltzaile** (15); **joko zabaltzailea** (18); **joko zabaltzaileak** (5); **joko zehatza** (5); **joko zikina** (6); **joko zuzena** (10); **kanpoko joko** (5); **karta joko** (21); **karta joko bat** (10); **laxoko joko** (6); **lore joko** (5); **ohiko joko** (8); **olinpiar joko** (20); **pilota joko** (10); **taldearen joko** (7); **tiro joko** (5); **ur joko** (28); **xake joko** (7); **zangoko joko** (5)

**ahate jokoa** (6); **antzeko jokoa** (6); **arteko jokoa** (17); **aurkariaren jokoa** (8); **baloi jokoa** (5); **barneko jokoa** (7); **bere jokoa egin** (5); **bere jokoa egiten** (8); **bere ohiko jokoa** (5); **birla jokoa** (10); **defentsa jokoa** (8); **egin zuen jokoa** (8); **egindako jokoa** (5); **eginiko jokoa** (9); **eraso jokoa** (6); **erasoko jokoa** (30); **erasoko jokoa antolatzeko** (5); **erdiko jokoa** (13); **errotaren jokoa** (5); **gure jokoa egin** (6); **hankako jokoa** (5); **hitz jokoa** (45); **hitz jokoa egiten** (9); **indar jokoa** (7); **jokoa antolatzeko** (23); **jokoa antolatzeko ardura** (5); **jokoa antolatzen** (7); **jokoa berreskuratu** (10); **jokoa bukatu** (5); **jokoa egin** (56); **jokoa egin zuen** (9); **jokoa eginez** (10); **jokoa egitea** (11); **jokoa egiteko** (19); **jokoa egiten** (61); **jokoa erabakigarria izan** (6); **jokoa erakusteko** (5); **jokoa erakutsi** (6); **jokoa eskasa** (6); **jokoa gelditzea** (5); **jokoa hasi** (5); **jokoa hobetu** (10); **jokoa hobetzea** (5); **jokoa hobetzeko** (7); **jokoa izan** (12); **jokoa izan zen** (8); **jokoa nagusiarazi** (5); **jokoa sortu** (7); **jokoa sortzeko** (11); **jokoa utzi** (5); **karta jokoa** (9); **loto jokoa** (6); **ohiko jokoa** (9); **orga jokoa** (5); **pilota jokoa** (9); **saskipeko jokoa** (6); **talde jokoa** (6); **taldearen jokoa** (16); **taldeen jokoa** (5); **taldeko jokoa** (7); **tauren jokoa** (6); **xake jokoa** (6); **zelai erdiko jokoa** (11)

**atenasko olinpiar jokoak** (15); **bideo jokoak** (5); **egindako jokoak** (6); **euskal indar jokoak** (16); **euskal jokoak** (6); **haur jokoak** (8); **haurren jokoak** (10); **herrien arteko jokoak** (5); **hitz jokoak** (23); **indar jokoak** (115); **jokoak antolatzeko** (22); **jokoak behera egin** (7); **jokoak egin** (7); **jokoak egiten** (9); **jokoak hasi** (7); **jokoak izango** (10); **jokoak izango dira** (7); **jokoak prestatzeko** (5); **jokoak prestatzen** (7); **karta jokoak** (7); **lore jokoak** (13); **neguko olinpiar jokoak** (27); **olinpi jokoak** (17); **olinpiar jokoak** (193); **olinpiar jokoak antolatzeko** (17); **olinpiar jokoak izango** (5); **olinpiar jokoak prestatzen** (6); **paralinpiar jokoak** (20); **pekingo olinpiar jokoak** (5); **pilota jokoak** (6); **taldearen jokoak** (5)

**asko dago jokoan** (23); **asko dauka jokoan** (5); **asko dugu jokoan** (7); **baloia jokoan** (6); **bizia jokoan** (8); **bola jokoan** (6); **erasoko jokoan** (16); **etorkizuna dago jokoan** (11); **geldikako jokoan** (7); **izango da jokoan** (10); **izango dituzte jokoan** (15); **izango dute jokoan** (25); **jokoan ari** (35); **jokoan aritu** (7); **jokoan aritzeko** (5); **jokoan aritzen** (12); **jokoan dago** (16); **jokoan dagoela** (5); **jokoan dagoelako** (11); **jokoan dagoen** (14); **jokoan dagoena** (30); **jokoan dagoenean** (12); **jokoan daudela** (6); **jokoan dauden** (31); **jokoan dela** (6); **jokoan den** (27); **jokoan denean** (5); **jokoan dira** (13); **jokoan diren** (11); **jokoan egon** (19); **jokoan egongo** (10); **jokoan eta markagailuan** (8); **jokoan hasi** (8); **jokoan ikusi** (5); **jokoan izan** (13); **jokoan izango** (17); **jokoan jarri** (16); **jokoan jartzen** (16); **jokoan parte hartu** (8); **jokoan sartu** (46); **jokoan sartuko** (6); **jokoan sartzea** (9); **jokoan sartzeko** (15); **jokoan sartzen** (18); **jokoan zegoela** (7); **jokoan zegoen** (6); **jokoan zeuden** (12); **jokoan ziren** (9); **karta jokoan** (35); **karta jokoan ari** (7); **luzeko jokoan** (15); **ohorea jokoan** (6); **orga jokoan** (7); **paleta jokoan** (9); **partida jokoan** (5); **postua jokoan** (7); **punta jokoan** (6); **puntu daude jokoan** (9); **taldearen jokoan** (8); **taldeko jokoan** (5); **txapela jokoan** (12); **txapelketa jokoan** (6); **txartela dute jokoan** (13); **txartela jokoan** (10); **uefa jokoan** (5); **xake jokoan** (12); **xare jokoan** (7); **zangoko jokoan** (14); **zegoen jokoan** (17); **zen jokoan** (25); **zer dagoen jokoan** (8)

**taldearen jokoarekin** (5)

**erasoko jokoaren** (6); **jokoaren alor** (11); **jokoaren arau** (6); **jokoaren arauak** (16); **jokoaren ardura** (7); **jokoaren ekimena** (19); **pilota jokoaren** (7)

**eraso jokoari** (5); **jokoari ekin** (8); **jokoari esker** (8); **taldearen jokoari** (5)

**olinpiar jokoei begira** (5)

**olinpiar jokoek** (9)

**atenasko olinpiar jokoen** (9); **bideo jokoen** (5); **euskal jokoen** (9); **hitz jokoen** (5); **jokoen antolakuntza** (5); **jokoen bidez** (5); **jokoen hasiera** (5); **lore jokoen** (5); **olinpi jokoen** (7); **olinpiar jokoen** (50); **olinpiar jokoen atarian** (5); **olinpiar jokoen aurretik** (7)

**atenasko olinpiar jokoetako** (6); **lore jokoetako** (11)

**atenasko olinpiar jokoetan** (67); **commonwealth jokoetan** (8); **indar jokoetan** (7); **jokoetan parte hartu** (12); **jokoetan parte hartuko** (8); **jokoetan parte hartzea** (6); **jokoetan parte hartzeko** (6); **jokoetan urrezko domina** (8); **lore jokoetan** (13); **neguko olinpiar jokoetan** (17); **olinpiar jokoetan** (265); **olinpiar jokoetan ariko** (6); **olinpiar jokoetan aritu** (5); **olinpiar jokoetan egoteko** (5); **olinpiar jokoetan izan** (9); **olinpiar jokoetan izango** (9); **olinpiar jokoetan jokatu** (6); **olinpiar jokoetan urrezko** (11); **paralinpiar jokoetan** (19); **pekingo olinpiar jokoetan** (10); **sydneyko olinpiar jokoetan** (5); **turingo olinpiar jokoetan** (6)

**olinpiar jokoetara** (13)

**atenasko olinpiar jokoetarako** (18); **olinpiar jokoetarako txartela** (5)

**olinpiar jokoetatik kanpo** (8)

**jokotik kanpo** (13)

**jokoz kanpo** (88); **jokoz kanpo geratu** (6); **jokoz kanpo harrapatu** (7); **jokoz kanpo utzi** (8); **jokoz kanpo zegoela** (6); **jokoz kanpoko** (8)

---

## **jokokide** *iz* joko-laguna.

Xakean denok aritzen gara patua dugula **jokokide**. Koro Navarro

Nimzowitsch-ek askotan bere **jokokideei** txantxak egiten zizkiela kontatu didate. Koro Navarro

---

## jokolari ik **jokalari**.

---

## **jokoño** *iz ipar* jokotxoa.

Joan den aste hortan, **jokoño** bat asmatu dugu denbora pasa: gure itzulian galdetu batzueri eta besteri nor zen Antso Handia. Herria

Eta beraz gure **jokoño** hunekin hasiko gira... Daniel Landart

---

## **jokotsu** *izond* jokoz betea.

Lau pilotariak gogotik arizan dira, holako ari hitsari gogor eginez, eta hola dituzte tanto batzu egin, luzeak bezain **jokotsuak,** ainitz eskuzarta bildu dituztenak. Herria

Berdintsuan ibili dira beti, Ezcurra borondatetsuena eta **jokotsuena** izanez burutik buru, Filipe abil batez lagundua, hunek ahuldura batzuekin ondarrerat halere. Herria

San Fermineko lehiaketan, Iruñean, biziki erne eta **jokotsu** agertu da Oinatz, sei dejada ere sartuz eta gatua bezain zalu, partida hoberik egin duen Ruben baten aitzinean Herria

---

## **jokotxo** *iz*

Eta zertara jatorrek berba **jokotxo** hori? Unai Iturriaga

---

## **jokotzar** *iz* joko gaiztoa.

Beren artean miseriarengatik edo bakartasunarengatik ardura bazen **jokotzar,** ebasketa, zanpatze, berdin kabala edo gizon hiltze. Michel Oronoz

---

## **jokozain** *iz* joko jakin bat zaintzen duena.

Zori joko xelebrea, zeinean jokalariari pentsarazten zaion, lasaitzeko, **jokozainari** irabazten ahal diola. Xabier Olarra

---

## **jokozale** *izond* jokoaren zale dena.

**Jokozale** amorratua, edale handiaz gainera. Felipe Juaristi

Esana diat ez naizela **jokozalea;** erosi egin behar baditut, erosi egingo ditiat. Jose Morales

Nolanahi ere, denak dituk lapurrak eta **jokozaleak..**. Lopez de Arana

---

## **jolas** *(1985 agerraldi, 219 liburu eta 297 artikulutan)* **1** *iz* atsegin edo atseden hartzeko edozein jardun, joko (dirurik jokatzen ez dena) edo kirol (norgehiagoka gabea). ik **josteta; joko**.

**Jolasa** ez bailitzateke **jolas** izango asmo baten agindupean egongo balitz. Iñaki Arranz

Futbolean dihardu gure semeak, eskolako taldean, lagun-arteko giro sanoan, **jolasa** joko eta jokoa **jolas**. Joxerra Garzia

Ez zen egiaz lana, baizik eta **jolasa**. Oskar Arana

Sexua bizi poza beste norbaitekin partekatzea da; **jolasa,** festa. Luis Elberdin

**Jolas** bat baino ez da, beste batekin jolasean aritzea. Luis Elberdin

**Jolas** bakoitzak bere legeak ditu. Xabier Mendiguren Elizegi

Haiek [hitzak] erabiltzen nautela ni eta menderatzen, berak direla beren eskuko eta aise moldatzen direla beren joko, **jolas** eta solasetan nere edo beste nornahiren ahoz mintzatzeko. Iñaki Segurola

Hizkuntza, [...] zarata merke-salduenetatik eta autoritatezko argumentu orotarik ihesi dabilen **jolas** bat da, joko eder bat dakarren **jolas** bat. Iñaki Segurola

Horrela bihurtu genuen sexua **jolas** eta festa. Luis Elberdin

Begiradaren eta laztanen ondoren, musuek osatzen dute sedukzioaren **jolasa**. Luis Elberdin

- **Jolas** bat besterik ez da, baina **jolas** guztiak azkeneraino jolastu behar dira. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitzen ordezkapenean datza **jolasa**. Xabier Olarra

**Jolas** bihurtu zen herriko jendea engainatzea, baina zenbat iraun zezakeen **jolas** hark? Koro Navarro

Ez bainuen **jolas** hartan jarraitu nahi. Ramon Saizarbitoria

Zer **jolas** darabilzu, Adela? Juan Kruz Igerabide

Ez nago **jolasetarako**! Iban Zaldua

**2** (izenondoekin)

Ezkutaketara jolastea, esate baterako, ez da jolas egite soila, ez da **jolas** hutsa, [...] denbora pasarekin zerikusirik ez duen beste zerbait ere izan daiteke. Pedro Alberdi

Maitasuna **jolas** berezia zela pentsatu zuen. Aritz Gorrotxategi

Eta hauek ez dira literatoen, semiotikoen edo psikotikoen solas merkeak: hauek [...] fisiko teoriko argienen solas zuhurrak eta **jolas** zintzoak dira. Iñaki Segurola

Ze **jolas** alaiak egiten zituzten! Julen Gabiria

Barrezka ez zenean elkarri begira aritzen ginen, **jolas** sekretu batean bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Bertsoena **jolas** bat da; **jolas** kilikagarria. Andoni Egaña

Hitzekiko **jolas** ergel batek. Iñaki Segurola

**Jolas** inozo bat besterik ez zen izan, huskeria bat. Juan Kruz Igerabide

Etxoletan eta bertzelako **"jolas** basatietan" ez aritzeko. Aingeru Epaltza

**Jolas** erotikoaren eta kitzikapen sexualaren oinarrizko osagaiak. Luis Elberdin

Masturbazioa **jolas** sexual atsegintzat jotzen dugu. Luis Elberdin

Kaligramak eta **jolas** tipografikoak. Iñaki Arranz

Berak asmatutako zorizko **jolas** zirraragarri batean. Anton Garikano

Gau horretan geroago gora zeinekin igoko zinen erabakitzeko **jolas** ezin jostagarriagoa. Oskar Arana

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Jolas** garaian gurinezko gozopilak eskaini nizkien irakasleei eta ikaskideei. Josu Zabaleta

Baina burua ez zeukan han: aspaldiko **jolas**-zelaietan zebilkion bueltaka. Julen Gabiria

Begiraleek pilotalekua nahiago zuten arren, neke handirik gabe onartu dute **jolas**-aretoan egitea. Xabier Mendiguren Elizegi

*ik* jolasgela.

**Jolas**-makinetan murgildurik zeudenek. Pedro Alberdi

Beste **jolas** pila bat erosi behar dugu. Josu Zabaleta

Haur hizkera, **jolas** hizkerak, gazte hizkera [...] horien jatorri eta harrobi diren herri hizkerak. Koldo Zuazo

Orbelak duen **jolas**-sena bezalakorik ez dago. Julen Gabiria

Oihu eta **jolas** iskanbila bat zen hondartza. Josu Zabaleta

**Jolas**-pistola edukitzea ez dago debekaturik. Gotzon Garate

Ura jaurtitzeko aitzakian, busti-busti eginda geundela, **jolas**-borrokan hasi ginen. Aitor Arana

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Komentu atzeko belaze ikusgarrian [...] pilota-**jolas** xalo eta dibertigarrien oihartzuna. Karlos Linazasoro

Azkenean aspertu eta bertan behera utziko zuen ume-**jolas** bat. Oskar Arana

Tarteka, baptistak nire eskaerari amore eman eta haur-**jolas** moduko hartara jolasten ginen. Joxe Austin Arrieta

Aldizkariko hurrengo zenbakietan ere hitz **jolas** berri honek jarraipena izan zuen. Hizkuntz **jolas** hutsa da, eta horren atzean nekez antzeman genezake erreferenteekin jolasteko asmorik. Iñaki Arranz

Umore oneko zegoenean gure aitak egiten zituen karta-**jolasak**. Juan Garzia

Gatazka hori ezpata-**jolas** soil gisa axolagabeki begiratzea. Ibon Uribarri

Sexu-**jolas** hau edo bestea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Masturbatzea, eskuari eragitea, esku **jolasa..**. oso osasungarria da. Luis Elberdin

Lagunekin zer nolako kale-**jolasak** egiten zituzten. Aitor Arana

Plaza isilean, musikatxoaren oihartzuna zabaldu zen, jostailuzko zaldi bat airean tragedia baten iragarpen-**jolasa** egiten ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

Plajio-**jolas** horri jarraituz, Atxagaren bertsioa erabili dut "Fern Hill" poemako hitz horiek itzultzerakoan. Koro Navarro

Simulakro-**jolas** moldakor -ez libre- batetik adierazpen guztiz errealismo itxurakoak eratzen baititu. Iban Zaldua

Astun samarra iruditu zitzaion txantxa-**jolasa,** eta oso arina saria. Patxi Ezkiaga

**5** ***jolasean*** *adlag* ik **josteta 4.**

Josten ari zen bitartean, umeak haren inguruan zebiltzan **jolasean**. Julen Gabiria

Herri guztietako kaleetan haurrak **jolasean** dabiltzan ordu hori zen. Juan Garzia

Ordurako ia sei hilabetez ginen **jolasean** ibiliak, eta nahiz eta nor bere etxean bizi, nekez igaroko zen aste bat bi edo hiru gautan bederen biok ohe berean elkarrekin lo egin gabe. Oskar Arana

Eta **jolasean** zebilela erortzen bazen, belaunetako zaurien odola mingainaz xurgatzen zuen. Jasone Osoro

Eskopetarekin **jolasean** ari zirela lehertu egin zitzaion bere anaiari aurpegian. Harkaitz Cano

**Jolasean** ari ginelako, eta ez jokoan. Andoni Egaña

**Jolasean** ariko balitz bezala. Fernando Morillo

Batzuetan, bakarkako jolasa; bestetzuetan, beste batekin egiten genuen **jolasean**. Luis Elberdin

Ez dakigu **jolasean** egiten. Luis Elberdin

Emakumeari begiratu ostean, idazluma estilografikoarekin **jolasean** hasi zen. Mirentxu Larrañaga

Elsa, errebolberra hartu eta **jolasean** hasi zen, txorimaloari begira. Harkaitz Cano

Bere aldameneko emakumearen eskumuturrekoarekin **jolasean** ziharduen. Lopez de Arana

Emazteak behin eta berriro esan zuen **jolasean** gertatu zitzaiola. Oskar Arana

Katuarekin **jolasean** utzi dut. Javi Cillero

Haurrak **jolasean** udaletxeko arkupeetan. Eider Rodriguez

Umeak, **jolasean** zalapartaka, inoiz baino gusturago zebiltzala zirudien. Bernardo Atxaga

Umeak beti dabiltza inguru hartan igerian, sirenekin **jolasean**. Julen Gabiria

Labezain baten semearekin **jolasean,** alajaina! Mirentxu Larrañaga

**6** ***jolas egin*** jolasean ibili, jolastu.

Umeek **jolas egiten** dute denden aitzinean. Koldo Izagirre

**Jolas egiten** dut, nik ere. Josu Zabaleta

Eskola ez omen da **jolas egiteko** lekua. Joxerra Garzia

Nire ilearekin **jolas egitea** gustatzen zitzaioan. Joxean Agirre

Finean, horixe baino ez da bertsoa: hizkuntzarekin **jolas eginez,** zerbait gustagarria sortzea. Andoni Egaña

Emakume izatera **jolas egiten** zuen bera baino askoz zaharragoa zen gizon batekin. Joxean Agirre

Jolasa denez, etekinik atera nahi badugu, **jolas egiteko** zilegitasuna duda-mudan ezin ipini. Berria - Harian

Makina bat **jolas egindakoak** gara etxe hartan! Arantxa Iturbe

· Ezkutaketara jolastea, esate baterako, ez da **jolas egite** soila, ez da jolas hutsa. Pedro Alberdi

**7** ***jolas-lagun*** ik **jolaskide.**

Pedro heldu zen hirugarren, Migel baino gaztexeagoa eta haren **jolas laguna** txikitatik. Aingeru Epaltza

Txikitako adiskidea zuen Telleria, **jolas-laguna**. Xabier Mendiguren Elizegi

Nahi al duzu beste **jolas-lagun** bat aukeratu? Antton Olano

Orain beste batzuk ziren **jolas-lagunak**. Anton Garikano

**8** *jolas-nahi* ik **jolasnahi.**

**9** ***jolas ordu*** *(orobat **jolasordu** eta **jolastordu** g.er.)*

Harekin **jolas-ordu** asko igaro nituen, BUPeko hirugarren urtean batik bat. Iban Zaldua

**Jolas-orduetan** ere, euri gehiegi egiten zuen egunetan, hara eramaten gintuzten. Iban Zaldua

Txirrina jo eta **jolas ordua** amaitzen denean, eskolara itzuli behar izaten dute haurrek. Joxerra Garzia

Bazkal ondoko **jolastordua** zen. Juan Kruz Igerabide

Gizonezko batzuk ari ziren pilotan, eskolako **jolasorduan** egongo balira bezala. Javi Cillero

Bi gazteak lagunak ziren eta eztabaida izan zuten **jolas orduan** futbolean ari zirela. Berria - Euskal Herria

Batak bestearen gainera egin du jauzi, **jolas-orduan** dauden eskolaumeak balira bezala. Harkaitz Cano

Astialdia eta **jolas ordua** ez dira gauza bera. Berria - Gaiak

**Jolas orduan** ere debekatua genuen euskaraz hitz egitea. Berria - Kultura

Astialdia eta **jolas ordua** ez dira gauza bera. Berria - Gaiak

Baina eredutik kanpora, badakigu, errekreoa dago, **jolas-ordua**, eta kalea, eta bihurrikeria, eta han ereduak ez du indarrik. Iñaki Segurola

Sozialen **jolasordua** zen. Koldo Izagirre

**10** ***jolas parke*** *(orobat **jolasparke** g.er.)*

1955ean lehen **jolas parkea** sortu zuen Kalifornian: Disneyland. Berria - Ekonomia

Bost egunez Port Aventura **jolas parkean** gozatzeko aukera. Berria - Kirola

Biek ala biek baitzuten atsegin **jolas-parkeetan** ibiltzea: errusiar mendietan edo antzeko tramankuluetan. Joan Mari Irigoien

Bartzelonara eginiko bidaian Tibidabo **jolas parkean** eta zooan hartutako irudiak. Berria - Kultura

Paisaia gainera zetorkion, **jolas parke** bateko tramankulu ero baten barruan jiraka balego bezala: espaloia, farolak, kresala... bazekien mozkorturik zegoela. Aritz Gorrotxategi

Munduko zinema estudio handienetakoa izateaz gain, bederatzi **jolasparke** eta hainbat telebista kate ditu. Berria - Ekonomia

Zer da hau, **jolas parke** madarikatu bat? Harkaitz Cano

-Jende zuri gehienarentzat indianoen erreserbak **jolas parkeak** baizik ez dira... Aurelia Arkotxa

· Leherketa herriko erdigunean gertatu zen, **jolas parke** baten ondoan, jende ugari ibiltzen den lekuan eta zenbait etxebizitzaren azpian. Berria - Euskal Herria

Pilotalekuaren ondoan, lorategi bat paratu nahi dute, saskibaloian eta areto futbolean aritzeko pista bat, aska eta erretoki handi bat eta haurrentzako **jolas parke** homologatua. Berria - Euskal Herria

16:30ean, Alderdi Ederren, haur **jolas parkea**. Berria - Euskal Herria

**11** ***maite jolas***

**Maite-jolasak,** musutxoak eta sinpatiazko irribarretxoak. Josu Zabaleta

**Maite-jolasetan,** musu batean, besarkada batean, txantxa gordin batean ezer txarrik ez ikustea. Josu Zabaleta

Gaztetako auto barreneko **maite-jolasei** uko egitea. Berria - Kirola

Hurrengo asteko egun batean, bere etxera gonbidatu ninduen afaltzera, eta halaxe hasi zen **maite-jolasa**. Bere ama azalekoegia da, **maite-jolasak** gustatzen zaizkio. Oskar Arana

-Ni ez naiz **maite-jolasetan** ari, Peter! Josu Zabaleta

Izan ere, zu ez zinen beste batekin maitasun edo **maite jolasetan** pentsatze hutsa hain zitzaidan ulertezina, [...]. Eduardo Matauko

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barre eta jolas** (3); **errepresentazioen jolas** (3); **haur jolas** (4); **haurrentzako jolas** (3); **hitz jolas** (6); **irri eta jolas** (3); **jolas berri** (7); **jolas bezala** (4); **jolas egin** (20); **jolas egitea** (7); **jolas egiteko** (17); **jolas egiteko gogoa** (3); **jolas egiten** (34); **jolas egitera** (6); **jolas eta kirol** (4); **jolas garaian** (6); **jolas gisa** (8); **jolas hutsa** (6); **jolas hutsean** (3); **jolas inozo** (4); **jolas literario** (3); **jolas moduan** (13); **jolas moduko** (3); **jolas modura** (6); **jolas ordua** (5); **jolas orduan** (9); **jolas orduetan** (8); **jolas parke** (14); **jolas parkea** (8); **jolas parkeak** (4); **jolas parkean** (5); **jolas parkeetan** (4); **jolas sexual** (5); **jolas sexuala** (7); **jolas sexualak** (8); **jolas sexualaren** (4); **jolas sexualean** (5); **jolas sexualen** (3); **jolas sexualetan** (7); **jolas soilak** (3); **ume jolas** (3)

**esku jolasa** (3); **haur jolasa** (5); **haurren jolasa** (3); **jolasa baino ez** (4); **txandakako jolasa** (3); **ume jolasa** (4)

**haur jolasak** (4); **hitz jolasak** (5); **jolasak asmatzen** (3); **jolasak gustatzen** (3); **jolasak izango** (3); **jolasak txapelketa** (5); **maite jolasak** (3); **ume jolasak** (4); **umeentzako jolasak** (3)

**baloiarekin jolasean** (4); **elkarrekin jolasean** (3); **erdi jolasean** (6); **ertzean jolasean** (4); **georgierekin jolasean** (3); **gorputzarekin jolasean** (3); **gurekin jolasean** (3); **haizearekin jolasean** (3); **haurrak jolasean** (6); **ibai ertzean jolasean** (3); **ibiltzen ginen jolasean** (3); **ilearekin jolasean** (4); **jolasean ari** (67); **jolasean ari zen** (15); **jolasean ari ziren** (8); **jolasean aritu** (13); **jolasean aritzea** (3); **jolasean aritzeko** (6); **jolasean aritzen** (6); **jolasean dabilen** (7); **jolasean dabiltzan** (3); **jolasean egitea** (4); **jolasean egiten** (8); **jolasean hasi** (22); **jolasean hasi zen** (7); **jolasean hasi ziren** (4); **jolasean hasteko** (3); **jolasean hasten** (8); **jolasean ibili** (21); **jolasean ibiliko** (4); **jolasean ibiltzea** (8); **jolasean ibiltzeko** (4); **jolasean ibiltzen** (13); **jolasean ibiltzen nintzen** (3); **jolasean ibiltzen ziren** (3); **jolasean ikusi** (3); **jolasean jardun** (3); **jolasean nenbilela** (5); **jolasean zebilela** (4); **jolasean zebilen** (4); **jolasean zebiltzala** (3); **jolasean zebiltzan** (11); **lagunekin jolasean** (3); **nirekin jolasean** (6); **suarekin jolasean** (4)

**hitz jolasen** (3); **jolasen bidez** (3)

**jolaserako aukera** (3); **jolaserako gogoa** (5); **jolaserako gogorik** (3); **jolaserako prest** (4)

**kirol jolasetako** (3)

**jolasetan ari** (3); **jolasetan igandean** (3); **maite jolasetan** (7); **umetako jolasetan** (4).

---

# jolasaldi *iz* jolaserako denbora, jolasean aritzeko aldia.

Ni ez naiz gure **jolasaldietan** antzerkiak asmatzen dituen horietakoa. Juan Martin Elexpuru

Txikitan horrenbeste **jolasalditan** kide izan zuen zaldiak. Josu Zabaleta

Hori gertatzen zaigu arduragabe jokatzen dugunean: hala nola **jolasaldietan,** [...] gizarteko harremanetan eta abar. Joan Mari Lekuona

Baina **jolas** eta gozo aldiak ez ezik, makur aldiak ere izaten zituzten. Jokin Urain

---

# jolasgai *iz* jolasean ibiltzeko gaia.

Hasieran mutikoak **jolasgaitzat** hartzen du gerra. Hizkuntza **jolasgai** hartzen duten prozedurak era askotakoak izan daitezke. Iñaki Arranz

---

# jolasgarri *izond*

Hasierako notak alaiak ziren, bozkariozkoak, **jolasgarriak;** bukaerakoak, ordea, negar lantuak, hitsak, malenkoniatsuak. Felipe Juaristi

Adibide **jolasgarri** eta argitasun handikoa baizik ez dut aipatuko. Josu Zabaleta

Errima errebes hauei luze eustea eraginkorra suertatzen da etekin **jolasgarrien** aldetik. Iñaki Arranz

---

# jolasgela *(orobat* ***jolas-gela*** *g.er.)* *iz* jolasean ibiltzeko gela.

-Zergatik ez duzu umeen **jolasgelako** pianoa apur bat jotzen, ni lokartzeko? Julen Gabiria

Saloia, saloi atzeko sukaldea, sukalde gaineko logelak, eta harantzagoko **jolasgelak**. Anton Garikano

**Jolas**-gelako ateak kristal zehar-argitsuak ditu. Xabier Olarra

Lasai lo egin nuen gau hartan Bennett familiaren beheko solairuko gelan, baina goizean goiz esnatu nintzen, aldameneko aretotik **-jolasgelatik-** zetorren kirrinka-hots batek iratzarririk. Xabier Olarra

---

# jolasgune *(orobat* ***jolas gune****)* *iz*

Abentura bat bezala bizitzen den jokoa, **jolas gune** berezi batean. Herria

Tximistarentzat **jolasgune** gehiago prestatu dizkio teknikak berak ere. Pello Zabala

---

# jolasgura *iz* jolasean ibiltzeko gogoa. ik **jolasnahi**.

Bat-bateko **jolasgura** kutsatu zaie beste guztiei zipriztin-tantek bustitzearekin batera. Urak pertsonarik helduenak ere, serioenak ere, haur bihurtzen ditu; noizbait izan ziren haurren ilusioa eta **jolasgura** pizten die. Xabier Mendiguren Elizegi

Denon **jolasgura** ongi ase genuenerako aspaldi ilunduta zegoen. Aitor Arana

Orain, **jolasgurak** eta galderak astebururoko bidaia amaiezinetako neke eta istripuetan galdu zaizkienean. Jokin Urain

Sintaxiaren herabetasun ezkutuzalea; komen **jolasgura** asegaitza; puntuen arnasa. Joxerra Garzia

---

# jolasguratu *izond*

Hitz **jolasguratuak** elkarrekin gertatzen dira jendeen aho-mihitan, elkar igurtzen dute, adiskidetuz eta haserretuz orobat, gorde-agerka betiere, elkarretaratuz eta elkarretarik partituz etengabe, badoaz eta badatoz. Iñaki Segurola

---

# jolaska *adlag* jolasean.

Baina bada besterik, izenarekin **jolaska** ibili den asmazalerik ere: Ama Birjiña Karmes, nik egin dut amets, nere amets guziak izan dizan berorren onez. Pello Zabala

---

# jolaskeria *iz* jolas gaitzesgarria.

Baina norbait **jolaskeria** hutsez hartu eta botatzea... hori barkaezina da, bihozgabea delako. Ander Irizar

Sekula ez zen gozatu hiriburuetan jendearen lasaikeria-egarria asetzen duten **jolaskeriez,** eta behin ere ez zen antzerkian izan. Jose Morales

---

# jolaskide *iz* jolas-laguna.

Adiskide gintuan, ez **jolaskide,** abenturakide, armadakide soil. Xabier Olarra

Arratsaldeko bere **jolaskidea,** gazte biboteskadun hura, ni baino larderiatsuagoa zen, noski, jokoan. Joxe Austin Arrieta

Aurrez aurre egokitu ginen udako arratsalde batez, inguruan beste **jolaskide** batzuk genituela. Berria - Kultura

---

jolaslagun ik **jolas 7**.

---

# jolasleku 1 *iz* jolasean ibiltzeko lekua.

Natorren nere **jolasleku** izandako uretara. Iñaki Segurola

Kalea edo parkea ziren nire **jolaslekuak** eta bertan ibiltzen nintzen batzuetan lehengusina-lehengusuekin eta, besteetan, ikastolako lagunekin. Ana Urkiza

**2** jolasean ibiltzeko prestaturiko eremua. ik **jolastoki**.

Lorategia baino gehiago **jolasleku** txiki bat zen, bazter batean zabuak, beste batean plastikozko txirrista bat eta bitartean jostailu eta gomazko baloi andana bat ageri zirela. Oskar Arana

**Jolasleku** publikoko zabu biribilean. Koro Navarro

**Jolasleku** eguzkitsuetara saldoan zihoazenekin bat egitean. Iñaki Mendiguren

Eztanda bera ere entzun genuen, ozen, institutuko **jolaslekutik**. Iban Zaldua

**Jolaslekuaren** egoera tamalgarria da, utzikeria nabaria da, ez dago haur ezinduei egokitua. Berria - Euskal Herria

Droga-trafikatzaileak ibiltzen omen dira **jolaslekuen** inguruan, eta poliziak ez omen du ezertxo ere egiten. Oskar Arana

---

# jolasnahi *(corpusean* ***jolas-nahi*** *soilik)* *iz* jolasean ibiltzeko gogoa. ik **jolasgura. -**

Hutsetik abiatuta, **jolas-nahirik** gabe, nekez bururatuko litzaiguke hori kantatzea izotz koxkorraren moduko gai hotzari. Andoni Egaña

---

jolasordu ik **jolas 9**.

---

jolasparke ik **jolas 10**.

---

**jolasti** 1 *izond* jostaria, jostalaria.

Gazte **jolasti** eta dibertsio zalea izanik ere. Askoren artean

Idisko gorri, untxi **jolasti** edo arkume otzanarekin. Edorta Agirre

Arestiko tonu hantustearen batere arrastorik ez zuen haur gisako hizketa-modu **jolasti** batez hitz egin zion gero Willemek Mathilderi. Anjel Lertxundi

Egunsentiko argi berriak guztiz zilartuta zeukan itsasgaina eta haize batere zakarkeriarik gabeak etengabeko distira **jolasti** baten irriñoa eragiten zion urari. Anjel Lertxundi

Lurrunak sortutako lerro zurixka bero eta **jolasti** hura arnastu zuen lehendabizi eta, ondoren, lehen zurrutean, poztasunezko hasperen luzea utzi zuen ezpainetatik irteten. Joxemari Urteaga

**2** (adizlagun gisa)

Eta gero? -galdetu zidan, **jolasti**. Horrezaz gain, orduak eta orduak ematen genituen hizketan, errekan alai eta **jolasti** bainatu ondoren eguzkitan etzanda. Aitor Arana

Norak dibertiturik begiratu zion, hain berea zuen erbinude baten arintasun urduria begi-ninietan **jolasti:** [...]. Anjel Lertxundi

Miseriaren irribarrean dago, esperantzaren ezpainetan kulunka, **jolasti**. Berria - Mundua

---

**jolastoki** *(orobat **jolas-toki** g.er.)* **1** *iz* jolasean ibiltzeko prestaturiko eremua.

Uil eta biok ia egunero joaten ginen komikitegirara, edo **jolastokira**. Hirurak bost gutxiagotan gaztelutik irten eta **jolastokiak** zeharkatu zituzten. Juan Kruz Igerabide

Udalekuko **jolastokiak** ikusi dituztenean [...] futbolean aritzeko gogoa piztu zaie. Xabier Mendiguren Elizegi

Liburutegi txiki bat, gazteentzako bilera-gela bat eta umeentzako **jolastokia** ipini ahal izateko. Koldo Biguri

Harryren lehenengo quidditch-partidaren bezperan, hirurak zeuden **jolastoki** izoztuan atsedenaldian. Iñaki Mendiguren

Paseoak **jolastoki** bihurtuko ziren, futbol zelai edo saskibaloirako leku ezinago apropos. Karlos Linazasoro

Erakunde honek lantegiak eskaintzen dizkie gazteei, **jolastokiak,** hitzaldiak, aholkulariak, txangoak eta bidaiak Gotzon Garate

---

jolastordu ik **jolas 9**.

---

**jolastu**, jolas, jolasten **1** da *ad* jolasean ibili. ik **jostatu**.

Ikastolara joaten hasi aurretik osabarekin **jolastu** nintzen gehienbat eta berarekin ikasi nuen hizketan. Aitor Arana

Zer erantzun behar zaio zeure emaztearekin **jolastu** den Judasi? Hasier Etxeberria

Bere oin itsusiekin **jolastu** ziren Buglar eta Howard, haiek lehenbizi nork ukituko. Anton Garikano

Txikitan ez zinen inoiz **jolasten,** trenbideko errailen gainean oinez? Harkaitz Cano

Elkarri bultzaka **jolastuko** gaitun, nahi dun? Karlos Zabala

Bularreko haurra suge-zuloetan **jolastuko** da, sugegorri-habian sartuko du eskua. Elizen arteko biblia

Normalean popatik ematen nion, noiz edo noiz bere zirrikitu goxo hartan **jolastu** banintzen ere. Aitor Arana

Setheren umeak ezin dira jada sukaldean **jolastu**. Anton Garikano

Hain haurrak ez zirenak ere **jolastu** ziren. Berria - Euskal Herria

'Guardia zibil eta euskaldunetara **jolastuko** gara?' proposatu zuen batek. Joseba Sarrionandia

Sokasaltora **jolasten** ari diren neska-mutikoek. Harkaitz Cano

Bizimodu berri bat izatera **jolastu** nahi baduzu, nik jarritako baldintzekin izan beharko du. Antton Olano

Ez dut igarkizunetan **jolastu** nahi. Agustin Otsoa

***Jolastu*** diot, bai, eta ez *jokatu,* zeren xakean amarekin jolasteak antz handia baitzuen berari musu ematearekin: atsegina zen, baina ez zirraragarria. Alberto Ladron Arana

Eta igandean, Levanten, **jolastu** edo jokatu egingo du? Berria - Kirola

· Herriaren ilusio eta nahiekin ezin dela **jolastu**. Berria - Mundua

• **2** du *ad*

Bizarrarekin **jolastu** zuen berriro inspektoreak. Joxemari Urteaga

Zergatik **jolastu** zuten gurekin, aita. Alberto Ladron Arana

· Espainiako batasunarekin ez duela **«jolastuko»** dio Zapaterok. Berria - Euskal Herria

**3** (erabilera desegokia) jokatu.

Ardoa edan, dadotan **jolastu,** emakumeak laztandu. Pablo Sastre

Gazteok berehala esan diogu elkarri lanaren ostean futbolean **jolastuko** garela. Urtzi Urrutikoetxea

Hogeita bat tantora ari gara **jolasten,** ping-pongean bezala. Joxe Austin Arrieta

Ricardok ez bezala, Raymond Carverrek bazekien pokerrean **jolasten**. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **nirekin jolastu** (3)
>
> **hitzekin jolastea** (4); **hizkuntzarekin jolastea** (3); **jolastea gustatzen** (3)
>
> **hitzekin jolasteko** (4); **hizkuntzarekin jolasteko** (4); **jolasteko asmoa** (3); **jolasteko aukera** (8); **jolasteko modu** (3)
>
> **baloiarekin jolasten** (4); **cricketean jolasten** (3); **egitera jolasten** (3); **elkarrekin jolasten** (4); **futbolean jolasten** (4); **jolasten ari** (33); **jolasten aritu** (3); **jolasten aritzea** (3); **jolasten hasi** (5); **jolasten ibili** (3); **jolasten ibiltzen** (3); **suarekin jolasten** (3); **xakean jolasten** (3)

---

**jolastxo** *iz adkor* jolasa.

Ez dut ezkutuko **jolastxorik** nahi; nitaz aspertzen bazara edo beste bat nahiago baduzu, argi esan niri; ez dut kontu ustelik nahi. Juan Kruz Igerabide

Haien arteko baten bat maite- **jolastxoren** batean nahasirik ibiliz gero, guztiz ezkutuan gordetzen zuen kontua. Jose Morales

---

**jolaszale** *izond* jolasaren zale dena.

Zenbaiten aburuz, hiriaren jatorri gaskoiak badu zerikusirik Donostiaren espiritu **jolaszale** horretan. Askoren artean

Zenbaiten aburuz, hiriaren jatorri gaskoiak badu zerikusirik Donostiaren espiritu **jolaszale** horretan. Askoren artean

---

**jolaszaletasun** *(orobat **jolas-zaletasun**) iz* jolaszale denaren nolakotasuna.

Hori bezain erabakigarria izan zen berezko **jolaszaletasun** eta sormen nolabaitekoa azaleratzea: margotzea, marraztea, kartoizko irudiak eta eskulturak egitea, eta, halaber, "bihurrikeria modu bere-berezkoa eta sortzailea" agertzea. Xabier Olarra

---

**jole** *(168 agerraldi, 67 liburu eta 16 artikulutan; orobat **joile** 134 agerraldi, 2 liburu eta 106 artikulutan, guztiak Herria astekarikoak)*

**1** *iz* jotzailea.

Baina **jolea** ez ezik, sortzailea ere badugu Elgeta, bere kantu propioak egiten zituen. Koldo Izagirre

Alan Griffin irlandesa, haizezko soinu tresnen **joilea**. Herria

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; musikan)

Bera zen taldeko bateria-**jolea**. Unai Iturriaga

Profeta-trantzean aztoraturik etorriko dira, psalteri- eta danbolin-**joleak,** txirula- eta zitara-**joleak** aurretik dituztela. Elizen arteko biblia

Ni homelessa izan aurretik musikaria nintzan, tronpeta-**jolea,** eta oso maila onekoa, ez pentsa! Jon Arretxe

Denbora guztian akorde berdintsuak jotzen zituen gitarra-**jole** erdi lokartu zozo bat. Jon Arretxe

Cesar Zapirain oboe **jolea** lagun duela. Pako Aristi

Lizarrako gaita-**joleak** eta trikitilariak. Xabier Etxabe

Datorrela kanpai-**jolea**! Jose Morales

Anartean, atean xilintxa **joileak** xapela kendua zuen. Marzel Etxehandi

Marisa eta biok *Biolin-**jolea** teilatuan* filma ikustera joan baikinen beheko auzora. Juan Kruz Igerabide

· Haddington Roadeko organo-**jole** postua baitzuen. Irene Aldasoro

· *izond* Neska piano-**joleak** oraingoan akatsik egin ez duelako bukatu dik pieza. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa; bestelakoetan)

Polita izango litzateke, kondetzar edo handizki horietakoren batekin ezkondu nire alaba, eta hark, gogoak emandakoan, bilaukume eta sokil **jole** baten, gorulexar baten alaba gisa goitik behera bedeinkatzea! Patxi Ezkiaga

Sarritan, gainera, hitz bakarrak herri guztiaren belarriak jotzen ditu, pregoi-**jolearen** ahotik hara. Xabier Amuriza

Drogazalea eta larru-**jolea,** gezurtia eta gaizkile txiki bat, maite ninduten guztien traidore bat. Oskar Arana

Beste batzuek Veneziako larruz egindako zorrotxo bat erabiltzera behartzen dituzte beren txorta-**joleak**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· *izond* Zer egin horrelako pertsona ergel eta erosta-**jolea** edukiz gero? Josu Zabaleta

**4** jogailua.

Aldamenean compact disk **jole** bat The Papas and the Mamas-en *Dream a little dream of me* jotzen. Gotzon Garate

**5** *adar-jole* ik **jotzaile 5; jotzaile 6**.

**6** *harpa-jole* ik **jotzaile 7; jotzaile 8**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**biolin jole** (5); **biolontxelo jole** (3); **gitarra jole** (6); **organo jole** (4); **piano jole** (3); **soinu jole** (4); **tronpeta jole** (5)

**bateria jolea** (3); **gitarra jolea** (5); **piano jolea** (6); **tronpeta jolea** (3)

**gitarra joleak** (4); **tronpeta joleak** (5); **turuta joleak** (3)

**piano jolearen** (3)

---

**joleku** *iz* jomuga.

Euskal Zentroa, tabernak, frontoiak, dendak, Andres Untzain ez dator **joleku** edo helbiderik barik, ez. Edorta Jimenez

---

**jomuga** *(orobat **jo-muga** g.er.)* **1** *iz*

Bazekien saiakera edo dena delako haiek nobela zutela **jomuga,** itu, ipar. Iñaki Iñurrieta

Bikote hura zuen **jomuga;** bere *target*-a. Fernando Morillo

Bozak helburu eta **jomuga**. Berria - Mundua

Jainkoak, gauza guztien sorburu eta **jomuga** denak. Elizen arteko biblia

Hura dut nik **jomuga**. **Jomuga** iristeko nola jokatu behar den. Jon Muñoz

Hitzak ez dira, ordea, egonean egoteko, egonean joan eta **jomuga** jotzeko baizik. Joxerra Garzia

Mafiako hiltzaileek **jomuga** huts egin zutela. Ramuntxo Etxeberri

Sekula ez zuten beren **jomuga** huts egin. Jon Muñoz

Bere bidaiaren **jomuga** hantxe aurrean du, deika. Iñaki Iñurrieta

Aurreko hamabi liburuen **jomuga** aurkezten du Euklidesek liburu honetan. Jon Muñoz

Sendatu ninduten eta mundura bota ere bai, zakur herrena botatzen den bezala, denen iraingarri, denen ostikoen **jomuga**. Felipe Juaristi

Frogabide teologiko edo metafisiko baten azken **jomuga** -kanpoko mundua, Jainkoa, halabeharra, forma unibertsalak- [...]. Juan Garzia

Bi eraso horien **jomugak** Mosul hiriko komisaria bat eta [...] Ameriketako Estatu Batuetako Armadako konboi bat izan ziren.

Balizko irakurle oso desberdinak **jomugatzat** hartuta idazten direlako gaur egun bertsoak. Andoni Egaña

Bere **jomugarantz** zihoan zuzen, **jomuga** hori begien bistan balu bezala. Karlos Zabala

Tiroka jarraitu zuen, hamar-hamabost bider **jomugaren** kontra, eta emakumea haurdun geratu zen. Patxi Zubizarreta

Bidaiari zoriontsu eta **jomugarik** gabea. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Itsu-itsuan ibiliko da, **jomuga** zehatzik gabe. Jose Morales

XXI. mendeko EITB: **Jomuga** berriak. Berria - Euskal Herria

Zer zeukan Txitxikovek bere nahi eta gurarien **jomuga** nagusi. Jose Morales

Erresistentziak ere **jomuga** jakinak ditu: okupatzaileak edo kolaborazionistak. Berria - Harian

Batzuk apezak, serorak eta monjeak ziren, gure gazteen koleraren **jomuga** naturalak. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Beste lepo batzuetan urrundik ikus zitezkeen biribil gorri handiak eta erdian puntu gorri handiak, zirikatzaile, desafiatzaile, **jomuga**-seinale baten gisa: hona egin behar duzue tiro, unea heltzean. Urtzi Urrutikoetxea

**4** ***jomugan izan*** (norbait)

Urdekume halakoa, faxista zikina, **jomugan** haugu...! Aingeru Epaltza

«Terroristek Nafarroa **jomugan»** dutela frogatutzat jo zuen. Berria - Euskal Herria

**Jomugan** dituenen jomuga izatea baitu gezilariak amets. Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**antikomunismoaren jomuga** (3); **atentatuen jomuga** (4); **azken jomuga** (3); **da jomuga** (3); **ditu jomuga** (3); **du jomuga** (11); **dute jomuga** (5); **erasoaren jomuga** (5); **erasoen jomuga** (10); **izan zuen jomuga** (4); **jomuga bakarra** (5); **jomuga bihurtu** (8); **jomuga bilakatu** (4); **jomuga erraza** (5); **jomuga huts** (3); **jomuga izan** (17); **jomuga izango** (9); **jomuga nagusi** (6); **jomuga nagusia** (10); **jomuga nagusietako** (3); **jomuga nagusietako bat** (3); **jomuga zehatzik** (3); **kanpainaren jomuga** (3); **kritiken jomuga** (12)

**ditu jomugan** (4); **du jomugan** (9); **dute jomugan** (6); **jarri dute jomugan** (3); **jomugan dago** (5); **jomugan dauden** (3); **jomugan izan** (4); **jomugan jarri** (6); **jomugan jartzen** (5)

**jomugatzat hartuta** (3); **jomugatzat hartzen** (4)

---

# **jomugaratu**, jomugara(tu), jomugaratzen *(corpusean **jomugara** soilik)* da *ad* jomugara heldu.

Inarrosaldi apal batek **jomugara** ginela gaztigatu zigun, hain juxtu ere blusaren lehen botoia askatzera abiatzen nintzen momentuan. Aingeru Epaltza

---

# jondane ik **jondoni**.

---

# jondone ik **jondoni**.

---

# **jondoni** *(320 agerraldi, 16 liburu eta 191 artikulutan; orobat **jondone** 27 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean, **jondane** 8 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan eta **jaundone** 2 agerraldi liburu 1ean)* *iz* kristau erlijioko zenbait santu zahar aipatzean aurrean ezartzen zaion hitza. ik **san; done.**

**Jondoni** Joaneko sua. Herria

**Jondoni** Joanek bere Ebanjelioko lehen kapituluan. Piarres Xarriton

Baigorrin, **Jondoni** Joani suaren inguruan Andre dena Mariaren litaniak kantatzen dituzte. Michel Oronoz

**Jondoni** Joani bezperan, ekainaren hogoita hiruan. Herria

Apostoluen ekintzak eta **Jondoni** Pauloren gutunak. Herria

**Jondane** Johaneko süak. **Jondoni** Paulok Galatiarrei V.ean erran zuen bezala: [...]. Piarres Xarriton

**Jondoni** Paulok eta san Agustinek besterik erran baldin badute, [...]. Piarres Xarriton

Botere hori **Jondoni** Petriri berari ematen dioten beste hitz hauek: Larra itzazu nire ardiak! Piarres Xarriton

Eta historian zehar ez dut aurkitu, Jainkoari esker, nafar bihirik, **Jondoni** Petiriren jarraile **Jondoni** Satordirenganik ukan Kristau fedea arbuiatu duenik gaurdaino. Piarres Xarriton

Erromako **Jondoni** Petrin emana, Inkarnazionetik landako 1567 urtean, azaroko kalendetan, gure Aita Sainduagoko bigarren urtean. Piarres Xarriton

**Jondoni** Matiuren XVIII. kapituluko hitz hauen arabera. Piarres Xarriton

Eta san Lukasen 10. kapitulu horri jarraiki zaio **Jondoni** Jakobe ere. Piarres Xarriton

**Jondoni** Jakobe Apostoluari eskainia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Baigorriko **Jondoni** Estebanen eliza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Jondoni** Mikael Arkanjeluaren eliza erromaniko handia. Piarres Aintziart

Larunbatean eta igandean, Miarritzen, **Jondoni** Martine parropiako kermeza. Herria

Ainitz tokitan, **Jondoni** Martinek bazuen ere beste fama bat: [...]. Herria

Herriko patroina **Jondoni** Bixintxo baitute, urtarrilaren 22-an ospatzen dena... Herria

Lehen komunionea izanen da maiatzaren 24 ean, **Jondoni** Salbatore egunean. Herria

**Jondoni** Laurendi, Kanboko patroi Sainduaren ohoretan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jondoni batista** (3); **jondoni bixintxo** (47); **jondoni bixintxo elizan** (13); **jondoni bixintxoren** (6); **jondoni bixintxoren ohoretan** (5); **jondoni jakobe** (46); **jondoni jakobe beilari** (3); **jondoni jakobe gogoan** (5); **jondoni jakobe karrikan** (3); **jondoni jakobe karrikatik** (3); **jondoni jakobe parropia** (3); **jondoni jakoberen** (9); **jondoni joane** (17); **jondoni joane gaua** (4); **jondoni joanek** (3); **jondoni joaneko** (4); **jondoni joaneko sua** (3); **jondoni joanes** (3); **jondoni joanez** (3); **jondoni joani** (7); **jondoni joaniren** (3); **jondoni laurendi** (3); **jondoni martine** (44); **jondoni martine bestak** (6); **jondoni martine eguna** (6); **jondoni martine elizan** (10); **jondoni martine iria** (3); **jondoni martine kari** (3); **jondoni martineko** (4); **jondoni martineren** (8); **jondoni martineren elizan** (3); **jondoni martineren ohoretan** (3); **jondoni martinez** (3); **jondoni matiuren** (3); **jondoni mikael** (6); **jondoni mikaelera** (3); **jondoni paulo** (6); **jondoni paulok** (11); **jondoni paulok korintiarrei** (3); **jondoni pauloren** (9); **jondoni petri** (22); **jondoni petri plazan** (3); **jondoni petriren** (6); **jondoni petriri** (4); **jondoni pettiri** (4); **jondoni pettiri abdul** (4)

---

# **joniar** **1** *izlag* Joniakoa, Joniari dagokiona.

Egeo itsasoko uharteetatik **joniar** itsaso ertzeraino. Jon Muñoz

Ontzia **Joniar** itsasoan barna Greziako hegoalderantz zihoanean. Gotzon Garate

Espainiar arpilatzaileek Cuzcon egindako bekatuak **joniar** eskulangileek ordaindu zituzten Zikladetan eta nekazari alemanek Suabian. Iñaki Mendiguren

Hiru ordenetatik, ordena **joniarra** hartu. Santiago Iruretagoiena

Berebat Mileton Peonio horrek berak eta Dafnis Miletokoak eraiki zuten Apolorena estilo **joniarrean**. Santiago Iruretagoiena

Friso **joniar** bat oroitarazten zuen apaindura hanpatuegia aitzinaldean. Aingeru Epaltza

Saiatu naiz tenplu doriar, **joniar** eta korintoarren eraikuntzan bete beharrekoak diren proportzioak zein diren esaten. Santiago Iruretagoiena

**2** Joniako herritarra.

**Joniarra** eta egiptoarra ibai-bazterrera abiatu ziren; feluka bat iritsi berria zen. Jon Muñoz

"Oin azpian duzuna ere ikusi ez, eta zeruan gertatzen dena asmatu ahal izango duzulakoan" -egin zuen garrasi Léak ahots garratzez, **joniar** tentela antzeratuz-. Jon Muñoz

---

# **joniko** **1** *izlag* joniarra.

Arte-denda merke batean erositako zutabe doriko eta **jonikoak** . Aritz Gorrotxategi

**2** grekoaren joniar dialektoa.

Koiné hori atikoaren eta **jonikoaren** nahastetik sortu zen. Isabel Arrigain

---

# jonio1 *izlag* joniarra.

**Jonio** itsasoak. Xabier Amuriza

**2** *iz* grekoaren joniar dialektoa.

[...] **jonioz** [...] bilakatzen dela. Isabel Arrigain

---

# jonki *iz adkor* heroinari atxikia, heroinazalea.

Unamuno plazan hiruzpalau **jonki** daude eserita, beste batek dirua eskatzen du. Sonia Gonzalez

Zubi azpiko bazter batean uzkurtuta **jonki** bi ari dira beso ubelduak ferekatzen, gerizpean. Paddy Rekalde

**Jonki** puta guztiak igualak dituk. Patxi Iturritegi

Ebe eta biok ez gara **jonkiak,** ez dut uste **jonkiak** garenik, ezin gara **jonkiak** izan. Sonia Gonzalez

**Jonki** itxurako hiru morroi seinalatzen. Paddy Rekalde

---

# jonkitu *izond* jonki bihurtua.

Gauza ederrekin gozatzen hasi eta laino guztien gaineko ezereztegietan flashaturik eta ezin bizizko ezleku arnasgabeetan flipaturik bukatu: horixe da mendizale **jonkitu** edo mendigoizale puntarengoaren karrera, heriotzaren mugetarainoko jolas zoro batek koroatzen eta tontortzen duena. Iñaki Segurola

---

## joño *interj adkor* harridura edo haserrea adierazten duen hitza.

**-Joño,** hi! herdoildu gabeko zati batzuk ere bazauzkak! -esan zuen Julenek, barrez lehertuta-. Fernando Morillo

- **Joño,** seme, hemen haiz? Josu Landa

Hontan, han barruan zeukaten herritar batek ezagutu, eta: **Joño** Julian! Iñaki Segurola

- **Joño,** bere etxeko teilatua konpondu bazuen... Jon Alonso

- **Joño, joño**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

.

-Lasai egoteko, **joño**. Fernando Morillo

---

# jopu 1 *iz* zerbitzaria, bereziki gizarte feudalaren antolaketan.

Lurra gizarte-klase berri batek lantzen du, **jopuen** klaseak; klase hori libre izandako eta proletario bihurturiko gizonek eta liberto edo esklabo askatuek osatzen zuten. Koro Navarro

**Jopua,** jaunaren agiri baten bidez, edo usadioz, edozein pertsona jareginen kontra borroka zitekeen. Iñaki Iñurrieta

**Jopuek** ezin dute jauna askatasunez utzi, eta jaunek ezin dituzte **jopuak** saldu, jaurerriarekin batera ez bada. Koro Navarro

Feudoak mugigarri ziren garaian, erresumako lur guztiak feudoak izan balira, eta erresumako gizon guztiak haien mendeko basailu edo **jopu,** [...]. Iñaki Iñurrieta

Erregeak, elizgizonek eta jaunek zerga arautuak biltzen zituzten, bakoitzak bere jabetzetako **jopuengandik**. Iñaki Iñurrieta

**Jopu** ez ziren frankoek ez zuten zergarik ordaintzen. Iñaki Iñurrieta

Gizon libreak feudoak edukitzeko gai izan arren, badirudi [...] **jopu** jareginek ezinezkoa zutela horrelakorik. Iñaki Iñurrieta

Gauza bera zen **jopua** izatea eta zentsua ordaintzea, libre izatea eta ez ordaintzea. Iñaki Iñurrieta

Sistema anker baten hondakinak, munduko zapalduen ordezkariak, lurraren **jopuak**. Koldo Izagirre

Hirugarren dinastiaren hasieran, ia herritar xehe guztiak ziren **jopu**. Iñaki Iñurrieta

**2** irud/hed

Bizitzaren gorabeheren **jopua** izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

"Erregeneratu" beharreko jende baldar, elizaren eta tradizioen **jopu,** ezjakin, trauskil, apatikoa. Joxe Azurmendi

Begi-kliskadak irauten duen bitartean eszena bat behin ikusi, eta ordutan edo egunetan gogoan eduki zezakeena [...]; irudikapen eta oroimenerako berezko gaitasun miragarri baten jabe (edo **jopu)** zena. Xabier Olarra

-"Eraman nazazu bainugelara, Horacio **jopu** horrek!" -deiadar egin zuen Stanek. Lopez de Arana

-"Eraman nazazu bainugelara, Horacio **jopu** horrek!" -deiadar egin zuen Stanek. Lopez de Arana

**3** (hitz elkartuetan)

**Jopu**-familia, berriz, hirira aldatu zen, eta han jarri zen bizitzen, etxe batean zerbitzari. Jose Morales

Herri prehistoriko marjinatuen, **jopu** herrien teoria. Joxe Azurmendi

**4** (izenondo gisa)

Gerlari **jopu** haiek ez ziren inondik ere estimu gutxienekoak Feofar Khanen armadan. Karlos Zabala

Neska **jopu** harengan. Ibon Uribarri

**5** ***glebako jopu*** feudalismoan, lantzen duen lurrari lotuta dagoen jopua.

Zer egingo, eta, besteri agindua eman aitzur zezaten, beste horiek **glebako jopuak** izango ziren, noski, garai haietan jada bazen halako klase-diferentziarik. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
jopuengandik jasotzen (3)

---

# jopuntu *iz* jotzeko puntua; helburua.

Atean finkatu zuen linternaren **jopuntua**. Josu Landa

Joseluren begiek lurreko baldosak zituzten **jopuntu**. Josu Landa

-Amaitu da lehiaketa; orain beste **jopuntu** bati botako diot, baldin Apolok aintza ematen badit. Juan Kruz Igerabide

Bere eskuinean Remigio dago, geziz zulatua, bik alderik alde zeharkatu dute, aldi berean **jopuntutzat** aukeratu zuten bi mairuek belatzaren begia eta Sansonen besoa zeukaten. Jon Alonso

Raduan Husainiren emaztea ere bere maisiaketen **jopuntua** zen. Patxi Zubizarreta

Senarraren korromioaren **jopuntua** bilakatu zen [emaztea] eta gaixotasunaren erruduntzat jotzen zuen. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
joputu bilakatu (3)

---

# joputasun *iz* joputza.

Europa ekialdean, **joputasuna** zen oraindik nagusi, Erdi Arokoa baino basatiagoa gainera. Koro Navarro
Ez konkistak ez **joputasunak** ez die odola herri arrotzekin nahasi. Berria - Kultura
**Joputasunaren** eginbeharretatik askatzea. Koro Navarro

---

# joputu, jopu(tu), joputzen du *ad* jopu bihurtu.

Eskumuturreko ordulari ttikiok morrontza makurrenean lotu eta **joputu** gaituzte. Pello Zabala

---

# joputza 1 *iz* jopu denaren egoera.

Pertsonen egoerari, askatasunari eta **joputzari** buruzko auziren bat. Iñaki Iñurrieta
Erresistentziak, erreboltak, hiriak hartzeak, horiek denek biztanleen **joputza** zekarten. Iñaki Iñurrieta
Zenbait mendetan jende-zuzenbide bera erabiltzeak **joputzak** izugarri hedatzea ekarri zuen. Iñaki Iñurrieta
**Joputza** ez zen, beraz, erromatarren gauza berezi bat, ez eta askatasuna eta aitoren semetza barbaroena ere. Iñaki Iñurrieta
Gauza arrunta izan zen lur-jabeek lurrok elizei eman eta gero beraiek zentsuz hartzea, **joputza** horren bidez elizen santutasunean partaide zirelakoan. Iñaki Iñurrieta
**Joputzatik** atera. Iñaki Iñurrieta
Bestalde, ofizioak lantzen zituzten gizon libreak haietan jardun behar zuten jopu bihurtu ziren; **joputzek** itzultzen zieten ofizioei eta laborantzari hauei kendu zitzaiena. Iñaki Iñurrieta

**2** irud/hed

Herri mitiko hau, "independentziaren" aldezle heroikoa, bere kate eta **joputzaren** defendatzaile da aldi berean. Joxe Azurmendi
Laclosek tratatu feminista harrigarri bat ere idatzi zuen, andreen **joputza** zapartatzeko iraultza handi bat eskatuz. Markos Zapiain

**3** ***glebako joputza*** feudalismoan, lantzen duen lurrari lotuta dagoenaren joputza.

**Glebako joputza**, beraz, ezarrita zegoen jadanik Galiako parte hartan burgundiarrak sartu aurretik. Iñaki Iñurrieta

---

# joran *iz* gogo edo nahi bizia, egiteko bati ahalegin osoaz lotzen zaionaren jokaera.

Egia aitortzekotan, ez nuen nik garai hartan aita izateko batere **joranik**. Txillardegi
Aipuak behin eta berriz bilatzeko **joran** hori. Iñaki Iñurrieta
Nire sentiera guztiek, nire gurariek, nire **joranek,** jomuga aurkitua zuten noizbait ere! Matías Múgica
Boterearen **joranak** uztarpetu zuen, hiltzeko gogoak heldu zion eta ez zuen utzen libre. Anton Garikano
Halako berotasun bat sumatu nuen [...] zure agur-keinu horretan, barruko **joranari** eutsi edo jaregin tentsioan bazeunde bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
Mentxu kopaxka bat hartzeko **joranez** zegoen baina kafesnea eskatu zuen. Josu Landa
Gero piztiak eta abereak ikotika hasten dira larre marduletan eta ibai azkarrak zeharkatzen dituzte: horrela, zure lilurak atzemanik, **joranez** jarraitzen dizute gidatu nahi dituzun noranahi. Xabier Amuriza

---

# jordaniar 1 *izlag* Jordaniako, Jordaniari dagokiona.

AEBetako **jordaniar** negoziogizon bat ostatu hartzen zuen hoteletik bahitu zuten Poliziaz jantzitako ekintzaile batzuek, Basora hirian. Berria - Mundua
Abu Mussat Al Zarqaui **jordaniar** terroristak [...] lekuak hustu bide ditu., Abou Mazen palestinarra, Abdalla **jordaniarra**. Herria
Gerora eta kasualitatez jakin dut, ordea, Madrilgo inportatzaile **jordaniar** batek ekarria dela. Hasier Etxeberria
Ameriketako Estatu Batuetako Armadarentzat lan egin duen enpresa **jordaniar** bateko sei kamioi gidari sudandarren hilketa iragarri zuten ekintzaileek. Berria - Harian

**2** Jordaniako herritarra.

Azken asteotan bahituta izandako lau **jordaniar** eta bi turkiar kamioilari askatu egin dituzte.
Bi **jordaniar,** bi pakistandar eta irakiar bat bahitu zituzten. Berria - Mundua
Azken asteotan Iraken bahitutako 9 **jordaniarren** askapena lortu du Ammango Gobernuak. Berria - Mundua
Bagdadeko aginteak huts eginda, **jordaniarrek** «ordainduko» dutela dio Ammanek. Berria - Mundua
Besteak **jordaniarrak** dira. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
al zarkaui jordaniarra (9); al zarkaui jordaniarraren (9); buruzagi jordaniarraren (6)

---

# jori 1 *izond* ugaria, oparoa. ik **naro.**

Landaretza **jorian** da bidexka, suge bat iduri. Piarres Aintziart
Arbola **jorien** fruituak. Elizen arteko biblia
**Belar** jorien zainak gailenduko dira. Xabier Olarra
Lore eta fruitu bikain eta **joriak**. Elizen arteko biblia
Lur **joriko** herrialdea da, abereetan, landareetan, mineraletan oparoa. Karlos Zabala
Egiptoko eskualderik **joriena** emango diet, eta lurraldeko emaitzarik hoberenak izango dituzte janari. Elizen arteko biblia
Nire adiskideak bazuen mahasti bat malda **jori** batean. Elizen arteko biblia
Anaiak betile **jori** luze ederrak zituen. Daniel Landart
Bekain beltz **joriek** bi zeru galernatsu babesten dituzte. Eider Rodriguez

**2** (gauza abstratuekin)

Maiatz mardul **jorian**. Juan Garzia
Laboratorio ostera bisitatua poz-iturri **joria** da. Juan Garzia
Hiztun trebe eta **joria** zen. Elena Touyarou
Bere prosa labainkor eta **jorian** txertaturik. Jon Alonso

Alferrik Agerreren latin **joria,** doktore gehienenaren gainetik zegoena. Aingeru Epaltza

Indiako industriarik gotorrena eta filmagintzarik **joriena** Bonbain loratu dira. Gotzon Garate

Etorri **joriko** gizakiak hitz egokiak erabiltzen dituela. Imanol Unzurrunzaga

Gorroto zuen Smith-en erromantizismo **joria,** haren imintzio landuegiak eta bulkada sasi-heroikoak. Oskar Arana

Bazirudien deus ez zela bizirik irtengo uholde hartatik, ilunpe **jori** hartatik. Anton Garikano

Kontu korronte **jori** bat zen Inesen bizigarria. Migel Angel Mintegi

Epe luzera negozio-iturri **joriagoa** da hedabideetan kanpainak eginez populazioaren zaletasunak aldaraztea. Edorta Agirre

**3** haragia edo kidekoak ugari dituena.

Ezdeusetara etorriak ziren behialako haragi **joriak** . Aingeru Epaltza

Antzara gizen batzuk zeuden esekita [...] lepoa luze eta tente, sabelaren masa **joriak** bere biluztasun gorrixka puzten zuela lumatxa finen azpian. Karlos Zabala

Haren gorputz argalaren hezurrak larritzen ziren bular **jori** haiek ukitzean. Karlos Zabala

Neskato eder xarmantak bular **jori** eta zuria erakusten baitzion. Ibon Uribarri

Farfaildun blusa bat jantzirik zegoen emakume hura, golko **joriaren** goiko bihurguneari oratutako kameu handi batez apaindurik. Lopez de Arana

Mirrin eta Mirrintsa bikote adoretsua eta, nola ez, Negar Anpulo andere **joria** . Jose Angel Irigaray

**4** (adizlagun gisa)

Heze eta **jori** daude landazabalak, pozez apaindurik mendi-muinoak. Elizen arteko biblia

Bularrak sosten beltzaren kanpotik jarriak dituzu, **jori** abailduz errealitatera. Eider Rodriguez

Haizea pixka bat epeltzearekin **jori** dator zomorroa argizko sarera. Pello Lizarralde

Bien gorputzak uztartzen ziren, behin eta berriz, atseginezko intziriak ugari, eta keinu amultsuak **jori,** iragana ahantziz. Elena Touyarou

Ur gehiago dauka, eta anpulurik ez, ur-lasterra **joriago** baitoa. Joxe Austin Arrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zabal eta jori** (3)

---

## **joriki** *adlag* joritasunez.

Zeren emazteki haren gorputza abaraska bat zen eta lepoa olioa baino leunagoa zuen, eta zeren, Mignon ez bezala, perfumatu egiten baitzen, **joriki** eta largoki, Sabako erregina iduri... Joan Mari Irigoien

---

## **joritasun** **1** *iz* joria denaren nolakotasuna.

Oparotasuna eta **joritasuna** ziren nagusi alderdi guztietan. Jose Morales

Animalia- nahiz landare-espezieen **joritasuna** . Juan Garzia

Oihan tropikalaren **joritasuna** . Iñaki Mendiguren

Naturaren **joritasun** itogarriaren aurrean, araztasunik aratzena eta sinpletasunik erabatekoena bilatu nitian. Jon Muñoz

Metaforen **joritasunagatik** edo idazkeraren lirismoagatik. Berria - Kultura

Halaxe gauzatzen zen Maxek munduarekiko zuen harremana: neurritasunez, **joritasuna** ukatuz, alferrikako gauzak arbuiatuz. Jon Muñoz

Israelen handitasuna kaxkar bihurtuko da eta haren **joritasuna** murritz. Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan)

**Joritasun** ikusmira hark isilik eduki gintuen denboratxo batean. Jon Maia

---

## **joritu,** jori(tu), joritzen **1** da *ad* jori edo joriago bihurtu.

Bere aberastasunez fidatzen dena zimelduta eroriko da, zintzoa zuhaitz mardula bezala **jorituko** . Bien barnean hazitako isiltasuna **joritu** egin zen kanpora irtenda eta fruitu mingots bihurtu. Elizen arteko biblia

Itxuraz **joritu** eta guritu da egungo amaren zortea, baina itxuraz bakarrik ainitzena. Herria

Apainduz eta **jorituz** joan baitira kantari talde horren xaramelak, horra nun dugun aberastua eta hazia lehenago nekez hasi omen zirenen xarma hura. Herria

Eta neure eginahalak Guztiahaldunaren bedeinkazioaz **joritzen** ikusiko ditudan unea izanen da nire bizitzako unerik ederrena. Jon Muñoz

• **2** du *ad*

Emakumeek etxeaz arduratzeko, josteko, senarrentzako jantziak egiteko eta baratzeak **joritzeko** erabiliko zutela denbora. Jose Morales

---

## **jornada** **1** *iz* eguna.

Hori zen baserritarraren laneko **jornada:** goizean goiz, izarrekin hasi, eta eguna joatean, ilunabarrarekin batera, ahituta, akituta, izarrekin aki. Pello Zabala

Garate hemezortzi ordu jarraian aritu zuan lehengo astean, ez zuan kabinatik jaitsi **jornada** osoan, hebaindua zegoan hurrengo egunean. Koldo Izagirre

**2** gurdi baten edukia.

Belar-onduarekin azken **jornada** edo gurdikada etxeratzean. Pello Zabala

Gozo-gozo noa aurrerantz, eskuin-ezker balantzaka, **jornada** belar bat banintz bezala. Josu Zabaleta

---

## **jornal** *iz* eguneko soldata; soldata.

Ezagutu dut ere emazteño bat " Sei-Sos " emana baitzioten izengoitia, etxez-etxe luzaz ibilia jostun lanetan , sei soseko **jornala** hartzen baitzuen, eguerdiko jana bestalde... Herria

Esandako **jornala** pagatu zion. Matías Mujika

**Jornala** kobratuta etxera noa ni. Patziku Perurena

Jeneroa garraiatzen irabazten zuen **jornala** . Xabier Etxabe

Lehen diru gutxi zegoen, eta bi **jornal** ateratzeko... Iñigo Aranbarri

Soinujolearena eta bertsotakoa, bi **jornalekin** etxera! Berria - Kirola

**Jornalean** ere konforme etorri ziren: berrehun libera. Matías Mujika

Orain lanpostu ederrarekin dago Diputazioan, **jornal** handia irabaziz. Iñaki Zabaleta

Esaiok Frantziskori, sal diezadala **jornal** baten izerdia. Askoren artean

**Jornalaren** puskarik handiena Urtxipiarendako beharrean ateratzen zian, berriemaile huts gisa hasieran. Aingeru Epaltza

Langile on baten eguneko **jornala** libera bat zela. Michel Oronoz

Hildakoenak bezala, presoen familiak, gizonen eguneroko **jornaletik** bizi zirenak, behar gorrian geratuko ziren harrezkero. Joseba Sarrionandia

Kontratista batekin ibiltzen omen zen, **jornalean**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# jornalari *iz* jornalean dabilen langilea, bereziki lehen sektorean.

Berrehun **jornalari** inguru aritzen ziren garai batean finka hartan lanean. Jon Maia

Langile, **jornalari,** familia pobreko izatea nahikoa izan zatekeen atxilotua eta fusilatua izateko. Jon Maia

Esaten zenez, zenbait boladatan, inguruotan gehiago ziren lapurrak **jornalariak,** erretxin-biltzaileak edo bestelakoak baino. Jon Maia

Gero **jornalari** hasi zen, herriko lur sailez baliatuta, eta Pedrok, berriz, zerriak zaintzen jarraitu zuen. Jon Maia

Bizitza osoan **jornalari,** nekazari, abeltzain lan egin zuen jende harentzat forjatze lana, makina lana, labea, burdina goria, pabiloia, fabrikako bizimodua, oro har, jasanezina zen. Jon Maia

Zazpi laguneko **jornalari**-familia baten ukuiluak estilo hobea din. Anton Garikano

---

# jornalaritza *iz* jornalean ibiltzea.

Menyhért Lakatosek bere autobiografia nobelatuan romungoroak (Hungariako ijitoak), **jornalaritzara** joanda, korta handietan zelan biltzen, zelan kantatzen, zelan sexu jotzen zuten kontatzen digu. Pablo Sastre

---

# jornaldun *izond* jornalaria.

Azen ontzeko, **jornaldun** ainitz gero eta berantago lotzen lanari, ikasketak luze eginik... Herria

---

# jornalero *iz* jornalaria.

Ez musikari gisa, **"jornalero"** baizik. Koldo Izagirre

Han **jornaleroak** ziren, eta hemen jende asko fabriketan itxirik lan egitera ez zen ohitu. Berria - Kultura

---

# jorra 1 *iz* jorratzea.

Ondotik bigarren **jorra** ematen zitzaion alorrari, gorotza, arbi hazia, pagoxa hazia edo zena zelakoa nahastu bidenabar. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Zopizatze lanetan eta **jorra** lanetan ere. Pello Zabala

**Jorra**-kontu eta baserriko lanbideaz aparte. Pello Zabala

· Martxo **jorra,** urguilu **jorra;** Apiril **jorra,** behar **jorra;** Maiatz **jorra,** lasto **jorra**. Pello Zabala

Eta segur bazen lan mota frango laborari etxeetan: arto **jorrak,** arto biltzeak, arto xuritzeak, ogi joiteak, belar egiteak, belarketak, egurketak, iratze epaiteak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**3** ***jorran*** *adlag* jorratzen.

Horiek hola, aise da hiri handietako bizi-moldearen **jorran** artzea. Herria

Etchelet, kontent naiz zure galde pullit eta goxuaz, aritzeko partez elgarren **jorran** edo politika itsuan. Herria

· Arto **jorran** denak aitzurrekin lerroan genbiltzala. Pello Salaburu

**4** ***potro jorran***

-Zer egin beharko nuke... zabortegi honetan apatx egin eta potro-**jorran** aritu gau osoan? -galdera erretorikoa botatzen zuen tupustean. Mirentxu Larrañaga

Potro **jorran** egoten nintzen. Jesus Mari Mendizabal

Gaurkoari dagokionez, ez duk pentsatuko orain arte potro **jorran** ibili naizela, ezta? Aingeru Epaltza

· Estudiante tunantearen eredurik klasikoenean ibili zitzaigun han; potro-**jorra** alegeran, nahi bada. Aingeru Epaltza

**5** ***titi jorran***

Ahal genuena eginez, ipurdi-heltzen, titi-**jorran** eta musuka, han errenditzen gintuan. Pako Aristi

[...] nola ikusten dituzuen urrun holako akademia guztiak, balio ere, ez baitakizue zertarako balio dezaketen, titi **jorran** ibiltzea, barkatu hain gordin ibiltzea, askoz ere atseginago gerta daitekeen adin horretan. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> arto jorran (3); letra jorran (59); potro jorran (3)

---

# jorragai *(corpusean **jorra gai** soilik) iz*

Besoak gerriko pleguan berriz plantaturik, Txokok suntsitze zuzena miretsi zuen unean, bezperako dantzaldian eta Otsabideko karriketan zebilen momentuak zituen **jorra** gai. Itxaro Borda

---

# jorrai *iz* jorratzeko aitzur txikia.

**Jorraiak** eta aitzurrak oraintxe dute lan: gure jorrailan juxtu. Pello Zabala

Baina, aldiz, frankoago eta eskuzabalago zen eta, zuenarekin kontentatzen zelarik, aitzurraren berdin nahian dabilen **jorraia** ez bezala, ez zuen beregainezko eta ezinezko insulekin amesten. Joan Mari Irigoien

Badea munduko gizon ezaguturik edo gai handirik bere sailean jorratu ez duenik eta ez nola nahiko **jorraiarekin** gainerat! Herria

---

# jorrail *iz* apirila.

Gure hizkuntzan, **jorraila** aparte utzita, *april* eta *apribil* izena ere hor daukagu. Pello Zabala

Neguaren azken trixteak, asko penatzen du apirilean aurrera: **Jorrailean** negu, laborariok, gaixo gu! Pello Zabala

Iparraldean **jorrail**-ogi deitzen zaio pazko-opil jenero bati. Pello Zabala

**jorraketa** 1 *iz* jorratzea.

Ederki etorriko litzaioke **jorraketa** bat baratzeari, eta belar gaiztoa sortzen duten tipulatxo ahalik eta gehien bertatik kentzea. Hasier Etxeberria

**2** jorratzea, lantzea.

Ez zuten uste halako **jorraketa** filologikoetan beren literatur nahia asetzeko biderik izango zutenik. Iñaki Iñurrieta

Tema zahar batek garamatza, ordea, nolabaiteko estilo-ezaugarri batzuk ezartzeko lan ez batere errazagora, barra-barra dabiltzan bizpahiru hitz fetitxeren **jorraketatik** abiaturik. Juan Garzia

Tema zahar batek garamatza, ordea, nolabaiteko estilo-ezaugarri batzuk ezartzeko lan ez batere errazagora, barra-barra dabiltzan bizpahiru hitz fetitxeren **jorraketatik** abiaturik. Juan Garzia

Su-etenaren ondoren bi mahaiak abiatu (ETA eta Gobernuaren artekoa eta alderdiena), bigarren mahaiaren **jorraketak** ekarriko du lehenengoa ixtea.

---

**jorraldi** 1 *iz* jorratzea.

Hauteskunde zerrenden **jorraldiaren** ardura hartu duen administrazio batzordeak arrazoin bezala aintzinatu du "bizileku aldaketa". Herria

**2** gogor kritikatzea.

Hasiak dira **jorraldiak** Bush-en kontra, ohartzen baitira jendeak nolako agintariak dituzten. Herria

Etzaizko gustatu gisa guziz amerikanoek Irakian ukan dituzten kritika eta **jorraldiak**. Herria

Euskal literatura munduaren **jorraldi** bat! **Jorraldi** gogorregia ote? Herria

---

**jorratu**, jorra(tu), jorratzen **1** du *ad* lur landuetan belar txarrak atera.

Eta baratzea artoski artatzen zuen, arratsalde osoak han iraganez, hau landa, hura **jorra,** hemen zurkaitzak ezar, hantxe tomateak esteka. Daniel Landart

Azkenean nor bere etxera abiatzen zen, lur azala aski **jorratua** zela ohartzen ginenean. Itxaro Borda

Aitzurka jarraitu zuten, mahastia **jorratzen,** hostoak bekandatzen eta mihimen multzoak gerrian zintzilik, abarrak alanbreari estekatzen. Itxaro Borda

Belar txarrak kendu eta pixka bat **jorratu** geninan lurra, gauza ondo hasteko. Anton Garikano

**Jorratu** gabeko baratze bat dugu hau, hazitarako utzia. Juan Garzia

Ogiak dira burutu, artoak ere **jorratu**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizonak jira egin, eta lurraren mailaz gorako parterre **jorratu** berrian itsatsi ditu begiak. Patxi Iturritegi

Garai horretan **jorratzen** ziren gure landak. Pello Salaburu

**2** landu, jardunean erabili.

Punteneko bat-bateko bertsolariek oso gutxi **jorratzen** duten arloa da. Andoni Egaña

Anitz **jorratu** du Hizkuntzaren Filosofiak. Askoren artean

Estatuek lankidetza **jorratu** behar dute nazioarteko zuzenbidea garatzen jarraitzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal Herrian kulturaren transmititzeko zenbait bide **jorratuak** izan direla ohartzerik. *Truth and Logic* liburuan **jorratzen** duen teoriaren defendatzaileek judizio etiko oro esanahirik gabea dela aldarrikatzen dute. Askoren artean

Estiloa **jorratzeko**. Askoren artean

Atalez atal irakurtzen bada, berriz, gehien interesatzen zaizkigun alderdiak **jorratu** ahal izango ditugu. Askoren artean

Mahai baten inguruan elkarrizketa eta negoziazioaren bidea **jorra** ziteekela. Berria - Euskal Herria

Jiro Taniguchik [...] **jorratua** zuen jadanik kostunbrismoaren esparrua. Berria - Kultura

Tira, alda dezagun solasgaia, kontu ilun nahikoak **jorratu** ditinagu eta. Migel Angel Mintegi

Zuzenbidea ikastean eskubide erromatarra asko **jorratu** genuelako. Ramon Saizarbitoria

Ezinbestekoa litzaiguke kristautasunak liburuan zehar duen itzala **jorratzea**. Anjel Lertxundi

100eko 100 euskaldun izaiteko ametsa **jorratu** duelarik Itxaro Bordak, bere luma xorrotxarekin, [...]. Piarres Xarriton

Irakurtzeko dugun guztia birritan dagoeneko irakurrita, nazkatu egiten gara kartetan eta, **jorratuaren jorratuaz** betiko solasgaiak agorturik, mutu irauten dugu ordutan. Xabier Montoia

**3** gogor kritikatu, gaizki esaka aritu.

Bere karguko lehen mintzaldian ederki **jorratua** zuen ere Georges Bush amerikarra. Herria

Ezkerraldekoak ziren ari erran eta erran parada hauta dela gobernuaren azkarki **jorratzeko**! Herria

Anartean, ezkerraldean gogorki **jorratzen** dituzte gobernuaren xedeak bai eta aintzin-kondu horiek. Herria

Komunistekin bidaide izanak dira biak, bainan Txekoslobiako gertakarien ondotik **jorratu** dute Sovietar Batasuna, han zen diktadura. Herria

Fernando Barrena Batasuna alderdikoak gogorki **jorratu** du Nafarroako gobernua, erranez taliban delakoen joka-bide bertsua duela. Herria

Beste batzuk **jorratu** dute, eskasegia dela, xuhurra, garbitasunik gabe nork duen ere holako saila akulatuko azkenean. Herria

**Jorratu** ditu ere Iparraldeko hautetsiak, ez dutelakotz preseski salhatzen debekatze hori. Herria

**4** (era burutua izen gisa)

Solasaldi luzea izan genuen, gure idazle kutunenei **jorratu** bat eman genien, berak ezagutzen ez zuen Hannibal Lecter-en azkenengo abenturara heldu ginen arte... Juan Martin Elexpuru

**5** ***potroak jorratu***

Zoroaldia bat-batean pasaturik, potroak **jorratu** zituen eta lehengo tonuan ekin zion ostera ere: [...]. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alor guztiak jorratu** (3); **alor jorratu** (3); **bide bera jorratu** (3); **bide berriak jorratu** (3); **bidea jorratu** (12); **bideak jorratu** (3); **bitan jorratu** (3); **gai guztiak jorratu** (3); **gai jorratu** (17); **gai jorratu zituzten** (4); **gai ugari jorratu** (3); **gaiak jorratu** (9); **hainbat gai jorratu** (9); **ildoa jorratu** (3)

**bide hori jorratuko** (3); **bilkuran jorratuko** (3); **gai jorratuko** (15); **gaia jorratuko** (9); **gaiak jorratuko** (9); **hainbat gai jorratuko** (11); **jorratuko diren gaiak** (3); **jorratuko dituzten gaiak** (3); **konferentzian jorratuko** (3)

**jorratutako bide** (4); **jorratutako gai** (3)

**bidea jorratzea** (3); **gai batzuen jorratzea** (3); **jorratzea erabaki** (4)

**bide berriak jorratzeko** (4); **bide hori jorratzeko** (7); **bidea jorratzeko** (5); **bideak jorratzeko** (4); **gaia jorratzeko** (6); **gaiak jorratzeko** (3); **jorratzeko aukera** (3)

**arazoak jorratzen** (4); **bide berriak jorratzen** (3); **bidea jorratzen** (12); **bideak jorratzen** (3); **gai desberdinak jorratzen** (3); **gai jorratzen** (8); **gaia jorratzen** (13); **gaiak jorratzen** (16); **hainbat gai jorratzen** (5); **jorratzen duen gaia** (3)

---

**jorratzaile** 1 *iz* jorratzen duen pertsona.

**Jorratzaileak,** laguntzera etorririk, gorputzetik ateratzen ari zitzaion piztia ikusi zutenean, ihesi joan ziren oihuka. Josu Zabaleta

Artzainak, itzainak, espartingileak, ehuleak, txokolate prixa moldatzaileak, nago idokitzaileak, arto **jorratzaileak,** sagardogileak. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Cíari buruzko hirukoa, konparazio batera, emakume soro-**jorratzaileei** buruzko poema luze baten parte zen. Fernando Rey

---

**jorratze** **1** *iz* lantzea.

Helburu horrekin bildu zela denbora luzez Legebiltzarreko Mahaia, eta helburu horrekin erabaki zutela Manuel Huertas PSE-EEko legebiltzarkide eta Mahaiko idazkariak proposatutako bidea **jorratze,** gehiengoa bilduta Gorenaren eskea bete ahal izateko. Berria - Harian

**2** gogor kritikatzea, gaizki esaka aritzea.

Zenbaitek hor ikusi dute Bush presidentaren **jorratze** garratz batez besterik ez dela hori. Herria

---

**jorratzeke** *adlag* jorratu gabe.

Adegiren «azkeneko eskaintzak» zenbait gai behar bezala **jorratzeke** utzi zituela ikusirik, proposamen propioa aurkeztu zioten patronalari. Berria - Ekonomia

«Bere dokumentazioa **jorratzeke** dago» dio, «eta oraindik ez dakigu zer aurki dezakegun». Berria - Kultura

---

josahala ik **josi 10**.

---

**josarazi**, josaraz, josarazten *(orobat **josiarazi**)* **1** du *ad* jostera behartu.

Diru harekin, bi janzki **josarazi** zituen, bere neurri neurrikoak. Eneko Bidegain

Gorpuak baltsamatu eta lastoz betearazi, beren lehengo botere aulkietan jarri eta bertan iltzez **josiarazi** zituen. Xabier Olarra

**2** *irud*

Aitak zutitzera egin zuen, baina Ciro zaharrak keinu batez **josiarazi** zuen aulkira. Koldo Biguri

---

**josi**, jos, josten **1** du *ad* hariaren eta jostorratzaren bitartez, batu, lotu, elkartu (bi ehun zati) edo atxiki (zerbait ehun zati bati).

Arku bat egitea, tunika bat **jostea** . Anton Garikano

**Josi** borlatxoak purpura-hariz soineko-ertzetan. Elizen arteko biblia

**-Josi** ditzagun poltsiko batzuk jantzietan, behar izanez gero dirua eraman ahal izateko. Josu Zabaleta

Trebetasun handiz, zauriaren ertzak **josi,** eta, nylonezko puntada bakoitzean, bost korapilo egin zituen. Xabier Olarra

Usu, ordea, sugeei ahoa **josi** egiten omen diete edo letaginak kendu. Gotzon Garate

Zapata-zoru batzuk **josteagatik** ordaindutakoaren paper-mutur zimurtu bat. Anjel Lertxundi

Zapiak elkarrekin **josi** zituzten bosnako bi sailetan. Elizen arteko biblia

Goioren jertseak zuloak zituen ukondoan eta amak larruzko adabakiak **josi** behar zizkion. Joseba Sarrionandia

Tunika barnetik **josia** zeukan adabakia askatzen hasi zen. Askoren artean

Piku-hosto batzuk **josi** eta estalki bana egin zuten. Elizen arteko biblia

Galtzak janzten lagundu zion eta gakorratzez **josi** zizkion gerrialdean. Mirentxu Larrañaga

Bi doblako oihal bat lotu zion soineko **josi** berriari barrutik. Anton Garikano

Bellevue eritegiko sendagileek nekez **josi** zizkioten bi puskak. Gotzon Garate

Botoinak **josi** behar ziren, eta botoin xiloak inguruan bordatu. Marzel Etxehandi

Han ari zen sareak **josten,** beste sei saregileren artean jostorratzari eskularruarekin eusten. Joseba Sarrionandia

Ahizpa etortzen da ilunabarrero nire makinan **jostera** . Koldo Izagirre

*ik beherago* 10. Askoren artean

Zapata-zolak **josteko** iltze txikiez. Anjel Lertxundi

Andreen orraziak eta **josteko** orratzak. Juan Garzia

**Josteko** saskia hartu eta botoia josi du. Itziar Otegi

Zabalik utzi du bere **josteko** mahaiko tiradera. Itziar Otegi

**2** irud/hed

Horren inguruan **josi** nuen ez soilik aitari buruzko ustea, baita judua nintzela jakin aurreko bizitza guztiaren ehundura ere. Anjel Lertxundi

Horretako hariak benetan zelan **josi** diren, FBIk ere badu bere iritzia. Edorta Jimenez

Horien eredutzat Dominikar Errepublikan **josi** den sarea jo daiteke. Edorta Jimenez

Maisuaren izena esan du, bere barruko logikaren hariaz **josiz** akorduak. Edorta Jimenez

Mendekua hartu du gai nagusi eta horren harian **josi** ditu **liburuko** zazpi ipuinak. Berria - Kultura

**3** erabat lotu.

Zaldi gainean haren bizkarrari **josia** bainindoan, ezin hark ni ikusi. Aingeru Epaltza

Zandariak iratzartzen baziren ekintza galduko baitzen, kizkurtu ginen, harresiaren itzalari **josiak** . Jon Alonso

Hain erraz ahaztu ote nuen bizitza osorako aulki [gurpildun] batera **josi** ninduen putakumea? Alberto Ladron Arana

Iduri du ainitz bikote gaztek nahiko dituztela bi deiturak **josi** . Herria

Gure bien gorputz biluzgorriak plazerak arrendaturik azkenean, elkarri **josiak** dautzala. Aurelia Arkotxa

Zaldiak ez zirela lekutik mugitzen, lurrari **josirik** baleude bezala. Jose Morales

Orduan erruaren ziztada mingarria nabaritu zuen bularrean **josita** . Joanes Urkixo

**4** irud/hed

Ene izaiteko manera, joera, ibiltzea da, hots urratsa urratsari **jostea,** plazer hutsez. Piarres Aintziart

Hor gabiltzak hitza hitzari **josi** eta parrastadan boteaz. Patziku Perurena

Baina ganberaburua hainbeste asaldatu zen bera ikusi zuenean, ezen ezin izan baitzuen taxuzko esaldirik **josi** . Jose Morales

Bezeroen zerrenda zen, letrari letra **josten** doi-doi dakien baten baldartasunaz idatzia. Anjel Lertxundi

Literaturak (letrak elkarri **josteak)** eskaintzen dituen aukeren aurkikuntza eta ikerketa. Iñigo Aranbarri

Errima-hitza puntuan sintaktikoki **josi** beharrean. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Sorkuntza kolektibo horretan ere, norbaitek txatal solteak **josi** behar zituela konturatu eta idazten hasi nintzen. Ana Urkiza

**5** (paper orriak) elkarri atxiki eta gai gogorren batez estali.

Faszikulu handitan **liburu** moduan **josirik**. Fernando Rey

Ehun liburu-gorputz baino gehiago aurkitu zituzten handiak eta oso ongi azal- **josiak**. Patxi Ezkiaga

**6** gauza bati beste bat irmoki finkatu, bereziki zeharkatzen dituen zerbaiten bidez.

Esku-oinak iltzez **josiak** zituen eta eskuineko saihetsa lantzaz zulatua. Askoren artean

"Miscelanea Epiflora" eta gisa horretako izenak zituzten tximeleta haiek harrapatzen, gero etxean orratzez **josteko**. Iñaki Iñurrieta

Ukuiluko ate-leihoak iltzez **josi** eta zigiluak ipini zizkieten. Koldo Biguri

Berehala tapa jarri eta iltzeekin **josi** zuen. Martin Anso

Saulek hil egin nahi izan zuen David, lantzaz hormari **josiz**. Elizen arteko biblia

Burdinazko ezten batez **josi** zioten burua, azkenik, lurrari. Pello Zabala

Eta ez al nituen barkatu gurutzean **josi** nindutenak? Koldo Biguri

Rosiek orratz batez **josi** zituen arrosak bere larruzko berokian. Lopez de Arana

Motor finkoa, oinarri-plaka astun bati torlojuz loturik egoten da, oinarri-plaka zorura irmo **josia** dagoela. Irene Aldasoro

· -Eta iltzeak **josi** zizkiotenak ere salbatu ziren? Juan Garzia

Argi bizi betearekin batera, Claudio Rodríguezen "Argitasuna zerutik dator beti" bertsoa **josi** zait gogoan. Anjel Lertxundi

**7** irud/hed

On Camillok eta Pepponek kanaberadira **josi** zituzten begiak. Angelaren begiak nigan **josi** ziren berriro. Koldo Biguri

Begiak hari **josiak,** erdi hipnotizaturik. Xabier Montoia

Begirakune iluna **josi** zion, zalantza une batez, hitz haiek sinetsi ezinik. Patxi Zubizarreta

Gizonak begirakune susmagarria **josi** zion. Patxi Zubizarreta

Bertaratuek **josi** zizkioten jakin-minezko begirakuneei erantzun nahian. Patxi Zubizarreta

**8** erabat bete.

Jendez **josiriko** gela handi batean. Gotzon Garate

Bi ebaslek tiroz **josi** zuten. Gotzon Garate

Erleek ziztadaz **josi** zaituzte. Jose Morales

Haiek kolpez **josi** eta elurrez beteriko zulo sakon batera jaurti zuten. Askoren artean

Basakeria izugarriz eraso zioten eta zauriz **josi**. Askoren artean

Eta mutilari heldu, musuz **josi** eta lotsagabeki esaten dio: [...]. Elizen arteko biblia

Lokatzez **josia,** izozturik eta hozmindurik. Askoren artean

Erdara mordoilo eta biraoz **josia**. Edorta Jimenez

Auziz **josi** zuten; ezerk ez zuen, ordea, haren mendekua geldiarazi. Josu Zabaleta

Zirkuluz eta esferaz **jositako** zeru hori. Jon Muñoz

Dena errepide kontrolez **josi** dute eta zenbait auzo etxez etxe ari dira eskuaretzen. Harkaitz Cano

Munich bezalako hiri handi eta industriaz **josi** batean. Alberto Ladron Arana

Joskera ezinago astuneko bi gutun teknologismoz **josi** haiek berrirakurriz. Juan Garzia

**9** (era burutua hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Hotsetan eta hitzen **josi**-etenetan arnasari lagunduz ibiltzen asmatzea. Iñaki Segurola

Handik hegatzen da ezinka beti, sekula ez hotsetatik eta beren **josi**-urratuetatik. Iñaki Segurola

Bere eskuko esanen talka bat, esaldien **josi**-askatze bat, esanahien elkar-urratzea eta hotsen gurutzatze atzenkorra. Iñaki Segurola

**10** ***jos ahala urratu izan*** *(orobat* ***josahala urratu****)* du *ad ipar* egitekoez mintzatuz gainezka izan.

Hala ere badute juje horiek **jos-ahala urratu** ezen, trenkatzen dituzten baino afera gehiago jiten zaizkie mahai gainera. Herria

1856an Lacroix apezpikuak Deiheralde eta Hazparneko misionesten gain eman nahi izan zutela hango euskaldunen ardura, bainan **jos ahala urratu** bazuela jadanik hemengo misioneekin. Xipri Arbelbide

Frantzia behere hortan ere badute **jos-ahala urratu** oihan eta larre askotan suari ezin ihardokiz! Herria

Demokrazia berpizten ari Espainian eta bazuketela **jos ahala urratu**, segurrenik ere. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**11** ***josteko makina***

Izkina batean zegoen **josteko** makina, Sigma zahar bat. Jasone Osoro

Goialdetik, **josteko** makinaren hotsa zetorren. Lopez de Arana

**Josteko** makina martxan jarri du berriro. Izarak eta estalkia albaindu nituenean konturatu nintzen **josteko** makina ganbaran neukala. · Zenbaitek ondoan, eta geroari buruz garantia baten ukaiteagatik, **josteko** mekanikaren erabiltzen ikasi zidaten. Iban Zaldua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**jos ahala urratu** (8)

**adabaki batzuk josi** (3); **begirakune betizua josi** (3); **begirakunea josi** (9); **begirakunea josi zion** (6); **elkarrekin josi** (3); **elkarri josi** (6); **ezpainak josi** (4); **faltaz josi** (3); **galderaz josi** (3); **gurutzean josi** (5); **iltzez josi** (5); **labankadaz josi** (4); **lurrean josi** (3); **musuz josi** (3); **tiroz josi** (8); **zauriz josi** (3)

**arriskuz josia** (3); **hostoz josia** (3); **minez josia** (3); **zauriz josia** (9); **zauriz josia zegoen** (3); **zimurrez josia** (3)

**elgarri josiak** (13); **elkarri josiak** (7); **josiak begiak** (3)

**lurrari josirik** (4); **zauriz josirik** (4)

**kontrastez josiriko** (3)

**ahoa josita** (4); **babaz josita** (4); **balaz josita** (5); **begiak josita** (6); **iltzez josita** (5); **izarrez josita** (4); **lorez josita** (3); **lurrari josita** (3); **ondo josita** (3); **paretan josita** (3); **tiroz josita** (3); **zuloz josita** (9)

**; adabakiz jositako** (6); **diruz jositako** (3); **elkarri jositako** (3); **gorabeheraz jositako** (3); **izarrez jositako** (4); **jositako aurpegi** (3); **marra gorriz jositako** (3)

**elgarri josiz** (7); **elkarri josiz** (5)

**gurutzean josteko** (3); **josteko agindu** (3); **josteko gelara** (3); **josteko makina** (15); **josteko makinaren** (9); **josteko tresna** (3)

**adabakiak josten** (3); **adabakirik josten** (3); **afektuek josten dituzten** (4); **bata bestearekin josten** (3); **elgarri josten** (3); **galderaz josten** (5); **josten hasi** (8); **josten ikasi** (5); **josten ikastera** (3); **letrari letra josten** (3); **sareak josten** (4)

---

# joskera

**1** *iz* josteko era.

Trajea **joskera** ederrekoa zuen, aurpegia ere egikera tatxagabekoa, ahoa ere bai, hortzak ere bai. Matías Múgica

Gero, egurra garraiatzeko erabiltzen zuen zaku zahar baten **joskerak** baliatuz egindako kapusai gisakoa burutik behera jantzi, eta kalera irten zen. Anjel Lertxundi

**2** *irud*

Baina narrazioen arteko **joskera** eredugarria bada ere, are interesgarriagoak dira elementuen erabilera eta lengoaien arteko elkarketa aberasgarria. Berria - Kultura

Taldearen **joskera** goitik behera aldatu du: hiru zentral, lau erdilari, bi gehiago erasorako, eta aurrelari bakarra. Berria - Kirola

Halako batean, hariak **joskera** ez dakit nola ekarrita, Iturrino bertsolariaren ondorengo bat zela esan zidan. Anjel Lertxundi

Eta dantza-**joskera** bizian sartu zen gero bere lagunen artean; hain iaio eta pausu-biran arin, behin ere halako dantza bikainik ez zuela ikusi iruditu zitzaion Don Kijoteri,

horrelako dantzak ikusten ohitua bazegoen ere. Patxi Ezkiaga

**3** hitzen hurrenkera antolatzeko era; sintaxia.

Bestela esanda: nolako doinua, halako **joskera** (hitz-ordena). Patxi Altuna

**Joskerari** erreparatuta, perpausen osagaien ordenan dago aldaketa. Patxi Altuna

Erabat baztergarriak dira bizpahiru menpeko esaldiez jositako diskurtsoak, baita **joskera** desegokia duten perpausak ere. Txema Ramirez de la Piscina

Testuaren **joskerak** eta egiturak nolako behar duten. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Joskera** ezinago astuneko bi gutun teknologismoz josi haiek berrirakurriz. Juan Garzia

Musika hori sintaxiaren barru-barruko **joskeran** dago, eta, doinu horretaz jabetzeko, ezinbestekoa da klasikoak irakurtzea. Ana Urkiza

**Joskera** edo sintaxiari dagokion aldetik, esan nezake nereak omen diren bizi-puska sintagmatikoak elkarri josiko lizkioketen orratz eta bizi-hari paradigmatikorik ez dudala uste kausi litekeenik. Iñaki Segurola

· Hala ere, nahiago dut, aukeran, doinu-aldaketaz hitz egin, **joskera**-aldaketaz baino. Patxi Altuna

---

## josketa *iz* jostea.

**Josketa** utzi eta lurruna zerion ontzitxoa hartu zuen mahaitik. Josu Landa

Herriko neskarik politena ez bazen ere, grazia bazuen, **josketan** bezala hizketan ere. Jon Maia

---

## joskin *iz* jostuna.

Hoberena zuela **joskin** treberen bati goreneko botoia goraxeago jartzeko esatea. Xabier Olarra

Kantaminaren sinbolotzat gelditu zaigu ehulea (garbaria, irulea, **joskina)** gure usarioan. Patziku Perurena

Saint-Lazare geltokiaren aurrean, belarri suharrez entzuten hituenean hire soingainekoaren goreneko botoia etorri-iturri zitzaion pertsonaiaren **joskin**-aholkuak. Xabier Olarra

---

## joskintza *iz* joskinaren lanbidea; joste lana.

Bestelako ogibide batzuk ere badute tokia solairu horretan: artilearen prestakuntza, **joskintza,** errementaritza, zapatagintza, espartingintza eta abarkagintza, esaterako. Berria - Kultura

Esaten zuten paregabea zela **joskintzan**. Pello Lizarralde

Goi mailako **joskintza,** Pariseko modeloak. Monika Etxebarria

-Goi-mailako **joskintza** "estilokoa"? **Joskintzak** aurrera egin zezan bezerorik galdu gabe. Pello Lizarralde

Hippy izan zireneko garaietan bere lagunekin egiten zituen gauzak egin ahal izango lituzke berriro: **joskintza** etnikoa, buztinezko ontzien dekorazio etnikoa, otzara etnikoak, turistei saltzeko idunekoak. Oskar Arana

**Joskintzako** tresneria. Josu Landa

Hizpidea, te-mahai inguruan bildurik, **joskintza** alorreko puntu eta ereduei buruzkoa izan zuten. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **goi mailako joskintza** (3)

---

## joskura ik **jostura**.

---

## joslaritza *iz* jostundegia.

Aratsaldeko 3etan Ursuia karrikako **joslaritzan** ateak zabalik. Herria

---

## josle *(20 agerraldi, 4 liburu eta 6 artikulutan)* **1** *iz* ogibidez janzkiak egiten edo josten dituen pertsona, eskuarki emakume eta haurrentzako janzkiak egiten dituen emakumezkoa. ik **jostun**; **joskin**; **sastre**; **modista**; **tallur**.

Tersilla zeritzan **josle** baten etxean. Nire ama ere **joslea** zela eta soinekoak mozten zituela, baina amak etxean, soineko artistikoak nahi zituzten bezero aberatsentzat. Fernando Rey

Baina zer **josle** trebeak! oraingo neska gazteek ba ote dakite hain ongi lanean? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Alberto **josleen** atzetik ibiltzen zen, baina baita familia oneko nesken atzetik ere. Fernando Rey

Geroztik, oihaleria han erosiz, eta hango **josle** edo dendarier jauntziak eginaraziz, hemen saltzen dituzte gizonki ala emazteki arropak: zaiak, athorrak ala edozoin motako ekoizpenak. Herria

**2** (hitz elkartuean)

Gure amak **josle**-ikasle bat ere bazuen, Alice joslea. Fernando Rey

Eta amak gero bere **josle**-lantegiko paretan josten zituen, seme bat urruti zuela jakin zezaten bezeroek. Fernando Rey

---

## josta ik **josta**tu **4**.

---

## jostabide *iz*

**Jostabiderik** edo dibertimendurik ez zegoen bat ere. Fernando Rey

---

## jostagai *iz* jostatzeko gaia.

Haren karrikako mutikoen arteko **jostagai** bortitzen abia zen anaien arteko liskarra. Aingeru Epaltza

---

## jostagailu ik **jostailu**.

**jostagale** *iz* jostatzeko gogoa. ik **jostagura**.

Mutilek, erreparoz eta **jostagalez,** erantzi zituzten jaka arinak, eta horrela, mahuka hutsetan, patiora irten eta lasterka joan ziren ukuilura. Josu Zabaleta

---

**jostagarri** **1** *izond* jostarazten duena, atsegingarria.

Ipuin **jostagarri** bat idatzi dut. Josu Zabaleta

Izeba Helenek beste puzzle bat ekarri dit, [...] eta izeba Lenyk liburu **jostagarri** bat. Josu Zabaleta

Baina ez *rock and roll* amerikar eder eta **jostagarri** hori, baizik eta musika itxuragabe eta zaratatsua. Fernando Rey

Larunbatean, aratseko 7-etan, ikusgarri **jostagarri** bat *Variétés* gelan. Herria

-Doala ibaia bere bidean! -hots egin zuen Maelek, irribarre **jostagarri** batez Luthi begiratzen ziola. Joanes Urkixo

Irribarrez begiratzen zidan -irribarre **jostagarriz,** esango nukeen-. Ramon Saizarbitoria

Heriotzaren alde **jostagarriari** buruzko filma. Berria - Kultura

Hazeli ez zitzaion **jostagarria** iruditzen Herbie zurrutean ikustea. Mirentxu Larrañaga

Grazia apur bat ere bazuen haiek guztiak modu **jostagarrian** kontatzeko. Mirentxu Larrañaga

Hain era **jostagarrian** jantzita dagoen Knot kapitain jaunari. Juan Garzia

Izkirimiri, barre eta oroitzapen **jostagarrietarako** unea. Oskar Arana

**2** (izan aditzarekin)

**Jostagarri** baita kanoigilea bere bonbak zartarazia gertatzea. Juan Garzia

Begiak grisak zituen, eta eszenak berarekin zerikusirik ez balu baina **jostagarri** balitzaio bezala begiratzen zuen inguruan. Juan Garzia

Balbok berari **jostagarri** zitzaizkion soinekoak eta zapatak erosarazten zizkion andreari, edo dantza egitera joaten ziren night clubetara. Fernando Rey

· Xarmagarria eta **jostagarria** nintzen. Josu Zabaleta

Zein interesgarri eta **jostagarria** den abentura hau. Irakasleentzat atsegingarri eta **jostagarriak** ziren nire erantzun burutsuak. Josu Zabaleta

Donostiar izaera alaia da, **jostagarria**. Askoren artean

Egoera **jostagarria** zitzaion. Elena Touyarou

-Ez zuan hain **jostagarria** izango [...] hain zaila gertatu izan ez balitz! Karlos Zabala

Ezezagun hari esker ari nintzen ikasten zein **jostagarria** izan daitekeen aldi berean hitz egin eta larrua jotzea. Juan Martin Elexpuru

**3** (-en atzikiaren eskuinean)

Mofie hemen da oraindik, beheko solairura jaisten garenean guztion **jostagarri** izateko. Josu Zabaleta

Gelako poloniar guztien **jostagarri**. Urtzi Urrutikoetxea

Oroz gain, jakina, haurren **jostagarri** da eulia. Juan Garzia

• **4** *iz* jostetan aritzeko gauza.

Han ez omen zuten ez **jostagarririk** ez lagunik. Fernando Rey

Bere **jostagarriak,** hala nola antzerkia, pintura, musika edo politika. Josu Zabaleta

Horixe izaten da bainu herrietako **jostagarri** nagusia. Josu Zabaleta

Hitzak **jostagarri** hutsak dira halakoetan, denbora-pasa, puzzle bat egitea bezala. Imanol Zurutuza

Irri-solas eta **jostagarri** bitxi-mitxiak. Herria

Nire egunkari honetan gure estualdi guztiak **jostagarri** bezala hartzen ditut. Josu Zabaleta

Edith-ek eta biok *Gure Neskato Alaia* deitu izan genion beti, eta familiaren **jostagarria** izanez hazi zen Wood-tarren etxean, klown beti maltzur eta zalapartari bat. Oskar Arana

---

**jostagarriro** *adlag* era jostagarrian.

Whittaker andreak barre egin zuen ostera, ez zekiela burua **jostagarriro** astindu edo ez. Mirentxu Larrañaga

---

**jostagarritasun** *iz* jostagarria denaren nolakotasuna.

Bizitasun eta **jostagarritasun** handiko estiloa da Hiriart-Urrutirena, oso atsegina. Berria - Kultura

Primitibotasunaren, haurkeriaren, **jostagarritasunaren** osagaiak zituen. Xabier Olarra

Gero betun perrail bat ekarrarazi zuen eta, hartaz belzturik bere aurpegia, imita zezatela agindu zien; bete ere ez baitzuten **jostagarritasunik** gabe bete egitekoa. Juan Garzia

---

jostagin ik **jostakin**.

---

**jostagura** *adlag* jostatzeko gogoz. ik **jostagale**.

**Jostagura** dabil, gero, berori. Juan Garzia

Zer egin lezake batek besterik, **jostagura** ibili baino? Juan Garzia

Jadanik ohartua zen bakotxa Aramburu ez zela **jostagura** batere Herria

---

**jostailu** *(349 agerraldi, 116 liburu eta 54 artikulutan; orobat **jostagailu** 55 agerraldi, 5 liburu eta 45 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian **jostailu** agertzen da)* **1** *iz* haurrak jostatzeko egiten den edo balio duen gauzakia.

**Jostailu** berri bat oparitu ziotela. Harkaitz Cano

Nire **jostailu** guztiekin jostatzeko. Jon Alonso

Haurrak **jostailu** bat beretzat nahi duenean bezala. Hasier Etxeberria

**Jostailu** berria nahi duen haur setatiaren gisara. Hasier Etxeberria

Arrautza zilindriko hura **jostailu** hauskorra zen. Koldo Izagirre

Liburu eta **jostailu** zaharrez betetako kutxa batetik. Oskar Arana

**Jostailuek** "hezigarriak" behar zuten beti. Aingeru Epaltza

Plastikozko **jostailu** batzuk. Joxan Elosegi

Halako latorrizko **jostailu** mekaniko bat izan naiz, barnea guztiz hutsa duena. Lopez de Arana

**Jostailuak** birziklatzea edo partekatzea ere posible baita. Berria - Euskal Herria

**Jostailuak** segurtasun arau guztiak betetzen baditu. Berria - Euskal Herria

Motorra ikaragarria zen, baina han hankalatraba eserita zegoen gizonaren aldean **jostailua** zirudien. Iñaki Mendiguren

**2** irud/hed

-Aizu, laguntxo -esan zion-, irrikan naukazu **jostailu** polit honekin lehen aldiz tipo bati tiro egiteko, zulo politak egiten omen ditu gorputzean. Migel Angel Mintegi

Soldaduak **jostailu** eta apaingarri polita dira bakealdietan. Edorta Jimenez

Expo-a jubilatuen Europaren beste **jostailu** bat zela otu zitzaidan. Edorta Jimenez

· *(hitz soila -en atzizkiaren eskuinean adizlagun balioaz)* Eremu latz batean jarri zara, haizetearen **jostailu,** eta han zaudela agertu zaizu gazte bat galdezka. Javi Cillero

Erabilia sentitzen naiz, haren kapritxoen **jostailu**. Patxi Iturritegi

Agintean jaun eta jabe, eta ohean amoranteen eta sexu-gutixien **jostailu**. Txillardegi

Ontzi-maskorra olatuetan zintzilik, olatuen **jostailu**. Felipe Juaristi

Ez al da, orduan, iraingarria besteen harrokeriaren **jostailu** bihurtu beharra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zela emakume horren **jostailu** izanen. Iñaki Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

-Ederki zaudek artea **jostailu** kaxa batean sartzen dutenak ere! -jarraitu zuen Claudek, isilaldi baten ondotik-. Karlos Zabala

**Jostailu**-barrakekin, zaldiko-maldikoekin, tiro-jokoekin. Josu Zabaleta

Itxuraz, bene-benetakoa ematen zuen **jostailu**-pistolak. Gotzon Garate

Bateriak, **jostailu** porroskak, ferrallak, burdinak. Pablo Sastre

**Jostailu** ekoizleak ez dira ez Olentzaro ez Errege Mago horiek ezta gurasoak ere. Berria - Euskal Herria

Hernaniko Afede **jostailu** enpresan kalteak eragin dituzte garrek. Berria - Ekonomia

**Jostailu** biltze bat egina izanen dela Herriko Plazan, azaroaren 27an. Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alabama estatu kontserbadoreak 1998tik sexu **jostailuak** saltzea debekatzen duen legeari eustea erabaki du. Berria - Mundua

Hemendik ibaia ikusten da, Katedralaren merloien gainetik, eta merloiek, lurraren maldak ikusezin egiten dituen kanpandorrearen gainean, haur-**jostailuak** dirudite. Jon Alonso

**5** jostagarria, jostetan aritzeko gauza.

Mezaren ondotik bazen jateko, edateko, eta **jostagailu** ainitz, mus eta pilota. Herria

Bazkaria eta asko **jostagailu,** txartela tiratze eta musa. Herria

Aste huntan egingo dugu ortzegunean gure usaiako hilabeteko aratsaldekoa eta loto bat **jostagailu** gisa. Herria

**6** ***jostailuzko***

Bere **jostailuzko** erratza apurtu niolako. **Jostailuzko** tranbia elektriko bat. Iñaki Mendiguren

Animalia geldi haiek, **jostailuzko** tren geldi haiek, gabonetako mila-orriko tarten urre kolore kitsch hura. Harkaitz Cano

**Jostailuzkoa** zirudien pistola bat, peluka beltzaran luze bat eta pastazko betaurreko batzuk besterik ez. Harkaitz Cano

Plaza isilean, musikatxoaren oihartzuna zabaldu zen, **jostailuzko** zaldi bat airean tragedia baten iragarpen-jolasa egiten ari balitz bezala. Juan Kruz Igerabide

Bazter batean, **jostailuzkoak** ziruditen beste hiru hilobi ñimiño ere ageri ziren lerroan. Bernardo Atxaga

**7** ***jostailu denda***

**Jostailu** dendara joan ginen aurrekoan Arantza eta biok. Iban Zaldua

**Jostailu dendetan** saltzen zituzten plastikozko txirrindulari estatikoak bezala. **Jostailu**-denda baten erakusleihoaren aurrean. Jon Maia

Haur **bat jostailu** denda batera joaten denean ez daki zer aukeratu. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haurren jostagailuak** (4); **jostailu bat izan** (3); **jostailu bihurtu** (3); **jostailuzko musika** (3)

---

# jostailutasun *iz* jostailu izateko nolakotasuna.

Hori bera galdatzen nian nik, kasu egiteko nola egiten huen hitz, merezi zian bertzelako karesa urketariak, ginebra zirrizta ematen ziguan uretan hark, eta **jostailutasun** hura, ahalkerik eza, hori galdatzen nian nik bagonen baskulan salatu egin hindudan hartan Koldo Izagirre

---

# jostailutxo *iz* jostailu txikia edo hutsala.

Plastikozko **jostailutxo** eta paper sinpleko txanotxoekin barruan. Iñaki Mendiguren

Egin jolas -esaten zion-, egin jolas heure **jostailutxo** honekin. Juan Garzia

Bilbao, Euskal Herriko benetako hiri bakarraren aurkikuntza egitera, zeinaren ondoan Donostia **jostailutxo** politegi bat baitzen. Iñaki Iñurrieta

---

# jostaka *adlag* jostatzen.

Ezaguera dudanetik, berriz, gogoan dut mutikozkorretan nola ibiltzen ginen **jostaka,** Karretoko soroan bertan izaten genuen lizar handi adartzabal haren itzalean. Patziku Perurena

---

# jostakari 1 *iz* jostaketa.

Horien bidez iruditxoak mugiarazten dira, konoak birarazten dira, arrautzak edo harri-koskorrak jaurtikitzen dira, tronpetak joarazten dira eta antzeko beste hainbat **jostakari** egiten dira. Santiago Iruretagoiena

**2** *(corpusean **txostakari** soilik)* josteta-pretatzailea.

23etan: sonü, sü eta ke piroteknia ikusgarria, PON-PON, TITIKA eta BRUNO HOLMAERT Xiberoako **txostakariekin**. Herria

---

# jostaketa *(62 agerraldi, 19 liburu eta 5 artikulutan)* 1 *iz* josteta. ik **jolas**.

Paolak asmatutako **jostaketa** zen, eta gehiena bera eta Mario aritzen ziren hartan, baina noiz edo noiz gure amak ere hartzen zuen parte. Fernando Rey

**Jostaketak** hasteko seinalea zen. Karlos Zabala

Haientzat beste **jostaketa** bat besterik ez baitzen tortura hura. Karlos Zabala

Catherineren behatzek ere Josebaren soina ferekatzen zuten, ahoak **jostaketa** urtsuak egiten zizkion belarri atzean. Iñaki Zabaleta

**Jostaketa** luze eta samur baten ondotik, Rubenen arnasketa geldoa ohetik datorkidala, [...]. Patxi Zubizarreta

Jendeak uste du gero zutikako bost ebakitzea **jostaketako** kontua dela. Berria - Kirola

**Jostaketaren** bidez, esperimentatzen. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Zabedieroko kanpamentuko soldadu sail bat harekin batera etorri eta plazaren bi aieketan hedatu ziren lerroz lerro, **jostaketa** lekua baino utzi ez zutela erdialdean. Karlos Zabala

Lan, ikasketa, kirol eta lagunarteko **jostaketa** urteak. Josu Zabaleta

Ekintza filmetarako zinemak, bideo-joko aretoak, teatro erakargarri baina ez serioegia, jantoki azkar eta merkeak, eta antzeko hainbat **jostaketa**-bide. Iñaki Zabaleta

Hiru mutil koskorrek erreka ertzean jaulkitzen zituzten algara eta **jostaketa** garrasiek -eta zaldien irrintziek, txakurren zaunkek- areagotu egiten zuten argitasuna: Iruainek leku eder, lasai eta alaia ematen zuen. Bernardo Atxaga

· Ikusi dugu nahikoa dantza eta nahikoa lehoi-**jostaketa**. Bernardo Atxaga

**3** ***jostaketan*** jostetan, jolasean.

Mintzatu bitartean **jostaketan** aritzen zen bizarrarekin eta txalekoko botoiekin. Fernando Rey

Katuren batekin **jostaketan**. Fernando Rey

Katuaren eta arratoiaren **jostaketan** ote zebilen berarekin? Patxi Zubizarreta

Sagarrondo ugari zituen lur puska baten ondotik, malamut atseginak inguruan saltoka eta **jostaketan** genituela, muino batean gora jo genuen. Xabier Olarra

**4** ***jostaketa-zale***

Donostiarrak **jostaketa** zale amorratuak zirela. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jostaketan aritzen** (4)

---

## jostakin *(orobat **jostagin** g.er.)* **1** *izond* jostalaria, alaia, atsegina.

Bihotz oneko gizona, zerbitzu egilea eta **jostakina,** oroz gainetik. Herria

**Jostakina** eta zinez alaia, lagun ainitz izan ditu bere bizi laburrean. Herria

Adiskideen artean, nehor arraillant eta **jostakinik** balinbazen, hura bai halakoa zela! Bera da hemengo **jostakina** eta irri-ontzia. Herria

Luzaidar apez goxo eta begi **jostagineko** horrek. Herria

Harridura **jostakin** batez. Joxan Elosegi

Olerki **jostakinak** ere, zenbaitzu. Herria

Beste kantu batzu arras **jostakinak** Brassens batek ere aise ukatuko etzituen gisakoak… Badu beste aldaera bat, "sarôdín" diminutibo **jostakina**. Herria

Frantsesez den antzerki hori guziz alaia da arin eta **jostakina,** denbora goxo baten aukera bada hemen. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Baitzoatzin kantari eta **jostakin,** Arradoi, Jara, edo Leizaratzurat buruz. Herria

Irribarre egiten zion amonak, begiak gozo eta **jostakin,** ileak mototsean bilduak. Joxan Elosegi

-Alu handi hori! -anaiak niri, **jostakin**. Aingeru Epaltza

• **3** *iz* pailazoa, komediantea.

Virginia Imaz klown edo **jostakinaz** artikulu guziz interesgarri bat eskaintzen dauku otsaileko *Nabarra* aldizkariak. Herria

Bestalde, ortzirale aratsaldean, 6-etan, Koliseo zinegelan, ikusten ahalko dira paiaso edo **jostakin** arraro batzu, Felix eta Philomène. Herria

**Jostakin** izaitearekin batera, kondalari paregabea ere da. Herria

15etan, Kiki eta Koko **jostakinen** emanaldia, plazan. Herria

Antzerkia: koka ahala jende etorri da, eta gure herriko **jostakin** bi taldeak ezin hobeki arizan dira. Herria

---

## jostakintza *iz* jostakintzaren jarduera.

Gaur, Bergarako baserrian, zirko eskola bat nahi du jarri, gazteak **jostakintza** bidean abiarazteko. Herria

---

## jostakizun *iz* josteta.

Udako **jostakizunak** aintzina doaz. Herria

---

## jostakor **1** *izond* jostatzeko joera agertzen duena. ik **jostalari.**

Kontrabaxu baten notak entzuten dira lehendabizi, **bateria** jostakor bat gehitzen zaie berehala. Berria - Kultura

**2** (adizlagun gisa)

Berak eragozten eta zapuzten baitu ernaltzea, ipurdiari eraginka gizonaren irritsa **jostakor** suspertzen eta, gorputza zauliturik, jarioa erakartzen badu: ildoa goldearen bide zuzenetik ateratzen eta semenaren kolpea lekutik apartatzen baitu. Xabier Amuriza

Andresek **jostakor** entzuten zituen Luluren komentarioak; bazuen, izan ere, Madrilgo grazia xalo eta erne hori. Josu Zabaleta

---

## jostalagun *(orobat **josta(-)lagun**)* *iz* josteta-laguna.

Mugurdien sasoian, ahalik eta **jostalagun** gehieni deitzeko esaten zidan, haren lorategian bilketa egiteko. Joxan Elosegi

Sebastian Etxeberry, bere **josta lagun** eta auzoen semearekin ezkonduko zen, haurrak zirenetik bi familiek erabakia zuten bezalaxe. Elena Touyarou

Elkarrekin hazi ginen, biok eskola-lagun eta **josta-lagun**. Imanol Unzurrunzaga

Zuzane Etchemendy familia gaztean plazer handirekin egin diote Ximun bigarren putikoari ongi etorria, Battitt anaiak izanen baitu **josta lagun** on bat. Herria

Gilen Garrüzetik lekutu zenetik **jostalagunik** gabe ibilia nintzen. Aingeru Epaltza

---

## jostalari *(**87** agerraldi, **42** liburu eta **2** artikulutan)* **1** *izond* jostetan aritzeko joera duena. ik **jostari; jostakin; jostakor**.

Primateek **-jostalariagoak** eta bizkorragoak- sexua erabiltzen zuten ez bakarrik umeak egiteko, baizik eta, baita jolasteko ere. Luis Elberdin

Irribarrea ezpainetan zuen beti, **jostalaria** zen, bizia, alaia. Karlos Zabala
Begi txiki **jostalariak**. Felipe Juaristi
Mentxuk begi **jostalariez** egin zuen ate aldera. Josu Landa
Haien begirada beroak, haien hasperen **jostalariak**. Felipe Juaristi
Jerusalem, hiri zaratatsu eta zalapartari, hiri **jostalari,** zure hildakoak ez ditu ezpatak bota, ez dira gerran hil. Elizen arteko biblia
Errekastoko ur leiar, inozo, **jostalaria**. Felipe Juaristi
**Jostalaria** zelako zuten gogoko gizasemeek. Mirentxu Larrañaga
Ez da hego haize **jostalaririk** iritsi artean. Pello Zabala
Galtzerdietan urratu bat zuen neska oroitarazi zioten eta gogoeta **jostalarietan** murgilduta egin zuen etxerainoko bidea. Mirentxu Larrañaga
Musika matematika da, matematika alai **jostalaria,** Felipe Juaristi

**2** (adizlagun gisa)

**Jostalari** zebilen Letizia, eta mahai azpitik belauna ukitzen zion Jean Clauderi. Xabier Mendiguren Elizegi
Gutizia hark eragindako irribarre onbera bat zebilkion **jostalari** aho aldean. Mirentxu Larrañaga
Agudo, ganibeta hatzen artean **jostalari,** usoei hegaletatik oratzen zien. Karlos Zabala
Mundu guztiaren ustez, ezin **jostalariago** aritu zinen. Mirentxu Larrañaga
Senarrarengana hurbildu zen eta paper izkiriatua esku artetik kendu zion **jostalari**. Mirentxu Larrañaga

**3** *iz* jolasean ari den pertsona.

Ez zela emakume horren jostailu izanen; eta beharrez horrela gertatuko balitz, funtzioak iraultzen jakinen lukeela; jostailu izatetik **jostalari** izatera eramanen lukeela bere burua. Iñaki Zabaleta

---

# jostaldi *iz* josteta.

Guk ikuspegia ez ezik, **jostaldia** ere gozatu dugu, zeren norbaiti han izkinetara josta gintezkeela bururatu baitzaio. Patxi Zubizarreta
Egia erran, isilmandatariaren egiteko hori [...] arras **jostaldi** polita iruditzen zait, horrez gain zereginik izanez gero. Jon Muñoz
Hortaz, frogatzen bazion senarraren ustezko abenturak **jostaldi** hutsak zirela, emakumeak lasai egingo zuen lo. Migel Angel Mintegi
Eta, zera, kondoia, geroko **jostaldi** batean erabili genuen. Patxi Zubizarreta

---

# jostaleku *(25 agerraldi, 4 liburu eta 11 artikulutan -guztiak Herria aldizkarikoak-; orobat **josta(-)leku** 40 agerraldi, 2 liburu eta 31 artikulutan -guztiak Herria aldizkarikoak-)* **1** *iz* jostatzeko lekua.

Eskola publikoaren **jostalekuan** egiten genituen borroken nostalgia pizten zidan kirol horrek. Piarres Aintziart
Ohera joan zen umez beteriko **jostaleku** batekin amets egitera: lorategi bat, zaldiko-maldiko, bilintzi-balantza eta guztikoa. Koldo Biguri
Talde bat kargatua izan da haurren **josta-leku** baten proiektu baten ikusteko. Herria
Hori da eskainia, gure ***Josta Leku*** kiroldegian. Herria
Herriak maiatz erditaraino muntadura asko ezarriak ditu plaza hortan, haur guzientzat **jostaleku** izan dadin. Herria
Uda batean, gure lagunartearen **jostaleku** nagusira etorri zen, Alaska izeneko hotelera. Bernardo Atxaga
Umetako **jostaleku** izan nuela baserria. Xabier Mendiguren Elizegi
Egun hartan Dubernet ginuen **jostalekuan** begirale. Herria
Elgar kurutzatzen diren lurpeko pasabide ilun horiek **josta leku** hautak direla eta, kukuka aritzeko. Michel Oronoz

**2** (hitz elkartuetan)

Peppone alkateak agintari guztiekin esku hartu zuen On Camilloren klub-**jostalekuaren** lehen harri-jartzean. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **josta leku nasaian** (3)

---

# jostamolde *(orobat **josta(-)molde**)* *iz* jostatzeko moldea.

Denbora zinez eder eta beroa, haatik **josta molde** guziak eta biziki ederki, muntatuak baitzituen gazteria alaitsuak pilota, baloi, kantu, dantza, birlari, muslari, […]. Herria
Pilotaz bestalde bazuketen beste **jostamolderik** ere, nola baitzen "artzain jokoa".Berdin Lakuko **josta molde** batzu urririk izanen dituzte. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# jostarazi, jostaraz, jostarazten du *ad* jostatzera behartu.

Stanley eta biok ia ez dugu hitzik ere esaten, baina biok **jostarazten** gaitu geure begien aurrean hasi den hitzezko borrokak. Oskar Arana
Museoetan-eta sarri izaten dudan entretenimendu batek **jostarazi** ninduen atzokoan ere pixka batez: museo-zaintzaileei erreparatzea gustatzen zait. Anjel Lertxundi
Berak jostatu eta gu **jostarazi** gaituzte astelehenean hiru garaztar eta Urruñako fuñoak. Eta nor **jostarazten** duk, bada, hik? Herria

---

# jostari *(127 agerraldi, 65 liburu eta 10 artikulutan)* **1** *izond* jostalaria. ik **jostarin**.

Huraxe zen berak amestu izan zuen gazte maitakor eta **jostaria**. Patxi Zubizarreta
Orain beste esku **jostari** bat hasi zait sexua laztantzen. Patxi Zubizarreta
Ezpainen sentsualitatea eta mihi **jostariaren** hezetasuna sentitzea. Luis Elberdin
Ahots **jostaria** zen. Felipe Juaristi
Berdin bildots **jostariek** ardi beekariak. Xabier Amuriza
Pieza **jostari** bat iruditu zitzaidaan orduan: dantza bat iradoki zidaan, besterik ez. Anjel Lertxundi
Pilota sendoak eta baldar samarrak komeni zaizkio Rekalderi, eta mugitzeko errazak direnak, arinak eta **jostariak,** Gaubekari. Berria - Kirola
Haren begietako poz **jostariari** esker. Edorta Jimenez
Jolas **jostarien** alaitasunean, edo solas serios interesgarri batean. Jon Muñoz
Lasterka **jostarian** norbere aulkiaren bila. Harkaitz Cano
Arte arin, burbuilaria, erromantizismoaren arrastorik gabea, fantastikoa, **jostaria,** ez heroikoa, maitasunez betea. Berria - Kultura
Gauza zen Coppolaren iturriak bezalako gai erudito bati buruz haur-soka **jostari** bat balitz bezain modu naturalean jarduteko. Anjel Lertxundi
Edari gasdun baten ontzia zabaltzerakoan sortzen den borbor **jostaria** bezain apartsu. Anjel Lertxundi

Oro argitasun eta irribarre, eta oreinkumea bezain **jostaria**. Koro Navarro

**2** (izan aditzarekin)

Eva nekatto polita zen, eta abila, eta bizia, eta **jostaria**. Itxaro Borda

Katua gaztea da, ernea, **jostaria**. Oskar Arana

Hori baino zabalagoa da hizkuntza eta hori baino **jostariagoa** hiztuna. Iñigo Aranbarri

Oso **jostaria** zen ohean. Anjel Lertxundi

**Jostaria** eta hizkuntzmindua izatea aski litzateke bertsolari izateko. Andoni Egaña

**3** (adizlagun gisa)

Mireiak bakarrik daki zein **jostari** jartzen nauen kantari horren musikak. Patxi Zubizarreta

-Eta horrek ba al du zuen teoremaren antzik? -galdetu zuen Ruche jaunak, **jostari**. Jon Muñoz

Senarra, **jostari** berriz ere: [...]. Monika Etxebarria

Berak laztan erogarri horiekin jarraitzen du, sabeleraino jaitsi da, gerrian eta aldaketan dabil **jostari**. Juan Martin Elexpuru

Ume batzuek, korrika **jostari,** baretasun giroa urratu dute. Txillardegi

Whiskeya hurrupatu nuen, basoa eskuetan **jostari**. Itxaro Borda

Belarri-gingila hozkatu zion gero **jostari**. Anjel Lertxundi

Horratx ura, zure atsegin hutserako harri tartetan behiti noraezean **jostari**. Patziku Perurena

---

# jostarin *(16 agerraldi, 7 liburu eta artikulu 1ean) izond*

Geroko Dabid **jostarinaz** oroitu naiz, elkarrekin bizitzen jartzea amestu, eta hori lortzearren edozein lan egiteko prest zegoena. Patxi Zubizarreta

Loturatik aske dabilenak aise eskura baitezake, edozein bazterretan, larru apetarako laguntxo **jostarina**. Pako Aristi

Esku **jostarina** sabelaldera eraman zuen, eta handik hanketara, baina, horrekin ere aski ez eta, ezinbestean, gizonaren hankartekoa ere laztandu zuen. Patxi Zubizarreta

Obispoak irribarre **jostarina** eskaini zigun Karmeni eta bioi. Inazio Mujika Iraola

Teresaren ahots bihurriaren ordez, ahots sentsual eta **jostarin** bat entzun bainuen: "ezin zara ni gabe bizi, ezta Dabid?". Patxi Zubizarreta

San Jose inguruan jaio diren arkume **jostarinak** pendizean behera piririkan ikustea. Pako Aristi

Emakume batzuentzat aberastasunak zirela, besteentzat bertutea eta santutasuna, askorentzat iji-ajazko bizitza **jostarina..**. Nik bai ez dakidala, [...], gaizki zuzendu duenarekiko aitzakia arroxinaz ala adarjotze **jostarinaz** ari zaidan. Pako Aristi

Pieza haren egitura eta harmoniak tempo goibel hartara 'agitato' **jostarinera** baino hobeto egokitzen zirela ikusi nuen. Pako Aristi

Algara polita sortu zuen ateraldiak, eta Karmenek, harro, musu eman zidan **jostarin**. Inazio Mujika Iraola

---

# jostatu, josta, jostatzen 1 da *ad* atsegin hartuz denbora igaro; jolastu.

Aupa lagunak, **josta** gaitezen; zer litzateke bizimodua plazerik gabe? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bizi baino gehiago **jostatu** egin ziren... Migel Angel Mintegi

Eta bukatzeko egun batez **jostatu** gira Port Aventura parke haundian. Herria

Haur denboran, negu partean, auzuneko neska-mutilak horma baten alboan **jostatu** ohi zirela. Patxi Zubizarreta

Mofierekin jolas egin genuen, ederki **jostatu** ginen. Josu Zabaleta

Ez al nuen, bada, onartu deabrua hiru auzokideekin bere gogara **josta** zedin? Patxi Zubizarreta

Gizon libreak ezin dira dagoeneko kriskitin horrekin **jostatu**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orai, ainitzek ikusten dutena da ez dela holako suekin **jostatu** behar. Herria

Zergatik **jostatu** plajio kontuekin? Bernardo Atxaga

Kaskezurrarekin **jostatu** zenak ez zuen lur mokor bat ere zuloaren barrura aurtiki. Itxaro Borda

Eta pentsa orduan nola **jostatu** diren Larrechea eta Etcheto, oren bat baizik iraun ez duen partida batean. Herria

Batzuk pentsatu dute norbait **jostatu** zela argiak itzaliz, bainan ez zen hala. Herria

Euskaraz mintza, euskaraz **josta**! Herria

Zer jantz, non **josta,** norekin eta nola mintza... Aingeru Epaltza

Badu nun **josta**! kasu eginez beharko du jokatu. Herria

**2** (zertan, zertara)

Gero elgarrekin birletan ontsa **jostatuko** zirelakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haren entretenimendu bakarrak karta partida bat, txotxetan **jostatzea** edo Baionatik ekarri liburuen irakurketa ziren. Elena Touyarou

Ez dakit zergatik, atseden-aldietan elgarren kontra boxean **jostatzen** ginen. Piarres Aintziart

Museo horretako koadro batean neska koskor batzuk ikusten dira kurkuluxetan **jostatzen**. Bernardo Atxaga

Sebasek Jean Marie elaire baino gehiago zuen, asteburuetan elkarrekin pilotan **jostatzen** baitziren. Itxaro Borda

Morroi izerditsua Ttipirenera zer-nolako aferak ekar zezakeen imajinatzen **jostatu** nintzen. Aingeru Epaltza

Haurtzaroa luzatzera **jostatuko** dira, beste behin, gaztaroan nola sartu asmatu ezinik dabiltzanak. Xabier Mendiguren Elizegi

Negozio gizon inportantearen eta bidaiari handiaren plantak egitera **jostatzen** zen. Fernando Rey

**3** (**josta** hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehenengo egunetik bertatik etsitzea zen kontua; eta zeinek bere **josta**-moduak, jolasak, eta denbora-pasa asko asmatzen ditu azkenerako. Josu Zabaleta

Igerilari trebea, arraunlari bizkorra, **josta** zalea, "Sena ibai ertzetako jostaketen zaleegi" Flaubertek inoiz gogoratu zion bezala. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jostatzeko laguna** (7); **pilotan jostatzen** (4)

---

# jostatzaile *iz* jostatzen den pertsona.

Elkarte horrek berak uztailaren 8an aurten kermezaren orde egin du loto delakoa Biltoki gelan; jende ainitz bildu, 160 ez goiti; bazen **jostatzaile** irabazdun, xokoleta ere izaiten ahal zen. Herria

---

# jostatze *iz* atsegin hartuz denbora igartzea; jolastea

Bai **jostatze** makabroak! Josu Zabaleta

Orohar biziarekiko **jostatze** hori da Toberaren iturria. Berria - Kultura

Gero sua piztuko da Jondonaneren ohoretan eta horren itzulian ere izanen da jauzi, oihu eta **jostatze**. Herria

Ez denak **jostatze** solas. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**"Jostatze**-praktika" horiek hartuko lukete aisialdiaren zati handi bat irratiaren eta telebistaren aroan. Iñaki Mendiguren

---

# joste

**1** *iz* hariaren eta jostorratzaren bitartez, lotzea edo atxikitzea.

Amak burua jaso zuen pixka bat, **josteari** utzi gabe: [...]. Anjel Lertxundi

**Joste**-harien puntuetan, ordea, papera ez zegoen moztuta, etenda baizik. Anjel Lertxundi

Zaindari aitortzen dute, baita ere, eskularru eta guantegileek ere, **joste** laborea izaki. Pello Zabala

**2** (bestelako adieretan)

Eta letrari letra **joste** horretan gaizkiaren mekanismoak ulertzera iritsiko balitz ere [...] horrek ez luke gaizkiaren aurka txertatuko. Anjel Lertxundi

Izenburu-orriaren eta hitzaurrearen artean sartu nuen grabatua, eta liburuko orrien mugekin guztiz berdindu nuenean, puntu koskatuak **liburu-jostearen** hari-guneekin guztiz bat zetozela ikusi nuen. Anjel Lertxundi

**2** ***joste-lan***

**Joste**-lan bikainak egiten zituen gakorratzaz. Juan Garzia

Weldon andrea logelara joan zen eta **joste**-lana hartuta jaitsi zen. Mirentxu Larrañaga

Lihozko arropa zuri guztiak garbitu eta **joste**-lanak ere egingo dizkiodala. Mirentxu Larrañaga

Neskameak **joste**-lana tolestu du eta presarik gabe heldu da, lotan, doktorea bere euritako soingainekotik ateratzera. Monika Etxebarria

Puntu txiki-txikia egiten zion, **joste** lana luzatzen, inoiz ez zuen egin halako soinekorik, hain landua, hain puntu zehatzekoa. Jon Maia

Biharamunean bertan zeta finarekin **joste** lanean hasi behar zuten. Pablo Sastre

Jostetan edo **joste**-lanetan ari zen ofizialaren hatza. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **joste lana** (8)

---

# josteta

*(289 agerraldi, 53 liburu eta 77 artikulutan)* **1** *iz* jolasa.

**Josteta** den edo jokoa, ez dago batere garbi. Iñaki Segurola

Jaustea ere ez zen **josteta** izanen. Eneko Bidegain

Kontrabanda ez zen **josteta** bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Uste zuen **josteta** zela. Oskar Arana

Ez gero pentsa **josteta** izan zenik niretzat, Tom. Oskar Arana

Ez zen irririk, ez zen **jostetarik,** denak serioski ari ziren. Michel Oronoz

Denborapasa eta **josteta** hutsa. Patxi Zubizarreta

Baina haurrak **josteta** du maite, eta osabak ere oso atsegin zuen batzuetan **josteta..**. Joan Mari Irigoien

Eguzkitan **jostetan** ari ziren baloi berde batekin. **Jostetaren** ondotik, elkar besarkatu, eta loak hartu zituen. Fernando Rey

**Josteta** ezdeus baten itxura zuen horrek guztiak. Aingeru Epaltza

Errutina sorgorgarriaren nagitasunetik aterako ninduen **josteta** kuttuna. Oskar Arana

Neure buruaz urrikaltzeko **josteta** libertigarrian ari nintekeen aspertu arte. Aingeru Epaltza

Bidailagunen ustetan, hura **josteta** mengelegia zen, baina gu gustura ibili gara, gustura hartu ditugu ezustean harrapatu gaituzten bustialdiak. Patxi Zubizarreta

Karrikako **jostetak** bukatuak ziren. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Hainbertze denbora **josteta**-lagunik gabe egon ondoan. Aingeru Epaltza

Edan eta edan egin nuen, besteekin **josteta**-kantuei ekin nien. Harendako **josteta**-molde bat zen hori guztia. Eduardo Matauko

Afaldu eta ondoan, hiru-lau partida jokatu nituen **josteta**-makinan eta gero bungalowera itzuli nintzen. Fernando Rey

· Nahi bainuke nik amodio-**jostetetan** zure gatibu izan, degidazula nahi duzuna. Aurelia Arkotxa

Haurren arteko gerla-**jostetan** Aingeru Epaltza

**3** *adlag* jostetan.

Bere eriekin **josteta** ari zela mutur punta xuri beltzaren gainean. Michel Oronoz

Pagoaren hostoa liburu baten orrialderen harat hunatekin, noiz aldea erakutsiz eta noiz ifrentzua, ikara eztian ari da iduzkiarekin **josteta**. Piarres Aintziart

-Ez gituk **josteta** ari! Michel Oronoz

Auzoko haurrekin beti **josteta,** noiztenka ariz baserri lanetan eta eskolan gogotik ikasten nuela, hautzaroa iragan zait lorietan. Piarres Aintziart

Hasi nintzen harekin erdi-**josteta,** esku batetik bestera pasatuz. Daniel Landart

**4** ***jostetan*** *adlag*

Gilenekin **jostetan** aritzean, ni izaten nintzen Henrike II.a, edo aitatxi bera. Aingeru Epaltza

Lagunaren eskuin eskua **jostetan** ibili zen pixka batean martxa-aldagailu laxoan. Aingeru Epaltza

Raduan Husainik, atzamarrak bizarrean **jostetan,** erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Nor bere mamuekin **jostetan** hasi dela esango nuke. Eider Rodriguez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haurren josteta** (3); **josteta ari** (3); **josteta hutsa** (3)
> **haurren jostetak** (4); **plazako jostetak urririk** (3)
> **jostetan ari** (9); **jostetan ariko** (4); **jostetan hasi** (3); **jostetan ibili** (4); **jostetan ibiltzen** (3); **jostetan zebilen** (3)

---

# jostetakide

*iz* josteta-laguna.

Ez naiz haatik arras bakarrik, biziaren gauzen erdian bazegoelakotz jendea: bospasei adiskide, egiazko haiek, tribuko kusiak, hain maitatuak, haurtzaroko **jostetakide** ahantzezinak, eta lankide bazterrezinak, errekontruzko ezezagunak. Piarres Aintziart

---

# jostirudi

*iz* komedia.

Jonathan-eta-Léak ondutako **jostirudiak** zirrara handia egin zion Ruche jaunari, ez hainbeste bere bikaintasun artistikoagatik, nola haien zorroztasun politikoagatik. Jon Muñoz

**Jostirudiak** edo berdekeriak nahi ditik honek; bestela, lo hartzen dik. Juan Garzia

---

**jostorratz** *iz* josteko orratza.

Haria eta **jostorratzak**. Karlos Zabala

Andre biek jostun lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, hari-**jostorratzak** eta titareak erpuruetan. Josu Landa

Gero, burua poliki altxatu, eta **jostorratzarekin** ziharduten bi emakumeengan gelditu zuen begirada. Karlos Zabala

Banana bat **jostorratz** batez zulatzean. Harkaitz Cano

**Jostorratzaren** zuloarekin asmatzen ez duenean. Anton Garikano

**Jostorratz** mehea argiaren kontra jarriz, zetazko hari puska urdin bat zuzendu zuen James Packerrek zulora. Koro Navarro

Gero **jostorratza** esponja zatian iltzatu du. Lander Garro

**Jostorratzenak** bezalako ziztada zorrotzak sentitzen hasita nengoen lokietan. Anjel Lertxundi

Zapatarien **jostorratza** baino zorrotzagoa. Patxi Ezkiaga

Mila **jostorratz** herdoildu aldean, leihorik gabeko begirada, zafrada garratz bat bihotzean. Patziku Perurena

Hotza **jostorratz** zuri bat zen. Karlos Linazasoro

Itzulietara jarrarazia zuen, eta **jostorratz**-hariak behar zituen tokietan pasarazia. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **haria eta jostorratza** (3); **jostorratza eta haria** (5)

---

**jostun** *(270 agerraldi, 67 liburu eta 23 artikulutan)* **1** *iz* ogibidez janzkiak egiten edo josten dituen pertsona, eskuarki gizonentzako janzkiak egiten dituen gizonezkoa. ik **josle**; **joskin**; **sastre**; **modista**; **tallur**.

Paco Rabanne **jostun** famatuaren museo bat idekiko da ondoko hilabetetan [...] Pasaian. Herria

Balentziaga bere garaiko **jostun** handienetakoa bihurtu zuten lanak ikus daitezke erakusketan. Berria - Kultura

**Jostun** eta diseinatzaile profesionalak. Berria - Kultura

Errenteriako Erramun Garzia Zabalegi ofizioko **jostunaren** gidarizapean. Berria - Kultura

Aitatxo **jostuna** nuen, eta batzuetan hemezortzi dolar ateratzen zituen astean. Berria - Kultura

Gure amari soinekoak egiten zizkioten, edo "Belom jaunarenean" (**jostun** zahar bat, gaztetan Pisan gure amonaren pretendiente izan zena [...]), edo bestela Tersilla zeritzan josle baten etxean. Fernando Rey

Albertori trajeak Vittorio Foa izeneko **jostun** batek egiten zizkion. Fernando Rey

Monsieur Charron, Parisko **jostun** handia [...] San Petersburgora gonbidatua zen. Matías Múgica

Harritua nintzen nola zitekeen Tsarraren gorteak halako **jostun** txatxutua etorraraztea Paristik San Petersburgora. Matías Múgica

Sastre-lokarria lepoaren inguruan zuen Minkiewicz **jostun** txalekoduna. Harkaitz Cano

Ginok edo Mariok Maccheroni **jostunaren** traje berria janzten zutenean [...]. Fernando Rey

Txinako hiriburuan, Kaxgar-eko ingurumarian, behin batez **jostun** bat eta haren emaztea bizi izan omen ziren. Patxi Zubizarreta

**Jostun** bat inguratu eta Lajosek ordaindu gabe utzitako kontu batzuk aipatu omen zizkion. Ander Irizar

Amerikar **jostunek** soineko koloretsuak egiten dituzte Europako emakumeentzat, eta **jostun** europarrek, berriz, soineko ilunak Amerikakoentzat. Anjel Lertxundi

**Jostun** bat makina batean ari zen lanean. Koro Navarro

Hor dira eskularrugileak, eta baita **jostun** gizonezkoak ere. Pello Zabala

Egia deskribatu nahi baduzu, egizu modu sinplean, eta dotoretasuna utz ezazu **jostunarentzat**. Berria - Harian

**2** joslea.

**Jostun** soldataduna izana zen [Hermannen ama] Gehsmack dendetan. Anjel Lertxundi

Amak, berriz, ospea zuen **jostun** bezala, eta lan asko egiten zuen, baita Obabaz kanpoko bezeroentzat ere. Bernardo Atxaga

**Jostun** profesionala izan zitekeela, eta horregatik joaten zela Villa Lecuonara, eta ez soilik ezkontza aurreko prestaketa egitearren. Bernardo Atxaga

-Aizu, Esther, zu **jostuna** zara, ezta? Jasone Osoro

Ezagutu dut ere emazteño bat " Sei-Sos " emana baitzioten izengoitia, etxez-etxe luzaz ibilia **jostun** lanetan, sei soseko jornala hartzen baitzuen, eguerdiko jana bestalde... Herria

Haren amona **jostuna** izana zen, denda bat zeukan eta berak landuriko kapelak saltzen zituen. Joxan Elosegi

· Esaterako Mary Anny Walkley 20 urteko **jostunaren** kasua, Londreseko jantzigintza tailer batean beste hainbat langilerekin edonola pilatuta, izugarrizko lanaldiak egiten zituena. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Troparentzat **jostun** lanetan ari zen neskato hura zen Luisa. Jon Maia

Amak ere zerbait egin behar zuen semeak mantentzearren eta **jostun** lanean hasi zen. Pello Lizarralde

Gona bat egin zidan **jostun** ikastaroan. Jokin Urain

Amarekin etorritako **jostun** ikasleak oihuka hasi ziren. Bernardo Atxaga

Hotzak bere **jostun** hatzak arraildu ez zitzan. Jon Maia

Andre biek **jostun** lanabesak zituzten eskuartean, artaziak, hari-jostorratzak eta titareak erpuruetan. Josu Landa

Gure amaren **jostun** manikiei. Pello Lizarralde

Mariok, esker onez, **jostun**-saskitxo bat oparitu zion hari. Fernando Rey

Chick bere lankide ohia da, Manhattango **jostun** tailerrean ari zelarik ezagutu zuena. Pablo Sastre

Geroago, gure amak **jostun** agiria jaso zuen. Pello Lizarralde

**Jostun** diploma zuen, gaztetan eskola batean aterea. Pello Lizarralde

Gure amaren **jostun** manikiei. Pello Lizarralde

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ba bai, badu, baldin ama batek, Celestina bezain eztei-**jostun** fina izaki, alaba jartzen badio bidean dirudun baten gutiziari. Anjel Lertxundi

**5** (izenondo gisa)

Lanean jarraitu zuen Euler-ek, eta idazten, berriz, mutil **jostunak**. Jon Muñoz

Barruan izango al du oraindik emazte **jostuna**? Karlos Linazasoro

Pastorala ematen duen herriko emakume **jostunen** lanaren emaitzek. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jostun bikaina** (3); **jostun famatuaren** (3); **jostun lana** (3); **jostun lanean** (3); **jostun lanetan** (4); **jostun ona** (4); **oso jostun ona** (3); **parisko jostun** (3)
> **modako jostunaren** (3)

**jostunarengana joan** (3)
**emakume jostunen** (3); **euskal herriko jostunen** (4)

---

# jostundegi *iz* jostunaren lantegia.

Hilabete batzuk Senako bazterrak garbitzen jardun ondoren, **jostundegi** batean egin nuen lan denbora dezentez. Anjel Lertxundi

Ez naiz gehiago joanen Belom jaunaren **jostundegira** ! Amaren **jostundegian** ikasten ari ziren neska batzuk azaldu ziren aurrena. Fernando Rey

Bukatu zen arratsaldeko saioa **jostundegian** eta neska guztiak pauso bizkorrean abiatu ziren herriko plaza aldera. Bernardo Atxaga

[Prezio] bikoitzaren truke, jostuna ohi baino lehiatsuago jardutera erabaki zen, eta gau osoan lan egitera behartu zituen **jostundegiko** langile guztiak [...] eta biharamunean prest zegoen fraka. Jose Morales

Hortaz, biek pentsatu zuten gure amaren **jostundegiko** bi ofizialei galdeketa egitea, ilehori iheslariaren berri izatearren. Pello Lizarralde

Beasainen **jostundegian** aprendiz jardun eta gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure amak manikiak zituen bere **jostundegian** . Pello Lizarralde

Zazpiehun bat pausora, **jostundegiko** leihoak argiarekin zeuden. Bernardo Atxaga

---

# jostura *(44 agerraldi, 26 liburu eta 6 artikulutan; orobat **joskura** 16 agerraldi, 9 liburu eta artikulu 1ean: Euskaltzaindiaren Hiztegian **jostura** agertzen da)* **1** *iz* ehunezko, larruzko... bi atal batzen dituen puntada segida jarraitua.

Jakatxoaren **jostura** urratu, eta zaborren artean hondoratu zituen mahukak. Juan Garzia

Zakuen **jostura** batzuk askatu egin dira, pisuagatik. Josu Zabaleta

Galtzerdien **josturak** zangoen gibelaldearen erdiko marra zehazten zuten. Joxan Elosegi

Beheko **jostura** askatu eta babarrun pinttozko [...] txingorraldi bat erori da airean eskaileretan behera. Josu Zabaleta

Kopa kapelu eroria eta hegal estukoa, **joskuretan** higaturiko lebita. Koldo Izagirre

Baita ohe-atorra arrosa ere, **josturako** ehuna han-hemenka sareturik zuena. Mirentxu Larrañaga

-Kutxari narrua josi diok; orain babes itzak **josturak** . Edorta Jimenez

Gero tunika hartu zuten, baina **josturarik** gabea zenez, goitik behera ehundua, [...]. Elizen arteko biblia

Itxuraz **josturarik** ez zuen antzinako soineko bat jantzi zioten, Lahoreko oihalez egina. Fernando Rey

Bere galtza bakero beltzekin, noizbait txuri izandako **joskurez** josiekin. Joxe Austin Arrieta

**2** irud/hed

Lurra, 12 **josturetatik** urratzear. Berria - Gaiak

Lau txatalen arteko **josturak** nabarmenegi geratzen dira zenbaitetan, liburuaren batasunaren kaltean. Berria - Kultura

Poesia eta, orobat literatura, gure izate gordearen isuria besterik ez baldin bada, [...], eta gure baitan izpirituaren eta haragiaren **josturan** baldin badauka iturburua, orduan, [...]. Piarres Aintziart

Hasierako kolonoen hizketa-modua gogorarazten zuen Noraren aitaren jardun zakarrak: aizkorakadez osatua, hitz zaharkituak eta hitzen arteko **jostura** bitxiak tartekatzen zituen haserretzen zenean. Anjel Lertxundi

Hitz **josturan** ere zerbaitek pizten zidan jakin-mina: [...]. Aurelia Arkotxa

**3** joste-lana.

**Josturaren** saskia alde batera jarri, bordatuaren saskia atera, eta aulkian eseri zen. Koro Navarro

**4** joskera.

Maite zituela koloreak, landa aldea, sasoi onak, [...], **jostura** oneko arropak eta eguzkiaren distira bera. Mirentxu Larrañaga

**5** ***jostura puntu*** (ebakuntzetan eta ebakietan)

Horren ondorioz, ospitalera joan behar izan zuen Khodorkovskik eta **jostura** puntuak eman behar izan zizkioten. Berria - Ekonomia

---

# josulagun ik **jesulagun**.

---

# jota[1] *iz* alfabetoko letra.

Ez omen du gure entrenatzaileak arazorik errearekin, baina bai **jotarekin** . Joxerra Garzia

-Nik "Joxemai" esan dut, **"jotaz"** . Txillardegi

---

# jota[2] *iz* Aragoiko eta Espainako beste hainbat eskualdetako herri dantza; dantza horri lagun egiten dion musika eta kantatzen diren bertsoak.

Beren gisa erabaki dutela, hizketan oso astoak direlako eta **jota abesten** dutelako, berak direla pertsona egiati bakarrak, leial bakarrak. Koro Navarro

Gitarraren hotsa aditzen zen; noizik behin ahots batek **jota kantatzen** zuen, kale beltz isilean. Koro Navarro

Joik **jota bat** Txilibrinegaz. Xabier Amuriza

Dantzei dagokienez, **jota bat** ere dantzatuko dute. Berria - Kultura

Behin joan nintzen abesbatzak entzutera, eta beste behin frontoira ere bai, **jota jaialdi** bat entzutera. Bankuak babesturiko **jota-jaialdietara** joaten da ozta-ozta, nafartasunaren bereizgarri delakoan. Arantxa Iturbe

---

# jotailu *iz* su arma bat eragiteko gailua.

Eta subfusilek, **jotailu** eta betegailu barik, ez zuten ezertarako balio. Edorta Jimenez

---

# jotaldi ik **joaldi**.

---

# jotero *iz* jota-kantaria.

12.30etan, **joteroen** kontzertua. Herria

Aragoitar **joteroak**. Herria

Satanak eta **joteroak,** bikain. Berria - Kultura

---

## jotzaile *(1093 agerraldi, 56 liburu eta 453 artikulutan)* **1** *iz* aipatzen dena jotzen duen pertsona.

Jo ote ditu Jaunak israeldarrak hauen **jotzaileak** jo zituen bezain gogor? Elizen arteko biblia

Artisauak zilarginari ematen dio adore, mailukari leuntzaileak ingude- **jotzaileari,** Beloki nafarra biziki segur eta **jotzaile** gibelean, Lasari aise ihardokiz. Elizen arteko biblia

US OPEN-a, **jotzaileen** lurraldea da, sake eta bolea dominatzen dutenen erreinua. Berria - Kirola

**Jotzaile** handientzat dago egina egungo golfa. Berria - Kirola

Biak **jotzaile** handiak dira, eta biek pilota indartsuak aukeratu dituzte. Berria - Kirola

**"Jotzailea** kanpo!" cricketean jolasterakoan? Anton Garikano

Izorratzea dute bozina-**jotzaile** horiek. Koro Navarro

**2** (izenondo gisa)

Atzelari **jotzailea** da, sakatzaile ona, eta fisikoki oso ongi prestatutako mutila. Berria - Kirola

Triciokoa ez dago atzelari **jotzaileekin** jokatzera ohituta. Berria - Kirola

Partida ezberdina izango da, Xala eta Pascual **jotzaileagoak** direlako. Berria - Kirola

**3** musika tresna bat jotzen duen pertsona. ik **jole**.

Gelatxoren garaiko **jotzaileak** dira guztiak, gerraosteko trikitiaren lekuko. Berria - Kultura

Gu ere ekipoan gaude... **jotzaileak** gara. Iñaki Mendiguren

Horregatik daude bina **jotzaile** talde bakoitzean. Iñaki Mendiguren

Jotzera kondenatuta bezalaxe, musikaren galeote, musikaren esklabo, doinua nagusi eta **jotzailea** morroi bihurturik. Felipe Juaristi

Sugeek **jotzailearen** txilibituaren mugimenduen arabera egiten omen dituzte beren ziri--zarak eta higidurak. Gotzon Garate

Bera zen musika-egilea, **jotzailea,** eta bere musika horrek milaka lagunengan azalerazten zituen sentimenduek Gelatxori zor zioten bizitza. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Damián itsua, katedraleko musika **jotzaile** izatera iritsi zen. Felipe Juaristi

-Musikariaren gorputzak ezin eta haren arima dugu **jotzaile**. Felipe Juaristi

Tronpeta **jotzaile** bat, biolin **jotzaile** bi, biola eta biolontxelo **jotzaile** bana, organo **jotzaileaz** gainera. Felipe Juaristi

Karlmaier abizeneko biolin-**jotzaile** buhame, zarpailtsu eta txiroa izan zuen irakasle. Felipe Juaristi

Zaila da jakiten benetan Jexux inoizko soinu-**jotzailerik** onena izan ote den. Xabier Etxabe

-Koblakariak eta txirula-**jotzaileak** ere ailegatu dira, Ismail Aga? Fernando Rey

Connie Tomaino tronpeta-**jotzaile** profesionala da. proiektuarekin haste-hastetik bat egin zuten Mikel Urdangarin kantariak, Koldo Uriarte piano **jotzaileak,** Unax Ugalde aktoreak eta Javi Ulla argiztatzaileak. Xabier Olarra

Maria-João Pires piano-**jotzailearen** bertsioak -horixe baitugu akademian eredu- minutu bat eta zazpi segundo irauten du. Anjel Lertxundi

Taldeko bateria-**jotzaileetako** bat, Mickey Hart, uda harexen hasieran ezagutu nuen. Xabier Olarra

**5** ***adar-jotzaile****sup_1 (orobat* ***jole****) iz* adarra jotzen duen musikaria.

Parte-hartzaileak: dultzaineroak, txalapartariak, **adar jotzaileak** eta galiziar gaiteroak. Berria - Kultura

Eta biola-joleak egon ziren, baita txirula eta zilarrezko **adar-joleak** ere Agustin Otsoa

**6** ***adar-jotzaile****sup_2 (orobat* ***jole****) izond* isekaria.

Gizon irekia, irribarretsua, **adar jotzailea,** "gutako bat" esateko moduan. Pako Aristi

Tximista bezain bizia, etorri handikoa, **adar-jotzailea** eta alproja samarra, bera hautatu nuen jostatzen nintzen haur guztien artetik. Joxan Elosegi

**Adar-jotzaile** handia izan da Jexux betidanik. Xabier Etxabe

George Gamow **adar-jotzaile** galanta zen. Fernando Morillo

Inondik ere, zure lepotik barre egin nahi izan du **adar-jotzaileren** batek. Jose Morales

Abuztuko euri **adar-jotzaile** bat, bete ezin dituen itxaropenak ernatzen dituena. Anton Garikano

· *adlag* Noizik behin, zertan ari nintzen ikustera etortzen zen, **adar-jotzaile** eta burlati. Juan Garzia

**7** ***harpa-jotzaile****sup_1 (orobat* ***jole*** *eta* ***joile****) iz* harpa jotzen duen musikaria. ik **harpalari**.

Vienako Orkestra Filarmonikoko **harpa jotzaileak**. Berria - Kultura

Isabelle Olivier Bretainiako **harpa jotzaile** eta konpositoreak. Berria - Kultura

Biola, lira, **harpa,** ttunttun edo arrabita **joleek** lagundurik, bertze batzuk eguzkitan dantzan ari direla. Aurelia Arkotxa

Dol Amrothetik herri osoko **arpa-jolerik** bertutetsuenak iritsi ziren. Agustin Otsoa

Hernaniar emazte **harpa joile** hunek segurtatzen du aspaldidanik Benito Lertxundiren ondoan bigarren boza. Herria

**8** ***harpa-jotzaile****sup_2 (corpusean* ***harpajole*** *soilik) izond* isekaria.

-Zu demasako **harpajolea** zara, Olga. Lopez de Arana

**-Harpajolea** bai zu! -esan zidan. Joan Mari Irigoien

**9** ***larru-jotzaile*** *(orobat* ***larru-jole****,* ***larrujotzaile****, eta* ***larrujole****)* larrua jotzen duena.

**Larru-jotzaile** bat ezin **larru-jotzaile** izan, mugatua baldin badago. Karlos Zabala

**Larru-jole** handia izan zen, eta agure gordina bihurtu zen zahartu zelarik. Karlos Zabala

Drogazalea eta **larru-jolea,** gezurtia eta gaizkile txiki bat, maite ninduten guztien traidore bat. Oskar Arana

Kontua larrua jotzea da, **larrujotzaileak** ugaritzea eta sarri aldatzea. dotorezia barroko samarrez jantzia zihoan, eta txerritxo **larrujoleen** korbata bat zeraman. Juan Martin Elexpuru

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**adar jotzaile** (7); **bateria jotzaile** (17); **baxu jotzaile** (9); **biolin jotzaile** (28); **biolin jotzaile trebe** (6); **biolontxelo jotzaile** (11); **danbor jotzaile** (6); **flauta jotzaile** (3); **gaita jotzaile** (5); **gitarra jotzaile** (14); **jotzaile aparta** (3); **jotzaile bakarlariak** (3); **jotzaile berria** (3); **jotzaile bikaina** (5); **jotzaile gazte** (3); **jotzaile handi** (3); **jotzaile handiak** (3); **jotzaile handiena** (3); **jotzaile trebe** (6); **klarinete jotzaile** (8); **kontrabaxu jotzaile** (8); **organo jotzaile** (8); **pandero jotzaile** (5); **perkusio jotzaile** (10); **piano jotzaile** (22); **saxo jotzaile** (3); **saxofoi jotzaile** (10); **soinu jotzaile** (16); **teklatu jotzaile** (4); **tronboi jotzaile** (3); **tronpeta jotzaile** (10); **txelo jotzaile** (3); **txirula jotzaile** (5)

**adar jotzailea** (6); **akordeoi jotzailea** (3); **bateria jotzailea** (38); **baxu jotzailea** (24); **biolin jotzailea** (21); **biolontxelo jotzailea** (10); **flauta jotzailea** (4); **gitarra jotzailea** (17); **harpa jotzailea** (3); **jotzailea ariko** (8); **jotzailea aritu** (3); **jotzailea etorriko** (3); **jotzailea hil** (4); **jotzailea izan** (6); **jotzailea izango** (3); **klarinete jotzailea** (6); **kontrabaxu jotzailea** (9); **organo jotzailea** (4); **pandero jotzailea** (10); **perkusio jotzailea** (6); **piano jotzailea** (21); **sahats jotzailea** (11); **saxo jotzailea** (9); **saxo tenor jotzailea** (3); **saxofoi jotzailea** (8); **soinu jotzailea** (19); **teklatu jotzailea** (3); **tronboi jotzailea** (6); **tronpeta jotzailea** (3); **txirula jotzailea** (3)

**akordeoi jotzaileak** (3); **bateria jotzaileak** (34); **baxu jotzaileak** (25); **biolin jotzaileak** (13); **biolontxelo jotzaileak** (13); **danbor jotzaileak** (4); **gaita jotzaileak** (6); **gitarra jotzaileak** (18); **jotzaileak adierazi duenez** (3); **jotzaileak lagunduta** (4); **klabezin jotzaileak** (3); **klarinete jotzaileak** (3); **kontrabaxu jotzaileak** (12); **organo jotzaileak** (4); **pandero jotzaileak** (16); **piano jotzaileak** (18); **saxo jotzaileak** (4); **saxofoi jotzaileak** (3); **soinu jotzaileak** (11); **taldeko gitarra jotzaileak** (3); **teklatu jotzaileak** (5); **tronboi jotzaileak** (3); **tronpeta jotzaileak** (5)

**bateria jotzailearekin** (10); **baxu jotzailearekin** (11); **biolin jotzailearekin** (4); **jotzailearekin ariko** (4); **kontrabaxu jotzailearekin** (4); **piano jotzailearekin** (8); **soinu jotzailearekin** (4)

**baxu jotzailearen** (6); **biolin jotzailearen** (6); **biolontxelo jotzailearen** (3); **gitarra jotzailearen** (4); **jotzailearen laguntza** (3); **jotzailearen laguntzarekin** (5); **jotzailearen laguntzaz** (3); **piano jotzailearen** (8); **sahats jotzailearen** (8); **soinu jotzailearen** (5)

**biolin jotzaileari** (3)

**gaita jotzaileek** (4); **gitarra jotzaileek** (3); **perkusio jotzaileek** (3)

**gitarra jotzaileen** (4)

**danbor jotzailek** (3)

---

# jotzailetza *iz* jotzailearen jarduera.

Ze kontzientziako karga gaiztok darama gizontxoa bere larruta edo **jotzailetza** ardura gisa, eman-behar, bete-behar, iraun-behar, gozarazi-behar eta, esan dezagun behingoz, auskalo noiztik eta nondik datorren ordainkizun edo zor baten gisa sentitzera? Iñaki Segurola

---

# jotze 1 *iz* gauza batek beste bat halako indarrez ukitzea; musika tresna bati soinua ateratzea.

Izan ere, "jo" esan, eta **jotze** fisikoa baino ez baitu, antza, zenbaitek entzuten. Joxerra Garzia

Gogora datorkit begiekin (eta, beraz, buruarekin) **jotze** horren kontrako osagarritzat har daitekeen bestelako operazio bat. Iñaki Segurola

Biolina hartu eta joka hasten zen, eta itsasoa ekartzen oroitzara, **jotze** hutsez. Felipe Juaristi

Jo duen gorputz geldiaren planoarekin isla-marrak osatzen duen angeluak, plano berarekin **jotze** -marrak osatzen duen angeluaren neurri bera du. Piarres Xarriton

· Orain eskubide historikoetara **jotze** hori. Berria - Euskal Herria

Abstentzio duinezko jarrera bat, beren buruak biziaren ibai nagusitik baztertutzat **jotze** halako bat. Juan Garzia

Noranahiko bideak har ditzakeen metafora bat iruditzen zait bukatugabea bukatutzat **jotze** hori. Anjel Lertxundi

Ez zen izan ez gora **jotzerik,** ez errukirik. Koro Navarro

Laino hori, edo bitsa, inbutuaren pareta handien elkar **jotzeak** sortzen zuen dudarik gabe. Koro Navarro

## 2 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Baina doi-doia besoa lanpara dagoen aldera luzatu orduko ate- **jotze** leun bat entzuten dut Tomen atean. Oskar Arana

Txalo-zarta batek, luze iraun zuen esku- **jotze** batek. Felipe Juaristi

Gure bozina eta txistu- **jotze** aski maiz errepikatuek inolako erantzunik ez baitzuten jasotzen... Joxe Austin Arrieta

Gitarra **jotze** keinuak egiten sartu zen. Unai Iturriaga

Hybrisak ez du soilik aditzera ematen hainbatek zientzialarien erronka- **jotze** jasanezintzat daukatena. Juan Garzia

Hamabost urtetik beherako neska-mutilen txorta- **jotzeak** . Lutxo Egia

Lur **jotze** horretatik halako zoriontasun zital batera pasatu nintzen. Juan Garzia

## 3 *adar-jotze*

Noiz arte **adar-jotze** hau, burla hau, gezur hau, infernu hau, txerrikeria hau, zirko hau...? Iñaki Segurola

Nire bizitza **adar jotze** handi bat da, hasieratik bukaeraraino. Koro Navarro

Lagun santu haiek oso **adar-jotze** dibertigarria egin nahi izan zidaten. Iñaki Mendiguren

Eta dena Siriusek egin zion **adar-jotze** zentzugaberen batengatik... Iñaki Mendiguren

Jendearen artean nahasturik eta burumakur, problemarik gabe iritsi nahi nuen gelara, inoren galdera ahogorririk eta **adar-jotze** alurik gabe. Anjel Lertxundi

Gure galdera eta **adar-jotze** lotsagabeekin haserretzen genuenean. Anjel Lertxundi

Baina Neska putaziringa zakil-berotzailearen **adar-jotze** krudelak larregikoak ziren. Jon Arretxe

Oso ona zure **adar jotze** hau, izugarri ona, bai. Koro Navarro

**Adar jotze** xume eta lagun artekoak izaten ziren, ez inola ere aintzat hartzekoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Salatu dutenez, hamasei hilabete daramatzate lan hitzarmenik gabe eta **«adar-jotze** hutsa da» patronalaren eskaintza. Berria - Ekonomia

Buruzagi sindikalak botoa eman ondoren esan zuen erreferenduma **«adar-jotze»** bat izan zela. Berria - Mundua

Mesfidantzaz begiratu zidan, nire ihardespenean **adar-jotze** aztarnarik ote zen mamitu nahirik edo. Aingeru Epaltza

## 4 *harpa-jotze*

Literatur aldizkari bateko zuzendariak, berriz, testu bat eskatu ondoren, itzuli egin zion, **harpa-jotze** bat iruditu baitzitzaion. Xabier Olarra

Su-eten iraunkorrarena, **harpa-jotze** iraunkorra baino ez da. Berria - Harian

Martinek, holakoetan beti egin ohi duenez, umorez hartu du nire **harpa-jotze** saioa. Xabier Etxabe

## 5 *kanpai jotze* (orobat ***kanpaijotze*** *g.er)*

Emakume eta **kanpai** -jotze kontuez hitz egiten. Pello Lizarralde

Bere **kanpai** -jotzea azkartzen zuela ikusi nuen, batzuetan bere zakilburuak nire ipurmasailak astintzen zituela sentitzen nuen. Juan Martin Elexpuru

**Kanpai-jotze** demasak izan ote zezakeen konplexu haren egituraketan parterik? **Kanpaijotze** saioei emozio pixka bat eranstearren, lehiaketan aritzea bururatu zitzaigun. Karlos Linazasoro

## 6 *larru-jotze*

**Larru-jotzeak** eta zakil-miazteak. Oskar Arana

Gero erotismo esplizitua eta **larru jotzeak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Lantokian atzealdeko eskailerapeko hutsartean egindako **larru-jotze** arinak. Oskar Arana

Jakina, **larru jotze** garbiraino ez beste zera guziak jo litezke zirritzat. Patziku Perurena

Nire lehen **larru jotzeaz** oroitzen hasi nintzen. Jose Angel Irigaray

Emma Bovary du gogoan, nola erabat aseta etxera datorren, begiak distiraz, arratsaldea **larru jotze** ero batean igaro ondoren. Oskar Arana

Ez omen dago **larru-jotze** on bat bezalakorik, norbaitengandik zintzilik geratzeko. Lourdes Oñederra

· Irakasleekin lotsagabe eta solasean ausart -beti **larru** eta kanpai- **jotze** -, lehen egunetan ez gintzaizkion hurbiltzen ere. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adar jotze** (36); **adar jotze bat** (3); **adarra jotze** (4); **adarra jotze aldera** (3); **harpa jotze** (3); **kanpai jotze** (3); **larru jotze** (8)

---

# jotzeke *adlag* jo gabe.

Egoera oker litekeela dakar egunkariak, petrolioak oraindik goia **jotzeke** daukalako. Urtzi Urrutikoetxea

Badaramatzagu urtetxo batzuk politikoek gazteleraz aise darabiltena euskaraz nola edo hala esan nahian, begi-begian **jotzeke,** baina. Iñigo Aranbarri

Gu, artean, gure kintako denok, larrurik **jotzeke** geundean. Pako Aristi

---

## **jubilatu**[1], jubila, jubiltazen **1** da *ad* erretiratu, erretiroa hartu.

Zortzi urte gehiago, eta **jubilatuko** da. Iban Zaldua

Orain, **jubilatu** garela eta, egingo al dugu Parisera buelta... Pablo Sastre

**Jubilatu** aurretxoan, goizeko laurak arte jotzen zuen han, etxera etorri, aldatu, eta lanera. Pako Aristi

Bera ez da inoiz **jubilatu** musikatik. Pako Aristi

Gaur egun **jubilatutako** mediku bat besterik ez da, Arkansasetik atera nahi ez duena Bernardo Atxaga

**2** (era burutua izanondo gisa)

Postari **jubilatu** bat. Unai Elorriaga

Ibilkeran eta berbakeran ere, Europako langile **jubilatuak**. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jubilatuta egon** (3)

---

## **jubilatu**[2] *iz* erretiratua, erretiroa hartu duen pertsona.

Gasolindegi aurreko tabernan dagoen **jubilatuak** ez daki denbora gutxi barru lapurreta baten lekukoa bilakatuko denik. Pako Aristi

Sasoikoak (?) banaka batzuk bakarrik gara; ia **dena** jubilatu jendea dabil, zeregin latzetatik latzagoa den zer eginik ezera erretiratuak. Iñaki Segurola

**Jubilatuak** geltokian paseatzen. Pako Aristi

Herriko **jubilatuen** biltokian bezalaxe. Koldo Izagirre

Zahar-etxe eta **jubilatu**-egoitzetan. Andoni Egaña

Doneztebeko **jubilatuen** elkarteko tabernan. Berria - Euskal Herria

**Jubilatuenean** izan zuan entrebista; hura bukatutakoan, kanpoan bazkaltzeko plana ere egina genian. Xabier Etxabe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doneztebeko jubilatuen elkarteko** (3); **herriko jubilatuen** (3); **jubilatuen elkarteko tabernan** (3)
> **jubilatuentzako egoitza** (3)

---

## **jubilatze** *iz* erretiratzea.

68ko belaunaldia **jubilatze** arora heltzen ari gara eta era masibo batean, gainera. Ana Urkiza

---

## **jubilazio** *(**20** agerraldi, **11** liburu eta **7** artikulutan; cf **erretiro** **468** agerraldi, **72** liburu eta **244** artikulutan)* *iz* erretiroa.

EAEko biztanleen %62 uste du **jubilazioan** kobratuko duen pentsio publikoa ez dela nahikoa izango bizitzeko. Berria - Ekonomia

Zaborrari deitzeko dauden beste hitz guztiak: eromena, zorte txarra, **jubilazio** aurreratua, espetxea... Pako Aristi

Andreari urtebetetzean zer oparitu, **jubilazio**-plana nola prestatu. Jon Alonso

**Jubilazio**-saria ordaintzeko era bat. Harkaitz Cano

**Jubilazio** pentsioek, berriz, %28,21 eta %37,03 tartean egin dute gora. Berria - Ekonomia

[Teleskopioari] behin betiko **jubilazioa** ematea erabakitzen du eta, ospatzeko-edo, neskalaguna gonbidatzen du afaltzera. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **jubileu** *(orobat **jubileo** eta **jubilau**)* *iz* Aita Santuak katolikoei okasio jakin batzuetan ematen duen induljentzia osoa.

Aita Sainduak emana zien alabaina Artzapezpikuari eta haren etxeko guztiei egun horrentzat, urte sainduarentzat bezala, **jubileo** osoa. Piarres Xarriton

Berrogeita hamargarren urtea urte santutzat hartuko duzue eta **"Jubileu** Urte" emango diozue izen. Elizen arteko biblia

**Jubileu** Urtean zuetako bakoitzak bere lurren jabetza berreskuratuko du. Elizen arteko biblia

Erromako **Jubileoaren** eliza eraikitzeko. Berria - Gaiak

Klase ertainaren baikortasun atsegin hau ez zen gauza berria Victoria erreginaren **Jubileuaren** garaian. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jubilau urte** (3); **jubilau urtea** (5); **jubileu urtea** (5); **jubileu urtean** (7); **jubileu urtera** (7)

---

## **judaiko** *izond* juduena, judu-.

Jatorri **judaikoa** duten erlijioetan. Iñaki Mendiguren

Monoteismo **judaikoaren** patua behin eta berriro agertzen zen politeismoaren erasopean egotea zela. Iñaki Mendiguren

Historiaren ikuspegi **judaikoaren** agustindar bertsioa. Iñaki Mendiguren

Zeren eta kristautasunaren sustrai **judaikoak** bere moisestar sustraia baitzuen, eta Israel eta Judako erlijioaren profetaurreko aldi hau aurreko hondamendi sekular baten emaitza zen, Egiptoko "Inperio Berriaren" kolapsoarena, hain zuzen. Iñaki Mendiguren

---

## **judaismo** *iz* Biblian eta Toran oinarritzen den erlijio jainkobakarra.

Greziako erlijio nagusia kristautasun ortodoxoa da, eta **judaismoa** eta islama kenduta, beste erlijio guztiak debekaturik daude. Berria - Gaiak

Israelek beren lurrean bizitzea ukatu die palestinarrei, **judaismoaren** izenean. Berria - Mundua

**Judaismoaren** alde ausarki borrokatu ziren gizon adoretsuen alde izandako zerutiko agerpenak. **Judaismoan** horri *Talmud* deritzo, hau da, 'irakaspena, ikasketa'. Elizen arteko biblia

**Judaismoa** eta haren senide zen samaritarren erlijioa Hego Sirian sortu ziren. Iñaki Mendiguren

**Judaismoak** eta zoroastrismoak Gizarte Babilonikoaren barne-proletalgoan izandako jatorriak kristautasunak eta mitraismoak Gizarte Helenikoaren baitan izandakoen antzekoak ziren. Iñaki Mendiguren

Gure mundu hau askoz ere bidezkoagoa eta zoriontsuagoa litzateke ezagutzen ditugun hiru erlijio monoteistek, kristautasunak, **judaismoak** eta islamismoak duten eragina galduko balute. Berria - Euskal Herria

---

## judaizazio *iz*

Kristau-aroko hogeigarren menderako, ekonomi eraginkortasunaren helburuRantz egiten ari ziren ibilaldi luzean, Mendebaldeko herrien zutabearen ekialdeko atzegoardiak ere itxuraldaketa izango zuen, egokitasun berberaz modernizazio edo **"judaizazio"** dei daitekeen mugimendu baten Ipar Italiako eta flandestar aitzindariek mila urte lehenago lortua zutena. Iñaki Mendiguren

---

## judas *iz* Ate, horma edo kidekoetan egiten den zuloa, ikusia izan gabe zelatatzeko.

Ate hermetiko bat besterik ez, metalezkoa, **judas** batekin. Agurtzane Juanena

Esan gabe doa, salatariaren begia da **judasa**. Iñigo Aranbarri

Eta kezkatzen gaitu nola kontatzen zaigun hori guztia, **judas** begiak, ahur edo ganbil, beti distortsionatzen baitu bestaldean dagoena. Iñigo Aranbarri

Hala ere, bat hautatu behar eta **judasa** zait aloso, frantsesak oso berea duena, ate zirritua esateko, ateko xilo eta ate ostekoaren begi. Iñigo Aranbarri

Efektu estetikoa polita zen oso, **judasaren** biribila telebista ekranaren karratuan. Iñigo Aranbarri

Aldian behin **judasa** zabaldu egiten da, grisen batek begi ematen dit. **Judasetik** zelatan edukiko ditugu, gure arteko hizkera ikasi nahiko dute. Agurtzane Juanena

Hizlandia mundua prentsaren **judasetik**. Iñigo Aranbarri

---

## judatar *iz* Judaren leinukoa; leinu horri dagokiona.

Jaunak agindu bezala joan ziren, aurrena **judatarrak** eta ondoren gainerako leinuak, lerroz lerro, gudalostetan banaturik. Jose Antonio Mujika

Judako errege Manasesek bere aurretiko amortarrek baino egintza higuingarriagoak egin dituenez eta, sasijainkoak direla-eta, **judatarrei** bekatu eginarazi dienez, [...]. Elizen arteko biblia

Jakin zuten **judatarren** eta benjamindarren etsaiek erbestealditik etorriak Israelen Jainko Jaunari tenplua eraikitzen ari zitzaizkiola. Elizen arteko biblia

Israeldarrek eta **judatarrek** egin dituzten gaiztakeria guztiengatik. Elizen arteko biblia

**Judatarrek** Simeonen leinuko beren senideekin joan eta Tzefat hirian bizi ziren kanaandarrak garaitu zituzten eta hiria erabat suntsitu. Elizen arteko biblia

---

## judeofobia *iz* judufobia.

Pérez Galdós eta J. Valera-ren **judeofobiaren** erabilera eleberrizkoa. Joxe Azurmendi

---

## judeokristau *izond* judukristaua.

Erruduntasun konplexu **judeokristauak** hor zirauen, guraso modernoek bataiatu ere egin ez gintuztenongan. Harkaitz Cano

---

## judeomasoniko *izond* judumasoia.

Moda **judeomasonikoak** zeharo debekatu ziren. Joseba Sarrionandia

---

## judikatura *iz* herrialde bateko epaileak osatzen duten gorputza.

«Estatuak, **judikaturak** eta sektore atzerakoiek» bake bidean sor daitezkeen aukerak oztopatu nahi dituztela. Berria - Euskal Herria

Ez dut **judikatura** guztiaren izenean hitz egiten, 4.500 epaileen artean gehienak ez baitira nirekin ados egongo. Berria - Euskal Herria

Elizak edozein unetan interferitzen du debate politikoan; **Judikaturak** men egiten dio Exekutiboari noiznahi, inolako independentziarik gabe... Berria - Kultura

ETAren adierazpenak Espainiako **judikaturan** ere izan zuen eraginik. Berria - Harian

---

## judio *iz* judua.

Komunisten, **judioen** eta framazonen kontra. Itxaro Borda

- **Judio** batzuen etxean ari zara lanean ez? Itxaro Borda

Nolabait esan, Ehiztari Beltza, kristandadetik bazter gelditzen dena genuke, edo sotana beltzaren azpian gordetako hereje, moro, jito, **judio** edo dena delako jendaje iluna. Patziku Perurena

---

## judizial *izond* epaile-, epailearen.

Aginte **judizialaren** eskumen esklusiboa. Berria - Euskal Herria

Espainiako agintari **judizialek**. Berria - Mundua

Salbuespen egoerak erraz aplika daitezke bai politikan bai sistema **judizialean,** batik bat "terrorismoa" bezalako etsaiaren aurka. Joseba Zulaika

Prozedura administratibo edo **judizialetan**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nahiago dut erabaki **judizialak** ikuspegi juridikotik kritikatu. Berria - Euskal Herria

Ikerketa **judiziala** abian. Berria - Mundua

Polizia **judizialekoak** izan behar zuten. fiskalak Vincent Humbert gaztearen heriotzagatik hasitako auzibidea artxibatzeko eskatu du, eta, ondorioz, haren amaren eta medikuaren gaineko kontrol **judiziala** eteteko. Berria - Gaiak

Sei hilabeteko zuzenketa **judizialpean** ezarria izan baitzen SAFAM altzairu lantegia joan den otsailean, epe erdiko puntua egin dute joan den astean Baionako komertsio auzitegian. Herria

Francisco Hernando Espainiako Botere **Judizialeko** lehendakariaren berbak. Berria - Euskal Herria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**babes judizial** (7); **babes judizial eraginkorra** (3); **botere judizial** (7); **ebazpen judizial** (3); **ekinbide judizial** (3); **erabaki judizial** (4); **erakunde judizial** (3); **ikerketa judizial** (6); **ikerketa judizial bat** (5); **instantzia judizial** (3); **judizial eraginkorra** (4); **kontrol judizial** (4); **neurri judizial** (3); **prozedura judizial** (4); **prozesu judizial** (4); **sistema judizial** (5)

**administratzaile judiziala** (4); **agindu judiziala** (4); **aurkako prozesu judiziala** (3); **auzi judiziala** (3); **bide judiziala** (3); **bordeleko polizia judiziala** (3); **botere judiziala** (31); **erabaki judiziala** (7); **ikerketa judiziala** (5); **kontrol judiziala** (3); **lehia judiziala** (8); **politiko eta judiziala** (3); **polizia judiziala** (10); **prozedura judiziala** (5); **prozesu judiziala** (11); **sistema judiziala** (3); **zuzenketa judiziala** (3)

**administratzaile judizialak** (3); **aurkako ekinbide judizialak** (4); **berme judizialak** (5); **bide judizialak** (4); **botere judizialak** (25); **deklarazio judizialak** (3); **ebazpen judizialak** (14); **ebazpen judizialak betetzea** (3); **ekinbide judizialak** (10); **erabaki judizialak** (7); **forma judizialak** (3); **frantziako polizia judizialak** (4); **idazkari judizialak** (4); **ikerketa judizialak** (5); **inputatuen deklarazio judizialak** (3); **iturri judizialak** (3); **judizialak hartu** (4); **neurri judizialak** (4); **polizia judizialak** (14); **polizia judizialak hartu** (4); **polizial eta judizialak** (4)

**aginte judizialaren** (7); **botere judizialaren** (78); **botere judizialaren independentzia** (7); **botere judizialaren kontseilu** (35); **ebazpen judizialaren** (3); **erabaki judizialaren** (4); **espainiako botere judizialaren** (14); **lehia judizialaren** (19); **lehia judizialaren usadioa** (6); **polizia judizialaren** (6); **prozedura judizialaren** (3); **prozesu judizialaren** (3); **sistema judizialaren** (3)

**botere judizialari** (10); **botere judizialari dagokiola** (3)

**aginte judizialean** (3); **arlo judizialean** (3); **botere judizialean** (5); **sistema judizialean** (5); **zuzenketa judizialean** (3)

**agintari judizialei** (4)

**agintari judizialek** (5); **espainiako agintari judizialek** (3)

**botere judizialeko** (39); **botere judizialeko batzorde** (4); **botere judizialeko kontseilu** (22); **espainiako botere judizialeko** (15); **karrera judizialeko** (3); **polizia judizialeko** (4)

**iturri judizialen** (3); **iturri judizialen arabera** (3); **lehia judizialen** (3)

**bide judizialetik** (4)

**baimen judizialik** (5); **botere judizialik** (3); **oinarri judizialik** (3); **prozesu judizialik** (3)

---

# judizializatu, judizializa, judizializatzen du *ad* zerbaiti izaera judiziala eman.

PPk euskal munduarekin zerikusia duen edozein auzi politiko **judizializatzeko** duen obsesioaren barruan. Berria - Euskal Herria

Bizitza politikoa **judizializatu** eta ezker abertzalea politikoki ezabatzeko. Hezkuntza **judizializatzeko** arriskua al dago? Berria - Euskal Herria

Alderdi politikoak, eragile sozialak, komunikabideak eta euskalgintzako eragileak ere **judizializatu,** kriminalizatu eta legez kanpo jarri izan dira azken garaietan. Berria - Euskal Herria

---

# judizializatze *iz* zerbaiti izaera judiziala ematea.

Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erabaki batek Eusko Legebiltzarrean Jaurlaritzaren estatutu proposamenaren eztabaida eragotzi ahal izatea ez al da politikaren **judizializatze** gehiegizkoaren seinale? Berria - Euskal Herria

Noren errua da politikaren **judizializatzea**? Berria - Euskal Herria

---

# judizializazio *iz* judizializatzea.

Ideia politikoen **judizializazio** eta kriminalizazioari dagokionez. Berria - Euskal Herria

Ildo horretan, «politikaren **judizializazioa** eta justiziaren politizazioa» salatu zituen. Berria - Euskal Herria

Bitartekaritza programak **judizializazioaren** kontrakoak dira. Berria - Euskal Herria

Kulturaren jazarpen eta **judizializazioa**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**politikaren judizializazioa** (4)

---

# judizialki *adlag* alde judizialean.

**Judizialki** bere buruaz beste egitea balitz bezala azaldu dute kazetari, abokatu edo justizia alorreko beste jarduleek zein behatzaile arruntek Zacarias Moussaoui euskal herritarraren jokaera haren epaibidea hasi denetik. Berria - Mundua

---

# judiziamendu *iz* auzipetzea.

**Judiziamendu** Kriminaleko Legearen 746. artikulua oinarri hartuta. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**judiziamendu kriminaleko legearen** (3)

---

# judizio *(406 agerraldi, 35 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***juizio*** *36 agerraldi, 19 liburu eta 5 artikulutan; Euskaltzaindiaren Hiztegian biak agertzen dira,* ***judizio*** *Jas. markarekin eta* ***juizio*** *Heg. markarekin)* **1** *iz* epaiketa.

Elkartearen helburua da Angel Berroetaren kontrako **judizioan** hilketa salaketa aurkeztu ahal izatea. Berria - Euskal Herria

Halakoetan ez dago epaia emateko betebeharrik ezta **judizio** gaia izan daitekeenik ere. Andres Urrutia

Hain erruduntzat ze, **juizioaren** aukera ere ez zioten eman nahi izan. Edorta Jimenez

**Juizio** zain, urtebete, hi. Pablo Sastre

· Bere buruaz egin zuen **juizio** zorrotza. Jon Alonso

**2** *(Jainkoarena)*

Heriotza eta **judizioa** sarri aipatzen ditu Erdi Aroko gizakiak, bai eta Frantziskok ere. Askoren artean

Jainkoen **judizioek** gainditzen dutela urrundik gizakien ulermena. Piarres Xarriton

Jakin beza Jainkoaren **judiziorako** errudun dela egin duen gaiztakeriagatik. Askoren artean

Ez dugu Apokalipsian eta Azken **Judizioan** sinesten. Oskar Arana

Eta Jaungoikoaren **juiziora** hel gaitezenean, **juizio** eguna edota Jaunaren eguna deritzon unera alegia. Imanol Unzurrunzaga

**3** filosofian, bi adigairen arteko erlazioa, haiei buruzko baieztapen bat ahalbidetzen duena.

**Judizio**-mota bi daude: arruntak ("mahai hau orlegia da") eta hausnarketazkoak (kontzeptu orokorrei buruzkoak). Askoren artean

Windelbandek funtsezko hiru balio eta **judizio** mota bereizten du: logikoa, etikoa eta estetikoa. Politikaren arloan doa Aristoteles emeki-emeki jartzen bertutea eta bizioa, **judizio** batzuk argi dituen heinean. Joxe Azurmendi

Denak dira kategoriak, ez **judizioak,** esaten dena dagoeneko beren baitan dagoelako. Askoren artean

**Judizioen** funtzio logikoak oro har, hots, batasuna eta askotasuna, baieztapena eta ukapena, subjektua eta predikatua, ezin dira definitu zirkulu bat egin gabe, zeren definizioa bera **judizio** bat baita, eta beraz, funtzio horiek barnebildu beharko bailituzke. Ibon Uribarri

Aipatutako hipotesiak, ordea, **judizio** problematikoak baino ez dira, kontraesan ezin direnak bederen, nahiz eta, noski, ezein modutan frogatu ere ezin diren, eta beraz, iritzi pribatu hutsak dira. Ibon Uribarri

Pailazo konspiratzailea ez zen, ordea, inozoa: eskolan ez zuen [...] zerbait konkreturekin lot genezakeen **juiziorik** egiten. Anjel Lertxundi

Giardino Realera eraman naute lehendabizi [...], **juizio** kontrajarriak eragiten dizkidan Mole Antoneliana izeneko eraikuntza badaezpadakora gero. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan)

Erkaketa-**judizioak,** judizio arau-emaileak, deskribapen-**judizioak,** etab. Askoren artean

Edertasun- **judizioa** bigarren mota horretakoa da. Askoren artean

Justifikatu gabeko balio- **judizioak** ahal bezala ekidin behar dira. Askoren artean

**5** zentzua.

**Juizioa** daukaten pertsonek ere egun txarrak datozela sumatu dutenean. Jon Alonso

Honaxeko adi gaietan galtzen zuen buruko **juizioa** zaldun gizajoak. Patxi Ezkiaga

**6** ***azken judizio*** *(36 agerraldi, 25 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***azken juizio*** *10 agerraldi, 8 liburu eta artikulu 1ean)*

Kreazioa, Jaunaren Jaiotza, bigarren etorrera, azken **judizioa**. Askoren artean

Uste dut azken **judizioa** arte ez direla zenbait gauza argituko. Patxi Zubizarreta

Genesia eta Azken **Judizioko** Eguna: munduaren hastea eta akabatzea... Joan Mari Irigoien

Michelangeloren *Azken* ***Juizioa,*** *Gioconda,* dagerrotipo bat edota film bateko fotograma bat. Josu Zabaleta

*Dies Irae* Azken **Juizioko** eguna deskribatzen duen erdi aroko eresi bat da. Xabier Olarra

Gustuko ditudan poetak behin eta berriz irakurtzen ditut, haiek azken **juizioan** nire defentsa presta dezaten. Harkaitz Cano

Lehena da, sekulako presondegia, bere hondakin, zikinkeria eta usain tzarrekin jasan beharko dutena, mundu gorpuzkin honen garbitzera etorriko delarik azken **judizioaren** eguneko sua. Piarres Xarriton

**7** ***juizioko hagina*** zuhurtziaren hagina.

**Juizioko** hagina bere tokia egin nahian. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apriorizko judizio** (11); **apriorizko judizio sintetikoak** (5); **judizio ahalgarri** (5); **judizio analitikoa** (3); **judizio analitikoen** (4); **judizio etikoak** (3); **judizio mota** (3); **judizio sintetiko** (10); **judizio sintetikoen** (5); **judizio sintetikoetan** (3)

**azken judizioa** (10); **azken judizioa arte** (3); **judizioa analitikoa** (3)

**azken judizioan** (4)

**azken judizioaren** (5); **judizioaren egunean** (4)

**azken judizioko** (13); **azken judizioko eguna** (6); **azken judizioko egunean** (3); **judizioko eguna arte** (4)

---

# judo **1** *iz* Japonian asmatutako borroka kirola.

**Judo** egiten nuen, gerriko beltza nintzen bai. Pako Aristi

Aitak izterretatik oratu du eta **judoko** giltza dirudien batekin oheratu du. Eider Rodriguez

**Judoko** Federazioak kontrolatzen du. Berria - Kirola

Halterofilia-zirkuituak, **judo** eta norberaren defentsarako ariketak. Berria - Kultura

500 toki jarririk ikusliarrentzat, eskubaloi edo saskibaloi kirol zelai handi bat, bainan ere **judo** egiteko barne bat. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Gazte batzuk elkarri **judo**-giltzak egin nahian zebiltzan trenbidearen koskatik oso hurbil. Bernardo Atxaga

Nazioarteko **Judo** Federazioko presidentea. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**judo federazioan** (3); **judoko federazioaren** (3)

---

# judoka *iz* judoan aritzen den kirolaria

Euskal **judokak** bikain aritu dira Espainiako Txapelketan, bederatzi domina irabazi baitituzte: [...]. Berria - Kirola

Euskal **judokek** maila bikaina eman dute asteburuan Bukaresten.

---

# judu *(3024 agerraldi, 56 liburu eta 453 artikulutan)* **1** *iz* Abrahamen ondorengoek osatu zuten eta gaur egun mundu osoan zehar barreiatua dagoen herriko kidea. ik **judutar; hebrear**; **israeldar**.

Asuero erregearen bigarren izan zen Mardokeo **judua,** gizon handia **juduen** artean. Jose Antonio Mujika

Bazen Susan **judu** bat, Mardokeo izenekoa, behiala Nabukodonosor errege babiloniatarrak Jerusalemen hartu eta erbeste hartara eramana zuena, beste **juduekin** batera. Jose Antonio Mujika

**Judu** batzuk Jerusalem inguruko leize-zuloetara joan ziren, larunbat-jaia isilean ospatzera. Elizen arteko biblia

Gu guztiok, **judu** nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak. Elizen arteko biblia

Asiako probintziako **judu** batzuk. Elizen arteko biblia

Sarriago, agian, erromatar zuzenbidea **juduen** bitartekaritzaz iritsi zen Islamera. Iñaki Mendiguren

Han Timoteo izeneko ikasle bat aurkitu zuen; ama **judua** zuen eta kristaua; aita, berriz, greziarra. Elizen arteko biblia

Erdi Aroko kristau katoliko konkistatzaile barbaroak kristau-erkidego homogeneo baten idealera emanak baitzeuden, eta K.o. 1391 eta 1497 bitartean **juduak** deserriratzera edota kristautasunera konbertitzera behartu zituzten. Iñaki Mendiguren

**2** *(XX. mendekoak)*

Goiz hartan bertan bereizgarria ez zeraman **judu** bat bota zutela ostikoka tranbiatik. Anjel Lertxundi

Rauter, alemaniar ur handiko arrain batek, uztailaren 1erako **judu** guztiek germaniar herrialdeetatik alde egin beharko dutela esan du hitzaldi batean. Josu Zabaleta

Bi **judu** zituen bere etxean ezkutaturik. Josu Zabaleta

Espien eta desertoreen bidea zela, baita nazionalsozialistengandik ihes egin nahi zuen **judu** askorena ere. Anjel Lertxundi

**Juduak** akabatzen dituztela, salbuespenik gabe, **judu** bakar batzuk geratu direla ghettoetan, Varsovian, Lodzen, Radomen. Felipe Juaristi

Yiddish hiztunak ziren alemaniarrek heriotza esparruetan erail zituzten **judu** gehienak; eta baita Stalinek hil zituenak ere. Koro Navarro

Ehunka **judu** kristautu dira Varsovian, eta Poloniako prentsak etengabe erasotzen die. Koro Navarro

Robert Capa, sortzez hungariarra eta erlijioz **judua**. Edorta Jimenez

**3** (izenondoekin)

**Judu** exortzista batzuk ere Jesus Jaunaren izenaz baliatzen hasi ziren. Elizen arteko biblia

**Judu** makabeoak nola matxinatu ziren siriar heleniarren kontra [...] eta nola sagaratu zuten Tenplu Sakratua, profanatua izan baitzen. Koro Navarro

Espainia eta Portugaleko **judu** sefardita iheslarien komunitate zibilak. Iñaki Mendiguren

Ni, **judu** askenaztarra naizenez, ez naiz honen itsusia". Fernando Rey

New Yorken gertatzen diren eleberri eta ipuinak, bertan bizi diren **judu** "asimilatu" edo asimilazio bidean daudenen freskoa dira maiz. Koro Navarro

Europako preso politiko guziak, español anarkistak, **judu** hungariarrak, komunistak, gaullista frantsesak nahasiak dira, nahitara, elgar ezezta dezaten. Marzel Etxehandi

**Judu** zikin horien eta irlandar zorritsu horien ezjakintasuna. Lopez de Arana

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lanbidez aztia zen **judu**-sasiprofeta bat aurkitu zuten han, Barjesus zeritzana. Elizen arteko biblia

**Judu**-agintariek apaiz- eta lebitar-talde bat bidali zioten Joani Jerusalemdik nor zen galdetzera. Elizen arteko biblia

Horrela, **judu**-gudariak onik heldu ziren Judeara. Elizen arteko biblia

**Judu**-esklaboak erostera etortzeko deia igorri zuen kostaldeko hirietara Demetrio erregeak bere gudalburu ospetsuenetako bat, Nikanor, bidali zuen **judu**-herria suntsitzera. Elizen arteko biblia

Penintsulako **judu**-diasporaren ongizateak. Iñaki Mendiguren

Jende errebelde, berritsu eta liluratzaile asko dago, **judu**-jatorrikoen artean batez ere. Elizen arteko biblia

Azkenik suak ezeztatuko baitu **judu** arraza osoa, arraza horretako bakar batek, emazte, haur, zahar izanik ere, ez baitu, Hitler-en filosofiaren arabera, bizidunen artean izaiteko eskubiderik. Michel Oronoz

Hasierako kristauak ez zetozen bat **judu**-tradizioarekin. Iñaki Mendiguren

Otoitzean ari zen **judu**-elkarte osoaren alde. Elizen arteko biblia

**Judu**-herrixketako jendeak. Elizen arteko biblia

Europar gizon ospetsu baten tankera zuen, **judu** auzoa bisitatzera makurturik. Koro Navarro

Pedro eta Joan **judu**-biltzarraren aurrean. Elizen arteko biblia

**Judu**-erlijioan zintzo irauten zutenak. Elizen arteko biblia

Baina inork ere ez zekien **judu**-hizkuntza. Elizen arteko biblia

Nire **judu** izaera deskubritu berriak azaleratutako oroitzapena. Anjel Lertxundi

Yiddishari eta **judu** nortasunari uko egin gabe. Koro Navarro

**5** *(hitz elkartuetan lehen osagai gisa, bigarren osagaia izenondoa delarik; ik* **judukristau**)

Oroz gain "konspirazio **judu**-masoniko" famatua. Joxe Azurmendi

*ik* judumasoi.

**Judu**-eslaviar melankolia. Matías Mujika

Hortik eratorria da Jarach deitura **judu**-piamontearra. Juan Garzia

Beste hizkera **judu**-italiar batzuetan. Juan Garzia

Modan jarriko da edozein espainol autore, artista, pertsonaia, poema, santu, liburuiri arbaso **judu**-arabiarrak xerkatzea. Joxe Azurmendi

Bat Hannah Arendt (1906-1975) **judu** aleman ikerlea, Totalitarismoaren Iturriak aztertu dituena, bestea Emmanuel Lévinas (1905-1975) pentsalari **judu** lituaniarra, *Etika eta Infinitua* idatzi duena. Piarres Xarriton

**6** (izenondo gisa)

Pedrorekin etorritako fededun **juduak** txunditurik zeuden, Espiritu Santuaren dohaina jentilen gain ere isurtzen zela ikustean. Elizen arteko biblia

Meredek beste emazte **judu** bat ere izan zuen, eta hiru seme eman zizkion. Elizen arteko biblia

Zapatari **judu** baten denda bisitatuko diagu. Anjel Lertxundi

Gero, gure poliklinika ireki zuten, eta ni kalera bota ninduten, beste sendagile **judu** batekin batera. Felipe Juaristi

Isaac Bashevis Singer (1904-1991) bete-betean sartzen da kontalari **judu** ospetsuen zerrendan. Koro Navarro

Milionario **judu** baten alaba. Koro Navarro

Liebkind Bendelek hotel **judu** ortodoxo batean ipini zuen Wandel doktorea. Koro Navarro

Lehen mailako eskola **judu** erlijiosoa, hiru urtetik aurrerako mutikoei hebreeraren, Torah-ren eta judutasunaren oinarriak irakasten zitzaiena. Koro Navarro

Jaialdi **judu** laikoa, zortzi eguneko iraupena duena. Koro Navarro

**7** ***judu herratu***

-Agur, **Judu** Herratua, bidaiari zoriontsu eta jomugarik gabea! Anjel Lertxundi

Haur alemanek txiki-txikitatik entzuten zuten ipuinaren arabera [...], munduz mundu eta mendez mende zebilen **judu** herratuak irudika daitekeen bekaturik larriena zeraman zakuto itxurako konkorrean: jainkoa hil izana. Anjel Lertxundi

Mila mozorro ditu **judu** herratuak, eta ez zaio aise hartzen trazarik. Anjel Lertxundi

Nahitaez **judu** herratua izango da euskalduna, arrotz hein batean edonon, baina Espainian ez derrigor etxeanago Frantzian edo Ingalaterran baino. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**emakume judu** (10); **estatu judu** (4); **familia judu** (9); **filosofo judu** (4); **gazte judu** (3); **judu agintariak** (4); **judu agintariek** (8); **judu agintarien** (4); **judu aleman** (3); **judu armada** (3); **judu armadak** (3); **judu arraza** (3); **judu bihurtzeko** (3); **judu biltzarreren** (5); **judu biltzarraren aurrean** (5); **judu diaspora** (6); **judu diasporak** (4); **judu diasporaren** (3); **judu egin** (4); **judu egingo** (3); **judu eta kristau** (3); **judu ez direnei** (3); **judu familia** (6); **judu gazte** (6); **judu gobernu** (9); **judu gobernu buruak** (4); **judu gobernuak** (4); **judu herratu** (3); **judu herratua** (4); **judu herratuak** (3); **judu herratuaren** (4); **judu herri** (6); **judu herri osoari** (4); **judu herria** (5); **judu herriak** (7); **judu herriari** (8); **judu israeldarren** (3); **judu izan** (7); **judu izanik** (5); **judu izatea** (5); **judu lehen minixtroak** (8); **judu lehen minixtroari** (3); **judu sudur** (3); **judu talde** (3); **judu txiki** (3); **judu zahar** (4); **judu zaharrak** (3); **judu zaharraren** (3); **kanpoko judu** (3); **kokagune judu** (11); **kolonia judu** (3); **kolono judu** (7); **komunitate judu** (4); **mila judu** (3); **milioi judu** (5); **milioi judu bizi** (3); **neska judu** (4)

**ariel sharon judua** (3); **erdi judua** (3); **estatu judua** (7); **gehiengo judua** (4); **judua izan** (10); **judua izango** (3); **judua izatea** (3); **judua salbatzeko** (3); **komunitate judua** (4); **lobby judua** (4); **mardokeo judua** (6); **sharon judua** (4)

**ariel sharon juduak** (4); **bizi diren juduak** (3); **bizi ziren juduak** (5); **haur juduak** (3); **idazle juduak** (3); **irakasle juduak** (5); **juduak hiltzeko** (3); **juduak izan** (4); **juduak suntsitzearen ordain** (3); **kokagune juduak** (18); **kolono juduak** (7); **langile juduak** (3); **mardokeo juduak** (3); **sharon juduak** (4)

**kokagune juduan** (4); **lizeo juduan** (3)

**estatu juduaren** (3); **irakasle juduaren** (5); **kokagune juduaren** (8); **komunitate juduaren** (5); **netzarim kokagune juduaren** (3)

**kolono juduei** (3)

**bizi diren juduek** (3); **juduek ontzat eman** (3)

**amerikako juduen** (3); **ekialdeko juduen** (5); **juduen alde** (8); **juduen aldetik** (3); **juduen artean** (23); **juduen arteko** (9); **juduen artetik** (3); **juduen aurka** (8); **juduen aurkako** (13); **juduen aurkako erasoak** (3); **juduen aurrean** (3); **juduen bila** (4); **juduen boto** (3); **juduen botoa** (3); **juduen errege** (6); **juduen erregea** (19); **juduen etsai** (4); **juduen garaipena** (4); **juduen jai** (3); **juduen kontra** (21); **juduen kontrako** (21); **juduen kontrakoak** (3); **juduen ondorengo** (3); **juduen ondorengoa** (3); **juduen patua** (3); **kokagune juduen** (9); **kokagune juduen aurkako** (3); **kolono juduen** (8)

**kokagune juduetatik** (3)

**kokagune judutik** (3)

**judutzat salatu** (3)

---

# judueria *(orobat* ***juduteria****)* *iz* judu herria, juduen multzoa.

**Judueria** historikoa diaspora zen, eta judu-ethos eta erakunde tipikoak [...] diasporak denboran zehar gizarte-talisman bihurturikoak ziren. Iñaki Mendiguren

**Judueria,** Mendebaldeko Kristandadearekin talka egin zuen forman, aparteko gizarte-fenomenoa zen. Baina kontraste horrek beste bat ispilatzen du, Diasporako **juduteriari** funtsezkoen zaiona, hain zuzen, [...]. Iñaki Mendiguren

---

# judufobia *iz* juduen aurkako grina. ik **judeofobia**.

Xenofobo eta antisemita itzela ere bada Baroja, **judufobia** birulento partikularrekoa bereziki. Joxe Azurmendi

---

# judukristau *(orobat* ***judu-kristau****)* *izond* judu eta kristau tradiziotik datorrena. ik **judeokristau**.

Teologia **judukristau** eta islamdarrean agertu zen aurrenekoz jainko sortzailea. Berria - Kultura

"infernu eternoa" asmatu behar izan zuen erlijio **judukristauak,** monoteismoa hedatzerakoan jende inozentea harrituko eta ikaratuko bazuen. Patziku Perurena

Kultura **judukristaua** baitaukagu. Ezin da jasan mitologia **judu** -kristaua, eta Polinesiako edo aurrehistoriako mitologiak debozioz mires/goresten dira. Joxe Azurmendi

Iturburu bi horiek ditu, izan ere, gizaki/gizatasunaren kontzeptu Mendebaldekoak: greko-erromatarra eta **judu** -kristaua. Askoren artean

Gure bertsolariak, gehienak semita kastakoak, sermoilari **judukristau** peto-petoak izan dira horretan, batez ere, entzulea kupidarazi, eta sos batzuk ateratzeko orduan. Patziku Perurena

---

# judukristautu, judukristau(tu), judukristautzen da/du *ad* judukristau bihurtu.

San Juanak izan baitira, nolabait esan, mundu barbaroa **judukristautu** dutenak. Patziku Perurena

---

# judumasoi *izond* juduena eta masoiena omen dena. ik **judeomasoniko**.

Eta hona paradoxa: halere, inperio horren kontrako iraultzailea duzu **judumasoien** aldeko inoxenterik sutsuena. Patziku Perurena

Ez ote gaitu gu, zinezko euskaldunok, halatsu jotzen, orduko greziar litzaken inperio globalizatzaile **judumasoi** honek? Patziku Perurena

---

# judumasoikeria *iz* judumasoien jardun gaitzesgarria.

Oraingo **judumasoikeria** aberekoi honek ari duen masakre humanista. Patziku Perurena

Horrek guziak egungo gizarte eredua dakar burura: bazter guziak, ezker eskuin arrasatzen dituen **judumasoikeria,** alegia. Patziku Perurena

---

# judutar *(121 agerraldi, 20 liburu eta 32 artikulutan)* **1** *iz* judua.

Ninibeko **judutar** guztiek ospatu zuten egun hura. Jose Antonio Mujika

**Judutarrek,** herrialde guztietan legez kanpo utzita, beren ondasunak babesteko modua aurkitu zuten. Iñaki Iñurrieta

**Judutarrak** Babiloniara eta Mesopotamiara zabaldu ziren lehenengo, Mare nostrum -erromatarrena, alegia- inguruko herrialdeetan zehar, gero. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Judutarrek,** herrialde guztietan legez kanpo utzita, beren ondasunak babesteko modua aurkitu zuten. Iñaki Iñurrieta

Han bere burua konbentzitu zuen, eta **judutarren** erlijioa benetako bakarra zela esango zuen bere bizitzako azken uneraino. Juan Martin Elexpuru

Kristautzen ziren **judutar** guztien ondasunak konfiskatzea. Iñaki Iñurrieta

Naziek **judutarren** aurka erabakitako "azken soluzioa". Oskar Arana

Enpirista logiko garrantzitsuenak **judutarrak** edo ezkertiarrak zirenez, [...]. Askoren artean

Amos Oz, **judutar** arabiarzaletzat dute Israelen, traidore handitzat alegia. Berria - Kultura

• **2** *izlag*

**Judutar** dentista bat ezagutu zuen eta harekin hasi zen bizitzen. Gotzon Garate

**Judutar** legearen arabera, judutar osoa zara. Oskar Arana

**Judutar** filosofiaren lehenengo klasiko handia. Xabier Kintana

Hori egitean Maimonek **judutar** pentsamenduaren tradizio luze batekin egiten du bat. Xabier Kintana

Antzinako **judutar** tradizioaren arabera. **Judutar** itxura du eta judutarren kontuak kontatzen ditu. Harkaitz Cano

**3** (izenondoekin)

Zirujauak aita **judutarra** zuelako. Parisko aristokrata **judutar** baten seme nagusia. Jon Alonso

Badakit zaila dela zu bezalako pertsona **judutar** batentzat guri ulertzea. Oskar Arana

Merkatari **judutarrek** pertsieraz, grekeraz, arabieraz, germaniera ugaritan, espainieraz, eta eslaboz ere hitzegiten omen zuten garai hartan. Patziku Perurena

Zuretzat nire ipurdia, eta niretzat zure badakizu-zer **judutar** polit hori. Oskar Arana

---

# judutargo *(Euskaltzandiaren Hiztegian ez da agertzen)* *iz* judueria, judutarrak.

Bere ustez, gu, "Budapesteko **judutargoa",** ezin hobeto gatozkie, "gure kontura aliatuengandik abantailaren bat erdiesteko". Urtzi Urrutikoetxea

---

# judutarkeria *iz* judutartasun gaitzesgarria.

Herriak -menpekoak, behartsuak, artaldeak, edo nahi duzunak- irabazi egin du, eta hau **judutarkeriari** esker gertatu bada, bapo! orduan inongo herrik sekula ez du izan asmo sendoagorik munduko historian. Patziku Perurena

---

# judutartasun *iz* judutarra denaren nolakotasuna. ik **judutasun**.

Baina ez zuen agerian aldarrikatu bere **judutartasuna** . Juan Martin Elexpuru

Itxura batean, **judutartasunaren** kutsu oro kendu nahi izan omen zaio Ben horri, Bin bihurtuz. Hasier Etxeberria

Imre Kertészen hungariartasunaz mintzatzeak luze joko liguke, edozelan ere, bizitzako esperientzia traumatikoaz geroztik bere **judutartasuna** Hungarian zelan txertatzen den etengabeko hausnarketak egin baititu egileak. Urtzi Urrutikoetxea

**Judutartasuna** eta komunismoa Urtzi Urrutikoetxea

---

# judutasun *iz* judua denaren nolakotasuna. ik **judutartasun**.

Eta horra hor Singerren (eta bere pertsonaiaren) tragedia: ezin judu izan, judu ez izan nahi eta ezin judu ez izan; **judutasunetik** ihes egin nahi eta ezin **judutasunik** gabe bizi. Koro Navarro

Ezin **judutasunari** uko egin sekula. Felipe Juaristi

Orain badakit nire **judutasuna** zela aitak zeraman gurutzea. Anjel Lertxundi

Torah-n datza **judutasunaren** funtsa, **judutasunaren** sinesmenen eta filosofiaren zutabea. Koro Navarro

Amerikara joan, eta aita, ama, **judutasuna,** Jainkoa ahazten zaizkie. Koro Navarro

**judutasun** ortodoxoaren ikuspuntu zurrun eta formalagoek. Koro Navarro

"Horrelako **judutasuna** ez da niretzat" esan zuen. Koro Navarro

**Judutasunak** ez lotsatzeak ez zuen esan nahi harrotzen ninduenik ere. Anjel Lertxundi

---

**judutegi** *iz* judu-auzoa.

Judutarrak judu-auzoetan bizi ohi ziren eta ezagunak dira Lizarra edo Tuterako **judutegiak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nafarroaren konkistak [...] ostera, juduen eta musulmanen aurkako Gaztelako legeak ekarri zituen Euskal Herriko hegoaldera: 1480ko legeak Inkisizioaren Auzitegiak, bakartze-aginduak eta **judutegi** nahiz mairuen auzoetan bizitzeko obligazioa ezarri zituen. Askoren artean

---

juduteria ik **judueria**.

Baina kontraste horrek beste bat ispilatzen du, Diasporako **juduteriari** funtsezkoen zaiona, hain zuzen, [...]. Juan Garzia

---

**juduzale** *izond* juduen zale dena.

Makabearrak asaldatu aurreko garaietan, **juduzale** izana eta judu-erlijioaren alde etengabe eta gogotsu borrokatua zen. Elizen arteko biblia

Ekintza kriminalak epaitu eta zigortu beharrean, herritarren jatorri etniko-kulturalak eta iritzi politikoak zigortzen zirenean **(juduzaleak** eta heretikoak ziren orduan, eta euskal herritar separatistak orain). Berria - Euskal Herria

---

**juerga** *iz* parranda, olgeta.

**Juerga** ederra -diost autobusaren aurrean Carlos Casaresek. Edorta Jimenez

Ez zen Dionisosekin maiz irteten **juergan,** eta halakoetan nahiago izaten zuen buruz buru ibiltzea. Unai Iturriaga

Beno, ni neu **juergako** atxurra izara artean lurperatzera noa. Unai Iturriaga

---

**juergazale** *izond* juergaren zale dena.

Haien merituririk handiena afizioa ofizio bihurtzea izan zen: **juergazale** profesionalak ziren. Xabier Etxabe

---

**juez** *(41 agerraldi, 15 liburu eta 3 artikulutan; cf* ***epaile***[1] *7182 agerraldi, 163 liburu eta 2786 artikulutan)* *iz* epailea.

**Juez** jauna: ireki beza berriro itxitako ate hori, barre lasai egiten segi dezagun. Iñaki Segurola

Susmoa lege, eta polizia **juez**. Joxerra Garzia

Etxea miatzeko **juezaren** agindua erakutsi zioten. -Bada hogei urte Bermeon **juez** nagoana. Gotzon Garate

---

**jugada** *iz* jokaldia.

Futbolean, Goiori **jugadak** berak bakarrik egitea gustatzen zaio, posizio hobean dagoen lagunari baloia pasatu beharrean... Joseba Sarrionandia

**Jugada** ona egin zuen: bere trikitilari sena oso-osorik gordetzea eta lantzea posible egin, eta era berean modako piezak, helduta dantzatzeko pasodobleak, tangoak, txotisak eta abarrak jotzeko aukera ematen zion soinua bereganatu. Pako Aristi

---

**juglare** *iz* koblakaria.

Zalduna izan zen eta **juglare**. Pello Zabala

Nire **juglare**-zitara daramat. Fernando Rey

Poeta ez da **juglarea**. Ana Urkiza

Eta jakina denez, aspaldi handiko Ziripot zarpail honek, oro har, deabru, sorgin, koko, bufoi, **juglare,** edo momo irrigarri/izugarri/errukarria gorpuzten du. Patziku Perurena

---

**jugoslaviar** *(orobat* ***yugoslaviar*** *g.er. eta* ***yugozlabiar*** *g.er.)* **1** *izond* Jugoslaviakoa, Jugoslaviari dagokiona.

Bi aldiz **Jugoslaviar** atezaina joan da baloinaren bila bere saretan. Herria

Mijailovic, **jugoslaviar** jatorriko 25 urteko gazte suediarra, irailaren 25ean atxilotu zuten. Berria - Mundua

**Jugoslaviar** erara antolatutako talde bat da, laburbilduz. Berria - Kirola

Arrazoi politikoengatik barrenean zeuden neska **jugoslaviar** batzuekin adiskidetu zen, baita preso komun batzuekin ere. Fernando Rey

Golegile ona du, Mateja Kezman **jugoslaviarra,** Ivan Stankovic eskuin alboko **jugoslaviarra**. Berria - Kirola

**2** Jugoslaviako herritara.

Baina portuan ordu batzuk aski dira ikusteko filipinarrak, **jugoslaviarrak** edo Ukrainakoak idiak bezala lanean, ontzietatik jaitsi gabe eta hilean mila durotik beherako soldatarekin. Hasier Etxeberria

**Jugoslaviarrek** ere literaturaren bidez geopolitika erakutsi digute. Edorta Jimenez

---

**jugular** **1** *iz* lepoko zaina.

Odola borborka ateratzen hasi zen balak zulatutako **jugularretik**. Migel Angel Mintegi

Florencio yogia iaz hil zen, zerri xaxatu batek horzka egin zion **jugularrean,** eta zerri bat bezala odolustu zen. Karlos Linazasoro

• **2** *izlag* lepokoa.

Hogei duroko baten neurriko orezta zuela kokospeko zintzur-korapiloa baino beherago, bena **jugularraren** parean hain zuzen. Ramon Saizarbitoria

---

juizio ik **judizio**.

---

## **jujabide** *iz* jujatzeko bidea. ik **epaibide**.

Lehen enpresak dira Euskal Herrian holako saria ardiesten dutenak (Europako sari gorena da, hortarako behar diren **jujabide** zorrotzekin). Herria

---

## **jujamendu** **1** *iz* jujatzea, epaiketa. ik **judizio**.

Rusoak atzemaiten ditu lastaira batzuen pean gordeak: ukabil ukaldi eta ostiko, **jujamendu** eta gaztigu, batzuk besteen ondotik: 25 makil ukaldi bakoitzari. Marzel Etxehandi

Auzitegiaren **jujamendua** ondoko egunetan emana izanen da. Herria

Auziaren **jujamendua** eman ondoan orok kantatu dute beren atxikimendua herriari toberen kantu batean. Herria

Banakazko **jujamenduak,** guti-gutitan egin izan dira. Jokin Urain

**Jujamendurik** gabeko presondegiratzeak. Herria

Jainkoaren **jujamendua** eta sekulako madarizionearen baldintzak gogoratuz. Piarres Xarriton

Fama larderiatsuaren estimua bildua du andere horrek aitzineko lekuetan, bereziki Milosevic baten **jujamenduan** . Herria

Demokraziak bere legeak baditu eta bozen hauteskundeen **jujamendua** behar da onartu. Herria

Baserriko giroa bitxia zen: ematen zuen guztiak azken **jujamenduaren** aiduru zirela. Itxaro Borda

**2** iritzia emateko ahalmena.

Barneko lau sentsuek, hots, Sentsu komunak, Gogamenak (batzutan Irudimena deituak), **Jujamenduak,** oroimenak: ikus 2. & 3. artikuluak.. Piarres Xarriton

---

## **jujari** *iz* jujatzen duen pertsona, epailea.

Egiazko tribunale bat litake deitua, ororen arrazoinen **jujari** litakeena. Herria

Haren ordain ezarri dute orain emazte bat, Louise Arbour kanadiarra, 57 urtekoa, prokuradore karguan, gerlako krimen **jujari** izaiteko ONU hortan. Herria

Hasi da beraz partida, Paxkal Haroçarene **jujari**. Herria

Kanpotiar **jujarietan** , horra ONU nazioartekoa, bere erratekoa izanen duena. Herria

---

## **jujatu,** jujatu, jujatzen **1** du *ad* epaitu.

**Jujatu** zuen eta kondenatu. Elena Touyarou

Iragan ekainean **jujatua** izan da Versailleko auzitegian eta hilabete baten baldintzapeko presoaldirat kondenatua. Herria

Errugabe **jujatu** ninduten, eta udaltzainak hamar sos eskatu zizkidan. Koldo Izagirre

Epai mahaikoek behar zituzten **jujatu,** ikusiz ez gorputzaren edertasuna, bainan gogo-bihotzen edertasuna. Herria

Nahiz ez den partida bakarraren gainean **jujatzen** ahal. Herria

Ez duzu ene **jujatzeko** eskubiderik. Itxaro Borda

Ez zaitut **jujatzen** Edmea. Itxaro Borda

Bainan, ez bainaiz juje, ez dut beraz **jujatzen,** ene ez adostasuna aldiz, oihukatzen. Herria

Ez dut **jujatu** nahi, bainan denek badakigu artisten artean [...] badabiltzala ez bakarrik alkoola, bainan bai droga motak guziak. Herria

**2** pentsatu, erabaki.

Ondoko goizean, tropa urriak igurika egoteak aski iraun zuela **jujatu** eta herria setiatu zuenean, bi gizonen hilotzak, barrabilak ahoan trebes, egurrean gurutzefikatuak kausitu zituzten. Itxaro Borda

Gauza batzuk ez dituzu egin zure kolektiboak gaitzesten zituelako, gauza batzuk ez dituzu erran zure kolektiboak gaizki **jujatuko** zuelakoan. Itxaro Borda

Beren baitan **jujatuko** dute ea hautu onaren egiten badakien... kapablea denetz. Michel Oronoz

---

## **juje** *iz* epailea.

Auziperatu dute, **juje** baten aintzinean sei oren atxiki ondoan. Herria

Lan auzitegiko **jujeek** trinkatu behar dute orain ea huts larriak leporatzen ahal zaizkion zuzendariari. Herria

Bi **juje,** bata langileen ordezkaria, bestea enpresa buruena, dituen auzitegi horretan 534 auzi trenkatuak izan dira iaz. Herria

Egia bide da Bové **juje** batek deitua zuela eta ez duela gomitari batere ihardetsi, legeaz axola mikorik ez balu bezala. Herria

Espainian Garzon **jujeak** egin ditu inkestak eta kondenarazi bi ministro. Herria

Emeki emeki, Florence Larrieu **jujeak** segitzen du inkesta eta, azkenean, mintzatzen hasten dira gehienak beldurrik gabe. Herria

Eta Bové-ren kasua segitzen duen **jujeak** errefusatu dio baimen hori. Herria

Ene abokatuak egin behin-behineko askatasun galdea berriz ezeztatu du **jujeak**. Itxaro Borda

**Jujeek** zer erabakiko duten, hori apirilaren 21ean jakinen da. Herria

Bestetik, nor izanen dira delako **juje** horiek? ofizioz **juje** diren batzu, gisa hartako formakuntzari jarriak? Herria

Erretretan den **juje** baten laguntzarekin polizia gazteak urratuko du burjesek hedatua duten sare ustela. Herria

Eta sinatzen dute **juje** eta fiskal edo prokuradorearen ondotik hemen agertzen diren gizonek, lekuko gisa: [...]. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bakezko **juje** edo munduaren jandarma izaiteko urgulu "saindu" batekin. Herria

Deabrukerietara lerratu naiz naski baina nihaurek sortzen ditudan ironien **juje** ni naiz. Piarres Aintziart

Hortarako izendatu jujeak atera dira eta **partidako jujeak** hartu deliberoa onhartu galdatuz segitzea. Herria

Ez naiz jadanik maitale fidel eta dohakabea, adiskide amoltsu eta sentikor baten kontseiluak eta kontsolamenduak hartzen dituena; akusatua naiz **jujearen** aitzinean, esklaboa nagusiaren aitzinean. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**juje baten aintzinerat** (6); **juje baten manuz** (6); **pariseko juje** (4)

**garzon jujeak** (9); **madrileko jujeak** (3)

**garzon jujearen** (4); **jujearen manuz** (6)

**jujeek beren erabakia** (3)

**jujeen aintzinean** (10); **jujeen aitzinean** (6); **jujeen erabakia** (4); **jujeen manuz** (3)

---

## **jukutria** *iz* amarrua, jokaldi makurra.

Tiroxka bat bota dio zangoari, sorterriratua izateko, baina **jukutria** agerikoa zen eta bi hilabete gehiago egonen da hemen. Piarres Aintziart

Lehen, uste zuten anitzek arabiarren **jukutria** zitekeela Ibañetako ustegabekeria. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ala zerbait **jukutria** ba ote zuen asmatua ni ez gehiago ikusteko gisan? Janbattitt Dirassar

Edo **jukutria** bat zen eskualdeko biztanleek zein xendra hartzen zuten jakiteko, eta horrela haien errazago harrapatzeko? Elena Touyarou

Zerbitzu sozialak taldearen **jukutriaz** ohartu ziren. Itxaro Borda

Joanes Paulo zena Loiolara eta Xabierrera etorri zelarik, zer **jukutriak** ez zituzten erabili Madrileko elizak eta gobernuak, ez ziezaion gure lehendakari Garaikoetxeak eman lehen agurra gure lurrean Poloniar Aita Sainduari! Herria

Ezkerraldean marrumaka dabiltza [...] gobernuak, alegia-eta deusez, aldaketa hori, dena **jukutria,** aberatsenen alde egiten duela. Herria

Beren erretorearen hautatzeko mementoan, itsuski jokatu ziren beren artean: elegaiztoak, gezurrak, **jukutriak,** lehenik, kolpeak, gero, zauriak gorputz-arimetan, eta gertatu zen gizon bat hil zutela. Michel Oronoz

**Jukutria** jasan ezinak egin zizkien, aspaldian zor zioten diruaren ordaintzera behartu zituen, eta haiek ezin izan baitzuten pagatu, bere mutilak igorri zizkien, eihera harriaren eta tresneria guziaren bahitzera, zorraren zati bat berreskuratzeko estakuruan. Elena Touyarou

---

## **jukutrialari** *iz* dena jukutria ari dena.

Aurrez aurre nuen espainol ordezkaritzan Racla deitu aholkularia, arrunt puntalakurloa, formalista, bihurria eta **jukutrilaria**. Michel Oronoz

---

## **julufrai** *(orobat* ***txulufrei****)* *iz* krabelina.

1974ko egun hortan izan zuten **julufraien** erreboluzione edo iraultza. Herria

Papardak hornitu krabata, **txulufreia** eta pitxi, tente potente, lepondoan pikardak, anitz eskumutur eta matrail bete kalitxa eta txitxabegi... Jose Angel Irigaray

---

## **jumbo** *iz iz* ehunka bidaiari garraiatzeko gauza den erreakzio hegazkina.

**Jumbotik** superjumbora. Berria - Harian

---

## **jumping** *iz*

Hiru egunez izanen da zernahi joko: aerotrin, **jumping,** quad eta kart lasterketa, show akrobatikoa, skate eta gaineratiko. Herria

Horretaz guztiaz gain, Segway ibilgailuetan ibiltzeko zirkuitua, grabitaterik gabeko **gunea** (Jumping, Aerotrin eta Bikepooping), Arroxalinen Lorea [...] Txan magoaren emanaldia eta beste hainbat erakargarri izan ziren. Berria - Gaiak

---

## **jungla** *iz* oihana.

Basoa ez, **jungla**. Joseba Sarrionandia

Barneko aldean bizi gintuan, zingiretan, **junglaren** erdian. Xabier Olarra

Birmaniako **junglako** ipar-zerrendetaraino. Iñaki Mendiguren

Bakardadea ere egoera benetan bitxia duk... batzuetan **junglaren** tankerakoa izaten duk, arriskuz eta ustekabez betea. Xabier Olarra

Dozena bat eleberri ditu kalean, denak goren mailakoak eta bat edo beste, Vineland esaterako, maisulan gisa kontsideratzen dira, baina komunikabideen **junglan** desagerturik bizitzea lortu du. Joxean Agirre

Hemen behean geratuko da Gorria gaixorik, joritasunaren basamortu eta ahazturaren **jungla** sakon honetan. Joseba Sarrionandia

---

## **junior** 1 *iz* semea.

Zer ezberdintasun dago, demagun, Reagan eta Bush **juniorren** artean?, Bush **junioren** politikan badira neoliberalismo berezi horren egungo adibide ugari. Iñaki Heras

Keynes **junioren** esapidea ere gogoan edukitzea beharrezkoa da. Iñaki Heras

Eta hori bakarrik fakultateko filosofia-irakasle batekin, Almeida **Juniorrekin,** [...] zirri batzuk egiteko, zirri galantak, baina zirriak besterik ez. Karlos Zabala

**2** (kiroletan)

**Juniorretatik** profesionaletara jauzi egiten duen lehen euskal txirrindularia da. Berria - Kirola

Goizeko 11.00etan **juniorrak** arituko dira, eta arratsaldean, 15.00etan 23 urtez azpikoak. Berria - Kirola

Badira bertzalde bi kadet talde, bi **junior** talde (Balandrade eta Reichel B mailetakoak) eta bi senior talde. Herria

Plaza laxoetan finalerdiak joanik amaturren lehen mailean eta **junioretan,** huna hemen bigarren maileko finala laurden batzu. Herria

**Junior** hauk ere finalerdi ederra egin dute. Herria

**Juniorretan,** berriz, Richard Groenendaal nagusitu zen. Berria - Kirola

Euskal Herriko **juniorrik** onena izan da aurten. Berria - Kirola

Lehenik **Junior** gazteak, Couillet-Arbeletche irisartarrak eta Elissiry-Jaureguy mauletarrak. Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Ivan Fernandez gasteiztarra **junior** mailan ariko da. Berria - Kirola

Emakumezkoen **junior** mailan. Berria - Kirola

Mark French, **junior** mailako Pistako Munduko txapeldun ohi australiarra. Berria - Kirola

06:30: **Junior** proba (emak.). Berria - Kirola

Munduko **Junior** Txapelketa irabazi zuenetik, [...]. Berria - Kirola

Bi urte lehenago lortu zuen Munduko **Junior** titulua. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **junior gazte** (5); **junior gazteak** (18); **junior gazteek** (5); **junior gazteen** (19); **junior gazteen finala** (8); **junior gazteen finalerdia** (4); **junior gazteen mailean** (5); **junior gazteetan** (23); **junior gaztetan** (8); **junior mailako** (14); **junior mailako munduko** (3); **junior mailan** (17); **junior mailean** (7); **junior proba** (4)

---

## **junt** 1 *adlag ipar*

Hortxe zaudezte bi eskuak **junt,** begiak zeru-alde, alegia sinestez eta urrikiz gaindituak. Herria

**2** ***junt egin*** elkartu. ik **junta 5**.

Ibañeta gainean **junt egin** dute Garazi eta Baigorriko mendizale batzuek. Herria

Bidean **junt eginen** dute, denek elgarrekin segitzeko Hendaiaraino. Herria

Miarritzen berean **junt egin** dugu Gueçamburu eiheralartar jaun anderekin. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskuak junt** (3); **junt egin** (3)

---

# junta

**1** *iz ipar* muga.

Karlos Kinto enperadoreak markatu zuen **junta** edo muga. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bide horrek egiten zuen denboran Luzaiderekin **junta** eta luzaidarrek luzaz ukan zuten eliza horretara beilaz joaiteko ohidura. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ereta eta Montori herrietan, Xuberoko **junta** hortan. Herria

Zenitzeko ondartzan [...] Getaria eta Donibane Lohizuneren **junta** hortan. Herria

Ziburu eta Urruñaren **juntako** muga-harri xahar bat. Herria

Hegoaldetik Nafarroaren zati eder bat mendebaldetik Gipuzkoako **juntaraino**. Herria

**2** *ipar* juntura, lotura.

Luzaz eri egonik gorputzeko **junten** errematismekin. Herria

Haatik, aitortuz **junta** batzuetarik beti petrolaki xorta bat galtzen duela, guti bada guti. Herria

**Junta** horiek olioarekin oratutako karearekin beteko dira. Santiago Iruretagoiena

Zola dena berritu behar, bazterrak ere ba, **junta** gehienak azkartu, euriaren ixurgia errextuz bestalde, eta horiek denak akulatu behar zubia idekia atxikiz, autoentzat bi lerro baizik ez badira ere utziko, lauen partez... Herria

Hodi larri horiei lotzeko **junta** guneak ezarriak dituzte hemen gaindi, baina momentuan hutsik daude. Herria

Hirigune Elkargoak deliberatua du merkatu dei baten egitea, ikusteko zein enpresek ezar litzakeen **junta** muntadura horiek merkeenik. Herria

Garazi eta Baigorriko bi ibarren **juntan**. Herria

Bi bidexkaren **juntan**. Janbattitt Dirassar

**3** erakunde edo elkarte jakin batzuen kudeaketaz edo gobernuaz ardutzen den pertsonen multzoa.

Ikastolako **Juntarako** hautatu ninduten. Joxerra Garzia

Gurasoen aldetik, garai hartan **Juntako** diruzaina nabarmendu zen beste guztien gainetik. Joxerra Garzia

Joseba Barrera presidentea eta Aitor Asua **juntaren** ordezkaria. Pako Aristi

Defentsa **Juntaren** aginduz. Jokin Urain

Sevillako Epaitegiak [...] 1,4 miloi euro ordaintzera zigortu du Andaluziako **Junta**. Berria - Euskal Herria

Gaztela eta Leongo **Juntak** Trebiñu «utzita» daukala salatu zuen EBko Kontxi Bilbaok. Berria - Euskal Herria

Gobernua osatzen zuen **Junta** Demokratikoak laster xedatuko zen Amnistia ospatzeko. Jon Maia

**Junta** militarreko presidente Than Shwe jeneralak. Berria - Mundua

Hauteskunde **Junta** Nazionaleko presidente Jorge Rodriguezek. Berria - Mundua

Haiek Berreraikuntza Nazionalerako Gobernu **Junta** osatu zuten. Berria - Mundua

Nahi izan dute presidentaren egoitzaz jabetu [...], bai eta estatu kolpez zuzenezko gobernua haizatu eta jazarleek berek muntatu **junta** bat ezarri herriaren buru. Herria

· *pl* Gipuzkoako **Junten** agindua zela-ta, "mutillak armetara". Txillardegi

**4** ***bide junta*** bide gurutzea.

Herriko etxetik bi urratsetan den bide **junta** batean. Janbattitt Dirassar

Joanes Kanboko bide **juntako** etxe gibelera joan zen, bidaiarien bila. Eneko Bidegain

Lehen bide **juntan,** kausitzen dut neska ttipitto aurpegi-argi bat denetarat beha eta beha egoki. Janbattitt Dirassar

Autobusa Otsabiderako bide-**juntan** harturik. Itxaro Borda

· **Junta** honetan haatik ez nekian norat behar nuen hartu, eskuin ala ezker. Janbattitt Dirassar

**5** ***junta egin*** elkartu. ik **junt 2**.

Hor **junta eginik** Goramenditik heldu zirenekin, aintzina jo dute Buztanzelai, Astate, Tutulia eta Iparlan gaindi, Bidarraiko plazara jautsi arte. Herria

Luzaiden badirela bi gune, Benta izen berarekin, bata Luzaidek Arnegirekin **junta egiten** duen tokian, orain saltegiz hain aberats dena ; bestea aldiz, Ibañetara buruz joanez, Luzaidetik 9 kilometrotan. · -Ni harantzago noa, muinoak **junta-junta** egiten ikusten diren lekura. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**6** ***junta etxe*** *(orobat* ***juntetxe****)* batzar etxea, biltzar etxea, bereziki Gernikakoa..

Ondoko egunean, Urdaibai gunean zehar ibili dira Gernikaraino, han **Junta**-etxean euskal legeen berri zutelarik [...]. Herria

Ekitaldia Gernikako **Juntetxean** egunsentian bertan hasiko zela. Txillardegi

**Junta** etxea eta euskaldunen zuhaitza ez zituzten ukitu. Pello Salaburu

Berehala agertu zitzaion begien aurrean Andra Mari eliza, eta agudo heldu zen **Juntetxearen** atarira ere. Juan Luis Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hauteskunde junta** (3); **junta egiten** (4); **junta militarrak** (8)
> **andaluziako juntako** (3); **extremadurako juntako** (4)
> **bide juntan** (4); **bide juntatik** (4)
> **juntatu eta pilatu** (3)
> **doluminari juntatzen gira** (7); **familiaren doluminari juntatzen** (6)
> **gernikako juntetxean** (18).

---

# juntadizo

*iz* elkarretaratzea.

Bazen entzulerik iritsi ginenerako, plazan zuten **juntadizoa**. Koldo Izagirre

Orduan probintzia osoko anarkistek **juntadizoa** egin eta hiriburuan udatiar zeuden Maldrilgo ministroak eta goi mailako jendea preso hartu zituzten Maria Cristina hotelean. Koldo Izagirre

---

# juntadura

*iz*

Perpaus berriak sortzeko eragiketarik emankorrenetako bat, **juntaduraren** eragiketa dugu. Itziar Laka

X eta Y, biak osagaiak badira, baina mota ezberdinekoak [...], normalean ezin dugu perpaus berria egin **juntaduraren** bitartez. Itziar Laka

**Juntaduraren** bidez perpaus guztiz gramatikalak eratzeko, beharrezkoa da osagai bakanak elkartzea. Itziar Laka

---

**juntaezin** *iz* ezin juntatuzkoa.

Badakit oso liburu diferentak direla, konparaezinak eta **juntaezinak** alde batetik, generoetarik hasi eta prosaren azken gorabeheretaraino; baina, bertzetik, [...]. Joan Mari Irigoien

---

**juntagailu** 1 *iz* juntatzeko gailua.

Gerrian behi-larruan ebaki zintura gotorra, aitzinean zeukan zilarrezko **juntagailu** distiratsuarekin. Itxaro Borda

**2** (gramatikan) esaldiaren zatia, bi hitz edo hitz multzo elkartzeko balio duena.

Marratxoa nahiz "eta" **juntagailua** ez dira hitz guztietan beharrezko. Iñaki Arranz

Lokailuak mota askotakoak daude: esapide konjuntiboak, izenlagunak, **juntagailuak,** loturako esaldiak, etab. Askoren artean

Hitz bat da halaber **juntagailuaz** baliatzen den hitz bikoitza (zirt edo zart). Iñaki Arranz

Alborakuntza eta **juntagailuen** bidez perpaus gero eta konplexuagoak sor ditzakegu, inolako muga gramatikalik gabe. Iñaki Arranz

Oso sarri erabiltzen du **juntagailu** kopulatiboa. Askoren artean

Edorta Jimenezen *Azken fusila*-n ere ez da ia aurkaritzako **juntagailurik** ageri, dagoenak ez baitu *baina*rik. Markos Zapiain

---

**juntakide** *iz* junta bateko kidea. ik **batzarkide**.

Irakasle, zuzendari, guraso eta **juntakide,** gehienok hantxe ginen. Joxerra Garzia

---

**juntakulata** *iz* zilindro buruaren junta.

Tokion hasi zen galeren trokola zarataka eta Europa osoko **juntakulatak** gorritu ziren goizean goizetik. Berria - Ekonomia

---

**juntatu,** junta, juntatzen da/du *ad* elkartu, bildu.

Hitzordua finkatu eta Laxaroren borda aldean **juntatu** ziren. Itxaro Borda

Hurrengoan tabernan **juntatuko** gaituk elkarren berri izateko. Xabier Etxabe

Bizitzak **juntatu** gintuela. Juan Garzia

Atzo ere, Dimas eta horiekin **juntatu** eta... Pablo Sastre

Eskuindarrekin **juntatzen** ahal dira, beste alderdiekin ere ba haatik... Herria

Emazteak eskuak **juntatu** zituen, eta berriz mintzatu aitzin apur bat isilik egon zen. Elena Touyarou

Eta bestalde baziren etxeetan ari zirenak, zapeteria horietako lanean; hor larru-**juntatzen** ari zirenak. harriak garbiki zizelkatuak, han arruntki moztuak edo harri kozkorrak hala-hala **juntatuak**. Menane Oxandabaratz

Kapera horren ondoan dira **juntatzen** gaineko eta behereko bideak, Donibane Garazitik gainez gain doana eta Luzaidetik petik gora heldu dena. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikatz errekara heltzen da Gainekoletako errekan **juntatzeko**. herritar bakotxak erran beharko duela Garazi-Baigorriko herri elkargoari **juntatzea** nahi duen ala ez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Azkeneko ikasturtearen aurreko udan, zeukaten diru guztia **juntatu** eta 54ko Plymouth gorri bat erosi zuten 325 dolarretan. Koro Navarro

Dena **juntatu** zaio: osasun arazoak, lan arazoak... Iñaki Iñurrieta

· Batak ezkondu aurretik egin zuela umea, bestea 42 urteko andre batekin **juntatu** zela. Unai Elorriaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> junta gure indarrak (3)

---

**juntatzaile** *iz* zapatagintzan, larru juntatzen aritzen den eskulangilea.

Hazpandarra bazine bazinakike zer zen **juntatzaile** izatea, zeren eta Hazparnen baziren 1400 langile oraino zapatagintzan ari zirenak orain dela 50 urte... Menane Oxandabaratz

Egia erran, etxean emaztez inguratua izan niz, haur-haurretik, eta baziren gure etxean dendariak eta baziren jostunak, eta baziren **juntatzaileak..**. Menane Oxandabaratz

---

**juntatze** *iz* elkartzea, biltzea.

Lege hori ez dela onesgarria, urrun baitago Espainiako jendea holako **juntatze** motak ezkontzarekin parekatzetik. Herria

Ezkontza edo **juntatze** guzietan beti emaztearen deitura galduz gerokotz, [...]. Herria

Agian oraino ainitz urtez ospatuko dute beren **juntatzearen** urte burua. Herria

---

juntetxe ik **junta 6**.

---

**junttu** *(orobat* ***juntto****)* *adlag adkor*

Eta oinak berak ere kokatuko nituela **junttu,** errusiar gimnastek egiten zuten bezala ariketaren amaieran. Bernardo Atxaga

Lore ttiki, **juntto-juntto,** xabal-xabal horiek. Pello Zabala

---

**juntu** *(orobat* ***junto****)* **1** *adlag* hurbil. ik **junt**.

Oktabak eta Sanjuanak **juntu** antzean tokatu ziren urte batean, aste bakar batean lautan jota daude Sakabi eta Elgeta. Iñigo Aranbarri

Gaztea bero halere, joan nausi, nahiz ez beti hain **junto,** 27-30 eta 30-33, beti lanjerean zaukan irabazlea, haatik bote falta bat tenore txarrean eta horra nola xantza utzi dion garaztarraren trebantziari bururat heltzeko. Herria

**2 *juntu-juntu***

-Ez kezkatu -Ximurrak, gibeletik-, berehala **juntu-juntu** egonen zarete berriz. Aingeru Epaltza

---

## juntura 1 *iz* lotze gunea.

Errailen **junturen** artetik pasatzean. [Gainerako harriak] harrobitik irten bezala uzten dira, eta **junturak** txandakatuta jarriz lotzen dituzte morteroarekin. Santiago Iruretagoiena

Kabinetean eta logelan ukuilu-usaina zegoen, lurreko egurren **junturetatik** zetorrena. Koro Navarro

Baina gudari batek gezia itsu-itsuan jaurtiki eta Israelgo erregea zauritu zuen bular-oskolaren **juntura** artetik. Elizen arteko biblia

**2** (gorputzean) giltzadura.

Eguzki erreak jostorratz ttiki eta mingarriz zulatzen ditu gorputzaren **junturak**. Pako Aristi

Masailetako bi hezurren **juntura**. Pako Aristi

Makurtzen baldin banaiz, **juntura** guztiak hasten zaizkit oihuka. Josu Zabaleta

Nagiak ateratzen, gorbiztutako **junturak** saltoka berotzen. Berria - Euskal Herria

Desafio ikaragarria da ingeniariarentzat bola-ahokadura motako giltzadura biologikoa, aldakaren eta izterraren arteko **junturan** biltzen baitira presio handienak. Irene Aldasoro

Kristo da, hain zuzen, buru bezala, lokailu eta **junturen** bitartez gorputz osoa elkarlotzen duena eta, Jainkoak nahi bezala, hazarazten duena. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

Hezueriaz, humoreaz, eta **juntura**-eritasun guztietatik sendatua hago jadanik, Antton. Txillardegi

---

jurado ik **juradu**.

---

## juradu *(orobat **jurado**)* 1 *iz* epaimahaikoa.

Bai epaile nagusiak, bai herri-akusatzaileak, ongi aztertzen dituzte banan-banan eta segurtatu heriotza zigorraren alde daudela, kontra izanez gero ezin baitute halako epaiketa batean **juradu** gisa parterik hartu. Pello Salaburu

**2** epaimahaia.

Akordeoilari bat epaitzeko zer zen nahikoa eta zer ez ongi zekiela **juradoak,** erantzun zioten Bergaratik. Koldo Izagirre

**3 *guardia jurado*** zinpeko zaintzailea.

Guardia **jurado** lana unibertsitatean egiten hasi zenean. Mikel Hernandez Abaitua

---

## juramentu *(orobat **juramendu** g.er.)* 1 *iz* zina.

Ez niola sinestaraziko, munduko **juramentu** guztiak eginda ere, azpimarrak eta oharrak irakurri gabe gelditu nintzela. Anjel Lertxundi

Arbolaren aurrean egindako **juramentua** haustea. Pako Aristi

**Juramentuak** indarrik izango ez balu ere. Esteban Antxustegi

Horregatik, badago menpekoentzat printzeen **juramentutik** sorturiko nolabaiteko segurtasun bat. Esteban Antxustegi

**2** madarikazioa, biraoa.

Zergatik egiten duzu **juramentu** zeure fedearen kontra mundutarrek bezala, zuk, alferrikako hitzak ez ezik, onak ere isilean gordetzen zenituen horrek? Askoren artean

Egin ditzatela apustuak, egin dezatela barre, esan ditzatela **juramentuak,** egin dezatela nahi dutena. Josu Zabaleta

Bizpahiru **juramentu** bota zituen Abelek, haserrearen haserrez. Daniel Landart

Biraoak eta **juramentuak** ere entzuten ziren noizean behin. Alberto Barandiaren

---

## juramentuka *adlag* madarikazioka.

Bere fedearen kontra **juramentuka** hasi zen. Askoren artean

Etxean beti **juramentuka** eta borrokan, Jainkorik ez balego bezala... Lopez de Arana

Biraoak eta **juramentuak** ere entzuten ziren noizean behin. Alberto Barandiaren

---

## jurasiko 1 *izond*

Ordenagailuek *Parke* ***Jurasikoa**n* egiten duten guztia egin dezaket -jarraitu zuen-. Xabier Olarra

· *izlag* Baziren **Jurasiko** eta Kretaziko garaietan bizi izan ziren txipiroien antzeko bizidun batzuk. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** *adkor* oso zaharra.

Khaled barraren beste muturrean dagoen estereo **jurasikora** zuzendu da geldiro, alboka ibiliz eta besoak jaistera ausartu gabe. Patxi Iturritegi

---

## juridiko *izond* zuzenbideari, legeari dagokiona.

Pertsona **juridiko** hauen defentsa eskubidea bermatzeko. Berria - Harian

16 langiletako talde bat osatuko da emeki emeki: aholkulari **juridiko** bat, eskualdetako hiru teknikalari, bulegoetako langile eta bertze. Herria

Ikuspegi **juridiko** hutsetik. Berria - Harian

Euskal nazio horren forma **juridikoaz**. Itxaro Borda

Portalisen testua filosofia **juridikoaren** eta lege positiboaren bide-erdian dugu. Andres Urrutia

Tartean, hizkuntz politika desegokiak eta corpus **juridiko** traketsa. Berria - Euskal Herria

Eusko Alkartasunak hiru txosten **juridiko** eraman zituen atzo Legebiltzarreko Mahaiaren bilerara. Berria - Harian

Kexuak erregistratuko dituen mekanismo **juridiko** bat. Koro Navarro

Irismen unibertsaleko lanabes **juridiko** bat eskura izatearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Etika-batzordeak eratu dira, eta baita legeak indarreratu ere ikerketari muga moral eta **juridikoak** ezarri nahian. Berria - Gaiak

Bikote homosexualei ezin zaizkie heterosexualen eskubide **juridiko** berak eman. Berria - Gaiak

Hiltzea kontu **juridiko** edo morala duk guretzat, edo medikuntzakoa. Xabier Olarra

Kode Zibilean ditugu garai honetako lege euskarri nagusiak eta oinarri gorenak, segurtasun **juridiko** delakoaren adierazmolderik bikainenak. Andres Urrutia

Aldeetako batek **estatus** juridiko-politikoa aldatzeari uko egiten dionean. Berria - Euskal Herria

Badakigu Esparru **juridiko** -politikoaren aldaketaren aukerari atea irekitzen dion pasartea. Berria - Euskal Herria

Esparru **juridiko** -administratibo horiek bi estatutan banatuta daudela. Berria - Euskal Herria

Zerbitzu **juridiko** -administratiboak. Berria - Euskal Herria

Zerbitzuburua ez zen testu **juridiko** -administratibo bat erotiko batetik bereizteko gauza. Aingeru Epaltza

Europako Legebiltzarreko Auzi **Juridikoetarako** Komisioak. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aholkulari juridiko** (4); **argudio juridiko** (3); **azterketa juridiko** (3); **babes juridiko** (3); **balio juridiko** (3); **berme juridiko** (4); **corpus juridiko** (3); **egitura juridiko** (3); **egungo esparru juridiko** (12); **egungo marko juridiko** (3); **entitate juridiko** (5); **eremu juridiko** (7); **errealitate juridiko** (5); **esparru juridiko** (75); **esparru juridiko politiko** (16); **esparru juridiko politikoa** (16); **esparru juridiko politikoak** (9); **esparru juridiko politikoan** (3); **esparru juridiko politikoaren** (10); **esparru juridiko politikoari** (4); **estatus juridiko** (10); **estatus juridiko politikoa** (3); **ezagutza juridiko** (3); **ezagutza juridiko politikoa** (3); **harreman juridiko** (3); **ikuspegi juridiko** (5); **ikuspegi juridiko batetik** (3); **izaera juridiko** (4); **juridiko administratibo** (3); **juridiko administratiboak** (3); **juridiko eta politiko** (8); **juridiko politiko** (36); **juridiko politikoa** (37); **juridiko politikoak** (11); **juridiko politikoan** (6); **juridiko politikoaren** (13); **juridiko politikoari** (4); **juridiko politikotan** (3); **laguntza juridiko** (3); **lan juridiko** (3); **marko juridiko** (17); **marko juridiko politiko** (9); **marko juridiko politikoa** (3); **nortasun juridiko** (3); **oinarri juridiko** (5); **onarpen juridiko** (3); **onarpen juridiko politikoa** (3); **ordenamendu juridiko** (3); **pertsona juridiko** (4); **politiko eta juridiko** (5); **politiko juridiko** (3); **sistema juridiko** (4); **tresna juridiko** (4); **txosten juridiko** (15); **txosten juridiko bat** (6); **urrats juridiko** (3); **zerbitzu juridiko** (3)

**ahalmen juridikoa** (3); **aitortza juridikoa** (3); **arlo juridikoa** (3); **astakeria juridikoa** (5); **babes juridikoa** (4); **balio juridikoa** (4); **corpus juridikoa** (7); **egoera juridikoa** (7); **egungo esparru juridikoa** (5); **esparru juridikoa** (15); **eztabaida juridikoa** (4); **itxura juridikoa** (3); **izaera juridikoa** (13); **janzkera juridikoa** (3); **juridikoa eta politikoa** (3); **koadro juridikoa** (3); **laguntza juridikoa** (12); **marko juridikoa** (3); **oinarri juridikoa** (4); **ordenamendu juridikoa** (5); **politiko eta juridikoa** (5); **politiko juridikoa** (6); **segurtasun juridikoa** (10); **sistema juridikoa** (4); **txosten juridikoa** (12); **zentzugabekeria juridikoa** (7); **zentzugabekeria juridikoa da** (3); **zerbitzu juridikoa** (3)

**aholkulari juridikoak** (4); **arrazoi juridikoak** (3); **esparru juridikoak** (3); **eta juridikoak** (6); **irizpide juridikoak** (3); **juridikoak ere** (3); **juridikoak eta** (6); **ordenamendu juridikoak** (8); **politiko eta juridikoak** (3); **tresna juridikoak** (4); **txosten juridikoak** (3); **zerbitzu juridikoak** (3)

**arlo juridikoan** (12); **maila juridikoan** (3); **ordenamendu juridikoan** (10)

**esparru juridikoaren** (4); **juridikoaren ardatz** (3); **juridikoaren ardatz nagusiak** (3); **ordenamendu juridikoaren** (11); **sistema juridikoaren** (5); **sistema juridikoaren ardatz** (3); **zerbitzu juridikoaren** (3)

**zerbitzu juridikoei** (4)

**iturri juridikoek** (4); **juridikoek egindako** (3); **legebiltzarreko zerbitzu juridikoek** (3); **parlamentuko zerbitzu juridikoek** (3); **zerbitzu juridikoek** (15); **zerbitzu juridikoek egindako** (3)

**legebiltzarreko zerbitzu juridikoen** (4)

**testu juridikoetan** (3)

**arrazoi juridikorik** (4); **balio juridikorik** (5); **balio juridikorik ez** (3); **berme juridikorik** (3); **inolako oinarri juridikorik** (7); **oinarri juridikorik** (20)

**bide juridikotik** (3); **ikuspegi juridikotik** (8); **ikuspuntu juridikotik** (5)

---

# juridikoki *adlag* alderdi juridikoan.

Erabaki politikoa **juridikoki** janztea zen egiteke zegoen gauza bakarra. Berria - Euskal Herria

Nazionalitateak **juridikoki,** politikoki eta sozialki onartzea. Berria - Euskal Herria

Orobat esan daiteke edozein botereri **juridikoki** eta hierarkikoki lotuta dauden mendeko ministro guztiei buruz. zelula multzo horri **juridikoki** eman behar zaion babesaren inguruan ere eztabaida bizi-bizi dago. Imanol Unzurrunzaga

Enpresak **juridikoki** bereiztea izan dute helburu nagusia. Berria - Ekonomia

**Juridikoki** justifikaezina eta gizatasunaren aldetik onartezina. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**juridikoki eta politikoki** (4)

---

# juridikotasun *iz* juridikoa denaren nolakotasuna.

Arau egitasmo hutsak edo arauak sortzeko asmo hutsak **juridikotasunaren** aurkakoak direla esaten bada, orduan aldaketa eta erreforma ezinezkoak izango dira. Berria - Euskal Herria

Horretarako zio nagusiak, idazle gehienek, bederen, garai hartako Frantziak bizi zuen **juridikotasun** bikoitzean idoro dituzte. Andres Urrutia

---

# jurisdikzio **1** *iz* gobernatzeko eta legeak betearazteko ahalmena; ahalmen horrek hartzen duen eremua.

**Jurisdikzio** arruntean. Berria - Harian

Espainiako Auzitegi Nazionala bezalako « **jurisdikzio** berezi» baten bidez abiaturiko prozesuak. Berria - Harian

Badirudi **jurisdikzio** laikoak ez zuela beretzat gorde feudoen arazoei eta laikoek egindako delituei [...] zegokiena epaitzea baizik. Iñaki Iñurrieta

Kondeak horregatik ez zituen eramaten gerrara apezpiku edo abadeen basailuak, ez zeudelako bere **jurisdikzio** zibilaren mende. Iñaki Iñurrieta

Luis Errukitsuaren 815. urteko kapitularrak batera jartzen ditu kondearen botere militarra eta gizon libreen gainean duen **jurisdikzio** zibila. Iñaki Iñurrieta

Printze horrexen beste kapitular batek debekatu egiten die erregearen ofizialei eliz lurrak lantzen dituztenen gainean edozein **jurisdikzio** erabiltzea. Iñaki Iñurrieta

Estatuek lankidetza jorratu behar dute nazioarteko zuzenbidea garatzen jarraitzeko, Estatu horiexen **jurisdikzioaren** edo kontrolaren pean burututako jarduerek **jurisdikzio** horretatik kanpo kokatutako zonetan eragiten duten kutsaduraren erantzukizunari eta eragindako biktimentzako kalte-sariei dagokienez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Estatuek beren baliabideak beren ingurumeneko eta garapeneko politiken arabera ustiatzeko eskubidea dute eta bere **jurisdikzioaren** barruan eta bere kontrolpean egiten diren jarduerek beste estatuetako edo beren **jurisdikzio** nazionaletik kanpo dauden guneetako ingurumenari kalterik ez egiteko ardura dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** (hitz elkartuetan) ik **jurisdikzional**.

Pareek beren **jurisdikzio** -barrutiko usadioaren bidetik epaitzen zuten. Iñaki Iñurrieta

Aire eremuarekin batera kostako herrialdeen **jurisdikzio** eremua osaten dutenak. Berria - Mundua

Artikulu horretan Justizia Administrazioaren **jurisdikzio** batasuna bermatzen da. Berria - Euskal Herria

Azkarragak ukatu egin zuen Eusko Jaurlaritzako Estatutu Berrirako Proposamenean jasotzen den Botere Judizialak Estatuko **jurisdikzio** unitatea hautsiko duenik.

Euskal Kontseilu Judizialaren eskumenak eta **jurisdikzio** -organoak. Berria - Euskal Herria

· Eliz **jurisdikzioaren** eta jurisdikzio laikoaren atzera-aurrerak. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eliz jurisdikzioaren** (3); **jurisdikziotik kanpo** (3)

---

# jurisdikzional *izond* jurisdikzioari dagokiona. ik **jurisdikzio 2.**

Batasun **jurisdikzionalaren** printzipioaren arabera. Berria - Euskal Herria

Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenak ez duela batasun **jurisdikzionalarekin** inolako hausturarik planteatzen.

Baztertu egin da ordenamendu **jurisdikzional** berria sortzea. Berria - Euskal Herria

Justiziak oraindik ez dituela argitu kasuak ikuspegi **jurisdikzionaletik**. Berria - Euskal Herria

Paueko epaitegiak erabaki bat hartu du, dagokion independentzia **jurisdikzionalean** oinarriturik. Berria - Euskal Herria

---

# juriskontsulto *(orobat **juriskuntsultu**)* *iz* zuzenbide kontuetan oso aditua den pertsona.

Magistratu eta **juriskontsultoei** dagokie, legearen izpiritu orokorraz beterik, haren aplikazioa zuzentzea. Andres Urrutia

**Juriskontsultoa** zereginik gabe geratu eta legegilea, ñabardurek nahasia, laster izango litzateke **juriskontsulto** soila. Andres Urrutia

**Juriskontsultoa** zereginik gabe geratu eta legegilea, ñabardurek nahasia, laster izango litzateke **juriskontsulto** soila. Andres Urrutia

Ez al ziren bata bestearen ondoan etorri, senatukontsultoak, plebiszituak, pretoreen ediktuak, kontsulen ordenantzak, edilen araudiak, **juriskontsultoen** erantzun edo erabakiak, pragmatika-berronespenak, erreskriptuak, ediktuak eta enperadoreen nobelak? Andres Urrutia

Erromatar zuzenbidea itzuli zenean, hura eskoletan irakasten hasi zirenean, prozeduraren halako antze bat eta jurisprudentzia bat eratzen hasi zirenean, legegizonak eta **juriskontsultuak** agertzen hasi zirenean, pareak eta bitartekariak ez ziren gauza izan epaitzeko. Iñaki Iñurrieta

Zer da kode ilun, nahasi eta anbiguo hori, non etengabe nahasten baita jurisprudentzia frantsesa erromatarrarekin; non legegileak hitz egiten baitu, eta **juriskontsultua** ageri baita; non jurisprudentzi gorputz osoa baitator kasu guztiez, zuzenbide zibileko puntu guztiez? Iñaki Iñurrieta

---

# jurisprudentzia 1 *iz* zuzenbidearen jakintza; gobernuko agintarien edo epaileen erabakietatik ateratako dotrina.

Ohiturak, ekitatea, zuzenbide goiburuak eta **jurisprudentziak** saihestezinak dira lege zibilaren aplikazioan. Andres Urrutia

Legegileak **jurisprudentziaren** kezka behar du izan; hortaz, **jurisprudentziak** harena ongi dezake eta, zer esanik ez, legegileak berak ere **jurisprudentzia** zuzendu. Andres Urrutia

Hala bada, herri guztietako **jurisprudentziak** erakusten du legea ez dela jada justizia zientzia eta sistema bihurtzen denean. Koro Navarro

Xehetasun aldakorregi eta eztabaidagarriegiak ere ez doazkio legegileari, **jurisprudentziari** baino. Andres Urrutia

Badira, alabaina, gauza batzuk, non justizia bera korapilatzen baita bestelako kontuekin, kontu horiek ere **jurisprudentziatik** kanpokoak direlarik. Andres Urrutia

Hirugarren dinastiaren hasieran, **jurisprudentzia** prozeduretara mugatzen zen osorik; ohoreak gobernatzen zuen dena. Iñaki Iñurrieta

Erromatarren **jurisprudentziak** ez zuela onartzen fideikomisorik. Iñaki Iñurrieta

San Luisek, **jurisprudentzia** frantsesarekiko erdeinua sarrarazteko, erromatar zuzenbideko liburuak itzularazi zituen. Iñaki Iñurrieta

Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren **jurisprudentziak** argi esaten du bermearen zenbatekoak akusatuaren egoera pertsonalari erantzun behar diola. Berria - Euskal Herria

Indukzioari **buruzko** jurisprudentziaren aipamena egin du Grande Marlaskak autoetan. Berria - Harian

Estrasburgoko Epaitegiaren **jurisprudentzia** izan zuen oinarri Iruinek jarritako helegiteak. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko epaiketak izan dira eta **jurisprudentzia** badago. Berria - Euskal Herria

Bikotea ez zigortzeko eskatu zuen atzo fiskalak, «ez dagoelako **jurisprudentziarik»**. Berria - Gaiak

**2** (aditzen objektu zuzen gisa)

**Jurisprudentzia** ikasi zuen Paviako Unibertsitate ospetsuan. Juan Martin Elexpuru

Auzitegi Konstituzionalak egindako **jurisprudentziak**. Berria - Euskal Herria

Auziz auzi **jurtisprudentzia** erdietsi behar dugu. Berria - Euskal Herria

Epaiketa honek ikusmin handia sortu du Frantzian, **jurisprudentzia** sor dezakeelakoan.

Auzitara eramanen dute Ministerioa **jurisprudentzia** sortzeko asmoz. Berria - Euskal Herria

Ez daude aurrekari asko, eta, ondorioz, kasuak **jurisprudentzia** ezar dezakeela nabarmendu du Imanol Marrodanek. Berria - Kultura

Epaia Zigor Epaitegiarena da, eta ez du **jurisprudentziarik** ezartzen. Berria - Harian

Torturen kasua artxibatzeak urratu egiten ditu, besteak beste, Espainiako Zigor Kodea, Espainiako Auzitegi Gorenaren, Auzitegi Konstituzionalaren eta Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren **jurisprudentzia**.

**3** (hitz elkartuetan; orobat **jurisprudentzi**)

Erlijio-testuak edo **jurisprudentzia**-testuak. Xabier Arregi

Zer da kode ilun, nahasi eta anbiguo hori [...] non legegileak hitz egiten baitu, eta juriskontsultua ageri baita; non **jurisprudentzi** gorputz osoa baitator kasu guztiez, zuzenbide zibileko puntu guztiez? Iñaki Iñurrieta

*Establezimenduak* deitzen diegun **jurisprudentzi** lana. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jurisprudentzia frantses** (3); **jurisprudentzia frantsesa** (4)

---

# jurista 1 *iz* legelaria.

**Jurista** horien arabera legeek ematen dute horrelako erreferenduma antolatzeko aukera. Berria - Euskal Herria

Araudien interpretazioa **jurista** baten laguntzarekin egin genuen. Berria - Euskal Herria

Hainbat naziotako **juristen** bilgune gisa arituko da batzordea. Berria - Mundua

Iñaki Lasabaster unibertsitateko irakasle eta **juristarekin**. Berria - Euskal Herria

Abokata edo **jurista** ofizioz, orduko auzi handietan ageri da bere hatza, bereziki Nafarroak Espainiarekin izan dituen auzibideetan. Herria

Idazleek erretorika bereziak erabiltzen dituzte, politikoek, **juristek,** teknokratek erabiltzen dituztenetarik ezberdinak direnak. Ana Urkiza

Lege naturalaren aldekoak aro guztietan aurki ditzakegu, Erdi Aroan ere bai: eskolastikoen eta **juristen** artean pil-pilean zegoen auzi hau. Askoren artean

Amerikako **Juristen** Elkarteko lehendakari Beniusz Smuklerrek. Berria - Euskal Herria

**Jurista** talde bat. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa)

Ikuspegi **jurista** beharko nuke horri buruzko balorazioa egiteko. Berria - Harian

Europako Emakume **Juristen** Elkarteko kide da.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **juristen elkarteko** (3); **juristen nazioarteko** (3)

---

# juristiko *izond*

Mediku batek, beraz, epaile batek edo estatu-arazoetan aditua den batek erregela patologiko, **juristiko** edo politiko ederrak izan ditzakete buruan [...] eta, hala ere, beren aplikazioan erraz behaztopatzen dira. Ibon Uribarri

---

# jus 1 *iz ipar* zukua.

Liranja **jusa** eta garagardoa. Herria

Zintzur bustitzea: gingembre **jusa,** bissap, samousas eta accras. Herria

Iparraldean Eztigar koperatibak 58 000 pinta sagarno atera ditu, eta 12 000 pinta sagar **jus**. Herria

Geroztik begi sendagailuan bada **jus** hori hortarik. Herria

'Mango' **jusa** azukreztatuak edan zituzten. Ramuntxo Etxeberri

Ondarkin **jus** hortako mila pintetarik pinta laurden bat baizik ez da gelditzen pozointsu, tratamendu osoa egin eta gero. Herria

**2** *irud*

Antton Lukuren artea sumatzen da lan erraldoi honen gibelean eta gazte hauen **jusa** taularatzeko duen abilezian. Berria - Kultura

---

# justaposizio *iz* ondo-ondoan jartzea, alboratzea.

Osagai heterogeneoen arteko **justaposizioa**. Xabier Arregi

Izan ere, ondoz ondoko enuntziatuen arteko multzokatze-motak ez dira beti berdinak eta ez dute jokatzen, sekula ere ez, segidako osagaien pilatze edo **justaposizio** hutsez. Xabier Arregi

Erro karratuen **justaposizioan** zetzan formularen mekanismoa. Jon Muñoz

---

# justifikaezin *izond* ezin justifikatuzkoa.

Gastu sozial eta ekonomiko **justifikaezinak**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bazterketa arbitrarioa edo **justifikaezina** eragin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Juridikoki **justifikaezina** eta gizatasunaren aldetik onartezina. Berria - Euskal Herria

Iraken aurkako gerra **justifikaezin** eta bidegabea. Berria - Mundua

Andoainen jazotako indarkeria ekintza **justifikaezinak** gaitzestea. Berria - Euskal Herria

Hain egoera prekario eta ilunetan, baikortasun dogmatikoa ezkortasun dogmatikoa bezain **justifikaezina** zen. Iñaki Mendiguren

Lehendakariaren eta Juan Jose Ibarretxe pertsonaren aurkako eraso **justifikaezina** da. Berria - Euskal Herria

---

# justifikagarri *izond* justifika daitekeena.

Bi ikuspegiak berdin dira **justifikagarriak** eta alderanzgarriak. Xabier Arregi

Halako atentatuek bizikidetza eta normaltasuna asaldatzen dute eta ez dira inolaz ere **justifikagarriak**. Berria - Euskal Herria

Fregeren azterketak *a priori* **justifikagarriak** diren proposizio guztiak analitikoak direla dioen enpirismoaren bertsio bat sortu zuen (neurrizko enpirismoa). Askoren artean

---

# justifikatu, justifika, justifikatzen 1 du *ad* zuritu, zurikatu; zuzenetsi.

Indartsuenaren legea **justifikatzen** denean. Askoren artean

Handik lehenbailehen alde egin beharra **justifikatuko** zukeen esaldi baten bila. Ramon Saizarbitoria

Nola **justifikatuko** du bakoitzak, moralki, erabaki hori? Askoren artean

Ez ote du Bossuetek ere jadanik botere bilakatua zen erregearen indarra a posteriori **justifikatu**? Piarres Aintziart

Gurari barregarriak ez zeudelarik ez merituz **justifikatuak,** ez indarrez babestuak. Iñaki Mendiguren

Deliberamendu absolutu horrek zailtasun eta doloreak oro **justifikatzen** zizkidan. Piarres Aintziart

Giza eskubideak ezin dira urratu eta, beraz, ez dago genero indarkeria **justifikatzeko** arrazoirik. Berria - Gaiak

Bertuteen arabera, ez torturatzea **justifikatu** behar badugu, bizitza bertutetsuari horrelako ekintza batek eragin diezaiokeen kaltea **justifikatu** beharko dugu. Askoren artean

Bortxa praktikatu eta **justifikatu,** historiari begiratzen badiozu, balio absolutuekin eta balio erlatiboekin berdintsu egin daiteke, dirudienez. Joxe Azurmendi

Erasoa **justifikatua** dagoela. Berria - Mundua

Proiektu asko ingurumenaren ikuspegitik ezin dira **justifikatu**. Berria - Euskal Herria

Argudio horiek itxuraz ongi garaturik daude, baina **justifikatu** gabeko extrapolazio batean oinarritzen dira. Xabier Kintana

Kontrako tesia **justifikatzen** saiatuko naiz. Xabier Amuriza

Indukzioa **justifikatu** ahal izateko soilik bi aukera ditugu. Askoren artean

Proposizio bat *a priori* dago **justifikatuta** haren predikatu-kontzeptua subjektu-kontzeptuaren barne dagoenean. Askoren artean

Zubererako u > y ordezkatzea zatitu egin behar da fonetikoki **justifikatuko** badugu. Lourdes Oñederra

**Justifikatu** gabeko balio-judizioak ahal bezala ekidin behar dira. Askoren artean

**2** (neure, bere… burua)

Nitaz den bezanbatean, ez dut neure burua bertzeena baino gehiago **justifikatuko**. Jon Muñoz

Neure burua **justifikatu** beharrez. Jon Muñoz

Nahiago zenuen bele izan, zeure burua **justifikatzeko**. Harkaitz Cano

Baina liberatua zenetik asko zaintzen zuen itxura, goiko aginduak dituk, **justifikatzen** zuen bere burua. Jon Alonso

Hainbatek adierazia dute nekaturik daudela beren burua etengabe **justifikatu** behar horretaz. Berria - Euskal Herria

• **3** da *ad*

-Saiatu naiz, baina ez dut terminal berririk lortzerik izan **-justifikatu** zen Dianne-. Fernando Morillo

Fisikak guztiok harrapatu gintuen moduan **-justifikatu** zen. Fernando Morillo

**4** (testu inprimatuak)

Paragrafoak: luzeegiak izatea ez da ez praktikoa ezta itxurosoa ere, ideia zuzen eta zehatz aurkeztea komeni baita. a. paragrafo guztiak **justifikatu** b. izenburuaren hurrengo paragrafoa ez **justifikatu** c. lerro artean tarte eta erdi utzi d. paragrafotik paragrafora bi tarte utzi. Askoren artean

**5** (era burutua izenondo gisa)

Denborarekin, gutxiespen **justifikatu** hori bikoiztu egin zen. Juan Garzia

Hamasen gobernuak, aldiz, palestinarren kontrako erasoen aurrean izandako «eraso **justifikatua»** iritzi dio Tel Aviveko atentatuari. Berria - Mundua

**6** ***ezin justifikatuzko***

Baina garbi dago **ezin justifikatuzkoa** izango litzatekeela animali edo landare-organismoentzat saihestezinak izan litezkeen eboluzio-arauak zibilizazio-prozesuan dauden gizarteak bezain desberdinak diren "espezimenentzat" ere nahitaez aplikagarriak izan behar dutela uste izatea. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a priori justifika** (3)

**uste justifikatua** (3)

**ekintzak justifikatzeko** (3); **erasoa justifikatzeko** (3); **errauste plantak justifikatzeko** (3); **genero indarkeria justifikatzeko** (3); **gerra justifikatzeko** (12); **gerra justifikatzeko erabili** (3); **inbasioa justifikatzeko** (5); **indarkeria justifikatzeko** (3); **itxiera justifikatzeko** (4); **justifikatzeko arrazoi** (4); **justifikatzeko arrazoirik** (4); **justifikatzeko erabili** (3); **okupazioa justifikatzeko** (4)

**a priori justifikatzen** (4); **dena justifikatzen** (3)

---

# justifikatzaile *izond/iz* justifikatzen duena.

Frantzian, akusatuak ez ditu ekartzen bere lekukoak, eta oso arraroa da egintza **justifikatzaileak** deritzenak onartzea. Iñaki Iñurrieta

Baina zailtasun horiez gain badira indukzioaren arazoan beste auzi batzuk zientziaren praktika **justifikatzailearekin** erlazionatuagoak. Askoren artean

XIX. mendeko inperialismo europarraren teoriko batzuen antzera (C. Rhodes) edo Hego Afrikako apartheid politikaren **justifikatzaileen** maneran. Joxe Azurmendi

---

# justifikatze *iz* zuritzea, zurikatzea; zuzenestea.

Itxurazko bi gerla horien **justifikatze** politikoa. Itxaro Borda

*Ad maioren mei gloriam* ari direla esan liteke, bere buruaren goratze eta **justifikatze** etengabe batean. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# justifikatzeke *adlag* justifikatu gabe.

Ez dago ezer objektuen eta nire gogoaren artean: ez dago esperientzia zuzenetik mundu materialeranzko inferentziarik **justifikatzeke** [...] ezta sentimen-datuak legez ezagutzen dugun gauza ziur bakarra onartu beharrik ere. Askoren artean

---

# justifikazio *(orobat **justifikazino** g.er.)* **1** *iz* justifikatzea.

Inbasioaren **justifikazioa** a posteriori etorri dela eman zuen aditzera Londresko diplomaziaren arduradunak. Berria - Mundua

Hiri hartan ikusten nuen guztia iruditzen zitzaidan nire buruaren **justifikazioa** zela, nire konbikzioen, nire lehenagoko egintzen eta nire Luteziaganako amodioaren **justifikazioa** . Matías Múgica

Ahoskera-gertakizunen zio edo **justifikazioa** alderdi fonetikoan kokatzean edo, gutxienez, horrekin lotzean datza naturaltasuna. Lourdes Oñederra

Gizarte honek zapaldu egiten baitzuen eskulan merkea ziurtatzera zuzentzen ez zen jarduera sexual oro, eta erlijioaren beharra baitzuen zapalketa sexualari lege-estalkia eta **justifikazioa** emateko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Arauak ezagutzea, **justifikazioak** egiaztatzea. Xabier Arregi

Esperientzia ez da **justifikazioaren** funtsezko aldea. Askoren artean

Zientziaren Filosofian **justifikazioaren** arazoa legeen eta teorien **justifikazioaren** arazoa da Askoren artean

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Desberdintasunaren nolabaiteko **justifikazio** ekonomikoa. Iñaki Heras

Halako armak deusezteko asmoa izan zen Irak inbaditzeko AEBek eta Erresuma Batuak erabili zuten **justifikazio** nagusia. Berria - Mundua

Sen onaren arabera lotura sinple eta begi-bistakoa denak, **justifikazio** logiko sendoa behar du epistemologoaren ikuspegitik. Askoren artean

Ba al dago argudio induktiboen **justifikazio** fundamentista logikorik? Askoren artean

Horren arabera, **justifikazio** "erabatekoa" behar da proposizioak, egiazko izateko, probabilitate handia izan dezan, baina ez hain "erabatekoa" haren egia bermatzeko moduan. Askoren artean

Lehiakortasunaren diskurtsoa, Krugmanek zorrotz dioen bezala, "neurri jakin batzuk hartzeko edo hartu beharra saihesteko **justifikazio** egoki bilakatu da". Iñaki Heras

Ikasi nuen naski urrikalmendua, konpasioa eta berdin ohargabean pentsatu sentimentu hori dela sufrimenduaren **justifikazio** bakarra. Piarres Aintziart

Usteen benetako **justifikazioak** ezin gaitu erregresiora eraman. Askoren artean

Ba al dago portaera induktiborako **justifikazio** razionalik? Askoren artean

Bi dira aprioriko **justifikazioa** aztertu duten filosofia nagusiak: neurrizko enpirismoa eta razionalismoa. Askoren artean

Inolako **justifikaziorik** gabe. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zorroztasun erregulatzaile hau, ordea, termino epistemologiko hutsetan [...] formulatutako **justifikazio**-testuinguru instituzional baten gain ezarri da. Berria - Gaiak

Bere **"justifikazio**-idatzi"-tik eta prozesu-agirietatik dakigu Eckhartek bere *Kontsolamenduaren liburua* [...] Hungariako Agnes erreginarentzat konposatu zuela. Joan Mari Lekuona

Egon badaude munduak logikoki kontsistenteak diren usteek sortuak, baina **justifikazio**-kasuak ez direnak. Askoren artean

Zientziaren **justifikazio**-auzigunearen arazoak aztertzea. Askoren artean

Balorazio-eremua zabalagoa da: premisak, **justifikazio**-estrategiak, etab. hartu beharko lituzke bere baitan (nola esan, baiezta, onar, froga dezakegu X? zenbateraino da zuzena Y?). Askoren artean

Nobelagileek ez dute inolako **justifikazio** beharrik. Iban Zaldua

Alabaina, existitzen al da **justifikazio**-mota hori? Askoren artean

"Ailegatzen ari gara", esan zuen erizainak **justifikazio** kutsuz. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bizi hatsa nahi dute, bizi bulkada bat, bizi **justifikazio** bat. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aprioriko justifikazioa** (7); **inolako justifikaziorik gabe** (5); **inongo justifikaziorik gabe** (3); **justifikazio bakarra** (5)

---

# justizia 1 *iz* zuzentasuna, bidezkotasuna.

Gogoan izango duzu nola onartu dugun **justizia** bakoitzari berea ematea dela. Imanol Unzurrunzaga

Eta **justizia** nori berea banatzen dion bertutea da. Imanol Unzurrunzaga

**Justizia,** gainerako bertuteak bezala, erdibidean dagoela dio batek baino gehiagok. Joxerra Garzia

Beharbada **justizia** eta zuzentasuna batera doaz, baina ez legeen mende, ez modu zientifikoan ulerturik. Askoren artean

**Justiziaren** bidetik nabil ni, zuzenbidearen erdi-erditik. Elizen arteko biblia

Iragar beza zeruak Jainkoaren **justizia,** Jainkoa bera da epaile! Elizen arteko biblia

Daviden tronuan izango da errege, eta **justizia** eta zuzenbidea izango dira haren erregetzaren oinarri eta sostengu. Elizen arteko biblia

Libertatea eta berdintasuna kontrajartzen ditu, eta, azken batean, libertatea eta **justizia**. Iñaki Heras

**Justizia** samindura bihurtzen dute, eta zuzenbidea hankapean erabiltzen. Elizen arteko biblia

Norbaitek borondate onez -luze hitz egin dugu beronen bikaintasunaz- **justizia** maitasunez besarkatzen badu [...]. Imanol Unzurrunzaga

**Justizian** oinarritutako bakea eraiki behar da. Berria - Euskal Herria

Xalotasun edo sinpletasun santua -graziaren alaba, jakinduriaren ahizpa eta **justiziaren** ama- arreta bereziz bilatzen zuen. Askoren artean

**Justiziari** dagokionez, komeni zaiguna da, funtsean, bidezkoa. Josu Zabaleta

## **2** zuzenbidea ezartzeko ahalmena; ahalmen hori gauzatzea.

Zer ikertu behar du Filosofia Politikoak? boterea, estatumota diferenteak, gobernu-molde hobeak, politika eta etikaren arteko erlazioa, **justizia,** boterearen zilegitasuna, botere horren indarkeriaren erabileraren legalitatea ala ideia politikoak eta ondoriozko ideologiak? Askoren artean

Herritarrek, aldiz, **justizia** neurtzen zuten ez diskurtso pribatuen, baizik Estatuaren legeen bitartez, eta bakean mantentzen ziren ez eztabaidei esker, baizik agintearen indarrez. Esteban Antxustegi

**Justizia,** gizon zibilizatuaren mendekua da, eta mendekua aldiz, gizon basatiaren **justizia**. Patziku Perurena

Ez du adorea galduko, ez etsiko, lurrean **justizia** ezarri arte. Elizen arteko biblia

Inork ez du **justizia** aldarrikatzen, ez auzitegian zuzenbidez jokatzen. Elizen arteko biblia

Errugabea naiz, baina Jainkoak ukatu egin dit **justizia**. Elizen arteko biblia

Lehia judizialaren usadioa gero eta gehiago hedatu zelarik [...] zaila zen pareak biltzea eta, ondorioz, **justizia** banatzeari utzi zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Legeak ez dira botere egintza hutsak, baizik eta zuhurtzia, **justizia** eta arrazoiaren egitateak. Andres Urrutia

Badira, alabaina, gauza batzuk, non **justizia** bera korapilatzen baita bestelako kontuekin, kontu horiek ere jurisprudentziatik kanpokoak direlarik. Andres Urrutia

Kristau sinesmena, edo **justizia** soziala, edo nazioaren independentzia, [...]. Joseba Zulaika

Hiru gorpu daude **justizia** eske, ez ahaztu. Migel Angel Mintegi

Espainia eternoaren bihotzetik heldu da **justizia** betearazten duen maisua. Koldo Izagirre

Betiko **justiziaren** printzipioen arabera. Imanol Unzurrunzaga

Venezuelan ez dago **justiziarik,** polizia jaun eta jabe da bazter guztietan, ezin duzu haien kontra ezer egin. Pako Aristi

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Justizia**-eskubidea galdu zuten horrela, hura erreklamatzeko ez ahalmena ez borondatea zeukatelako. Iñaki Iñurrieta

Krimen bat egin ondoren, **justizia** eskakizuna. Joseba Zulaika

**Justizia**-gosearen su iraungiezinaz. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzerritarrak, zuzenbide zibileko loturarik gabekoak izan eta ez zitzaiela inolako **justizia** edo erruki mailarik ere zor. Andres Urrutia

Libertate maila jakin bat justiziaren onerako mugatu beharra dago, eta **justizia** maila jakin bat libertatearen onerako. Iñaki Heras

Historia guztiak honelako **justizia** ereduz gainezka daude. Juan Martin Elexpuru

Pentsa beza berorrek **justizia**-ekintza dela berdin ordaintzea berdina denari. Jon Alonso

Baina desberdintasuna inefizientea al da, edo, ekonomilari askok errepikatzen duten legez, ekitate eta **justizia** arazoa al dakar soilik? Iñaki Heras

Horrela, **justizia** irizpide batengatik, aldatu egingo du lehen esandakoa. Juan Martin Elexpuru

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Nola aingeruek, jainko-**justiziaren** labana izanik, jasan eta zaindu nauten eta nigatik otoiztu duten. Patxi Altuna

Zein giza **justizia** da, baina, gizakia egiazko Jaungoikoari kendu eta deabru likitsen mende uzten duena? Imanol Unzurrunzaga

Giza **justiziak,** ekintzak baizik ez baititu ikusten, itun bat besterik ez du gizonekin, errugabetasunarena; jainkozko justiziak, aldiz, pentsamenduak ikusten baititu, bi itun ditu, errugabetasunarena eta damuarena. Iñaki Iñurrieta

## **5** ahalmen hori gauzatzen duten erakundeen multzoa.

Epaitu eta urkatuta hil zituen **Justiziak** biak. Iñigo Aranbarri

Lana frango baluke orai **justiziak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Justiziaren** gurpila ez zen hargatik gelditua. Aingeru Epaltza

Abenikoak eta kontratuak zirela-eta, **justizia** laikora jo beharra zenean ere, bi alderdiek hala nahi izanez gero, jo zezaketen eliz epaimahaietara. Iñaki Iñurrieta

Karlomagnoren 806. urteko kapitularrak, elizek beren lurraldean bizi diren guztien gainean **justizia** kriminala eta zibila izan dezatela agintzen du. Iñaki Iñurrieta

**Justizia** gorenaren aginduz bi bihozgabe horiek preso hartu zenituenean. Anjel Lertxundi

Hauexek dira **Justizia** Sailak deportatu dituen gorriak... Lopez de Arana

**Justizia,** beraz [...] feudoari berari zegokion eskubidea zen. Iñaki Iñurrieta

Europako Batasunaren Itunak, labur bilduz, hiru gai nagusi jorratzen ditu: ekonomia, atzerri politika eta segurtasuna, eta barne politika eta **justizia**. Iñaki Heras

Helburua, **Justizia** Administratiboan euskaldunen hizkuntza eskubideak betearaztea da. Herria

Honela, beheko **justiziak** legearen letran -zorrotza sarri- oinarrituta epaitzen duenean, kontseiluak bigundu egingo du epaia. Juan Martin Elexpuru

**justiziaren** eskuzabaltasun gehiegizkoari esker. Anjel Lertxundi

· Elizek, hortaz, **justiziak** zituzten, baita gizon libreen gainean ere, eta beren audientziak izaten zituzten monarkiaren lehen garaietatik. Iñaki Iñurrieta

**Justiziak** bigarren dinastia amaitu baino lehen ezarrita zeudela. Iñaki Iñurrieta

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Justizia**-jendeak atzitu egin zituen. Juan Garzia

Hortaz, zerbait egin nahi duenak, ingurumen txiki batera mugatu behar du, zure iritzian, bere **justizia**-ekimena. Josu Zabaleta

**Justizia** epaitegietako eztabaida bihurtzen da auzi-iheslaria kondenatu beharra ala eza, krimena frogatu gabe egon arren. Juan Martin Elexpuru

Bada ohitura hau laburbiltzen duen esaera bat **justizia** auzitegi guztietan: bere burua konfiskatzen duenak, bere ondasunak ere konfiskatzen ditu. Juan Martin Elexpuru

Nafarroako **Justizia** Auzitegira jo zuten bi emakumeek. Edurne Elizondo

Estatu Batuetako **Justizia** Gorte Gorenera ere jo zuela. Iñigo Aranbarri

Frantziako **justizia** ministroak erran du Frantzia ez dela sekula terroristen "santuario" izanen. Herria

Antzerkirako txartela eskuan zuela, **Justizia** Jauregira eramateko eskatu zion. Karlos Zabala

Dominique Perben **Justizia** ministroak bere kargutik baztertu du. Herria

Joseba Azkarragaeuskal-gobernuko **justizia** sailburuak. Herria

**Justizia** administrazioan euskara erabili ezina. Herria

Alabaina hor, azkartu beharrean, baratzen, **justizia** administrazioaren kate amaigabean. Aingeru Epaltza

## **7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bake-**justizia** ingelesak ez bezala, funtzionario berriak jakintza zuen; *intendant* frantziarra ez bezala, ez zen gobernuaren sorkari hutsa. Iñaki Mendiguren

Elizen lurralde-**justiziaz**. Iñaki Iñurrieta

### 8 *justiziaz* adlag

Eskubidez egingo luke, hau da, inori irainik egin gabe, baina ez **justiziaz,** hau da, ez lege naturalak urratu gabe. Esteban Antxustegi

Nahiago Jaunak gizakiak **justiziaz** eta zuzenbidez jokatzea, sakrifizioak eskaintzea baino. Elizen arteko biblia

**Justiziaz** gobernatzen du mundua, zuzenbidez epaitzen herriak. Elizen arteko biblia

Erabakia baitu mundua **justiziaz** epaituko duen eguna. Elizen arteko biblia

Bidegabekoak **justiziaz** tratatzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

Ordutik hona, atzerritarrak **justiziaz** eta gizatasunaz hartuak izan dira. Andres Urrutia

Epaileak gara, eta **justiziaz** erabakiko dugu. Koldo Izagirre

### 9 *justizia egin*

Gertakariak argitu, biktimei **justizia egin** eta erantzukizunak ebaztea. Berria - Harian

**Justizia egiten** die umezurtz eta alargunari, eta maite du etorkina, jatekoa eta janztekoa ematen dizkiolarik. **Justizia** nola **egin**. Elizen arteko biblia

**Egizu justizia**. Juan Kruz Igerabide

**Egin** biezaie **justizia** herriko dohakabeei. Elizen arteko biblia

-Egunen batean **justizia egingo** dela uste dugu -esan zuen itsuak-. Felipe Juaristi

Azkenean **justizia egin** da, eta indigenek euren lurretara itzultzeko modua izango dute. Berria - Gaiak

Lagundu zapalduari, egin **justizia** umezurtzari, defendatu alarguna! Elizen arteko biblia

Beraz, **justizia egin** zen, zuzenbidez-edo, nahiz eta beranduegi izan Charlierentzat. Mirentxu Larrañaga

· ik beherago 10. Askoren artean

Jaunek beren feudoan **justizia egiteko** eskubidea zuten. Iñaki Iñurrieta

Elizgizonek beren lurraldean **justizia egiteko** zuten eskubideari *inmunitate* deitu zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Gantekoek zuzenbide-akatsagatik deitu zioten Flandesko kondeari erregearen aurrera, hark bere epaitegian **justizia egitea** atzeratu zuela eta. Iñaki Iñurrieta

### 10 *justizia eman*

Beaumanoirren garaian **justizia emateko** bi era zeuden: toki batzuetan pareen bidez epaitzen zen; beste batzuetan, bailien bidez. Iñaki Iñurrieta

**Justizia emateari** uko egiten dion hori behin eta berriro gaitzetsi du Kasazio Auzitegiak. Andres Urrutia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**aguilar justizia ministroak** (11); **askatasuna eta justizia** (6); **azkarraga justizia sailburuak** (15); **bakea eta justizia** (13); **benetako justizia** (6); **eaeko justizia auzitegi** (61); **eaeko justizia sailburu** (5); **eaeko justizia sailburua** (5); **eaeko justizia sailburuak** (12); **egia eta justizia** (15); **egidazu justizia** (5); **espainiako justizia ministro** (32); **espainiako justizia ministroa** (5); **espainiako justizia ministroak** (33); **espainiako justizia ministroaren** (6); **espainiako justizia ministroari** (5); **frantziako justizia ministerioak** (5); **frantziako justizia ministro** (5); **frantziako justizia ministroak** (6); **gizarte justizia** (5); **gobernuko justizia ministro** (5); **israelgo justizia auzitegi** (7); **israelgo justizia ministerioak** (5); **israelgo justizia ministro** (6); **jainkoaren justizia** (7); **jaurlaritzako justizia sailak** (11); **jaurlaritzako justizia sailburu** (25); **jaurlaritzako justizia sailburua** (7); **jaurlaritzako justizia sailburuak** (24); **jaurlaritzako justizia sailburuaren** (5); **jaurlaritzako justizia saileko** (5); **justizia administrazioa** (12); **justizia administrazioa euskalduntzeko** (6); **justizia administrazioak** (11); **justizia administrazioan** (35); **justizia administrazioarekin** (5); **justizia administrazioaren** (15); **justizia administrazioari** (5); **justizia arloan** (10); **justizia arloko** (8); **justizia arruntera** (5); **justizia auzitegi** (133); **justizia auzitegi gorenak** (10); **justizia auzitegi gorenera** (5); **justizia auzitegi nagusiak** (51); **justizia auzitegi nagusian** (9); **justizia auzitegi nagusiaren** (13); **justizia auzitegi nagusiko** (24); **justizia auzitegia** (9); **justizia auzitegiak** (54); **justizia auzitegian** (17); **justizia auzitegiaren** (16); **justizia auzitegiari** (7); **justizia auzitegiko** (6); **justizia auzitegira** (14); **justizia departamenduak** (7); **justizia departamentuak** (6); **justizia egin** (50); **justizia egingo** (15); **justizia egitea** (18); **justizia egiteko** (26); **justizia egiten** (15); **justizia egitera** (7); **justizia epaitegiak** (7); **justizia eskatu** (13); **justizia eskatzen** (12); **justizia eske** (15); **justizia eta askatasuna** (23); **justizia eta bakea** (6); **justizia eta demokrazia** (5); **justizia eta egia** (8); **justizia eta polizia** (13); **justizia eta zuzenbidea** (6); **justizia ezarri** (5); **justizia idazkari** (9); **justizia jauregia** (5); **justizia jauregian** (8); **justizia ministerioak** (30); **justizia ministerioaren** (5); **justizia ministro** (84); **justizia ministroa** (24); **justizia ministroak** (119); **justizia ministroarekin** (6); **justizia ministroaren** (24); **justizia ministroaren arabera** (6); **justizia ministroari** (14); **justizia nahi** (8); **justizia sailak** (27); **justizia sailburu** (35); **justizia sailburua** (20); **justizia sailburuak** (69); **justizia sailburuarekin** (5); **justizia sailburuaren** (19); **justizia sailburuaren esanetan** (5); **justizia sailburuaren iritziz** (5); **justizia sailburuari** (8); **justizia sailean** (5); **justizia saileko** (11); **justizia sistema** (11); **justizia soziala** (38); **justizia sozialaren** (21); **justizia sozialaren aldeko** (6); **justizia sozialean** (6); **kataluniako justizia auzitegi** (5); **nafarroako justizia auzitegi** (44); **nazioarteko justizia auzitegia** (6); **nazioarteko justizia auzitegiak** (28); **nazioarteko justizia auzitegian** (7); **nazioarteko justizia auzitegiaren** (8); **perben justizia ministroak** (7)

**belgikako justiziak** (9); **espainiako justiziak** (31); **frantziako justiziak** (25)

**justizian oinarrituriko** (5); **justizian oinarritutako** (11); **justizian sinesten** (6)

**askatasunaren eta justiziaren** (5); **bakearen eta justiziaren** (5); **egiaren eta justiziaren** (5); **espainiako justiziaren** (8); **gizarte justiziaren** (8); **justiziaren alde** (22); **justiziaren aldeko** (11); **justiziaren aurrean** (20); **justiziaren aurrera** (19); **justiziaren aurrera eramango** (5); **justiziaren bila** (6); **justiziaren esku** (13); **justiziaren ezpata** (5); **justiziaren independentzia** (10); **justiziaren izenean** (5)

**justiziatik ihesi** (6)

**justiziaz jokatzen** (5); **zuzenbidez eta justiziaz** (12)

---

## justiziagile *(orobat **justizia-egile**)* *iz* justizia egiten duen pertsona; kondenatuari zigorra ematen dion pertsona.

Horregatik, jaunok, ez naiz hiltzaile bat, **justiziagile** bat baizik! Koldo Izagirre

-Lisa -esan zion, irribarre zabal batek lagunduta, hau ez dun Hollywood, ezta ni **justiziagile** edo horietako bat ere-. Migel Angel Mintegi

Bi biktimak lotuta eta bizkarra agerian zeudenean, **justizia-egileak,** txapel marraduneko morroiak, mahuka jaso eta makila bat hartu zuen. Koro Navarro

Badaki, halaber, **justizia-egilearen** hitz zakarren atzean, bere haurrideenganako grina lakar eta goxoa begirada batez, bere ahotsaren inflexio batez sumarazten. Monika Etxebarria

---

## justizialista *izond* J. Domingo Perónem erregimena funtsatu zuen ideologiarei dagokiona.

Alderdi **Justizialistaren** barruan talde berria sortu du Carlos Menemek. Berria - Mundua

Gero, Alderdi **Justizialistaren** egoitzara joan zen. Berria - Mundua

---

## justiziatu, justizia(tu), justiziatzen du *ad* exekutatu.

Justiziaren ideia bat behar da eskuarki inor **justiziatzeko**, zor zuen ordaina pagarazteko, erruduna zela eta merezi zuelako segurantzia izateko. Iñaki Segurola

---

## justiziazale *(orobat **justizia zale**)* *izond* justiziaren zale dena.

**Justizia** zaleek erantzun zuten bidezkoa dela eta gizaki horien aldekoa mirabe izatea. Imanol Unzurrunzaga

---

## justiziero *izond* justiziagile gororra.

Nik, ordea, Jainko errukitsu bat sinesten diat, eta ez Jainko **justiziero** bat... Joan Mari Irigoien

---

**justo** *adlag* bidezkoa, zuzena.

Ez dut uste baden gerla saindurik, ez gerla **justorik,** are gutiago gerla garbirik. Herria

Halaber, hauteskunde «aske eta **justoak»** egiteko eskatu zuen. Berria - Mundua

---

**justoki** *adlag* zuzen.

Hain **justoki** bazuen ere bordalde bat oraingo errepidea egina den alderdian. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

**justu** *(orobat **justo**; Euskaltzaindiaren Hiztegian Herr.marka du)* **1** *adlag* zehazki.

"Hogeita hamazazpi minutu behar ditut prestatzeko"; iratzargailuan, **justu** minutu haiek falta ziren zazpietarako. Bernardo Atxaga

**Justu** metro eta erdiko altueran dagoen kutxatilako termometroan. Pello Zabala

Gure geltokia kolegiotik **"justu** 870 pausora" zegoen. Bernardo Atxaga

Gudu-lerroa **justu** bera jaio zen lurraren aurrez aurre zegoela Bidaniako partean. Inazio Mujika Iraola

"Nondik dakik hik **justu** hidrogenoa eta oxigenoa direla?", esan zidan itxuragabeki. Juan Garzia

Ez dakit egun hartan **justu,** baina eguntsu haietan hasi nintzen sentitzen ordutik utzi ez nauten zorabiotxoak. Anjel Lertxundi

Erregenetatik hilabetera **justu**. Pello Zabala

Candanchu aldean, Riosetan **justu**. Pello Zabala

Berdin-berdin zion nik gauza bat esan edo **justu** kontrakoa [...]. Anjel Lertxundi

**2** bi gauza batera gertatzea adierazteko erabiltzen den hitza.

**Justu** momentu horretan, amerikarra hurbildu zitzaidan argazki bat aterako ote nion galdezka. Ramon Saizarbitoria

Berak ez zuen ezer sumatu; berean ezer ez, haren sukaldean ez da ezer ikusten; **justo** haren suaren azpian izan da... Pablo Sastre

Ipurdia Goioren zakil tentearen **justo** gainean izan zuenean. **Justu** jiratzea baino ez genuen egin haien bila itzultzeko, baina Cesare edo Riccardo hura gugana zetorren jada, poltsa eskuan zuela. Joseba Sarrionandia

**3** ozta-ozta

Oso **justu** dabil Kimikan. Bernardo Atxaga

**4** ***hain justu*** hain zuzen.

Hain **justu,** katalanak zituen etsairik porrokatuenak. Martin Anso

Eta, hain **justu,** horixe gertatu zen arratsalde hartan. Martin Anso

Leihoa da, hain **justu,** arima sumatzen saiatzeko bide bakarra, jauregia pribatua delako. Martin Anso

-Horixe zen, hain **justu,** behar genuena. Migel Angel Mintegi

Ez lanagatik, hain **justu,** nahiz egia izan oso desatsegina zitzaiola. Bernardo Atxaga

Hauxe baita hain **justu** mahats-biltzearen sasoi zabala. Pello Zabala

Aipatutako modu horretan, hain **justu,** Wendyk aurkikuntza txundigarria egin zuen goiz batean. Julen Gabiria

Eta historia horrexen lehen urratsak dira, hain **justu**. Jose Antonio Mujika

**5** ***hain justu ere*** hain zuzen ere.

Hain **justu** ere, Etxeberri ministroak bere etxolaren luze-zabaletan erakutsi nahi izan zien donapaleutar burugogorrei Erlijioaren indarra. Aingeru Epaltza

Horixe zen, hain **justu** ere, Jüngerren liburuan gehien gustatzen zitzaidana. Migel Angel Mintegi

**6** ***justu-justu**sup_1* ozta-ozta.

**Justu-justu** sartu ziren garaiz, ezkerretara hutsik zegoen ikasgela batera. Iñaki Mendiguren

**Justu-justu** saihestu zuen haren tiroa, berriro makurtuz. Fernando Morillo

Hark bezala **justu-justu** idazten eta irakurtzen zekien jendearekin konparatuz gero, jakituna ere bazen. Ramon Saizarbitoria

**Justu-justu** lortu nuen trena hartzea. Koro Navarro

Ogi puska bat ere **justu-justu** duen errabino batekin errezatzen dugu. Koro Navarro

Pilotak **justu-justu** marraren gainetik balak bezala boteaz. Koro Navarro

Afaria amak prestatu zuen, eta Alberto **justu-justu** iritsi zen esandako ordurako, esertzekotan ginen unean. Juan Kruz Igerabide

**7** ***justu-justu**sup_2* zehatz-zehatz.

Muga, **justu-justu,** eliza aurrean zegok. Pako Aristi

Neska gazte baten erretratua zen, **justu-justu** emakumetzen ari zen unekoa. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**bake justu** (9); **epaiketa justu** (8); **epaiketa justu bat** (5); **gizarte justu** (5); **hain justu** (743); **hain justu ere** (84); **indarrez justu** (4); **justu antzean** (23); **justu eta doi** (4); **justu ibili** (6); **justu justu** (70); **justu justuan** (8); **justu kontrako** (5); **justu kontrakoa** (30); **justu kontrakoa gertatzen** (4); **justu samar** (14); **justu une hartan** (4); **nahiko justu** (11); **oso justu** (7)

**epaiketa justua** (10); **ez da justua** (15); **jaungoikoa justua** (4); **justua izan** (17); **justua izatea** (5); **justua izateko** (4)

**gizarte justuago** (4)

**banaketa justuagoa** (4); **gizarte justuagoa** (4)

**askeak eta justuak** (4)

**justu justuan** (8)

---

**justuki** *adlag* justu, hain justu.

**-Justuki** ikustaldi hitzordua daukat etzi; joanen gara elkarrekin nahi baduzu. Itxaro Borda

**Justuki** 35 urte lehenago -1521eko maiatzaren 19an, beraz- Iruñean sartu zen Asparrotsen armada. Aingeru Epaltza

Hauxe da **justuki** zinezko Espainia. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**hain justuki** (7)

---

**jute** *iz*

India, kotoi- ehunen esportatzaile izatetik, inportatzaile izatera igaro zen 1830ean, Ingalaterrak, aldi berean, esportazioko laboreen garapena sustatzen zuelarik (tea, kafea, **jutea,** kautxua, opioa eta kotoi gordina, ingeles fabriketarako), bere produktuen salmenta finantzatzeko. Koro Navarro

**Jutezko** ehunez papereztaturiko hormak. Joseba Urteaga

Patata zakuak egiteko erabiltzen den **jute** horretaz eginak ematen dute. Josu Zabaleta

---

# jutsiar *izlag* Jutsikoa, Jutsiri dagokiona; Justiko herritarra.

Han zagon Pierra Laco **jutsiarra,** gure berriketaria. Herria

Gertakari horrek merezi zuen egun berriz aipatzea eta plazer dut **jutsiarren** izenean zorion hoberenak eskaintzea. Herria

---

# juxtu 1 *adlag adkor* justu.

**Juxtu** egunsentia baino lehenxeago, orduan hotzik handiena. Joxe Austin Arrieta

Nondik bizi? bizitzeko adina **juxtu** irabazten dut. Iñaki Zabaleta

**-Juxtu** oporrak hasi baino lehentxeago. Jesus Mari Mendizabal

**Juxtu** kontrakoa esango genuen gutako askok, ni tartean nintzela. Harkaitz Cano

Baina gaitza, **juxtu** alderantzizkoa da. Patziku Perurena

Beti presaka, beti denboraz **juxtu..** . Andoni Egaña

**Juxtu-juxtu** izan nuen eskatzeko denbora: [...]. Aingeru Epaltza

Eta **juxtu-juxtu** epaia irakurri eta segituan Mona altxatu zen. Fernando Rey

Hilabete batzuk egin zizkian hantxe, ez zakiat **juxtu** noiz arte. Jokin Urain

**2 *hain juxtu*** ik **justu 3.**

Hain **juxtu** horrexegatik, indartsu direlako janzten zituzten adjektiboz gerra kronikak gure prentsaren aitzindari haiek. Iñigo Aranbarri

-Hona, hain **juxtu,** pinturari buruzko zerbait. Monika Etxebarria

Schumacherrek eraman ninduen bekatuaren paradisura, Schumacherrek abandonatu ninduen gau hartan Tino topatu behar nuen tokian hain **juxtu** . Fernando Rey

Gaur hain **juxtu** . Monika Etxebarria

**3 *hain juxtu ere*** ik **justu 4.**

Hain **juxtu** ere, honanzkotan, beila batekin topo egin diat. Juan Garzia

Hain **juxtu** ere edari miserian geundean! Aingeru Epaltza

Ez dakit hain **juxtu** ere zergatik. Joxe Austin Arrieta

Ez zen, hain **juxtu** ere, hitzordura neraman xedea. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hain juxtu** (115); **hain juxtu ere** (30); **juxtu alderantzizkoa** (4); **juxtu gaur** (3); **juxtu ibiliko** (3); **juxtu juxtu** (24); **juxtu juxtuan** (4); **juxtu kontrakoa** (7)

---

# juzgaketa *iz* juzgatzea.

Leibniz jaunak eta beste mekanikariek gatazka honetan erabili dituzten frogen **juzgaketa** . Ibon Uribarri

Hauek direla-eta liburu honen **juzgaketan** zenbait sasi-interpretazio sortu baitzazkie, neure erruz agian, gizon buruargi batzuei. beste norbaiten **juzgaketaz** fidatzen denaren begietan. Ibon Uribarri

---

# juzgamen *iz* juzgatzeko ahalmena.

Ahalmen hauek adimena, **juzgamena** eta arrazoimena dira. Ibon Uribarri

Pentsatzea lehenengo kasuan adimenaren funtzioa, **bigarrengoan** juzgamenarena, eta hirugarrengoan arrazoimenarena izango balitz bezala. Ibon Uribarri

Logika orokorrak **juzgamenari** araurik eman ezin badio ere, Logika transzendentalarekin bestela gertatzen da, eta badirudi honek bere benetako zeregintzat duela **juzgamena** adimen hutsaren erabileran erregela determinatuen bitartez zuzentzea eta segurtatzea. Ibon Uribarri

Hauek oro harrezko objektu baten adigaiak dira, eta beren bidez objektu haren begiespena **juzgamenaren** funtzio logikoetako bati begira determinatutzat jotzen da. Ibon Uribarri

Adigai baten erabilerari **juzgamenaren** funtzio bat dagokio. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **juzgamenaren irakaspen transzendentalaren** (3)

---

# juzgarazi *(corpusean **juzkarazi** soilik)* juzgaraz, juzgarazten du *ad* juzgatzera behartu.

Askotan, gure hizkuntzaren egoerak funtzionaltasunaren ikuspegitik **juzkarazten** ditu idazlanak, eta zuhurrak izan behar genuke kontsumismo linguistikoaren iruzurrean ez jausteko. Ana Urkiza

---

# juzgatu, juzga, juzgatzen *(orobat **juzkatu**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **juzgatu** agertzen da, eta **epaitu** hobesten da)* 1 du *ad* epaitu, iritzia eratu, pentsatu.

-Ez **juzgatu** inor, Diego, ez **juzgatu** -ohartarazi zidan eskuineko eskuko hatz erakuslearekin keinu bat eginez. Jon Muñoz

Zentzumenek ematen dizkizuten sentipenen arabera **juzgatzen** duzu. Josu Zabaleta

Eta basoan egoera bat **juzgatzeko** ehiztariak bakarrik duen zehaztasunaz, ohartu ninduan hi hengoen lekutik ezin hiola oreinari apuntatu. Xabier Olarra

Eta idazle batzuek anaia horiek usurpatzailetzat jo dituztenean, aurreiritziz **juzgatu** dituzte herrialde horretako legeak. Iñaki Iñurrieta

Sakrifikatzeko azaldu duen onespenaren arabera **juzgatu** behar da Frantzia. Josu Zabaleta

Urtea bukatzear zela, ordea, **juzgatu** nuen dobleko eskubidea nuela printzeari nirekiko zituen eginbeharrak gogorarazteko. Matías Múgica

Ezta bekatariak badira ere, inork ez ditu **juzgatu** behar, Jaunak beretzat bakarrik gorde baitu haiek juzgatzeko eskubidea. Askoren artean

Jarraitzaile sutsu ero baten lana zirudiela **juzgatu** zuen laguntzaileak. Aritz Gorrotxategi

Haur nintzenean, haur bezala mintzo nintzen, haur bezala sentitzen nuen, haur bezala **juzgatzen** . Elizen arteko biblia

Beraz, zuzenki esan daiteke sentsuek ez dutela erratzen, baina ez beti zuzenki **juzgatzen** dutelako, baizik inolaz ere ez dutelako **juzgatzen** . Ibon Uribarri

Herri-min eta giza min elkartasunezkoak eraginda edo Ogasun Sailak hartaratuta den, ez dagokit **juzkatzea** . Anjel Lertxundi

Une hartan, gauza guztiak bere lekuan zeudela **juzkatu** zuen. Pedro Alberdi

**2** (epaileak eta kidekoek)

Zenbait aitak ez zuten izena eman erroldan, beren jarauntsia alabari utzi ahal izateko; eta pretoreek **juzgatu** zuten hala eginda letra bortxatzen ez zenez, ez zela Lege Vokoniarra bortxatzen. Iñaki Iñurrieta

Erromatarren lege zibilak ez dira beste edozein lege zibil baino aplikagarriagoak; haiek ere ez zituzten aplikatu erregeak **juzgatu** zituztenean. Iñaki Iñurrieta

Bere aulkia hutsik geratu zen eta, legea betez, *en rebeldía* **juzgatu** zuten. Joseba Sarrionandia

Moralak ez du gaiztotasun horren berririk, epaileak ekintzak bakarrik **juzkatzen** baititu. Patziku Perurena

Jaunak beretzat bakarrik gorde baitu haiek **juzgatzeko** eskubidea. Askoren artean

Bestela, historiografo eta epaile ezgaiek besteen oinarrigabeko baieztapenak orobat oinarrigabeak diren beren baieztapenen bidez **juzgatzen** dituzte. Ibon Uribarri

**3** (filosofian)

Espirituaren talentuak (ulermena, asmamena, **juzgatzeko** gaitasuna) edo tenperamentuaren propietateak (erabakimena, intentzioetan tematzea) ontzat har baditezke ere, ezin dira berez on bezala definitu. Askoren artean

Gogoeta transzendental hau betebehar bat da, inor ezin da bera betetzetik aske geratu, baldin eta gauzez zerbait a prior **juzgatu** nahi badu. Ibon Uribarri

Geuk ezin dugu **juzgatu** geure kontzientziatik abiatuta ea arimak garen aldetik iraunkorrak garen ala ez. Asmoa espekulatiboa baino ez denean, beraz, hemen ezin dugu **juzgatu;** ustearen oinarri subjektiboek, sinestea eragin dezaketenek bezala, galdekizun espekulatiboetan ez dute onarpenik merezi. Ibon Uribarri

Testuinguru horretan, ordea, analizatzea ez da deskribapenaren sinonimo hutsa, zerbait gehiago baizik: **juzgatzea,** erkatzea, baloratzea, kontrastatzea, kritikatzea, aztertzea, eztabaidatzea... horretan guztian datza hain zuzen analisia. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **juzgatzeko funtzio** (3)

---

## juzgatze *iz* epaitzea, iritxia ematea, pentsatzea.

Horrela, **juzgatze** oro -zientifiko, etiko, estetiko edo nolanahikoa- balioestea da, hots, subjektuaren apriorizko kriterio edo balioaren (arauaren) arabera kontenplatzea. Joxe Azurmendi

Horregatik, burugabea da Matematika hutsean iritziak izatea; jakin egin behar da, edo bestela **juzgatze** orori utzi egin behar zaio. Ibon Uribarri

---

## juzgu *(orobat **juzku**; Euskaltzaindiaren Hiztegian **juzgu** agertzen da)* **1** *iz* epaia; iritzia. ik **judizio**.

Hagitz zorrotza zen bere **juzguetan** eta mundu guztia ergeltzat hartzen zuen. Fernando Rey

Hain zuzena eta orekatua da bere **juzku** eta epaietan! Anjel Lertxundi

Bere **juzgu** eta iritzi politikoak. Fernando Rey

"Indiferenteok ere nazkagarriak gara", esan liteke agian Célineren **juzgua** osatuz. Bernardo Atxaga

Inoiz ez nion horrelako **juzku** zorrotzik aditu Josefina bere lagun bihotzekoaz. Aingeru Epaltza

Europako kulturetan turkoei buruz dauden topiko, aurreiritzi eta **juzkuen** azterketa bat egiten ari da. Anjel Lertxundi

Baina okertu egiten zen **juzguan** . Bernardo Atxaga

Nire **juzgua** berez bezala zetorren justizia normal, objektibotik, ohiko justiziatik. Matías Múgica

Lege horren izenean modutzen nuen nik nire **juzgua,** nire herio epaia. Matías Múgica

**2** (hitz elkartuetan)

Ongi ateratzen direnak nolabaiteko Jainko-**juzgu** ezin erantzunekotzat hartzen dira. Matías Múgica

Kantek sentiberatasunaren eta adimenaren artean egin zuen bereizkuntzak "gustu-**juzguaren"** azterketari garrantzi handiko lekua emateko aukera eskaini zuen. Josu Zabaleta

**3** ***juzgu egin****sup_1* epaitu; iritzia eratu.

Herriko musika-elkarteak bidalitakoa izango zela egin zuen **juzgu,** diru-laguntzaren bat eskatzeko bide bezala edo. Joxemari Urteaga

Ez du **juzgurik** egiten, ez du epai moralik ematen; bizitzari ebatsitako txaplatak jartzen dizkigu begien aurrean, irakurleak adabaki horiek josi eta nork bere ondorioak atera ditzan. Berria - Kultura

· Gogor zentzatu zuen behartsu batez **juzgu** gaiztoa egin zuen anaia. Askoren artean

-Ez ezazu **juzku** txarrik egin, bere funtsa baitu horrek. Hasier Etxeberria

Gau hartan, bentako nagusia eta maiorala ohe alboan azaldu zitzaizkidanean, **juzgurik** txarrena egin nuen, ukuiluko lanetik bota egingo nindutela pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

Soraberrik, arrazoi osoz, ez egiteko sekula **juzgu** arin eta ausartegirik gomendatu zion bere adiskide Tellagorriri. Koro Navarro

**4** ***juzgu egin****sup_2 (-en atzikiaren eskuinean)* uste izan, iruditu.

Ijitoen **juzgu egiten** zuen, norbait jipoitu nahi balu bezala makulua altxatuz. Joxemari Urteaga

Dendetan txilina joz jolasean ibili ohi zen haur talderen baten **juzgu egin** eta barrurako bidea hartu zuen. Joxemari Urteaga

**5** ***aurre-juzgu***

Musikari buruzko gure iritzi eta **aurre-juzkuak**. Berria - Kultura

Anitzetan, **aurre-juzkuz** beteta dago gure sistema literarioa. Ana Urkiza

Jeronimok ere bizitza arauzkoaren itxura egin behar izan du, eta **aurre-juzku** bat gizendu, bere intimitatea gordetzeko. Anjel Lertxundi

---

## juzkatu ik **juzgatu**.

---